



EUSKO LEWEBILTZARRARENTZAKO

TXOSTENA

1998

EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO
TXOSTENA - 1998. URTEA
ARARTEKOA

© ARARTEKO
Itzulpena: Lurdes Auzmendi eta Koldo Biguri
Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Paper ekologikoa.
L.G.: VI-168/99.



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO
TXOSTENA
1998

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	21
I. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK	25
1. 1998AN ZEHAR BURUTUTAKO EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEN JARRAIPENERAKO OFIZIOZKO JARDUERAK	29
1.1. Aurreko urteetan aurkeztutako txosten berezietan eman ziren aholkuak betetzen diren ala ez kontrolatzeko jarduerak	30
1.1.1. <i>Euskadiko espetheen egoerari buruz egindako txosten bereziaren ondorioz hasitako ekimenen jarraipena</i>	30
A) Alderdi aipagarriak	30
B) Espetxeetako zuzendariak egindako txostenen laburpena ..	34
C) Elkarteez aurkeztutako arazoaren laburpena	37
1.1.2. <i>Arabian aritzen diren sasoikako langileen arazoaren jarraipena</i>	41
1.1.3. <i>Babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako zerbitzuari buruzko txosten bereziaren ondorioz hasitako jardueren jarraipena</i>	45
1.1.4. <i>Zaharrentzako egoitzak kontrolatzeko jardueren jarraipena</i>	49
1.1.5. <i>Hirugarren adinekoentzako egoitzaz kanpoko arreta kon- trolatzeko jardueren jarraipena</i>	53
1.1.6. <i>EAEn babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako arreta kontrolatzeko jardueren jarraipena</i>	56
1.1.7. <i>Kalabozaok eta udal atxiloteta-zentroak kontrolatzeko jar- dueren jarraipena</i>	59
A) Ertzaintzaren kalabozaok	59
B) Udal atxiloteta-zentroak	60
1.2. Adin txikiko arau hausleentzako jarduerari buruzko txosten berezia	67
1.3. Oinarrizko gizarte zerbitzuei buruz egitekoa den txosten monografikoa	70
1.4. Gure erkidegoan buruko gaixotasunak dituzten gaixoei ospi- talez kanpoko zerbitzua eskaintzeari buruz egitekoa den mono- grafikoa	71

1.5. Zadorra sistemako urtegietao uraren kalitatea babesteari buruz egin den txosten berezia	72
1.6. Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialei buruz Arartekoak izandako eskuhartzea	75
1.6.1. <i>Sarrera</i>	75
1.6.2. <i>Informazioa eskuratzeko erabilitako lan metodologia</i>	76
1.6.3. <i>Egindako jarduera polizialen analisisa, ukitutako pertsonen testigantzen arabera</i>	79
A) <i>Hasierako jarrerak eta aztertutako jarduera polizialetarako argudiatutakoa</i>	80
B) <i>“Kalean” izaten diren jarduera polizialen tipologia eta jarduerak jasotzen dituzten erantzunak</i>	81
C) <i>Jarduera polizialak komisaldegietan</i>	83
D) <i>Aztertutako egiteen osteko ondorioak (beste instantzia batzuen partehartzea)</i>	84
1.6.4. <i>Polizi iturrietatik bildutako informazioa inguruan egindako jarduerari buruz</i>	86
A) <i>Zonak duen problematika ikuspegi polizialeetik</i>	87
B) <i>Poliziaren antolaketa (adskripzioa, koordinaketa, prestakuntza...)</i>	87
C) <i>Inguruko gizarte-agenteeekiko harremanak</i>	89
D) <i>Barne kontrolerako bideak</i>	90
E) <i>Jarduera arazotsuen azterketa</i>	91
F) <i>Iritzi orokorra eta hobekuntzarako proposamenak</i>	93
G) <i>Polizia miaketetatik eta estatistiketatik bereizitako datu nabarmentak</i>	95
1.6.5. <i>Arartekoaren txostenaren ondorioak</i>	97
A) <i>Salaturiko jarduera polizialen eta legezko erregulazioaren arteko aldea</i>	97
B) <i>Balorazio orokorra</i>	98
C) <i>Deskribatutako egoera ahalbideratzen duten zioak</i>	99
D) <i>Arartekoaren gomendioak</i>	102
1.6.6. <i>Polizia arduradunekiko elkarlan prozesua</i>	102
1.6.7. <i>Arartekoak Bilboko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailari zuzendutako gomendioak</i>	105
2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATU ETA GIZARTEAREKIKO HARREMANAK SENDOTZEN DITUEN KULTURA SORTZEA HELBURU DUTEN JARDUERAK	118
2.1. Taldeekin, elkarrekin eta gizarte-eragileekin izandako elkarlanerako harremanak	118
2.2. Arartekoaren ikerketa-bekak	124
2.3. Giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskoletan erabili beharreko materiala lantzeko beka	126
2.4. Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen jardunaldia “Giza eskubideen gaurkotasuna eta etorkizuna 50. urteurrenean” gaiari buruz	127

2.5. Giza eskubideei buruzko “Padre Francisco de Vitoria” bilduma eta beste argitalpen batzuk	128
3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK	129
3.1. Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XIII. Jardunaldiak	129
3.1.1. <i>Familia-bitartekotza</i>	129
3.1.2. <i>Herriaren defendatzaileen eta Administrazioaren arteko harremanak</i>	130
3.1.3. <i>Ondorioak</i>	131
3.2. Herriaren Defendatzaileen, Mandatarien eta Giza Eskubideen Batzorde Publikoetako Lehendakarien Federazio Iberoamerikarraren Hirugarren Kongresua	132
3.3. Europako Ombudsmenekin Seigarren mahaingurua, Europako Kontseiluak antolatua	134
3.4. Giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruzko jardunaldiak, Andaluziako Herriaren Defendatzaileak antolatuak	137
II. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR	139
1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	143
1.1. Sarrera	143
1.2. Aukeratutako kexa batzuk	144
⇒ <i>Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen mugaketa</i>	144
2. KULTURA ETA ELEBITASUNA	145
2.1. Sarrera	145
2.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko espedienteak	146
A) Kultura	
⇒ <i>Baldintzak artelanak erostean</i>	146
⇒ <i>Eskolako kirola eta kirol elkarteak</i>	147
⇒ <i>Gizarte taldeek EITBn agertzeko duten eskubidea</i>	148
B) Elebitasuna	
⇒ <i>Behin-behineko neurriak euskararen erabilera bermatzeko</i>	152
⇒ <i>Bitartekorik eza euskararen normalizazioan</i>	153
3. HEZKUNTZA	155
3.1. Sarrera	155
3.2. Aukeratutako kexa batzuk	156
A) Ikasleen onarpena	
⇒ <i>Onarpen-eskabidea ikastetxe publiko batean. Helbidearen ziurtagiria</i>	156
⇒ <i>Ikasleen onarpena: apreziazio libreko irizpideen aplikazioa. Publizitate eta objektibitate falta</i>	158
B) Zigor erregimena	
⇒ <i>Eskubideak eta betebeharrak. Zigor erregimena</i>	159

C) Jantokia eta garraioa	
⇒ <i>Eskola zerbitzu osagarrien antolaketa: jantokia eta garraioa</i>	
D) Ikastetxeak-planifikazioa	159
⇒ <i>Bi urteko ikasleen eskolatzearen planifikazioa ikastetxe publikoetan</i>	162
E) Ikastetxeak-kontserbazioa eta mantenimendua	
⇒ <i>Ikastetxeen kontserbazioa eta mantenimendua Vitoria/Gasteizen</i>	164
F) Irakaskuntza artistikoak	
⇒ <i>Musika ikasketak</i>	166
G) Irakaskuntza unibertsitarioa	
⇒ <i>Deustuko Unibertsitatean alde zurretik ikasitako irakasgaien baliozkotzea</i>	169
⇒ <i>Unibertsitateko master bateko bigarren ikasturterako irispidea</i>	170
4. FUNTZIO PUBLIKOA	172
4.1. Sarrera	172
4.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko espedienteak	174
A) Sarbidea	
⇒ <i>Irakasle elkartuentzako eta bitarteko irakasle titularrentzako lehiaketak EHU</i>	174
⇒ <i>Biologoaren kategoria Estatutupeko pertsonalgoaren mailan sartzeko hautaketa-azterketak. Deialdiaren publizitaterik eza</i>	176
⇒ <i>Tratu txarrak hartutako adin txikikoen udal zentruen kudeaketarako baldintza teknikoaren pleguetan aurrekari penalik ez izateari buruzko eskakizuna</i>	177
B) Karrera	
⇒ <i>A mailako funtzionario andre bat C/D mailako lanpostu batean izendatua</i>	179
C) Hizkuntza-normalizazioa	
⇒ <i>Funtzionario interinoei euskara ikasteko baimena: tratu-desberdin kasu bat</i>	180
D) Eskubideak eta betebeharrak	
⇒ <i>Lan jardunaren murrizketa seme-alabak zaintzeagatik</i>	181
E) Ordezkapenak	
⇒ <i>Funtzionarioen edo lan kontratatatu finioen sarbidea aldi baterako zerbitzu-betekizunetan</i>	182
⇒ <i>Berdinketa hausteko irizpideak aldi baterako kontratazioko zerrendetan</i>	184
5. OGASUNA	186
5.1. Sarrera	186
5.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko espedienteak	188
A) Tasa eta prezio publikoak eta ordainarazpen parafiskalak	
⇒ <i>Hileta-eskubideen eguneratzeagatik tasak Donostiako udal hilerrietan</i>	188
⇒ <i>Prezio publikoak udal igeritokiak erabiltzeagatik</i>	190

⇒	<i>Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkuneen Errekurtso Iraunkorraren subjektu pasibo izatea</i>	191
⇒	<i>Bidaiari-garraioaren tarifen atzeraeraginezko aplikazioa ...</i>	192
⇒	<i>Gas naturalaren hornikuntzagatiko alta eta ikuskapen esku-bideak deritzaien kibraketaren legezkotasun eza EAEn</i>	193
B)	Foru zergak	
⇒	<i>Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak emandako xedapen baten araubidezko jakinarazpenik eza</i>	199
⇒	<i>Suzesioen eta Donazioen gaineko Zergan zergagairik eza</i> .	
⇒	<i>Zerga aukera aldatzea PFEZn</i>	200
C)	Udal zergak	
⇒	<i>Alta likidazioaren banakako jakinarazpenik eza, OHZren Erroldan</i>	202
⇒	<i>Elbarritasunagatiko salbuespena ukatu izana TMIZen</i>	203
6.	HERRIZAINGOA	204
6.1.	Sarrera	204
6.2.	Aukeratutako kexa batzuk	206
A)	Bidezaingoa	
⇒	<i>Egoiliar-txartela lortzeko, ordaindu gabeko isunik ez edukitzea</i>	206
⇒	<i>Ibilgailu bat badaezpada bide publikotik eramatea</i>	208
⇒	<i>Aparkamendu-erregimenak ukitzen dituen eremuetako egoiliarrei TAO ezartzea</i>	211
⇒	<i>Ibilgailuaren jabeak gidaria identifikatu beharra</i>	214
B)	Ordena Publikoa	
⇒	<i>Komisaldegian agertzeko agindua, hainbat diligentzia burutzeko</i>	215
⇒	<i>Falta batengatik atxilotzea</i>	218
C)	Beste zenbait	
⇒	<i>Udal baimenik gabeko etxebizitzetan bizi diren herritarrak erroldatzea</i>	220
⇒	<i>Karabana batean bizi diren herritarrak erroldatzea</i>	222
7.	JUSTIZIA	225
7.1.	Sarrera	225
7.2.	Aukeratutako kexa batzuk	231
A)	Justizia Administrazioaren funtzionamendua	
⇒	<i>Atzerapena espetxeratu batek egindako kexa baten ebazpen judizialean</i>	231
B)	Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak	
⇒	<i>Baliatutako bitartekoen argudiaketarik eta adierazpenik eza prokuradoreen eta abokatuen elkargoen ebazpenetan</i>	232
8.	INGURUGIROA	234
8.1.	Sarrera	234
8.2.	Aukeratutako kexa batzuk	237
A)	Hiri jarduera sailkatuak	
⇒	<i>Jarduerako lizentzian ezarritako baldintzak ez betetzea</i>	237

⇒ <i>Gastronomia elkarte batek eragindako zarata gogaipe</i> nak	238
⇒ <i>Gimnasio batek sortutako zarata-kutsadura</i>	240
⇒ <i>Taberna jarduera batek eragindako zarata gogaipe</i> nak	241
B) <i>Ingurugiro mailako beste arazo batzuk</i>	
⇒ <i>Gasolindegi baten kokapena hirigunean</i>	243
9. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK	246
9.1. Sarrera	246
9.2. Aukeratutako kexa batzuk	246
A) <i>Herri lanak</i>	
⇒ <i>Auzotarrak araztegi bat paratzearen aurka daude</i>	246
B) <i>Zerbitzu publikoak</i>	
⇒ <i>Hilerria tokiz aldatu eta panteoia eskualdatzea</i>	248
⇒ <i>Udalak saneamendu zerbitzua emateko duen derrigortasunari buruz</i>	249
⇒ <i>Hilerriak birmoldatzeaz eta horrek titularren eskubideetan duen eraginaz</i>	250
C) <i>Desjabetzeak</i>	
⇒ <i>Errepide bat bikoizteko eginiko desjabetze baten ondoren sarrera oztopatzeaz</i>	251
D) <i>Garraioak</i>	
⇒ <i>Tarifak gehitzearen aplikagarritasuna</i>	251
10. ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKETA	253
10.1. Sarrera	253
10.2. Aukeratutako kexa batzuk	253
A) <i>Administrazio prozedura</i>	
⇒ <i>Nahitaezko desjabetzako espediente bat elkarte batek eskuratu nahi izana</i>	253
⇒ <i>Informazioa eskuratzeko baimena ukatzea</i>	255
⇒ <i>Beste ikasle baten azterketa ikusteko eskaria ukatu izana</i>	257
B) <i>Administrazio erantzukizuna</i>	
⇒ <i>Administrazio organoek ondasunak bahitzea eta gauzatze-ekintzak burutzea, ezarritako lehentasunezko ordena bete gabe</i>	259
⇒ <i>Bilboko Udalaren ondare erantzukizuna, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontura egiten ari ziren obra batzuen ondorioz mina hartu izanagatik</i>	262
⇒ <i>Probak egin beharra, erreklamatzailleak ondare erantzukizuna frogatu ahal izan dezan</i>	265
C) <i>Administrazio kontratazioa eta ondasuna</i>	
⇒ <i>Kontratuaren arau erregulatzailleetan ezarrita ez dauden irizpideetan oinarriturik dagoen lehiaketa baten esleipena</i>	267
D) <i>Administrazio antolaketa</i>	
⇒ <i>Metro Bilbao enpresaren egoitza barruko erorketek eragindako lesioetatik datorren izaera objektiboko ondasun erantzukizuna</i>	269

11. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA	273
11.1. Sarrera	273
11.2. Aukeratutako kexa batzuk	274
A) Osasuna	
⇒ Erretzen ez dutenen eskubideak	274
⇒ Gastuen itzulketa ukatzea	275
⇒ Botikagaiak ukatzea	276
⇒ Prestazio ortoprotesikoak berritzeko betebeharrak. Salbuespenak	277
⇒ Osasun-laguntza desegokia	278
⇒ Osasun-laguntzen edukia	278
⇒ Osasun-garraioaren edukia	279
⇒ Medikuaren eta gaixoaren arteko konfiantza haustea. Gaixoa tratatzen jarraitzea	281
B) Gizarte ongizatea	
⇒ Kuota murrizketa zenbait arrazoiengatik egoitza kanpo emandako denboraldiagatik	282
⇒ Gizarte zerbitzuak: egoitza plazak lortzea	283
⇒ Elbarri fisikoentzako nahikoa egoitza ez izatea	284
⇒ Hirugarren adinekoentzako egoitza batean sartzeko baldintzak	285
12. LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA	287
12.1. Sarrera	287
12.2. Aukeratutako kexa batzuk	287
A) Laneko seguritatea eta osasuna	
⇒ Amiantoarekiko esposizioarekin zerikusia duten lan arriskuak	287
13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	290
13.1. Sarrera	290
13.2. Aukeratutako kexa batzuk	290
A) Hirigintza	
⇒ Galdakaoko Zuatzaurre auzoko hirigintza-gatazkan egindako bitartekaritza	290
⇒ Udalerriko baserri guztiak konpontzeko garaian usadiozko materialak erabili beharra	292
⇒ Hirigintza-arauak aldatzen direnean eraikitze baimena lortzeko eskubidea	293
⇒ Udalak plan orokorraren hirigintza-aurreikuspenak dagozkion epean bete beharra	295
⇒ Ibaizabal ibaia ubideratu eta gero udalean egiten hasi diren obretako hirigintza-oztopoak	295
B) Etxebizitza	
⇒ Udalak gas-kontagailuen armairua fatxadari atxikia parartzeko baimenik ez ematea	297
⇒ Babes berezikoa izendatu den eraikin bat zaharberritzeko laguntzak ukatzea	298

14. BESTE GESTIO BATZUK	300
14.1. Sarrera	300
14.2. Aukeratutako kexa batzuk	300
⇒ Francoren garaian ezkutuan lan egin zuten andereñoek egindako zerbitzuen aitorpena	300
⇒ Jolas-parke batean sartzeko mugak	301
⇒ Zabor poltsen edukia kontrolatzea, zaborrak uzteko ordutegiak errespetatzen ez direnean arau hausleak aurkitu eta zigortzeko	303
⇒ Pentsionista baten identitatea egiaztatzearekin zerikusia duen arazoa	305
III. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA KOPURUTAN	307
1. OHARPENAK ETA DATU OROKORRAK	309
2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR	312
3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTADISTIKA	314
A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexak	315
B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak	316
C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak	318
D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak	320
E) Euskal Autonomia Erkidegoko justizia Administrazioaren administrazio zerbitzuen aurkako kexak	321
4. LURRALDEEN ARABERAKO ESTADISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)	321
5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA)	324
6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMAZIOA EGITEKO MODUA)	332
7. HARRERA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK)	333
A) Gasteizko harrera zuzeneko bulegoa	335
B) Donostiako harrera zuzeneko bulegoa	337
C) Bilboko harrera zuzeneko bulegoa	338
8. OFIZIOZKO JARDUERAK	339
9. ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZKO BALORAZIOA (KEXAGILEEI EGINDAKO INKESTA)	340
IV. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA	345
1. SARRERA ETA OHARRAK	347
2. ARARTEKOAK 1998AN ZEHAR EGINDAKO INFORMAZIO ESKARIEI ETA ERREKERIMENDUEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA ...	350
A) Eusko Jaurlaritza	350
B) Foru aldundiak	350

C) Udalak	352
D) Beste erakunde publiko batzuk	355
3. ARARTEKOAK 1998AN ZEHAR INFORMAZIOA LORTZEKO EGINDAKO ERREKERIMENDUEN ZERRENDA	356
A) Eusko Jaurlaritza	356
B) Foru aldundiak	358
C) Udalak	360
D) Beste erakunde publiko batzuk	365

V. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN

367

1. ONARTU DIREN GOMENDIOAK	372
A) Eusko Jaurlaritza	372
B) Foru Administrazioa	374
C) Toki Administrazioa	374
D) Eragindako beste erakunde batzuk	381
2. AINTZAT HARTU EZ DIREN GOMENDIOAK	382
A) Eusko Jaurlaritza	382
B) Foru Administrazioa	384
C) Toki Administrazioa	385
D) Eragindako beste erakunde batzuk	387
3. ERABAKI GABE GELDITU DIREN GOMENDIOAK	388
A) Eusko Jaurlaritza	388
B) Foru Administrazioa	391
C) Toki Administrazioa	392
D) Beste hainbat toki erakunde	400
E) Eragindako beste erakunde batzuk	400
4. EUREN EDUKIA BALIOGABETURIK IKUSI DUTEN GOMENDIOAK	401

VI. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK

403

1. LIZENTZIARIK GABEKO SALMENTA IBILTARIARI DAGOKIONEZ POLIZIAK IZANDAKO JARDUERA	405
2. HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOAK AUTONOMIA ERKIDEGOAN DUEN HEDADURA	409
3. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO PROZEDURETAN, LEHENDIK ESKAINITAKO ZERBITZUAK MEREZIMENDU GISA BALORATZEA	419
4. BIDE PUBLIKOAN UTZITAKO IBILGAILUAK KENTZEA	426
5. NAZIOARTE MAILAKO ADOPZIO PROZEDURETAN EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK DUEN JOKAERA	431
6. EAE-N ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA ZERBITZUEN FINANTZAKETAN ERABILTZAILEAK DUEN PARTAIDETZA	438
7. TRATU TXARRAK JASO DITUZTEN EMAKUME ETORKINENTZAKO GIZARTE LAGUNTZAK	444

VII. ATALA. AZKEN ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	455
1. BERDINTASUN PRINTZPIOA	458
2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK	459
2.1. Bizitzeko eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea	459
2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Presoen eta atxilotuen eskubideak	461
2.3. Intimitaterako eskubidea	462
2.4. Komunikabideetan partehartzea edukitzeko eskubidea	462
2.5. Funtzio publikoan sartzeko berdintasun printzipioa	463
2.6. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Errugabetzat joa izateko eskubidea	465
2.7. Hezkuntzarako eskubidea	466
3. HIRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	467
3.1. Kontzientzia eragozpenerako eskubidea	467
3.2. Zergazko sistema zuzena. Berdintasun, progresibitate eta legezotasun printzipioak	468
3.3. Jabetza pribaturako eskubidea	470
4. ESKUBIDE SOZIALAK	471
4.1. Familia babestea. Adin txikikoen eskubideen babesa	471
4.2. Laneko segurtasun eta higienearen babesa	472
4.3. Gizarte segurantzaren erregimen publikoa	473
4.4. Osasunerako eskubidea	474
4.5. Ingurugiro egokiaz gozatzeko eskubidea	475
4.6. Etxebizitza duina izateko eskubidea	476
4.7. Ezindu fisiko, sentsorial eta psikikoen eskubideak	477
4.8. Adinekoen eskubideak	477
5. LABURPENA	478
ERANSKINAK	479
– I. <i>ERANSKINA</i> : “Herriaren defendatzaileek herri-administrazioekin dituzten harremani buruzko gogoeta batzuk” izenburuko ponentzia (Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XIII. Jardunaldiak)	481
– II. <i>ERANSKINA</i> : “Arartekotza eta emakumearen eskubideak” izenburuko komunikazioa	503
(Herriaren Defendatzaileen, Mandatarien eta Giza Eskubideen Batzorde Publikoetako Lehendakarien Federazio Iberoamerikarraren Hirugarren Kongresua)	
– III. <i>ERANSKINA</i> : “Giza Eskubideen ezarpen desorekatua. Funtsezko eskubideak eta askatasunak Espainian” izenburuko hitzaldia	509
(Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzari buruzko Jardunaldiak)	

- IV. ERANSKINA: GRAFIKOAK	521
- 1. diagrama: Arartekoak jasotako kexa-kopuruaren bilakaera (1989-1998)	523
- 2. diagrama: 1998an jasotako kexen egoera onarpen-prozesuaren ondoren	523
- 3. diagrama: Zuzenean izapidetutako kexen banaketa jarduketak alorren arabera	524
- 4. diagrama: Zuzenean izapidetutako kexen banaketa eragindako administrazioen arabera	524
- 5. diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera	525
- 6. diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa sailen arabera	525
- 7. diagrama: Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera	526
- 8. diagrama: Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera ..	526
- 9. diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (1989-1998) ...	527
- 10. diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko	527
- 11. diagrama: Kexen banaketa hiriburutik datozen edo lurraldeko beste udalerribatuetatik datozen kontuan izanik	528
- 12. diagrama: Arartekoak zenbatetan eman dien arrazoia kexagileei 1998an bukatutako kexetan	528
- 13. diagrama: Jasotako kexen banaketa kexagileen ezaugarrien arabera	529
- 14. diagrama: Jasotako kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera	529
- 15. diagrama: Jasotako kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera	529
- 16-17. diagramak: 1998an harrera zuzeneko bulegoetan jasotako bisitak (kopurua eta ezaugarriak)	530
- 18. diagrama: Bisiten banaketa adin-taldeen arabera	530
- 19. diagrama: Harrera zuzeneko hiru bulegoetara joandakoen jatorri geografikoa	531
- 20. diagrama: Kexa bilakatutako bisitak	531
- 21. diagrama: Arartekoaren ofiziozko jarduketak (1998). Banaketa alorrez alor	532
- 22. diagrama: Arartekoaren ofiziozko jarduketak (1998). Eragindako administrazioen araberrako banaketa	532
- 23-28. diagramak: Kexagileek Arartekoaren jarduerari buruz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak)	533
- 29-30. diagramak: Arazoa "ez da konpondu" edo "nahikoa gaizki konpondu da" dioten kexagileek Arartekoaren jarduerari buruz egin duten balorazioa	536
GAIEI AURKIBIDEA	537

AURKEZPENA

Urtean zehar Legebiltzarreko goi ordezkariak egindakoaren berri erakunde horri azaltzeko betekizun demokratiko hau beti da ederra. Baina oraingoan are atseginagoa gertatzen da, izan ere berriki Ararteko erakundeak hamar urte bete baititu. Interesgarria izango da atzera begiratzea, hutsetik abiatuz, Legebiltzarraren babes instituzionalarekin eta lantalde hasberri harren ilusioarekin 1989ko martxoaren 8a geroztik egin den bidea ikusteko. Hiritarrei beraien eskubideen defentsa bermatzeko tresna gehiago eskura jartzeko Konstituzioak eta Estatutuak jasotzen zituzten iragarpenak praktikan gauzatzen ziren Ararteko erakundearen sorrerarekin, zeina sortu eta arautu lau urte lehenago egin baitzen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen bidez.

Jatorri suediarra duen Ombudsman erakundeak arrakasta eta tradizioa eduki du eta mundu osoan izen eta ezaugarri desberdinekin zabaltzen joan den arren, gure artean erakunde berria da. Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratikora eta honek eskubide eta askatasunen bermatzailea izateko ahaleginetan erakutsi dituen gabezieta egokitu nahi du; eskubide eta askatasun horiek gizabanakoen eskubide formalen aitortpen hutsetik doaz eta eskubide sozialek eta egiazko askatasunak osatzen dituzte (Autonomia Estatutuaren 9.2. art.), eta guztiak aginte publikoen benetako betebeharrak dira. Hori da erakunde sortzen duen legeak arrazoietan adierazten duena. Aginte publikoak hiritarren jardueran eskuhartzaile bihurtzen joan direla aztertzen du, Administrazioarekiko menpekotasun harremanak areagotuz. Eta dioenez, egoera horren ondorioz administrazio okerraren egoerei aurre egiteko sistema tradizionalak ez dira nahikoa. Administrazio publikoak interes orokorra defenditzeko orduan jarraitzen dituen prozedura konplexu eta estuak direla medio Administrazioak administratuarengan eragiten dituen arazoak ez dira txikienak, sarritan administratuei kalteak eragiten zaizkielako. Ombudsmanak administrazioaren jokaeraren balorazio alor honetan aurkitzen du Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratikoan funtsezkoa izateko bere arrazoia.

Orain aurkezten dudan urteko txostenean, Arartekoak hiritarren eskubideen defentsan egindako jarduerak biltzen dira hain zuzen. Eta horretarako pertsona erreal eta egiazkoen egoera egiazkoak, ezberdinak, ia beti bereziak jasotzen dira, kexen hautaketan ikus daitekeen bezala (II. kapitulua).

Txostenean, bereziki ofiziozko jarduera eta txosten berezietan (I. kap.), alorrei egiten zaien sarreretan (II. kap.) eta iradokizun eta gomendio orokorretan (VI. kap.) administrazio desberdinen balorazio orokorrak jasotzen dira, eta horien zenbait irizpide edo ohiko praktika batzuen aldaketak iradokitzen dira, eta horien helburu bakarra pertsonen eskubideak hobeto bermatzea da.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zeneko 50. urteurrena ospatu dugu 1998an. Urteurren hau pizgarria izan da instituzio eta gizarte erakundeentzat, aitortpenaren azterketa eta zabaltze lanetan saiatzeko. Arartekoak inizatibak sustatu

ditu, ikastaro eta jardunaldietan parte hartu du hala eskatu dioten gizarte agenteekin lankidetzan.

Baina, batez ere, erakunde hau osatzen duen lantalde osoa urteko egun guztietan lanean aritu da Aldarrikapen Unibertsalak egun daukan esanahia eta balio sakona egia bihurtzeko. Gure Erkidegoan ere pertsona askok beraien eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak eskuratzeko dauzkaten muga eta gabezien aurrean. Horregatik gure lanean garrantzia handia ematen diogu bazterkeria modu desberdinak arintzeko egon ohi diren eskaintza publiko zehatzak ikuskatzeari. Eta baita benetako berdintasunean eskubide zibila gozatzea oztopatzen duten aurreiritzi eta nagikeriei ere.

Giza eskubideen bortxaketaren kontra lana egiteko orduan garrantzitsutzat jotzen dira herrialde bakoitzean erakunde demokratikoak sendotzea, bermeen sistemaren funtzionamendua ziurtatzea, eskubideen kulturaren jendearen heziketa sustatzea eta gizarte arazoak konpontzea. Ararteko erakundearen etengabe ikusten dugu norbaiti eskubideren bat urratu ondoren hori konpondu denean, horrek eragina duela testuinguru zabalago batean, nahiz eta ebazpen zehatzak ez eduki *erga omnes* efektu zehatza. Batzuetan prebentzio modura zabaltzen da, Administrazioaren praktikan, kasu zehatz horretatik abiatuz, eskubideez benetan gozatu ahal izateko arauak interpretatzeko irizpide egokiagoak jarraitzen direlako. Beste batzuetan, antzeko eskuhartzeen ondorioz pilatutako esperientziak arauen aldaketa iradokitzen eramatean gaitu, sarritan legegilearen egiazko borondatek kanpo dauden ondorio kaltegarriei aurre egiteko.

Gauzak hobeto egiten joateko asmoz, Europako Kontseiluak sustaturik Aldarrikapen Unibertsala indarrean sartu eta 50 urtera giza eskubideen babesaren eraginkortasuna ebaluatzeko Estrasburgon irailean egin ziren topaketetan parte hartu genuen. Han adostasun handia egon zen European indarrean dauden tresnak baliagarriak direla adieraztean, baina baita ere esan zen sarritan tresna horiek ez direla nahikoa gertatzen giza eskubideen urratze masiboari aurre egiteko. Jugoslavia ohian gertatutako gerraren gertuko oroitzapenek bertan behera uzten dute Aldarrikapenaren printzipioetatik Europa ezin urrun zitekeela pentsatzera eramatean gintuen itxaropena. Horregatik, Europako Kontseiluaren markoan giza eskubideen urraketa-kasu larriek alde aurretik prebentziozko tratamendu bereziak ezartzeko premia ikusi da. Testuinguru honetan, beraz, arreta berezia eskaintzen zaie egun lankidetzako programei, Torturaren eta Pena edo Tratamendu Basati edo Degradatzaileen Prebentziorako lanei, Europako Agiri Sozialaren arabera egindako jarraipenari, Europako Batzordea arrazakeria eta intolerantziaren kontra egiten ari den lanari eta Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoaren ondorioz sortutako batzorde kontsultiboak sustatutako inizatibei. Hemen dauzkagu hiritarren kexa eta erreklamazioek eskatzen duten berehalakotasuna gainditu eta horietatik abiatuz giza eskubideei, inguruan dabilzkiten arazo estrukturalen eta babestuko dituzten prebentzio lanei buruzko diagnosi osoagoak egiteko aukera emango dizkiguten nondik norako garrantzitsu batzuk.

Bortxaketa horien prebentzio lanetan, Gobernu Kanpoko Erakundeek lan handia egiten dute. Herrialde bakoitzeko gizarte zibilean txertatuta dauden borondatezko talde horiek gabe, nazioarteko inizatibak -baita Aldarrikapen Unibertsala bera ere- ez lirake guztiz eraginkorrak izango. Arartekoarentzat, Gobernu Kanpoko Erakundeekin harreman iraunkorrak izatea gizarte-sentsore paregabeak edukitzeko modurik onena da, egin duten lan gizakoiari omenaldia egiteko eta beraien ekimen eta eskariei laguntza emateko bidea (I. kap.) Garrantzitsua da giza eskubideen babes eta sustapenerako estruktura eta politika publiko guztiek Administrazioetik kanpo dauden agenteen ahaleginekiko topaguneak bilatzea. Lan horrek elkarreagilea izan behar du, alor

honetan lanean diharduten guztien koordinazioak energiak batzea eta ugaltzea lor dezan.

Urteko gure txostenetan ikusten da jasotako kexen hartzaileetan aldian aldian aldaketak daudela, eta aurten Herri Administrazioak jaso ditu kexen artetik ia erdiak. Estatu sozial bateko hiritar modura exijitu ditzaketen eskubideekin lotutako arazoak gero eta ugariagoak dira gure eguneroko lanean. Zergei dagozkien betebeharrak, osasun asistentzia, hirigintza eta etxebizitza eta ingurugiroaren kalitatea dira hiritarrek Arartekoaren aurrean azaltzen dituzten kezka nagusiak. Gure estatistiken serie diakronikoek enpirikoki erakusten dutenez, gizarte eskubideek nolabaiteko atzerapena daramate eskubide sozial eta politikoekin konparatuaz, eta hori horrela da bai ikuspegi kontzeptualetik, bai eskubide horiek praktikan jartzeko edo gizartearen sentiberatasunaren aldetik. Nazioarteko babesari dagokionean, bigarren belaunaldiko eskubideak deitzen direnak, hots eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak bere egin izana da Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren benetako berrikuntza. Eskubide horiek jaso izana guztiz garrantzitsua gertatu zen, izan ere pertsonaren duintasun eta garapenari berez dagozkion eskubideen gozamina hori lortzeko ingurune ekonomiko, sozial eta kulturalak bitartekoak jarri ahal izatearekin lotzen duelako (22. art.). Eta neurri batean, baldintzatu egiten du.

Arrazoi horregatik, sekula ez dugu behar adina azpimarratuko askatasunaren eta gizarte eskubideen artean dagoen elkarrekiko menpekotasuna. Horiek dira gaur egun arreta eta konpromezu berezia behar dutenak, behar adina garatu gabe daudelako. Dagoen desfase historikoa zuzendu eta bermerako tresneria orekatzeko diskriminazio positibo antzeko baterako deia da hau. Eskubide sozialak errespetatu nahi badira, garbi argitu behar dira, gutxienez, betebeharraren gutxieneko mugak, eta horien azpitik egiten diren eskubide horiekiko urraketak nabarmenak izango lirarteke.

Mundu zatitu batean bizi gara. Aberastasuna pobreziatik, kultura analfabetismotik, osasuna pandemietatik aldentzen dituzten paralelo eta meridianoz banatua. Eta haustura hori neurri batean gure euskal gizartean ere gertatzen da. European «laugarren munduaz» hitz egiten hasiak dira «lehen munduan» sortzen ditugun bazterkeria poltsa handiei deitzeko. Beraz, aginte publiko guztien zeregina da gizartearen dualtasun honen arrazoi estrukturalak zuzenduko dituzten neurriak sustatzea, ondoriorik lazgarrienak arindu daitezen.

Lan amankomun horretarako ekarpen gisa, legeak Arartekoari eskatzen dio euskal administrazio publikoak ikuska ditzala hiritarren eskubideak sustatzeko eta babesteko. Gure jarduerak Administrazioak egiten duenarekin bat egin nahi du, eta, orobat, pertsonei eskaini beharreko arreta hobetzeko iradokizun eta gomendioak emango dituen zerbitzu instituzionala izan nahi du. Lankidetzari hori, nahitaez legearen aginduz kritikoa dena, batzuetan deseroso bezala senti daiteke. Baina, halere, hiritarrek beraien eskubideak babestuta edo berreskuratuta ikusten dituztenean sentitzen den poza da elkarrekiko lankidetzaren eraginkortasun frogarik onena. Txostenean jasota geratzen da elkarrekintza emankor horren kronika. Pertsonen zerbitzura.

1999ko martxoa
Xabier Markiegi Candina
ARARTEKOA

I. ATALA
**ARARTEKOAREN JARDUERA
NAGUSIAK**

Atal honetan, Arartekoaren erakundeak, hiritarrek aurkezturiko erreklamazio espedienteak izapidatzeaz gain burutu dituen jarduketak islatu nahi dira. Jarduketa horiek oso garrantzitsuak dira, hiritarren eskubideak bermatzeari begira erakunde honek izendatuak dauzkan helburuak lortzeko.

Atal hau hiru zati nagusitan egituratzen da: lehenbizikoan 1998. urtean zehar burututako edo hasitako ezohiko txostenak aipatzen dira, baita ofiziozko jarduketak ere, aurreko urteetan aurkezturiko ezohiko txostenen jarraipena burutzera bideratuak.

Bestetik, area ezberdinetan sar daitezkeen ofiozko jarduketa zehatzak III. atalean aipatuko dira.

Txostenaren lehen atal honetan, beraz, aurreko urteetako ezohiko txostenean emandako gomendioak bete diren zaintzeko jarduketak aipatzen dira.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan arau urratzeren bat burutu duten adin txikikoei arreta eskaintzeari buruzko ezohiko txostenaren aipamen xehekatu bat egiten da. 1997ko txostenean aipatu genuen lan hori, eta 1998ko abenduaren 21ean Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari eman zitzaion.

Halaber, Zadorrako urtegietan uraren kalitatea babesteari buruzko txosten bat aipatzen da, 1998. urtean amaitua eta egun itzultzeko dagoena, Eusko Legebiltzarrean 1999ko lehen hilabeteetan aurkeztuko delarik. Txosten horretan ingurune urtarra eta bere ingurua deskribatzen da, uraren kalitateari buruzko azterketa ekologiko bat eginez eta uraren errejimen juridikoa eta bere eskumen-banaketa aztertuz.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko oinarritzko gizarte zerbitzuei buruz azkenik 1998ko azaroaren hasi zen monografikoarekin loturik laburpen txiki bat egiten da, beharrezkoa izan baitzen alde aurretik aukera metodologiko ezberdinei buruzko azterketa bat egitea konplexutasun honen azterketari ekiteko orduan.

Azkenik, gure Erkidegoan buruko gaixotasuna dutenen ospitalez kanpoko arretari buruzko lan monografiko baten hasiera azaltzen da, 1991an Arartekoak ospitale psikiatrikoetan zeuden buruko gaixoen egoerari buruz egindako ezohiko txostena osatzeko asmoa duena.

Lehen atal hau amaitzeko, Bilboko San Frantzisko auzoan pertsona atzerritarren gaineko jarduketa polizialei buruz Arartekoak egindako txostenaren laburpen oso xehekatu bat gehitzen da.

Atal honetako bigarren zati batean, giza eskubideen babesaren aldeko kultura indartzera bideraturiko ekintzak biltzen dira. Arartekoaren erakundeak euskal gizarteko sektore aktiboekin -taldeekin, elkarteekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin- izandako harremanen berri ematen da, erakundea gizarte zibiletik gero eta hurbilago dagoela erakutsiz, haren arazoak eta nahiak hobeto ezagutu eta bideratu ahal izateko.

Halaber, aurreko urteetan burututako jarduketei jarraipena ematen dieten zenbait ekimen ere biltzen dira, hala nola giza eskubideen inguruko ikerketa-beka baterako deialdia edota giza eskubideen heziketari buruz eskolan erabiltzeko materialak prestatzeko beste bat, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrena dela eta. Hain

zuzen ere, hain data ospetsuaren ospakizunak direla eta, Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen esparruan, "Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren gaurkotasuna eta etorkizuna bere 50. urteurrenean" izenburua duen jardunaldi bat burutu zen.

Bigarren atal honekin amaitzeko, hirugarren atal bat gehitzen da, eta bertan, Arartekoaren erakundeak, bere lan bera burutzen duten beste erakundeekin izandako erlazio eta/edo elkarlan jarduerak deskribatzen dira, bai estatu mailakoekin eta baita Europa eta mundu mailakoekin ere.

Apartatu honen xedea, garrantzi eta esanahi berezia duten gai jakin batzuen aurrean defendatzaile guztiek hartutako erabakiak azpimarratzea da, eta baita Arartekoak topagune horietan izandako zenbait partehartze transkribatzea, interesgarria izan baitaiteke partehartze horiek txosten honetan jasotzea.

1. 1998AN ZEHAR BURUTUTAKO EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIEN ETA AURREKO TXOSTENEN JARRAIPENERAKO OFIZIOZKO JARDUKETEN AZTERKETA

Arartekoaren erakundea sortzen eta arautzen duen 3/85 legearen 17. artikulua esaten du, Arartekoak “*ofiziozko jarduketa bat burutu ahal izango duela, bere baliabideen bitartez egoera irregularren baten berri izaten duenean*”.

Ofiziozko jarduketak geroz eta garrantzi handiagoa hartuz joan dira. Horiek dira erakundeak ematen duen erantzuna, administrazioaren jarduketa batek zenbait eskubide zapatzen dituela edo jarduketa hori arauz kanpoko delata eta haren aurrean zerbait berehala egin behar dela ikusten duenean.

Arartekoaren jardueraren zati nagusia hiritarrek aurkezturiko erreklamazioei erantzutea bada ere, ofiziozko jarduketek ere oso garrantzi handia dute, jarduera publikoaren alor jakinetan modu planifikatuan eta globalizatzailean parte hartzeko aukera ematen baitute, norbanakoek edo erakundeek aurkezturiko erreklamazioak erantzuten direnean egin ezin den gauza.

Arartekoaren jarduketa administrazioaren ekintza jakin bati buruzkoa ez denean, baizik eta administrazioaren alor edo gai bat aztertzeko helburua duenean, orokortasun asmo garbia duten zenbait txosten monografiko zehatz egitera jotzen da, eta oro har, 3/85 Legearen 33. artikuluan aurrikusitako ezohiko txosten gisa aurkeztu ohi dira formalki. Lan monografiko hauetako gehienek gure gizarteko talderik babesgabeenak zein egoeratan aurkitzen diren aztertzea dute helburu.

Erakundeak helburu bezala hartu du urtero, gutxienez, gure gizartean egoera kaskarrena bizi duten taldeen egoerari buruzko ikerketa zorrotz bat burutzea. Ikerketa hori txosten monografikoan islatzen da, eta ezohiko izaeraz, Eusko Legebiltzarrean aurkezten da txostena.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko atxiloketa guneen egoera, bai udaltzainenak eta baita Ertzaintzarenak ere, egoitza psikiatrikoetan dauden gaixoen egoera eta Hirugarren Adinekoentzako egoitzak izan ziren aurreko urteetan buruturiko txostenetan landu ziren gaiak.

1996an Eusko Legebiltzarrean 1995ean buruturiko txosten monografikoak aurkeztu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoan Hirugarren Adineko pertsonen eskaintzen zaien ez-egoitzetako laguntzari eta kartzelei buruzkoak.

1997an, Eusko Legebiltzarrean aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eta babesik ez duten adin txikikoei buruzko txostena aurkeztu zen, eta arau urratzeren bat burutu duten adin txikikoen egoerari buruzko txostena burutu zen.

Arestian aipatu dugun moduan, 1998ko ekitaldian zehar, arau urratzeren bat egin duten adin txikikoekin burututako jarduketei buruzko txosten bat eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari.

Gainera, 1998. urtean zehar ofiziozko 52 jarduketa zehatz hasi dira. Txosten monografikoetan azaltzen den jardueraren baten jarraipena egiten ez duten ofiziozko jarduketa zehatzak ez dira atal honetan lantzen, hirugarren atalean baizik. Horrela, ofiziozko jarduketa bakoitza, dagokion arean lantzen da, gai berari buruzko kexa espedienteekin batera.

Hala ere, atal honek bilduko ditu 1998an aurrera eramandako jarduketak, orain arte buruturiko txosten monografikoen jarraipena eginez.

1.1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIETAN EMATEN DIREN AHOLKUAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK

1.1.1. EUSKADIKO ESPETXEEN EGOERARI BURUZ EGINDAKO TXOSTEN BEREZIAREN ONDORIOZ HASITAKO EKIMENEN JARRAIPENA

Erakunde honek Euskadiko espetxeen egoerari buruz egindako txosten berezia Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zitzaion 1996ko martxoan. Txosten horretan Euskal Autonomia Erkidegoko hiru espetxeetako egoeraren deskribapena egiten zen, eta preso zeuden pertsonen egoera hobetzeko zenbait gomendio ematen ziren.

Geroago, urte horri berari zegokion ohiko txostenean, Arartekoak administrazioen aurrean egindako lanen berri eman eta txostenak arlo jakin batzuetan eragindako polemikari buruzko informazio zabala eskaini zen (ikus 96ko Txostena, 33-49 or.).

Bestalde, iazko txostenean, erakunde honek egindako lanei buruzko azalpen laburra egin zen. Lan horiek guztiak, txosten horretan bertan adierazitako egoera hobetzeko asmoz burutu ziren. Txostenean alderdi on batzuk nabarmendu ziren (preso kopurua gutxitzea, osasun zerbitzuan egindako hobekuntzak, mantentimendu obrak, zerbitzu batzuei buruzko informazioa...) eta batez ere, espetxe bakoitzari buruzko datu eguneratuak eskaini ziren (Basauri, Martutene, Langraiz), honako bide hauek erabiliz:

- espetxeetako zuzendariek egindako txostenak;
- preso daudenen aldeko elkarteek hainbat bileretan adierazi dizkiguten arazoak eta kezak;
- Osasun Sailak 1997an eskaini dituen osasun prestazioei buruz egindako txostena (ikus 97ko Txostena, 29-41 or.).

Aurten ere, gure espetxeen egoeraren jarraipena egiteko, eta bereziki Eusko Jaurlaritzak eta Barne Ministerioak espetxeei buruz egin duten Hitzarmen-Ereduan adierazten diren arloak zertan diren ezagutzeko, Arartekoak informazioa eskatu die Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari (Hitzarmen horren arabera, Gobernuaren departamentu ezberdinek sustaturiko jarduketak koordinatzeko lana Sail horixe baitagokio) eta baita hiru espetxeetako zuzendariei ere, Gobernuko delegatuordeen bitartez. Halaber, lan bilerak egin ditu presoan aldeko hogeita bat elkarte eta talderekin.

Lortutako informazioen laburpena egin aurretik, kontuan hartu beharreko gai batzuk aipatu behar ditugu, aurten garrantzi handia izan eta Arartekoak horietan esku hartu baitu.

A) ALDERDI AIPAGARRIAK

1. Gogoratu beharra dago, berriz ere, espetxe arloko eskumenez jabetzea lehenbailehen bete beharreko eginkizuna dela. 1996ko txosten berezia egin zuenetik, Arartekoak urtero-urtero azpimarratu izan du gai hori.

Erakunde honen iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoak espetxe arloari dagozkion eskumenak bere gain hartzen dituenean bakarrik lortu ahal izango dute gure erakundeek espetxeetako egoera hobetzeko inplikazio eta erantzukizun maila

handiagoa izatea. Ez da inolaz ere berme bat, baina bai, ordea, behar-beharrezko baldintza bat, gaur egun elkarlanerako ditugun baliabideetan (Eusko Jaurlaritzaren eta Barne Ministerioaren arteko hitzarmenetan) aurkitzen ditugun mugak gainditzeko eta konplexutasun handiko egoera bat nabarmenki hobetzeko.

Horregatik, txosten honetan berriro gogorarazi behar dugu eskumen horiek lehenbailehen eskualdatu beharrekoak direla, eta Euskal Autonomia Erkidegoari espetxe gaietan dagozkion eginkizunak berehala eskualdatzea lortu behar dela.

2. Eusko Jaurlaritza eta Barne Ministerioaren arteko hitzarmenetan aurreikusitako lankidetzak-erabakiak benetan gauzatu ahal izateko, horietan parte hartzen duten bi aldeek borondate osoz jokatu eta beren harremanak hobetu behar dituzte. Eskura ditugun informazioen arabera, 1998. urtea ez da lankidetzak hitzarmenetarako oso urte ona izan. Nolanahi ere, aurreko urteetan hasitako lankidetzari eutsi badiote ere, ez da beste inolako esperientzia edo jarduera berririk abiarazi, osasun arloan izan ezik.

3. Ararteko erakundeak zuzenean parte hartu du Basauriko Espetxean xiringak trukatzeko Programa experimentalaren Jarraipen Batzordean, eta horren alderdi onak ikusirik, gaia bultzatu eta beste espetxe batzuetara zabaltzeko aukera ikusten dugu.

Gogoan izan behar dugu, programa hori abian jarri ahal izateko, pertsona, elkarte eta erakunde askoren ekimenak eta eskariak bideratu behar izan zirela: presoak berak, presoen aldeko elkarteak, Eusko Jaurlaritza, Arartekoa bera...

Programa hori Basaurin ezarri zen 1997ko uztailan, eta ordutik hona izan dugun esperientziaren arabera honako baieztapen hauek egin ditzakegu:

- Espetxe baten barruan izaten diren baldintza bereziak kontuan izanik, xiringak trukatzeko programa bideragarria da.
- Horrelako programa batek ondorio positiboak ditu; batetik, droga hartzen dutenengan zuzeneko eragin positiboa duelako (arriskuak gutxitzea, osasun-zerbitzuekin harremana izatea, programa osatuagoak egiteko aukera...) eta bestetik espetxeke beste pertsona batzuegan, preso nahiz profesionalengan eragin positiboa duelako.
- Programa ezarri zenetik ez da aipatzeko moduko arazorik sortu.
- Horrelako ezaugarriak dituen programa bat merke samarra da.
- Era askotako zerbitzuek eta administrazioek har dezakete parte programan.
- Espetxeak berak, eta bereziki bertan lan egiten duen pertsonalak programan zuzenean parte hartzea oso garrantzitsua da.

Programaren alderdi onak ikusirik, Arartekoak honako proposamenak egin ditu:

- Xiringak trukatzeko programa beste espetxe batzuetara pixkanaka zabal dadin eskatzea, eta gure kasuan, Martuteneko eta Langraiz Okako espetxeetan, bertakoen onarpena jaso bezain laster zabal dadila.
- Gainerako Herriaren Defendatzaileei programak dituen alderdi onen berri ematea, bakoitzak bere lurraldean antzeko ekimenak bultzatuz. Alde horretatik, Arartekoak programari buruzko informazioa eskaini die Europako Herriaren Defendatzaileei, Europako Kontseiluak antolatutako Europako "Ombudsman" en 6. Mahainguruan (Malta, 98ko urria), eta zuzenean eman die informazioa hala eskatu dioten Herriaren Defendatzaile guztiei.

4. Osakidetzak espetxeetan eskaini dituen osasun prestazioei buruz iaz egindako txostenean ikus daitekeenez (ikus 97ko Txostena, 42-43 or.) zerbitzu batzuk aski mugatuak dira. Laguntza psikiatrikoa har dezakegu horren adibide gisa. Aurtan, Salhaketa erakundeak eta Bizkaiko Hiesaren Aurkako Batzordeak, hiru espetxeetan dauden pertsonen eskaintako laguntza psikiatrikoa hobetzeko eta areagotzeko proposamen arrazoitu bat aurkeztu zioten hainbat erakunderi. Aipaturiko elkarteek hala eskaturik, Arartekoak beren ordezkariekin bildu eta gai horri buruzko kexa bat helarazi zion Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari. Osasun Sailak erantzun zuen nahikoa iruditzen zitzaiola, hitzarmenaren arabera, Osakidetza eskaintzen ari zen laguntza; gai horretan desadostasuna zegoenez, erakunde honek hitzarmenaren jarraipenerako batzordearen hurrengo bileran gai hori eztabaidatzea proposatu zuen, eta orain arte behintzat ez dugu bileraren emaitzaren berririk izan. Bestalde, elkarte horiek proposamen zehatzago bat prestatu eta Legebiltzarreko taldeei aurkeztu zieten, azter zezaten. Duela gutxi, talde horietako batek ez-legezko proposamen bat aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean, Euskadiko herri-administrazioek Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan buru-osasunari dagokionez duten eginkizunari buruz (Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofiziala, 1999ko urtarrilaren 22a, 10. zk.). Horri esker, oraindik konpondu gabe dagoen garrantzi handiko gai hori konponbidean jartzeko aukera izango dugu, erakunde honen ustez.
5. Presoek edo presoek senitartekoek urtean zehar erakunde honetan aurkeztu dituzten kexak ezin dira, inolaz ere, kexatzeko egon litezkeen arrazoen lagin adierazgarritzat hartu. Hala ere, oraindik konpondu gabe dauden arazoak adierazgarri izan daitezke. Horrela, bada, jasotako kexa horietan, urtez urte gertatzen diren eta pertsonen eskubideei zuzenean eragiten dieten arazoak aipatzen dira: beste espetxe batzuetara lekualdatzea, senitartekoengatik urrunaraztea, espetxean duten egoerari buruzko informazio ez ematea, legean aurreikusitako espetxeetako onurak ez aplikatzea... (Ikus txosten honetako II. kapituluaren Justizia arloari dagokion sarrera).
6. 1998. urtean Txagorritxu Ospitalean zaintza bereziko ospitale unitate bat egokitzeko aurreikusitako eraberritze lanak amaitu dira. Unitate hori, batez ere Langraiz Okako Espetxean ospitaleratu beharra daukaten gizonezko eta emakumezko presoek arreta eskaintzeko erabiliko da. Zerbitzu hori 1998ko urriaren 1ean erabiltzen hasi zen. Geroago, Langraizko Espetxeko emakumezko preso batek, Txagorritxuko Ospitaleko unitatean egon ondoren, unitatearen egoera txarrari buruzko kexa agertu zuen. Horren ondorioz, Arartekoak ofizioski jarduketa bat abiarazi eta zerbitzu horiek bisitatzea erabaki zuen. Gerora, elkarte batzuek kexa bat aurkeztu zioten erakunde honi. Ararteko erakundeko pertsonala iazko abenduaren 16an izan zen Txagorritxuko Zaintza Bereziko Ospitale Unitateko zerbitzuak ikusten, haien egitura eta funtzionamenduari buruz ahalik eta informazio gehien biltzeko asmoz. Horretarako instalazioak ikusi, une horretan unitatean elkarrizketa bat egin ahal izateko moduan zeuden bi gaixoeekin hitz egin, zentroko arduradunekin, bertako pertsonal sanitarioarekin eta txanda horretan zeuden ertzainekin bildu, eta erregistro-liburu ezberdinak ikuskatu zituzten. Gero, azken urteetan ospitale-zerbitzuaren erabilerari buruz bildutako datuak aztertu eta pertsonal sanitarioarentzat eta zaintzako ertzainentzat idatzitako arauak edo irizpideak ikusi ziren. Ez gara hemen, ospitaleratu beharra daukaten pertsonen arreta zerbitzu egokia eskaintzeko gaur egun gure Erkidegoan ditugun ereduaren zaintza unitatearen edo

gela arrunteko arreta zerbitzuaren- alderdi onez eta txarrez eztabaidatzen hasiko. Gure ustez bata zein bestea dira baliagarriak, baldintza jakin batzuk betetzen badira. Pertsona horien eskubideak bermatzeari dagokionez -horixe baita Artekoaren erakundeari dagokion eginkizuna- lortutako informazioak ematen dizkigun argitasunen arabera esan dezakegu aukeratutako ereduaren aplikazioan gabezia nabarmenak daudela, eta erakunde honen ustez hainbat hobekuntza proposatu behar dira. Arazoak eta hobekuntzak gai hauei dagozkie:

- unitatearen egituraren egoera (zerbitzuetarako sarrera, pertsianak eta leihoak irekitzeko sistema, erizainei txirrinaren bidez deitzeko sistema...); gaur egun, sarritan zaintzaileen mendeegi geratzen baitira gaixoak horrelako eginberrak dituztenean.
- gaixoei kontsulta medikoa egin edo ikustaldia egiten zaienean polizia-agenteez dituzten jarduketa-irizpideak, intimitatean eragina dutelako.
- espetxean duten egoerarekin bat ez datozen isolamendu egoerak, batzuetan nahiko denbora luzez, unitatearen erabilera eta helburua arriskuan jar ditzakeelako (ospitaleratzeari uko egitea, borondatezko altak...)

1999. urtean Ararteko erakundearen hobekuntza-proposamenak, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Barne Sailerak bideratzen ari dira, eta elementu materialei (zerbitzuetarako sarbidea, txirrinaren sistema, barne komunikazioa, telefonoa eta telebista erabiltzeko aukerak...) eta instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko jarduketa-irizpideei dagozkie (zaintzarako araudia, bisita-gelaren erabilera, gelan zer gauza eduki ditzaketen erabakitzeak irizpideak...).

Proposamen horietako batzuk Txagorritxuko unitateari begira egin dira, eta egoera berdin samarra duten beste batzuetara ere zabalduta dira: Basurtoko Ospitaleko unitatera (1999ko urtarrilean egindako ikustaldia) eta baita gela arrunteko arreta zerbitzura ere.

7. Aurreko txostenetan, espetxeetako hezkuntza arautuak dituen mugapen batzuk adierazi ziren. Aurten, gai horri dagokionez, bi arazo nagusi izan ditugu:

- Derrigorrezkoak ez diren mailetan ikasketak egiten dituzten pertsonentzako tutoretza (irakaskuntza ertainetan tutoreen partaidetza urria, eta EHUko irakasle batzuk espetxeetara sartzeko zailtasunak);
- Espetxeetako plantilen desegokitasuna, LOGSE legearen arabera derrigorrezkoak diren maila guztiak bere gain hartzeko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bigarren zikloa aurrera eramanez ezina).

Gai horiek azpimarratu ondoren, espetxeetako zuzendariak bidalitako txostenen eta laguntza-elkarteekin izandako bileren laburpena eskaintzen dizuegu. Nolanahi ere, informazio horiek batzuetan izan dezaketen balio erlatiboaz ohartarazi nahi genuke, informazioak ez baitira “bertan” edo espetxeetako zerbitzuak erabiltzen dituztenekin zuzenean egiaztatuta ahal izan, eskumen-esparruen arazoaren ondorioz.

Urteko azken hiru hilabeteetan 1998ko. urteko jarduerari buruzko txosten bana igorri dizkigute hiru espetxeetako zuzendariak, zeinek bere gobernu delegatuaren bidez, eta txosten horri esker espetxe bakoitzaren jarduketa-arlo batzuen informazio eguneratua dugu esku artean. Ondoren azalduko duguna, beraz, txosten horien edukiaren laburpena da, espetxe bakoitzaren datuen eta balorazioen arabera aurrera zertan egin den, zein arazo dagoen artean konpontzeko edo oraindik amaitu gabe dauden proiektuak zeintzuk diren.

B) ESPETXEETAKO ZUZENDARIEK EGINDAKO TXOSTENEN LABURPENA

1) Langraiz Okako Espetxea (Araba)

Espetxeko zuzendariaren txostenean hainbat jarduketa eta premia nabarmendu dira, hitzarmenaren hiru jarduketa arloak kontuan hartuz:

- a) hezkuntza arloa
- b) lanerako prestakuntza eta lanbide heziketa arloa
- c) Osasun arloa

A) Hezkuntzari dagokionez gai hauek nabarmentzekoak dira:

- Irakasleak birziklatzeko lankidetzak bideratu da.
- HHIko irakasle bat denbora osoz aritzeko izendapenari eutsi zaio.
- Bigarren hezkuntzako ikasleei ez zaie behar hainbateko arreta eskaini (hamabostean behin egin beharreko tutoretzak).

B) Lanerako prestakuntza-jarduerei dagokienez (ikastaroak eta lantegiak), oso harrera ona izan duten ikastaro batzuk azpimarratu behar dira: informatika, enpleguaren inguruko orientabideak eta bilaketa sistemak.

C) Osasun arloan, honako gaiak nabarmendu dira:

- Gero eta eskaera handiagoa izan da, bai laguntza arloan bai prebentzio arloan.
- Epidemiologia zerbitzuarekin harremanak erraztu dira (txertoak...).
- Osakidetzako sendagile berezilariek etengabeko kontsultak egin dituzte espetxean, nahiz eta, abuztuaz geroztik ginekologiarako laguntza arloan geldialdia gertatu.
- Metadonaren programa aurrera doa (azaroan 115 presok parte hartu dute) eta jarduketa-taldearen pertsonala osatzeko premia dago.
- Sendagile-erizain taldeak parte hartu du Osakidetzak antolaturiko prestakuntza programetan (Txagorritxuko Ospitaleko zerbitzu ezberdinetan janarien erabiltzaile izateko eta birziklapenerako ikastaroak prestatu dira).
- Ekipamendu berria (besaulki odontologikoa eta elektrokardiografoa).

Halaber, espetxeko zuzendariaren txosten horretan bertan, Txagorritxuko Ospitaleko presoentzako gunearen inaugurazioa (lehenago aztertu dugun gaia) eta espetxeko sukaldea osorik berritu izana azpimarratzen dira.

2) Basauriko espetxea (Bizkaia)

Espetxeko zuzendariaren txostenak, hitzarmenean batera aurreikusitako bi jarduketa-arlo baizik ez ditu aipatzen:

- a) lanbide-heziketaren, lanerako prestakuntzaren eta enplegu-sustapenaren arloa;
- b) Osasun zerbitzuen arloa

1998. urtean bi arlo horietako bakoitzean buruturiko jaduaren artean honako hauek azpimarratzen ditu:

A) Lanbide heziketaren, lanerako prestakuntzaren eta enplegu-sustapenaren arloa:

- INEMekiko eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarekiko hitzarmenen bidez Lanbide heziketako 4 ikastaro egin dira, eta guztira 60 presok hartu dute parte. Balorazioa positiboa izan da.
- Aroztegiak eta pintura lantegiak indarrean dauden araudira egokitzeko ahalegina egin dute (makina berriak erosi, prestakuntzako edukiak berrikusi...).
- INEMen eta Eusko Jaurlaritzaren programak osatzea garrantzitsua da, urte osoan etengabeko prestakuntzarako ikastaroak eskaini ahal izateko.
- Diruz lagundutako ikastaroei begira, Eusko Jaurlaritzarekin egin beharreko hitzarmena atzeratu egin da.
- Datorren urteari begira, erakusten ari diren prestakuntza arloko espezialitateak berriro homologatzeko eta oraingo araudiaren arabera profesionaltasun-zurtagiriak emateko proposamena egin da.

B) Osasun zerbitzuen arloa

Espetxeko jardueri buruzko txostenean, arlo bakoitzak duen funtzionamendua gainbegiratu eta batez ere espetxeko sendagile taldearen eta espetxer kanpoko taldeen arteko lankidetzak azpimarratzen dira. Honako hauek ari dira elkarlanean espetxeko taldearekin: Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak diruz lagundutako jarduketak (Toxikomanieta Eskuhartzeko Taldea eta xiringak trukatzeko Programaren laguntzarako talde bereziak), eta Osakidetzaren mende dauden zerbitzu eta unitateak (Basauriko Osasun Zentroa, Basurtoko, Gurutzetako eta Galdakaoko ospitaleak, Galdako Osasun Zentroa...). Jarduketak ondorengo alor hauei dagozkie:

1. Presoek Osakidetzak eskaintzen dituen zerbitzuetan sarbidea izatea.
2. Medikuntza prebentiboa eta zainketa epidemiologikoa.
 - Kutsadura bidezko gaixotasunen prebentzio eta kontrolerako programak.
 - Zainketa epidemiologikoa.
 - Txertaketak.
 - Analitikak.
 - Espetxea, laginak jasotzeko inguruko gune gisa.
3. Berezilarien kontsultak
 - Erreferentziako Ospitalea.
 - Laguntza odonto-estomatologikoa (astero).
 - Laguntza psikiatrikoa (astero).
4. Berezilarien kontsultak eta esposizioen jarraipena
 - Babes erradiologikoa (urteroko miaketa)
 - Esposizioak jasan ditzakeen pertsonalaren esposizio erradiologikoen jarraipena.
5. Drograzaleentzako laguntza
 - Desintoxikazio programak.
 - Ohitura kentzeko programak.
 - Metadonaren erabiltzaileentzako programa.
 - Xiringak Trukatzeko Programa (S.T.P.).
6. Prestazio farmazeutikoaren arloa
 - Medikamendu orokorrak erostea.
7. Sanidade-egoera:
 - Sukaldeak eta jangelak kontrolatu eta ikuskatzea (urtero).
 - Espetxeko gainerako gelen ikuskatze sanitarioa egitea.
 - Janarien manipulazaila-txartela ematea.

- Janarien bidezko toxiinfekzioak ikertzea.
 - Kontsumorako uren kontrol analitikoak.
 - Hondakin sanitarioak kendu, tratatu eta ezabatzea.
8. Espetxeetako pertsonal sanitarioaren prestakuntzarako jarduerak
9. Osasunaren aldeko sustapena eta hezkuntza.

Txostenean arlo horietako bakoitzaren ohiko funtzionamendua azaltzen da, eta programa batzuetan daturen bat ere azaltzen da (adibidez, zerbitzuaren maiztasunari buruzkoa), eta ez da arazo edo oztipo esanguratsurik adierazten.

3) Martuteneko Espetxea (Gipuzkoa)

Zuzendariaren txostenean funtsezkotzat jotzen da, espetxearen antolamenduan eta jardueran izan duen eraginagatik, espetxeko langileen plantila handitu izana, lanpostuen zerrenda osatu eta lanpostu horiek bete ondoren. Horri esker, funtzionarioei lan bereziak agindu zaizkie, eta arlo jakin batzuetan nolabaiteko espezializazio maila ere lortu da.

Jarduketa-arlo bakoitzean adierazitako alderdi bereziei dagokienez, txostenak honako hauek azpimarratzen ditu:

A) Informazio arloan:

Txostenean Jendearen Arretarako eta Kanpo Informaziorako Unitatea sortu izana azpimarratzen da. Unitate horretan funtzionario iraunkor batzuk arituko dira, eta horri esker, zerbitzu hobea eskainiko zaie presoei eta beren senitartekoei: elkarren arteko harreman handiagoa, irizpide homogeenak...

B) Prestakuntza eta enplegu-sustapenaren arloan:

- Europako Gizarte Fondoak diruz lagundutako ikastaroak 5 dira orain, prestakuntzarako 100 plaza eskaintzen dira eta gizonezko nahiz emakumezkoentzat zabalik daude.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturiko gizarte-bermearen moduluei eutsi zaie (serigrafia eta informatika).
- Hezkuntza arautuari dagokionez, prestazio maila jaitsi egin da. Txostenean adierazten denez, hiru izan dira arlo honetan eragin txarra izan duten alderdiak:
 - DBHko 2. zikloa emateko goi mailako titulazioa izango duten irakasleak behar dira.
 - Oraindik hezkuntza sistemako irakasleen taldean sartu gabe dauden irakasleak behin-behineko egoeran daude.
 - Eusko Jaurilaritzak espetxean aurrez aurreko laguntza areagotzeko eskaerari ezezkoa eman dio.
- Unibertsitate-irakaskuntzaren prestazioa eraberritu da.
- Kirol hezkuntzako programak aurrera eramateko hainbat ekimen bideratu dira (monitore kontratatuak, Foru Aldundiak finantzaturiko IRSEko pertsonala, federazio eta elkarteekiko lankidetzak...).

C) Osasun arloan

- Espetxeko sendagile-erizain taldea finkatu egin da; hiru sendagilek, hiru OLTek eta erizaintzako laguntzaile batek osatzen dute taldea.

- Autonomia Erkidegoko osasun arloko administrazioarekin lankidetzat maila egokia sustatu da, sendagile berezilariek espetxeko presoei behar bezalako arreta eskaini diezaieten.
- Txostenean espetxeko presoei laguntza psikologikoa emateko bideraturiko ekimenak aipatzen dira: psikologo lanpostu bat betetzea, lanpostuak bigarren plaza batekin osatzea, Drogamenpeketasuna duten presoei laguntzeko programarako psikologo bat kontratatzea, Ametzagaña Fundazioarekin lankidetzat-hitzarmena egitea...
- Baliabide materialei dagokienez, honakoak azpimarratu behar dira:
 - tresna mediko-kirurgiko batzuk aldatu egin dira (ohatilak, kardiografoa, tresneria...);
 - gela batzuk eraberritzeko proiektua egin da;
 - oraingo premietara egokitutako informatika sistema falta da.

Era berean, txostenean espetxeko egoera hobetzeko Administrazioak aurrera eramane dituen lan batzuk aipatzen dira, bereziki sukalde-jangela osorik eraberritzea:

- eremua beste era batera antolatu eta sarbide bereziak egin dira;
- eremuko hormetako axuleiuk aldatu eta zorua eraberritu egin da;
- kea ateratzeko indar handiagoko kanpaia bat jarri da;
- eremuko argindarraren hariak berriak dira;
- lan egiteko tresneria berria hartu da (frijigailuak...);
- jangelako tresneria (mahaiak eta aulkiak) saneatzeko lanak hasi dira.

Lan horiek gorabehera, txostenak adierazten duenez, eremu horretan dauden gabeziei aurre egiteko eta erabateko egokipena lortzeko aurrekontu-baliabideak osatu egin behar dira.

C) ELKARTEEK AURKEZTUTAKO ARAZOEN LABURPENA

Hiru espetxeetako zuzendariek bilduriko informazioa -aurrez azaldu duguna- osatzeko baliagarria izan daiteke presoen alde lanean ari diren elkarte eta taldeen ikuspegia. Erakunde honek zenbait bilera egin zituen iaz elkarte horiekin. Elkarrekin aurkeztutako arazoetako batzuk hiru espetxeetako bati dagozkio, baina gehienak hiru espetxeei dagozkie, neurri ezberdinean bada ere. Horregatik, atal honetan, horiek guztiak modu orokorrean azalduko ditugu, eta oso tarteka baizik ez dugu espetxe jakin baten aipamena egingo.

Bestalde, kasu guzti-guztietan osasun-arazoak edo osasunerako eskubidearekin zerikusia duten gaiak izan dira kezka nagusia. Horregatik, horiek denak bildu eta aurreneko lekuan jarri ditugu, eta arreta berezia eskainiko diegu. Nolanahi ere, txosten hau ekarpen askoren laburpena denez, arazoak gaingiroki ikusiko ditugu, batzuetan konponbiderako proposamenak ere azalduz, azalpen handiagoa beharko luketen arazoibideetan sartu gabe.

1) Osasun zerbitzuen arloari buruz azalduetako kezkak.

Lehenago adierazi dugun bezala, elkarrekin egindako bileretan presoen osasunarekin zerikusia duten gaiak izan dira interes eta kezka handiena sortarazi dutenak. Horrela, bada, aztertutako arazo eta proposamenen artean, honako hauek azpimarratuko ditugu:

- Xiringak trukatzeko programa Martuteneko eta Langraizko espetxeetan ezarri behar da lehenbailehen, ez bakarrik Basauriko programa esperimentalak dituen emaitza onengatik, baizik eta, beste espetxeetan programa hori ez ezartzeak presoan osasunean dituen ondorio guztiz kaltegarriengatik.
- Tratamendu psikiatrikoa eta psikologikoa:
 - premiak aztertzea eta funtsezko eskakizunei erantzutea;
 - espetxeko giro itxian buru-osasunaren prebentzioa lantzea (ez sendatzea bakarrik);
 - Medikazioan eta zigorrak ezartzerakoan (adibidez, isolamendua) garrantzitsua da diagnostikoak eskura edukitzea eta kontuan hartzea
 - garrantzitsua da laguntza zerbitzua espetxeaz kanpoko pertsonalaren esku egotea...
- Txagorritxuko Ospitaleko presoentzako unitatea eta eritetxeetako laguntza:
 - gaixo izateari preso izateari baino garrantzi handiagoa ematea;
 - presoentzako unitateen eredia benetan beharrezkoa den ala ez aztertzea (normalizatzailea ez delako);
 - polizia-agenteeek erabakiak hartzeko ahalmen eta eskumen gehiegi izatea.
 - pertsonen eskubideetan dituen ondorioak (intimitatea, komunikazioa...);
 - eskain daitekeen osasun zerbitzuaren kalitatean dituen ondorioak;
 - Txagorritxuko unitatea kautelaz ixteko eskaera eta haren erabilera eta funtzionamendua baloratu beharra...

Gai horietako batzuk aipatu dira Basurtoko Ospitalean dagoen unitateari buruz eta pertsona horietaz arduratzen diren gainerako ospitaletako (adibidez, Arantzazu) egoerari buruz ere.
- Osakidetzako sendagile berezilariek partaidetza urria izan dute, eta odontologia zerbitzuan hortz-haginak atera besterik ez dute egin.
- Drogamenpekotasuna dutenentzako laguntza psikologiko berezia eta toxikomanoen laguntzarako taldeak indartu behar dira, batez ere Langraiz Okako Espetxean.
- Larrialdi medikoengatiko lekualdaketa azkarrago egitea.
- Medikazioari buruzko irizpideak:
 - espetxetik kanpo erabiltzen diren tratamendu berak erabiltzea;
 - beste espetxe batera aldatzean tratamendua eten beharra (banan-banako medikazioa) eta horrek osasunean dituen ondorio txarrak;
 - diagnostikorik gabeko medikazioak;
 - ospitalean egon bitartean medikazioa jarri eta espetxera itzuli ondoren medikazio horrekin ez jarraitzea...
- Pertsona seropositibo eta hiesdunen erregistroen arriskuak: kontrolerako aukerak, Bizkaiko Foru Aldundiak elkarteei datuak eskatzea, laguntza-programetan parte hartzen duten presoek buruz, dirulaguntzak eskatzeko...
- Espetxeetako erizaindegien egoera...

2) Espetxeetako egoerari buruz adierazitako kezkek:

- Espetxetik ateratzeko izapideak oso motelak izatea.
- Irteteko garaian, diru premia handia dutenentzat dirulaguntzarik ez izatea.
- Prebentiboen egoera (luzaroan eta tratamendua jasotzeko aukerarik gabe).
- Lekualdaketa, errekurtsio eta abarri buruzko informaziorik ez izatea...
- Une jakin bateko tratamendua eteten duten kondenak (ohitura kentzeko prozesuetan adibidez).
- Gaixotasun sendaezinak dituztenak (batez ere hiesa dutenak) espetxetik ateratzeko protokolo eta irizpide garbirik ez izatea.

- 3) Gaur egungo espetxeetako azpiegiturek presoen lekualdaketa eta atxiloketa-baldintzetan dituzten ondorioei buruz azaldutako kezkak.

Gure Erkidegoan horrelako ondorioak nozitzen dituzten pertsonen artean honako hauek aipa ditzakegu: lehen gradua duten pertsona guztiak (hiru espetxeetan ez dago horientzako modularik), Bizkaiko emakumeak (Basaurin ez dago emakumezkoentzako modularik), Bizkaiko eta Arabako gazteak (Martutenera edo urruneko beste espetxe batzuetara eramaten dituzte), seme-alaba txikiak dituzten emakumeak... Azpimarratu behar da horrek zaildu egiten duela senitartekoekiko harremana edo abokatuen behar bezalako jarduera.

Bestalde, asteburuko atxiloketaldia betetzeko udal gelak ez daudenez, atxiloketaldi hori nahitaz espetxeetan egin behar izaten da, eta arazo larriak sortzen dira: itxaron-zerrendak, behar ez bezalako gelak erabili beharra...

- 4) Kolektibo jakin batzuei buruz azaldutako kezkak

Aurreko atalean aipaturiko kolektiboez gainera, espetxeetan dauden atzerritarren egoeraz ere hainbat kezka azaldu dira:

- arazo ekonomikoak;
- baldintzapeko askatasuna edo baimenak eskuratzeko zailtasunak, hemengo gizartean erroturik ez daudelako;
- lurralde batzuetan atzerritarrentzako txandarik ez izatea;
- irteteko unean erbesteratuak izateko arriskua;
- itzutzailen zerbitzua;
- gizarteratu direla frogatzeko zailtasunak, eta ondorioz, urruneko espetxeetara bidaliak izateko arriskua...

Adierazitako arazoetako batzuk alor penitentiarioaren mugatik kanpo daude. Adibidez, atzerriko pertsonak edo ijito arrazako pertsonak parte hartzen duten ezagutza-txanda batzuk egiteko modua, adin txikikoentzako prozedurak...

- 5) Espetxe jakin batzuen egoerari buruz adierazitako kezkak.

Lehenago adierazitako kezkek alde batera utzita, ondorengo espetxeei buruz adierazitakoak azpimarratu behar ditugu:

- Langraiz Okako espetxeari dagokionez:
 - Erizaindegiaren egoera (baldintzak);
 - Emakumeen moduluaren egoera (emakume gehiegi);
 - Txagorritxuko presoentzako unitatearen egoera (lehenago azaldu dugu).
- Martuteneko espetxeari dagokionez:
 - errekurtsioak izapidatzean eta Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegira bidali behar diren txostenetan atzerapenak gertatzen dira zenbait gairen inguruan: baimenak ematea, sailkapena, espetxetik ateratzea...;
 - hotza eta hezetasunari aurre egiteko berogintza sistema eskasa eta desegokia izatea;
 - hirugarren graduan dauden presoei luditze berezien onura ukatzea.

- 6) Preso dauden pertsonen kanpotik eskaintzen zaien laguntzari buruz edo zerbitzu jakin batzuei buruz azaldutako kezkak.

Osasun arloan adierazitako kezka alde batera utzirik, elkarteek beste zenbait zailtasun eta arazo azpimarratu dituzte, ondorengo lekuetan eskainitako zerbitzuari dagokionez:

- Espetxeratuak Zaintzeko Epaitegia (bakarra dago hiru espetxeetarako);
- Espetxeratuentzako Asistentzia Txanda (dedikazioa, prestakuntza berezia, lan pilaketa);
- elkarteak berak (espetxeetara sartu eta presoekin behar bezala lan egiteko zailtasunak).

7) Azkenik, elkarteekin izan ditugun bileretan gai batzuei buruz adierazi dizkiguten bestelako kezka ere azaldu nahi ditugu:

- Prestakuntza-ikastaroetan edo heziketa-jardueretan parte hartu ahal izateko erabiltzen diren irizpideei buruzko zalantzak.
- presoek funtzionarioen aurkako salaketetan izaten duten gutxiagotasun eta babesgabatasun egoera;
- Espetxea eta bertako tratamenduei buruzko alternatiba urriak...

* * *

Iazko txostenean, atal honetan bertan, Eusko Jaurlaritzaren ikuspegia ere eskaini zen. Ildo horretatik, osasun alorreko gaien garrantzia kontuan izanik, eta Arartekoak hala eskaturik, Osasun Sailak prestatu eta igorritako "Osasun Sailak eta Osakidetzak 1997. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Espetxeetan Eskainitako zerbitzu eta prestazioak eta zerbitzu horiei buruzko Txostena" ren laburpena egin genuen. (Ikus 97ko Txostena, 39-41. or.).

Aurten ere Arartekoak informazio eguneratua eskaini nahi zuen, Euskal Administrazioari dagokion arloan, iaz gauzaturiko hitzarmenei buruz. Horretarako, azaroaren 3an, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari eskatu zion informazioa, baina orain arte ez du erantzunik jaso.

1.1.2. ARABAN ARITZEN DIREN SASOIKAKO LANGILEEN ARAZOAREN JARRAIPENA

1996. urteari zegokion ohiko txostenak, Arabako hainbat lurraldetara, mahats bilketan eta patataren bilketan lan egitera etortzen diren pertsona eta familien egoera hobeto ezagutzeko asmoz, erakunde honek buruturiko azterketaren (Ikus 96ko Txostena, 58-66 or.) laburpena egiten zuen. Bertan, talde honek bizi duen egoeran garrantzi berezia duten lau arazo azpimarratzen ziren:

- erabiltzen diren kontratazio sistemak;
- bizitokizat dituzten lekuen egoera;
- langileen seme-alaben eskolaratzea;
- inguruan bizi duten gizarte integrazioa edo bazterketa.

Pertsona horien egoera hobetzera bideraturiko zenbait proposamen ere egiten ziren, eta erakundeek parte har zezaketen hiru esparrutan zentratzen ziren:

- araua garatu eta legea bete;
- erakunde ezberdinen eta gizarte-eragileen arteko koordinazioa indartu;
- langileei informazioa eskaini, beraien eskubideen eta eskura dituzten zerbitzuen berri emanez.

Bai egoeraren azterketa eta baita hura hobetzeko proposamenak, gaiarekin zuzeneko zerikusia zuten erakundeetan aurkeztu ziren: Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako zenbait sailetan (Gizarte Ongizatea, Hezkuntza, Nekazaritza...). Txostena, beste erakunde batzuei (Gaztela-Leongo "Prokurador del Común" izenekoari) eta interesa duten edo informazio iturri izan diren taldeei (Cáritas, oinarrizko gizarte laguntzaileei, inguruko ikastetxeetako irakasleei...) bidali zitzairen.

1997. urtean beste erakunde eta elkarte batzuk ere harremanetan jarri ziren Arartekoarekin, beraien interesa azalduz eta laguntza eskainiz. Horrela, esate baterako, Probintziako Lan eta Gizarte Gaietarako Zuzendaritza edo UAGA sindikatua.

Iazko urteari dagokion txostenean (ikus 42-49 or.) Arartekoak 1997. urtean egindakoaren jarraipen zehatza eskaini zen. Jarraipen hori zenbait pertsona, elkarte eta zerbitzuren laguntzari esker egin ahal izan da. Horrela, erakunde honetako partaideak zuzenean izan dira arazoa dagoen lekuan, Arabako Errioxa aldean batez ere, mahatsa biltzeko garaian. Halaber, hainbat leku ikuskatu dituzte: kanpamentu eta akanpalekuak; familia edo industri ustialekuetan lanean ari diren langileen edo/eta familien bizitokiak; Biasteriko aterpetxea eta Eltziego, Trebiño eta Biasteriko ikastetxeak.

Lan horiei esker, nahiko informazio zehatza lortu dugu, eta horren laburpen gisa esan dezakegu zenbait arazotan aurrerapauso garrantzitsuak eman direla, eta beste arlo batzuetan, berriz, arazoak lehengo moduan, edo zenbaitetan are okerrago daudela, aurreko urtekoekin alderatuta. Gauza bera gertatzen da aztertu ditugun lau arlotan: kontratazio sistemak, bizilekuen egoera, eskolaratzea eta gizarte integrazioa eta bazterketa.

Bestalde, iazko txostenean ondorio batzuk aurreratu genituen eta pertsonen horientzako bizitokiaren baldintzak arautu beharri buruzko gomendio berezia egin genuen (ikus 97ko Txostena, 482-487 or.). Aurreko urtean bezala, egindako azterketa eta proposamenak gaiarekin zerikusia duten pertsona guztiei helarazi genizkien, baita Arabako Errioxako alkateei ere.

Iaz (1998) egoera hori hobetzeko bideratu ziren hainbat ekimenetan Arartekoak interesa azaldu edota zuzenean parte hartu zuen. Bideraturiko ekimenak hauek dira:

- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Departamentuak sustaturik, gaiarekin zerikusia duten gizarte-eragileekin urte osoan egindako lan-bilerak.
- Lan eta Gizarte Gaietarako Probintziako Zuzendaritzak kontratazio sistemetan legea bete dadin bultzatu dituen ekimenak.
- Hainbat lurraldetako Cáritas-ek egindako azterketak eta proposamenak.
- Ikastetxeetako irakasle taldeek edo hezkuntza-administrazio arduradunek sustaturiko ekimenak.
- Egoera hori duten eremuetan gizarte zerbitzuetako oinarrizko unitateek egindako proposamenak eta lanak.

Kanpaina amaitu ondoren, erakunde honek Arabako Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzan gai horretaz arduratzen diren sailetara jo zuen, horren garapenari buruzko informazioa eskatzeko. Bildutako informazioaren arabera, honako gai hauek azpimarratu behar ditugu:

- 1) Argi dago sasoikako langileen eta beren familiei bizi-egoerari buruz gero eta sentsibilizazio handiagoa dagoela. Sentsibilizazio horren eraginez, hainbat pertsonak eta elkartek haien egoera hobetzeko lan jakin batzuk aurrera eramán eta programa eta jardueretan parte hartu dute zuzenean.
Alde horretatik, nabarmentzekoa da Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Departamentuak egindako lan handia, uneoro saiatu baita gaiarekin zerikusia duten gainerako administrazioak, zerbitzuak, gizarte-eragileak eta elkarteak lan horretan parte hartzera bultzatzen eta biztanleriaren hainbat sektoretan sentsibilizazioa lortzeko programak sustatzen. Lan horren eragina maila guztietan ikus dezakegu: departamentuko aduradunengandik hasi eta eremu horretako oinarrizko unitateetan edo gizarte zerbitzuetan lanean ari diren pertsonengana zabaldu baita.
- 2) Martxan jarri diren ekimenen artean honako hauek azpimarratu behar dira: irailaren 21ean eta urriaren 30ean bi bulego ireki dira (Biasteri eta Agurain), nekazari eta sasoikako langileei informazioa eskaini eta kontratazioa errazteko asmoz.
Aurtengo esperientziak datu itxaropentsuak eskaini dizkigu, eta arretaz aztertu behar ditugu. Horrela, informazio-eskaerari buruzko datuak hauek dira: Biasteriko bulegoan 403 nekazari eta 252 sasoikako langile izan dira; Aguraingo bulegoan 25 nekazari, eta 120 sasoikako langile izan dira.
Jakina, Bulego horiek beren kabuz ez dituzte subkontratazio-jarduerak eta horien ondorio txarrak geldiaraziko, baina alderdiei zerbitzu eraginkor bat eskaintzen dieten neurrian, zuzeneko kontratazioa sustatuko dute.
Kontratazio-jarduera gehienak kontrolatzen dituzten mafiak ez ugaltzeko baliabide guztiak erabili behar dira.
- 3) Akanpalekuei dagokienez, egoera hobean leudekeen beste leku alternatibo batzuk bilatzeko ahaleginak egin badira ere (adibidez Lezan edo Biasterin) ez da ezer lortu. Beraz, erakunde honek aurreko txostenetan adieratzen zituen hutsune berberak daude, nahiz eta aurten Eltziegoko kanpamenduan hobekuntza garrantzitsu bat egin den (udal zerbitzu eta dutxa publikoen erabilera).

- 4) Aguraingo aterpetxea erabilera anitzeko eraikin batean dagoenez (28 lagunentzako tokia) eta Biasteriko igerilekuak 48 lagunentzat aldi baterako aterpetxe gisa egokitu denez, aurreko urteetan baino pertsona gutxiagori eskaini zaio zerbitzua (66 pertsona Agurainen eta 123 Biasterin).
- 5) Itxura denez, zenbait tokitan, langileak eta beren familiak, nekazari kontratatzaileek egokitutako lokaletan hartzeko ohitura gero eta gehiago zabaltzen ari da. Horri dagokionez, Eltziegion egindako errolda oso esanguratsua da: 136 lagun kanpamenduan zeuden, eta 406 lagun nekazariak utzitako lokaletan. Iaz egoera zeharo bestelakoa zen. Eta gauza beretsua ikus daiteke beste toki batzuetan ere: Kanpezu aldean 199 pertsonen lonjetan zuten bizitokia, eta beste 19 pertsona Arana Ibarrean, San Vicente aldeko kanpalekuan bizi ziren. Sarritan aipatu izan da gai horretan kontratatzaileei dagokien erantzukizuna.
Horregatik, premi-premiazkoa da lokal horiek bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak bete ditzaten arauak ezartzea.
Zoritzarrez, Arartekoak iaz Eusko Jaurlaritzan aurkeztutako “Denboraldiko Langileentzako eta horien familientzako bizilekuen baldintzak” gaiari buruz egindako gomendio orokorra (ikus 97ko Txostena, 507-513 or.) ez da oraindik gauzatu.
- 6) Azpimarratzekoa da, halaber, gai horrekin zerikusia duten herri-administrazioek eta gizarte-eragileek erakusten duten konpromiso-maila guztiz ezberdina.
Esan beharra dago, Arabako denboraldiko lan hori ekonomi jarduera nahiko garrantzitsua dela. Adibidez, aurrean Arabako Errioxan egindako mahats bilketak, mahatsaren kostuari bakarrik begiratuta, 20.000 milioi pezetako irabazia sortu du, eta iazko kopuruen aldean gora egin du nabarmenki. Inguru horretako nekazarien eta enpresen irabaziak urtetik urtera handiagotzen ari dira, batzuetan izugarrizko mailaraino, baina onura horrek ez du sasoikako langileen bizimodua eta haien bizitokien egoera gehiegi hobetu.
- 7) Sasoikako familien seme-alaben eskolaratzea bide onetik doa, batez ere Eltziego, Biasteri, Oin eta Lantziegoko Ikastetxe publikoetan (guztira 113 ikasle dabilta eskoletan).
Oinarrizko premiei nolabait irtenbidea eman ondoren (parte hartzea, irakasle gehiago izatea, gizarte zerbitzuen eta eskola-zerbitzuen arteko koordinazioa, ikastetxe batzuetan jangela jartzea, bekak, garraioa...) datozen urteei begira alderdi koalitatiboagoak lantzea komeniko litzateke; adibidez, kolektibo hori eskolako dinamikan sarraraztea eta bere premiei irtenbide bereziak ematea. Egin beharreko beste lan batzuk ahaztu gabe, noski; esaterako, haur hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzari dagokion eskolatzea, ikastetxe batzuetan jangela-zerbitzua erabili ahal izatea, eta inguru batzuetan (Kanpezu...) eskolaratze maila handiagoa lortzea.
Beharbada, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1998ko uztailaren 30eko Aginduak (abuztuaren 31ko EHAA n argitaratua), baliabide egokia eskain diezaguke lurralde horietako ikastetxeei hezkuntza arloan eman beharreko erantzun egokia planifikatzeko.
- 8) Gizartea eta hezkuntza arloko jarduerak, adibidez Hezilan-ek Eltziegion burutakoek, aukera ematen digute sektore horretan dauden arazoak hobeto ezagutzeko, premiak zenbaterainoak diren jakiteko (familien erroldak, adin txikikoen erroldak...), haien

bizitza-egoera modu orokorrean hobetzeko (osasuna, eskolatzea, aisialdia, baliabide sozio-komunitarioak erabiltzea...) eta biztanleriaren sektore batzuk jardueretan parte hartzea bultzatzeko, era horretan gizarteratze handiagoa lortuko baitugu.

Datorren urteari begira, sasoikako langile kopuru handi samarra duten beste herri batzuetan ere antzeko programak erabiltzea bideragarri den ala ez aztertu beharko litzateke.

- 9) Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak argituko dituen nekazaritza arloko hitzarmen bat ez izatea eta jatorrian oso kontratazio gutxi egitea, sektore honek dituen arazo askoren oinarriko arrazoiak dira. Funtsezko bi gai horiek konpontzeko ekimenak bultzatu beharko lirateke Sindikatuen edo beste gizarte-eragile batzuen bidez.

Bukatzeko, gogorarazi nahi genizuke, gaiarekin zerikusia duten erakundeak (udalerrri, lurralde, erkidego eta estatu mailako agintariak), zerbitzu zentralak eta ingurukoak, gizarte-eragileak (nekazaritza alorreko elkarateak, bolondresak...) elkarlanean aritzea erabat premiazkoa eta garrantzizkoa dela kolektibo horren egoera benetan hobetu ahal izateko.

1.1.3. **BABESIK GABE DAUDEN HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN ONDORIOZ HASITAKO JARDUKETEN JARRAIPENA**

1997ko urriaren 9an *Babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako zerbitzuari* buruzko txosten berezia aurkeztu genion Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari. Geroago, 1998ko maiatzaren 20an, txostena Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Herritarren Eskaearen Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu zuten.

Lan hori osatzeko 150 espediente (herrialde historiko bakoitzeko 50) aztertu genituen xehetasun osoz, eta 1995. urtean gure Erkidegoan zeuden 63 harrera zentroak bisitatu genituen.

Txostenean 42 gomendio jasotzen ziren, ondorengoak kontuan hartuz:

- adin txikikoen babesari buruzko lege esparrua eta eskumenen banaketa;
- zerbitzu sarean lanean diharduten profesionalak;
- banakako premiei erantzuteko programak;
- horrelako egoerak atzemateko, erabakiak hartzeko, esku hartzeko, berrikusteko... jardunbideak;
- bizileku zerbitzuen antolamendua eta funtzionamendua;
- zerbitzu horien kontrola eta ebaluazioa...

Hobetu beharreko alderdiak eta lehentasunak dituzten premiak nabarmentzean, Arartekoari honako hauek iruditu zaizkio aipagarrienak:

- babesik gabe dauden adin txikikoentzako zerbitzuen oinarrizko alderdiak arautuko dituen araudi bakarra ezartzea, Erkidegoko osorako balioko duena;
- ahalik eta erantzun gehien ematea (familietan hartzea, larrialdietarako zentroak, eguneko zentroak...);
- herrialde historikoetako erakunde ezberdinek eskainitako erantzunen artean sekulakoa aldea dago;
- babesik gabeko egoerak atzemateko bideak hobetzea;
- oinarrizko gizarte zerbitzuen eta hezitzaile espezializatuen arteko harremana eta koordinazioa;
- gizarteratzeko, jatorrizko esparruetan berriro sartzeko eta autonomia sozialerako programak gauzatzea;
- haurren, gazteen eta horien familien partaidetza sustatzea;
- zerbitzuen ebaluazio koalitatiboa eta aldizkako kontrola egitea.

Gure erkidegoan eskumenak nola dauden banatuta kontuan harturik, gomendio gehienak foru aldundien erantzukizun eta jarduketei dagozkie zuzen-zuzenean. Eta Arabako herrialde historikoan, eskuordetzaz, Gasteizko Udalari dagozkio. Horregatik, txostena Eusko Legebiltzarrerara bidali genuen lehenbizi, eta ondoren, aipaturiko erakundeetara eta hiru herrialdeetako Batzar Nagusietara.

Gomendioen jarraipena hobeto burutzeko, Arartekoak txosteneko 42 proposamenak elkarren artean zerikusia zuten arloen arabera sailkatu zituen. Arlo horien gain zein administrazioek zuen eskumena ere izan zuen kontuan. Ondoren, 1997ko azaroan ofiziozko jarduketa hauek abiarazi zituen:

- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzarako Sailaren aurrean: haur eta gazteentzako zerbitzuei buruzko araudi komuna ezarriko duen legea egiteko premiari buruzko jarduera.

- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Departamentuaren, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzarako Departamentuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetarako Departamentuaren aurrean, honako gaiez ziharduten jarduerak:
 - Oinarrizko gizarte zerbitzuen prestakuntza eta koordinazioa.
 - Zerbitzu espezializatuetako langileen prestakuntza, ikuskapena eta laguntza.
 - Baloraziorako Batzorde Teknikoen osaketa eta funtzionamendua.
 - Babeserako zerbitzu sare ezberdinak eratzea.
 - Trantsizio programak.
 - Horrelako egoerak atzematuko sistemak, gizartearen inplikazioa eta bestelako gizarte-eragileekiko elkarlana hobetzea.
 - Espedienteetako agiriak razionalizatzea.
 - Erabiltzaileen eta horien familien partaidetzarako bideak finkatzea.
 - Kasuak eta hartutako neurriak aldizka ikuskatzea.
 - Bizileku zerbitzuen antolamendua, funtzionamendua, kontrola eta ebaluazioa.
 - Erakundeek emandako babesaren bilakaerari buruzko datuak.
- Gasteizko Udalaren aurrean, honako gaiez diharduten jarduerak:
 - Oinarrizko gizarte zerbitzuen prestakuntza eta koordinazioa.
 - Zerbitzu espezializatuetako langileen prestakuntza, ikuskapena eta laguntza.
 - Baloraziorako Batzorde Teknikoen osaketa eta funtzionamendua.
 - Babeserako zerbitzu sare ezberdinak eratzea.
 - Trantsizio programak.
 - Horrelako egoerak atzematuko sistemak, gizartearen inplikazioa eta bestelako gizarte-eragileekiko elkarlana hobetzea.

1997. urtea amaitu baino lehen, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetarako Departamentuak-Gizartekintzak erantzun zieten ofiziozko jarduketei.

Gerora, 1998. urtean, Gasteizko Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzarako Departamentuaren eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Departamentuaren erantzunak jaso genituen.

Jasotako erantzunen arabera, eta zerbitzua hobetzeko proposaturiko gomendioak kontuan izanik, gai honen inguruko alderdi batzuk aipatu nahi genituzke.

- 1) Berriz ere gogorazi beharrean gaude gure Erkidego osorako balio izango duen araudi bat behar dugula, babesik gabe dauden adin txikikoei eskaini behar zaien zerbitzuaren funtzeko alderdiak erregulatzeko, eta pertsona horien oinarrizko eskubideen bermea lortzeko. Lege arloan ekimenak bideratzeko eginkizuna duen Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak gomendio horri erantzunez adierazi zuen premiazkoa iruditzen zitzaioela, baina iragan legegintzaldian gai horri zegokion Lege proiektua aurkeztea ezinezkoa zela. Legegintzaldi berri baten hasieran egonik, gure Erkidegoan haurrak eta gaztetxoak babesteko lege bat aurkezteko eta onartzeko aukera izan beharko genuke.
- 2) Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetarako Departamentuak, aurkeztutako gai bakoitzari erantzuteaz gainera, "Babesik gabe dauden haurrei laguntzeko Plan Integrala" ren zirriborroa aurkeztu zuen, lau urteren barruan burutzekoa. Plan horrek, gure erakundeak egindako gomendio gehienak jasotzen ditu, eta eskainitako

zerbitzua hobetzeko tresna egokia izan nahi luke. Horregatik, etorkizunean Gipuzkoako biztanleriaren sektore horrentzako zerbitzuaren jarraipena egiteko, plan hori urtez urte zehazki nola burutuko den eta nola ebaluatuko den aztertu behar dugu.

Bereziki azpimaratu beharreko jarduketak:

- prestakuntza-jarduerak eta udaletako gizarte zerbitzuetarako jarduketa-protokoloak egitea;
- zerbitzu espezializatuetakoa profesionalentzako prestakuntza, ikuskapen eta laguntza jarduerak;
- arrisku sozialean dauden familietan esku hartzeko programa;
- azken urteetan trantsiziorako laguntza-programetan parte hartu duen gazte kopurua (23 1996an eta 25 1997an) eta orientazio lana errazteko antolabideak aldatzea;
- babeserako espedienteen tratamendurako informatika sistema ezartzea;
- harrera zentroetan jarduerak ongi bideratzeko jarraipideak ezarri eta hezkuntza proiektuetan sartzeko proposamena egitea;
- harrera zentro bakoitzean elkarbizitzarako harremanak erregulatuko dituzten arauak ezartzeko proiektua;
- Martutenen atzeritik etorritako adin txikikoentzat harrera-zentro bat irekitzea. Aurten Arartekoak zentro hori bisitatu du (ikus, kapitu honetan bertan, 1.1.6. atala).

Nolanahi ere, erakunde honek egindako gomendioetan adierazitako gaiak eta beste alderdi asko, aurrera eramane beharreko helburutzat agertzen dira plan integral horretan.

- 3) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzeterako Departamentuak, gure ofiziozko jarduketei erantzunez bidalitako txostenean, 1996, 1997 eta 1998an aurrera eramandako ekimenen eta etorkizunean garatu beharreko proiektuen inguruko datuak ematen ditu.

Aurreneko atalean (burututako jarduketak) nabarmentzekoak dira, esaterako, gizarte-langileentzako prestakuntza ikastaroak, sektore horrek dituen arazoan azterketa, haurrak familietan hartzeko eta gizartea gai horretaz jabeazteko programa bat martxan jarri izana, 16 eta 21 urte bitarteko gazteentzako Harrera, Informazio eta Orientazio Zerbitzuaren Programa, edo zerbitzu ezberdinen arteko elkarlana hobetzera bideraturiko ekimenak. Alde horretatik, esan behar da 1997. urteaz geroztik abian dela haur, gazte eta familiei zuzendutako Gizarte eta Hezkuntzako Eskuhartze Plana, hainbat entitate eta erakundeekiko elkarlanean.

Bigarren atal horretan (gerora begirako proiektuak) honako gai hauek azpimarra ditzakegu:

- gerora begira Bizkaiko Herrialde Historikorako "Haurrentzako Plana" egitea, ikusi ditugun arazoetako asko berriro aztertu eta ongi bideratzeko asmoz;
- Aldundiko zerbitzua beste instalazio batzuetara aldatzea;
- adin txikikoen babeserako espedienteak izapidatzerakoan, horren jarraipena egin ahal izateko informatika-sistema bat eratzea.
- bizileku-zentro handiak, adibidez San José Artesano, G^a M^a Ibarra eta Sagrada Familia.

4) Arabako Foru Aldundiak emandako erantzunei dagokienez (Arartekoak egindako gomendiei buruzko txostena, eta 1997 eta 1998ko Haur, Gazte eta Familientzako Zerbitzuaren jardueren laburpena) honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu, garrantzi berezia edo gomendioekin zuzeneko zerikusia dutelako:

- prestakuntza ikastaroak (haurren tratu txarren prebentzioari buruzkoak...) eta zerbitzu ezberdinetako profesionalen koordinaziorako jarduerak;
- zerbitzu espezializatuetako pertsonalari zuzendutako prestakuntza plana taxutzeko HAEErekin (IVAP) batera emandako pausoak;
- zerbitzu batzuk osatu eta zabaltzea; arrisku egoeran dauden familientzat eta hartzaileen eta adopzio-eskatzaile diren familientzat pedagogi eta prestakuntza tailerrak, eguneko zentro berriak (Agurain eta Laudio);
- Trantsizio programak egin dituzten pertsonen dagozkien datuak (4 neska eta 7 mutil 1997an; 5 neska eta 6 mutil 1998an);
- Detekzio eta koordinazio sistemak hobetzeko emandako pausoak, gizarte zerbitzuek, justizia, hezkuntza eta osasun arloko erakundeek, udaltzaingoak eta Ertzaintzak parte hartu ahal izateko bideak jarri;
- sexu-abusuaren prebentziorako eta familia hartzaileak lortzeko kanpainak;
- espedienteen dokumentazioari buruzko prozedura berri bat taxutzea, datorren urtean erabiltzekoa;
- gizarteratze arazoak dituzten gaztetxoentzako "Sansoheta" gizarte-hezkuntza etxea (Ikus bisitak, 1.1.6. atala).

Azpimarratu behar da, halaber, Arabako Foru Aldundiak zuzenean hartu duela parte adin txikikoak erregimen irekian hezitzeko neurrietan. Horrela, azken bi urteetan honako kasu hauek hartu zituen bere adurapean: zaintzapeko askatasuneko 74 kasu, komunitatearen mesedetan zerbitzuak eskaintzeko 37 kasu, tratamendu psikoterapeutikoa emateko 10 kasu...

5) Gasteizko Udalak, aurkeztu genizkion ofiziozko espedientei erantzutean, hainbat jarduketa aipatzen zituen (onartuak, burutuak edo aurreikusiak), guztiak ere erakunde honek egindako gomendioekin zuzeneko zerikusia zeukatenak. Honakoak adibidez:

- prestakuntzarako ikastaro eta jarduerak burutzea eta banan-banako aholkularitza ereduak bilatzea zerbitzuetako pertsonalarentzat (oinarrizko zerbitzuetakoarentzat eta espezializatuarentzat);
- zerbitzuak osatzeko emandako pausoak; adin txikikoen zerbitzua 0-3 urte bitartekoentzat, eguneko zentroak gehitzea, familientzako programak...;
- trantsizio programa (Valeo) hobetzeko aurreikuspenak eta azken urteetan programa erabiltzeko datuak;
- haurren tratu txarrei edo sexu-abusuei buruzko sentsibilizazio kanpainak egitea familia eta zerbitzuen artean (eskola-umeak...);
- beste erakunde eta zerbitzu batzuekin lankidetzan arituz, babes berezia behar duten haurrentzako lan eremu bat sortzeko proiektua egitea;
- informazio sistemak eta datu-baseak aztertzea;
- bizileku zerbitzuen funtzionamendua, kontrola eta ebaluazioa hobetzeko neurriak hartzea; arduradun- hezitzaile eginkizuna sortzea, ikuskatze saioak eta kontrole-rako bisitak egitea, zentro bakoitzean arautegiak egitea, euskarri informatikoaren bidezko ebaluazio sistema...

6) Hiru foru aldundiei bidali genizkien ofiziozko jarduketetako batek honako helburua zuen: babesik gaude dauden haurrentzako zerbitzuari dagozkion gai garrantzitsu batzuei buruz datu eguneratuak lortzea. Datu horien bidez sektoreak azkeneko bi urteetan izan duen bilakaera ezagutu nahi genuen, funtsezko gai batzuk kontuan hartuz: urteko espedienteak, haurrak bizilekuetan hartzea, familietan hartzea, adopzioa, babeserako bizileku-zerbitzuen gastu publikoa...

Jasotako datu gehienak 1996. urtekoak dira, baina horietako batzuk 1997koak dira (gogoan izan Arartekoaren txosten berezian jasotakoak 1995. urteari dagozkiola). Sarritan ez da erraza, ezta fidagarria ere, ekitaldien eta lurraldeen artean konparazioak egitea, irizpideak ere ez baitira beti homogeneousak izaten. Hala ere, datu horiei esker, zenbait aldagaien bilakaera ezagutzeko aukera dugu: adibidez, gastu publikoa edo arreta eskaini zaien adin txikikoen kopurua jakin dezakegu; era berean, joera batzuk ezagutzeko edo indartzeko aukera izango dugu, adibidez:

- azken urteetan nazioartean izandako eskaera eta adopzioen kopurua nabarmen handitu da;
- oro har, lurralde bakoitzean atzemandako tasa edo maila guztiz ezberdinek bere horretan diraute, familia bereiztean hartzen diren babes-neurriei, eta bereziki, familietan hartutakoen eta bizilekuetan hartutakoen kopuruari dagokionez (familietan hartutakoak 58 dira; eta bizilekuetan hartutakoak, berriz, 551, Bizkaiko Herrialde Historikoari dagozkion 1996ko datuetan)...

7) Bizileku-zerbitzuaren alternatiba gisa, Arartekoak adierazi zuen familietan hartzeak aukera ugari eskaintzen zituela, nahiz eta horren garapenean alde handia egon lurralde batzuetatik besteetara; adibidez, nahiko zabaldua zegoen Araban eta Gipuzkoan, baina oso gutxi Bizkaian. Jasotako datuek iritzi horren balioa berresten dute.

Bestalde, haurrak familietan hartzeari eta horren bilakaerari buruzko datu koantitatiboek gainera, zerbitzu horren ebaluazio koalitatiboa ere egin beharko genuke. Hain zuzen ere, haurrak familietan hartzea bultzatzatzen ari diren elkarteetako batzuk izan dira, premia hori behin eta berriro gogorarazi digutenak. Haur bat familia jakin baten eskuetan uzteak ez du inolaz ere esan nahi, horren ardura izan duen erakundeak erantzukizuna txikiagoa duenik haurrari zor zaion arretari dagokionez. Beraz, foru aldundietako Gizarte Ongizate departamentuei dagokie baliabide edo modurik egokienak bilatzea haurrak familietan hartzeari dagokion jarraipena egiteko eta horren alderdi onak (indartu beharrekoak) eta arriskuak (aurreikusi beharrekoak) ebaluatzeko.

1.1.4. ZAHARRENTZAKO EGOITZAK KONTROLATZEKO JARDUKETEN JARRAIPENA

1993. urtean Arartekoak zaharrentzako egoitzetan zeuden adineko pertsonen egoerari buruzko txosten berezi bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean.

1992an eta 1993an hainbat egoitza publiko eta pribatu bisitatu genituen, bereziki ahula den talde horren eskubideak zenbateraino babesturik zeuden jakiteko eta egoitzetako egoera eta baldintzek eskubide horiek egiaz erabiltzeko aukera ematen zuten ala ez aztertzeko.

Erakunde honen ustez, pertsona horien eskubideak babesteko ez da aski txosten bat aurkeztea; aitzitik, hartan adierazten diren gomendioen jarraipena egin behar da; horregatik, urtero-urtero EAeko egoitzak ikuskatu izan ditugu.

Adineko pertsoneri egoitzetan eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitateari buruz gero eta kezka handiagoa dago, bai gizarte osoan eta baita, bereziki, gai horren ardura duten erakundeetan ere.

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak 1998ko martxoaren 10ean zaharren egoitzetako gizarte-zerbitzuei buruzko 41/1998 Dekretua onartu zuen, adineko pertsonen bizi kalitatea bermatzeko asmoz.

Araudi berriak espazio fisikoa eta zerbitzuaren kalitatea azpimarratzen ditu, eta urtebeteko epea ezartzen du dagokien egoitzek lehendik daukaten baimena berrets dezaten. Nolanahi ere, bost urteko aldaketa aldia ezartzen du, arrazoi teknikoengatik dekretu berriaren baldintzetara egokitzeko epe luzeagoa behar dutenentzat. Helburua ongizatea bermatzea da, hitz horren zentzurik zabalenean.

Beste alderdi batzuk kontuan hartzen baditugu, hala nola barne funtzionamendurako arauak, zerbitzua erabiltzen duten pertsonen edo horien legezko ordezkarien partaidetza demokratikorako bideak, erreklamazio eta kexen prozedura edo prezioen erregimena, horiek guztiak Funtzionamendu-Arautegian zehaztuko dira, eta arautegi hori erabiltzaileen eskura egongo da egoitza guztietan.

Egoitzek dekretuan ezarritakora egokitu behar dutela kontuan izanik, Ararteko erakundeak aurreko jarduketei buruzko jarraipena baizik ez du egin ekitaldi honetan. Nolanahi ere, Ondarroako udal egoitza ere bisitatu genuen, zaharrentzako egoitzari buruzko txosten monografikoa egin zenean erakunde honetako kideok ikusi gabe baikeneukan.

Ondoren, zaharren egoitzetan egindako ikustaldien emaitza azalduko dugu.

- Amurrioko egoitza

Egoitzaren barruan erosotasuna hobetzea lortu da, egoitzako sarrera-aldea aisialdirako gune gisa egokitu baita. Bestalde, egoiliarrek ondoko berdegunea ere erabiltzen dute, erabilera publikoa duen udalaren jabetzako berdegunea hain zuzen. Era horretan, haien bizi-kalitatea hobetzea lortu da, kanpoaldeko eremua erabiltzeko modua baitute.

Adierazi behar da erizaintza zerbitzua hobetu egin dela. Gaur egun, OLT-EUD maila duen egoitzako zuzendariak gain, kanpoko profesional bat kontratatu dute, astelehenetik igandera bitartean, egunean 4 orduz lan egiteko.

- Aguraingo egoitza

Beren gisa moldatzeko gai diren personentzat sortua da; arkitektura aldetik dituen mugak kontuan izanik, Arabako Foru Aldundia epe ertainera Agurainen egoitza berri bat egiteko premia aztertzen ari da.

Hala ere, egoitza horretan hobekuntza batzuk egin beharrari buruzko gomendioak aintzat hartu dituzte; komunetan eta bainugeletan segurtasunezko eskudelak eta ez irristatzeko moduko zorua jarri dira. Era berean, egoitzako bainugela guztietan txirrinak jarri dira.

Pertsona ezinduek telefonoa inoren laguntzarik gabe erabili ahal izan dezaten, telefono-kabina bat altuera txikian jarri da, erraz iristeko moduan.

Egoitzako taldeak, hainbat profesionalen aholkularitzaz, animazio eta ekintzetarako programa bat prestatu du, eta horren barruan, Udalak antolatutako kanpo-jarduerak eta egoitzako taldeak antolatutakoak sartzen dira.

- **Azpeitiko San Martin**

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi digunez, osasun zerbitzuak egokitzeko beharrezko obrak burutu dira: zeuden oztopoak kendu eta ez irristatzeko moduko plaketak jarri dira toki hezeetan. Gaur egun obrak amaiturik daude eta eskaturiko kalitate-irizpideetara egokitzen da.

Egoitzako jardueri dagokienez, zuzendaritzak lan-jarduera bidezko terapiarako programei buruzko proiektu bat egin du, eta hemendik laster jarriko du abian, bere finantzaketa berritu ondoren.

Hobekuntza horiei esker zerbitzuaren kalitatea handiagoa izango da; nolahi ere, erreklamazioak edo kexak bideratzeko prozedura, eta iradokizunak jasotzeko sistema antolatu gabe daude oraindik.

- **Santurtziko Begoñako Andra Maria egoitza**

Gizarte laguntzarako zerbitzua praktiketan ari ziren ikasleen bitartez eskaintzen zen orain arte; une honetan Santurtziko Gizarte Zerbitzuaren bidez indartzen ari da zerbitzu hori.

Bestetik, egoiliarrei laguntza psikologikoa emateko zerbitzu bat abian jartzeko beharrezko izapideak egiten ari dira, eta horri esker gaur egun eskaintzen den osasun zerbitzua hobetu ahal izango da.

Harrigarria bada ere, duela gutxi eraberritu eta behar bezala horniturik dagoen egoitza horrek dauzkan 137 plazetatik 37 bete gabe daude; dena dela, esan behar da plaza horietatik 19 udako egonaldietarako erabili ohi direla.

Bizkaiko Foru Aldundiak, laguntzazko 66 plaza betetzeko 1992an Santurtziko Udalarekin egin zuen hitzarmena salatu bazuen ere, geroztik plaza horiek erabili egin dira. Hala ere, egoitza publikoetan dagoen plaza gabezia udal titularitateko egoitza horren erabilera urriari kontrajartzen zaio, Bizkaian biztanle kopururik handiena eta gizarte-premia larrienak dauden lekuan baitago.

- **Basauriko zaharren egoitza**

Gure gomendioak aintzat harturik, dutxetako zorua aldatu eta ez irristatzeko moduko oihal asfaltiko bikoitza jarri da; platerak kendu egin dituzte, mugitzeko zailtasuna duten edo gurpil-aulkia erabili behar duten pertsona guztiei pasabidea errazteko. Eskudelak eta barandak ere jarri dira.

1999ko ekitaldiari begira, solairu guztietako bainugela geriatrikoak egokitzea aurreikusita dago. Halaber, terraza ixteko azterketa udal arkitektoaren esku utzi da; terrazak 209 m²ko azalera du eta egoitzak dituen bi geletako batetik du sarrera. Lan horri esker, egoitzaren barruan leku gehiago eta erosotasun handiagoa lortuko da.

Hala ere, dekretuaren zehaztapenera egokitzeko gelak berregituratzea ez da aurreikusi. Gaur egun 3na oheko 20 logela, lagun bakarreko 2 logela, eta bi lagunentzako 7 logela txiki ditu egoitzak. Horietatik bakar batek ere ez du komunik; beraz, araudia betez gero, plaza kopurua nabarmen gutxitu beharko litzateke.

Egoitzan dauden pertsoneri kalitatezko zerbitzua eskaintzeko premiak geletako espazioaren eta altzarien berrantolaketa ekarriko du.

Egoitzaren antolaketa-politikari dagokionez, profesional koalifikatuen aholkularitza izan arren, gaur egun ez da inolako jarduerarik antolatzen, ezta lan-jarduera bidezko inolako terapiarik ere. Egoitzan dauden pertsonen oso jarduera gutxi burutzen dituzte egunean zehar, horregatik komeniko litzateke profesionalek antolatutako jarduerak aurrera eramatea.

- Leioako lagundutako egoitza

1996. urtean Ararteko erakundeko ordezkariak Leioako lagundutako egoitza ikusten izan ziren, EAEko zaharren egoitzei buruzko txostenean adierazitako gomendioak aintzat hartu ziren ala ez jakiteko.

Ikustaldi horretan ohartu ziren arazoak larriagotu egin zirela; batetik, denboraren joanaren eta materialetan inbertsiorik egin ez izanaren ondorioz etxea hondatzen hasia zegoen, eta bestetik, egoitzan zeuden pertsonen ezgaitasun maila handiagoa zuten.

Ikustaldian ohartu zirenez, 300 egoiliarretatik 213k gelen ondoko aretoak erabiltzen zituzten jangela gisa, nahiz eta hasiera batean irtenbide hori behin-behinekoa izateko proposatu zen.

Egoitzak 4na oheko 60 gela dituenek, eta gurgil-aulkiak, garabiak edo bestelako lagungarri teknikoak erabili ahal izateko lekuri ez dagoenez gero, gelen ondoko aretoak era askotako eginkizunetarako erabiltzen dira, eta pertsonen intimitatearen aurkakotzat jo genitzakeen egoerak sortzen dira.

Egoitzaren antolaketa-politikari eta bertako erabiltzaileen partaidetza mailari dagozkion alderdi horien eta beste batzuen berri eman genion Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte-Ekintzetarako Departamentuari, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko asmoz.

Hala ere, denbora joan ahala, eta egindako eskaerak gorabehera, ez genuen inolako erantzunik jaso. Horregatik, komenigarri iruditu zitzaigun instalazio horiek berriro ikustea, herriko prentsan iragarritako berrikuntzak egin ziren ala ez jakiteko.

Beste ikustaldi horretan ikusi genuenez, obra horien bidez egoitza hori 4 egoitza txikitari banatu nahi zuten, solairu bakoitzean egoitza bana, elkarren artean loturik, baina bakoitzak bere funtzionamendua zuela. Horrela, egoitzaren izaera guztiz instituzionala apurtu eta arreta pertsonalizatuagoa eskaini nahi zuten.

Erakiniaren beheko solairuan dagoen jangela bere horretan utzi bada ere (90 egoiliarrentzako lekua), solairu guztietan jangelak antolatu dira, eta horien ondoan bi bainugela geriatriko jarri dira. Leioak ere aldatu eta suaren kontrako ateak jarri dira solairu guztietan.

Egoitzaren antolamendu berri horren ondorioz, beheko solairuan zeuden erizaintzako 20 oheak kendu eta erizaintzako eremu bat antolatu da solairu bakoitzean.

Birmoldaketa hori lehengo instalazioak aldatu gabe egin da; nolana ere erizaintzako eremu horietan kalitatezko arreta eskaintzeko beharrezko berrikuntzak egin nahi dira.

- Ondarroako egoitza

Ondarroako zaharren egoitza herriaren erdialdean dagoen eraikin berri bat da; lau solairu eta terraza bat ditu, eta 54 lagunentzako lekua. Instalazio eta zerbitzu egokiak ditu, eta hirigunean bertan kokatua dagoenez, zerbitzu komunitarioak erabiltzeko aukera du.

Solairu guztietan egongela txiki bat dago, bisitak hartzeko ere erabil daitekeena. Gela pare bakoitzak komun bana du, eta ikustaldia egin zenean 24 komun eraberritzen ari ziren dutxetako platerak kendu eta oztopoak baztertzeko. Halaber, solairu bakoitzak bainugela geriatriko bana du. Ondarroako Udala kalitatezko zerbitzua eskaintzearen egiten ari den ahalegina oso positiboa da zalantzarik gabe; hala ere, bisitan ikusi genituen hutsuneak zuzentzeko gomendio batzuk eman ditugu.

Horrela, eraikinaren beheko solairuan eta lehenengo solairuan eskudel batzuk jartzea komeniko litzateke, mugitzeko eragozpenak dituzten adineko pertsonak gaur egun toki horietan errazago ibiltzeko modua izan dezaten. Halaber, egoitzako toki lasai batean, altuera txikian telefono bat jartzea komeniko litzateke, gurpil-aulkietan ibili beharra daukaten egoiliarrek arazorik gabe erabil dezaten.

Egoitza ongi hornitua eta zaindua badago ere, gerora egingo diren berrikuntzetan espazioak eta zerbitzuak bereizi egin beharko liriateke, eta horretarako kartel batzuk jarri edo gune ezberdinak kolore ezberdinez margotuko dira, bertan dabiltzan pertsonak, batez ere zaharrenei, nondik nora jo errazteko. Era berean, egoiliarrei eskatu beharko litzaieke parte hartu eta gelak beren gogoko gauzekin apain ditzaten.

Beste gai batzuei dagokienez, erakunde honek txostenean adierazi zituen gomendioak eta egoitzei buruzko dekretu berria kontuan izanik, egoitzak informaziorako liburuxka bat izan beharko luke; bertan, modu argian adierazi beharko dira: egoitzaren helburuak, bertako instalazioak eta zerbitzuak, barne-erregimeneko arautegia, zerbitzuen erabilerari buruzko zehaztasunak, segurtasun-arauak, prezioak, partaidetzarako bideak eta erreklamazio-prozedurak. Era berean, adin nagusikoek egoitzaren funtzionamendu orokorrean parte hartzeko premia ikusi dugu; beraiek baitira, izan ere, egoitzako protagonista nagusiak.

Halaber, egoiliarrei aisialdiko jardueretan parte hartzeko jarduerak antolatu beharko liriateke, era horretan bolondresak gaur egun duten eginkizuna indartu egingo baita.

1.1.5. **HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO EGOITZAZ KANPOKO ARRETA KONTROLATZEKO JARDUKETEN JARRAIPENA**

Hirugarren adinenkoentzako egoitzaz kanpoko arretari buruzko txostenean, EAEan egoitzetatik kanpo dauden aitona-amonen egoera aztertu nahi zen, eta bereziki, erakunde publikoek haien beharrei nola erantzuten dieten eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzetan ez dauden adineko pertsonak eskaintzen zaien gizarte-zerbitzuaren erabiltzaileek zer eskubide dituzten zehaztu.

Txosten horretan, egoitzaz kanpoko adineko pertsonentzako eskaintza publikoaren funtsezko baliabideak aztertu ziren: etxez etxeko laguntza zerbitzua eta eguneko zentroak.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua erabiltzen duten pertsonen egoera aztertzeko, herrialde historiko bakoitzean erabiltzaileek zuten egoerari buruzko laginketa-teknika adierazgarriak erabili ziren, erkidego osorako baliagarriak izango ziren ondorioak atera ahal izateko.

Eguneko zentroein dagokienez, txostena amaitutakoan, 1995eko azaroan, adineko pertsonentzat antolaturik zeuden 22 zentroak bisitatu ziren, eta horietan guztietan beharrezko informazioa bildu genuen ingurune fisiko, zerbitzuen eta pertsonalaren hornidura eta jarduera profesionalari buruz.

Gaur egun, eguneko zentroak sortzeko joera dago; gehienetan udal mailakoak izaten dira, eta lehendik dauden zahar-etxe edo egoitzak aprobetxatuz antolatu ohi dira. Laguntza modu horren bitartez, adineko pertsonak arreta jasotzeko aukera dute beren familia bizitzari uko egin behar izan gabe.

Ararteko erakundeak hainbat ikustaldi egiten ditu urtero zentro horietan, egindako gomendioak zenbateraino bete diren aztertu eta zentro berrietan adineko pertsonen kalitateko arreta eskaintzeko beharrezko baldintzak betetzen diren ala ez ziurtatzeko.

- San Martzial eguneko zentroa

Zentro hori Donostiako Altza auzoan zegoen, herrigunean txertaturik; horri esker, zerbitzu komunitarioak erabiltzeko aukera zuen.

Hala ere, eguneko zentroa zahar-etxeko instalazioak aprobetxatuz antolatu zenez gero, arretazko kalitatea eskaintzeko beharrezko instalazioak falta zitzaizkion; izan ere, ez zuen bainugela geriatrikorik, eta komunetan ez irristatzeko moduko zorua eta segurtasunezko heldulekuak jarri gabe zeuden.

Eraikina eraberritu beharra zegoen, oztopo arkitektonikoak kendu, segidako eskulekuak jarri...

Donostiako Udalak, zerbitzu on bat eskaintzeko egin beharreko hobekuntza garrantzitsuez oharturik, zentroa itxi eta aiton-amonak duela gutxi inauguraturiko Intxaurrendoko Txara 1 Eguneko Zentrorara eraman zituen.

- Irungo Eguneko zentroa

Txostenean adierazitako gomendioen jarraipena egiteko Irungo eguneko zentroa bisitatu genuen; Irungo Udaleko adineko pertsonentzako gizarte-zerbitzuei dagokie zentro hori.

Zentroa 1985ean inauguratu zen. 20 erabiltzaileentzako lekua du, eta ikustaldia egin zen egunean 16 pertsona itxaron-zerrendan zeuden; horrek zerbitzuak izan duen harrera ona erakusten digu.

Zaharren elkartetik eta zaharren egoitzatik hurbil dagoenez, zenbait zerbitzu batera erabiltzeko aukera du, eta horrek arretaren kalitatea hobetzen laguntzen du.

Instalazio eta zerbitzu egokiak baditu ere, ikustaldian hutsune batzuk ikusi genituen, eta arreta hobe eskaintzeko hutsune horiek betetzea gomendatu digu. Alde horretatik, bainugela eta komunetan ez irristatzeko moduko zorua eta heldulekuak jarri behar dira, ibiltzeko zailtasuna duten pertsonentzat. Gerora egingo diren eraberritzeetan, txirrinak edo bestelako alarma-sistemak jarri beharko dira, premia sortuz gero erabiltzaileei arreta lehenbailehen eskaintzeko.

Udalak barrenaldeko lorategietako bat aisialdirako gune gisa egokitzea aurreikusi du, ezgaitasunen bat duten pertsonen inolako arriskurik gabeko toki zabal bat erabiltzeko modua izan dezaten.

- Andoaino eguneko zentroa

Udal titularitatea duen eguneko zentro hori *Ambrosio Olabide Gizarte Zerbitzuen Zentroa* izeneko erakinean dago. Eraikin berri bat da, oso argitsua, eta bertan gizarte-laguntza era integratuan proiektatu da, baina zerbitzuetatik aparteko funtzionamendua izanik.

Eguneko zentroak beheko solairua eta eraikinaren atalik garaienaren lehen solairua hartzen ditu, hurrenez hurren 332 m² eta 307 m²ko azalera erabilgarriarekin. 25 laguni arreta eskaintzeko lekua du, nahiz eta Aldundiarekin egindako hitzarmenaren arabera, bakarrik 15 lagunentzat izan. Ikustaldia egin zenean, aldi baterako “atseden-plazak” deiturikoak eskaintzeko aukera aztertzen ari ziren, adineko pertsonen arduratzen diren familiak liberatzeko asmoz.

Zerbitzu medikoa eta erizaintzakoa komunitarioak dira, baina zentroan bertan eskaintzen da. Beren kabuz joateko zailtasuna duten pertsonentzako egokituriko garraioa ere badute.

Lan-jarduera bidezko terapia eta mantenimendu-gimnasia egiten da. Badira jarduera programatuak ere: txangoak, jaialdiak...

Zentroak instalazio egokiak baditu ere, bere garaian ez zen komenigarritzat jo bainugela eta komunetan txirrinak jartzea; horregatik, gerora egingo diren birmoldatze edo handitze lanetan, txirrina edo bestelako sistemaren bat jartzea komeniko litzateke, premia sortuz gero erabiltzaileei arreta ahalik eta azkarren eskaintzeko.

- Bideberri eguneko zentroa

Zentro hau aintzindari izan zen, Europako Batasunak talde baztertuentzat emandako laguntzei esker eratu baitzen. Bilboko Conde Mirasol kalean dago, eta Lan-Ekintzak prestatutako proiektu baten bitartez enpresario bihurtu ziren 8 emakumek kudeatzen dute. Gaur egun Ungantziren aholkularitza dute (ongizatea sustatzeko zerbitzuak).

20 lagunentzako lekua badu ere, gaur egun zerbitzuak 16 erabiltzaile ditu; bertan bolondresak eta praktikak egiten ari den pertsonala ari dira lanean, gizarte, aisialdi eta kultura jarduerak aurrera eramanez.

Lokal hori Bilboko Udaleko gizarte-etxebizitzetako dagokie eta ondo hornitua dago; hala ere, ez da aurreikusitako hormetan segidako eskulekuak jartzea, eta hutsune hori konpondu egin behar da.

- Zarauzko eguneko zentroa

Udal titularitateko zentro hori 1996. urtean inauguratu zen. 21 lagunentzako lekua du, nahiz eta ikustaldia egin zenean, bakar-bakarrik 17 plaza beteta eduki.

1998. urtean 2. solairua inauguratu zen, ezgaitasun handiena zuten adineko pertsonen arreta hobea eskaini ahal izateko.

Sendagile eta osasun zerbitzuak komunitarioak dira eta horiez gainera erizaintza zerbitzua dute astean 2 orduz; era berean, erabiltzaileen jarduerak programatu eta berrikusten dituen terapeuta baten aholkularitza dute.

Zentroa zaharren elkartean txertatua badago ere, eta hango zerbitzu batzuk batera erabiltzen badituzte ere, funtzionamendu berezia du.

Instalazio egokiak ditu, eta egoera onean daude. Hala ere, bere garaian ez zen komenigarritzat jo bainugela eta komunetan txirrina jartzea, horregatik gerora egingo diren eraberritze edo handitze lanetan alarma sistemaren bat jarri beharko litzateke, adineko pertsonen larrialdi edo arazoren bat izanez gero, arreta lehenbailehen eskaintzeko.

1.1.6. **EAEn BABESIK GABE DAUDEN HAUR ETA NERABEENTZAKO ARRETA KONTROLATZEKO JARDUKETEN JARRAIPENA**

1998. urtean babesik gabe dauden adin txikikoen zentro batzuk bisitatu genituen. Batzuetan, gai horri buruzko txostena prestatu ondoren egindako gomendio eta iradokizunen jarraipena burutu nahi zen. Beste kasu batzuetan, berriz, instalazioak eta eskaintako zerbitzuak ezagutu nahi genituen.

- Donostiako Zabaleta egoitza txikia

Ikustaldi horren bitartez, txostenean adierazitako gomendioen jarraipena egin eta adin txikiko itsu bat egoitzan bere kabuz ongi ibili ahal izateko hartu zituzten neurriak ezagutu nahi genituen.

Ikustaldian jakin genuenez, Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala (ONCE) elkarlanean ari da egoitzarekin, haur itsu horren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Hala ere, etxebizitzaren barruan aldaketak egin beharreak, hasieran pentsatu zen bezala, haurra bere eguneroko eginbeharretan ahalik eta ondoen molda dadin erakusten saiatzen ari dira.

Haurra eskolara joaten da eta ONCEren monitore baten aholkua eta laguntza du; bestalde, lehenago ondo ikusten zuen, eta horri esker ondo moldatzen da hirian.

Esan behar da hezitzaileen plantila handitu beharri buruz egindako gomendioak kontuan hartu direla; horri dagokionez, lehenago pisu bakoitzean 3 hezitzaile zeuden eta orain 4 daude.

Ikusi genuenez, hurrek gelak beren erara apainduak zituzten, eta Zabaleta kaleko etxebizitzan itzalgailu bat jarrita zeukaten.

Ikustaldia egin bitartean, etxebizitzako arduradunak eta hezitzaileek beren kezka azaldu ziguten, instituzionalizazioari buruz alternatibarik ez dagoelako.

Haien ustez, balorazio-denborak oso luzeak dira eta familia-harrera gutxi egiten dira. Ziotenez, gaur egungo legeetan adopzio-aurreko harrerak egiteko eskaintzen diren aukera guztiak erabili beharko liriateke. Haien iritziz, arazoaren inguruko gorabehera guztiak aztertu beharko liriateke, gerora begira hurrek joateko modua izan dezaten eta gaur egun etxebizitzan dauden hurrek baino aukera gehiago izan ditzaten.

- Zubideko adin txikikoen zentroa

10 eta 18 urte bitarteko neska-mutilen larrialdietako zentroa da; bertan oso arazo ezberdinak dituzten gazteak bizi dira. Sarritan, salaketa batengatik edo ihesaldi batengatik eta tratu txarrak, sexu-abusuak... direla-eta beren familiengandik banandu behar izan dutelako egon ohi dira etxebizitzan.

Txikiak ez dute normalean beren egoera ulertzen eta sarritan errudun sentitzen dira; horregatik, arreta berezia eskaini behar zaie, orientabideak eman eta etxebizitzan zergatik dauden azaldu.

Hezitzaileek adin txikikoak bertan eduki eta zaintzeko ardura dute, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Departamentuak-Gizartekintzak egoera bakoitza baloratu eta zer komeni den erabakitzen du: adin txikikoa atzera familiaren etxera eraman, beste familia batean hartu edo egoitza batera bidali.

Larrialdietarako etxebizitza batean dauden adin txikikoen arazoei bere ingurune hurbilenaz kanpo ere eragina izan dezakete, eta batzuetan, nekagarria gerta daiteke

auzoentzat. Egoera horiek eragozteko, eta babesik gabe dauden haurren eta nerabeentzako arreta hobetzeko, Gizartekintzak zentro bat jarri du Hernanin; horretarako, 12 adin txikikorentzat tokia duen eraikin bat eraberritu eta prestatu du.

Horren helburua arreta hobea eskaintzea da, eta gehienez ere bi hilabeteko epean haien egoera ebaluatzea. Proiektua 1999ko otsailean hastea aurreikusi da, eta hura martxan jarri ondoren Zubideko etxebizitza itxi egingo da.

- **Nuevo Futuro de San Ignacio**

Ikustaldi horren bidez, txostenean adierazitako gomendioak zenbateraino betetzen ziren, eta bereziki, arduradun-taldearen eta adin txikikoen artean nolako harremanak zeuden aztertu nahi genuen, txostena prestatzeko egindako ikustaldian zalantza batzuk sortu baizitzaizkigun adin txikikoek jasotzen zuten tratuari buruz.

Elkarrizketan ohartu ginenez, umeak lasai eta kontuak esateko gogoz zeuden, eta beren eskubideak eta arau edo zigorren batekin ados ez zeudenean erabil zitzaizketen baliabideak ezagutzeko interesa azaldu zuten.

Erakundeak elkarte horri gogorarazi dio egoitzako zerbitzuen eginkizun eta helburuak azaltzeko dokumentu bat izatea komeni dela.

Halaber, egoitza-zerbitzu bakoitzak informazio-orri bat izatea eskatu da; orri horretan, adin txikikoek erraz ulertzeko moduko idazkera eta hizkera erabiliz, zentroaren eginkizunak, elkarbizitzarako jarraipideak, erabiltzaileen arteztarauak eta kexa-prozedurak adieraziko dira.

- **San José Artesano Ikastetxea**

Titularitate publikoko ikastetxe horretan 8 eta 19 urte bitarteko neska-mutilak dabilta. Bilbo ondoko nekazaritza-inguru batean dago, finka handi baten barruan, eta berdegune zabalak eta kirol-zelaiak ditu.

Ikustaldiaren bitartez, txostenean adierazitako gomendioen jarraipena egin nahi zen; izan ere, ikastetxeak 92 egoiliarrentzat lekua du, eta ikustaldia egin zenean 85 plaza beteak zeuzkan, 74 mutilekin eta 11 neskekin.

Adin txikikoak 28 ikastetxe ezberdinetan matrikulatuta daude, horiek gizarteratzea baita helburua, eta hori nekez lortuko litzateke ikasketak batera egingo balituzkete.

Eraikina ondo zaindua eta ikastetxeko instalazioak egoera onean badaude ere, adin txikikoentzat erabiltzen den pabilioian egitura-aldaketa batzuk egin beharko liriateke.

Urteak dira pabilioia eraberritu ez dela, eta oso itxura desagokia du. Haurrek ezin dute posterrik jarri, eta horri dagokionez tutoreek adierazi dute gelak eraberritu eta hormetan kortxoak jarri zain daudela. Orain urte batzuk, multzo eta pabilioi ezberdinei autonomia gehiago emateko eraberritze lanak hasi ziren. Hala ere, eraberrikuntza orokorrik egin ez zenez, horrek ez zuen funtzionatu. Gaur egun bada sukalde nagusi bat, eta sukaldea jarrita daukaten pabilioietan oso noizbehinka baizik ez dute erabiltzen askariak egiteko, ospakizunetarako...

Berregituraketa horren ondoren, gela anizkoitzak desagertu eta adin txikikoek gelak beren erara jarri eta apaintzeko aukera izan beharko lukete.

Ikustaldian egiaztatu genuenez, ikastetxeak adierazi genizkion aholkuak bete zituen, eta alde horretatik neska taldearentzat gela bakarrak zituen pabilio bat antolatu zuen, txostena egin zenean gela anizkoitzak baitzituzten.

Ikastetxearen antolaketa eta kudeaketari dagokionez, adin txikikoek adierazi dute batzuetan erreklamazioak eta kexak bideratzeko mekanismoak ez direla baliagarriak

izaten. Ikastetxeko zuzendaritzak zuzendariari kexak aurkezteko aukera badagoela adierazi bazigun ere, gure ustez, portaera desegokiak modu arautuan adierazi eta adin txikikoek zehapena ezartzen dietenean erabil ditzateken erreklamazio bideak ezarri beharko lirateke.

Horrelako ezaugarriak dituen ikastetxe batean adin txikikoek oso harreman gutxi izaten dute senitartekoeekin. Alde horretatik, ikastetxeko zuzendariak oso positibotzat jotzen ditu jarduketa-talde komunitarioek adin txikikoak beren familietan txertatzen laguntzeko burutzen dituzten programak. Hala ere, asteburuetan, adin txikikoak beren familiekin biltzen diren egunetan hain zuzen, ez dago horrelako programarik, horregatik elkarbizitzan sor daitezkeen arazoak konpontzeko laguntza moduren bat antolatzea komeniko litzateke.

- Martuteneko adin txikiko atzerritarrentzako harrera zentroa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Departamentuak 1997ko irailean abiarazi zuen zentro hori, Gurutze Gorriak kudeaturik, beste herrialde batzuetatik, batez ere Afrikako iparraldetik zetozen adin txikikoei -arriku egoeran zeudenei- arreta eskaintzeko asmoz.

Zentroa aintzindari izan da Estatuan, eta 6-18 urte bitarteko neska-mutilak jasotzen ditu. 9 egoiliarrentzako tokia du, baina batzuetan 17 adin txikiko ere hartu izan ditu. Hala ere, aurreneko urtean zentroa erabili duten 110 adin txikikoetatik lauk bakarrik lortu dute bizitza-proiektu bat izatea eta gizarteratzea.

Zerbitzu hori abian jarri aurretik, familiarik ez zuten pasaerako umeak harrera-etxebizitzetan jasotzen ziren, baina horrek arazo ugari sortzen zituen.

Gaur egun, Martuteneko etxebizitzan dauden adin txikikoen arazo konplexuak kontuan izanik, proiektu ezberdinak aurrera eramateko beste irtenbide batzuk aztertu beharko lirateke. Horrela, gizarteratu nahi dutenei egonkortasun handiagoa eskaini ahal izango zaie, pasaeran etorri eta unean uneko laguntza behar dutenengandik berezita.

Adin txikiko horien egoera erregularizatzeko irtenbideak bilatu behar dira, egonaldiak legezatzeko zailtasuna eragozpena baita gizarteratzeari begira, adin txikiko asko delinkuentzia bidetik joateko arriskua izanik.

Ararteko erakundeak informazioa eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari jakiteko foru erakundeak zenbat aldiz hartu duen bere gain adin txikikoen babesa eta zeintzuk diren, beste kasu batzuetan, lege-babesa galarazi duten arrazoiak.

- Sansoheta gizarte-hezkuntza etxea

Etxe hori Arabako Foru Aldundiaren mende dago. 1997. urtearen azkenaldian inauguratu zen, eta horregatik ez genuen baloratu *Babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako zerbitzuari* buruzko txostena egin genuenean.

Zerbitzu horren bitartez, arrisku egoeran edo babeserako zerbitzuetan dauden edota beren familien bidez etorri eta aldi baterako hezkuntza-baliabide bereziren bat behar duten neska-mutilei arreta eskainiko zaie. Beren ingurunean integratzea funtsezko helburua izanik, hori lortzeko programak antolatuko dira.

Etxearen kokalekua aukeratzean (Gasteizko herrigunetik hurbil eta komunikabide onekin) adin txikikoek jarduera arautuetan parte hartzeko eta gizarteratzeko erraztasuna lortu nahi izan zen.

Arabako Foru Aldundiak 1997an egindako 2 solairuko eraikina da, egoitzetan bizitzeko zailtasunak dituzten 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutilei arreta eskaintzeko prestatua.

12 egoiliarrentzako lekua eta 3 eguneko jarduera ditu, eta familian bezalako elkarbizitza erregimena sortzeko pentsatua dago; arau orokor gisa, eskolako edota laneratu aurreko jarduerak zentrotik kanpo egingo dira, hezkuntza prozesuaren arabera.

Nolanahi ere, ikustaldia egin zenean, zentroan zeuden 8 adin txikikoetatik 2 bakarrik zebiltzan eskolan. Gainerakoak ikastaroak egiten eta tailerretako lanetan zebiltzan.

Eskolaratu gabeko adin txikikoekin egindako elkarrizketan kexa batzuk agertu zizkiguten, esanez elkarbizitzarako arauak oso zorrotzak zirela eta sarritan zigorrak ezartzen zizkietela. Kanpoko munduarekin erlazionatzeko eta zentroan dauden gune libreak erabiltzeko zailtasunak zituztela azpimarratu zuten.

Adierazi zuten, arratsaldean duten 2 orduko atsedenealdian ezin dira eraikinetik kanpora irten saski-baloian jokatzeko, errehabilitazio-fase jakin batean daudenean bakarrik lortzen baitute horrelako "abantaila". Beraz, toki batean itxita bezala eta larritasun handiz bizi direla adierazi digute.

Ararteko erakundeak uste du zentroko instalazioak oso ondo daudela, eta gainera pilotaleku estalia jartzeko proiektu bat ere badute. Hala ere, adin txikikoak gizarteratzeak lehentasuna duenez, informazioa eskatu diogu Arabako Foru Aldundiari, galdetuaz ea kanpoko ikastetxeetara joaten ez diren adin txikikoek beste era bateko jardueretan (kirol, kultura edo aisialdi arloan) parte hartzerik badaukaten.

Era berean, adin txikikoak ezartzen dizkieten zehapenei buruz ados ez daudenean erabil ditzaketen erreklamazio eta kexabideei buruz eta zentro horretan egonaldia erabakitzeke irizpideei buruz informazioa eskatu dugu.

1.1.7. **KALABOZOAK ETA UDAL ATXILOKETA-ZENTROAK KONTROLATZEKO JARDUKETEN JARRAIPENA**

1990. urtean Arartekoak Ertzaintzaren kalabozoei eta udal atxiloketa-zentroei buruzko txosten bat egin zuen. Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako txosten horren bitartez, atxiloketa zentro horien egoera aztertu nahi zen, atxilotuek bertan hainbat orduz preso egon behar baitute, batzuetan pertsonen duintasunarentzat oso egokiak ez diren baldintzetan egon ere.

Txostenean arau-aurrekariak eta zuzenbide konparatuko ikerketak adierazi ziren, eta ildo horretatik zentro horietako egoera hobetu ahal izateko gomendioak egin genizkien eskudun erakundeek, atxilotutako pertsonen jasotzen duten tratua hobetzen laguntzeko asmoz.

Erakunde honentzat ikuskaritza lana ez da txostena aurkezterakoan amaitzen, horregatik urtero jarraipena burutzeko ikustaldiak egiten ditu zentro horietan.

A) Ertzaintzaren kalabozoak

1997. urtean ez zen bisitarik egin Ertzaintzaren kalabozoetara; izan ere, Eusko Jaularitzako Barne Saila obra handi batzuk egiten ari zen zaintza-gelen neurriak eta ezaugarriak Europako Kontseiluak ezarritako arauetara eta erakunde honen gomendioetara egokitzeke.

1998an Zarauzko eta Galdakaoko komisaldegia bisitatu genituen. Ikustaldi horietan batez ere zaintza-gela gisa erabiltzen diren guneak aztertu ziren, eta horiei buruz ondoko oharra egin behar dira:

- Zarauzko komisaldegia

Komisaldegiko gelak orain dela gutxi eraberritu dira, eta ikustaldian ez zen aipatzeko moduko irregulartasunik atzeman. Gure ustez, zaintza-geletarako erabiltzen den guneak behar bezalako ezaugarriak ditu.

Nolanahi ere, jakinarazi zigutenez, bazkaldu eta afaltzeko ogitartekoak ematen dizkiete atxilotuei. 1996. urteko jarduketan azpimarratu genuenez, atxilotetaldi laburretan era horretan jokatzeko onargarria izan liteke, baina atxilotetaldia luzatzen bada, egunean behin gutxienez behar bezalako otordu bero bat eman beharko litzateke.

- Galdakaoko komisaldegia

Galdakaoko Komisaldegiko kalabozoek konpondu beharreko hutsune nabariak dituzte: eskailera estuak (oztopo arkitektoniko hori gainditzeko ez da inolako baliabide mekanikorik aurreikusi), oso neurri txikiko zaintza-gelak, atxilotuaren intimitatea babesteko inolako neurririk ez duten komunak, etab.

Dirudenez, gela horietan eraberritze lanak egiteko asmoa dute; beraz, pentsatzekoa da, komisaldegia horretan ere, eraberritutako gainerako komisaldegietan bezala, erakunde honek Barne Sailari helarazi dizkion iradokizunak kontuan hartuko dituztela. Atxilotetaldia hobetzera bideraturiko aldaketa horiek lehenbailehen egitea espero dugu.

Erregistro sistemari dagokionez, egindako ikustaldietan atzemandako funtzionamendu ezberdintasunak aipatu behar dira. Galdakaoko Komisaldegian 1998. urtean ezarritako informatika-erregistroa bakarrik erabiltzen zuten; Zarautzen, berriz, sistema horrekin batera, erregistro-liburuan egindako oharrena berriz erabiltzen hasiak ziren (irailaz geroztik). Ezberdintasun hori kontuan izanik, Arartekoak informazioa eskatu dio Barne Sailari irizpide-ezberdintasun horri buruz.

B) Udal atxiloteta-zentroak

- Gasteizko udalaren atxilotuentzako zaintza-gelak

Aurreneko bisitan Gasteizko Udaltzaingoaren atxiloteta zentroa aztertu nahi zen. Bertako zaintza-gelak ikusi eta zerbitzuaren kalitatea hobetzen lagun dezaketen beste funtzionamendu-alderdi batzuei buruzko oharra ere egin ziren:

a) Zaintza-gelak eraikinaren behe-solairuan daude, Udaltzaingoaren zerbitzuak dauden lekuan. Egun-argia sartzen da eta horri esker instalazioak zabalagoak direla ematen du. Bada sarrera berezi bat atxilotutako pertsona zuzenean polizia-kotxetik sartzeko, eta horren abantailak ere kontuan hartu behar dira. Hala ere, sarrera horrek bi eskailera-maila ditu, eta sarrerako plataformaren ondoren beste maila bat, eta ez da inolako neurririk aurreikusi ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonen oztopo arkitektoniko hori gainditzeko; beraz, oztopo hori kendu egin beharko litzateke.

b) Lagun bakarreko sei gela daude, 6,5 m² ingurukoak, eta horietako bi biltegi moduan erabiltzen dira. Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak (CPT) 1994.

urtean Espainiako Gobernuari aurkeztu zion txostenaren arabera, gaua igarotzeko erabiltzen diren lagun bakarreko gelek 7 m² inguru izatea komeni da, pareten artean 2 m² edo tarte handiagoa utziz. Halaber, erakunde honek atxiloteta zentroei buruz egindako txostenean, gelek gutxienez 6 m² izatea gomendatzen zen. Beraz, gaur egun gelek duten neurria egokia da.

Gelek, hormari itsatsita, ertz borobileko etzaleku bat dute. Geletan ez dago beste inolako altzaririk. Atxilotuari hotzik ez pasatzeko adinako lodiera duen koltxoneta bat ematen diote; ez dira behin erabili eta bota egiten diren horietakoak, baina itxura ona dute. Mantek, aldiz, halako zikin itxura dute, erabilialdi bakoitzaren ondoren aldatu eta desinfektatzen badira ere, batzuek adierazi zigutenez. Erabilialdi bakarreko mantak jartzea komeniko litzateke. Materialak suaren kontrakoak izatea ziurtatu behar da.

Hormetan erabili den pintura garbigarria egokia da.

Ateak zurezkoak dira, eta egun-argia sartu ahal izateko moduko 40 x 60 cm.ko irekidura bat dute. Argi elektrikoa kanpotik kontrolatzen da, baina ezin da graduatu. Horretarako aukera izatea komeniko litzateke, lo egun eta irakurri ahal izateko.

c) Instalazio sanitarioei dagokienez, komun bakarra dago, komun-ontzi eta konketarekin hornitua, baina dutxarrik gabe, eta hori hutsune nabaria da. Halaber, atxilotuek beren garbiketarako behar dituzten gauzak eskura izan behar lituzkete, adibidez xaboia eta toaila. Bestalde, geletako ateez ez bezala, komuneko ateez ez du behatxulorik eta atxilotua bertan dagoen bitartean ez dago hura behar bezala zaintzeko modurik. Instalazio sanitarioek intimitatea babesteko neurriak gorde behar badituzte ere -tabikeak altuera txikian edo kristal zeharrargiak-, horrek ez du esan nahi kontrola erabat baztertzeko bidea eman behar dutenik.

d) Zaintza sistemari dagokionez, TBko zirkuitu itxi batek, hiru geletan jarritako kameran bidez, atxilotuak kontrolatzeko aukera ematen du. Gai honek garbi erakusten digu zaintza eraginkorraren eta atxilotuaren intimitatearekiko begirunearen artean dagoen alde handia. Izan ere, atxilotuak oso arriskutsuak diren kasuetan izan ezik -eta zantzu objektiboetan oinarriturik betiere- intimitate pertsonalarekiko begirunea eta babesa bultzatu behar dira. Kontuan izan behar dugu, gainera, oso ohikoa dela -nahiz eta batzuetan ez da behar bezala arrazoitzen- atxilotuari arriskugarri izan daitezkeen gauzak kentzea, hala nolako gerrikoa edo lokarriak, era horretan inori erasotzeko edo bere burua zauritzeko arrisku gutxiago baitu. Horregatik, komeniko litzateke kamarak pasabidean bakarrik jartzea, edo besterik ez bada, gelen gaineko kontrol bisuala etengabekoa ez izatea.

e) Atxilotetaldian erabiltzen diren gainerako aretoei dagokienez, atxilotua miatu edo arakatzen duten gela (inolako altzaririk gabea) eta datu pertsonalak eta argazkiak jasotzen diren aretoa ikusi genituen. Adierazi zigutenez, areto horretan egon ohi dira -zaintza-geletara pasa gabe- atxiloturiko adin txikikoak. Kasu horietan egokiena atxilotetarik ez egitea bada ere, ezinbestekoa denean, aipaturiko aretoa altzari egokiekin jantzi beharko da.

f) Funtzionamenduari buruzko beste alderdi batzuk ere adierazi behar ditugu, garrantzi gutxiagokoak izan arren, hobetzeko modukoak baitira, eskaintzen den zerbitzu publikoaren kalitatea handitzeko.

Batetik, atxilotuei ematen zaien janaria aipatu behar dugu. Jakinarazi zigutenez, bazkaltzeko eta afaltzeko ogitartekoak ematen dizkiete. Atxilotetaldi laburretan era

horretan jokatzeari onargarria izan liteke, baina atxiloketaldia luzatzen bada, egunean behin gutxienez behar bezalako otordu bero bat eman beharko litzateke.

Bestalde, erregistro-liburuetakori orri guztiak zenbatuta egotea komeniko litzateke; era horretan, atxiloketaldi bakoitzeko bat erabili eta begiratu batean jakin liteke zenbat atxiloketa egin diren. Halaber, liburuaren atalen izenak bi hizkuntzetan egotea komeniko litzateke. Esan beharra dago, gainera, liburu horrek ematen duen informazioa ez dela behar hainbatekoa: atxiloketa garaian izan diren gorabehera guztiak jaso behar baitira (atxilotua zaintzeaz arduratzen den udaltzaina, miaketa medikoak, ematen zaion medikazioa, irteerak, bisitak, abokatuaren edo interpretariaren asistentzia etab.) eta horretarako toki gehiago utzi behar da liburuan.

Atxilotuari bere eskubideak jakinarazteko izapideari dagokionez, dagoen aktaren idazketa onargarria da, baina asko hobetu liteke; batetik LECr-ko 520 artikulua ezartzen duenez, eragindako pertsonari jakinarazi egin behar zaio “zein diren egozten zaizkion **egintzak** eta zein diren askatasunik gabe geratzeko **arrazoiak**”. Horregatik, horren berri emateko toki bat utzi behar da; era horretan, atxilotuak egozten dioten egintza zehatza ezagutzen duela ziurtatuko da, eta ez bakarrik hari dagokion kalifikazio juridikoa; bestalde, atxilotuak dagokion eskubidea ulertu duen eta hura erabili nahi duen ala ez adierazi beharko litzateke galdera bakoitzaren ondoren.

Egokia litzateke, halaber, Udaltzaingoa eskubideak jakinarazteko aktaren euskarazko eredu bat ere izatea, hizkuntz hori erabil nahi duten atxilotuentzat. Eta, ahal bada, akta atzerriko beste hizkuntzetara batzuetara ere itzulita egotea komeniko litzateke.

- Irungo Udalaren atxiloketa-zentroa

Zaintza-gelak, 1997. urteko abenduan inauguraturiko Udaltzaingoa eraikin berrian dago. Sarrera berezia du, eta atxilotutako pertsona zuzenean polizia-kotxetik sartzeko aukera ematen du. Horren abantaila kontuan hartzekoa da.

Duela gutxi irekitako komisaldegia denez, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak 1994. urtean Espainiako Gobernuari bidalitako gomendioak eta erakunde honen txostena aintzat hartuz eraiki da.

Hain zuzen ere, lagun bakarreko 3 gelek 7 m²tik gora dute, eta gela komunitarioa 5 x 3,20 metrokoa da. Guztiek argi naturala dute eta argi artifiziala kanpotik erregulatzeko modukoa da. Gelak pintura garbigarri margotu dira, autolesioa errazago egiten duten materialak baztertuz.

Komunak dutxa bat du, eta gelaren altueraren erdiraino iristen den tabike bat jarri da atxilotuen intimitatea babesteko. Ikustaldia egin zenean, komuneko papera eta xaboa bazeuden konketaren ondoan.

TBko bi kamara jarri dira; bata ibilgailuen sarrera kontrolatzeko eta bestea gelen ondoko pasabidean; era horretan ez da geletan kamararik jarri behar, eta atxilotutako pertsonen intimitatea babestu egiten da.

Eskubideak jakinarazteko izapideari dagokionez, oso egokia iruditu zaigu aktak hainbat hizkuntzatan idatzita egotea, eta ongi idatzita badaude ere, gure ustez hobetu litezkeen alderdi batzuk aipatu ditugu.

LECr-ko 520 art.a kontuan hartzeko gomendatu dugu, horren arabera atxilotuari jakinarazi egin behar baita zein diren “egozten zaizkion **egintzak** eta zein diren askatasunik gabe geratzeko **arrazoiak**”, ez baita nahikoa egozten dioten delitua bakarrik adieraztea. Beste era batez esanda, atxilotuak egozten dizkioten egintzak -eta ez horiei ematen zaion kalifikazio juridikoa- ezagutzea ziurtatu behar da.

Bestalde, deigarria iruditzen zaigu atxilotuaren adierazpena jasotzeko erabiltzen den seigarren laukia, horretan “arauzko abokatuaren asistentziari uko egitea” adierazten baita. Testu horrek kontraesan bat du; izan ere, abokatuaren asistentzia, legez exigitzen ez denean, hau da, derrigorrezkoa ez denean bakarrik ukatu ahal izaten da. Seguraski idazketa-akats bat besterik ez da izango, eta aisa zuzenduko dute.

- Barakaldoko Udalaren atxiloketa-zentroa

Barakaldoko udaltzaingoaren zaintza-geletara egindako bisitan egindako oharpenak udaleko arduradunari jakinarazi genizkion, eta gure gomendioak kontuan hartu ditu.

Zaintza-gelak dauden tokian bada sarrera berezi bat atxilotutako pertsona polizia-kotxetik zuzenean sartzeko, eta hori egokia iruditzen zaigu. Hala ere, sarreran bi eskailera-maila daude, eta ez da inolako neurririk aurreikusi ezintasun fisikoren bat duten pertsonen oztopo arkitektoniko hori gainditzen laguntzeko.

Minusbaliotasunak dituzten atxilotuek komisaldegian sartzeko udaltzaingoko kideen laguntza izan badezakete ere, Eusko Legebiltzarraren abenduaren 4ko 20/97 Legeak ibilerraztasuna sustatzeko adierazitako aurreikuspenetara egokitzen den iradokizuna dela kontuan izanik, Udalak, aurrekontuetan dituen ahalbideen arabera, arazo hori lehenbailen konpontzeko aukera aztertuko du. Eraikinerari sartzeko dauden eskailera-mailak ere kendu egingo dira eta geletako argi-sistema hobetzeko iradokizuna aztertuko da.

Instalazio sanitarioetan ez dago dutxarik; Udalak hutsune horri garrantzia kendu nahi izan dio, esanez horretarako premia dagoenean udaltzaingoaren eraikinean daudenak erabili ahal izango direla.

Arazo hori lehenbailehen konpontzeko dauden zailtasun teknikoek oharturik ere, zerbitzu publikoa behar bezala eskaintzeko hainbat berrikuntza egin behar dira; horrela, komunean dutxa bat jarri eta gelaren altueraren erdiraino iritsiko den horma bat edo beste edozein sistema erabili beharko da, atxilotua zaindu eta aldi berean haren intimitatea babestu ahal izateko.

Alkatea bat dator erakunde honek egindako gogoetarekin; alegia, atxilotuen pribatutasunaren eta zaintza eraginkorraren artean interes-gatazka handia dagoela, eta bigarrenari ematen zaiola lehentasuna. Nolanahi ere, adierazi du zaintza lanak zentzuz eta atxilotuen intimitatea ahalik eta gehien babestuz egiten direla, eta horixe dela zerbitzuaren eguneroko jardura zuzentzen duen filosofia.

Zaintza-gelak dauden aldean ke-detektagailurik ez izatea kontuan hartu beharreko arazoa da, eta hori konpontzeko neurriak hartuko dira. Eraikinaren alderdi horretan berokuntza sistemaren bat jartzeko aukera ere aztertuko da.

Atxilotuei ogitartekoak eman ohi dizkiete bazkaltzeko eta afaltzeko; horregatik, atxiloketaldia luzatzen bada, egunean behin gutxienez behar bezalako otordu bero bat ematea gomendatu dugu. Udalak aintzat hartuko du proposamen hori, eta ahalegina egin du, atxilotuak otordu duinak izan eta aldi berean haren segurtasuna eta osotasuna babesteko, sukaldeko tresnak erasotzeko tresna gisa erabiltzeko dagoen arriskua kontuan izanik.

Erakunde honek egindako gomendioari jarraituz, atxilotutako pertsonen beren eskubideak jakinarazteko erabiltzen den akta-eredu bat euskaraz egongo da, norbaitek hizkuntza hori erabili nahi duenerako.

Bestalde, atxilotuei eskubideak jakinarazteko izapidea aldatu egingo da LECr-en 520 art.an adierazitako betetzeko, horren arabera atxilotuari jakinarazi egin behar baitzaizkio zein diren egozten zaizkion egintzak eta zein diren askatasunik gabe geratzeko arrazoiak. Beraz, egintzen kalifikazio juridikoa saihestuko da.

Erakunde honi oso egoki iruditzen zaio Barakaldoko Udalak udaltzainak etengabe prestatzeko egiten ari den ahalegina.

- Santurtziko Udalaren atxiloketa-zentroa

Ikustaldian ohartu ginenez, zaintza-gelak nahiko egoera txarrean zeuden, eta erakunde honek gomendatu zuen gela horiek pertsona atxilotuak edukitzeko ez erabiltzea, zaintza-gelen aldean zeuden hutsunerik larrienak konpondu arte.

Ikustaldian batez ere zaintza-gela gisa erabiltzen diren gunek aztertu ziren, eta horiei buruz ondoko oharra egin behar dira:

a) Zaintza-gelek udaltzaingoaren zerbitzuak dauden eraikineko erdisotoaren zati bat hartzen dute. Atxilotutako pertsona polizia-kotxetik zuzenean sartzeko ate bereizi bat badago ere, gure berriemaileak adierazi zigunez, ate hori ez da normalean erabiltzen atxilotuak sartzeko, atea barrenaldetik irekitzen baita, eta alde horretan ez da inolako egoten atea irekitzeko. Horregatik, erabiltzaile guztiak -funtzionarioak, salatzailak, atxilotuak, galderaren bat egitera doazen pertsonak etab.) ate beretik sartzen dira udaltzaingoaren egoitzara, eta hori pertsonen konfidentziasun eta segurtasunaren aurka doa.

Bestalde, sarrera nagusi horrek badu eskailera-maila bat atearen aurrean, eta beste hiru maila gehiago harrera-mahaira eta bulegoetara bitartean, eta ez da inolako neurrik aurrekusi ezintasun fisikoren bat duten pertsonen oztopo arkitektoniko hori gainditzen laguntzeko, nahiz eta behar-beharrezkoa izan.

Erabiltzailei arreta eskaintzeko ere ez dago leku aproposik, eta gauzak horrela, harrera-mahaira eta atearen artean dagoen lehiatila batera jo behar dute erabiltzaileek. Sistema hori ez da batere eroso -lehiatila altu xamar baitago- eta oso desagokoa da.

Ate ondoan, barrualdean, bi kutxeta-estalki metaliko daude, oso itxura txarrekoak, eta gainera, -esan zigutenez- urte sasoi batzuetan usain txarra botatzen dute.

b) Gela guztiak duela gutxi margotuak badira ere, oro har utzikeria nabari da, eta halako hezetasun eta hotz bat beti. Eraikinak ez du berokuntzarik; goiko solairuetan badira berogailu elektriko batzuk. Sua detektatzeko sistemarik ez dago. Bestalde, adierazi digutenez, iaz, uraren edota saneamenduaren instalazioen egoera txarra zela-eta, ura sartu zen bulegoetan.

Hutsune horiek askoz handiagoak dira zaintza-geletan. Behereneko sotoan daude, eta lurra aldapan dagoenez, ez dute inolako leihorik kanpora begira. Zaintza-geletara sartzeko pasabidearen aurrean, ezkerrean, bada estalki metaliko bat, bideratu gabeko ura biltzen duen eta sare nagusiarekin loturik ez duen ur-deposituari dagokiona nonbait. Itxura denez, depositu horretara hondakin-urak eta lurpeko urak biltzen dira, eta horren ondorioz sotoa urez bete izan da sarritan.

Itxura irregularreko hiru gela txiki daude (2,50 m x 1,80 m gutxi gorabehera), eta bertako sartune txiki batean komuna. Hormari itsatsita, ertz borobileko etzaleku handi samar bat dute. Horixe da altzari bakarra. Etzaleku bakoitzak, material plastifikatuzko zorro batez (skay moduko) estalitako espumazko koltxoneta bat eta manta bana dute; biek ere zikin itxura dute eta -jakinarazi digutenez- ez dago erabilialdi bakoitzaren ondoren garbiketa egingo duen zerbitzurik.

Horri dagokionez, adierazi behar da, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak (CPT) 1994. urtean Espainiako Gobernuari aurkeztu zion txostenaren arabera, gaua igarotzeko erabiltzen diren lagun bakarreko gelek 7 m² inguru izatea

komeni dela, pareten artean 2 m² edo tarte handiagoa utziz. Era berean, erakunde honen txostenean, gelek gutxienez 6 m² izatea gomendatzen zen. Gainerako materialei dagokienez, txosten horretan adierazten zenez (31 or.), komeniko litzateke mantak erabili eta botatzeko modukoak izatea, eta koltxoiak suak ez hartzeko moduko materialez eginak izatea edo suaren kontrako gairen bat emanda edukitzea.

Hormak pinturaz margoturik daude eta atea burdinesi metaliko bat da, kanpoaldetik kandadu batez ixten dena. Gelek ez dute argirik eta horietara sartzeko pasabidean bakarrik dago lanpara bat. Hutsune larria da hori.

Instalazio sanitarioei dagokienez, komunetan dagoen garbitasun faltaz gainera, ez dago garbiketarako inolako instalaziorik (ez konketarik, ez dutxaririk). Ez da onargarria pentsatzea hutsune hori konpontzeko aski dela udaltzaintzat dauden zerbitzuak erabiltzea.

Zaintza-gelak dauden alde osoa zikina dago, eta inolako berokuntza-instalaziorik ez duenez, oso hezea eta hotza da. Jakinarazi digutenez, lokalak gutxi gorabehera sei hilabetean behin desinfektatzen dira. Ikustaldia egin zenean, zaintza-geletara sartzeko ate ondoan zabor-ontzi bat zegoen, eta itxura denez beti hor egoten da.

Gelek ez dago inolako zaintza-sistematik, ez pertsonalik ez telebista-zirkuiturik. Normalean komisaldegiko sarreran harrera egiten duen udaltzaina arduratzen da atxilotuak zaintzeaz.

c) Zaintza-gelak dauden solairu berean, bi ziklomotore zahar dauden garaje moduko batean bada areto txiki bat, eta bertan atxilotuak arakatu, argazkiak begiratu, eta kasu batzuetan deklarazioa hartu eta ezagutza-txandak egin ohi dira. Atzealdeko horma zartaturik dago eta hezetasunak sortutako orban handi bat dauka, atzealdean dagoen hobi septikotik ura iragazten baita. Gelan dauden altzariak (mahai bat, bi aulki eta idazmakina) oso egoera txarrean daude.

Gainerakoan, ez dago atxiloketari buruzko izapideak betetzeko bestelako areto edo gelarik: deklarazioa bulegoetako batean hartzen diote atxilotuari, eta abokatuarekiko elkarrizketa ere bertan egiten da. Atxilotuak bisitak hartzeko gelarik ez dago, eta lehenago adierazi dugun bezala, ez dago herritarren premiei erantzuteko gela berezirik (salaketak jaso, kontsultak eta abar.)

d) Atxiloketaldian hobetu behar diren bestelako alderdiak ere aipatu genituen;

Laguntza mediko-sanitarioari dagokionez, jaso dugun informazioaren arabera, horren premia daukan atxilotua ospitalera eramaten dute berehala. Horretarako eragozpenik ez badago ere, lehen sorospenetarako botikin bat ere jarri beharko litzateke komisaldegian.

Atxilotuei ematen zaien janariari dagokionez ez da inolako hornidura-sistematik aurreikusitako. Dirudienez, normalean ogitarteko bat ematen diete, baina atxilotua zaintzen ari den pertsonak erabakitakoaren arabera beti ere. Funtzionamendu modu hori ez da onargarria eta atxiloketaldia dirauen bitartean otorduak ziurtatzeko sistema ezarri behar da, eta atxiloketaldia luzatzen bada, egunean behin gutxienez behar bezalako otordu bero bat eman behar zaie.

Atxiloketen erregistroan ere hutsuneak atzeman ditugu: komisaldegia liburu bakarra du, eta bertan, 1/1992 Lege Organikoak aurreikusitako identifikazio-izapideak eta atxiloketak ere jasotzen dira. Era horretan, liburuan begiratzuz ezin da jakin zenbat diren komisaldegian egon diren atxilotuak, eta are gutxiago, noski, atxiloketa garaian gertatu diren gainerako gorabeherak (miaketa medikoak, emandako medikazioa, irteerak, bisitak,

abokatuaren edo interpretariaren asistentzia etab.) Horregatik, behar-beharrezkoa da atxilotetei buruzko erregistro-liburu bat edukitzea, behar bezala zenbakitua eta zigitatua, eta bertan atxilotu bakoitzari buruzko oharrez gainera, burutako izapideak edo gorabehera aipagarrienak jasoko dira.

Atxilotuari eskubideak jakinarazteko izapideari dagokionez, erabiltzen den akta zuzen idatzita dago; hala ere, gogorarazi egin dugunez, atxilotuak egozten dizkioten egintzak ezagutzea ziurtatu behar da, eta ez horiei ematen zaien kalifikazio juridikoa.

Bestalde, komenigarria da Udaltzaingoak eskubideak jakinarazteko akta-eredua euskaraz ere idatzita edukitzea, atxilotuak hizkuntz hori erabili nahi duenerako.

e) Amaitzeko, esan behar da eraikinak hutsune nabariak dituela dagozkion zerbitzuak eskaini ahal izateko. Lehenago adierazi ditugun arazoez gainera (hezetasuna, ura sartzea, segurtasun-sistematik ez izatea...) toki arazoak ere baditu: bulegoak hainbat eginkizunetarako erabiltzen dira, herritarrei kasu egiteko gelarik ez dago, udaltzainen aldagelak oso txikiak dira eta bere gauzak gordetzeko kaxoiak hain dira txikiak ez baitute jantzi-tako batzuk gordetzeko tokirik (botak, kapela zapala, eta abar). Bestalde, eraikinak lau solairu ditu, baina igogailurik ez.

Azkeneko solairuan udal artxiboak daude. Horrek, eraikuntzaren egituraren sortarazi ditzakeen gehiegizko pisu-arazoez gainera, dauden toki-arazoak handitu egiten ditu.

- Lekeitioko Udalaren atxiloteta-zentroa

Lekeitioko udaltzaingoaren egoitza ikusi ondoren, esan dezakegu atxilotuentzako zaintza-gela ez dagoela batere egoera onean; horregatik, gela hori oso gutxitan erabiltzen denez, eta instalazioak egoera penagarrian daudela kontuan izanik, erakunde honek gela hori atxilotutako pertsonentzat ez erabiltzea gomendatu dio zerbitzuko arduradun nagusiari, ez behintzat hutsunerik handienak konpondu arte.

Zaintza-gela txiki bat besterik ez dago; bertan bada komun-ontzi bat, gelaren gainerakotik bereizi gabea. Ez du ez konkretarik ez dutzarik. Bi koltxo zikin eta zaharrak dira bertako altzari bakarrak.

Oro har, utzikeria eta zikinkeria nabari da. Arduradunak adierazi zigunez, urteak dira gelak margotu ez direla.

Garai batean geletarako sarrera bereizi bat zegoen (bi gela baitziren orduan) eta atxilotuak polizia-kotxetik zuzenean sartzeko aukera zegoen). Hala ere, gaur egun sarrera hori itxita dago eta obretako brigadak biltegi gisa erabiltzen du. Hori dela-eta, erabiltzaile guztiek ate beretik sartu behar izaten dute udaltzaingoaren egoitzara, eta hori pertsonen konfidentzialtasun eta segurtasunaren aurka doa.

Laburbilduz, udalaren zaintza-geletan atxilotuak eduki ahal izateko, ikustaldia egin zen egunean (1998ko abenduaren 1ean) ez ziren baldintzak bete beharko dituzte.

- Bermeoko Udalaren atxiloteta-zentroa

Bermeoko udalaren zaintza-gelak Udaltzaingoaren eraikineko sotoan daude. Hori dela-eta, ez da egun-argirik sartzen.

Gelek sarrera berezia badute ere, atxilotuek ezin dira polizia-kotxetik zuzenean sartu.

Garbitasuna aldetik egoera onargarrian dago, baina oso toki gutxi dago eta 3 m. x 1,90 m.ko gelek ez dituzte gutxieneko neurriak betetzen.

Gelek komun-ontzia badute, baina atxilotuen garbiketarako instalaziorik ez (ez dago konketarik ez dutxarrik) eta atxilotuek biltegi gisa erabiltzen diren geletako batean dagoen harraska erabili behar izaten dute.

Atxilotutakoak gutxi badira ere -hamaika 1998ko abenduaz geroztik- zaintza-gelak eraberritu eta instalazio sanitario egokiak jarri behar dira, bertan dauden pertsonak atxilotetaldi duina izan dezaten.

Zaintza hobetzeko asmoz telebista-zirkuitu bat jartzeko aukera aztertzen ari direnez, erakunde honek adierazi behar du neurri horrek interes-gatazka sortarazten duela zaintza eraginkorraren eta atxilotutako pertsonaren intimitatearekiko begirunearen artean, eta lehenago adierazi duen bezala, salbuespenezko kasuetan izan ezik, pertsonaren intimitatea babesteko jarduera bultzatu behar da. Horregatik, kamarak pasabidean bakarrik jartzea, edo besterik ez bada, gelen gaineko kontrol bisuala etengabekoa ez izatea gomendatu da.

Halaber, identifikazioei buruzko erregistro-liburu bat erabiltzeko beharra dagoela gogorarazi dugu, horiek epaitegira bidalitako agirietan bakarrik adierazten baitziren.

1.2. ADIN TXIKIKO ARAU HAUSLEENTZAKO JARDUKETARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

Aurreko txostenetan adierazi genuen bezala, gure erkidegoko adin txikikoen arazoa aztertzerakoan honako bereizketa egin genuen: batetik arriskuan edo babesik gabe dauden haur eta gaztetxoak hartu genituen kontuan, eta bestetik, adin txikiko arau hausleak -hau da, delitutzat hartutako ekintzak egiten dituzten adin txikikoak.

Babesik gabe dauden haurrentzako arreta zerbitzuei buruzko txosten berezia 1997an aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean, eta txosten beraren aurreko atalean, une horretatik aurrera burututako jardueren jarraipena agertzen zen.

Bestalde, erakunde ezberdinek EAEaren barruan adin txikiko arau hausleekin egiten duten lanari buruzko txosten berezia Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari bidali genion 1998ko abenduaren 21ean, eta bertako Ganbaran berariaz aztertu eta eztabaidatuko dute.

Beraz, hemen ez dugu txosten handi horretan adierazitakoa berrituko, baina arreta berezia merezi duten alderdi esanguratsuenak behintzat gogoraraziko ditugu.

Txosten horretan, gure Erkidegoan arrisku bereziko egoeran dauden 12-16 urte bitarteko gaztetxoei erakundeek eskaintzen dieten laguntza deskribatu eta baloratu egiten da. Jakina, laguntza hori hobetzeko hainbat proposamen edo gomendio eskaini nahi ditu. Nolabait ere, aurreko txosten bereziaren osagarri izan nahi du, hartan adin txikiko beste pertsona batzuen -babesik gabeko adin txikikoen- egoera aztertzen baitzen.

Txostena benetan une garrantzitsu eta itxaropentsuan aurkeztu da. Ikus dezagun:

- 1996ko urtarrilaz geroztik, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak gai horretan beharrezko neurriak aurrera eramateko ardura dauka. Era horretan, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan urte luzez iraun zuen egoera oso kezagarri bati aurre egiteko aukera izan du. Ildo horretatik, Adin Txikikoen Epaitegiek Erabakitako Neurriak Burutzeko Plan bat (1998ko otsaila) onartu zuen, eta gure Erkidegoan zeuden premiei erantzuteko behar adinako barneratze-zentroz osaturiko sare bat (Andollu, Aramaio, Ortuella, Zumarraga) eratzeko obrak egin ziren.

- Bestetik, 1995eko Kode Penalak 16 urtetik 18 urtera aldarazi zuen adin penala, baina aldi berean, agindua indarrean jarri aurretik arlo hori arautzeko berariazko lege bat onartu beharko litzatekeela adierazi zuen; lege hori ez da oraindik onartu, baina horri dagokion proiektua Gorte Nagusietan izapidatzen ari da, eta hori ezarri ondoren adin txikikoentzako zerbitzuetan jarduera gehiago burutuko dira.

Txostenak, funtsean, hiru atal berezi ditu:

- Aurrenekoan, penal arloan adin txikiko arau hausleei dagokien jarduketa sistemaren alderdi orokorrak aztertzen dira: alderdi teorikoak eta juridikoak, zerbitzu sarearen osakera eta arreta eskainiko zaien adintxikikoen ezaugarriak, jarduketarako prozedurak, polizia atxiloteta egiten duenetik neurriak aplikatzen diren arte... Azken horri dagokionez, prozedurak deskribatu eta baloratzeko epaitegietako ehun espedientetatik gora aztertu dira.
- Bigarren atalean, legeak aurreikusitako neurri bakoitza zehazten da: izaera, aplikazio maiztasunaren zenbaterainokoa, erabil daitezkeen baliabideak eta horiek aurrera eramateko epeak, etorkizunari begira dauden aurreikuspenak... Kasuen deskribapen eta azterketaren bidez gaur egun dauden aukera guztiak ikusten dira:
 - Bitartekotza lanak
 - Erregimen irekiko neurriak (zaintzapeko askatasuna, harrera edo komunitatearen mesedetan zerbitzuak eskaintzea).
 - Barneratze neurriak (orain arte gure Erkidegoan dauden hiru zentroyen ebaluazioarekin).
- Hirugarren atalean ondorioak adierazten dira, eta Arartekoak gai horretan arduraduten erakundeei egiten dien gomendioen eta txostenaren laburpena egiten da. Arartekoak aztertu eta hobetu beharrezkotzat jo dituen gaiei buruzkoak dira aipaturiko gomendioak: prozedurak, zerbitzu-sarea, erakundeen arteko lankidetzak, zerbitzuen ebaluazioa...

Jakina, gai horretan zuzeneko zerikusia duten erakundeetako bat Justizia Administrazioa da -eta zehazkiago Adin Txikikoen Epaitegiak eta Fiskaltzak-, horiei baitagokie neurriak hartzea. Arartekoak Sistema judizialaren eskumeneko gaietan esku hartzeari buruz legeak ezartzen dituen mugak kontuan izanik, txostenean ez du inoiz balioesten hartutako neurriak egokiak diren ala ez; hala ere, aztertu beharreko gaia kontuan izanik, epaitegietako jarduerari buruz organo judizialek berek eskaini dizkiguten datu adierazgarri batzuk bildu ditu:

Behar den bermea eskaintzeko ikuspegitik, Arartekoari bereziki kezkarriak iruditzen zaizkio, eta horrela azpimarratu ditu txostenean, honako gai hauek:

1) Heziketa eta gizarteratze helburuak lortzeko Legeak aurreikusten dituen indar handiko neurri batzuk oso gutxi erabiltzen dira.

Legeak baliabide eta neurri ugari aurreikusten ditu adin txikiko arau hausleei dagokien jarduketarako: bitartekotza, zentzarazpena, asteburu batetik hirura bitartean barneratzea, zaintzapeko askatasuna, beste pertsona edo familia batek hartzea, komunitatearen mesedetan zerbitzuak eskaintzea, anbulatorioko tratamendua eta barneratzea.

Epaitegietan bertan emandako eta txosten honetan jaso diren datuek, ordea, ez dute halako aukera zabaltasunik adierazten: neurri batzuk asko erabiltzen dira, eta beste batzuk, berriz, indar handikoak izan arren, ez dira ia erabiltzen.

Zenbait neurri oso gutxi erabili izana, neurriak behar bezala burutzeko baliabiderik ezaren ondorio izan daiteke batzuetan. Hori horrela bada, legearen funtsezko izaera bera urratuko litzateke. Alde horretatik, konturatu beharra dago ezen hemendik gutxira erabat osatu beharrekoa den barneratze-zentroen sarea neurritz gain erabiltzea arrikutsu samarra izan daitekeela, erregimen irekian erabiltzeko aukera gutxi duten beste neurri batzuen aldean.

2) Gertakaria jazotzen direnetik neurriak burutzen diren arte denbora gehiegi igarotzen da sarritan.

Ikuspegi pedagogiko batetik -eta ez dugu ahaztu behar 12 eta 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoez ari garenik-, inork ez du zalantzan jartzen egitate gaitzesgarriari ahalik eta erantzun azkarrena eman behar zaienik. Azkar jokatzuz gero, adin txikikoak bi alderdiak aintzat hartu eta errazago ohartuko da berak egindakoaren eta gizarte-erantzunaren arteko erlazioaz, eta dagokion erantzukizuna hartuko du.

Txostenak erakusten duenez, gertakariak jazotzen direnetik neurriak hartzen diren bitartean denbora gehiegi igarotzen da sarritan. Batzuetan gertakarietatik neurriak burutzen diren arteko denbora murriztu behar da; beste zenbaitetan, neurriak hartzen direnetik burutzen diren artekoa murriztu behar da, epaiketa organoen eta neurriak aurrera eramaten dituzten administrazioen arteko koordinazioa hobetu, prozedurak berraztertu edo baliabideak garaiz aurreikusi...

3) Gaur egungo behin-behikotasuna gainditzeko legeriarik ez izatea.

1995eko Kode Penalak adin-nagusitasun penala 18 urtetan ezartzen du, eta adin txikiko arau hausleei dagokien jarduketa-araudia 18 eta 21 urte bitarteko adin nagusikoei aplikatzeko aukera ematen du. Aurreikuspen horiek, ordea, ezin dira indarrean jarri dagokien arautegia onartzen ez den bitartean, premi-premiazkoa eta aspaldian onartua behar zuen arautegia hain zuzen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak arautegi arloan duen eskumena erabili eta zerbitzua hobetzeko beharrezkoak diren alderdi batzuk arautu behar lituzke; neurriak burutzen dituzten zentroek eta zerbitzuek bete behar dituzten baldintzak, zerbitzu horiek kontrolatzeko mekanismoak, neurriak ebazten dituzten epaiketa organoen eta neurriak burutzen dituzten administrazioen arteko koordinazio sistemak...

4) Adin txikikoei eskaintzen zaien arretan ohiko sistemek duten inplikazio maila eskasa.

Argi dago zerbitzu ezberdinek (hezkuntza, osasun, gizarte, polizia eta bestelakoek) prebentzio lan garrantzitsua egin dezaketela adin txikiko pertsonekin, bai delitua egin aurreko denboran eta baita neurriak burutu aurretik eta ondotik ere. Baina bistan dago ohiko sareen inplikazioak abantaila ugari dituela, are neurriak burutzen ari diren denboran ere.

Horri dagokionez, zenbait egoera berehala zuzendu behar dira; adibidez, derrigorrezko aldian ohiko hezkuntza sistematik kanpo eskolaratzea.

5) Hiru lurraldeetako jarduera judizialean ikusitako ezberdintasun batzuk.

Jakina, Adin Txikikoen Epaitegi bakoitzak eskumen osoa du, ezarritako lege-esparruaren barruan, epaituriko kasu bakoitzean komenigarrien iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko.

Ez da harritzekoa, beraz, Epaitegi batzuetatik besteetara ezberdintasunak izatea. Nolanahi ere, txostenean bildutako datuen arabera, ezberdintasun nabariak ikusten

ditugu funtsezko gai batzuetan: adibidez, eskuhartze-tasetan, bitartekotza eta neurrien arteko proportzioan, neurri mota ezberdinak aplikatzeko maiztasunean, hartutako neurri guztietatik erregimen irekian hartutakoen proportzioan...

Erakunde honek, epaiketa organoen burujabetasuna erabat errespetatuz, datu batzuk aurkeztu nahi ditu, epaiketa organoek berek, egoki baderitze, ezberdintasun horien arrazoia azter dezaten.

6) Pertsona horien eskubideen bermeari dagokionez atzemandako hutsuneak:

Bermea eskaintzeko ikuspegitik, eta eginkizun hori Arartekoari dagokiola kontuan izanik, txosteneko datu batzuk kezagarriak dira, adin txikikoek beren eskubide guztiak erabiltzeko duten zailtasun objektiboa, arriskua edo eragozpena adierazten baitute. Horrela, adibidez:

- poliziaren egoitzan egon bitartean duten egoera;
- informaziorik eza edo adin txikikoek ulertzen ez duten hizkera baten erabilera;
- anbiguotasuna prozeduretan abokatuaren figurari dagokionez;
- autoebaluaziorako sistemez gainera, zerbitzuak kontrolatzeko eta ebaluatzeko beste sistemarik ez izatea.
- kegak edo erreklamazioak egiteko mekanismoetako akatsak;
- euspen moduluak 15 egunez erabili ahal izatea...

Zentzuzkoa denez, txostenean azaltzen diren 46 gomendioetako gehienak lehenago adierazitako arazo horiek konpontzeko egin dira. Ararteko erakundeak gaiarekin zerikusia duten zerbitzu edo sailtako arduradunei helarazi dizkie gomendio horiek, eta aurrerago jarraipen bat egingo du zenbateraino onartu eta aplikatu diren jakiteko. Horrela, bada, datozen urteetako txostenek, penal arloan adin txikiko arau hausleei dagokien jarduketan lortutako emaitzak eta egindako hobekuntzak bilduko dituzte.

1.3. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEI BURUZ EGITEKOA DEN TXOSTEN MONOGRAFIKOA

Iazko txostenean, Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko zerbitzuei buruzko lan monografikoa egin behar zela adierazi genuen. Lana une horretan zergatik egin behar zen ere azaldu genuen. Hain zuzen ere, Ararteko erakundeak, gizarte-ekintzaren inguruan egindako txosten gehienetan, garbi azaldu du beti oinarrizko gizarte zerbitzuek funtsezko eginkizuna betetzen dutela.

Bestalde, oraingo egoera honelakoa da:

- oinarrizko gizarte zerbitzuei dagozkien zereginak betetzeko udal zerbitzuen sare bat dugu, oso heterogeneoa eta aski ezezaguna;
- lege berrian, oinarrizko gizarte zerbitzuak orokorki definitu eta horien bidez bete beharreko zereginak finkatu dira; horrela, gizarte zerbitzuen sistema sendotzeko abiapuntua izango dira, sistema horren oinarrizko sarea osatuko baitute.

Hori guztia kontuan izanik, zerbitzuak aztertu eta legez ezarritako helburu eta zereginetara zenbateraino egokitzen ziren ebaluatu nahi genuen.

1998. urtean, SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroarekin elkarlanean, oinarrizko gizarte zerbitzuak ikertzeko metodo aukera ezberdinak aztertu genituen, eta azkenean, zerbitzu horien ezaugarriak eta baldintzak modu orokor batez ezagutzeko, eta oinarrizko

unitateetan lanean ari diren profesionalek eskaintako datuak eta balorazioak ongi aztertu ahal izateko aukera eskaintzen zигun prozedura bat aukeratu genuen.

Hain zuzen ere, aurtengo abenduan, Arartekoak hiru herrialde historikoetako oinarritzko unitateetara jo zuen, laguntza eske. Funtsean bi gauza eskatu die unitate horietan lan egiten duten pertsoneri:

- 1) Aste jakin batean jasotzen dituzten zerbitzu eskaera guztiak bildu eta sailka ditzatela, guk adierazi dizkiegun irizpide eta baliabide komun batzuen arabera, emaitzak konparatu ahal izateko.
- 2) Inkesta bat egin dezatela, ondorengo gaiak kontuan hartuz:
 - beren baliabide materialak;
 - beren giza baliabideak;
 - beren helburuak eta zereginak;
 - banakako eta familia mailako tratamenduak; ebaluazioa, jarduketa-plana eta jarraipena;
 - garapen komunitarioa;
 - beren informazio-politika;
 - larrialdiak;
 - miaketak;
 - zerbitzuko arduradun tekniko eta politikoekin dituzten harremanak;
 - beste profesional batzuekin dituzten harremanak.

Adierazi behar dugu oinarritzko unitateek laguntza handia eskaini diotela erakunde honi. Urte horretako abenduaren 31a arte 165 erantzun bidali dizkigute oinarritzko unitateetatik, eta egun horretatik aurrera beste asko jaso ditugu. Horri esker, eskaera-fitxa eta galdetegi ugari aztertzeke aukera izan dugu.

Lan horren emaitzak 1999. urtea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzaren esku egotea espero dugu.

1.4. GURE ERKIDEGOAN BURUKO GAIXOTASUNAK DITUZTEN GAIXOEI OSPITALEZ KANPOKO ZERBITZUA ESKAINTZEARI BURUZ EGITEKOA DEN MONOGRAFIKOA

1991n Arartekoak ospitale psikiatrikoetan zeuden gaixoen egoerari buruzko azterketa egin zuen; azterketa hori txosten monografiko gisa argitaratu zen hurrengo urtean (1992). Orditik hona ospitale psikiatrikoetan hainbat ikustaldi egin dira, eta egindako gomendioen jarraipena ere egin da. Urteroko txostenetan horren berri ematen da.

Azken urteotan zenbait elkarterekin bilerak egin eta harremanak bultzatu ditugu: pertsona horien alde ari diren senitartekoen elkarteak (FEDEAFES, ASAFES, AGUIFES, AVIFES, AVIFES, ASASAM), tutoretza sustatzen duten fundazioak (Gorabide Tutoretzarako Fundazioa, Arabako Buru-gaixoen Tutoretzarako Fundazioa), psikiatriaren erabiltzaileen elkarte (Egunabar)...

Egindako bilerek, ikustaldiek eta ofiziozko jarduketa batzuen ondorioz lortutako datuek hainbat arazo eta gorabehera erakusten dizkigute: bitarteko baliabideen gabezia, gizarte eta osasun arloan eskumenak zehaztu gabe egotea, koordinaziorik ez izatea, familiak batzuetan hartzen duen erantzukizuna, eta alderantziz, familiaren babesik ez

dutenen egoera, pertsona horien eta dagokien zerbitzuen egoerari buruzko kontrolik ez izatea, beren lurraldetik oso urrun dauden zerbitzuetan arreta eskaintzen zaien Bizkaiko pertsona batzuen egoera, pertsona horien pobrezari aurre egiteko dirulaguntzen sistemak, gizartea horretaz jabearaztea... Hori guztia kontuan izanik, Arartekoak pertsona horien egoerari buruzko monografikoa egitea erabaki du.

Gai horietako batzuei dagokienez (adibidez, arrisku handiko egoeran dauden gaixoentzako zentro bat sortu beharra, edo beste lurralde batzuetara bidalitako Bizkaiko gaixoen egoerari dagokionez) Ararteko erakundeak hainbat ekimen sustatu ditu, nahiz eta beti-beti ez duten erantzunik izan.

Egin ditugun beste lan monografikoetan bezala, honetan ere pertsona horien egoera ezagutzea -haien eskubideen ikuspegitik- eta hura hobetzeko proposamenak egitea izango dugu helburu.

Dena dela, aukeratutako eremua zabalegia da erabateko azterketa egin ahal izateko. Horregatik, ospitaleei buruz lehendik ere txosten bat badagoenez, eta elkarteek eskaintzen diguten ikuspegia kontuan izanik -horren arabera, arazo nagusiak ez baitagozkio ospitaleratze-egoerari, ospitalez kanpoko egoerari baizik- Arartekoaren lana ospitalez kanpoko zerbitzuan zentratuko da.

Sektorearen ezaugarriak eta egin nahi den lanaren berezitasuna kontuan izanik, 1998. urtean pauso hauek eman dira:

- Arartekoak lan baldintzak argitu ditu (helburuak, mugak, prozedurak, aldi baterako aurreikuspenak eta aurrekontuko aurreikuspenak...) eta proiektua senitartekoen elkarteekin eta sektoreko profesionalekin kontrastatu du.
- Gai horretan interesa duten edo antzeko lanetan esperientzia duten ikerketa taldeak eta enpresak bilatu dira.
- Bost ikerketa-talderekin bilerak egin dira lana aurkezteko eta horretan parte har zezaten eskaintzeko.
- Arartekoak aurkeztutako hiru ikerketa-proiektuak lehiaketan parte hartu zuten hiru taldeek aztertu dituzte.
- Ikerketa lana, arlo ezberdinetako profesionalak osaturiko Ekimen taldeari esleitu zaio.

Dagoeneko hasia da informazioa biltzeko lana, eta uste dugu 1999. urtearen amaierarako edo 2000. urtearen hasierarako Arartekoak behin-betiko txostena aurkeztu ahal izango duela Eusko Legebiltzarrean.

1.5. ZADORRA SISTEMAKO URTEGIETAKO URAREN KALITATEA BABESTEARI BURUZ EGIN DEN TXOSTEN BEREZIA

Arabako elkarte ekologista talde batek aurkeztu zuen kexatik abiatuz, zeinetan Zadorra ibaiko (Urrunaga eta Ullibarri-Gamboa) arroetan dauden urtegi-tako inguruak eta urtegi-tako ura gero eta kaltetuagoak zeudela esaten baitzen, ofiziozko jarduera bat egitea planteatu zen, oro har azken urte hauetan urtegi-tako urak zein bilakaera izan duen eta zein babes neurri dauden jakiteko. Kontuan izan behar da Zadorra sistemako urtegi-tatik iristen zaiela edateko ura Euskal Autonomia Erkidegoko 900.000 biztanle baino gehiagori, eta horien laurden bat arabarrak dira eta gainerantzekoak bizkaitarrak.

Arrazoi hori zela medio, Ana Rallo EHuko biologiako katedradunari eskatu zitzaion egin zezala urtegieta uren kalitateak izan duen bilakaerari buruzko azterketa orientatzaile bat. Horretarako, erreferentzia datu gisa, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak 1984-1994 bitartean urtegieta bildutako urari buruz egindako analisisen emaitzak hartu zituen. Azterketak erakusten zuen uretan gero eta elikagai gehiago zeudela, kalitate naturala gero eta okerragoa zelarik, are Ullibarri-Gamboakoan Urrunagakoan baino.

Datu horiek aintzat harturik, Arartekoak erabaki zuen Zadorrako urtegiak babesteko neurri buruzko azterketa bat egitea, horren birtualtasuna ikustea eta ikustea neurri osagarriak hartzea edo indarrean zeudenetan arreta gehiago jartzea zenbateraino zen beharrezkoa, hori guztia azken batean urtegieta uren kalitatea zaintzeko, urtegi bazterretan eta inguruetan beste erabilera eta jarduera batzuk garatzeko aukera bateratzea bilatuz.

Lana burutzeko aurkitu diren arazoetako asko ur horietan eragiten duten sektore eta jardura kopuru handitik etorri dira (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, isurketen arazketa, uda sasoiko bainuak, aisialdi jarduerak bazterretan, urtegieta gertu produktu arriskutsuen garraioa, antolamendu urbanistikoa, etabar). Aldi berean, jardura multzo zabal hori, eskuduntza mailan, administrazio eta erakunde publiko desberdinen artean banatua dago (Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Zadorra arroako udalak, administrazio batzordeak, Confederación Hidrográfica del Ebro, AMVISA, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak, etabar). Are gehiago, gai bera antolatzeko eta gestionatzeko eskuduntza aldi berean erakunde batek baino gehiagok aitortua edukitzea ere gertatzen da.

Azterketa osatuta eta idatzita dago, lortutako emaitzak eragindako administrazio sektorial desberdinekin kontrastatu eta euskarara itzuli zain.

Txosten berezi hori argitara eman ondoren, 1999ko lehen hilabeteetan Eusko Legebiltzarrari aurkeztea espero da.

1.6. **BILBOKO SAN FRANTZISKO ZONAN ATZERRITARREKIKO BURUTUTAKO JARDUERA POLIZIALEI BURUZ ARARTE-KOAK IZANDAKO ESKUHARTZEA**

1.6.1. **SARRERA**

Segidan datozen orrialdeotan, 1997ko azarotik aurrera eta 1998 osoan barrena, San Frantzisko aldean, kanpotarrei egindako jarduera polizialei buruzko Arartekoaren eskuhartzeen laburpena eskaini nahi da.

Arartekoaren partehartzea alor honetan, ofizioz hasten da 1997ko amaieran eta **ondoko arrazoi hauengatik erabaki zen egitea**:

- aurreko hilabeteetan kanpotar batzuek jarduera polizial batzuen gainean aurkeztutako keaxak;
- kolektibo honen alde jotzen duten pertsonen eta laguntza eskaintzen duten elkarten bitartez Arartekora iritsitako informazioak;
- 1997. urtean zehar “Etorकिन Gizarteratzerako Foroan” eta bereziki bertako Giza Eskubideen Batzordean gai honi buruz sortutako keaxak. Arartekoak Foroan parte hartzen zuen, Harresiak Apurtuz GKEen Koordinadoraren ordezkariekin eta Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako eta Udaletako hainbat Departamenturekin batera;
- oso pertsona-kolektibo ahul (kolektiboaren beraren egoera eta ezaugarriak direla-eta) baten aurrean egotea.

Abiarazitako ofiziozko ikerketaren xedea Arartekoak lehenago egindako beste ikerketen xede bera da: egoera sakonago ezagutzea, eta, horren arabera, aholku batzuk mahaigaineratzea. Giza eskubideak bermatu behar dituen ikuspegi batetik - Arartekoari dagokiona, alegia- aztertutako egoera hobetzeko balio behar dute aholku eta proposamemek. Hori dela eta, zerbitzu horiek beren gain dituzten instituzioak - Eusko Jaurlaritzako Barne Saila eta Bilboko Udala- eta Eusko Legebiltzarra bera - Aratekoak bertan aurkezten baititu txostenak- dira lan honen **jasotzaile** nagusiak. Aurrera eramandako jardueren laburpenak, hemen aurkezten dena, horri erantzuten dio.

Hala ere, San Frantzisko zonan izaten diren beste gizarte-eragileen partehartze eta konpromezuengatik, baita norbanaren testigantzak, esperientziak, esatekoak eta proposamenak ekarri dituzten kanpotar askoren laguntzengatik ere izan ez balitz, ez zen posible izango burututako lana. Beraiek ere lanaren jasotzaile zuzenak dira.

Kasu honetan, Arartekoaren jarduera kokaturik dago zona batean (San Frantzisko); kolektibo batengan (kanpotarrak); eta zerbitzu zehatz batean (polizi agenteena).

San Frantzisko zonak baditu ezaugarri batzuk, jarduera poliziala bereziki zaildu dezaketenak. Ondoko hauexek izan daitezke, labur labur emanik, ezaugarri batzuk:

- zona horretan galera handia gertatu da azken urteotan (hirigintza, ekonomia eta gizarte mailan...);
- alde horretan pilatzen da ezlegezko drogen trafikoaren puska handi bat (trafiko txikia edo “trapitxeoarena” behintzat, bai);
- kanpotar asko eta asko bizi dira (Euskadiko kanpotar metaketarik handiena, zalantzarik gabe), baina pertsona horien jatorriak, ibilbideak, inplantazioa...oso ezberdinak dira;

- mugimendu handia dago auzolagunen eta elkarten aldetik, baina batzuetan elkarren kontra daude ikuspegiei eta proposamenei dagokienez....

Inguru hartan polizia egoteari dagokionean, erabaki baldintzatzaile batzuen ondorioa izan da. Adibidez:

- 1994. urtean Bilbon hedatu zen Ertzaintza, eta, ondorioz, Polizia Nazionalaren edo Udaltzaingoaren lanak egiten hasi behar izan zuen;
- 1996. urtean komisaldegi bat zabaldu zuen Udaltzaingoak; horren ondorioz, berrogei bat agente ari dira zonan;
- 1997. urteko uztailean, Gorteetako operatibo berezi bat jarri zuen martxan Ertzaintzak, eta horrek ehun bat agente -eguneko 24 orduz txandaka egoten direnak- ekarri ditu auzora.

Azken erabaki hauetako batzuk nahiko berriak dira, eta polizia gehiagorik eta polizi antolamendu eraginkorragorik izateko hiritarrek egindako eskaerari erantzun nahi diote. Bestea alde batetik, hiritarren segurtasuna bermatzeko goian aipatu ditugun taldeez gain, droga-trafikoa ikertzean eta kontrolatzean espezializatuta dauden beste unitate batzuek ere hartzen dute parte inguruan neurri txikiago edo handiago batean, azken finean, droga-trafikoa baita poliziak San Frantzisko zonan jarduteko elementu nagusi eta baldintzatzailea.

Azaldu dugun bezala, kezkak eta kezkek sortu dituen egoera hobe ezagutzea da Arartekoaren partehartzearen funtsezko helburua; horren arabera, ukitutako pertsonen zerbitzu eta bizi-baldintzak hobetzeko aholku batzuk mahaigaineratuko ditu. Arartekoa sortzeko legeak berak ezarritakoari jarraiki, aholkuek instituzio honi dagokion eskubideak defendatzeko eta bermatzeko kezkarri erantzun behar diote; era berean, Arartekoaren eskuduntza diren alde eta instituzioetara mugatu behar dira aholkuak, kontrol-lana aurrera eramateko. Horrela, egoera hobea ezagutzearen, egiteetan gehien nahastuta dauden bi ikuspegietatik saiatu gara informazio esanguratsua biltzen: alde batetik, inguruko kanpotarren ikuspegiatik, eta, bestetik, polizi agenteen ikuspegiatik. Aholkuak aplikagarriak izan daitezten, Bilboko Udalarri eta Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari dagozkien erantzukizunetan zentratu dira aholkuak, nagusiki.

Beste instituzio batzuek ere erantzukizunak (atzeritartasunari dagokionez, esate baterako) dituzte, eta instituzioz kanpoko beste eragile batzuk ere nahastuta daude jorratutako gai honetan, hori begi bistakoa da. Txosten honetan jorratzen den ia gai bakarra jarduera poliziala izanik, beste aldetik, inguru honek duen arazoaren zati txiki bat, besterik ez dela ere begi bistan dago. Gainera, jarduera poliziala arazoak berak baldintzatzen du neurri handi batean, edo arazoaren ondorioa da. Polizi esparrua gainditzen duten inplikazioetakoren batzuk agerian dira egindako lanean, nahiz eta aipatu arrazoiengatik haien gaineko aholkurik ez mahaigaineratu. Nolanahi ere, ikuspegi globala da, inork ahaztu behar ez lukeena eta, bereziki, agintari erantzuleek kontuan hartu eta lehenetsunez tratatu beharko luketena.

1.6.2. **INFORMAZIOA ESKURATZEKO ERABILITAKO LAN METODOLOGIA**

Oinarrizko bi iturri erabili ziren informazioa biltzeko:

- a) Bata San Frantzisko zonan egindako jarduera polizialak jaso dituztenen edo jarduera polizialen lekuko izan direnen eskutik heldu da. Horrek azaltzen du bildutako testigantza pertsonalei hasierako txostenak ematen dien garrantzia.

- b) Bestea polizi iturria da. Egiaztatzeko ez ezik, eta ez egite bakoitzarako, baizik eta jokaerazko jarraibide zehatz batzutarako eta datu kuantitatiboak lortzeko ere erabili da polizi iturria.

Komenigarria da adieraztea orain aipatu bi iturriak ukitzen dituzten **erabaki metodologiko**etako batzuk, eta, era berean, komeni da txostenari berari dagozkion beren ondorioak zehaztea.

a) Testigantza pertsonalei dagokienez

- Hasteko, zuzeneko testigantzak biltzeko hasierako zailtasuna da aipatzekoa: beharrezkoa da, horretarako, pertsonak ezagutzea, pertsona horiek beraien esperientzietaz mintzatzeko prest egotea, gutxienezko konfiantza-maila izatea... Elkarte edo pertsona jakin bakar batzuek, auzoak dituen arazoekin konprometituta daudenek, hain zuzen dituzte aurretiko baldintzak beren testigantzak eman ahal duten pertsonekin harremanetan jartzeko. Izan ere, bildutako testigantzak, lortu da pertsona eta elkarte horien partehartze erabakigarriari esker.
- Bigarrenez, oso aldatzen dira pertsona batetik bestera norberaren inplikazio-maila, instituzioekiko konfiantza-maila eta arriskuak bere gain hartzeko maila, testigantza emateko orduan. Batzuek barra-barra ematen dituzte datuak, eta, gainera, kexa edo salaketa bat instantzi judizialen aurrean edo Arartekoaren beraren aurrean aurkezteko prest agertzen dira. Beste batzuek, ordea, testigantza ematen dute, baina ez dute testigantza horren bidez identifikatuak izan nahi eta ez dute, bestalde, ikerketa baterako edo egitateen banakako egiaztatze baterako baliagarri gerta litekeen daturik ematen.
- Testigantza ematen dutenek egite ezberdinetako (norbanaren esperientziak, zuzen-zuzenean ikusitako egiteak, hirugarrenen bidez ezagututako egiteak, orain gutxiko egiteak, aspaldikoak...) informazio zabala eskaintzen dute askotan. Argi utzi behar da, hala ere, bildutako testigantzak eta txostenean ustiatutakoak ez datozela guztiz bat. Testigantzak ustiatzeko Arartekoak erabilitako irizpidea nahikoa murriztaile da, eta ondokoen arabera aurretiko erabaki-sorta bati erantzuten dio: denboraren arabera (1997. urtean gertatutako egiteak), tokiaren arabera (San Frantzisko ingurua, batez ere) eta ezaguera-mailaren arabera (esperientzi pertsonala edo lekukotasun zuzen-zuzena).
Bildutako ondoko testigantzak, beraz, hemen laburtu behar den txostenetik kanpo geratuko dira: 1997. urtearen aurretik edo ondoren gertatutako egiteei dagozkienak, beste toki batzutan gertatutakoak edo hirugarrenen bidez ezagututakoak. Beste aldetik, bildutako informazioaren zati bat, egiteetan zentratuta zegoena, ustiatu da sistematikoki, ez beste ezer. Ez dira, ondorioz, hori bezain interesgarriak diren beste atal batzuk aztertu: egiteen eragina jasotzailearengan berarengan edo jasotzailearen adiskidearengan, esate baterako.
- Testigantzak 1997ko azaro eta abenduan bildu ziren, nagusiki. Horretarako, grabaketak egin edo apunteak hartu ziren, kasu bakoitzak zekartzan baldintzen arabera. Era berean, isilpekotasuna bermatu egin da beti, tramitatutako kexa formaletan izan ezik.
- Iturri nagusiarekin (testigantzak) batera, informazio edo dokumentu gehigarri batzuk ere bildu dira posible izan denean, behintzat testigantzak sendotzeko: aurkeztutako salaketak osasun-partea, kexa formalak... Era berean, zonan izandako talde-bilerek eta batzarrek testuingurua hobe ezagutzen lagundu dute.

- Bukatzeko, ez da erraza jakitea zeintzuk diren testigantza eman dutenen itxaropenak,... Oso kontuan hartu beharreko aldea, beraz, "informazio-itzultzea" edo ondorengo jokaerak aurreikusteko orduan.

b) Poliziaren ikuspuntuari dagozkionak

- Polizi iturritik lortutako informazioa hiru bide osagarritatik bideratu zen nagusiki:
 - 1) Zonako polizi arduradunen bidetik, Udaltzaingoa eta Ertzaintza. (lan-bilera egituratuak).
 - 2) Inguruan normalean lan egiten duten agenteen bidetik. (Zoriz aukeratutako agentei elkarriketa erdiegituratuak egitea).
 - 3) Datu estatistikoaren bidetik. (Egindako atxilotze eta identifikatzeen erregistroak ustiatzea).

Dokumentazio gehigarriak ere gehitu zaie hiru bide oinarrikoen oso kasu zehatzetan: atestatuak edo erregistroen bana-banako analisiak.

- Poliziaren aldetiko informazioa biltzek testigantzen bidez lortutako informazioa egiaztatzea zuen helburueako bat, eta, horregatik, lehen zatia bukatu ondoren (testigantzen analisia, alegia) egin ziren bilera, elkarriketa eta datu-analisi guztiak. 1998ko urtarrilean eta otsailean egin ziren, hain zuzen. Aparteko kasuetan izan ezik, ezinezkoa zen egitatez egitatezko egiaztapena, daturik ez zegoelako edota horretarako baimenik ez zegoelako. Horrela bada, aukeratu zen egin zitekeen egiaztatze modu bakarra, hots, lekukotasun ezberdinen metaketan oinarritutako jokamoldeak.

Kontu metodologikoen gaineko atal honekin bukatzeko, gomendagarria da eite orokorreko bi **oharpen** egitea:

1) Lanaren dimentsio kuantitatibo edo kualitatiboari buruz

Bistan dago egindako ikerketak metodologi kualitatibo bati ekiten diola. Testigantzek berezko balioa dute, izan litezkeen egite edo joera (antzekoak zein diferenteak) guztien araberako deskribatutako egite bakoitzaren adierazgarritasuna kontuan hartu gabe. Eta hori normala da, ikerlanaren gaia pertsonen eskubideak urratzea baita. Beste aldetik, errealitatean, aukera metodologiko bideragarri bakarra da, kontu zehatz batzuei dagokienez (testigantza pertsonalak, esate baterako). Hala ere, datu numerikoak aztertu dira, posible izan denean. Nolanahi ere, delako datu horiei ematen zaien balioa oso erlatiboa izan da eta osotara osagarritzkoa.

2) Beste gizarte-eragile batzuk informazio-iturri bezala erabiltzeari buruz

Egia da bertako elkarteak, hein handiagoan, osagarritzko informazio iturri gisa erabil zitezkeela, beste iturri posible batzuk bezala: egiteen tratamendua komunikabideetan, barneko txostenak, auzoan jarduerak egiteko proiektuak... Hala ere, esparrua mugatu behar izan zen, txostena denbora gutxian egin ahal izateko. Horrek ez du hala ere oztopatzen goian aipatutako edozein bide garatzea etorkizunean. Egindako lanak biltzen dituen edukinen "informazio-itzultzeak" berak ahalbideratuko du, dudarik gabe, konprometituta dauden gizarte-eragile ezberdinekin batera elkarlanean aritzea.

1.6.3. EGINDAKO JARDUERA POLIZIALEN ANALISIA, UKITUTAKO PERTSONEN TESTIGANTZEN ARABERA

1997ko azaroa eta 1998ko otsaila artean burututako informazio bilketa lanaren ondorioa Arartekoaren txosten zabal bat izan zen, 1998ko martxoan Eusko Jaurlaritzako Barne Sailburuari eta Bilboko Udaleko Alkateari eman zitzaiena. Hemen eskaintzen ari den laburpenean, orain ekingo zaio 1997. urteari dagozkion egiteen eta jarduera polizialen azterketari, zeintzuen gainean informazioa bildua baitzen.

Agerikoa denez, xedea ez da inguruan izaten diren jarduera polizialen edo kolektibo horren balorapen globala, horrek jarduera guztien edo jardueren nahikoa lagin adierazgarri baten analisia eskatuko bailuke. Zehazki, zuzen-zuzeneko 38 testigantzetatik datorren egite-sorta bat -ukitutako pertsonengan ondorio kaltegarriak izan dituzten ezohiko jarduera polizialak, hain zuzen- analizatzen du txosten honek, ez beste ezer. Erakunde honen iritziz, egiteek informazio esanguratsuak eskaintzen dute, eta hori gainerako jarduera polizialekiko adierazgarria ote den kontuan hartu gabe.

Komeni da bi ezaugarri adieraztea, azterketa honetarako erabiltzen diren **bildutako testigantzen balioa** irmotzen baitute:

- 29 kasu lehen pertsonako testigantzak dira, hau da, haiei beraiei gertatutakoa adierazten dute; gainerako kasuak zuzeneko lekukotasunak dira. Txostenak ez ditu bigarren edo hirugarrenen bertsioak kontuan hartzen;
- kasu batzutan iturri osagarriak eta guzti ditugu: egite beraren gaineko testigantza desberdinak.

Aztertutako egiteek ukitutako pertsonen ezaugarriei dagokienez (sexua, adina, jatorria...), zera esan dezakegu: gehienak gizonezkoak direla (sei emakumezko), 17 eta 45 urte bitartekoak eta Afrikakoak (Angola, Ginea Bissau, Ginea, Maroko, Senegal, Zaire...). Afrikarrak ez diren beste kanpotar batzuk ere nahasi ziren aztertutako kasuetan, baina kopurua oso murrizta da (bi kasu); kanpotarrak ez ziren batzuek ere zerikusia izan dute (beste bi kasu), baina egiteak hartzen ari ziren bidea ikusita hartu zuten parte. Nahastutako pertsona gehienen, ia guztien, ezaugarri etniko bereizgarriak oso nabariak ziren.

Bat ez datozen hiru datu bereiztu behar dira: erabilitako testigantza-kopurua (38), aztertutako egite-kopurua (47) eta egite horiek ukitutako pertsona-kopurua (egite-kopurua baino altuagoa, zenbait kasutan zehazgaitzak badira ere). Nolanahi ere, esan behar dugu, egiteetarako hurbilpen kuantitatiboa ez dugula inoiz helburu izan. Alderantziz, baizik: aztertutako egite bakoitzak, eta, batez ere, ukitutako pertsona bakoitzak, berezko balioa du. Oso balio erlatiboa eman behar zaie, beraz, hemen bildutako datu kuantitatiboei. Biltzeko arrazoia eman beharrekoa bestelakoa da: jarraibide polizialeterako edo jarraibide polizialen hedapen-mailara psoblerako nolabaiteko hurbilpena ahalbideratu ahal dutelako.

Aztertutako 47 jardueretatik ia guztiak San Frantzisko kalean edo inguruan hasi edo gertatzen dira. **Denbora-esparruari** dagokionez, beste aldetik, **1997. urtekoak** dira bildutako testigantzak eta aztertutako datuak, horixe baitzen alde aurretik datu-bilketarako ezarritako epemuga eta egiteetan nahasitako **polizia taldeei** dagokienez, hona hemen banaketa (datu hau ezagutzen ez zuten elkarrizketatuak alde batera utziz): **Ertzaintza:** 33 egite; **Udaltzaingoa:** 9 egite; **Bien artean:** egite bakar bat

Askoz ere testigantza gehiago dauzkagu, beraz, Ertzaintzak egindako jardueri buruz, udaltzainenak baino. Binaka edo taldeka, uniformea jantzita eta inguruan patruilatzen

(oinez zein kotxez) ari zirela egin zen jarduera poliziala kasu gehienetan; hala ere, kalez jantzita zeuden poliziek egindako jarduerarik ere badago (5 kasu, gutxienez).

Urteko azken sei hilabetekoan aurrekoan baino kasu gehiago izan dira. Datu-bilketa azaroan eta abenduan egin izanak, agian izan zezakeen eragina joera horretan. Hala eta guztiz ere, datuak orain dela gutxiokoak dira, oso "freskoak" oraindik ere. Era berean, asteburuetan eta arratsalde eta gaueko orduetan metatzen omen dira egite arazotsuak.

Honenbestez, azterketa honen helburu diren jarduera polizialak nolabait berezitu beharko bagenu, ondoko ezaugarri hauek bilduko lituzkeen **adibide-eredua** aurkituko genuke: beltzak direla adierazten duten ezaugarri nabarmeneko pertsona bati (gizonezkoa eta nahikoa gaztea) Ertzaintzak egindako jarduera, uniformez jantzita, San Frantzisko kalean, asteburuan, gauez, udan edo udazkenean. Ondorio didaktikoetarako egoeren sinplifikazio hutsa izan da hauxe, ez beste ezertarako; lagungarria izan daiteke, hala ere, bildutako testigantzen arabera jarraian aztertu behar diren egiteak zentratzeko orduan.

Egoerak, denboraren (kronologia) eta tokiaren arabera bereiztu dira, informazioa ustiatzearen:

- A) harreman-hasiera;
- B) egiteek kalean hartutako bidea;
- C) egiteek komisaldegian hartutako bidea (atxiloketarik izatekotan);
- D) egiteen osteko ondorioak.

A) Hasierako jarrerak eta aztertutako jarduera polizialeterako argudiatutakoa

Aipamen berezia merezi duen jarduera polizialen lehenbiziko unea "harreman-hasiera" delakoa da: jarduera polizialaren hasiera bera, ukitutako pertsonen ikuspegitik. Jarduera polizialak aurreko egoera bat (salaketa bat, jasotako berriren bat...) izan badezake ere hasiera, txostenean ez dira aurreko elementu horiek aztertuko, baizik eta polizien eta eragindako pertsonen arteko harreman-hasiera, edo, askoz hobeto, nola hartzen duten eragindakoek jarduera polizialaren hasiera.

Lehen pertsonan testigantza adierazitako pertsonetatik hamalau kasutan (hamairutan Ertzaintza zegoen nahastuta, eta, batean, Udaltzaingoa), jardueraren hasiera-hasieratik poliziak agertutako **indarkeriazko jarrera** aipatzen da:

- Bizkarretik heldu eta borra eztarrian jartzea.
- Lurrera bota eta lurrean eutsi zioten zapalduz edo gainean jarriz.
- Bultzadak eta borrakadak.
- Lepotik heldu zioten eta ahoa zabaltzera behartu zuten.

Aipatzekoa da ere hamaika pertsona (horietatik seik indarkeriazko jarrerak ikusita) arrazoitzen edo argudiatzen saiatu izana. **Saiakerek**, batzutan, kontrakoa ekarri zuten polizien aldetik, hots, kolpeak edo iruzkin probokatzailak

Zaila da bildutako testigantzen bidez antzematea jarduera polizial hauen testuinguruak (aurreko egitea, bati baino gehiagori ekitea, indarren arteko proportzioa) agenteen jarreretan eta erantzunetan izan dezakeen eragin erabakigarria, eragin erabakigarririk izatekotan.

Poliziek **jarduerarako arrazoa azaldu** behar diete **eragindako** pertsonari edo pertsonari, eta, bildutako testigantzen arabera, ez da inoiz egiten, jardueraren hasieran behintzat. Kasu bakar batean gertatu zen, eragindako pertsonak esandakoaren arabera.

B) “Kalean” izaten diren jarduera polizialen tipologia eta jarduerak jasotzen dituzten erantzunak

Bigarren atala laburbiltzeari ekingo diogu orain, dugun informazioaren arabera bereziki problematikoa dena. Ez ditugu egiteak bana-banan deskribatuko (nahiz eta horixe izan erabilitako bidea), baizik eta bildutako testigantzetan aipatu edo gehiagotan edo gutxiagotan izaten diren ezohiko jarduera-motak. Pertsonen eskubideak gehien ukitzen dituzten kontuak aipatuko ditugu atal honetan.

Elkarriztatuak jarduerak aipatzen baditu bidezkoak ez direla iruditzen zaizkiolako da; baina, zenbatetan, ez ditu aipatzen bere eskubideak errespetatzen ez dituzten beste batzuk bidezkoak iruditzen zaizkiolako, edo gutxienez, ez legez kontrakoak. Adibidez, pertsona batentzat tratu iraingarria dena beste batentzat ez da; gauza bera, koakzioari dagokionez, esate baterako. Horregatik, txosten honen atalaren xedea da kategori ulerterrazen bidez kontatutako egiteak laburbiltzea, jokabide tipifikatuen sailkapen ordenatua izateko inolako asmorik gabe.

Halaber, adierazi behar da, txosten osoan, jarduera mota hauek ñabartzeko edo horien adibideak parartzeko, hitzez hitzeko testigantzak erabiltzen direla: hau da, egitateek ukitutako pertsonak berek kontaeran erabilitako hitz berberak. Laburpen honetan, ez dira berriz ere lekukotasun horiek ematen, horrek, anitzetan, ziur egotearen elementu garrantzitsuen galera dakarren arren.

a/ Lehen oharpen interesgarria **identifikazio-kasuak** eta **miaketa-kasuak** erlacionatuzetik dator. Bildutako datuen arabera, miaketa (arropa, kartera, ahoa... kalean bertan edo hurbil dagoen atariren batean) da jarduera lehena eta nagusia. Identifikazioa, ordea, ez da beti egiten.

b/ Testigantzetan biltzen diren pertsonen botatako **irainak**, lau kasutan behintzat arrazista bezala baloratu dira (irainak Ertzaintzako agenteek botatak izan omen dira).

c/ **Mehatxurik** ere izan omen da (hamar kasutan: zazpitan Ertzaintza protagonista, hirutan Udaltzaingoa), normalean pertsonak jarduera polizialaren aurrean erantzundakoarekin lotuta. Mehatxuak paperak kentzeko, jipoitzeko, beste egitateen bat leporatzeko, edo dirua kentzeko...

d/ **Kolpeak** hogeit hamar kasutan aipatzen dira (hamaseitan Ertzaintza zegoen nahastuta, lautan Udaltzaingoa). Kolpeak, normalean, borrakadak ziren baina, zenbaitetan, ostikadak eta ukabilkadak ere izan omen dira, lesio larriak eta arinak sortu dituztenak (kontusioak, beso-haustura, masailezur-dislokazioa, hanka-haustura, belaun-haustura, zaintiratuak, ebakiak aurpegian...). Gehien errepikatzen den jarduera poliziala da, miaketa albora utzita.

e/ Zortzi kasutan **diru edo objektuak eskuartu zirela** esan da (lapurretak, kaltetuen iritzi; Ertzaintzak bost aldiz eta Udaltzaingoa bi aldiz egin zituzten; badago kasu bat espezifikatu gabe dagoena). Bi kasutan lekukoek zapuztu omen zuten diru-eskuartzea. Beste kasu ugari samar batzutan, ordea, droga-trafikatzailerik eta salmenta ibiltarian aritzen direnei (azoka txikitik itzultzen zirela) errekisatu omen dizkiete dirua edo balioko objektuak, testigantzen arabera.

f/ Hiru kasutan salatu da **pertsonak miatzeko erabat edo partzialki bilzutu** zituztela kalean bertan edo hurbil zegoen atariren batean (Ertzaintzak bi aldiz egin omen zuen eta Udaltzaingoa behin). Beste kasu batean biluzteko Ertzaintzak emandako agindua jaso zutenek uko egin zioten, eta ez ziren bilzutu.

g/ Kontatutako irain eta mehatxuen artean **jokabide arrazistako** adierazpenak antzematen dira: horrela uste dute eragindakoei. Lekukoek (jarduera batzuk ikusita,

parte hartu edo bitartekoarena egin nahi zuten arraza zuriko pertsonak, normalean) eta polizien arteko elkarrizketetan ere horrelako jokabideak izaten dira.

h/ Pertsona batek dio lesioak jaso, polizia kotxe baten barruan sartu eta, **komisaldegira eraman beharrean**, “mendira” eraman zuela Ertzaintzak. Gero, mendian askatu omen zuten, eta bere kabuz joan behar izan omen zen ospitaleko larrialdi-zerbitzura, osasun-egoera txarrean baitzegoen.

i/ **Pertsona bera behin eta berriro** Ertzaintzak **jazarri** izana ere aipatu da bi kasutan.

j/ Beste arlo batzutan Udaltzaingoak burututako jardueri dagokienez, **bizikidetzaz-ziurtagiria lortzeko zailtasunak aipatzen dira** bi kasutan. Horrek oztopoak dakartza, adibidez, gizarte-laguntzak edo bestelako dokumentuak jasotzeko. Egoera horiek askotan aipatzen dira testigantzetan.

k/ Bildutako testigantzen arabera, bost **miaketa egin ditu** Ertzaintzak **merkatal-establezimenduetan** agindu judizialik gabe, edo baldin bazeramaten ere ez zuten erakutsi eskatu zitzaaien arren. Jarduera horren kontrako salaketa bat dago epaitegian. Egindako miaketa batean Ertzaintzak droga-poltsa bat ostatu batean aurkitzearena egin nahi izan omen zuen. Egiteak gertatu ondoren, parte hartu zuen unitatearen bururen bat poltsan drogarik ez zegoela eta txakurrak probatzen ari zirela esateko jarri zen harremanetan ostatuaren nagusiarekin.

l/ Kasu batek Ertzaintzak egindako “**sarekada**” zabala (berrogei bat pertsoneri buruzko eskuhartzea) kontaktzen du. **Atxilotu edo miatutako pertsonak aukeratzeko irizpidea** larruazalaren kolorea eta ezaugarria fisikoak ziren, argi eta garbi.

m/ Ertzaintzak bi aldiz egin dio uko **identifikazio-datuak** aurkezteari, nahiz eta behin eta berriro eskatu norbaitek. Beste kasu batean udaltzainak emandako identifikazio-datua gezurrezkoa zela edo, behintzat, existitzen ez zela esan zioten salaketa jarri nahi zuenari.

n/ Pertsona batek berak izandako esperientzia bat kontaktzen du: larri zegoela larrialde-zerbitzura joateko laguntza eskatu zion Ertzaintzari, eta honek **uko egin zion laguntza emateari**. Beste batzuek kexa agertzen dute Ertzainak ez irelako agertzen premia denean eta arazoak direnean.

ñ/ Aipatu den bezala, binaka edo taldeka burutzen dira normalean jarduera polizialak. Hiru kasutan (Ertzaintzari dagokionez, bi aldiz, eta Udaltzaingoari dagokionez, behin) agenteen arteko **desadostasunak** egon omen ziren erabilitako jarduera-irizpideei buruz: batzuek komisaldegira eraman nahi eta besteek ez.

o/ Egiteak gertatu ondoren edo egun batzuk pasata, agenteak edo agenteetako batzuk edo bururen bat **barkamena** eskatzera edo gertatutakoari ardura kentzera (lau kasutan Ertzaintza eta bitan Udaltzaingoa).

* * *

Egiteetan nahastutako pertsonak, edo egiteen lekukoek, jarduera polizialei ematen dieten erantzuna ere analizatzen saiatu da, bai eta egiteek hartzen duten bidean pertsona horiek izan dezaketen eragina ere. Egiteetan zuzen-zuzen nahastutako **pertsonaren erantzunen** artetik **lau erreakzio-mota** bereiz daiteke testigantzen arabera:

- Arrazoitzeko edo errugabea dela frogatzeko ahaleginak: zergatia galdetu, jasotako aginduen kontra arrazoitu, behar bezala hitz egitea eskatu, hiltzaile bat izango

balitz bezala tratatzen ari zirela esan, egoera bereko beste pertsonekin zergatik ez duten berdin jokatzeko galdetu...

- Identifikazio-datuak eskatzea edo beren eskubideak edo ondasunak defendatzeko erreakzioak.
- Agenteei irainak bota dizkietela onartu dute batzuek, urduritasunak edo amorruak jota, edo senetik aterata.
- Erreakzio aktiborik eza: egiteek ezustean harrapatu zituztelako, zer egin ez zekitelako, ezer ez egitea nahiago izan zutelako.

Lekuko enrantzuen artean ere, goian aipatuak izaten dira:

- batzuek bitartekoarena egin nahi izan dute, miatzen ari direna ezagutzen dutelako eta batere susmagarria ez dela uste dutelako.
- identifikazio-datuak eskatzea;
- irainak agentei (kasu batean, onartu egin zirenak);
- begiratu baino ez egitea edo begiratu ere ez egitea.

Lau mota hauei garrantzi handiko beste bat gehitu behar zaie, inplikazio pertsonala adierazten duelako eta egiteek hartzen duten bidea, zenbaitetan, eragin handia izaten duelako. Parte hartzen ari diren agenteei eta bertan dauden kideei bidegabeko jokaera aurpegiatzea, pertsonen eskubideak urratzen ari direlakoan.

Hiritarren partehartzeak, zenbaitetan, eraginik izaten du egiteen garapenean, eta, horiei esker diru-eskuratzea ebitatu eta polizien aldetiko tratua aldatu egin da. Orobat, bestelako eragin onik ere izan du, hala nola tratu hori jasandako pertsonak sumatu duten aldeko jarrera, edo geroagoko auzietan lekuko bezala parte hartu ahal izatea... Kasu batzuetan, hala ere, lekuko enrantzuek partehartzeak poliziaren jardura jasandakoei onura ekarri partez, beraientzat kalteak -kolpeak edo beraien atxiloteta- ekartzen dute.

C) Jarduera polizialak komisaldegietan

Aztertutako kasu gehienetan (aztertutako lau kasutatik hirutan gutxi gora-behera, hain zuzen) kalean bertan bukatzen da jarduera poliziala, hau da, inor atxilotu gabe.

Hala ere, aztertutako kasuetatik gutxienez hamarretan atxiloteta gertatu da. Bi kasutan Garellanoko (Udaltzaingoaren) komisaldegira eraman dute; gainerakoetan, aitzitik, Ertzaintzak Deustun duen komisaldegira eraman dute.

Komisaldegian izandako **egonaldi** dagokienez, aurkeztutako datuak ez dira nahikoak, oraindik, jardueretarako jarraibideak zehazteko. Hala ere, kontu hori zehaztasunez aztertu zen bi komisaldegietako atxilotuen liburu berrikusketan egiterakoan.

Atxilotutakoak ez dira beti jabetzen **poliziek atxiloaldian zehar egindako jardueraz**, azalpen bat ere ematen ez dietelako edo ulertzen ez dituztelako. Datuak lortzera (argazkiak, hatz-markak...), miaketetara edo kalean izandako egiteek lesioak sortzekotan ospitalera eramatera mugatzen dira atxilotuek aipatzen dituzten jarduerak. Lau kasutan erabat biluztu eta gorputza miatu dietela -horrek dakarren laido-sentsazioarekin- kontatu dute.

Komisaldegian jasotako tratuari, beste aldetik, bidezkoa deritzote, batez ere kalean jasotakoarekin konparatzen badute. Hala ere, udaltzain batek egindako ahozko mehatxuak aipatzen dira kasu batean, eta bestean agente batek Deustuko komisaldegiko ziegara egiten zituen bisitaldian janarian listua bota, zango trabatu eta kolpatu ("kozkorrekoak") egiten zuela aipatzen da. Atxilotuak oso gazteak ziren bi kasuetan.

Nahikoak ez badira ere, **atxilotuek dituzten eskubideak errespetatu diren edo ez diren** jakiteko datu batzuk bilduko ditugu jarraian:

- Kasu batzuetan **abokatu** bat (ofiziozkoa, normalean) zegoela aitortzen da; bi kasutan, hala ere, abokaturik ez zegoela esaten da (bata, Garellanoko komisaldegian, eta, bestea, Deustukoan). Beste kasu batzuetan abokatu bat izateko aukera eskaintzen da.
- **Interpretaria**, ordea, ez da kasu bakar batean ere izan, nahiz eta eragindakoak, zenbait kasutan, ulertzeko arazoak dituela esan.
- Bi kasutan ez zen inolako paperik sinatu, baina beste batzutan bai, nahiz eta sinatutakoa zer zen jakin ez. Litekeena da, zenbatetan, gazteleraz idatzitako testuak ulertzeko arazoak izatea eta interpretaririk ez egotea.
- Lau kasutan atxilotua ospitalera eraman zuten Deustuko komisaldegitik, berak eskatuta. Bertan atxilotuta zegoen bati, ordea, ez zizkioten eman behar zituen medikamenduak eta zegozkion **zainketa medikoak**, nahiz eta behin eta berriro eskatu gaixorik zegoelako.

Kasu batean Deustuko komisaldegian toki deseroso batean, beste jende batzuekin lo egin zuela kontatzen du atxilotuak. Beste bi kasutan ez zitzaien inolako azalpenik eman eta ez zieten utzi bisitaldirik egiten atxilotuez galdetzera Deustuko komisaldegira hurbildu zirenei.

Bukatzeko, aipatu behar da Deustuko komisaldegian 19 ordu eman ondoren, inolako aitorpenik egin gabe eta inolako dokumenturik sinatu gabe askatu zutela dio batek. Eman zioten azalpen bakarra hauxe izan zen: nahasketa bat izan zela.

D) Aztertutako egiteen osteko ondorioak (beste instantzia batzuen partehartzea)

Azkenik, beste instantzia batzuen partehartzea eskatu duten jarduerak aztertzen dira: instantzia judizialak, Arartekoa bera, ospitale-zerbitzuak, komunikabideak edo polizia nazionala.

Atxilotuak, zenbaitetan, ez daki poliziak ea eraman dituen egiteak **instantzia judizialen** aurrera, eta batez ere, zein den salaketa. Salaketak hartutako bidez ere ez daki ezer, normalean, eta, zenbatetan, **zitazio judizialen** bidez du horren berri. Dena den, aztertutako hamar kasutan gutxienez badago poliziak egindako salaketa, egiteak (normalean, “poliziei aurka egiteagatik, irain gogorak esateagatik eta heriotz-mehatxuak egiteagatik” edo “agenteak jotzeagatik”) direla eta.

- Aztertutako kasuetatik hamazazpitan (hau da, herenean gutxi gora behera), eragindakoek jarduera poliziala salatu dute instantzia judizialen aurrean edo jarduera polizialen gaineko kexa tramitatu dute Arartekoaren aurrean. Zenbaitetan, eragindako pertsonak komisaldegira bertara jo du egiteak salatzeke asmoz, eta bertan epaitegira jotzeko aholkatu zioten. Egiteak gertatu zirenetik iragandako denboran baten bat artxibatu egin dute dagoeneko, eta besteren bat epaitu dute eta beste batzuk zabalik dago.
- Bildutako datuak ikusita, ondokoak bezalako arrazoiek bultzatzen dute pertsona bat jarduera polizialei salaketa jartzera:
 - bere komunitatearen beraren edo elkarteren baten laguntza izateak;
 - egiteek eragindako ondorio larri eta objektibagarriek (normalean, zainketa medikoa ekarri duten lesio fisikoak -eta, ondorioz, “parte” mediko bat, baja bat, etab.- dagoelako);

- aurretiko esperientziak izateak (norberarenak edo ingurukoak);
- herrian errotuta egoteak (urte dezente eman dituelako, egoera legalean dagoelako, enplegua dutelako) eta defentsarako jardunbidea aurrera eramateko baliabideak (baliabide kulturalak, ekonomikoak, linguistikoak...) izateak.

Bildutako testigantzen arabera, kasu batzuetan lotuta egoten dira poliziak norbait atxilotu eta dagokion atestatua egitea eta eragindakoak poliziaren aurkako salaketa aurkeztea, adibidez horrek lesioren bat izan duelako.

- **Osasun-ondorioei** dagokienez, nolabaiteko larritasuna duten lesio fisikoak (kolpe eta hausketak) aipatzen dira aztertutako hamaika kasutan (bederatzi, Ertzaintzak egindako jardueren ondorioz, eta, bi, Udaltzaingoak egindakoen ondorioz). Aipatu lesioak jasota geratu dira emititutako txosten medikoetan, hamaika kasu horietatik bederatzitan, hain zuzen.
- Aztertutako hiru kasutan baizik ez zen **gertatua komunikabideetan** agertu. Egunkarietan eta 1997. urtean zehar, hain zuzen. Hiru kasu horietatik batek ohiartzun handia izan zuen, jarduera nahikoa zabala izan baitzen. Beste bi kasuak komunikabideetan agertu baziren, eragindako pertsonak ezagunak (etorkin-komunitatean izen handia zuten bi pertsona, alegia) zirelako izan zen.
- Bukatzeko, aipatzekoa da Polizia Nazionalaren **Atzerritarrentzako Brigadarekiko** harremanaren gaineko inolako aipamenik eza. Goian aipatutakoa izan daiteke horren azalpen bat: jarduera polizial askok ez du bilatzen pertsonen identifikazioa edo dokumenturik duten edo ez jakitea, miaztea baizik. Beste aldetik, testigantza pertsonalak eman dituztenak ez dira, normalean, legez kanpoko egoeran daudenak eta dokumenturik ez dutenak, jakina.

* * *

Aipatu den bezala, jarduera polizialen laburpena aurkezten saiatu gara atal honetan; horretarako, bildutako testigantzetan oinarritu eta alde objektibo, objektibogarri eta larriagoenetan zentratu gara. Kontu hauetako askoren gainean orain arte aurkeztutako ikuspuntuari, txostenaren beste ataletan bildutako beste informazio batzuk gehituko zaizkio.

Beste alde batetik, bildutako testigantzek **interes handiko beste kontu batzuei buruzko** informazio zabala agertzen dute; **ez diegu**, hala ere, **kontu horiei ekin**, lanak duen helburutik kanpo geratzen baitira. Hona hemen kontu horietako batzuk: eragindako pertsonengan eta hurbilekoengan jarduera polizialek duten eragina; arduera polizialen aurrean izaten diren sentimendu pertsonalak edo erantzun kolektiboak; zonak dituen arazoei eta arazoei azken urteotan hartutako bideari buruz pertsona horiek egiten duten balorazio subjektiboa; inguruan izaten diren jarduera polizialen gaineko balorazioa...

Bildutako informazioaren alde objektiboan, edo egiteak edo jarduera polizialak hurbilgotik ukitzen dituztenetan zentratu da beti Arartekoaren lana; horretarako, instituzio honetako eskuhartzerako egokia den erabilgarritasun-irizpideari jarraitu diogu. Beti jabetuta egon gara, hala ere, alboan uzten genituen funtsezko kontuez -pertsona horien errealitatea hobe ezagutzeko eta, baita ere, jarduera polizialen testuinguru orokorra zehatzago islatzeko

1.6.4. **POLIZI ITURRIETATIK BILDUTAKO INFORMAZIOA INGURUAN EGINDAKO JARDUEREI BURUZ**

San Frantzisko hirialdean lanean ari diren polizia taldeen ikuspuntua lortzearen, bilerak eta elkarrizketak egin ziren ertzain eta udaltzain batzuekin. Inguru horietan patruilatzen duten agente polizialen eta agintari polizialen esperientzia pertsonala -eta, ondorioz, egoeraren irakurketa- ezberdina izan daitekeenez, bi ikuspuntuak biltzen saiatu zen. Erabilitako prozedura -urtarrilaren 20tik otsailaren 10era- hauxe izan zen: batetik, elkarrizketa pertsonalak egin zaizkio zoriz aukeratutako agente-sorta bati (talde eta txanda guztietatik); bestetik, bilerak izan ditugu Ertzaintza eta Udaltzaingoaren komisaldegietako arduradunekin.

Txostenak berezita jasotzen du batzuen eta besteen ikuspegiak, eta, horretarako, erabiltzen duen eskema da bilera eta elkarrizketetan baliatutakoa. Horrela, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arduradunek eskainitako ikuspegia ondoko atalotan laburbiltzen da:

- 1) Zonak duen problematika ikuspegi polizialek
- 2) Antolaketa poliziala eta koordinaketa beste polizia-gorputzekin.
- 3) Agenteen prestakuntza jarraitua edo/eta berezia
- 4) Barneko kontrolerako bideak
- 5) Inguruko gizarte-eragileekiko harremanak
- 6) Eskuhartze polizialaren emaitza
- 7) Jardueretako arazo zehatzak
- 8) Jarduera polizialen autobalorazioa
- 9) Arazoak eta proposamenak

Aldi berean, agenteengandik jasotako ikuspegiak gai hauek biltzen ditu:

- 1) Adskripzioa San Frantziskoko unitateetan
- 2) Laneko baldintzak
- 3) Azken hilabeteetan atzemandako eboluzioa eta eskuhartze polizialaren balorazioa
- 4) Norberaren satisfakzioaren maila eta komunikabideek zabalduetako irudia
- 5) Polizien arteko eta beste gizarte-eragileekiko koordinaketa
- 6) Kanpotarrekiko tratua balorazio orokorra
- 7) Barne kontrolerako bideak
- 8) Egoera arazotsuen azterketa
- 9) Iritzi orokorra. Hobekuntzarako proposamenak

Hemen eskaini behar denez egiaztatze elementu gisa eta beste informazio iturri bat gehiago gisa balio dezakeen ikuspegi polizialaren laburpena, saiatuko gara lan honetarako interes handiena duten aferen gainean eskuratutako informazioak laburbiltzen. Polizia taldeen eta mailen arteko adostasunak adieraziko ditugu, baita ikuspegi desberdinak edo desadostasunak ere, eta horretarako ondoko eskema hau erabiliko dugu.

- A/ Auzoaren arazoak ikuspegi polizialek
- B/ Polizia antolaketa (adskripzioa, koordinaketa, prestakuntza...)
- C/ Inguruko gizarte-eragileekiko harremanak
- D/ Barne kontrolerako bideak
- E) Jarduera arazotsuen azterketa
- F) Iritzi orokorra eta hobekuntzarako proposamenak
- G/ Polizia miaketatik eta estatistiketatik berezitatako datu nabarmenak

A. Zonak duen problematika ikuspegi polizialek

Denak bat datoz San Frantziskok duen problematikaren jatorria poliziala ez dela esatean. Behin eta berriro azpimarratzen zuten instituzio guztien partehartzea beharrezkoa zela eta poliziak ez zuela proiektuaren buru izan behar. Ondoko elementu hauek nabarmentzen dira:

- **Zonak hartu duen beheraldia** eta horren gaurko ondorioak (etxebizitza gero eta merkeagoa da, etxebizitzak ez dira konpontzen, “txabolismo bertikala” delakoa agertu da: ia hondoa jota dauden etxe batzuk okupatuta daude, hustutako eraikin batzuk berriro zabaldu dira, jende-pilaketa, higienarik eza...). Eraikuntza-espekulaziorik ere antzeman da.
- **Legez kontrako jarduera** batzuk (lapurtutako objektuen sal-erosketa...) eta, hain zuzen, munta gutxiko legez kanpoko droga-trafikoa (kontsumitzaileen artean banatu) biltzen dira bertan. Kanpotar askok ez du bizitzeko nahikorik ateratzerik, eta drogak saltzea irtenbide erraz samarra izaten da haientzat. Drogazale ugari ikusten da zonan, nabarmen eta etengabe, eta auzokideek ez dituzte begien aurrean ikusi nahi.
- Zenbait unetan auzoan gertatu zen **“utzikeria poliziala” eta auzokideek gero eta polizia eta jarduera polizial gehiago eskatzen dute**. Uste dute konponbideak (zona birgaitzeko plangintza: “Birgaitzearen aldeko Mahaia”...) aurkitzen saiatzen ari direla. Egindakoa, hala ere, ez da nahikoa, arazo nagusia hirigintzan datzalako, eta horrek Udalaren inplikazioaz gain Eusko Jaurlaritzarena ere eskatzen du. Haien ustetan, beraienak ez diren funtzio batzuk ari da egiten polizia (gizarte-premiak, adingabeak, legez kontrako negozioak -batez ere, ostatuak), eta hori gertatzen da beste arlo eta zerbitzuek ez dituztelako erantzunkizunak beren gain hartzen.
- **Gutxitan kontrolatzen da atzerritartasun-egoera**, eta, ondorioz, etorkin kanpotar askok ez dute legeak eskatzen duen dokumentazioa; beste aldetik, auzokideen etengabeko joan-etorria.

Hiritar-segurtasunari buruz, prebentzioa eta disuasioa aipatzen dute bi polizia taldeek, horiexek baitira, batez ere, uniformez jantzita zonan patruilatzen duten agenteen helburua, auzokideek eskatuta. Era berean, munta gutxiko trafikatzailen eta kontsumitzaileen arteko esku-aldaketa oztopatu besterik ezin dutela egin diote, droga-trafikoa ikertzeko eta ekiditeko zer egiten duen galdetzean. Hau da, trafikoa azken pausoetaraino iritsi arte ez da parte hartzen, eta helburu bakarra kaleko banaketak gizartean sortzen duen alarma ebitatzea da.

B. Poliziaren antolaketa (adskripzioa, koordinaketa, prestakuntza...)

- **Udaltzaingoari** dagokionean, San Frantziskon egindako bere eskuhartzearen kronologian une giltzarri batzuk bereizi behar dira:
 - 1990: Udaltzaingoaren Drogen Taldea eratzen da;
 - 1993: Laguntzarako Talde Mugikorra hasten da lanean zonaldean. Une hartan nola halako utzikeria gertatzen ari zen ikuspuntu polizialek;
 - 1994eko. urria: koordinaketa protokoloa Ertzaintzarekin. Horren arabera, bakoitzaren eskumenak zehaztu ziren;
 - 1996: Canterako Komisaldegia zabaldu zen.

Urteotan efektibo gehiago joan izan dira biltzen zonaldean; presentzia nabarmenagoa da komisaldegia dagoenetik, eta horren bitartez areagotu egin da jarduera poliziala.

Udaltzaingoarentzat ahalegin handia da komisaldegi horri eustea, beste eginbehar batzuetarako efektiboak murriztu egin behar baitira. Haien iritziz, plantila murriztua dago eta haiek diotenez, Canterako taldeak beste auzo batzuk ere biltzen ditu, baina San Frantziskon aritu behar dute arazo gehiago dagoelako.

Ertzaintzak, bere aldetik, dio Bilbon hedatu zenetik (1994eko. urrian), haien presentzia beti izan ohi dela, baina 1997ko udatik aurrera handitu dela “Operativo Cortes” delakoa abian jartzearen bitartez. Abiarazi baino lehen, inguru horrek zituen arazoen azterketa sakona egin zen. Hona hemen aztergaiak: auzoaren ezaugarriak eta bere bilakaera 1994tik goiti (hirigintza, biztanleria, zerbitzuak...), poliziarren eginbeharrak eta alorren arteko elkarlanaren beharra, estatistikako datuak... Azkenik, jarduera plan bat diseinatu zen auzoaren gabeziak arintzen saiatzeko eta gizarte alarma eragotziko zuen presentzia bermatzeko.

Plan honen berri San Frantziskoko zenbait gizarte-kolektibori eman zitzaion (auzolagunen eta merkatarien elkarteei, eta inguruan etorkinen aldeko laguntzan lanean diharduten elkarte batzuri). Udaltzaingoarekiko eta Polizia Nazionalaren Atzerriartasun Brigadarekiko koordinaketa-bideak ezartzeaz gain, bilerak ere izan zituzten Bilboko Argibide Epaitegiekin eta fiskalekin, haiek ere aurreikusitako jarduera polizialaren berri izan zezaten. Halaber, atxilotuarekiko Gizarte Laguntza eta Orientaziorako Zerbitzuekin elkarrizketatu ziren hala nola Biktimarekiko Laguntza Zerbitzuarekin.

- Operatiboa osatuko zuten **agenteen hautaketari** dagokionean, erabaki zen bolondresak eskatzea, lan gogorra eta ezaugarri bereziak zituena izango zelakoan. Oro har, uste dute euren burua eskaini zutenek bazuten nola halako sentiberatasuna auzoko zenbait kolektibori eta arazoei begira, eta, era berean, interesa zuten lan zuzena egiteko, hau da, auzoan barrena patruilatzeko. Bolondresen arteko aukeraketa egiterakoan, liskarrik sortuko ez zuten hautagaiak hautatu ziren, gauza jakina baitzen auzokideekin harreman zuzen-zuzena izango zela eta litekeena tentsio uneak agertzea. Jakin bazekiten epe laburrean deus gutxi konponduko eta ez zela emaitzarik izango. Alde horretatik ez zen perspektiba faltsurik sortu. Baina, denbora puska joan den honetan, arduradunek somatzen dute agenteak neke handiskoak hartuta eta gogogabetuak dabiltzala.

Udaltzaingoak beste hautaketabide bat erabili zuen Canterako Komisaldegian lanean jardungo zuten agenteen aukeraketarako. Ez dira bolondresak; plantilako parte bat hara igorri zuten. Gaur egun, inork beste tokiren batera joan nahi baldin badu, ordezkoa bilatu behar du.

Bi taldeetako agenteek oso positibotzat jotzen dute auzoa ezagutzea eta formula horiek eskaintzen duten lan jarraitua, eta, era berean jakinaren gainean daude desgogatzeko eta nekearen arriksuaz.

- **Polizia taldeen artean** dagoen **koordinaketari** doakionean, 1997ko uztailatik aurrera eta Ertzaintzaren operatiboa abian jartzearekin batera, Ertzaintzak nahiz Udaltzaingoak solaskide bana izendatu zuten. Hilean behingo buruzagitzen arteko bilerez landara, maiz ere bildu dira bi solaskideok. 1998ko urtarrilean Ertzaintzaren operatiboko arduraduna aldatu eta aldaketa horrek koordinaketa ahuldu zuen. Polizia Nazionalaren Atzerriartasun Brigadari dagokionez, berriz, adierazten da ia ez dagoela koordinaketarik. Ertzaintzaren operatiboaren hasieran, arduradunak elkarrizketa izan zuen operatiboaren nondik norakoa azaltzeko. Gaur egunean, aldiz, behar bezalako agiririk gabe dauden gizon emakume atzeritarren berri ematera edo pertsona horiek eramatera mugaturik dago harremana. Zenbait arazoren berri ematen da: konparazio batera, errequisitoriak iristen dira epaitegiak atxilotua aske utzi ondoren

eta zaila da orduan huraxe aurkitzea, edota atzerapenak gertatzen dira atxilotuak epailearen esku utzi behar direnean, ez baitira behar hainbateko arintasunez jasotzen beharrezkoak diren identifikazio datuak.

Elkarri txanda hartuta lanean aritzen diren talde edo patruilen arteko barne koordinaketari bagagozkio, bi polizia taldeen arduradunek uste dute zuzena dela txandek elkarri informazioa emateko erabiltzen duten bidea eta bide hori egoki dabilela, gainera. Agenteen artean, azpimarratzen da beharrezkoa dela ikerketa taldeen sostengu handiagoa –polizia ez uniformeduna- lanean eraginkortasuna lortzeko. Horrez gain, gaizki irizten diote polizia taldeen arteko (Udaltzaingoa-Ertzaintza-Polizia Nazionala) eta txanden arteko koordinaketari: ez ezagutza, informaziorik eza, lehia...Oro har, agertzen dute elkarlan handiagoak denei on egingo zuela.

- Bi polizia taldeetatik, ez bata ez besteak ez zieten aldez aurreko **trebakuntzarik** eskaini San Frantziskon lana egin behar zuten agenteei. Egia esan, bada nola halako trebakuntzabide jarraitua jarduera modua arautzen duten agirien bitartez (“jarduera protokoloak”, Udaltzaingoaren hitzetan, eta “jarraibideak” edo “zirkularrak”, Ertzaintzaren hitzetan), baina beti sortzen dira aldez aitzinetik aurreikusita ez dauden arazoak. Udaltzaingoan ohartarazten dute protokoloak “goitik” egin eta udaltzaingo osoarentzako direla, baina afera asko San Frantziskon sortzen direla. Nolanahi ere, esperientziak eta bilakaera faktikoak eskarmentua dakarte; okerrak ikasbide gertatzen dira eta, esate baterako, ikasten da epaileek esaten dutenean frogarik ez dagoela edo oker egin dela. Era berean, Udaltzaingoaren arduradunek azaltzen dute trebakuntza borondatezkoa dela, baina ikastaroak eskaintzen baldin badira ere, agenteak ezin dira berziklatu, ezin baitira zerbitzutik bereizi.

C. Inguruko gizarte-agenteeekiko harremanak

Canterako komisaldegia zabaltzean eta Ertzaintzaren operatibo berezia abian jartzean, harremanik izan zen inguruan dauden elkarrekin (auzolagunenak, merkatarienak...). Horrela, 1997ko ekainean, Ertzaintzak bilera Deustun antolatu eta bertan Udaltzaingoa izan zen, hala nola zonaldean aritzen diren zenbait kolektibo, auzolagunen elkarrekin nahiz etorkinei laguntza ematekoak. Bilera hori, diotenez, oso mamitsua gertatu zen, baina, era berean, ikusi zen kolektibo horiek bazituztela aurrez aurreko interesak eta barne hika-mikak.

Bi polizien arduradunek aitortu dute ez direla etorkinei laguntza emateko eratuta dauden zenbait elkarrekin harremanetan sartu, eta are ez zutela horietako batzuen berri. Batzuek nahiz besteek, behin eta berriz, diote ateak zabalik dituztela, baina, oro har, elkarrekin ez dute bide hori erabiltzen. Arazo zehatzak direnean, kontaktua egiten duten pertsonengana jotzen dute, azterketa egiten da, informazioa ematen zaie eta saiatzen dira jendearen beharrak eta eskaerak zeintzuk diren jakiten.

Udaltzaingoaren arduradunen iritziz, zenbaitetan komunikabideek liskarrak sortzen dituzte deus ere gertatzen ez den tokian, eta gisa horretan funtsik gabeko alarma pizten dute gizartean. Haien irudikoz, auzo-elkarrekin pozik daude. Ertzaintzako arduradunek, bere aldetik, uste dute elkarrekin lana ona dela, baina, gisa berean, iruditzen zaie zenbait elkarrekin droga salerosketan dabiltzan pertsona batzuk babesten dituztela, horren berri ez edukitzeagatik.

Agente polizialen aldetik ez da inolako harremanik, ezagun baten batekin gerta daitekeen funtsigabeko harremanaz gain, baina batzuek uste dute, behar bada komenigarria izan zitekeela. Ez dakite elkarrekin ugariren berri, eta, batzuetan prebentzioz ikusten dituzte.

D) Barne kontrolerako bideak

Hala Udaltzaingoaren nola Ertzaintzaren arduradunek diote behar adina kontrolbide dagoela barrenera begira. Ongi daude eta egokiak dira.

Udaltzaingoaren iritzi, agenteen jarduerak oso hurbiletik begiratzen dira. Epaibidearen kontrolaz gainera, badago Udaltzaingoak berak duena ere (espediente informatiboak izan dira...) eta salaketarik izanez gero, badira beti nori dagokion jakiteko bitartekoak (patruila, matrikula...). Salaketa oro jerarkiaz bideratzen da eta agenteari tramitea ematen zaio idatziz erantzun dezan. Maiz gertatzen dena da, salaketa iritsi orduko, barneko partea egina dagoela. Haien irudiko, agenteak oso kontrolaturik daude, eta sentsibilitate handia dago jarduera ez zuzenei edota poliziaren abusuei buruz. Are gehiago, lanez hartuxe ere dabilta, indar gehiegi baliatu behar baitute kexei erantzuteko, eta ezin, beraz, indar horiek gainontzeko eginbeharretarako baliatu. Zenbaitetan kexak antolamendu politikoetatik heltzen dira eta, ez soilik irregularitateak direla medio, baizik eta baita beste zerbitzu batzuk ere egiten ez dituztelako. Azken buruan, presio sozial eta politiko handiegia somatzen dute euren buruen gainean.

Ertzaintzari doakionean, arduradunek diote hasieratik beretik jakin bazekitela arazo berri. Horrexegatik, operatibotik baztertu zituzten auzora ongi egokitu ez zitezkeen borondatezko pertsonak. Komisaldegiko Operazio Buruak, bestalde, jarduera bakoitza gainbegiratzen du, eta operatibo zehatzeko arduradunak agente inplikatuekin hitz egin du sortu diren liskargai guztiei buruz. Barne espedienteak sarriak dira, baina ñabartzen dute bat bera ere ez dela bideratu abusuak egiteagatik eginbehar polizialak gauzatzekoan. Nolanahi ere, agenteren baten aurka kexa asko baldin bada, edo arazoak sortzen baditu, edota ez baldin badu azalpen egokirik ematen aferagai bati buruz, San Frantziskon aritzen den taldetik kendu eta beste zerbitzu batzuetan ematen zaio destinoa. Udaltzaingoaren gisan, Ertzaintzak ere bere burua presionatuegia ikusten du. Are, aditzera ere ematen dute berriki, Ertzaintzak San Frantziskon gauzatu dituen jardueri buruz egindako salaketetan horietako batzuen xedea izan daitekeela haiei aurre egin eta ospea kentzea.

Bi polizia taldeen arduradunak bat datoz nabarmentzerakoan lankideen arteko kontrolaren garrantzia. Izan ere, sekulan ez baita bakarrik patruilatzen, bikotetan edo taldeko jardueretan baizik. Era berean, bai batak, bai besteak uste dute komenigarria dela hiritarrek salatzea oker irizitako jarduerak, datu zehatzak emanez ikerketa egin eta erantzun ahal izateko.

Agenteek uste dute lehendabiziko kontrol moldeak bakoitzaren profesionaltasuna izan behar duela. Denek baldin badakite ere, bide ofiziala dela barne espedientea zabaltzea, esaten dute oso gutxitan gertatzen dela. Jokabidea zuzena ez denean, ohikoena da gisa horretan jokatu duen agentearekin hitz egitea, edo kritikak agertzea taldean... Zenbaitetan, kaboak ohartarazten du, baina, oso auzi larria izan ezean, ez da lankide baten kontrako txostenik egiten. Uste dute, gainera, eguneroko jardunean, joera dela pertsona berbererarekin patruilatzea, elkar artean ongi moldatzen direlako.

Bestaldetik, ia aho batez oso gaitz irizten diote hedabideek jarduera polizialari buruz ematen duten irudiari. Agenteak gogogabeturik eta etsiturik sentitzen dira. Uste dute hedabideek ez dutela errealitatea islatzen eta orokortzen dabiltzala, hau da, dabiltzala kolektibo osoaren bizkar gainari egozten banakakoen jarduerak. Somatzen dute eragozpen guztiak haien lanari dagozkiola eta ez goiko estamentuko lanari. Halaber, ez zaie bidezkoa iruditzen bakar bakarrik kritika txarren berri ematea eta ez aldeko iriztiak, edota auzolagunen eta merkatarien eskaerak. Alde horretatik, baten batek erantsi du elkarten interesak elkarren aurkakoak direla, eta, horregatik, ezin direla sekulan

denak askietsi. Nolanahi ere, agente guztiek diote ez dutela euren burua ikusten prentsak bereziki presionaturik.

E) Jarduera arazotsuen azterketa

Atal honetan, bilera eta elkarriketa bakoitzean jasotako kexei lotuta dauden jarduera zehatzak azaldu ziren, modu horretan polizia ordezkariak azalpenak eman zituzten jarduera horien motiboen gainean, edota, euren ikuspuntua behintzat eman zezaten. Xedea da testigantzen bidez eskuratutako informazioaren egiaztapena egitea, ez kasuz kasu, baizik eta jarduera jarraibide posibleen gainean. Segidan hona hemen euren jarrerren laburpena.

a) Identifikazioak eta agiri eskaerak

Identifikazioak ez dira sekulan bereizi gabe egiten. “Sarrera” beti justifikaturik dago legez kontrako jokamolde baten susmoarengatik: ikusitako aztarnak, komisaldegia emandako datuak... Bi polizietako arduradunek diote inola ere ez dela diskriminaziorik gertatzen, ez baitiote jendeari helden larruazalaren kolorearengatik. Ziurtatzen dute xenofobiaren susmoa ukituriko pertsonen berek dutela, uste baitute helden zaiela atzerriarrak direlako, eta hori ez da horrela.

Udaltzaingoaren arduradunek diote udaltzainek ez dutela arazorik auzoan finkaturik dauden gizon emakumeekin. Ezagutzen dituzte eta ezagunak ez direnean baizik ez dituzte identifikatzen. Ertzaintzak ere dio auzoan ertzain berberak baldin badabilta, horrek bidea ematen duela jendea hobeki ezagutzeko. Nolanahi ere, azpimarratzen dute atzerriko pertsonen pilaketa handia dagoela eta, horrez gain, kolektiboaren osaketa ere asko aldatzen dela. Beraz, oso zaila da auzolagunak bereiztea. Aitortzen dute zailtasunak badituztela afrikarren ezaugarri fisikoak bereizteko. Horregatik guztiagatik, onartzen dute litekeena dela zenbait auzolaguni eta aspaldian auzoan finkaturik dauden zenbait pertsonari identifikazioa eskatu izana, baina barkazioa eskatzen dute okerraz ohartzen badira. Batzuetan pertsona horiek hasarretzen dira eta erantzun desegokiak ematen dituzte. Hortxe dago koska.

b) Indarraren erabilpena kalean pertsonen heldzerakoan

“Sarrera biolentoen” beharrari buruz, bi polizia taldeek azaltzen dute, gaur egun, maila txikiko trafikoa egiten ari dela droga banatuz bola txikien bidez. Bola horiek plastikoa bilduta eta termozigilatua daude, eta ahoan eramaten dira. Horrengatik, inor ikusi baldin badute droga eramaten, edo behar hainbat aztarna baldin bada hori susmatzeko, beharrezkoa da ezarriari heldzea bola irents ez dezan, hots, proba desagertarazi ez dezan. Nolanahi ere, esaten dute jokabide hori mugatzen dela drogak dauzkatala susmatzeko motiboa dagoen kasuetara.

Halaber, aditzera ematen dute azkenaldi honetan indarkeriak gora egin duela auzoan: azkenaldi honetan armak azaldu dira auzoan zehar, trafikariaren elkarren arteko antolaketa gero eta hobea da, eta erabiltzen dituzten bitartekoak ere gero eta sofistikuagoak dira, ertzain batzuk lesionaturik gertatu dira, gaur egun droga trafikoa bere gain duten afrikar taldeek indarkeriaz jokatu dute lehenago merkaturia kontrolatzen zuten algeriarrak baztertzeko... Horrek guztiak dakar indarra erabiltzearen beharra, eta, are uste dute San Frantziskoko auzolagunak berak ere Ertzaintzari exijitzen ari zaizkiola, “bigun izatea” leporatu baitiote.

Agenteek azpimarratzen dute indarra ez dela erabiltzen, droga ahoan eraman dezaketen susmoa denean izan ezik. Identifikazioa eskatu, eta, bakar bakarrik erantzuna erasokorra

denean edota gogor egiten dietenean, jokatzen dute irmoki. Orokorrean, kezka handia agertzen dute errespetoa gal daitekeelako. Udaltzainek indarra erabiltzea beharrezkotzat ikusten dute borroka batean eskuhartzerakoan. Askok azpimarratzen dute kalean dena ezberdina dela eta zaila izaten dela egoerak gertaberritzea.

Laburbiltzeko, bi polizia taldeen iritzia da indarra baliatzeko beharra, hein handi batean, lotuta dagoela egoera zehatzari. Halere, onartzen dute, oro har, polizia nagusitasunezko jarreran dagoela. Horrexegatik, ezinbestekoa izan ezean, ez dute indarra erabiltzen. Ertzaintzak azpimarratzen du ertzainen aginpidea aintzat hartu behar dela: errespetoa galtzen bada, ondorioak guztiendako kaltegarriak izango dira. Ia agente guztiak diote beharrezkoa dela hasieratik inposatzea, ez dadila euren legitimitatea zalantzan jar. Halaber, poliziek, hasiera batean, mundu guztiarekin berdin jokatzen duten ideia errepikatzen da eta euren jokamoldea alda daitekeela geldiarazitako pertsonaren erantzunaren arabera.

c) Gorputz miaketak

Gorputz miaketei eta karrikan identifikatutako pertsonen gauzen miaketei dagokienez, polizia arduradunek aditzera ematen dute azaleko miaketak besterik ez direla egiten eta, nolnahi ere, diskrezioz egiten saiatzen direla, duintasuna babesteko (esate baterako, atarien barrenean). Uste dute sinesgaitzak direla biluztearen gaineko salaketak. Diotenez, aztarnarik baldin bada gorputzeko miaketa osoa egiteko, badira atxilotzeko motiboak eta horixe bera egin beharko litzateke. Inoiz halakorik gertatu izan balitz, ohizkanpokoak litzateke eta ertzain zehatz batek egina, ez baita jokabide nagusia.

Era berean, agente elkarrizketatu guztiak, miaketak egiten dituzten moduz galdetzerakoan, diote azaleko miaketak direla ("cacheo"ak), intimitatea aintzat hartuz egiten direla -horretarako atari baten barruan egiten dira- eta legez kontrako substantziak edo gauzaki arriskutsuak eraman ditzaketen aztarnak daudenean baizik ez. Orokorrean esaten dute arropa erantztea ez dela inola ere arrazoizkoa: miaketa sakona egiteko beharra dagoenean, pertsona atxilotu eta poliziaren egoitzara eramaten dute. Hala ere, baieztatzen denean kexak badirela zenbait pertsona atari batean biluztuarazteagatik, zenbaitek aitortzen dute batzuetan beharrezkoa dela zatika biluztu behar izatea, beste batzuek aditzera ematen dute agindua eman diezaieketela zapatak kentzeko, edo nikya goratzeko, kamiseta erantzteko edota galtzak beheratzeko. Inork ere ez du onartzen inor oso osorik biluztuarazi izana, ezta halakorik ikusi izana ere. Agente bakar batek baizik ez du aitortzen badakiela hori egin duen jendearen berri.

d) Dirua edo generoa eskuratzea

Oro har, goitik behera zorrozki errefusatzen da halako kasuak gertatu ahal izana. Daitekeen azalpen bakarra hauxe da, hots, errekiatutako diru faltsua izatea, eta atzeritarrak ez ulertzea zergatik jokatu duten horrela.

San Frantziskon ari diren agenteentzat diru asko eramatea trafikatzan ari den aztarna izan daiteke. Horregatik, identifikatutako pertsonari galdetzen zaio zenbat diru daraman edo zenbatzen da katxeoan agertzen den dirua. Uste dute salatutako kasuak oker egiteak direla, jende anitzek ez baitaki zenbat diru daraman. Agenteek diote dekomiso guztiak dagokion aktan idatziz jasotzen direla eta nekez sinesten dute agenteren bat ausartzea berea ez den gauzez jabetzera, izugarrizko arriskua baita. Halaber, lankideengandik datorren kontrola nabarmentzen dute, lankideak nekez utziko baitzion halakorik egiten. "Generoaren" jabetze posibleari dagokienez, ezinezkotzat jotzen dute. Udaltzaingoak argitzen du merkatuetako dekomisoak egia izan daitezkeela. Izan ere, baimenik ez baldin

badute, salgaia harrapatzen zaie. Polizia arduradun guztiek azpimarratzen dute kasu zehatzak salatu behar direla, datuak eramanez ikerketa egin ahal izateko.

e) Biraoak edo mehatxuak

Agenteek esaten dute ez direla biraoak eta mehatxuak erabiltzen. Zenbaitek dio zeozer entzun duela horri buruz, baina bere taldean inork ere ez duela horrela jokutzen. Agente batek onartzen du biraoak botatzen ikusi duela, baina indarra medio egindako atxiloketetan, enfrentamendua eta agresibitatea dagoenean. Beste ertzain batek aipatzen du daitekeena dela erantzun iraingarriak edo mehatxugarriak agertzea beste liskar-egoera batzuetan, probokazioari erantzunez. Era berean, esaten dute ez dela inolako biraorik edo mehatxurik euren jardueretako lekukoen aurka.

f) Barne desadostasunak. Agenteen identifikazioa

Ertzain batek desadostasunak izatea normalizat jotzen baldin badu ere, orokorrean, esaten dute badirela patruilaren barrenean elkarren arteko irizpideak nola jokatu jakiteko, eta inork gustatzen ez zaion ezer ikusiz gero, ez du jendaurrean esaten, gero baizik, pribatuan. Nabarmentzen dute desadostasunek ez dutela taldetik kanpora atera behar. Halaber esaten dute ez dela beharrezkoa barkazioa eskatzea. Gehienez ere, eskerrak ematea kolaborazioarengatik.

Euren burua identifika dezatela eskatu eta hartzen duten jarrerari buruz, oro har, esaten dute gutxik eskatzen dietela eta ez dutela trabarik jartzen. Dena dela, pare batek diote, nahitaez euren burua identifikatu behar baldin badute ere, obligazio hori erlatiboa dela: inguruabarrak ikusita, zenbakia ez dakioket edozeini eman.

F) Iritzi orokorra eta hobekuntzarako proposamenak

- Oro har, arduradun zuzenentzat ona da San Frantziskoko jarduera polizialaren balorazioa. Ertzaintzak dio onak izan direla "Operativo Cortes" delakoaren emaitzak, hasierako espektatibak gaindituz. Kalendarerako da giroaren hobekuntza nabarmena. Udaltzaingoak, bere aldetik, bere lanaren garrantzia azpimarratzen du, euren bitartekoak mugatuta egon arren.

Bestaldetik, bi polizia taldeak bat datoz aipatzerakoan gizarteak, oro har, ez duela euren lana aintzat hartzen. Ertzaintzako arduradunek diote prentsan haien jardueren aurkako keak baizik ez direla agertzen eta sekulan ez direla azaltzen auzolagunen eskaerak. Are gehiago, susmotan ere dira ez ote diren nola halako interesak Ertzaintzari ospea kentzeko. Udaltzaingoak antzera ere uste du maiz San Frantziskoko arazoan erabilpen politikoa egiten dela, eta, horrek gizarte alarma handitzeko baizik ez du balio.

Nolanahi ere, azpimarratzen dute San Frantziskoko arazo nagusia ez dela poliziala, ezta seguritate mailakoa ere; larriena gizarte, osasun eta hirigintza alorreko hondatzea da.

- Bi polizia taldeetako arduradunekin izandako bileretan aztergai izan zen ea datu batzuk dauden edo datu batzuk erabil daitezkeen, **eskuhartzearen eraginkortasuna neurtzeko adierazle** gisa: atzemandako droga kopuruak, identifikazio-atxiloketak-kondenak...

Horrela, konparazio batera, atzemandako droga kopuruak neurketabide gisa erabiltzeko aukera mahaigaineratuta, Udaltzaingoak dio kopuruak adierazgarriak ez izan arren, garrantzizkoena dela trafikoa demostratzea sareak desegin ahal izateko. Ertzaintzari

dagokionez, bada datu mota horiei buruzko ustiaketarik. Baina batzuek eta besteek euren lana bereizten dute (prebentiboagoa, hiritar seguritatea) droga trafikoa kontrako borrokako unitate bereziei dagokienetik.

Ez Udaltzaingoak, ez Ertzaintzak, ez dute identifikazio kopuruaren eta atxiloketa kopuruaren artean dagoen ratioa aztertzen. Ez dakite ere zein den atxiloketen eta zigoren arteko proportzioa. Ez dute segimendu jarraiturik egiten. Beraz, ez dute daturik. Gai honi buruz, udaltzaingoaren arduradunek euren lana prebentibotzat jotzen dute: euren xedea da “kalea garbirik edukitzea” eta adierazleak bi dira: gizarte iritzia eta buruzagitzarena. Ertzaintzak ere antzera jokatzen du eta, haien iritziz, operatiboaren emaitza oso ona izan da. Diotenez, 1997ko uztailean abian jarri zenean, kalean oso agerikoa zen gauza lapurtuen eta drogaren trafikoa. Orain, hori aldatu da, kanpotik ikusita, behintzat. Lehenago somatzen zen inor zigorrik jaso gabe aritzen zirela. Dagoeneko, ez da halakorik somatzen, eta, horren ondorioz, alarma baretu egin da. Iduri du droga banaketa beste zonalde eta herri batzuetara lekuz aldatzen ari dela.

Iritzi horiek bere egiten dituzte poliziek. Horrela, elkarrizketatutako polizia guztiak bat datoz esaterakoan euren lana nagusiki aurrea hartzeko lana dela. Halaber, guztiek diote helburu nagusia dela gizarte alarma baretzea. Alarma hori sortu zen kaleko drogen trafikoa oso modu ikusgarrian egiten ari zelako. Uste dute orain auzoko jendea pozikago dagoela, jakin baitakite polizia bertan dagoela, azpian dagoen egoera arazotsua konpondu ez bada ere. Droga kontsumitzaileak oraindik ere auzora joaten ari direla, eta horrek jabetzaren aurkako delituak sortzen ditu, maiz, auzoaren inguruan egiten direnak. Halaber, uste dute gora egin duela Sahara azpiko Afrikatik etorritako trafikari kopuruak eta Afrikako etorkin asko dagoela legez kontrako negozio horrekin nahasturik. Era berean, drogaren banaketa beste zonalde batzuetara hasi da barreiatzen.

Zenbait agentek jakin badakite ez dela droga kopuru nabarmen nabarmenik atzematen ari eta euren jardueraren bitartez ez dela trafikoa murrizten ari. Zenbaiti gogoia hoztu zaie emaitzarik ez dagoelako, eta, batez ere, ohartzen dira operazioaren bilakaerak zer ikustekorik gutxi izan duela hasieran auzoko arazoetan oso-osoki eskuhartzeko esaten zenarekin, beste zerbitzu zein erakunde batzuek ere parte hartuz.

- **Arazoak** nabarmentzerakoan, hona hemen azpimarragarrienak:

1. Udaltzaingoaren iritziz, auzoan ez da behar hainbateko kontrolrik, ez asistentzia sanitariorik, eta, horrek, besteak beste, arriskua ere badakarkie udaltzainei beraiei (IHESa kutsatzeko arriskua, hepatitis, dermatosia, e.a.).
2. Ertzaintzaren iritziz gutxi dira poliziaren baliabideak. San Frantziskon destinua duten ertzainek, gainera, oso presionaturik eta kritikaturik ikusten dute euren burua. Horregatik, hein batean, behintzat, ez dabilta oso gogoz. Horri hatsa ematen dio gainera, batetik, auzoan somatzen den egoera larriak, eta, bestetik, epe laburrean, emaitzak edo aldaketa nabarmenak lortzea ezinezkoa dela ikusteak.
3. Udaltzaingoak ikusten du badela hala-nolako deskoordinaketa Ertzaintzarekin. Azaltzen dute koordinazio ezak arazo larriak sortu dituela 088 zerbitzuan.
4. Agente batzuek diote zaila gertatzen dela euren lanaren ondorioz gustora geratzeko moduko emaitzak izatea bide judizialean, eta, era berean, diote komeni dela epailetzako erabakien informazio handiagoa izatea eta segimendua egitea.

- Hona hemen **proposamenak**:

1. Eskatzen da Administrazioak kasu egitea eta erantzunak ematea Udaltzaingoak hainbat gairi buruz (hirigintza, sanitata, e.a.) prestatzen dituen txostenei.

2. Azpimarratzen dute beharrezkoa dela Administrazioak eskuhartzea hainbat esparrutatik (haurrak, etxebizitzak, negozioen kontrola, baita zenbait diru mugimenduri buruzko kontrol fiskala ere...). Haien ikuspuntutik, etxebizitzaren arazoa funtsezkoa da, arrisku arkitektoniko eta osasun arrisku handiak baitira. Beharrezkotzat jotzen dute irekiera baimenen emakiden gaineko kontrola areagotzea, baita legez kontrako negozioen (pentsioena, bereziki) ikuskatzearen areagotzea ere.
3. Polizia mailan Ertzaintzak nabarmentzen du beharrezkoa dela operatiboan giza baliabide gehiago sartzea, eta, batez ere, giza baliabideak erabiltzea droga trafikoaren gaineko mailen, antolamenduen mugimenduen, eta proben gaineko lorpenen ikerketa unitateetan.
4. Beharrezkotzat eta positibotzat jotzen dute epaibideen jarduerari buruzko informazio handiagoa (epaiei buruzkoa, irizpide judizialei buruzkoa...).
5. Nabarmentzen dute beharrezkoa dela koordinaketa eta eraginkortasuna hobetzea atzeritartasunaren kontrolean.
6. Elkarrizketatutako agente gehienek proposamenetan azpimarratzen da polizia lanaren beraren eraginkortasuna handitu behar dela: bitarteko pertsonal gehiago, barneko informazio gehiago, ikerketa lan handiagoa, -batez ere, maila handiagoko droga trafikoari dagokiona-, koordinaketa hobea beste polizia batzuekin, epaitegien sostengua eta epai auzien segimendua... Agente batzuek ontzat joko lukete elkarteekiko harreman handiagoak izatea. Halaber, azaltzen da euren osasuna hobe babestu beharra (kutsadura arriskuak...).

* * *

G) Polizia miaketetatik eta estatistiketatik bereizitako datu nabarmenak

Adierazi denez, egindako lanean gertaeren ikuspuntu kualitatiboaren aldeko apostua egin zen, argi eta garbi. Ez ordea, kuantitatiboaren aldekoa. Hala eta guztiz ere, eskueran zeuden datu batzuk bildu eta aztertu ziren (polizia talde bakoitzak estatistikoki antolatutako zituenak), edota gehiegizko lan gehigarririk gabe erdietsi ahal izan direnak. Funtsean, bi datu mota dira, 1997. Urteari dagozkionak:

- a) kalean egindako identifikazioak: identifikazio kopurua eta kanpotarrak atxilotzeko zergatiak atxiloteta guztien artean, jatorriz nongoak diren...;
- b) Garellanoko (Udaltzaingoa) eta Deustuko (Ertzaintza) komisaldegietako atxilotuen datuak: atxiloteta kopurua, atxilotzeko zergatiak, egonaldiaren iraupena komisaldegian, atxilotuen egoera komisaldegiko egonaldia bukatzerakoan...

Arartekoaren txostenean delako datu horiek bereizten dira. Hemen adibide gisa elementu batzuk edo joera nagusiak nabarmenduko dira, eta ez beste deus.

- Inguruan egindako identifikazioei dagokienez, esanguratsuak gerta daitezke, adibide gisa, **Udaltzaingoen datuek diotena, eta datuak 1997koak dira**: urte horretan San Frantzisko-Bilbo Zaharra zonaldean, Udaltzaingoa 3.424 identifikazio egin zituen. Horietatik, 733 egin ziren jatorri atzeritarreko pertsonen artean.

Pertsonen identifikazioen motiboei dagokienez, hona hemen polizien datuen araberrako zerrrenda:

	Atzerritarrak	Identifikazioak guztira	% atzerritarrak/guztira
- hiritarren seguritatea	613	2.149	%28,5
- drogak eduki edo kontsumitzeagatik	74	906	%8,2
- pertsonen aurkako delituak	16	46	%34,8
- jabetzaren aurkako delituak	30	321	%9,3
- sexu askatasunaren aurkakoak	—	1	—
- jardueren titularitateen identifikazioa	—	1	—
GUZTIRA	733	3.424	%22,6

Eta **atzerriko pertsona identifikatuen sorteriaren arabera 733 identifikazioen banaketari** dagokionez, 42 herrialde ezberdinetaoak baino gehiagokoak dira eta 313 identifikazio Ginea Bissauko hiritarrei dagozkie, identifikazio guztien %43. Horra beraz, nolakoa den errealitatea.

- Datuon azterketatik (eta kontuan hartu behar da datu horiek ez dutela beti inguru bereizten, ezta irizpide homogeenak erabiltzen ere alderaketa egiteko), hurbileko **estimazioa** egin daiteke batetik, 1997an, San Frantzisko aldean izan diren jatorri atzerritarreko pertsonen **identifikazioen eta atxiloketen kopuruari buruz**, eta, bestetik, kopuru horren proportzioari buruz zonaldean egindako identifikazio eta atxiloketa guztiak kontutan hartuta.
 - 1997garren urtean, 3.000 eta 6.000 identifikazio **egin dira** jatorri atzerritarreko pertsonen artean, eta, guztira, San Frantzisko aldean 13.000.
 - 1.100en bat atxiloketa atzerriko pertsonen artean, 1997garren urtean, San Frantzisko aldean, eta, inguru horretan atxiloketak guztira 2.100 inguru.
- Halaber, nabarmendu daitezke polizia taldeek adierazitako **arrazoi** nagusiak zonaldean jatorri atzerritarreko pertsonen identifikazioari edota atxiloketari heltzeko arrazoi gisa:
 - “Hiritarren seguritatea” identifikazioei dagokienez, (Udaltzaingoak jatorri atzerritarreko pertsonen artean, guztira, egindako identifikazioen %84) kontzeptu horren edukia zehazten ez badute ere.
 - “Osasun publikoaren aurkako delitua” (droga trafikoa), edo “errekisitoria” (errekimazio judizialak) atxiloketei dagokienez, (Ertzaintzaren datuen arabera, guztira zonaldean egindako atxiloketen %56). Halaber, oso handia da ordena publikoaren kontrako delituengatik zonaldean atxilotutako pertsonen portzentaia.
- Bi polizien jardueretan elkarren arteko elementuak azpimarra daitezke, baina baita bat ez datozen alderdiak ere. Esate baterako:
 - Polizia talde bakoitzak zonaldean 1997an zehar egindako atxiloketa kopuruaren bilakaera ezberdina: gero eta gutxiago Udaltzaingoari doakionez, eta gero eta gehiago Ertzaintzari dagokionean.
 - Erabilitako irizpide ezberdinak azken egoerak islatzerakoan. Konparazio batera, Ertzaintzaren liburuetan ez da idatziz jasotzen epaileen erabakia pertsonaren espetxeratzeari edo askatasunari buruzkoa izan ote den; zalantzarik gabekoa ere ez da “komisaldegian aske utzitakoa” dioen esaldia.
- Zonaldean **konfiskatutako** gauzei eta **substantziei** dagokienez (kokaina, heroína, gauzaki arriskutsuak...) erabateko banaketa desberdina eta kontrajarria ikus daiteke pertsonaren ezaugarrien arabera, zabaltzen den gizarte irudiarekiko.

Nolanahi ere, komenigarria da gogoratzea lana egiteko hartu den metodoaren arabera, datuei edo estimazioei balio auxiliarra, osagarrikoa, baizik ez zaiela ematen, txosten honetan landutako alderdi kualitatiboak indartzeko ala ñabartzeko balio dezaketen neurrian. Horregatik, laburpen honetan ez da horien azpimarra egiten.

1.6.5. ARARTEKOAREN TXOSTENAREN ONDORIOAK

Hemen laburbiltzen ari den txostenaren azken kapituluan Arartekoaren balorazioa egin nahi da aztertutako egoerari buruz, eta horren arabera, egoera hori hobetzeko hainbat neurri proposatu. Horretarako, ondoko eskema honi jarraitzen zaio:

- A) Salaturiko jarduera polizialen eta legezko erregulazioaren arteko aldea
- B) Iritzi orokorra
- C) Azaldutako egoera ahalbideratzen duten zergatien azterketa
- D) Arartekoaren gomendioak

A) Salaturiko jarduera polizialen eta legezko erregulazioaren arteko aldea

Segurtasun publikoa babesteko, poliziak bere esku dituen eginkizunek, gehienetan eta ia ezinbestean, gizakion funtsezko askatasunari eta eskubideei kalte eragiten diete. Bestetik, delituei aurrea hartzeko eta horiek ikertzeko lanak sistema penalaren barneko eginkizunak dira zentzu zabalean, baina, zigor-boterea arautzen duten normek ez bezala, jarduera polizialaren legezko antolamenduak diskrezionalitate handia ematen die jarduten duten pertsonari.

Bi balorazio horiek -batetik, poliziaren jarduerak norbanakoen eskubideetan duen eragin saihestezina, eta bestetik, jarduera horren mugak aldeztetik zehaztea ezinezkoa izatea- ezin dira bazter utzi poliziaren zenbait jarduketan zuzentasuna ala zuzentasunik eza aztertzerakoan. Beste muturrean, printzipio abstraktoak inguruabarrei eta gertakari aldakorrei egokitzea ezinbestekoa bada ere, horrek ezin die biderik eman polizia funtzionarioei legezketasun hertsienaren menpe jarduteko duten obligazioa saihesteko. Legezko erregulazioarekin alderatzeko erabili den ikuspuntu horren ondotik, kexak sortarazi dituzten jarduera polizialak aztertu ditu Arartekoaren txostenak. Horretarako, eskema "kronologikoa" erabiltzen da, gertakariak azaltzerakoan erabilitako modu beretsuan, baina azterketak arazoak ekarri dituzten jarduerak baino ez ditu jasotzen, jarduera horien legezketasuna ala legezketasunik eza bildutako inguruabarren menpe egon daitekeelako (ebasketek, mehatxuek, irainek, e.a. eskubidea urratzen dute beti, eta hortaz, ezin da inolaz ere eginkizun polizialen jarduera aitzakitza hartu horiek zuzitzeko). Horrela, legezko arautzearen ikuspegitik ondoko elementuok aztertzen dira:

- a) Jarduera polizialaren hasiera: lehenengo hurbilketa (berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, agenteek eman beharreko informazioa, euren izaera profesionalaren akreditazioa, identifikazioa hiritarrek eskatuta...).
- b) Kontrolak eta miaketak (zirkulatzeko askatasun murrizketak, kaleko kontrol eta miaketa pertsonalen gaineko irizpideak, indarra noiz erabili...)
- c) Identifikazioak
- d) Polizia atxiloteta (atxiloteta egiteari ekiteko motiboak, atxiloteta epea, atxilotutakoari informazioa ematea, deklarazioari uko egiteko eskubidea, abokatuaren laguntza, bisitak hartzeko eskubidea, oinarrizko beharren asetzea, miaketak, biluztuarazteak...)

Polizia jokabideak legezkotasunarekin bat ote datozen ikusteko atal honetatik, ondorio gisa esan beharra dago bildutako lekukotasunetan salatutako zenbait jokabide, argi eta garbi, legezko xedapenen aurkakoak direla, eta inola ere ez zezaketen babesik hartu polizia betebeharren buruketan. Beste zenbaitetan, arazoa arauen aplikazioak sortzen du, polizia taldeek, maiz, aukera egiten baitute norberaren eskubideen murrizketa handiagoa dakarren lege interpretazioaren alde. Nolanahi ere, Arartekoak defenditutako legearen interpretaziorako irizpideak bilduta agertuko dira erakunde honek egindako gomendioetan, zortzigarren zenbakia daraman gomendioan, bereziki. Beraz, gomendio horiei lotuko gaitzaizkie.

B) Balorazio orokorra

Egindako lanaren egiaztapenik -eta aldi berean ondoriorik- nabarmenena hauxe da: oso irakurketa ezberdinak egiten dira egoera honi buruz, bai eta elkarri kontrajarriak daudenak ere. Kolektibo bakoitzak auzoan gertatzen diren ekintzez eta egoerez eskaintzen dituzten ikuspegiak ia ez dute elkarren artean zerikusirik. Zehazki, txosten honen gai nagusiari dagokionean, hots, jatorri atzerritarreko pertsonen zuzendutako jarduera polizialei dagokienez, esan daiteke ez bakarrik errealitatearen bi ikuspen kontrajarri daudela, baizik eta bi errealitate ezberdin daudela, iritzia ematen duen kolektiboa zein den, hark berea ematen baitu: 1) batetik, jarduera polizialek eragindako jatorri atzerritarreko pertsonak; eta, 2) bestetik, zonaldean ari diren polizia agenteak edota euren arduradunak.

Jatorri atzerritarreko pertsona batzuek eskaintako ekintzen kontraerari dagokionez, esaten zaigu jarduera polizialak pertsona horien eskubideak urratzen dituela, eta, legeak debekatutako jokabideetara jotzen dutela. Gainera, delako polizia jokabideek ondorio larriak sortzen dituzte eragindako pertsonengan (lesio fisikoak, galera ekonomikoak, sufrimendua eta autoestimua galera...) eta, itxura denez, jokabide horien arduradunen artean, hots, agenteen artean, ez da inolako kosterik.

Bigarren kasuan, polizia agentek berek eta haien hurbileneko arduradunek eskaintako ikuspenaren arabera, esaten zaigu polizia jarduerak aintzat hartzen dituela pertsonen eskubideak, ez da diskriminagarria jatorri atzerritarreko pertsonen kolektiboari dagokionez, eta, nolanahi ere, zonaldeko arazoek (ez legezko drogen trafikoa, bereziki) izugarri baldintzatutakoa.

Poliziaren ikuspegi hori ia ez da deus ere aldatzen bildutako lekukotasunek ekintzez eskaintzen duten kontraeraren aurrean. Lekukotasun horiek entzundakoan, gehienetan lehendabiziko erantzuna izaten da salatutako ekintzen larritasuna aitzat hartzea, baina, aldi berean, ukatzen dute halakorik gertatzea. Maiz aski, gainera, ukatzen da halako ekintzak ere benetan gertatu ahal izatea; hau da, ukatzen da halakorik gertatu izana eta bazter uzten dute halakorik gertatu ahal izatea.

Bakar-bakarrik, jokabide zehatz bati buruzko lekukotasunen pilaketak hausten du halakorik onartzeko hasieran egiten duten errefusa. Eta halako posibilitatea onartzen denean, azalpenak era honetakoak izaten dira:

- gauza isolaturen bat izan daiteke, sekulan ez orokorrean gertatzen dena;
- behar bada, jokabide horretara jo behar izan dute egoera kontrolatu ahal izateko eta ukituriko pertsona edo pertsonen erantzuna (erasakorra edo errespetu gutxikoa) neutralizatzeke;
- baliteke beste agente batzuek (beste gorputz batzuetakoek, beste patruila batzuetakoek) egin izana, baina ez berak, ezta hurbileneko lankideek berek ere...

Eta aukera onartuta, zer egin jokabide horiek direla-eta? Erantzunak ekintzen arabera izaten dira, oso ezberdina aipagai dugun kasu batetik bestera: ez zaie balio berbera ematen salatutako ekintza guztiei. Horrela, esate baterako, badira poliziaren kultura praktikoan onartuago dauden jokabideak (adibidez, indar fisikoa edo hitzezko indarkeria halako egoera zehatzetan), eta beste batzuk jotzen dituzte euren irudiaren beraren edo euren kode deontologikoaren aurkako atentatu larritzat (lapurreta, konparazio batera). Azken hauetan, erabatekoa izaten da halako suposizioen gaitzespen moralak, eta beharrezkotzat jotzen da halako jokabideetan dabilen pertsonaren aurka zuzenketa edo zigor neurriak hartzea. Nolanahi ere, ez da haien ohiko jokabidean sartzen lankidearen beraren kontrako salaketarik egitea -ekintza horien berri izanez gero-. Esan daiteke konfidantza dutela eragindako pertsonak berek salaketa aurkeztuko, edota arduradun polizialek eskuhartuko dutela.

Hala eragindako pertsonengandik berengandik, nola polizia iturrietatik bildutako informazio osoaren arabera, eta aurreko orrialdeetan labur jaso denaren arabera, erakunde honek uste osoa du, aztertutako hilabeteetan eta San Frantzisko aldean, jatorri atzeritarreko pertsonen gaineko jarduera polizialik izan dela, eta horiek:

- pertsona horien eskubideen urratze argia ekarri dutela;
- eragindako pertsonen osasunean eta duintasunean ondorio larriak izan dituztela;
- ekintzen eta bilatutako helburuen edota erdietsitako lorpenen artean begi-bistako aldea nabarmentzen dutela;
- legez ezarritako prozedimentuek ez dituztela zuzendu;
- eta berehalakoan zuzendu eta etorkizunean galerazi egin behar direla.

Ez daiteke erraz esan jokabide orokortuak ote diren, baina ez dira kontrolik gabeko agente batek egindako ekintzak ere, edo ez dira ekintza bakanak. Nolanahi ere, bada aztarnik aski esateko ohikoak direla edo zabalduxeak daudela, erakunde honen iritziz, legezketasunarekin eta giza eskubideen errespetuarekin ere bat ez datozen jokabideak. Halako jarduerak ukituriko pertsona frankok auzibideari heldu diote, edo, bestela, kexa aurkeztu dute erakunde honetan.

Arartekoaren eskuhartze ororen helburua ez da soilik aztertutako egoeraz iritzia ematea, edota dagokionean salaketa egitea, baizik eta, batez ere, egoera hobetzeko neurri egokiak proposatzea, gizon emakumeen eskubideak bermatzeko ikuspegitik begiratuta, beti ere. Egoerak zuzentzeak, maiz esan nahi du, sakonki aldatu behar direla egoera horiek ahalbideratzen dituzten sorburuak. Esan nahi baita, sustraiei heldu behar zaiela, eta, beraz, halako egoera horien zergatia azal dezaketen arrazoiei. Horregatik, egindako gomendioak agertu baino lehen, gure iritziz, egoera azal dezaketen sorburu batzuen berri emango dugu.

C) Deskribatutako egoera ahalbideratzen duten zioak

Erakunde honen iritziz, aztertutako egoeraren sorburuan dauden lau aferak handi nabarmendu daitezke:

1. Auzuneak duen hondatze egoera bera.
 2. Auzunean, jarduera polizialari dagokionez, ez dago ongi definitutako helburu zehatzik.
 3. Jarduera polizialen kontrolbideen eraginik eza.
 4. Kolektibo protagonisten arteko isolamendua edo elkarren arteko ezagutzarik edo lankidetzarik eza.
- Lehendabizi, **auzuneak duen hondatze egoera bera.**

Agerikoa da San Frantzisko aldean bereziki problematikoa egiten duten faktore sorta batzuk pilatzen direla. Denetariko faktoreak dira, elkarren artean zer ikustekoa dutenak: gizarte mailakoak, kulturalak, ekonomikoak, hirigintzari dagozkionak... Horretan, bederen, denak bat datoz, hein handi batean. Bakarrenetariko adostasuna da, gainera. Bestalde, ikuspuntu historikotik edo gertaeren bilakarei erreparatuta, ikusten da hirialdearen hondatzea ez geldiarazteaz gainera, zenbait alderditan, egoera txar hori areagotu ere egin dela azken urteotan.

Halaber, agerikoa da hondatze egoera hori ez daitekeela gainditu soil-soilik auzuneko gizarte agenteek, libreki, izan dezaketen jokabidean konfiantza izanik. Egoera hori gainditzeko nahitanahiezkoa da erakunde publikoen aldeko laguntza berezia (bereziki, Bilboko Udala, Bizkaiako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, eta beste esparru batzuetako erakundeetatik lor litezkeen baliabideak). Nahitaezkoa da botere publikoek zinez borrokatzea gizarte vulnerabilitatearen eta bazterketaren aurka, egoera hori bereziki desfaboratutako hirialde batean pilatzen ari baita, bete betean zenbait kolektibori dagokiena.

Alde horretatik, hirialdeko jarduera poliziala adabakia baizik ez da, zauriak ezkuta ditzakeen adabakia baizik ez, -edo beste erakunde publiko batzuen inplikaziorik edo eraginik eza ezkuta dezakeena-, baina ez dezake zauririk sendatu, ezta arazozen sustraiari heldu ere.

- Bigarrenez, deskribatutako egoeren sorburutzat hartu izan da, **auzunean, jarduera** polizialari dagokionez, ongi definitutako helburu zehatzik ez egotea.

Aurreko atalean azaldutakoari jarraikiz, uler daiteke hirialdeko jarduera poliziala zor zaiola gizarte eskaera bati, kalte handiagoak eragozteko: gaizkintza, inseguritatea, droga trafiko handia begi bistan... Baina, gainera, poliziek euren eskuhartzerako jasotzen dituzten gizarte eskaeren artean badira kontraesan nabarmenak. Kontraesan horiek gizartean ere gertatzen dira, etengabeko eztabaidagaia baitira, eta zeri eta hirialdeko oihartzun handiko aferei dagozkienak dira: droga trafikoaren kontrolari, atzerritarren kontrolari, legez kontrako drogen kontsumoaren kontrolari... Jarduera polizialak ezin dira erabat kontraesan horietatik kanpo gelditu, noski.

Arestian aipatu denez, beste eskuhartze publikoen sorta zabalago eta zorrotzago baten barrenean planteatu behar da hirialdeko jarduera poliziala. Hala ere, jarduera polizialari berari ere betebeharrak batzuk eskatu behar zaizkio: jardueraren helburuak eta irizpideak argitzea; helburu horien lorpen mailaren jendaurreko iritzi-emate sistematikoa; kidego eta agente polizialen arteko jardueren arteko koordinazioaren beharra; giza eta tresna baliagaien antolaketa eta aprobetxamendu zuzenagoa hiritarrei zor zaien zerbitzua emateko... Bazter utzirik arestian adierazitako kontraesanak, erakunde honek bildutako informazioak kolokan jartzen du hirialdeko jarduera polizialaren helburu bereziak argi izatea, edo, helburu horien ezagutza publikoa, hori beharrezkoa baita eskuhartzearen beraren kontrola egingo bada.

- Hirugarrenez, arestian aipatu da **jarduera polizialen kontrolbideen eraginik eza** dela ekintzen kausa.

Legeak oinarritzko bi kontrolbide aurreikusten ditu poliziaren edozein neurrigabekeria eragozteko: bide judiziala eta barne espedienteen bidea. Biotan kontrol jarduerak ekintzen berri izate hutsarengatik hasi behar baldin bada ere, gertatzen dena da salaketa formalak eskatzen dela ikerketei ekiteko eta, egokia baldin bada, zigorrei ekiteko. Kontrolbide hauen benetako eragina, bada, zenbait faktoreren menean dago: ekintzek eragindako pertsonen ekintzak salatu ahal izatea; ekintzak ezagutu daitezela; ikerketak

azkar eta inpartzialitate bermeeekin egin ahal izan daitezela; zigorrak aurrera eramanez daitezela...

Bildutako informazioaren arabera, esan beharra dago kasu gehienetarako eta kanpotar askorentzako kontrolbide horiek teorikoagoak direla errealak baino. Baieztape hori ondoko elementuetan datza:

- Ekintzek ukituriko jatorri atzerritarreko pertsona askok ekintzak salatzeko dituzten zailtasunak -zenbaitetan gaindiezinak (euren egoera irregularrarengatik, ondorioen beldur dira, dirurik eza edota hizkuntza gaitasunik eza, sostengurik eza, aurretik gertatutako esperientzia txarrek harengan sortutako mesfidantza...).
- Ekintzen berri duten beste pertsona batzuek ekintzak salatzeko duten zailtasuna. Esate baterako, auzoan bizi diren pertsonak eta ekintzen lekuko izan daitezkeenak. Izan ere, horrek hiritarrekiko konpromezua dakar, eta jende gutxi dago halako konpromezua bizkar gainean hartzeko prest. Eta agenteek bere lankidea salatea ez da sartzeko, arestian aipatuenez, euren ohiko jokabidearen barruan.
- Pertsona hauek era horretako salaketa aurrera eramateko gainditu behar dituzten zailtasunak: abokatua edukitzea; beharrezkoak diren datuak, probak, informazioak eta lekukoak eskueran izatea; galdeketa bati erantzutea hizkuntza behar bezala menderatu gabe; denbora eta dirua izatea...

Gertatzen dena da, askotan, ez dela jarduera polizialaren salaketarik ezartzen, jarduera hori eskubideen aurkakotzat jotzen bada ere. Horrek ikerketa egin lezaketen pertsonen (epailei eta arduradun polizialei) ikerketa egitea eta dagozkien erabakiak hartzea eragozten die. Eta salaketa aurkezten denean, ustegabe txarrak gerta dakizkioke salaketa egileari: poliziek haren aurkako salaketa egin dezakete, lekukoek testigantzarik eman nahi ez izatea, poliziak ekintzez daukan bertsioari balio handiagoa ematea edo egiaztat jotzea, abokatuaren faktura, sobreseimenduak, haren aurkako epaiak, errepresalia mehatxuak... Erakunde honi epaien segimendua egitea edo iritzia ematea ez badagokio ere (atxiloketa asko izaten dira agenteei gogor egitean sortzen diren delitu eta faltengatik, prozedimenduen artxiboa, “kontrasaleketak”, agente polizialei ezarritako kondenarik eza...), informazio askoren arabera, interesgarria litzateke, esate baterako, epaileen ebazpenetan oinarritutako ikerketa enpirikoa egitea.

Aztertutakoa bezalako inguruabarretan, legean aurreikusitako kontrolbideen zinezko eraginik ezak ahalbideratzen du legezketasunaren kontrako neurrigabekeria polizial edo jokabidea zigorrik gabe gelditzea, horrek bere baitan dakartzan ondorio kaltegarriekin (biktimarentzako ez da erreparaziorik, jokabide irregularrak indartzen dira...).

- Eta laugarrenez, era berean isolamendua aipatu da, hau da, **kolektibo** protagonisten arteko ezagutzarik eza eta elkarlan urria.

Askotan gertatzen da topagunerik ez izatea, edo behar adina ez izatea, egoerarekin zerikusirik ez duen kolektibo bakoitzaren barrenean eta kolektiboaren artean. Hau da:

- jatorri atzerritarreko pertsonen kolektiboaren beraren barrenean (esate baterako, batzuen eta besteen sorlekuaren arabera);
- hirialdean ezarritako elkarten artean (helburuen, jarreraren eta lehenetsuen arabera);
- hirialdean aritzen diren polizien beren artean (esate baterako, zer kidego edo zerbitzutakoak diren);
- eta sektoreen artean.

Horrek azal dezake, hein batean bada ere, ikuspuntutan ia elkarren arteko adostasunik ez izatea edo kontrakoak diren ikuspenak egotea. Horiek guztiak txostenean islatzen

dira. Bakar-bakarrik elkarren arteko ezagutza eta lankidetzak lagungarri gertatuko dira aurreiritzi eta estereotipoak gainditzeko, baliabide erabilgarriak izateko, eta helburuetan bat egiteko (elkarren arteko helburuak topatzeko), edota jarduteko esparru osagarriak topatzeko.

Uste dugu lau faktore horiek, hein handi batean, hirialdearen egoera azal dezaketela, eta, era berean, Arartekoak egiten dituen gomendioen argigarri izan daitezke.

D) ARARTEKOAREN GOMENDIOAK

Arartekoaren hasierako txostenean, (1998ko marxtokoa) azkenean, hamaika gomendio biltzen dira: bi gomendio orokorrekoak, argi eta garbi esparru polizialaz haratago doazenak, baina esparru horren afera baldintzagarriei dagozkienak eta beredatzi dira, berriz, polizia jarduerari bete betean dagozkionak.

Hemen aipatu baizik ez dira egiten, ondoko orrialdeetan (7. atala) sakonago eta zehatzago emango baitira.

1. Hirialdea aintzat hartu eta erakundeek bertan lehentasunez aritu behar dute.
2. Topaguneak sortu edo sustatu behar dira gizartearen parte hartzea eta integrazioa errazteko.
3. Behar bezalako adierazleak eduki behar dira eskuhartze polizialen baliogarritasuna eta eraginkortasuna neurtu ahal izateko.
4. Irizpide egokiak erabili behar dira hirialdean maiz askotan aritzen diren polizia agenteen hautaketan.
5. Agenteei informazioa eman behar zaie euren lanari dagozkion arazo jakinei buruz.
6. Hirialdean konprometiturik dauden gizarte agenteen parte hartzea eta elkarlana sustatu behar da.
7. Jarduera polizialen benetako kontrolbideak indartu behar dira.
8. Pertsonen eskubideei kalte egiten dieten edozein jokabide polizial eragotzi behar da, eta, horretarako, prebentziobideak eratu behar dira gerta litezkeen neurriga-bekerien aurrean.
9. Poliziaren koordinaketa hobetzea.
10. Polizia jardueri buruzko datuen erabilpenean baliatutako zenbait irizpide aldatu behar dira.
11. Arreta berezia izan behar da argitara ematen diren datu polizialei buruz, kontutan izanik auzoaren irudi sozialaz edota etorkinaz daukaten eragina.

1.6.6. POLIZIA ARDURADUNEKIKO ELKARLAN PROZESUA

Honaino beraz, 88 orrialdetako txostenaren laburpena, Arartekoak 1998ko martxoaren 16an Barne Sailburuari emandakoa, eta martxoaren 24an Bilboko Udaleko Alkateari ere emandakoa. Hala Sailburuak berak eta Ertzaintzako arduradunek nola udal arduradunek agertu zuten komenigarria izango zela delako txostenaren edukiak eta proposamenak Arartekoko langileekin elkar hartuta aztertzea, modu horretan baloratzeko txostenaren egokitzapena, bideragarritasuna, aplikazio arazoak, etabar.

1998ko martxotik abendura arte zortzi **lan bilera** eduki dira Ertzaintzaren arduradun nagusiekin eta sei lan bilera, berriz, Bilboko Udaltzaingoko arduradunekin. Aipatu bilera horietako batzuetan, txostenaren edukiak eta gomendioak ikusteaz gainera, egite zehatz

batzuk ere aztertu ahal izan dira (formazko kexa batetik edo informazio berri batetik eratorriak) eta, era berean, erregistrobide eta datuak egiaztatu dira (erregistro informatikoak, atxiloketa-liburuak, polizia atestatuak, etabar.

Horrekin batera, denboraldi horretan, inguruari eta kanpotarrei dagozkien zenbait kexen bideratzeak egiten segitu da, eta harreman gehiago ere izan dira sostengu elkarte batzuetako ordezkariekin. Une oro, Arartekoak mantendu du bere ustez lan-ildorik eta informazio nahiz diskrezio mailarik egokiena, desiatutako helburua lortzeko: polizia jarduera inguruan hobetzea eta kanpotarren eskubideak errespetatzeko bermeak indartzea.

Prozesuan barrena **idazkiak eta agiriak** sortu eta elkartrukatu dira: hamairu Barne Sailaren eta Arartekoaren artean eta lau Bilboko Udalarekin. Horieta batzuk bitartekaritzako idazki gisa jo daitezke, eginak izan baitira lan bileretan aurrera egin ahal izateko. Beste batzuek, ordea, izaera orokorragoa dute eta euren xedea da alderdi bakoitzaren jarrera finkatzea txostenaren funtsezko edukie dagokienez. Alde horretatik, guztien artean, ondoko hauek dira aipagarrienak:

- Bilboko San Frantzisko aldean kanpotarrei egindako polizia jardueren gaineko Arartekoaren Txostena. (1998ko martxoa) (A-1 Ag.)
- Arartekoaren Txostenean bildutako gomendioen azterketa (Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko agiria, 1998ko maiatzaren 29koa) (Ag. DI-2)
- Arartekoak 1998ko maiatzaren 29ko Barne Saileko agiriari egindako oharrak: *Arartekoaren txostenean bildutako gomendioen azterketa* (1998-06-30) (Ag. A-4)
- Arartekoak 1998ko maiatzaren 29ko Barne Saileko agiriari egindako oharrak: *Arartekoaren txostenean bildutako gomendioen azterketa*” izenburuko Arartekoaren idazkiari egindako oharrak (Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko agiria, 1998ko abuztuaren 20koa) (Ag. DI-4)
- Arartekoak Barne Saileko “Oharrei” emandako erantzuna (1998ko abuztuaren 20ko idazkia) (Ag. A-5)
- Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari zuzendutako gomendioak kanpotarrei egindako polizia jardueren gainean, San Frantzisko aldean. (1998-12-24) (Ag. A-11)
- Arartekoak Bilboko Udalarri zuzendutako gomendioak kanpotarrei egindako polizia jardueren gainean, San Frantzisko aldean. (1998-12-24) (Ag. A-12)

Lan prozesua bukatu ondoren (elkarrekin egindako azken bilera azaroaren 27an burutu zen eta azken agiria abenduaren 15ean jaso zen), eta Arartekoaren behin betiko gomendioak aurkeztu baino lehen, komeni da hemen, gure aldetik, hilabeteotan **jarraitutako prozesuaren emaitzaren balorazio** labur bat egitea.

1) Prozesuak balio izan du, oroz gain, hasierako **gomendio bakoitza berrikusteko** eta hauxe aztertzeko:

- haien beharra;
- haien bideragarritasuna praktikan;
- haien zehaztapen aukerak...

Berrikusketa honek balio izan du aldaketa esanguratsuak sartzeko hasierako gomendioetan. Horrela:

- gomendioetatik, Ertzaintzari zegozkion bi kendu dira eta Udaltzaingoari zegozkion bat, ikusi baita ez zirela beharrezkoak, prozesuan eskuratutako osagarritzko informazioaren arabera;

- gomendio asko zehaztu dira, eta horrek ondoko segimendua erraztu behar du, ikusteko benetan betetzen ari ote diren;
- gomendio batzuk jasotzailearen arabera bereizi egin dira (Bilboko Udala den ala Barne Saila den), hemen berriro bereizi gabe aurkeztu badira ere.

2) Baina, gomendio bakoitza aztertzeko eta zehazteko balio izateaz gain, prozesua ere baliagarria gertatu da modu zuzenean txostenaren beste zati batzuekiko **desadostasunak eta kritikak** jasotzeko eta horiei buruz eztabaidatzeko. Ildo honetan, Barne Saileko ordezkariak, bereziki, eztabaidan jarritako lau alderdiak, hauek izan dira, gure iritziz:

- Txostenaren lehendabiziko zatian, polizia jarduerengatik kexatzen diren pertsonengandik bildutako testigantzei ematen zaien balioa.
- Txostenean erabili den egiaztatze metodologia (ez kasuz kasu, baizik eta jarduera jarraibideei buruzkoa).
- Arartekoak agertzen duen uste osoa edo iritzi orokorra eta honek errealitatea islatzen duen maila.
- Arartekoak, arauen interpretazio juridikoari buruz erabiltzen dituen irizpide batzuk, eta, horiez gainean beste iritzi bat agertzen dute.

Aipatutako agiri horietatik askoren mamia lau alderdi horien eztabaidan oinarritzen da. Bostgarren eztabaidagai bat ere erantsi beharko litzateke, hots, txostenaren edukiari berari ez dagokiona, baizik eta txostenaren erabilpen alderdikoiari dagokiona, argitara eman ondoren.

Badirudi normala dela desadostasun batzuk izatea. Horietako batzuk erraz azal daitezke erakunde bakoitzak duen ikuspegiari erreparatuta, edo jardueraren eraginkortasuna eta eskubideen bermea egituratzeko modu ezberdinari erreparatuta.

Arartekoari bereziki kezkarria iduritzen zaio adierazitako hirugarren arrazoia: Arartekoak txostenean agertzen duen ondorioa edo iritzia, hein handiagoan edo txikiagoan, inguru horretako polizia jardueraren errealitatearen isla ote den.

Komeni da hemen gogoratzea Arartekoaren txostenak ez duela, oro har, polizia jardueren balorazioa egin nahi eta ez du halakorik egiten –ezta inguru horretan kanpotarrei egindako polizia jarduerena ere-, baizik eta San Frantziskon gertatutako jarduera *batzuen*, zeintzuek kanpotar batzuen duintasunaren eta eskubideen urraketa ekarri baitute, bildutako informazioaren arabera. Eta gomendioen xedea da halako jarduerak etorkizunean galeraztea.

Azkenik, komeni da ohar batzuk egitea **gomendioen aplikazio esparruari** buruz. Bileran eta agiri batzuetan polizia arduradunek agertu dute, antolaketaren ikuspuntutik, ez dela egokia irizpide batzuk hartzea inguru edo kolektibo bakar batentzat; edo, bestela esanik, komeni da antolaketako osagai guztiek (kasu honetan, Ertzaintzak edo Udaltzaingoak) jarduera irizpide edo tresna bitarteko berberak erabiltzea. Arartekoa ez da afera honetan sartuko. Bere lana inguru bati dagokio eta kolektibo zehatz bati eta, ondorioz, gomendioak egin dira aztertutako egoera hobetzeko. Baina, agerikoa denez, gomendioak polizia jarduera multzo osoan aplikatuta, jarduera horrek hobera egingo balu, ez luke deus esatekorik, aitzitik bultzatu eta txalotu egingo luke.

1.6.7. **ARARTEKOAK BILBOKO UDALARI ETA EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILARI ZUZENDUTAKO GOMENDIOAK**

1998ko martxoa eta abendua bitartean aurrera eramandako lan prozesuaren ondotik, **Arartekoak erabateko egin zituen, Bilboko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari abenduaren 24an zuzendutako ondoko gomendio hauek, eta bi erakundeek eskatu zuten erantzuna eman zezatela: azal zezatela bat zetozen ala ez gomendio bakoitzarekin, eta bere kasuan, zein neurri hartu dituzten edo hartzera doazen gomendioen aplikazio zuzenari begira.** Gomendio gehienak bi erakundeentzako zuzendu dira. Batzuk, ordea, bati ala besteari zuzenduta daude. Hemen, laburpena denez, eta beharrezkoak ez diren errepikazioak galerazteko, bereizi gabe jasotzen dira.

Adierazi den moduan, hala aurretiazko txostena nola egindako lan prozesua zentratu dira polizia jardueren problematikan San Frantzisko aldean, eta ez arazo horiei lotutako afera batzuetan. Hala ere, Arartekoak izaera nagusiko bi gomendio egin zituen, argi eta garbi esparru polizia-laz haratago doazenak, baina esparru horren afera baldintzagarriei dagozkienak, eta jarraian hasierako hitzekin berberekin jasotzen direnak.

A) Izaera orokorreko gomendioak

1. Inguruaz jabetu eta lehenetsunez erakundeetatik bertan esku hartu.

Inguruko hirigintzaren aldeko hondatzea eta gizarte egoera bertan dauden arazo askoren oinarrian daude. Agerikoa da polizia jarduerak ez duela balio eta ez dezakela balio egoera horiek errotik aldatzeko. Horretarako beharrezkoa da erakundeek inguruan esku hartzea. Eskuhartze horrek izan behar du:

- planifikatua, etorkizuna eta eman beharreko pausuak argituko dituena.
- inguruan erantzunkizuna duten erakundeen artean koordinatua (Udala, Eusko Jaurlaritzako sailak...);
- auzoko gizarte-eragileen partehartze aktiboa bermatuko duena;
- behar adina bitarteko erabiliko dituena, planteamendu konpentsatorio baten arabera.

Etorkizunaren beharrezko planifikazioak, ordea, ez du esan nahi berehalakotasunez ekin behar ez zaionik premiazko aferetan: auzoko pertsona asko ostatu hartzen duten pentsioen eta aretoen osasun eta segurtasun baldintzen kontrola, esate baterako. "San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharra birgaitzeko Mahaia" bezalako ekimenen balorazioa egin behar da ikuspegi horretatik begiratuta eta ikuspegi horretarako balio duten neurrian.

2. Topaguneak sortu edo sustatu behar dira, gizarte-partehartzea eta integrazioa erraztuko dutenak.

Inguruko jende askorentzat, kaleak, tabernak, dendak edo mezkita dira gaur egungo topaleku bakarrak. Batzuetan leku horiek baztertzailak dira, hau da, balio dute erkidego bereko (erlijio bereko, herrialde edo hizkuntza bereko) kideen arteko harremanak errazteko, baina ez dute errazten beste auzolagunekiko harremana.

Erkidego edo talde bakoitzak berez dituen leku berezi horiez gain, inguru honek ongi hornitutako kultur-zentro bat ere eduki beharko luke, zabala, eta ekitaldi egitarau zehatz betekin. Egitarau honen helburu nagusia elkarren arteko ezagutza

eta pertsona nahiz kolektibo bakoitzaren ekarpena kultura partekatu eta aberasgarri bati begira eratzea litzateke.

B) Gomendio bereziak polizia jardueraren esparruan

3. Adierazle argiak eduki behar dira, inguruan polizia eskuhartzeen balioarritasunaren eta eraginkortasunaren neurketa ahalbidetzeko.

Polizia jarduerak, beste edozein zerbitzu publikokok bezala, helburu argiak eduki eta helburu horiek ezagutu behar dituzte hala agenteek nola gizarteak berak, eta baliatu behar dira eskuhartzea bera neurtzeko irizpide gisa. Neurketa adierazlerik ez baldin bada edo ez badira ezagutzen, zaila gertatzen zaio gizarteari polizia jardueren kontrola egitea. Aitzitik, halako adierazleak izateak balorazio objektiboagoa errazten du eta, era berean, plan batean funtzionarioen kolektiboaren beraren eta gizarte-eragileen partehartzea errazten du. Uste izatekoa denez, plan horrek beraien interesei eta erantzunkizunei erantzun behar die.

Alde horretatik, txostenak hauxe zioen *“adierazle fidagarriak eduki beharko lirateke drogen trafikoaren kontrolari dagokionez, (horixe izanik inguruko polizia jardueraren afera giltzarria eta baldintzagarria) eta egindako atxiloketengatik eratoritzen diren emaitza judizialei dagokienez”*.

Izandako bileretan eta elkarri igorritako idazkietan, gutxienez lau zehaztapen-lerro antzeman daitezke neurketa adierazleei dagokienez:

- a) San Frantzisko-Bilbo Zaharra inguruarentzat Barne Sailaren eta Bilboko Udalaren arteko elkarrekiko Ekintza Planaren erabilpena erreferentzia puntu gisa, aipatu planaren lorpen maila neurtzeko.
- b) Polizia jardueren gaineko datuen ustiaketa.
- c) Egindako atxiloketengatik eratoritzen diren emaitza judizialen segimendua.
- d) Ertzaintzak erabil dezala helburu bidezko planifikazio eta zuzendaritza sistema berria neurketabide gisa.

Arestian aipatutako lerro batzuen aukerak eta zailtasunak aztertu ondoren, Arartekoak ondoko proposamen hauek egiten ditu:

- 1) San Frantzisko-Bilbo Zaharra inguruarentzako elkarren arteko Ekintza Planaren neurketa orokorra egin dadila, abiarazi zenetik aurrera (1997ko uztaila), eta errepara diezaiola bereziki plan horren helburuen lorpenari eta planak dakartzan neurketa irizpideetan sartu beharreko aldaketei (hala zenbagarriak nola kualitatiboak).
- 2) Inguruan ari diren poliziei eta gizarte-eragileei ezagutzera eman diezazkietela neurketaren irizpideak eta emaitzak, baita etorkizunari begira sartuko diren neurriak ere, eta horien ezagutzak ez dezala aurreikusitako helburuen lorpena baldintzatu.
- 3) Inguruko droga atzemateei buruz gaur egun dauden datuen gaineko balorazioa egin eta espreski azter dadila erabilitako bitartekoen eta lortutako emaitzen arteko proportzionaltasuna.
- 4) Ertzaintzak eta Udaltzaingoak erabilitako datu baseek erraztu dezatela inguru honi dagozkion bereizitako datuen ustiaketa informatikoa.
- 5) Bideren bat eratu dadila, egindako atxiloketetatik eratorritako emaitza judizialen segimendua ahalbidetzeko eta, zehazki, ikuspegi horretatik azter daitezela Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak aurreikusitako prozedurei edo epaiei buruzko datu base-egitasmoak eskain ditzakeen aukerak.

6) Ertzaintzarentzako helburu bidezko planifikazio eta zuzendaritza sistema berriaren ezarketa egitasmoa burutzen ari den bitartean, egin dadila egitasmo horren baliozkotasuna inguruko polizia jardueren eraginkortasuna neurtzeko. Eraginkortasuna, noski, eskubideen eta askatasunen defentsan egin ere.

Inguru honetarako badago Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko Ekintza Plana, eta, horregatik, beharrezkoa dirudi bi polizia taldeek aurreko proposamen batzuk, hein handian behintzat, elkarrekin edo elkarlanean aurrera eramatea.

4. Inguruan gehienetan eskuhartzen duen pertsonalgoaren hautaketan irizpide egokiak erabiltzea.

Txostenean islatzen den moduan, polizia talde bakoitzak (udalarenak eta autonomikoak) denboran zehar irizpide ezberdinak erabili ditu inguruan eskuhartzen duten agenteen taldea eratzerakoan. Eztabaidatu gabe zein irizpide izan daitekeen hoberena, hemen edozein kasutan erabiltzen diren hautaketa irizpideen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Arartekoaren iritziz, inguruko gizartearen ezaugarriak eta arazo bereziak ikusita, kontu berezia behar da agenteen ezaugarri zehatz batzuei lehentasuna ematerakoan. Konparazio batera: norberaren kontrola, tolerantzia frustrazioaren gainetik, beste kultura batzuekiko zabaltasuna, gizartean desfaboraturik dauden kolektiboen arazoei buruz sentiberatasun berezia agertzea... Egia da halako ezaugarriak edozein agenterengan desiatzeko modukoak direla, edozein izanik ere bere jarduteko tokia. Hemen "kontu berezia" proposatzen da inguruan lanak banatzerakoan, inguruaren ezaugarri bereziak direla eta.

Zonan egongo diren agenteak ez txandakatzearen alde onak nabarmentzen dira. Badirudi horrekin bat egiten dela maila handi batean. Erakunde honen iritziz, egonkortasunaren irizpidea "erretzearen" edo errutinaren arriskuari aurre egin diezaioketen beste batzuekin osatu behar da, denboraren joanari edo arrazoi pertsonalei lotuta: benetan aukera izan dadila lanez aldatzeko, irizpide batzuen arabera, horrek ondorio traumatikorik sortu behar izan gabe; polizia batzuen aldi behingo aldaketa...

5. Agenteei trebakuntza eta informazioa eman behar zaie inguruan eragiten duten afera zehatzen gainean.

Aurrekoaren gomendio osagarria da. Komeni da agenteen hautaketabidea osatzea, inguru horretako lan profesionala ahalik eta hobekien egiteko beharrezkotzat jotzen den trebakuntza edo informazio bereziarekin. Kasuen arabera, horrek esan nahi du hasierako trebakuntza edo eguneratzeko trebakuntza egin behar dela **atzerritartasuna, drogak edo kultura gutxituei** buruz -zenbait adibide emateagatik-, edo informazio jarraitua edo aldi behingoa behar dela operatiboen gauzatzeaz eta horien gaineko balorazioaz. Azken gai horri buruz, proposamenen bat egin da hirugarren gomendioan.

Izandako bileretatik eta elkarri igorritako idazkietatik ondorioztatzen da agenteen trebakuntza zentratzen dela elkarren arteko aferetan eta interes orokorrekoetan, eta esperientzia edo eguneroko "briefings" delakoen bidezko informazioa emateko formulak dira biderik egokiena inguru baterako egokitzapena lortzeko. Hala ere, hala Barne Sailak nola Udalak aipamena egiten diete aurreikusitako trebakuntza ekitaldiei edota era horretako aferak sartuko dituzten agenteen trebakuntza plan posiblei.

Arartekoak hauxe azpimarratzen du:

- 1) Beharrezkoa dela azaldutako proposamenak edo asmoak aurrera eramatea eta, beraz, beharrezkoa dela jarduera zehatzak egitea trebakuntzari begira.
- 2) Beharrezkoa dela San Frantzisko aldean normalean aritzen diren agenteek trebakuntza egitarau horietan parte hartzea.
- 3) Komeni dela partehartze hori bultzatzea, eta horretarako gainditu behar da borondatezkotasunaren edo zerbitzu ordutegietatik kanpoko eskema.

6. Inguruan konpromezua harturik dauden gizarte-eragileen partehartzea eta elkarlana sustatzea.

Erakunde honen iritziz, bakar bakarrik hizketaren eta partaidetzaren bidez gainditu ahal izango da aipatutakoa bezalako egoera bat. Egoeraren ezaugarrien artean, azpimarratzekoa da nahasirik dauden kolektiboen artean ikuspegi ezberdinak eta elkarren aurkakoak daudela. Lan hau zaila badin bada ere, erakunde honen iritziz, gizarte dinamika (asoziazionismoa modu garrantzitsuan ezarria baitago...) bazter utz ez daitekeen elementu garrantzizkoa da. Horretarako beharrezkoa da topaguneak izatea (ez bakarrik topalekuak) gizarte-eragileen eta polizia zerbitzuen artean.

Alderdi guztiak bat datoz esaterakoan komeni dela partaidetzarako bide horiek ezartzea, baina, era berean, denek diote zaila dela. Batzuetan, gainera, ekimen ezberdinak izateak sortzen dituzten zailtasunak dira. Horrez gain, polizia arduradunek ere aipatu dute beren jarduera mugatua dagoela hori bezalako alor batean, eta, era berean, komeni dela beste erakunde batzuek, Arartekoak berak ere, laguntza eman dezatela partaidetzabide horiek ezartzeari begira.

Erakunde honek bere laguntza eskaintzen du bere esku dagoen guztia egiteko. Baina, berriro azpimarratuko du komeni dela topagune horiek eratzea zuzenean gizarte-eragileen eta polizia zerbitzuen artean, alde bakoitzari dagozkion eginkizunak eta jarduteko alorrak errespetatuz.

Bileretan jasotako informazioaren arabera, bide batzuk erabili dira inguruko gizarte-eragileekiko elkarlana errazteko. Horrela, esate baterako, auzoko zenbait elkarterekin bilerak egin dira, eta, Udaltzaingoaren arduradunak auzorako eratu dagoen mahaiko kide dira...

Hona hemen Arartekoak udal eta Ertzaintzako arduradunei egindako proposamena:

- 1) Egin dadila orain artean erabilitako bideen balorazioa, eta zehatzago:
 - ea uste den bide horiek erabilgarri edo nahiko direla gomendio honek xede duen helburua lortzeari begira;
 - bide horiez baliatuta, iristen den edo lotuarazten diren inguruan dauden sektoreak, edo bakar batzuek besterik ez;
 - gizarte-eragileak behar bezala ordezkaturik edo informaturik sentitzen diren.
- 2) Azter dadila beste partaidetza eta elkarlan baten aukera eta bideragarritasuna (gizarte-eragileen eta polizia zerbitzuen arteko topagunea), gomendio honek adierazitako ildoan egoki gerta daitekeena.
- 3) Balora dadila Ertzaintzak zuzenean parte hartzeko aukera, edo gaur egun eraturik dagoen partaidetzabide bat baliatzeko aukera, esate baterako auzorako Mahaia, bertan udal arduradunak (alkatea, hainbat alorretako zinegotziak...) eta auzolagunen ordezkariak (auzolagunen elkarteak) ordezkaturik baitaude.

7. Polizia jardueren kontrolbideak indartzea.

Agenteen eta horien arduradunen artean, gehienek uste dute badirela polizia jardueri buruzko kontrolbide asko. Iritzi hau txostenean islatu zen eta, horrekin batera, islatu ere islatu zen Arartekoaren iritzia, zeinaren bitartez, zalantzan jartzen baitziren kontrolbide horietako batzuen erabilgarritasuna aztertutako inguruabarretan.

Izandako bilerek, eta, era berean, Arartekoaren aurrean aurkeztutako kexa batzuen bideratzeak ahalbidetu dute polizia jardueren kontrolbideen aukeren eta zailtasunen balorazioa. Izan ere, Arartekoaren gomendioak zenbait kontrolbide barne hartzen ditu, batzuk jadanik eratuak eta beste batzuk era daitezkeenak. Horrela:

- salaketa-bidea epailetzaren aurrean;
- salaketa-bidea poliziaren berearen aurrean;
- agenteen artean, nor bere buruaren gaineko kontrola edota lankideek nahiz berehalako goi-buruek egindakoa;
- lekukoak izatea kalean egindako jardueretan;
- Arartekoaren aurreko formazko kexa;
- jatorri atzerritarreko pertsonen sostengu-elkarteen bitartekaritza (EEG);
- barne eta ofiziozko espedienteak.

Epailetzaren aurreko salaketa-bidea teorian bai baina praktikan ezinezkoa gertatzen zaie kanpotar askori, euren egoera desfaboratuarengatik berarengatik eta beharrezkoak diren bitartekoengatik (dokumentazio zuzena, hizkuntza jakitea, aholkularitza juridikoa...). Modu berean, oso zaila gertatzen da egiteen salaketa polizien aurrean egitea (Ertzaintzako nahiz Udaltzaingoko arduradunek eskainitako bidea), antzeko arrazoiak direla medio. Azken urteko esperientziak iritzi horiek berresten ditu.

Inguruabar batzuetan, badirudi kontrolbide eraginkor bakarra agenteen autokontrola dela (beraz, horra zeinen garrantzitsuak diren hautaketa irizpideak), edo bertan dauden lankideek eta berehalako goi buruek egin dezaketena.

Beste batzuetan, ordea, egiteekin zerikusirik ez duten lekukoak izateak efektu prebentiboa izan dezake. Alde horretatik, ontzat jo beharko litzateke, esate baterako, auzoan bizi diren edo lan egiten duten EEGko pertsonen inplikazioa, eta une edo ingurubar zehatz batzuetan ezusteko “begirale” izan daitezkeen lana.

Horiez gain, badira orain artean gutxi erabili diren beste kontrolbide batzuk. Horietako bat Arartekoaren aurreko kexa izan daiteke. Halaber, kanpotarren aldeko sostengu elkarten (EEG) inplikazioa, zenbaitetan bitartekari moduan aritu daitezkeenak eragindako pertsonen eta erakundeen artean. Horretarako, elkarte horiek aldeko jarrera agertu beharko lukete eta polizia arduradunek hobeki onartu beharko lukete. Horrek, barneko kontrolbideak abian jartzea erraztuko luke.

Nolanahi ere, interesgarria litzateke gaur egungo kontrolbideen benetako erabilpenari -eta erabilpen horretatik ateratzen diren ondorioenak- buruzko datuak edukitzea. Esate baterako, inguru horretako polizia jarduerekin zerikusirik duten barne espedienteak edo bide judizialeko salaketak. Erakunde honen irizpidearen arabera, polizia jokabide ez zuzenaren aztarnarik edo pertsonen eskubideen aurkako jokabidearen aztarnarik dagoen bakoitzean, barne ikerketa bat egin behar da eta, badagokio, zigorra ezarri behar da, hala hartutako neurriak berez izan dezakeen balioarengatik nola bere balio prebentiboarengatik.

Arartekoaren langileen eta Ertzaintzaren arduradunen artean izandako bileren bidez zehaztasunez aztertu dira gaur egun dauden kontrolbideak eta zuzenean bi erakundeei dagozkienak:

- 1) Polizia jarduerak direla medio, Arartekoaren aurrean aurkezten diren banakako edo taldekako kexen bidea.
- 2) Ertzaintzako Buruzagitza eta Kontrol Zentroen sistema informatizatuaren erabilpena, polizia jardueren kudeaketa eta kontrolerako elementu gisa.

Arartekoaren aurrean aurkezten diren kexei dagokienez, ohiko prozeduraz gain, erabaki da osagarritzko prozedura azkarrago bat eratzea, premia edo larritasun handiagoko kasu batzuetan aplikatzeko. Erakunde honen iritziz, komenigarria litzateke aldian behin bi prozeduren benetako funtzionamendua eta lortutako emaitzak aztertzea.

Buruzagitza eta Kontrol Zentroen (CMC-Ardatz) sistema informatizatuari dago-kionez, bere aukerak eta mugak kontuan hartuta, Arartekoak berriro azpimarratzen du komeni dela jarduera batzuk funtsetan dituzten arrazoien aspektu kualitatibo batzuk sartzea eta, bereziki, agenteen komunikazioa eta ondoriozko erregistro informatiboa: identifikaziorako polizia eginbideak, katxeoak edo polizia egoitzaz kanpoko miaketak, indarraren erabilpena.

8. Giza eskubideen aurkako polizia jokabide oro galarazi behar da eta, horretarako, aurre hartzeko mekanismoak sartu behar dira gehiegikeria posibleen aurrean.

Hala txostenean nola honetan oinarrituta burututako lanean, behin eta berriz hauxe nabarmendu da, hots, polizia jarduera etengabeko gatazkan dagoela gizabanakoen askatasunekin eta hortik datorren konplexutasuna. Horregatik, jarduera hori, ezinbestean, legezko aginduei estuki lotu behar zaie. Dena dela, xedapen arau emaleek, maiz, diskrezionalitate tarte zabala uzten dute, baina horrek ez du inola ere eskuhartze arbitrariorik, neurritz gainerorik edo funtsa gebekorik ekarri behar. Polizia jarduera irregularrak hartu dituzten kanpotarren testigantzak direla eta, azpimarratu behar da poliziaren Kode deontologikoa indarrean dagoela, eta indartu behar direla eraginkortasun prebentiboa duten jokabideak eta kontrolbideak, modu horretan hiritarren eskubideen edozein abusu edo urraketa saihesteko. Ikuspegi honetatik, agerikoa da poliziek legezko printzipioei eta araei lotuta jarduteko duten obligazioa, baina egokia da hemen aztertzea praktikan arazo gehien sortu dituzten aspektuak.

Egia da izandako bileretan nola halako adostasuna lortu dela aplikatu beharreko irizpideei buruz, baina desadostasunek diraute legezko xedapen batzuen interpretazioari buruz. Horregatik, beharrezkoa da Arartekoaren jarrera zehaztea. Komeni da, era berean, erakunde berme emale honen ikuspuntutik desiragarritzat jotzen diren jarduera praktikoen jarraibideak ahalik eta gehien zehaztea. Alde horretatik, ondoko irizpideak berriro azpimarratu behar dira:

- a) Poliziak, inola ere ez dezake **jarduera diskriminatoriorik** burutu, huts hutsean pertsonen estereotipoetan edo pertsonen kanpoko ezaugarri batzuetan oinarrituta.

Jarduera horiei aurre hartzeko bide gisa, ondokoak proposatzen dira, polizien funtzionamenduaren ezagutza zuzenagoak ahalbidetu ditzakeen beste bideen kalterik gabe:

1. Eskuhartzeko arrazoi zehatzak aipatu egin behar dira, eta batez ere identifikazioetan gehien erabiltzen den esaera zehaztu, alegia: "hiritar seguritatearengatiko" identifikazioa.

2. Polizia jardueren bitartekoak egokitu behar dira (programa informatikoak eta agente eskuhartzaileen esku-txostenak) aipatutako azalpen hori bil dezaten eta, beraz, ezagutu ahal izan daitezen zeintzuk diren eskuhartzeen arrazoi zehatzak eta horien ondoko kontrola erraztu dadin.
- b) Agenteek, beti, **tratu zuzena** eta arretatsua eskaini behar dute. Halaber, **eskuhartzeen arrazoiak** eman behar dituzte, eta eragindako pertsoneri ahalik eta informazio posible gehiena eman behar diete euren jardueraren arrazoiez eta xedeez. Gure ustez, ondoko irizpide hauek xede hori dute:
1. Pertsona bati kalean heltzen zaion modua erabakiorra gertatzen da egiteek ondoren hartzen duten bidean. Horregatik, beti zuzena eta arretatsu izan behar du. Premiazko edo berehalako arrisku inguruabar apartekorik gertatzen ez bada, agenteek azalpena, azalekoa bada ere, eman behar diote eragindako pertsonari euren jardueraren arrazoiak buruz. Egoki denean, azalpen hori eskuhartzearen hasieran emango da eta, nolana ere, eskuhartzea bukatu baino lehen.
 2. Polizia jardueretan lekukoak izateak ondorio prebentiboa izan dezake. Beraz, komenigarria da lekukoak izatea agenteek naturaltasunez onartzea, baldin eta polizia lanari trabarik egiten ez badiote.
 3. Agenteak hiritar batekin harremanetan sartzan direnean eta honek haien identifikazioa eskatzen dienean, agenteek euren identifikazio profesionala eman behar diote. Hori azpimarratu beharra dago. Behar horrek, jakina, polizien seguritate pertsonalarekin bateragarri izan behar du. Beraz, erabat onargarri lirateke ezaguna ez den esanahai duten klabe bidezko identifikazio sistemak –baita aldagarriak ere-. Kontuan hartu beharra dago egin daitezkeen irregularitate posibleen erantzukizuna beti pertsonala dela, eta ez dela nahikoa atestatuari edo egiten ari den jarduerari dagokion zerbakia ematea.
- c) **Indarraren erabilpenak** azken bidea izan behar du. Goitik behera aintzat hartu behar dira egokitzapen, premia eta neurri legezko printzipioak; erabakia oinarritu behar da zentzuzko iritzian, eta, jerarkikoki buru direnek kasuz kasu kontrolatu eta berretsi behar dute. Alde honetatik:
1. Komeni da polizia jardueragileak uste duenean bidezkoa dela indarra erabiltzea, obligazioa izan dezala bere erabakia funtsatu duten arrazoiak jasotzeko, eta esateko zehatz mehatz nola burutu den bere eskuhartzea. Horrela, gizabanakoen eskubideetan eragin handiagoa duten jardueren ondoko kontrola ahalbidetuko litzateke. Arartekoak badaki atestaturatu prestatzen den aldi oro, agenteek esaten dutela koakzio fisikoa erabili behar izan duten ala ez. Hala ere, inguruabar hori ere jaso behar da atestaturik ez dagoenean -esate baterako, negatiboa gertatzen den droga edukitzeagatiko identifikazio batean- eta, nolana ere, erabilitako indarraren deskripzioa egin behar da, zehatz mehatz.
 2. Uste dugu droga edukitzeaz susmagarria denari eztarritik heltzea, droga irents ez dezan, orokorrean, neurritz gaineko jarduera dela. Beraz, baztertu egin beharko litzateke. Agente jardueragilearen pertzepzio zuzenean eta berehalakoan, begi bistakoa baldin bada delitua gertatzen ari dela, atxilotetari ekin beharko litzaioke. Kontuan hartu behar da askotan modu horretan heltzen zaion pertsona ustezko droga eroslea dela. Hortaz, ez dakiokenez leporatu delitu bat egin izana, jarduera are neurritz kanpokoagoa da.

- d) Hiritarren **gauza pertsonalen gaineko kontrolak** legeak esaten duenera mugatuko dira eta “azalekoak” izango dira. Inola ere, ez dezakete pertsona bat biluzarazi –ezta zatika ere- polizia egoitzetatik kanpo. Kanean egiten diren kontrol eta miaketa horien gainean:
1. Legeak gauza pertsonalen “*azaleko kontrola*” ahalbidetzen du eta ez beste ezerena. Normalki arroparen gaineko “katxeo” delakora mugatuko da. Delitua egin izanaren arrazoizko aztarnarik baldin badago, badagokio atxiloketa egitea, eta miaketa polizia egoitzetan egingo da.
 2. Identifikazioaz gain, gauza pertsonalen gaineko miaketa ere egiten denean, agenteak esan beharko du horretarako dagoen arrazoa, modu horretan jardueren erregistro informatikoan jasotzeko miaketa horren arrazoa. Era horretan, delako eskuhartze hori inguruabar zehatz horietan beharrezkoa ote zenari buruzko ondoko balorazioa ahalbidetzen da.
 3. Komisaldegitik kanpo, ez dezakete susmagarria biluzarazi, ezta behartu ere arropa batzuk kentzera.
 4. Ez da egokitzat jotzen hiritar baten identifikazio edo gauza pertsonalen miaketa eginbideak atari baten barrenean edo beste leku itxi batean egitea. Era berean, ez dago funtsatua eragindakoaren intimitatearen ustezko babesarengatik. Izan ere, kaleko kontrolak legezko betebeharrak betetzen baditu –azalekoa izatea eta, ahalik eta gutxien irautea- ez du gizabanakoen eskubideentzako kaltegarri gertatu behar.
 5. Gauza pertsonalei buruzko miaketak modu errespetagarrian egin behar dira, eta, saihestu behar dira iraingarri gerta daitezkeen jarrera edo jokabideak. Esate baterako, sakelak edo boltsoa hustuarazi gauzak lurrera botaz.
- e) Polizia jarduera bat dela eta, **eragindako pertsonak egindako informazio eskaera**, edota are, jarduera hori zalantzan jartzea edo kritikatzeta, ez da besterik gabe hartu behar agintearen agenteenganako errespetu gabezia edo desobediencia gisa. Eta hiritarraren jokabidea penalki nabarmendu baldin badaiteke, estu estuki aintzat hartu behar da AKLren 495. artikuluaen aurrikuspena, zeinaren arabera ez baitaiteke faltengatik atxilotu –arau-hauste penal arinak- auzipetuak helbide ezagunik ez duenean eta behar hainbateko bermerik ematen ez duenean izan ezik, agertze posiblea ziurtatzeari begira. Arartekoak jakin badaki arau honen ezarpen praktikoan sortzen diren zailtasunen berri, bereziki agenteek berek erabili beharreko balorazio-irizpideak erabakitzerakoan. Egiatzki ia ezinezkoa gertatzen da delitua eta falta bereizteko jarraibide zehatz eta objektiboak ezartzea, baina aurrerantzean egin daiteke prebentzio mekanismoak eta egindako atxiloketen ondoko kontrolen egituraketa egiteko bidean. Alde horretatik:
1. Poliziek ohikotzat jo behar dute euren jarduerari buruzko azalpenak ematea, eragindako hiritarrak halaxe eskatzerakoan.
 2. Ondoko kalifikazio judizialean faltatzat jotzen diren jakabideengatiko atxiloketak galarazteko, joerak hauxe izan behar du: ez dadila izan gatazkan parte hartzen ari den agentea bera erabakia hartuko duena, eta saiatu behar da erabakia bertan dauden beste lankide batzuen esku uzten, edo, bestela, atxilotzeko erabakia zenbait agenteren artean har dadila.
 3. Nolanahi ere, jokabidearen larritasunaz inolako zalantzarik izanez gero, askatasunaren alde jokatu behar da. Beraz, poliziek pertsonaren identifikazioa

- egiteko eta ondoko lokalizaziorako beharrezkoak diren datuak hartuko dituzte, eta ez dute beste ezer egingo.
4. Komeni da San Frantzisko aldean, gogor egiteagatik, ez obeditzeagatik, agenteak erasotzeagatik edo antzeko arau-hausteengatik, egiten diren atxiloteten kontrol zenbakigarria izatea, eta ikusiko da kopuruak bereziki agente batzuegan edo patruila batzuetan pilatzen diren.
 5. Halaber, erabilgarritzat jotzen da honi buruzko ebazpen judizialak aztertzea. Esate baterako, zenbat atestatu pasatzen diren hasieratik faltengatiko epaiketak izatera, kondenen proportzioa eta beste.
- f) Pertsona kanpotarren atxilotetak direnean, modu berezian erreparatu behar zaio pertsonaren **hizkuntza ulermenari**. Horrela:
1. Zalantzarik dagoenean atxilotuak gaitasunik ote duen haren atxilotetaren arrazoiak edo bere eskubideen edukia ulertzeko, interprete baten presentzia ziurtatu behar da, kanpotarrak ez eskatu arren.
 2. Euren eskubideen benetakako erabilpena egiten ote duten ikusteko, argigarri izan daiteke aztertzea ia kanpotar atxilotuek zenbat alditan erabiltzen duten pertsona bati bere atxilotetaren egitea eta tokia jakinaraztearen eskubidea, edo zenbatek eskatzen duten mediku laguntza.
- g) Atxiloteta denean, era berean, azpimarratu behar da ez dela ohikotasunez egin behar **biluztutako gorputzaren miaketa** delako neurria. Bakar bakarrik funtsatua dago atxilotuaren inguruabar pertsonalei, leporatutako delituaren inguruabarrei edota atxilotetaren dinamikari erreparatuta, beharrezkoa denean, zentzuskotasun eta neurritasun printzipioen arabera. Nolanahi ere, neurria hartzen duenak bere erabakia idatziz jaso beharko du, laburrean arazoituta, modu horretan neurriaren egokitzapenari buruzko ondoko kontrola posible izan dadin.
- h) Ertzaintzak eta Udaltzaingoak saiatu behar dute **atxilotetaren iraupena** mugatzen ezinbestekoa gertatzen den denborara, eta kanpotarren identitatea egiaztatzeko arazoez ezin dute pertsona horien askatasuna edo epaileen esku uztea atzeratu. Horretarako, komunikaziobide joriak ezarri behar dira Poliziaren Gorputz Nazionalaren Atzerriartasun Brigadarekin. Arartekoaren aldetik, gai honen berri eman zaio Herriaren Defendatzaileari aipatutako polizia talde horren aurrean eskuhar dezan. Nolanahi ere, ondoko alderdi hauei erreparatu behar zaie:
1. Pertsona kanpotar baten legezko dokumentazioak nazional baten dokumentazioaren adinako kontsiderazioa jaso behar du (pasaporte, bizitzeko baimena, e.a.). Beraz, ezin du arau nagusi izan kanpotarra erretentzeak Atzerriartasun Brigadaren txostena iritsi artean.
 2. Atxiloteta luzatzen denean egiaztatu behar delako kanpotarraren identitatea, egite hori kontuan hartu beharko da atxilotuarekiko bisiten baimenak modu malguagoan ematerakoan.
- i) **Salmenta ibiltariaren kontrolari** buruz Udaltzaingoak dituen eginkizunei buruz, estu estuki aintzat hartu behar da dagokion udal ordenantzak dioena eta, alde horretatik, ondoko puntu hauek azpimarratu behar dira:
1. Agenteek arau bidez ezarritako kasuetan eta betebeharrekin baizik ez dituzte salgaiak atzeman ahal izango. Afera honi dagokionez, komeni da gogora

ekartzea zer dioen Bilboko salmenta ibiltariaren ordenantza arau emalearen 27. artikulua. Horren arabera, *“Ezar litekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko xedearekin, espedientea irekitzea agintzen duen agintariak falsifikatutako salgaien, ez identifikatutako edota salerosketarako ezarrita dauden gutxieneko betebeharrak betetzen ez dituzten salgaien kautelazko atzematea erabaki ahal izango du. Behin-behineko neurri hau erabaki arrazoituaren bidez hartuko da, aurretiaz interesatuak esateko duena entzun ondoren.”*

2. Nolanahi ere, aipatutako neurriak eragindako hiritarrari agiri bat eman behar zaio, zeinetan neurria funtsatzen duten arrazoiak azaldu behar baitira, hala nola atzemandako salgaien zerrenda zehatza, balio handiena dutenena, bereziki.
3. Komeniko litzateke jarduera-protokolo bat prestatzea poliziek salmenta ibiltarian irregulartasunak atzematen dituzten kasuetarako.

9. Polizien arteko elkarlana edota koordinaketa hobetu behar dira.

Kasu honetan, polizia elkarlanaren edota koordinaketaren beharra bi gaiengatik eratortzen da, bereziki: esparru berean hainbat polizia talde ari dira; badira hala elkarren artean jarduteko alorrak edo alor partekatutako (eskumenak) –esate baterako, hiritar seguritate- nola talde bakoitzaren alorrak (esate baterako, atzerritarren kontrola). Hiritarrei eskaintzen zaien zerbitzu publikoaren eraginkortasunak, eta kasu honetan polizia zerbitzuarenak, polizien arteko elkarlana edo koordinaketa eskatzen du, hainbat mailatan gainera:

- Polizia talde bakoitzaren barruan, inguruan ohikotasunez dauden hiritar seguritatearen zerbitzuen eta inguruan parte hartzen duten beste zerbitzu espezializatuen artean (drogaren trafikoa edo ikerketan);
- Udaltzainen eta Ertzainen artean;
- Aipatutako horien eta Poliziaren Gorputz Nazionalaren atzerritarren unitatearen artean.

Polizia talde bakoitzaren egitura jerarkikoaren eta barne antolaketaren arabera, beharrezkoa dirudi elkarlana erantzunkizun maila guztietan planteatzea: zerbitzuen arduradunen artean eta agenteen beraien artean. Erabilitako informazioaren arabera, hauetxek lirateke konpondu beharreko bi aferak:

- Poliziaren Gorputz Nazionalaren Atzerritarren Brigadak arindu ditzala atxilotuen identifikazio prozedurak (identifikazio eskaerak daudenean, erantzunak ez daitezela denboran luzatu).
- Hainbat mailatan, mintzakideak izatea, bi polizia taldeen artean eta gehiago erabil dadila Ertzaintza-Udaltzaingoa Koordinaketarako Tokiko Batzordea, koordinaketa eta elkarlanbide gisa.

Bilboko Poliziaren Gorputz Nazionalaren Atzerritarren Brigadaren funtzionamenduari buruz, Herriaren Defendatzailearen bitartez, Arartekoak egin ditzakeen gestioez gain, ondoko proposamen hauek egiten dira hemen Barne Sailari eta Bilboko Udalarri begira:

- 1) Aldian behin azter daitezela identifikazio eskaerei Atzerritarren Brigadak ematen dien erantzunen denborak, eta horrek kanpotarren atxilotetaren iraupenean duen eragina. Eta, datu horien arabera, proposa daitezela beharrezkoak diren neurriak edo hobekuntzak.

Hasierako azterketan proposatzen da 1998. urteari dagozkion datuak, ikusteak eta datuak nahiz ondorioak erakunde honetara igor daitezela.

- 2) Halaber, aldi behin baloratu dadila dauden elkarlanbide edo koordinaketabideen funtzionamendua: Udaltzaingoa-Ertzaintza Koordinaketarako Tokiko Batzordea, bi polizia taldeen aldeko mintzakideak inguruko operatiboetarako, Bilboko Udalaren eta Barne Sailaren arteko polizia koordinaketako protokoloa, Seguritate Batzordeak dokumentazioa eta atzerriartasunaz hartutako Akordioa...

10. Kontu berezia izatea argitara ematen diren datu polizialei buruz eta datu horiek auzoaren irudi sozialean edo etorkinen kolektiboan duten eraginaren aurrean.

Polizia datuek edo informazioen tratamendu ez egokiak arriskuak izan ditzake gizarte elkarbizitzarentzat ezertarako lagungarri gertatzen ez diren estereotipoak eta aurrejuzkuak indartzeari dagokionean. Bada, gomendio honek arrisku horiek saihestu nahi ditu. Dena dela, maiz, ez daiteke zehaztu noiz diren poliziek emandako informazioak eta noiz komunikabideek edo beste gizarte-eragile batzuek zabaldu dituztenak, erakunde honek ez baitu horien gaineko kontrolik.

Izandako bileretan oinarrituta, itxuraz, udal arduradunek auzoaren irudiarri buruzko kezka ere badute eta bat datoz erabat gomendio honen edukiarekin, baina irizpide hau ez da islatzen, esate baterako, prentsan oraindik ere agertzen diren albiste askotan. Horregatik, Arartekoak berriro azpimarratzen du polizia arduradunek (bai horiek berek nola poliziek edo euren ordezkariak) beren esku dagoen guztia egin dezatela komunikabideei eskainitako informazioetik ken ditzaten aurrejuzku batzuk indartu besterik egiten ez dituzten datuak.

Erakunde honen hasierako txostenak aipatutakoez landara, beste gomendio bat ere egiten zuen: *“Polizia jardueri buruzko datuen ustiatetan erabilitako irizpide batzuk aldatzea”*. Prozesuan zehar aztertutako datuen sailkapenerako irizpideak direla eta, ez da beharrezkoa gomendio hori egitea. Beraz, kendu egiten da.

* * *

Aurreko gomendioak igorri zitzaizkion Eusko Jaurlaritzako Barne Sailburuari eta Bilboko Alkateari iragan abenduaren 24an, eta, kontuan hartu zen, kasu bakoitzean, bakoitzaren erantzunkizun esparrua. Bi agintariei zuzendutako idazkian eskatzen zen, bi hilabeteko epearen barruan erakunde honi igor ziezaiotela gomendioen erantzun idatzia, eta kasu bakoitzean jaso zedila gomendioen onarpena edo errefusa, eta, igor zizatela gomendioen aplikazio maila, epea eta bitartekoak ezagutzeko interesekoak ziren behar adina datu.

Bilboko Udalaren erantzuna 1999ko otsailaren 24koa da eta zehatz-mehatz aztertzen ditu gomendio guztiak, lehen biak izan ezik, gomendio orokorrak baitira. Beraz, polizi jarduera hobetzeko zortzi gomendio bereziei heltzen die, batik bat.

Laburbilduz, erantzunak adostasun handia islatzen du ia gomendio guztiekin, baita erakunde honek egin zituen garapenerako proposamen zehatzekin ere. Izan ere, erabateko edo zatiko adostasuna agertzen du ia gomendio guztiekin:

- adierazleak erabiltzeari eta poliziak alde horretan duen eskuhartzea ebaluatzeari buruzko proposamenak;
- langileak aukeratu eta prestatzeko irizpideak;
- alde horretako gizarte-eragileekin batera lan egitea;

- kontrol-tresnak ugaltzea;
- alde zuzenak neurriak hartzea, gerta litezkeen gehigikeriei aurre egiteko;
- jendeari jakinarazten zaizkion argibideak eta polizi-datuak.

Onartzen diren proposamenak zehazki gauzatzeko modua dela-eta, honako kasu ezberdinok bereizten dira:

- jarraibide zehatzak eragin dituzten edo eragingo dituzten gomendioak (araketak egitearekin edo komisadegiko gorputz miaketetan biluziarazteko izapideekin zerikusia dutenak);
- epe laburrean gauzatu ezin diren proposamenak (adibidez, informatika programen aldaketa dakartenak);
- ustez dagoeneko gauzatzen ari diren proposamenak (kalez kaleko salmenta kontrolatzeari edo Ertzaintzarekin koordinatu eta hitz egiteari buruzkoak).

Desadostasun nagusien artean, proposamenak ez direla komenigarriak edo beharrezkoak uste izateagatik, honako hauek aipatzen dira:

- Herriko Mahaian polizi arduradunak egotea;
- partehartze- eta lanikidetzabide berriak sortzea;
- lekukoak tokian bertan egotea kontrol-tresna gisa;
- kasu guztietan ezarritik heltzeko ekintza alde batera uztea;
- pertsonak etxe-atarian ez sartzea miaketa egiteko;
- gertakariekin zerikusirik ez duen beste agente batek hartzea atxilotzeko erabakia.

Azkenik, esan behar da udalak onargarritzat jotzen dituela zenbait proposamen, baina, bere ustez, beste instantzia batzuek ezarri behar dituztela (esaterako, ebaluazio-adierazleen garapena, Koordinaziorako Herri Batzordeak egin beharrekoa, edo agenteak prestatzeko planak, Euskal Herriko Polizi Akademiari dagozkionak, edo epaile-erabakien azterketa, erabakiak eskura izan gabe ezin egin daitekeena).

Eusko Jaurlaritzaren **Herrizaingo Sailaren erantzuna** 1999ko martxoaren 2koa da. Hortaz, urteko txosten hau inprimategian sartu baino egun gutxi batzuk lehenago jaso dugu. Alabaina, hemen labur-labur azalduko dugu horren mamia.

Idazkian azpimarratzen den lehen gauza zera da, sail horren iritziz, gomendio gehienei arreta eta ardura zor zaiela. Izan ere, sailburuak berak dioenez, *“ahal den neurrian, gomendio horiek gauzatzera bideratu behar dugu gure ahalegina”*. Ildo horretan, gomendio horiek alor batzuetan ezartzea erronka omen da eta denbora beharko omen da, baina, haatik, emaitza onak lortzea eta erakunde honi jakinaraztea espero omen dute.

Sail horri egindako zazpi gomendioei banan-banan eman dien erantzun zehatza aipatu baino lehen, idazkian hiru arazoren berri ematen da:

- txosten hau egiteko erabili diren prozedura eta metodologiak egoera zailean jarri duela sail hori, ez baitio lekukotasunak egiazkoak diren ala ez frogatzeko aukerarik eman;
- *“uste-bidezko egiatasuna”* deritzan baliabidea erabiltzeak izan dezakeen eragina ateratako ondorioetakoren baten fidagarritasunean, edota jarduerak orokortzean;
- 1997ko bigarren seihilekotik igaro den denbora eta orduz geroztik alde horretan izan diren aldaketak.

Gomendio eta proposamen zehatzei dagokienez, ia erab

ateko adostasuna agertzen du guztietan. Batzuetan, jadanik ezartzen ari direla uste du. Beste batzuetan, berriz, gauzatzeko bidean edo prestatzen ari direla: eskubideak afrikar

hizkuntza eta dialekto ezberdinetan irakurtzeko inprimakiak, jarraibide zehatzak atxilotuei araketak egiteko, atzerritarrekin nola jokatu jakiteko...

Arartekoaren proposamen batzuen ezargarritasun edo bideragarritasunari buruz, zenbait eragozpen edo muga adierazten dira, epaile-prozedurei buruzko datu-basea eskuratzeko, bateragarri egiteko agenteak aukeratzeko irizpideak eta funtzionarioen lanpostuak betetzeko legeak ezarritako aurreikuspenak, Herriko Mahaian zuzenean parte hartzeko edo alde horretako gizarte-eragileekin lankidetzaren harreman handiagoa izateko, polizia-jardueren alderdi kualitatiboak sistema informatizatuan sartzeko...

Polizia-jarduerak kontrolatzeko eta gerta litezkeen gehiegikeriak galeratzeko tresnei buruz, esan beharra dago iritzia bat datozela oinarritzko aferetan: esaterako, polizia-jarduera bidegaberen baten susmorik badago, barne-ikerketa egin eta hura zuzentzean. Gainera, sail horrek Arartekoarekin hitz egiteko solaskide bereziak izendatu ditu, presako kasu jakin batzuetan prozedura bizkortzeko, eta gai hau aztertzen jarraitzeko asmoz, aldiko bilerak egiteko hitza eman du.

Bestalde, sail horrek jakinarazi digu atxiloteta-alorrean, zehazki, beharrezko urratsak egiten ari dela Europako Kontseiluak balioztatzen duen kalitate-ziurtagiria lortzeko, prozesu osoa zuzentasun osoz burutzen dela ziurtatzearen.

* * *

Laburpen zabal hau bukatzeko, erakunde honek eskertu nahi du hilabete hauetan guztietan inplikaturako polizia arduradun guztien aldetik izandako elkarlana hala nola pertsona eta elkartearen laguntza eta konfidantza. Arartekoak espero du lankidetzaren hori etorkizunean ere mantentzea eta lankidetzaren horrek ahalbidetu dezala gomendio hauen betekizunaren segimendu hobea.

2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATU ETA GIZARTEAREKIKO HARREMANAK SENDOTZEN DITUEN KULTURA SORTZEA HELBURU DUTEN JARDUERAK

2.1. TALDEEKIN, ELKARTEEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN IZANDAKO ELKARLANERAKO HARREMANAK

1998. urtean ere, Ararteko erakundeak, aurreko urteetan hasitako elkarlanerako harremani eutsiz, gizarte eragileekin elkarlanean aritzeko guneak eta harremanak sendotzeko bideak bilatzen jarraitu du. Elkarlanean aritzeko arloak topatzen saiatu gara, batez ere egoera latza bizi duten pertsonen laguntza eskaintzen dieten erakunde, talde eta elkarteekin, edota gizartearen arazo ezberdinentzako konponbideak aurkitzen saiatzen direnekin; talde bakezaleak, elbarrituen elkarteak, giza eskubideen aldeko taldeak, atzeritarrei, preso daudenei edo baztertuta daudenei laguntza eskaintzen dieten taldeak. Zenbaitetan, erakunde horiek izaten dira erakunde honetan erreklamazioa aurkeztu edo esku hartzeko eskatzen dutenak; beste batzuetan, talde horiek informazioa eskatu eta eskaini egiten dute, edo aurreko harremani jarraipena ematen diete.

Ararteko bezalako erakunde bermatzailearen ustez, elkarte horiek gizartean antenek bezala joka dezakete; egoera eta arazoak sumatzen dituzten sentsoreak lirake, horien berri emanez, bestela inork ez luke jakingo horrelakorik gertatzen denik. Horregatik, gure Erkidegoko gizarte-talde ezberdinekin elkarlanean aritzeko borondate osoa du, eta horretara bideraturiko jarduketak ekimen eredugarri eta garrantzitsutzat dauzka.

Askotan, babesa behar duten pertsonak izaten dira erakundeetara gutxien jotzen dutenak; ez dakitelako halako erakunde badagoela, ez dakitelako zein diren beren eskubideak, gizartean nola jokatu ez dakitelako, aurretik ere esperientzia txarrak izan dituztelako erreklamazioak aurkeztean, ez direlako erakundeetat fidatzen, nahiago izaten baitute arazoak beren kasa konpondu... Pertsona horietako askok ez dute erreklamazioa aurkezten ez dakitelako horrelakorik egin dezaketela, edo besterik gabe ez dakitelako non edo nola egin.

Azken urteotako esperientziak argi erakutsi digu gure Erkidegoko talde eta elkarte gehienek gure gizarteko sektore baztertuenen edo ahulenen eta Ararteko bezalako erakundeen artean bitartekari gisa lan itzela egin dezaketela; beren eskubideak zein diren azalduz eta arazoak konpontzeko bideak erakutsiz, beren aldarrikapenak adierazten lagunduz, administrazioak hiritarrei zerbitzu egokia eskaini diezaiela eskatuz eta, ekimenean bitartez, erakundeenganako konfiantza handituz eta gizartearen batasuna sendotuz.

Gure Erkidegoan erakunde, elkarte eta talde ugari dugu, eta horrek gizarteak duen bizitasuna erakusten digu. Baina aldi berean, ugaritasun eta aberastasun hori erronka ere bilakatzen da norbaitek beraiekin elkarlanean aritzeko harreman iraunkorrak gauzatu nahi baldin baditu. Gure kasuan, eta erakunde honek dituen mugak kontuan izanik, elkarlanean aritzeko agertu dugun asmo sendoa azken urte honetan lau bide ezberdinen bitartez gauzatzen saiatu gara:

- beren arazo eta proposamenen berri eman nahi izan diguten talde eta elkartei erantzun positiboa eskainiz eta beraiekin bilerak eginez;
- azken urte honetan, ahal izan dugun neurrian, nolabaiteko harremana mantenduz aurrez ere gurekin harremanetan zeuden elkarteekin;

- arazo ugari duten sektore eta arloetan aritzen diren taldeekin harreman berriak gauzatzeko urratsak eginez, berez sektore horiek arretea berezia behar baitute.
- antzeko jarduerak eta helburuak dituzten elkarte ezberdinen koordinaziorako plataformak baliatuz.

Horrela, bide horietatik jo ostean, Ararteko erakundeak 1998an zehar gizartearen honako arlo hauek jorratzen dituzten elkarteekin elkarlanean aritzeko aukera izan du, indar gutxi edo handiz.

- buruko gaixotasuna duten pertsona zaintzea;
- hiesa duten gaixoak hartu eta horiei laguntza eskaintzea;
- babesik gabeko haur eta gaztetxoak familia barruan hartzea;
- atzerritik datozen pertsonentzako osasun zerbitzuak eskaintzea;
- giza eskubideen defentsa eta beste herrialdeetan horiek nola urratzen diren salatzea.
- hezkuntza jasotzeko eskubidearen defentsa;
- atzerritik datozen pertsonak gizarteratzea;
- Drogamenpekotasunarekin arazoak dituzten pertsonentzako laguntza;
- hirugarren munduko herrialdeekiko elkartasuna eta horien garapenerako laguntza;
- intsumisioa eta kontzientzi eragozpena;
- preso dauden pertsonen eskubideen defentsa eta horiei laguntzeko programen garapena;
- guraso bakarreko familiei premiei erantzutea;
- sasoikako langileentzako laguntza;
- baztertutako taldeen gizarteratzea edo benetan egoera larria bizi duten guneen kohesio soziala;
- bakezaletasuna eta gatazken konponbidea elkarriketaren bidez;
- emakumeen eskubideen alde jokatzeko;
- indarkeriak eragindako biktimei dagokien laguntza edo haien eskubideen defentsa;
- minusbalotasun mota ezberdinentzako gizarte-laguntza;
- tratu txarren prebentzioa eta tortura gertatzen den egoeren salaketa;
- familiartekorik gabe eta baztertuta dauden pertsonentzako osasun eta gizarte laguntza;
- talde profesional ezberdinen defentsa;
- zerbitzu publiko ezberdinen erabiltzaileen defentsa;
- arrisku berezian dauden familientzako laguntza;

Kasu gehienetan (elkarteen eskaerari erantzuna eman ostean, taldearekin harremanetan jarri eta elkarlana gauzatzeko topaguneetan aritzen gara), zuzeneko harremana izan da eta bilera batean baino gehiagotan gauzatu da. Beste zenbaitetan, esaterako, aurreko urteotan hasitako harremanari jarraipena emateko, harremanak ez dira bilera berriak burutuz mantendu; batzuetan informazioa trukatu besterik ez dugu egin, bai ahoz bai agiriaren bitartez.

Era batera edo bestera, bide batetik edo bestetik jota, eta denbora eta arduraldiari dagokionez mugak izan arren, azken urte honetan bilerak egin edo informazioa eta elkarlanerako formulak trukatu ahal izango ditugu, gutxienez honako talde, elkarte eta erakunde hauekin (alfabetikoki adieraziak):

- Afrovasca
- Amnesty International

- APNABI (Bizkaiko Haur Autisten Gurasoen Elkarteak)
- Baroja Elkarteak
- Kriminologoen Elkarteak
- Gipuzkoako guraso bereizien elkarteak (AGIPASE)
- Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Psikologoen Elkarteak (AVAPSI-AVASME)
- ADSIS-Bestalde Gizarte Ekimenerako Zerbitzuen Elkarteak
- San Francisco, Zabala eta Bilbo Zaharra auzoetako elkarteak eta laguntza taldeak
- Beste herrialdeetako giza eskubideen aldeko elkarteak
- HIESAren aurkako elkarteak (Bizkaiko Hiesaren Aurkako Hiritarren Elkarteak, Bizkaiko Hiesaren Aurkako Batzordea, Errotatxo, GHAT, Harri-Beltza, Hies-Ekimena, Txo-lhesa, T-4)
- Hainbat ikastetxetako gurasoen elkarteak
- Hirigintza-planek, ingurugiro-arazoek... eragindako auzoen elkarteak
- Besarka, Arabako harrera eta adopzio elkarteak
- Bidesari
- Bilbo-Etxezabal
- Bizitegi
- Cáritas
- CEAR (Errefuxiatuen Aldeko Batzordeak)
- Preso dauden pertsonen aldeko taldeak
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiesaren aurkako Batzordeak
- Gipuzkoako musulmanen elkarteak
- Unibertsitateko ikasleen kontseilua
- Harresiak apurtuz etorkinen aldeko GKEen Koordinatzailea (honako hauek osatzen dute: CEAR, Bilbo-Etxezabal, Afrovasca, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, UGT, Elkartu, SOS-Arrazakeria, Euskadiko Txinatarren Elkarteak...)
- 0,7 eta + Plataforma eta Garapenerako GKEen Koordinatzailea
- Gurutze Gorria
- Hainbat sindikatu, talde eta profesionalen elkarteak (irakasleak, medikuak, abokatuak, hezitzaileak, ostalariak, psikologoak...)
- Egunabar (psikiatriaren erabiltzaileen elkarteak)
- Elkarri
- Intsumiso eta kontzientzi eragozleen familiar-tekoak
- Hainbat herrialdeetako pertsona atxilotuen edo presoaren familiar-tekoak
- Indarkeria eta terrorismoaren biktimei familiar-tekoak
- FEDEAFES (Gaixo Psikikoen Senideen Elkartearen Euskal Herriko Federazioa) eta federazio horretako kide diren bestelako elkarteak (AVIFES, AGUIFES...)
- Euskal Herriko gorren elkartearen federazioa
- Ikasleen gurasoen federazioa
- Tolerantziaren aldeko erretzaileak
- Arte y Derecho Fundazioa
- EDE Fundazioa
- Haurrak, gazteak eta familia babesteko Haurralde Fundazioa
- Bakearen aldeko Gazteak Fundazioa
- Sabino Arana Fundazioa
- Tierra de Hombres Fundazioa
- Alzheimer-a duten gaixoen tutoretzako fundazioa
- Arabako buruko gaixoen tutoretzako fundazioa

- Gorabide tutoretzako Fundazioa
- Gernika Gogoratuz
- Gesto por la Paz
- Indarkeria eta terrorismoaren biktimen taldea
- Hainbat herrialdetako elkartzunezko laguntzaileen taldea
- Gure herrira elkarlanerako programetan parte hartzera edo beren arazoak azaltzera etortzen diren beste herri batzuetako pertsona taldeak
- Gurasoak kalean
- Gurasoak saiatzen
- Hezilan (Familientzako orientabide eta hezkuntza zerbitzua)
- Hirugarren Mundua eta Bakea
- Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua
- Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Euskal Erakundea (EKA/OCUV)
- Martuteneko espetxeari buruzko plataforma
- Hiru plataforma
- Saharauiar Errepublikako eta emakume saharauiarren ordezkariak
- Salhaketa
- Senideak
- STEE-EILAS, CC.OO., ELA, LAB sindikatuak edo sindikatuetakoko sekzioak
- SOS-Arrazakeria
- Torturaren Aurkako Taldea (TAT)
- Txiroekin bat eginik
- UNICEF

Zenbait kasutan, elkarrekin garatutako elkarlana Ararteko erakundeak berak gauzatutako lan monografiko baten inguruan burutu da. Horrela, esaterako, Euskal Herriko espetxeen egoera aztertzeke lanaren jarraipena (kapitulu honetan bertan aipatzen dena) honako elkarte hauekin bilerak izanik eta informazioa trukaturik burutu da:

- Adsis-Bestalde
- AGIPAD (Drogen gehiegizko Erabilera Prebenitzeko eta Ikertzeko Gipuzkoako Elkarte)
- Bilbo-Etxezabal
- Cáritas (PAEX)
- Lurralde ezberdinetako hiesaren aurkako batzordeak
- Gurutze Gorria
- Etorikintza
- Foronda
- Goiztiri
- Lurralde ezberdinetako Bergizarteratzearen aldeko Erakundea (IRSE)
- Espetxeetako Ekintza Pastoral
- Txagorritxuko zainketa bereziko unitatearen aurkako taldeen plataforma
- Gizakia Helburu
- Salhaketa
- Lurralde ezberdinetako SOS-Arrazakeria
- Presondegietan laguntzeko Abokatuen elkargoetako Txandak (TAP)
- T-4 (HIESaren aurkako borrokarako eta autolaguntzarako elkarte)

Beste zenbait kasutan, elkarteekin izandako harremanak topaketa bereziak burutuz gauzatu ahal izan dira, besteak beste, "Etorkinen gizarteratzeari buruzko foroa". Bertan, erakundeez gain, Harresiak Apurtuz koordinatzailearen barruan dauden elkarten ordezkarari ugarik ere esku hartu zuen.

Informazioa trukatzeko edo bilerak izateak ez du esan nahi erakunde honek horien ondorioz beti ekimenen bat antolatzen duenik berehalaxe. Dena den, askotan, izandako bileren ondorioz, partaide guztien elkarlanari esker, eta talde eta elkarte bakoitzak bere kasa aritzeko duen eskubidea aintzat hartuz, hainbat ekimen bultzatu da, gehienek honako ildo hauetatik jo dutelarik:

- elkarteek aurkeztutako kexen izapidea (bai taldeei bai gizabanakoei dagozkienak);
- Arartekoaren ofiziozko jarduketak administrazioaren sail ezberdinen aurrean arazoak konpontzeko;
- erakunde publiko eta elkarten arteko bitartekaritza lanak;
- erakunde honek eskaintako laguntza elkarte ezberdinek sortutako elkartasunaren aldeko kanpainei;
- proposamen zehatzak elkarte eta administrazioaren arteko elkarlanerako harremanak hobetzearren;
- legeria aldatzeko proposamenen aurkezpena;
- lanerako informazio eta agiri baliagarrien trukaketa;
- arazoren bat eragotzi edo zerbitzu zehatzen bat hobetzeko agintariekin egindako premiazko gestioak...

Adibide gisa, Ararteko erakundeak 1998. urtean burututako hainbat ekimen esanguratsu aipa ditzakegu, elkarlanerako giro honen barruan burutuak alegia. Hona hemen horietako batzuk:

- Talde bakezale ezberdinekin, gatazketan bitartekaritza lanetan aritzen diren elkarteekin eta hainbat ikastetxerekin izandako harremanen ondorioz, gure erakundeak 1996. urtean Eusko Jauraritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean orotariko proposamena aurkeztu zuen bakearen aldeko hezkuntzari buruz. Proposamen horren garapenari laguntzeko eta berau indartzeko, gure erakundeak 1997an elkarlanerako beka batentzako deialdia egitea erabaki zuen, giza eskubideak babesten erakusten duten eskola materialak jorratu eta zabaltzeko bereziki eratu zen beka alegia. Eta 1998. urtean ere helburu bera daukan beste beka bat ere atera da (ikus kapitulu honetako 2.3. atala).
- Gure Ekidegoan ditugun tutoretzako zenbait fundaziok ekarritako informazioa baliagarria gertatu da buruko gaixoen egoera hobeto ezagutu ahal izateko eta gai honen ardura duten erakundeekin beharrezko jarduketei ekin ahal izateko. Era berean, buruko gaixoen familiartekoen elkarteekin izandako harremanen ondorioz, Arartekoak pertsona horien arazoak ongi aztertu nahi lituzke, gure Erkidegoan eskaintzen zaien ospitalez kanpoko zerbitzuari buruz hasitako lanean. (Ikus kapitulu honetako 1.4. atala).
- Laguntza eskaintzen duten elkarteek hainbat salaketa aurkeztu dute atzerritik datozen pertsona asko atxilotua edo egotzia izan delako. Salaketa horiei esker, era askotako ekimenak gauzatu ahal izan dira: agintarien aurrean bitartekaritza lanak eta bestelako gestioak, kexen izapidea, ofiziozko jarduketak...

- Zenbait egoeratan gertatzen den tratamendu fiskala dela-eta, elbarritu fisikoen elkarrekin beren arazoak azaldu ostean, gure erakundeak administrazio ezberdinei hainbat gomendio luzatu die eta arau aldaketarako proposamenak egin ditu.
- Arabako sasoikako langileen egoeraren jarraipenak burutu izanak, elkarrekin edo talde ezberdinekin informazioa trukatu edo elkarlanean aritzeko aukera eskaini digu (Cáritas, Hezilan, ikastetxeak...).
- Gipuzkoako musulmanen elkarrekin izandako harremanak baliagarriak izan dira egun dituzten arazoak ezagutzeko (ez daukate islamdarrentzako hilerrik, beren bilerak egiteko ere ez dute toki aproposik...) eta horietarako konpontzeko beharrezko urratsak egiten jarraitu dugu.
- Elkarrekin batzuek tortura eta tratatu txarrei buruz aurkeztutako salaketak direla eta, Arartekoak erakunde eskudunekin hitz egin du, batez ere Estatuko Defensor del Pueblo delakoarekin eta Barne Sailarekin.
- Euskal Herriko espetxeei buruzko lanak -kapitulu honetako 1.1.1. atalean aipatzen den txosten berezia eragin zuena alegia- eta horren ondoko jarraipenak preso dauden pertsonen laguntza eskaintzen dieten taldeekin informazioa trukatzeko eta elkarlanean aritzeko aukera eskaini digute. Elkarlan horri esker, Arartekoak hainbat gai landu ahal izan ditu: esaterako, preso dauden pertsonentzako laguntza psikiatrikoa, espetxeetan xiringak trukatzeko programa zabaltzea, edo elkarrekin berek bultzaturiko errehabilitazio programa batzuei jarraipena ematea.

1995eko txostenean (Ikus 43-45 or.) erakunde honek administrazio organo ezberdinei aurkeztutako proposamen zehatz bat aurkeztu zuten, programei dirulaguntzak ematerakoan urtebeteko aurrekontuak ezartzen dituen mugak gaintzeko eta gizarte-eragileen eta administrazioaren arteko partaidetza bideratzeko tresna iraunkorrak sor zitezkeen.

Iazko txostenean (75-76 or.) helburu hori lortzeko emandako pauso garrantzitsu batzuk aipatu ziren: zenbait administrazioek aurrekontuen atal batzuetan aldaketak egin zituzten, horiek malgutuz hainbat urtetarako konpromisoak gauzatu ahal izateko; sektore batzuetan kontratuak-programa formula luzatu zen; atzeritik datozen etorkinen gizarteratzea bideratzearen erakundearen arteko foroak sortu zen, gizarte-eragileek ere bertan esku hartuz; legeriari buruzko hainbat proiektuetan zerikusia duten gizarte-eragileekin eztabaidatzeko eta negoziatzeko saiakerak egin ziren... Aldi berean, gizarte-eragileen eta administrazio-organoen lana bateratzeko ahalik eta baliabide gehien erabiltzeko premia azpimarratzen zen, batez ere gizarte ekimena nabaria den arloetan, horrelakoetan elkarlanaren bidez, zalantzarik gabe, hiritarrek zerbitzu hobea eta arreta handiagoa izango baitute. Eta etorkizunean izan zezaketen eragina kontuan izanik, bi ekimen azpimarratzen ziren: etorkinen gizarteratzeari buruzko Foroak sortzea eta bolondresei buruzko Legearen zirriborroa prestatzea.

1998. urtean aurrerapauso handiak eman dira bi gai horietan. Horrela, bada, bolondresei buruzko Legea Eusko Legebiltzarrak onartu zuen ekainaren 25ean, gizarte-eragileek berek parte hartu zuten prozesuari amaiera emanaz eta Bolondresen Euskal Kontseiluak partaidetza eta elkarlanerako eskaintzen duen organoa finkatuz.

Bestalde, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Batzarrak, maiatzaren 11n, etorkinen gizarteratzeko Foro hori kontseiluan bertan sektoreko batzorde iraunkor gisa sartzeari erabaki zuen. Ildo horretatik, Arartekoak iazko txostenean (ikus 75-76 or.) adierazitako oztipoa (babes juridikorik ez izatea) gaintu egin da. Administrazioaren eta gizarte-eragileen arteko lankidetzaren foro hori legez eratu ondoren, Arartekoari komenigarri iruditu zitzaion, legeak eskatzen dion burujabetasuna gordetzearen, kontseilu

horretako kide izateari uztea, bertako kideekin izango duen harremana eta haren funtzionamendu eta proposamenei buruz burutu dezakeen jarraipenaren kalterik gabe.

Bi ekimen horiek administrazioaren eta gizarte-eragileen artean behar-beharrezkoa den eta beste arlo batzuetan (gizarteratzean, garapenerako laguntzan...) erabil daitekeen elkarlanaren adibide argia dugu.

2.2. ARARTEKOAREN IKERKETA-BEKAK

1998. urtean hiru ikerketa beka interesgarri garatu dira Ararteko erakundean, eta horiei zegozkien deialdiak 1996ko urriaren 11ko ebazpenez (urriaren 21eko 203 zk. EHAA) eta 1997ko urriaren 9ko ebazpenez (urriaren 15eko 197 zk. EHAA) egin ziren. Francisco Javier Aguirre Aramburuk, Isabel Paula Sánchez García eta Jorge Morquecho Ibáñezek jaso zuten beka.

Beka jaso duten ikerketa-lanak honako lan hauei dagozkie:

- Justizia, bakea eta giza eskubideen nazioarteko babesa, Jugoslavia Ohia zenerako Nazioarteko Epaimahai Penalak izandako esperientzia.
- Seropositiboak diren pertsonak gizartean baztertzeko eta onartzeko bideak Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Kanpo-lanetarako gizarte-ekimenak EAEn

Urtea amaitutakoan, lan horietako bakoitzaren egoera honakoa zen:

1. Jugoslavia Ohia zenerako Nazioarteko Epaimahai Penala

1998. urtean zehar, Jugoslavia Ohia zenerako Nazioarteko Epaimahai Penalari (ICTY) buruzko ikerketa lana egiten duen pertsona Hagan, Fiskaltzako Kanpo Harremanetarako Unitatearekin elkarlanean aritu da. Hori dela eta, ikerketaren behin-betiko idazkera zertxobait atzeratu da.

Nolanahi ere, ICTY-ren eraketa eta esperientziari buruzko ikerketa amaitua da. Honako gai hauek aztertzen ditu:

- I. Hitzaurrea
- II. Nazioarteko Giza Zuzenbidea, Jugoslaviako gatazka eta Nazioarteko Epaimahai Penala
 - A. Nazioarteko Giza Zuzenbidea
 - B. Jugoslaviako gatazka
 - C. Jugoslaviako ohi-rako Nazioarteko Epaimahaiaren sorrera
- III. Kompetentzia materiala
 - A. Ginebrako 1949ko hitzarmenak larriki urratzea
 - B. Gerraren legeak edo ohiturak bortxatzea
 - C. Genozidioa
 - D. Gizakien aurkako krimenak
- IV. Epaimahaiaren ahalmenak
 - A. Epaimahaiaren legezketasuna: Tadic erabakia jurisdikzioaren gain.
 - B. Ikerketarako ahalmenak; *Sopoenae duces tecum*
- V. Fiskaltzaren esperientzia eta politika kriminaleko gaiak
 - A. Arrain handiak eta txikiak

- B. Atxiloketen arazoa.
- C. Sexu-erasoei dagozkien delituak
- D. GKEen eginkizuna
- E. Serbiarren arbuiapenaren arazoa.
- VI. *Ad hoc* Epaimahaietatik Epaimahai Iraunkor batera aldatzea
- VII. Ondorioak
- VIII. Eranskinak
- IX. Bibliografia

Aipaturiko lan hori 1999ko aurreneko hilabetetarako argitaratzeko prest egongo dela uste dugu. Horri esker, ICTYen eginkizunak zabaltzeko lan ederra egingo genuke, eta giza-eskubideak urratzeari aurre egiteko eta jokaera horiek zigortzeko nazioarteko erakunde batzuek duten gaitasuna hiritar guztientzat ezagunagoa izango litzateke.

2. Seropositiboak diren pertsonak gizartean baztertze eta onartzeko bideei buruzko lana

Ikerketa hori azaroan amaitu eta argitaratu zen, Ararteko erakundearen “Padre Francisco de Vitoria” Giza Eskubideen Bildumaren barruan, *Seropositiboak diren pertsonak gizartean baztertuta*, EAEn izenburuarekin.

Lan horretan “hies soziala” delakoa aztertzen da, eta horretarako pertsona seropositiboan edo hiesa duten gaixoen eta kolektibo horien alde lanean ari diren pertsonen iritziak jaso dira sistematikoki.

Bildutako iritziei esker, hobeto ezagutu ditzakegu gizartean pertsona horiek arbuiazen dituzten hainbat egoera:

- familiaren arbuioa;
- bikoteak alde batera uztea;
- jendearen urruntzea;
- erabateko aurkakotasuna seronegatiboak diren pertsonen aldetik;
- osasun tratamendua;
- lana...

Gure Erkidegoan arrisku berezia duten lau kolektiboren eskubideei dagokien egoera aztertzen da bereziki:

- seropositiboak diren adin txikikoen taldea;
- droga injektagarrien erabiltzaileen taldea;
- hiesa duten emakumeen taldea;
- espetxeraturik dauden pertsonen taldea;

Halaber, GKEek alor horretan duten eginkizun garrantzitsua, gizarte bitartekarien lana eta horiek administrazioarekin duten harremana ere aztertzen da.

Aipaturiko azterlanak pertsona horien egoera zuzenean ezagutzeko bidea eskaintzen digu, eta gaur egun ditugun zerbitzuei ezezik (osasun, gizarte mailakoak...) herritar guztiei eta Erkidego osoari dagozkion arazoak detektatzeko aukera ematen digu. Beraz, garbi erakusten digu zenbat lan egin behar dugun oraindik pertsona horiek gizartean erabat onartuak izan daitezen.

3. Kanpo-lanetarako gizarte-ekimenei buruzko ikerlana.

Ikerlan hau 1998. urtean zehar burutu da. Ikerlanean gaurkotasun handia duten eta etorkizunari begira garrantzi handia izango duten gaiak aztertzen dira. Hona hemen horietako batzuk:

- Euskadiren egoera Ongizatearen Estatuaren aurrean;
- gure Erkidegoan orain arte pobrezia eta bazterkeriaren aurka gehien erabili diren gizarte-ekimenak;
- gure Erkidegoaren egoeran esku hartzeko indar handia duten estrategia batzuk, hiri-ingurunean “esku hartzeko ekimena” izenekoa bereziki azpimarratuz.

Euskadiko edo pobrezia-egoera latzena duten inguruetakoko pobrezia, edo gizarte-ekimenerako oraingo ereduak dituzten mugak aztertzeaz gainera, ikerlanak gizartean bazterkeriari aurre egiteko alternatiba bideragarriak eta arrakastatsuak eskaini nahi ditu. Egiten diren proposamenetan hainbat premia eta eskakizun azpimarratzen dira, esaterako:

- errealitatea aztertzeko ikuspegi metodologi berriak erabili beharra;
- ekimenak nori zuzendu behar zaizkion kontuan hartzea (ez bakarrik pertsonen, baita komunitateen ere);
- pobrezia eta gizarte bazterkeria kontzeptuak bereiztea;
- hiritarren helburuei erantzun dieten eta GKEei sarbidea emango dieten gizarte-partaidetzarako bide berriak sortzea;
- gizarte-eragile ezberdinen artean gizarte ekimenerako eta elkarlanerako sareak sustatzea;
- gizarte-eragileek eta elkarteek erakundeen programetan parte hartzea...

Ikerlana 1999. urterako argitaratzeko prest egongo da seguraski.

...

1988. urtean ere beste ikerketa-beka baterako deialdia egin da 1998ko urriaren 1eko Ebazpenaren bitartez (urriaren 14ko 195 zk. EHAA). Hautaketa prozesua amaitu ondoren, aipaturiko beka Nagore Gardoqui Albizuk jaso du, eta bere ikerlana etxeko indarkeriari buruzkoa izango da.

2.3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HEZKUNTZARI BURUZ ES-KOLETAN ERABILI BEHARREKO MATERIALA LANTZEKO BEKA

Iaz bezala, aurtan ere Ararteko erakundeak egin ohi dituen bi beka-deialdietako bat berezia izan da, eta helburu zehatza izan du: giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskoletan erabili beharreko materialaren lanketa eta zabalkundea bultzatzea hain zuzen. Gainera, aurtengo deialdian gertakari berezi bat azpimarratu da: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrena.

Beka horien deialdiaren bitartez, Arartekoak urtez urte erakutsi duen kezka eta konpromisoa berretsi du: demokraziaren pedagogia. Izan ere, demokraziaren ezaugarri nagusiez baliatuz belaunaldi berrien gizarteratzeak giza eskubideen aldeko hezkuntza du oinarritzat, bakea eta tolerantziaren alde agertzen den hezkuntza hain zuzen. Eskola sistema ez da tresna bakarra, baina gazteek balore horiek ikasi eta beregana ditzaten lagun dezaketen eta lagundu behar duten tresnetariko bat da.

Hain zuzen ere, aurreko urteetako txostenetan ere “Bakearen aldeko hezkuntza” izenburupean erakunde honek horrelako ekimen eta proposamenak aurkeztu zizkion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuari. Koordinazioari buruzko IX. Jardunaldietan gainerako Herriaren Defendatzaile guztiei ere gai horren inguruko proposamenak azaldu genizkien (ikus 96ko txostena, 75tik 80ra bitarteko or.).

Bestalde, gure Erkidegoan eskola mailan balore horiek garatzeko konpromisoa hartu duten hainbat pertsona eta elkarte dugu. Iazko bekaren deialdiari emandako erantzun onak -interes handiko 32 proiektu aurkeztu ziren- eta Arartekoak elkartruckerako antolatutako jardunaldietan izandako partaidetzak (ikus 97ko txostena, 78-80 or.) argi eta garbi erakusten digute pertsona askok giza eskubideen aldeko hezkuntzan duten interesa eta konpromisoa.

1998. urtean honako lanak burutu dira:

- beka jaso zuen taldeak curriculumaren arlo ezberdinetako eskola dinamikan parte hartu ahal izateko beharreko jarduerak eta materialak prestatzen jarraitu du;
- hainbat ikastetxe, arlo eta eredutako irakasleak, prestaturiko materialak beren ikasgeletan probatu eta haien erabilgarritasuna neurtzen ari dira;
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuari eman ditugun eta emango ditugun pausoen berri ematea, Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi baitu sail horri dagokiola giza eskubideen aldeko hezkuntzan programak eta jarduketak gidatzeko eta bultzatzeko erantzukizuna;
- gai honetan interesa edo zerikusia duten talde, pertsona eta zerbitzuei beken garapenaren berri eman zaie.

Aurtengo deialdia 1998ko urriaren 14ko 195 zk. EHAAn argitaratu zen (Arartekoaren 1998ko urriaren 1eko Ebazpena). Horretan 33 proiektu aurkeztu dira.

Beka jaso duten taldeek prestaturiko jarduera eta proposamen esperimantazioa, balorazioa eta berrikuspene egin ondoren, erakunde honek hezkuntza lana aurrera eramateko baliagarri izango diren eskola-material batzuk eskaini nahi lituzke.

Era berean, erakunde honek behin eta berriro azpimarratuko du, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak gai horretan duen erantzukizuna, eta ahal duen neurrian, -eskolan edo eskolatik kanpo- giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz konpromisoa hartu duten pertsona eta taldeen arteko harremanak eta elkarlana bultzatu ditu.

2.4. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN UDAKO IKASTAROEN JARDUNALDIA “GIZA ESKUBIDEEN GAURKOTASUNA ETA ETORKIZUNA 50. URTEURRENEAN” GAIARI BURUZ

Arartekoaren erakundeak, iaz hasitako proiektuari jarraipena emanez, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan giza eskubideen azterketari buruzko jardunaldia antolatu du.

Aurtengo jardunaldia “Giza Eskubideen Aitorpenaren gaurkotasuna eta etorkizuna bere 50. urteurrenean” gaiari buruzkoa izan da, urteurren horren ospakizunari loturik hain zuzen. Jardunaldiaren bitartez Aitorpenaren garrantzi historikoa, gaurkotasuna eta etorkizuna aztertu nahi izan da.

Aurkezpen-saioan, Arartekoak, Xabier Markiegi, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala sortu zeneko egoera historikoa eta haren ekarpenak aztertu zituen, Aitorpenaren alderdirik aipagarrienak nabarmenduz eta eskubide berrien premiazkotasunari dagokionez etorkizunerako aurreikuspenak aztertuz; era berean, giza eskubideek partikularren aurrean izan behar duten eraginkortasuna eta justizia unibertsalaren premia azpimarratu zituen.

Aurreneko txostena “Gizartearen eskubideen etorkizuna” Valentziako Unibertsitateko Etika eta Filosofia Politikoko katedradun Adela Cortinak aurkeztu zuen. Txosten horretan, giza eskubideak “eskubide moral” gisa aztertu zituen; jarraian, giza eskubideak eta herritarrak aztergai harturik, eskubideen ahultasuna eta babes-neurriak hartzeko zailtasuna azpimarratu zuen, etorkizunari begira gogoeta batzuk eginez.

Bigarren txostena Valentziako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiako katedradun Javier de Lucasek aurkeztu zuen “Giza eskubideak, unibertsaltasunaren eta nortasun-aitorpenaren artean” izenburupean. Txosten iradokitzaile horretan adierazi zuenez, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari buruz egiten diren kritika interesgarrietako batzuk unibertsaltasunaren printzipioari dagozkio.

Gogoeta egin zuen unibertsaltasunaren printzipioaz, baina gizaki guztien berdintasun gisa eta ez diskriminazio gisa harturik.

Kultur aniztasuna kontzeptuari buruz eta Aitorpena pentsamolde etnozentrikoen adierazpena dela diotenen kritikaz ere gogoeta egin zuen.

Jarraian, jardunaldiaren gai nagusiari buruzko mahaingurua egin zen.

Jaime Oraák, Deustuko Unibertsitateko “Pedro Arrupe” Giza Eskubideen Institutuko Zuzendariak, “Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren balio juridikoari buruzko gogoeta batzuk” egin zituen; hitzaldian defendatu zuenez, Aldarrikapen Unibertsala Nazio Batuen Gutunean giza eskubideei buruz adierazitako betebeharren interpretazio onartua da, eta klausula askok Nazioarteko Zuzenbide ohiturazkoaren izaera dute.

Amnesty International-ek Espainian duen Ordezkaritzako Zuzendariak, Andrés Krakenberger-ek, eta UNICEF-en Espainiako Batzordeko Garapenerako Hezkuntza, Komunikazio eta Programen Zuzendariak, Jose Juan Ortiz Bru-k, beren erakundeen ikuspegitik aztertu zuten Aldarrikapen Unibertsala.

2.5. GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO “PADRE FRANCISCO DE VITORIA” BILDUMA ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK

Giza eskubideen aldeko kultura sustatzeko hartutako neurrietako bat, giza eskubideei buruzko “Padre Francisco de Vitoria” izeneko argitalpen bilduma sortzea izan zen.

1998. urtean bilduma horretako liburu berri bat argitaratu da: Isabel Paula Sánchez García-ek idatzitako *Rechazo social hacia las personas seropositivas en la CAPV* izeneko

Halaber, “Giza eskubideei buruzko jardunaldiak” izeneko bildumako argitalpen batean, *Arrazarengatik diskriminatua ez izateko eskubideari* buruzko txostenak eta hitzaldiak jaso dira.

Azkenik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrena dela-eta, Valentín de Foronda arabarraren *Cartas sobre la policía* obraren faksimile-edizioa kaleratu da.

3. **GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEE- KIKO JARDUERAK**

3.1. **HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XIII. JARDUNALDIAK**

Gauza jakina denez, Herriaren Defendatzaileen eta autonomia erkidegoetako ordezkarien arteko harremanak koordinazio eta elkarlana ditu oinarritzko ardatz nagusiak.

Espedienteen ohiko gestioa dela-eta autonomia erkidego ezberdinetan kide diren erakundeek urtean zehar harreman estua izaten duten arren, urtero antolatzen dira, horrez gainera, herriaren defendatzaileen arteko koordinazio jardunaldiak, erakunde horiek guztiek dituzten arazoak eztabaidatu eta iritziak agertu eta kontrajartzeko topaleku gisa.

XIII. Jardunaldiak Kanaria Irletan egin ziren urriaren 21 eta 24ean Diputado del Común-ek antolatuturik, eta ondorengo aztergaiak jorratu ziren:

- Familia-bitartekotza
- Herriaren defendatzaileen harremanak Administrazioarekin.

Aurtengo ere unibertsitateko irakasleak hizlari izan dira jardunaldietan, aurkeztutako gaien azerketari ikusmolde zientifikoa emanez.

3.1.1. **FAMILIA-BITARTEKOTZA**

Bilera horretan Diputado del Común-ek, Fernando Giménez jaunak egin zuen moderatzaile lana.

Elvira Afonso Rodríguez andreak, La Lagunako Unibertsitateko irakasleak “La mediación familiar: una cuestión preventiva” izeneko hitzaldia egin zuen.

Arartekoak, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak abian jarritako familia-bitartekotzarako zerbitzuaren berri eman zien beste parlamentuetako ordezkariari. Hona hemen azaldu ziena:

“1990eko urrian, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak Familia-Bitartekotzarako lehenengo Zerbitzu publikoa abiarazi zuen. Zerbitzu hori Familia-Epaitegien osagarri eta lagungarri gisa sortu zen, batez ere banantze eta dibortzio kasuak elkarren arteko erabakiz bideratzeko prozedurak sustatzeko. Zerbitzu hori lanean aritu den aurreneko urteari buruzko Txostena -dagozkion fotokopiak eskura dituzue dagoeneko- nahiko argigarria da esperientzia aintzindari honen inguruko xehetasunak ezagutzeko. Orain, Familia-Bitartekotzarako Zerbitzuak dituen hiru alderdi funtsezko aipatu nahi nizkizueke:

1. Zergatik sortu den
2. Zer den
3. Nolako emaitzak lortu dituen

1. Familia haustea krisialdi pertsonal eta afektibo baten adierazgarria da, eta era guztietako ondorioak sortarazten ditu arazo hori duten pertsonengan. Hala ere, estatistikek erakusten digutenez, banantze edo dibortzio kasuetan gehienbat erabiltzen den mekanismoa auzi-jardunbidea izaten da.

Esan daiteke tresna juridiko hori ez dela behar bezain eraginkorra familia-gatazka bere arlo ezberdinetan ebatzi ahal izateko. Aitzitik, auzi horrek enfrontamendua areagotu eta konponbide egokien bilaketa zailago egiten du, alderdietako bakoitzak bere eskubideak baliarazteko beste ezkontidearen ez-betetzeak agertarazi behar baititu. Gainera, auzibidea “galdu” edo “irabazi” egiten den prozedura gisa eratu denez, epaileak

emandako epaia arbuaiatu egiten da, ezarpen baten moduan hartzen baita, eta ez da norberaren konpromisoa balitz bezala hartzen. Funtsezko arazo horiez gainera, badira beste arazo garrantzitsu batzuk ere, hala nola epaiketa-jardunbidearen makaltasuna eta haren kostu ekonomikoa.

Auzi-jardunbidearen alderdi horiek saihesteko eta familia-gatazken konponbide autonomoa eta adostua sustatzeko, Eusko Jaurilaritzako Justizia Sailak familiaren Bitartekotzarako Zerbitzua jarri zuen abian.

2. Zerbitzu publikoa **honelakoa da**: 'profesional ezberdinez osaturiko talde batek, bitartekariaren edo/ eta bitartekariaren bidez, ezkontzan nahiz ezkontzatik kanpo banantze edo dibortzio gatazkaren bat duten alderdien (bakarraren edo bien) eskakizunari erantzuten dio, bikotearen elkarbizitza bertan behera uztea eragin duen familia-gatazka konpontzeko alternatiba bat eskainiz, bide jurisdikzionalaren aurkakotasunik gabe. Ez da beharrezkoa elkarte hori ezkontzaren esparru juridikoan sartuta egotea; familia gunea osatzen duen eta hausteko prozesuan dagoen edozein bikote-bizitzazko egoera izan daiteke bitartekotzaren helburu. 'Bitartekotza laguntza juridiko eta psikologikoa duen zerbitzua da, eta profesional ezberdinez osaturiko talde batek prozesuan parte hartzen duten alderdiei laguntza eskaintzen die; adostasunak eta desadostasunak sistematikoki bereizteko denbora ematen die, familiako kide bakoitzaren premiak -batez ere seme-alabei dagozkienak- kontuan izanik desadostasunei irtenbideak bilatzen laguntzen die, eta banantze edo dibortzioaren alderdi ezberdinei buruz adostasunezko erabaki bat lortzeko konpromisoak bideratzen ditu, bikoteko kideei erabaki arduratsuak hartzen laguntzen.

3. EAEan Familia-Bitartekotzarako Zerbitzuak 2 urte daramatza lanean; horren arabera, ondorengo **balorazioa** egin dezakegu:

Honekin batera doan Txostenean ikusten den bezala, Zerbitzuaren jarduerari esker, elkarren arteko erabakiz izapidaturiko banantze eta dibortzio kopurua handitu egin da, bai bide judizialean, bai bide judizialek kanpo (izatezko bikoteen banantze edo hausteetan), eta hori, berez, emaitza ona da.

Eskubideen aldeko gure erakundeen ikuspegitik, era horretako zerbitzu publikoen balorazioak positiboa izan behar du. Partikularren arteko gatazka konpontzera bideraturik egon arren eta berez gure eskumenetik kanpo dagoen eremuan sartzen badira ere, lortu nahi diren helburuak bat datoz kultura juridikoaren, giza eskubideen eta gizarte bakeatzaren aldeko gure eginkizunekin. Izan ere, banantze prozesuak adostasunez konpontzeak honako alderdiak hartzen ditu bere barrenean:

* Norbanakoaren autonomia sustatzea, gatazken protagonistek arazo pertsonalen kudeaketaren ardura eta koponketa beren gain hartzen dutelako.

* Seme-alaben zaintzari dagokionez, elkarren arteko erabakiz neurriak hartzea; horrek esan nahi guraso aginteari dagozkion eginbeharrak beteko direla, eta beraz, adin txikikoen babes eta segurtasunerako eskubidea errespetatuko dela. Familia hausten denean, eskubide horiek murriztu ezezik indartu ere egin beharko lirakeke.

* Auzi-jardunbideak saihesti, edo gutxienez prozedurak azkarragotzea, era horretan baliabide gutxiago erabili beharko baitira.

* Banandutakoan hartu diren neurriak maila handiagoan betetzea; agian goiz da oraindik horri buruzko balorazioak egiteko, baina familia hausten denean adostasunezko erabakiak duen abantaila handienetako bat zera da: neurri ekonomikoei, seme-alabak zaindu eta bisitatzea eta abarri buruz neurriak maila handiagoan betetzen direla. Gaur egun, Arartekoari justizia gaietan iristen zaizkion kexetatik asko, bikotea banandu ondoren sortzen diren betebeharrak ekonomikoei buruzkoak izaten dira, bereziki zorraren ordainketa lortzeko bide judizialaren eraginkortasunik ezari buruzkoak. Arazo horrek eragin handiagoa du emakumezkoetan, eta "pobreziaren emakumetzea" izeneko gertakaria sortarazten duten faktoreetako bat da; alde horretatik, gure erakundeek arreta eskaini behar diote arazo horri. Arartekoaren ustez, gai honetan familia haustean sortzen diren pentsioak bermatzeko fondo publiko bat sortu beharko litzateke; hala ere, bide hori pertsona guztien benetako berdintasuna sustatzeko beste aukera bat izango litzateke, eta aurrerantzean ere horretaz jarduteko aukera izango dugu."

3.1.2. **HERRIAREN DEFENDATZAILEEN ETA ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO HARREMANAK**

Lan-saio honetan Fernando Alvarez de Miranda Herriaren Defendatzailea aritu zen moderatzaile lanean.

Kanaria Handiko Las Palmas-eko Unibertsitateko Pedro Carballo Arenas irakasleak "La eficacia de las resoluciones del Diputado del Comun: Un auténtico Ombudsman?" gaiari buruz jardun zuen.

Jarraian, Arartekoaren Idazkari Nagusiak, Faustino López de Forondak, "Herriaren defendatzaileek herri-administrazioekin dituzten harremani buruzko gogoeta batzuk" gaia aurkeztu zuen.

Interesgarria dela iritzita, Arartekoaren Idazkari Nagusiak aurkeztutako testua txosten honen 1. Eranskinean doakizue.

3.1.3. **ONDORIOAK**

Jardunaldi horiek amaitzeko, honako ondorio hauek eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrenari buruzko komunikatu bat onetsi ziren:

ONDORIOAK:

1- Familia babesteari buruzko eta adin txikikoen interes juridiko gorenari buruzko konstituzio printzipioak direla eta, botere publikoak beharturik daude familia mailako gatazka egoerei irtenbideak bilatzera, ahulenen -gehienetan seme-alaben eta emakumeen- arazoei erantzun bat ematen saiatzearen, familien baitan gatazkak konpontzeko prozeduren bidez, prozedura judizialaren osagarri baina ez horien ordezeko lirakeenak, besteak beste arintasuna eta ekonomia bultzatuz.

Ildo horretatik, botere publikoek zenbait esperientzia aztertu eta ikertzearen egokitasuna eztabaidatu da, hala nola autonomia erkidegoren batean abian jarritako famili bitartekaritzako zerbitzuak. Zerbitzu publiko horiek, disziplina anitzeko izaera dutelarik, gizarte zerbitzu dohaineko eta borondatezko gisa egituratzen dira, familia mailako gatazkak berezkoak dituen arrisku egoerak aurreikusi nahirik.

2- Erakunde ezberdinen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzeko bide horretan (hori baita Jardunaldi hauen helburua), ordenamendu juridikoak herriaren defendatzaileei ematen dizkien ahalmen guztiak gauzatu beharra nabarmentzen da, izendaturik dauzkaten kontrol eginkizun horiek betetzeko orduan eraginkortasun mailarik handiena erdiesteko asmoz. Helburu horri begira, herriaren defendatzaileek herri administrazioei gogorarazten diete lankidetzan aritzeko obligazioa dutela, eta informazio eskakizunei erantzuteko eta beren eskaera eta ebazpenei buruzko azalpenak emateko legezko obligazio hori betetzea eskatzen diete.

KOMUNIKATUA:

Herriaren defendatzaileek, Giza Eskubideen Aitorpenaren berrogeita hamargarren urteurrenean, beren izaera unibertsalak duen garrantzia aldarrikatzen dute, giza duintasunak berezkoa duen zerbait bezala, eta funtsezkotzat jotzen dute botere publikoek ziurta dezatela, eskubide politikoak eta askatasun publikoak ez ezik, gizarte, ekonomia eta kultur mailako eskubideak ere beteko direla.

Gure herrian oraindik baditugu pobrezia eta langabezia egoerak, etxebizitza, osasuna eta hezkuntza arloko arazoekin batera. Gure botere publikoek ahalegindu beharko dute Aitorpen Unibertsalean eta gure Konstituzioan jasotako eskubideak errealitate bilaka daitezen.

Halaber adierazten dute, milioika pertsona pobreziarik erabatekoenean uzten dituen nazioarteko orden bat dagoenez guztiz bidegabea, botere publikoek elkartasunezko neurri batzuk hartu beharko dituztela, 28. artikuluaekin bat etorritik, **Aitorpen honetan**

aldarrikatutako eskubide eta askatasunak gauzatu daitezela ahalbidetuko duen gizarte eta nazioarte mailako orden bat ezartzeari begira.

Azkenik, gogoratzen dute Aitorpenaren atarikoak zera eskatzen duela, hots, erakundeek **eskubide eta askatasun hauek irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez susta ditzatela**, eta horrenbestez, botere publikoei eskatzen diete helburu hori lortzeko beharrezkoak diren sustapen neurri guztiak martxan jar ditzatela.

3.2. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN, MANDATARIEN ETA GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE PUBLIKOETAKO LEHENDAKARIEN FEDERAZIO IBEROAMERIKARRAREN HIRUGARREN KONGRESUA

1998ko irailaren 6tik 9ra bitartean, Ombudsmanen Federazio Iberoamerikarraren Hirugarren Kongresua (FIO) egin zen Liman (Peru).

Jardunaldi horien asmoa, eztabaida gune bat sortzeaz gainera, Ombudsmanen figura hori Iberoamerikako herrialdeetan ezartzea da.

Esandako kongresu horretan herrialde ezberdinetako defendatzaileek hartu zuten parte, eta besteak beste, Federico Mayor Zaragoza Unescoko Zuzendari Nagusiak.

Xabier Markiegi Arartekoak komunikazio bat aurkeztu zuen "Arartekotza eta emakumearen eskubideak" izenburupean. Komunikazio hori txosten honen 2. Eranskinan transkribatzen da.

III. Kongresu honen azken emaitza gisa, LIMAKO AITORPENA izenekoa prestatu zen, eta berau, jarraian dator idatzirik:

Herriaren Defendatzaileek, Prokuradoreek, Hornitzaileek, Mandatariek eta Giza Eskubideen Batzorde Publikoetako Lehendakariak, Ombudsmanen Federazio Iberoamerikarraren III. Kongresuan (FIO), Liman (Peru), 1998ko irailaren 6tik 9ra bitartean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrenaren ospakizunen eta Gizakiaren Eskubide eta Betebeharren Aitorpen Amerikarraren esparruan, ADIERAZTEN DUTE beren herrialdeetan giza eskubideak sustatzeko eta horiek guztiz gauzatu daitezela eragozten duen edozein ekinza baztertzeko konpromisoa hartzen dutela.

Testuinguru honetan Ombudsman Iberoamerikarrek:

- 1. ADIERAZTEN DUTE Ombudsmanen erakundea sustatu eta finkatu beharra dagoela, Konstituzioen testuetan barneratuz eta horien eginkizuna garatzeko beharrezkoak diren eskumenak aitortuko dizkion legeria bat ezarriz. AZPIMARRATZEN DUTE Estatuak eta bertako funtzionarioek Ombudsmanekin lankidetzan aritzeko obligazioa dutela haien eginkizunetan lagunduz, haien eskumenak eta ahalmenak aitortuz, eta haien eginkizunak garatzeko beharrezkoak diren berme eta baliabideak eskainiz erabateko independentzia politiko eta funtzional batez. Bereziki, Ekuador, Nikaragua eta Paraguaiako nazio agintariei ESKATZEN DIETE legeriaren barruan jada sortua dagoen erakunde hori abian jar dezatela eta POZEZ HARTZEN DUTE Txileko Lehendakariak bere herrian Herriaren Defendatzailea aurki sortzeko konpromisoa.
- 2. ADIERAZTEN DUTE beren gaitasuna indartzeko konpromisoa hartzen dutela herritarrek erakunde publikoetara iritsi daitezela eratzeko eta herritarren eskakizunei irtenbide bat ematen saiatzeko, 'erreklamazioaren kultura' deitzen den hori bultzatuz. Ombudsmanak Estatuaren laguntzaile kritiko bezala jokatzeko duenez, babesik gabeko egoerak gairatu ahal izango dira.
- 3. AZALTZEN DUTE kezkatuak daudela beren herrialde askotan jasaten ari diren bortxakeria politiko eta sozialarekin. Horren aurrean, bakearen kultura bat sustatzeko konpromisoa hartzen dute, herritarren garapena eta segurtasuna erraztuko duena, pertsonaren duintasuna gizartearen eta Estatuaren balorerik gorena bihurtu dadila bultzatuz. Horri begira, Ombudsmanek bere gain hartzen dute bakearen eraikuntza sustatzeko, egia argitzen laguntzeko eta zigorgabetasuna zorrotz jazartzeko ardura.

- 4. PROPOSATZEN DUTE Estatuko erakundeak modu eraginkorrago baten gainbegiratu dituztela, herritarren premia zehatzei erantzun dieten gobernu jardura zuzenak ezartzeko, Estatuaren erreformarako eta administrazioaren sinplifikaziorako prozesuetan aktiboki parte hartuz. Ildo horretatik, justizia denontzat eskuragarriago izan dadila ALDARRIKATZEN DUTE, horren ukapen modu ezberdinak gaindituz, baita auziaren beraren luzapenak eta bortxaketak eragiten dituztenak ere. NABARMENTZEN DUTE Ombudsmanek erreforma judizialeko prozesuetan parte hartzeak berebiziko garrantzia duela, justiziako administrazio sistemen laguntzaile gisa, horrek eginkizun jurisdikzionalen interferentziarik sortu gabe. Justiziako zerbitzua nola eskaintzen den gainbegiratzeko eginkizun horretan, Ombudsmanek konpromisoa hartzen dute tutoretza jurisdikzionala egingo dutela, Konstituzioa bermatzeko ekintzen arauzkotasuna bereziki zainduz, eta habeas corpusa, tutoretza eta babesa errespetatzen dela bereziki ziurtatuz.
- 5. AZPIMARRATZEN DUTE, pribatizazio prozesuaren testuinguruan ere, oinarriko zerbitzu publikoek oro har herritar guztiarentzat eskuragarri izan behar dutela, eta bereziki, baliabide gutxien dutenentzat, beren bizi-kalitatea hobetzeari begira. Dagozkion erakunde gainbegiraleen eginkizunari merezimendurik kendu gabe, Ombudsmanek DAGOKIE AHALEGINTZEA zerbitzu horiek egoki eta eraginkorki eskuratzera ahalbidetu dadila, eta erregulazio mekanismoak partehartzaileak eta demokratikoak izan daitezela, herritar-erabiltzaileen funtsezko eskubideak zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresekiko erlazio desorekatu eta sarritan monopolizatzaile horren aurrean babestuz.
- 6. BERRETSI EGITEN DUTE gizakion arteko berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren garrantzia. Beren herraldeetan emakumeen aurkako diskriminazioaren kultura ezabatzeke beharrezko neurriak bultzatzeko konpromisoa hartzen dute. POZEZ HARTZEN DUTE Iberoamerikan eskubideen defentsan espezializatutako zazpi bulego ireki izana, eta Ombudsmanek ESKATZEN DIOTE ahalik eta eperik laburrenean bulego espezializatu horien kopurua areagotu dezatela eta generoaren ikuspegia Ombudsmanaren erakundearen lanetan sartzeko prozesu horri jarraipen eman diezaiotela.
- 7. BERRIRO AGERTZEN DUTE gure gizartearen ezaugarri den aniztasun etniko eta kultural hori onartzen duten politika estatalen aldeko beren konpromisoa, herri indigenen eskubideak defendatzeko programa berezituak sortzeko erabaki horri helduz, horien bizipenak ulertu eta horiekin komunikatzeko gaitua dagoen pertsonalaren bidez.
- 8. AITORTZEN DUTE lan garrantzitsua burutzen dutela komunikabideek eta kazetariak informazioa zabaltzen eta interes publikoko gaiak aztertzen, adierazpen, informazio eta iritzirik askatasunak funtsezkoak bilakatzen baitira demokraziarentzat eta giza eskubideentzat. Berziki, BERRETSI EGITEN DUTE komunikabideekin lan garrantzitsu horretan lankidetzan jarraitzeko konpromisoa, eta beren eskerrona adierazten dute Iberoamerikan Ombudsmanaren lanari eskaintzen dioten laguntzagatik, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren eskariz OEAREN Batzar Nagusiak sortutako Adierazpen Askatasunari buruzko Errelatoria Bereziari beren lankidetzara eskaintzeko prest agertzean.
- 9. AITORTZEN DUTE giza eskubideak defendatzen dituzten herritarrek lan aipagarria burutzen dutela eta horien aurka egindako eraso-ekintzak gaitzesten dituzte. Gobernuak eta nazioarteko erakundeak horiek babesteko neurri eraginkorrak hartzea bultzatzen dituzte, horien eginkizuna bermatzeko duten araudi-tresnak hartzea ere barne.
- 10. GAITZETSI EGITEN DUTE Ombudsmanaren eta bere laguntzaileen eginkizuna ahuldu edo mugatzeko xedea duten mehatxu eta neurri arbitrario oro, FIOri edozein erasoren aurrean erne egon dadila ESKATUZ.
- 11. ADIERAZTEN DUTE izaera iraunkorreko Nazioarteko Gorte Penal bat ezartzea zigorgabetasunaren aurkako borrokan funtsezko urrats bat eta giza eskubideen defentsa eraginkor bat dela. KONPRMISOA HARTZEN DUTE beren herrialdeetan Erromako Konferentzia Diplomatikoan joan den uztailaren onartutako Estatutua lehenbailehen berres dezaten ahaleginduko direla.
- 12. AINTZAT HARTZEN DUTE 1998ko ekainean Caracasen egindako Estatu Amerikarren Erakunde (OEA) Batzar Nagusiak adierazitako laguntzaren garrantzia, eta erakundearen Idazkari Nagusiari eskatzen diote Ombudsmanek OEAKo organo ezberdinen lanetan parte hartzeko mekanismoak bultzatzen ahalegindu dadila. Gainera, beren jarrerarik aldekoena ESKAINTZEN DIOTE Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrari, komunak zaizkien helburuak betetzen lankidetzan aritzeko.
- 13. ESKATZEN DIOTE Giza Eskubideetarako Nazio Batuetako Goi Mandatariari aintzat har dezala Giza Eskubideen Batzordearen Genevako urteko eztabaidetan espazio propio eta berezi bat edukitzeko Ombudsmanek duten gogo hori.
- 14. AZPIMARRATZEN DUTE garrantzi handia duela Ombudsmanek eskualdean burutzen duen eginkizuna kontuan har dezatela Goi Bilera Iberoamerikarrek, eta ildo horretatik, BEGI ONEZ IKUSTEN DUTE José Menere Pimentel Portugalgo Justizia Hornitzailearen ekimena, alegia, Estatu eta Gobernu Buruen Zortzigarren Goi Bilera Iberoamerikarraren Prestakuntza Foroa datorren irailaren 25ean Oporton (Portugal) egiteko deialdia.

- 15. UNESCOko Zuzendari Nagusiari ESKATZEN DIOTE 1999. urtean Bakearen Kulturarako Ombudsmanen Sare Iberoamerikarraren bilera berri bat egitea, 1996ko ekainean Antiguan (Guatemala) hasitako ahaleginei jarraipen emanez.
- 16. AITORTZEN DUTE Giza Eskubideen Erakunde Interamerikarra eta Iberoamerikako Legelarien Batzorde Andinoa eginkizun handi bat burutzen ari direla Ombudsmana sustatu eta finkatzeko asmo horretan, eta nazioarteko kooperazio bulegoei eskatzen diete beren lankidetzak eskain dezatela asmo horiei begira.
- 17. ABEGI ONEZ HARTZEN DUTE Hondurasko Giza Eskubideen Nazio Mandatari Leo Valladares Lanza dk.ak egindako proposamena Federazioaren IV. Kongresua datorren urtean bere herrian egiteari begira, eta halaber, Ombudsmanak pobreziaarekin, Zuzenbidezko Estatuaren sendotzearekin, informazio eskubidearekin eta zigorrik gabeko presoen egoera eta eskualdeko espetxe baldintzekin izan beharreko harremana gai-zerrendan sartzeko proposamena.
- 18. Beren eskerrona ADIERAZTEN DIETE Ombudsmanaren Federazio Iberoamerikarraren III. Kongresu hau gauzatzen lagundu duten pertsona guztiei, eta bereziki Peruko Herriaren Defendatzaileari eta bere laguntzaileei, baita beren laguntza eskaini duten Peruko erakunde eta nazioarteko antolamenduei ere, eta beren atsegina agertzen dute ERABAKI hauek LIMAKO AITORPENAZ izenez ezagunak izan daitezzen.

3.3. EUROPAKO OMBUDSMENEKIN SEIGARREN MAHAINGURUA, EUROPAKO KONTSEILUAK ANTOLATUA

1998ko urriaren 7tik 9ra, Europako Ombudsmenekin Seigarren Mahaingurua egin zen Maltaan, Europako Kontseiluak antolatua.

Bilera horretan, giza eskubideak bermatzearen ikuspegitik garrantzi ukazina duten bi gai aztertu ziren:

- Errefuxiatuen eta asilo eskatzaileen eskubideak.
- Askatasunik gabeko pertsonen eskubideak.

Errefuxiatuen eta asilo eskatzaileen eskubideekin loturik, *Arartekoak "El derecho a la no discriminación por motivo de raza"* liburua aurkeztu zuen lanerako dokumentu gisa. Arartekoak Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen esparruan gai honen inguruan antolatu zuen jardunaldi baten emaitza gisa argitaratu zen liburu hori. Aurkeztutako lanerako dokumentu honek ondokoa biltzen du:

- Michel Maffesoli Sorbonako Unibertsitateko irakaslearen txostena, "Société ou communauté. Tribalisme et sentiment d'appartenance". (Txosten hau bere jatorrizko hizkuntzan -frantsesez- argitaratua dago).
- Espainiako ordenamendu juridikoa aztertzen duten Zuzenbide Konstituzionaleko irakasleen beste txosten batzuk:
 - * "Atzeritarren egoera konstituzionala Espainian"
 - * "Asilo eskubidearen defentsan izandako atzerapenak"

Azkeneko txosten honetan, dagokigun gai hau zuzenean eta ikuspegi kritiko batetik aztertzen da. Zehazkiago, Schengengo Hitzarmentetik, Dublingo Hitzarmentetik eta Espainiako Parlamentuak 1994an onetsitako Asilo Legearen aldakuntzatik ateratako ondorioak aztertzen dira; alegia, asilo eskubidean duen eragin erreala, errefuxiatuei buruzko 1951ko Genevako Hitzarmenean jasota dagoen bezala.

- Etorkinak gizarteratzeko arazo zehatzei buruz hiru pertsona garrantzitsuk eskaintzen duten ikuspegia:

- * magrebtarren arazo eta bizipenak EAEn (Magrebeko Erakundeak Euskadin duen koordinatzaileak aurkeztua);
- * egun inmigrazioak Andaluzian dituen arazoak, Afrikatik ihesi doazen pertsona askoren Europaranzko derrigorrezko igarobide gisa (José Chamizo Andaluziako Herriaren Defendatzaile jaunak aurkeztua);
- * arazoen ikuskera Estatuko Administrazioetik (Barne Ministerioko Barne Politikarako Zuzendari Nagusiak aurkeztua).

Gainera, liburu horrek, bere lehenengo zatian, etorkinen eskubideen defentsan Arartekoak burutzen duen eguneroko jardunean sortutako gogoetak jasotzen ditu:

1. zein bide erabiltzen duen pertsona horien arazoak ezagutzeko eta esku hartu ahal izateko;
2. zein arazo zehatz ikusten dituen: batzuk, atzerritartasun eta asiloari buruzko egungo lege-esparrutik eratorriak; beste batzuk, pertsona hauek gizaratean eskubide osodun herritar gisa aintzat ez hartzetik eratorriak;
3. zein jardunbide duen Arartekoak pertsona horien egoera hobetu ahal izateko.

Bestetik, Arartekoak, “Askatasunik ez duten pertsonen eskubideak” izeneko gaiarentzako ekarpen gisa, jarraian idatzirik datorren komunikazioa aurkeztu zuen

1995. urteko azkeneko hilabeteetan, Ararteko erakundeak (Ombudsman du Pays Basque) EAeko hiru espetxeetan askatasunik gabe dauden pertsonen egoera sakonki aztertzeari ekin zion. Hiru espetxe erakunde hauen erantzukizuna Estatuko Administrazioaren eskumena da oraindik ere. Nolanahi ere, Administrazio zentralaren eta euskal Administrazioaren artean lankidetzaz hitzarmen bat izateak Arartekoari aukera eman zion bere kontrol eginkizunak burutu ahal izateko.

Gai bakarreko lan horrek hala eskatuta, 21 egunez egon ginen espetxeetan, zoriaren arabera aukeratutako 117 espetxeraturi (gizon nahiz emakume) buruz buruko elkarrizketak egin genizkien, eta beste hainbat bilera egin genituen zentroetako talde profesionalekin eta askatasunik gabeko pertsonen laguntzeko elkarteetako hogeita hamarren bat ordezkarekin.

Lanean izan dugun irizpidea, jakina, pertsona horien eskubideak babestea izan da. Ikuspegi horretatik, Arartekoak (Ombudsman du Pays Basque) 57 gomendio zehatz egin zituen administrazio erantzuleei, eta urtez urte, horiek betetzen al diren jarraitu du.

Mahainguru honi egiten diodan ekarpena, beraz, espetxe ingurune horretan izandako lan-esperientzian oinarritzen da, eta dakizuen bezala, ingurune hori bereziki konplexua da, pertsonen eta beren eskubideek zapalkuntza nabarmeneko egoerak topatu ohi baitituzte bertan.

Gure jardura guztien ardatz izan diren oinarriko printzipioak ondorengoak dira:

- Askatasunik gabeko pertsonen beste edozein pertsonen eskubide berberak eduki behar dituzte bermaturik, eta egindako legehausteagatik ezarri zaien zigoretik zehatz-mehatz eratorzen denaz aparte ez dute beste alderik edukiko.
- Horien eskubideak guztiz gauzatu direla bermatzea espetxeetako Administrazioari dagokio, eta horretarako beharrezkoak diren bitarteko eta baliabide guztiak enplegatu behar ditu.

Espetxeetako eremua bezain testuinguru itxi batean -funtsean halaxe baita-, Administrazioak pertsonen eskura jarritako bitartekoen gaiak berebiziko garrantzia du. Oinarriko zenbait eskubide, esate baterako lanerako, hezkuntzarako edo osasunerako eskubideak, Administrazioak horretarako beharrezkoak diren baliabide guztiak benetan eskaintzen baldin baditu bakarrik gauzatu ahal izango dira.

Puntu honetan, askatasunik gabeko pertsonen duten bizitzarako eta osasunerako eskubidea aztertu nahi dut bereziki.

Zorionez, gure herrietan ezabatua dago heriotza-zigorra, eta hori gizabidearen adierazgarri bat bezala ulertu behar dugu. Halere, oraindik asko dira espetxeetan bizia galtzen duten pertsonak.

Agian ez gara gehiegi jabetu azkeneko urteotan gure espetxeak benetako ospital bihurtzen joan direla. Gure espetxeetan giltzapaturik dauden asko legez kanpoko drogen trafikogatik edo horien kontsumoarekin

loturiko legehausteengatik daude. Sarritan gaixorik dauden pertsonak izan ohi dira: drogamenpekotasun arazoak dituzten pertsonak, buruko gaixotasunak dituzten pertsonak, gaitz kutsakorrek eta are sendaezinak dituzten pertsonak...

Egia da, pertsona horietako batzuentzat, espetze ingurune horretan egotea osasunaren zainketarako zerbitzuekin izandako lehen harreman serioa dela. Baina egia da halaber, espetze zentroak, oro har, ez direla eraiki eta ez diseinatu pertsona gaixoei kontu egin eta zaintzeko. Maiz, ez bertako instalazioak, ez bertako baliabide teknikoak eta ez bertako programak ere, ez dira egokienak pertsona gaixoak sendatzeko. Are gehiago, askotan, baliabiderik edo irizpiderik ez izatearen ondorioz, pertsona hauek osasun programa jakin batzuk erdiesteko dituzten aukerak urriagoak izan ohi dira, arazo berak izanik aske dauden beste pertsona batzuek dituztenekin erkatuz gero.

Gure espetzeetan atzemandakoaren bi adibide esanguratsu jarriko ditut:

- Gaixo terminal edo sendaezinek (horietako asko hiesa duten gaixoei) espetxez kanpoko harrerarako edo, besterik ez bada, baldintza duin batzuetan hiltzeko zerbitzuak erdiesteko zailtasunak dituzte.
- Drogramenpekotasuna duten pertsonak desintoxikatzen, beren ohiturak kentzeko eta arriskuak murrizteko programetan parte hartzeko mugak dituzte.

Errepara diezaiogun, adibide gisa, azken alderdi horri: askatasunik gabeko pertsonak arriskuak murrizteko programen barruan sartzeko dituzten aukerak.

Gaur egun inork ez du ukatzen gure espetxeetako errealitatearen ezaugarrietako bat, besteak beste, droga kopuru ugaria dela, jendetza handia baita preso egonda ere droga sistematikoki hartzen ari dena, horietako askok zainetatik barrena; arrisku handia dago xiringak trukatea bezalako jardueren ondorioz gaitz kutsakorrek bata besteari pasatzeko, GIB/hiesak kutsatutako pertsona gaixoen proportzioa handia da...

Droga kontsumitzaileekin loturiko osasun politikek eta hiesaren prebentzioak ugaritu egin dituzte beren helburuak, eta azkeneko urteotan nabarmenki aldatu dira ingurune irekietan. Gaur egun, gure Erkidegoan, aske dauden pertsonak zailtasun handiegirik gabe jo dezakete komunitate terapeutikoetara, metadonarena bezalako programa alternatiboetara, edo xiringen trukaketarena bezalako arriskua murrizteko programetara. Zenbaitetan, nahiko programa berriak dira, eta, nahiz zenbait kontraesan dituzten, zientifikoki ebaluatuak eta sozialki ontzat hartuak izan dira.

Programa horiek Komunitatean aplikatzen badira, eta, egia esan behar badugu, pertsonen osasunerako arriskua gutxitzen ari baldin badira, zergatik ez ditugu aplikatuko espetxeetako ingurunean? Baliteke ingurune horren berezko ezaugarrietara egokitze bat eskatzea, baina, osasun eskubidearen zehaztapen eta gauzatze hobe bat diren aldetik, beharrean dauden pertsona guztiengana iritsi behar dute, baita askatasunik gabe dauden pertsonengana ere.

Argudio horri esker, Arartekoak (Ombudsman du Pays Basque), EAeko espetze zentroetara bisitak egin eta hainbat profesional eta kolektiborekin bilerak egin ondoren, erakunde erantzuleei gomendatu zien gure Erkidegoko espetxeetan metadonarena bezalako programak aplikatu zitzatela (egun ia erabat orokortua), edo xiringen trukaketarena (Basauriko Presondegian urtebete baino gehixeago daramana). Programa horiek, hain zuzen ere, pertsona guztiak dagokien osasun eskubidearen aplikazio zehatza baino ez dira. Basauriko espetxean (Bilbotik hurbil dagoen espetze honetan 300 gizon daude bildurik) xiringen programa horrek izan duen urtebeteko esperientziak zera frogatzen du:

- horren aplikazioa erabat litekeena dela presondegi batean;
- ez duela inolako arazorik sortzen zentroko dinamikan;
- osasunerako arriskugarriak diren zenbait jarduera eragotzi edo murriztu egiten dituela;
- zainetatik barrena droga hartzen duen pertsona talde jakin batek onartu dituen beste programa batzuen programa osagarria dela;
- osasun zerbitzuen eta pertsona horien arteko harreman handiagoa ahalbidetzen duela, eta horietako asko helburu garrantzitsuagoak dituzten beste programa batzuetara hurbiltzen dituela...

* * *

Espetxea, bere funtsagatik, askatasunik gabeko pertsonen giza eskubide guztien errespetuarekin nekez bateragarria dela uste denez gero, gurea bezalako erakunde bermatzaileek ezinbestekoa dute:

- espetxeen alderdi hori pixkana-pixkana gutxitzen joatea, eta bide batez, norbanakoak bere erantzukizuna hartzea eta gizarteratzea errazten duten zigor-modu alternatiboak indartu daitezela bultzatzea, biktimen interesak eta eskubideak ahaztu gabe;
- askatasunik gabeko pertsonentzat ere eskubide berdintasunaren printzipioa aplikatu dadila defendatzea, berdintasun hori errealitate bihurtzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak exijituz;
- sarritan kolektibo bereziki ahuletako parte diren pertsona hauen hurbilpen aktiboa bilatzea.

3.4. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HEZKUNTZARI BURUZKO JARDUNALDIAK, ANDALUZIako HERRIAREN DEFENDATZAILEAK ANTOLATUAK

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrenaren ospakizunak zirela eta, Andaluziako Herriaren Defendatzaileak Giza Eskubideen Heziketari buruzko Jardunaldi batzuk antolatu zituen Sevillan, abenduaren 10ean eta 11n, eta bertan, Europako Herriaren Defendatzailearen erakundeek, Espainiako Herriaren Defendatzaileak, Andaluziako Herriaren Defendatzaileak, Arartekoak eta Mexiko, Guatemala, Panama eta El Salvadorreko Herriaren Defendatzaileek hartu zuten parte.

Lehenengo egunean, “Herriaren defendatzaileen bulegoek kultur testuinguru ezberdinetan giza eskubideen aldeko kultura zabaldu eta finkatzeko bete dezaketen eginkizuna” izan zen jardunaldiaren ardatza.

Bigarren egunean, “lurralde eta kultur eremu ezberdinetan giza eskubiden egungo egoera eta horiek errespetatzeko bermeak” gaiari buruzko azterketa bat egitea izan zen helburua. Jardunaldi honetan, Faustino López de Foronda Arartekoaren idazkari nagusiak hartu zuen parte, “Giza Eskubideen ezarpen desorekatua. Funtsezko eskubideak eta askatasunak Espainian” izenburua zuen testuaz, eta txosten honen 3. Eranskinean transkribatzen da.

II. ATALA
**ARARTEKOAREN JARDUERARIK
GARRANTZITSUENETAKO BATZUK
ALORREZ ALOR**

Arartekoari legeak ezartzen dizkion funtzioen artean daude hiritarrek planteatzen dituzten kekek ebaztea, eta ofizioz jardutea itxuraz oinarritzko eskubideren bat hautsi edo legea betetzen ez duen administrazio jardueraren baten berri izaten duenean.

Jasotako 2.660 kekek eta ofizioz egindako 52 jarduerak arazo mota oso desberdinak jasotzen dituzte; horregatik, kapitulo honen helburua garrantzitsuenean aukeraketa bat egitea da, eta horretarako sailkatuta daude Ararteko erakundearen jarduera estrukturatzeko dauden sail desberdinen arabera.

Kapitulo honetan Ararteko erakundearen bulegoan aztertzen diren gai mota desberdinak eta ugariak jaso nahi dira, euskal hiritarren kezkak islatzen baitituzte, eta behin eta berriz azaltzen diren gaiak ez ditugu erreplikatu.

Iazko txostenean bi berrikuntza txiki sartu ziren, oraingo honetan ere sartu ditugunak. Aukeratutako espedienteak alorren arabera bildu eta azpialorren arabera sailkatzen dira, espedientearen jatorria edozein delarik ere: ofiziozkoa, kexa bidez aurkeztua; hori bai, ofiziozkoen laburpenek "O" erreferentzia daramate beraien ezaugarri gisa.

Iaz sartutako bigarren berrikuntzaren bidez II. kapitulo honen irakurketa erraztu nahi zen; horretarako, aukeratutako espediente bakoitzaren laburpenak hiru atal ditu: erreklamazioa, azterketa eta emaitza.

Izenak berak adierazten duen modura, erreklamazioaren atalean sortutako arazoa islatzen duen errelato faktikoa sartzen da.

Azterketari dagokion atalean burutu diren era guztietako jarduerak aipatzen dira: azterketa juridikoa eta espedientea aztertzeko eta ebazteko egindako ikerketak.

Azkenik, emaitzari dagokion atalean zehazten da Arartekoaren eskuhartzearen azken emaitza zein izan den.

Txosten honetako II. kapituloan alorren arabera banaketan berrikuntza bat dago.

Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolamendua deritzon alorra, hain zuzen azken ekitaldian kexa gehien eragin dituen, bi alorretan banatu dugu, begibistakoa den bezala lehenago zeuden bi azpialorrei erantzuten dielarik: Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolamendua.

Funtzio Publikoa alorrean, zentzu zabalean hartuta funtzionario publikoek daukaten lan-harremanaren arabera dagokien Administrazioaren kontra aurkeztutako kekek biltzen dira, eta baita Funtzio Publikoan sartzeko hiritarrek egiten dituzten oposaketa-lehiaketen ondorioz sortutakoak.

Kexen banaketari dagokionez, alor berria honela sailkatzen da:

- Funtzio Publiko Orokorra
- Osasun alorreko Funtzio Publikoa
- Irakaskuntza alorreko Funtzio Publikoa
- Polizia alorreko Funtzio Publikoa

Baina, jasotako kexen edukiaren arabera ondoko banaketa egin da:

- lanpostu zerrendak
- sarrera
- karrera
- eskubideak eta betebeharrak
- hizkuntza normalizazio
- ordezkapenak
- beste

Geratzen den beste alorra, Administrazioaren Antolaketari dagokiona, horizontalki eratu da eta, beraz, prozedurazko arazoei edo ondare erantzukizun edo administrazioaren kontratazioa bezalako arazoei erantzuten die, eta hor ez da kontutan hartzen auzia sortarazten duen alorra, osasuna, hezkuntza, edo abar dela. Prozedurazko gaiek espezialitatearen bati erantzuten dietenean, adibidez zerga edo trafikiko prozedurak daudenean, dagokien alorrean azalduko dira eta ez hemen, administrazioaren antolamenduari dagokion honetan.

1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

1.1. SARRERA

Lehenengo, bigarren eta hirugarren sektoreekin, hau da, nekazaritza-abeltzaintza, industria eta zerbitzuak sektoreekin zerikusirik duten kexak aztertuko dira alor honetan, 1998an zehar, bideratu direnak. Guztira 18 kexa espediente izan dira, hau da, Arartekoaren erakundearen aurrean aurkeztutako kexa guztien %0,09.

Eragindako administrazioen arabera, honela banatzen dira:

- Eusko Jaurlaritza	12
- Aldundiak	3
- Udalak	3

Edukiaren arabera, erreklamazioak honela bana ditzakegu:

- Merkataritza	6
- Industria	6
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	4
- Kontsumoa	1
- Bestelakoak	1

Horrela, lehenengo sektorearen baitan, azpimarra dezakegu ibai-arrantzako elkarte batek aurkeztutako erreklamazioa, zeinak Arabako Foru Aldundiak hautatutako kirol arrantzarako kotoen kudeaketabidea auzitan jartzen baitzuen. Izan ere, baimenengatik ordaindu beharreko salneurri publikoak ezberdinak ziren, Diputazioak zuzenean kudeatutako kotoa izan ala, zeharka, bere entitate kolaboratzaileen bitartez kudeatutako kotoa izan.

Bigarren sektorearen esparruari dagokionez, nabarmendu dezakegu gidari batek aurkeztutako erreklamazioa. Gidariak bere desadostasuna agertu zuen IIT pasatzeko bere ibilgailuari ezarri zioten aldizkakotasunaren aurrean. Alde horretatik, kexa aurkeztu zuen pertsonari jakinarazi zitzaion, ikuskapena matrikulazio egunetik hamar urte bete baino lehentxeago eginez gero, egindako ikuskapenaren denbora-balioa ez zela 4 eta 10 urte arteko ibilgailuei zegokiena, baizik eta hamar urtetik gorakoei zegokiena, horrela espreski aurreikusten baitzuen gai hori arautzen zuen Errege Dekretuak.

Administrazioak, merkataritza jardueraren jarraimenduari buruz egin dituen jardueri dagokienez, berriz ere Arartekoaren iritzipean jarri da jadanik aurreko urteetan, erakundeak esku artean aztergai izandako auzia: egunkarien salmenta okindegi eta tankera bereko dendetan. Horrela, erreklamazio egileei argitu zaie, ikuspuntu sanitariotik begiratuta, administrazioaren baimen ematearen mende dagoela elikagaiak eta egunkariak denda berean saltzeko aukera. Era berean, ikuspuntu fiskaletik, hau da, zorrak ordaintzearen ikuspuntutik, bi produktuen salmenta batera egiten duen enpresarioak izena emanik egon beharko du jarduera ekonomikoen zergaren ataletan.

Azkenik, era berean, jarduera ekonomikoaren sektore honen baitan aztertu da Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak egiten duen kontrola zine emanaldietarako zenbait aretok kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideei ezartzen dizkieten eskubideen murrizketei buruz. Izan ere, aretoetarako sarbidea galarazten diete baldin eta jangaiak erosi badituzte aretoetatik kanpo.

1.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK

⇒ *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen mugaketa(2330/98)*

- Erreklamazioa

Hiritar batzuek kexa bat agertu zuten Arartekoaren aurrean. Izan ere, euren salaketak eginak bazituzten ere, zinetoki baten sarreran kartel bat zegoen zintzilik, eta bertan idatzirik zegoen aretoetan sartzeari debekatzen zela aretotik kanpo erositako edo eskuratutako jangaiekin.

- Azterketa

Jarduera hori hala konpetentzia librearen murrizketa nola kontsumitzaileen zein erabiltzaileen eskubideen mugaketa izan zitekeelakoan, Arartekoak Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailari eskatu zion azal ziezaiola zer nolako jarduketak egiten ari ziren zinetokiak kudeatzen ari zen enpresari jokamolde hori galarazteko.

Alde horretatik, aipatutako sailak erakunde honi aditzera eman zion, bere iritziz delako jarduera horrek konpetentzia librea murriztu eta kontsumitzailearen eskubideak urratzen zituela. Izan ere, egoki iritzitako produktuak kontsumitzeko eskubidearen betekizunari uko eginarazten baitzieten.

Halaber, Sailak aditzera eman zuen, kontsiderazio hori aintzat harturik, hain zuzen ere 1995etik aurrera ikuskapen-lan batzuk egin zituela, eta, horren ondorioz, isun bat jarria zela. Horrez gain, administrazio horrek, erakunde honen txosten eskaera jaso ondoren, beste ikuskapen bat egin zuen jarduera hartan, eta, ikusi ondoren kartela ez zutela kendu, erabaki zuen beste zigor-espediente bati hasiera ematea establezimenduaren enpresa titularren aurka. Espediente horretan kontutan hartzen zen aretoa kudeatzen zuen elkartearen berrerortzea hala arau-haustea kalifikatzerakoan, nola zigorraren maila ezartzerakoan.

- Emaizta

Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak sustatutako jarduerak ikusita, Arartekoak kaltetuei bere gestioen emaitzen berri eman zien, eta, jarraian, espediente itxi eta artxibatu egin zen.

2. KULTURA ETA ELEBITASUNA

2.1. SARRERA

Alor honetan 21 kexa jaso dira, guztien %1,87, eta honela izan da azpialorren araberako banaketa:

Elebitasuna	13
Kirola	3
Bestelakoak	3
Emakumea	1
Aisia	1

Kultura atalean berriz ere aipatu behar dugu kultur ekitaldiekin zerikusia duen kexa bat, baina zoritxarrez kexaren mamia berriro ere sexuagatiko diskriminazioa izan da, emakume batzuei ukatu egin baizitzaien ekitaldi horietan parte hartzea.

Bada kexa bat jabetza intelektualarekin zerikusia duena. Izan ere, kexa horrek salatzen zuen botere publikoen ustezko abantaila-egoera ondasun kulturalen salerosketan. Kexa honetan, dagokion laburpenean islatzen dena lagapen-klausula baten inposaketaz ohartarazten zen, zeinaren bitartez egileak eskubide guztiak uztera behartzen baitzituzten.

Batzuetan, elkarren aurka, buruz buru egoten dira eskola-kirolaren sustapena eta kirol-klubek eskola adinetan dauden kirolariez egin nahi dituzten harpenak. Zantzu batzuen arabera, horixe zen aita batek aurkeztutako kexan zetzan adierazten zen. Aita horrek salatu zuen semea futbol klub batean entrenatzeagatik ikastetxeko benjaminetako futbol taldetik baztertu egin zutela.

Elebitasuna atalean, bere horretan diraute erakunde publikoekiko harremana euskaraz eduki nahi izan duten hiritarren kexek. Halaber, kexak euskararen erabilpenaren sustapenean uste dutenek aurketu dituzte, adieraziz ez dela behar adina bitartekorik jartzen ari egoerak eskatutakoarekin alderatuta.

Horrela, Bagera elkarteak bere desadostasuna agertzen zuen erabaki batzuekiko. Izan ere, elkarte horren iritziz, erabaki horiek atzera jotzen zuten euskararen aldeko neurri batzuetan, aurreko urteekin hartutakoekin erkatuta.

Sustapen jardueran, botere publikoek betetzen dute laguntza premia handiena duten jarduerak bultzatzeko eginkizuna. Eginkizun hori aurrera eramateko, administrazio eskudunek zenbait aukeren artean hauta dezakete, eta aurreko urteetako aurrekariak ez dira berez lotesle laguntzagaiari edo laguntza emateko moduari dagokionez. Bestaldetik, erakundeen artean egon litezkeen laguntzen koordinaketa dela eta, zaila gertatzen da arau bakar baten azterketatik bitartekoetan murrizketarik egon den ala ez ondorioztatzea.

Bakar bakarrik hauxe aipa daiteke orokorrean: gastu publikoaren handitzearen mugaketa oztopo izan daitekeela euskararen normalkuntzarako helburuen lorpenaren bidean.

Bizkaiako udal batek euskara erabiltzeko eskubidea bermatzeko bitartekorik baliatu ez izana, horixe izan zen zenbait pertsonak kexa batean bildutakoa. Kexa honen bideraketarekin batera, dagokion laburpenean islaturik dagoena, Arartekoak delako udalari hauxe iradoki zion, hots, jadanik beste administrazioetan erabiltzen ari ziren bitarteko materialak hobeki baliatzen zitezela, bere hiritarrakiko harremanetan euskararen erabilpen idatzian aurrera jotzeko.

Ohikoa denez, hiritarrak kexatu egin dira Administrazioarekiko dituzten harremanetan euskara erabiltzeko eskubidearen mugaketa zehatzak direla medio. Horien

artean, nabarmendu behar dira bai udaltzainen, bai ertzaintzaren komisaldegi batzuetara joan zirenen kexak. Salaketa euskaraz aurkeztu nahi eta ezin izan zuten, euskaraz zekien udaltzain edo ertzainik ez zegoelako. Egoera hori aurreko urteetako kexetan ere agertu baldin bada ere, -halako une zehatzetan edo goardia txandetan ez da euskaraz mintzatzen dakien udaltzain edo ertzainik-, ez dugu ikusi horri lotutako inolako neurririk. Ez dirudi nahikoa denik esatea konponbidea dagozkien lanpostuen zerrendetan bilduta dauden aurreikuspen linguistikoen betekizunaren eskutik etorriko dela.

Azkenik, aipatu beharra dago pertsona batek aurkeztutako kexa. Horren arabera, bizkaiera erabiltzeko bere eskubidearen oinarriak gabeko ustezko mugaketa salatzen zuen. Kexa honetan -txosten hau idazten ari den honetan ebazpenaren zain dago-esaten zenez, ustezko intromisioa gertatu zen askatasunaren esparru batean. Esparru hori hizkuntzaren erabilpena da eta zerikusia zuen Euskararen Erabilpenaren Normalkuntzarako Legeak berak 30. artikuluan aipatzen duen gai batekin, Legeak esaten baitu euskararen batasuna zainduko dela, elkarren arteko hizkuntza idatzi ofiziala den aldetik, kalterik egin gabe euskalkien errespetoari, Euskadiko ondare kulturalaren funtsezko zatia baitira.

2.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO ESPEDIENTEAK

A) Kultura

⇒ *Ondasun kulturalen salerosketa kontratuei buruz eta egile-eskubideen lagapenari buruz (1373/98, 1729/98)*

• Erreklamazioa

Arte y Derecho Fundazioak erakunde honetara jo zuen Arartekoaren iritzipean jartzeko egile-eskubideen babesa, administrazio publikoen erakundeen eta lanen egileen artean sinatutako kontratuen klausulei dagokienean.

Arazoa euskal administrazio orokorra, edo bere kasuan, foru aldundiak edo udalak partaide diren arte garaikidearen hainbat museoren zein bildumaren kudeaketaren ohiko jokamoldean datza. Zehazki, ohartarazten da ondasun kulturalen salerosketa baldintzapean dagoela, hau da, egileek, haiei dagozkien tankera ekonomikoko eskubide guztien lagapena egin behar dute.

Era berean, egileen elkarteak euskal administrazioan gertatutako antzeko kasuen adibideak jarri ditu Arartekoaren esku. Esate baterako, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren sustapen jarduera baterako kartelaren sorketa-lehiaketaren kasua. Lehiaketak hauxe zioen kontratuaren oinarrietan: saritutako lanen egileek Sailari lagatu beharko diote lan horiei dagokien jabetza intelektuala.

• Azterketa

Erakunde honen iritzi, hona hemen afera honetan jarraitu behar den printzipioa: aldean xedapen librea, administrazioek hitzarmen egokienak erabakitzeko duten askatasunarekin batera. Hala ere, mugatzat jarri behar ditugu, apirilaren 12ko 1/1996ko Erret Lege Dekretuaren 14. artikulua bermatzen dituen eskubide moralak. Artikulu horren bitartez honako gauza hauek onartzen dira: Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Birmoldatua; 24. artikulua biltzen dituen partaidetza-eskubideak, hala nola artelanen egiletzatik eratorritako jabetza-eskubideen xedapen librearekiko mugak, legeria bereko 42. artikuluan eta ondokoetan biltzen direnak.

Nolanahi ere, informazio eskaera igorri zitzaizen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eta Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailari beraien iritzia jakiteko.

Kultura Sailak aditzera eman zuen esplotazio-eskubideen transmisioaren aukera 1/1996, apirilaren 12ko Erret Lege-Dekretuak bildutako *inter vivos* erako transmisioetatik eratoritzen dela, eta, era berean, bi aldeek transmisioa aurrera eramateko duten borondatek beretik eta interesetik. Nolanahi ere, agiri idatzian gauzatutako eskubide-lagapen horren aurretik eskubide moralak eta partaidetza-eskubideak daude. Izan ere, definizioz, egilearentzat, utziezinak eta besterenezinak dira. Nolanahi ere den, erasota uzten zen lagapenak ez direla ez osoak, ez mugaezinak, ezta justifikaezinak ere. Ohikoa da lagapen partzialak egitea, mugatuak, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak onetsitako IV “1998ko Euskal Turismoaren kartela” lehiaketaren deialdiari dagokionez, esplotazio-eskubide guztien lagapenaren obligazioa lehiaketaren arrazoiarengatik berarengatik justifikatzen zen. Horrela, agindu arautzailearen babesean saritutako kartelak erabiltzen dira Sailak egiten dituen jardueretan, komertzializazio turistikoaren euskarri gisa: azoken postuetan, hormirudietan eta sustapen turistikoaren gainontzeko materialetan. Nolanahi ere, eskubide moralen besterezintasunaren aurrean kontsiderazio bat egiten zen esplotazio-eskubideak transmititzeko aukerari buruz. Horrela, maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen 4. artikulua, administrazio publikoen kontratuak arautzen duenak zera dio, Administrazioak askatasuna duela hitzarmenak egiteko, eta horren mugak interes publikoa, antolamendu juridikoa eta administrazio zuzenaren printzipioak direla.

Arartekoak uste du, bi Sailen legearen araberrako jarduera ikusita, komenigarria litzatekeela, oro har, kontratuzko bitartekoak ezartzea. Horietan bilduko litzateke azkenean erabiltzen diren esplotazio-eskubideen eduki zehatza. Hona hemen eskubide horiek: erreproduzioa, banaketa eta komunikazio-eskubideak. Ekarpen horrek bakar bakarrik, egitez, erakunde publikoek eskatzen duten kontraprestazioa orokorrean moldatzea suposatuko luke. Horrek, azkenik, edozein gaizki ulertu edo balizko mesfidantza galaraziko luke, hala kudeatzaile publikoen artean nola egileen zein hauen ordezkartza-elkarteen artean.

Izan ere, azken konponbide hori erabaki da Kataluniako Erkidego Autonomoan. Han hitzarmen bat sinatu da Generalitateko Kultura Sailaren eta “Visual, Entidad de Gestión de Artistas Plásticos” delakoaren artean, Bartzelonan, 1998ko irailaren 29an.

- Emaizta

Aurreko ondorioak eta aipatutako iradokizuna ikusita, bertan behera utzi genuen gure eskuhartzea, ondoko jardueri uko egin gabe, jarduera horiek beharrezkoak gertatzen badira proposamen horren edukia moldatzeko eta zehazteko.

⇒ *Eskola-kirolaren jardueratik kanpo utzi izana (1672/98)*

- Erreklamazioa

Donostiako ikastetxe pribatu batean ikasten ari zen haur baten aitak Ararteko erakundera jo zuen bere desadostasuna agertzeko ondoko gai hau dela medio. Ikastetxeak semeari ukatu egin zion ikastetxeko benjaminetako futbol taldean jokatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteria eta Kirol Sailak ez zuen eskuhartu eta hortik dator aitaren kexa.

Aitak zioenaren arabera, semea taldetik kanpo utzi zuten, haurra urte horretan hiriko futbol klub batean entrenatzen hasi zelako. Kexagilearen iritziz, gauza horrek ez

luke oztopo izan behar semea, ikaskideekin batera, eskola-kirol mota batean aritzeko, haurra ez baitzen klub horrekin lehian aritzen, entrenatu egiten zuen soilik.

- Azterketa

Eskola-kiroletan aritzea ikasleen prestakuntza osoari lagungarri gertatzen zaionez gero, erakunde honek ikastetxeek antolatutako kirol-jarduerak diruz laguntzen dituen Sailera jo zuen, haurraren eskaera ikastetxearen aurrean babesteko. Alde honetatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol Saileko Zuzendaritza Nagusiak agertu zuen ez zuela eskuduntzarik ikastetxea behartzeko, haurra bertako taldean sar zezaten. Era berean, honatx egindako ñabardura: *“eskola-kirol guztien azpian dagoen ideologia nahi duten eskolakide guztiei lehiaketa hezigarri-jostagarri tankerako jardueretan eta sustapen jardueretan parte hartzeko aukera ematea da. Baina ideologia hori izanik ere, egia da Gipuzkoako Eskola-Kirolaren Jardueren Urteko Egitarauak ez duela biltzen ikastetxeek, nahitaez, nahi duten ikasle guztiak euren taldeetan onartu behar izana, baizik eta autonomia uzten zaie, jardueretan, euren ikasleen partaidetza komenigarrien ikusten duten moduan antolatzeko”*.

Hala ere, aipatutako zuzendaritzak interesa erakutsia eta informazioa eskatua zuen ikastetxean, jakiteko zergatik baztertua zegoen ikaslea futbol taldetik. Alde horretatik, ikastetxeak erantzun zuen haurraren ikaskideekiko harremanak aldatu egin zirela futbol klubean entrenatzen hasi zenetik, eta taldearen martxa onerako oker irizitako jarrerak erakutsi zituela.

- Emaiza

Igorritako txostenaren edukia ikusita, Arartekoaren iritzia izan zen Gazteria eta Kirol Sailak ez zuela oker jokatu. Hala ere, erreklamazio egileari iradoki zitzaion komenigarriena arazo hori haurra ikasten ari zen ikastetxeko eskola-kontseiluan agertzea izango zela, arazoari konponbide egokia emateko.

⇒ *Gizarte-taldeek EITBn agertzeko duten eskubidea (66/96/O)*

- Erreklamazioa

1996ko martxoaren lehen egunetan jakin genuenez, erakunde publiko horrek ezezkoa eman zion Bizkaiko Emakumeen Asanbladak (BEA) Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko egin zuen iragarkia emititzeari. Iragarki hori emititzea onar zezan lehenbiziko aldiz gomendatu ondoren -EITBk ez zuen gomendioa onartu-, eztabaida luzatu egin zen ezarri beharreko arauak ulertzeko modua zela-eta. Orduan, 1996ko ekainaren 25eko idazkiaren bitartez, Arartekoak berretsi egin zuen lehen egindako gomendioa, eta haren edukia zabaldu zuen, zera iradokiz: kasu zehatz honetaz azaldu genituen argudioak aurrerantzean irizpide orokortzat har zitezela, eta EITBk pertsona guztien arteko berdintasuna sustatzeko iragarkiak emititzeko baimena eman zezala (jarduera honen laburpena 1996ko Txostenean agertu zen).

Halaber, 1997ko urtarrilaren 28an, Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GGKEen) Koordinadorak eta Euskal Herriko 0,7 eta + Plataformak azaldu zuten kexa-idazki baten bidez jakin genuen EITBk ez zuela parte hartu nahi izan «*Con más igualdad gana todo el mundo*» Hirugarren Munduarekiko sentsibilizazio-kanpainan. Zehatz-mehatz, EITBk erabaki zuen ez emititzea telebistarako euskaraz eta gaztelaniaz prestatu zen 40 segunduko iragarki bat. Ukapen horren zergatia jakiteko espediente bat bideratu ostean, Arartekoak abenduaren 30eko 175/1997 Gomendioa igorri zion organismo

horri, EITBren jardueran nagusi diren printzipioak erabiliz, aurrerantzean irizpide orokortzat har zezan legeriako balore nagusiak iraunarazten laguntzen duten iragarkiak onartzea (kexa honen laburpena 1997ko Txostenean irakur daiteke).

Aipatutako jarduera horiek hasi bezain laister konturatu ginen halako lotura bat zegoela eztabaidatutako erabakien eta gizarte-taldeen herri-jabetzako komunikabideetan agertzeko eskubidea gauzatzearen artean. Horregatik, euskal telebista eskubide hori egitez nola gauzatzaren duen jakiteko asmoz, Arartekoak ofiziozko jarduera bat hasi zuen 1996ko urriaren 31n.

• Azterketa

Jakina denez, 1978ko Konstituzioak, 20.1 artikuluan, ideiak eta iritzia askatasun osoz adierazteko eta zabaltzeko eskubideak aitortzen ditu, baita edozein komunikabideren bitartez egiazko informazioa eman edo jasotzeko eskubidea ere. Eskubide horiek sendotzera dator beste bermabide bat, hain zuzen, talde sozial eta politikoei komunikabide publikoetara iristeko duten ahalmena (EKren 20.3 art.).

Ideologia-taldeen -hots, mundu-ikuskerak jakin baten alde egiten dutenen- irispide eskubidea askatasun ideologikoa gauzatea da eta, aldi berean, informaziorako eskubideaz baliatzeko tresna. Herri-agintariek irispide-eskubidea sustatzen dutenean, alde batetik, tresna bat eskaintzen ari dira herritarrek aske beren iritzia izateko datu eta elementuak eskura ditzaten, eta bestetik, pertsonen beren ideiak zabaltzeko aukera ematen diete, hauek osatzen dituzten taldeen bitartez dihardutela.

EITB herri-erakundea sortu zuen 5/1982 Legeak irispide-eskubidea -21. artikuluan irrapide-eskubidea deiturikoa- modu zabalean ulertzen duela kontuan izanik, eta Administrazio Kontseiluak zer-nolako eskumena duen ikusirik -artearen indarrean zegoen lege beraren 8.f) atalean adierazia-, Arartekoak zenbait datu eta argibide eskatu zituen, jakin nahi baitzuen zein irizpide erabili ziren honako hauek erabakitzeke: zein gizarte-taldek duten euskal telebista publikorako irispidea, nola banatu ziren programazio-zatiak azken sei hilabeteetan, e.a.

Lortutako informazioa honela laburbiltzen da:

1. Zuzendari Nagusiaren esku utzi da zein gizarte-taldek izan lezaketen irispidea EITBko programaziora, gomendio honekin: eskatzen duen inori ez ukatzea albistegi eta kultur-saioetarako irispidea, betiere eskatzaileak irizpide demokratikoak betetzen baditu.
2. Komunikabideetan agertzeko eskubidea gauzatzeko bereziki pentsatutako saiorik ez dagoenez gero, ez da irizpiderik ezarri behar izan programazio hori banatzeko. Arrazoi beragatik, Administrazio Kontseiluak ez du egin beharrik izan 5/1982 Legearen 8. artikuluan aipatutako programazio-zatien banaketa sei hilabetez behin.
3. Antena-eskubidea erabili duten gizarte-taldeen dagokienez, EITBk ez du informaziorik prestatu. Albistegiak direla-eta, zenbait datu eman dizkigute taldeen jarduera zehatz batzuen gainean eskaini diren albisteez, ez ordea horiek emateko moduz, ezta ere talde edo GKE jakin batek telebistaz bere pentsakera zabaldu duela uste izateko oinarritzat hartu diren irizpideez.
- 4 Gauza bera gertatzen da kultur programak direla-eta: esan digute emititzen direnetatik zein jotzen dituzten kultur programatzat, eta baita saio horietan “*gizarteko pertsona ezberdinek hartzen dutela parte, gizartean bertan dagoen aniztasuna isladatuz*”, baina ez dute irizpide berezirik ezarri helburu hori bermatzeko.

EITBk emandako argibideak ikusita, Arartekoak bere hasierako iritzia berronesten du: gizarte-taldeek komunikabide publikoetan agertzeko eskubidea dela oinarrizko eskubideetatik gutxien ezagutzen denetako bat, eta, beraz, herritarrek gutxien erabili eta eskatzen dutenetako bat.

Hala ere, nabarmena dirudi sistema anitz eta demokratiko baten jardunbidearen oinarrizko baldintza dela ideologia-taldeek, gizarteari ardua zaizkion gaiez dituzten iritziak eta ikuspuntuak zabaltzeko, herri-jabetzako komunikabideak erabiltzeko aukera izatea. Horregatik, erakunde eskubide-bermatzailearen ikuspegitik, argitu beharra dago nola erabiltzen den, egitez, ordezkari gehien dituzten gizarte-taldeen irispide-eskubidea, eta “ordezkari gutxiagoko” taldeena ere bai, horiei antena-eskubidea bermatzen baitie aipatutako 5/1982 Legearen 201.2 artikulua.

Eskubide horren erabilerari buruzko azterketa honetan, Arartekoa neurri batean ados dago EITBekin, hain zuzen, gizartean dagoen aniztasuna agertzeko biderik ohikoena albistegiak eta kultur-saioak direla esaten duenean, baina ez dugu uste hori berez garatuko denik. Aitzitik, horretarako bideak jarri behar dira, batez ere kontrol-bideak, aukera ideologiko ezberdinak komunikabideetan isladatuko direla ziurtatzeko, jarraitzaile ugari sektore ahaltsuenen ideiek ez ditzaten balio gabe utzi jarraitzaile gutxiagokoena. Nolanahi ere, orain azaltzen saiatuko garenez, ezin dira erabat baztertu albistegi eta kultur-saioez bestelako bideak antena-eskubidea gauzatzeko.

- a) Horrela, nahiz EITB irispide-eskubidea publizitate bidez gauzatzearen guztiz kontrako agertu, gure ustez, legeek ez dute galerazten, prezio bat ordainduz, ideia edo balore jakin batzuk sustatzen dituzten iragarkiak telebistan ematea. Hala ere, jakina, horiek ez dira publizitatetzat jo behar, hitzaren esanahi hertsian.

Ez da eztabaida juridikoan hasteko une egokia -hori egitea komenigarria izan arren-, baina esan daiteke EITBko Administrazio Kontseiluak merkataritzaz kanpoko iragarkiak ez onartzeko oinarritzat hartu zituen arauak (1997ko urtarrilaren 28ko Erabakia) hertsiki publizitate-jarduera arautzea dutela helburu, ez baliabide bera erabil dezaketenean beste alor batzuk antolatzea.

Horregatik, azaldu bezala, Arartekoak bi aldiz gomendatu dio EITBri bi iragarki jakin emititzeko, giza-eskubideak errespetatzen dituen gizartean oinarrizkoak diren baloreak (berdintasuna eta elkartasuna) sustatzen zituztelako. Izan ere, erakunde eskubide-bermatzaile honen ikuspegitik, iragarki bat zabaltzeko onartzerakoan, ezin da aintzat hartu bakar-bakarrik EITBri zein kontraturen pean (kostu handikoa edo dohakoa) proposatzen dioten iragarkia, baizik eta kontuan izan behar dira, batez ere, haren edukia eta mezuak denentzat izan dezakeen interesa. Mezua denentzat interesgarria dela ulertuko balitz, erakundeen propagandaz egiten den balorazioaren antzekoa egingo litzateke, alde txiki batekin: erakundeen propagandan, ez da erabaki beharrik iragarkia onargarria den ala ez, hori proposatzen duen erakundea legitimoa delako; alabaina, gizarte-taldeek proposatutako mezuak direnean, kasuz kasu ikusi behar da jendearentzat interesgarriak diren ala ez. Guztientzako interesa ba ote duten jakiteko irizpide bat, agian, Arartekoak iradokitako hauxe izango da: talde jakin baten ideologiatzat ez, baina gizarte demokratiko osoaren ideologiatzat jo daitezkeen legeriako balore nagusi batzuk sustatzea.

- b) Nolanahi ere, berriro diogu, ideologia ezberdinak ordainketa-bidez zabaltzea ez da -eta ez du izan behar- oinarrizko eskubide hori gauzatzeko ohiko era.

Bada beste modu bat, beste telebista publiko batzuek erabili dutena, bai EITBk ere, erlijio-adierazpen jakin batzuen kasuan: programazio-parrillan saio bereziak

sartzea, hala nahi duten taldeek dohain zabal ditzaten beren xedeak, proposamenak, ekintzak, e.a.

Horrelako saioak egiteak -edukia talde protagonisten esku geratzen da-eragozpen handiak sortzen ditu, ez ekonomikoak bakarrik, kudeaketazkoak ere bai, nahitaez erabaki behar delako zein taldek edo elkartek izango duten zabaltze-saio horretarako irispidea, eta nola banatuko den denbora talde horien artean. Beraz, hori lortzeko, irizpide argiak, zentzuzkoak eta objektiboak ezarri behar dira.

c) Eragozpen horiek direla-eta, ez dira bazter utzi behar, besterik gabe, saio bereziak. Hala ere, esan behar dugu albistegiak eta iritzia emateko saioak direla gizarte-taldeak komunikabide publikoetara iristeko biderik eraginkor eta zuzenena.

Antena-eskubideari esker pertsonak beren adierazpen-eskubidea eta beren ideiak libreki zabaltzekoa gauzatzen badituzte, eta informazioa aske eman edo jasotzen badute, begi-bistakoa da legearen helburua lortzeko bide egokia izan litekeela herritarren elkarte eta taldeei hizpidea ematea, gaurko edozein gai edo arazoren gainean zein iritzi duten adieraz dezaten. Gizarte-taldeek jendeari iritzi libre eta anitza izaten laguntzen diotenez gero, euskal irrati-telebistak, zerbitzu publikoaren eginkizuna betez, aintzat hartu beharko lituzke haien ekarpenak eta ikuspuntuak, ahal den guztietan.

• Emaiza

Azaldutakoagatik guztiagatik, legeak emandako eginkizuna (herritarren eskubideak babestea) eta giza-eskubideezko kultura bultzatzeko eta zabaltzeko lana betez, Arartekoak gomendio hau egin zion EITBko Administrazio Kontseiluari:

“Ordezkariek gehien dituzten gizarte- eta politika-taldeei eta ordezkotza gutxiagokoei komunikabide publikoetara iristeko eskubidea bermatuko bazaie, “Euskal Irrati-telebista” herri-erakundea sortu zuen maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak 21. artikuluan agindutakoaren arabera, bertako Administrazio Kontseiluak beharrezko erabakiak hartu beharko lituzke honako neurriok sustatzeko:

a) Sakonki aztertu 1998 urtean zehar zein gizarte-taldek parte hartu duten EITBren programazioan beren iritziak eta ideiak zabaltzeko, eta partehartze hori zehazki nola, zein saiotan eta zenbat denboraz gauzatu den, horrela jakingo baitugu ea benetan bete den euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko legezko agindua.

b) Egitarau zehatz bat prestatu, eta etorkizunean antena-eskubidea nola garatuko den azaldu, hori gauzatzeko bide ezberdinak zein diren zehaztuz (aldizkako saio bereziak, iragarkiak noizbehinka zabaltzea, iritzia emateko saioetan edo debateetan, edo bietan, taldeen ordezkariak izango duten partaidetza, albistegietan haien adierazpenak sartzea,...) eta irizpide objektiboak ezarri, bai taldeen ordezkagarritasuna eta, beharrezko balitz, esangura zehazteko, bai libre dauden programazio-tarteak haien artean banatzeko.

c) Aldizka kontrolatu zenbat denbora ematen den albistegietan gizarte-taldeek burutzen duten jardueraren berri emateko, eta baita zein pertsona gonbidatu edo elkarrizketatu dituzten albistegietan, kultur-saioetan, debateetan, e.a., edo -halakorik sortuko balitz- ideologia ezberdinak zabaltzeko saio berezietan. Informazio hori EITB kontrolatzeko ardura duen Eusko Legebiltzarreko Batzordeari eman beharko litzaioke, araz erabakitako moduan, dagozkion ondorioak izan ditzan”.

Espedientea oraindik zabalik dago, EITBk gure gomendioari emango dion erantzunaren zain.

B) Elebitasuna

⇒ *Euskara erabiltzeko aitorten formal eta material bat: ezberdintasun kasu bat. (1183/98)*

- Erreklamazioa

Pertsona bat Gasteizko udaltzaingoaren egoitza batera joan zen salaketa bat aurkeztera. Salaketa euskaraz aurkeztu nahi izan zuen, baina ezin izan zuen egin euskaraz mintzatzen zekien udaltzainik ez zegoelako.

Salaketa salatzaileak berak idazteko aukera eskaini zioten. Baina, atzera egin zuen inprimakia gaztelera hutsez zegoela ikusterakoan.

- Azterketa

Txosten-eskaeraren idazkian, Arartekoak bi alderdi bereizi zituen kexa honetan: bata, euskara eta hiritarreko arreta zuzenari zegokiona eta bestea, inprimakietako euskararen erabilpenarekin zerikusia zuena.

Emandako informazioaren arabera, lehen alderdia, hiritarreko arreta zuzenari dagokiona, lanpostuen zerrendan bilduak zeuden aurriskuspenekin lotua zegoen, zeinetan ezartzen baitira lanpostu bakoitzaren hizkuntz-betebeharrak.

Agerikoa da bitarteko pertsonalen eta materialen mugaketak ezinbestean baldintzatzen duela euskararen erabilpenaren berehalako normalkuntza Administrazioan. Kasu honetan, ez zen langile euskaldunik, agenteen postuetarako aurreikusitako perfila betetzeko denbora pasa ez zelako, eta horrek euskarazko atentzioa eragozten zuen.

Hori kontutan hartuz, ikusi genuen beharrezkoa zela hauxe ohartaraztea: euskara erabiltzeko eskubidea oso osorik bermatu ezin izatekotan ere, horrek ez du administrazio bakoitza zentzuzko erantzun bat ematek salbuesten eskubide hori bete nahi duten hiritarreko. Alde horretatik, hiritarrari, bere eskubidearen berehalako eraginkortasuna exijitzea galarazten dion progresibitate printzipioak berak Administrazioa neurriak hartzera behartzen du, modu progresiboan eskubidea aitortzen duen 10/1982 legea aldarrikatzerakoan zeuden zailtasunak murrizteko.

Udalak egindako txostenean azaltzen ziren, inork ere euskaraz mintzatzen ez dakienean, zeintzuk diren hiritarrei eskaintzen zaizkien aukerak halako egoitza batean zerbitzuan ari diren udaltzainen artean. Hona hemen eskaintzak: hiritarrak berak salaketa idaztea; beste une batean itzultzea; Epaitegira jotzea, edo, bestela Ertzaintzara jotzea.

Aukera horiek aztertu ondoren, Arartekoak iritzi zuen esfortzu handia dakartela, eta, horregatik, hiritarrak atzera joarazi dezaketela euskara erabiltzeko asmoan.

Bestaldetik, udaltzaingoa eskudun baldin bada hiritarrak Hiritar Babespenarako Egoitzara jo duenarengatik aferari dagokionez, desegokia dirudi Ertzaintzara edo Epaitegira bidaltzea, eta horrek ez du kontutan hartzen hiritarrak bere arrazoiak eduki ditzakela nora eta Udaltzaingora jotzea hautatu duenean.

Nolanahi ere, Udalari hauxe eman diogu aditzera: hiritarrek beste zerbitzu horietara jotzeko eskaintzarekin batera, aldez aurretik udalak ikusi edo jakin beharko luke ia hiritarrari arreta egin diezaioketen hark hautatutako hizkuntzan. Bestela, hiritarra arazo berbera topatzeko arriskuan legoke.

Ohar horiek egin ondoren, Arartekoak iradoki zuen beste bideren bat aztertzea, udal egoitzetan bertan euskara erabili nahi duten pertsonen arreta egiteko. Iradokizun honen bidez, zen euskaraz atenditua izatearen eskubidea gaur egun aurreikusita dagoena baino maila hobean izatea lortu nahi.

Kexa honen bigarren alderdiari dagokionean, Udalaren txostenak azaltzen zuen aginduak emanak zirela akats hori ahalik eta lasterren zuzentzeko.

- Emaizta

Txosten hau prestatzen ari den honetan, espedientea zain dago ea Udalak noiz igortzen duen eskatutako informazio osagarria.

⇒ *Euskara erabiltzeko eskubidean dauden mailak (1364/98)*

- Erreklamazioa

Kexa honetan salatzen zenez, Sestaoko Udalean ez zen behar adina neurri hartzen euskararen erabilpenaren normalkuntzari begira.

Kexan bi alderdi bereiz zitezkeen: batetik, behin eta berriz ez zela betetzen 10/1982 Legea, euskararen erabilpena arautzen duena, eta bestetik, kasu zehatzak, hau da, idazkiak beti gazteleraz erantzuten zirela.

Udalaren politikamolde orokorrari dagokionez, Sestaoko Alkateak Arartekoari jakinarazi zion tramiteak hasiak zirela euskararen normalkuntzarako eta erabilpenerako Araudia egiteari begira, eta horretarako jarraipen batzorde bat eratuko zela.

Idazkiei dagokienean, Udalaren txostenak hauxe besterik ez zuen esaten, hots, eskubide horren betekizuna bitartekoen araberakoa zela.

Aurrekari horien ondotik, kexak komunikazio idatziena aztertzeari heldu zion.

- Azterketa

Progresibitatearen printzipioak maila ezberdinak ditu gauzatzerakoan. Hori 10/1982 Legea onesterakoan, administrazio bakoitza abiatzen deneko inguruabar ezberdinen ondorio da. Errealitate horrek egoera ezberdinak erakusten ditu, eta egoera horiek aztertu beharko dira kasu zehatzaren arabera.

Zenbait kasutan, behar adina bitartekorik ez izatea zentzuzko argudioa izan daiteke jokoan dagoen eskubidea mugatzeko, baina, bestetan, argudio horrek berak justifikaezinezko muga ekar diezaioke euskara erabiltzeko eskubideari.

Arartekoaren iritziz, eta euskara hizkuntza ofizialtzat aldarrikatzearen ondorioz, komunikazio idatzen esparruan koka daitezke legeak, administrazio publikoetarako agintzen dituen betebeharren betekizunen funtsezko zatia edo maila apalenak.

Komunikazio idatziei dagokienean, bereizi behar dira, alde batetik, jasotzaile orokorarentzat zuzenduta dauden ebazpenak edo ekintzak, eta, bestaldetik, bi hizkuntza koofizialetariko baten aldeko aukera espreski egin duen hiritarraren idazkiekiko erantzuna direnak.

Euskara erabiltzeko eskubidearen betekizun eza azken kasu horri baldin badagokio, hau da, administrazioak uko egiten baldin badio interesdun pribatuak espreski erabilitako hizkuntzan erantzuteari, orduan, aparteko arrazoiak izan ezik, esan daiteke hiritarrak Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko duen eskubidearen benetako urraketa gertatu dela, urraketa hori justifikaezina baita.

10/1982 Legearen 6.1 artikulua badakar aukeratutako hizkuntza ofizialean erantzuna jasotzeari buruzko eskubide subjektibo bat. Hala ere, legea onetsi zen unean kokaturik, botere publikoei aukera bat onartzen zitzaien eskubide hori bera, zinez, betea izan zitezkeen baldintzei buruz, eta baldintza horiek mailakako egokitzapenaren mende daude.

Auzitegi Konstituzionalak, Euskararen Normalkuntzarako Oinarrizko 10/1982 Legeari buruz emandako epaiaren zortzigarren oinarriak jadanik biltzen duen eskubide subjektibo hori aintzat hartzeak argi esaten du hiritarrak eskubidea duela hautatutako hizkuntza ofizialean erantzunak jasotzeko. 10/1982 Legea onetsi zenetik hainbat urte iragan diren honetan, interesdunak hautatutako hizkuntza ofizialean idatziz erantzuteari ezezkoa emateak urratuko luke, orain, hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea.

Kexaren mamia hautatutako hizkuntzan erantzuna jasotzeko eskubideari dagokionez, are, argudiatu ere argudia zitekeen gutxien desiatutako egoeran, udal itzulpen zerbitzuaren erabilpenak atzera zezakeela interes pribatuei eman beharreko erantzuna. Argudio hori ikuspuntu juridikotik baloratuta, Udalari aditzera eman genion, kontutan hartu behar zela atzerapen hori zentzuzko parametroetan besterik ez zela onargarri izango, eta galarazi behar da, praktikan, atzerapen horrek, bere baitan, ondorio disuasoriorik izatea euskara erabili nahi lukeenarentzat.

Balorazio honen ondorioz, Arartekoak gomendio bat igorri zion Sestaoko Udalari, interesdun pribatuen idazkiei eman beharreko erantzunetan hiritarrek hautatutako hizkuntza ofizial bera erabil zezan.

Halaber, administrazioaren joan-etorrietan erabiltzen diren ohiko agiri eta inprimaki asko beste administrazioetan euskaratu direnez, udalari iradoki zitzaion bitarteko horietaz balia zedila.

- Emaizta

Espedientea, gaur egun zabalik dago, Udalak gure gomendioari emango dion erantzunaren zain.

3. HEZKUNTZA

3.1. SARRERA

Hezkuntzaren alorrean guztira 52 kexa jaso dira, erakunde honek bideratutako guztien artetik %4,63, beraz. Horien edukiari dagokionez, honela bil daitezke:

Bestelakoak	25
EHU	10
Bekak eta ikasketetarako laguntzak	6
Ikastegia aukeratzeko eskubidea	6
Eskola instalazioak	2
Irakaskuntzaren programazio orokorra	2
Eskola garraioa	1

1998an zehar, hezkuntzaren alorrean bideratutako kexak zeintzuk diren ikusita, azpimarra dezakegu beste behin ere ez dagoela planifikazio egokirik haur hezkuntzaren da.

Beste kexa sorta batek zerikusia du derrigorrezko bigarren hezkuntza honetarako egin den zerbitzu zehatz batzuen antolamendu berriarekin: esate baterako eskola-garraioa eta jantokia.

Garraioari dagokionez, jasotako kexek salatu dute badela tratu desberdina gertatzeko aukera, irakaskuntza tarte honetarako baliatu diren baldintza ezberdinak kontutan harturik.

Jantoki-zerbitzuen arau-antolamendu berriak, bere aldetik, eguerdiko eskola-garraioari lotuta dagoen aldetik, zenbait akats agertu ditu, ez bere diseinuan, baina bai arau-antolamendua aplikatzeko bitartekoetan. Zehazki, erregulazio berriak ikastetxeen esku utzi dituen erabaki batzuek (adibidez emandako zerbitzua ez ordaintzeagatik zerbitzua eteteko neurriak erabakitzea) agerian uzten dute badela aholkularitza tekniko baten bitartez erabaki hartzaileei laguntzeko beharra.

Azkenik, era berean, hezkuntza-maila honen ezartzeak bere ondorioak izan ditu ikastetxeen mantenimenduan eta kontserbazioan. Izan ere, beste eztabaidagai bat sortu da bigarren hezkuntza ematen ari denean edo kokatzen denean, lehen hezkuntzarentzako diren eraikinetan. Kasu horietan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-Administrazioak, hau da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartu behar ditu udalek ordaintzen zituzten kontserbazio eta mantenimendu gastuak.

Gauza berri hauek alde batera utzita, eskola-instalazioen gaiari dagokionez, ondoko eskuhartze hau azpimarratu nahi dugu: hasierako bitartekaritza proposamen bat lagungarri gertatu da zentro publiko batzuen mantenimenduari buruzko afera bati konponbidea emateko. Afera honetan, mantenimendua edo kontserbazioa noren esku zegoen, eta horri zegokion aurrekontu-krediturik zegoen ala ez eztabaidaren gainetik, eztabaidagai zen zentro publiko horien ematea eta harpena.

Ikasleen onarpenari dagokionean, zentro publiko batzuetan jarraitu duten jarduera ikusita, erakundeak bere burua behartua ikusi du, dagokion gomendioaren bitartez, gogora ekartzera helbidearen ziurtagiria ezin dela inola ere onarpen-betebehartzat hartu, eta hortaz, ezin du justifikatu ziurtagiri hura ez duten eskabideen tramitaziorik eza. Alor honetan berean, onarpen-arauen aplikazio okerra planteatu da zentro hitzartu baten aldetik.

Zigor erregimenari dagokionez aurkeztu diren kexek, iaz Legebiltzarrari eginiko urteko txostenean bildutako gomendio orokorrean agertutako arazo berberak azaldu dituzte.

Azkenik, unibertsitatearen esparruan, erabat berria gertatu da arriskuen kudeaketa eta prebentziorako master baten sarbideari buruzko kexa bat. EHUK matrikulazioa egiteko aukera ukatzen zien erdi-mailako tituludunei, baina hasieran horiek sartu zituen masterra jaso zezaketenen artean. Hortik dator, beraz, gure eskuhartzearen nondik norakoa, jarraian datorren kexen aukeraketan zehatz-mehatz azaltzen den bezala.

3.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) **Ikasleen onarpena**

⇒ *Onarpen-eskabidea ikastetxe publiko batean. Helbidearen ziurtagiria. (1713/98)*

- Erreklamazioa

Erakunde honetan aurkeztutako kexaren arabera, Bilboko ikastetxe publiko batean matrikula egitea ezinezkoa zela baieztatu ondoren, ama batek alaba bizi zen herriko (Getxo) ikastetxe publiko batean onar zezatela nahi zuen.

Kexa jaso eta denbora puska batera, hezkuntza-administrazioak atzera bota zuen Getxoko ikastetxe publikoan onartua izateko eskabidea, epetik kanpo aurkeztu zuelakoan.

- Azterketa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik, kasuari zegokion informazio oro bildu ondoren, Arartekoak honako ondorio hauek aditzera eman zituen:

“...hezkuntza-administrazio horren iritziz, helbidearen ziurtagiria nahitaez aurkeztu behar da, eta ez bada aurkezten, justifikatua dago izena ematearen eskabidearen onarpen eza. Era berean, justifikatua dago behineko zerrendetarako erreklamazioen epe barrenean bete diren eskabideak garaiz kanpokotzat jotzea. Epe hori, aditzera ematen denez, interpreta daiteke aurkeztutako agirien zuzenketa egiteko epe gisa, baina ez da beste agiri batzuk aurkezteko epea.

Hala ere, otsailaren 4ko 14/1997 Dekretuak, eskolaurre, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoen zein pribatu hitzartuen onarpena arautzen duenak betebeharren artean bakar-bakarrik biltzen ditu kasu bakoitzari dagozkion hezkuntza mailarako eta ikasmailarako eskatutako betebeharrak akademikoak eta adinaren betebeharrak.

Horregatik, hara zer dioen Dekretu horren 4. artikulua ‘*ikasle batek, diru publikoarekin sostengatutako ikastetxe batean plaza eskatzen duenean, eta eskaera atenditzeko behar adina eskola-postu dagoenean, bertan onartu beharko dute, beti ere indarrean dagoen legeriak, eskatutako ikasketak egiteko agintzen dituen betebeharrak betetzen dituzenean*’,. Bakar bakarrik, behar adina postu ez dagoenean, eta eskatutako betebeharrak beteta daudenean, bideratuko da onarpena baremoan bildutako irizpideen arabera. Honela: (1) helbidearen hurbiltasuna, (2) familia-unitatearen urteko errenta eta (3) ikastetxean anai-arrebak matrikulaturik izatea.

Bere aldetik, 1998ko otsailaren 4ko Aginduak (EAO, 33.a, otsailaren 18koa) ez du deus ere eransten horri begira, zehaztu besterik ez baitu egiten 98-99 ikasturterako onarpen prozesuaren tramitazioaren egutegia. Inola ere ez ditu meritu gisa biltzen aurreko pasartean aipatutako irizpideak (besteak beste, helbidearena), eta ez du esaten aipatu irizpideak eskabideen hasierako epean ez badira argudiatzen, ezingo direla gero aintzat hartuak izan ziurtagiri egokiak bete eta aurkeztu ondoren.

Horregatik guztiagatik, erakunde honen iritziz, esan daiteke eskatzaile posibleen helbidea ezin dela inola ere onarpen-betebehar gisa hartu. Beraz, ezin du justifikatu helbidearen (erroldatzearen ziurtagiria e.a.) ziurtagiririk gabe egiten diren izen emateen eskabideen tramitazioarik eza. Alde horretatik, helbideari dagozkion datuak, bakar-bakarrik aintzat hartuak izan daitezke baremo gisa eta eskabideen ordenazio gisa, eta hori bai, zehaztu behar da hautagaien arteko lehentasunaren ordena.

Bestela esanik, eskatzaileak 14/1997 Dekretuan aurreikusitako onarpen-betebeharrak betetzen ez dituzenean bakar-bakarrik tramitatu gabe utzi daiteke izena ematearen eskabide zehatza. Beste edozein inguruabarrak, esate baterako, eskatzaileen arteko lehentasuneko ordena zehazten duen merituen ziurtagiriak aurkeztu ez izanak, ezin du inola ere halako ondorioz ekarri, hau da, ezin du onarpen-eskabidearen tramitazio eza ekarri. Onarpen eskabidea osatu eta hobetu ahal izango da urteko Aginduak ordenazio irizpideak meritu gisa aintzat hartzen ez dituen heinean. Urteko Aginduan biltzen dira ikasleen onarpenaren prozedimenduetan bat egin behar duten prozedimenduko egutegia eta arauak Ez baitu esaten beharrezkoa dela interesdunek meritu horiek argudiatzea eta egiaztatzea eskabideen hasierako epean, beste konkurrentzia masiboko prozedimentuetan gertatzen den bezala. Beraz, ez da eragozpenik ikasleen onarpenaren prozesuarekin bat datozen ordenazio irizpideen ziurtagiriekin interesdunek eskabidea hobetzeko eta osatzeko.

Berriz ere (...)ri helduz, Arartekoak uste du hasieran helbidearen ziurtagiririk aurkeztu ez izanak, soilik baremo-irizpide hori aintzat hartu ez izana justifikatzen duela, eta dagokionean soilik justifikatzen du Bilboko Ikastetxe Publikoan izena eman ez izana, puntuazio handiagoa duten beste hautagai batzuek lehentasuna dutelako.

Hala ere, ondorio hori onartuta eta hezkuntza-administrazio horrek 98-99 ikasturterako ikasleen onarpen prozesurako emandako araubideak jarraikiz, (...) izena ematearen eskabidea, ofizioz igorri behar izan zuten bigarren tokian aukeratutako ikastetxera (Getxoko IP). Bigarren lehentasun gisa kudeatutako gainontzeko eskabideei emandako tratamendu berbera eman behar zitzaion, eskabidearen ondoan agertutako agirien arabera, eta kontutan hartu gabe prozedimentuaren zein unetan aurkeztuak izan diren agiri horiek (eskabide epea – eskabideak hobetzeko epea).

Bestela, Arartekoaren iritziz, onarpen-betebeharraren tankera emango litzaiokie ikasleen helbideari edo, gutxienez, interesdunei ukatuko litzaietke, bizi diren helbidearen inguruari ez dagokion ikastetxe batean izena emateko aukera, lehen lehentasun gisa. Izan ere, lehenengo ikastetxe honetan onarturik izan ezean, beste edozein eskabideri garaiz kanpoko iritziko liokete, ... kasuan gertatu den bezala.”

- Emaizta

Azaldutako arrazoiak direla medio, Arartekoak gomendatu zuen neurri egokiak har zitezela neska honen izena emateko eskabidea bideratua izan zedin, aintzat hartuz Getxoko IPan egindako izen-ematearen bigarren eskabidea. Hori guztia, ikasleen onarpena arautzen duen baremoaren irizpideen arabera, legokiokeen lehentasun-ordenarekin bat, eta bereziki, aintzat hartuz Getxoko udalerrian bizi dela.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez zuen emandako gomendioa onartu, eta horretarako argudiatu zuen neska hura onartzeak bere baitan zekarrela bigarren lerro bat zabaldu behar izatea Getxoko IPan, eta ez zela horretarako justifikaziorik, inguruko tokien eskaintza nahikoa baitzen. Hala ere, neskaren eskolatzeari bermatu zuen Bilboko ikastetxe publiko batean, eta horrekin batera, ondoko ikasturteen onarpen prozesuetan erakunde honen iradokizunak betetzeko konpromezua hartu zuen prozedurari, agirien tratamenduari eta abarri zegokionez.

⇒ *Ikasleen onarpena: apreziazio libreko irizpideen aplikazioa. Publizitate eta objektibitate falta (1983/98)*

- Erreklamazioa

Ikasle baten gurasoek kexa bat aurkeztu zuten, haien iritziz ikastetxe hitzartu batek euren semearen kasuan modu arbitrarioan aplikatu zituelako ikasleen onarpen arauak.

Zehazki, gurasoei iruditzen zitzairen apreziazio librearen puntua, “*familia-tradizioa zentroan*” baloratzen zuena, ikastetxeak modu arbitrarioan aplikatu zuela, ikasleak, ikastetxe publikoetan nahiz hitzartuetan onartzeko arauak aurreikusitako publizitate irizpideekin bat egin gabe.

Gurasoek, dagokion erreklamazioa aurkeztua zuten Hezkuntza Lurralde Ordezkararen aurrean. Erantzunik jaso gabe arrazoizko denbora pasa zenez, Arartekoaren aurrean kexa aurkeztea erabaki zuten.

- Azterketa

14/1997 Dekretuak, ikasleen onarpena arautzen duena, apreziazio libreko irizpideen arabera puntu bat emateko aukera aurreikusten du. Irizpide horiek objektiboak ote diren eta berdintasunez aplikatzen ote diren jakiteko, dekretuak berak berme batzuk ezartzen ditu, besteak beste, publizitateari dagokiona.

Irizpideen argitara-emate honi dagokionez, interesdunak eramandako agirien artean bazen bat honako izenburu hau zuena: “Ikastetxearen disposizio libreko puntua emateko irizpideak”. Familia-tradizioa zentroan delako irizpidea biltzen zuen. Agiri horretan, ordea, ez zen zehaztasunik aipatzen. Zehaztasunak gero biltzen ziren, Ikastetxeko Zuzendariak ondoren ateratako idazki batean.

Beraz, ez zen zehazten nola aplikatu behar zen apreziazio librea, eta datu horrekin batera bazen interesdunak argudiatutako beste datu bat, eta hori egiaztatzea eskatu zuen. Izan ere, beste ikasle bat, erreklamazio egilearen ahaidego maila berdinetan egonik (ikastetxeak, familia-tradizioa gisa baloratzen zuena), ikastetxeak modu ezberdinean barematu zuen. Aplikatutako irizpideen publizitate eta objektibitate falta kontutan hartuta ere, beste datu hori lagungarri gertatzen zen ikusteko berdintasunaren printzipioa aintzat hartua izan zen ala ez.

Hortaz, interesdunaren kexa inguruabar horietan oinarritzen zen. Horregatik, kexa bideratu eta Hezkuntza Sailari txostena eskatu zitzaion, aipatutako bi alderdi horiei buruz:

- a) Ikastetxean, familia-tradizioa gisa ulertu behar denaren zehaztapena egiten duten irizpideen publizitatea.
- b) Gurasoek tratu desberdina argudiatzeko aipatutako kasuari dagozkion inguruabarrak.

- Eraitza

Hezkuntza Sailak Arartekoari bidalitako erantzunean esaten zen gurasoek onarpen-arauak bete ez izanari buruz aurkeztutako argudioak aintzat hartuak izan zirela Lurralde Ordezkariek emandako Ebazpenaren bitartez. Ikastetxeak uko egin zion matrikula bideratzeari ebazpen hori irmo izan artean.

Ikastetxeak aurkeztutako ohiko helegitea atzera bota zen Hezkuntzako Sailordetzaren ebazpenaren bidez, Lurralde Ordezkararen ebazpena berretsi baitzuen.

Azkenik, ikaslea onartua izan zen gurasoek aukeratutako ikastetxe hitzartuan.

B) Zigor erregimena

⇒ *Ikasleei ezarritako zigorren betekizuna. Egintzaren irmotasuna (1973/98)*

- Erreklamazioa

Ikasle batek zigor baten aurkako helegitea aurkeztu zuen. Oraindik ebazpena eman gabe zela, ikastetxeko zuzendariak jakinarazi zion zigorra bete egin behar zela.

- Azterketa

Datuak aztertuta, eta oinarritzat hartuta 1997ko Txostenean bildutako gomendio nagusian bilduta zeuden gogoeta berberak, 59/98 Gomendioa zuzendu zen, zigorra berehalakoan betetzeko beharra nabarmentzen zuen daturik ezean zigorraren betekizuna bertan behera utz zezaten.

Hezkuntza Sailak bere erantzunean jakinarazi zigun gomendioa onartu zela. Hala ere, gurasoek eta ikastetxeak berak aurkeztutako datuak ikusita, beharrezkoa jotzen dugu gogoeta batzuk egitea ikusitako akats batzuen gainean.

Zigorra bete baino lehen, ikastetxeak Ordezkaritzan helegiterik tartekatua ote zen galdetu zuen. Modu okerrean jakinarazi zitzaion ezetz. Ondoko azalpena hauxe izan zen: helegitea Hezkuntza Sailaren aurrean zuzenean aurkeztua izan zela, zerbitzu zentraletan.

Egoera honetan, eta ikusita berehalakoan iritsiko zela Kontseiluak zigorra betetzeko aurreikusitako data, aholkularitzak idazkia ikastetxeari bidali zion, eta horren bidez jakinarazi zitzaion bazela ohiko helegite bat, eta komenigarria zela zigorra betearazteko erabakia bertan behera uztea.

Ikastetxeko zuzendaritzaren iritziz, idazki hura ez zen, berez, nahikoa kontseiluaren erabakia bertan behera uzteko, irizpide egokiak bildu arren. Zehazki, ohiko helegitea aztertzeke organu eskudunak emandako suspentsio akordiorik ezean, beharrezkoa zen kontseiluak beste erabaki bat hartzea aurreko erabakia atzera botatzeko. Inguruabar horien arabera, kasu horrek bazuen arazo bat, hots, zigorra berehala beteko zela, zigorra irmoa izan baino lehen, eta arazo hori, soil soilik behintzat, ezin zitzaien leporatu zigorraren aplikazioaz ardura zuten organuei.

- Emaizta

Zigorraren betekizuna bertan behera utzia, eta Sailak ohiko helegitea, hein batean, aintzat hartuta, espedientearen artxibatzeari heldu zitzaion.

C) Jantokia eta garraioa

⇒ *Eskola zerbitzu osagarrien antolaketa: jantokia eta garraioa. (40/98)*

- Erreklamazioa

Ikastetxe bateko eskola-kontseiluak erabaki zuen bi ikasleri jantoki-zerbitzurik ez ematea, gurasoek zerbitzu horren kuotak ordaintzen ez zituztelako. Kexa aurkeztu zuten gurasoen iritziz, ez zuten zerbitzua ordaindu behar, ez baitzuten hori hautatu. Gurasoek nahiago zuten seme-alabak eguerdian etxera joan zitezela eskola-garraioa erabilia, horretarako eskubidea zuten eta.

- Azterketa

Beharrezkoa da heziketarako eskubidean bereiztea zer den eskubideen funtsa eta zeintzuk diren eskubidearen erabilpenari dagozkion alderdiak. Lege antolamenduak funtsei buruz eskaintzen duen babesak ez du hainbateko indarra Administrazioari exijitzeko eskubidearen betekizuna horrela edo honela egin behar dela. Azken alderdi hau Administrazioaren eskumen botereei dagokie, eta eskumen botere horien arabera, bere eskumenean dituen bitartekoak antolatzen ditu.

Antolamendu edo planifikazio honetan zera gertatzen da, hiritar guztiek ez dutela ikastetxe bat distantzia berean. Inguruabar honek ez du esan nahi heziketarako eskubidea urratu denik. Hala ere, botere publikoek eskuhartzen dute ezberdintasun material hauek murrizteko, eta horretarako zerbitzu batzuk antolatzen dituzte, horien artean garraioa eta jantokia.

Botere publikoei egokitutako eginkizunen artean zerbitzu horien bidezko eskuhartzea dago, modu horretan sustatzeko eskubideak hobeki bete ahal izateko baldintzak. Hori horrela izanik, kontutan hartzekoa ere bazen ez dela, orokorrean, aurretik existitzen berez eskubide subjektibo bat eskola-zerbitzuei dagokienez. Izan ere, eskubide horiez baliatzeko aintzat hartu behar dira erregulatzen dituzten arauak.

Halaber, funtsezkoa zen kontutan hartzea, eta horrela jakinarazi zitzaizkien interesdunei, Administrazioak zerbitzu horiei buruz duen eskumen botereak ez duela esan nahi Administrazioak arbitrarietatez jokatu behar duenik, baizik eta ahalmen hori aurrera eraman behar duela antolamendu juridikoa arautzen duten printzipioekin bat eginez, eta horien artean berdintasunaren printzipioa dago.

Kexa eragin zuen arrazoi zehatzak zerikusia zuen Hezkuntza Sailak 1997ko ekainaren 10eko Aginduan bildutako aurreikuspen batekin. Aginduaren 4.1 artikulua haxe zioen: baimena ematen zitzaion ikastetxeari eskola-jantokia ezartzeko, baldin eta alde aurretik uko egiten bazion eguerdiko eskola-garraioari. Ordezkaritzaren Organu Gorenak erabaki zuen hori.

Hasieran, ukazio honen eskakizunak, tankera kolektiboaren asmoa duena, zalantzak sortzen zituen. Izan ere, eragina izan zezakeen indarrean dauden arauen markuan eskatutako betebeharrak, -hezkuntza-maila, distantzia, e.a.-, betetzen dituzten ikasle haien eskola garraiorako eskubide indibiduala izan zitekeen horretan.

Zerbitzu horiek aintzat hartzen dituzten arauak beraiek arautzen dute eskola-zerbitzuetarako eskubidearen edukia. Alde horretatik, kasu apartekoetan izan ezik, garraiorako edo jantokirako eskubidea abagunez abagune onartzen diren arauen eskutik doa. Beraz, ez da aurretik existitzen zerbitzu horietarako eskubiderik.

Adierazitako zentzuan, eta eskola-zerbitzu osagarri hauen edukiarekiko Administrazioaren obligazio zehatza aitortuko duen araurik ezean, eskubideen aldarrikapena egiten baldin bada, bakar bakarrik, oinarrian hartuta aurreko egoerak edo erregulazioak lege antolamenduaren mokortzea ekar lezake. Horrek administrazioari oztopoa ekar liezaioke bere antolaketa zein araudi mailako ahalmena aurrera eramaterakoan.

Ikuspuntu horretatik, aipatutako Aginduko 4.1. artikulua ulertu behar zen ez eskubide baten desjabetze gisa, horretarako oinarritzat hartuz organu kolegiatu baten erabaki bat, baizik eta zerbitzuen arautze berri bat bezala. Eta zerbitzuen arautze berri horren bitartez, Administrazioak, bere laguntza-eginkizunekin bat eginez, eskuhartzen du ikastetxeekiko distantzia berdintzeko. Eta eskuhartzen du aurreko moduaz bestela izan daitekeen moldez.

Eskola zerbitzuak osotasunean hartuta egin daitekeen irakurketak haxe erakusten digu: delako 4.1 artikuluan aurreikusitako eskakizuna aplikatu litekeela Administrazioak edukiz hustu gabe, garraio eta jantoki zerbitzuen bitartez, aurrera eraman nahi duen eskolatze eginkizuna. Gai honi buruz egiten den azterketa oro eskolatze-eginkizun honen baitan egin beharra dago.

Funtsean, Administrazioak zerbitzu horiek ezartzen ditu eskolatzea laguntzeko. Baina, ikuspuntu juridiko zehatz batetik, ez da zerbitzu horiei buruzko eskubide subjektiborik. Eskubide subjektibo horren bidez hiritarrak edozein kasutan zerbitzu horiek eska ditzake edo zerbitzu horiek halako moduan antolatzea eska dezake. Aldez aurretik ez baldin bada garraiorako eta jantokirako eskubiderik, hau da, eskubide hori sortu eta existitzen baldin bada arautzen duten arauak zehazten dutenaren arabera, aztertu behar dena da, batetik, arauan bildutako aurreikuspenetan mantentzen ote zen lortu nahi zen xedea, eta bestetik, zerbitzuez baliatzeko arau horren aplikazioan aintzat hartzen ote zen berdintasunaren printzipioa.

1997ko ekainaren 10eko Aginduko 4.1 artikulua aurreikuspena modu honetan aztertzerakoan, Arartekoak ez zuen agindu horretan inolako eskubide-desbideraketarik edo urraketarik topatu. OOGren erabakiak, organu kolegiatua den aldetik, eguerdiko garraioan besterik ez zezakeen eraginik izan. Izan ere, eguerdikoak erlazio zuzena du jantokiaren zerbitzuarekin. Beraz, harekin lotzen zaio, baina ez zuen eraginik goizeko eta arratsaldeko garraio-zerbitzuan, edonola ere mantentzen baitzen.

1997ko ekainaren 10eko Agindua neurrikoa dela iduri du, ondoko arrazoi hauek direla medio: neurri honen egokitzapena, oro bat, eskola-zerbitzu guztiak arautzea helburu duen xedearekin, OOGren erabaki hartzean izandako partaidetza, zeinetan ordezkaturik dauden eskola-erkidegoko sektore guztiak, eta azkenik, bakar bakarrik eguerdiko garraio-zerbitzuarekin lotura izatea.

Arauren tituluak jantokiei besterik aipamena egiten ez badie ere, nabarmena da arauaren edukiak oro bat bi zerbitzuak arautu nahi dituela, elkarren arteko lotura duten alderdietan, hau da, eguerdiko garraioan. Antolaketaren ikuspuntutik, lotura honek arrazoizkoa dirudi, zentzuzko planifikazioari beharrezkoa gertatzen baitzaio horri buruzko aurreikuspena. Aurreikuspen honek honetan du oinarria: finantziarioari esker, jatekoa eskain dakioke ikasle bakoitzari, kostu txikian.

Era berean, espediente honetan haxe izan zen gogoetagai: ea 1997ko ekainaren 10eko Aginduak eragina zuen ala ez errespetatu beharreko aurreko egoeretan, eskubide eskuratuak izateagatik.

Doktrinaren arabera, eskubide eskuratuak dira hiritarren jabetzan behin betiko sartu direnak. Horretan datza beste egoera batzuekiko ezberdintasuna, beste egoera horietan eskubide-espektatibaz mintzatzen baikara.

Garraiorako edo jantokirako eskubidea zuzenean lotuta dago Administrazioak, kasu honetan Hezkuntza Sailak onetsitako arauetan hartaz egiten den konfigurazioarekin. Bada, arau horietan gertatzen diren aldaketek eragina izan dezakete eskubidedunen eskubideen espektatibetan. Baina, aldaketa horiek eskubide eskuratuetan eragina ez duten heinean, erregulaziorik diren egoera askotan eragiten duen dinamismoarekin batera gerta daitezke. Aldaketa horiek ez onartzea, eta eskubideak arrazoitzat aipatzea, bakar bakarrik aurreko egoeretan edo aurreko erregulazioetan oinarrituz, antolamendu juridikoaren estatikotasuna sortuko litzateke eta hori ez da batere ona.

Interesdunek aurkeztutako datuak aztertuta, ez dugu ikusten 1998ko ekainaren 10eko Aginduak eragina izan duenik indarrean sartu baino lehenago sortutako egoeretan. Beraz, Arartekoak iritzi zuen ez zela interesdunen eskubide eskuratuaren urraketarik gertatu.

Horren ondorioz, era berean, ez zen inolako arrazoirik ikusi aipatutako Aginduaren aplikazioan salbuespen bat ezartzeko.

- Emaizta

Balorazio hori oinarrian hartuta jakinarazpena egin ondoren, Arartekoak ez zuen eskubide urraketarik ikusi, eta kexa espedientea artxibatu egin zen.

Aferaren muinean dagoena alde batera utzita, espediente honetan aparteko inguruabarra gertatu zen, hots, Hezkuntza Sailak ohi ez bezalako atzerapenez jokatu zuen Arartekoari kexa honen gainean eskatutako informazioa igortzerakoan.

Horregatik, hainbat hilabetetako atzerapena gertatu zen interesdunei erantzuna eman aurretik. Inguruabar hori nabarmendu zen interesdunei eta Hezkuntza Sailari jakinarazitako espedientearen artxibatze ebazpenean.

D) **Ikastetxeak-planifikazioa**

⇒ *Bi urteko ikasleen eskolatzearen planifikazioa ikastetxe publikoetan. (1076/98)*

- Erreklamazioa

Getariako Udala bere gain hartzen ari zen bi urteko haurren eskolatzeara. Egoera horretan, 1996-97 ikasturtean eta eraikin berean, Hezkuntza Sailak zentro horretan eskola-eskaintza zabaldu zuen bi urteko haurrentzako beste gela baten bidez.

Udalaren iritziz, gurasoek 1996-97 ikasturte horretako kuota ordaindu behar zituzten. Ez, ordea hurrengo 1997-98 ikasturtekoak.

Gurasoek, beren aldetik, uste zuten Hezkuntza Sailak bi urteko haurren eskolatzeara ezarri ondoren, ez zegokiela inolako kuota-saririk ordaintzerik.

- Azterketa

Erkidego Autonomoan aplikagarri den araudiak eskolatzeara eta honen doakotasuna bermatzen du haur hezkuntzaren bigarren ziklotik aurrera, eta aurreikusten du mailaka eginen dela lehen zikloaren ezarketa (otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 9. artikulua). Horren arabera, ez dago berehalakotasunez ezagutua lehen zikloan eskolatzeara, bigarreanean bai, ordea.

Araudi hau kontutan hartuta, hona hemen zein zerbitzuek osatzen duten haurren eskolatzeara lehen zikloan: zero urtetik aurrera ziklo osoa hartzen duten zerbitzuak eta bakar bakarrik bi urtetik aurrerako eskolatzeara hartzen dutenak. Azken hauek haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan batez ere.

Esku artean harturik haurren eskolatzeara bi urteko ikasgeletan, ondoko hau topatu dugu – hori iradokitzen dute, behintzat, alor honi buruz, Arartekoaren aurrean aurkeztu diren kexek -: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila ez da Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeak 9.2 artikuluan ezartzen dituen irizpideak jarraitzen ari horren ezarketari dagokionez. Izan ere, askotan, zentroan berean dauden bitartekoaren eskuragarritasunaren arabera jokatzeko ari da, eta eskola-eskaintza egin aurretik ez da burutu Legeak agindutako lehentasunekin bat datorren planifikaziorik. Hona hemen zeintzuk diren lehentasunak: maila sozioekonomiko apalagoa duten zonaldeei arreta egin behar izatea, eta oro har, arreta egin behar zaie heziketa-premia bereziak edo hizkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei.

Hona hemen Arartekoak kexa honetan topatu zuen arazoa: oso zaila gertatu zen alderatzea bi urtekoen eskaintzari buruz Administrazioak, esku artean darabilgun zentroan egindako planifikaziomolde zehatza, 1/1993 Legearen 9.2 artikuluan adierazitako printzipioekin.

Beraz, halako iritzi-elementurik ez zegoenez, ezin izan genuen legean bildutako printzipioen ikuspuntutik kasu hau aztertu lehen zikloaren ezarketari dagokionez. Hala ere, hori ez zen oztipo izan kexa honen azterketan aurrera egiteko.

Izan ere, kontutan hartzen bagenuen hezkuntza-administrazioak bi urtekoen eskolatzeari bere gain hartutako tokietan dohainik egin zuela, helburua zera zen: jakitea ea Hezkuntza Sailak Getariako lehen zikloaren eskaintza sartua ote zuen bere eskola-planifikazioaren barruan, eta horrela izatekotan, jakin nahi genuen zein unetan gertatua zen ezarketa hori.

Kasu honetan gertatu ziren ingurubar batzuek azal zezaketen zeinen modu ez ohikoan egin zen bi urtekoen eskolatzeari ezarketa hezkuntza-administrazioaren aldetik. Inguruabar horiek kontutan hartu ziren kexa honen azterketan. Gogoan hartu behar da udalbatzak bi urtekoen eskaera bere bitartekoekin atenditu zuela Udal Gizarte Zerbitzuen Fundazioaren bitartez. Bada, inguruabar horiek lotura zuzena dute udalak hartutako jarrera horrekin.

Kexa modu horretan kokatua, bi alderdi bereiz zitezkeen: bata bi urteko ikasleen eskolatzeari doakotasunari lotutakoa, Iturzaeta Ikastetxe Publikoan, eta bestea esparru berean bi administrazio ari direnean eratu beharreko lankidetzari bitartekoekin zerikusia duena, kasu honetan gertatzen zen bezalaxe (Udala eta Hezkuntza-Saila).

Lehendabiziko alderdiari dagokionez, ez dagoenez lege-aurreikuspenetatik zuzenean eratorritako doakotasunerako eskubiderik, ikusi behar litzateke ea benetan eskola-planifikaziorik izan ote zen Getarian lehen zikloa ezarri aurretik. Orduan, bai, hortik etorriko litzateke doakotasunerako eskubidea, eta hori guztia ikertu beharra zegoen.

Jasotako informazioaren arabera, argi ikusten zen 1997-98 ikasturterako planifikazioa egina zela bi urteko haurren bi talde oinarrian hartuta. Zalantzak, ordea, aurreko ikasturteari buruz sortzen ziren, 1996-97 ikasturteari buruz, alegia. Izan ere, ikasturte horri zegozkion kuota-sariak ziren gurasoen kexagai nagusia.

Zalantza horiek izanik ere, eta horretan eragina ere izan zuen planifikaziorako bitarteko egokirik ez izateak, lehen zikloaren ezarketa nola egin behar zen aurreikusiko zuena, Arartekoak iritzi zuen, gurasoei dagokienez, 1996-97 ikasturtean gertatu ziren inguruabarrek erakusten zutela bi urtekoen eskolatzeari dohainik izan behar zuela Getariako haurrentzat. Beste kontu bat da ikustea ea bi administrazioen arteko lankidetzarako bitartekoak egokiak izan ote ziren ala ez doakotasun hori bermatzeko, bi administrazioek jarritako bitartekoaren artikulazioaren bitartez.

Aurrera eramandako egiaztatzean, 1996-97 ikasturteari zegozkion bi datu izan ziren funtsezkoak: batetik, Hezkuntza Sailak bi urtekoen ikasgela bat Iturzaeta Ikastetxe Publikoan zabaldu izana, eta bestetik, adin horretako ikasle guztiak matrikulatu izana Hezkuntza Sailaren eskolatzeari aurreinskrizioaren inprimakia erabiliz.

Hezkuntza Administrazioak bi urtekoen eskaintza bere gain hartu zuenean, hori ez zen gertatu, eta esan behar da bakar bakarrik irakasle propioak erabili zirela horretarako. Hori horrela ez izateak ez zuen justifikatzen, halere, gurasoei tratua ezberdina ematea. Izan ere, EAEn administrazioaren menpe dauden beste ikastetxe publikoen eskaintzaren barrenean eskolatzeari dituzten seme-alaben gurasoei beste tratua ematen zaie.

Udala, huts hutsean, bere giza baliabide eta bitarteko materialekin eskaera 1996-97 ikasturtera arte ari zen atenditzen. Beraz kasu berezia zen. Baina Arartekoaren

iritziz, kasu berezia izateak ez zuen oztopo izan behar, arrazoi bat baizik, bi administrazioen, Hezkuntza Sailaren eta Udalaren arteko lankidetzarako, bitarteko egokiak era zitzaten. Horrek kokatzen gintuen kexa honetan bereizitako bigarren alderdian, eta beste alderdi hori zen doakotasunaren ezagutzaren beste aldea kasu honetan, hau da, baliagai zeuden bitartekoen artikulazioa, eskolatzea baldintza horietan burutzeko.

Kexa honen gaia 1996-97 ikasturteari zegokion kuota-sari baten kobraketa baldin bazen ere, kexa honen azterketa ez zen soilik mugatu behar modu isolatuan halako kobraketa oinarritua zegoen ala ez aztertzeraz. Alde horretatik, azkenean iritsitako akordioaren arabera, gurasoek ez zuten kuota-saririk ordaindu behar 1996-97 ikasturtearengatik. Baina akordio horrek ez zuen bere horretan agortu behar, eta bide eman behar zuen Hezkuntza Sailaren eta Getariako Udalaren artean lankidetzarako bitarteko egokiagoak aztertzeko, modu horretan aro berezi horretan egokitzapena egin ahal izateko. Izan ere, hasieran Getariako Udalak huts hutsean bere gain zuen bi urtekoen eskolatzea, eta egoera berrian bi urtekoen eskolatzea Iturzatea Ikastetxe publikoan sartuta zegoen Hezkuntza Sailaren eskola-planifikazioan

- Emaizta

Bilera bat egin zen eta bertan alde guztiek parte hartu zuten Arartekoarekin batera. Bada, bilera horretan egindako akordioaren arabera gurasoek ez zuten 1996-97 ikasturteari zegokion inolako kuota-saririk ordainduko. Izan ere, ikasturte horretan, hezkuntza-administrazioaren planifikazioaren barreneko bi urtekoen eskaintza sartu zen.

Kexagaia konpontzen duen akordioa alde batera utzita, Arartekoak, eragindako Administrazioei, Udalari eta Hezkuntza Sailari alegia igorritako idazkian, azpimarratu zuen bazela bitartekoak elkarren artean egituratzeko beharra, horien artean giza baliabideak, modu horretan bi urtekoen eskaintzaren planifikazioari udalerrian erantzun egokia eman ahal izateko.

E) Ikastetxeak: kontserbazioa eta mantenimendua

⇒ *Ikastetxeen kontserbazioa eta mantenimendua Vitoria/Gasteizen. (1801/97)*

- Erreklamazioa

Gasteizko Arantzabela, Abendaño, Odon de Apraiz, Toki Eder eta Barrutia ikastoletako ordezkariak Arartekoaren bitartekaritza eskatu zuten, ikastetxe hauen kontserbazioari eta mantenimenduari buruzko egoera bideratu ahal izateko.

- Azterketa

Gasteizko Udalarekin lehen harreman bat izan ondoren, erakundeak ondoko idazki hau igorri zion Alkatetzari. Honatx idazkian jasotako gogoetak:

”Pozen nau jakiteak Alkatetzara horrek, haur eta lehen hezkuntzarako diren eraikinen kontserbazioaz, mantenimenduaz eta zainketaz duen udal-betebeharra gain hartu izana, horixe baita ikastola hauen guztien kasua. Izan ere, gure iritziz betebehar hori aintzat hartzea funtsezkoa da esku artean darabilgun aferaren konponbideari begira.

Alde horretatik, Jaun Txit Prestu hori buru duen udalak, orain artean, eskatu izan duen alde aurreko baldintzei dagokien eztabaida orok ezin du ezjakinarena egin edo saihestu udalbatza horren gainean eragina duen lege-betebehar honen betekizuna.

Hala eta guztiz ere, ziur nago Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aldeko jarreraz, konponbide partekatua bilatu eta egungo egoera bideratzeko. Bilaketa lan horrek, gure aburuz, saiatu behar du, banan-banan gainditzen alde aurreko baldintzatzaile bakoitza, delako baldintzatzaile horiek eragozten baitute ikastetxe hauen kontserbazio, mantenimendu eta zainketa eskumenaren harpena”.

1. Eskola-eraikuntzen jabetzaren eskualdaketa

Ez dirudi lehen baldintzaile honek eragozpen handiegirik ekar dezakeenik. Izan ere, badira ikastolen publikatzea bezalako aurrekariak, eta aurrekari horien arabera, inolako zailtasunik gabe aurrera eraman da udalen aldeko titularitate aldaketa.

Are gehiago, lehen baldintzatzaile horri dagokionez, hezkuntza alorreko arduradun batzuekin izaten ari garen elkarrizketengatik ziur gaude Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, titularitatearen aldaketa asmo zehatz honen gainean aldeko iritzia duela.

2. Dagokion aurrekontuaren eskualdaketa

Izan ere, Jaun Txit Prestu horrek bere idazkian adierazten duen bezala, azaroaren 25eko 27/1983 Legean diseinatutako eskumen-banaketak, Lurralde Historikoen Legea izenez ezaguna dena, bere isla izan zuen aurrekontuen alorrean. Izan ere, berezia da EAEko ogasunaren eta lurralde historikoen foru ogasunen arteko harremanak arautzen dituen finantz-sistema. Jakina denez, foru hazienda bakoitzaren ekarpena zehazten da, elkarren arteko erakundeek nahiz foru organuek bere gain dituzten eskumenen edota zerbitzuen arabera.

Hala eta guztiz ere, esku artean darabilgun kasuan, ezin da LHLtik eratorritako eskualdaketak gertatu ziren unean bezalako tratamendurik ezarri. Izan ere, tokiko esparruari egokitutako eskumena denez, delako eskumena garatu behar da aurrekontu propioaren bizkar, baina horrek ez du esan nahi dagokion foru haziendatik, orokorrean, tutela finantzieroa lortu ez daitekeenik.

3. Garbiketa, zainketa eta jagole lanak egiten dituen pertsonalarekiko tratamendua

Hezkuntza-arduradunek, jadanik, zainketa eta jagole lanak egiten dituen pertsonala (atezainak) bere gain hartzeko jarrera agertu dute. Horregatik, eztabaidagaia propio kontratatu diren enpresen bidez, garbiketa-lanak egiten dituzten 13 langileren egoera litzateke.

Hala ere, aintzat hartuz Hezkuntza Sailak duen egungo kontratan hitzartutakoaren indarreango epea, nire iritziz, enpresa berri kontratugileak, pertsonal honen etorkizunaren gaineko eztabaida orori heldu beharko dio sektorearen lan-komeniotik. Horrek berekin ez ditu Udal horrentzat beste ardura batzuk ekarri behar.

4. Ikastetxeak mantenimendu eta kontserbazio baldintza ezin hobean ematea

Nire ustez zailtasunik handienak gai honetan gertatzen dira. Horregatik, saiakera edo ahalegin handiagoa egin behar da egungo jarrerak hurbilartzeko.

Alde honetatik, uste dut egokia dela azpimarratzea nire hasierako gogoeta. Gogoeta horren arabera, Udal horrek ezin du ezjakinarena egin edo saihestu berari dagokion lege-betebeharraren betekizuna. Horrek bidea ematen du planteatzeko badela erantzunkizun partekatu bat, gaur egun, ikastetxe horiek dituzten hutsunei buruz, Udal horretako zerbitzu teknikoek diotenaren arabera.

Gogoeta hauek egin ondoren, erakunde hau eratu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak aitortzen dizkidan bitartekaritza-ahalmenez baliatuta, eta ikusita:

- ez dagoela eragozpen handiegirik ondoko baldintzatzaileok gainditzeko: (1) jabetza eskualdaketa, (2) dagokion aurrekontuaren eskualdaketa eta (3) garbiketa, zainketa eta jagole lanak egiten dituen pertsonalaren tratamendua,
- eta desadostasunaren gai nagusia izanik, ikastetxeak mantenimendu eta kontserbazio baldintza ezin hobean eman behar izatea,

ontzat ematen dut Jaun Txit Prestu horri haxe iradokitzea, hots, hurbilketa-ahalegina egin dezazula entrega aurreko mantenimendu eta kontserbazioaren gutxieneko baldintza horiekiko balorazio zehatzean, gutxieneko baldintza horiek zeintzuk izan behar dutenari dagokionean. Izan ere, horrek ahalbideratuko du, egun, ikastetxe horien mantenimenduaz dagoen desadostasunaren aterabidea, gisa horretan behar bezain akordio egokia lortuz. Akordio hori ona izango da erakunde bakoitzak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Udalak bere erantzunkizuna erabil dezan dagokion eskumen-barrutian.

Aldi berean, aditzera eman nahi dizut zure esanetara naukazula arbitraia edo bitartekaritza lanak aurrera eramateko, komenigarri baderizkiozu.”

Alde honetatik ere, idazkia igorri zitzaion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Gabinetearen Zuzendariari eta jarreraren hurbilketan ahalegin berbera iradoki zitzaion, entrega aurreko mantenimendu eta kontserbazioaren gutxieneko baldintzei zegokienez.

- Emaizta

Bi administrazioek, azkenean, erabateko akordioa lortu zuten kontserbazio eta mantenimendu baldintzei buruz, eta horrek erakundeari aukera eman zion bere eskuhartzea bukatutzat jotzeko.

F) Irakaskuntza artistikoak

⇒ *Musika ikasketak. (1937/97)*

- Erreklamazioa

Aita baten bitartekaritza eskaera jaso zen erakundean. Izan ere, hiritar horrek musika-ikasketak eta erregimen orokorrekoak batera egitea erraztu zezakeen behar adina laguntza sustatu nahi zuen.

- Azterketa

Hasierako fasean, erakundeak interesdunari jakinarazi bazion ere alde horretatik bazirela ekimen argiak, -esate baterako, 1997ko urriaren 27ko Agindua, zeinaren bitartez baliozkotze eta egokitzen kurrikular batzuk ezartzen baitira-, kexaren sustatzaileak azpimarratu zuen beharrezkoa zela neurri horietan sakontzea.

Horregatik, Arartekoak ohiko informazio eskaera egin zuen. Hona hemen jasotako erantzuna, bere horretan hona aldatuko duguna interesgarria delakoan:

“Musika-irakaskuntzen zehaztasunean, LOGSE Legeak bi prestakuntza bide aurreikusten ditu: profesionalizatzailea, zortzi urtetik aurrera eta 14 urteko karrera duena, eta ez profesionalizatzailea. Azken honetatik, dotatuak eta zaleak zuzenean sar daitezke erdi-mailako edozein ikasmilian (sei) eta are, baita goi-mailan ere, sarbide probaren bitartez.

Arartekoari igorritako erantzunetan behin eta berriz azpimarratu denez, hezkuntza administrazioak, egitez, gauzatu duen aukera izan da prestakuntza ez profesionalizatzailea bultzatzea musika-eskolen bidez, EAEn ongi errotuak eta kalitatekoak direnak. Prestakuntza profesionalizatzailea erdi-mailara mugatu dute eta horren barrenean, eskaintza gehiago eskaini da goiko zikloetan: eskaintza gutxi lehen zikloan (14-16 urte), zeozer gehixeago bigarrenean (14-16 urte) eta eskaintzarik handiena hirugarrenean (16-18 urte). Eta hori horrela da, funtsean eta labur emanik, ondoko arrazoiak direla medio:

- Gehiago eskaini behar da musikarako zaletasuna eta prestakuntza nabarmenago direnean.
- Ikaslea liberatuago dagoenean erregimen orokorreko ikasketetatik (Batxillergoko enborrezko irakasgaien 10 orduak besterik ez lituzke egingo) edota erabat liberatua dagoenean, modu horretan erraztuz ikasketek eskatzen duten dedikazio handia.
- Bere buruz ibili daitekeenean hiriburuetako kontserbatorioetara joateko, modu horretan, ahalik eta gehien, eragotziz bizi den tokiarengatiko diskriminazioa.
- Musika errendimenduan, bere alderdi profesionalean eta zaleen prestakuntzan eredugarritzat jo ditzakegun herrialdeen adibidea (Europa, EEBB eta Japonia). Izan ere, egoera nagusiaren arabera, goi-ikasketen aurreko prestakuntza ez dago arautua. LOGSEk, berriz, alde aurreko 10 urte ezartzen ditu. 1992ko erreformatik honat gertatutakoak goitik behera baieztatzen du adibide hori.

Sailak, 1996an eta 1997an heldu dio musika-irakaskuntzen alorrerako jardueramarkuaren prestaketa egiteari, EAerako, noski. Horrek erantzun osoa eman nahi dio irakaskuntza hauei.

Horren baitan, aurreratua dago Donostiako eta Gasteizko kontserbatorioen harpenaren prozesua, eta aipatutako horiek Bilbokoarekin batera, erdi-mailari dagokion eskaintza eginen dute EAerako. Horrez gain, agiri-markua ere prestatua dago eta eztabaidatzen ari da erakunde zehatz batzuekin. Agiri horretan heltzen zaie kexa egileak egindako eskaeren erantzunei. Honatx zeintzuk diren erantzunak.

Kexa egilea libre da seme-alaba irakaskuntza profesionalizatzailean sartzeko 8 edo 12 urtetan. Administrazioa ere libre da, osotara oinarrituak dauden irizpideen arabera, herri bakoitzean erdi-mailako zentro bat ez jartzeko. Hori gainera ezinezkoa da, hamaika arrazoi direla medio.

Horren ondorioz, ikaslearen ahaleginak handia izan behar du, ezinbestean, ikasketa ofizialak egiteagatik egin beharreko ahaleginari erantsi behar zaiona. Zenbat eta gazteago hasi hainbat eta handiagoa izango da ahalegina (DBHn edota, are, baita lehen hezkuntzan ere), eta are, ahalegin handiagoa izango da bidaiak egin behar badira. Esate baterako, ikasleak Elgetatik, Lenestosatik edota Kanpetzutik joan behar izatekotan.

Kexa egilea ez dabil zuzen Musika Eskola errefusatzera, eskola horrek goimailtan aritzeko sarbide probari begira beharrezkoak diren irakaskuntzak ez eskaintzeagatik. Eskolek gaitasun pedagogikoa eta legezkoa dute prestaketa hori emateko eta kontutan hartu behar da, beti ere, eskolek askatasuna dutela ikaslegaiak hautatzeko bere ustez euren prestakuntza indartzea merezi dutenen artean. Nolanahi ere, kexa egileak sarbide proben eskakizunak aurrejuzkatzen ditu soinu-tresna osagarriaz (sarbide probetan ez da halakorik eskatzen eta itxura guztien arabera, ez da eskatuko ere) eta solfeo-mailaz hitz egiterakoan.

Bigarren orrialdean, kexa egileak hauxe argudiatzen du: ordutegia ez dela batera eramangarri erregimen orokorrekoarekin, eta optatibitatearen liberazioa eskasa dela eta ez dagoela koordinatua. Bi argudio horiek, berez, egiazkoak dira, zoritxarrez (baina kontutan hartu behar da, berriz ere azpimarratuko dut, irakaskuntza profesionalizatzailea, maila honetan, legezkoa dela baina ez nahita ez egin beharreakoa, ezta komenigarria ere), baina oso konponbide zaila dute, ondoko arrazoi hauek direla medio:

- Lurralde Ordezkaritzak ezin ditu bere erregimen orokorreko lerroak antolatu, eta zentroek ezin dute beren optatibitate orduak antolatu, lerro bakoitzeko musika-ikasle bat edo bi horien arabera, halakoak daudenean. Ordezkaritzak planifikazioaz egindako erreferentzia, batez ere, dagokie Batxillergoko hirugarren zikloko ikasketei, horietan enborrezko irakasgaiak 10 ordukoak besterik ez baitira astean. DBHko optatibitatearen liberazioa funtsean da ikasleak ez dezala hautazko ikasgai hori egin eta denbora hori balia dezala eskola lanak egiteko, eta hori bakar bakarrik bi erregimenen adinarekin batera doanean, eta hori ez da oso maiz gertatzen.

(...) Lau batxillergo mota daude. Horietako bat, artistikoa da, baina honek ez du zerikusirik musikarekin, gauza batean izan ezik. Izan ere, hau ere, gainontzekoak bezala, den denak ez dira herri bakoitzean edo instituto bakoitzean ematen. Lau batxillergo mota horiez landara, izan ere badira batxillergoak dantzaren edo musikan, Batxillergoko enborrezko ikas-arloekin eta musika edo dantzaren titulu profesionalarekin (erdi-mailakoa) batera hartzen direnak. Alde horretatik, musika-prestakuntza, ezinbestean, institutotik kanpo egiten da(kontserbatorioan). Institutua prest dago bere batxillergoak emateko, ez, ordea, musika eskaintzeko, noski.”

• Emaiza

Txostenean ohartarazten den bezala, hezkuntza-eskaintzaren diseinua eta planifikazioa, erregimen berezikoak eta nahitaezkoak ez diren irakaskuntzak direnean, batez ere, eskumen botere baten emaitza dira. Eskumen botere horrek bide ematen dio hezkuntza-administrazioari, apreziazio libreko tarte baten barruan, egokien irizten duen irakaskuntza-eredua hautatzeko.

Alde honetatik, irakaskuntza mota hauen eraketari buruz egon daitezkeen iritzi ezberdinak, bakar bakarrik balora daitezke komenigarritasun irizpideei erreparatuta. Bestela esanik, Administrazioari, hezkuntza-eskaintzaren diseinu eta planifikazio alorrean dagozkion eskumen-botereak ez du bide ematen eztabaida juridikoa egiteko eta erakunde honen eskuhartze orok mundu juridikoan mugitu behar du, nahita ez, eta horrela izan behar du, batez ere, Administrazioak berak arbitraritatearen gaineko zalantza oro urrundu duenean, bere aukera nahikotasunez oinarritzerakoan eta azaltzerakoan.

G) Irakaskuntza unibertsitaria

⇒ UPV/EHU. *Deustuko Unibertsitatean aldez aurretik ikasitako irakasgaien baliozkotzea (1131/98)*

- Erreklamazioa

Erakunde honetan jaso zen Donostiako Kampusaren Zuzenbide Fakultateko ikasle baten kexa-idazkia. Hauxe zen kexaren arrazoa: EHUk ez zuen aintzat hartu delako ikasleak egindako eskaera, Deustuko Unibertsitatean aldez aurretik ikasitako Zuzenbidearen Historia eta Zuzenbide Politikoa I irakasgaien baliozkotzeari begira.

- Azterketa

Kexa hau bideratu eta erakunde honek informazioa eskatu zion Antolamendu Akademikoaren Errektoreordeari. Honek erantzun gisa igorritako idazkian, ondoko gogoeta hauek jasotzen ziren, besteak beste:

“Ikasleak ez du funtsezko mamia kontutan hartu errekursoaren azalpenean; ikaslearen nahia da Zuzenbidean Lizentziatuaren plan zaharreko urteko enborrezko irakasgaiak baliozkotzea, eskola-zama eta edukia zabal zabala zuena, eta horretarako aurkezten du Zuzenbidean Lizentziatuaren plan berriko irakasgai batzuen gainditzea. Irakasgai horiek bat datoz egungo jarraibideekin, baina oso ezberdinak dira, eskola-zama eta edukari dagokionean baliozkotu nahi dituenekin alderatuta, 1953an onetsitako plan hartakoak baitira.

Beraz, hauxe da ukazioaren funtsezko arrazoa, hots, ikasleak gainditutako Zuzenbidean Lizentziatuaren plan berriko irakasgaiaren gaitegiak ez ditu bermatzen Zuzenbide Fakultatean eskatutako gutxieneko edukiak, Fakultate honetan ematen den enborrezko eta urteko irakasgaia gainditzeko, plan zaharreko irakasgaia baita. Hau da, irakasgai gutxiago ditu, baina zabalagoak dira.”

Izan ere, ekainaren 10eko 1.267/1994 Errege Dekretuak aldatzen du hala azaroaren 27ko 1.497/1987 Errege Dekretua, zeinaren bitartez ezartzen baitira tankera ofizialeko tituluen ikasketa-planen elkarren arteko jarraibide nagusiak, nola planei berariaz dagozkien jarraibide nagusiak onesten dituzten Errege Dekretu batzuk. Halaber, Espainiako zentroetan egindako goi-ikasketen egokitzapen edo baliozkotze irizpide batzuk sartzen ditu, titulu ofizial berera daramatenak. Dekretu honek dio egokitu behar direla aurreko zentroan osotara gainditutako enborrezko irakasgaiak.

Alde honetatik, ikas-titulu unibertsitarioak lortzea helburu duten planen berariazko jarraibide nagusiek ezarri dituzte, nahita ez, sartu beharreko enborrezko gaiak, eta dagozkien kredituak ere zehaztu behar dira. Horrek egokitzapen automatikoa ahalbideratzen du delako 1.267/1994 Errege Dekretuak finkatutako moldean.

Hala eta guztiz ere, kasu aztertuan ezin zitekeen aldez aurretik ikasitako enborrezko gaien egokitzapen automatikoa egin. Izan ere, ez zegoen tratamendu hori oinarritu zezakeen eskola-zama eta edukien ekiparaziorik, EHUk, 1953an onetsitako ikasketa-planari dagozkion irakasketak ematen segitzen baitzuten.

- Eraitza

Zuzenbide Fakultatearen Ordenazio Akademikoaren Batzordeak aintzat hartu zuen kasu bakoitzaren azterketa egitea gai bakoitzaren eskola-eduki eta zamaren arabera irakasgaien egokitzapen aukerak ikusteko.

⇒ UPV/EHU. Unibertsitateko master bateko bigarren ikasturterako irispidea (2316/98)

- Erreklamazioa

Erakundearen kexa-idazki bat jaso zen arriskuen seguritate eta prebentzioaren kudeaketari buruz antolatutako unibertsitate master bati zegokiona. Delako master hori, zehazki Gasteizko EHUko Topografia Injinerutza Tekniko eta Injinerutza Teknikoen Eskola Unibertsitarioko Injinerutza Kimiko atalak eta Ingurugiro Sailak antolatu zuten.

Masterreko antolatzaileek erabakita, erdi-mailako unibertsitarioek ezin zuten matrikula egin goi-unibertsitarioen baldintza berberetan. Hori dela eta kexa sustatzaile guztiak erdi-mailako titulazioa zuten unibertsitarioak ziren. Hauen iritziz, erabaki hori inola ere ez zetorren bat masterrak, 1997ko irailean jendaurrean agertu zenean zekartzan aipatutako baldintzekin.

Izan ere, kexarekin batera aurkeztutako agirien arabera, master honetan aritu nahi zuten interesdunei emandako informazioan ikaslegai posible gisa *“seguritatea eta higienezaren alorrean goi eta erdi-mailako titulazio unibertsitarioa duten profesionalak”* aipatzen ziren. Titulazio ezberdintasun horrek ez zekarren inolako mugarik edo trabarik EHUk eman beharreko tituluaren izakerari zegokionez.

- Azterketa

Erakundeak, Antolamendu Akademikoko Errektoreordeak prestatutako txostena aztertu zuen, hasierako informazio eskabideari erantzuna emateko igorritakoa. Txostenean, idatziz jasotzen zen titulu propioetara daramaten graduondoko ikasketen gaineko araudia hala nola arriskuen seguritatea eta prebentzioaren gaineko master zehatz honi buruz onetsitako irakaste-proposamena.

Ikusi zen, araudi horren aipamenaren bitartez Errektoreordeak ezberdintasun argia agertu nahi zuela graduondoko bi prestakuntza mailen artean -espezialista unibertsitarioa/unibertsitate mastera-, eta horregatik, onarpen betebeharrak ere ezberdinak ziren prestakuntza maila bakoitzarentzat.

Dena dela, Arartekoaren iritziz, araudi hori kontutan hartuz, kasua beste era batean bideratu behar izan zen. Izan ere, araudi horrek, nahita ez aintzat hartu behar denez, bide ematen zuen kexaren egileen asmoen aldeko tratamenduari begira.

Horrela, irakaste proposamena kontutan hartuz eta erakunde honen iritziz unibertsitate horretako Gobernu Batzordeak master horri buruz onetsitakoa ezagutzea nahitaezkoa zen jakiteko, injinerutza teknikoaren edota laguntzaile tekniko sanitarioaren titulua agiri bidez egiaztatu zezaketen hautagai guztiak ba ote zuten master horietarako sarbidea. Izan ere, erdi-mailako titulazio hauek sarturik gelditu ziren Doktoradutza Batzordeak aldeko txostena egin ondoren, Gobernu Batzordeak onetsitako irakaste proposamenean.

Bestaldetik, lerro honetan berean segituz, kontutan hartu beharra zegoen graduondoko master tituluen ordenazioak berak alde zuzeneko izakera orokorreko betebehartzat ezartzen baldin badu ere, bigarren zikloko titulazio unibertsitario bat edukitzea (lizentziatua, arkitektoa edo injinerua), era berean biltzen duela lehen zikloko tituludunen sarbide aukera (diplomatua, injineru teknikoak edo arkitekto teknikoak), irakaskuntza bakoitzaren berezitasunaren arabera.

Horregatik, eta aparteko inguruabarrei men eginez, ez zen inolako eragozpenik arriskuen seguritatea eta prebentzioaren kudeaketari buruzko unibertsitate masterko

titulu honen sarbidea baimentzeko lehen zikloko prestakuntza unibertsitarioa agiri bidez egiaztatzen zuten interesdunei, eta horren ondorioz, irakaste proposamena egokitu beharra zegoen. Zeintzuk lirateke, aipatutakoa bezalako erabakia bermatuko lituzketen aparteko inguruabarrak?

Lehendabizi, azpimarratu zen iragan 1997-98 ikasturtean euren graduondoko prestakuntza hasi zuten ikasleei ez zitzaizela inola ere ohartarazi bazirela titulazioari zegozkion baldintzatzaileak ikastaro batera ala bestera sartzeko. Alde horretatik, azpimarratu zen arriskuen seguritatea eta prebentzioari buruzko unibertsitate masterko titulua – bi ikasturteren iraupena zuena- zabalik gelditu zela goi edo erdi-mailako titulazio unibertsitarioa zuten profesionalentzat, seguritatearen eta higienearen alorrean esperientzia zutenentzat, zehazki. Eta horrela, kudeatu ziren masterrean interesaturik zeuden hautagaien matrikulak. Beraz, onarpena ez zen irakaste-proposamenean onetsitako titulazioen mende gelditu.

Bigarrenik, ohartarazi zen master hau antolatzeko ekimena lan arriskuen prebentzioaren lege antolamendu berriaren ondorioz sortu zela, ikusi zelako “prebentzionistak” izeneko profesionalen beharra zegoela (azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuak arautzen dituen). Lege antolamendu berriaren arabera, alorrean prestakuntza berezia duten tituludun unibertsitarioei (erdi eta goi-mailakoei) dagokie goi-mailako prebentzio-jarduerak egitea.

Eskola Unibertsitario Tekniko Industrialaren eta Topografiaren bidez, erakunde honek ezagututako datuen arabera, prebentzio jarduera hauen garapenerako beharrezkoa den prestakuntza agiri bidez egiaztatzeko, Lan Ministerioko arduradunek aipatutako prestakuntza hori parekatu egin zuten masterra osatzen zuten bi ikasturte horietan barrera emandakoarekin. Horregatik, ikastaro honetan matrikulatutako ikasleen azken helburua bi ikastaroetan sartzeko aukeraren bitartez besterik ez zen asebeta geldituko.

- Emaiza

Aurreko ondorioei jarraikiz, Arartekoak gomendatu zuen behar bezalako neurriak har zitzatela, arriskuen seguritatearen eta prebentzioaren kudeaketari buruzko unibertsitate masterak duen bigarren ikastarorako aparteko sarbidea bermatzeko: lehen ikastaroa eginik, eta lehen zikloko titulazio unibertsitarioa frogaturik (diplomatua, injineru teknikoa edota arkitekto teknikoa), eta ondorioz, goi titulazio unibertsitarioa ez zutenek, bigarreneko matrikulazioa ukatu zieten interesatu guztiei.

Txostenaren prestaketaren akaberan, espedientea, oraindik ere, behin betiko ebazpenaren zain dago.

4. FUNTZIO PUBLIKOA

4.1. SARRERA

1998. urtean erakundeak guztira funtzio publikoaren alorrekin zerikusia duten 102 kexa bideratu ditu. Beraz, 1997an bideratu zirenekin alderatuta, %9,09.

Funtzio publikoaren alor honetan bereiz daitezkeen sektoreak kontuan hartuz, jasotako kexak honela banatzen dira:

Funtzio Publikoa-Orokorra	36
Funtzio Publikoa-Osasuna	31
Funtzio Publikoa-Hezkuntza	24
Funtzio Publikoa-Herrizaingoa	11

Eragindako administrazioen arabera kexen banaketa hauxe litzateke:

- Eusko Jaurlaritza	85
- Udalak	17
- Foru Aldundiak	5

Estatistika labur horren ondoren eta 1998. urtean funtzio publikoaren alorrean gertatu denari buruzko balorazio orokorrari ekitean, esan beharrean gaude ia sektore guztietan (orokorra, hezkuntza, e.a.) bereziki sarrerako gaiari dagozkion kexak nabarmendu direla. Hori ez bakarrik bideratutako kexen kopuruarengatik, baizik eta, batez ere, kexa horiek berehalako lotura zuzena dutelako enplegu publikoen sarbidean nagusi izan behar luketen berdintasun, meritua, gaitasun eta publikitate printzipioekin.

Osasunaren alorreko funtzio publikoan, aurrera eramanean da Osakidetzak deitutako lan eskaintza publikoa. 1996an bezala, horiek bezalako ezaugarriak dituen lan eskaintza publikoa egiteak ekarri du hainbat mailatako hautagaiek erakunde honen bitartekaritza eskatu izana, auzitegien ebaluazio lana aztertzeke, eta modu horretan, auzitegi horien erabakien arrazoi zuzenak eta egokiak ziurtatzeko, bazterrean utziz jokabide arbitrarioak edota emaitzak aldarazi dituzten jokaerak.

Hala ere, LEP honen eragina 1996an egindakoa baino txikiagoa izan da, bai bideratutako kexen kopuruari dagokionean, bai tartekatutako salaketen ondorioei dagokienean. Salaketa horien guztien artean, azpimarratu behar da biologoen kategoriako hautaketa-azterketa baten deialdiaren publikitate eskasa. Izan ere, kexen aukeraketan kontatzen den bezala, erakunde honen eskuhartzeak ahalbidetu du kexaren sustatzaileari eragindako kaltearen ordaina ematea. Hiritar hori ez zen joan azterketa egitera azterketaren publikitate eskasarengatik, eta hautaketabidetik kanpo gelditua zen.

Irakaskuntzan, erakundearen lan nagusia EHUK deitu dituen asoziatuen kontratuen esleipenerako eta irakasle titular interinoren izendapenerako lehiaketak aztertzea izan da. Gure gomendioetariko bat ontzat jo izanaren ondorioz, Unibertsitatearen Gobernu Batzordeak 1998ko maiatzaren 18an egindako bilkuran baremazio irizpide zehatz batzuk onartu zituen, lehiaketa horien batzorde ebaluatzaileen diskrezionalitatea mugatzen dutelarik. Hala ere, beharrezkoa da batzordekide horiek aintzat hartzea euren erabakiak arrazoitu eta justifikatu behar dituztela baremoaren beraren irizpide objektiboari erreparatuz, hau da, huts hutsean hautagaien merituari eta gaitasunari lotutako irizpideei begiratu behar diete. Horretarako, era berean, beharrezkoa da prozesu horietan Unibertsitateko agintari arduradunek parte hartzea eta segimendu berezia egitea.

Sektore zehatz horietatik kanpo, tokiko esparruan eta ofizioz, Arartekoak bi jarduera egin ditu, eta horien bitartez funtzio publikoan sartzeko aurrekari penalen ondorio diskriminatorio posible bat eragotzi nahi izan da. Bi jarduera horiek ongi hartu dituzte eragindako administrazioetan.

Karreraren gaian, EA Eren 1997rako Aurrekontuei buruzko Legearen zortzigarren xedapen gehigarria ezartzea kolokan jartzen zuten kexa batzuk azaldu dira. Jakina denez, xedapen horretan behin-betiko lehen destinoaren zain dauden funtzionarioen behin-betiko adskripzioa aztertzen da. Kasu jakin batzuetan, erakundeak agerian utzi du kexagileentzat mesedegarriena zen interpretazioaren alde egiten saiatuko zela behin-betiko destinoak finkatzerakoan, e.a., betiere, adskripzioa onartzean, beste inoren interesak kaltetzen ez baziren. Hala ere, Administrazioak jarrera murriztailea erakutsi besterik ez du egin, xedapen horren hitzez hitzeko idazketan babesturik, eta ez du erabakitakoaz bestelako tratamendurik eman nahi izan.

Halaber, oraindik tramitazio fasean dagoen lekualdatze lehiketari dagokionez, erakundearen eskuhartzea eskatzen zuten hainbat eskabide jaso dira eta horien bitartez ere zenbait lehentasuneko eskubideren edo gorputz aldaketaren aukeren aplikazio praktikoaren interpretazio malguagoa lortu nahi izan da.

Enplegatu publikoen **eskubide eta betebeharre**i dagokienean, generoaren ikuspegitik nabarmendu beharra dago bereziki emakumeei eragiten dien laneko baldintzetako traba batzuk mugitzen saiatu den jarduera. Alde honetatik, Arartekoak neurri batzuk ahalik eta modurik malguenean aplikatu daitezela gomendatu du, esate baterako, lan jardunaren murrizketa seme-alaba zaintzeagatik, modu horretan behar bezalako harmonizazioa lortzeko emakumeek dituzten lan eta familia mailako arduen artean.

Esparru honetan, baina **hizkuntza normalizazioari** lotuta, erakundeak salatu behar izan du gertatu den tratu desberdina funtzionario interinoei dagokienez. Izan ere, delako funtzionario horiei ez zitzaion baimena ematen gainontzeko funtzionarioi bezala euskarazko ikastaroetara joateko, indarrean dagoen laneko baldintzen kordio arauemalaren aurreikuspenek besterik dioten arren.

Sarrerako kexetan gertatzen den bezala, sektore guztietan esanguratsua da **ordezkapenei** dagozkien kexen aurkezpena. Horrela, osasunaren funtzio publikoari dagokionean, kexarako arrazoa izan da ordezkapenen eta behin-behinekoen zerranda, adinarena eta eskabideen aurkezpen datarena bezalako irizpideen erabilpenarengatik. Erakunde honen iritziz, irizpide horien ordezkari hein handiagoan hautagaien merituekin eta gaitasunarekin bat datozen beste batzuk jarri behar dira.

Irakaskuntzaren funtzio publikoan jaso dira maila ez unibertsitarioko ordezkapenei buruzko kexak. Kexa horietan, batez ere, espezialitate batzuetan sartzeko aurreikusitako titulazioen zabalpena eskatzen zen. Era berean, arazoak sortu dira hizkuntza eskakizunik gabeko hautagairik ez zuten zenbait espezialitatetan, langile berrien inkorporazioaren beharrezko babes juridikoari dagokionean.

Azkenik, sektore horietatik kanpo, EA Eko Administrazio orokorraren ordezkapenen sistemaren arautze berria ere arrazoa izan da eskuhartze baterako. Izan ere, eskuhartze honen bitartez lortu nahi izan da funtzionarioak edo lan kontratu finkoak zerranda horietan sartzea, epe luzeko behar interinoen kasuetan, behintzat.

Alde horretatik, esan beharra dago 1998ko uztailaren 14an eta azaroaren 28an Gobernu Kontseiluak hartutako bi erabakiri esker kendu egin direla hautagai horien sarbidea eragozten zuten traba formalak. Hala ere, beharrezkoa da ohartaraztea falta dela zehaztea nola bideratu behar den interesdun hauen deialdia, eta horren mende

dago, azken buruan, berdintasun printzipioaren urraketa ala ez EAeko Adimnistrazio orokorrerako aldi baterako sarbidean.

Iruzkin orokor labur honen ondotik, jarraian kasurik nabarmenenak azalduko ditugu.

4.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO ESPEDIENTEAK

A) Sarbidea

⇒EHUn irakasle asoziatuen kontratuak esleitzeko eta irakasle titular interinoak izendatzeko lehiaketak. UPV/EHU (228/97)

- Erreklamazioa

EHUn irakasle asoziatuen pare bat lanpostutan sartzeko interesa zuen hiritar batek erakunde honen aurrean propio horretarako izendatuak zeuden batzordeen ebaluazio lana salatu zuen. Haren ustez, lan hori ez zettorren bat enplegu publikoen sarbidean nagusi izan behar luketen berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioekin.

- Azterketa

Erakundeak, lehenengo eskuhartzean, EHUko arduradunei kexak eragindako hautagai bakoitzaren espedientearen aldakia eskatu zien, hala nola batzordeen lanei buruzko agirien aldakiak(aktak).

Agiri horiek aztertu ondoren, Arartekoak derrigorrezkotzat jo zuen jarraian oso osorik azaltzen diren ondorioen lekualdatzea egitea:

“Jaun Txit Prestu horrek gogoratu duen bezala, 1992an eta 1993an bideratutako espediente batzuk zirela eta, erakunde honek jadanik aukera izan zuen irakasle asoziatuen deialdi horien kudeaketa nola egiten ari zen aztertzeko. Harako hartan, erakunde honen eskuhartzea gomendio baten igorpenarekin amaitu zen. Hori, 1993ko urriaren 4an izan zen eta hona hemen, besteak beste, eta hitzez hitz aldatuko dugu, gomendioak zioena:

‘irakasle asoziatuen kontratuen esleipenerako eta irakasle titular interinoen izendapenerako lehiaketa publikoetan, ondoko gai hauek bereziki begiratu behar dira:

(...)

2- bada meritu ebaluagarriak zehazteko beharra eta meritu horien balorazio irizpideak ere bai, behar bezalako publizitate bermeeekin espedienteen baremazioa egin aurretik.

3- bada hautaketako organu teknikoek erabakiak arrazoitzeko beharra eta, badagokio, aurkeztu daitezkeen helegiteen ebazpenenak ere bai, eta hori idatziz jaso behar da dagozkion aktetan.’

1994ko ekainaren 30ko Gobernu Batzordearen Akordioaren bitartez, lehiaketa publikoetako gutxieneko betebeharrak eta irizpide orokorrak onartzen dira, irakasle titular interinoen izendapenen eta laguntzaileen eta irakasle asoziatuen kontratuen esleipenerako. Bada, Akordio horrek biltzen ditu, nola edo hala, gomendio hartan agertutako eskakizun haiek, ezartzen baitu meritu ebaluagarrien gutxieneko zehaztapena eta, bidenabar, ziurtatzen du meritu horien publizitatea.

Alde honetatik, Gobernu Batzordearen Akordio honek meritu zehatz batzuen balorazio ponderatua ezartzen du. Era berean, ezartzen du batzorde bakoitzak, hautagaien curriculumen azterketa eta ebaluazioa egin aurretik, erabaki behar dituen balorazio irizpideen behar bezalako publikizitatea.

Esaten dugunean Batzordearen Akordio honek hein batean besterik ez dituela aintzat hartzen erakunde honek 1994ko urriaren 3an emandako gomendioan bildutako eskakizunak, esperientziak edo errealtateak erakutsita esaten dugu, irakasle asoziatuen kontratuen esleipenerako lehiaketa berriek erakutsita zehazki. Esate baterako, esku artean darabilgun kexa hau, 228/97/20garrena zehazki eragin duen lehiaketa. Jarraian azaltzen saiatuko garen bezala, lehiaketa horietan, oraindik ere oso zabala da batzorde ebaluatzaileen disponibilitatea merituen balorazio irizpideei dagokienez. Horregatik, bada arrisku handia arbitrariedade larripean erortzeko.

Hautaketa auzitegiei edo organu teknikoei ahalmen teknikoak ezagutzen zaie, uste izatekoa baita kide horiek gaitasun teknikoak dutela. Bada, honenbestez, ñabartu beharra dago gaitasun tekniko hori garrantzitsua dela aurkeztu daitezkeen hautagaien gaitasuna neurtu edota baloratu behar den heinean, azterketa objektiboen bitartez hautagai horien ezagutzak egiaztatzeko.

Hala ere, beharrezkoa da nabarmentzea esku artean darabilgun kasu honetan bezala besteetan ere, batzorde ebaluatzaileen lana ez dagoela adierazitako norabidean bideratua, baizik eta hautagaiak agertutako meritua baloratzen dituzte, alde aurreko baremo arautu baten arabera.

Bestela esanik, batzorde ebaluatzaileen jarduera ez datza ezagutzen zaien ahalmen tekniko batean, zeinaren bitartez libreki antzeman dezaketen hautagaien balioa, ondoren beste instantzia batzuen aldetik egin daitezkeen berrazterketa edo fiskalizazio jardueretatik libre daudenak. Aitzitik, lan hori araupeko jarduera da. Bada, alde aurreko baremo baten arabera merituen balorazioa eta edozein deialdiren oinarriek baremo hori aintzat hartu behar dute.

Egiazki, lehiaketak edo deialdiak arautzen dituzten baremoek ez dituzte beti meritu guztien balorazio irizpideak zehazten. Horrela, maiz gertatzen da deialdiek berek batzordeei edo organu teknikoei ahalmena ematea halako meritu batzuen zehaztapena egin dezaten, eta horiek bai, horiek euren apreziazio librearen mende daude.

Nola nahi ere, kasu hauetan, hau da, batzordeek apreziazio libreko tarte hori dutenean, batzordeek saiatu behar dute euren ebaluazio lana, ahalik eta gehien objektibatzen. Horretarako, alde aurretik ezarri behar dituzte kasu bakoitzean jarraitu beharreko balorazio irizpideak. Azken finean, xedea da euren lanaren motibazio zuzena eta egokia ziurtatzea, modu horretan eragotziz arbitrariedadepean erortzea.

Hala ere, EHUk kudeatutako lehiaketen jarduerak erakusten duen errealtatea oso bestelakoa da. Izan ere, kexa hau eragin duen kasuan eraturako batzordeek euren betiko jarrerari eusten diote eta euren buruari gaizki ulertutako ahalmen teknikoak eman diote, eta Unibertsitateko Irakaslegoaren Batzordeak ezarritako gutxienezko puntuak jarraitza mugatu dira. Beraz, ez dira saiatu diskrezionalitatea murrizten eta horrek eragin handia du espediente edo curriculum pertsonalaren ebaluazioaren ondoko arrazoiketan.

* * *

Ez dago sobran azaleko azterketa egitea Unibertsitateko Irakasle Batzordeak ezarritako minimo horiei buruz. Modu horretan ikusiko dugu minimo horietatik zer nolako tarteak uzten zaien batzorde ebaluatzaileei apreziazio librean... (...)

* * *

Orain, zehatz mehatz, aztertzen badugu kexa honekin zerikusia duten hautagaien curriculumen balorazioa, honela geldituko da ebaluazio lana batzorde ebaluatzaileetako buruak egindako txostenaren arabera. (...)

Azken buruan, kexa honek eragindako espediente bakoitza, zehatz mehatz aztertu ondoren, zera esan dezakegu 84 eta 98 zenbakiekin identifikatutako lanpostuak betetzeari begira, alegia irakasle asoziatuen kontratuen esleipena proposatzeko xedearekin eratu diren batzorde ebaluatzaileek ez dituztela irizpide berberak jarraitu hautagaiek argudiatutako merituak baloratzerakoan. Badira horren aztarnak, oinarrituak gainera. Horregatik, aintzat hartu beharra dago daitekeena dela hautagaiekiko tratatu desberdina izatea, eta azken finean, daitekeena da hautsi egin izana enplegu publikoetan sartzeko nagusi izan behar luketen berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak.”

- Emaizta

Aurreko ondorioak ikusita, Arartekoak ondoko gomendioak EHUko arduradunei igortzea erabaki zuen:

26/1998 gomendioa: “EHUren aldetik, behar diren neurriak hartu behar dira, aurrera begira, irakasle asoziatuen kontratuen eta irakasle titular interinoren izendapenen esleipenerako egingo diren lehiaketetan eratuko diren batzordeen ebaluazio lana aldeztetik egituratutako araupeko baremo baten mende egon dadin.”

27/1998 gomendioa: “kexa hau eragin duten irakasle asoziatuen kontratuei dagokienean, ekin behar zaio Batzordeen ebaluazio lanen berrazterketari.

Berrazterketa honen ondorioz, bere garaian onetsitako esleipen-proposamenak aldatzen baldin badira, behar diren neurriak hartu beharko dira, eragindako interesdunei sortutako kalteen ordaina ahalbidetzeko.”

Lehenbiziko gomendioari erantzunez, EHUko Gobernu Batzordeak 1998ko maiatzaren 18an baremazio-irizpide zehatz batzuk erabaki zituen atal bakoitzarentzako. Aipatu baremazio-irizpide horiek, jadanik kontuan hartzen ziren 1994ko ekainaren 30ko akordioan. Hori ikusita, erakundeak onartutzat jo zuen 26/1998 gomendio hau. Hala eta guztiz ere, gogoeta berezia egin zen azpimarratzeko, akordio hauek diotena diotela, azkenean, aurrera begira hautaketa-batzordekide izango direnen esku dagoela euren ebaluazio lanaren arrazoitze zuzena eta egokia ziurtatzea, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipio konstituzionalekin bat, beti ere.

Aitzitik, bigarren gomendioa, hau da, 27/1998 gomendioa, ez zuten EHUko arduradunek onartu.

⇒ *Osakidetza. Biologoaren kategoria Estatutupeko pertsonalgoaren mailan sartzeko hautaketa-azterketak. Oposaketa aldiko bigarren kanporaketa-azterketaren deialdiaren publizitaterik eza. (1669/98)*

- Erreklamazioa

Osakidetzako estatutupeko pertsonalgoaren mailan, biologoaren kategorian, (urtarrilaren 22ko 90/1998 ebazpena, 33.EAeko Aldizkari Ofiziala, otsailaren 18koa) sartzeko hautaketa-azterketako parte hartzaile batek erakundearen bitartekaritza eskatu zuen. Izan ere, ez zen oposaketa aldiko bigarren kanporaketa-azterketaren publizitatea egin deialdiak aurreikusten zuen moduan, eta horrek parte hartzaileari azterketan agertzeraz eragotzi zion, eta horrekin batera, horrek pertsona hori hautaketa-prozesutik kanpo utzi zuen.

- Azterketa

Arartekoak, aipatu 90/1998 Ebazpen horren bidez onetsitako deialdiaren oinarriak kontsultatu zituen, eta 5.1 oinarriak zehazki hauxe zekarren:

“Azterketak egiteko deialdia agerian jarriko da Osakidetzako osasun-zerbitzuen antolamenduetako iragarki-tauletan eta hedapen handieneko komunikabideetan, eta eguna, ordua eta tokia adieraziko dira.”

Halaber, Arartekoa ohartu zen oinarri horrek ez ziola aipamenik egiten lehendabiziko kanporaketa-azterketari – hori ohiko jokamoldea da funtzio publikoan sartzeko hautaketa-prozesuetan, bat eginez estatu mailako Sarrerako Araudi Orokorrak ohartarazten duenarekin-, baizik eta kontuan hartzen zuela deialdiaren publizitatea, *dagozkion azterketak* egiteko. Beraz, ulertu beharra zegoen egingo ziren azterketa guztien gainean ari zela.

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren aburuz, interesdunak salatutakoak egiaztatuz gero, esan zitekeen kexa eragin zuen kasuari zegokionean, ez zirela bete azterketen iragarpenaren publizitateari buruzko deialdiaren oinarriak.

Interesdunak egindako salaketa behar bezala egiaztatu ondoren, erakundeak ondoko ondorio hauek jarri zituen Osakidetzako arduradunen esku:

“Zure iritziz, erantzun honetan esandakoaren arabera, biologoen kategoria honetako bigarren kanporaketa-azterketaren iragarpenari emandako publizitatea justifikatuta dago oportunitate irizpide batzuegatik, telefono bidezko banan banako jakinarazpen zuzena hobea delakoan.

Egiazki, erakunde honek ez du iritzirik eman nahi banan banako deialdi hauek egitean asmatu den ala ez, Arartekoaren eskuhartzetik kanpo dauden oportunitate irizpideengatik egin baitira, arestian esan dugun bezala.

Hala eta guztiz ere, eta erakunde horrek oinarrien betekizun zehatza defendatzea bere esku ez duen bezala, bigarren ariketaren publizitaterik ez denez iragarki baten bitartez hedapen handieneko komunikabideetan egin, Arartekoa salatu beharrean dago publizitate falta hori.

Eta salatu besterik ez dezake egin, izakera formaleko ez betetze horrek kexaren eragileari kalte nabarmena ekarri dion heinean, iragan ekainaren 12ko gure idazkian aurreratu genuen bezalaxe. Izan ere, pertsona horrek, publizitate ezaren ondorioz, ezin izan zuen bigarren kanporaketa-azterketa egin, eta horrez gain, hautaketa-prozesutik kanpo ere gelditu zen.

Alde honetatik, ez zen deus esatekorik izango banan banako deialdiak egin izan balira deialdiaren oinarrietan aurreikusia dagoen gutxieneko publizitatearen osagarri. Beraz, ez zen aurreikusitakoa bete, eta komunikabiderik hedatuenetan deialdiaren iragarkia sartu ez izanak esan nahi duandrea bigarren kanporaketa-azterketara ez agertzea zuzenean egotzi dakiokoela deialdiaren oinarrietan ezarritako moduan publizitatea egin ez izanari, nahiz eta erakunde horrek ahaleginak egin zituen banan banako informazio zuzena eskaintzeko.

- Emaizta

Arartekoak gomendatu zuen beste deialdi bat egin ziezaiotela lehiatzaileari, modu horretan hari aukera emateko deialdiaren oinarrietan aurreikusitako bigarren azterketa egiteko. Eskuhartze hau ongi hartu zuten Osakidetzako arduradunek.

⇒ *Tratu txarrak hartutako adin txikikoen udal zentruen kudeaketarako baldintza teknikoaren pleguetan aurrekari penalik ez izateari buruzko eskakizuna. (12/980)*

- Erreklamazioa

Prentsan agertutako albisteen bitartez, erakunde honek jakin zuen Gasteizko Udalean bazela proiektu bat, tratu txarrak hartutako adin txikikoentzako udal zentru bat enpresa pribatu bati esleitzeko.

Xede horretarako idatzitako baldintzen pleguan debeku bat jasotzen zen, delako proiektu horretan interesa zuten enpresako langileei eragiten ziena. Debeku horren arabera, langile horiek ez zuten pertsonen integritate fisikoa, psikikoa eta sexualaren aurkako aurrekari penalik izan behar.

Arartekoaren erakundea bereziki kezkatu dago aurrekari penalen ondorio diskriminatorioengatik eta saiatzeko da ondorio horiek eragozten. Horren adibide garbia da 1996. urteari dagokion urteko txostenean ondoko gomendio orokor hau sartu izana: "Aurrekari penalen ondorio diskriminatorioak eragotzi beharra". Horregatik, dagokion ofizizko espedienteari hasiera ematea erabaki zen.

- Azterketa

Gizarte Ekintza Saileko arduradunekin lehen harremana izan ondoren, erakundeak jarraian doazen gomendiook igorri zituen Gasteizko Udaleko Alkatezara:

"Udal hori saiatzeko ari da adin txikikoen interesak zaintzen, haien garapen pertsonala kaltetu dezaketen egoera guztiei aurre egiteko lanaren bitartez. Bada, Arartekoaren erakundea bat dator Udal horrek agertutako kezka horrekin, ez baitzitekeen bestela izan.

Hala ere, esku artean darabilgun kasuan, adin txikikoen interesa ez daiteke har modu isolatu batean. Era berean, aintzat hartu beharra dago aurrekari penalengatik diskriminazio soziala edo juridikoaren debekua, Espetxeetako Lege Organiko Orokorren 73. artikulua agintzen duena.

Berriz ere 1996. urteari dagokion Eusko Legebiltzarrari egindako txosteneko gomendio orokorrean adierazita zeuden ondorioak hona aldatuz, erakunde honek moldatutako gomendio orokorra zena, hauxe errepikatu beharrean gaude:

'azpimarratu beharra dago tratu-berdintasunaren eta zigorrek helburu duten gizarteratzearen xedearn printzipio konstituzionalen nagusitasuna. Bi printzipio horiek elkarren artean osatu eta zehazten dira Espetxeetako Lege Organiko Orokorren 73.2 artikuluan bildutako xedapenean. Artikulu horren arabera, aurrekari penalak ez daitezke, inola ere, diskriminazioa eragiteko arrazoi izan. Pertsonari ezarri zaizkion zigor penalak, bakar bakarrik kontuan har daitezke eginkizun sozial espezifikoen garrantziak justifikatzen duenean. Baina kasu horiek -apartekoak beti- lege organikoaren bidez egituratu behar dira. Izan ere, jarduera edo lanbide batean aritzeko aurrekaririk ez izatearen betebeharrak norbanakoaren askatasunaren begi bistako murrizketa dakar'.

Hasierako balorazioan, pentsa liteke, Udal horrek egiten omen duen gisan, baietz, adin txikikoen arretaz arduratutako pertsonalga honek egiten duen eginkizun sozial espezifikoen garrantziarengatik, kontuan hartu behar direla haien zigor penalak.

Izan ere, urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adin Txikikoen Babes Juridikoa arautzen duena, xedatzen du adin txikikoen alorreko administrazio publikoen ekintza, zeinak beti aintzat hartzen duen adin txikikoaren interesaren nagusitasunak honetan saiatu behar duela: *'ahaleginduko da haurrak sarri askotan dauden esparru, zentru eta zerbitzuen arautze eta superbisio egokia egiten. Eta begiratu behar ditu toki horien baldintzak: fisikoak, giroa, higiena, osasunaren aldetik, giza*

baliabideak, hezkuntza-proiektuak, adin txikikoen partaidetza eta euren eskubideak ziurtatzeko lagungarri gerta daitezkeen beste batzuk'.

Hala ere, ez du inola ere agertzen Hezkuntzaren Eskubidea arautzen duen 8/1985 Lege Organikoaren 21.2 b) artikulua bildutako antzeko mugaketarik. Mugaketa hori aipatua genuen 1996ko gomendio orokorrean, eta jakina denez, ohartarazten du ezin daitezkeela hezkuntza-zentru pribatuetao titularrak izan 'delitu dolodunengatiko aurrekariak dituztenak'.

Horretatik guztitik ondorioztatzen da, erakunde honen irizpidearen arabera eta aipatutako gomendio orokorrarekin bat, tratu txarrak hartutako adin txikikoen udal zentruen kudeaketarako baldintza teknikoaren egungo pleguan sartutako betebeharrak ez duela behar bezalako babes juridikorik. Gogoratu, horren bidez eskatzen da aurrekari penalik ez izatea. Beraz, betebeharrak horrek kontra egiten die tratu-berdintasunari eta gizarteratzearen printzipio konstituzionalari eta halaxe hartu behar da."

- Emaizta

Aurreko azalpenetan oinarrituta, Arartekoak gomendatu zuen ken zedila pertsonen integritate fisiko, psikiko edota sexualaren kontrako delituengatiko aurrekari penalik ez izateari buruzko eskakizun oro, eta hori erretira zedila tratu txarrak hartutako adin txikikoen udal zentruen kudeaketarako baldintza teknikoaren pleguetatik. Gasteizko Udalak onartu egin zuen emandako gomendioa.

B) **Karrera**

⇒ *A mailako funtzionario andre bat C/D mailako lanpostu batean izendatua(1700/97)*

- Erreklamazioa

Funtzionario andre bat 1990ean tituludunen A mailako funtzionario gorputz batera iritsi zen. Behin-behinekoz, bere kategoriari zegokion lanpostu batean izendatu zuten, zerbitzu-eginkizunetan, eta bertan iraun zuen 1997. urtera arte. Urte horretan atzera bota zen zerbitzu-eginkizuna.

A mailaren gorputzean sartu baino lehen, administrazioko gorputzekoa zen eta maila horretako lanpostu batean ari zen. 1997an zerbitzu-eginkizuna bertan behera utzi zitzaionean, bere kategoriako (A maila) lanpostu batean izendatu beharrean, behin-behineko destinoa eman zitzaion C/D maileri zegokien lanpostu batean.

- Azterketa

Adierazitako egoera, hau da, A mailako funtzionario andre bat C/D mailako lanpostu batean izendatzea ez zeterren bat lege antolamenduari.

Agerikoa zen bere titulazioaren mailako lanpostu batean besterik ez zitekeela izendaturik egon, eta egoera horretantxe egon zen, hain zuzen ere, 1997ra arte. Urte horretan atzera bota zuten zerbitzu-eginkizuna.

Horrez gain, ziharduen lanpostutik kendu egin zuten behar bezalako arrazoirik gabe. Beraz, lanpostu horretan jarraitu behar izan zuen.

Arartekoaren aburuz, kasuaren ingurumari guztiak ikusita, pentsa zitekeen erreklamazio egile hau behin-behineko destinoa zuen funtzionarioa zela, abenduaren 27ko 10/1996 Legeak bere zortzigarren xedapen gehigarrian, aurreikusten zuen horretan sartzeko ondorioetarako. Jakina denez, xedapen horretan xedatzen zen behin-betiko lehen destinoaren zain zeuden langileen behin-betiko lanpostua izendatzea, behin-behinekoz, hartuak zituzten postuetan, karrerako funtzionario gisa sartu ondoren.

Kontuan hartzen bagenuen funtzionario gorputz jakin batera iristen den pertsona-behin-betiko destinoa lortzeko aurreikuspen espezifikorik dagoenean izan ezik-, behin-behinekoz gelditzen dela izendaturik bere lehendabiziko postuan, (Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 52.1 artikulua), esan behar izan zen interesduna benetan betetzen ari zela A mailari zegokion lanpostu bat. Beraz, aintzat hartu beharra zegoen, betetzen ari zen mailako lanpostuan behin-behinekoz izendaturik zegoela, eta horrela egon zela 1997an, arrazoirik gabe, hortik kendu zuten arte.

Hori bere egoera naturala izanik, hurrengo urratsa zen arestian aipatutako zortzigarren xedapen gehigarrian sartzea.

- Emaizta

Honenbestez, aurrekari horiek kontuan hartuta, Arartekoak gomendio bat igorri zuen, interesduna behin-behinekoz izendatuz har zezaten A-1 Gorputzean bete zuen lanpostu bakarrean, Gorputz horretakoa baitzen. Beraz, Arartekoak esan zuen interesduna sartu beharra zegoela abenduaren 27ko 10/1996 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren aplikazio-esparruan.

Txostenaren prestaketa amaitzerakoan, oraindik ere zain dago espedientearen behin-betiko ebazpena.

C) Hizkuntza-normalizazioa

⇒ *Funtzionario interinoei euskara ikasteko baimena: tratu-desberdin kasu bat. (2008/98)*

- Erreklamazioa

Funtzionario interino batek eskabidea egin zuen lan ordutegia barruan euskara ikastaro batzuk hartzeko. Ukatu egin zioten. Ukapena oinarritu zen Funtzio Publikoaren Sailordetzaren Jarraibide batean, zeinak interinoak euskalduntze ikastaroetatik kanpo uzten baitzituen. Hori dela eta, funtzionario horrek helegitea egin zuen.

Ondoren, beste interino batzuei baimena eman zieten laugarren eskakizuneko ikastaroetara joateko, euren lanjardunaren barruan. Emandako arrazoiak izan ziren ez zela laugarren eskakizuneko ikastarorik haien lan jardunetik kanpo, baimena hartutako interinoek ordura arte egindako ahalegina zutena bezalako euskara maila lortzeko, eta euskararen garrantzia euren zereginak betetzeko.

- Azterketa

Lan baldintzak arautzen zituen akordioak ez zituen interinoak kanpo uzten, baizik eta lehentasunezko ordena jakin baten barruan kokatzen zituen, aurrekontu arrazoiene edo zerbitzuaren beharren arabera. Hori kontuan hartuz, Sailordetzaren Jarraibideak kontra egiten zion akordioan xedatutakoari, dekretu bidez onartuta zegoen akordioari.

Bestaldetik, Jarraibideak interinoei buruz aurreikusitako kanporaketa ontzat jotzen badugu ere, gerora beste interinoei baimena eman bazitzaien, azken horietarako aintzat hartutako arrazoiak kontuan ere hartu behar ziren besteentzat, hau da, hirugarren eskakizunetik beheragoko ikastaroetara joateko baimena eskatu zuten horientzat.

Erakunde honen iritziz, aurreko arrazoiak kontuan har zitezkeen beheragoko eskakizunetarako ikastaroetara joateko baimena ukatu zitzaienei dagokienez, lan ordutegitik kanpo ikastarorik ez dagoenean izan ezik. Azken gauza horrek, lan ordutegitik kanpo ikastarorik ez izateak, laugarren eskakizunetarako ikastaroari buruz gertatzen zena,

ez zuen behar hainbateko indarririk. Izan ere, interinoen sarbidea mugatzeko akordioetan agertzen ziren arrazoiak baldintza horren menpe zeuden zuzenean, baina ez zuten deus ikustekorik ikastaro motekin.

- Emaizta

Azterketaren ondoren, Arartekoak hauxe azaldu zuen ondorioetan: interinoak kanpo uzten zituen Jarraibideak kontra egiten ziola lan baldintzen akordioari, eta laugarren eskakizunak eta besteak eskatu zituztenen arteko tratu-ezberdinerako arrazoiak ez zutela justifikatzen sarbideari buruzko tratu-desberdina. Horregatik, gomendatu zen ukapena berraztertu eta ebazpen bat eman zedila laugarren eskakizuna baimendu zitzaienei buruzko diskriminazio arrazoiak kenduz, akordioan bildutako irizpideetan oinarritua.

Txostenaren prestaketaren amaieran, oraindik ere espedientea behin-betiko ebazpenaren zain dago.

D) **Eskubideak eta betebeharrak**

⇒ *Lan jardunaren murrizketa seme-alabak zaintzeagatik. Familia eta lan mailako ardurak aldi berean bete beharrean dauden emakumeak. (985/97)*

- Erreklamazioa

Gasteizko Udaleko enplegatu batek, emakumezko batek, erakundearen bitartekaritza eskatu zuen ondoko arrazoi hau dela medio: lan jarduna murriztu zioten seme-alabak zaintzeko, baina ondoren, zerbitzuburuak ezarri zion lan ordutegiak behartu egin zuen borondatezko eszedentzia bat eskatzera, ezinezkoa gertatzen baizitzaion bere familia alorreko ardurei aurre egitea ordutegi horrekin.

- Azterketa

Erakunde honek jakin badaki zer nolako zailtasunak dakartzan berekin neurri hauek harmonizatzeko ahaleginak. Izan ere, neurri horien xedea da familia eta lanbide mailako ardurak zerbitzuen kalitaterik handiena eta hoberena eskaini nahi duen edozein administrazioen beharrekin uztartu ahal izatea.

Dena dela, gure iritziz, saiatu behar da era horretako neurriak ahalik eta gehien zabaltzen. Bestalde, zenbait kasutan, gutxitan, zerbitzuen beharrak ezartzen dira legezko onura horien zinezko erabilpenaren gainetik. Bada, halako kasu horiek ere murriztu behar dira. Izan ere, administrazio publikoek aintzindari izan behar dute diskriminazio positiboaren prozesuan eta saiatu behar dute gizonen eta emakumeen arteko aukeraberdintasuna bultzatzen, langileen familia eta lanbide mailako arduren elkar osatzea erraztuz.

Horregatik, interesdun honen bitartekaritza eskabideari dagokionez, Arartekoa ohartarazi beharrean zegoen udal enplegatuak proposatutako lan jardunaren murrizketari ez zitzaiola ekin era horretako neurrien erabilpen eta zabalpen handiagoak behar duen osotasunarekin, eta kontuan izan behar da murrizketa hori zela haren familia eta lanbide mailako ardurak elkar osatzeko bidea ematen zion bakarra, eta horixe erakusten zuen, azkenean, langileak eszedentzia eskatu behar izanak.

Alde honetatik, onartuta ere enplegatu honen presentzia txikiagoak berekin zekarrela lanen metaketa eta metaketa horrek artxibategi eta biblioteka zerbitzuaren ohiko erritmoa alda zezakeela (zerbitzu horretan ari baitzen kexa aurkeztu zuen

enplegatua), ohartarazi behar dugu zenbait faktore baloratu behar zirela, eta faktore horiek, beren eragin handiagoaren edo txikiagoaren arabera zehaztu zezaketzen zein baldintza zehatzekin bat, egituratu zitekeen lan jardunaren legezko aukera. Gure aburuz, hona, besteak beste, zeintzuk ziren faktoreok: 1) Lanen metaketa horrek zerbitzu osoari begira izan zezakeen eragin handiagoa edo txikiagoa, eta beharrezkoa izanez gero, baliabide gehigarriak planteatuz; 2) Zerbitzuaren beraren egituraketa ikusiz beti ere, ea beharrezkoa zen halako ordu jakinetan lanpostuan egotea publikoari edo beste udal zerbitzu batzuei atenditzeko; 3) Zerbitzuaren beharretatik zuzenean eta berehalakoan eratorritako beste edozein faktore.

- Emaizta

Harreman batzuen ondotik, azkenean, Gasteizko Udalak onetsi egin zuen interesdunak proposatutako ordutegia. Beraz, langile horri batera eramangarri gertatu zitzaion lan jardunaren murrizketaren legezko aukera eta bere familia alorreko arduren arreta egokia.

E) Ordezkapenak

⇒ *Funtzionarioen edo lan kontratatu finkoen sarbidea aldi baterako zerbitzu-betekizunetan, EAEko Administrazio Orokorrean (1605/97)*

- Erreklamazioa

EAEko Administrazio orokorrean, aldi baterako zerbitzu-betekizunetan interesa zuen pertsona batek erakundearen bitartekaritza eskatu zuen, haren iritziz, ordezkapen zerrenden berrantolemanduko irizpide batek kontra egiten ziolako berdintasun printzipioari. Delako irizpide hori Gobernuaren Kontseiluak onetsi zuen 1997ko maiatzaren 6an egindako bilkuran eta hauxe zioen: aldi baterako zerbitzu-betekizunetik kanpo geldituko dira karrerako funtzionario edo lan kontratatu finkoak diren guztiak. Horixe zen bere kasua.

- Azterketa

Kexa honen onarpenaren ondorengo azterketa egin ondoren, Arartekoak ondoko kontsiderazioak zuzendu zituen Ogasun eta Administrazio Publikoaren Sailera:

“Egiazki, 1997ko urriaren 14ko Agindu honetan ohartarazten den bezala, langile ez iraunkorren hautaketa-prozesuetan, *berdintasun, publizitate, meritu eta gaitasun printzipioen gauzatzeak modulatu izan behar du, beharrari berari beharrezkoa gertatzen zaion zalutasunaren arabera*”.

Bestela esanik, eta Agindu honetan berean ohartarazten den bezala, bazterrean uzten arituko ziren eraginkortasunarena bezalako printzipioak, eta Konstituzioak espreski agintzen duenez, printzipio horiek administrazio publikoaren jokamoldea gidatu behar dute.

Esku artean darabilgun kexa sorrarazi duen mugaketa arrazoi zehatz batzuetan datza. Horiei helduz, Arartekoak dio ulergarri gertatzen zaizkiola Agindu honetan aipatzen diren kudeaketa mailako eragozpenak, funtzionarioak edo lan kontratatu finkoak zerrenda horietan sartzeko ezintasuna justifikatzerakoan. Izan ere:

‘1-...deituko balituzte aldi baterako lanak edo lan iragankorrak egiteko, administrazioan beste behar bat sortuko litzateke, hau da, askietsi edo bete

beharko litzateke haiek lehenengo betetzen zuten lanpostua, eta horrek ezin izango lioke modu handiagoan kontra egin eraginkortasunaren printzipioari, Konstituzioak berak agintzen duen printzipioari. Izan ere, ez luke inolako logikarik izango administrazioaren behar baten aterabidea egitea tankera bereko beste behar baten sorketaren bidez.

2- Bestaldetik, aintzat hartzen da, erabat, objektibitate printzipioa. Izan ere, funtzionarioak eta lan kontratatu indefinituak aipatutako zerrendetan parte hartzeaz diskriminatzen dituen arauak ez du inolako arbitrarierik, eta prozesu honen xedeari erantzuten dion prozesuaren baitako egintza objektiboan oinarritzen da, eta horrenbestez, ez du murrizketarik sortzen berdintasun printzipioaren betekizunean.'

Hala ere, beharrezkoa da aintzat hartzea giza baliagaien kudeaketa normaleko abagune batean egiazki zentzuzkoak gertatzen diren arrazoi horiek, luzaroan lan publikorako eskaintzarik ez dagoenean edota langilego-kudeaketa normaleko prozedurarik ez dagoenean indargabetzen direla, EAeko Administrazio orokorrean gertatzen den moduan.

Izan ere, lan publikoaren eskaintzarik ezaren ondorioz, azken urteotan, EAeko Administrazio orokorraren zerbitzuan ari diren langileek ezin izan dituzte euren zilegizko itxaropenak gauzatu euren promozio pertsonalari begira, ez barne promozio bideetatik, ez sarbide librearen sistemarengatik. Horregatik, behin eta berriz parte hartu behar izan dute aldi baterako enplegu-boltsetan sartzeko deialdietan, modu horretan espektatiba horiek, hein batean, bete ahal izateko.

Bestaldetik, hautaketa edo sarrera prozesu hauek gelditzearen ondorioz, plantiletan badira modu jarraituan araubidezko babesaren zain dauden lanpostu hutsak, eta aldi berean, sortzen dira iraupen luzeko behin-behineko beharrak, ohikoak, hots, baimen, lizentzia, eszednetzia eta halakoen eskabideen ohiko tramitazioak gertatu izanaren ondorioz.

Erakunde honen iritzi, ingurabar hauek guztiak birtualtasuna kentzen diete behin eta berriz aipatutako 1997ko urriaren 14ko Aginduan bildutako arrazoiei, kexan zalantzan jarritako partaidetzaren mugaketa sostengatzeari begira, epe luzerako beharren betetzeari dagokionez behintzat. Izan ere, jokamolde horretatik erator litezkeen kudeaketako disfuntzioek ez lukete behar hainbateko garrantzia izango berdintasunaren oinarritzko printzipioaren eraginkortasun osoa kentzeko, enplegu publikoetara sartzeari begira.

Bestela esanik, EAeko Administrazio orokorraren egoera berezitik abiatuta, eta bakar bakarrik iraupen luzeko behar interinoren kasuei gagozkielarik, uste dugu erantzun moduan igorritako Aginduaren testuan aipatzen diren kudeaketako disfuntzioak ez direla nahikoa arrazoi eraginkortasun-irizpideetan oinarrituta berdintasun printzipioaren betetze osoa desplazatzeko”.

- Emaizta

Horren ondorioz, azaldutako arrazoinamenduetan oinarrituta, Arartekoak gomendatu zuen behar bezalako neurriak hartzea, modu horretan funtzionarioen edo lan kontratatu finkoen izakera luketen interesdunei aldi baterako zerbitzu-betekizunetan sartzen uzteko, epe luzeko behar interinoren kasuetan, behintzat.

Gobernuaren Kontseiluak, 1998ko uztailaren 14ko eta azaroaren 28ko bi akordioetan ekin dio 1997ko maiatzaren 6ko hasierako akordio haren testua aldatzeari. Beraz, kendu dira funtzionario edo lan kontratu finkoen izakera ez zuten interesdunak aldi baterako zerbitzu-betekizunean sartzea eragozten zuten oztopo formalak.

Hala eta guztiz ere, oroit-idazki hau ixtearekin batera, oriandik ere ez da zehaztu nola kudeatu behar den interesdun hauen deialdia aldi baterako zerbitzu-betekizunerako zerrendetan sartu ondoren. Erakundeak behar bezalako jarraimendua egingo dio azken gai horri.

⇒ *Osakidetza. Berdinketa hausteko irizpideak aldi baterako kontratazioko zerrendetan (1793/97)*

- Erreklamazioa

Osakidetzako aldi baterako kontratazioko zerrendetan sartzeko interesa zuen emakumezko batek erakundearen iritzipean jarri zuen hautagaien ordenazioko irizpideen erabilpena, hala nola adina edo jaiotze data.

- Azterketa

Kexa honen azterketari ekiterakoan, Osakidetzako osasun erakundeetan hutsik dauden lanpostuak betetzeko aldi baterako kontratazioko zerrendetan, honako bikoizketa egin zitekeen:

1- Lanpostu hutsak betetzeko zerrenda eta erreserbatuak dauden lanpostu hutsak, zerbitzu bereziengatik edo beharrezko eszedentziarengatik, amatasun baimenarengatik, amatasun eszedentziarengatik, zerbitzu-eginkizunarengatik eta ordu sindikalengatik.

Zerrenda honetan zeuden 95eko LEParen oposaketaldiaren kanporaketa-eraketak gainditurik, lanposturik gabe, onartu gabe gertatu zirenak. Lanpostu hutsetan sartzeko lehentasun-ordena hautaketa-prozesuan lortutako azken puntuaketa araberaren egiten zen.

2- Ordezkapenen eta behin-behinekoren zerrenda.

Kontuan hartzen zen epe bat zabaltzea, izena emateko, eta horretan pertsonalgo osoak parte hartu behar zuen, aurreko zerrendetan zuten puntuazioa edozein izanda ere, eta zerrenda berrietan parte hartu nahi bazuten, noski. Hori guztia, baremo zehatz honekin bat: 100 puntu-oposaketaldia; 45 puntu-norberaren lanbide esperientzia.

3- Zerrenden berriraketa.

Jadanik, zerrenda berriak indarrean zeudenean, zerrendek itxita segitzen bazuten ere, kontuan hartzen zen, salbuespenez, eskabide berriak onar zitezkeela, eskatzaileek prestakuntza akademikoa urte horretan berean bukatua izatekotan. Eskabide horiek ordenatu behar ziren aurkezpen dataren ordenari jarraikiz.

Egiazki, aldi baterako kontratazioko zerrenden sistemak aintzat hartzen zituen enplegu publikoetan sartzeko nagusi izan behar duten berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak. Izan ere, hautagaien ordenazioari begira, erreferentziatzen hartzen zituen hala 95eko azken LEParen puntuaketa datuak nola sisteman egiaztatutako aintzinasuna.

Horrengatik, adin handiagoaren irizpidea, zeina sartua baitzen berdinketa hausteko kasuetan, estatuko araudiaren ordezko aplikazioan ez zen eztabaidagai izan. Izan ere, irizpide objektiboa zen, beste daturik ez, hautagaien gaitasuna eta merituak baloratu ondoren ezartzen zena. Bestela, irizpide hori zalantzan jarritz gero, sekulan ez zitzaizkien amaiera emango balorazio-prozedurei eta berrazterketak behin eta berriz egin beharko lirarteke berdinketak gertatu artean.

Hala ere, beharrezkoa da azpimarratzea aurreko kontsiderazioak bakar bakarrik zentzuzkoak liratekela, baldin eta zerrendetan sarturik dauden hautagaiak, gutxieneko puntuazioa merezitzeko moduko meritua izango balituzte.

Bestela, hau da, hautagaien artean, inork bere sarrera eskatuko balu ordezkapenen eta behin-behinekoren zerrendetan, gutxieneko puntuaketa merezitzeko moduko inolako meriturik egiaztatu gabe, meritua eta gaitasun printzipioen betekizunak derrigor ekarri beharko luke ezarritako ordenazio irizpidearen berrikusketa. Izan ere, aurretik ez zegoen daturik esateko jadanik aintzat hartuak izan zirela lehiatzaileen gaitasuna eta meritua.

Aipatu berri diren kasuak hauexek ziren:

- 1- 51/1997 Dekretua argitaratu ondoren, izena emateko zabalduko epe barruan euren sarrera eskatu zuten hautagaiak, eta 95eko LEPn parte hartu ez izanik, era berean, beste inolako aintzinasunik edo esperientziarik egiaztatua ez zutenak (hutsnako berdinketaren kasua).
- 2- Zerrendak berririkitzerakoan euren sarrera eskatua zuten hautagaiak, (51/1997 dekretuaren lehen xedapen gehigarria)

Lehendabiziko kasuan, adin zaharragoaren irizpidea berdinketak hausteko erabili zen. Bigarren kasuan, berriz, ordenazio irizpidea, eskabideen aurkezpen data izaten zen.

Bada, Arartekoaren iritziz, bi kasu hauetan, zalantzan jartzeko modukoak dira ezarritako ordenazio irizpideak. Izan ere, alde aurretik ez da meritua eta gaitasun printzipioekin bat datorren baloraziorik, irizpide berri objektibo eta neutro baten beharra sostengatuko duen baloraziorik bukaera emateko hasierako balorazioaren arabera gertatutako berdinketei. Alde honetatik, gure ustez badira beste ordenazio irizpide objektibo batzuk meritua eta gaitasun printzipioekin askoz ere hein handiagoan bat datozenak, gaur egun hautatutakoak baino (esate baterako, espediente akademikoaren batz besteko nota, e.a.)

- Emaizta

Arartekoak zera gomendatu zuen, alegia Osakidetzak kudeatutako aldi baterako zerrenden prestaketan sar zitezela adinaz bestelako eta, meritua eta gaitasun printzipioekin hein handiagoan bat datozen ordenazio irizpideak, oposaketari edota aintzinasunari buruzko alde aurreko daturik ezean. Osakidetzako arduradunek, hala ere, ez zuten emandako gomendioa onartu, zerrenden kudeaketan eraginkortasun administratiboari zegozkion arazoak zirela medio.

5. OGASUNA

5.1. SARRERA

1998an, Ogasunaren alorrean jasotako kexak 189 izan dira, bideratutako kexa guztien %16,84 zehazki. Honelakoa izan da azpialorren arabera banaketa:

Udal zergak	57
Udal tasak	53
Foru tributuak	46
Udal tributuak	14
Bestelakoak	10
Zerga prozedura	9

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagozkion kexa gehienak, berriz ere, kuotaren kenketen atalari egokitu zaizkio. Era berean, berritako arazoak sortu ditu ohiko etxebizitzan egindako inbertsioari dagokion kenketak, bai benetako bizilekua ote den ziurtatzearen aldetik, bai erosi eta hiru urte pasa baino lehen aldatuz gero. Halakoetan, itzuli behar dira kontzeptu horregatik kendutako zenbatekoak.

Halaber, beharrezkoa izan da Arabako Foru Aldundiko Ogasun eta Gizarte Ongizate Sailen aurrean eskuhartzea, minusbaliotasunak hartutako pertsona talde batek elbarritasunari dagokion kenketa egin ahal izan zezan. Pertsona talde horrek ez zuen elbarritasunak ebaluatzeko batzordeak emandako ziurtagiririk zergaren sortzapenaren egunean. Eraitza oso ona izan zen.

Baina, PFEZri dagokionez, 1998an ezer nabarmentzekotan hauxe izan da: lurralde historiko bakoitzak lanari ekin izana, zerga mota hori erreformatzeko, txosten hau idazten ari garen honetan bururatu hurrari dagoena. Horrela, erakundean abaguneaz baliatu ginen Euskadiko Zergen Koordinaziorako Organuari 1997ko Txostenak zekarren gomendio orokorra igortzeko. Izan ere, Arartekoaren iritziz, zerga mota horren aplikazioaren zenbait alderdik egitatezko egoera bidegabeak zekartzan, eta erakundearen asmoa foru arauen egitasmoek alderdi horiek zuzentzea zen.

Hona hemen aipatutakoaren adibide batzuk: egun indarrean dagoen familiaren kontzeptua, PFEZren aitortzearen zerga ordaintzeko hautatutako modua aldatu ezina eta aita eta ama bananduen eskakizun batzuk. Afera horiek guztiek isla ezberdina izan dute 1999an indarrean sartuko den zerga berrian.

Beste foru zerga batzuei dagokienez, esan beharra dago ez dela nabarmentzeko modukoa izan jasotako kexen kopurua. Hala ere, Suzesio eta Donazioen gaineko Zergarekin, Jabetzen Transmisioaren gaineko Zergarekin eta BEZrekin zerikusia duten kexa batzuk bideratu dira.

Udal zergen esparrura etorrira, hauexek izan dira kexarik nabarmenenak: lehenbizi Ondasun Higiezinaren gaineko Zergei dagozkienak. Alde batetik, aldi behingo kobraketa duen zerga den aldetik eta zerga horren ediktu bidezko jakinarazpenak dakartzan arazoaren aldetik. Bestalde, higiezinaren katastroko balioa finkatzerakoan atzemandako akatsen aldetik, eta akats horiek ordaindu beharreko kuotan duten eraginaren aldetik.

Aurreko urteetan bezala, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergak ere kexa batzuk eragin ditu, zerga-salbuespenen aplikaziorako betebeharrak jakin batzuen eskakizunarekin zerikusia dutenak.

Hala ere, behar beharrezkoa da nabarmentzea, urtetik urtera, Ogasunaren alorraren barnean tasa eta prezio publikoei buruzko kexek hartu duten garrantzia. Aurretik ere

behin baino gehiagotan aipatu dugu bi diru-sarrera horiek funtsezkoak direla administrazio publikoen finantziariobideari begira. Izan ere, bi sarrera horiek erakundeek burututako jardueren edo emandako zerbitzuen ordaina dira.

Horrela, aurreko txosten batzuetan ere aipatu dugu bi figura horiek ezberdintzeko dauden zailtasunak, eta esan dugu hori Toki Ogasunak eta Tasa eta Prezio Publikoen Legeetan, figura haietaz, egindako tratamendu eskasari zor zaiola. Bada, horri gehitu egin behar zaio bi figura horien araubide juridikoan Auzitegi Konstituzionalaren abenduaren 14ko 185/95 epaiak izan duen eragina.

Izan ere, laburbilduz, esan daiteke epaia honen bitartez Auzitegi Konstituzionalak aintzat hartu duela izakera publikoko jabetzako prestazioen kontzeptu materialak, Konstituzioaren 31. artikulua lege-erreserbaren mendean lotuta dauzkanak. Horrela, kasuz kasu bereiztera behartzen du ea eskainitako zerbitzuan edo jardueran aldi berean gertatzen den hertsapena, eta, beraz, era berean behartzen du zehaztera zein izan behar den zerbitzu edo jarduera horren formazko presupostua.

Ildo honetatik, azpimarratu behar ditugu alta eta ikuskapen eskubideak deritzaien kibraketaren aurka bideratu diren kexak. Kibraketa horiek EAEko gas hornitzaile enpresek egin dituzte. Arartekoaren iritziz, kibraketa hori baliogabea da. Izan ere, benetako jabetzako prestazio publikoak izanik, ez daude aurreikusita inongo lege edo arau mailako xedapenetan.

Eusko Jaurlaritzari egindako gomendioan eskatu zitzaion agindu zezala kontzeptu horiengatik kobratutako guztiaren itzulketa. Gomendioa, ordea, oraindik ere erantzunaren zain dago.

Tasa eta prezio publikoen esparrutik atera gabe, aipa ditzakegu edateko uraren hornikuntza zerbitzuko tarifa ezberdinen sistemaren aurka bideratutako espedienteak. Gasteizko udalerriri dagokionez, auzia honela konpondu zuten: tarifa bakarra ezarri zen, tarifa bakarra kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko, eta modu horretan bertan behera utzi zen familia batzuekiko diskriminazioa, azken horiek premiazko ondasun honen zentzuzko erabilpena egiten baitzuten.

Xede berbera zuen Donostiako Udalari egindako gomendioak, piskanaka tasa bakarra ezar zezaten udal hilerrietan hileta-eskubideen eguneratzearengatik. Izan ere, gaitasun ekonomiari lotutako irizpide batzuk erabiltzen zituzten subjektu pasiboek ordaindu beharreko kuotak zehazterakoan, eta erakundearen iritziz, irizpide horiek bidegabeko egoerak sortzen zituzten. Horrexegatik egin zen gomendioa.

Aipatzeko modukoak dira garraio alorreko zenbait enpresa publikoren aurka, ofizioz, 1998an bideratutako espedienteak. Izan ere, enpresa horiek tarifa berriak ezarri zituzten 1998ko urtarrilaren lehenean, eta egun hartan, oraindik ere, ez zen EAEko Aldizkari Ofizialean argitara emana Euskadiko Prezioen Batzordeak horri buruz hartutako akordioa. Kasu guztietan, Gasteizko Udalean izan ezik, behar bezalako bideak ezarri ziren gehiegi kobratutakoa erabiltzaleei itzultzeko.

Izan dira tasa eta prezio publikoekin zerikusia izan duten afera gehiago. Hona hemen kexa espediente batzuk eragin dituzten beste bi gai: batetik, zerbitzuaren edo jardueraren erabilpenari uko egin dion interesdunari, haren zenbatekoa itzuli nahi ez izana; eta bestetik, derrigor ordaindu behar duenaren bizilekua aintzat hartu izana, tasaren edo prezio publikoaren zenbateko apalagoa finkatzeko.

Azkenik, Ogasunaren alorreko sarrera honetan, gogoratu nahi ditugu Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkuneen Errekurtso Iraunkorra deritzaionaren kibraketa dela medio bideratutako espedienteak. Doktrinak parafiskaltzat jotzen du komenio bidez foru aldundiek biltzen duten zerga-ordainarazpen hori. Bada, zerga-ordainarazpen horrek

zenbait kexa eragin ditu. Honatx zein den kexagai zehatza: badela joera JEZren (Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga) sujeto pasibo guztiak ganbaretako hautesletzat jotzeko, eta horren arabera, badutela aipatutako errekurtsio horren ordainketa egiteko obligazioa. Baina hori ez da horrela.

5.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO ESPEDIENTEAK

A) Tasa eta prezio publikoak eta ordainarazpen parafiskalak.

⇒ *Hileta-eskubideen eguneratzeagatik tasak Donostiako udal hilerrietan (1568/96)*

- Erreklamazioa

Hauxe zen kexagaiaren mamia: hiritar batzuek euren izenean erregistratu nahi zuten hildako familiakide baten izenean zegoen panteoi bat. Bada, argitu behar zen ea Udalak haiei kobratutakoa bat ote zetorren zerbitzuak, oro har zuen kostuarekin, indarrean dagoen toki hazienden araudiak eskatzen duen bezalaxe.

Izan ere, udal hilerriei buruzko hileta-jarduerengatik eta zerbitzuengatik tasen Araudi arauemalaren testua aztertu ondoren, deigarria gertatzen zen zeinen handiak ziren hileta-eskubideen transmisioagatik, bere eranskinean finkatutako tasak. Kontuan hartuta behar ziren ziurtagiriak lortzeko zama titularraren familiakideen bizkar jarri zela, haien iritziz ez zegoen funtsatua kopuru horien kobraketa. Esate baterako: 25.000 pezeta gurasoengandik seme-alabengana pasatutako hilobi xume batengatik edota milioi pezeta aitonarengandik bilobarenganaino transmitutako kapera batengatik.

- Azterketa

Udal jabetza duen zerbitzu baten ordaina, horixe da tasa, eta hori ezin dugu ahaztu. Beraz, hortik heldu zaio zergarekiko duen ezberdintasunari, subjektu pasiboak ordainketa zergaren bidez egin behar baitu legeak hala aginduta, baina ordainez inolako onura berezirik edo zehatzik jaso gabe.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Ogasuna arautzen duen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauren 20. artikulua dakarrenaren arabera, tasen zenbatekoak ezin izango du, oro har, zerbitzuaren edo jardueraren kostu erreala edo aurreikus daitekeena gainditu.

Ondorioz, korrelazioan joan behar dute emandako zerbitzuaren kostuak eta zerbitzu horrek sortutako tasaren zenbatekoak.

Ikuspuntu horretatik, *a priori* guztiz neurritz gainekoa gertatzen zen, hileta-eskubideen eguneratzeari begira, ezarritako tasen zenbatekoa. Itxura denez, tasek ez zuten inolako zerikusirik izena emate zerbitzuentzat balioeztatutako kostuarekin, erroldetan agertzen zen kostuarekin, alegia. Eta uste izatekoa da izena emate zerbitzu horiengatik kobratzen zela.

Horrela, konparazio batera, nekez sinets zitekeen, eskubideen izena emate lanaren kostua, ahaidego mailaren beraren barruan, hilobi xumearena baino 10 aldiz handiagoa izatea (25.000 pezetatik 250.000 pezetara).

Aitzitik, berez eskubideen transmisioa zergapetzen ari baldin bazen, eta ez eskubide horien eguneratzearen administrazio mailako zerbitzua, zerga estalia litzateke eta bere zergagaia aldi berean beste batzuekin gertatuko litzateke (Suzesioak edo Jabetzazko Transmisioak). Zergagai horrek, gainera, ez luke beharrezkoa zaion lege-euskarririk, Konstituzioaren 31. artikulua eskatzen duenaren arabera.

Alde honetatik, hala Udaltzak aurkeztutako izakera ekonomikoa duten txostenak, nola udal teknikariek in zandako bileretan zuzenean emandako informazioek bidea eman zuten egiaztatzeko, kontzeptu horrengatik bildutakoa txikiagoa zela zerbitzuaren betekizunaren kostua baino.

Bestalde, onartuta tasen kontzeptuarengatik bildutakoa bat zetorrela zerbitzuaren kostuarekin, beharrezkoa izan zen aztertzea ea erabiltzaile bakoitzaren zerga-maila neurtzeari begira Donostiako Udalak ezarritako erregelak bat ote zetozen gaitasun ekonomikoa irizpide orokorrekin, Toki Hazienden Foru Arauaren beraren 24.3 artikulua eskatzen duen bezalaxe.

Horrela, komenigarria da gogoratzea udalerrri honen hileta-eskubideen transmisioarengatik tasen Ordenantza arauemaleak bereizketa ezartzen zuela transmisioa *inter-vivos* ala *mortis-causa* gertatzen zen. Eta azken horren barruan, bazen beste bereizketa bat, eskuratzailaren eta titular gisa agertzen den pertsonaren arteko ahaidego-mailaren arabera. Eta baziren ezberdintasunak. Esate baterako, hilobi xume bat gurasoengandik seme-alabengana transmititzeagatik 25.000 pezetako tasa ordaindu behar zen *mortis causa* izanez gero, eta 1.000.000 pezeta *inter-vivos* izatekotan.

Horri buruz, epaia emateko aukera izan dute justizia-auzitegiek: hona hemen Kataluniako Auzitegi Nagusiak 1996ko maiatzaren 31n eman zuena, gainontzeko guztien erakusgarri. Epaia honela dio:

“...Aretu honek esan izan du gaitasun ekonomikoko irizpide orokor hauen aplikazioak ez duela inolako arbitrarietate pean edo arrazoigabekeriaren pean erori behar. Konstituzioaren 9.3 artikulua (uztailaren 29ko180/1986 AKE) botere publikoen arbitrarietatearen debekua dakar, eta debeku horrek eragozten du hemen azaldutakoak bezalako emaitzen onarpena. Emaitza horien arabera, pertsona juridikoa izate hutsagatik tasaren zenbatekoa 100ko 2.900 handitzen da, pertsona fisikoen jabetzapean dauden establezimendu bereberei ezartzen zaien tasarekin alderatuta. Halako emaitzak inola ere ezin du izaera ekonomikoko irizpide orokorrak “kontuan hartu” izanaren ondorio izan, horixe baitago lege ezarria, baizik eta eldarnio nabarmen baten ondorio, tarifak finkatzerakoan.”

Ikuspegi honetatik, Arartekoak 82/1998 zenbakidun Gomendioa egin zion Donostiako Udalari. Gomendio horren bitartez, hileta-eskubideen eguneratzearen kontzeptuarengatik tasa bakarra ezar zezatela iradoki zen.

Gomendio honen ondorioz, behin-behineko onetsitako udal ordenantzak funtsezko murrizketa dakar *inter vivos* transmisioetan ordaintzen ari zen tasetara. Kasuen arabera, murrizketa hori %100 baino handiagoa da, 1998an indarrean zeudenekin alderatuta. Asmoa da ordenantza hori 1999rako indarrean egotea.

Panteoien *mortis causa* transmisioak sortzen dituen tasei dagokienez, eskalen kopurua murriztu eta laukoitzen edo handien zenbatekoa hilobi hirukoitzen zenbatekoarekin parekatzen da.

Udaltzak, bere aldetik, zera azpimarratu zuen: zerbitzu betekizunear, eskatzaileak eskubidearen jatorrizko titularrarekin ahaidego gradu eragina duela, eta horrengatik, Udalaren ikuspegitik, funtsatua zegoen tasa ezberdindua.

Izan ere, kontuan hartu behar dugu ordenantzak badakarrela panteoien jabetza eguneratzeko betebeharra, jatorrizko titularra hil bezain laster. Eta herederok hori ez betetzeak eragina du eguneratzea eskatzerakoan sortzen den administrazio-lanaren konplexutasunean

Bestalde, ezin dugu ahaztu, eskubidea eguneratzen denean, panteoien erabilpen espektatiba berria sortzen dela, 99 urte arteko erabilpen espektatiba hain zuzen ere, eta

horrek eskatzen du erabateko zorrotasunez egin behar dela eskatzaileen eskubidearen egiaztatze prozesua.

Dena dela, azken gai horri dagokionean, adierazi behar da kasu hauetan kostu-bilketa erlazioak tasa handiagoa ezartzea eskatzen duen bezalaxe, beste kasu batzuetan gehiago murriztu beharko litzatekela. Izan ere, Udalak berak, ateratako txostenetan onartu zuen bezala, ezinezkoa da tasen zenbatekoa zerbitzu-betekizunak oro har duen kostua baino handiagoa izatea.

Horregatik, Ararteko erakundea piskanaka tasa bakarria ezartzearen alde agertzen ari da, egun martxan dagoen jabetzen eguneratze prozesua normalizatu ondoren. Helburu horrekin espreski bat egin du Donostiako Udalak.

Horrela, onartutzat emanik 82/98 zenbakidun Gomendioa, gai honen gainean bideratutako kexa-espeditenteen itxierari eta artxibatzeari ekin zitzaion.

⇒ *Prezio publikoak udal igeritokiak erabiltzeagatik (810/98)*

- Erreklamazioa

Prezio ezberdinak zeuden Asparrena udalerriko udal igeritokiak erabiltzeko, erabiltzailea herrikoa ala kanpokoia izan. Eta horren aurkako kexa-idazki bat jaso zen.

Erreklamazio egilea igeritokiaren ohiko erabiltzailea zen uda garaian, eta kexan esaten zuen diskriminazioa gertatzen ari zela abonoak eta eguneroko sarrerak garestiago zirelako udalerrian eroldaturik ez zegoenarentzat.

- Azterketa

Prezio publiko horiek lege ezarritako prozedimenduaren bidez onetsi izanaren kalterik gabe, erakundeak beharrezkotzat jo zuen aipatutako Udalbatzari adieraztea Asparrenako kasua ez dela bakarria, toki administrazioak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuetan ere kontuan hartzen baita subjektu pasiboaren bizilekua ordaindu beharrekoa ezartzerakoan. Baina, diskriminazio posible hori hiritar batek planteatu duenez, erakundeak badu kezka bat, hots, irizpide horrek ez ote duen behar bezalako babesik izango, toki ogasun gaitan indarrean dagoen araudiaren arabera.

Honenbestez, Udalari jakinarazi zitzaion, prezio publikoetan ondoko printzipio honek agintzen duela: prezio horien zenbatekoak gutxienez estali behar du eskaintako zerbitzuaren kostua (Toki Hazienden Foru Arauaren 47.1 artikulua). Hala eta guztiz ere, muga horren azpitik finkatu ahal izango dira, horretarako arrazoi sozialak, benefikoak, kulturalak edo interes publikokoak daudenean. (47.3 art.).

Arau horretan ez da zehaztasun handiagorik eskaintzen, eta zehaztasun horiek egokiak gertatuko ziren balizko desberdintasunak eragozteko. Dena dela, Tasa eta Prezio Publikoen Legearen 26.2 artikulua ezarketa supletorioa betez, beharrezkoa izango da prezio "politiko" edo "subentzionatu" hauen behar bezalako justifikazioa ekonomia eta finantz alorreko oroit-idazkian. Hala ere, arestian aipatutako arrazoiak kontuan hartzea Udalbatzaren irizpidearen esku gelditzen da.

Beste gauza bat da arrazoi horiek arbitrarietate pean edo botere desbideraketa pean erortzea, gaitasun ekonomikoaren printzipioan edo konstituzionalki babestutako beste xede batean funtsatzen ez diren heinean.

Bide beretik doa Toki Udalbatzen Zerbitzuen Erregelamenduaren 150. artikulua, ondoko hau esaten duenean:

- “1. Udaltzaren zerbitzu publiko bakoitzaren tarifa, prestazio berberak eta ingurabar berdinetan hartuko lituzketen guztiendako berdina izango da.
2. Hala ere, tarifa murriztuak ezarri ahal izango dira ekonomiaren aldetik ahul dauden sektore pertsonalen on beharrez. “

Ikuspegi honetatik, begi bistakoa da udalerrian bizitzeak ez duela esan nahi ordaindu behar duenak halako gaitasun ekonomiko jakina duenik, eta ez du, bestalde, eraginik zerbitzu-betekizunaren kostuan.

- Emaizta

Udaltzak, horren gainean zuen iritzia berri eman zigun Alkateak igorritako idazki baten bidez. Bertan jakitera eman zigun Arartekoaren txostenean esaten zirenak Udaltzari jakinarazi zitzaizkiola, eta kontuan hartuko zituztela prezio publikoen Ordenantza fiskal arauemalearen hurrengo aldaketan.

Horrenbestez, gure esku zegoen guztia egin ondoren, espedientearen artxibatzeari ekin zitzaion.

⇒ *Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkuneen Errekurtso Iraunkorraren subjektu pasibo izatea (2350/98)*

- Erreklamazioa

Erreklamazio egilea arkitektoa zen eta altan zegoen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafean.

Hala ere, bere iritzia da ez duela errekurtoa ordaindu behar, bere jarduera eta “*merkataritza, industria eta nabigazio*” jarduera parekatu ezin direlako.

- Azterketa

Ildo honetatik, eta beste kexa espediente bat bideratzean esan genuen bezalaxe, erakunde honek gehituko luke, Ganbararen Errekurtsoa arautzen duen azaroaren 18ko 10/93 Foru Arauak ezartzen duela zerga hori ordaindu beharko dutela martxoaren 22ko 371993 Legearen 6 artikuluan aipatzen diren jardueretan jardun duten pertsona fisikoek nahiz juridikoek, eta ondorioz, kontzeptu horretan JEZri lotuta daudenek.

Nolanahi ere, artikuluko kanpoan uzten ditu “*aurreko parrafoan espreski sartuta ez dauden lanbide liberalak*” dagozkien zerbitzuak, eta arkitektoen jarduera ez dago sartuta.

Ikuspuntu honetatik, agerikoa dirudi aipatutako 6. artikulua 1. atalak dakarren aipatu adierazpen orokorraren ondotik, 3. atalarekin osatua, 2. atalak adierazpen horren irismen zehatza taxutu nahi duela.

Horrela, alde batetik, 2. atalaren lehen parrafoak espreski hauxe aipatzen du, zalantzak argitzeko: jarduera horietan aritzeak hautesle izatera ematen dutenak.

Bestalde, bigarren parrafoak espreski aipatzen du hauteslearen izakera ez dakarten jarduerak, jarduera horiek 1. atalaren adierazpen orokorrean sar badaitezke ere.

Honenbestez, erreklamazio egileak egindako jarduera JEZri lotuta badago ere, ez da espreski aipatzen 2. atalaren lehen parrafo horretan, aipatzen ez diren moduan JEZri lotutako beste lanbide liberal batzuk, zerga horri lotuta egon arren Ganbararen hautesle izakera ematen ez dutenak, eta, ondorioz, jarduera horietan aritzeak ez du Ganbarako Errekurtsoaren ordainketaren betebeharra sortzen.

- Emaizta

Konsiderazio horiek Bilboko Merkataritza Ganbarara eramanik, hauxe adierazi zuen Ganbaraburuak idazki baten bitartez:

“...gure datu baseak ikusi ondoren, adierazi beharrean gaude xxx jauna bi jardueratan ari dela: bata bere lanbidearekin lotuta dagoena, eta bestea negozio aretoen alokera lanari lotutakoa.

Arkitektoa alorreko profesional gisa egiten duen jarduerari dagokionez, esan behar dugu, zure idazkian aipatzen duzun bezala, 3/1993 Legearen 6.2 artikuluaen bigarren parrafoan bilduta dagoela lanbide profesionali ez dagokiela hautesle izakera. Horrenbestez, arkitekto baten jarduera ez da Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbararen hautesletzat jotzen, eta beraz, jarduera hori ez dago behartua Ganbarako Errekurtso iraunkorra ordaintzera.

Hala ere, xxx jauna. alta emanik dago jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren beste epigrafe batean, lehen sekzioko 86120garrenean, eta epigrafe hori dagokie ‘industria aretoen alokerari eta beste alokeragai batzuei’.

Jarduera hori bai, jarduera hori sartzen da Ganbarako hautesleriaren baitan, horixe baitakar Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbararen Barne Araubidearen Erreglamenduak, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Kontsumo Sailordetzak 1997ko uztailean onetsitakoa. Eta egiaztatu dugu igorritako likidazioa badagokiola ondasun higiezinaren jarduerari, eta ez arkitektoaren jarduerari.

Dena dela, ondasun higiezinaren jarduera enpresa-jarduera gisa hartua izan dadin, eta, ondorioz, Merkataritza Ganbararen hautesle izan dadin, bete egin behar ditu PFEZren Foru Arauaren 40.2 artikulua eskatutako betebeharrak (hots, jardueraren betekizunean areto bat behintzat eduki behar da, huts hutsean, jardueraren kudeaketa eramateko, eta jarduera betetzeko pertsona bat behintzat enplegatuturik edukitzea lan-kontratu bidez).

Ulertu behar dugu 86120 epigrafean gertatu den alta, soil soilik, eroldari begira gertatu dela, xxx jaunak BEZren hiru hilez behingo likidazioak egin ahal izan ditzan, eta aretoen alokera jardueragatiko PFEZri buruzko Ganbararen Errekurtso Iraunkorraren likidazioan, errakuntzaz, arkitektoa den aldetik dagozkion jarduera profesionalaren errendimenduak hartu dira.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiaiko Foru Ogasunari aipatu likidazio horren baja jakinarazi zaio.”

Honebestez, espedientea itxi eta artxibatu egin zen, kexagaiari konponbidea eman zitzaiolakoan.

⇒ *Bidaiari-garraioaren tarifen atzeraeraginezko aplikazioa. (1/980, 2/980, 3/980 eta 7/980)*

- Erreklamazioa

1998ko lehen egunetan, erakunde honek egiaztatu zuen Euskotren, Metro Bilbao, Bilbobus eta Donostiako Tranbiaren Konpainiak proposatutako tarifa berriak Euskadiko prezioen Batzordeak onetsi zituela 1997ko abenduan, eta EAeko Aldizkari Ofizialean ez zirela argitara eman 1998ko urtarrilera arte.

Beraz, ebazpenek berek adierazten zuten bezala, tarifa berriek EAeko Aldizkari Ofizialean argitara emandako egunaren biharamonean sartu behar zuten indarrean.

Hala eta guztiz ere, aipatutako enpresa horiek guztiak tarifa berriak kobratzen hasi ziren 1998ko urtarrilaren lehen egunetik aurrera.

- Azterketa

Alde honetatik, enpresa horietako arduradunei ohartarazi zitzaien bidegabeba zela tarifa horiei atzeraeraginezko ondorioak ematea, Konstituzioan eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa eta Administrazioako Jardunbide Arrunta arautzen duen 30/92 Legean bildutako printzipioak betez. Halaber, ohartarazi zitzaien horrek balio gabetasun akatsa ekarriko zuela eta, ondorioz, dirua derrigorrez itzuli beharko lieketela, urtarilaren lehena eta Aldizkariak argitara emandako egunaren artean ordainketa egin zutela egiaztatuko zuten erabiltzaile guztiei.

Aurreko horrekin bat eginez, adierazi zen beharrezkoa zela prozedura bat eratzea, erabiltzaileek, erraz eta arin jaso ahal izan zezaten gehiegi ordaindutakoa.

Garraio enpresek defentsa moduan argudiatu zuten arduraz jokatu zutela Prezioen Batzordeari tarifa berrien proposamena alde aurretik behar bezalako astiarekin igortzerakoan, tarifen onespena eta argitara ematea 1998ko urtarilaren lehen gertatzeko moduan.

Nolanahi ere, nahiz eta argudiatutako arrazoiek eragina izan zezaketen jokamolde horretatik eratorritako erantzunkizunen inputazioan, argudio horiek garrantziarik gabekoak ziren, oraindik indarrean sartu gabe zegoen xedapen batean oinarritutako administrazio-egintzek zuzenbidearekin bat egiten zuten ala ez esaterakoan.

- Emaizta

Kexagaiarekin zerikusirik zuten enpresa guztiei gogorarazi zitzaien, legez, bazutela erabiltzaileei gehiegi kobratutako zenbatekoak itzultzeko obligazioa.

Bestalde, ondoko urteetan gauza berbera gerta ez zedin, gogoratu behar izan zitzaien enpresei, tarifa berriak aplikatu baino lehen, derrigorrez egiaztatu behar dutela ea proposatutako tarifa berriak erakunde eskudunak onartu ote dituen, eta EAEn Euskadiko Prezioen Batzordearen esku dago prezio baimenduen alorreko eskuduntza. Era berean, enpresek ikusi behar dute ea tarifa berriak EAeko Aldizkari Ofizialean argitara eman ote diren. Hori guztia kalterik egin gabe salaketa gaia eragin duten disfunczioak zuzendu nahi lituzketen nahasitako beste erakunde batzuei.

Erakundeak egiaztatu zuen, aipatutako enpresa guztiek hasia zutela, oraindik tarifa berriak indarrean ez zeuden denboraldian gehiegi kobratutako kopuruak itzultzeko prozesua. Ondorioz, espedienteen artxibatzeari ekin zitzaion.

⇒ *Gas naturalaren hornikuntzagatiko alta eta ikuskapen eskubideak deritzaien kobraketa- legez kototasun ezaren gainean, EAEn (13/98O, 14/98O)*

- Erreklamazioa

1998ko otsailan, Arartekoak ofiziozko bi jardura abiarazi zituen: lehena, Bilbogas enpresaren aurrean, eta jarraian Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren aurrean. Xedea zen ikustea ea eskubide horien kobraketa bat zetorren indarrean dagoen legediarekin. Eskubide horien eskakizuna gertatzen da horniduraren betekizuna hastearekin batera, eta zenbatekoetan, badira ezberdintasunak: 7.000 pezeta inguru Araban eta 23.000 inguru Bilbon.

- Azterketa

Azaldutako gorabeheren azterketaren ondorioz, Arartekoak otsailaren 20ko 25/1998 zenbakidun Gomendia egin zion Bilbogas enpresari.

Hauxe zen gomendioaren ondorioa, hots, erakunde honen aburuz, eskubide horiek jabetzako prestazioaren izakera dutela. Horrenbestez, Konstituzioaren 31.3 artikulua dioena betez, Lege-mailako arau batek finkatu behar ditu eskubide hauek.

Izan ere, **funtsezko** zerbitzu publiko baten aurrean gaude, **sektore publikoak betetzen** duena aldi berean sektore pribatua agertu gabe. Beraz, egitatezko monopolio egoera da. Horregatik, Auzitegi Konstituzionalaren doktrinak, aunitzetan aipatu dugun abenduaren 14ko 185/1995 epaian bildua, hauxe finkatzen du: zerbitzu hori jabetzako betekizuna da, hertsapenezko izaera duena, beti ere.

Ildo honetatik, prestazioen kalifikazioa prestazio horiek ordaindu beharrean dagoen subjektu pasiboaren ikuspegitik egin beharra dago. Beraz, ordainketarik ez egiteko, erabiltzailearen esku dagoen bide bakarra baldin bada zerbitzua ez erabiltzea, hertsapenezko prestazio publiko baten aurrean gaude, eta ondorioz, Lege bidez ezarri behar da prestaziomolde hori.

Auzitegi Konstituzionalaren 185/95 Epaiak finkatzen du jabetzako prestazio publiko koaktiboaren kontzeptu materiala, Lege erreserbaren eskumende daudenak, eta kontzeptu horren arabera, argi dago zerbitzuaren kudeatzailea pertsona juridiko pribatua izateak ez duela pribatu bihurtzen erabiltzaileak ordaintzen duen diru prestazioa. Beraz, aldi berean agertzen direnean Auzitegi Konstituzionalaren Epaiak adierazitako hertsapenezko inguruabarrak, Lege erreserba, nahita ez, aplikatu behar izango da, zerbitzuaren kudeaketamoldeak edozein izanik ere. (Aragonés Beltrán, "Anuario de Hacienda Local", 1998; zentzu berean, García de Enterría berak, "RAP 1953 ; Ramallo Massanet, "Tasas, Precios Públicos y Precios Privados", RDF nº 90/1996; Pages y Galtes, "Fiscalidad de las Aguas", 1995).

Lege erreserbak, funtsean, hauxe dakar: zerbitzu baten erabiltzaileari, hertsapenez ezartzen zaion ordaindu beharreko zenbatekoa alde aurretik finkatu behar dute demokratikoki hautatutako haren ordezkariak, eta ez zerbitzuaren enpresa emakidadunek berek.

Horrek, ezinbestean, esan nahi du prestazio honen funtsezko osagaiak, besteak beste prestazioaren zenbatekoa, ezarriko dituen lege mailako xedapenik ezean, kobraketa balio gabekotzat jo behar dela.

Azken buruan, esaten genuen, zerbitzuaren betekizuna bere gain hartzen duen administrazioaren arabera, alta eta ikuskapen eskubideak tasa autonomikotzat edo toki tasatzat har daitezkeela. Dena dela, bai modu batean nahiz bestean hartu, Lege mailako arau batek ezarri beharko ditu: zehazki, Eusko Legebiltzarraren Legeak edo Toki Hazienden Legeak babestutako udal Ordenantzak, hurrenez hurren.

Horrela, bere hartako otsailaren 27an, informazioa eskatu zen aipatutako Industria Sailak hartu asmo zituen neurriei buruz, egun indarrean dagoen legedira egokitze delako "*alta eta ikuskapen eskubideak*", gas naturalaren enpresa hornitzaileek zerbitzu honetako erabiltzaileei kobratzen dizkietenak, hain zuzen, EAEn.

Eskabide honen aurretik, Industria Sailburuaren agerraldia gertatu zen Eusko Legebiltzarreko Batzorde eskudunean, eta bertan aitortu zuen bazirela alor honetan arau mailako hutsuneak.

Erakunde honen iritziz, tasa honen etorkizuneko zergagaiak zergapetzeko behar bezalako lege-babesa lortzeari begira, indarrean dagoen legedian aurreikusitako erreserba bere gain hartu gabe izango luketen udalerriek dagokienez, behintzat, hauxe zen biderik egokiena: bere funtsezko osagaien definizioa sar zedila EAeko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoen Legean berean, lege honen erreforma tramitazioaldian baitzegoen Legebiltzarrean.

Egiazki, Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, maiatzaren 29an 13/1998 Legea onetsi zuen, EAEko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoak arautzen dituen, eta bertan ez zen sartu enpresa emakidadunek betetzen duten gas hornikuntzarenegatikoa alta eta ikuskapenari dagokion zergaia.

Aitzitik, Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila dekretu-proiektu bat hasi zen aztertzen, horren arabera, gas naturalaren hornikuntzaren enpresa emakidadunek erabiltzaileendako betetzen duten zerbitzuen kostuak arautzeko.

Alde honetatik, begi bistakoa da dekretu hau onesterakoan, ez litzatekela beteko, izakera publikoko jabetzako prestazioen ezarpenean, Konstituzioaren 31.3 artikularekin bat, defendatzen den Lege erreserbaren printzipioa.

Erakunde honen iritiz, gas hornikuntzaren zerbitzuaren alta eta ikuskapen eskubideen alorrean dagoen hutsunea beteko duen berariazko araudia emateko lanari ekin ondoren, ezin dira saihestu AKren 185/95 Epaiaren funtsak. Horrenbestez, ezin da atzemandako hutsunea bete erreglamendu maila hutseko arau baten bidez.

Bestalde, nahiz eta Industria Sailak eta enpresa hornitzaileek ondorio mugatuak eman nahi izango zizkieten AKko 185/95 Epaiari, epaia hartu aurreko aroei dagokienez, azpimarratu beharra dago instalazioak zerbitzuan jarri aurretik kobratzen ziren alta eta ikuskapen eskubideak ez zeudela oinarrituta, ez kontratuen legediak, emakidadunak erabiltzaileengandik jaso beharreko tarifak emakida-tituluan finkatzeari begira, administrazio publikoei ematen dieten eskubideen bidez, ez beste inongo lege edo erreglamendu mailako arauen bidez.

Izan ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa gas erregaien zerbitzu publikoaren titularra da, maiatzaren 8ko 1.255/1981 Errege Dekretuari jarraiki, industria, energia eta meategiak alorreko zerbitzuen eskualdaketa arautzen duena, gasaren 10/1987 Legearen 1. artikuluari dagokionean.

Bere aldetik, Gas Erregaien Zerbitzu Publikoaren Araudi Orokorren 1. artikulua, 2.913/1973 Dekretuak onetsitakoa, industria alorrean eskuduntza duen administrazioaren esku jartzen du ondoko honen erregulazioa: besteak beste, hornikuntzarako baldintzak, tarifak, neurketa-tresnak eta egiaztapena, zehapenak eta baliagaiak e.a.

Hala eta guztiz ere, EAEk ez ditu eskubide horiek erabili, eta ildo honetatik, esan dezakegu kobraketa hauek ez dutela inolako lege babesik. Horrenbestez, baliogabetuak dira.

Honenbestez, eta Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11. artikuluari jarraiki, ondoko Gomendio hau egin zen:

62/1998 zenbakidun G O M E N D I O A

- Gas naturalaren zerbitzu publikoaren betekizunean, aldi berean agertzen diren bitartean, Auzitegi Konstituzionalaren arabera, izakera publikoko jabetzako prestazioetan bereizgarri diren ezaugarriak, hau da, zerbitzu publiko funtsezkoa izatea eta betekizun horretan aldi berean sektore pribatua ez aritzea, alta eta ikuskapen eskubideen kobraketa ezarri beharko da Lege maila duen arau baten bitartez.
- Gas enpresa hornitzaileei premiatuko zaie balio gabe utz ditzaten *"alta eta ikuskapen eskubideen"* kontzeptuarengatik egindako kobraketak. Era berean, lege babesik ez duen beste kontzeptu batzuegatik egindakoak ere baliogabetuko dira. Ondorioz, ekingo zaio erabiltzaileek sartutako kopuruen itzulketari.

Industria Sailak, bere aldetik, gomendio honen betekizunaz inolako erabakirik hartu baino lehen, Estatu Kontseiluari irizpena eskatzea deliberatu zuen. Estatu Kontseilua Administrazioaren beraren erakunde aholkuemalea da eta bere iritzia eman zuen iragan urriaren 10ean.

Txosten horretan, Estatu Kontseiluak dio “zilegia” izan dela alta eta ikuskapen eskubideen kibraketa, baina hori ez da “legezkoaren” baliokidea. Izan ere, kibraketa horiek ez zeuden lege edo arau mailako inongo xedapenetan aurreikusiak, eta aholku ematen du, etorkizunean Administrazioak finka ditzan.

Azken batean, Estatu Kontseiluak Arartekoak, bai xede horretarako prestatutako txostenetan, bai Industria Sailarekin izandako bileretan esan izan duena dio. Hots, zilegia dela enpresa hornitzaileek zerbitzu baten kostua berreskuratu nahi izatea, kasu honetan instalazioaren alta eta ikuskapenarena, baina nahikunde horrek, idazki honetan barrena azaldutako argudioetan oinarrituta, betebeharr juridiko-formal batzuen mende egon behar du.

Beraz, Estatu Kontseiluaren arabera, ordainarazpena “zilegia” da, baina administrazio emaleak arautu beharko luke.

Estatu Kontseiluak esan duen bakarra da kibraketa zilegia dela, baina horrek ez du esan nahi legezkoa denik. Eta mugitzen ari garen esparruan, ez du inolako baliorik ekintza bat zilegitzat hartzeak. Hitz hori zuzenbide naturalari egokiago zaio.

Hau da, Estatu Kontseiluari eskatu zitzaion iritzia eman zezala kibraketan legezotasunaz edo ez legezotasunaz, eta ez kibraketan zilegitasunaz, hori Arartekoak berak esana baitzuen alde zurretik.

Aitzitik, Estatu Kontseiluak dio eskubide horien eskakizuna zilegia dela eta ez dela beharrezkoa Lege bidez baimentzea, baina, era berean, Estatu Kontseiluak gomendagarria iritzen dio, Administrazio emaleak etorkizunean arautzeari.

Nalanahi ere, Hidrokarburoen urriaren 7ko 34/1998 Lege onetsi berriak alta eskubideak deritzaienak sartu ditu bere testuan, eta erkidego autonomoek onartuko dituzten arauen pean geldituko da eskubide horien araubide ekonomikoa, erkidego bakoitzean jardura horretan ari den banaketariak aintzat hartu beharko duena.

Horrek, berez, esan nahi du isilean aintzat hartu dela Ararteko erakundearen tesiaren baliozkotasuna, prestazio hauek Lege erreserbari lotu behar zaizkiola esaterakoan.

Azkenik, ohartarazi behar da alferrekoa gertatuko litzatekeela, Estatu Kontseiluaren irizpenean oinarrituta, Eusko Administrazioak atzeraeraginezko ondorioak ezarri nahi izango balitu gaur egun edo etorkizunean erabakitako xedapen batean, modu horretan zuzendu nahi izateko iragandako egoera bat.

Estatu Kontseiluaren irizpenaren arabera, eskubide hauen kibraketa zilegia baldin bada, eta Industria Sailarentzat hori legezkoaren sinonimoa baldin bada, ez legoke inolako beharrik enpresa hornitzaileei eskatzeko kopuruen itzulketa. Baina kibraketa zilegia baldin bada, eta legezkoa izatea beste gauza bat baldin bada, eta azken horretarako, hau da, legezkoa izateko beharrezkoa baldin bada Administrazioak aurrez hori finkatzea, lege edo arau mailako xedapen baten bidez, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Industria Sailari egindako 62/1998 zenbakidun Gomendioak zioena bezalaxe, orain Estatu Kontseiluak berak aintzat hartzen duena, gabezia hori konponezina gertatuko litzateke gaur egun.

Honenbestez, azaldutakoak oinarritzat hartuta, urriaren 16an, Arartekoa berriz ere, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailari zuzendu zitzaion eta arestian aipatutako irizpena aztertu ondoko ondorioen berri eman zion. Hauek dira:

ONDORIOAK:

LEHENA: Alta eta ikuskapen eskubideen izakerari dagokionez, eta eskubide horiek jabetzazko prestazio publikotzat aintzat hartzeari dagokionez, Estatu Kontseiluaren irizpenak AKren 185/95 Epaiaren osatugabeko irakurketa egiten du, eta horrek topo egiten du doktrina zientifikoak horri buruz esandakoarekin eta AKk berak ondoko 18/97 epaian egindako zehaztasunekin.

BIGARRENA: AKk diseinatutako jabetzazko prestazio publikoaren kontzeptu materialaren arabera, argi dago zerbitzuaren kudeatzailea pertsona juridiko pribatua izateak ez duela pribatu bihurtzen erabiltzaileak ordaintzen duen diru prestazioa. Beraz, aldi berean gertatzen direnean Auzitegi Konstituzionalaren Epaiak adierazitako hertsapenezko inguruabarrak, Lege erreserba nahita ez aplikatu beharrekoa izango da, zerbitzuaren kudeaketamoldeak edozein izanik ere.

HIRUGARRENA: Toki Araubidearen Oinarrien 7/85 Legeak dio gas hornikuntzaren zerbitzu publikoa funtsezko zerbitzua dela, eta zerbitzu hori monopolio moduan betetzen da enpresa emakidadunen aldetik, bai publikoak nahiz pribatuak izan. Beraz, alta eta ikuskapen eskubideen ordainketaren eskakizunean aldi berean agertzen da jabetzazko prestazio publikoetan bereizgarri gertatzen den hertsapenaren ezaugarria.

LAUGARRENA: Zilegitasun hitza ez da legezko hitzaren baliokide, eta Estatu Kontseiluaren irizpenak ez du iritzia eman alta eskubideen legezketasunari buruz. Eta horixe zen koltsultagaia. Estatu Kontseiluak, aldi berean, esaten du eskubide horiek zilegiak direla, lege edo arau mailako ezein xedapenak horien ordainarazpena baimentzen ez badu ere, eta etorkizunari begira, gomendagarria dela Administrazioak ordainarazpen horiek finkatzea.

BOSGARRENA: Hidrokarburoen 34/1998 Legeak berak zuzentzu du gabezia hori, eta horrek esan nahi du isilean aintzat hartu dela Arartekoak ekainaren 23ko 62/1998 zenbakidun Gomendioan defenditutako tesien baliozkotasuna.

SEIGARRENA: Industria Sailak orain onetsiko balu xedapen bat, alta eta ikuskapen eskubideen kobraketarengatik iraganean sortutako egoera zuzenduko lukeena, alferrekoa litzateke Zuzenbidearen ikuspuntutik. Dena dela, zerbitzuaren erabiltzaileen ikuspegitik xedapen hori, hein batean, pozgarria litzateke. Izan ere, bidegabe kobratutakoaren parte bat behintzat itzuliko litzaeieke, baina hori ez litzateke nahikoa izango ikuspuntu juridikotik.

- Emaizta

Honenbestez, azaldutako guztiarengatik, eta otsailaren 27ko 3/85 Legean ezarritakoari jarraiki, zeinaren bitartez erakunde hau sortu eta arautzen den, Arartekoaren iritziz, **aldatu gabe, bere horretan egon behar du 62/1998 Gomendioaren edukiak, iragan ekainaren 23an Industria Sail horri egindakoa, eta ondorioz, egokia litzateke erabiltzaileei, alta eta ikuskapen eskubideen kontzeptuarengatik kobratutako guztiaren itzulketa egitea.**

Txosten honen prestaketaldian, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak oraindik ere ez du erabakirik hartu.

B) Foru zergak

⇒ Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak emandako xedapen baten araubidezko jakinarazpenik eza. (1681/97)

- Erreklamazioa

1991ko urtealdiaren PFEZren aitortpenean, interesdunak bere lan pertsonalaren errendimenduen kopuru osoa goratu zuen, lanean ari zeneko enpresak egindako atxikipenen zenbatekoa txikiagoa baitzen legez ezarria dagoena baino.

Interesduna, esan den bezala, saiatu zen osoko goratzea egiten, Foru Ogasun horrek behin-behineko likidazioa egin zuen interesdunaren asmoa onartu gabe, eta ondorioz, berraztertze helegitea egin zen Foru Ogasunaren erabakiaren aurka, era berean atzera bota zutena, eta, azkenean, kasua Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratibora eraman zuten.

Interesdunak jakin zuen Auzitegi horrek 1996ko abenduaren 11n egindako saioan bere erreklamazioa ebatzi zuela, eta hori jakin zuen, kudeaketa-bulegoak berak horrela jakinarazita. Kexa aurkeztu zuen unean, oraindik ez zioten jakinarazi, modu pertsonalizatuan eta banakakoan akordioaren edukia.

- Azterketa

Horri buruzko informazioa Foru Ogasuneko PFEZren Atalean eskatu ondoren, erakunde honi jakitera eman zioten akordio huraxe jakinarazi zitzaiola interesdunari Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean egindako argitalpenaren bidez, eta argudiatu zuten saiatuak zirela bi alditan jakinarazpen pertsonala egiten, baina ez zutela lortu interesduna *“kanpoan zegoelako banaketa orduetan”*.

Ildo honetatik, gogoratu behar izan genuen Auzitegi Gorenak behin baino gehiagotan emandako legejakintza bateratu batek debekatu egiten duela ediktu bidezko jakinarazpena, ezagutuko duela ziurtasunik ez badago, alferrekoak direla interesdunak jakinarazpen horiek jaso izana egiaztatuko luketen beste jakinarazpenbide batzuk erabiltzea. Kasu zehatz honetan, egiaztatu zen interesdunak komunikazio elkartrukaketa arina eta gorabeherarik gabekoa izan zuela Foru Ogasunarekin, prozedura sortu zuen behin behineko lehendabiziko likidazioa gauzatu zenetik. Horren erakusgarri da erreklamazioaren ebazpenaren ondoan igorritako interesen likidazioaren berri hari iritsi izana, eta hala ere, funtsezko garrantzia duen tramitea, hots, FAAEren ebazpenaren jakinarazpena, babes eraginkorrerako duen eskubidean erabat eragiten duena, ediktu bidez gertatu zen. Honenbestez, erakunde honen iritziz, begi bistako babesgabezia sortu zen.

Gipuzkoako FAAEren beraren erantzunak zioenez: *“...emaitza onik gabeko jakinarazpen saiakera errepikatua nahikoa arrazoi da Aldizkaritean iragarki bidez jakinarazpena argitara emateko, eta horri ez dio trabarik jartzen itzulitako gutunazalean agertzen diren ordu kopuru zehatzak, jakina baita Posta Zerbitzuak zabaltzen duen abisuaren bitartez, jasotzailea joan daitekeela jakinarazpena hartzera lan ordutegitik kanpoko orduetan...”*.

Ildo honetatik, esan beharra dago, alde batetik postako enpleguak abisua eman izanak ez duela ziurtatzen interesdunak jaso izana. Beraz, ulertu behar da bide baliogabea dela, hau da, modu horretan jakinarazpena ez dago egin arauak diotenaren arabera.

Ohartarazi beharra dago agente jakinarazpen-emaleak, dagokion zedulan, idatziz jaso zuen arrazoiak izan zela *“banaketa orduetan kanpoan dago”*, eta ez *“kanpora joan zen”* edo *“ez ezaguna”*. Esan nahi baita, esapide horretan oinarrituta, ez zegoela esaterik beste jakinarazpen saiakera bat ere alferrekoa gertatuko zenik. Orduantxe, bai, horrek funtsatuko zuen ediktu bideari ekitea.

Honenbestez, azaldutako guztiarengatik, gure ustez interesduna babesgabezian utzi zen eta Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11. artikulua ezarritakoa betez, ondoko Gomendio hau egin zen:

44/1998 zenbakidun GOMENDIOA

Egin dakiola xxx jaunari Auzitegi horrek, xxx zenbakidun erreklamazioari buruz, hartutako akordioaren jakinarazpen pertsonalizatua eta banakakoa, eta kudeaketa bulegoari jakinarazi dakiola beharrezkoa dela bilketa-prozedura atzera eramatea, jakinarazpen hori gauzatu behar zeneko unera, antolamendu juridikoak ezarritakoarekin bat.

- Emaizta

Gomendio honen ondoren, erakunde horrek onartu zuen berriz ere egitea erreklamazioa atzera bota zuen epaiaren jakinarazpena, modu pertsonalizatuan eta banakakoan.

Ekintza horrek, praktikan, esan nahi zuen administrazio-prozedura atzera eramaten zela jakinarazpen huraxe araudiarekin bat egin behar izan zen unera.

Arrazoi hori dela medio, berriz ere Ogasun Zuzendaritza Orokorrari zuzendu gintzaizkion eta eskatu genuen baliogabetu zitzatela 52-793916000-00 eta 57-823260100-05 zenbakidun likidazioen gainean emanak zeuden zorpeko-ziurtagiria eta premiamendu-probidentzia. Horixe onartu zen Bilketa eta Prozedura Bereziatarako Zerbitzuburuaren idazkiaren bitartez

Horrenbestez, 137.325 pezeta (95.669 y 41.656) itzuli ziren, aipatutako likidazioetatik sartutako bidegabeko errekaraguen kontzeptuan. Ondoren, espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

⇒ *Suzesioen eta Donazioen gaineko Zergan zergagairik eza. (995/98)*

- Erreklamazioa

Emakume interesdunak, 1996ko abenduaren 18an anaia hil zitzaiola dio. Bera oinordeko bakarra da eta, beraz, aseguru-etxe pribatu batekin egindako pentsio plan baten onuraduna.

1996ko abenduaren 24an aurkeztutako autolikidazio baten bidez, erreklamazio egileak 17.771 pezetako kuota ordaindu zuen aipatu zerga horrengatik, 2.620.715 pezetakoa zen zerga-oinarri baten gainean.

Hala ere, ondotik, aseguru-etxeak ez zuen ordaindu nahi izan hitzartutako kalteordaina, eta horretarako bizi-aseguruaren kontratuzko klausuletan bildutako aurreikuspen bat argudiatu zuen.

Ondorioz, erreklamazio egileak Ogasunari bidegabe sartutako diruaren itzulketa eskatu zion eta horrek zerga-Administrazio horren ezezkoa ekartzeaz gainera, osagarritzko likidazio baten praktika ere ekarri zuen, eta likidazio osagarri horretatik eratorri zen 199.470 pezeta ordaintzeko obligazioa, printzipala gehi errekaraguak.

- Azterketa

Interesdunak egindako eskabidea ezesten zuen berraztertze-helegitean azaltzen denez, itzulketa ez da eratortzen 73/1991 Dekretuan bildutako inongo arrazoitatik, zerga-izakera duten sarrera bidegabean itzulketa arautzen duena. Hortaz, ez da egokia inolako itzulketarik egitea.

Alde honetatik, Foru Ogasun Sailari adierazi behar izan zitzaion, lehendabizi, suzesioen gaineko zergaren 3/1990 NFaren 3. artikulua dioena betez, honela osaturik dagoela zerga horren zergagaia,

“ c) Bizi-aseguru kontratuen onuradunen aldetiko kopuruen **jasotzea**,...”

Arauren beraren 32.5 artikulua ezartzen duen heinean aseguru-etxeek ezin dutela egin hitzartuen likidazioa eta ordainketa aurretiaz zerga ordaindu izana justifikatzen ez bada behintzat, begi bistakoa da, interesdunak aurkeztu zuela behar bezalako likidazioa, baina azkenean ez zuen inongo kopururik jaso. Beraz, ez zen zergagaia gertatu, eta ezin izan zen zerga sortu.

Bigarrenik, ulertu daitekeen arren esku artean darabilgun kasuaren gaia ez dela, hertsiki, sarrera bidegabean itzulketa, adierazi behar izan zen lurralde amankomunean bidegabeko sarreren itzulketa arautzen duen 1.163/1990 Errege Dekretua garatzen duen 1991ko martxoaren 22ko Ministerioko Aginduaren 1. artikulua haxe aurreikusten duela:

“Oro har, ez dagoenean aplikatzekoa den arau berezirik, Agindu honetan xedatutakoak aginduko ditu zerga-izakerako gainontzeko itzulketak, bidegabeko sarreren itzulketez bestelakoak direnak”.

Kontsiderazio hauek Ogasun Sailera igorri ondoren, Foru Diputatuak berak idazki bidez emandako erantzunean azpimarratzen zen eskabidea ez zela sartzen zerga-izakerako sarrera bidegabean itzulketa arautzen duen 73/1991 Dekretuaren 10.2 artikuluan aurreikusitako egiazko kasuetan, eta horrenbestez, ez zela egokia inongo itzulketarik.

Hala ere, Diputatuaren idazkian aurreikusten zen itzulketa egiteko aukera, baina gaineratzen zuen hori horrela izan zitekeela baldin eta interesdunak hasitako prozesu judizialaren emaitzan, hark eztabaidatutako kopuruak kobratuko ez balitu.

Arartekoaren iritziz, zuzenbideari lotuagoa zen sartutakoaren itzulketari ekitea, kalte egin gabe Administrazioak duen ahalmenari dagokion behin-behineko likidazioa egiteko, demanda judiziala onetsia izatekotan.

- Emaizta

Azkenik, Gipuzkoako Ogasun Zuzendaritzak, salbuespenez, kasuaren ezaugarri bereziei erreparatuta, akordioa egin zuen erreklamazio egilearen abokatuarekin, modu horretan egindako likidaziotik eratorritako zorra atzeratua izan zedin demanda judizialaren tramitazioak irauten zuen bitartean. Horrela, azkenean, demanda hori onartzen bazuten eta erreklamazio egileak kalteordaina aseguru-etxetik hartzen bazuen, zerga ordainduko zuen. Aitzitik, aseguru-etxearen aurka tartekatutako demanda judizialki gaitzestuko balute, egindako likidazioa baliogabetua izango litzateke.

⇒ *Zerga aukera aldatzea PFEZn (1998/98)*

- Erreklamazioa

Erreklamazio egileak senar-emazteak dira eta errakuntzaz euren PFEZren aitortpena aurkeztu zuten bereizita. Ohartzerakoan aukera hori zela onura gutxien zekarkiena, helegite bat tartekatu zuten Bizkaiko Foru Ogasuneko zerga zuzenen administratzailearen aurrean, eta eskatu zuten aurkeztutako aitortpenaren baliogabetzea eta elkarrekin egindako aitortpenaren onarpena.

Kexa aurkeztekoan ez zuten eskabidearentzako erantzunik jaso, bukatu berria zen arren aitortpenen aurkezpen epea.

- Azterketa

Ildo honetatik, alde zuzenetik, beste kexa espediente batzuen tramitazioan agertu da erakunde honen iritzia, eta haxe da: begibistakoa denean zergapekoek errakuntzaz

jokatu dutela PFEZren zerga aukera betetzerakoan, zerga administrazioek ahalbidetu behar dute aukeztutako autolikidazioen zuzenketa.

Bestela, aldaketa ezintasun horretatik eratortzen diren ondorioek kontra egiten diote Konstituzioaren 31. artikuluan bildutako zerga gaitasun printzipioari, esaterakoan, azkenean, PFEZren kontzeptuan zergapekoek legez tokatzen zaiena baino kopuru handiagoa ordaindu behar dutela.

Kontsiderazio hauek Ogasuneko arduradunei igorrita, Foru Diputatuaren txosten baten bitartez zerga-administrazioa saiatu zen esku artean darabilgun kasuaren “*errakuntza materiala edo egitatezko errakuntza*” izakeraren funtsa aldatzen, eta horri gehituta PFEZren Foru Arauaren 88. artikuluaurreikuspena, horretaz baliatuta, sail horrek uko egiten zion zergapekoak eskatutako zuzenketa-aukerari.

Hala ere, erakunde honen asmoa ez zen kasua delako figura horretara, indarrez, bideratzea, aurretiaz tramitatutakoetan ere halakorik egin ez duen bezala. Zehazki esateko, xedea da zergen bilketabidearen disfunczio bat zuzentzea. Izan ere, erakunde honen iritziz bilketabide horrek kontra egiten dio Konstituzioaren 31.1 artikuluan barne hartutako aginduari, eta horren arabera, “*denek sostengatu behar dituzte gastu **publikoak euren gaitasun ekonomikoaren arabera, bidezko zerga sistema baten bidez, berdintasun eta progresibitate** printzipioetan oinarritua...*”

Alde honetatik, agerikoa da, zorpekoaren jokamoldeari, hertsiki, ematen zaion kalifikazio juridikoaz haraindi, errakuntza baten aurrean gaudela, ez zerga ikuspegi estetiko. Baina errakuntza horrek dakar subjektu pasiboak ordaindu izana Legez legokioketena baino kuota handiagoa PFEZren kontzeptuan, eta ordaindu du nahi gabe, oharatu gabe. Beraz, zerga sistemaren berdintasun eta justizia printzipioak urratu dira.

Horrela, Arartekoak, Eusko Legebiltzarrari egindako azken Txostenean espreski gomendatu badu ere, dagozkion foru arauen aldaketa modu horretan eragozteko halako kasuak etorkizunean berriz ere gerta ez daitezen, era berean zerga administrazioei eskatu behar diegu behar adina bitarteko jartzea egoera horien zuzenketa ahalbidetzeko, halako egoerak sortu direnean.

Izan ere, 1994an Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egindako Txostenean ohartarazten zen bezalaxe, Auzitegi Gorenak behin eta berriz emandako doktrinak Administrazioa behartzen du hiritarrari, bereak ez diren eta teknikariarenak diren zereginetan erabiltzen baititu, zein bide erabili behar duen adieraztera, ekintzak aipatzean edo zuzenbidearen barnera sartzean, hutsak eragiten dituenean. (1994/7/26 AKE).

Azken buruan, oraindik ere aitortpenak aurkezteko epea bukatua ez dagoenean, edo, are gehiago, zenbaitetan autolikidazioa aurkezteko unean berean, halako errakuntzak gertatuta, PFEZren Foru Arauaz egindako interpretazioak ahalbidetu beharra du errakuntza horien zuzenketa kudeaketa mailan.

• Emaizta

Hala eta guztiz ere, argi gelditu zen zerga Administrazioak ez zuela aintzat hartu nahi interesdunaren eskabidea, argudiatuz ez zitekeela PFEZren Foru Arauaren interpretazio zabalgarria egin.

Aldi berean, azaldutakoa bezalako egoerak etorkizunean zuzentzeko borondatea berresten zen. Horretarako, bere aldaketa aurreikusten da PFEZren Foru Arauetan, gaur egun, Biltzar Nagusietan eztabaidatzen ari direnak.

Ildo horretatik, adierazi beharra dago, horren bitartez burutu arren Arartekoak txosten ugarietan agertutako xedea, zeinaren erregulazioa orain arte lurralde historikoen erakundeetatik at baitzegoen Kontzertu Ekonomikoaren irismenarengatik, egia da baita

xede hori erdiesteko bidean egitatezko egoera bidegabeak gertatu direla ikuspuntu materialetik, eta egoera horiek eragotzi zitezkeen kudeaketa mailan.

Izan ere, ezer egiaztatu baldin badugu erakundea lanean hasi zenetik, hauxe izan da, hots, zerga administrazioek zergapekoen esku jarritako bitarteko materialez eta pertsonalez haraindi, kexa honetan azaldutakoa bezalako egoerak gertatu izan direla PFEZren aitopen kanpainetan.

C) Udal zergak

⇒ *Alta likidazioaren banakako jakinarazpenik eza, OHZren Erroldan. (637/98)*

- Erreklamazioa

Erreklamazio egilea Donostiako biztanlea zen eta azaltzen zuen 1996an erosi zuela egun bizilekutzat zuen etxea. Horrexegatik, 1997ko OHZren likidazioa ulertu beharra zegoen zerga honen erroldako alta likidazioari zegokiola.

Hala ere, horri buruz izan zuen lehendabiziko jakinarazpena egin zen zorraren printzipalaren gaineko %10aren premiamendu-errekarguarekin.

- Azterketa

Ildo honetatik, Donostiako Udalari gogorarazi behar izan zitzaion, Gipuzkoako Lurralde Auzitegiaren Zergei buruzko 1/1985 Foru Arau Orokorren 124. artikulua ezarritakoa betez, arau orokor gisa, zerga likidazioak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkiela, eta, bereziki, aldi behingo zergen kobraketak diren aldetik, jakinarazi beharko da altari dagokion likidazioa, dagokion erregistroan, erroldan edo matrikulan.

Bere aldetik, Udalak igorritako txostenean adierazten zuen 124. artikulua udal biltzaile eragilearen irizpidearen arabera interpretatu behar dela. Honela, zehazki: aldi behingo zergen kobraketan banakako jakinarazpena egokia da soilik finkaren alta gertatu den kasuetan, ez subjektu pasiboaren altan.

Hala ere, Udalbatzari ohartarazi zitzaion delako interpretazio horrek kontra egin liezaiokeela Auzitegi Gorenak eta Auzitegi Konstituzionalak berak behin baino gehiagotan emandako legejakintza bateratuari. Hona hemen AKren apirilaren 30eko 73/96 Epaia, horren erakusgarri. Epaia dioenez:

“...ediktu bidezko jakinarazpen kolektibo hauek ari dira, ordainagiri bidez aldi behin kobratzen diren zergen likidazioari buruz, modu automatikoan aldi behin igorri behar direnak, **beren funtsezko osagaiak aldatu gabe**, pertsonalki jakinarazitako lehendabiziko likidazioari dagokionez” (FJ cuarto).

Alde honetatik, agerikoa da subjektu pasiboa zergen funtsezko osagaietako bat dela, eta ondorioz, Ondare Higiezinaren Zergena ere bai, denetan funtsezkoena ez esateagatik. Izan ere, urtealdi batetik bestera bertan behera utzi da finkaren transmititzaileak ordaintzeko zuen obligazioa eta sortu da, berriz, eroslearentzat

Bestalde, erroldan alta hartzeak ez ditu soilik barne hartzen zergagai izan den finkari buruzko datuak, baizik eta era berean, finkako titularrari dagozkionak. Horrexegatik, etxebizitza erosi eta hurrengo urtealdiko urtarrilaren 1ean, zerga sortzen zaio jabe berriari.

Azaldutakoarengatik, Arartekoak berretsi zuen, kasu honetan, erroldan alta emateagatik lehendabiziko likidazioa 1997. urteari zegokiola. Horrexegatik, pertsonalki jakinarazi beharra zegoen.

- Emaidza

Azkenik, Donostiako Udalak hauxe erabaki zuen “*likidazioaren banakako jakinarazpena egin ez denez, lehendabiziko likidazioarekin alderatuta funtsezko osagaiak aldatu direlako, egokia da erreklamazioa aintzat hartu eta 1997ko Abenduaren 10ean sartutako premiamendu-errekarguaren itzulketarako jardunbideari hasiera ematea. 2.935.-pezeta dira.*”

Kexagaiari konponbidea eman zitzaiolekoan, espedientearen artxibatzeari ekin zitzaion.

⇒ *Elbarritasunagatiko salbuespena ukatu izana Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergan (2129/98)*

- Erreklamazioa

%50eko elbarritasun fisikoa duen hiritar andre batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen Bilboko Udalaren erabakia, zeinaren bidez Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren (aurrerantzean TMIZ) salbuespena hartzeko eskabidea atzera bota baitzuten.

Aipatutako toki erakundeak zerga-salbupean hori atzera botatzeko arrazoibidea hau izan zen: salbuespena aplikatu nahi zitzaioneko ibilgailua ez zegoela egokitua elbarritasunak hartuta dagoen pertsona batek gida zezan.

Argudio horren aurka, interesatuak arrazoitzen zuen, esanez berak zuen ibilgailuak bazuela serieko aldagailu automatikoa. Beraz, betetzen zuen Trafiko Jefaturak ezarritako baldintza murriztailea zirkulatu ahal izateko eta, ondorioz, ez zela beharrezkoa bestelako aldaketarik egitea bere elbarritasun maila horretara egokitzeko.

- Azterketa

Arartekoak aipatu udalbatzari txosten bat igorri zion eta horretan nabarmentzen zen arau aldaketa funtsezkoa gertatu zela salbuespenaren osaeran, eta hala, TMIZren Zerga Arautegi arauemalearen 6.1.d) artikulua berriari kasu egitera, are nabarmenagoa zela huskeria hutsa zela ibilgailuak mekaniko batean jarritako aldagailu automatikoa izatea ala fabrikari jarritako izatea.

Halaber, Bilboko Udalari gogorarazi genion salbuespena ibilgailu egokituari dagokiola eta egin zioten serieko aldaketarekin interesdunaren ibilgailua guztiz egokitua zegoela elbarritasun fisikoa zuen pertsona batek gida zezan.

Azkenik, egiaztatu zen Bilboko Udalak jakin bazekiela seriean ekoiztutako auto bati, aldagailu automatikoduna, ibilgailu egokituaren kalifikazioa eman zekiokoela. Izan ere, Justizia Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzi Aretoak aintzat hartua zuen kalifikazio hori eman dakiokoela ibilgailuei, udala auzi-jartzaile izan zen auzi batean.

- Emaidza

Azaldutako arrazoiengatik eta kontuan hartuta serieko auto egokitu bat erosteak pertsona elbarri bati zekarkion aparteko gastuaren konpentsaziorik ezak sortzen zuen bidegabekeria, Arartekoak Bilboko Udalari gomendatu zion erreklamazio egileari aipatu salbuespena ezar diezaiotela.

Gomendio hau, 1998ko urtealdiko itxiera egunean erantzuna jaso zain dago.

6. HERRIZAINGOA

6.1 SARRERA

1998ko ekitaldian Herrizaingo sailean sar daitezkeen 92 kexa aurkeztu zaizkio Arartekoari, batez ere Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko organo zein zerbitzuek eta Autonomia Erkidegoko Udalek egindako jarduketak direla medio. Azterketa konparatiboa egiten badugu, eta zenbakiak konparatzen baditugu, ikusiko dugu aurten 1997. urtean baino kexa gutxiago aurkeztu direla, 1997. urtean 104 kexa aurkeztu zirelako. Honela sailkatuko genituzke aurtengo kexak, azpisailean arabera: 62 bidezaingoan, 21 ordena publikoa deiturikoan eta 9 bestelako azpisailetan.

Tramitatu diren 62 kexa horietatik, gehienak, 44 hain zuzen eskumen zigortzaileak erabiliz eginiko jarduketei buruzkoak dira, honela banaturik: 13 Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafiko eta Parke Mugikorra Zuzendaritzak eginikoak, 8 Bilboko Udalak eginikoak, 1 Donostiako Udalak, 16 Gasteizko Udalak, 3 Lasarte-Oriako Udalak, eta bana Getxoko, Urnietako eta Ermuako Udalak. Gainerako kexak -18- anitzak dira (TAOren erregimena, elbarrientzako aparkaleku erreserbatuak, seinaleak, eta abar) eta honela banatu dira: batek zerikusirik du Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarekin, hiruk Bilboko Udalarekin, lauk Donostiako Udalarekin, batek Gasteizko Udalarekin, bik Bakioko Udalarekin, bik Getxoko Udalarekin eta banak Barakaldoko, Busturiako, Arrasateko, Ibarako eta Oñatiko Udalekin.

Ordena Publikoko azpisaileari dagozkion 21 kexatatik honako hauek dira Arartekoari aurkeztu zaizkion kexen sailkapena: 16 Ertzaintzako funtzionarioek egindako jarduketengatik, 3 Bilboko Udaltzaingoko funtzionarioek egindako jarduerengatik, 1 Irungo (Gipuzkoa) Udaltzaingoko funtzionarioek egindako jarduketengatik, eta 1 Leioako (Bizkaia) Udaltzaingoko egindako jarduketengatik. Kexa hauetatik 3 bertan behera gelditu dira, izan diren gertaerak direla-eta justizia epaitegietan salaketa aurkeztu delako.

Bestelako azpisailetan aurkeztu diren gainontzeko 9 kexek zerikusia dute Herrizaingo Sailak egindako jarduketekin (espetxe/eritxeko moduluko polizia-zaintza, Jokuari buruzko Legea betetzea eta Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programaren aplikazioa), Bilboko Udalak egindakoengatik (eskumen zigortzailea aplikatzea salmenta ibiltaria dela-eta), Mungiaiko Udalak egindakoengatik (eskumen zigortzailea aplikatzea hosteleria-establezimenduen ordutegia dela-eta) eta Arrasateko Udalak egindakoengatik (taldekako espediente moduan tramitaturiko lau kexa, atzerritarrak erroldatzeagatik).

Norberak hala nahirik tramitatu diren kexez aparte, beste 9 espedienteri ofizioz eman zaio hasiera, ondoren aipatzen diren aferekin zerikusia zeukatenak: preso bat eritxera eramateko erabilitako ibilgailua -hau bertan behera gelditu da salaketa epaitegian jarri delako- eta ondoren aipatzen diren atxilotze-zentroen egoera: Ertzaintzaren Galdakaoko eta Zarauzko Komisaldegia eta Gasteizko, Barakaldoko, Bermeoko, Galdakaoko, Lekeitioko, Santurtziko eta Irungo Udaltzaingoaren atxilotze-zentroen egoera.

Zenbakien aldetik, azpimarratzekoa da bidezaingoaren azpisailean aurkeztu diren kexen kopurua, 1997ko ekitaldiarekin konparatuz gero, gutxiagotu direla. Gutxiagotze hau are eta nabarmenagoa da Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafiko eta Parke Mugikorra Zuzendaritzaren organo eskudunen jarduerarekin zerikusirik dutenetan. Aurreko ekitaldietan aurkeztu diren kexek kopuru aski nabarmena egiten zutela Administrazioako organo horrek bideratzen zituen espediente zigortzaile guztiekin alderaturik alde batera utzirik, egia da atzeman den gutxiagotzeak eraman gintzakeela

pentsatzera jarduera zigortzaile horrek maila egokiak eduki dituela. Gure kontrol jardunaren ikuspegitik, ikus daiteke jarrerak hurbildu direla aurreko txostenetan urruti edo are kontrajarriak ere ikusten genituen hainbat alderditan. Alde horretatik, esan nahi dugu Trafiko eta Parke Mugikorra Zuzendaritzako arduradunen eta erakunde honetako arduradunen artean izan diren harremanen ondorioz, aurkeztu diren kexa guztien ehuneko garrantzizko bat egoki konpondu dela, kexa aurkeztu zutenen alde alegia, inolako gomendiorik eman behar izan gabe. Kexa hauen oinarria zen lege haustea gertatzen zenean eta ibiligailua geldiarazten ez zenean egiten ziren salaketak ez zirela justifikatzeko moduan jakinarazten. Prozeduraren alderdi honek espedientearen baliozkotasunari eragiten zion edo ez, horixe zen eztabaidarako puntua; gaur egun, lehen ere esan dugun bezala, esan liteke puntu hau gaindituta dagoela.

1998 ekitaldian abian jarri diren kexa-espedienteetan, baita aurreko ekitaldietatik etorririk urte honetan ebatzi direnetan atzeman da ediktu-prozedura gaizki erabili izan dela aginte eskudunek espediente zigortzaile horietan hartu dituzten erabakiak jakinarazteko. Gorabehera hau bereziki atzeman da Gasteizko Udalak tramitatu dituen espediente zigortzaileetatik etorri diren kexatan, idatzia jaso behar duena bere etxean egon ez eta jakinarazpenak dagokion aldizkari ofizialaren bidez eta Udaleko iragarki-oholaren bidez tramitatzeko direnean. Aitortu behar da Gasteizko udal zerbitzuak hiru aldiz saiatzeko direla jakinarazpen pertsonala egiten, saio hauek beti ordutegi berean egiten duten arren. Hirugarren aldiz kale egiten denean pertsona zehatzari jakinarazpena emateko saioan, pertsona hori bere etxean ez dagoelako, ediktua erabiltzen da. Honi dagokionez, esan behar da 1994ko ekitaldiko txostenean honi buruzko gomendio orokorra ematen zela, gomendio hori indarrean dagoela, eta hola jokatzeko ez datorrela bat gomendioarekin. Gomendio orokor hau izenburu honen azpian zetorren: “*Ediktu bidezko jakinarazpenaren erabilera Administrazioaren zigorbidean, Administrazio Publikoaren Lege-Jaurbiderako eta Administrazioaren jardunbide arrunterako azaroaren 26ko 30/1992 legean finkatutakoaren babesean*”, eta esan behar da praktika hau lege horretako 59.4 artikulua ezartzen duenaren aurka doala. Espediente administratibo zigortzaileetan diktatzen diren ekintzen jakinarazpenen garrantziak eramaten gaitu behin eta berri esatera guztiz beharrezkoa dela legearen aurreikuspenak zorrotz zaintzea, legeak ezarritakoa ez betetzeak urra dezakeelako Konstituzioko 24. artikulua ezartzen duen funtsezko eskubide bat, babes judizial eraginkorra izatekoa, hain zuzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko polizietako funtzionarioen jardueren gainean jarritako kexek, Ertzaintza eta Udaltzaingoearen gainean jarritakoek hain zuzen ere, lege-antolamenduaren aurkako jarduketak aurreikusi eta jarraitzeko arduraren izandako behin-behineko irregulartasunetan dute jatorria. Lehen ere hainbatetan gertatu den bezala, eta erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 13. artikulua aurreikusen duena betez, zenbait kexa, 4 zehatz esanda, ezin izan dira tramitatu, kexak jurisdikzio penaleko organoen baitan jarri direlako.

Polizien jarduketei dagokienez, esan behar da harremanak izan zirela Ertzaintzak eta Estatuako Poliziek atxilotu zituen eta lege antiterroristak aplikatu zitzaizkion hainbat hiritarren familiakoekin. Harreman hauetan esan zen poliziako funtzionarioek tratatu txarrak eragin zituztela. Tratatu txar hauen salaketa gehienak Guardia Zibilari eta Polizia Sail Nazionalari zegozkenez, jarduketa hauek Herriaren Defendatzaileari bidali zitzaizkion. 83 atxilotetatik, Ertzaintzako funtzionarioek 15 egin zituzten. Horregatik, afera Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailera bidali zen, kasu guztietan edo batzuetan salaketa justizia epaitegietan jartzea litekeena zela eta, hortaz, gure parte hartzea bukatuko zela ahaztu gabe.

1997ko ekitaldiko txostenean, Herrizaingo Sailari dagokion kapituluko sarreran, aipatzen zen Bilboko San Frantzisko auzoan polizia batzuek inmigrante batzuekin dituzten harreman irregularren gaineko arazoak zirela-ta, ofiziozko espedienteari hasiera emango zitzaiola. Honi dagokionez atera diren ondorioak ezagutu nahi dituenak jo beza I. kapituluko txostenera.

Aurreko datuek ekitaldian zehar gure parte hartzearen zenbakizko datuen gaineko informazioa ematen dute, batetik, baita herritarrek guk kontsidera genitzan ekarri dizkiguten jarduketan nolakoaren gainekoa ere. Aurreraki hauek irakurrik ezin gintezke iritsi pentsatzera aurkeztu diren kexa guztietan antolamendu juridikoaren urratzeak edo irregulartasunak gertatu direnik. Horren guztiaren kalterik gabe, kontrolatu ditugun jarduketa administratiboen zuzentasunari buruzko ondorioak txosten honetako beste hainbat kapitulutan ikus daitezke, batez ere txosten honetako gomendioak betetzeari buruzko kapituluan.

Auzirik azpimarragarrienak, bai 1998ko ekitaldian aurkeztu diren kexei dagozkienak, baita aurreko ekitaldiei dagozkienak baina aurreko ekitaldian ebatzi direnak ere, ondoren ematen diren laburpenetan datoz.

6.2 AUKERATUTAKO KEXAK

A) Bidezaingoa

⇒ *Getxoko Udaleko Aparkamendu Arautuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzako egoiliar-txartela lortzeko, trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik inolako zigorra ordaindu gabe eskatzeaz (105/97)*

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoaren aurrera ekarri zuen arazo hau: Getxoko Udalak ukatu ziola egoiliar-txartela, dagokion eremuan bere ibilgailua murrizketarik gabe aparkatzea ahalbideratuko ziona, ordaindu gabe zeukalako zenbait zigor, udalbatza hartan, trafikoa arautzen duten arauen bat hausteagatik.

• Azterketa

Aipatu Udalari informazioa eskatu zitzaion, eta ikusi zen Aparkamendu Arautuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzako *in fine* 10. artikuluan, honako hau eskatzen zela egoiliar-txartela lortu ahal izateko: “*txartela lortu nahi duen interesatuak, eskaera egiten duen unean, ezin izango du ordaindu gabe eduki Getxoko Udalean inolako trafikozigorrik*”. Baldintza hau eskatzen zela ikusirik, Arartekoak honako idatzi hau bidali zion Getxoko Udalari:

“1.- (...) andreak aurkeztu digun auziaren gainean egin dezakegun kontrol-ekintza mugatzeko orduan, zehaztu behar dugu, lehengoz eta behin, zein izango den gure aztergaia. Alde honetatik, azpimarratu behar dugu gure helburua ez dela, lojikoki, jardun administratibo zehatza aztertzea, hau da, lehen aipaturiko egoiliar-txartela emateari uko egitea, baizik eta gure helburua dela uko hori ahalezko egin duen Udal Ordenantza aztertzea. Udal horretako Osoko Bilkurak 1994ko irailaren 30ean onartu zuen Aparkamendu Arautuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzaz ari gara, noski.

Aipatu arauko *in fine* 10.artikuluak honako hau ezartzen du: '*txartela lortu nahi duen interesatuak, eskaera egiten duen unean, ezin izango du ordaindu gabe eduki Getxoko Udalean inolako trafiko-zigorrik*'. Auzian jar litekeen lehenbiziko gauza arauaren idazketa bera da, ez baititu ezertarako ere bereizten trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarri zaien eta udaleko diruzaintzari ordaindu behar dioten diruzko isuna dutenen artean egon litezkeen zirkunstantziak. Esan nahi duguna da arauak bere baitan biltzen dituela, era okerrean gure ustez, bai ordaindu gabeko isunen bat edukirik isuna ordaintzeko borondatezko epean daudenak, erabaki zigortzailearen aurka errekustso jurisdikzionala paratu dutenak, finkotasun administratiboa lorturik ere isunaren gaineko legezketasuneko epai jurisdikzionala egiteke dagoelarik, baita dagokion isuna ezartzen dien erabakiak finkotasun administratiboa izanik, edo ezarritako errekustso kontzertioso-administratiboa ebazirik, kontrako epaia jasorik, denbora borondatezko epea agortzeraino pasatzen utzi dutenak ere, horrek berarekin dakarrelarik diruzko isuna derrigorrezko bidetik ordaintzea eskatzea, dagokion premiamendu-espeditzea eta guzti.

Bereizketarik ez egite hori araua baloratzeko orduan oharkabean pasatzen ezin daitekeen auzia dela ulerturik ere, Arartekoak aipatzen ari garen baldintza epaitzeko orduan duen kezka nagusia baldintza bera da.

- 2.- Trafiko arauak hausteagatik martxan jartzen diren prozedura zigortzaileetan, diruzko isunak kobratzeko, dela borondatezko epean, dela premiamendu bidean, erregimen juridiko bat errespetatu behar da. Erregimen juridiko horretan administrazio publikoek hainbat eskubide dute zorrak benetan kobratu ahal izateko. Aipatu ditugun eskubide horiek zordunen ondareetan zilegi esku sartzeraino irits daitezke, bahiketa eta bahiketaren betetzearen bidez; hauen ondorioz, zuzen eta egoki egiten badira, dagokion diru kopurua kenduko zaio interesatuari ogasun publikoari emateko. Esan behar da ogasunetikiko betebeharrak betetzen ez dituen herritarrarentzat, aztertzen ari garen diruzko isunaren kasuan, antolamendu juridikoak aurreikusten duela beren zorrak areagotzea; izan ere, isun hauek errekarguak, interesak, tramitazio-gastuak eta abar izaten dituzte. Ondorioztatu ahal dugunez, herritarrek ogasun publikoarekin dituzten zorrak ordaintzeko eskaerak erregimen itxia eta orobiltzailea badu, uste dugu gutxienez desegokia dela beste hainbat harreman juridiko-publiko arautzeko -kasu honetan partikularren zoru publikoa erabili ahal izatea ibilgailuak aparkatzeko- beste zenbait arau erregulatzailerik onartzearen bidez, aplikazio espezifikoko arauak ezartzen ez dituzten aurreikuspen koaktiboak artikulatzea herritarrek ordain ditzaten trafiko arauak hausteagatik ezartzen ahal izan dakizkien diruzko isunak, kasu honetan.
- 3.- Udalbatzak hartu dituen erabakiei zor zaien errespetoarekin, 'koaktibotzat' jo dugu aparkamendu arautuan aparkatu ahal izateko beharrezkoa den egoiliar-txartela lortzeko trafiko arauak hausteagatik inolako diruzko isuna ordaindu gabe ez edukitzeko eskaera, zeren, adierazi dugunez, uste baitugu administrazio publikoak nahiko eskubide badituela herritarrek ogasun publikoekin dituzten zorrak ordain ditzaten. Eskaera hori horrela jo badugu, da, gure ustez, gerta litekeelako egoiliar-txartela lortzeko eskubidea duen herritarrek, baldin eta badaki Udala horrekin trafiko arauak hausteagatik ordaindu gabeko diruzko isuna baduela, irizten ahal diola bere interesen aurkako baita balizko salaketa bati alegazioak aurkezteko posibilitatea bera ere, zer esanik ez zigor baten aurka bide kontzertioso administratiboa erabiltzea bera, zeren atera baitezake, ondorioztat, bere ibilgailua

eremu mugatuan aparkatzeko baimena ez edukitzeak kalte handiagoa sor diezaiokeela ezarri zaien isuna ordaintzea baino, administrazioak aurrera eraman duen jardun zigortzailea ez dela zilegi izan uste badu ere. Beraz, gure iritzia da aipatu neurri honekin kaltetzen eta urratzen dela herritarren askatasuna, hauek uste balezate, esan den bezala, udal administrazioaren jardun zigortzaileak antolamendu juridikoaren aurreikuspenak hauts ditzakeela. Behartzen ari zaio, hala dagokionean, <gaitzik txikiena> onartzera”.

- Emaidza

Getxoko Udalari gomendatu zitzaion udal hartako Osoko Bilkurak ken zezala 1994ko irailaren 30eko Aparkamendu Arautuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzatik behar diren prozedurazko tramiteak bete eta gero, arau horretako *in fine* 10. artikulua ezartzen zuena, hau da, “*Txartela lortu nahi duen interesatuak, eskaera egiten duen unean, ezin izango duela ordaindu gabe eduki Getxoko Udalean inolako trafikozigorrik*”. Udalak onartu zuen gomendia, eta eskaera hori kendu zen gaia arautzen duen Ordenantza beritik, zeina 1997ko urriaren 31n onartu baitzen eta abenduaren 2ko 232 zk.ko BAO-n argitaratu.

⇒ *Ibilgailu bat bide publikotik eramatea eta berreskuratzeko dagokion tasa ordain dadin eskatzeaz (1345/97)*

- Erreklamazioa

Donostiako Udaltzaingoko funtzionarioen jarduketa baten ondorioz, gidari bati egin zitzaion eta emaitza positiboa eduki zuen alkoholemia frogaren ondorioz, zehatz esanda, trafikoa segurtasunaren aurkako dagokion atestaturia egiteaz eta gidatzeko karneta kautelaz kentzeaz aparte, erabaki zen interesatuaren ibilgailua eraman eta udal gordetegian gordetzea, eta ibilgailua berreskuratzeko interesatuak dagozkion tasak ordaindu behar izan zituen.

- Azterketa

Trafikoa segurtasunaren aurkako ustezko delituagatik egin zen atestaturaren ondorioz, Arartekoaren kontsideraziora ekarri zen auzia ohiko jurisdikzioaren organoen eskutetan jarri zenez, kexaren muina ezin izan zen ikertu. Hala ere, Arartekoaren ondorioa izan zen interesatuaren ibilgailua eramatea eta ondoren poliziaen gordetegian gordetzea -jabeak dagozkion tasak ordaindu behar izan zituelarik berreskuratzeko- gaia arautzen duten arauen haustea izan zela. Beraz, gomendia eman zitzaion Donostiako Udalari, interesatuak ibilgailua eramateagatik eta gordetzeagatik ordaindu zituen tasak itzul zekizkion, besteak beste honako honetan adierazten direnak esan zitzaizkiolarik:

“Ibilgailuak geldiaraztea eta eramatea, edota eramatearen ondoren administrazioko gordetegian gordetzea kautelazko neurri ezberdinak dira, urrunera ezberdina dutenak. Gehiago dena, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuak agindu ezberdinetan hartzen ditu kontuan. Zehatz esanda, ibilgailua geldiaraztea 70. artikuluan ezartzen da, eta ibilgailua eramatea 71. ean. Hori horrela, gutxienez desegokia iruditzen zaigu udal zerbitzuek egiten duten baieztapen hau: ‘...zirkulazioaren segurtasunarekin eta ibilgailuaren berarekin bateragarriena den geldiaraztea, ibilgailua Udal Gordetegira eramatea da’. Eramatea eta gordetzea

justifikatzen dute esanez ezin zitekeela ibilgailua geldiarazi *‘bide publikoaren beste hainbat erabiltzailerren arriskurik gabe, eta gidatzeko baldintza onetan zegoen gidaririk ez zegoelako’*. Zein zen beste hainbat erabiltzailerentzako arriskua? Zer aginduk ematen du baimena ibilgailua eramateko berau gida zezakeen beste gidaririk ez bazegoen? Urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuak onartu zuen Zirkulaziorako Erregelamendu Orokorreko 25. artikulua honako kexa bat bezalako kasuetarako preskribitzen du ibilgailuak geldiaraztea. Xehetasun hau kontuan hartzea garrantzizkoa da, herritarrak tasa batzuk ordaindu behar dituelako aipatu ditugun kautelazko neurrietako edozein bertan behera geldi dadin, eta badirudi tasa horiek ez direla berdinak izango kasu bakoitzean. Ibilgailua eramatea antolamendu juridikoaren aurkakoa baldin bada, herritarrak ez luke ordaindu beharko udal jarduketa horretan aurreikusten den tasa, eta, ondorioz, bidezkoa litzateke aipatu tasa itzultzea”.

Donostiako Udalak ez zuen Arartekoaren gomendioa onartu, honako argudio hauek eman zituelarik, besteak beste:

“Beharrezkoa da orain arte esandakoa laburbiltzea gure legearen interpretazioa nolakoa den finkatzeko: Oinarrien Legeko 7.oinarriak, baita Testu Artikulatuko 7. eta 71. artikuluek ere, baimena ematen dute ibilgailua eramateko baldin eta geldiaraziz gero trafikoa oztopatzen edo aldrebesten bada, zirkulazioa zailtzen bada edo eta arriskugarria gertatzen bada. Ibilgailua bide publikotik kentzeak eta Udal Gordetegira eramateak, baldintza hauetan, ez dute zerikusirik arau haustearen izaerarekin eta haustea delituzkoa izatearekin edo ez (...) Edonola ere, Zirkulaziorako Erregelamendu Orokorreko 25. artikulua bakarka intepretatzen bada ere, hau da, Testu Artikulatuko 7., 70. eta 71. artikuluekin harremanetan jarri gabe, ez litzateke burugabea izango, ezta gutxiago ere, artikulua horretako 3. lerroaldea ibilgailua kautelaz gorde behararen alde, Aginte Judizialak agintzen duen arte, edo ez, ibilgailua itzultzea (...) Ezin daiteke Zirkulaziorako Erregelamendu Orokorreko 25. artikulua ezartzen duen edukiaz egiten den interpretazioa errefusatu. Artikulu horretako izenburua da *‘Ibilgailua geldiaraztea’*, baina horrek ez du galarazten bere edukian eramatea eta gordetzea ere aintzat hartzea, baita bi ekintza hauen ondoriozko gastuak ordaintzea ere. Hau da, ibilgailua eramatea izan daiteke arauak aipatzen duen *‘prozedura eraginkorretako’* bat, eta gainera, hainbat aldiz aipaturiko 25.artikulua agintzen duenez, trafikoaren ibilgailuaren eta bere zamaren segurtasuna berma ditzakeen bakarra”.

Aurreko argudioak ikusirik, Arartekoak txosten bat bidali zion Donostiako Udalari, honako adierapen hauek eginez, beste batzuen artean:

“...2.- (...) Lehengo eta behin, berriz errepikatu behar dugu ibilgailua geldiaraztea eta ibilgailua eramatea bi kautelazko neurri ezberdin direla, bai dituzten ondorioen aldetik ikusirik, baita berauek betearazi ahal izateko eskatu daitezkeen baldintzen aldetik ere. Ikuspegi orokor bat hartuz, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 70. artikulua ezartzen du ibilgailuen geldiaraztea agindu ezberdinetan hartzen ditu kontuan. Zehatz esanda, ibilgailua geldiaraztea 70.artikulan ezartzen da, baldin eta *‘... bertan ezartzen diren aurreikuspenak ez betetzearen ondorioz, erabileratik zirkulazio, pertsona eta ondasunentzat arrisku larria eratortzen ahal bada’*. Ibilgailua eraman ahal izateko, ordea, beharrezkoa da ibilgailuak, ustez aparkaturik, *‘...arriskua sor dezan, edo beste ibilgailuen zein oinezkoen*

zirkulazioa larriki aldrebes dezan, zerbitzu publikoren baten funtzionamendua oztopa edo eta ondare publikoari kalte dezan, baita arrazoiz pentsa daitekenean abandonaturik utzi dutela ere'. Leku arriskutsuetan gelditzea edo aparkatzea zer den, edo noiz oztopatzen den larriki zirkulazioa, Zirkulaziorako Erregelamendu Orokorreko 91.2 artikulua esaten duenari gagozkio.

- 3.- Hasierako kontzeptu eta erreferentzia-ezberdintasun hori gainditurik, zehaztu beharko litzateke Arartekoaren irizpidearen arabera bederen Udalaren interpretazio okerra zein den, hau da, bi kautelazko neurri hauek arautzen dituzten arauen interrelazio materialari dagokion gutzia.

Bidali zaigun txostenean adierazten zaigu ezen '*...ibilgailua eramateaz diharduen 71.artikuluaren funtsa da geldiarazi eta gero ibilgailua gelditu den egoeraren azterketatik dator, araua hautsi duen gidariak ibilgailua gidatzen segi dezan posibilitatea ere aintzat hartuz*'. Hori baino lehen esaten da ibilgailua geldiaraztea gidariaren jokabidearen ondorioz sortzen den egoera dela.

Hori gutzia ikusirik Udal horrek ateratzen duen ondorioa ez daiteke harrigarriagoa izan. Trafikoa kontrolatzen duten udaltzainak baldi badira ibilgailua geldiaraz dezaketenak, funtzionario horien beraien jardunak -geldiarazpenak- erabakiko du ibilgailua eramateko baldintzak ematen diren edo ez. Hau da, funtzionarioak agintzen duen geldierazteak Trafikoari buruzko Legeko 71. a) artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen baditu, ibilgailua eramatea ere erabakitzen ahalko da. Ezin bat etorri interpretazio horrekin.

Geldiaraztea ez da ibilgailu bat bide publikotik eramana azteko hasierako zioa, zeren, herritarrak gelditzen edo aparkatzen badu bere ibilgailua Trafikoari buruzko Legeko 71. artikulua aurreikusten dituen baldintzetan edo tokietan, erabakitzen ahalko baita, aldezturik inolako geldiarazpenik gabe, ibilgailua eramatea eta gordetzea.

- 4.- Zirkulaziorako Erregelamendu Orokorreko 25. artikulua edukiak autonomoki aplikatzea litekeena da, edozein kasutan, aipatu Trafikoari buruzko Legearen garapen espezifikoak baita. Uste dugu ezen, agindua geldiarazteaz mintzatzen bada, geldiaraztea ez delarik kontzeptu juridiko zehaztugabea, neurri hau dela, eta ez beste edozein, eskumen erregelamenduegile duenak aplikatu nahi izan duena. Jakina, neurri hau eramatearekin eta gordetzearekin bateragarria da, baina azken hau egin ahal izateko, 3. lerroaldeak ezartzen duenez, aginte judizialaren agindua beharrezkoa da. Aztertzen ari garen kasuan ez da halakorik gertatzen, ibilgailua eramateko agindua gobernuko aginteak eman baitzuen. Honi dagokionez, merezi du legearen hitzez hitzezko edukiari begiratzea, esaten duelarik aginte judizialak '*gordetzea edo esku hartzea erabaki duenean*', dirudiela bi neurriak materialki bereizten dituela, ez inola ere biak bat etorraraziz, ibilgailuan esku hartzea litekeena izanik, eramaten ez bada ere.

Garrantzizkoa da azpimarratzea aipatu 25. artikulua aurreikusten duela agintearen udaltzainen jarduna, bai gidariak ustez egin duen haustea hauste penala izaten ahal denean, baita administratibo izaten ahal denean ere.

- 5.- Txostenak balorazio bat egiten du esanez ibilgailua eramane zutela ezin zelako gelditu geldiarazi zen tokian, zirkulaziorako arriskua zelako, gainontzeko erabiltzaileentzat arriskutsua zelako. Honi dagokionez, beharrezkoa da esatea Zirkulazio Kodeko 292. artikulua, Trafikoari buruzko Legearen aurreikuspenak

arau espezifikoa garatzen ez diren bitartean indarrean dagoenak, ezartzen duela udaltzainek ‘...ibilgailuak berehala geldiaraztea agintzen ahal dutela, beti ere bide publikoko tokirik egokienean...’. Arau hautsi zuena geldiarazi zen tokia ez bazen egokia bere ibilgailua geldirik uzteko, geldiarazi zuten udaltzainen egitekoa zen toki egokia bilatzea. Hortaz, aipatzen denak ez du eramatea zilegi egiten”.

Donostiako Udalak, goiko txostenari erantzuteko egin zuen idatzian, bere argudioetan tinkoagotu zen, Udaltzaintzako funtzionarioen jobakidea antolamendu juridikoarekin bat zetorrela berretsiz.

- Emaizta

Gure gomendioei eta gure argudioei jaramonik egin gabe, Donostiako Udalak ez zuen gure gomendia onartu.

⇒ Aldi baterako aparkatzeko erregimenak ukitzen dituen eremuko egoiliarrei aparkamendu mugatua arautzen duten udal ordenantzetako aurreikuspenak ez aplikatzeaz (1393/97)

- Erreklamazioa

Zarauzko hiritar batek azaldu zion Arartekoari aparkamendu mugatua arautzen duten Udal Ordenantzek ukitzen dituen eremuetan bizi diren biztanleek pairatzen dutela, bere ustez, udal honetako beste hainbat eremutan bizi direnekiko bazterkeria, zeren, ordenantzek esaten dutena betez gero, ezin baitezakete beren ibilgailuak beren etxeetako inguruetan ordubetez baizik aparkatu, are udalean bizi ez diren pertsonen egoera berdinean egoteraino.

- Azterketa

Zarauzko Udalak auzi honi buruz zuen jarrera ezagutuz gero, Arartekoak auziaren azterketa egin zuen. Honako hauek dira atera zituen ondorioak.

1.- Arazoa islatu eta gero, udalek gai honetan duten eskumenen norainokoa zehazten saiatu ginen. Martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 7.b) artikulua ezartzen duenaren arabera, martxoaren 24ko 5/1997 Legeak egiten duen idazketan, udalen zeregina da “Hiri bideen erabilera arautzea Zirkulaziorako Udal Ordenantzaren arabera, erabiltzaile guztien artean aparkamenduak zuzen banatu ahal izatea, gurpildun ibilgailuen trafikoen jario beharrezkoa eta kaleak oinezkoek erabili ahal izatea bateragarria eginik, baita aparkamendua mugatzeko neurriak jartzea ere, aparkamenduen txandakatzea bermatu ahal izateko”. Arau horretako bereko 38.4 artikulua ezartzen du beste hau: “Udal Ordenantza batek arautuko du hiri bideen gelditzea eta aparkatzea, trafikoa ez oztopatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen ahalko direlarik, eta horien artean aparkamenduak iraungo duen gehienezko denbora, baita beharrezkoak diren zuzentzeko neurriak ere, ibilgailua eramatea edo geldiaraztea ere barne, baldin eta ibilgailuak denboraz mugaturiko eremuan aparkatzeko baimena ematen duen agiririk ez badu, edo denbora-epiaz kanpo badago, gidaria nor den jakiten ahal den arte”.

Goian esandako eskumena erabiliz, Zarauzko Udalak aparkatzeko eremu mugatuak arautu zituen, erregimen bat ezarriz; Ordenantzako 4. artikuluan aurreikusten diren egoeretan daudenak baizik ez zeuden salbuesirik. Salbuespen horiek ez zituzten beren baitan hartzen aparkatzeko eremu mugatua ezarri zen aldeetan bizi zirenak, zeinak gelditzen baitziren Zarauzko beste edozein eremutan bizi zirenen egoera juridiko berean, eta are, herri honetako biztanle ez zirenen egoera berean.

2. Aparkamendua mugatzeko neurriek, goian aipatzen den arauk diotenez, *“erabiltzaile guztien artean aparkamenduak zuzen banatu ahal izatea, gurpildun ibilgailuen trafikoa jario beharrezkoa eta kaleak oinezkoek erabili ahal izatea bateragarria egin”* behar dituzte. Orduan geure buruari egiten genion galdera zen printzipio hau aplikatzeak erabiltzaile guztiak egoera berean utzi behar ote dituen, edo, gauza bera dena, neurri mugatzaileak denei modu berean aplikatu behar zaizkien, bakoitza non bizi den eta gisa horretakoak batere kontuan hartu gabe. Erakunde honetatik erantzun litekeenaren kalterik gabe, egia da Zarauzko Udalak uste zuela, zuzenki gure ustez, balizko erabiltzaile guztiak ezin zitzaizkeela berdin tratatu. Udalak hainbat inguruabar baloratu zuen diskriminazio positibozko elementu gisa, zenbait taldek, Ordenantzako 4. artikuluan aipatzen direnek, zehatz esanda, ez zezaten bete behar ordenantzak gainontzeko ibilgailu erabiltzaileei ezartzen zizkien betebeharrak.

Azterketaren une honetan ezbaian jarri behar genuen ukitutako eremuetan bizi zirenak Ordenantzak ezartzen duen muga-erregimenaren aplikaziotik ez salbuestea egoki ote zen ordenantza onartu zenean lortu nahi zen helburuaren ikuspegitik ikusirik, kontuan harturik hauen egoera berezia bizi ziren tokian bizi zirelako. Euskal Herriko udal gehienek, beren aparkatzeko eremu mugatuak arautzeko garaian, segitu duten irizpidea izan da *“egoiliar”* deitu direnen egoera berezia aitortzea. Aitorpen honek ekarri du egoiliarrek baimena edukitzea beren ibilgailuak aparkatzeko, ordutegi mugarik gabe beren etxeetatik hurbileko aldeetan, zenbait kasutan eskubide hau izateko hainbat baldintza bete behar zelarik (prezio publiko bat ordaintzea, egoliar bakoitzeko baimen kopuruaren mugatzea, garajerik ez izatea edo ez egotea...).

3.- 1996ko abenduaren 26ko Auzitegi Gorenaren epaiak esaten duenez, *“hiriko trafikoa antolatzeak, gure gaurko egunetan, aurpegi publiko berri eta nabarmena hartzen du. Esan daiteke, gehiegikeriarik esan gabe, zuzen arautzeak eragiten duela ez bakarrik ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazio askean, baizik eta beste hainbat eskubide benetan bete ahal izateko garaian: lanpostura sartu ahal izatea, osasun, hezkuntza edo kultur zerbitzuak gozatu ahal izateko (...) Hiriko bizi-kalitateak zerikusi handia du gai honetan eskumena duten Administrazio Publikoen eskura dauden teknika juridiko guztiak -arautzaileak, zerbitzu publikoak antolatzeakoak, jabari publikoaren gaineko kudeatzekoak, eta abar- egoki aplikatu eta betearaztearekin”*.

Printzipio-aldarrikapen hau aintzat harturik, ezin daiteke ahaztu gaurko eguneroko bizitza nahasian, norbera bizi den tokitik gertu ibilgailua edukitzea hiritarren gizarte-giroa osatzen duten jarduera guztiak erraz garatzeko elementu funtsezko bihur daitekeela. Beste alde batetik, ez dugu ahaztu behar, ezta ere, beharrezkoa dela erakunde publikoek behar beste aldiz gogoraraztea zein garrantzizkoa eta egokia den garraio publikoa erabiltzea, hiri gunetako bizitza-maila hobetzeko, are eta gehiago kontuan hartzen badugu zenbat eta zenbat hiritarrek ibili behar duten herri edo auzo batetik bestera, dela lanera joateko, dela zenbait prestazio erdietsi ahal izateko. Honek eskatzen du, halaber, ibilgailuen erabiltzaileek beren ibilgailuak aparkatzeko tokiak edukitzea, ondoren aukerako garraio-moduak erabiltzen ahal dezaten.

Aurreko argudioek eraman gintuzten ondorio hau ateratzera: Udalak, aldaketa egokia sartuz edo tramite egokiek irauten zuten bitartean, Ordenantzako bertako aurreikuspenak aplikatuz, aparkamendu mugatua ezarri den eremuetan bizi direnen egoera kontuan hartu behar zuela, Ordenantzako edukiak orokorki aplikatu aintzin salbuespenak zeintzuk izango ziren zehazteko.

4. Ez genuen gure azterketa bukatu nahi Udalak erabili zituen argudioak baloratu gabe. Argudiook jendaurreko informazio publikoko epean erabili zituen, hainbat hiritarrek egin zituen alegazioei jaramon ez egiteko. Hiritarrek egin zituzten alegazioak eta erakunde honen aurrera iritsi den kexa honetakoak antzeratsuak dira.

Udalak ez zituen alegazioak aintzat hartu uste zuelako interes orokorrek interes partikularren gainetik egon behar dutela. Dirudenez, irizpide honen oinarrian bazegokeen zinegotziren batek zeukan ustea, zeinak iritziko bailioke eremu mugatuaren barruan bizi zirenei beren autoa aparkatzeko laukiak seinaltatzu gero ez litzatekeela erdietsiko erdietsi nahi zen helburua. Honi buruz, ondoren datorren guztia esan nahi dugu.

Zinegotziak esaten duena egia ote den edo ez jakiteko, lehengoz eta behin beharrezkoa litzateke eremu mugatuaren barruan bizi direnek zenbat auto dituzten jakitea, eta ondoren jakin beharko litzateke eremu mugatuan zenbat aparkamendu plaza dauden, gero bi datu hauek alderatu ahal izateko. Alderaketa honen emaitza edozein izanik ere, azpimarratu behar da egoiliarrari txartela emateak, beste hainbat udaletako ordenantzetan arautzen den bezala, ez duela esan nahi egoiliar horrek aparkatzeko toki publikoa erreserbatu duenik berarentzat bakarrik. Egoiliarrek gainontzeko erabiltzaileekin konparatuz eduki ohi duten abantaila bakarra izaten da aparkatzeko ordu-mugak ez dituela ukitzen. Beraz, normalean ordu-mugarik gabe aparkatzeko baimena emango lukeen balizko egoiliar-txartelaren onuraduna saiatzan denean autoa aparkatzen gisa honetako eremu mugatu batean, ez duenean lortzen aparkatzea, tokirik ez dagoelako edo, bistan da horregatik egoliarrak ez duela eskubiderik beste ibilgailu bat kendu eta berea aparkatzeko, beste ibilgailu horrek behar dituen baldintzak betez gero.

Aparkatzeko tokiak erregulatzea hau bezalako neurri murriztaileen bidez erabiltzaileentzako deserosotasun iturri dela jakinik, esan behar da gaur egungo bizimoduaren martxak hartaratu gaituela. Hortaz, gaia arautzen duten legeek hori hartzen dute kontuan, eta jardun murriztaile horiek antolamendu juridikoarekin konforme daude. Halaber, ulertu behar da jardun horiei zenbait salbuespen ezartzeak ez duela inongo eskubiderik urratzen, eta salbuespen horien artean egoiliarren egoera berezia aintzat hartzen duenena egon daiteke.

- Emaita

Zarauzko Udalari gomendio hau egin zitzaion: beharrezkoak ziren jardunbideko tramiteak egin ondoren, udal horretako eremu mugatuetako aparkamendua arautzen duen udal Ordenantzak neurri murriztaileak indarra hartzen duen tokian bizi diren “egoliarren” egoera aintza hartuko zuen aurreikuspenen bat eduki beharko zuela, haiek positiboki diskriminatzeke, onarturiko erregimen orokorra aplikatuzetik salbuetsiz, beti ere zuzenbidekoak diren baldintzak betez. Hau ikusirik, Udal horrek honako hau esaten zuen erabakia hartu zuen, “*froga moduan, TAOk ukitutako eremuetan bizi diren egoiliarrei autoa aparkatzeko laukiak esleituko zaizkie, neurri honen eraginkortasuna ikusteko. Horretarako herriko prentsan emango da honen berri, TAOk ukitzen dituen eremuetan erroldaturik daudenean beren laukiak edukitzen ahal dezaten.*

Batzordea proposamen HONEN ALDE ageri da.”

⇒ *Trafikoari buruzko Legeko 72.3 artikulua ezartzen duen gidaria identifikatzeko derrigorrezkotasuna hausteagatik ibilgailuaren jabea zigortzeaz, identifikatuak arau haustean erantzukizuna duela ukatzen duenean (2014/98)*

- Erreklamazioa

Arartekoari aurkeztu zitzaion Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Seguritasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 72.3 artikulua ezartzen duena hausteagatik ezarritako zigor bat. Artikulu horrek ezartzen duena da ibilgailuen jabeak derrigorzuta daudela gidaria identifikatzera trafikoa arautzen duten arauak hausten direnean. Zigorturiko pertsonak errekurso administratiboa jarri zuen, eta kexa-espeditentari hasiera eman zitzaionean errekurtoa erabakitzeke zegoen.

- Azterketa

Gure informazio-eskaerari egiten zitzaion erantzunean esaten zen administrazioaren jarduna zuzena izan zela, alegatuz, funtsean, aparkamendu debekatua frogaturik zegoela -ibilgailuaren jabeak, ibilgailuan paratu zioten salaketa-agiria ikusirik, idatzi bat aurkeztu zuen esanez beste pertsona bat zela autoko gidaria- eta identifikaturikoaren jokabidea ezin zitekeela txartzat har, berak ez baitzuen bere burua hobendun aldarrikatzeko inolako beharrik, eta Administrazioaren lan ikertzailea ezin zela arrazoizkoa zena baino urrutirago joan, ibilgailuaren jabeari Trafikoari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 72.3 artikulua ezartzen duen erantzukizuna-aldatzeko mekanismoa egoki aplikatu zitzaiolarik, jabea zen aldetik arta falta erakutsi zuelako. Txostena zein kexan sartzen ziren alegazioak ikusirik, kexa-espeditentari eman zitzaion hasiera, eta honako kontsiderazio hauek egin zitzaizkion Herrizaingo Sailari:

“Trafiko eta Parke Mugikorreko Zuzendariak bidali zigun txostenaren edukiak (...) egunean Herrizaingo Sailari bidali genion idatzian ateratzen genituen behin-behineko ondorioak areagotzea baizik ez du egiten. Izan ere, erakunde honek ez du uste (...) andreak Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Seguritasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 72.3 artikulua ezartzen duena urratu duenik. Interesatuak egin zuen deklarazioak, *‘Bilboko (...) PKko (...) kalean bizi den eta (...) NAN duen (...) jauna identifikatu behar dut, bera baitzen egun hartan eta ordu hartan salatu zen ibilgailua gidatzen zuena’* esanez, betetzen du, Aratekoaren irizpidearen arabera, antolamendu juridikoak, ibilgailuaren jabea den aldetik, eskatzen dion erantzukizuna. Edozein kasutan, eta (...) eguneko idatzian egiten genituen balorazioak errepikatuz, (...) andreak adierazi duena ez da inola ere bateraezina (...) jaunak (...) egunean Bizkaiko Trafikoko Lurralde Zerbitzuari bidalitako alegazio-idatzian esaten duenarekin, *‘(arau haustea gertatu zen egunean, Madrilen nintzen, nire ogibidearekin zerikusirik duen negozio-bidaian (...) Eta hau frogatzeko (...) jauna lekukotzat aurkezten dut, berak baieztatu ahalko baitu egun hartan eta ordu hartan Madrilen nengoela negozio-bidaian, nire arrebarena den ibilgailuarekin’* kontatzen duenean. (...) jaunak aitortzen du balizko arau haustea gertatu omen zen egunean ibilgailua zuela, (...) andreak esaten duen bezala.

Bi datu hauek batera etortzeak etenarazi behar izan zuen, aipatu Trafikoari buruzko Legeko 72.3 artikulua ezartzen duen kolaboratzeko beharra ez betetzeagatik, ezin jardun zigortzaile ibilgailuaren jabearen aurka. Besterik da, lehen ere esan zen bezala, zer balorazio merezi duen (...) jaunak errugabetasun-ustea urratua izan ez dadin Legeak eskaintzen dituen mekanismo guztiak erabiltzea. Gure ustez zilegi da

inputatuak bere defentsarako eskubidearen alde egin ditzakeen jardun guztiak, eta ez dugu kuestionatzen edonola ere espedientearen emaitza -azken honi ireki zitzaiona hasierako haustean eduki zituen erantzukizunak garbitzeko-, bere tramitea segitu behar izan zuena salatu zuen udaltzainaren salaketako edukia neurtzearen bidez, eta interesatuak proposatu zituen frogak egitearen bidez, froga horiek egiten ahal ziren eta egin behar izan zirelarik, gainera. Administrazioak eduki duen jardun-falta zuzitzeko ez da nahikoa esatea interesatuak, alegazio-idatzian, frogak egiteko proposamena bai baina frogak ez zituela burutu. Alde horretatik, komeni da gogoraraztea trafiko mailako Erregimen Zigortzaileko Erregelamenduko 13.1 artikulua esaten duela *'prozedura osatzen duenak ezin izango ditu interesatuek proposatzen dituzten frogak uxatu baizik eta froga hauek bidegabetzat jotzen dituenean, eta orduan ere horretarako dituen zioak azalduz'*

Aurreko tesien lagungarri, Cantabriako Justizia Auzitegi Nagusiko Kontentzioso Administratiboko Aretoak eman zuen 1997ko irailaren 16ko epaia (RJCA 1997/1742) aipatu zen, zeinak esaten baitu:

“...Karguen orria egin zuenetik errekurso egileak adierazi zuen salaketan aipatzen diren egun eta orduan bertan identifikatzen den ibilgailua, uneoro bere jabetzapeko bezala aitortzen duena, ez zegoela Trafikoko Burutza Probintzialak esaten duen tokian, adierazirik ere egun hartan nondik barna zirkulatzen zuen, Leoneko probintziatik barna, hai zuzen. (O.I 2.).

Horrek ekarri zuen Administrazioak errekurso egileari Bide Segurtasunari buruzko legeko 72.3 artikulua aurreikusten duen errekemrimendua egitea, inputazioaren izena aldatuz eta espedienteari jarraipena emanaz, ez salaketako hasierako haustearengatik, espedienteari berari hasiera eman zionarengatik, baizik eta ibilgailuaren gidaria ez identifikatzeagatik, behin jabeari halakorik eskatu eta gero.

Inputazio hau bidegabetzat jo behar da, jarrera tipikoa ez delako burutzen, salatuak aitortu baitu uneoro bera zela ibilgailuaren gidaria salaketak esan egun eta orduan, eta hortaz Administrazioak badaki gidaria nor zen, nortasun hau ez baita inoiz ukatu, ez ezkutatu ere, eta ezbaian jartzen dena baita ibilgailua ba ote zebilen salaketan aipatzen den puntu kilometrikoan.

Horrek esan nahi du Administrazioak, agentearen berrespesa ikusirik, berak egin salaketa egiazkoa delako ustea aintzat harturik, eta errekurso egileak eman duen lekuko bidezko frogak berau bestelakotzen ez duelarik, gertaerak frogatutzat eman izan balitu, zigortu behar zukeela Bide Segurtasunari buruzko Legeko 100.2 artikulua zela medio, eta ez 72.3 artikulua dela medio, azken artikulua honek tipifikatzen duen haustea ez delako gertatu, goian emandako arrazoiak ikusirik ikusten denez, eta hortaz, aintzat hartzen da ezarri den errekursoa (O.J. 3.)

• Emaita

Herrizaingo Sailari gomendatu zitzaion Herrizaingo Saileko Trafiko eta Parke Mugikorreko Zuzendari jaunak, txandaren arabera egokia zen unean, erreklamatazileak goian aipatzen den espedientearen Bizkaiko Trafikoko Lurralde Arduradunak eman zuen erabaki zigortzailearen aurka ezarri zuen errekursoa aintzat har zezan.

B) Ordena Publikoa

⇒ Ertzaintzako komisaldegiko bateko polizia zerbitzuen aurrean agertzeko agindua telefono deia bidez, hainbat diligenza burutu beharrez (1134/96)

- Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoari gai hau ekarri zion, hots, Ertzaintzako Komisaldegi batetik bere etxera deitu zutela, bere senide bat poliziaren dependentzietara ager zedin eskatuz. Zergatik agertu behar zuen galdetu bazuen ere, deia egin zuen funtzionarioak agertu behar zuela besterik ez zion adierazi. Bertaratu zelarik, eta NANeko datuak hartu eta gero, funtzionario batek ibilgailu baten lapurretari buruzko zenbait galdera egin zizkion, zeren, zirudienez, lapurreta salatu zuen pertsonak komisaldegira agertu zen pertsonaren antzeko deskribapena egin baitzuen. Lapurreta horri buruzko galderak egin ez ezik, funtzionarioak agertu zen pertsona beste hainbat delitu-jardunekin lotu zuen. Aipatu pertsona horrek ez zuen inoiz ere abokatuaren laguntza eduki, eta egin zitzaizkion galderen zein eman zituen erantzunen egiaztapen formalik ez zegoen.

- Azterketa

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari jakinarazi zitzaion auziaren berri, informazioa eman zezan. Eman zitzaigun erantzunean esaten da inoiz ez zela galdeketa formalik izan, zeren *“galdeketa esaten denak interesatuen ikuspegitik baizik ez du funtsik, kontua baitzen polizia-diligentzietan sartuta zegoela jakinaraztea, eta hori horrela ez zen bidezkoa eskubideen irakurketa, are gutxiago inolako aktarik idaztea (aitorpenik ere ez zen izan eta), kudeaketa hau pertsonen arteko elkarriketa moduan burutu baitzen, eta ez telefono deiaren bidez, gertaeraren seriotasunak eta izaerak hala eskatzen zutelako”*. Txostenean adierazten zen, halaber, *“kudeaketa hauek Epaiketa Kriminaleko Legean biltzen den Defentsa Printzipioaren barruan kokatu behar direla, bertan aitortzen baita edozein pertsonak eskubidea duela bere aurka egiten diren salaketa guztien berri edukitzeko, eta kasu honetan salaketa moduan ulertu behar baitzen Aginte Juridikoari jakinaraztea pertsona hau ustez deliktiboak izan zitezkeen gertaeretan sarturik zegoelakoa”*. Ondorengo txosten batean esaten zen poliziako funtzionarioen jokabidea *“...Epaiketa Kriminaleko Legeko 282. artikulua ezartzen duenaren arabera izan zela, eta bertan agintzen zaiela Polizia Judizialeko kideei, izaera orokorrez, delituak baieztatzeko eta euren erantzuleak atzemateko beharrezkoak diren diligentziak aurrera eramatea, horretarako efektu, tresna eta frogak guztiak bildu behar dituztelarik, bidezkoa ez delarik, ordea, intentzioa (sic), gertaerak ez direlako sartzen aipatu Legeko 412. (sic) artikulua ezartzen dituen artean”*. Halaber, hau ere esaten zen, *“ertzainaren gertaeren kontaketa arabera, telefono deia eta (...) jaunaren deskribapena lekukoek eman zutenarekin bat etortzen ote zen baieztatzeko asmoarekin’ bat datozela, eta hau honela, Segurtasuneko Sailburuordeak uste du honela jokatea bat datorrela Epaiketa Kriminaleko Legeko (EKL) 282. artikulua ezartzen dituen aurreikuspenekin, erantzulea nor den beharrezkoa den diligentzia moduan, ondorio horretarako ezin delarik murriztu diligentziak aurrera eramateko modua EKLko 493. artikulua ezartzen duenera”*.

Laburpen gisa, buka dezakegu administrazioak justifikatzen duela interesatuari dei egitea defentsa printzipioaren bidez, printzipio horretan aitortzen delako edozein pertsonak eskubidea duela bere aurka egiten diren salaketa guztien berri edukitzeko, baita Epaiketa Kriminaleko Legeko 282. artikulua bidez ere, diligentzia honen bidez nahi zena ikertzen ari zen gertaera deliktiboak ukitutakoa nor zen baieztatzea baizik ez zelako.

Hona Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari honi guztiari buruz bidali zion balorazioa:

Defentsako eskubidearen erabilpena hasten da zilegi ez den gertaera penal bat egin delako akusazioa egiten den unean. Hau jakinarazten da herritar baten atxiloketa gertatzen denean, Epaiketa Kriminaleko Legeko 520. artikulua ezartzen dituen aurreikuspenen barruan. Era berean, aipatu lege prozesal eta penaleko 118. artikulua ezartzen duenez, ustezko hobendunari bere aurkako salaketa edo kereila bat dagoen jakinarazpena egingo da salaketa edo kereila onartu diren unetik aurrera.

Gure kasu honetan, organo jurisdikzional eskudunak ez zuen salaketa onartu -diligentziak ez ziren bidali Txandako Epaitegira, eta bertako titularrak ez zuen auziari buruzko iritzirik eman-, eta interesatuaren atxiloketa ez zen gertatu. Horregatik uste genuen, hau honela, interesatuari egin zitzaion zitzazioa egiteko justifikaziorik ez zegoela.

Beste alde batetik, atera genuen ondorioa izan zen ezen, egindako diligentzietan interesatuak ustez parte hartzen ahal izan zuela delitu penalaren batean susmatzeko arrazoirik bazegoen ere, polizia zerbitzuek ulertu zutela Epaiketa Kriminaleko Legeko 493. artikulua ezartzen dituen baldintzak ez zirela betetzen interesatua atxilotzeko. Horren ondorioz, arau horretako 493. artikulua ezartzen duena ikusirik, polizia zerbitzuek, interesatuari dagokionez, honako hau baino ezin zezaketen egin: nor zen eta zer helbide zuen idatzi eta informazio hori Txandako Epaitegiari jakinaraztea.

Epaiketa Kriminaleko Legeko 282. artikulua, baita jardunbidezko arau honetako 786. artikulua ezartzen duenak ere, zehazten dute Polizia Judizialeko funtzionarioek derrigorrez zer jardun-mota egin behar duten delituak atzeman eta baieztatzeko, eta delitugileak nortzuk izan diren jakiteko. Interesatuak Ertzaintzako komisaldegira joateko deia jaso zuenerako delitua izan zela baieztatuta zegoen, baina interesatuak delitu hartan parte hartu ote zuen poliziako funtzionarioen ustea baizik ez zen, zenbait ikerketetan oinarrituriko ustea, eta hortaz, ez zen bidezkoa interesatua atxilotzea.

Balizko delitugilearen nortasuna baieztatzeko xedeak interesatuari telefonoz zita jartzea justifikatzen zuen bezainbatean, honako hau adierazi nahi dugu: bidali zitzaigun poliziako kide baten txostenean honako hau esaten zen, *“egunean zehar jaso diren datuen artean (...), lekukoen aitortzen eta polizien agerraldien bidez, hauek esaten zuten litekeena zela ekintza haien egilea (...) jauna izatea; egindako hainbat ikerketaren arabera, (...) herrian egin ziren delituetan jaun honek berak parte hartu ote zuen litekeena zen”*. Gauzak honela zeudelarik, Arartekoaren irizpidearen arabera, aurrera eraman zen jardunak bestelakoa behar zuen izan.

Ez zirudien lojkoa legehauste penalaren egilearen deskribapen fisikoak (lekukoek eta poliziako funtzionarioek egin zutena) balio bazuen nor ote zitekeen ondorioztatzeko, interesatua non bizi zen jakiteraino, horrela identifikaturiko pertsona komisaldegira agertu behar izateak, deskribapenaren eta bere egiazko azpegiaren arteko antzekotasuna berresteko, are eta gutxiago kontuan hartzen badugu, polizia zerbitzuek berek baieztatzen duten bezala, pertsona horri buruzko *“erreferentziak bazituztela egindako ikerketengatik”*.

Aztertzen ari zen gaia gainditzen zuen ikuspegi orokorrako batetik, egoki ikusi zen Herrizaingo Sailari ohartaraztea balizko jardun deliktiboen egileak nortzuk diren jakiteko orduan zalantza arazoizkoak egonez gero, zalantza hauek antolamendu juridikoak ezartzen dituen mekanismoen arabera ebatzi behar direla. Auzitegi Gorenak 1991ko ekainaren 24ko epaian esaten zuen bezala, delitugilea nor den atzematea ere bada ikerketa kriminalaren funtsezko helburua. Hala ere, Epaiketa Kriminaleko Legeko 369. artikulua dagokion diligentzia beharrezkoa dela ezartzen du. Haatik, diligentzia honek fidagarritasun guztia edukitzeko, ezinbestekoa da lege prozesalak ezartzen dituen betebeharreko baldintza guztiekin bete dadin. Ustezko delitugilea ezagutzeko diligentziari

aipatu fidagarritasun osoa eman ahal izateko berme hauek betetzea, edo ez betetzea, hil ala bizikoa da, eta berme horiek guztiak betetzen direnean baizik ez da errugabetasun-presuntzioa urratzeraino baliagarria (1987ko urriaren 2ko Auzitegi Gorenaren Epaia).

- Emaizta

Goian esandako guztiarengatik atera genuen ondorioa izan zen egin zen zitazioa justifikaziorik gabea izan zela, interesatuaren agerraldia bere borondatez egin bazen ere. Horregatik ohartarazi zitzaion Herrizaingo Sailari etorkizunean ez zirela horrelako deialdiak egin behar, baldin eta deialdi hauek auzi hau aurrera eraman zuten funtzionarioek beren jokabidearen zuzentasuna justifikatzeko eman zituzten arrazoietan oinarritzen badira.

⇒ *Desobedientzia falta arinagatik atxiloteta, polizien aurrean nor zen ez esateagatik (261/97)*

- Erreklamazioa

Ordena publikoaren aurkako falta bat egin zutelako akusazioaz Ertzaintzak atxilotu zituen bi gazte erakunde honetara etorri ziren.

Gazteek adiarazi zuten, erreklamatzailerik, beste hainbat gazterekin batera, insumisioaren aldeko manifestazio batean hartu zuten parte. Halako batean, Ertzaintzako patruila bat manifestariei zuzendu zitzaion, manifestazioa ilegala zela esanez -manifestazioa egingo zenik ez baitzen alde aurretik gaztigatu-, eta manifestazio horren erantzuleak nortzuk ziren galdetu zuen. Gazteek erantzun zuten denak zirela erantzuleak; hau ikusirik, ertzainek bost minutuko epea eman zuten bi nortasun agiri nazional eman ziezaizkieten. Denbora hori pasaturik manifestariak, poliziako funtzionarioekin nork bere burua identifikatzea beharrezkoa ote zen eztabaidatu eta gero, bukatutzat eman zuten manifestazioa. Une hartan ertzainek, lau pertsona atzematearekin batera, bildu zirenen kontra eraso egin zuten, borra erabiliz eta gomazko pilotak jaurtiz. Atzeman zituzteneko bik bere bideari jarraitu ahal izan zioten nor ziren baieztatu eta gero, baina bi erreklamatzailerik, inolako agiririk ez zeramaten, atxilotu egin zituzten. Eskuburdinak jarri zizkieten eta komisaldegira eraman zituzten poliziaren ibilgailuaren barruan. Ibilgailuan poliziek atxilotuen eskubideak irakurri zizkieten. Poliziaren egoitzara iritsirik beren eskubideak irakurri zizkieten berriz, eta nor ziren esan zezaten eskatu. Komisaldegiko atxilotetak hiru ordu iraun zuen. Denbora horretan kalabozoetan egon ziren, hainbat diligentzia egiteko -eskubideen berri ematea, argazkia egitea, hatz-markak hartzea, eta abar- beharrezkoa zen denbora alde batera utzirik..

- Azterketa

Arartekoak uste izan zuen iritsi zitzaion kexak bazituela argitu beharreko alderdi batzuk, eta horregatik eskatu zion Herrizaingo Sailari auzian jartzen zen poliziaren jardunari buruzko informazioa, batez ere erreklamatzailerik komisaldegira zergatik eraman zituzten jakin nahirik.

Gure eskaerari erantzunez, aipatu sailak txosten bat bidali zigun. Bertan poliziaren bertsioa ematen zen. Bi bertsioak, hau da, erreklamatzailerena eta poliziarena, funtsean bat zetozen, baina urrundu egiten ziren hainbat xehetasun nabarmenetan. Hala, Ertzaintzak azaltzen zuen arduradunen batek bere NAN eman zezan modu orokorrean eskatu eta gero, eta “*manifestariak nor ziren esateko inolako asmorik ez zutela ikusirik, esan zitzaion atxilotuko zituztela, eta manifestariak berriz uko egiten zutela*

ikusirik, pankarta zeraman pertsonetako bat atxilotu zen, eta une hartan pankarta zeramanetako beste batek adierazi zuen berak ere uko egiten ziola identifikatzeari eta nahi zuela atxilo zezaten". Edonola ere, deigarriena zen erakunde honi helarazi zitzaion txostenean nola atestatuaren kopian esaten zela atxiloketa gertatu zela "ordena publikoaren aurka eginiko faltarengatik".

Herrizaingo Sailak eman zituen informazioak arretaz ikusi eta gero, Arartekoak erabaki zuen beste zenbait argibide eta azalpen gehiago eskatzea, bai kexaren gaia zen kasu zehatzari buruz, baita Ertzaintzak identifikazioak egiten dituenean erabiltzen dituen ohiko jardunei buruz ere.

Jakin nahi zena zen erreklamatzailleekin izandako gorabehera hartan adierazi ote zitzaizkien identifikazioa beharrezkoa zela uste izateko arrazoiak, batetik, eta uko eginez gero uko horrek eduki zitzakeen ondorioak, bestetik. Galdetzen zen, baita ere, Sailaren arabera jendea identifikatzeko modurik onena zein den. Hau da, beste era batez esanda, galdetzen zena zen Ertzaintzak nola ulertzen zuen 1/1992 Legeko 20.2 artikulua, artikulua honen aplikazioak Segurtasun Sailordetzak emaniko 8/1994 Jarraibideak ezartzen duenarekin bat etorri behar duela kontuan harturik.

Atxiloketari berari dagokionez, jakinarazi zitzaigun poliziaren atestatuak falta-epaiketa baten tramitazioa sorrarazi zuela, eta hori horrela, Arartekoak ezin zuen aztertu, inola ere ez, delitu penalik ba ote zegoen edo ez. Alabaina, Ertzaintzak interesatuak atxilotzean egoki jokatu zuen edo ez aztertzea bidezkoa jo zen, kontu hau ez baitzen egoitza jurisdikzionalera eraman, eta beraz, ez zegoen epaiaren zain. Izan ere, askatasuna kentzen zuen neurri honen arrazoi falta bat egin izana zela esaten zuen baieztapenaren aurrean, bazegoen, Arartekoaren iritziaren arabera, EKLko 495. artikulua ezartzen duen falta bat egiteagatik atxilotzeko debekua, "*ustezko errudunak helbide ezagunik eduki ez edo fidantza nahikoa ez ematea*" gertatu ezik. Gure ikuspegitik ez zegoen halako salbuespenik, zeren, interesatuek NANik ez zeramatela egia bada ere, poliziak egiaztatzen ahal izan baitzuen zein zen bere helbidea eta nortzuk ziren komisaldegira iritsi zenean. Horregatik guztiarengatik, Ertzaintzak honelako kasuetan hartzen den ohiko jokabidea zein den jakin nahi izan genuen, baita, halaber, zer neurri hartzen zuen Sailak interesatuen atxiloketa ez zela bidezkoa onartzen bazen, atxiloketaren ondorioz poliziaren artxibategietan egiten ahalko ziren oharra ezabatzeko ere.

Honi dagokionez, Herrizaingo Sailak txosten labur bat igorri zion Arartekoari, eta bertan honako hauek argudiatzen ziren, batez ere: a) ertzainek egin zuten gertaeren kontakizunari jarraiki, eginiko atxiloketak bidezkotzat jotzen zirela; b) gertaerak aztertzen ari zen jurisdikzio penalak ezarriko zuen deliturik zegoen edo ez; c) beste gainerako kasuetan Ertzaintzaren jokabidea lege aplikagarriek ezartzen dutenarekin bat etorriko zela eta d) poliziaren fitxak ezabatzeari dagokionez, behin betiko ebazpen judizialak zer esaten zuen ikusi beharko zela.

Erantzun hau ikusirik, Arartekoak honako kontsiderazio hauek helarazi zizkion Herrizaingo Sailari:

a) Identifikatzeko diligentsiak egiteko ohiko moduari dagokionez, ez zirela lortu eskatutako argibideak. Alabaina, jasotako idatziak garbi uzten zuenez Sailaren borondatea zela honelako jardunetan legeak, irizpide jurisprudenzialak eta barneko arauak errespetatzea, uste izan genuen alferrik zela gai honi buruz era orokorrean jarduten segitzea, honi buruzko beste kexarik aurkeztuz gero gaiari lotzen ahal izatearen kalterik gabe.

b) Falta egiteagatik atxiloketari dagokionez, ustez eginiko falta zela-eta interesatuek eduki zezaketen erantzukizun penalari buruzko ebazpen judizialak zer irizten zion alde

batera utzirik -errepikatu behar da berriro ere atxiloketa bera ez zela justizia auzitegien irizpidera ekarri-, Arartekoak uste zuen Ertzaintzak ez zuela demostratu EKLko 495. artikulua ezartzen zituen salbuespenak gertatzen zirela kau honetan, eta, ondorioz, interesatuak atxilotzea bidezkoa zelakoa justifikatu gabe gelditzen zela.

c) Oinarri hauetatik abiatuz, askatasuna kendu baino lehenagoko egoerara itzultzea ezinezkoa zen arren, uste izan genuen saihestu behar zirela atxiloketaren ondorioz poliziaren artxibategietan oharrik izatetik erator litezkeen gorabeherak.

- Emaizta

Hau guztia ikusirik, Arartekoak gomendio bat egin zuen; gomendio hartan, EKLko 495. artikulua ezartzen duenaren babesean, baieztatzen zen erreklamatzaileren atxiloketa bidegabetzat jo behar zela, eta, beraz, Herrizaingo Sailak aipatu atxiloketen ondorioz Ertzaintzako artxibategi eta erregistroetan izan zitezkeen ohar guztiak ezabatzeko neurri egokiak hartu behar zituela.

Herrizaingo Sailak ez du onetsi Arartekoaren gomendioa. Gure ustez zuzena ez den EKLko 495. artikulua interpretazio batetik abiatuz, uste du falta bat egitearen susmagarria denak helbide ezaguna duen edo ez baloratzea jardun duten poliziako funtzionarioen esku dagoela, eta horren ondorioz, pertsona batek nor den esateari uko egiten dion kasuetan, atxiloketa bidezkoa izango da, baldin eta poliziak deduzitzen badu interesatuak ez duela helbide ezagunik.

Erakunde honen iritzia arabera, adierazi den interpretazio hau poliziaren diskrezionalitatearen eremuaren zabalpen onartezina da, gizabanakoen askatasunaren aurka doana. Ez da bakarrik falta egiteagatik atxilotzea zilegi diren kasuen irakurketa zabala, legearen hitzez hitzeko idazketan oinarritzen ez dena, bestalde, baizik eta, neurri handi batean, EKLko 493. artikulua ezartzen duena urratzen dela. Artikulu honek ezartzen du atxiloketa bidezkoa ez denean poliziak "izena, deiturak eta gainerako inguruabar nabarmenen oharra" hartuko duela, besterik gabe.

C) Beste zenbait

⇒ *Lehen aldiz betetzeko udal baimenik ez zuten etxebizitzetan bizi ziren herritarrak Aretxabaletako udal erroldan izena emateaz (1146/97)*

- Erreklamazioa

Herritar batek aurkeztu zion Arartekoari honako auzi hau: Aretxabaletako Udalak ukatu ziela herri hartako erroldan izena ematea lehen aldiz betetzeko udal baimenik ez zuten etxebizitzetan bizi ziren herritar batzuei.

- Azterketa

Arartekoak, zeukan informazioa ikusirik, gomendio bat bidali zion Aretxabaletako Udalari. Gomendioak honako oinarri hauek zituen:

1. Mahai gainean zegoen auzia Udalak hirigintza alorrean dituen eskumenak betetzearen ondorio zela onartuz, Arartekoari aurkeztu zioten gaia zen udalbatzak uko egin ziela udal erroldan izena ematea herritar batzuei, herritar hauek horrelakorik eskatu zutenean.

Gaia aztertzeke orduan, kontuan hartu behar izan zen Udalak ez zuela ezbaian jartzen edo epaitzen neurri honek ukitzen zituen herritarrak udal honetan bizi ohi diren edo ez. Hau honela zela ikusten ahal izan zen bidali zitzaigun txostenean, zeren esaten

baitzuen ezen “*Kooperatibistek lehen aldiz betetzeko udal baimenik ez duten etxebizitzak bete dituztela*”.

2. Biztanleria eta Lurralde Mugapenari buruzko Erregelamenduko 54. artikulua, abenduaren 20ko 2.612/96 Errege Dekretuak ezartzen duen idazketan, honako hau ezartzen du: “*1.- Espainian bizi den pertsona orok bizi ohi den udaleko erroldan izena eman behar du derrigorrez*”. Halaber, aipatu arauak ezartzen du beste hau, baita ere, “*3. Udalean bizi badira ere bertan helbiderik ez duten pertsonen erroldatzea egiten ahalko da, bakarrik, pertsona horiek bizi diren eremu geografikoan eskudunak diren gizarte zerbitzuei xehetasun hau jakinarazi eta gero*”.

Hona aldatu den arauak ezartzen die herritarrei bizi ohi diren udaleko udal erroldan izena emateko beharra, baita helbiderik ez badute ere. Behar honen garrantzia honetan datza: udalek, biztanleek aipatu araua betetzeko garaian pasiboki jokatzeko baldin badute, ofizios sar ditzakete dagokien erregistroan. Esan gabe doa udal erroldan izena emanda egotea ezinbesteko baldintza dela antolamendu juridikoak herritarrei ezagutzen dizkien zenbait eskubide eduki ahal izateko -horietako batzuk funtsezkoak izanik- (Biztanleria eta Mugapenari buruzko Erregelamenduko 61. artikulua).

3. Biztanleria eta Lurralde Mugapenari buruzko Erregelamendua betearazteko onartutako argibideen irakurketak -1997ko apirilaren 9ko Lehendakaritza Ministerioko Idazkariordetzaren Erabakia (Estatistikako Institutu Nazionalako Lehendakariaren eta Lurraldeen Lankidetzarako Zuzendari Nagusiaren Erabakia, udalei udal erroldak berrikusteko eta kudeatzeko argibide teknikoak ematen dizkiena) (BOE, 87 zkia, apirilaren 11koa), eta agintari beraren 1997ko uztailaren 21ko Erabakia (1997ko uztailaren 4ko Erabakia, Statistikako Institutu Nazionalako Lehendakariarena eta Lurraldeen Lankidetzarako Zuzendari Nagusiarena, udalei udal erroldak eguneratzeko argibide teknikoak ematen dizkiena) (BOE, 177 zkia, uztailaren 25koa)- eraman gaitu uste izatera gure deliberora ekarri den auziak eduki zezakeela zuzenbidearen arabera izango den irtenbide justua eta egokia, erroldatzeko ukoak ukitutako pertsonak udal erroldan sartzen ahal direlakoan.

Lehen aipatu den 1997ko uztailaren 4ko Erabakiko 3. atalak -datuak egiaztatzea-, honako hau dio:

“Espainian bizi diren pertsonen helbideen berri eman nahi duen erregistro administratiboa Errolda da. Bere helburua da, beraz, egitate bat jasotzea, eta horregatik, hasiera batean, hiritarrari helbide horretan bizitzeko dagozkion edo ez dagozkion eskubideek zein egitate horren egiaztatzea ematearen ondorioz erator litezkeen eskubideek ez dute errolda desitxuratu behar”.

Gure ustez, herritarrek udal erroldan izena emateko daukaten eskubidearen oinarria finkatzeko garaian, goian aipaturikoak baloratzen du, Biztanleria eta Lurralde Mugapenari buruzko Erregelamendua ezartzen duena interpretatuz, garrantzizkoa dena dela egitatezko egoera bat jasotzea, ohiko egoitza zein den, alegia, baita interesatuak helbide jakin batean bizitzeko eduki ditzakeen eskubideak ezbaian jar ditzaketen beste hainbat kontsiderazio juridikoen gainetik ere.

Egitatezko egoera hauek muturreraino baloratzeak ekarri du posible izatea helbiderik ez duten herritarrek udal erroldan izena eman ahal izatea (Biztanleria eta Lurralde Mugapenari buruzko Erregelamenduko 54.3. artikulua). Lehen aipatu dugun 1997ko uztailaren 4ko erabakiak, bere 4. atalean, ohiko biztanleak izanik oso behe mailako etxebizitzetan bizi diren pertsonak, erroldan izena eman ahal izateko baldintzak zeintzuk diren ezartzen ditu:

“...oso behe mailako etxebizitzak (txabolak, karabanak, leizeak, eta abar, baita batere sabairik gabeko etxebizitzak ere) egiazko helbideak bezala etorriko dira erroldaturik, errealitatea batzuetan horrelakoa baita (...) Irizpide hau zuzen aplikatzeak ekartzen du, batetik, hiritarrak benetan bizi diren edozein toki helbidetzat hartu behar dela, eta bestetik, fikziozko helbidea erabiltzea zilegi ez ezik beharrezkoa dela batere sabairik gabe bizi den pertsona bat udalean bizi ohi denean, pertsona hori dagozkion Gizarte Zerbitzuetan ezaguna izatearen baldintzarekin”.

Hortaz, ondorio juridiko-administratiboetarako etxebizitza izaera ez duten onibarretan bizi diren heritarrek erroldan izena ematea zilegi bada, are, batere sabairik gabe bizi direnek ere erroldan izena ematea zilegi bada, horretarako “helbide fiktizioa” paratu behar bada ere, beste hainbeste arrazoi edo are eta arrazoi gehiago dago udal jakin batean bizi ohi diren eta etxebizitza bezala sailkatzeko gai material guztiak dituen etxebizitza batean bizi direnek erroldan izena eman ahal izateko eskubidea onartzeko, beren etxebizitzek ondorio juridiko-administratiboetarako baldintzak betetzen ez badituzte ere.

- Emaizta

Goian esandakoa aintzat harturik, gomendio bat bidali zitzaion Aretxabaletako Udalari. Gomendioa zen kexa-espeditente honen abiapuntuan dagoen neurriak ukitutako herritarrei udal erroldan izena emateko eskubidea onar zekien. Udalak gomendioa onetsi egin zuen.

⇒ *Udal bateko biztanleak erroldatzearen derrigortasunari buruz, karabana batean bizi zirela alde batera utzirik (904/98)*

- Erreklamazioa

Gobernutik kanpoko erakunde batek Arartekoaren parte hartzea eskatu zuen Arrasateko Udalaren aurrean, karabana batean bizi ziren eta Europako Batasuneko kide den Estatu batekoak diren bi senidetako kideek biztanleen udal erroldan izena eman zezaten.

- Azterketa

Lehengoz eta behin, eskatu zitzaion Arrasateko Udalari azal zezan zergatik ez zituen aintzat hartzen interesatuek behin eta berriz formalki egin zituzten erroldan izena emateko eskaerak. Ukoaren arrazoiak zen, Udalak berak esaten zuenez, ez zegoela udalak aldez aurretik emaniko toki publikoan bizitzeko jartzeko baimena, hau da, interesatuek aukeratu zuten tokian bizitzeko baimena, aintzat hartzen ari garen kasuan egiaztatzen ez zen kontua.

Zehatz esateko, udalak seinatzen zuen honako hau: “*Begibistakoa da erroldan izena emateko eskaera hauek, egiten dituzten pertsonen nazionalitatea, arraza, sexua, erlijioa, iritzia eta abar alde batera utzirik, aparteko izaera daukatela, pertsona hauek bizitzeko tokiak ez direlako etxebizitzak, baizik eta bide publikoan aparkaturik dauden furgonetak; hau da, erroldan izena emateko eskaera hauen aparteko izaera ez datza eskaera egiten duten pertsonengan, eskaeraren beraren edukian eta helburuan baizik*”. Era honetan, udalak harremanean jartzen zituen, horrelakorik egiteko justifikaziorik gabe, erroldatzea eta udalak udalerriko zoru publikoetan zenbait erabilera edo okupazio debekatzeko edo baimentzeko duen eskumena.

Arartekoaren iritziaren menean jartzen zen auzia, hau da, karabanetan bizi diren pertsonen udal erroldan izena emateko duten eskubidea, antolamendu juridikoak erabaki duen kontua da. hala, Biztanleria eta Mugapenari buruzko Erregelamenduko 54. artikulua, abenduaren 20ko 2.612/96 Errege Dekretuak ematen duen idazketan, honako hau zehazten du: *“Udalerrian bizi badira ere bertan helbiderik ez duten pertsonen erroldatzea egiten ahalko da, bakarrik, pertsona horiek bizi diren eremu geografikoan eskudunak diren gizarte zerbitzuei xehetasun hau jakinarazi eta gero”*.

Horregatik, hona aldatu dugun arau horrek ezartzen duena ikusirik, aintzat hartzen ari garen gai honetako azterketa eta planteamendua egitean benetan funtsezkoa dena honako hau da: alde batetik, udalek udalerrri batean bizi ohi diren herritarrek bertako udal erroldan izena eman dezaten eskatzeko betebeharra dutela agerian utzi behar da; beste alde batetik, betebeharrak bere ordea dauka, eta ordea da beharrezkoa dela udalerrri batean bizi ohi diren herritarrek bertako erroldan izena emateko eskubidea dutela onartzea.

Gainera, 1997ko apirilaren 9ko Lehendakaritza Ministerioko Idazkariordetzaren Erabakiak (BOE, 87 zkia, apirilaren 11koa), eta agintari beraren 1997ko uztailaren 21ko Erabakiak (BOE, 177 zkia, uztailaren 25ekoa) ahalezko egiten dute Arartekoari aurkeztu zaion auziari irtenbide egokia bilatzea. Hau da, uste dugu aipatu arauak eta argibideak esaten dutenaren arabera, ahalezko dela udal batean bizi ohi diren pertsonen udal erroldan izena ematen ahal dutela, helbide jakin batean bizitzeko titulurik edo justifikaziorik ote duten zalantza izanik ere, baita batere helbiderik ez badute ere.

Ukitutako familietako kideek Arrasaten bizi ohi badira, zeina ez baita zalantza jarri, izena eman beharko dute erroldan, gorago aipatu ditugun legeak eta arauak ezartzen dituzten edukiei jarrazki eta aurreikusten dituzten ondorioetarako.

Besterik da udal aginteak eskatu nahi duen baldintza gaineratua -alegia, beharrezkoa dela Udalak baimen dezala, agerian edo inplizituki, aukeratu duten toki publikoan bizitzen jar daitezkeen-, baldintza honek ez baitu zerikusirik bizi diren udaleko erroldan izena emateko duten eskubidearekin. 1997ko uztailaren 4ko Erabakiak argi eta garbi uzten du errolda pertsonak bizi diren helbidea islatzen duen erregistro administratiboa dela, eta bere helburu bakarra dela datu objektibo bat jasotzea, datu hori ez dagoelarik hiritarrek toki edo helbide jakin batean bizitzeko duten eskubideak baldintzaturik. Hortaz, honela bukatzen da: *“Eta erroldan izena emateak etxebizitzaren titulartasunari buruzko eztabaida juridiko eta pribatuekin batere zerikusirik ez duen modu berean, helbidea ukitzen duten beste hainbat inguruabar fisiko, higieniko edo osasunekoekin ere ez du zerikusirik”*.

Honen aurka, Arrasateko Udalak uste du agindu hau *“interpretatu beharra dagoela esanahi honekin, hau da, jada ez dela beharrezkoa etxebizitza konbentzional batean bizitzea udal bateko erroldan izena eman ahal izateko, nahikoa delarik “oso behe mailako etxebizitza” deituriko batean bizitzea (...), alabaina, aurrekoak ez du esan nahi, gure kasu zehatzari dagokionez, bidezkoa dela bide publikoan aparkaturiko furgoneta batean bizi diren pertsona batzuek erroldan izena ematea, are eta gutxiago Udalak ez duelako baimentzen toki horretan inor bizitzen jartzea (jabari publikoa nahi denaz beste erabiltzea da), eta oraindik ere gutxiago hori berariaz debekatzen ari delako”*.

- Emaizta

Planteamendu hau ikusirik, eta antolamendu juridikoak ezartzen duenarekin bat etorririk, Arartekoak gomendio bat egin zion Arrasateko Udalari, eta gomendio horretan eskatzen zuen bi senide haietako kideek udal horretako erroldan izena eman zezaten.

Arrasateko Udalak erantzun du esanez udalak mantetzen duen interpretazio ezagunari jarraikiz, eta gomendioan ematen ziren argudio juridikoei buruz inolako baloraziorik egin gabe, ez dela bidezkoa interesatuek biztanleriaren udal erroldan izena eman dezaten. Arartekoaren iritziz uko horri eusteko arrazoiek ez dute oinarririk udal errolda arautzeko aginduetan, eta gehiago dute zerikusirik zoru publikoa legez kontra erabiliz toki jakin batean bizitzen jarri izanarekin. Arartekoak gogorarazi zion berriz Arrasateko Udalari derrigorrez biztanle guztiak erroldan sartzeko betebeharra duela, eta ondoren espedientea itxi zuen, beti ere udalak kexa aurkeztu zutenekin moldegabe eta begirunerik ezaz jokatu zuela salatuz.

7. JUSTIZIA

7.1. SARRERA

Justiziaren alorrean 61 kexa jaso dira 1998an. Datu estatistiko honek, ordea, ez du epaitegien eta auzitegien funtzionamenduari buruz Arartekoaren aurrean aurkeztu diren aferen, kontsulten eta arazoen benetako kopurua islatzen.

Kontuan hartu beharra dago, Erakundeak ezin dituela onartu alor honetan gertatu diren auzi asko, judizialki konpondutako kontuak izan direlako edo ebazpen judizialaren zain daudelako. Beraz, Arartekoak legez eragotzia du kexa horien azterketa egitea, -eta eragozpen hori zuzenean eratorria da botere judizialaren independentzia printzipiotik-, baina kexak izan badira, eta horixe da garrantzitsua eta nabarmendu beharrekoa.

Errefusatutako erreklamazio askok ebazpen penalekin dute zerikusia. Uste izatekoa zenez, hein handi batean, ezarritako zigorrak deskontentua sortzen dute. Izan ere, pertsona zigortuaren iritziz, zigor horiek ez dira bidezkoak edo gogorregiak dira. Era berean, auzipetuei buruzko beste erabaki batzuek ere deskontentua sortzen dute: konparazio batera, prebentziozko presoaldiak eta non betetzen den, baldintzapeko esekipenaren ukatzeak, eta batez ere kondenen zenbaketarekin zerikusia duten gaiak. Dena dela, lege hauspenek kaltetutako pertsonak ere, maiz, euren satisfakziorik eza agertzen dute sistema judizialari buruz. Horrela, esate baterako, Arartekora jo zuen hiritar baten kasua daukagu. Alaba hil zionari nahaste psikiko batzuk atzeman zitzaizkion. Erreklamazio egileak ez zuen jaso erantzunkizun zibil gisa ezarria zegoen kalteordaina eta ez zekien 35/95 Legean, delitu biolentoen biktimekiko laguntzak arautzen dituen, aurreikusitako laguntza hartzerik ote zuen. Halaber, informazioa eskatzen zuen errudunaren gainean, ez baitzekien espetxean sartuta ote zegoen edo zentru psikiatriko batean, tratamendupean.

Antzeko arazoak nabarmentzen dituzte ezkontidearen aldetik tratu txarrak hartutako emakumeek. Bi alditan behintzat jaso ditugun kexetan salatzen zen salatutako erasoak, behin eta berriz, falta gisa kalifikatzen zirela judizialki. Eta horrek, besteak beste, esan nahi du gehienetan ez zaiola aitortzen andre kaltetuari ofiziozko abokatuaren laguntza. Kasu hauetan, gainera, bada frogaz egatitako absoluziorako joera, eta erreklamazio egileek aipatzen zuten ez zela nahikoa poliziaren babesa erasotzaileen akosoen eta mehatxuen aurrean.

Eskumen zibilar dagokionez, oraindik ere epaien betetzearekin zerikusia duten kexak jasotzen dira, familia-hausturei dagozkien prozeduretan bereziki. Bi alditan, elikagai arloko pentsioak ordaintzera behartuak dauden gizonetako azaltzen zuten bahitu egin zitzaizkiela Gizarte Segurantzatik jasotzen zizuten ia prestazio guztiak, eta doi doi ere ibiltzen zirela euren burua mantentzeko. Hala ere, aurreko urteetan bezala, kexa eta galdera gehienak seme alaben zainketa bere gain hartutako emakume bananduek egiten dituzte, ez dute lortzen eta aitak bere betebeharrak ekonomikoak betetzea. Horregatik, maiz, emakume horiek erabateko estuasunez bizi dira, eta aldi oroz, euren eta seme-alaben bizi-mailak txarrera egiten du nabarmen, haustura aurreko egoerarekin alderatuta. Kasu hauetako batzuetan, atzeman daiteke epaitegiak ez duela behar bezain arin eta eraginkor jokatu epaia betearazterakoan. Baina, askotan zordunek berek, edozein bide erabilita kobraketak oztopatu edo ezinezko bihurtzen dituzte. Arazo honen ildotik, Arartekoak hainbat forotan adierazi du komeni dela gogoeta egitea -eta abiarazten saiatzea- bermerako fondo publiko bat, banantze edota dibortzioengatik eratorritako

pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako. Esate baterako, gai hori agertu zen Arartekoak Familia Bitartekaritza Zerbitzuei buruz Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XIII Jardunaldian aurkeztutako komunikazioan (ikus I. kap).

Ebazpen judizialek zalantzan jarri dituzten beste gai batzuek jatorri atzerritarreko pertsonekin dute zerikusia, zehazki kanporaketa prozedurei, bizitzeko baimenaren ukatzeari eta besteri dagokiena.

Erakunde honek justiziaren alorrean bideratzen dituen kexak **justizia Administrazioaren funtzionamenduari** dagozkio, hau da, epailetzaren eskumen maila oztopatu gabe, bulego judizialen lanean ustezko irregulartasunak edo arretagabeziak salatzen dituztenak. Esparru honetan, erakundea arautzen duen 3/1985 Legearen 9.2 artikulua dioenaren arabera, Arartekoaren eginkizuna da kexa, *ikertzea edo ebazteko gaitasuna duen erakundera* igortzea. Aparteko salbuespenetan izan ezik, ulertu izan da eskumen hori Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Aretoari zegokiola (JAN aurrerantzean).

Areto horretara lekualdatutako gai ugarien artean, hiru alditan kexagaia espreski jakinarazpen judiziala egiteko moduari zegokion. Parte zen prozedura batean jasotako jakinarazpen batzuk zirela eta, andre batek zalantzan jartzen zituen alderdi batzuk, alderdi garrantzitsuak, gainera, guztiz aipagarri: alde batetik, zenbait zitazioen idazketaz ari zen, hizkera ulergaitza erabiltzeaz gainera nola halako nahasmendua ere sor zezakeena. Andre horrek kritikatzan zuen, bestaldetik, zitazioak gutunazalik gabe igorri izana, horrek intimitatea eta posta sekreturako eskubideak urratu ditzakeelakoan. Prozedura zehatza esku artean zerabilen epaitegiko titularrak prestatutako txostenean oinarrituta, Gobernu Aretoaren iritzi jakinarazpen haiek aintzat hartzen zuten legezkotasuna, eta aldi berean, jakinarazten digu zitazio-modu berriaren ezarpena, gutunazal itxian igorria. Nolanahi ere, zalantzan jarritako jokamolde horrek irregulartasunik ez bazekarren ere, Arartekoak iradoki zuen komeni zela gai horren gainean, orokorrean, gogoeta egitea.

Pertsona batzuek euren protesta agertu dute, haien aburuz, epaitegietako bulegoetan adei gabeko tratua hartu dutelako. Haien esanetan, begirune gabeko tratua izateaz gainera, ez zitzaien behar bezalako informazioa eman. Arazo hau, oinarrian, jarrera arazoa da eta jendearekin harremanetan dagoen funtzionarioaren jarrerari lotua dago eta ez du konponbide errazik. Nabarmendu beharra dago, dena dela, azken urteotan abiarazitako zerbitzu batzuk lagungarri gertatu direla herritarren eta epaitegien arteko harremana errazteari begira. Hala Orientabide Juridikorako Zerbitzuak –abokatuen elkargoek kudeatuta- nola Biktimentzako Laguntza Zerbitzuak eta Atxilotuentzako Gizarte Orientabide Zerbitzuak –Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren mende daudenak-, zeregin garrantzistua izan dute justiziaren Administrazioa hiritarregana hurbiltzerakoan. Helburu hori bera duela, aurten lanean hasi da Herritarrentzako Informaziorako Zerbitzu Osoa, eta Zerbitzu honen xedea erakunde juridikzionalen jardueraren ulermena erraztea da.

Nolanahi ere, tramitazio eta ebazpen judizialean gertatzen diren atzerapenak, horiexek dira alor honetan kexa gehien sortzen dituztenak. Nahiz eta JANera igorritako kasuetan ez den inolako irregulartasunik eta arretagabeziarik sumatu, badirudi justizia administrazioaren ohiko funtzionamendua motelegi doala hiritarren begietan. Legearen arabera, prozedura horiek epe labur laburrean konpondu behar dira, botatze-epaiketak edo behin-behineko neurriak hartu behar izatea, esate baterako, eta praktikan hainbat hilabetez luzatzen dira, eta horrek kalte egiten die eragindako pertsoneri (ikus, ildo honetatik, hurrengo atalean laburbildutako kexa). Arazo hauei dagokienez, aipatu beharra dago Arartekoak igorritako bi kexa direla eta JANren Gobernu Batzordeak informazio eskaerak egiti zituela eta erantzunik ez ematearen ondorioz, Botere Judizialaren Kontseilu

Nagusiak erabaki du diziplinazko espedienteari hasiera ematea Bilboko 1. Instantziako 6. Epaitetik Epaila Titularrari (Familia) buruz. Baina neurri hori hartuta ere, eskatzen zen konponbidea, hau da, administratzaile judicial baten izendatzea adin txikiko baten ondasunentzat, ez da urtebetea iragan den honetan oraindik ere eman.

Hala ere, balantze honen lorpenen artean aipatu behar da epaiketa arinen sistema eratu dela Gasteizko Familia Epaitetian, eta horren bidez astebeteko epean konpon daitezkeela banantze eta dibortzio prozedurak, bi aldeak ados daudenean. Dirudienez, esperientzia pilotu hau EAEko beste epaitegi batzuetara zabaltzea nahi dute laster.

Prozedura judicialen atzerapenekin zerikusia zuten zenbait kexa Herriaren Defendatzaileari igorri zaizkio, Auzitegi Gorenaren aurreko kasazio-helegitei edo Euskaditik kanpo kokaturik dauden erakunde judicialen jardueri zegozkielako. Halaber, espainiar nazionalitatearen eskabide batekin zerikusia duen gai bat igorri zaio, jakin baikenuen tramitazioan izandako atzerapena ez zettorrela 1. Instantziako Epaitetik, non erreklamazio egileak agiriak aurkeztu baitzituen, baizik eta Erregistro eta Notaritzaren Zuzendaritza Orokorretik, Justizia Ministerioaren mende dagoena. Era berean, erakunde berme emale hari ematen zaio **espetxean dauden pertsonen** aurkeztutako kexa gehienen berri.

Jakinaenez, oraindik ere ez da, espetxen alorrean, Eusko Jaurlaritzaren eskuduntza osatzen duten eginkizunen eskualdaketa gertatu, baina, hala ere, espetxeratuen egoerarekin zerikusia duten gai asko iristen dira erakunde honetara. Aurreko I. kapituluari aipatu dira *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelarako egoera* delako txostenaren segimenduari bat egindako jardura batzuk. Txosten hori 1996an eman zen argitara, eta han agertzen diren arazoak berriro atzeman daitezke banakako kexa hauekin.

Espetxe zigorrak betetzen ari direnek duten kezka izaten da, noski, kondenen betekizunaren zenbaketa. Oraindik ere, auzitegiak iristen dira 1995eko Kode Penalaren atzeraeraginezko ezarpenaren gaineko gaiak, penen metaketari dagozkionak bezala (KP 76 art.) edo kondenen likidazio eta erredentzioen aitopenearekin zerikusia dutenak. Ildo horretatik, Arartekoak gai horien ebazpen judicialen atzerapenarekin zerikusia duten zenbait kexa igorri ditu JANren Gobernu Aretora. Kasuren batean, bazirudien epeen luzapena espetxeak espetxeratuari atzerapenez jakinarazteagatik ari zela gertatzen, eta horregatik, kexa Herriaren Defendatzaileari igorri zaio.

Aurreko urteetan bezala, erakunde honetara jo dute Euskadiko biztanleak izanik erkidego autonomo honetatik oso urrun dauden presondegietan espetxeratutako pertsonen. Ildo honetatik, nabarmendu beharra dago ez dagoela Euskadiko espetxeetan erregimen itxiko departamenturik. Horregatik, pertsona bati ematen zaionean lehen graduko tratamendua, gehienetan beste espetxe batera eramaten dute, maiz Puerto de Santa Mariako espetxera eta beste zenbaitetan Villabonakora (Asturias). Jakina, urruntasun horrek sofrimendua eragiten dio pena askatasun gabetzaileari, sofrimendua espetxeratuarentzat nahiz familiakoentzat.

Era berean, eritasun larriak edo sendaezinak dauzkaten pertsonen baldintzapeko askatasuna –edo horren ematearen atzerapena– ukatzeari buruzko kexak jaso dira. Ugariago izan dira, ordea, baldintzapeko askatasuna lortzeari buruzkoak, zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenen aldetik. Alde honetatik, Euskadiko hainbat herritan plataformak eratu dira, banda armatuan partaide izateagatik edo kolaboratzeagatik zigortutako herrikideen kaleratzea eskatzeko, espetxealdiaren iraupena dela eta, baldintzapeko askatasuna eskuratu dezaketelako. Era berean, azaroan, presoen sostengurako Senideak elkarteak txosten bat prestatu zuen, aipatutako egoera horretan

dauden presoen izenen zerrenda zekarrena, beste zenbait agirirekin batera. Erreklamazio hauek guztiak Herriaren Defendatzaileari igorri dizkiogu, baina kasurik gehienetan ez du esku hartzerik. Izan ere, KPren 90. artikulua ezartzen duenez, hauexek dira baldintzapeko askatasunari heltzeko betebeharrak: ezarritako zigorraren hiru laurdenak iraungiak izateaz gain, beharrezkoa ere bada tratamenduaren hirugarren graduan egotea eta jokamolde zintzoa ere agertu izana, eta aldeko iritzia sortu izana gizarteratzeari begira. Lehendabiziko betebeharra objektiboa da, baina baloratzea ia beste biak batera gertatzen ote diren, hori espetxe-administrazioari dagokio, eta ez daiteke inolako irregulartasunik atzeman bi betebeharraren ukatzearen erabakian, baldin eta zentzuzko eta banakako arrazoietan oinarritzen badira. Beraz, halako betebeharrak betetzen ez dituenari baldintzapeko askatasuna ukatzea ere ez daiteke eskubideen urraketatzat jo.

Hala ere, Arartekoa ohartu da baldintzapeko askatasuna eskatzen duten zenbait espetxeratu luzaro egon direla tratamenduaren lehenbiziko graduan sailkatuta, baita gartzelan sartu momentutik beretik ere. Espetxeetako legeriak erregimen itxia apartekotzat jotzen duenez, Herriaren Defendatzaileari planteatu zitzaion delako espetxeratu horien sailkapenen berrikusketetan espetxe-Administrazioak jarraitu duen prozedura gainbegiratzeko aukera. Erakunde berme emaleak iradokizuna onetsi zuen eta ildo horretatik jarduteari ekin dio.

Hiru espetxeraturen salaketen bitartez, euskal espetxe bateko funtzionarioek beste espetxeratu batzuei ustez emandako tratu txarren berri izan dugu. Era berean, espetxeratu andre batek salatu zuen funtzionario andre batek indarra bidegabe erabili izana. Bi kasuotan, Fiskaltzaren bidez jakin dugu ikerketa egin zela, eta ondorioa hauxe izan zela: espetxeratuek berek eragindako istiluak izan zirela eta beharrezkoa izan zela indarra erabiltzea haiek menderatzeko. Beste kasu batean, ustezko espetxeratu kaltetuak uko egin zion ekintzak salatzeari. Nolanahi ere, kasu hauen eta beste batzuen bidez erakunde honetaraino ondoko iritzi hau iritsi da espetxeratutako pertsonen aldetik: isolamendu neurriak, Espetxe Arautegiaren 75. artikuluan espetxeratuen babesarako aurreikusita daudenak, erabateko zehapena bezala ari dira erabiltzen, aurretiazko prozedurarik gabe ezarritakoa. Uste dugu garrantzizkoa eta erakundeek ikertu behar duten gaia dela, horiei baitagokie pertsona askatasun gabetuen eskubideak zaintzea.

Senideak bezalako elkarteek egindako komunikazioek bide eman digute tratu txar edo irain kasu batzuen berri izateko, EAetik kanpo kondena betetzen ari diren euskal hiritarrek salatuak. Kexan halako ekintza zehatzak deskribatzen zirenean, kexa Herriaren Defendatzaileari igortzen zitzaion, ia kasu gehientsuenetan bazelako aurretiazko salaketa judiziala.

Maiz arazoak sortu dituen espetxeko bizimoduaren alderdi bat izaten da presoak espetxe batetik bestera aldatzea edo espetxe batetik ospitalera edo epaitegietara eramatea. EAE barranean gertatzen diren lekualdatzeak Ertzaintzaren esku uzten dira eta, zenbait aldiz, erakunde honetara eragindako pertsonen protestak iritsi dira. Dena dela, kexa bakar batek besterik ez zion auziari zuzenean heldu. Arartekoa Herrizaingoari zuzendu zitzaion arazoa konpontzeko asmoz, baina erreklamazioa modu orokorrean egin zenez, ez zen aukerarik izan inolako istilu zehatzik argitzeko. Nolanahi ere, Sailak bere asmo osoa eta borondatea agertu zuen beti gai horri buruzko araudiarekin bat jokatzeko.

Aurrekoari lotutako beste gai bat da Ertzaintzak osasun alorreko zentroetan burutzen dituen espetxeratuen zaintza-lanak. Guk prentsan argitara emandako gutunen bidez izan dugu horren berri, elkarteekin harremanetan eta gaia aipatzen zuten kexen batzuen bitartez, eta batez ere, arazo horiek barneratutako pertsonen intimate eskubideari eragiten

diote. Txagorritxu Ospitaleko Espetxe Unitateak lanari ekin ondoren, zenbait liskar sortu ziren. Horregatik, erakunde honetako bi ordezkari instalazioak bisitatu zituzten. Lortutako ondorioak txosten honetako I. kapituluari bildu dira.

Espetxeratuaren trasladoen eta lekualdaketen gaiari akabera emateko, aipatu beharra dago urtean zehar espetxeratuaren familiakoen kontsulta batzuk jaso ditugula, eta euren kezka agertzen zuten jakin zutelako, zenbaitetan zeharka jakin ere, euren familiakoa aterea zela halako espetxe jakin batetik eta zenbait egunez, inola ere, ez zekiten non egon zitekeen. Oro har, Arartekoak laguntza eskaini ahal izan die pertsona horiei jarraitutako ibilbideaz eta espetxeratuaren egondako espetxeen informazioa lortuz. Nolanahi ere, badirudi beharrezkoa dela behar bezalako neurriak hartzea era horretako arazoak konpontzeko. Izan ere, indarrean dagoen legeriaren arabera, ez luke halakorik gertatu behar.

Halaber, 1998an erakunde honetara jo dute atzerriko presondegiatan sarturik zeuden zenbait pertsonak. Guatemalan giltzapetutako gazteez gain, epaitu ondoren askatasuna lortu zutenak, behin-behinekoz espetxean zeuden bi hiritarren berri izan dugu, bata Ekuadorren eta bestea Venezuelan. Era berean, Arartekora jo zuten, hurrenez hurren, Frantziatik eta Holandatik ETArekin zerikusia izateagatik kanporatzeko arriskua zuten bi pertsonaren familiek. Erakundeak eskuhartzerik ez zuenez, jo zekazeten instantziei buruz eskura zegoen informazio guztia eskaini zitzaizen familiakoei, eta alde aurretik, zer gerta ere, Herriaren Defendatzaileari gaiaren berri eman zitzaion, haren eskuhartzea behar izanez gero. Frantzian preso hartua zegoen hiritarrari dagokionean, huraxe kanporatu eta mugan polizia espainiarraren esku jarri zuten, baina osasunez oso ahal zegoenez, gose greban luzaro egona baitzen, zuzenean epailearen esku utzi zuten. Beraz, ez zuen beste inongo erakunde berme emalek esku hartu. Holandan atxilotutako andreaki dagokionez, txosten honen prestaketa egiten ari den honetan, ez da jakiterik aurkeztutako asilo eskabidea aintzat hartuko ote duten.

Espetxe-populazioak dituen arazoak asko eta edukiz oso desberdinak baldin badira ere, aipatu beharra dago, behin eta berriz agertzen baitira, askatasuna kentzeak espetxeratuari berari eta familiari sortzen dizkien diru arazo larriak aipagai dituzten kezak. Alde honetatik, badirudi ez dela inola ere nahikoa kolektibo hauek hartzen duten gizarte laguntza.

Atal honi bukaera emateko, aipatuko ditugu espetxealdian ikasketak egitearen eskubidearekin zerikusia duten gaiak. Jasotako erreklamazioetan ondoko hauek izan dira gai nagusiak: eragozpenak azterketak egiteko, espetxeaz kanpoko irakasleekin elkarrizketak izateko, materialak jasotzeko –batez ere, euskaraz idatzita egonez gero-, aparteko erredentzioen aitortpena lortzeko eta beste batzuk. Erreklamazio horietako batzuk hainbat sindikatuk aurkeztu dituzte.

Justiziaren alorreko gaien artean beste atal handi bat abokatu eta prokuradoreen elkargo profesionalen funtzionamenduari dagokio. Bi lanbide juridiko hauek eginkizun garrantzitsua betetzen dute hiritargo osoari dagokion babes judizial eraginkorrerako eskubidearen betekizun praktikoan.

Arlo honetan azpimarratzekoak dira **doaneko justiziaren** aitortpenari buruzko gaiak. Eskubide honen aitortpenaren mekanismoa nabarmen aldatu zuen 1/1996 Legeak, zeinak bidea eman baitzuen Doaneko Laguntza Juridikorako Batzordeak eratzeko. Osakera mistoa duen erakunde honek –abokatuaren elkargoetako ordezkariak, Ministerio Fiskala eta Administrazioa- benefizioaren emateaz erabakitzen du, eta bere akordioei aurka egin dakieke auziaren funtsa erabakitzeko eskuduna den epailetzako erakundearen aurrean.

1998an zehar, hainbat kexa jaso dira Batzorde horien funtzionamenduaz. Ugarietak eskabideen ebazpenen atzerapenei buruzkoak ziren, baina kexa batzuek eskubidea aitortzeko ala ez erabilitako irizpidei dagozkien gaiak planteatzen zituzten. Kasu zehatzen gainetik, arazo hau nabarmendu beharra dago, hots, ez dagoela EAE osorako nahitaezko irizpide bateratzea egingo duen elkarren arteko erakunderik. Espero izatekoa da erakunde horren eraketa ez atzeratzea, eta alde horretatik, hori eskatzen diegu administrazio arduradunei.

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoen funtzionamenduari dagokionez, komeni da gogoratzea Arartekoaren ikuskaritza eskumenek aipatzen dutela zuzenbide publikoko korporazio horien dimentsio administratiboa. Horrela, kolegiatzea derrigorrezkoa da eta badira beste eginkizun batzuk abokatuen betekizun profesionalaren kontrolari zuzenduak, delegaezinak gertatzen direnak.

Arlo honetan jaso diren kexa gehienen gaia elkargoek erantzunik eman ez izana da, edo hobe esan, atzerapenez eman izana hiritarrek profesionalen zerbitzuak kontratatu eta horien aurkako salaketak tartekatatu dituztenean. Beste erreklamazio mota batzuek aipatu korporazio horiek emandako erantzunen argudiaketa eza islatzen dute. Alde horretatik, nabarmentzeko modukoak dira Araba eta Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoen jakinarazpen batzuk, ez baitzuten inolako azalpenik ematen hartutako erabakien funtsaz. Arabako auziaren funtsa sakonki aztertu zen. Hauxe zen: ordainsari batzuei aurka egitea eta ondorioz, horri lotuta zegoen prokuradorearen jarrera. Aitzitik, Bizkaiko Elkargoari buruz agertutako aferei dagokionez, erakunde honi erantzuna atzerapenez emateaz gainera, jakinarazpenaren moduari buruzko aldaketa besterik ez zen lortu. Izan ere, guk esku hartu ondoren, erabakiaren arrazoitza erantsi zuen, hala nola zeintzuk ziren tartekatatu zitezkeen helegiteak (ikus kexa laburpena hurrengo atalean).

Abokatuen elkargoei dagokionez, azkenaldi honetan ikusi da abokatuen jokamolde profesionalari buruzko kexa batzuk tratatu direla erantzunkizun zibileko erreklamazio soil gisa. Horren ondorioz, ematen den txostena ez da Gobernu Batzordeak hartutako akordiotzat jotzen eta, horregatik, ez dakioke errekurtsorik tartekatatu. Arartekoaren iritziz, inork protesta egiten duenean abokatu baten jokamolde profesionalarengatik, aldi berean, salaketa tartekatzen du huts deontologiko posible batengatik eta erreklamazio bat egiten du, ondorioz, sortu zaizkion kalteengatik. Horregatik, onena da Elkargoak espediente informatibo bati hasiera ematea, disziplinarioaren aurrekoa, eta ondorioen arabera erabaki dadila erantzunkizuna zibila den ala ez. Beste eztabaidagai bat da ea salatzailea aintzat hartu beharra dagoen parte interesatutzat zehapen prozedura batean, eta, ondorioz, salatzaile horrek, hartutako ebazpenari helegiterik tartekatatu ote diezaiokeen. Erakunde honen ikuspuntutik, baiezko erantzunak hiritarren bermeak handitzen ditu eta indartu egiten du Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren eginkizuna disziplinazko esparruaren irizpideen koordinazioko eta bateraketako erakundea den aldetik (ikus kexa laburpena hurrengo atalean).

Era berean, erreklamazioak jasotzen dira abokatuek euren zerbitzuengatik igortzen dituzten ordainsariei buruz. Agerikoa denez, auziaren funtsa partikularren arteko auzia da. Beraz, ez da Arartekoaren eskumenetan sartzen. Ezin da gauza bera esan elkargoei dagokien lanbidearen betekizunaren kontrolaren alorreko eginkizunei dagokionez. Horregatik, kasu batzuetan eskuhartu dugu. Era berean, alderdi honetan, deigarria da zeinen ezbedinak diren Euskadiko elkargoetan ezarrita dauden prozedurak ordainsarien kontuei aurka egiteko. Arartekoak asmoa du gai hori datorren urtean sakonean aztertzeko.

Sarrera honi amaiera emateko, aipatu beharra dago **adin txikiko arau-hausleei** ezarritako neurri judizialen aplikazioari buruzko aparteko txostena egin dela.

7.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) **Justizia Administrazioaren funtzionamendua**

⇒ *Atzerapena espetxeratu batek azaldutako kexa baten ebazpen judizialean. (1938/97)*

- Erreklamazioa

Abokatu batek Arartekora jo zuen azaltzeko zer nolako ondorio kaltegarriak jasan zituen Martuteneko espetxean zigorra betetzen ari zen pertsona batek, epailetzako erakunde eskudunek moteltasunez jokatu zutelako.

Espetxeratuak Espetxe Zaintzako epaitegian eskatu zuen sailka zezatela tratamenduko hirugarren graduaren. Lau hilabate igaro ondoren, ebazpen ukatzailea eman zuten, interesdunak apelazio helegitea tartekatu zuen Donostiako Probintzia Entzutegian. Azkenik, auzitegi honek eskatutako sailkapena onetsi zuen, baina hamazazpi hilabete joanak ziren prozedura hasi zenetik.

- Azterketa

Arartekoaren iritzia izan zen sakontasunezko gogoeta egin behar zela planteatutako gaiei buruz. Izan ere, nahiz eta litekeena izan auziaren tramitazioan legezko epeak errespetatu izana, hori ez zen oztopo ebazpenaldia oso luze gertatzeko espetxeratuari. Kontuan hartu beharra dago pertsona hori askatasunik gabe zegoela eta denboraldi horretan ezin izan zituen gozatu hirugarren graduaren baldintza onenak (ateratzeko baimen gehiago, espetxetik kanpo lan egiteko aukera, eta are gehiago, baldintzapeko askatasuna eskuratzeko aukera). Horregatik guztiagatik, kexa Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu Batzordera igorri genuen.

- Emaizta

Kexa hartu ondoren, Gobernu Aretoak informazioa eskatu zion Espetxe Zaintzako Epaitegiari eta Epaitegi horrek honela azaldu zituen egindako tramiteak:

“Espetxeratuaren kexa 96-06-07an datatua badago ere, berau ez zen Epaitegi honetan jaso 96-06-25a artean. Data horretan kexa bideratu eta txostenak eskatu ziren Donostiako Espetxean.

Espetxeari eskatutako txostenak ez ziren Epaitegi honetan jaso 96-09-09a arte. 96-09-13an erabaki zen beste txosten batzuk eskatzea, eta horiek 96-09-13an jaso ziren.

96-10-15ean autoa eman zen espetxeratuaren kexa atzera botaz.

96-12-09an espetxeratuaren idazkia jaso zen erreformako helegitea jarritz.

96-12-16an autoa eman zen, atzera botaz erreformako helegitea.

96-12-29an espetxeratuak apelazio helegitea tartekatu zuen.

97-02-10ean Gizpukoako lanbide elkargoen, hurrenez hurrengo, ofiziozko Abokatuaren eta Prokuradorearen izendapenak jaso ziren, eta exhortoa bidali zitzaion Donostiako Epaitegi Dekanoari.

97-02-28an Letratuaren idazkia jaso zen. Bertan apelazioa egiten zuen eta beste exhorto bat bidali zitzaion Donostiako Epaitegiari partean auzitara-epetzerako, eta esorto hori beteta jaso zen 97-03-26an.

97-03-26an autoak Donostiako Probintzia Entzutegira igorri ziren, eta horiek 97-11-10ean jaso ziren apelazio helegitea ebatzia zegoenean.

Bere aldetik, aipatutako Gobernu Aretoko presidenteak, ikusita “*Espetxe Zaintzako Epaitegiak beti ebatzi zuela legezko epeen barnean, letratuak berak bere idazkian adierazten duen bezala, eta atzerapena gertatu dela probintzia ezberdinetan kokaturiko erakunde desberdinek, administratiboek nahiz judizialek, eskuhartu dutelako, komunikaziobidea delarik BJLOan eta lege prozesalean xedatutakoa*”, erabaki zuen kexarengatik hasitako espediente informatiboa artxibatzea.

Gure ikuspuntutik, arau prozesalik hautsi ote den egiaztatzearen gainetik, sistemak berak ahalbidetzen edo sortzen dituen disfuntzioak aztertu beharko lirateke, eta aztertutako kasuan hauxe ekarri dute: espetxeratu batek espetxe zigorraren erregimen irekia eskuratu du urtebeteko atzerapenarekin. Arazo hauek Justizia Administrazioaren ohiko funtzionamenduaren ondorioz sortzen direnez, konplexua eta zaila gertatzen da aipatutakoa bezalako kasuak eragotziko dituzten neurriak hartzea. Hala ere, Arartekoak Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu Batzordeari planteatu zion ahal den gutzia egin behar dela helburu hori lortzeari begira.

B) Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak

⇒ *Baliatutako bitartekoen argudiaketarik eta adierazpenik eza prokuradoreen eta abokatuen elkargoen ebazpenetan. (1253/96)*

• Erreklamazioa

Hiritar andre batek Arartekora jo eta azaldu zuen, bere garaian, apelazio helegitea tartekatu nahi izan zuela dibortzio prozedura batean emandako epai baten kontra. Abokatuak dagokion idazkia prestatu eta helegitea onartutzat jo zuten. Parteei auzitara ager zitezen deitu zitzaizkien; hala ere, tramite hori ez zen egin, eta horregatik Probintzia Entzutegiak helegitea eman gabekotzat jo zuen. Hori zela eta, interesdunak Bizkaiako Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargoetara jo zuen, hurrenez hurren bere letratuaren eta bere prokuradorearen jardura irregularrak salatzeke.

Prokuradoreen Elkargoaren aurrean aurkeztu zen kexa konpondu egin zen ondokoa erabakiz: “*salaketa honen artxiboa, ez da eta Prokuradoreen Estatutuko inongo agindurik hautsi, eta ez da ere delako Elkargoak zigor dezakeen inolako faltarik egin*”. Transkribitutako ebazpenarekin batera, ez zetorren inolako arrazoirik ebazpenaren funtsen nondik norakoak jakiteko.

Erabaki honen berri izan ondoren, erreklamazio egilea Abokatuen Elkargora zuzendu zen, nor izan zen hari kalte eragin zion atzera egitearen arduraduna jakin nahian. Gobernu Batzordeak egindako txostenean erabakitakoak zioenez «*salaketagaiari ez dagokio kalteordainik (...) kontuan hartuta Letratuaren jokamoldea (...) zuzena izan dela bere zuzendaritzapean tartekatutako prozeduran*». Akordio hori denbora arrazoigarrian igorria eta behar bezala argudiatua bazegoen ere, ez zuen aipatzen badela helegitea tartekatzeko aukera akordioari aurka egiteko.

• Azterketa

Erakunde honen ikuspegitik, aipatu bi korporazioetako ebazpenek ez zuten 30/92 Legea betetzen, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Arruntaren Erregimen Juridikoa arautzen duena eta erabakiak arrazoitu beharra ezartzen duena, hots, «*zuzenbideko ekintzen eta oinarrien aipamen laburren bidez*», hala nola jakinarazpen orok barne hartu beharra duen «*dagokien helegiteen adierazpena, zein erakunderen aurrean aurkeztu behar izango liratekeen eta tartekatzeko epea*» (54.1.a

y 58.2, artikulua, hurrenez hurren). Arrazoi hau dela medio, Arartekoak bi lanbide elkargoetara jo zuen eta informazioa eskatu zuen horietako bakoitzean bideratutako espedienteen gainean.

Emandako erantzunean, Abokatuen Elkargoak azaldu zuen letratuaren aurkako kexa jo izan zela kalte-galeren erreklamaziotzat eta, halakoetan, Gobernu Batzordeak peritu txosten bat besterik ez duela ematen ikusteko salaketagaiei kalteordainik dagokien ala ez. Iritzi tekniko hutsa denez, ez da ebazpenik eta, beraz, -halaxe argudiatzen zuten- ez dakioke helegiterik tartekatu.

Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoak bere aldetik, erakunde honek hainbat errekerimendu igorri eta espreski ohartarazi arren korporazio hori jarrera oztopotzailepean erortzen ari zela, Arartekoari dagozkion gizabanakoen eskubideen defentsako eginkizunak eragozten zituenak, ez zion egindako informazio eskabideari erantzunik eman.

- Emaizta

Abokatuen Elkargoak eskainitako argudioak zehatz mehatz aztertu ondoren, hauxe izan zen erakunde honek atera zuen ondorioa: erreklamazio egileak kalteordaina lortzeko aukera aipatu ala ez aipatu, erakutsi nahi zuen bere deskontentua abokatuaren jokamoldeari buruz, eta horren baitan, Elkargoari eskatzen zion erabakia har zezala abokatuaren eskuhartze profesionalaren zuzenaz edo okerraz.

Izan ere, agerikoa da Gobernu Batzordearen aipatu akordio horrek erabakia hartu zuela elkarren artean estuki erlasionaturik dauden bi alderdi ezberdinei buruz: alde batetik, bere iritzi, zuzena izan zen letratuaren jokamoldea, eta bestaldetik, aurrekoaren ondorioz, ez zen inongo erantzunkizun zibilik sortzen salaketagatik. Batzordearen ebazpenak ezin zuen bazter utzi abokatuaren jokamoldearen gaineko erabaki deontologikoa, ez soilik huraxe delako kalteordainak jasotzeko eskubide ororen aurretiazko baldintza, baizik eta Elkargoari dagokiolako elkargokideen jarduera profesionala kontrolatzea eta disziplinazko ahalmena betetzea.

Arartekoaren iritzi, abokatuaren jokamoldearen zuzentasunari buruzko erabakiak zuzenean eragiten ditu erreklamazio egilearen interesak. Horregatik, delako akordio hori berrikusi ezinak sortuko lukeen babesgabezia saiheste aldera, onartu beharra zegoen akordio horri helegitea tartekatu zekiokela Euskal Abokatutzaren Kontseiluaren aurrean. Ondorioz, Arartekoak gomendio bat luzatu, eta batetik, gogora ekarri zuen Abokatuen Elkargoaren jakinarazpenek aipatu behar dituztela tartekatu daitezkeen helegiteak. Bestaldetik, erreklamazio egilearen kasu zehatzari dagokionez, esaten zen komeni zela, berriz ere, Gobernu Batzordearen akordioaren beste jakinarazpen bat egitea, eta horretan erreklamazio egileari ohartarazi behar zitzaiola baduela helegitea tartekatzerik eta horretarako beste epe bat eman behar zitzaiola.

Abokatuen Elkargoa erabat bat ez badator ere gure argudioekin, uste du-eta salaketa egilea ez dela parte disziplinazko espediente baten tramitazioan, egindako gomendioa onetsi eta beste jakinarazpen bat egin zuen, bertan aukera zabalik utziz Euskal Abokatutzaren Kontseiluaren aurrean helegitea tartekatzeko.

Bestaldetik, Prokuradoreen Elkargoko ordezkariaren batek ahoz esan bazigun ere Batzordea prest zegoela behar bezala argudiatutako beste ebazpen bat emateko, aipatutako korporazioak ez zien espreski erantzunik eman erakunde honen eskaerei. Interesdunaren bitartez jakin ahal izan genuen, gure eskuhartzea izan eta hamasei hilabeteren buruan, Prokuradoreen Elkargoak berriz ere akordioa jakinarazi ziola eta bertan aipatzen zirela akordioa funtsatzen zuten arrazoiak eta adierazten akordioaren aurka tartekatu zitezkeen helegiteak.

8. INGURUGIROA

8.1. SARRERA

1998ko urteari dagokionez, alor honetako kexak 106 izan dira, hau da, danetara jaso diren kexa guztien artetik %9,45.

Eragindako administrazioen arabera, honela bana ditzakegu:

- Udalak	99
- Eusko Jaurlaritza	8
- Foru Aldundiak	2

Edukiari dagokionez, berriz, bi sail hauek bereizten dira:

Hiri jarduera sailkatuak	58
Ingurugiroarekiko beste arazo batzuk...	48

Aurten ere, azpimarratzekoa da ingurugiroaren alorrean sar daitezkeen kexa gehienek zerikusia dutela jarduera sailkatuak deitzen direnen zarata, usai txar eta keak direla medio hiritarrek jasaten dituzten gogaipenekin. Jarduera sailkatu horiek derrigorrezko udal baimenaren menpe daude.

Jarduera sailkatuen baimenak funtzionamendu baimena ezagunen barruan daude. Beraz, instalazio ororentzat beharrezkoa da baimena ematen duen administrazioaren kontrol iraunkorra balizko itxiera artean. Izan ere, bada etengabeko arriskua, jarduera horien garapenaren ondorioz, ingurugiro mailako kalteak sortzeko.

Beraz, horrek esan nahi du Administrazioak, edonoiz, zuzentze-neurriak hartzeko ahalmena duela, jarduera horien egikaritzetik eratorritako gogaipenak konpontzeari begira. Horrez gain, Administrazioak neurri horiek berrikusi eta eguneratu behar ditu, balio ez badute jarduera horien funtzionamendu zuzena bermatzeko.

Jarduera horiekin batera, azpimarratu ere azpimarratu beharrean gaude derrigorrezko udal baimenik gabe egiten diren jarduerak: horietako batzuk egiten ari dira abenduaren 30eko 2.414/1961 Dekretuaren aurretik, zeinaren bitartez onetsi baitzen Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Araudia (aurrerantzean JGOKAA), eta beste batzuk, berriz, etxebizitzetarako hiri-lurrean kokatuta daude, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretura egokitu gabe, beti ere.

Hala ere, aurten jasotako kexetan, oraindik ere ikus dezakegu zenbait udalen permitibitatea, ezarri berri diren izkutuko jarduerak direla medio.

Beste alde batetik, aipatu beharrean gaude indarrezko legeekin bat emandako baimenetan babestuta dauden jarduerak, baina, aldi berean, egokitzen ez direnak derrigorrezko instalazioko baimenean ezarritako zuzentze-neurrietara eta gogaipenak eragiten dituztenak.

Kexen tramitazioan, urtez urte adierazten ari garen bezala, udal utzikeria eta gehiegizko pasibitatea sumatu daiteke tokiko Administrazioaren aldetik, behar bezalako neurriak hartzerakoan jarduera hauen inguruan bizi diren auzolagunek jasaten dituzten gogaipenak arintzeari begira, administrazio hori izanik derrigorrezko jarduera eta irekiera lizentzien baimen emalea.

Dena dela, arazo hau ez dakiok egotzi beti udal utzikeriari, eta aipatu behar da ez dagoela bitarteko material eta pertsonalik kontrolaren ahalmena betearazteko, ustezko arau haustek zehazteari begira.

Nolanahi ere, udalerriek garbi eduki behar dute, indarrean dauden legeen arabera, jardueren funtzionamenduaren segimendua, ikuskapena eta kontrola egitea udalerriek

derrigor bete beharreko beste zerbitzu bat dela, oso garrantzitsua gainera jarduera haietatik eratoritzen diren gogaienak jasaten dituzten hiritarrentzat, berauen bizi kalitatean erabat eragiten baitute.

Era berean, ez dugu ahaztu behar hala foru aldundiek nola Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak modu ordezkatzailan eskuhartu dezaketela, baldin eta dagozkien udalerriek behar adina neurri baliatzerik ez badute aurre egiteko, jarduera horien kontrol eta segimenduari begira, derrigor egin behar diren ikuskapen teknikoak.

Kexa espedienteen tramitazioan egiaztatu dugu jarduera hauetako jabeek jakin badakitela zeinen motel aritzen diren udal agintariak behar bezalako neurriak hartzerakoan, baita zigortzaileak ere. Horregatik, ez dute derrigorrezko baimena eskatzen edo ez dituzte beharrezko zuzentze-neurriak hartzen.

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren ustez, beharrezkoa da udalek zaintza-lan iraunkorrak egin ditzatela jardueraren funtzionamendu zuzenaz eta lizentzian ezarritako baldintzen betekizun zehatzaz, bestela, toki Administrazioak, eragindako hiritarrek salaketa tartekatzen dutenean besterik ez dio ekiten.

Aurten, gorabehera gehien sortu dituzten jarduera sailkatuak, berriz ere, ostalaritza establezimenduak izan dira. Hala ere, aipatu behar da ugaldu direla airearen eta hots-kutsadurarekin zerikusia duten industria-jardueretatik eratorritako kexak.

Halaber, supermerkatuen, ibilgailuak konpontzeko lantegien, artisautza lantegien, gimnasio, ibilgailu-gordetegi eta abarren salaketak berriz ere agertu dira..

Era berean, gero eta gehiago dira erakunde honetan jasotzen diren kexak trafikoaren gogaienengatik, denbora libre eta asialdiguneetako jende metaketarengatik, ostalaritza establezimenduek eragindakoak.

Agerikoa da, gizarteak gero eta beharrezkoagoa ikusten duela ingurugiro egoki eta osasungarrian bizitzea, batez ere ingurugiroari egiten zaizkion erasoen ondorioak zuzen-zuzenean jasan behar izaten dituzten hiritarrek, zalantzarik gabe. Horrek, ezinbestean, esan nahi du etengabeko borroka egin behar dela kutsaduraren aurka, elementu andeatzaile gisa, gizakia dagoen toki guztietan. Beraz, babes eta prebentzio politika eraginkorrak behar dira etxebizitzaguneetan kokaturiko jarduera mota hauek eragindako kutsadura kentzeko edo arintzeko, baita etxebizitzaguneen inguruko industria guneetako jarduerak eragiten duten kutsadura erazteko ere. Horrekin batera, botere publikoek eskuhartu behar dute planeamenduari buruzko jarduera zuzentzaileen eta kontrol-neurrien bitartez, modu horretan trafikoak eragindako, edo inguruneari begira, sentikor diren guneek eragindako ingurugiro mailako arazoak ekiditeko, arestian adierazi dugun bezala.

Ildo honetatik, Euskadiko Ingurugiroaren Babesa arautzen duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (EAEko 1998ko martxoaren 27ko Aldizkari Ofiziala, 59. zkia.), 1998ko ekainaren 28an indarrean sartu zena, ingurugiro mailako erasoen prebentzio sistema batean oinarritzen da, babestutako balioen kontrako jokamoldeen zigortzaile, eta ingurunean egindako kaltearen konpontzaile eta berritzaile dena.

Erakunde honetara jo duten hiritarrek salatutako arazoan gaineko sarrera atal honetan egin den balorazioari dagokionez, aipatu beharrean gaude lege honen planteamendu egokia, airearen kutsaduraren barruan hartzean hots-kutsadura, horixe baita airea kaltetzeko beste modu bat, giza osasunari eta ingurugiroari kaltegarri gertatzen zaiena.

Ildo horri eutsita, honatx nola definitzen duen kutsadura abenduaren 24ko Kontseiluaren 96/61/EE Jarraibidearen 2.2 artikulua kutsaduraren prebentzioa eta

kontrol integratuei dagokiena, transposizioaren zain dagoena: *“giza jarduera bidez, atmosferan, uran edo lurrian, zuzenean edo zeharka sustantziak, dardarizoak, beroa edo zarata sartzea, giza osasunarentzat edo ingurugiroaren kalitatearentzat ondorio kaltegarriak izan ditzakeena, edota ondasun materialei kalte egin diezaiekena edota ingurugiroaren beste zilegizko erabilpen batzuetan usaera kaltetu edo honda dezakeena.”*

Era berean, lege horrek arautzen du ingugugiroan eragina duten jardueren antolamendua, eta kutsaduraren kontrol integratuaren printzipioa sartzen du aipatutako Jarraibidearen betekizunean, eta saiatzen da administrazio prozeduraren koordinazio osoa bultzatzen, eta aldi berean, saiatzen da baimen ematearen baldintzak bultzatzen agintari eskudunen artean, oro har, hartutako ingugugiroaren babes mailarik gorena lortzeari begira lagungarri izango direnak.

Otsailaren 27ko 3/98 Legeak barne hartutako jarduera sailkatuen erregimenari dagokionez, nabarmendu nahi ditugu Araudian barne hartutako arautzearekin alderatuta sartu ziren aldaketak. Lehenik, argi eta garbi zehazten du jarduera eta irekiera lizentzien izaera. Lizentzia horiek derrigorrezkoak dira, arauaren II. eranskinean bildutako instalazio baten funtzionamendurako

Beste alde batetik, ageriko erakustaldia 15 egunetara luzatu da, euren burua eraginik ikusten dutenek helegiteak aurkez ahal izan ditzaten.

Osasun alorreko txostena derrigorrezkoa eta loteslea da.

Legearen 61. artikulua arautzen du jarduerako lizentziaren erlazioa laneko eta irekierako lizentziarekin. Zehazki, hauxe dakar xedapen horrek:

- “1.- Udalek ezin izango dute jarduera sailkatuentzako laneko lizentziarik eman jarduerako lizentzia eman ez den bitartean.
- 2.- Eskatzaileak jakinarazten duenean jarduerako lizentzian ezarritako neurriak betetzen direla, biharamonetik zenbatzen hasi eta 15 egunen epe barruan, udal teknikariek ikuskapen-bisita egin eta aldeko konprobazioaren akta sinatuko dute, ikusi ondoren instalazioa bat datorrela Autonomia Erkidegoko ingugugiro organuak edo foru organu eskudunak onetsitako proiektuarekin eta ezarritako zuzentze-neurriekin. Bestela, ikusitako akatsak interesdunari jakinaraziko dizkio, eta epe bat emango dio akatsak zuzentzeko.
- 3.- Aldeko akta eman ondoren, eta jarduera sailkatua abiarazi baino lehen, dagokion udalak irekiera lizentzia emango du.
- 4.- Aldez aurretik irekiera lizentzia lortuko da eta ondotik etorriko dira gainontzeko baimenak, behin-betiko lotura egiteko edo indar elektrokoaren hornikuntza zabaltzeko, erregai likido edo gaseosoak erabiltzeko eta edateko uraz baliatzeko...”

Era berean, lizentziarik gabeko jardueretik aplikaziorako kautelazko erregimena arautzen duen 65. artikulua hauxe agintzen du:

“Egoki diren zehapenen kalterik gabe, Alkateak behar bezalako lizentziarik gabe dabilen jarduera baten berri duenean, honela jokatu du:

- a) jarduera legezatu ahal izatekotan, jarduera horretako jabeari eskatuko dio egoera erregularizatu behar duela eta epe bat emango dio, zeina izango baita gehienez ere sei hilabetekoa, behar bezala justifikatutako aparteko kasuetan izan ezik. Horrez gain, jarduera itxi ere egin dezake, inguruabarrek horrela eskatuta, interesdunak esateko duena entzun ondoren, beti ere.
- b) Jarduera legezatu ahal izango ez balitz, indarrean dagoen sektore-araudia betetzen ez delako edo dagozkien udal ordenantzak betetzen ez direlako, itxi egin beharko luke, interesdunak esateko duena entzun ondoren, beti ere.”

Azkenik, kontuan hartu beharra dago, ingurugiroaren gaineko eraginaren banakako ebaluazio prozedurari lotuta dauden Legearen II. eranskinean barne hartutako jarduerak, 59. artikulua zehazten dituen zuzentze-neurrien ezarketaren tramitetik salbuetsita daudela.

Lege berriaren zergatien azalpenean adierazten den bezalaxe, kontrol integratuari buruzko etorkizuneko arauak erabat hezurmami-tuko du baimenen sistema, industriak eta jarduerak ezartzeko aurretiazko betebeharrak gisa. Hala ere, erakunde honek uste du arau honek xedatzen duen prozeduraren eguneratzeak bermatzen duela jarduerak hauek erator daitezkeen ingurugiro mailako arazoaren prebentzio sistema.

Hala ere, badirudi egokia dela arau honen erregelamenduzko garapena gertatzea, modu horretan airearen kutsaduraren alorrean aurreikusitako ekintzak xedatzeko, ingurugiroa babesteko proposatutako helburuak betetze aldera.

8.2. KEXEN AUKERAKETA

A) Hiri jarduerak sailkatuak

⇒ *Jarduerako lizentzian ezarritako baldintzak ez betetzea (1191/97)*

- Erreklamazioa

Erakunde honetan jaso zen Lekeitioko udalerriko azolagun erkidego batzuen kexa-idazkia. Horren arabera, baimenik gabe etxe azpi batean kokaturik zegoen taberna-jatetxe bateko musika ekipo batek eragindako zarata arazoak salatzen zituzten.

- Azterketa

Eskaera hori ikusita, erakunde honek informazio eskabidea egin zion tokiko erakundeari, administrazio horrek ostalaritza establezimendu horren funtzionamenduari buruz egindako segimenduz.

Hasiera batean, udal aginteak jakitera eman zigun jarduerak hark betetzen zituela jarduerako lizentzian ezarritako zuzentze-neurriak, denak bat izan ezik, zeinaren bitartez, espreski debekatzen baitzitzaion musika ekipo baten ezarpena. Horrela, jakitera eman zigun, alkatetza-dekretu bidez agindua eman zela musika ekipoa kentzeko, eta interesdunak aurkeztu behar zuten hots-txostenaren zain zaudela.

Hala ere, kexa sustatu zuten auzolagunek zioten, tokiko erakunde horrek eskatu arren, taberna-jatetxeko jabeak musika ekipo bat zeukala aretoan, zarata gogaipenak jasaten segitzen baitzituzten piztuta zegoenean, asteburuetan batez ere.

- Emaiza

Horregatik, Udalak kontrolik egin ez zuenez jarduerako jabeak zegoen alkatetzaren dekretuaren betekizunaren gainean, Arartekoak udalbatza horri gomendatu zion berehalakoan, behar bezalako neurriak har zitezela aretoan jarritako musika ekipoa zigilatuzko.

Gomendioari emandako erantzunean, Lekeitioko Udalak erakunde honi jakinarazi zion oraindik ez zutela bete Arartekoaren eskaera. Izan ere, ebazpen zehatzak hartu baino lehen, udalerriko ostalaritza-establezimendu guztien egoera aztertu nahi zuten.

Erakunde honek, bere gomendioaren ez betetzea egiaztatu ondoren, kexaren sustatzaileei egindakoaren berri eman eta, ondoren, espedientea ixteari ekin zion.

⇒ *Gastronomia elkarte klandestino batek eragindako zarata gogaipean. (1590/97)*

- Erreklamazioa

Markinako familia batek erakunde honetara jo zuen gastronomia elkarte batek sortutako zaratengatik jasaten zituzten gogaipean salatzerara. Delako elkarte hori familia bizi zen eraikinaren lehendabiziko solairuan zegoen.

Interesdunek esandakoaren arabera, gogaipean duela lau urtetik hona jasaten ari ziren, eta Markina-Xemeingo Udalean salaketa ugari tartekatu bazituzten ere, tokiko erakunde horrek ez zuen inolako neurririk hartu salatutako arazoak konpontzeko.

- Azterketa

Hasiera batean, Markina-Xemeingo Udalak jakitera eman zigun ez zegoela udal artxibategietan idatziz jaso instalazio horrek derrigorrezko jarduerako lizentzia ote zuen, eta horregatik, Gobernu Batzordearen erabaki baten bidez Gastronomia Elkarteko jabeek eskatu zitzaizela beharrezko agiriak aurkeztu zitzaizela elkarte horretan egiten ari zen jarduera legeztatzeari begira. Xede horretarako, bi hilabeteko epea eman zen eta ohartarazten zen, epe hori bukatutakoan, jarduera itxi eta eragotzi egingo zela baimenik gabe egiten zen erabilpena.

Hala ere, kebaren sustatzaileek berriz ere jo zuten erakunde honetara gure eskuhartzea eskatzeko, Markina-Xemeingo Udala pasibitatez eta gehiegizko eskuzabaltasunez jokatzan ari baitzen, auzolagunek behin baino gehiagotan tartekatutako salaketak aintzat hartu gabe. Izan ere, delako jardueraren funtzionamendu irregularraren ondorioz, eta instalazio horretako titularrek eskatu zitzaizena bete ez zutelako, eta, beraz, udal aginteak egoki jokatu ez zuelako, auzolagunek zaraten gogaipean jasaten segitzen zuten.

Ildo zehatz horri dagokionez, erakunde honek jakin izan zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingugugiro eta Lurralde Ekintza Sailak Udal horri foru erakundeari emandako udal espedienteari buruzko dokumentazio administratiboa eta teknikoa eskatu ziola. Espediente hori eman zen aipatutako jardueraren kalifikazioa egiteko eta zuzentze-neurriak ezartzeko, eta hiru hilabeteko epea eman zitzaion hori betearazteko.

Erakunde honen iritziz, Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako epeak gastronomia elkartearen legeztatpenaren prozeduraren atzerapena ekarriko zuen, eta eragindako auzolagunak behin eta berriz salatzen ari zirenez, Arartekoak egoki iritzi zuen foru saileko zerbitzu teknikoei eskatzea konprobazio ikuskapena egin zezatela interesdunen etxebizitzetan, egiaztatzeko ea zaraten gogaipean benetan jarduera haren ondorioz sortzen ote ziren.

Bizkaiko Foru Sailaren zerbitzu teknikoek egindako soinu-neurketak ondoko ondorio hauek azaldu zituen:

- “a) Egindako neurketaren emaitzak ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak ezarritako mugak gainditzen ditu.
- b) Egindako neurketaren arabera, jarduerak ez du aipatutako Dekretuaren betekizuna bermatuko duen isolamendurik.
- c) Aipatutako aretoa etxebizitza eraikin bateko lehenengo solairuan dago. Delako areto horretan, 98-5-15 eta 98-5-17 egunetan egiaztatu genuen Elkarte Kultural Gastronomikoa dagoela, eta jarduerako proiektua tramitazioan dago Ingugugiro eta Lurralde Ekintza Sailean.”

Egindako ikuskapenaren ondorioz, ikusi zen derrigorrezko instalazio eta irekierako udal lizentziarik gabe elkarte kultural gastronomiko gisa ari zen jarduera sailkatua zela, eta era berean, argi ikusi zen ez zuela ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak xedatutako hots-isolamenduko gutxieneko baldintzarik betetzen. Dekretu horren bitartez, etxebizitzetarako hiri-lurretan ezarri beharreko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikagarri zaizkien izaera orokorreko arau teknikoak onartzen dira. Arau horiek, abenduaren 30eko 2.414 /1961 Dekretuak agindutako prozeduraren menpe dagoen jarduera orok nahita ez bete behar ditu. Azken Dekretu horren bidez, JGOKAA onartzen da.

Derrigorrezko udal lizentziarik ez duten jarduerak direla eta, Arartekoaren iritzia bat dator legejakintzak behin baino gehiagotan esan duenarekin. Horrela, Auzitegi Gorenak izkutukotzat jo ditu lizentziarik gabeko jarduerak, eta esan du zuzenbidearekin bat datorrela udal aginteak jarduera horiek ixtea, kautelazko neurri gisa, egoera JGOKAAk ezarritako prozedurarekin bat legezatzat ez den bitartean. Adibide gisa, aipa daiteke, argi eta garbi dagoelako, Auzitegi Gorenak 1988ko ekainaren 10ean emandako Epaia (Ar. 4.195), hauxe dioena:

“...1961eko azaroaren 30eko Araudian agertzen diren merkataritza eta industria establezimenduen izkutuko irekiera edo jarduerako lizentziarik gabe aritzeak, bete-betean eta berehalakoan dakar lanen jarraipena bertan behera uztea, establezimendua ixtea edo jarduera geldiaraztea, modu horretan luzaroan ez daitezen hautsi gizarte-elkarbizitzarako ezarri diren mugak, arautegia hautsiko ez dela bermatuko duen edo arau-hausketa horiek zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak bermatuko dituen behar bezalako lizentzia eskuratu artean.”

Irizpide hori bera biltzen da Auzitegi Gorenak emandako ondoko epaiotan: 1988ko otsailaren 1koa (Ar. 669), 1987ko apirilaren 27koa (Ar. 3.158).

Aurrekoari eutsita, nabarmendu nahi dugu Auzitegi Gorenaren legejakintzak bereizten duela establezimendu baten itxiera agintzearen zentzua, jarduera lizentziaduna den ala lizentziarik gabeko establezimendu publikoa den. Hona hemen adibide gisa, Auzitegi Gorenak, 1986ko urriaren 4an emandako epaia (Ar. 7.402), hau ere argigarria gertatzen baita:

“...Lizentziarik gabe egindako jardueren itxiera erabakitzekeo jarraitu beharreko prozedura zehazterakoan, nabarmendu behar da delako itxierak duen zentzu ezberdina, jarduera lizentziarekin ala lizentziarik gabe egiten ari den. Lehendabiziko kasuan, lizentzia badagoenez, hau da, Administrazioaren aurretiazko kontrola badagoenez, funtsaturik dago 1961eko azaroaren 30eko Arautegiaren 36. artikulua eta hurrengoaren segimendua. Bigarrenean, berriz, -lizentziarik eza- ez dagoenez Administrazioaren aurretiazko kontrolik, itxiera erabaki ahal izango da lizentziarik ezaren egiaztatze hutsarekin, interesdunak esateko duena entzun ondoren, APLaren 91. artikuluan eta Konstituzioaren 105 c) artikuluan aurreikusia dagoen bezala. Beraz, entzutea nahita ez egin behar da, arriskua eta abar dagoenean izan ezik, jakina.”

Era berean, irizpide hori bilduta dago Auzitegi Gorenak, besteak beste, 1990eko otsailaren 21ean (Ar. 1507) eta 1988ko otsailaren 1ean (Ar.669) emandako epaietan.

Esku artean darabilgun kasuan, agerikoa zen Markina-Xemeingo Udala uzten ari zela baimendurik gabeko jarduera baten funtzionamendua, ingugugiro mailako arazoak sortzen zituen. Hortaz, arau bidez ezarritako mugak hausten ari zen, eta argi eta garbi eragiten ari zen instalazioaren aldameneko auzolagunen bizi-kalitatean.

- Emaizta

Alkatetzako dekretu bidez gomendatu zen, erabaki zezatela, kautelazko neurri gisa, aipatutako elkarte kultural gastronomikoaren berehalako itxiera, ildo honetatik legejakintzak behin baino gehiagotan adierazia zuen bezalaxe. Eta jarduera itxita eduki beharra zegoen instalazioaren funtzionamendu zuzena bermatuko luketen derrigorrezko lizentziak lortu artean. Gomendio hau, azkenean, onartu zuten.

⇒ *Gimnasio batek sortutako zarata-kutsadura. (1836/97)*

- Erreklamazioa

Portugaletoko familia batek Arartekoaren eskuhartzea eskatu zuen azken hilabeteetan, gimnasio baten funtzionamenduaren ondorioz jasaten zituen zarata gogaipenak zirela medio. Delako gimnasioa euren etxebizitzaren azpian zegoen.

- Azterketa

Interesdunek eta Portugaleteko Udalak emandako agiriak ikusita, Arartekoak ondorio hauek atera zituen, hasiera batean:

1º Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailaren 3.747/97 zenbakidun Foru Aginduaren bitartez, gogaikarritzat jo zela jarduera hori, eta horrez gain, beharrezkoak ziren zuzentze-neurriak ezarri ziren, kalifikazio hori eragin zuten zergatiak eragozteko.

2º 1997ko abenduaren 3ko Alkatetza-Presidentziaren dekretu bidez, derrigorrezko udal lizentzia emana zela instalazioa egiteko.

3º 1998ko urtarrilaren 3ko Alkatetza-Presidentziaren dekretu bidez, 1997ko abenduaren 30eko data zuen udal zerbitzuen aurretiazko aldeko txostenaren ondoren, zeinetan bakar bakarrik haxe jasotzen baitzen “*uste da ez dagoela eragozpenik eskatu duen irekierako lizentzia emateko*”, eta beste haxe “*interesdunak ez duela establezimendua ireki txosten hau prestatzerakoan*”, irekierako lizentzia titulartasunari eman zitzaion. Lizentzia hori aldeztatik derrigorrezko frogaketa bisita egin gabe eman zen.

4º Aldi berean, ondorioztatzen zen interesdunek lehendabiziko salaketa Udalean tartekatu zutela 1997ko ekainaren 17an, jardueraren erabilerak sortutako zarata gogaipenak zirela eta. Lau hilabete geroago, 1997ko urriaren 14an, udal zerbitzu teknikoek derrigorrezko ikuskapen bisita egin eta egiaztatu zuten jarduera ezkutuan ari zela. Hori zela eta, tokiko erakundeak hasiera eman zion dagokion zigor-espeditari. 1997ko abenduaren 2ko dataz, udal aginteak instalazioen itxiera zigilatua erabaki zuen, behar bezalako udal baimena lortzen ez zen bitartean. Sei hilabate iragan ziren jardueraren zatengatik eragindako auzolagunek lehendabiziko salaketa aurkeztu zutenetik.

Dena dela, aipatutako ikuskapen bisitan ez zen salatutako ingurugiro mailako arazoak frogaketa egin.

Gimnasioak 1998ko martxoaren 2an zabaldu zituen ateak, eta auzolagunek ziotenez, gimnasioak, 1997ko abenduaren 2an itxi zuteneko unean sortzen zituen zarata eta dardarizo berberak sortzen zituen, eta auzolagun horiek ziur zeuden establezimenduko jabeek aretoan inolako obrarik egin ez izanaz.

Daturik ezean, ez genuen esaterik aipatutako jarduerak derrigorrezko betebeharrak betetzen ote zituen funtzionamendu zuzenari begira, establezimenduaren itxiera erabaki zenean, udal zerbitzu teknikoek ez zuten-eta inolako hots-neurketarik egin 1997ko

urriaren 14an egindako ikuskapen bisitan. Hala ere, jarduerako udal espedientearen tramitazioaren ondotik eta jarduera martxan jarri eta gero, oraindik ere ez genekien instalazioa bat ote zetorren derrigorrezko jarduerako lizentzian ezarritako zuzentze-neurriekin, Udalak ez baitzuen inolako egiaztapenik egin xede horretarako, irekierako lizentzia eman baino lehen 1998ko urtarrilaren 3an.

Gauza zehatz horren ildotik, gogora ekarri beharra dago zer dioen JGOKAaren 34. artikulua:

“Gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsutzat jotzen den jardueraren instalazioko lizentzia lortzerakoan, ezin izango da jardun funtzionari tekniko eskudunak behar bezalako egiaztapen bisita egin artean, ez soilik jardueragaiarengatik, baizik eta era berean sor daitekeen kaltearen izaerarengatik. Udalak, delako funtzionario hori ez izatera, eskatu ahal izango dio dagokion probintzia Erakundeari.”

Honenbestez, irekierako lizentzia lotuta dago jarduerako lizentzian ezarritako zuzentze-neurrien eraginkortasun praktikoaren aurretiazko egiaztapenari, hau da, bisita eta honen emaitzaren akta ez da mugatuko, soil soilik, proposatutako zuzentze-sistema ezarketaren egiaztapena egitera, baizik eta, era berean, sistema horren eraginkortasuna ikusi beharko dute.

Horrez gain, agindu horrek ere esaten du egiaztapen bisita egin behar duela funtzionario tekniko eskudunak, jardueragaiaren edo sor daitekeen kaltearen izaeraren arabera.

- Emaizta

1998ko martxoaren 23ko datarekin, Arartekoak Portugaleteko Udalari eskatu zion udal zerbitzu teknikoek egin zezatela derrigorrezko ikuskapen bisita instalazioan, modu horretan egiaztatu ahal izateko jarduera bat ote zetorren 1997ko abenduaren 3ko instalazio lizentzian ezarritako zuzentze-neurriekin, eta neurri horiek eraginkorrak ote ziren esateko.

Hasiera batean, gure eskaerari 1998ko apirilaren 8an emandako erantzunean, udalbatza horrek jakinarazi zigon, delako jarduera horretan egindako ikuskapen bisitaren ondotik egiaztatu zela bertan jarria zutela baimenik gabeko musika ekipo bat. Beraz, jabeari eskatu zitzaion ken zezala. Beste alde batetik, adierazi zigon eskatua zuela Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza, establezimenduaren hots-isolamenduaren egiaztapen froga egiteko.

Azkenik, Bizkaiko Foru Diputazioak berak LABEIN izeneko Ikerketa Teknologirako Zentruari eskatu zion aretoaren hots-kalitatea egiazta zezala. Egindako hots-neurketan egiaztatu zen instalazioaren dBAko zarata arrosaren hots-isolamenduaren indizea 53.2 zela, jarduerari zuzentze-neurri gisa ezarritako 65dBA horien azpi azpitik, beti ere.

Udaltzain zerbitzuek egindako egiaztapenek agertu zuten aretoa itxita zegoela eta ez zela inolako jarduerarik egiten ari bertan.

Azkenik, Udalak hasiera eman zion gimnasioko titulartasunaren aurkako zigor-espedienteari, ez zituen bete-eta jardueraren funtzionamenduak eragindako gogaipenak kentzeko beharrezkoak ziren zuzentze-neurriak jartzeko epeak.

⇒ *Taberna jarduera batek eragindako zarata gogaipenak. (921/98)*

- Erreklamazioa

Laudioko auzolagun batek Arartekora jo zuen, taberna jarduera baten ustezko funtzionamendu irregularrak bultzatuta. Horren ondorioz, zarata gogaipenak jasaten ari zen. Jarduera hori bere etxe-eraikinaren azpian zegoen.

- Azterketa

Laudioko Udalak emandako agiriak aztertu ondoren, erakunde honek zehaztu zuen, 1998ko martxoaren 10ko Alkatetzaren 277 zenbakidun Dekretu bidez, tabernaren titularitatearen aldaketa jasotzen zela titular berriaren faboretan, eta agintzen zitzaiola *“bolumen mugatzaile bat paratzea musika aparailuetan, modu horretan sortutako zaratak inola ere 75 dB(A) gainditu ez dezan, areto barruan...”*.

Delako zuzentze-neurri hori eskatu zen udal arkitekto teknikoak egindako txostenari jarraiki, aretoan derrigorrezko ikuskapen bisita egin ondoren txostenean egiaztatzen baitzen *“musika ekipo bat jarri da, elementu hori jarri berria da, aretoak ez baitzuen musikaririk aurreko funtzionamendualdian”*.

Ez genituen derrigorrezko jarduera eta irekierako udal lizentzien emakidarako alkatetzak xedatutako dekretuak, jarduerako aurreko titularrari emandakoak, zehaztu ahal izateko behar bezalako baimena ba ote zuen establezimenduan musika aparailu berria jartzeko. Horregatik, erakunde honek berriz ere Laudioko Udalera jo eta eskatu zuen delako akordioen aldakiak igortzea. Halaber, honako ondorioak jarri zituen alkatetza horren iritziaren:

Auzitegi Gorenak behin baino gehiagotan emandako legejakintzak dio irekierako lizentziak, berez lizentziak diren aldetik, araupeko ekintzak direla, zeinetan administratzaileari aitortzen baitiote antolamendu juridikoaren barruan dagoen zerbait egiteko eskubidea, lizentziak transmitigarriak izan baitaitezke, batez ere titularitateari dagokion aldaketa besterik ez denean, izena aldatzeagatik. Izan ere, lehendabiziko lizentzien emakidan ez da beharrezkoa izan pertsonen baldintzak ponderatzea, haien transmisioa eragotzi dezaketen inolako klasetan ez egonik, lizentzia horiek errealak eta objektiboak direlako, 1955ko ekainaren 17ko Tokiko Udalbatzen Zerbitzuen Araudiaren 13. artikulua dioenaren arabera. (besteak beste, AG 1994ko ekainaren 27ko E, Ar.4.999).

Erantsi behar gaude aipatutako araudiaren delako 13. artikulua horrek agintzen duela lan, instalazio edo zerbitzuen baldintzei dagozkien lizentziak transmitigarriak direla eta horretarako betebeharrak bakarra dela idatziz jakinarazi behar zaiola Udalbatzari titular berriaren transferentzia.

Dena dela, arau horren 15.1 artikulua zehazten du delako lizentzia horiek indarra izango dutela lanaren edo instalazioaren baldintzek bere horretan irauten duten bitartean. Araudi bereko 16. artikulua osatzen du lizentzia hauen arautzea. Artikulu honek zehazten du lizentzia hauek indarra galduko dutela ezarrita dituzten baldintzak betetzen ez badituzte. Era berean, lizentziak atzera botatzea izan daitezke emakidaren arrazoiak desagertzerakoan edo beste arrazoi batzuk agertzekotan, zeintzuek, lehenago izatera, lizentziaren ukatzea funtsatuko baitzuket, edo ezabatuak izan daitezke errakuntzaz emanak izan zirenean.

Esku artean darabilgun kasuan, udal arkitekto teknikoaren txostenean nabarmentzen den bezalaxe, titular berriak aritu nahi duen jardueran elementu berria sartzen da, eta ulertu behar dugu elementu berri hori ez dagoela transmisioari den lizentziak babesturik.

Ildo horretatik, kontuan hartu beharra dago taberna-jarduera baten funtzionamendurako arau bidez ezarritako baldintzak ez direla berdinak, tabernak musika aparailua izan ala ez izan.

Horrela, Eusko Jaurlaritzako ekainaren 10eko 171/85 Dekretuaren lehenengo ataleko lehenengo kapituluaren 3.2.4 artikulua xedatutakoarekin bat, hauxe eskatzen da:

“Jarduerak dituzten musika aparailuak, irratiak, telebista eta hari musikala direnean, derrigor intsonorizazio proiektu bat aurkeztu beharko da, barne sartuz 75 dB(A)ri dagozkion kalkuluak, aretoaren edozein tokitan. Aretoaren soinu-anklajea maila

horretan berean egingo da aretoak bi ate ez dituelako. Musika aparailu ezberdinak dituzten jarduerak gutxienez 90 dB(A) erabiliko dute areto barruan, intsonorizazio proiektuaren kalkulua egiteko.

Horrez gain, Arabako Foru Aldundiko ingurugiroaren txosten teknikoan, 1998ko ekainaren 5eko data duena, adierazten zenez *“jardueraren tokira iritsita, egiaztatu ahal izan zen jarduera jardunean ari zela. Taberna bat da, musika duena, lehenago taberna-jatetxe bat zegoen aretoan kokatua. Beraz, ez du erabilera horretarako beharrezkoa den intsonorizaziorik eta haizea mozteko ate bikoitzdun ataririk. Horregatik, auzolagunek agertutako kexek funtsaturik dirateke”*

Azkenik, egiaztatu genuen jarduerako lizentzian, 1983ko abenduaren 15eko datarekin, aurreko titularrari emandakoa, aipatutako instalazioari bigarren zuzentze-neurri gisa hauxe ezarri zitzaiola: *“aretoaren intsonorizazioa egin behar da, 45 eta 35db(A) mailak gainditu ez daitezen, hurrenez hurren, 8 eta 22 orduetatik aurrera, aretoaren barruan edo gogaipenik handienak jasaten dituzten aldameneko etxebizitza barruan eta leihoa itxita dagoela. Debekaturik daude musika aparailuak 22etatik aurrera.”*

Hala ere, kontuan hartu beharra zegoen lizentzia hori Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuaren aurrekoa zela, eta xedapen horrek baldintzak aldatu ditu taberna jardueren funtzionamendurako musika aparailuak direnean. Alde horretatik, aski da gogoratzea erakunde honek Laudioko Udalari igorritako ondorioetan adierazten zuen bezalaxe, xede horretarako aurreikusia dagoena, aipatutako dekretuaren lehenengo atalaren lehenengo kapituluaren 3.2.4 artikuluan.

Beraz, agerikoa zen aretoan titularitate aldaketa gertatu zela. Hortaz, Eusko Jaurlaritzako ekainaren 11ko 171/85 Dekretuaren lehenbiziko xedapen iragankorrak xedatutakoarekin bat, beharrezkoa zen jarduera egokitzea arau horretan barne hartutako aurreikuspenetara.

- Emaizta

Laudioko Udalari gomendatu zitzaion alkatetzaren dekretu bidez establezimenduko jabeari eska ziezaiotela musika aparailua kentzea, jarduera legeztatu eta Eusko Jaurlaritzako ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak eskatutako baldintzetara egokitzen ez zen artean. Horrek esan nahiko luke instalazioa berkalifikatu egin beharko litzatekeela.

Delako tokiko erakunde horrek gomendioa onartu eta, ondorioz, espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

B) Ingurugiro mailako beste arazo batzuk

⇒ Gasolindegia baten kokapena hirigunean. (1669/97)

- Erreklamazioa

Bilboko hiritar andre batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen gasolindegia baten instalazioa. Gasolindegia jarria zegoen bi metro eta erdi baizik ez zuen espaloi baten gainean, aipatutako hiriaren erdiko aldean. Era berean, hiritar horrek bere kezka azaldu zuen Renfeko geltokiaren sarbidean egiten ari ziren lanengatik, aipatutako gasolindegitik hurbil.

- Azterketa

Erakunde honek erabaki zuen informazioa eskatzea Bilboko Udaleko Alkatetzari, modu horretan aipatu jarduera horretako administrazio eta urbanizazio egoera zehazteko, hala nola, jakiteko ea Renfeko geltokiaren sarbiderako lanetan zuzentze-neurriak hartuta ote zeuden alde horretako segurtasuna bermatzeko, gasolindegitik hurbil baitzegoen.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren laguntza eskatu genuen, jakiteko nolakoa zen instalazioaren egoera, aipatutako sailak era horretako jardueretan, aldian behin, egiten dituen berrikusketen arabera.

Gure eskaerari emandako erantzunean, hasiera batean Bilboko Udalak jakinarazi zigun Hirigintza eta Ingurugiro Erregistroko datuak kontsultatu zirela, eta ikusi zela ez zegoela jasota derrigorrezko udal lizentzien emakida. Hala ere, adierazten zuen udal espediente bat abiarazia zela egindako salaketarengatik, zeina ebazpenaren zain baitzegoen.

Ondoren, beste txosten bat jaso genuen, udalbatza horretako Babes Zibila eta Zirkulazio Alorrak bidalia, zehazki, eta txosten horretan erantzuna eman zitzaie gure informazio idazkian adierazitako galderei, Renfeko geltokiaren sarbideko lanen seguritate neurriei buruz. Ondorioztatu zen ez zela ildo horretatik kezkatzeko arrazoirik, adierazten baitzen beharrezko neurriak hartu zirela alde horretan segurtasuna bermatzeko.

Halaber, erakunde honetan jaso genuen Juan de Garay kalean lanen ardura zeraman Bilbao Ría 2000 elkartearen txosten bat, eta ondoko informazio hau bidali zigun:

“97-11-12an Arartekoak bidalitako idazkiari dagokionean, 97-12-2an bulego hauetan jaso, Juan de Garay kaleko auzolagun batek sustatutako kexaren gainean, Bilbao Ría 2000 elkarteari dagokionean, hau da, ea RENFEko geltokiaren sarbideko obretan beharrezko zuzentze-neurriak hartu ote diren alde horretako segurtasuna bermatze aldera, gasolindegitik hurbil daudelako, hauxe da adierazi beharrekoa:

Bilbao Ría 2000 burutzen ari da Bilboko trenbidearen berrantolaketa, Hegoko Saihospidea deitutakoa, eta berrantolaketa horretan sartu diren tren geltokiak ere bai, besteak beste Zabalburu eta bere oinezkoendako zaldaina.

Zabalburuko geltokiaren obraren ebakiaren lan-plataforma kota baxuagoan dago Juan de Garay kalearen ertzaren ondoan, bertikalean hiru metro ingurukoa izan daitekena kaleraren azpitik. Lanen erdigunea trenbidearen lubakiaren gainean dago, kalearen alde batean, eta horizontaleko separazioa, tokirik estuenean, obra eta espaloia artean, lau metro ingurukoa da.

Burutzen ari den Geltoki-Proiektuak ez du gasolindegian eraginik, eta gasolindegi hori tokiz aldatzeko eskumena Bilboko Udalarri dagokio, beti ere.

Hala ere, Bilbao Ría 2000 obraren Zuzendaritzak prebentzio neurri batzuk hartu ditu, toki horretan lanen segurtasuna muturreraino eramateko, gasolindegia hurbil dagoelako. Hauexek dira:

- Eraikuntza enpresari debekatu zaio gasolindegia inguruan suguneak piztu ditzaketen tresnen edo makinaren erabilpena, ebakia eta hesi fisikoaren arteko, hau da, harri-hormaren arteko distantzia hori egonik ere.

- Dagoen harri-horma luzatu egin da porlanezko beste bloke batzuen bidez, obraren ebakia eta gasolindegia arteko separazioa ziurtatzeko.

- Lan-ebakian suak itzaltzeko ekipoak, derrigor, izan behar dira.

Beste alde batetik, eta gasolindegia dagokion espaloia aldean hain zuzen ere, Bilbao Ría 2000 elkartearen egiten ari den obrak aurreikusten du espaloia beste bi metrotan zabaltzea, 50 metrotan zehar. Hori hobekuntza nabaria izango da oinezkoentzako, gaur egun pasabide estua baita. Horrez gain, desagertuko da egun 2,50ko altuera duen horma, eta muga gisa baranda bat geldituko da bi auzoak elkartuko dituen oinezkoendako zaldain berrirantz.”

Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantzu Sailak erakunde honi jakinarazi zion Hornikuntzako Unitateak, aldi behingo berrikusketak bete egin dituela, Industria eta Energia Sailburuaren 1992ko abuztuaren 11ko Aginduarekin bat, zeinaren bitartez DIE-IT-ACL-01 jarraibidea onesten baita, hornikuntza instalazioak eta automoziorako erregai eta motore-erregai likidoen buruzkoa. Berrikusketaren emaitza ona izan zen eta alde horretatik ziurtagiri guztiak aurkeztu ziren.

- Emaiza

Gasolindegia arau bidez ezarritako seguritate neurri guztiak betetzen zituela ikusi ondoren, eta Bilboko Udalak, aipatu instalazioaren legeztazeari begira dagokion udal espedienteari hasiera eman ziola egiaztatu ondoren, Arartekoak bukaera eman zion bere eskuhartzeari.

9. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

9.1. SARRERA

Herri lan eta zerbitzuen alorrean 90 kexa aurkeztu dira guztira, derrigorrezko desjabetza, herri lanak, garraioak eta zerbitzu publikoak izan direlarik kexa horien gaiak.

Derrigorrez desjabetzea izenarekin ezagutzen den irudi juridikoari dagokionez, gehien aurkeztu diren auziek zerikusia zuten proiektu teknikoak onartzeko erabakiekin, eta horrekin loturiko erabilera publikoko aitortpena zein desjabetuko diren eraikinak betetzeko beharra. Kexak eta batez ere kontsultak izan dira, baita ere, desjabetu diren ondasunen tasazioei buruz; tasazioa erabat arauturik ez dagoenez, eta neurri batean agitzen diren gertaera eta gorabeheren gaineko ikuspegi teknikoaren menpe daudenez, Arartekoak nekez kontrola dezakeen gaia da.

Garraioari dagokionez, kexek tarifekin zeukaten zerikusia, batez ere: hainbat bidaiaria egiteko bonoengatikoko deskontuak, 65 urte baino gehiagoko erabiltzaileei hobariak ematea, eta abar.

Zerbitzu publikoen azpiarloan ur hondakinen saneamendu eta arazteari buruzko kexak nabarmendu dira, baita hilerrietako udal zerbitzuaren buruzkoak ere.

Hilerrien gaian, aurkeztu diren auziak izaera anitzekoak ziren: hobiak eta panteoien titulartasuna ahaideen artean edo sendikoak ez diren hirugarrenei eskualdatzeko eskubidea, hilerria tokiz aldatzearen ondorioz bereganaturiko eskubideak; panteoietan egin behar diren obren ezaugarri estetikoak eta beste.

Hiri ur hondakinak eta ur hondakin industrialak tratatzeko kolektoreak paratzeari buruzko kexak berrikunta izan dira. Esan behar da 91/271/EEE Jarraibidearen ondorioz legeetan sartu diren berrikuntzek sorrarazi dituztela kexa hauetako asko.

Izan ere, arautegi horren arabera, 15.000 biztanle-ekibalente (Jarraibidearen terminologia erabiliz) baino gehiago duten hiriguneek 2001. urtea baino lehen paratu behar dituzte, dela bakarka, dela mankomunitate edo partzuergoetan bildurik, ur hondakinak garraiatzeko sistema biltzailea, eta ur hauek tratatzeko eta kutsaduraz garbitzeko arazte-estazioa, ur horiek gero ibaira edo itsasora bota ahal izateko. Hau beharrezkoa izango da, baita ere, 2.000 biztanle baino gehiagoko hiriguneentzat 2006. urtetik aurrera

Legeen xedapen hauek bete beharrak, horrelako azpiegiturei aurre egiteko administrazio publikoek inbertsio handiak egin behar izatea ekarri du; azpiegitura hauek, usu, partikularren interesak ukitzen dituzte, eta, hortaz, kexak sortzen dira.

Beste hainbat kasutan Arartekoak saneamendu gaian hartu behar izan du parte, estolda-sarearekin lotu eta udal zerbitzu hau eduki nahi zuten auzoek hala eskatuta.

9.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Herri lanak

⇒ Auzoaren inguruan arazte-estazio bat paratzearen aurka dauden auzokoen auziaz (1007/98)

- Erreklamazioa

Laudioko Areta auzokoak Arartekoarengana joan ziren, auzoaren aldamenean Ibaizabaleko Ur Hondakinak Arazteko Estazioa (UHAE) paratzearen aurka zeudela azaltzera. Estazio honen helburua Arabako eta Bizkaiko hainbat udaletako hiri ur hondakin eta industrialak tratatzea zen.

Auzokoek zioten UHAE horren kokalekua ez zela zuzena, ez baitzuen gordetzen estaziotik multzoan bilduriko biztanle-gune hurbilenera, hau da, Areta auzora, egon behar duen 2.000 metroko distantzia, distantzia hori delarik Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen (RAMINP) Erregelamenduko 4. artikulua ezartzen duena.

Halaber, esaten zuten Administrazioak paratu beharreko instalazioa denez, RAMINPen arabera tramitaturiko espediente batek arautu behar zuela bere jarduna, eta beharrezkoak ziren neurri zuzentzaileak hartu beharko lirakeela.

Auzian jartzen zuten, baita ere, Laudioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aztertzeko jendaurreko informazio falta, edo informazio honen eraginkortasuna, bederen, plan horrek UHAE paratzeko lurak kalifikatu baitzituen alde aurretik zegoen eremu dotazionala zabalgotuz.

- Azterketa

Arartekoak azterketa juridiko zehatza egin zuen, Goi Ibaizabaleko UHAEn proiektuan Arartekoaren parte hartzea eskatzen zuen irregulartasunen bat gertatu ote zen aztertzeko.

Auzokoei eta auzian sarturik zeuden administrazioei eman zitzaizen azterketa honen berri. Azterketa horren emaitza zen administrazioak ordura arte aurrera eramandako jardunetan ez zela antolamendu juridikoaren hausturarik ikusten, eta Arartekoak ondorio hauek atera zituen:

1. Goi Ibaizabaleko Ur Hondakinak Arazteko Estazioa (UHAE) jarduera sailkatuaren erregimenari atxikiriko instalazioa da, eta martxan jartzeko beharrezkoa da alde aurretik jarduteko udal baimena edukitzea.

2. Instalazioa bultzatzen duenak, dela Iparreko Konfederazio Hidrografikoa, dela Eusko Jaurlaritzako Herrilan eta Garraio Saila, Laudioko Udalari eskatu beharko dio jarduteko udal baimena, baimen hori lortzeko tramitea delarik, gainera, espediente hori jendaurrera zabaltzea Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean. Gainera, Alkateak berak jakinarazi beharko die arazteko estazioa paratuko den tokitik hurbilen bizi diren herritarrei espediente jendaurreko informaziora zabaltzea. Tramite honetan auzokoek egokitzen dituzten eta euren interesen alde egiten dituzten gorabehera guztiak alegatu ahalko dituzte.

3. Jarduteko udal baimena lortzeko espedienteak gainditu behar duen beste trami-te bat Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordetzak neurri zuzentzaileei buruz egin behar duen txostena da, jakiteko zer neurri hartu behar zen arazte-estaziotik letozkeen zaratek, gasek eta usainek sor litzaketen oztopoak gainditzeko.

Neurri zuzentzaile hauek derrigorrez bete behar ziren jarduna abian jarri baino lehen, baita jardunak dirauen denbora guztian ere, UHAEk jardunak diraueno derrigorrez bete behar dituen baldintzak direlako, jarduteko baimenaren barruan aurreikusten direnak.

4. Hirigintzaren ikuspuntutik, Anuntzibai auzoan dauden zirkunstanziak aztertuz gero, ez zen ikusten Laudioko Udalak bere jarduna legez aurkako bihur zezakeen botere-gehiagikeriarik egin zuenik.

5. Arartekoak ulertzen zuen araztegia bezalako jardun gogaikarri batek Aretako auzoengan sortzen zuen aurkako joera. Halaber, esaten zuen litekeena zela Goi Ibaizabaleko UHAEa paratzea Laudioko lurren mugetatik kanpo, Ibaizabaleko ubidean beherago, alabaina, hau Arartekoa ezin sar zitekeen erabakia da, ez duelako eskumenik Administrazioak hartzen dituen erabaki diskrezionalak baloratzeko.

B) Zerbitzu Publikoak

⇒ *Hilerria tokiz aldatu eta panteoia eskualdatzea(51/98)*

- Erreklamazioa

Panteoi baten titularraren ondorengoek eskatu zuten Arartekoak esku hartzea Arrasateko Udalaren aurrean, Aldaiko hilerria San Cristobal hilerri berrira aldatzean 1957ko Udal Batzorde Iraunkorraren erabakia errespeta zezan, zeinak esaten baitu: “*Batzordeak ontzat ematen du eskatu den lurra uztea, Udal Ordenantzak ezarri duen kanona ordaindu eta gero, inoiz aipatu hilerria beste toki batera aldatzekotan hilerri berrian antzeko lurrak emateko baldintzarekin...*”.

Zehatz mintzatzeko, Udalak uko egin zion 7,5 m²ko azalera zuen panteoi bat hilerri berriko beste hainbesteko azalerako lur batengatik trukatzeari, 2,5 m²ko modulua eskaini zitzaielarik, gehi beste 2,5 m²ko modulu bateko zortziren bat.

- Azterketa

Arrasateko Udalari informazioa eskatu zitzaion gertaerak benetan horrelakoak ziren edo ez jakiteko, eta kexa horri buruz zeukan iritzia zein zen jakiteko. Udalak esan zuen Gobernu Batzordeak, 1995eko ekainaren 12ko erabakiaren bidez, San Cristobal hilerri berriko proiektu teknikoa onartzean, San Cristobal hilerriko panteoiak lagatzeko irizpideak finkatu zituela, eta irizpide horien arabera, ukitutakoei Aldaiko hilerrian betetzen zuten azaleraren erdia zegokiela, hilerri zaharrean eduki litzaketen eskubideen kalterik gabe. Hori horrela, eskaintzen zitzaiena zen eginik zegoen panteoi batekin konpentsatzea. Panteoiak 2,5 m luze, 1 m zabal eta 3 m sakon jotzen zuen.

Arartekoak gomendio bat egin zion Udalari, eta gomendio horretan adierazten zuen 1957ko otsailaren 8ko Udal Batzorde Iraunkorraren erabakiak orduko onuradunari hainbat eskubide aitortzen zizkiola, eta eskubide horiek bere ondorengoengana eskualdatu direla.

Udalak behartzen zuen bere burua “*hilerri berrian antzeko lurrak*” ematera, eta, Arartekoaren iritziz, ezin zen “*antzeko*”tzat jo aurreko panteoiak betetzen zuen azaleraren herena, ia, eskaintzea, eskaintzen zen horretan hilobien erdiak baizik sartzen ez zirelarik.

Azkenik, Arrasateko Udalari gomendatzen zitzaion 1957. urtean Udal Batzorde Iraunkorrek ezarri zuen irizpidearekin bat zetorren truke-eskaintza berria egin zezala, hau da, eskainiko zitzaizkien lurrak antzekoak izan zitezten, azaleraz edo lurperatzeko gaitasunaz.

- Emaiza

Abenduaren 14an Gobernu Batzordeak erabaki bat onartu zuen, zeinaren bidez, Arartekoak eginiko gomendioari jarraiki, kexa aurkeztu zutenen eskaera ontzat ematen baitzen, eta, Aldaiko hilerri zaharreko panteoiaren trukean, zaharrak besteko azalerako lurzatia eskaintzen baitzizaien hilerri berrian, onuradunek panteoi berria egin beharko zutelarik udal zerbitzu teknikoek ezarri zituzten irizpide teknikoaren arabera.

⇒ *Udalak saneamendu zerbitzua emateko duen derrigortasunari buruz (292/98)*

- Erreklamazioa

Zubietako Kontseiluak Arartekoarengana jo zuen Donostiako Udalak auzoa ahazturik zuela salatzeke, Zubieta azpiegituraz eta ekipamenduz hornitzeko inolako inbertsiorik egin ez zuelako. Zehatzago esateko, saneamendu azpiegitarik batere ez zegoela salatu zuen, eta horren ondorioz ibarreko 400 auzokoek desagertarazten zituzten euren hondakinak putzu septikoen bidez, horietako asko halamoduzko egoeran zeudelarik, edo bestela hondakinok Zubietako baratzak zeharkatzen dituzten erreten eta zangetara zuzenean isuriz.

Adierazten zuten ezen, kexa Donostiako Udalaren aurka bazen ere, Usurbilgo Udala ere erantzule zela egoera honetan, Zubietako zati bat aipatu udalerrri horretakoa delako.

- Azterketa

Ikuskatzeko bisita bat egin zen kexak salatzen zuen egoeraren nolakoa, Zubieta inguruko tokien ezaugarriak eta saneamendu azpiegitarik ez izateak sorraraziko kaltearen norainokoa egiaztatzeke.

Ondoren, Donostiako Udalak zerbitzu hau emateko betebeharririk ote zuen zehazteko txosten juridikoa prestatu zen. Toki Erregimenerako Oinarriei buruzko 7/1985 Legeko 26-1-b) artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz, 5.000 biztanle baino gehiago duten udalak derrigortuta daude estolderia-zerbitzua eta hondakinak tratatzeko zerbitzua ematera.

Alde horretatik, hiri ur hondakinak tratatzeari buruzko 91/271/EEE Jarraibideak, gure antolamendu juridikoan txertaturik dagoena jada, 15.000 biztanle-ekibalente (Jarraibideak erabiltzen duen terminologia erabiliz) baino gehiago duten hiriguneak derrigortuta daude ur hondakinak bildu eta bideratuko dituen sistema biltzailea edukitzera, baita urak bigarren mailako tratamendu biologiko baten bidez araztera ere, 2001. urtea baino lehen.

Beste kontsiderazio bat ere egiten zen, aurrekontuaren eta finantzaren aldetik, zeren, bistan denez, zerbitzu berriak ezartzeak kostuari aurre egiteko nahiko aurrekontu edukitzea eskatzen baitu. Alabaina, Auzitegi Gorenak arestian emandako epaietan aldarrikatu duenez, aurrekontu nahikorik ez izatea ez da aitzakia antolamendu juridikoa urratzeko, eta Udalak derrigorrez sartu behar ditu bere aurrekontuan beharrezkoak diren lanak egiteko kontusailak.

Azkenik, Arartekoak honen guztiaren berri eman zion Donostiako Udalari, eta eskatu saneamendu sarea paratzea lehentasunezko eta premiazko obratzat har zezan, dagokion proiektu teknikoa prestatuz eta 1999. urteko aurrekontuaren barruan bere finantzazioa aurreikusiz. Idazki hau bera igorri zitzaion Usurbilgo Udalari, bere udalerririk Zubieta ibarreko zati bat hartzen duelako.

- Emaizta

Donostiako Udalak Zubietako Kontseiluak eskatutakoa ontzat eman zuen, eta horrekin batera Arartekoaren gomendioa, eta onartu zuen 1999. urteko udal aurrekontuetan Zubietako ur hondakinak bildu eta Lasarte ondoko kolektore nagusira eramango duen kolektorearen proiektua finantzatzeko 60 milioko kontusaila. Alabaina, dagokion proiektu teknikoa idazten den artean, aurreikusten da kontusail hori ez dela nahikoa izango ibar guztian saneamendu sarea paratzeak duen kostuari aurre egiteko.

⇒ *Hilerrriak birmoldatzeaz eta horrek titularren eskubideetan duen eraginaz (687/98)*

- Erreklamazioa

Eskoriatzako (Gipuzkoa) udal hilerriko zenbait hilobi eta panteoiren titular ziren batzuek aurkeztu zioten Arartekoari bere kezka, herri hartako hilerria birmoldatzeko proiektua gauzatzeko euren eskubideen gainean edukiko zituen eraginei buruzkoa. Zehazki esateko, kexak ondoren aipatzen diren hauek hartzen zituen kontuan: hilerria berritu behar izateko justifikaziorik ez zegoela; interesatuek eta ukituek ez zutela berritzeko proiektua behar bezala ezagutzen; erabilera tituluen izaera juridikoa eta eskubide horien gaineko balizko jarduera “desjabetzaile”aren zilegitasuna; gaurko panteoien gaineko betiko erabiltzeko eskubideen ordezkariak larogeita hemeretzi urtez erabiltzeko lagapenak eskaintzeko proposamena; eta, azkenik, Udalak behin-behinean erabaki zuen lurperatzeen etetea.

- Azterketa

Arartekoak zehatz-mehatz aztertu zituen aurkezten zitzaizkion auziak, aldeztatik iritzirik Eskoriatzako Udala, hilerria birmoldatzeko lanak egitean, bere eskumenen barruko zerbitzu egiten ari zela, derrigorrez eskaini behar den udal zerbitzu bati buruz.

Baiezatu zen Eskoriatzako Udalak hilerriaren birmoldaketa egiteko beharrezkoa zen proiektu teknikoa idatzi eta onartu zuela, eta bertan nahikoa justifikaturik zegoela hildakoak lurperatzeko zerbitzu hau birmoldatzea beharrezkoa zela, eta are, informazioa jendaurrera zabaltzeko tramitean auzoko guztiak hartu zirela kontuan. Tramite honetan zenbait herritarrek alegazioa aurkeztu zuen, eta Udalak alegazioak aztertu zituen.

Zuzenbide Administrazioak hartzen ditu hilerriak jabari publikoko ondasuntzat, eta, definizioz, partikularrek ezin dezakete horien gainean jabetza-eskubiderik eduki, bakarrik lagapen mailako eskubideak eduki ditzakete, eta lagapen hauen gehienezko epea 99 urtekoa da, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduak ezartzen duenarekin bat etorritik. Hau da, bederen, Auzitegi Gorenak hainbat epaitan azaldu duen irizpidea; horien artean aipa daitezke 1992ko azaroaren 3koa (8.850 Ar.) eta 1997ko ekainaren 2koa (5.171 Ar.)

Jurisprudentzia horrek ezartzen duena aintzat hartuz, partikularrek panteoi, hilobi eta beste halako lurperatze eskubideen betirakotasuna frogatzen dituzten tituluak edukirik ere, honek ez du esan nahi eskubide honek ehundaka urte iraun dezakeenik. Denbora epe bat badago, 99 urte, eta epe hau bukatzen denean ulertu behar da udal agintariak berreskuratu dutela lurperatzeko askatasuna, eta eskubidea ukatzea aipatu epea iraungi baino lehenago gertatzen denean baizik ez dago desjabetzari buruz hitz egiterik.

Panteoia erabiltzea bertan behera gelditzeaz denaz bezainbatean, Eskoriatzako Udalak igorri zizkion agiriak ikusirik, Arartekoaren ondorioa izan zen erabakia Udaleko osoko bilkurak hartu zuela, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendariaren aldeztatik aurretiko baimena zeukala.

Era berean, Udalak jakinarazi zion Arartekoari *“gaurko hilobiak birrintzeko lanei ekin baino lehen, Udalak negoziazioak irekiko ditu hilerriko lurra erabili duten pertsona guztiekin, interesatuekin akordio bat lortzeko. Negoziazio horien bidez lortu nahi duguna da desjabetza-espedituek ireki behar ez izatea, ukituak kaltetuak izan ez daitezke”*.

- Eraitza

Eskoriatzako Udalak aurrera eramanean jardunean inolako irregulartasunik aurkitu ezenez, kexa-espedituek itxi egin zen, Arartekoaren iritzia zeintzuk ziren erreklamazioak zein Eskoriatzako Udalarik jakinarazi eta gero.

C) Desjabetzeak

⇒ *Errepide bat bikoizteko eginiko desjabetze baten ondoren sarrera oztopatzeaz (716/96)*

- Erreklamazioa

Auzoko batzuek adierazi zioten Arartekoari Basauri parean egin nahi zen EN-625 errepidea bikoizteko proiektuaren ondorioz, Herrilan Sailak beren etxebizitzako beheko plantan zegoen lonjan sartzeko erabiltzen zituen lurrez desjabetu zituela.

Lonja hau ibilgailuak konpontzeko tailerra zen, eta bazuen erabilera horretarako beharrezkoa den jardun baimena, Basauriko Udalak emanda.

Bide azpiegitura hobetzeko obra egiteak ekarriko zuen, zirkulatzeko errailak bikoiztea ez ezik, EN-625ko -betidanik lonjan sartzeko erabilitako bidea- kota aldatzea, errepidearen trazadura berria 2 edo 3 metro hondoratuko zelarik

- Azterketa

Arartekoaren ordezkariak lonjara joan ziren eta, izan ere, lonja inolako ibilgailua bertara sartzea fisikoki ezinezkoa zen moduan gelditu zela baieztatu zuten, are oinez sartzea ere erraza ez zelarik.

Espedientearen egoera administratiboak ez zion arazoari irtenbiderik ematen. Desjabetuen ordezkariak Herrilan sailarekin negoziatu eta gero, elkarrizketak ez ziren inolako hitzarmenarekin bukatu. Horren ondorioz, espedientea Derrigorrezko Desjabetzearen Lurraldeko Epaitegira igorri zen, eta honek, bere erabakian, desjabetutako zoruaren prezio justua zehaztu zuen, baina lonjari eragitzen zitzaizkion kalteak -gurpildun ibilgailuz eskuraezina, eta hortaz, edozein jardun aurrera eramateko baliorik gabe utzi izana- kontuan hartu gabe.

Egoera hau ikusirik, begi bistakoa zelarik Administrazioak ez zuela inola asmorik errepidea bikoizteko obrak eta desjabetzeak eragingo zituen kalteak konpentsatzeko, Arartekoak proposatu zion Herrilan Sailari lonjako beste fatxada batetik beste sarrera bat ireki zezan, horretarako beste zenbait jabetza desjabetu zitzaizkion lurrez baliatuz.

- Emaizta

Arartekoak bi aldeek izenpetu zuten agiri bat prestatu zuen. Agiri honen arabera, Herrilan Sailak konpromezua hartzen zuen lonjarako sarrera berri bat irekitzeko mendebaldeko fatxadatik, eta fatxada ondoko eremua baldintza onetan uzteko, pisu handiko ibilgailuek maniobrak egin ahal izateko adineko zabalera utziz. Gainera, Foru Departamentuak zenbait lan egingo zituen lonja barruan bertako instalazioak (pezoiak, polea, ateak, eta abar) aldatzeko, halako moldez non sarrera berria egiteak ez baitzuen instalazioak ibilgailuak konpontzeko zeukan funtzionaltasuna kalteetako.

Hainbat hilabete geroago Herrilan Sailak agiri hartan biltzen ziren konpromezuak bete zituen, eta aurreikusirik obrak egin zituen, sarrera berria eginez eta lonjako barru aldea berrantolatuz.

D) Garraioak

⇒ *Tarifak gehitzearen aplikagarritasuna (733/98)*

- Erreklamazioa

Eusko Tren garraio publiko zerbitzuaren erabiltzaile batek kexa bat aurkeztu zuen erakunde honen aurrean, elkarte horrek uko egin ziolako erosi zuen “10bono konbinatu” txarteletako erabili gabeko bidaien prezioa itzultzeari.

Alde honetatik, esaten zuen 1997ko uztailean Eusko Tren zerbitzua erabiltzen zutenei eskaini zitzaiela garraio hobaridun titulua, eta produktu hau eskaini zela baliogarritasun-epea bazuela adierazi gabe, halako moldez non biziki harritu baitzuen ikusteak ez bakarrik tarifen gehikuntzak prezio berriak indarrean sartu baino lehenago erosiako bonoei eragiten ziela, baizik eta Eusko Trenak ez zuela gaitu egin ezin izan ziren bidaiak trukatzeko denbora-epea.

- Azterketa

Kexari bide ematea onartu eta gero, erakunde hau harremanetan jarri zen Eusko Tren elkartearekin, eskatutako dirua itzultzea bidezkoa zela proposatuz, alde batetik bonoan esaten zelako 10 bidaiak egiteko balio zuela, inon ez zelarik ezer aipatzen bonoaren iraungitze epeari buruz, Metro Bilbao garraio zerbitzuko txarteletan ez bezala, esaterako, eta beste alde batetik aurreko guttia hala izanik ez zelako bidaiak trukatu edo itzultzeko eperik ezarri.

- Eraitza

Eusko Trenak bere erabiltzaileen artean 1998 urterako zerbitzuko tarifak zer baldintzatan ezartzen ziren jakinarazteko kanpaina zabala antolatu zela esaten zuen arren, eta urtarrilean zehar erabiltzen ahal izan zirela bono horiek, erakunde honek uste izan zuen egokia zela aipatu elkarte publikoari gomendio bat egitea; gomendio hartan erabili ez ziren bidaien kopurua itzul zedin eskatzen zen, elkarteak, bere aldetik eta inoren iritzia aintzat hartu gabe aldatu zituelako bonoen eskaintzaren baldintzak.

Aipatu enpresak bere garraio-tituluetan “*iraungitze-epea inprimaturik ez duten txartelak tarifak aldatzearekin batera iraungiko dira*” dioen esaldia inprimarazten ari zela informatu ziolarik erakunde honi, Arartekoak esan zuen komenigarria izango zela, tarifa-sistemaren indarreko epea behar bezala zabaltzeko, elkarteak eskaintzen zituen hobaridun garraio-titulu guztiek eraman zezaten inprimaturik titulu horiek erabiltzen ahal ziren baliogarritasun-epea, hau da, bonoan bertan inprima zezala berau noiz arte zen baliogarrria edo, gauza bera dena, noiz iraungitzen zen.

Halaber, erabiltzailearen atentzioa hobetzeko asmoz, Arartekoak iradoki zion Eusko Tren elkarteari etorkizunean kontuan har zezan hagitz ohikoa dela gure erkidego autonomoan funtzionatzen duten hiri garraio zerbitzuek tarifa berriak ezarri eta gero epe bat ireki dezaten iraungi diren bonoak trukatu ahal izateko, eta horregatik beragatik eskatzen dutela erabiltzaileek posibilitate hori eskaini diezaien, eta inkontzienteki horrela izango dela uste dutela, horrekin ohituta daudelako.

Azkenik, Eusko Tren elkarteak jakinarazi zion erakunde honi interesatuak eskatu zuen itzulketa egin zuela.

10. ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKETA

10.1. SARRERA

Aurten bere kasa eratu da administrazioaren antolaketaren alorra. Modu horretan nola halako independentzia eman nahi zaie administrazioaren antolaketak berak, berez, Euskal Autonomia Erkidegoko hiritarrei ekartzen dizkien arazoei.

Atal honetan informazioa ematen da jardunbide arloko arauak hausteagatik bideratutako kexei buruz. Arau horiek jokoarabide batzuk ezartzen dituzte administrazio-organoen barrenean. Horrela, alor honen barruan izaera amankomuneko jardunbide gaiak sartzen dira: administrazioen ondare erantzukizunaren institutoari buruzkoak; administrazio kontratazioaren institutoari buruzkoak, edo bestela euskal administrazio publikoaren antolaketak berak sortutako aferei dagozkienak.

Badira bestalde kexa ugari, administrazioek hiritarrek aurkeztutako eskabideei ebazpen zehatzik ematen ez dietelako. Ildo horretatik, Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du zeinen ondorio kaltegarriak eragiten dituen administrazio-isiltasunaren jokoerak, eta aldi oroz, gogora ekarri du Administrazioak, derrigor, erantzun egin behar diela bere aurrean aurkeztutako idazkiei.

Aurreko urteetan bezala, aurten ere erakunde honek baieztatu du euskal administrazioek jarrera murriztailea agertzen dutela, zerbitzu publikoen ohiko edo ez ohiko funtzionamenduak eragindako kalteak direla medio, hiritarrek kalteordainak jasotzeko duten eskubideari buruz.

Oro har, ikusten da administrazioek ezartzen dituztela, Administrazio Publikoen Araubideari eta Administrazio Prozedura Amankomunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Lege bidez eta martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretu bidez bildutako aginduak, hau da, administrazio gehienek agindu horiek aplikatzen dituzte era horretako administrazio-espeditente horien tramitazioari dagokionez. Zalantzan jartzeko moduko alderdien artean nabarmen gertatzen da zenbait tokiko administrazioek duten jarrera. Izan ere, ez dute ireki beharreko frogaldi-epaia zabaltzen, kalteak eragin zituzten -eta alegatu ziren- ekintzen egiazkotasuna zehatz mehatz taxutzeko. Beraz, ezinezkoa gertatzen da erreklamazio egileak, alegatutako ekintzak frogatzeko obligazioa betetzea.

Administrazio antolaketaren atalaren barruan, eta ondasun erantzukizunarekin zerikusi zuzena duela, ondoren islatuko den bezalaxe, bada hiritarren eskubideentzat eta bermeentzat sekulako garrantzia duen arazoa, hots, administrazio zuzenbideak ihes egiten du administrazio publikoetatik. Zehazki, ikusten da zenbait administrazioek, antolamenduak berak ezartzen dituen posibilitateen arabera, merkataritza-enpresak eratzten dituztela zuzenbide pribatuak arautuak, euren kapital osoa publikoa den arren. Bere helburu soziala da zerbitzu publikoak kudeatzea. Enpresa horien estatutuek diotenez, enpresa horiek zuzenbide pribatuaren arauen arabera arautzen dira, Administrazioaren ahalmenak betetzen ari direnean izan ezik. Hala ere, Arartekoak ikusten du ez direla administrazio-jardunbidetik datozen jardunbidezko bermeak betetzen edo, era berean, ez direla betetzen zerbitzu publikoaren izaerari legozkiokeen eskubideak.

10.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Administrazio prozedura

⇒ *Nahitaezko desjabetzako espeditente bat elkarte batek eskuratu nahi izana (1767/97)*

- Erreklamazioa

Elkarte batek Arartekora jo zuen Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak nahitaezko desjabetzako espediente batean sartzeko eskubidea mugatu ziolako.

Elkarteak eskatu zuen okupazioaren aurreko akten desjabetzako espedienteari zegozkion aldakiak eskuratzea, Eusko Jaurlaritzak ez zuen eskaera hori aintzat hartu eta, ondorioz, elkarteak kexa aurkeztu zuen. Eusko Jaurlaritzaren iritziz, desjabetzak ukitzen dituen ondasunen eta eskubideen titularrei besterik ez dagokie aurretiazko aktak eta okupazio aktak eskuratzea. Beraz, eskubide hori mugatu egin zen, esanez aktek zeuzkaten datu batzuk, administrazio honen aburuz, hiritarren arlo pertsonala eta intimoari zegozkiola. Sail horrek uste zuen delako desjabetza horrek ukitutako ondasun eta eskubideen titularrek besterik ez zutela agiri horiek eskuratzeko eskubidea. Beraz, datu horien lagapenak, titular horiek euren intimitaterako duten eskubidearen urraketa ekarriko luke.

Beste alde batetik, elkarteak, zeina eratua baitzen desjabetuen elkarte gisa, uste zuen interesatu-izaera zuela eta agiri horiek ikusi nahi zituela bere eginkizuna delako jabe ez ezagunen interesak zaintzea, orubeak kenduko baitizkiete interesen berri izateko eta interes horiek defenditzeko aukerarik gabe.

- Azterketa

Hiritarrek artxibategietan eta erregistroetan sartzeko duten eskubidea Konstituzioan jasota dago, 105 b) artikuluan, zehazki. Sartzeko aukera hau bi ikuspegi lotuta garatu da: alde batetik, oraindik tramitazioaldian dauden espedienteetan sartzekoa (35 art.) eta beste alde batetik, bukatutako espedienteetan sartzekoa (37 art.).

Esku artean darabilgun kasuan, espediente nahitaezko desjabetzari dagokio. Sail horrek txostena igorri zuen datan, espediente zegoen, bien arteko akordio bidez, baliojustua zehazteko jardunbidealdian. Horregatik, eskaera egin zen unean, prozedura hau bukatu gabe zegoen eta ez legoke 37garren artikulua erabilpena egiterik agirietan sartzeko. Azken batean, elkarteak, oraindik bukatu gabe zegoen desjabetzako espedienteetan sartu nahi zuen

Horregatik, sartzeko eskubiderik zegoen ala ez argitzeko, zehaztu behar zen elkarte horren interesatu-izaera, agirietan sartzeko aurretiazko betebeharrak gisa. Aurreko xedapenak dioenez, interesatu-izaera dute jardunbidea sustatzen duten haiek, ebazpenak uki ditzakeen interesak dituzten haiek, edo, bere kasuan, ebazpenak uki ditzakeen interes legitimoak, banakakoak nahiz kolektiboak edukita, jardunbidean agertzen diren haiek, ebazpenik ez dagoen bitartean. Halaber, lege bidez bildutako zenbait kasutarako, interes ekonomiko eta sozialen ordezkari-antolamenduak eta elkarteak izango dira interes legitimo kolektiboaren titularrak. Kasu honi dagokionez, Auzitegi Konstituzionalak interes legitimoaz duen doktrinari jarraiki, 1985eko uztailaren 1ean emandako Epaiaren arabera, elkarte honek interes propioa du desjabetzako prozedurarekin bat eginik jokatzen. Hala ere, interesatu-izaera baliatu beharra dago izaera orokorreko jardueretan, hau da, espedientearen tramitazioaren egoera edo bere inguruabar orokorrak eta abar ezagutzeko posibilitateari dagokionez. Dena dela, interesatu-izaera horrek desagertu behar du, horren bitartez, beste hirugarren batzuen eskuhartze posibilitateak interes legitimo eta zehatzarekin ordezkatzeko saiatzeko denean. Eta hain zuzen ere, agiri zehatz batzuetan sartu nahi izate horretan, esate baterako okupaziozko banakako aktetan, nagusi izan behar du ondasunaren titularren interes legitimo zuzenak, elkartearen interes legitimo kolektiboaren aurrean. Horren funtsa datza Konstituzioak bildutako ohore eta norberaren nahiz familia intimitaterako eskubidean. Eta eskubide horrek nagusi izan behar du, zalantzarik gabe, administrazio-agirietan sartzeko eskubidearen aurrean.

Horregatik, ondorio hau atera zen: desjabetzako espediente batean jasotako agirietan sartzeko aukerak kontra egiten dio Konstituzioaren 18.1 artikuluari. Izan ere, norberaren nahiz familia eskubideak nagusi izan behar du 30/92 Legearen 35. artikulua dakarren administrazio agirietan sartzeko eskubidearen aurrean.

Nolanahi ere, xedapen arau emale horren beraren 37. artikulua printzipio orokorra ezartzen du, zeinaren bitartez hiritarrak sar daitezkeen Administrazioak jarraitutako espediente baten parte diren erregistroetan eta agirietan, baldin eta delako espediente horiek badagozkie eskatutako datan bukatutako jardunbideei. Hala ere, legeak berak sarbide librearen printzipio hau bereizten du. Izan ere, muga ezartzen du pertsonen intimitateari buruzko datuak dauzkaten agirietan sartzeko, pertsona horiek berek besterik ezin izango dute-eta delako agiri horiek eskatu. Babes honek isla du, arestian ikusi dugun moduan, ohore eta norberaren nahiz familia intimitaterako eskubidean, Konstituzioaren 18garren artikuluan aldarrikatua.

Hala eta guztiz ere, babes berezi honetatik datu izendunak salbuesten dira, hau da, pertsonak identifikatzeko balio duten datuak, eta datu horietan euren titularrak sartzear gainera, interes legitimoa eta zuzena ziurtatzen duten hirugarrenak ere sar daitezke. Nolanahi ere, aurretiazko eta okupazioko aktek datu izendunak biltzeaz gain, jabeen nortasuna bezalakoa, helbidea eta telefono zenbakia, filiazioa, eta ukitutako ondasun eta eskubideek duten egoera juridikoa bezalako datuak ere barne hartzen dituzte. Auzitegi Konstituzionalak ezarri duen bezala, datu horiek sartuta daude “*berezko eta erreserbatutako esparru batean gainontzekoen ekintzaren eta ezagutzaren aurrean*”, eta esparru horretara titularrak baimena emanda baizik ez daiteke sar.

- Emaizta

Gauzak horrela, ohorea eta norberaren nahiz familia intimitatearen babesak nagusi izan behar du artxibatutako espedienteetan sartzeko eskubidearen aurrean. Horregatik guztiagatik, ez zen irregulartasunik atzeman elkarte honi ezezkoa eman zitzaionean, gainontzeko pertsonen aurretiazko eta okupazioko aktetan sartzeko.

⇒ *Informazioa eskuratzeko baimena ukatzea (1781/97)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen, informazio batean sartzear ukatu zitzaiolako: Osakidetza irekitako informazio espediente batekin zuen zerikusia.

- Azterketa

Osakidetza argudiatu zuen irekitako espedienteaz ez zela inongo disziplinazko espedienterik aurretiazkoa, baizik eta informazio-izaera hutsa zuela. Horrez gain, adierazten zuen ukatu egin zutela eskatutako sarrera ondoko bi arrazoi hauek zirela medio: batetik, txostenaren ondorioek eduki zezaketen informazioaren isilpeko-izaerarengatik, eta, bestetik, egindako jarduerak ez zirelako parte inongo administrazio espedientetan, barne esparruko azterketa batean baizik.

Osakidetza txostenean esaten zen 702/1997 Ebazpenari jarraiki egindako jardueren helburua ez zela ezein langile zehatzaren jarduera aztertzea, baizik eta bakar bakarrik Anatomia Patologikoaren Zerbitzuaren funtzionamendua eta antolaketa aztertzea halako denboraldi jakin batean, eta horregatik ez zela egokia erreklamazio egilearen asmoa

Kasu hau, Administrazioaren artxibategietan eta erregistroetan sartzeko eskubidearen arautzearen arabera, Arartekoaren iritziz, Osakidetzaren txostenean bildutako datuak ikusita, ez zegoen funtsatua eskatutako informazioaren ukatzea.

Kasu honek lotura zuzena zuen Konstituzioaren 105 b) artikulua aintzat hartutako eskubidearekin, zeinak ezartzen baitu legeak arautuko duela hiritarrek administrazio artxibategietan eta erregistroetan sartzeko duten eskubidea, ondoko kasuotan izan ezik: Estatuaren seguritateari eta defentsari dagokiona, delituen arakapena eta pertsonen intimitatea. Konstituzioaren agindu hau azaroaren 26ko 30/1992 Lege bidez garatu da, zeinak bere 35 h), 37. eta 38. artikuluetan arautzen baitu Administrazio artxibategietan eta erregistroetan sartzeko eskubidea. Kasu honetan, aipatutako legearen aplikazio esparruaren baitan kokatutako artxibategiak zirenez kexagaia ere, hau da, ukatzea ere ebatzi beharra zegoen oinarritzat hartuta lege horretan bildutako aurreikuspenak.

Jadanik bukatuta dauden prozeduretan, esku arteko kasua zen bezala, Araubidearen eta Administrazio prozedura Amakomuneko Legea sarrera librearen printzipio orokorretik abiatzen da, eta esaten du interes publikoko edo pribatuko arrazoiak direla eta beharrezkoa zein kasutan den sarrera mugatzea, edo are gehiago, sarrera eragozte.

Ildo horretatik, legeak arautzen ditu sarbide berezia duten kasuak, edo espediente jakinetan sartzeko ezintasuna. Mugaketa hauek, Konstituzioaren 105 b) artikulua aipatuak, aipatutako lege horretako 37. artikuluan, 3., 4. eta 5. ataletan ezarritakoak dira. Artikulu bereko 6. atalak bere aldetik araudi bereziak aipatzen ditu. Osakidetzak mugaketa hauen ikuspuntutik, txostenean, argudiatutako arrazoiak aztertu ondoren, ez zen interesatuak eskatutako informazioan sartzeko ukatzea funtsatzeko moduko arrazoirik ikusi.

Lehenik, espedientearen izaerari dagokionez, Osakidetzak argudiatutako informazio izaera, informazioan sartzeko eskubidearen ondorioetarako, ez da horren betekizunerako baldintzatzaile bat bezala barne hartzen. Prozedura bukatutakoan, eta horrenbestez, sarrera edozein hiritarrari zabalik, interesdunak izan ala ez izan, mugaketak bakar bakarrik arrazoiak egongo dira aipatutako araudian aurreikusita baldin badaude, Lege horren 37. artikuluan bereziki.

Beraz, bakar bakarrik espediente informatiboaren izaera oinarritzat hartuta, ez dagoenez sarrera ukatzerik, aztertu behar zen ea eskatutako sarrera debekatzerik bazegoen bere edukiarengatik. Alde horretatik, bere txostenaren azken atalean Osakidetzak espediente honen isilpeko izaera azpimarratu zuen.

Artxibategi baten edukiaren isilpeko izaerak ez du esan nahi muga dakarkionik sarrera eskubideari. Beraz, aztertu beharra zegoen ea bidera zitekeen arauak aurreikusten dituen salbuespenetara, artxibategietako agirien osagai subjektiboen arabera.

Isilpeko hitzaren bidez, esan nahi baldin bazen txostenean datu izendunak zirela (37.3), hau da, pertsona identifikagarri zehatzei buruzko apreziazioak jasota zeudela, zalantzarik gabe, edozein hiritarrak informaziorako duen sarrera librearen printzipio orokorra salbuetsi dezakeen kasu baten aurrean egon gintezke.

Dena dela, horrek ez zuen bereizi gabeko ukatzea funtsatzen. Izan ere, ez da erabateko debekua ezartzen agiri izendun horien gainean, baizik eta kualifikazio bat agiri horietan sartzeko. Ildo horretatik, ez litzateke aski izango hiritar-izaerarekin, baizik eta horrez gain, eskatu ere eskatuko litzateke hiritarrak interes legitimoa eta zuzena edukitzea (37.3 artikulua).

Agiriaren osagai subjektibo horren gaineko motibazioa, zeinean sartzeko debekatu baitzen, funtsezkoa izan zitekeen. Izan ere, modu horretan besterik ez zitekeen jakin

agiri izendunak ziren ala ez, eta, horrela, edukiaren arabera, modu horretan besterik ez zitekeen ikus ukatzea funtsaturik zegoen ala ez. Alderdi hori, emandako datuen bidez aztertuta, ez zegoen funtsaturik espedientearen sartzeko eskaeraren ukatzea.

Espedientearen edukiaz ohar horiek egin ondoren, hauxe zegoen azterkizun: onartuta ere bertan agiri izendunak egon zitezkeela, ea interesdunak horietan sartzeko eskubiderik zuen ala ez.

37.3 artikulua, agiri izendunetarako sarrera arautzean, eta horiek dira pertsonen buruzko iritziak edo juzkuak biltzen dituztenak, titularren sarrera ahalbidetzen du eta hauez gain, baita interes legitimoa eta zuzena duten hirugarrenen sarrera ere. Modu horretan, kuriositate hutsean oinarritutako bereizi gabeko sarrera galarazi egiten da, beste espedienteetan aski lizatekeena edozein hiritarrarentzat.

Lehenik, kontuan hartu behar dena da agiri baten izaera izenduna ez daitekeela ukituaren beraren aurrean argudiatu, berari buruzko datuak biltzen dituen artxibategietarako sarrera ukatzeko. Kontrakoa litzateke pertsona bati ukatzea hari dagozkion datuei buruzko kontrola. Ondorioz, isilpekotasuna edo intimitatea interesdunari lotuta bazeuden, ez zegoen babes informatzioaren izaera izendunean bilatzerik.

Beste datu batzuei dagokienez, sarrera eskatu duenaz bestelako pertsonen dagozkienak, legeak aurreikusten du datu horietan sartzeko aukera, interes legitimoa eta zuzena dagoenean (37.3 artikulua, azkenean). Honi buruzko Osakidetzaren txostenaren motibazio ezak eragozten zuen hura aztertzea. Hala ere, espedientearen aurrekariak ikusita, interesatuari buruz egindako “inkulpazioekin”, pentsatzeko modukoa zen kexa aurkeztu zuenak ez zuela interes legitimo batetik kanpo zegoen kuriositate hutsa, eskuratu nahi zuen informazioari dagokionean.

- Emaizta

Arartekoaren txostenean bildutako argudioen gaineko iritzirik eman gabe, Osakidetzak eskatutako informazioa ukatu zion interesdunari, eta horretarako berriro argudiatu zuen informazio hori isilpekota zela. Osakidetzak, ordea, ez zuen isilpekotasuna aintzat hartzeko moduko daturik eskaini. Honenbestez, eskaini zizkiguten datuak ikusita, Arartekoaren iritziz, kasu honetan eskatutako informazioan sartzeko interesdunaren eskubidea urratu egin zen.

Osakidetzari horrelaxe adierazi arren, erakunde horrek bere horretan iraun zuen, eta hori ikusita, Arartekoak erabaki zuen agortuak zeudela eskuhartzeko aukerak.

⇒ *Beste ikasle baten azterketa ikusteko eskaria ukatzea (1996/98)*

- Erreklamazioa

Lehiatzaile andre batek eskatu zuen beste lehiatzaile jaun baten azterketa eskuratu nahi zuela. Epaimahai zuzentzaileak delako azterketa berrikusi zuen, baina interesdunari ukatu egin zion azterketan sartzeko aukera, haren iritziz, horrek intimitaterako eskubidea urra zezakeelakoan.

- Azterketa

Eskuarki, ukitutakoen begietarako bada zeozer irregulartasunen baten seinale dena. Hortik heldu dira, beraz, zalantzak. Frogaren karga, ezinbestean, irregulartasun alegazio bat egiten duenaren bizkar erortzen da. Horrexegatik, funtsezko frogatik bat eskuratu beharko du, eta funtsezko frogatik hori bere susmopean dagoen azterketa da, jakina.

Arrazoinamendu honetatik abiatuta, Arartekoaren aburuz, sarrera ukatzeak interesduna babesgabezian utz dezake. Izan ere, azterketa batean irregulatasunik egin izana uste duenak, nekez izango du horri buruzko iritzi funtsatua, azterketa ikusteko sarrera ukatuta.

Defentsarako eskubidearen oinarritzko euskarria probaren eskubidea da, eta probaren eskubidea ukitzen duen sarrerak ez dakar berekin epaimahaiaren eskubidearen galera bere ahalmen eskumena betetzeko.

Arazoa hori balitz, pentsa liteke azterketa ikusteak ez lukeela deus ere aldatuko epaimahai zuzentzailearen erabakiaren zentzua, honek jokatuko baitzuen dagokion diskrezionalitatearen jardunean.

Ahazu egiten da, ordea, ondorio horrek suposatzen duela denboran aurreratzea eta aurrejuzkatzea afera erabakiko dela, nahitaez, epaimahaien diskrezionalitate teknikoaren jokaera araei jarraikiz.

Antolamenduaren ikuspegitik, interesdunaren desadostasunaren arrazoiak babesik duen ala ez juzkatzea interesdunari dagokio eta hari besterik ez. Bakar bakarrik interesdunak eskuratu duenean hura ukitzen duen erabakiarekin zerikusia duen material frogagarri guztia, esan ahal izango du ea bere ikuspegitik, bere asmoa aurrera eramana dezakeen arau-hausterik gertatu ote den. Administrazioak horri buruz egindako juzkua funtsatua egon liteke, baina ondorio horretan oinarrituta, ezin izango du sarrera ukatu interesatuak material frogagarritzat jotzen duen horretan.

Alde honetatik, epaimahai zuzentzaile batek egindako azterketa berrikuspenak berma dezake kalifikazio bat bideratzea hark ezarritako irizpideetara, baina ezin du lehiatzaileak, horretarako arrazoirik badela uste izateagatik, erabili nahi dituen defentsabideak ordezkatu.

Lehiatzaileen intimitate eskubidearen babesa, euren azterketek iritzi edo pentsamendu intimoak bil ditzaketen heinean, gizabanakoaren baitakoak direnak, arrazoi garrantzitsua zen interesdunaren eskaera aintzat ez hartzeko.

Arartekoaren iritzi, hautaketabide batean parte hartzen duen hiritarrak ezin du delako eskubide horretan babestu, bere azterketan gainerako interesdunen sarrera ukatzeko.

Lehenik, intimitatea zehaztugabeko kontzeptua da, kasuz kasu mugatu behar dena. Beraz, aurrez ez da esaterik, orokorrean, azterketa guztiek intimitaterako eskubidea uki dezaketen datuak eduki ote ditzaketen. Bigarrenik, onartuta ere azterketa baten edukia sartu ahal izatea intimitaterako eskubidearen alorraren baitan, azterketa baliatzen bada administrazio-hautaketabide batean, derrigorrezkoa da esatea onartu egiten dela beste interesdun batzuek, helburu beraren atzetik doazenak, kasu honetan lanpostu bat, azter ditzatela. Izan ere, azterketaren edukia ezagututa, besterik ezin baitute ezeztatu, haien ikuspegitik horretarako arrazoirik baldin bada.

Sarreraren alde jotzerakoan, berriro funtsezkoa da defentsarako eskubidea, intimitatearen eskubidearen aldean.

Azterketa ikusteko baimenaz mintzatzen garenean, ez gara edozein hiritarraz mintzatzen ari, baizik eta zuzenean eragiten dien prozedura batean interesa dutenei buruz. Hiritarrak ukitzen dituen erabaki batekin zerikusia duen sarreraren helpide-izaerak sarrera hori lotzen du babes judizial eraginkorrarekin. Horren ondorioz, espedientean sartzeko eskubidea kasutan koka daiteke Konstituzioaren 105 b) artikulua aipatzen duenaz bestelako mailan, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak garatutakoa.

Kexa hauek eragindako kasuetan sarrera erabat erabilgarria gertatzen da interesdunaren jarrera juridikoa zein den jakin ahal izateko, hala nola jakiteko bidezkoa

den ala ez prozedurararentzako egokiak diren ekintzak sustatzea. Pertsona interesdun orok eskubidea du jakiteko zein den bere jarrera juridikoa prozedura batean, eta informazioa ukatzen badiote, era berean ukituta gelditzen dira defentsarako aukerak. Horregatik, 30/1992 Legean, 84.1 artikulua bidez, interesdunei ezartzen zaizkien muga bakarrak dira lege bereko 37.5 artikulua aipatutakoak.

Ororen buruan, administrazio espediente batean aldi berean agertzen badira hirugarren interesdunak, administrazio espediente horretarako sarrera ukatzeak babesgabezia dakar, eta horren aurrean, amore eman behar du intimitaterako eskubide ororen alegazioak

- Emaizta

Kexa aurkeztu ondoren, interesdunak atzera egin zuen. Hala ere, kexaren arrazoia bat zetorrenez 1992ko Txostenean jasotako gomendio batekin, Arartekoak idazki bat igorri zuen HAEEra, eta idazki horretan adierazten zen Arartekoa lehiaketako espedientean sartzen uztearen aldekoa zela.

B) **Administrazio erantzukizuna**

⇒ *Administrazio organoek ondasunak bahitzea eta gauzatze-ekintzak burutzea, lege antolamenduak ezarritako lehentasunezko ordena bete gabe (1296/96)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen Bilboko Udaleko zerbitzuen jarduera bat, zeinaren bidez bide publikotik erretiratu baitzuten aurretik bahituta zegoen haren ibilgailu bat. Ondoren udal egoitza batean gordailuan utzi zuten. Ibilgailu horren bahitura hala nola beste ondasun batzuenak, aurrera eraman ziren premiamendu espediente baten ondorioz, zeina tramitatu baitzen interesatuak aipatutako udalbatzarekin zituen zorrak ordainarazteko. Ibilgailua bide publikotik erretiratzerakoan, hiritarrak ordaindu zuen Administrazioarekiko zuen zorra. Ibilgailua zegoen udal egoitza horretara joan zenean, aurretik erretiratzeari eta gordailuari zegozkion tasak ordaintzea eskatu zioten funtzionarioek.

- Azterketa

Bilboko Udalak Arartekoari emandako informazioa ikusi eta ondorioztatu zen udal zerbitzuek interesatuaren helbidean egindako bahitura-diligentziak ondoko ondasun hauek lotu zituela, dagokion aktan jasota dagoen bezalaxe: *"kontu korranteak, edozein kreditu, banku edo antzeko erakundetan izan ditzakeen gordailuak edo baloreak. Hirugarren pertsonetik kredituak edo eskubideak edo halakorik ezean, matrikuladun ibilgailua..."*. Era berean, Udalak adierazi zigun udal zerbitzuek ez zekitela interesdunak izan zitzakeen kontu korrenteen berri, eta arrazoi horregatik bahiturapeko ibilgailuari buruzko prozedurari ekin zitzaioela. Horretarako, formalki interesdunari eskatu zitzaion bere borondatez ibilgailua eman zezan, udal egoitzetan gordailuan utzi ahal izateko, bahitura betetzeko. Eskaera horretan ohartarazten zitzaion, borondatez jokatu ezean, horretarako gaituta zeuden funtzionarioak ibilgailuaren bila joango zirela, eta azkenean, horrelaxe jokatu zuten. Udalak, halaber, aditzera eman zuen interesdunak ez zuela inongo administrazio helegiterik tartekatu premiamendu espedientean emandako administrazio-ekintzen aurka. Azkenik, Udalbatzak jakitera eman zuen ibilgailuaren erretiratzea eta gordailu-tasak eskatzen zirela zergagaia sortu zelako, Ordenantzak dakarren bezalaxe.

Informazio hori ikusita, Arartekoak gomendio bat igorri zion Bilboko Alkate jaunari. Gomendioaren edukiak honela zioen:

“Jaun Txit Prestua, zuri zuzentzen natzaizu (...) Jaunak sustaturik, erakunde honetan bideratua dagoen kexa espedienteari buruz, (...) premiamendu espediente baten tramitazioaren ondorioz, (...) zeina bukatu baitzen (...) matrikuladun ibilgailuaren erretiratzea eta gordailuarekin, udal egoitzetan. Ibilgailua itzultzeko, Udal horretako zerbitzuek interesdunari eskatu diote dagokion tasaren ordainketa.

Interesdunak eta Eskuhartze eta Altxortegi Zinegotzi Arduradunak guri emandako informazioak ikusita, zilegi bekit Jaun Txit Prestua zuri ondoko kontsiderazio hauek igortzea:

1. Interesdunak Arartekoaren iritzipean jarritako arazoak zerikusia du Udal horretako biltze eragileko zerbitzuek aipagai izan dugun premiamendu espediente bideratzeko erabili zuten moduarekin, eta egun indarrean dagoen lege antolamenduan bildutako aurreikuspenen babesean egindako azterketak administrazio-jardueraren zuzentasunaz atara ditzakegun ondorioak zehaztuko ditu. Administrazio-jardueraren arabera, aipatutako ibilgailua bide publikotik erretiratu eta udal egoitzan utzi zen gordailuan, eta horrek tasa ekarri zuen berekin.

Alde honetatik, komenigarria da, hasieran behintzat, Zergaren Lege Orokorrean eta Bilketaren Araudi Orokorrean bildutako aginduen edukia aipatzea, abenduaren 20ko 1.684/1990 Errege Dekretuak onetsia. ZLOren 131. eta BAOren 112. artikuluek ezartzen dute bahituretan jarraitu behar den lehentasunezko ordena. Hauxe da: lehena, eskudirua edota gordailu erakundeetan irekitako kontuak; bigarren kredituak, efektuak, baloreak eta eskubideak, denak berehalakoan bihurturri edo epe motzean; hirugarren, soldatak, lansariak eta pentsiosariak; laugarren, ondasun higiezinak; bostgarren merkataritza establezimenduak; seigarren, metal preziatuak, harri finak, bitxiak, urregintza-gaiak eta antzinako gauzak; zazpigarren, edozein motatako etekin eta errentak; zortzigarren, ondasun higikorak eta erdihigikorak; eta bederatzigarren, epe luzera bihurturri diren kredituak, eskubideak eta baloreak.

Beste alde batetik, BAOren 113. artikulua biltze-unitatei baimena ematen die, bahitura probidentzia eman ondoren, zordunaren ondasunei buruzko informazioa hainbat iturritatik biltzeko.

Azkenik, BAOren 115. artikulua, bahitura egiteko modua arautzean, hauxe ezartzen du “...Araudi honen 112. artikuluan ezarritako ordenari jarraikiz, hurrenez hurren bahituko dira zordunaren edo arduradunen ondasunak, une horretan Administrazioak ezagutzen dituen ondasunak, zehazki..”

2.- Gure esku dagoen informazioa kontuan hartuta, jakin gabe, zegokion egunean, administrazio zerbitzuek BAOren 113. artikulua dakarren informazio bilketa egin ote zuten, ikusi dugu 1995eko apirilaren 3an zordunaren helbidean egindako diligentzia ondoko ondasun hauek bahituzat jo zirela, eta ordena honi jarraikiz: kontu korranteak, edozein kreditu, banku edo antzeko-erakundetan dituen gordailu edo baloreak, hirugarren pertsonetikiko kredituak edo eskubideak eta halakorik ezean, bere ibilgailua...

Bahitutako ondasunen hirugarren tokian ondasun higikor bat sartzeak, hots, ibilgailua, -zortzigarrena dagoena arestian aipatu dugun lehentasunezko ordenean-aipatutako arauetan bildutako aurreikuspenen urraketa dakarrela uste izanari kalterik egin gabe, egia dena da egindako bahiturari ekiterakoan, eta esku dagoen informazio

osoa guri jakinarazi ez izana kenduta, udal zerbitzuek zuzenean jo dutela ibilgailuaren aurka. Gure ustez, kontuan hartuta ezarritako lehentasunezko ordena, bahituraren betekizuna zuzendu beharra zegoen, hasieran eta beti, lehendabiziko tokian bahitutako ondasunen aurka, hau da, kontu korronte, balore eta kredituen aurka. Halako emaitzarik ezean, bazen biderik ibilgailuaren aurka jotzeko.

Gure iritziz, aipatutako arauen arabera jarduerak, lege antolamenduaren aurreikuspenei buruzko behar bezalako errespetua ekartzeaz gainera, interesdunak ez zuen jasan izango beharrezkoa ez zen kalterik. Haren ibilgailua bide publikotik erretiratzeak eta udal egoitzan gorde izanak sortu zizkion kalte horiek. Kalte horiek gauzatzen dira interesdunari esaten zaionean ordaindu behar duela ibilgailua erretiratzeagatiko eta gordetzeagatiko tasa, interesdunak zor dituen kopuruak ordaindu ondoren.

3.- Udalbatza horretako zerbitzuek guri igorritako txostenaren arabera, jarduerak halakoak izan ziren. Bada, Udal horretako biltze eragileko zerbitzuen lege antolamenduaren aurreikuspenen betekizunaren arabera jarduerak eragotziko zuen Bide publikotik Ibilgailuak Erretiratzeagatiko eta Ibilgailuak Udal Aretoetan Gordetzeagatiko Tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzan aurreikusitako tasaren zerga gertatzea, eta, ondorioz, eragotziko zuen tasa hori interesdunari ordainduarazi nahi izana, tasa horren subjektu pasibo gisa, aipatutako ordenantzaren 2.2 artikulua xedatutakoarekin bat. – Aurreko horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, zeinaren bitartez sortu eta arautzen baita erakunde hau, Jaun Txit Prestua zuri zuzentzen dizut ondoko,

G O M E N D I O A

Behar bezalako izapideen ondotik, (...) jaunaren esku jar dadila bere ibilgailua, (...) matrikuladuna, udal egoitzetan dagoena, eta horretarako ez du ibilgailua erretiratzeagatiko eta gordetzeagatiko inongo tasa kopururik ordaindu behar izango”.

Aurreko gomendioari emandako erantzunean, Bilboko Udalak jakinarazi zigan ez zuela gomendia onartzen, ondoko argudio hauetan oinarrituta: lehenik, interesdunak jakin bazekiela zorra zuela Bilboko Udalarekin, eta ez zuela inolako laguntzarik eman; interesdunak eduki zitzakeen kontuak bahitu arren, kontu horien gainean inolako informaziorik lortu ez zenez, bahituraren betekizunaren izapideak ibilgailuaren aurka jo zuela. Interesdunak eduki zitzakeen banku kontu horien identifikaziorik eza gertatu zen, horri buruz, hemezortzi banku-erakundetan eskatutako informazioak emaitza onik eman ez zuelako; bahiturari ekiterakoan, interesdunak ez zuela zorrari atxiki zekizkiokeen beste ondasunik aipatu eta eskatu zitzaionean bere borondatez ibilgailua ematea udal egoitzetan gordetzeko, interesdunak ez zuen eskaera bete; azken finean, huts hutsean, zordunaren erantzukizunari egotzi behar zaizkio erretiratze eta egonaldiarengatik tasak ordaindu behar izateagatik eratorritako ondorio txarrak. Hona hemen bere tesien sostengarri, Udalak erabilitako aurreikuspenak: Bizkaiko Biltzearen Araudiaren 134,4., 136. eta 153. artikuluetan barne hartutako aurreikuspenak, apirilaren 6ko 52/1993 Errege Dekretuak onetsitakoa. Azken tokian aipatutako aginduak, bere 2.c) artikulua zehazki, hauxe dio: premiamendu prozeduraren kostuen kontzeptuan barne hartuta daudela, “*bahitutako ondasunak gordetzeagatik eta administratzeagatik ordaindu beharreko gastuak*”. Halaber, Ibilgailuak Bide publikotik Erretiratzea eta Udal Aretoetan

Ibilgailuen Egonaldiaren Tasak arautzen dituen Zerga Ordenatzaren 2.2 artikulua edukia aipatu zuen, hauxe dioena: *“Ulertuko da administrazio jarduerak edo zerbitzuak ukitzen duela edo aipatzen duela subjektu pasiboa, honek berak, zuzenean edo zeharka, eragin duenean. Izan ere, subjektu pasiboaren jarduerak edo ez eginek Udala behartzen dute jarduerak edo zerbitzu eginkizunak ofizioz egitera”*.

Erantzunaren edukiaren kalterik gabe, Bilboko Udalak ez zuen inolako kontsideraziorik egin ondasunak bahitzeko indarrean dauden arauetan ezarritako lehenetsuneko ordenari dagokionez. Arrazoi hori dela medio, uste izan genuen komenigarria zela azpimarratzea gomendioa bete behar zela argudio hori erabilita. Udal zerbitzuetatik jasotako erantzun bakarra hauxe izan zen: halako data jakin batean bahitutako ibilgailuari baja eman zitzaioela Bizkaiko Probintzia Jefaturako Erregistroan. Ondorioz, ez zegoela harekin ibiltzerik.

- Emaiza

Aurreratu den bezala, Bilboko Udalarik gomendatu zitzaion ibilgailua interesdunaren esku jar zezala, deus ere ordaindu behar izan gabe erretiratzeagatik eta egonaldiagatik tasarengatik. Dena dela, aipatutako udalbatzak, azaldutako argudioetan oinarrituta, ez zuen onartu, adierazi denez, hasierako instantzia batean. Arartekoa behin eta berriz saiatu arren, udalbatza horrek ez zuen erantzuna aldatu. Horregatik, espedientea artxibatu egin zen beste inongo izapiderik gabe.

⇒ *Bilboko Udalaren ondare erantzukizuna, obra batzuen ondorioz oinezko bat espaloian erori eta hartu zituen lesioengatik. Obra horiek Bizkaiko Foru Aldundia burutzen ari zen (1446/96)*

- Erreklamazioa

Hiritar andre batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak bi administrazio-erreklamazio atzera bota izana, ondare erantzukizunagatik aurkeztuak zirenak. Hiritar honek bere amaren ordezkari izan zela eta erreklamazio horiek, hurrenez hurren, bi erakunde horietan aurkeztu zituen bere amak jasandako lesioengatik. Izan ere, estrapozo egin eta Bilboko hiriguneko espaloio batean erori zen, Bizkaiko Foru Aldundia burutzen ari zen obra batzuen ondorioz.

- Azterketa

Batetik interesdunak, eta bestetik Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eta Bilboko Udal zerbitzuek guri emandako informazioa ikusita, aferaren balorazioa egin eta ondoko gogoeta hauek bildu genituen:

1. Arartekoaren iritzipean jarritako aferaren ebazpenak, batez ere, ekin zion zehazteari ia zein administrazio hartuko ote zuen bere gain interesdunak jasandako lesioengatik erantzukizuna. Izan ere, hala Bizkaiko Foru Aldundiak nola Bilboko Udalak errefusatu zuten, argudio ezberdinak erabilita, inolako erantzukizunik izatea. Gure iritziz, horixe zen gure eginkizun nagusia. Izan ere, lesioak benetakoak ziren eta bere kasuan, aitortua izan da lotura kausala badela lesio horien eta aipatutako administrazio horietako baten ohiko edo ez-ohiko funtzionamenduaren artean. Ondorio hori atera ahal izan genuen, beste iturri batzuen artean, bere egunean, Bilboko Udaleko Obra eta Zerbitzu Alorreko Zuzendariak igorri zigun txostenaren edukitik, hauxe zioena: *«Honenbestez, ez dakioko, tankera kompetentzialetako kontsiderazio orokorretan oinarrituta, (...)*

andreak jasandako kalteen inputabilitatea kendu obren ardura zuen erankudeari, zeinak betebeharrak zehatzak baitzituen seinaleztapena eta oinezko nahiz ibilgailuen zirkulazio librearen bermeari dagokionez”.

2. Afera aztertu ondoren, hauxe izan zen atera genuen ondorioa, hots, interesatuak jasandako lesioen erantzukizuna Bilboko Udalari zegokiola. Bere erantzukizuna errefusatzerakoan, aipatutako udalbatzak honela argudiatu zuen bere ezezkoa: obra horiek, zeinaren behar ez bezalako seinaleztapenak lesioak eragin baitzituen, Foru Aldundiaren eskutik eramaten ari zirela aurrera, eta lan horiek egiteko emandako lizentzian ezarritako baldintza teknikoaren arabera, erakunde horrek obren seinaleztapen osoa paratu behar izan zuela, eta behar bezalako neurriak hartu oinezkoen nahiz ibilgailuen zirkulazio librea bermatzeko, hala nola higiezinatarako sarbideak bermatzeko.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26.1 artikulua eta Tokiko Araubide Alorreko Indarreango Legezko Xedapenen Testu Moldatuaren 74. artikulua, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak onetsia, inolako zalantzarik gabe zehazten dute udalen eskuduntza eta erantzukizuna bide publikoaren kontserbazioaren alorrean. Udal jarduera horrek berekin dakar behar bezalako zaintza eta polizia jardura. Gertaerak gertatu ziren egunean, bide publikoa ez bazegoen libre eta oztoporik gabe, eta ikusten denez oinezkoen mugikortasuna oztopatzen zuten obrak ez zeuden behar bezala seinalizaturik, agerikoa da udal zerbitzuen aldetiko ez-egitezko zaintzako betebeharraren erantzukizuna. Ondorio honetara iristeko ez litzateke oztopo izango, obren sustatzaileak edo, bere kasuan, lanak burutuko zituen enpresak behar bezala seinalizatu ez izana, dagokion lizentziak horrelaxe eskatuta ere. Ez-egite hori konpon zitekeen eta konpondu beharko zitekeen udal zerbitzuen jardura baten bitartez.

3. Ondorio hori bermatzen duten Justizia Auzitegien hainbat erabaki gaira ekarriko ditugu, ondorioaren sostengarri. Horrela, 1994ko azaroaren 10eko AGren epaiak dioenez, «...erakunde errekurtsio egilearen zerbitzu publiko propio eta espezifiko baten funtzionamendu akasduak, kausa ondorio tankeran, sortu du kalte hori, hots, tokiko kale eta pasealeku publikoaren oinarritzko eta gutxienezko seguritate baldintzen mantenimendua xede duen administrazio-jarduerak. Izan ere, Tokiko Administrazioaren erakundeek badute ezin desenkusatzeko betebeharrak delako bide publikoak zabalik mantentzeko oinezkoen eta bideko zirkulazioari begira, eta baldintzek bermatu behar dute, kaleak eta bide horiek erabiltzen dituzten horien seguritatea, bide horien xede zehatzerako beharrezkoak diren mantenimenduen alderdi materialei buruz behintzat. Eta ez da onargarri bide horiek oinezkoen zirkulazioaren arauak oztopatzea eta eragozteak, esate baterako, zuloak, areagordetegiak edo beste materialenak, e.a. ez, behintzat, ez badaude behar bezala seinalizaturik edo ez badira behar bezalako neurriak hartzen gertakari kaltegarrien prebentziorako”. Beste alde batetik, 1994ko abenduaren 20ko AGren epaiak dioenez «.. jasota ez dagoenez usaera horretako titularrari eskatu zitzaioela behar bezalako egokitzapena, horrek esan nahi du (...)ko Udalaren aldetiko zaintza eskaxa izan zela herri horretako bide publikoaren kontserbazioari begira, eta horrek esan nahi du oker dabilela bere gain dituen zerbitzuen funtzionamendua, Udallerriaren karriken kontserbazioari eta arretari dagokionez, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 26. artikulua eta bere Testu Moldatuaren 74.ak halaxe aginduta”.

4. Arestian aipatu den bezala, Bilboko Udalaren iritziz, Bizkaiko Foru Aldundiari interesdunaren lesioak egotz ziezazkiokkeen, eta horren ondorioz, lesio horien ordaina ere bai. Erakunde hori zelako istripuaren sorburuan dauden obren sustatzailea, eta obra

horiek burutzeko lortua zuen behar bezalako udal lizentzia, halako baldintza tekniko batzuen betekizunaren mende zegoena. Baldintza horien arabera, titularraren ardurapean zegoen obren seinaleztapen osoa egitea eta behar bezalako neurriak hartzea ibilgailuen nahiz oinezkoen zirkulazio librearen bermatzeko, hala nola higiezinatarako sarbidea bermatzeko. Aipatutako udalbatzaren ustez, baldintza horiek bete ez izana izan zitekeen foru erakundearen erantzukizunaren funtsa.

Bizkaiko Foru Aldundiari, obren sustatzailea izateagatik egin zaion aurreko erantzukizun-egozte horri dagokionez, merezi du Auzitegi Gorenaren 1990eko ekainaren 5eko Epaiaren bildutako tesia nabarmentzea, tankera bereko afera bat epaitzerakoan hau esaten baitu: *“Delako horma edo kai-muturra modu bertikalean bukatzen zen tokiko argi publiko ezaren kausaz eta arrisku edo ohartarazpen seinale ezaren kausaz, paseorako leku jendetsua izan arren, gertatu zen aipatutakoen nahigabeko erorketa, lesioak hartuz... (...)Udalak argudiatu zuen legitimazio pasiborik eza, haren iritziz, errurik izatekotan, nolana ere, errua legokiokelako Asturiasko Kostaldean Jefaturari, Herrilaren Ministerioaren mende dagoen erakundea. (...)Bada, produkzio lesiboaren arrazoi zuzena eta eraginkorra ez dator aipatutako hormaren eraikuntzatik, erabat bukatua dagoena bere egiturari eta xedeari dagokionez (itsas mareen euskarri) gertaerak jazo baino urtebete lehenago, baizik eta inola ere argirik edo ageriko arrisku seinalerik toki hartan ez izatetik. Eta hain zuzen ere, hala 1969ko apirilaren 26ko Kostaldean Legearen 17. artikulua, nola bere Arautegiaren 44.ak, Udalei egozten diete moraltasun, higieze eta osasungarritasun alorretako polizia eskuduntza eskusiboa, hala nola txukuntasunari eta garbitasunari dagokion oro, eta behar bezalako neurriak hartu behar dituzte pertsonen eta gauzen seguritateari begira. Alor hauek, erraz atera daitekeenez, ez dute zerikusirik hormaren eraikuntzaren egilea nor ote izanarekin.”*

5. Horrez gain, Bilboko Udalak ere nabarmentzen zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzukizuna, obra lizentzia bat eskuratu zuelako eta lizentzia hori lotuta zegoelako zenbait baldintzen betetzeari. Horri dagokionean, -aldez aurretik lizentzia bat izatea, zeinak baldintzatzaileak ezartzen baititu halako jardura jakin bat aurrera eramateko-elementu erantzukizun gabetzaile gisa, hauxe dio auzitegi Gorenak, 1995eko apirilaren leku epaian:

“...Administrazioaren ondare erantzukizuna, zeina barne hartzen duten Konstituzioaren 106.2, 1957ko Estatu Administrazioaren Lege Araubidearen Legearen 40. eta Nahitaezko Desjabetzaren Legearen 121. eta 122. artikulua, eta toki erakundearen ondare erantzukizunari dagokionez, Tokiko Araubidearen Oinarrizko Legearen 54. artikulua, osatzen da erantzukizun objektibo edo emaitzako erantzukizun gisa, zeinetan berdin baitio administrazio jardura ohikoa ala ez ohikoa izan den, eta erantzukizun hori aitortzeko aski da jardura haren ondorioz, kalte eraginkor bat gertatu izana, diruz neurgarria eta indibidualizatua.

Instantzien Aretoan epaitutako auzian artifiziozko suak burutu ziren behar bezalako udal lizentziarekin eta lesioak eragin zituen trakaren ignizioa festen Anaidi antolatzaileko bi kidek behintzat piztu zuten. Beraz, ezin da esan erakustaldi pirotekniko hau izkutukoa denik, modu horretan kontra eginez administrazio errekurtsio egileari, baina lizentzia eman izan balu arestian aipatutako gabetze klausularekin, Udaltzainek, errekurritutako epaian esaten denez, arduratu behar izan zuten seguritate neurri egokiak har zitezten, modu horretan galarazteko jardura mota horietatik erator daitezkeen arriskuak, Tokiko Udalbatzen Zerbitzuen Arautegiaren 1.1 artikulua eskatzen duen bezala”.

6. Beste gauza batzueetara etorrira, Bilboko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean jardun zezakeen errepikatze aukerei dagokienez, 1994ko azaroaren 10eko aipatu epaiak dioenez, «*kale baten lurzorua kontserbazio betebeharraren delako omisioa, (...) zeinaren ondorioak, beraz, egotz baitakizkioke errekurtsio egileari (Udala) delako zerbitzu publiko aipatu horretako titular gisa, bazter utzita (...) Ministerioak egin izana argi zerbitzu horren instalazioa edo bazter utzita zerbitzu hori (...) Autonomia Erkidegora eskualdatua gertatu izana ala ez, eta zerbitzu hori Udalak bere gain hartu izana ala ez, kalterik egin gabe tokiko erakundeak, egoki irizten baldin badio, dagozkion atzerabide-ekintzak bideratzeari bere kasuan, dagozkionaren aurka*».

- Emaizta

Bilboko Udalari gomendatu zitzaion, dagozkion espedientean emandako ebazpenaren ezeztatzearen bitartez eta behar bezalako izapideen ondotik, aitor zezala interesdunak jasandako lesioengatik zegokion administrazio-erantzukizuna, eta ekin ziezaiola zuzenbidearekin bat datorren kalteordaina ordaintzeari. Bilboko Udalak ez zuen gomendioa onartu.

⇒ *Organo izapidegileak behar adina frogatik egin behar izatea, erreklamazio egileak ondare erantzukizuna osatzen duten alegatutako ekintzak frogatu ahal izan ditzan (179/98)*

- Erreklamazioa

Arartekoaren iritzipean jarri zen hiritar andre batek Getxoko Udalaren aurrean aurkeztutako ondare erantzukizuna onartu ez izana, udalerriko espaloi batean erori eta hartu zituen lesioengatik. Hiritarrak seinaleztapen hesiari lotutako zinta batekin egin zuen estrapozo.

Erantzukizuna ez onartzeko arrazoiak izan zen ez zegoela inolako udal lanik, eta, ondorioz, ez zitekeela inolako zintarik izan, eta horrela, ez zen frogatu lesioa gertatu izana udal zerbitzu publikoren baten funtzionamenduaren ondorioz.

- Azterketa

Aldez aurretik, komenigarria da zehaztea zein legezko markotan kokatzen den Administrazioaren ondare erantzukizunaren institutua. Konstituzioak, 106.2 artikuluan, bildu egiten du badutela hiritarrek ordainduak izateko eskubidea haren ondasun eta eskubide orotan jasandako edozein lesioengatik, ezinbesteko kasuetan salbu, bandin eta lesioa zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorio bada. Araubide hau aldez aurretik bilduta zetorren konstituzio aurreko beste arau batzuetan (Estatu Administrazioaren Lege Araubidearen Legearen 40 artikulua, Nahitaezko Desjabetzaren Legearen 121. artikulua eta honekin bat datozenak) Administrazio Publikoen Lege Araubidearen eta Administrazio Prozedura Amankomunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeak garatua. Aipatutako xedapen arau emaleak bere X. tituluaren gauzatzen du partikularrek duten eskubidea administrazioek kalteordainak eman diezazkieten haien ondasun eta eskubideetan jasandako kalteengatik, ezinbesteko kasuetan izan ezik, badin eta kaltea zerbitzu publikoen ohiko edo ez ohiko funtzionamenduaren ondorio bada.

Zehazki, legezko testutik beretik eratortzen dira kalteordaina jasotzeko eskubidearen sorrera ziurtatu ahal izateko betebeharrak, hala nola Auzitegi Gorenaren legejakintza

ugaritik (besteak beste, nabarmentzeko modukoak dira 1980ko otsailaren 2ko RJA/743 epaia, 1984ko irailaren 25eko RJA/221 epaia eta 1995eko maiatzaren 25eko RJA/4.031 epaia).

Horrela, hona hemen batera agertu behar duten beharrezko osagaiak ondare erantzukizuna sor dadin:

- a) kalte edo galera eraginkorra gertatu izana, diruz neurgarria eta indibidualizatua pertsona edo pertsona talde bati dagokienez,
- b) erreklamazio egileak eragindako ondare kaltea edo lesioa, zerbitzu publikoen ohiko edo ez ohiko funtzionamenduaren ondorio izan dadila, kausa-ondorio tankerako erlazio zuzenean, berehalakoan eta eskusiboan, nexu kausala aldatzeko moduko eragina izan zezaketen kanpoko elementuek eskuhartu gabe,
- c) ezinbestekotasunik ez izatea
- d) erreklamazio egileak ez dezala izan bere jokaerak berak eragindako kaltea jasateko betebeharrak juridikoa, eta
- e) era berean, eskatzen da iraungia ez dadila egon erreklamazioa egiteko eskubidea, gertaerak gertatu zirenetik urtebetea joan izanagatik.

Horregatik, Konstituzioak dakarren ondare erantzukizunaren araubidea izaera objektibokoa edo emaitzazkoa da, eta ez zaio beharrezkoa zerbitzu publikoen jardunean edo omisioan errurik edo arretagabeziarik gertatu izana. Horrexegatik, administrazio-organoak aldeko ebazpena eman beharko du, zerbitzu publikoen ohiko edo ez ohiko funtzionamenduaren eta eragindako lesioaren arteko kausalitate tankerako erlazioa frogatzen denean.

Horrela, administrazioen erantzukizunaren funtsa hauxe da: hiritarrak ez ditu jasan behar administrazioaren jardueraren ondorio lesiboak edo kaltegarriak.

Aztertutako kasuan, udalerriek eskunduntza dute toki publikoetan seguritate zerbitzua emateko eta horrekin batera hiribideen mantenimenduaren zerbitzua ere bai. Halaxe agintzen baitu Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikulua.

Frogaren karga, hala kaltearena nola kausalitate tankerako erlaizoarena, alegazioegileari dagokio. Horrela, administrazio espedientearen tramitazioaldian, frogatu beharko da benetan kaltea gertatu izana eta kalte hori eragin duela udal zerbitzu baten funtzionamenduak.

Horrela, interesdunak dio erorketa gertatu zela babes hesi batzuk lotzen zituen zinta batengatik. Izan ere, jabe-erkidego batek eskaturik, hesiak hantxe paraturik zeuden, fatxadatik harlauza batzuk erori zirelako.

Udal injineruaren txostenean jasota dagoenaren arabera, -ez da esaten, inola ere, zintarik ez dagoenik- seinaleztapen zintak ez zuen bideetako Udal Brigadaren ezein lanarekin zerikusirik. Tokiko Poliziaren ofizial buruak dio, bere egoitzetako artxiboak begiratuta, ez dagoela deklarazio horrekin lotura duen inongo daturik. Hala ere, zinta izan zeneko deklarazioa egin zen udaltzainen aurrean alegatutako ekintzen ondotik.

Nolanahi ere, Udal horrek, bere aldetik esaten zuen ez zegoela egiazaturik alegatutako ekintzen nahikoa frogarik, ezta kausalitate tankerako akreditaziorik ere.

Halaber, Udalak dio espediente horretan ez zela lekukotasun-frogarik egin, erreklamazio egileak ez zuelako eskatu eta espedientearen tramitazioaldian emandako txostenak ikusita, ez zitzaiolako egoki iritzi izan.

Dena dela, erreklamazio egileak aurkeztutako alegazioetan eskatu zen ekintzen lekuko batzuk dei zitatzela lekukotasun froga egiteko, bide publikoan oztopoak ote ziren egiaztatze balio zezaketenak eta ekintzen zehaztasunari buruz deklaratzeko.

Honengatik guztiagatik, Arartekoaren iritziz, ondare erantzukizunaren espedientearen organo instruktoreak frogaldia ireki behar izan zuen, 429/1993 Errege Dekretuaren 7. eta 9. artikuluetan oinarrituta, eta frogaldi horren bitartez, zehatz mehatz ezagutu ahal izango zen ekintzen egiazkotasuna. Eta erakundeak uste du, arestian aipatutako inguruabarretan oinarrituta, pertsona horien hala nola auzolagunen erkidegoaren testigantzari erreparatuta, badirela behar adina elementu ondorioztatu ahal izateko Udalari ekintza horiek egotz dakizkiokela.

- Emaizta

Horregatik, gomendio bat zuzendu zen, egindako eskaeraren ebazpen desestimatorioaren ezeztatzea eskatzeko, aipatutako ebazpenak ez zuen-eta uste izan, -martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren 7. eta 9. artikuluek diotenarekin bat-, frogen bideak, eta zehazki, lekukoen deklarazioak balio zezakeenik eragindako kaltearen eta hiribideen mantenimendua eta arretarako udal zerbitzuaren funtzionamenduaren arteko kausalitate zuzena, berehalakoa eta eskusiboaren erlazioa argitzeko.

Getxoko Udalak berretsi zuen alegaziogaiak ezin izan zirela behar bezala egiaztatu, eta horixe izan zen erreklamazioa atzera botatzeko arrazoa. Era berean, Udal horrek esan zuen ez zela ofizioz inongo frogaldirik ireki erreklamazio egileak eskatu ez zuelako eta ez zelako egoki iritzi. Izan ere, tokiko erakunde horren aburuz, seinaleztapen zinta hori jasorik egonda ere, ez zuen, inola ere zerikusirik udal zerbitzuekin, partikularrei dagokielako babes neurri egokiak hartzea.

Horri honela erantzun zitzaion: egia izanik ere, prozeduraldian ez zela argi eta garbi frogatzerik izan ekintza horiek gertatu izana, gogora ekarri zen, erreklamazio egileak idazki bidez, espreski ondoko hau planteatu zuela, lekukotasun frogua bat formalki ez eskatu arren: “*era berean, haren esku jartzea, beharrezkoa izanez gero, gertaeran izan ziren lekuko batzuen lekukotasuna*”. Alegazio hori ikusita, Arartekoaren iritzia izan zen organo instruktoreak frogaldi bat hasi behar izan zuela, zehaztasunez argitzeko ekintzak nola gertatu ziren.

Alde honetatik, adierazi beharrean gaude ondare erantzukizunean *onus probandi*-a alegazio egilearengan datzala. Hala ere, organo instruktoreak behar adina frogua eta egiaztatze egin eta erraztu behar ditu, objektiboki argitzeko hiritarren asmoa, eta frogaren karga inola ere ez daiteke izan bete ezin den eskakizuna.

Orain aztertzen ari garen kasuan, gogoratu beharrean gaude nondik abiarazi garen: andre batek estropozo egin eta lesio batzuk izan zituen. Ezin zaio une horretan, udaltzain bati deitzeko moduko adorerik eta hoztasunik eskatu, gertaerak ziurta zitzan, humeroa hautsi baitzuen. Beraz, garrantzizkoak dira erreklamazio egileak, lekukoen bidez, aurkeztu zitzakeen testigantzak, interesdunak berak bere idazkian adierazten zuenez.

Ikuspegi honetatik, esan dezakegu ezen organo instruktoreak ez baldin badu kontuan hartzen lekukoen testigantza-adierazpena, ezinezkoa dela erreklamazio egileak asmoa frogatu ahal izatea.

Honengatik guztiagatik, erakunde honen aburuz, Udal horrek ez zuen gomendioa onartu. Beraz, gure jarduerarako aukerak agortuta zeudelakoan espediente itxi eta artxibatu egin genuen.

C) Administrazio Kontratazioa eta Ondasuna

⇒ *Kontratuaren arau erregulatzailleetan ezarrita ez dauden irizpideetan oinarriturik dagoen lehiaketa baten esleipena. (1465/98)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailak lehiaketa publiko bat esleitu izana, delako lizitazio horren arau erregulatuarekin aurreikusita ez dauden irizpideetan oinarrituta egin zelakoan. Lehiaketa hori erreprodukzio zerbitzu batzuen kontrataziorako antolatu zen.

- Azterketa

Zeuden aurrekariak ikusita, Arartekoak txosten bat igorri zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailera, besteak beste, ondoko kontsiderazio hauek biltzen zituen:

“3. Gure iritziz aintzat hartu beharreko kexaren alderdiaren azterketari ekingo diogu. Aipatutako lehiaketan egindako esleipenaz ari gara, noski. Lehiaketako Administrazio Klausula Berezien Pleguaren eta Betebehar Teknikoen Pleguaren arabera, administrazio eskudunak aurrez zehaztutako esleipen irizpideak, Administrazio Publikoen Kontratuak arautzeko maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen 87. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, hauexek ziren: a) Erreprografia establezimenduaren gaitasun teknikoa (%40); b) Esperientzia antzeko lanetan (%30); c) Erreprodukzioaren Prezioa (%20) eta d) Langilego Dotazioa (%10).

Kontratuen Legearen 89.2 artikulua dioenez: “*Administrazioak ahalmena izango du kontratua proposamen abantailatsuenari esleitzeko, 87 artikuluan ezarritako irizpidean oinarrituta, proposamen horren balio ekonomikoa, nahitaez, atenditu behar izan gabe, edo lehiaketa eman gabe utz dezake, baina nolana ere, administrazioak bere ebazpena arrazoitu behar du, pleguan agertzen diren lehiaketaren esleipenerako irizpideei aipu eginez*”. Beltzez dagoen pasarteak lege berriak sartu dio Estatuaren Kontratuen Lege indargabetuaren 36. artikuluari.

Esleipen proposamenean, kontratazio organoari igorri zaiona, eta ondoan erantsitako alderaketa-koadroan esleipen irizpideei buruzko datuak eta balorazioak sartzen dira, inola ere koantifikatuak ez daudenak. Halaber, irizpide horietan sartuta ez dagoen osagai bati buruzko datuak eta balorazioak biltzen dira: enpresaren helbidea. Proposamenean islatzen denaren arabera, azken osagai hori funtsezkoa izan da proposamena prestatzerakoan, esleipen irizpideetan sartuta ez dagoen arren, eta aipatutako txostenean hauxe esaten den arren: “*Aurreko koadroan agertzen diren datuei erreparatuta, eskaintza onena, modu konparatiboan, (kexaren sustatzailearena) da, eta jarraian (esleipendunarena)*”. Gure iritziz, proposamen horrek, esleipena egiterakoan kontratazio organoak aintzat hartutakoa, aipatutako 89.2 artikuluan aurreikuspenak hautsi ditu. Izan ere, proposamen horren prestaketan aintzat hartu da lehiaketeren oinarrietan berez sartuta ez zegoen irizpide bat, eta legejakintzak behin baino gehiagotan ezarria duenez, lehiaketa Kontratuaren Legean oinarritzen da.

Aurreko ondorio horren sostengarri, jakingarri gerta daiteke Errioxako Auzitegi Nagusiko Areto Kontentzioso administratiboak, 1997ko apirilaren 2an, emandako Epaiaren edukia islatzea, hauxe dioena: “*arrazoitze eskakizunak <nolana ere> (Kontratuen Legearen 89.2 artikuluari buruz ari delarik) ez dirudi zalantzak eskaintzen dituenik bi alternatibei buruz ari denaz, eta delako arrazoitzea egin behar izateaz aintzat hartuta lehiaketaren pleguan agertzen diren <esleipen irizpideak>. Azaldutakoarengatik, ondoriaztatzen da delako ahalmen alternatibo horrek, ageriko izaera diskrezionala duen arren, ez ditzakeela modu arbitrarioan*

erabil kontratazio organoak, ahalmen hori erabili behar baitu delako irizpideei jaramon eginez, irizpide horiek baitira interes publikoaren babesik onena islatzen dutenak, konkurritzaileen interesak bermatzen dituztenak eta hartutako alternatibaren berrikusketara jurisdikzionala ahalbidetzen duena, modu horretan akordioaren legezotasuna egiaztatzeko eta botere desbideratze bat saihesteko. (Bigarren Funtz Juridikoa)

Gauzak horrela, epaitutako suposamenduan, lehiaketa eman gabe uztearen ebazpena ez dago arrazoitu gabe, eta demandak dioena ez bezala, badu arrazoirik, baina ez da Legeak ezarritako arrazoiak, hau da, pleguan finkatutako esleipen-irizpideen ezein aipamenik ez du sostengarazten juridikoki hartutako neurria; beraz, ez daiteke delako ebazpen hori zuzenbidearekin bat datorrenik esan, eta ezabatu behar da. (Hirugarren Funtz Juridikoa).

Horrez gain, Auzitegi horren beraren 1997ko irailaren 12ko epaiak ere dakarrenez 'Legejakintza errotuak dio baldintzen plegua Kontratuaren Legea dela eta horregatik, eskaintzarik abantailtsuena zehaztu beharko da baldintzen pleguaren arauetara jarraikiz, bertan biltzen baitira irizpide objektiboak kontratista hautatzerakoan, kontratazio publikoan irregulatasunak saihesteari begira.'".

- Emaizta

Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailari, lege antolamenduan aurreikusitako izapideen ondotik, gomendatu zitzaion indarririk gabe utz zezala Herrilanetako Foru Ahalduaren Agindua, zeinaren bitartez ekin baizitzaion aipatutako lehiaketaren esleipenari, eta dagokion kontratazio espedientea atzera eraman zezala proposamen aldira, eta proposamenaren prestaketan kontuan hartu beharko liriteke, huts hutsean, dagozkien pleguetan aurreikusitako esleipen irizpideak.

D) **Administrazio antolaketa**

⇒ *Metro Bilbao enpresaren egoitza barruko erorketek eragindako lesioetatik datorren izaera objektiboko ondasun erantzukizuna (553/97/23, 728/98/23, 1963/98/23 y 2140/98/23)*

- Erreklamazioa

Hiritar batzuek Arartekoaren iritzipean kexa hau jarri zuten. Metroaren barruan izandako erorketek eragindako kalteengatik kalteordaina jaso nahi zuten Metro Bilbao etxearen eskutik, garraio zerbitzu publiko horren funtzionamenduren ondorioz gertatu baitziren. Metro Bilbao etxeak atzera bota zuen eskaera hori.

- Azterketa

Kexa-idazki horiek ikusita, Metro Bilbaoko Zuzendaritza Orokorri erreklamazio horien gaineko informazioa eskatu zitzaion, hala nola erreklamazioak bideratzeko jarraitu zen prozedurari buruzkoa.

Horrela, guri igorritako txostenean, Metro Bilbaok uste zuen merkataritza izaerako etxeaenez, soil soilik bere jardueratik datozen erruzko edo arretagabezko akzio edo omisioei buruzko erantzukizuna duela, Kode Zibilaren 1.902. artikulua eta hurrengoek ezartzen duten bezala. Horrela, bazter uzten da erantzukizun objektiboaren edo emaitzari begirako erantzukizunaren edozein seinale, aipatutako gorabehera horiek ez baitzeuden

Bidaia-erregimenaren derrigorrezko Asegurua bildutako kasuen barrenean, hori ez zen-eta abenduaren 22ko 1.575/89 Errege Dekretuak babestutako kasua, zeinak eskatzen baitu ibilgailuaren barruan egotea. Era berean, azpimarratu zen, izaera pribatukoa zenez, sozietate publiko horrek bere aurrean aurkeztutako erreklamazioak bideratzen dituela barne prozedura baten arabera, Administrazio Publikoen Lege Araubidea eta Administrazio Prozedura Amankomuna arautzen duen azaroaren 26ko 30/92 Legaren xedapenak eta 429/1993 Errege Dekretua aintzat hartu gabe, zeinaren bitartez jarraitu beharreko prozedura ezartzen baita, argitzeko administrazio publikoek erantzunkzuna duten ala ez.

Informazio horiek ikusita, eta horien edukia aztertu ondoren, kontsiderazio batzuk igorri zitzaizkien hala Metro Bilbao S.A.ri nola Bizkaiko Garraio Partzuergoari, hauxe baitzen aurreko enpresa kudeatzen zuen zerbitzu publikoaren titularra.

Horietan abiatzen zen Metro Bilbao S.A.ren izaera eta erregimen juridikotik, modu horretan argitzeko zer nolako erantzukizunak hartu beharko lituzkeen bere gain, hala nola argitzeko zein prozedura eta zein berme hartu behar diren aintzat, hiritarrei eragin dakizkiokkeen kalteei aurre egiteko obligazioarik ote den ebazterakoan, zerbitzu publiko honen funtzionamenduaren ondorioz.

Metro Bilbao S.A. sozietate publikoaren eraketa abenduaren 30eko 44/1975 Legeari zor zaio, zeinaren bitartez sortu baitzen Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tokiko erakunde gisa, garraioaren zerbitzu publikoa betetzeko, sozietate anomimo bidez kudeatua. Xede horretarako, erabaki zen tokiko sozietate publikoa eratzea, zeinaren kapital soziala osotasunean Partzuergoarena baita, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuaren 110.5 artikuluan bildutako aukera zehatzaren arabera, zeinaren bitartez onesten baita tokiko erregimenaren alorrean indarrean dauden legezko xedapenen Testu Moldatua.

Trenbide metropolitanoaren kudeaketaren enpresa publiko honen marko juridikoa eraketa-idazkian bilduta dago merkataritza sozietate gisa. Horrela, estatutu sozialetan, halaxe dio lehenbiziko artikuluan: *“Sozietatearen arauak izango dira, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren xedapen erregulatuak barne egonik, Estatutu horien eta merkataritza legeriaren indarrez, aplikagarri zaizkionak, Sozietate Anonimoen lege araubidea arautzen duen huraxe, bereziki, Estatutu horien hogeita eta batgarren artikulua xedatutakoa salbu. Hori guztia, kalterik egin gabe bere kapitalaren titularitatearekin eta bere xedeak duen zerbitzu publikoko izaerarekin bat datozen administrazio-arauei aplikazioari”*. Esaten da sozietate publiko honen izaera merkataritza tankerakoa dela eta dagozkion sozietate-arauei bidez arautu behar dela. Bere lege-araubidea, ordea, ezberdina da, egiten ari diren eginkizunak antolaketa mailakoak diren –antolamendu pribatuari jarraituko zaio-, edo eginkizun horiek zerbitzu publiko baten kudeaketatik datozen, edo bere kapitalaren titularitate publikoan eragiten duten. -administrazio-arauei jarraituko zaie.

Horrela, enpresa honen eraketa, Administrazioari dagokion zerbitzu publiko baten kudeaketa zuzena betetzeko, merkataritza izaerako sozietateak aipatuz egiten da, eta horrela, enpresa eratzen da, dagokion merkataritza legeriaren arabera. Dena dela, bere arau sortzailean, bada zuzenbide publikoari egiten zaion aipamen zuzena eta loteslea, kontuan hartuta hala bere jatorriaren nola bere xedearen berezitasuna. Hala ere, ez da aipamen zehatzik egiten noiz aplikatu behar diren zuzenbide pribatuko arauak eta noiz administrazio-arauak, eta hori zehaztu beharreko afera da.

Planteatutako kasuari dagokionean, beharrezkoa zen mugatzea zein araudiri jarraitu behar zaion Metro Bilbaoren erantzukizunari doakionez: erruaren erantzukizuna besterik

jasotzen ez duen araudi zibila, edota, erantzukizun objektiboa, soilik emaitzari begiratzen zaiona, eta zerbitzu publikoetan agintzen duena.

Abiapuntu gisa, esan behar da Metro Bilbao S.A.k, funtsean, xede publikoa duela, hots, Bilboko trenbide metropolitanoaren kudeaketa, bere estatutuen 2. artikuluan jadanik adierazia. Horrela, zerbitzu publiko hau betetzeko Administrazio eskudunak, kasu honetan Bizkaiko Garraio Partzuergoak, kudeaketa zuzena aukeratu du, merkataritza sozietate honen bidez trafiko pribatuan nola halako zalutasuna emateko xede garbiarekin. Horrek, inola ere ez du esan nahi bere estatutu sozialen lehen xedapen aipatuaren arabera, sozietate hori bakar bakarrik eta huts hutsean zuzenbide pribatuaren mendean dagoenik, baizik eta begiratu beharko dela sozietate anonimo honen eginkizun eta eskumen bakoitza, kasuz kasu ikusteko sozietatearen alde pribatua edo bere alde publikoa.

Beste alde batetik, azpimarratzen zen Oinarrizko Arauak berak merezi duen lotura botere publikoekin. Horrela, 9.1 artikulua dioenez, botere publikoek Konstituzioak berak nahiz gainontzeko antolamenduak ezarritako aginduen menpe egon behar dute. Enpresa publikoak "botere publikoak" kontzeptuaren barrenean sartzea jadanik, argitua izan da Auzitegi Konstituzionalak emandako zenbait epairen bitartez (ikus, besteak beste: 1983ko maiatzaren 7koa, 1986ko urtarrilaren 31koa eta 1994ko otsailaren 24koa).

Aurretik azaldutako horregatik atera daitekeen lehendabiziko ondorioa da enpresa publikoak lotzen direla Konstituzioak gauzatzen dituen eskubide eta askatasunekin. Horrela, haien jarduerak, eskubide horiekin bat egin behar du. Beste afera bat litzateke zerbitzu publikoen erantzukizun objektiboaren printzipioaren aitortpena, 106.2 artikulua biltzen duena legeak barne hartuko dituen baldintzetan.

Are gehiago nabarmentzeko, adierazi zen konstituziogileak delako 106.2 artikuluan ezarri zuela hiritarrek duten eskubidea euren ondasun eta eskubideetan hartzen duten lesio ororengatik ordaina jasotzeko, eta hori, *zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorio den lesio* orori dagokionez. Horregatik, ondorioa izan zen Konstituzioaren xedapen horrek biltzen duela, zerbitzu publikoen funtzionamendutik datorren erantzukizun objektiboa, hori edozein izanda ere Administrazioak aintzat hartu duen kudeaketa moldeak. Bestela, tratu-ezberdintasuna litzateke, tratu hori funtsatuko lukeen inolako arrazoinamendu objektiborik gabea, zerbitzu publikoaren kudeatzailearen arabera. Horrela, Konstituzioak bermatzen du zerbitzu publikoek eragindako kalteengatik erantzukizun objektiboa, eta testuinguru horretan, erabat hutsala da zein kudeaketa mota hautatzen den, hots, erakundearen beraren bidezko kudeaketa zuzena ala beste erakunde autonomoen bidezko kudeaketa; are gehiago, esaterik ere bada hiritarrek ordaina jasotzeko duten eskubideak ez duela aldatu behar kudeatzailearen arabera. Bestela, egoera horrek kontra egingo lioke berdintasunaren printzipioari, Konstituzioak bere 14. artikuluan dakarrena, eta arestian esana gelditu den bezala, printzipio horiek modu berean lotzen ditu hala enpresa publikoak nola botere publikoak.

Halaber, adierazten zen jarraitu beharko litzatekeela, Nahitazeko Desjabetzaren Legearen 123. artikuluan bildutako prozedura, edo, nolahi ere, mantendu beharko lirateke interesdunaren publizitate, kontradikzio eta entzute printzipioak, zeintzuek beti eskuhartu behar baitute botere publikoen jardunean.

Aurrekoa kontuan hartuta, Arartekoaren iritziz, baziren behar adina akats juridiko beste espediente baten hasiera eskatzeko, modu horretan berme handiagorekin argitzeko, hartutako kalteak Metro Bilbaori egotz zekizkiokeen ala ez. Horrela, Arartekoak gomendio bat zuzendu zion Metro Bilbaori zentzu horretan, eta horren berri ere eman zitzaion Bizkaiko Garraio Partzuergoari, zerbitzu publikoaren titular gisa.

Garraio Partzuergoak erakunde honi kontsiderazio batzuk igorri zizkion. Horien arabera, ez zegoen ados gure irizpidearekin. Emandako erantzunean, partzuergoak uste du egokiro bideratu dela aurkeztutako erreklamazioaren espedientea eta Metro Bilbao S.Ak pertsonalitate juridiko propioa duela, eta enpresa horri dagokiola sortutako erreklamazioen tramitazioa eta ebazpena.

Horri lotuta, erakunde honek, ondorio gisa, esan zuen, bazter utzita jarraitutako prozedura eta nork bideratu behar duen erreklamazioa, Bai Bizkaiko Garraio Partzuergoak, bai Metro Bilbaok, bi erakundeak saiatzen ari direla lege antolamendua neurritz gora baliatzen, edo, nolana den, antolamendutik ihes egiten ari dira. Hori esan daiteke, agerikoak direlako egiten ari diren saialdiak Konstituzioaren 106.2 artikulua dakarren eskubidea saihesteko. Artikulu horren arabera, hiritarrek badute, zerbitzu publikoen funtzionamenduarengatik eragindako kalteen ordaina jasotzeko eskubidea. Arau horretan argi eta garbi bilduta dagoen bezala eta legeriak garatu duen bezala, erantzukizuna objektiboa da, emaitzari begira dagoena, eta ez dago eragilearen errua edo arretagabezia bilatzerik, baizik eta eskatzen da kausalitate erlazioa zerbitzu publikoa eta lesioaren artean. Horregatik, erreklamazioa aurkezten duenarentzat, berdin dio nor den metroaren zerbitzu publikoaren kudeatzailea, Bizkaiko Garraio Partzuergoa ala Metro Bilbao. Horrela, auzia sortzen da prozedura ondoren aipatuko diren prozedura tankerako edo administrazio antolaketa mailako gainontzeko kontsiderazioak baino lehenago.

- Ematza

Horrela, Bizkaiko Garraio Partzuergoak egindako akordioan ez zaie erantzunik ematen Arartekoak bere gomendioan, kapital publikoko enpresen erantzukizunaren gainean, egindako galderei.

11. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA

11.1. SARRERA

1998an 146 kexa aurkeztu dira alor honetan. Horietatik, 63 Osasunaren azpialorrari dagozkio eta 63, berriz, Gizarte Ongizateari.

Osasunaren esparruan jaso diren kexa batzuek zerikusia dute berdintasun printzipioarekin. Printzipio honen arabera, hiritar guztiek gutxieneko eduki berbera bermatua dute laguntza sanitarioetan. Beraz, printzipio hau adieraztea erraza da, ez, ordea, bere aplikazioa, laguntza hori gertatzen delako automatikoki berreman ez daitekeen zentruetan eta inguruabarretan, eta lurralde bakoitzeko osasun egiturak ez daudelako egoera berean kokatuta.

Emakume batzuek itxuraz desberdintasun kasu bat zena planteatu zuten. Gaia hauxe zen: medikuak mamografia bat agindu zien hormonon ordezeko tratamenduarentzat. Aipagai den ospitaleak uko egin zion tratamenduari, zentru horretako titi-patologiako batzordearen erabakian oinarrituta, zeinaren arabera ez baitago zientifikoki frogatua tratamendu hori hartuko duen emakumeak segimendu mamografiko berezia behar duenik, beste emakumeekin alderatuta.

Ustekozko desberdintasuna alderaketa bidez azaltzen zen, beste ospitale batzuetan bestelako jarrera baitzuten. Arartekoak txostena eskatu zion Osasun Sailari, eta Sail horrek emandako azalpenen arabera, hura ez zen erabaki arbitrarioa, baina tratatu desberdin hori zela medio, ikusi zen beharrezkoa zela laguntza sanitario honen eskaintzan segimendu zehatza egitea.

Berdintasun printzipioak duen garrantzi handia kontuan hartuta, egoki iruditzen zaigu hauxe gogoratzea, hots, laguntza sanitarioen eskaintzaren ordenazioa egin beharra dagoela, hiritar guztientzako berdintasun eraginkorra bermatuko duten baldintzetan.

Laguntza osagarrien atalean topatu ditugun zenbait kasutan, gure iritziz, bai produktua agindu zien medikuak, bai laguntza ukatu zuen agintariak, gaixoei behar bezalako informazioa eman izan balie ez zuketean kezarik aurkeztuko Arartekoaren aitzinean. Izan ere, lurralde osasun administrazioak, medikuak gaixoari agindutako produktu sanitario zehatza ukatu zuen, esan gabe badirela beste produktu baliokide batzuk.

Atal honetan aipatu beharrean gaude lehendabiziko instantzian ukatutako laguntza ortoprotesikoen eskaerak, aginduak izateko baldintza orokorrak ez betetzeagatik. Kexa horiek erraz saihestu zitezkeen, arauak berak dakartzen aurreikuspenak aplikatu izan balira, hau da, erabiltzaileei jakinarazi behar izan zitzaion arau horrek bide batzuk aurreikusten dituela, aparteko eta funtsatutako kasuetan, produktu horiek finantziatu ahal izateko.

Hortaz, kasu horiek erakusgarri gerta daitezke erabiltzailearentzat informazio egokia izateak zeinen garrantzi handia duen ikusteko. Izan ere, informaziorik ezean, erabiltzaileak aukera gal dezake laguntzetan sartzeko, edo aurreikusita ez dauden beste laguntza batzuk eska ditzake.

Populazioaren bilakaerak, hazkundeak zehazki, oheburuko medikuaren aldaketa ekarri izan ohi du. Medikuen berrizendapenak kexa batzuk eragin ditu, eta kexa horiek aurkeztutako erabiltzaileek adierazi zuten ez zirela galdetu edo baimenik eman aurreko medikuarengana itzultzeko.

Osasun sailera edo Osakidetza igorri ez diren kexen artean, osasun laguntzaren beste arlo batean, pertsona ez erretzaileek aurkeztutakoak nabarmendu behar dira, erretzaileek azturak eragiten baitizkie administrazioak neurrik ez hartzeagatik.

Kexa hauek lan osasunaren atalekoak dira, eta horiek bideratzerakoan kontuan hartu da, auzirik izatekotan, erretzaile ez direnen eskubideak nagusi izan behar duela. Kexa horiek, bestalde, erakutsi dute ekainaren 25eko 18/1988 Legeak aurreikusitako neurriak betearazteko premia dagoela, zeinaren bitartez drogamenkotasunaren alorreko prebentzioa, laguntza eta gizarteratzea arautzen baitira.

Gizarte Ongizatearen alorrean zerbitzu eskari batekin zerikusia duten kexak nabarmendu dira, baina oraindik gizarte zerbitzuek bete ez ditzaketanak. Kexa horiek, gehien bat, Bizkaian bizi diren pertsonak aurkeztu dituzte, eta nabarmenki erakusten zuten egungo eskaintza inola ere ez dela aski gizon emakume minusbaliatuen beharrak aintzat hartzeko. Era berean, begi bistakoa da ez dagoela tokirik hirugarren adinakoentzako egoitzetan.

Kexa hauen laburpenetan biltzen den bezalaxe, Foru Aldundiaren Gizartekintzak Arartekoari jakinarazi zion lehendabiziko urratsak emanak zirela minusbaliatu fisikoendako egoitza bat zabaltzeko, eta era berean, garun-paralisia dutenentzako etxebizitza babestu bat zabaltzeko. Hirugarren adinekoentzako egoitza publikoetan plazarik aski ez dagoela eta, Sail horrek Arartekoari jakinarazi zion 1999ko aurrekontuen egitasmoak kontusail bat aurreikusten zuela besteren beharrean dauden adinekoentzako 135 plaza hitzartzeko.

Auzi ekonomikoetarako buruzko kexa batzuk ere jaso dira, Gipuzkoa aldetik zehazki, eta kexa horiek erakusten dute lurralde berean ere egoitzetako zerbitzuen erabiltzaileek tratamendu desberdina izan dezaketela. Espediente hauen bideratzeak Gipuzkoako Gizartekintza Departamentuaren aldeko jarrera erakutsi digu desberdintasun horiek kentzeko pausoak emango direla Gipuzkoako udalekiko elkarlanaren bitartez.

Laguntza psikiatrikoaren barruan, gaixo psikiatrikoen ospitalez kanpoko atentzioa arazo handia da Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Ez dagokie gaixoei soilik, baizik eta euren familiakoei ere bai. Horregatik, Arartekoak gaibakarreko lanari ekin dio urtealdi honetan, eta txosten honen I. kapituluak aipatzen da zehatzago. Lan horretan aztergai da buru gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen egoera gure erkidegoan, eta zehatzago, erakundeetatik ospitalez kanpoko esparruan ematen ari zaion erantzuna.

Halaber, aipatutako I. kapitulu horretan sartzan da babesik gabe edo **arriskupean dauden adin txikikoei** buruzko txosten bereziaren segimenduan egindako jardueren aipamena. Arlo honi dagokionez, gizarte ongizatearen alorrean bere nortasuna duena, zenbait kexa jaso dira urtean zehar. Orokorrean, erreklamazio egileak, dagokion Foru Aldundiak tutelapean hartutako adin txikikoen familiar biologikoak izan dira, zenbaitetan ez baitaude ados erakunde horrek hartutako neurriekin. Atzemandako beste arazo bat Haur Zerbitzuen eta adin txikikoen familiar artean dagoen komunikazio eta informazio eskaxa izan da, Bizkaian bereziki. Hala ere, Gizartekintzak borondatea azaldu du prestatzen ari den Haur Planean gaiari ekiteko. Lurralde historiko berean, halaber, kexak aurkeztu dira arazo psikologikoak edo jokabide desorekak dituzten nerabeak hartzeko zentru egokirik ez dagoelako.

11.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Osasuna

⇒ Tabako kontsumoa eta horrek lantokietan eragindako gogaienak. (270/97)

- Erreklamazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu batek kexa aurkeztu zuen ez zegoelako inongo aurreikuspenik erretzaileek erretzaile ez zirenei eragindako gogaienak eragozteko.

- Azterketa

Arazo honek ez du konponbide erraza, ez baitaiteke aintzat hartu gabe utzi tabakoaren azturak gizartean duen garrantzia. Egoera honetan, erretzaileen eta ez erretzaileen eskubideak kontrajarrita agertzen dira, eta horren aurrean, lege antolamendua saiatzen da, hainbat modutan, auziei konponbiderik egokiena ematen.

Tabako kontsumoarekin zerikusia duten kexetan ezin da bazter utzi tabakoaz egindako adierazpena, hots, tabakoak kalte egiten diola pertsonaren osasunari. Horregatik, tabakoaren kontsumoan eragin nahi duten hainbat iturrik aintzat hartu dute ondoko printzipio orokor hau, hots, auzirik izanez gero, ez erretzaileen eskubideek nagusi izan behar dute.

Arartekoak Foru Aldundiari txostena eskatu zion, jakiteko zer nolako neurriak hartuak zituzten ez erretzaileen eskubideak lantokietan bermatzeko.

Aldundiak erantzun zuen, arazoa aztertzen ari zela neurriak hartu baino lehen. Baina, geroxeago, kexa berbera aurkeztu zen, antza ez zelako oraindik inolako neurririk hartu.

Horregatik, berriz ere saiatu ginen Foru Aldundiaren aurrean, eta oraingo honetan aipamen egin genion ekainaren 25eko 18/1998 Lege onetsi berriari, zeinaren bitartez, prebentzioa, laguntza eta gizarteratzea arautzen baitira drogamenkotasunaren alorrean, eta galdetu genuen ia inolako aurreikuspen zehatzik ba ote zen beste langile batzuen tabako kontsumoaren eragina hartzen duten langileen eskubideak babesteko.

Aipatutako 18/1998 Legeak ezartzen du ez dela erretzen utziko "administrazio publikoaren dependentsia guztietan, estali gabe dauden horietan salbu" (23.3 art). Bigarren xedapen iragankorrak, bere aldetik, indarrean sartzen denetik hiru hilabeteko epea ezartzen du legearen edukia aplikagarri zaizkien egokitzapeneko jarduera materialak aurrera eramateko.

- Emaizta

Aldundiak emandako erantzunean, zein pausu zehatz eman ziren adierazten zuen: hasiera eman behar zitzaion Aldundiko lantokien seinaleztapen planari, 18/1998 Legearen 23.3e) artikularekin bat, Seguritate eta Osasun Batzordearen hurrengo bilkuran, sarri egingo dena, eta beste neurri batzuk ere planteatuko ziren. Txostenari akabera emateko, esaten zen neurri horiek indarrean sartzearen bitartez Foru Aldundi horretako dependentsietan tabakoaren kontsumoaren arazoa konpontzen hastea espero dela.

Interesdunari erantzun hori jakinarazi ondotik, Arartekoak bertan behera utzi zuen bere jarduera.

⇒ *Gastuen itzulketa kasu bat: berdintasuna obligazioetan (60/98)*

- Erreklamazioa

Lan istripua izan zuen pertsona batek Osakidetzako ospitale bateko larraldietarako zerbitzura jo zuen. Han esan zioten, lan istripuaren estaldura Policlinicaren (zentru pribatua) esku zegoenez, delako zentru horretara joan behar zuela.

Alabaina, Policlinicak, ondoren, laguntzaren kostua fakturatu egin zion. Hori zela eta, gastu horren itzulketa eskaria aurkeztu zuen Osasun Saileko Arabako Lurralde Zuzendaritzan.

Eskaera hori atzera bota zioten, eta horregatik Arartekoaren aurrean kexa aurkeztu zuen.

- Azterketa

Erregimen orokorrean, langileen lan istripuak Mutua Patronalean aseguratzen dira, eta laguntza sanitarioa hitzartu den zentruetan atenditzen dituzte, kasu honetan, Policlinican.

Erregimen orokorrean ez bezala, erreklamazio egileari aplikagarri zitzaion erregimen berezian, erregimen berezi horietako baten barne egoteagatik, lan istripuen atentzioa Osakidetzarekin hitzartua zegoen, hain zuzen ere. Horregatik, Policlinicaren estaldurapean ez egotean laguntzaren kostua gaixoari igorri zion, Policlinicak erregimen orokorreko langileak atenditzen dituelako.

Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzak uste izan zuen gaixoak, nahitaez ohartarazi behar izan zuela, bere erregimen bereziarengatik, lan istripuak Osakidetzak atenditzen zituela.

Arartekoaren iritziz, betebeharrak hori onartuta ere, argi zegoen ikuspegi berberatik begiraturik, betebeharrak berbera eska zekiokoela langilea atenditzeko obligazioa zuenari, kasu honetan, Osakidetzari. Gaixoak berak, gainera, jo baldin bazuen erakunde horren mendeko ospitale batera, bazirudien zentzuzkoa zela Osasun Lurralde Zuzendaritzak atera zuenaz kontrako ondorioa ateratzea, hau da, aintzat hartzea interesatuari gastuak itzultzeko eskaera.

Testuinguru honetan, kexa tramitera onartu eta kontsiderazio hauek igorri zitzaizkion Osasun Saileko Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritzari, horixe baita organu eskuduna aurretiazko erreklamazioa ebazteko.

- Emaiza

Bere prosamenean, Osasun Sailak Arartekoari jakinarazi zion interesdunak egindako aurretiazko erreklamazioa aztertuko zela gure txostenean agertutako kontsiderazioak aintzat hartuta, eta aldatuko zela Osasun Lurralde Zuzendaritzaren ebazpen ukatzailea.

Kexa eragin zuen arazoa konpondu ondoren, interesdunari jakinarazi genion bertan behera utziko genuela gure jarduera.

⇒ *Finantziario publikorik ez duen botikagai baten errezeta, finantziatutako beste botikagai alternatibo batzuk izanik (197/98 y 2071/98)*

- Erreklamazioa

Jarraian aipatuko diren bi kasuak botikagaiei dagozkie. Zehazki, “efektuak eta osagarriak” izeneko multzoan sarturik daudenak. Osakidetzako medikuek errezetatu zituzten, baina errezetaturiko marka hori ez zegoen osasun sistema publikoak finantziatua.

Ondorioz, Osakidetzako mediku-ikuskaritzak errezeta horien bisatua ukatu zuen eta, horrekin batera, produktu horren finantziarioa. Hori izan zen eragindakoek Arartekora kexa bidez jotzeko arrazoa.

Kasu batean pertsona trakeotomizatua zen, zintzur-hesteko kanula bat zeramana. Marka jakin bateko aposito esterilak erabiltzen zituen bere irazketak biltzeko. Beste kasuan, gernu-inkontinetziarentzat absorbagarriak ziren.

- Azterketa

Ikusi zen, baietz, errezetaturiko markak ez zeudela finantziatuak, baina bazeudela produktu bereko beste batzuk, interesdunek eskatutakoa ezin hobeto ordezkatzaketenak. Ez zitzairen horretaz ohartarazi.

Horrela, aposito esterilei dagokioenez, 96 aposito mota zeuden, 18 marka ezberdinekoak eta finantziario publikoak zutenak. Inkontinentziarako absorbagarrietan, berriz, 301 modelu zeuden, 23 marka ezberdinekoak, osasun sistemak finantziatuak.

- Emaizta

Bi kasuotan, osasun administrazioarekin dagozkion gestioak egin ondoren, erakunde horrek eskatutako produktuen marken zerrendaren aldakia eman zien erreklamazio egileei, eta marka horiek finantziario publikoazeukaten. Modu horretan, beraien medikuarekin kontsulta egin zezaketen euren egoerarako egokien gerta zitekeen markaz, eta horrela, ohiko finantziarioaren bidez lortuko zuten, dagokion errezetaren bitartez, jakina.

⇒ *Prestazio ortoprotesikoak eta eraberritzeko betebeharrak (997/98)*

- Erreklamazioa

10 urteko neskato batek kortse ortopediko bat eraman behar zuen medikuaren aginduz. Osakidetzak eman egin zion, produktu hori Osasun Saileko indarreango Material Ortoprotesikoaren Katalogo Orokorrean baitago. Produktu honi erantsitako oharretan esaten da 12 hilabeteko bermea duela.

Jantzi ortopediko hori estu-estu eraman behar denez, eta neskatoa hazitzen ari zenez, zenbait hilabeteren buruan, urtebetea iragan baino lehen, txikia geratu zitzaion eta mediku espezialistak kortse berri bat agindu zion. Dena dela, ukatu egin zitzaion kortsearen ordainketa, adierazitako betebeharraren produktuaren agindutik arabera urtebete iragana ez zelako.

- Azterketa

Erakunde honek, kasua aztertzerakoan, ikusi zuen produktuaren errenobazioa ez zegokiola produktu horren erabilera desegokiari, baizik eta 10 urteko neskato baten ohiko hazkuntza prozesuari.

Osasun Saileko ebazpen ukatzailean ez zen ezertarako aipatzen arrazoi hori. Beraz, ez genekien kontuan hartua ote zen. Erakunde honen iritziz, alderdi hori aintzat hartzeko modukoa zen. Izan ere, osasun sistema publikoaren gain dagoen prestazio ortoprotesikoen arautegi arauemalean bada bide bat, aparteko eta funtsatutako kasuetan, produktu bat finantziatzeko, dagokion katalogoan finkatutako baldintzetako bat betetzen ez den arren, eta baita produktua katalogoan ez dagoenean ere (Eusko Jaurlaritzako urtarilaren 22ko 9/97 Dekretua; Osasun eta Kontsumo Ministerioi 1996ko urtarilaren 18ko Agindua; eta Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren urtarilaren 18ko 23/94 zenbakidun Ebazpena).

- Emaizta

Alde horretatik, erakunde hau Osasun Sailera zuzendu eta neskatoaren kortse aldaketaren arrazoiak egindako balorazioari buruzko informazioa eskatu zuen. Txosten hau idazten ari garen honetan, gure eskaera erantzunaren zain dago.

⇒ *Osasun laguntzaren protokoloa sexu erasoaren biktimetzat (1408/98)*

- Erreklamazioa

Sexu eraso baten biktima batek, emakumezko batek, kexa aurkeztu zuen Osakidetzako ospitale bateko larrialdietarako zerbitzuetan eman zioten tratu desegokiarengatik. Larrialdietan atenditu ondoren, atzera Udaltzaingora jo zuen eta ikusi zutenean ez ziotela inongo azterketa ginekologikorik egin, azterketa horren garrantziaz ohartarazi zioten.

Larrialdietarako zerbitzu berera itzuli zen, baina atenditu zuen doktore andreak esan zion ezin ziola azterketarik egin, ez baitzegoen goardiako ginekologorik. Bigarren aldi honetan, esan ere esan zuen lepoko mina hasi zitzaiola, baina doktore andreak sorbaldak ukitu eta ez zuen froga gehiagorik egin.

Gaixo honek erabaki zuen beste larrialdi-zentru batera jotzea, eta han ginekologo andre batek aztertu zuen. Era berean, traumatologo andre batek zenbait froga egin eta ikusi zuten kontraktura bat zuela.

- Azterketa

Salatutako ekintzek ustezko atentzio desegokia erakusten zuten gaixo honek jo zuen larrialdietarako lehen zerbitzuan. Horrelaxe nabarmentzen zuen larrialdietarako bigarren zerbitzuan hartu zuen atentzioarekiko alderaketak.

Egoera hauen berezitasuna zela eta, Emakundek sustatutako mediku-protokolo bateratu batzuetan Osakidetzak aintzat hartu zituen. Hasierako atentzio eskaxak, gerora zuzendua, erakusten zuen protokolo hori bazter utzia zela.

Horregatik, Arartekoak kexa Osakidetzara lekualdatu zuen, txosten bat eskatzeko sexu erasoaren biktimenganako atentzioaren protokoloaren aplikazioaz.

- Emaizta

Emandako erantzunean, Osakidetzak azaldu zuen, emakume hori lehenbiziko tokian atenditu zuteneko zentruak, bere garaian, erabaki zuela aipatutako protokoloa betetzea.

Kasu honetan ez aplikatzeko azalpen bakarra, ez justifikazioa, zera izan zen: protokoloa ez zela maiz erabiltzen. Nolanahi ere, zentruaren txostenak berak bere borondatea agertzen zuen gertatutakoa berriro errepika ez zedin, eta horrez gain, asmoa ere agertzen zuen salaketaz baliatuta, protokoloa gogoratzeko, berriro ebaluatzeko, eta are, baita barneri begira egokitzapen batzuen bidez hobetzeko ere.

⇒ *Osasun prestazioen aitorpena (2073/98)*

- Erreklamazioa

Arantzazuko ospitaleko urologia zerbitzuko buruzagitzak gaixo bati gomendatu zion protesi hidrauliko urologiko baten ezarpena. Baina prestazio hori ukatu egin zioten. Alde batetik, ospitaleko urologia zerbitzuak gaixo horrentzat gomendatu zuen protesi baten ezarpena, eta beste alde batetik, zentruko gerentziak adierazi zion ez zegoela protesi horren ezapenerako prozedimendu fidagarririk.

- Azterketa

Agertutako kasuan azaltzen ziren bi inguruabar zirela medio bideratu zen kexa. Bata, ospitaleko urologia zerbitzuak ezarpena gomendatu izana, eta bestea, protesi urologiko hori aipatua zegoela, ministerio-agindu bidez, 1996ko urtarrilaren 18an onetsitako protesien artean. Aurrekari horiek ikusita, txostena eskatu zitzaion Osasun Sailari.

Osasun Saileko Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritzak bere erantzunean adierazi zuenaren arabera, espedientea aztertu ondoren, ospitaleko gerentziaren aldetiko ukapena egon arren, ikusi zuten ez zegoela Lurralde Zuzendariaren ebazpenik, horixe organu eskuduna izaki lehen instantzian aferaz ebazteko. Horregatik, Arartekoari jakinarazi zion asmoa zuela espedientea delako lurralde zuzendaritzara igortzeko, modu horretan ondorioen arabera, ebatz zedin (prozesu klinikoaren berrebaluaketa, hautabide terapeutikoak, indikazio protesikoa bere kasuan, gaixoaren klinikarekiko modelu egokiaren definizioa, zentruaren programazioen eta laguntza-aukerarik egokienaren aplikazioaren arabera).

- Emaizta

Osasun Sailak Arartekoari igorri zion birrebaluaketaren emaitza eta bere txostenean adierazi zuen aitortu zela erabiltzaileak protesi urologikoaren ezarpenerako zuen eskubidea.

Azaltzen zuen, kasua berriro aztertu eta ebaluatu ondoren, gaixoa atenditzen zuen ospitaleko urologia zerbitzuak tratamendu gisa gomendatu zuela malgu izeneko protesi motaren ezarpena. Txosten berean adierazten zen, ezarpen protesiko mota horri buruzko orientazioa, zeina sarturik baitzegoen proposatutako prestazioen katalogoaren barruan, bat zetorrela Osakidetza Osasun Laguntzako Zuzendaritzak emandako gomendioekin.

Puntu honetera iritsita, interesduna ez zegoen ados bere kasuaren berrebaluaketaren ondorioz gomendatu zioten protesi motarekin.

Puntu zehatz horri buruz, txostenak esaten zuen malgu izeneko protesi mota hura, ospitaleko urologia zerbitzuak gomendatu zuela gaixoaren kasuaren berrebaluaketa egin ondoren, bere egoera klinikoa aztertu eta dagokion diagnostikoa egin eta gero. Osasun Sailak erantzun zuen ez zegoela hidraulikoak izenekoak bezalako beste protesi mota baten aipamen zehatzik.

Protesirako eskubidea aitortuta, gomendatutako motari buruzko desadostasunak Arartekoaren aldetiko kexaren bideratzea eragin zuen hasierakoaz bestelako aspektu batean kokatuko gintuzke, hasierako arrazoia ezarpenerako eskubidearen ukatzea izan baitzen.

Bigarren alderdi hori prestaziorako eskubidea betetzeko moduari dagokio, eta alderdi hori orientazio terapeutiko batean oinarrituta ebatzi beharra zegoen. Erabakia horrela hartu baldin bazen, gaixoak orientazio horri buruz, zuen desadostasun hutsak ezin zuen Arartekoaren eskuhartzea funtsatu, ez behintzat laguntza-irizpide klinikorik ez bazegoen.

Horrelaxe jakinarazi genion interesdunari, eta adierazi genion ezarpenerako eskubidea bermatu ondoren bere kexari buruzko gure jarduera bertan behera utziko genuela.

⇒ *Osasun garraiorako eskubidea: mugak (2233/98)*

- Erreklamazioa

Osakidetza erabiltzaile bat Valentziako ospitale batean atenditu zuten larrialdi kasu bat zelako, eta lehendabiziko laguntza bukatutakoan, anbulantziak eraman zuten

bere ohiko helbideraino, Bizkaian. Halaxe zioen larrialdi-orriak: “*Bizilekuaren orde, ospitalerainoko lekualdatze zuzena baimentzen da, azterketa eta tratamendua egin segitzeko. Lekualdatze hori anbulantzian egin behar da*”.

Hala ere, abuztuaren 18ko idazki bidez, Osasun Sailaren BizkaikoLurralde Zuzendariak jakinarazi zion eskaera ukatu egin ziotela, ez zelako akreditatzen lekualdatzea funtsatzen zuen mediku-indikaziorik.

- Azterketa

63/1995 Errege Dekretuak aurreikusitakoaren arabera, osasun garraioa aitortuko da ondoko inguruabar hauek gertatzen direnean: “*Ezintasun fisikoa dela, edo beste mediku kausa batzuk direla medio, interesdunak, medikuaren aginduz, eragotzia duenean ohiko garraioaren erabilpena osasun zentruraino joateko edo bere helbideraino joateko, dagokion osasun atentzioa hartu ondoren*”.

Aurreikuspen hori kontuan hartuta, eta, honekin batera, interesdunak aurkeztutako larrialdi-orriaren edukia ikusita, uste izatekoa zen interesdunaren jarduera zuzena izan zela Osasun Sistemarekiko harremanetan.

Hala ere, Osasun Sailak atzera bota zuen haren eskaera, bere iritziz lekualdatzea beharrezkoa ez zelako, Ospitaleak gaitasuna, nahikotasuna eta trebetasuna zuelako prozesu klinikoa laguntzeko eta tratatzeko. Ondorioz, Sail horren iritziz, lekualdatzea ez zen egin zentruari ezinezkoa gertatu zitzaielako tratamendua aplikatzea, baizik eta gaixoak bere borondatez egindako eskariarengatik. Azkenik, Sailak gehitzen zuenez, helbideak kasutan ez du zertan ohikoa izanik, noizbehinkakoa baizik.

Arartekoaren iritziz, arrazoi horiek ez zuten interesdunaren kexaren mamia indargabetzen. Horregatik, gomendio bat zuzendu zuen, aintzat hartua izan zedin gastuen itzulketaren eskaera.

Gomendio hau ondoko arrazoietan oinarritu zen:

Prestazio osagarri honen beharra ebaluatzea gaixoa atenditu zuen medikuari dagokio, 63/1995 Errege Dekretuak, bere I,4,1go,b) eranskinean dioen bezalaxe. Alde horretatik, larrialdi-orriak lekualdatzea baimentzeaz gainera, anbulantzian ere egin behar zela zehazten zuen. Hortaz, lekualdatzea ez zen gomendio gisan biltzen, eta hori, beste alde batetik, ez dirudi larrialdi-orri batean jasotzeko modukoa zenik.

Beharraren ebaluazio hori, argi eta garbi adierazia, okerra izan zitekeen. Halaxe izan baldin bazen, interesdunak ez zuen errakuntzaren ondorioak zertan jasanik.

Horrez gain, bazegoen galdetzerik, lekualdatzea izan balitz Valentzian zuen noizbehinkako egoitzaraino, non oporretan baitzegoen, eta ez bere ohiko helbideraino, hau da, Bizkaiaraino, Osasun Sailak jarrera ukatzaile berbera mantendu ote zukeen. Ez seguruaski, Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostenak ez baitzuen zalantzan jartzen anbulantzia bidezko garraioaren beharraren ebaluazioa, gaixo hau larrialditan atenditu zuen medikuak egina zena.

Bazirudien, benetan zalantzan jartzen zutena zela ea beharrezkoa izan ote zen gaixoa bere ohiko helbideraino eramatea.

Auzi hau ez zen ebatzi behar ebaluazioaren presuntzioan oinarrituta (larrialdi-orria), interesduna Valentziako ospitalean atenditu zuen medikuak egina zena.

Arazoaren alderdi hau aztertu beharra zegoen, interesdunak, diagnostikaturiko tratamendua segitzeko izan zitzakeen eragozpenen arabera, baldin eta bitartean bere ohiko helbidetik kanpo egon izan balitz.

Horregatik, lekualdatzearen borondatezkotasuna sendaketaren prozesuaren iraupenari lotu beharra zegoen.

Osasun Sailaren iritziz, noizbehinkako helbidea, hots, Valentziakoa, eta ez ohikoa, Bizkaikoa, lekualdatzearen kalkulua egiteko kontuan hartu beharra zegoen. Arartekoaren aburuz, ez zirudien zentzuzkoa zenik ondorio gutzietarako abstraitzea ohiko helbidea den horretatik.

Inguruabarrak izan baziren, interesdunak, gastuen itzulketarako uztailaren 16ko eskaeran adierazitakoak, eta Bizkaiko Lurralde Zuzendaritzan aurkeztuak, non hitzez hitz hauxe baitzioen: “*goardiako doktoreak ezan zigun haren ustez ez zegoela ebakuntzarik, baina hiru hilabete emango genituela hantxe...*”, orduan ez zirudien zuzena zenik hura laguntzeko eskubidetik bereiztea bere ohiko helbidetik hurbileko zentru batean atenditua izateko eskubidea.

Horren ondorioz, baldin bazegoen mediku baten ebaluazioa, zeinak interesdunari adierazi baitzion sendaketaldiak luze jo zezakeela (oporraldia baino luzeago), ez zirudien zentzuzkoa zenik gastuen itzulketa ukatzea, pentzatseagatik lekualdatzea gertatu zela arrazoi partikularrak eta borondatezkoak zirela medio.

Azken batean, gaixo hau atenditu zuen medikuak larrialdi orrian idatzitako gutziek ondoren gertatu zenaren kontrakoa pentsarazten zuten, hain zuzen ere.

Azkenik, Osasun Sailera igorritako gomendioan adierazi zen gastuen itzulketaren ebazpen ukatzaileak egindako larrialdi-txostenaren interpretazioak ahaztu egiten zuela gaixoaren eta medikuaren arteko harremanak konfiantza printzipioan oinarritzen direla, eta medikua dela prestazioen edukiari buruzko lehen txosten-iturria.

Halaber, Arartekoak jardueren nondik norakoak ikusita, ohartarazi zuen erabiltzailearen bizkar jartzen ari zela osasun prestazioen edukiaren ezagutzaren presuntzio bat, eta halakorik, ordea, ez zen egiten hura atenditu zuen medikuari zegokionean.

- Emaizta

Osasun Sailak, aldiz, emandako erantzunean bere lehendabiziko txostenean bildutako argudioak azpimarratu zituen, Arartekoak funtsezkotzat iritzitako alderdi bat baloratu gabe. Izan ere, berriro ahaztu egiten zuen gaixoaren eta medikuaren arteko harremanak uste osoaren printzipioan oinarritzen direla, medikua dela prestazioen edukiari buruzko lehen informazio iturria, eta medikuak berak baimena eman zuela, ez gomendioa, gaixoa bere helbideraino lekualdatu zezaten.

⇒ *Medikuaren eta gaixoaren arteko konfiantzarik ezak eragindako arazoa. Laguntzaren jarraitasuna bermatu beharra (2326/98)*

- Erreklamazioa

Osakidetzako erabiltzaile batek kexa bat aurkeztu zuen, haren iritziz, erreferentziako ospitale batean laguntza espezializatua jasotzeko eskubidea urratzen ari zelako. Saiatu zen arazoa konpontzen ospitale bereko egiturari, baina azkenean, beste hautabide batzuk eskaini zizkioten, hots, beste ospitale bateko espezialitate bereko kontsultategira joatea, besteak beste.

- Azterketa

Osasunerako Lege Orokorrek bere 15. artikuluan biltzen du Osasun Sistema Nasionaleko erabiltzaileek euren osasun alorraren barruan, ospitale-zerbitzu espezializatuatan atenditua izan daitezen duten eskubidea. Eskubide horrekin bat, Osakidetzak obligazioa du erabiltzaileei euren patologiak eskatutako atentzio

espezializatua emateko. Gehienetan, atentzio hori zonaldeko zerbitzu espezialisten bitartez emango da.

Erabiltzaileari zegokion espezialista kontsultategira joaten segitzeko arazoak zerikusia zuen, arrazoi hau edo hura dela medio, bien arteko konfiantza hautsi izanarekin. Kode deontologikoak dakarrenez, arrazoi hori aski da medikuak gaixoarekiko harremana bertan behera utz dezan. Horretan zetzan medikuaren erabakia.

Kode deontologiko beraren arabera, mediku batek gaixo batekiko atentzioa bertan behera uzten duenean, beharrezkoa da laguntzaren jarraitasuna.

Testuinguru honetan, Arartekoaren jarduera, ea Osakidetzak, gaixo honek behar zuen laguntza espezializatuaren jarraipena ziurtatzeko benetan behar bezalako neurriak hartu ote zituen ikustera bideratu zen.

- Emaizta

Kasua ez zen ohikoa, eta horregatik, bide bereziak urratu behar izan ziren gaixoari laguntza bermatzeko. Horrela, ez ziren erabili erabiltzaileari erreferentziak zegokion zerbitzuak, beste batzuk baizik. Laguntza hori eman behar zuten moduaren baldintzak zehaztu ondoren, eta laguntza hori bermatu eta gero, jakina, Arartekoak bertan behera utzi zuen bere jarduera.

B) Gizarte ongizatea

⇒ *Hirugarren adinekoentzako egoitza baten erabiltzaileak ordaindu beharreko kuotaren murrizketa, zentrutik kanpo emandako denboraldiarengatik (95/98)*

- Erreklamazioa

Gipuzkoako hirugarren adinekoentzako egoitza batean sarturik zegoen pertsona batek bi hilabetez egon behar izan zuen ospitalean. Ondoren, egoitzara itzuli zen, eta han plaza eta gela gorde zizkioten.

Kanpo egote horrek, ordea, ez zuen inolako islarik izan pertsona horrek egoitza horretan egoteagatik, hilabetero ordaintzen duen kopuruan. Beraz, pertsona horrek bi hilabete horiengatik ordaindu zuen gainontzekoengatik ordaindutakoaren adina.

Hori zela eta, familia zentruko zuzendaritzara zuzendu eta eskatu zuen kanpoan egondako hilabeteen kuotak murriztu zitazela. Eskaera hori, ordea, ukatu egin zuten, eta horretarako arrazoi hau eman zuten: delako aukera hori ez zegoela zentruak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuarekin sinatua duen Elkarlan Hitzarmenean aurreikusia. Hitzarmen horren arabera, foru sail horrek laguntza ematen du egoitzetako-plazak finantziatzeko, dagokion udalarekin eta erabiltzailearekin batera.

Eragindako pertsonaren familiak, orduan, Arartekora jo zuen.

- Azterketa

Izan ere, erakunde honek egiaztatu zuen delako aukera hori ez zegoela aipatutako hitzarmenean aurreikusia, eta horren arabera, egoitzaren barne Arautegian ere ez zela biltzen, ezta bertan egoteagatik prezio publikoetan ere, prezio horiek dagokion zerga Ordenantzaren bitartez onetsita daudelarik.

Halaber, ikusi zen afera hau zabal daitekeela Gipuzkoako udal egoitza guztietara, 45en bat, gutxi gora behera, hitzarmenaren eredia guztientzako berbera baita, eta egun indarrean dagoena 1996an izenpetu zen 5 urterako.

Egoitzarekin izandako hasierako harremanean esan zitzaigun denboraldi bat kanpoan pasatzeak izan zezakeen eragin ekonomikoa elikagaietan besterik ez zela zehazten, plaza gordetzen baitzen eta horrela egoitzaren gainontzeko gastu guztiek bere horretan segitzen zuten. Zentruko zuzendaritzaren arabera, elikagaiei zegokien atala, gutxi gora behera %10 izan zitekeen egoitzaren plazaren kostu osoaren gainean, baina zenbateko hori konpentsatua geratzen zela zentruko langileek ospitaleratutako pertsonari egiten zizkieten bisitaldien bitartez, hura atenditzen zuen mediku taldearen aurrean hartaz interesa agertzen zutela e.a.

Beste alde batetik, ikusi zen ausentziagatiko murrizketa hori kontuan hartzen zutela Gizartekintza Departamentuari atxikitako egoitzetarako. Horrela, ekainaren 9ko 57/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua, zeinaren bitartez aldatzen baita ekainaren 3ko 42/1997 Foru Dekretua eta bere bitartez onesten baitira Gipuzkoako Gizartekintza Departamentuari atxikitako zentru gerontologikoen prezio publikoak, pertsona bakoitzeko eguneroko prezioak finkatzen ditu eta haxe eranstean du: *“aipatutako prezioak %25 murriztuko dira plaza erreserbaren egoera gertatzen denean. Ondorio horietarako, delako kontsiderazio hori izango dute behar bezala funtsaturiko aldi baterako ausentziek, eta sarrera-plaza gordeko zaie ausentzia eragin zuten arrazoiak bukatutakoan. Hauexek dira aintzat hartzen diren aldi baterako ausentziarako kausak, ‘plaza erreserbarako’ eskubidearekin: erresidentearen ospitaleratzea edo ezinbesteko beste inguruabar bat, Gizartekintza Departamentuak horrelaxe aintzat hartuta”*.

- Emaizta

Bada, foru sailak egoitzetako plazen finantziazioan laguntzen zuen, baina horiei buruz itxuraz zeuzkan irizpide ezberdinak ikusita, erakunde honek idazki bat igorri zion. Idazki horretan adierazten zitzaion, itxuraz, logikoa izango zela foru sailak irizpide homogenea izatea horri buruz, aipatutakoa bezalako kasuetan erantzun berdina eman ahal izateko Gipuzkoako egoitzetako plaza publikoak hartzen dituzten pertsona guztiei. Horregatik, erakunde honek sail horren azalpenak eskatu zituen, hala nola horri buruzko aurreikuspenak.

Txosten hau idazten ari garen honetan, Foru Aldundiaren erantzunaren zain gaude.

⇒ *Banakako laguntzak eskuratzeko baldintzak, Bizkaiko hirugarren adinekoentzako egoitzetan sartzeari begira (1079/98)*

- Erreklamazioa

Jasotako kexa batzuek zerikusia dute Bizkaiko hirugarren adinekoentzako egoitza-plaza bat eskuratzearekin. Adinekoen familiakoek aurkeztutako kexak ziren. Izan ere, adineko pertsona horiek eskatua zuten egoitza batean sartzea, osasunez oso makal zeudelako, eta kostua ordaintzeko, diru laguntzak lortu nahi zituzten, baina ukatu egin zizkieten.

- Azterketa

Laguntza hauek Foru Diputaziotik datoz, Gizartekintzatik zehazki, eta erakunde honek dirulaguntza ematen baldin badu, eskatzailea erroldatua dagoeneko udalak bere aportazioa gain hartu behar du. Horrela, onuradunak ordaintzen duen partearekin batera, plazaren kostu osoa estaltzen da.

Hirugarren adinekoentzako egoitzetan sartzeko aipatutako foru sailak ematen dituen banakako laguntzak aratuak daude azaroaren 2ko 108/1993 Foru Dekretuaren bitartez, zeina aldatua izan baita abenduaren 2ko 116/97 Foru Dekretuaren bitartez, biak Bizkaiko Foru Diputazioak finkatuak. Xede horretara biltzen diren baliagaiak mugatuta daudenez eta dagoen eskaria betetzen ez dutenez, Gizartekintzak erabaki zuen laguntza ematea ondoko irizpidea betetzen duten pertsoneri: egindako balorazioan gutxienez 85 puntu lortu eta gizarte-lehentasan gisa aintzat hartu dituztenei, edo, bestela, puntuaketa hori lortu ez arren aipatutako bigarren alderdi hori aitortua zutenei, baldin eta dagokion udalak bere aportazioa onesten badu eta pertsona horiek betetzen badituzte delako dekretu horretan eskatutako betebeharrak.

Erakunde honetara iritsi ziren kasuak elbarritasun maila handiko pertsoneri zegozkien, eta bazirudien hautagai sendoak zirela egoitzetako plaza bat eskuratzeko. Baina, horien artean, inork ere ez zuen bere balorazioan 85 puntu lortu, hurbil bazeuden ere, eta ez ziren aintzat hartu gizarte-lehentasan gisa. Horregatik, aurreko irizpidearen arabera, Gizartekintzak laguntza eskaerak ukatu egin zituen, eta ondorioz, udalak ere bere laguntza ukatzen zuen. Horrela, har zezaketen egoitza-plaza, edo jadanik, zenbaitetan, hartua zutena, pribatua zen.

Eskatzaile gehienek pentsio apalak zituzten, plazaren kostua estaltzen ez zutenak, eta maiz asko seme alabaren batek ordaintzen zuen, eta horrek bere etxeko ekonomiarentzako sakrifizioa zekarren.

Erakunde honen aburuz, jasotako kasuak beste askoren adibideak ziren, eta alde horretatik Bizkaian, populazioak eskaturiko egoitza-plazen eta Administrazioak egindako eskaintzaren artean gertatzen zen desoreka nabarmena islatzen zuten. *E g o i t z a* -plazen defizita hori jadanik 1994an egiaztatu zen erakunde honek EAeko hirugarren adinekoentzako egoitzei buruz prestatutako txosten monografiko hartan. Une hartan, Bizkaiko egoitzen estalduraren tasa %3,1 zen, gure erkidegoko txikiena (Gizpuzkoakoa %3,4 zen eta Arabakoa, berriz, %5,05). Horregatik, tasa hura goratu behar zela gomendatzen zen. Bizkaian, gainera, berezitasun hau gertatzen zen, hots, egoitza-plazen %17 titularitate pribatukoak zirela. Hortik dator banakako dirulaguntzek lurralde horretan duten garrantzia, hirugarren adinekoentzako egoitzetan sartzeari begira.

- Emaizta

Arartekoa arazoaz jabetuta zegoenez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintzara zuzendu zen aurkeztutako kasu zehatzei buruzko informazioa eskatzeko, eta batez ere 1994an egindako gomendioaren arabera lurralde horretan hirugarren adinekoentzako egoitza-plaza publikoen eskaintza handitzeko aipatutako sailean zein neurri hartu den edo hartu asmo den jakiteko.

Emandako erantzunean foru sailak adierazi digu komenio bat sinatu dela besteren beharrean dauden adinekoentzako 135 plaza dituen egoitza batekin, eta alderdi horrek bere isla izan duela 1999rako aurrekontu aurreproiektuan, dagokion kontusaila handitu delarik.

⇒ *Elbarri fisikoekiko egoitza mailako atentzioa Bizkaian (1080/98 y 1367/98)*

- Erreklamazioa

Bi pertsona minusbaliatuk finantziario publikoko egoitza-plaza bana nahi dute Bizkaian. Bada, bideratu dira bi pertsona horiek aurkeztutako keak.

Kexa aurkeztu duten bi pertsonetako bat gaztea da, garun-paralisiak hartuta dagoena, buru adimena ongi mantentzen duena. Etxean bizi da, familiarekin, baina laster bakarrik geratuko da, eta minusbaliotasun mailak eragotzita ezin die behar guztiei aurre egin egoera horretan. Horregatik, egoitza edo etxebizitza komunitario babestu batean sartu nahi zuen, eguneroko bizitzarako beharrezkoa gertatzen zaion laguntza jasotzeko eta bidenabar, etorkizunera begiratzeko nola halako seguritatearekin.

Beste pertsona adin ertainekoa da, minusbaliotasun handi batek hartuta dagoena, eta etxean ezin atenditu dutenez, hirugarren adinekoentzako egoitza pribatu batean dago. Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntza eskatu bazion ere, ukatu egin zioten, eta horretarako, argudiatu zuten ez zela minusbaliatuen ataletik ematerik, baina ezta hirugarren adinekoen ataletik ere, pertsona hau 60 urtez behekoa zelako.

- Azterketa

Bi kasu horiek alde handiak zituzten elkarren artean, eta erakunde honen iritziz orientazio desberdina behar zuten. Dena dela, bietan antzeko arazoa agertzen zen, hots, minusbaliatu fisikoentzako egoitza mailako atentzioa Bizkaian eta haietzako zentru berezirik ez izatea.

Erakunde honentzat arazo hori ez zen berria, aurretik ere eskatua baitzien Bizkaiko botere publikoei gabezia hori konpontzeko neurri egokiak har zitzatela. Aipatu beharrean gaude Bizkaia dela, gainera, Autonomia Erkidego honetako lurralde guztien artean minusbaliatu fisikoentzako egoitza mailako atentzioa konpondua ez duen bakarra.

Horregatik, hiritar asko eraman behar izan dituzte atendituak izateko gure Autonomia Erkidegotik kanpoko egoitzetara, eta horrek familia nahiz gizarte mailako erauzketa sortzen du.

- Emaidza

Aurrekari horiek aintzat hartuta, beste kasu hauek aurkezterakoan, Arartekoa Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintzara zuzendu zen, aurrekoa gogorarazteko eta bi kasu zehatzei buruzko informazioa eskatzeko. Halaber, kasu zehatzei eta, oro har, arazoari erantzun egokia emateko, sailaren proposamen edo aurreikuspenei buruzko informazioa eskatu zuen.

Foru sail horrek adierazi digu 1999rako sailaren aurrekontuen aurreproiektuan 5,8 milioiko kontusail bat sartu dela, garun-paralitikoentzako etxebizitza babestu baterako. Horrek, aipatutako lehen kasua konpon lezake. Bigarrenari dagokionean, adierazi du delako aurreproiektu horretan barne hartu dela 35 milioi baino gehiagoko kontusail bat Sondikan minusbaliatu fisikoentzako egoitza bat martxan jartzeko.

⇒ *Udal ekarpen ekonomikoa hirugarren adinekoentzako egoitzen finantziazioan, azken urteetan eskatzailearen errolda aldaketa gertatu den kasuetan (2374/98)*

- Erreklamazioa

Gipuzkoako herri batean bizi zen adineko baten familiakoek pertsona horren sarrera eskatu zuten hirugarren adinekoentzako egoitza batean.

Udalerrri horretako udalak aitortu arren eskatzaileak betebeharrak guztiak betetzen zituela egoitza laguntza emale batean sartzeko, uko egin zion pertsona horren egonaldiगतिको udal dirulaguntza emateari, ez zuen-eta osoko bilkuran onetsitako betebeharrak betetzen, hots, herrian bost urtez behintzat erroldatua egotea.

Izan ere, pertsona hori Gipuzkoako beste herri batean bizi izan zen luzaro, eta urtebetea iragana zen, gutxi gora behera, beste udalerrri honetara alabaren familiarekin bizitzera etorri zenetik.

Aurreko ukatzearen ondotik, familiakoek dirulaguntza eskatu zuten aurretik bizi izan zen herriko udalean, baina udal horrek ere ukatu egin zien, argudiatuta delako emakume hori jadanik ez zegoela udalerrri horretan erroldatua, baina bere gain hartu zuen behin behineko partaidetza partziala.

- Azterketa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuaren eta lurralde honetako hirugarren adinekoentzako egoitzen artean sinatutako hitzarmenaren arabera, egoitzetako plazak honela finantziatzen dira: foru sailak kopuru bat ematen du pertsona interesatuaren dirusarreraren arabera, eta erroldatua dagoeneko udalerrriak plazak balio duen gainerakoa ordaintzen du. Era berean, finantziazio publikoa lortzeko, eskatzaileei eskatzen zaien betebeharrak bat hauxe da: *“bertakoa izatea edo 5 urteren aintzinasunarekin erroldatua egotea Gipuzkoako Lurralde Historikoan”*.

Kasu honetan, eskatzaileak sobra betetzen zuen betebeharrak hori, eta horregatik, Foru Aldundiak ez zuen haren partaidetza zalantzan jartzen. Arazoa honetan zetzan: zehaztu beharra zegoen zein udalek - eman behar zuen dirulaguntza, jatorrikoak ala helmugakoak.

Aspektu hau ez zegoen arauturik Gipuzkoa barruan errolda aldaketa azken bost urteen barruan gertatua zen kasuetarako. Dena dela, erakunde honen iritzia izan zen irizpide batzuk ezarri behar zirela kasu hauetan aplikatzeko, nola halako maiztasunez gerta baitzitezkeen.

- Emaiza

Alde horretatik, Arartekoa Gizartekintza Departamentura zuzendu zen, haren iritzia eskatzeko kasuetarako egokien juzkatutako irizpideari buruz.

Jasotako erantzunean, adierazten zen arazo honen berri aurretik ere jakin zuenean, delako sail horrek agiri batean bildu zituela kasu horretarako eta antzekoetarako irizpideak. Xedea zen adiskidantza elkarlanbideak jorratzea Gipuzkoako udalen artean. Agiria Euskadiko Udalen Elkartearen-EUDELen iritzipean jarri zuen, eta Elkartek horren Gipuzkoako Lurralde Batzordeak onetsi zuen.

Agiri honen arabera, esku artean darabilgun kasuan, jatorriko udalari dagokio udal ekarpen osoa ordaintzea, eskatzailea udalerrri hartan egon baita erroldaturik azken bost urteotan.

Arartekoa jatorriko udalera zuzendu da, udal honek jakinarazi dezan zein den bere jarrera EUDELe hartutako erabakiari buruz, eta txosten hau idazten ari garen honetan erantzunaren zain gaude.

12. LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA

12.1. SARRERA

Aurreko txostenetan adierazi den moduan, Lan eta Gizarte Segurantzaren alorra da eraginik txikien duena Autonomia Erkidegoko eskumen esparruaren barruan.

Kontrol jarduerak, euskal administrazioek burutzen duten lanean zentratzen dira bakar bakarrik, esate baterako, lanbide heziketa, laneko seguritatea eta osasuna, edo, bestela, kontrol jarduerak izaten dira euskal administrazio publikoekin zerikusia duten tankera soziolaboraleko arazoei buruzkoak.

Lehendabiziko jarduera multzo horri dagokionez, konparazio batera, hiritar batek erakunde honetan aurkeztu zuen kexa batek hauxe azaltzen zuen Bilboko Udalaren Enplegu, Gazteria eta Kirol Alorraren menpe zegoen Lan Ekintza-Bilbao udal sozietateak antolatutako prestakuntza-ikastaro baten sarrerari buruz, hots, ikastaro horretan bakar bakarrik parte har zezaketen Bilbo inguruan kokaturiko hogeita hamar langile baino gutxiagoko enpresetako ardurakargudunek, eta hiritar horrek azaltzen zuen hori diskriminatorioa izan zitekeela. Horrela, adierazi zen administrazio bakoitzak bere eskumenak dituela sustapen politikak finkatzeko. Honela, ikusten da Bilboko Udala eskudun dela udalerririk horretako pertsona fisikoen eta juridikoen enplegu eta ekonomia mailako sustapenean. Ez du, ordea, eskumenik beste udalerririk batera mugatzen diren pertsonen gainean, eskumena erresidentziako udalerririk horren beraren esku bailegoke.

Beste alde batetik, 1997ko txostenean adierazi genuen bezalaxe, hiritar batek eskaturik, Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoan amiantoarekin zerikusia duten lan arriskuen prebentzioaren gaineko legeriaren kontrola eta segimendua aztertu ditu, eta gai honi zehatzago ekingo diogu aukeratutako kexen atalean.

Amatasun baimenari dagokionean, ama biologikoen aldean amatzakoek jasotzen duten tratu desberdinaren arazoa dela eta erakunde honek egindako jarduerak azaldu nahi dira alor honetan. Aurten, berriro, bi hiritarren kexak jaso ditugu, ama biologikoen aldean, adopzioa hautatzen duten amei ematen zaizkien baimen-desberdinak salatuz.

12.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Laneko seguritatea eta osasuna

⇒ *Amiantoarekiko esposizioarekin zerikusia duten lan arriskuak (1245/97)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen amiantoarekin zerikusia duten lanetan ari diren langileen babesaren gaineko arautegiaren aplikazioa Eusko Autonomia Erkidegoan.

- Azterketa

Jarduteko aukerak zehaztu ondoren, erakunde hau zuzendu zen hala OSALANera nola Lan Sailera, modu horretan amiantoarekin zerikusia duten lanetan ari diren langileak prebenitzeko eta informatzeko Autonomia Erkidegoan hartuta dauden diren neurriak aztertuz.

Halaber, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari ondoko puntuei buruzko informazioa eskatu zen:

- Amiantoaren Arriskupeko Enpresen Zerrenda (AAEZ), zeina 1984ko urriaren 31ko Aginduaren 1.3 artikuluari jarraiki eratu baitzen,
- galga eta enbrage konponketa lanak egiten dituzten automobilen konponketarako lantegietan langileak amianto-zuntzaren hautsaren arriskupean daudenez gero, hori aintzat har dadila,
- Sailak AAENZn inskribitzeko duen obligazioa, eta
- erabaki hori oinarritzen zuten arrazoiak.

Horrela, OSALAN/Laneko Osasuna eta Seguritatearen Euskal Institutoaren txosten bat jaso zen, eta horretan sartua zegoen amiantoaren gaineko egitarau bereziari buruzko informazioa, erakunde autonomo honek 1996-97 urteetan Laneko Seguritatea, Higienea eta Ingurugiro Egitarauaren barruan burututakoa. Egitarau berezi horretan bilduta daude amiantoarekin zerikusia duten enpresen eta langileen asesoramendu, zaintza eta kontrolaren mailako helburuak, eta bertan jarduera eta xede batzuk finkatzen dira. Xede horiek, Euskadiko Autonomia Erkidegoan amianto-zuntzen arriskupean egon diren edo dauden langileen osasunaren zaintza helburu duten plan batzuei lotuta daude. Oro har, neurri hauen artean, prebentzio eta kontrol neurrien aurrerapen nabarmena eta goresgarria ikusten da, hala osasunari kaltegarri zaion amiantoaren arriskupeko lan-ingurunetan, nola arrisku egoeretan egon daitezkeen langileen kontrola ondoren egiterakoan.

Dena dela, kezkatzekoa da zenbait lan-ingurune egitarau honen jarduera esparrutik kanpo geratu izanak, esate baterako, automobilen konponketarako lantegiak. Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendariaren txostenaren arabera, AAENZtik kanpo daude galga eta enbrage mekanismoen konponketaz arduratzen diren lantegiak, lan hori jarduera osagarritzat hartuta baitago Amiantoarengatikiko Arriskupeko Lanen Araudiaren aplikazioari dagokionean, zeina onetsi baitzen 1984ko urriaren 31n. Hori horrela da, lan jarduera mota horiek, galga eta enbrage konponketa horiek, aspaldian ez direlako amiantoa daukaten materialekin egiten, eta, horregatik, manipulaziorik ez izatean, ez dago esposiziorik. Azalpen hori, ordea, ez dago Araudi horren 4. artikulua dakarren ingurunearen ebaluazioan eta kontrolean oinarrituta, behar lukeen moduan. Izan ere, delako artikulua horrek, ingurunean dauden amianto-zuntzen metaketak zehaztasunez taxutzeko obligazioa ezartzen du *“teknikoki bide fidagarria”* erabilita, *“emaitzaren alderaketa eta etengabeko segimendua ahalbidetuko dituenak”*. Era berean, irailaren 19ko 83/477/EE Jarraibideak obligazioa ezartzen du arriskua halako moduan ebaluatzeko: *“langileek, amianto-hautsarekiko edo amiantoa daukaten materialekiko duten esposizioaren tankera eta maila zehazteko moduan”*, hori guztia behar bezalako neurriak hartzeko xedearekin, eta esaten da airean dagoen amiantoaren edukaren neurbiderako erabiliko dela, aipatutako I jarraibide horretan agertzen dena edo antzeko bat. Nolanahi ere, admisio-hodietatik igorritako hauts kopurua zehazteko erabiltzen diren erreferentziazko azterketabideak hauexek izango dira: grabimetroa edo otsailaren 1eneko 108/1991 Errege Dekretuak bildutako zuntzen zenbaketa. Horregatik, Araudiaren 3. artikulua amianto-zuntzak daukaten hautsaren arriskupean dauden edo egon daitezkeen langileek egiten dituzten lanei eta jardueri eta, bereziki, galga-zapata eta enbrage konponketak egiten dituzten jarduera horiei zuzenduta dago. Egia bada ere autogintzako enpresa berriek ia erabat baztertu dutela osagai honen erabilera autoaren elementu hauetan, tailer askotan oraindik modelo zaharrak konpontzen dituzte, eta horiek dira, hain zuzen ere, euren enbrage eta galgetako osagaietan amiantoa eduki

dezaketenak. Alde horretatik, gogoratu beharrean gaude Europako Batasuneko Kontseiluak, amiantoarekin zerikusia duten arriskuen kontrako langileen babesari buruzko 1998ko apirilaren 7ko Ondorioetan zera dioela, alegia gaur egun, arriskurik handiena ustegabeen lanean ari direla amiantoa topatzen dutenak duten langileak direla, mantenimendu eta konponketa lanetan aritzen direnak batez ere.

Aldi berean, biltzen da Eusko Legebiltzarrak onetsitako legez besteko proposamena, amiantoarengatik arriskua duten lanen gaineko arautegiaren aplikazio eraginkorrari buruzkoa, 1998ko otsailaren 20ko Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean 154 zenbakidunean argitara emana. Legez besteko proposamen honetan Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio kontrola areagotu dezala, modu horretan amiantoarekiko lan esposiziorako arriskuak dakartzaten produktuak erabili edo manipulatzan dituzten enpresek indarrean jar ditzaten legeriak bildutako bermeak, berme horiek dagokion erregistroan sar ditzaten eta era berean, aldian behingo ingurune-kontrolaren egiaztapena egiten segi dezaten, metodologia ezeak bazter utzita.

- Emaiza

Horrela, beraz, abenduaren 21eko 3/1993 Legearen 4. artikulua araberan, uste dugu Laneko Seguritate eta Osasun Euskal Institutoari dagokiola ingurune-neurketak egitea, uste osoa izateko langile horiek ez daudela amiantoarengatik arriskupean dauden langileen artean, eta horregatik ondoko gomendio hau zuzendu zen:

“Laneko Seguritate eta Osasun Euskal Institutoak/OSALANek aldian behingo egiaztapenak egin beharko lituzke galgak eta enbrageak erabili eta konpontzen dituzten lantegietan, otsailaren 1eko 108/1991 EDk dakartzan laginak hartzeko eta aztertzeko metodoen bitartez, modu frogagarrian eta zehazki egiaztatzeko ea lan jarduera horiek barne egon behar duten Amiantoarekiko Arriskupeko Enpresen Erregistroan, eta horrela, legeriak barne hartutako kontrol eta neurripean ere bai.”

Txosten hau prestatu dugun uneraino, ez dugu aurreko gomendioari zuzendutako erantzunik jaso.

13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

13.1. SARRERA

Hirigintza eta Etxebizitzarekin loturiko arazoek 118 kexa sorrarazi dituzte; kexa horiek honela sailka ditzakegu:

- Hirigintza 67
- Etxebizitza 51

Hirigintza arloko kexetan azaltzen diren gorabeherak gero eta zehatzagoak dira, eta gero eta hirigintza-eremu murriztagoei dagozkie. Honela, Arartekoari iristen zaizkion hirigintza-mailako arazoek zerikusirik dute, orokorrean, zatikako planetan jasorik dauden proposamenekin, eta, batez ere, hiri-zoruko plan berezietan jasorik dauden proposamenekin, non eraikinen altuera edo lerrokatzea, orubeen erabilera bereziak eta gisako gorabeherak aintzat hartzen baitira.

Hirigintza-kudeaketarekin loturiko kexak ere aurkeztu dira. Kudeaketa honetan, beren borondatez edo ez, gaia gehiago edo gutxiago ezaguturik, eraikigarriak diren lur-sailen jabe partikularrak nahasirik egoten dira. Birpartzelatzea eta konpentsatzea zinez da prozesu konplexua, eta ukituek onurak eta kargak banatzeko prozedura hauekin zerikusirik dituzten xehetasun teknikoei buruzko informazioa eskatzen dute. Beste zenbait kexatan herritarrek udalek harturiko erabakien legezkoatasuna baieztatu nahi zuten; izan ere, erabaki hauek kasu bakoitzean aplikagarriak diren hirigintza-printzipioekin egoki eta zuzen ote diren tekniko zein juridikoki zaintzea hain zaila denez, herritarrek erabaki hauen aurrean defentsarik gabe zeudelako iritzi subjektiboa zuten.

Etxebizitzari dagokionez, azaldu diren kontuak hirigintza eta etxebizitzaren arteko erdibidean daude. Hala gertatzen da, adibidez, interesatuek edo beste auzoko batek obra-baimena eskatzen dutelarik, baimen hau emateak edo ukatzeak erreklamatzailen bizimoduaren kalitatean eragin nabarmenak dituztenean. Etxera itzultzeko eskubideari buruzko kexak ere jaso dira, hirigintza mailako jarduerak eragindako etxetik irtenarazteak gertatu direnean; eraikin babestuak zaharberritzeko laguntzei buruzko kexak ere jaso dira.

Etxebizitza sozialen gaineko kexa zehatzak ez dira oso ugari izan, baina era askotako gaiak dagozkie. Anitzetan hezetasuna sorrarazten duen eraikuntza-akatsi buruzko kexak aipatu beharrekoak dira, baita etxebizitza duin bat edukitzeko eskubideari buruzkoak ere.

Bereziki azpimarratzekoa da Arartekoak Galdakaoko Udalaren eta Zuataurre auzoko biztanleen artean aurrera eraman duen bitartekaritza. Gatazka honen berezitasuna zen bazegoela egitura agerian zuen 20 etxebizitzetako eraikin bat; eraikuntza bertan behera utzi zen orain 20 urte aurrideen presioa zela medio. Arartekoak egin zuen bitartekaritza hitzarmen bat prestatzea izan zen; hitzarmen honek hainbat hirigintza-proposamen eta auzoa hornitzeko obra publikoko inbertsio-proposamen biltzen zituen. Gatazkan zeuden parte guztiek onetsi zuten hitzarmena.

13.2. AUKERATUTAKO KEXAK

A) Hirigintza

⇒ Galdakaoko Zuataurre auzoko hirigintza-gatazkan egindako bitartekaritza (1668/96)

- Erreklamazioa

Galdakaoko Zuatzaurre auzoko biztanleak Arartekoari zuzendu zitzaizkion, orain 20 urte elkarren aurka zeuzkaten gatazkan bitartekaritza lana egin zezan eskatuz.

Arazoa honako hau zen: auzokoek eskatzen zioten Udalari 20 etxebizitzako eraikin bat lurrarekin berdindu zezan. Eraikin hartako 20 etxebizitzetatik 15 bukaturik zeuden, eta beste 5ek egitura agerian zuten. Auzokoen ustez, eraikin hau eraiki zenean, orain 20 urte, hirigintza mailako legehauste larria egin zen, hurbileko auzokoen lursailetan sartzeaz landa. Beste alde batetik, auzoa guztiz abandonaturik zegoela iritzen zioten, eta egoera honi buelta ematea eskatzen; auzoa 60 eta 70eko urteetan eraiki zen, eta ordudanik ez da inolako inbertsiorik egin hornidurak, gune libreetako dotazioak edota auzoa orokorrean urbanizatzeko.

- Azterketa

Lehengoz eta behin, Arartekoak 20 etxebizitzetako 9 zki.ko blokearen egoera juridikoa aztertu zuen, eta atera zuen ondorioa izan zen ezen, indarrean dagoen hirigintza-legeek ezartzen dutenaren arabera -1994ko Galdakaoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra-, eta eraikina egin zenetik pasatako denbora kontuan hartuz, legearen aldetik egoera guztiz zuzena zela, eta, hortaz, ezin zitekeela inolako lege neurririk hartu aipatu eraikinaren kontra.

Ondoren, auzokoek eskatu zioten Arartekoari beraien eta Udalaren arteko bitartekaritza egin zezan, beti ere kontuan hartuz honelako jarduerak aukerakoak direla Administrazioarentzat, eta, beraz, Galdakaoko Udalak berariaz baietza ematea beharrezkoa zela.

Hau guztia proposatu zitzaion Udalari, eta 1997ko azaroaren 4an Galdakaoko Alkateak Arartekoari erantzun zion, esanez onartu egiten zuela erakunde honek bitartekaritza egitea Zuatzaurre auzoko gatazkan.

Arartekoak egin zuen lehen gauza izan zen Arkitektoen Kolegioari eskatzea izenda zezan arkitekto bat 9 zki.ko eraikineko egitura ongi mantetzen zen edo ez ikusteko, edo, aitzitik, denboraren joanak larriki kaltetu ote zuen. Era berean, hainbat balorazio egitea eskatu zitzaion, eraikinaren egungo balioa, eraikina botatzearen kostua, 20 etxebizitzak baldintza onetan utzi eta erabat bukatzearen kostua eta abar zehazteko.

Martxoan jaso zen aipatu txosten hori, eta berehala ezagutarazi zitzaion parteei, kopia bana emanaz. Txostenak zioen egitura egoera onean zegoela, ez zegoela kaltetuta; horretaz gainera, eraikina botatzeak eta jabeari eman beharrekoko kalteordainak 160 milioi baino gehiago joko zuela esaten zen. Gainera, adierazten zen agerian zegoen egitura-zatia urratu zitekeela, habe bat errespetatuz eta eraikineko gainontzeko egitura kaltetu gabe.

Txosten hau erreferentzia-puntu oinarritzko eta eztabaidaekin bihurtu zen, bertan ikusten baitzen lehengo aldiz, teknikari independente baten txostenaren bidez, zeintzuk ziren 9 zki.ko eraikinaren ahalbide tekniko eta ekonomikoak, gatazkan zeuden aldeetako inork ez zuelarik, gainera, txostena ezbaian jartzen.

Halaber, txostenak balio izan zuen Arartekoak eraikina lurrarekin berdintzeko posibilitatea ez zezan aintzat har, batez ere antiekonomikoa zela iritzirik. Txosten teknikoa emateko egin zen bileran bertan jakinarazi zitzaion alde bakoitzari erabaki honen berri, esanez, gainera, hamabost egun geroago elkartuko zirela berriro Arartekoak egiten zuen bitartekaritza-proposamena zein zen jakinarazteko; aldeaz aurretik gaztigatu zen agiri batean saiaturiko zela auzo osoa ukitzen zuen arazo sozio-urbanistiko guztia biltzen.

Hamabost egun geroago banatu zen agiriak hiru puntu biltzen zituen: hirigintza-jarduerak, hirigintza-kudeaketa zaluago egiteko xedez; honetarako Plan Orokorra aldatzea proposatzen zen, baita Galdakaoko Udala kudeaketa mailako erantzukizunetan konprometitzea ere; 9 zki.ko eraikinean jarduera arkitektonikoak egitea, 20 etxebizitzetatik 15 bukatu ahal izateko eta, aldi berean, eraikina auzoan integratu ahal izateko; eta, azkenik, urbanizatzeko jarduerak, gunee libreetako kalitatea, bideak, saneamendu-azpiegitura eta argiteria publikoa hobetzeko.

Honen guztiaren ondorioz, eta beste hainbat helbururen artean, konpromezuak ezartzen ziren auzoak, epe laburrean, ondoren aipatzen diren helburuak lor zituzan: 6.300 m²ko parkea, 9 zki.ko eraikinaren azpi aldean ekipamendu soziokulturaleko lokala, auzoa oinez zein ibilgailuz ibilgarriago bihurtzeko kale berri bat, aparkalekua baterian eduki eta auzoaren borobiltze urbanoa izango zena, eta zegoen gunee libre bakarraren gainean eragiten zen, txukundu eta auzoen arteko topagune eta elkarbizitzarako gunee bihurtuz.

Proposamen hauek eztabaidatu eta hobetu ziren auzokoekin, Udalarekin eta 9 zki.ko eraikinaren jabetzarekin egin ziren bileretan zehar. Berorietan ikusi zen egoki zela egutegi bat ezartzea, jarduera guztiak denboran kokatzeko eta auzokoen berme izateko, baldin eta udalaren aldetik nagitasuna edo aurrera egiteko asmo falta atzematen bazen.

- Emaizta

Apirilaren 19an, igandea, Zuataurreko aurrideek batzarra egin eta gehiengo handiz erabaki zuten Arartekoak prestaturiko bitartekaritza-agiria ontzat ematea.

Bere aldetik, Udalak apirilaren 20an agiria aztertu zuen Hirigintza Batzorde Informatiboan, eta alderdi politiko guztien oniritzia lortu zen, HB abstenitu zelarik.

Galdakaoko Udalak, apirilaren 29an egin zuen osoko bilkuran, gehiengo handiz erabaki zuen bitartekaritza-hitzarmena berrestea eta ezarritako epeetan beteko zela hitza ematea.

Azkenik, maiatzaren 5ean Zuataurreko auzo elkarteko ordezkariak, Alkatea eta Arartekoa bildu ziren Udaletxean, bitartekaritza-proposamena gauzatzeko, hitzarmenaren agiria izenpetuz; horren arabera, Ararteko erakundea zaindari izendatzen zen, parteek hitzarmena izenpetzearen ondorioz bete behar zituzten baldintzak betetzen zituztela baieztatuz.

⇒ Arau subsidiarioek ezartzen dute derrigorrezkoa dela usadiozko materialak erabiltzea udaleko baserri guztiak konpontzeko garaian (707/97)

- Erreklamazioa

Hiritar bat Arartekoari zuzendu zitzaion esateko, Bermeoko Arau Subsidiarioen arabera, udaleko baserrietako teilatuak konpontzeko porlanezko egiturak erabiltzea berariaz debekatuta zegoela, eta horrek egurrezko egitura erabiltzera derrigortzen zuela.

Bere iritzian, neurri hau udaleko baserri guztietan aplikatzea funtsgabea zen, eta gaineratzen zuen ezen, kontu estetiko baldin bazen, ez zuela eragozpenik zura erabiltzeko bere baserriko hegalean, baita kanpotik ikusten ahal ziren gainerako elementuetan ere.

- Azterketa

Arartekoak eskatu zion Bermeoko Udalarri baserrietan egiten diren obrak arautzen dituzten arau subsidiarioetako hirigintza-ordenantzako atalen kopia bat bidaltzeko.

Idazkian erakundearen iritzia aurreratu zen; alegia, diskutigarria zela Udalak ezarri ahal ditzan, halako justifikazio handiagorik gabe, arazo estetikoekin zerikusirik ez duten eraikuntza mailako betebeharreko baldintzak edota baldintza arkitektonikoak, eta diskrezionalki hartzen zen edozein erabaki behar bezala justifikatu beharko zela, zio eta guzti, arau subsidiarioak onartzen dituen espedientean.

Udalak erantzun zuen esanez indarrean dauden arau subsidiarioetako 4.2.3.6. a) artikulua arabera, baserrietan egiten diren obretan “...*aurrez zegoen eraikinaren eraikuntza-ezaugarriei eutsiko zaiela: harrizko hormak, zurezko egiturak, habeak eta zutabeak, forjatuetako eta estalkietako gapirioak, berariaz debekatzen direlarik hormigoizko egiturak forjatuetan, lurraren parean dagoen beheko solairuan izan ezik*”.

Gainera, esaten zuen Arartekoak erabiltzen zuen estetikari buruzko kontzeptua, usadiozko materialak bakarrik kanpotik ikusten ahal ziren elementuetan erabiltzea oso sinplea zela, eta ezin zela ezbaian jarri baserrietako eraikuntza eta hirigintza-kontuak arautzeko Udalak duen eskumena.

Era berean, esaten zen baserrien errolda bat prestatzen hasiak zirela, aintzinasuna, tradizio eta diseinuaren arabera sailkatzeko, eta sailkapen honen arabera, bertan egiten ziren eraikuntza-jardunei erregimen gogorrago edo malguago ezartzeko.

Arartekoak erantzun zuen esanez ez zuela ezbaian jartzen Bermeoko Udalak lur ez urbanizagarriko eraikinek, bereziki baserriek, usadiozko tipologia errespetatzen ezazaten eskatzeko zeukan eskumena, eta hortaz, irizpide estetikoak ezartzeko eskumena bazuela.

Alabaina, adierazi zion halako erabaki murriztaile bat hartzeko -baserrietako zaintza eta mentenimendu lanetan zura erabiltzera behartzea-, aldez aurretik behar bezalako justifikazioa behar dela, arrazoizko irizpide objektiboetan oinarritua, eta ez direla aintzat hartzekoak iritzi subjektiboak, zeinak, errespetagarriak izanik ere, ezin baitaitezke izan eskubideak murrizteko funtsa, are eta gutxiago auzokoentzat hain garrantzizkoa den gai batean.

Gainera, adierazi zion ezen, beren ezaugarri edo balio bakan eta bereziengatik zaindu eta babesteko neurri berarizkoak behar dituzten eraikin zehatzak babesteko, hirigintzari buruzko legeek katalogoen irudia aurreikusten dutela.

• Emaizta

Arartekoak gomendatu zion Bermeoko Udalarari arau subsidiarioak aldatzea alderdi honetan, eta esan zion baserriak irizpide zorrotz batekin babestu nahi bazituen, hirigintza-agiri zehaztua prestatu eta tramitatu beharko zuela, katalogo bat, adibidez.

Bermeoko Udalak bazterrean laga zuen Arartekoaren gomendioa, argudio honekin: baserriek, herritar guztientzat, ondare kultural eta estetiko oso garrantzizkoa osatzen dutela, eta beren ezaugarriak nabarmenetakoa dela eraikitzeke erabiltzen diren materialak, hau da, egurra eta harria, eta horregatik zorrotzki babestu behar zirela, jardun arkitektonikoa usadizoko materialekin egiten zenean bakarrik baimenduz.

Halaber, ez zuen onartu katalogoa babesteko tresna urbanistikoko gisa, ez baitzen bere asmoa baserri jakin batzuk babestea, baizik eta baserriak, orokorrean, bere gaurko baldintza estetiko eta eraikuntza-berezitasunekin babestea.

⇒ *Hirigintza-arauak aldatzen direnean eraikitzeke baimena lortzeko eskubideari buruz (1312/97)*

- Erreklamazioa

Hiritar batzuek Arartekoarengana jo zuten, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza eta Arkitektura Zuzendari Nagusiaren bi erabaki salatzeke asmoz. Erabakiok ez zuten hasierako baimena ematen familiabakarreko eraikin bat eta familiabiko beste eraikin bat eraikitzeke Gabiriako lur ez urbanizagarrian.

Baimena ez emateko erabakien argudio juridikoak honela oinarritzen ziren: otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Jarraibideak (DOT) behin-betiko onartu berri zituela, eta berauek, ondorio horietarako, honako hau ezartzen zutela, *“lur ez urbanizagarrian etxebizitza isolatuak eraikitzea debekatuta dago, nekazaritzarekin loturik egon ezean”*.

Erreklamatzailleek esaten zuten obrako baimen-eskaera 1997ko urtarrilaren 17an aurkeztu zela, DOT direlakoak onartu baino lehen, alegia, eta Hirigintza eta Arkitektura Zuzendari Nagusiaren ezekeko erabakia maiatzaren 16koa zela, DOT onartu eta gero, interesatuei entzuteko tramitea bete eta gero.

- Azterketa

Auzia alderdi juridikotik aztertu zen, jakin ahal izateko zein zen aplikatu beharreko erregimen juridikoa, kontuan hartuz baimena eskatu zen egunetik, hau da, urtarrilaren 17tik, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen arte, maiatzaren 16ra arte, indarreko legeak aldatu zirela, DOT delakoa onartu eta indarrean jartzearen ondorioz.

Horretarako, Auzitegi Gorenak hainbat jurisprudentziazko ebazpenetan agerturiko irizpideari lotu zitzaion. Ondorio hauetarako, Auzitegi Goren horrek ebatzi du ezen Administrazioak behar den epearen barruan erabakitzen ez duenean, prozeduraren luzamendu honek ez duela administratua kaltetu behar; bestalde, segurtasun juridikoaren printzipioa aplikatuz, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ezarri du erregimen aplikagarria izango dela herritarrek bere baimen-eskaera aurkeztu zuenean indarrean zegoena, halako moldez non, ekintza administratiboa egin izan balitz bere denboran eta behar bezain agudo, arau aplikagarriak harrez gero indargabetu zirenak izango baitziren. Alde honetatik, ondoren aipatzen diren Auzitegi Gorenaren epaiak aipa daitezke, besteak beste: 1983ko irailaren 23koa (Ar.4.532), 1984ko abenduaren 11koa (Ar. 6.673), 1989ko urriaren 30ekoa (Ar. 7.594), 1989ko azaroaren 13koa (Ar. 8.186), 1993ko ekainaren 2koa (Ar. 4.512) eta 1993ko ekainaren 29koa (Ar. 4.894).

Udalbatzen Zerbitzuei buruzko Erregelamenduko 9.1. artikulua ezartzen duenez, udalek, hau bezalako obra handien kasuan, gehienez ere hiru hilabeteko epea dute baimena emango duten edo ez jakinarazteko. Beraz, baimena emateari buruzko erabakia, beranduenez, apirilaren 17an eman behar izan zen, hau da, Foru Aldundiak horri buruzko iritzia eman baino hilabete lehenago.

Lur ez urbanizagarrian etxebizitza eraikitzeke baimena emateko prozedura konplexua dela kontuan hartuz -Gabiriako Udalaren aurrean baimena eskatu, Hirigintza eta Arkitektura Zuzendaritza Nagusiaren txosten loteslea, eta ondoren Udalaren erabakia-, ulertu beharko zen, analogia eta segurtasun juridikoaren printzipioak aplikatuz, erregimen juridiko aplikagarriari buruzko interpretazio honek beronek aipatu Zuzendaritza Nagusiaren pronuntziamenturako ere balio behar duela. Hala ez izatera, paradoxa hau aurkituko genuke: Udala obrak egiteko baimena ematera juridikoki derrigortua dagoela Foru Aldundiaren aurkako txostena izanik ere.

- Eraitza

Azkenik, Hirigintza eta Arkitektura Zuzendaritza Nagusia, Arartekoak mahaigaineratzen zuen argudio juridikoaren aurka zegoela adierazirik ere, eta

etorkizunean berriz ezin gerta zitekeen kasua zela kontuan harturik, bere hasierako erabakiak aldatzeko gertu azaldu zen. Hala, Obra Hidaruliko eta Hirigintzako Foru Aldunak erabaki zuen obra horiek egiteko beharrezko baimenenaren aldeko txostena ematea, hau da, Gabiriako lur ez urbanizagarrian familiabakarreko etxebizitza bat eta beste etxebizitza bat, hau familiabikoa, eraiki daitezen.

⇒ *Udalak plan orokorraren hirigintza-aurreikuspenak dagokion epean betetzeko duen beharrari buruz (1530/97)*

- Erreklamazioa

Uliako auzo elkarteak esan zion Arartekoari Donostiako Udalak ez zituela betetzen udal honek berak idatzi eta onartu zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko aginduak.

Esaten zuten Plan Orokor horren arabera, 1999ko azarorako, Uliako AIU “NU.02.ULIA” eskualdeko Plan Bereziak idatzita eta onartuta egon behar zuela. Plan honen helburua zen Uli mendikateko goiko ertzean zein itsasorantz egiten duten magaletan aisialdirako eremua egitea.

Ordura arte Donostiako Udalak ez zuen inolako tramiterik hasi, ez eta plana idatzeko lanen kontratazioa ere, eta hortaz, auzo elkartearen iritzian, nekez beteko zen helburua ezarritako epean.

- Azterketa

Arartekoak, 1976ko Lurrazalerari buruzko Legearen Testu Bateratuko 57. artikulua ezarritakoa kontuan harturik, Administrazioak hiri antolamendurako planetako aginduak bete behar dituela adierazi zuen, eta Donostiako Udalarri zuzendu zitzaion kekek agertzen zuen arazoaren berri emateko.

Adierazi zen ezen, jarduketa hau Plan Orokorreko Jarduketa Programaren lehen lauhilabetekoan sartzen zenez, Plan Bereziak 1999ko azaroan onartua behar zuela.

Donostiako Udalak erantzun zuen esanez aurrekontuan bazegoela 10 milioi pezeta jotzen zuen kontusaila gai honi aurre egiteko, eta hasia zegoela jada AIU “UN.02.ULIA” Plan Bereziaren idazketa, lehiaketaren bidez, kontratatzeke espedientea.

- Emaizta

Arartekoak informazioa eman zien auzokoei Udala aurrera eramaten ari zen kontratazio-tramiteei buruz, eta, horren arabera Plan Orokorreko Jarduketa Programak ezartzen zuen epea beteko zuela adierazi.

Azkenik, Udalak jakinarazio zion Arartekoari 1998ko martxoaren 3ko Alkatezaren erabakiak Plan Bereziaren idazketa esleitzen zuela, esleipen honek 9,5 milioi jotzen zuelarik, hori guztia enkantea arautzen zuen baldintza ekonomiko-administratiboen orriak ezartzen zuenaren arabera.

⇒ *Ibaizabal ibaia ubideratu eta gero udalean egiten hasi diren obretako hirigintza-oztopoak (15/98)*

- Erreklamazioa

Elbarrien elkarte batek salatu zuen erakunde honen aurrean Laudioko Udalak ez zituela hirigintza-oztopoak desagerrarazi udalaren barruan Ibaizabal ibaia ubideratzeko obrak bukatu eta gero eginiko espaloi berrietan.

• Azterketa

Laudioko Udaltzakoak, laguntza eskatu zitzaionean, hau adierazi zuen:

“...2.) Proiektaturiko obrak hidraulikoak direla, eta hortaz proiektu hori ez dela hirigintzako, eta beraz, obra horiek ez direla Udalaren eskumenekoak.

3.) Bestalde, egia dela Ubideratzeko Proiektua egiteko eta hobetzeko, udalaren zerbait lursail eta zerbitzu ukitu direla, eta bertan egin diren birjarpen-lanek eta lan osagarriek, espaloiak zehatz esanda, ez dituztela elbarriei oztopoak desagerrarazteko ezaugarri egokiak.

4.) Egoera honi konponbidea bilatzeko, arazoa atzeman den toki bakarrean (Z.I.9 - Industrialdea- Jez eta Katuja zubien artean) udalak, lehenbailehen eta bere bitartekoak erabiliz, espaloiak bajuago jarri eta tratatuko dituela, eta horri guztiari buruzko informazioa emango zaiola Erakunde horri”.

Kexa egin zuen elkartearekin harremanetan jarri ginen Udaltzakoak egiten zituen kontsiderazioen berri emateko, eta orduan beste idatzi bat jaso genuen erakunde honetan, eta horren ondorioz Arartekoak honako eskaera hau egin zion Audioko Udalari:

“Arartekoak espediente honi buruz atera dituen ondorioak behin-betikotzat jo baina lehen, adierazi behar dugu kexa egin zuen elkarteari udalaren txostena jakinarazi diogunean, elkarte honek jakinarazi digu bere iritziz erreklamatu diren obretako ondoren aipatzen diren espaloietako beharrezkoak zuzendu beharko liritekeela:

- ‘ - Gardea eliza ondoko zubi berriko beharrezkoak.
- Bikalde zubiko beharrezkoak.
- Katuja zubiko beharrezkoak, egin ez direnak eta honez gero egin direnak ere.
- Katuja eta Bikalde zubien arteko guztian beharrezkoak egin ez izana.
- Katuja zubiaren ondoko etxeko aurre aldeko beharrezkoak.
- Jez zubiko beharrezkoak.
- Katuja eta Jez zubien arteko guztiak beharrezkoak egin ez izana.
- Jez zubitik Audioko lurazpikoraino egin egiten ari den espaloia.
- Aretako baskularen ondoan eraiki diren zubi berrietako beharrezkoak.’

Era berean, Ayalako Elbarrien Elkarteak esaten du bere idatzian honako hau: ‘Horiek dira gure ustez zuzendu beharko liritekeen puntuak, dela beharrezkoak txikiago eginez, dela zero altueran utziz, laster indarrean sartuko den lege berriak ezarriko duen bezala; bestalde, beharrezkoak buruz dauden arrapalen eraikuntza hobetu behar da, eta terrazoa beste modu batez ezarri behar da, itsuek erreferentzi-puntutzat hartu ahal izateko.’

Honaino esan den guztiarengatik, honelako kasuetan inguruko elbarrien elkartearen iritzia ezagutzea beharrezkoa, garrantzizkoa eta erabakigarria dela iritzirik, aipatu elkarteak egiten dituen iradokizunen gaineko zeuen iritzia zain gelditzen gara.”

Azken eskaera honi erantzunez, udalaren honako txosten hau iritsi zitzaion erakunde honi:

“ - Aurreko idatzian aipatzen zen zatia (Industrialdea, Jez eta Katuja zubien artean) udal brigadak erreformatu du, espaloietako ertzak zero altuerara beharrezkoak direlarik.

- Halaber, Bikalde zubiko bi pasabide zuzendu dira; pasabide hauek 3-4 mko beharrezkoekin eraiki ziren, baina beharrezkoak hau gutxi omen da elbarriak egoki ibili ahal izateko.

- Ibaizabal Ibaia Ubideratzeko obran eraiki diren ia pasabide guztiak espaloietako 2-4 mko beharrezkoekin eraiki dira, uste genuelarik honela eginez gero hirigintza-oztopoak desagertzen zirela. Alabaina, Elbarrien Elkartearen adierazpenak aztertirik,

baita Arartekoarenak ere, Udalak agertu nahi du espaloietan behar diren aldaketak egiteko borondatea, baita etorkizuneko hirigintza-obretan hirigintza-oztopoak desagerrarazteko indarreko legeek ezartzen dituzten irizpideen arabera jokatzeko borondatea ere.

- Emaizta

Udalak herriko espaloietan behar diren erreformak egiteko agertu duen borondatea ikusirik, eta gure parte hartzea eragin zuen elbarrien elkarteak proposaturiko aldaketak bete zirenez, espedientea artxibatu eta itxi egin zen.

B) Etxebizitza

⇒ *Udalak gas-kontagailuen armairua fatxadari atxikia paratzeko baimenik ez emateari buruzkoa (1227/97)*

- Erreklamazioa

Jabeen elkarte batek kexa bat aurkeztu zion Arartekoari, esanez etxebizitza gasaz hornitzeko instalazioa paratu nahi zutela, baina Andoaingo udalak ez ziola instalazio proiektuari baimenik ematen, arrazoi estetikoak zirela medio, gas-kontagailuen armairua eraikineko fatxadari atxikia paratzea debekaturik zegoela argudiatuz.

- Azterketa

Andoaingo Udalarari informazioa eskatu zitzaion, eta honek bere jarrera justifikatu zuen esanez ezen, Gobernu Batzordearen erabakiaz eta arrazoi estetikoak zirela medio, etxebizitza-eraikinetan gas naturala jasotzeko instalazioak arautzen dituzten baimenen baldintza orokorrak ezarri zituela, eta baldintza horietan debekatu egiten zela neurgailuak paratzea eraikinetako fatxadetan.

Udalak adierazi zuen, gainera, kontagailuen armairua fatxadan paratzeak bide publikotik zehar libreki ibiltzea galarazten zuela, oztopoak sorraraziz, modu horretan kontagailuak hirugarrenen eskura zeudela ez aipatzeagatik.

Udalak esan zuen, baita ere, kontagailuen armairua etxeko atarian paratuz gero, ez zela inolako arriskurik edo oztoporik sortzen, eta suterik izanez gero ebakatu ahal izateko gutxieneko baldintzak ere ez zirela gutxiagotzen.

Arartekoak, afera aztertu eta gero, Andoaingo Udalarari erantzun zion esanez ez zuela ezbaian jartzen udalek, beren hirigintza-planen bidez, eraikinen baldintza estetikoak arautzeko eskumena zutenentz, badutela ziurtzat emanez. Alabaina, kasu zehatz honetan, arautze hori Gobernu Batzordearen erabaki baten bidez burutu zen, eta horrek esan nahi zuen ez zela bete hau bezalako aferak arautzeko prozedura orokorra.

Gainera, aintzat hartu behar zen zein hiri-testuinguruan gertatzen zen egoera hau: eraikita dagoen hiri-eraikina, bakanduko zuen inolako balio estetiko edo arkitektokinerik gabea. Honetaz gainera, aintzat hartu beharrekoa zen kontagailuen armairua fatxadan paratuz gero, eta ez atarian, gas-hodiek eraikineko fatxadatik zehar egin beharreko ibilbidea laburragoa zela, eta alde horretatik instalazio orokorrak sortzen zuen eragin estetiko txikiagoa zela.

Beste alde batetik, kontagailuen armairua balkoi baten azpian paratu nahi zen, eta horrela oinezkoen ibilera ez zen oztopatzen, eta jabari publikoa ez zen ukitzen, ez behintzat balkoiak berak oztopatzen edo ukitzen zuena baino gehiago.

Atarian paratzeari zegokionez, esaten zen eraikinetako suteen aurkako babesaren baldintzen ikuspegitik ez zegoela berau arautzen duen arautegi teknikoaren aldetik oztoporik. Alabaina, bazegoen 1974ko martxoaren 29ko Gas Instalazioetarako Oinarrizko Eraikitze-Araua onartzen duen Aginduko 04.2 artikularekin kontraesana, eskailera itsua baita, hau da, leihorik gabea edota airea sartzeko beste inolako hutsik gabea. Izan ere, arautegiak eskatzen du armairua paratzen den tokiak eduki behar dituela, behe aldeko aireztapena ez ezik, kanpo aldearekin edo patio batekin komunikatzen diren aireztatze hutsuneak goi aldean.

- Emaizta

Arartekoak lehen aipaturiko erabakia berriz kontsidera zedin egin zuen gomendioa ikusirik, hau da, jabeen elkarteari kontagailuen armairua eraikineko fatxadaren para zedin baimena emateko eskaera ikusirik, Andoaingo Udalak bere irizpidea berraztertu zuen, eta erabaki berri bat hartu zuen, jabeen elkarteari baimena emanez kontagailuen armairua auzokoek eskatzen zuten tokian, hau da, eraikineko fatxadaren paratu ahal izateko.

⇒ *Babes berezikoa izendatu den eraikin bat zaharberritzeko laguntzak ukatzeari buruz (1348/97)*

- Erreklamazioa

Gasteizko Aretxabaleta Kontzejuko hiritar batzuk zuzendu ziren Arartekoarengana, adierazteko bizi ziren eraikina Zaharberritze-Eraberritze Ordenantzapekoa zela, eta hortaz, fatxadetako ezaugarri arkitektonikoak zaintzea eta mantentzea derrigorrezkoa zela.

Eraikinak zaharberritzeko obrak behar zituenez gero, bai fatxadaren eta baita estalkian ere, jabeek Arkitektura, Hirigintza eta Ingurugiroko Foru Departamentura jo zuten, eta eskatu zuten hirigintzaren aldetik sailkatutako edo klaifikaturik zeuden eraikinen zaharberritzeko eta zaintzeko dirulaguntzen programan sartzea.

Beren eskaera aintzat hartu zuten, eta 850.000 pezetako dirulaguntza jaso, fatxada behar bezala konpontzeko obra zela kausa.

Alabaina, Foru Diputazioko teknikariek hala aholkaturik, erreklamatzailerak hasierako proiektua aldatu zuten. Hasierako proiektuan hormigoizko estalkia egitea aurreikusten zen, eta aldaketaren arabera, hormigoizko estalki hau egurrezko estalkiak ordezkaturiko zuten, garestiagoa bazen ere fidelago zitzaiolako eraikineko jatorrizko egiturari. Beti ere teknikarien aholkuei jarraiki, fatxada konpontzeko dirulaguntza desbideratu zuten, eta egurrezko estalkia zaharberritzeko erabili, fatxada konpontzeko beste dirulaguntza bat eskatuko zuten unean dirulaguntza emango zitzaiela aginduarekin.

Alabaina, Foru Aldundiak ez zuen aintzat hartu auzokoen bigarren dirulaguntza-eskaera hau, aurrekontu mailako arazoak zirela-ta dirulaguntza programako helburua gutxiagotu zirela esanez, halako moldez non programak monumentu sailkatutako eraikinak baizik ez baitzuten kontuan hartzen. Erreklamatzailerak eraikinak ez zuten monumentu sailkapen hau erdietsi.

- Azterketa

Egindako azterketaren arabera, zalantzarik gabe frogatzen zen erreklamatzailerak fede onez jokatu zutela. Horregatik, Arartekoak Arkitektura, Hirigintza eta Ingurugiro Foru Departamentura jo zuen, kexaren arrazoia mahaigaineratuz, eta bi urte lehenago Departamentuak laguntza eman bazien orain obra bera egiteko laguntza ukatzea paradoxa

bat zela ikusaraziz; gainera, garbi gelditzen zen Foru Aldundiko teknikariek berek eragin zutela egoera berria, erreklamatazaileek hauek emandako aholku eta adierazpenei jarraitzea baizik ez zutelako egin, aholku eta adierazpen hauek sortu zutelarik fatxada behar bezala konpontzeko obra burutzeko dirulaguntza gehiago jasoko zutelako esperantza.

- Emaidza

Ondare Historiko-Arkitetkoniko Zerbitzuak emandako erantzunean azaltzen ziren zer arazoienatik aldatu zen eraikin-ondarea zaharberritzeko eta zaintzeko dirulaguntza programa. Alabaina, Foru Administrazioak zer esperantza sortu zuen aintzat hartuz, baita esaten zuen Foru Departamentuak fatxada behar bezala konpontzeko obretako dirulaguntza eskaerari men egingo ziola, 1998ko aurrekontu ekitaldiko aurrekontu-ahalmenen arabera, administrazioak, ondoren, egin egin zuen bezala.

14. **BESTE GESTIO BATZUK**

14.1. **SARRERA**

Izenburu honen baitan, Arartekoak 1998an barrena bideratu dituen jardueren artetik eragindako gaien ezaugarriengatik erakunde honen lana antolatzeko alorretan sartzeko zailak direnak jaso nahi dira.

Ez da erraza alor honetako kexak kategorien arabera sailkatzea, ezta eraginik handiena eduki dutenak nabarmentzea ere, besteak beste kexa gutxi direlako, oro har, erakundearen jarduera kontuan hartuta eta, edukien aldetik, oso heterogeneoak direlako.

Honen baitan, auzi desberdin asko aztertu dira. Esate baterako: minusbaliotasun motaren bat duten haurrei jolas-parke batean sartzeko ezarri zaizkien mugak; baserri batzuetatik hurbil ehiza-jarduera bat izateak eragiten dituen gogaipean; identitatea egiaztatzeak eragiten dituen arazoak jubilazio-pentsio bat jasotzerakoan; Francoren garaian ezkutuan lanean aritu ziren andereñoek egindako zerbitzuen aitortzearen eskaera edo zehapenak ezarri izana zaborrak kalean uzteko ordutegia ez betetzeagatik, zabor poltsen barrenean aurkitu baitira haren izena agertzen duten agiriak eta gutunak.

Azkenik, argitu behar da alor honen baitan sartuta dauden espedienteen bideratzeari ekin zaiola bitartekaritza hutsaren ikuspegitik, gizakiaren izaerari dagozkiolako eta autonomia erkidego honetan oihartzun ukaezina dutelako.

14.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

⇒ *Francoren garaian ezkutuan lan egin zuten andereñoek egindako zerbitzuen aitortpena (181/94)*

- Erreklamazioa

Erakunde honetan bideratu da, Francoren garaian ezkutuan irakaskuntza lanetan aritutako andereño talde batek sustatutako kexa. Adierazi zuten, garai hartako inguruabar soziopolitikoak zirela medio, ez zutela urte haietan Gizarte Segurantzaren kotizatzerik izan. Beraz, 65 urterekin jubilatzerakoan, ez dute 35 urte adinako kotizazioa egina izango Gizarte Segurantzaren, baina benetan lan egindako urteak dira, horietako batzuk arestian aipatutako egoeran.

Halaxe gertatzen den kasuetan, horrek ondorio txarra du dagozkien jubilazio pentsioaren zenbatekoan, pentsio hori %2 murriztuko baita kotizazioko 35 urte horietara iristeko falta den urte bakoitzeko, gutxieneko denboraldi horixe baita Gizarte Segurantzak ezarri duen betebeharrerako bat dagozkion pentsioaren %100 jasotzeko.

Kexaren sustatzaileek, aipatutako arrazoiarengatik, jubilazio pentsiotik kenduko dieten kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ordaintzea eskatzen zuten, eta eskaera hori kasuaren ezaugarri bereziei, erkidegoari emandako zerbitzuari eta urte haietako kotizazio faltaren arrazoiei erreparatuta egin zuten.

- Azterketa

Erakunde honek alderdi ekonomikotik ebaluatu nahi izan zuen neurri hori hartzeak izango lukeen eragina, eta horretarako datu zehatzak eskatu zizkien espedientearen sustatzaileei. Azterketaren ondorioa hau izan zen: neurri horrek 23ren bat pertsonengan

izango lukela eragina, eta kostuari dagokionean, 1998ko zifrak erabilia 7,3 milioi ingurukoa zela.

Arartekoak zilegizatzen jo zuen eskaera, eta neurri baten onarpenak dagokion lege estaldura behar duenez, formazko gestioak egin ziren.

- Emaizta

Arartekoak proposamena Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailordetzara zuzendu zuen, baloratu zezan euskal erakundeei eskatu ala ez arestian aipatutako murrizketen ordainketa erakundeek bere gain hartzea lege bidezko mekanismo egokienaren bitartez, emakume horiek, tankera soziopolitikoko arazoak zirela medio kotizatu ahal izan gabe lan egin zuten urteei dagozkienak. Era berean, interesatuek berek jakinarazita legebiltzarreko taldeek azaldutako arazoaren berri bazutenez gero, txostenaren aldaki bat igorri zitzaion Eusko Legebiltzarreko Presidenteari.

Izapide honen bitartez, erakunde honek agortutzat jo ditu gai honetan eskuhartzeko aukerak. Hala ere, Jaurlaritzak edo Legebiltzarrak zer erabakitzen duten jakiteko zain dago.

⇒ *Jolas-parke batean sartzeko mugak (252/97)*

- Erreklamazioa

Erakunde honetan jasotako zenbait kexa-idazkiren arabera, arantza zatibitu batek hartutako neskato bati Bilboko Erakustazokan kokaturiko Txiki Parkean sarrera debekatu ziotela salatzen zen.

Salaketan esaten zenez, neskato honi sarrera galarazi zioten establezimenduko arduradunek xede horretarako ezarritako barne arauen arabera, ezin zelako barrura sartu inolako igeltsu mota, bendaje edota aparatu ortopedikorik eramanda.

- Azterketa

Erakunde hau Bilboko Nazioarteko Erakusketazokara zuzendu zen, argitu ahal izateko zer nolako harremana zegoen Txiki Park establezimenduaren eta aipatutako erakundearen artean, eta bertan ezarritako baldintzak jakiteko.

Horri buruz, Azokako Zuzendari Nagusiak jakinarazi zigun harremana alokera kontratu bidezkoa zela etxebizitzaz besteko erabilpena egiteko, eta ez zegokiola erakunde hari aipatutako parkearen erabilpeneko arautegiaren ardurara.

Arrazoi hori dela eta, Arartekoak jakin zuen afera honen beraren gainean erreklamazio bat aurkeztua zela Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren Joku eta Ikuskizunen Zuzendaritzan, eta informazioa eskatu zion Jarlaritzako sail horri. Izan ere, erakunde honek uste zuen igeltsu bat edo bendaje baten erabilpena denboraren poderioz konpon zitekeela, baina beste kasu batzuetan, esku artean darabilgun honetan bezalaxe, aparatu ortopediko bat erabili behar izateak egoera gaindiezin bihur lezake. Beraz, neskato honek, minusbaliotasun fisikoren bat duten beste haur batzuek bezalaxe, beti izango zuten sarrera debekatua.

Horrez gain, Arartekoa ere kezkatua zegoen neurri hori funtsatuko lukeen arrazoirik izan ezean, berdintasun printzipioaren urraketa gerta zitekeelako, minusbaliatu kolektibo honengan eragina izanen lukeena, eta ez litzateke beteko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 21.d) artikuluan xedatutakoa, zeinaren bitartez arautzen baitira ikuskizun publikoak eta aisialdiko jarduerak.

Alde honetatik, honatx Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Joku eta Ikuskizuneko Zuzendaritzak egindako kontsiderazioak:

“...Afera eta aipatutako legeria aztertuta, Zuzendaritza honen iritziz ez daiteke esan Ikuskizun Publikoak eta Jarduera Errekreatiboak arautzen dituen 4/1995 Legearen 21.d) artikulua dioena betetzen ez denik. Izan ere, ez litzateke onarpen eskubidearen jarduera arbitrarioa edo diskriminatorioa, kexa aurkeztu duten hiritarrek, iduriz, horrela argudiatzen duten bezala. Izan ere, “Txiki Park” deitutako atrakzioan erabat debekatuta dago igeltsuarekin, bendajearekin eta aparatu ortopedikoekin jostatzea, eta are baita oinetakoekin ere, zenbait atrakzioetan. Debeku hori jasota dago bai atrakzioaren aretoetan, bai interesatuei ematen zaizkien informazio edo publizitate orrietan edo bestelako bidez banatzen direnetan (gutunontziz gutunontzi, tabernak, e.a.). Ondorioz, bertaratzen diren adin txikikoen arduradunek aukera dute ezin hobeki jakiteko zer nolako mugak dituzten atrakzioek. Beraz, nekez litzateke onarpen eskubidearen erabilpen arbitrarioa. Nolanahi ere, debekua jardueren erabilpenei dagokie, baina ez aretoan sartzeari.

Bigarrenik, salatzaileek diotenez diskriminazioa gerta daiteke tankera ezberdineko aparatu ortopedikoak eraman behar dituzten haurrekiko, esku arteko kasu honetan bezala. Alde horretatik, esan baher dugu ez dela tratu diskriminatorioa gertatzen, baizik eta onarpen eskubidearen muga bat, gure ustez funtsatua dagoen muga bat. Horrela, kasu honetan babestu beharreko ondasunen arteko auzia gertatzen da: alde batetik, haur hauek aipatutako parke horretako jardueraz eta jokuez gozatzeko eskubidea dute, eta beste alde batetik, haur horien beraien seguritatea eta osasunerako eskubidea hala nola atrakzioetan parte hartzen duten gainontzekoena.

Honenbestez, aztertu beharrean gaude, azaletik bada ere, zeintzuk diren era honetako parkeetan egiten diren jarduerak, eta horren bidez hobeki ulertuko ditugu onarpen eskubideari paratzen zaizkion mugen nondik norakoak. Parke hauetako atrakzioak dautza, funtsean, gauza zurrunik, zorrotzik edota kaltegarri gerta daitezkeenak erabili gabe egiten diren jokuetan eta jardueretan. (puzgarriak, ohe elastikoak, gomazko edo artelatzezko bolez betetako piszinak, e.a.). Agerikoa da aipatutako atrakzioetan, eta haurren berezko izaerarengatik horiek jauzi, bultza, zenbaitetan ustekabeen elkarren artean talka egiten dutela, edota, bata bestearen gainean erortzen direla, e.a. Egoera horretan, ulertzekoa da euren buruari edo besteei kaltea eragin dezaketen gauzekin bertara sartzeko debekua ezartzea. Kasu honetan, aparatu ortopedikoa, igeltsua edo antzekoren bat daraman haur baten parte hartzeak bere buruari kalteak eragin liezazkioke, edo bestela, beste hurrei. Horregatik, nire iritziz, irizpide ona erabilia jokatu dute, egoera horretan dauden haurren parte hartzea atrakzioetan mugatzerakoan.

Hortaz, gure iritziz ez da onarpen eskubidearen erabilpen diskriminatorioa egin, baizik eta jarrera hori funtsatua dago eta zentzuzkoa da, Konstituzioak babesten dituen beste ondasun juridiko batzuen ikuspegitik, hots: integritate fisikoa eta osasuna, norberarena eta atrakzioetako beste erabiltzaileena”.

- Emaiza

Behin baino gehiagotan emandako doktrina konstituzionalak dio desberdintasun orok ez dakarrela legearen 14. artikuluaurreko berdintasunaren oinarriko eskubidearen urraketa. Desberdintasun lege urratzaileak dira, justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa ez izanik, funtsean berdinak kontsidera ditzakegun egoeratan tratu-desberdintasuna sartzten duten haiek. Goi Auzitegiak uste du aipatutako agindu

konstituzionalak debekatzen duela arbitrariotzat edo justifikazio objektiborik eta zentzuzkorik gabekotzat jo daitezkeen desberdintasun-elementuen erabilpena (AK 22/1981, uztailaren 2koa; AK 209/1988, azaroaren 10ekoa; AK 110/1993).

Oraingo kasu honetan, gertatzen den desberdintasun egoera, Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Joku eta Ikuskizunen Zuzendariaren txostenean jasota dagoen bezalaxe, uste da aski funtsaturik eta arrazoiturik dagoela. Horregatik, zehazki:

1º Txiki Parken barne arauak mugaketa bat sartu dute, desberdintasun egoera bat eragin duena, –“*Erabat debekaturik dago inolako igeltsu, bendaje edota aparatu ortopedikorekin jostatzea*”–, baina gure iritziz egoera hori aski arrazoiturik dago objektiboki eta zentzuz Jokuak eta Ikuskizunen Zuzendariaren txostenean, eta zentzuzko proportzionaltasuna gertatzen da erabilitako bitartekoaren eta xedearen artean, kontuan hartuta babestu nahi diren ondasun juridikoak, hots, jokuetak partaideen beraien integritate fisikoa eta osasuna, eta, oro har, barrutiko erabiltzaileena.

2º Horrez gain, nahikoa publizitate badago erreferentziatzeko establezimenduaren onarpen baldintzez. Horregatik, jarduera horretara seme alabekin joatea erabakitzen duten gurasoek aurretik badute mugaketa horien berri establezimenduko jokuetan parte hartzerakoan. Eta hori, zalantzarik gabe, beharrezkoa da jolas-instalazio horietan sartzeko debekua *in situ* ezagutzen duen adin txikikoaren desilusia saihestuko bada.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak ez du uste gure eskuhartzea funtsatuko lukeen eskubide urraketa gertatu zenik.

⇒ *Zabor poltsen edukia kontrolatzea, zaborrak utzi behar diren ordutegiaren aurreikuspen arautzaileen aurka egin zitezkeen arau-hausteen segimendurako eta ondoko zehapenerako. Aurreikuspen horiek, dagokion udal ordenantzan daude (1582/97)*

- Erreklamazioa

Arrasateko auzolagun batek igorri zigun prentsa aipamen baten bidez, Arartekoak udal zerbitzuen balizko jarduera baten berri jakin zuen. Hauxe zen: zabor poltsen edukiaren kontrola egiten zuten kalean zaborrak uzteko ordutegiaren kontra egin zitezkeen arau-hausteen segimendurako eta ondorengo zehapenerako.

- Azterketa

Gure iritzipera jarritako gaia ikusita, Arartekoak Arrasateko alkateari informazio eskaera bat igorri zion, eta besteak beste hauxe zioen:

“...Zaborrak uzteko ordutegiak ez betetzegatik hasitako prozedurak eta ondorengo zehapen ezarketak zenbait kexa eragin ditu aurreko urteetan. Elementu inkriminatorio bakarra erabili da prozedurak zabaltzeko, hots, zabor poltsetan topatutako agiriak edo beste era bateko elementuak, espedientepekoa poltsen edukiarekin erlazionatu zezaketenak.

Kontrol jarduera horren orokortze bereziak eta ezarritako zehapenak kentzea eskatu den bideratutako espediente bakoitzean hartutako akordioak, denak aintzat hartuak izan direnak, Eusko Legebiltzarrari 1996an egindako oroit-idazkian sartu zen tankera orokorreko gomendio bat ekarri zuen, honako izenburu hau zuena: “Egiletza eta errugabetasun presuntzioa, Garbiketaren udal ordenantzen arau-hausteengatik bideratutako zehapen espedienteetan, baimendutako ordutegitik kanpo zaborra utzi den kasuetan». (Honen aldakia erantsi dugu).

Egindako azterketetatik datorren ondorioa da errugabetasun presuntzioa hausten dela. Izan ere, arau-hauste horiek direla medio, zehapenak ezartzen direnean elementu inkriminatorio bakarra hartzen da kontuan, hots, baimendutako ordutegietatik kanpo utzitako poltsen barruan agiri edo elementu batzuk aurkitu izana, espedientepekoa poltsaren edukiarekin erlazionatu nahian”

Aurreko eskaerari emandako erantzun gisa, Gobernu Batzordearen akordio bat igorri zitzaigun, Zerbitzu eta Mantenimendu Batzordearen irizpena onetsi eta besteak beste hauxe zioena:

“Aztertu dugu Arartekoak igorritako dokumentazioaren edukia eta baita Udal Zerbitzu Teknikoek adierazitakoa ere, eta hauek hauxe diote euren txostenean: alde batetik, bere garaian zehazpen espedienteak zabaldu zirela zabor poltsetan topatutako agirietan oinarrituta, eta beste alde batetik, Arartekoak igorritako dokumentazioa kontuan hartuta, proposatu da berrikusi behar dela jarraitu beharreko prozedura, zaborrak uzteko indarrean dagoen arautegia betearazteko.

Azterketa horren ondoren, Zerbitzu eta Mantenimendu Batzordeak hauxe proposatu du: Arartekoari jakinaraziko zaio, berriro berrikusiko dela zaborrak uzteko indarrean dagoen arautegia betearazteko jarraitu beharreko prozedura, bulego horretatik igorritako dokumentazioa aintzat hartuta”

Erantzun hori ikusita, ondoko idazki hau zuzendu genion Arrasateko Udalari:

“Alkate Jaun hori:

Idazki honen bidez, igorritako txostena hartu izanaren adierazpena egiten dut, zeinak zerikusia baitu erakunde honetan bideratzen ari den 1582/97/19 zenbakidun kexa-espedientearekin. Udal zerbitzuek, zaborrak uzteko ordutegiaren arau-hausteak kontrolatzeko burututako prozedurek zehazki kexa espedienteak eragin dituzte.

Hasteko, txosten horretan adierazten diguzenez, bere garaian zabor poltsetan aurkitutako agirietan funtsatutako espedienteak hasi ziren. Horrez gain, jakinarazi ere jakinarazten zaigu, gure kontsiderazioak ikusita, zaborrak uzteko indarrean dagoen arautegia betearazteko prozedura berrikusiko dela.

Aurrekoa ikusita, eta hasitako espedienteari dagokion izapidea eman ahal izateko, berriro zure elkarlana eskatzen dut eta, ondorioz, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 26. artikuluetan aurreikusitakoaren babesean, zeinaren bitartez eratzen eta arautzen baita erakunde hau, erregu egiten dut 20 eguneko epe barruan informazioa igor diezaguzun ondoko alderdi hauei buruz:

- Arartekoak egindako eta zuri igorritako gomendio orokorrean agertzen zuen irizpidea kontuan hartuta, hots, karguko beste elementu frogatzailerik ezean, zabor poltsen barruan interesatua haien edukiarekin lotuko zuten agiriak aurkitu izanak ez dezake modu horretan ezarritako zehapena sostengatu, errugabetasun presuntzioa hautsi baita. Gure iritziz, horrela jokatu baldin bazen, hasitako espedientei ezarritako zehapenak ofizioz baliogabetu beharko liriateke.

- Zaborrak uzteko indarrean dagoen arautegia betearazteko jarraitu behar den prozeduraren berrikusketan kontuan hartu behar ote den gure gomendio orokorraren edukia.”

Aurrekoari emandako erantzun gisa, Udalak, Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren aipamena igorri zigan:

“Arartekoaren ezagutzapean jartzea, lehendabiziko idazkia jaso zen unean berean, une hartan zabalik zeuden espedienteak geldiarazi zirela eta izapideak ez zirela aurrera

eraman, eta beste alde batetik, Arartekoaren gomendioak aintzat hartuko direla eta ez dela zehapen espedienterik hasiko arau-hauslea identifikatzea ahalbidetzen duen behar bezalako frogarik ez badago”.

- Emaizta

Arrasateko Udalak hartutako erabakiak ikusita, espedientearen itxierari eta artxibatzeari ekin zitzaion, ordura arte erabilitako irizpideetan eta prozeduretan aldaketa egiaztatu zelako, zeinaren balizko egiaztapena kearen jatorrian baitzegoen.

⇒ *Pentsionista baten identitatea egiaztatzearekin zerikusia duen arazoa (2312/98)*

- Erreklamazioa

Pertsona baten jubilazio prestazioaren aitortpena ebazpen zain zegoen, haren identitatearen egiaztapenarekin zerikusia zuen arazo batengatik. Izan ere, nortasun agiria iraungia zitzaionez, Gizarte Segurantzako Instituto Nazionalak jakinarazi zion akats hura zuzendu behar zuela. Ez zuen beste inolako agiririk (pasaporte, e.a.), eta horregatik, nortasun agiria berritzera jo zuen.

Nortasun agiria berritzeko erregistro zibilaren ziurtagiria eskatzean, ikusi zuen ez zegoela erregistroan izena emanda. Horregatik, epez kanpoko izen emate prozedura bati hasiera ematera behartu zuten, seguru aski zenbait hilabetez iraungo zuena.

Egoera horretan, interesatuak ikusten zuen bitartean ezin izango zuela bere jubilazio pentsioa jaso.

- Azterketa

Interesatuak emandako datuak ikusita, bazirudien interesatuak betetzen zituela prestazioaren aitortpenerako eskatutako betebeharrak. Balorazio hori egiterakoan, aintzat hartu ziren agiri batzuk, nortasun agiriaren edo pasaportearen presuntzioa ez dutenak, baina haren identitatearekin zerikusia zutenak: senar-emazteen familia liburua, eta nortasun agiria, baina iraungia.

Beraz, zailtasuna bere identitatearen egiaztapenean zetzan, eta ez zegoen, bestalde, inolako zalantzarik interesatuak erregistro zibilean bere inskripzioa lortzeari begira epaitegian hasiera emateko zegokion prozeduraren aurrean zuen asmoaz.

Honenbestez, Arartekoa Gizarte Segurantzako Instituto Nazionalaren Probintzia Zuzendaritzara zuzendu zen behin-behineko ebazpena hartzeko aukera aztertzeko, modu horretan interesatuak, bitartean, jubilazio prestazioa har zezan. Ebazpena erabatekoa izango da interesatuak eskabidean orain aurkeztu ez dezakeen dokumentazioa aurkezterakoan.

- Emaizta

Institutoaren Probintzia Zuzendaritzak sortutako ez ohiko egoerari aterabidea emateko, agertu zuen aldeko jarrerak ahalbideratu zuen, azkenean, bere jubilazioagatik prestazioa aitortu izana.

III. ATALA
**ARARTEKOAREN JARDUERA
KOPURUTAN**

1. OHARPENAK ETA DATU OROKORRAK

1998. urtean zehar erakunde honi hiritarrek bakarka edo taldeka aurkeztu dizkioten eta aztertu eta ikertu diren kexen artetik 334 kasutan eman die Arartekoak babesa erreklamatzailerei euskal administrazioen baten aurrean. Kasu horietan, eragindako administrazioak Arartekoaren gomendioa jaso du, zentsuratutako jardueraren ondorioak konpon zitzaizkien.

Erakundeaz aztertu eta 1998. urtean beren izapidaketa aldiari amaiera eman zaion kexen artetik %30,67 kasutan hiritarrari eman zaio arrazoia.

Azpitarratu beharra dugu, Arartekoak erreklamatzaileri arrazoia eman dion kexa portzentaia horretatik bi herenetan ia (%63,2a), onartu egin direla jarduera zuzengabe bat burutzen ari zirenean euskal administrazio publikoari egindako gomendioak. Horrenbestez, administrazioen aldetik handitu egin da Arartekoaren gomendioen onarpen maila, aurreko urtearen aldean.

1998. urtean 2.660 kexa aurkeztu zaizkio Arartekoari, 1997. urtean baino %33,6 gehiago. Horiei guztiei banakako tratamendua eman zaie Arartekoak erreklamatzailerekin izandako hartu-emanetan, baina datu bitxi gisa aipa liteke era bertsuko bi kexa multzoren barnean 1.143 espediente pertsonal jasotzen zirela.

Norbanakoek aurkeztuak dira 2.660 kexa horietako gehienak, baina 212 erreklamazio daude kolektibo ezberdinek aurkeztuak, hala nola auzo-elkarteek, plataforma erreibindikatiboek, sindikatuek, talde ekologistek, etabarrek.

Eusko Legebiltzararentzako Txosten honetako estatistiken atalean zifretan laburturik ematen den Arartekoaren jardura oso positiboki baloratu dute erakunde honetan kexaren bat aurkeztu duten pertsonak. Arartekoak hirugarren urtez inkesta bat egin du kexa osorik tramitatu zaien pertsonen artean: pertsona horiei galde-sorta bat bidali zaie borondatez eta izenik eman gabe bete zezaten. Horrela, inkestaren emaitzek diotenez, erreklamatzaileren %86ak dio Arartekoak bere kexaren aurrean izan duen parte hartzea oso edo nahiko ona izan dela, %10ak, berriz, dio ez dela oso egokia edo nahiko desegokia izan dela. Galde-sortari erantzun dioten erreklamatzaileren arabera, -emaitzak aurrerago azalduko ditugu xehekiago-, Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati bai gomendatuko liokete Arartekoarengana jotzea (%61,78ak kasu guztietan gomendatuko luke, %30,12ak kasuren batzuetan eta %6,56ak inoiz ere ez).

- Jasotako kexak

Ararteko erakundeaz 1998. urtean guztira 2.660 kexa jaso dira, eta aurreko urteko 1.991ekin konparatzen baditugu, %33,60ko gorakada egon dela ikusten da. Adierazi beharra dago, halere, Arartekoak izapidatutako espediente pertsonalen kopuru oso horretatik, 1.143 era bertsuko bi kexa multzoren barruan sartzen direla, eta horren ondorioz, ukitzen duten gai-arloaren, sorburu duten lurraldearen, etabarren arabera

egiten den erreklamazioen azterketa estatistikoan hurrengo orrialdeetan kontuan hartuko den kexa kopurua 1.519koa da.

Arartekoak jasotako kexa kopuruaren bilakaera (1989-1998)

	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998
Guztira	585	1159	766	781	827	747	1.164	1.674	1.991	2.660*

* 1143 era bertsuko bi kexa multzoren barruan sartzen dira

(Ikusi 1. diagrama eranskinean)

- Onartu gabeko kexak

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/85 Legearen 21. artikulua adierazten du zeintzuk diren hiritarren kexak atzera ez onartzeko arrazoiak. Zentzu horretan, 1998an jasotako kexa guztien artetik, lehenik arrazoi ezberdinengatik onartu ez direnak bereizi behar dira. Ez onartzea batez ere alde aurretik epaitegien aurrean aurkeztuta egoteagatik gertatu da, edo epaitegiek ordurako horri buruzko epaia emana zutelako edo emateko bidean zeudelako, Arartekoaren eskumenaz kanpoko arazoa zelako, edo norbanakoen arteko arazoak zirelako.

Edonola ere, 1998. urtean erreklamazioei ahalik eta babes juridikorik handiena ematen saiatu da erakunde hau; horrela, prozedura arauak interpretatzerakoan, beti administratuak aurkeztutako kexa onartzearen aldeko apustua egin da *in dubio pro actione* arauaren bidetik. Adierazi beharra dago, kexak atzera botatzen direnean, Arartekoa beti saiatzen dela hiritarrari aholkua ematen, alegia, azaldutako arazoak konpontzeko biderik egokienak zeintzuk izan daitezkeen azaltzen.

Onartu gabeko kexak eta arrazoiak

Auzitegira eramandako kexak	66
Erakundearen eskumenetik kanpokoak	25
Norbanakoen arteko arazoak	23
Legez ezarritako epeak bete arte itxaron beharra	15
Defendatzailearen bulegoan, biderapenean	13
Formazko akatsa	13
Araugabetasun-eza begibistakoa izatea	12
Aurrez Administrazioaren aurrean aurkeztu gabeak	11
Izenik gabea	6
Urtebetetik gora iragandakoak	4
Bidezko interesik eza	2
Guztira	190

(Ikusi 2. diagrama eranskinean)

- Herriaren Defendatzaileari edo beste defendatzaile batzuei igorritako kexak

Ararteko erakundearen zuzenean bideratzen ez diren kexen artean, aztertzen duten gaiaren arabera, Herriaren Defendatzailearen Estatuko erakundeari igortzen zaizkionak

aurkitzen dira, hain zuzen ere, Estatuko Administrazioaren jarduerari dagozkiolako eta, beraz, Arartekoaren kontrol eremutik kanpo daudelako. Horiekin batera, beste erkidego batzuetako legebiltzarraren eskudunei igorritakoak daude.

1998an zehar, Herriaren Defendatzaileari igorri zaizkion kexak 1997. urtean baino %20 gutxiago izan dira.

Herriaren Defendatzaileari igorritako kexak	176
Beste Defendatzaile batzuei igorritako kexak	8

- Hainbat gestio eragin dituzten kexak

Ararteko erakundeak onartu, baina egiaz Euskal Administrazio Publikoaren jardueraren kontra zuzendu ez diren erreklamazioei tratamendu estatistiko ezberdina ematen zaie.

Alegia, hiritarrak planteatu duen arazoa konpontzeko hainbat gestio eragin dituzten kexak dira, eta logikoa denez, izaera ezberdineko arazoak eta gaiak sartzen dira horietan. Hari horretatik, izen hori daraman alorrari buruzko kapituluaren jasotzen dira aztertu diren gaiak.

Hainbat gestio eragin dituzten kexak	23
--	----

- Alor eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexak zuzen interpretatzeko modua

Lehen hurbilpen batean, badirudi hiritarrek bi gauza erlazionatzen dituztela: administrazio jakin edo alor zehatz baten jarduerengatik aurkeztutako kexak eta hiritarrek administrazio horren utzikeria edo aginte-gehiegikeriak eragindako funtzionamendua txartzat jotzea.

Arartekoaren erakunde honen ustez, ordea, kexa kopuruaren aurrean egin daitekeen lehen interpretazio hori oso ondo argitu behar da, eragindako administrazioekiko atera daitezkeen berehalako ondorioak okerrak eta bidegabekoak izan ez daitezen.

Horrela, a priori administrazio jakin baten jardueragatik aurkeztutako kexa kopurua adierazgarria bada, are gehiago da, eta hori da garrantzitsuena, administrazioak oker jokatu izanagatik erreklamatzailerak arrazoia zenbat kasutan zeukan ikustea. Bestalde, Ararteko honentzat kexa kopuruaren datu hotza baino garrantzitsua da administrazio jakin horren jarrera, hala erakunde honetatik eskatutako informazio eskariei epe barruan erantzuteko betekizunaren aurrean, nola erreklamazioaren azterketa eta ikerketa egin ondoren ermandako ebazpenen aurrean azaldutako portaera. Hau da, Arartekoaren iritziz Administrazioak irregularki jokatu duelako egin zaizkion gomendio eta iradokizunak onartzen diren ala ez jakitea.

Estatistika alor honetako datuak baloratzekoan faktore geografikoa ere kontuan hartu behar da; izan ere, aurrerago ikusiko den bezala, erreklamatzailerak erakunde honen egoitza, edo 1996. urtearen erdialdera funtzionatzen hasi ziren arreta zuzena eskaintzeko Arartekoaren bulegoetatik gertu edo urrunago bizitzeak eragin erabakiorra dauka.

2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR

Kexak, horiek ukitzen duten gai-alorren arabera aztertzerakoan, ikus dezakegu 1998. urtean aldaketa nabarmenak gertatu direla alor bakoitzaren baitan biltzen diren erreklamazioen portzentaietan.

Tradizioz, kexa kopururik handiena, Funtzio Publikoaren eta Administrazio Antolakuntzaren alorrari zegokion arren, 1998. urtean alor honen garrantzia, orain bitan erdibitua, nabarmenki gutxitu da, eta erreklamazioen %37,44a jasotzetik %20,68a jasotzera igaro da. Jaitsiera nabarmen horrek badu zerikusirik, ziurrenik, enpleguaren eskaintza publikoek, lehiaketek, lekualdaketek, etabarrek izandako jaitsiera esanguratsuekin. Izan ere, funtzio publikoarekin loturiko kexak, urtebetean, 449 izatetik 102 izatera igaro dira.

Bestalde, Ogasun alorrak ezagutu du kexa kopuruaren igoerarik handiena, proportzioan: 1997. urtean baino 30 erreklamazio gehiago jaso dira, eta alor honen pisu erlatiboa %10,37koa izatetik %16,84koa izatera igaro dira, kexa kopururik handiena biltzen duen alorra bilakatu delarik.

Osasun eta Gizarte Ongizatearen alorra, Administrazio Antolakuntzaren alorra eta Hirigintza eta Etxebizitzaren alorra datoz ondoren, %13aren eta %10aren arteko portzentaia dituztela.

Zuzenean izapidatutako kexen banaketa jarduketa alorren arabera *

	Jasotako kexak	%
Ogasuna	189	16,84
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	146	13,01
Administrazio Antolakuntza	126	11,23
Hirigintza eta Etxebizitza	118	10,52
Ingurugiroa	106	9,45
Funtzio Publikoa	102	9,09
Herrizaingoa	92	8,20
Herri Lanak eta Zerbitzuak	90	8,02
Justizia	61	5,44
Hezkuntza	52	4,63
Kultura eta Elebitasuna	21	1,87
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	18	1,60
Lana eta Gizarte Segurantza	1	0,09
Guztira	1.122	100

* Era bertsuko bi gai aipatzen dituzten 1.143 kexa 2 balira bezala hartuz, eta beste defendatzaile batzuei igorri edo hainbat gestio eragin dituzten kexak alde batera utziz.

(Ikusi 3. diagrama eranskinean)

- Kexen sailkapena azpialorren arabera

1998. urtean zehar jasotako kexen gaien arabeko banaketa aztertzen bada, ondorengo koadroan ikus daiteke azpialor bakoitzak nolako eragina daukan Ararteko honek lana antolatzeko bereizten dituen gaietan izandako aldaketan.

Ikus daiteke, arestian adierazi dugun moduan, jaitsiera nabarmena gertatu dela lehenago Funtzio Publikoa zenaren azpialorrean, eta aldiz, Administrazio Antolakuntzarena kopuru berdinetan mantentzen dela.

Ogasunaren alorrean hautsi egin da foru eta udal mailako zerga ezberdinen arteko oreka, eta pisu garrantzitsuagoa bereganatzen dute, kexa kopuruari dagokionez, udal zerga eta tasek. Osasun eta Gizarte Ongizatearen alorrean, joan den urtean gertatu ez bezala, bi azpialor horietako bakoitzaren barruan bildutako erreklamazio kopuruan hurbilpen bat gertatu da.

Jasotako kexen banaketa jarduketa azpialorren arabera

Ogasuna	189
Udal zergak	57
Udal tasak	53
Foru tributuak	46
Udal tributuak	14
Bestelakoak	10
Zerga prozedura	9
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	146
Gizarte Ongizatea	78
Osasuna	63
Bestelakoak	5
Administrazio Antolakuntza	126
Administrazioaren jardunbidea	65
Administrazioaren ardura	22
Kontratazioa eta Ondarea	20
Administrazio Antolakuntza	16
Errejimen zehatzailea	3
Hirigintza eta Etxebizitza	118
Hirigintza	67
Etxebizitza	51
Ingurugiroa	106
Sailkaturiko hiri ekintzak	58
Ingurugiro arloko beste gorabehera batzuk	48
Funtzio Publikoa	102
Funtzio Publikoa-Orokorra	36
Funtzio Publikoa-Osasuna	31
Funtzio Publikoa-Hezkuntza	24
Funtzio Publikoa-Herrizaingoa	11
Herrizaingoa	92
Trafikoa	62
Herri bakea	21
Bestelakoak	9
Herri Lanak eta Zerbitzuak	90
Zerbitzu publikoak	39
Herri Lanak	26
Garraioak	22

Desjabetzapenak	3	
Justizia		61
Justizia Administrazioaren jokabidea	30	
Penitentziarioa	17	
Abokatuen bazkondeak	12	
Administrazio autonomoaren jokabidea	1	
Prokuradoreen bazkondeak	1	
Hezkuntza		52
Bestelakoak	25	
EHU	10	
Bekak eta ikasketetarako laguntzak	6	
Ikastegia aukeratzeko eskubidea	6	
Eskola instalazioak	2	
Irakaskuntzaren programazio orokorra	2	
Eskola garraioa	1	
Kultura eta Elebitasuna		21
Elebitasuna	13	
Kirola	3	
Bestelakoak	3	
Emakumea	1	
Aisia	1	
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa		18
Merkataritza	6	
Industria	6	
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	4	
Kontsumoa	1	
Bestelakoak	1	
Lana eta Gizarte Segurantzza		1
Lana	1	

3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTADISTIKA

Orain arte gertatu ez den bezala, 1998. urtean Eusko Jaurlaritzako Administrazioari baino, toki administrazioari erreklamazio kopuru handiagoa zuzendu zaio. Bi administrazio horiek ia erabateko alderantzikapena ezagutu dute horien aurka igorritako kexei dagokienez. 1997. urtean Arartekoak jasotako erreklamazioen %47,96a Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren kudeaketari buruzkoak ziren, eta Toki administrazioaren kudeaketari zegozkionak, berriz, %36,20a. 1998. urtean, %48a ziren azken honi buruzkoak, eta Eusko Jaurlaritzaren Administrazioak burututako jardueri zegozkienak, berriz, %34,49a.

Foru Administrazioek eta Arartekoaren ikerketa esparruan sartzen diren beste erakunde batzuek iazkoaren antzeko kexa portzentaia jaso dute beren gestioari dagokionez.

**Zuzenean izapidatutako kexen banaketa
eragindako administrazioen arabera**

	Kop.	%
Toki administrazioa	540	48,00
Eusko Jaurlaritza	388	34,49
Foru Administrazioa	184	16,36
Erakunde pribatuak	9	0,80
Erakunde publikoak	3	0,27
Estatuko Administrazioa	1	0,09
Guztira	1125	100

(Ikusi 4. diagrama eranskinean)

A) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) kontra aurkeztutako kexak

- Banaketa alorren arabera

Jasotako erreklamazio guztien alorren araberako banaketan gertatzen ez zen bezala, Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren jarduketan edo ez-egiteen aurka aurkeztutako kexei dagokienez, Ogasun alorrak pisu erlatibo txikiagoa du beste alor batzuen aldean. Horren arrazoia izango litzateke Eusko Jaurlaritzak ogasun alorrean burutzen dituen jarduketan kopurua nabarmen txikiagoa dela aldundi eta udaleneekin konparatzen baldin badugu.

Erreklamazio gehienak jasotzen dituzten alorrak ondokoak dira: Funtzio Publikoarena, kexa guztien %22a ia izanik, jaitsiera handi samarra izan du iazkoaren aldean, eta Osasun eta Gizarte Ongizatearena, erreklamazioen %19a izanik, ia bikoiztu egin du bere pisu erlatiboa, Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexa guztiei dagokienez.

**Euskal Autonomia Erkidegoko (Eusko Jaurlaritza) Administrazio
Orokorraren aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera**

	Kop.	%
Funtzio Publikoa	85	21,91
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	74	19,07
Hezkuntza	50	12,89
Hirigintza eta Etxebizitza	44	11,34
Ogasuna	37	9,54
Herrizaingoa	32	8,25
Administrazio Antolakuntza	26	6,70
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	12	3,09
Herri Lanak eta Zerbitzuak	10	2,58
Kultura eta Elebitasuna	8	2,06
Ingurugiroa	8	2,06
Justizia	1	0,26
Lana eta Gizarte Segurantzza	1	0,26
Guztira	388	100

(Ikusi 5. diagrama eranskinean)

- Banaketa sailen arabera

1997. urtean Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinen jarduketek eragindako kexen erdiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurka zuzendu baziren ere, 1998. urtean sail honek askoz ere kexa gutxiago jaso zituen. Sail honen jarduketak xedetzat izan dituzten erreklamazioak ez dira iritsi iazkoaren laurden bat izatera ere.

Iaz baino kexa kopuru handiagoa eragin duten sailak ondokoak dira: Herrizaingoa, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroarena, Industria, Nekazaritza eta Arrantzarena eta Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzarena.

Erreklamazio gehien zuzendu zaizkien sailak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Osasun Saila izan dira, bakoitzak 90 kexa izan dituelarik.

Euskal Autonomia Erkidegoko (Eusko Jaurlaritza) Administrazio Orokorren aurka aurkeztutako kexen banaketa, sailen arabera.

	Kop.	%
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa	90	23,20
Osasuna	90	23,20
Herrizaingoa	52	13,40
Lurraldearen Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurugiroa	51	13,14
Industria, Nekazaritza eta Arrantza	44	11,34
Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzaren	23	5,93
Ogasuna eta Herri Administrazioa	15	3,87
Merkataritza, Kontsumoa eta Turismoa	11	2,84
Garraio eta Herri Lanak	10	2,58
Kultura	1	0,26
Lehendakaritza	1	0,26
Guztira	388	100

(Ikusi 6. diagrama eranskinean)

B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak

- Banaketa lurraldeen arabera

Bizkaiko foru administrazioa izan da 1998. urtean kexa gehien jaso dituen, Gipuzkoakoaren eta Arabakoaren oso gainetik.

Kexa kopurua kontuan izanik, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien jarduketek aurka zuzendutakoak gutxitu egin dira. Zehatz esateko, Bizkaiko Foru Aldundiak iaz baino 20 kexa gutxiago jaso zituen, Gipuzkoakoak 27 gutxiago, baina bestetik, Arabako Foru Aldundiak bat gehiago izan du.

**Foru Administrazioen aurka aurkeztutako
kexen banaketa lurraldeen arabera.**

	Kop.	%
Bizkaiko Foru Aldundia	110	59,78
Gipuzkoako Foru Aldundia	45	24,46
Arabako Foru Aldundia	25	13,59
Beste foru erakunde batzuk- Bizkaiko BNak	4	2,17
Guztira	184	100

(Ikusi 4. diagrama eranskinean)

- Banaketa alorren arabera

Ogasun alorrak eragiten du, aurreko ekitaldietan bezala, Ararteko erakundean lurralde historikoko foru administrazioen aurka aurkeztu diren kexa kopururik handiena, eta erreklamazio guztien %42a biltzen du.

Osasun eta Gizarte Ongizate alorrak, 56 kexa bilduz, du garrantzi gehiena horren atzetik, foru erakundeen jarduketara ikertzeko izapidatutako espedientei dagozkienez. 56 erreklamazio horietatik 42 Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkio, eta horien barruan, Osasun eta Gizarte Ongizate alorreko erreklamazioen kopurua Ogasun arloaren berdina da ia.

**Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen
banaketa alorren arabera**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ogasuna	11	44	21	76	42,22
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	4	42	10	56	31,11
Administrazio Antolakuntza	7	9	3	19	10,56
Herri Lanak eta Zerbitzuak	7	6	-	13	7,22
Funtzio Publikoa	1	4	-	5	2,78
Hirigintza eta Etxebizitza	2	1	-	3	1,67
Kultura eta Elebitasuna	3	-	-	3	1,67
Nekazaritza, Ind., Merkat. eta Turismoa	2	1	-	3	1,67
Ingurugiroa	2	-	-	2	1,11
Guztira	25	110	45	180	100

(Ikusi 7. diagrama eranskinean)

**Beste foru erakunde batzuen aurka aurkeztutako
kexen banaketa alorren arabera**

Bizkaiko Batzar Nagusiak	Kop
Ogasuna	4

C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak

- Banaketa lurraldeen arabera

Euskal Autonomia Erkidegoko udalen aurka aurkeztutako kexei dagokienez, ikus daiteke Bizkaia dela kopuru absolutuetan erreklamazio kopururik handiena duen lurraldea, nahiz jaitsiera txiki bat izan duen 1997. urtearen aldean. Gipuzkoa dator horren ondoren, eta bertako udalei iaz baino 29 kexa gehiago zuzendu dizkiete; eta azkena Araba da, biztanle kopuru txikiena duen lurraldea, eta erreklamazio kopuru txikiena ere bertan ematen da.

1998. urtean zehar, udalei ez dagozkien beste toki administrazioen jarduketan aurkako kexa kopurua bikoiztu egin da.

Bilbo 110 erreklamazioekin, Donostia 73ekin eta Gasteiz 46ekin dira Toki administrazioaren aurka kexa gehien jasotzen dituzten udalerriak. Kexek igoera txiki bat izan dute lehenengo bietan, baina asko jaitsi dira Arabako hiriburuan, 1997. urteko 80 horietatik 1998. urteko 46etara.

Hiru lurralde historikoetako hiriburuez gainera, Getxo, Barakaldo, Basauri, Urtuella eta Sestao Bizkaian, Irun, Lasarte-Oria, Arrasate, Andoain, Pasaia eta Tolosa Gipuzkoan, eta Laudio Araban, kexa kopuru aipagarria izan duten udalerriak dira.

Toki administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa

	Kop.	%
Bizkaiko udalak	251	46,48
Gipuzkoako udalak	176	32,59
Arabako udalak	69	12,78
Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak	19	3,52
Arabako administrazio batzarrak	16	2,96
Gipuzkoako mankomunitate, partzuergo eta parkeak ...	9	1,67
Guztira	540	100

Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio batzarren aurka aurkeztutako kexak

Arabako udalak	Kop.	Arabako administrazio batzarrak	Kop.
Gasteiz	46	Menagarai	3
Laudio	9	Osma	3
Arratzu-Ubarrundia	2	Fontetxa	2
Asparren	2	Aretxabaleta	1
Zigoitia	2	Argandoña	1
Amurrio	1	Etxaguen	1
Arraia-Maeztu	1	Getaria	1
Aiara	1	Murga	1
Bernedo	1	Urbisu	1
Lagrán	1	Quintanilla	1
Leza	1	Zuhatza	1
Erribera Goitia	1		
Gaubea	1		
Guztira	69	Guztira	16

Bizkaiko udalak	Kop.
Bilbo	110
Getxo	13
Barakaldo	11
Basauri	11
Urtuella	7
Sestao	7
Erandio	6
Galdakao	6
Plentzia	6
Santurtzi	6
Bermeo	4
Karrantza	4
Garape	4
Bakio	3
Elorrio	3
Iurreta	3
Leioa	3
Mungia	3
Sopela	3
Trapaga Arana	3
Abanto Zierbena	2
Arrankudiaga	2
Busturia	2
Durango	2

Ermua	2
Urduña	2
Portugalete	2
Zierbena	2
Abadiño	1
Alonsotegi	1
Arrieta	1
Arrigorriaga	1
Bedia	1
Etxebarria	1
Gamiz-Fika	1
Gautegiz Arteaga	1
Gernika-Lumo	1
Guenes	1
Igorre	1
Lekeitio	1
Mendexa	1
Ondarroa	1
Orozko	1
Zalla	1
Zamudio	1
Zaratamo	1
Zeanuri	1

Guztira 251

Gipuzkoako udalak	Kop.
Donostia	73
Irun	13
Lasarte-Oria	10
Arrasate	9
Andoain	7
Pasaia	7
Tolosa	7
Hernani	6
Errenteria	5
Elgoibar	4
Beasain	3
Eibar	3
Urnieta	3
Deba	2
Eskoriatza	2
Getaria	2

Hondarribia	2
Lazkao	2
Mutriku	2
Usurbil	2
Zarautz	2
Bergara	1
Ibarra	1
Irura	1
Oñati	1
Ordizia	1
Segura	1
Soraluze	1
Urretxu	1
Zegama	1
Zizurkil	1

Guztira 176

- Banaketa alorren arabera

Aurreko urteetan bezala, toki administrazioen jarduketek eragindako kexak nahikoa era berdinean banatzen dira udalen eskumen garrantzitsuak biltzen dituzten alor ezberdinen artean. Hori gertatzen da ondoko alorrekin: Ingurugiroa, Ogasuna, Hirigintza eta Etxebizitza, Administrazio Antolakuntza eta Herrizaingo sailetan.

1998ko kexa kopuruari dagokionez, ingurugiroak garrantzi handia du udal mailan, eta ia toki administrazioen aurkako erreklamazio guztien %20a biltzen du. Alor honetako kexa kopurua igo egin da Gipuzkoan, iazkoaren aldean bikoiztu egin baitira.

Bizkaia eta Gipuzkoako udalek Ogasun alorrean burututako jarduketek erreklamazioen goera nabarmena eragin dute 1998an.

Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ingurugiroa	13	42	44	99	19,34
Ogasuna	7	50	25	82	16,02
Hirigintza eta Etxebizitza	11	46	19	76	14,84
Administrazio Antolakuntza	9	39	24	72	14,06
Herri Lanak eta Zerbitzuak	14	25	22	61	11,91
Herrizaingoa	16	25	19	60	11,72
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	8	11	8	27	5,27
Funtzio Publikoa	3	7	7	17	3,32
Kultura eta Elebitasuna	4	3	3	10	1,95
Hezkuntza	2	3	-	5	0,98
Nekazaritza, Ind., Merkat. eta Turismoa	1	2	-	3	0,59
Guztira	85	251	176	512	100

(Ikusi 8. diagrama eranskinean)

Toki Administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen aurka aurkeztutako kexak

	Guztira
Mebisa - Bilboko Metroa	12
Servicios de Txingudi, S.A.	8
Bilbo Handiko uren partzuergoa	5
Busturialdeko uren partzuergoa	1
Enkarterrietako mankomunitatea	1
San Markoseko mankomunitatea	1
Guztira	28

D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak

Arestian aipatutako toki, foru edo Eusko Jaurlaritzaren Administrazioen aurkako kexa horiez gainera, Arartekoaren ikerketa-esparruaren barruan sartzen diren beste

administrazio batzuen aurkako erreklamazio kopuru murriz bat ere jaso da erakunde honetan. Erakunde eta organismo publikoen aurka, zuzenbide publikoko antolamendu korporatiboen (bazkundeak) aurka, etabarren aurka aurkeztutako kexak dira.

Beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak

	Kop.	%
Erakunde pribatuak	9	69,23
Erakunde publikoak	3	23,08
Estatuko administrazioa	1	7,69
Guztira	13	100

E) Euskal Autonomia Erkidegoko justizia Administrazioaren administrazio zerbitzuen aurkako kexak

Ararteko erakundea arautzen duen 3/85 Legeak 9.2 artikuluan aurreikusten duenez, Justizia Administrazioaren funtzionamendua helburu duten kexak kasu bakoitzean ikertzeko eta ebazteko ahalmena duen erakunde eskudunari bidaliko zaizkio.

Horregatik, euskal administrazio publikoen kontrako kexak kontatzerakoan kexa multzo hori alde batera utzi behar da, beste aginpide baten funtzionamenduaren kontra doazelako.

Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zaizkion beste txostenetan adierazi den bezala, erakundeak kasu horietan Ministerio Fiskalari, Euskal Herriko Justiziako Epaitegi Nagusiko Lehendakariari edo, hala dagokionean, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiari igortzen dizkio, ikerketa lana beraiek egin eta burututako azterlanen berri erakunde honi eman diezaioten.

1998ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren administrazio zerbitzuen funtzionamendua auzitan jartzen zuten 13 kexa espediente izapidatu dira guztira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren administrazio zerbitzuen aurkako kexak	13
---	----

4. LURRALDEEN ARABERAKO ESTADISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)

- Kexen banaketa lurraldeen arabera

Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleek aurkeztu dute Arartekoaren aurrean, 1998. urtean ere, kexa kopururik handiena. Guztira 1.471 izan dira, %60,76ko gehikuntza batez 1997. urtearen aldean, baina kexa bakarra balira bezala hartzen baditugu gai beraren inguruko 708 erreklamazio indibidual, Bizkaitik datozen kexak 764 izango lirateke.

Gipuzkoan kexa kopurua 905raino heltzen da, iazko urtearen aldean %36,50 gehiago. Lurralde honetan ere badaude zenbait kexa indibidual, 435, gai bera aztertzen

dutenak, eta beraz, erreklamazio bakar bezala jotzen baditugu, Gipuzkoako kexak 471 dira guztira.

Arabaren %34,23 gutxitu dira kexak 1997. urtearekin alderatuz, eta guztira 244 izan dira.

Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera

	1989	1999	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998
Bizkaia	288	284	293	332	376	349	528	746	915	1.471(764)*
Gipuzkoa	188	195	244	241	250	234	281	448	663	905 (471)**
Araba	97	125	158	201	182	160	328	446	371	244

* Gai bakar bati buruzko 708 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

** Gai bakar bati buruzko 435 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

(Ikusi 9. diagrama eranskinean)

- Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko (1989-1998)

Kexen lurralde historikoaren arabera jatorriaren azterketa konparatua egiteko, probintzia bakoitzetik jasotako kexen kopurua absolutua probintzia bakoitzak duen biztanle kopuruarekin konparatuko dugu. Ondorengo koadroan kexen lurraldekako banaketa egiten da 10.000 biztanleko unitatea kontuan harturik.

Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko

	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998
Araba	4,3	4,5	5,8	7,4	6,7	5,9	11,59	15,92	13,24	8,37
Bizkaia	3,3	2,7	3,6	3,5	3,7	3,5	4,54	6,55	8,03	12,95 (6,73*)
Gipuzkoa	3	2,9	2,5	2,8	3,3	3	4,11	6,66	9,77	13,30 (6,93**)

* Gai bakar bati buruzko 708 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

** Gai bakar bati buruzko 435 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

(Ikusi 10. diagrama eranskinean)

- Kexen banaketa lurralde bakoitzean

Logikaren bidetik, Ararteko erakundearen 1998an kexak aurkeztu dituzten hiritarren jatorriari dagokionez, berriro ere hiru hiruburu nagusitasuna nabarmentzen da.

Hiritarren jokaera, ordea, ez da berdina hiru lurraldeetan. Arabako kasuan egindako erreklamazioen %75,41a Gasteizko hiritarren eskutik etorri den bitartean, Bizkaian nolabaiteko oreka bat dago kexen banaketari dagokionez hiriburuen eta lurralde historikoko gainerako udalerrien artean, %47,25a %52,75aren aurrean, eta Gipuzkoan, hiriburutik kanpora dauden beste herri batzuetan bizi diren pertsonen egindakoak %57,11 dira.

Kexen banaketa hiriburutik datozen edo lurraldeko beste udalerrri batzuetatik datozen kontuan izanik

Araba	Kop.	%
Gasteiz	184	75,41
Gainerako udalerrriak	60	24,59
Guztira	244	100

Bizkaia	Kop.	%
Bilbo	361	47,25
Gainerako udalerrriak	403	52,75
Guztira	764	100

Gipuzkoa	Kop.	%
Donostia	202	42,89
Gainerako udalerrriak	269	57,11
Guztira	471	100

(Ikusi 11. diagrama eranskinean)

- Euskal Autonomia Erkidego kanpotik iritsitako kexak

Ohikoa den bezala, badago Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko hiritarrek aurkeztutako kexa kopuru txiki bat. 1998. urtean 40 izan dira, 36 beste autonomia erkidego batzuetatik eta 4 atzerritik.

Beste autonomia erkidego batzuetatik igorritako kexak	Kop
Madrilgo A.E.	9
Gaztela-Leongo A.E.	8
Andaluziako A.E.	4
Kantabriako A.E.	3
Valentziako A.E.	3
Kataluniako A.E.	2
Errioxako A.E.	2
Nafarroako F.E.	2
Asturiasko Printzerria	2
Gaztela-Mantxako A.E.	1
Guztira	36

Beste Estatu batzuetatik igorriak	Kop
Estatu Batuak	2
Frantzia	2
Guztira	4

5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA)

Ekitaldi honetan 1.089 erreklamazioren izapidaketa amaitu da. Erreklamazio horietako gehienak 1998an aurkeztuak ziren, baina 471 aurreko urteetatik zetozen, aurkeztutako urtean osorik izapidatu ezinda zeudenak alegia.

Arartekoak 1998an burutu dituen azterketa eta ikerketen ondorioz 334 kasutan eragindako administrazioaren kontrako eta kexa aurkezleen aldeko ebazpena eman du. Horrela bada, erreklamaziogileen artetik %30,67ak arrazoiarekin jo zuen Arartekoarengana.

	Guztira	Kexaduna zuzen	%	Kexaduna oker	%	Besterik	%
1998an amaitutako kexak	1.089	334	30,67	573	52,62	182	16,71

(Ikusi 12. diagrama eranskinean)

- 1998an burututako espedienteak, hasitako urteen arabera banatuak

1998an erabat izapidatu diren 618 kexekin batera, aurreko urteetan aurkeztuta zeuden 471 espedienteren izapidaketa amaitu da. Moltzo honetako kexa gehienak 1997ko bigarren seihilabetekoan aurkeztuak ziren.

Hasiera urtea	Kop.
1991	1
1992	1
1993	2
1994	10
1995	29
1996	87
1997	341
1998	618
1998an amaitutako espedienteak guztira	1.089

- 1998an aurkeztutako kexetatik burutuak eta izapidatzen ari direnak

Euskal administrazioaren baten kontra 1998an aurkeztu eta aztertu ziren kexen artetik %57a urte honetan bertan izapidatu eta itxi dira; aldiz, beste %43a izapidaketan zegoen abenduaren 31n. Azken kopuru horretan egun horretara arte irekitako espediente guztiak sartzen dira, noski.

**Kexa espedienteen egoera Arartekoaren
jarduketa alorren arabera**

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Ogasuna	81	130	52	71	7
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	88	69	13	37	19
Hirigintza eta Etxebizitza	47	76	12	50	14
Administrazio Antolakuntza	47	74	28	37	9
Ingurugiroa	76	34	8	23	3
Funtzio Publikoa	28	79	11	52	16
Herri Lanak eta Zerbitzuak	41	54	11	39	4
Herrizaingoa	41	51	17	27	7
Hezkuntza	14	41	9	27	5
Kultura eta Elebitasuna	7	14	1	10	3
Nekazaritza, Ind., Merkat. eta Turismoa	8	10	1	8	1
Justizia	1	-	-	-	-
Lana eta Gizarte Segurantza	1	-	-	-	-
Guztira	480	632	163	381	88

**- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza)
aurkako kexen egoera**

Eusko Jaurlaritza bezala ezagutzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren kontra 1998an aurkeztutako kexen artetik 233tan eman du Arartekoak ebazpena. Zifra hori erreklamazio guztien %60a da. Ebazpen horietatik %19,3an hiritarrek aurkeztutako argudioak zuzenak direla iritzi dio erakundeak.

**Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoeraren azterketa
Arartekoaren jarduketa alorrek kontuan izanik**

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Funtzio Publikoa	21	64	9	43	12
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	40	34	7	21	6
Hezkuntza	12	38	8	26	4
Hirigintza eta Etxebizitza	11	33	7	17	9
Ogasuna	35	2	1	1	-
Herrizaingoa	13	19	1	12	6
Administrazio Antolakuntza	5	21	5	13	3
Nekazaritza, Ind., Merkat. eta	4	8	1	6	1
Herri Lanak eta Zerbitzuak	4	6	4	2	-
Kultura eta Elebitasuna	2	6	1	3	2
Ingurugiroa	6	2	1	1	-
Justizia	1	-	-	-	-
Lana eta Gizarte Segurantza	1	-	-	-	-
Guztira	155	233	45	145	43

**Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoera
berau osatzen duten sailak kontuan izanik**

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa	26	64	12	47	5
Osasuna	28	62	13	39	10
Herrizaingoa	16	36	4	17	15
Lurraldearen Antolam., Etxeb. eta Ingur.	16	35	7	19	9
Industria, Nekazaritza eta Arrantza	41	3	1	2	-
Justizia, Ekon., Lana eta Gizarte Segur.	19	4	-	3	1
Ogasuna eta Herri Administrazioa	5	10	3	6	1
Merkataritza, Kontsumoa eta Turismoa	1	10	1	7	2
Garraioak eta Herri Lanak	3	7	4	3	-
Kultura	-	1	-	1	-
Lehendakaritza	-	1	-	1	-
Guztira	155	233	45	145	43

- Foru administrazioen aurkako kexen egoera

1998. urtean, ekitaldi horretan bertan Ararteko erakundean foru aldundien jarduketaren aurka aurkeztu ziren erreklamazio guztien artean 123ren izapidaketa amaitu zen.

Ebazpen horietan, hiritarrek azaldutako argudioen baliotasuna kasu guztien %34,95ean onartu da.

**Foru Aldundien aurkako kexen egoera
lurralde historikoak kontuan izanik**

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Bizkaia	37	73	29	36	8
Gipuzkoa	14	31	9	20	2
Araba	6	19	5	11	3
Guztira	57	123	43	67	13

**Foru aldundien aurkako kexen egoera
Arartekoaren jarduketa alorrek kontuan izanik**

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Ogasuna	7	69	29	35	5
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	32	24	6	10	8
Administrazio Antolakuntza	6	13	7	6	-
Herri Lanak eta Zerbitzuak	3	10	-	10	-
Funtzio Publikoa	2	3	1	2	-
Nekazaritza, Ind., Merkat. eta Turismoa	2	1	-	1	-
Kultura eta Elebitasuna	1	2	-	2	-
Hirigintza eta Elebitasuna	2	1	-	1	-
Ingurugiroa	2	-	-	-	-
Guztira	57	123	43	67	13

Beste foru administrazio batzuen aurkako kexen egoera

	Izapidaketan
Bizkaiko Batzar Nagusiak	4
Guztira	4

Beste foru administrazio batzuen aurkako kexen egoera

	Izapidaketan
Ogasuna	4
Guztira	4

- Toki administrazioen aurkako kexen egoera

Gure erkidegoko toki administrazioei dagokienez, 1998an aurkeztutako erreklamazioen erdiak baino zertxobait gehiagoren izapidaketa amaitu da, 259 guztira, eta horrek %50,6a esan nahi du.

Ebazpen horietan, hiritarrek azaldutako argudioen baliotasuna onartu da kasuen %25,9an.

Arabako udalen aurkako kexen egoera

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Gasteiz	15	31	10	18	3
Laudio	2	7	4	3	-
Arratzu-Ubarrundia	-	2	-	2	-
Asparren	-	2	2	-	-
Zigoitia	1	1	-	-	1
Amurrio	-	1	-	-	1
Arraia-Maeztu	1	-	-	-	-
Aiara	1	-	-	-	-
Bernedo	-	1	-	1	-
Lagran	-	1	-	1	-
Leza	1	-	-	-	-
Erribera Goitia	-	1	-	1	-
Gaubea	-	1	1	-	-
Guztira	21	48	17	26	5

Arabako administrazio batzarreen kontrako kexen egoera

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Menagarai	3	-	-	-	-
Osma	3	-	-	-	-
Fontetxa	-	2	-	2	-
Aretxabaleta	-	1	-	1	-
Argandoña	-	1	-	1	-
Etxaguen	1	-	-	-	-
Getaria	-	1	-	1	-
Murga	-	1	-	-	1
Urbisu	1	-	-	-	-
Quintanilla	1	-	-	-	-
Zuhatza	1	-	-	-	-
Guztira	10	6	-	5	1

Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Bilbo	56	54	14	34	6
Getxo	4	9	3	6	-
Barakaldo	8	3	-	3	-
Basauri	-	11	1	8	2
Urtuella	6	1	1	-	-
Sestao	5	2	-	1	1
Erandio	1	5	1	4	-
Galdakao	4	2	-	1	1
Plentzia	4	2	1	1	-
Santurtzi	2	4	-	3	1
Bermeo	3	1	-	1	-
Karrantza	4	-	-	-	-
Sopuerta	3	1	-	1	-
Bakio	-	3	-	3	-
Elorrio	1	2	2	-	-
Iurreta	2	1	-	1	-
Leioa	1	2	-	1	1
Mungia	1	2	1	1	-
Sopela	-	3	1	2	-
Trapaga Arana	2	1	-	1	-
Abanto Zierbena	2	-	-	-	-
Arrankudiaga	1	1	1	-	-
Busturia	1	1	1	-	-
Durango	1	1	-	1	-
Ermua	1	1	-	1	-
Orduña	-	2	1	1	-
Portugalete	1	1	-	1	-
Zierbena	2	-	-	-	-
Abadiño	1	-	-	-	-
Alonsotegi	1	-	-	-	-
Arrieta	1	-	-	-	-
Arrigorriaga	-	1	-	-	1
Bedia	1	-	-	-	-
Etxebarria	-	1	-	1	-
Gamiz-Fika	1	-	-	-	-
Gautegiz Arteaga	-	1	-	1	-
Gernika-Lumo	-	1	1	-	-
Guenes	1	-	-	-	-
Igorre	1	-	-	-	-
Lekeitio	-	1	-	-	1
Mendexa	-	1	-	1	-
Ondarroa	-	1	-	-	1
Orozko	-	1	-	1	-
Zalla	-	1	-	1	-
Zamudio	-	1	1	-	-
Zaratamo	1	-	-	-	-
Zeanuri	-	1	1	-	-
Guztira	124	127	31	81	15

Gipuzkoako udalen aurkako kexen egoera

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Donostia	40	33	8	22	3
Irun	6	7	1	6	-
Lasarte-Oria	7	3	-	3	-
Arrasate	4	5	4	1	-
Andoain	7	-	-	-	-
Pasaia	5	2	-	2	-
Tolosa	4	3	-	2	1
Hernani	2	4	1	2	1
Errenteria	2	3	-	1	2
Elgoibar	1	3	2	1	-
Beasain	1	2	-	1	1
Eibar	1	2	-	1	1
Urnieta	3	-	-	-	-
Deba	2	-	-	-	-
Eskoriatza	1	1	-	1	-
Getaria	-	2	1	1	-
Hondarribia	-	2	1	-	1
Lazkao	-	2	-	2	-
Mutriku	2	-	-	-	-
Usurbil	1	1	1	-	-
Zarautz	2	-	-	-	-
Bergara	-	1	-	1	-
Ibarra	1	-	-	-	-
Irura	1	-	-	-	-
Oñati	-	1	-	-	1
Ordizia	-	1	-	1	-
Segura	1	-	-	-	-
Soraluze	1	-	-	-	-
Urretxu	1	-	-	-	-
Zegama	1	-	-	-	-
Zizurkil	1	-	-	-	-
Guztira	98	78	19	48	11

**Udalen aurkako kexen egoera
Arartekoaren jarduketa alorrak kontuan izanik**

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Ingurugiroa	68	31	7	21	3
Ogasuna	31	51	19	30	2
Hirigintza eta Etxebizitza	34	42	5	32	5
Administrazio Antolakuntza	37	35	12	17	6
Herri Lanak eta Zerbitzuak	27	34	6	24	4
Herrizaingoa	28	32	16	15	1
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	16	11	-	6	5
Funtzio Publikoa	4	13	1	8	4
Kultura eta Elebitasuna	4	6	-	5	1
Hezkuntza	2	3	1	1	1
Nekaz., Ind., Merkat. eta Turismoa	2	1	-	1	-
Guztira	253	259	67	160	32

**Toki Administrazioen aurkako kexen egoera
eragindako erakunde publikoa kontuan izanik**

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Mebisa – Bilboko metroa	6	6	3	3	-
Servicios de Txingudi S.A.	3	5	1	4	-
Bilbo Handiko Uren Partzuergoa	2	3	2	1	-
Busturialdeko Uren Partzuergoa	-	1	1	-	-
Enkarterrietako Mankomunitatea	-	1	1	-	-
San Markoseko Mankomunitatea	-	1	-	1	-
Guztira	11	17	8	9	-

**Toki Administrazioiko beste erakunde batzuen kontrako kexen
egoera Arartekoaren jarduketa eremuak kontuan izanik**

	Izapidaketan	Amaituak	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Ogasuna	4	8	3	5	-
Herri Lanak eta Zerbitzuak	7	4	1	3	-
Administrazio Antolakuntza	-	4	4	-	-
Ingurugiroa	-	1	-	1	-
Guztira	11	17	8	9	-

6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMAZIOA EGITEKO MODUA)

- Kexagileen ezaugarriak

1998. urtean Ararteko erakundean aurkeztutako kexen azterketa soziologikoari erreparaturik ikus daitekeenez, igo egin da Arartekoari erreklamazioak aurkezten dizkioten emakumeen kopurua konformidade handi batean, ia gizonetzkoen pareraino iritsiz. Kopuru osoarekiko emakumeek aurkeztu dituzten kexen portzentaia %39,38tik %45,19ra igo da. Gizonetzkoenak, bestetik, txosten honek aipatzen duen urte horretan kexa guztien %46,84a dira.

Aurkeztu diren kexa guztiak kontuan izanik erreklamazioak aurkeztu dituzten gizonen eta emakumeen portzentaia ez du guztiz argitzen generoaren arabera portaera Arartekoari kexa bat aurkezteko orduan, eta horregatik, gaineratik bada ere, datuak alorrez alor aztertu behar dira.

Arartekoaren jarduketara alorrei erreparatu badiogu, emakume erreklamatzailen portzentaia gizonena baino handiagoa dela ikus daiteke 5 alorretan: Herri Lanak eta Zerbitzuak (emakumeak %57 eta gizonak %47), Osasuna eta Gizarte Ongizatea (%56 eta %44), Ingurugiroa (%54 eta %46), Administrazio Antolakuntza (%53 eta %47) eta Funtzio Publikoa (%53 eta %47).

Gainerako jarduketara alorretan, gizonak emakumeek baino kexa gehiago aurkezten dituzte. Alde nabarmenenak Ogasuna eta Justizian atzematen dira, gizonak emakumeek baino bi aldiz gehiago aurkezten baitituzte, eta Herrizaingoa, gizonak %64a diren bitartean emakumeenak %36a dira.

Jasotako kexen banaketa kexagileen ezaugarrien arabera

Kexagileen ezaugarriak	Kopurua	%
Gizonak	1.246	46,84
Emakumeak	1.202	45,19
Taldeak	212	7,97
Guztira	2.660	100

(Ikusi 13. diagrama eranskinean)

- Kexa idazterakoan erabilitako hizkuntza

Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko azterketa egiten bada, ikus daiteke euskaraz idatzitako kexa kopuruak igoera aipagarria izan duela, eta joan den urtekoak baino ia bi aldiz gehiago direla.

Arartekoaren irizpidea da hiritarrek kexa aurkezteko erabiltzen duen hizkuntza berean izapidaketa guztia burutzea, autonomia erkidego honetan indarrean den legediak hizkuntzaren normalkuntzari buruz agintzen duena zorrotz begiraturik.

Arestian txosten honen kapitulu honetan aipatu den moduan, 1998an 1.143 erreklamazio aurkeztu dira ia era bertsuko bi kexa multzoren barruan bil zitezkeenak. Bi multzo horietako kexak gauzatu ahal izateko, horiek bultzatzen zituen edo zituzten pertsonak, salatzen zen arazo horrek eragindako bizilagunen artean, erreklamazioa egiteko inprimaki bat banatu zuten, beraiek prestatua eta ez Ararteko erakundeak, gaztelania hutsean idatzia, eta horrek eragotzi egiten zuen pertsona erreklamatzailak

beren hizkuntz aukera egin ahal izatea. Arrazoi horregatik, datuen hurrengo taula honetan, unitate bakar gisa hartu dira bi kexa multzo horietako bakoitza.

Kexen banaketa erabilitako hizkuntzen arabera

Hizkuntza	Kopurua	%
Gaztelania	1.374	90,45
Euskara	126	8,30
Ele biak	19	1,25
Guztira	1.519	100

(Ikusi 14. diagrama eranskinean)

- Kexak aurkezteko modua

Azkenik, kexak aurkezteko moduari dagokionez, aldaketa oso nabarmena egon da azkeneko urteotan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan harrera zuzeneko bulegoak zabaldu direnez gero. Gutuna jada ez da erreklamazioa aurkezteko biderik ohikoena, 1996. urtea arte hala izan bada ere, eta 1998. urtean erreklamazioa egin duten 5 pertsonetatik batek bakarrik erabili du bere kexa aurkezteko. Pertsona asko izan dira zuzenean Arartekoaren harrera zuzeneko hiru bulegoetako batera joan direnak bere kexa aurkezteko asmoz. Erreklamatzailen %78,34ak nahiago izan zuen beren kexak erakundearen bulegoetan aurkeztu, eta %19,67ak posta edo mezularitza zerbitzuak erabili zituen.

Kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera

Jasotzeko modua	Kopurua	%
Zuzenean bulegoetan	2.084	78,34
Postaz	523	19,67
Faxeaz	53	1,99
Guztira	2.660	100

(Ikusi 15. diagrama eranskinean)

7. HARRERA ZUZENeko BULEGOEN JARDUERA (BISITAK)

1996ko uztailan eta irailean Donostian eta Bilbon hiritarren informazioarako zerbitzuak zabaldu ondoren, eta Gasteizkoa aurrez zabaldu zelarik, Ararteko erakundeak hiru herrialde historikoetako hiriburuetan harrera zuzeneko bulegoak martxan izan ditu 1997an eta 1998an era normalizatu batez. Bulego berriak zabaltzea zen Arartekoa hiritarrei hurbiltzeko filosofiaren baitan urratsetako bat, euskal administrazio publiko edo haien mendeko zerbitzu publikoren batekin arazoak zituzten hiritarrek aukera izan zezaten haiei laguntzeko zeregina duen zerbitzu batera erraz iristeko.

Balizko erreklamatzailengana hurbiltzeko egin den ahaleginak eman du bere fruitua. Bulegoetan izan den bisitaldi kopurua, 1997. urtean aurreko urtekoa baino %112 handiagoa izan bazen ere, 1998. urtean bere horretan mantendu da, nahiz igoera txiki

bat ere izan den. Guztira, 3.088 hiritar joan dira bulegoetara, horien artetik %49,97a Bilboko bulegora, %31,90a Donostiakora, eta %18,13a Gasteizkora.

Harrera zuzeneko bulegoetara egindako bisita kopurua

Hiria	Bisita kop.	%
Bilbo	1.543	49,97
Donostia	985	31,90
Gasteiz	560	18,13
Guztira	3.088	100

(Ikusi 16. diagrama eranskinean)

- Harrera zuzeneko bulegoetara jotzen duten pertsonen ezaugarriak

1998. urtean, euskal hiriburuetan Arartekoak dituen harrera zuzeneko bulegoetara gizonek emakumeek baino gehiago jo dute. Hiru bulegoetan gertatzen den gauza da gizonezkoak gehiago joate hori, eta modu horretan, gizonezkoen portzentaia %50,54raino iristen da, emakumeena %39,25a den bitartean. Bikoteek eta taldeek egindako bisitaldiak, batean zein bestean, %5aren inguruan dabilta.

Harrera zuzeneko bulegoetara jotzen duten pertsonen ezaugarriak

	Bilbo	Donostia	Gasteiz	Total	%
Emakumeak	603	491	225	1212	39,25
Gizonak	795	384	272	1558	50,45
Bikoteak	64	77	39	180	5,83
Taldeak	81	33	24	138	4,47
	1543	985	560	3.088	100

(Ikusi 17. diagrama eranskinean)

- Harrera zuzeneko bulegoetara jotzen duten pertsonen adina

Arartekoaren harrera zuzeneko bulegoetara jotzen duten pertsonen adin-taldeak aztertzen baldin baditugu, ikus daiteke egiten diren bisiten ia erdia 36 eta 55 urte bitartean dabilzan pertsonen egiten dituztela. 26 eta 35 urte eta 56 eta 65 urte bitarteko adina duten pertsonen bisitak ere ugariak dira.

Aipatutako datu horiek guztiak espero zitekeenari erantzuten dioten arren, deigarria gertatzen da 65 urtetik gorako pertsonen bisita kopuru handia. 1998. urtean 65 urtetik gorako 455 pertsonen jo zuten Arartekoaren harrera zuzeneko bulegoetara, eta horrek, izandako bisita guztien %15a esan nahi du.

**Harrera zuzeneko bulegoetara bisita egin dutenen banaketa
adin-taldean arabera**

Adina	Bilbo	Donostia	Gasteiz	Total	%
25 arte	35	48	29	112	3,63
26-35	255	209	128	592	19,17
26-45	434	249	128	811	26,26
46-55	330	196	130	656	21,24
56-65	251	130	81	462	14,96
66 edo gehiago	238	153	64	455	14,74
Guztira	1.543	985	560	3.088	100

(Ikusi 18. diagrama eranskinean)

- Harrera zuzeneko bulegoetara egindako bisitetatik zenbat bilakatu ziren kexa

Izandako bisita guztietatik 2.065 kexa bilakatu ziren, alegia, bisita guztien %66,87a.

Kexa bilakatu ez ziren gainerantzeko bisitei dagokienez, esan behar dugu batzuek Arartekoaren jarduketa eremua gainditzen zutela, eta horregatik ezin izan ziren kexa bezala izapidatu; beste kasu batzuetan agiri gehiago aurkeztu edo zegozkien administrazio erakundeen aurrean alde zuzenetik gestioak egin beharra zegoen, eta azkenik, beste batzuetan, planteatutako gaiek edo ez zuten kexa bilakatzeko funtsik, edo bisita lehendik aurkeztutako kexa espedienteari buruzkoa zen, edo hiritarrak bere arazo jakin horretan zein pauso jarraitu behar ziren ezagutu nahi zuten.

Kexa bilakatutako bisitak

	Kopurua	%
Bilbo	1.174	56,85
Donostia	747	36,18
Gasteiz	144	6,97
Guztira	2.065	100

(Ikusi 20. diagrama eranskinean)

A) GASTEIZKO HARRERA ZUZENeko BULEGOA

Aurten 560 bisita izan dira, eta horrek esan nahi du hilean batez beste 46,6 bisita izan direla.

Zerbitzu hau %13,17a gutxiago erabili da iazko urtearen aldean.

Gasteizko harrera zuzeneko bulegoa egiten diren bisiten xehetasunak

	Kopurua	%
Gizonak	272	48,57
Emakumeak	225	40,18
Bikoteak	39	6,96
Taldeak	24	4,29
Guztira	560	100

- Gasteizko harrera zuzeneko bulegora jotzen duten pertsonen adina

Adinari dagokionez, gazteenak (25 urtetik beherakoak) eta zaharrenak (65 urtetik gorakoak) izan dira erakundera pertsonalki gutxien jo dutenak, eta guztien artean %16,61 osatu dute. Gainerantzekoak ondoko koadroan sartzen diren hiru adin tarteetan (25-65 urte) dauden pertsonak burututako bisitak izan dira, hirurak kopuru berdintsutan ibili direlarik.

Gasteizko harrera zuzeneko bulegora egindako bisiten banaketa adin-taldeen arabera

Adina	Kopurua	%
25 arte	29	5,18
26-35	128	22,86
26-45	128	22,86
46-55	130	23,21
56-65	81	14,46
66 edo gehiago	64	11,43
Guztira	560	100

- Bisiten jatorri geografikoa

Bisiten jatorri geografikoari dagokionez, %90a Arabakoak izan dira, eta horietatik, %87a Gasteizko jendearenak.

Gasteizko harrera zuzeneko bulegora egindako bisiten banaketa jatorri geografikoaren arabera

	Kopurua	%
Araba-hiriburua	438	78,21
Araba-beste herriak	66	11,79
Gipuzkoa	25	4,46
Bizkaia	21	3,75
Besterik	10	1,79
Guztira	560	100

(Ikusi 19. diagrama eranskinean)

B) DONOSTIAKO HARRERA ZUZENeko BULEGOA

Bulego honek 1998an zehar 985 bisita izan ditu guztira. Bisiten hileroko batezbestekoa 89,5 izan da. Horietatik 747 bilakatu ziren kexa.

Donostiako harrera zuzeneko bulegora egindako bisiten xehetasunak

	Kopurua	%
Gizonak	491	49,85
Emakumeak	384	38,98
Bikoteak	77	7,82
Taldeak	33	3,35
Guztira	985	100

- Donostiako harrera zuzeneko bulegora jotzen duten pertsonen adina

Adinari dagokionez, 36 eta 45 urte bitarteko adina duten hiritarren taldea izan da maizen joan dena, nahiz oso ugariak ere izan diren 26 eta 35 urte bitartekoak eta 46 eta 55 urte bitartekoak. Ohikoak dira halaber 65 urtetik gorako pertsonen bisitak: 153 izan dira guztira.

Donostiako harrera zuzeneko bulegora egindako bisiten banaketa adin-taldeen arabera

Adina	Kopurua	%
25 arte	48	4,87
26-35	209	21,22
26-45	249	25,28
46-55	196	19,90
56-65	130	13,20
66 edo gehiago	153	15,53
Guztira	985	100

- Bisiten jatorri geografikoa

Donostiako harrera zuzeneko bulegora jo duten pertsonen jatorriari dagokionez, %99a Gipuzkoakoak dira, horietatik %67,31a hiriburukoak, eta %31,57a herrialdeko beste herri batzuetakoak.

Donostiako harrera zuzeneko bulegora egindako bisiten banaketa jatorri geografikoaren arabera

	Kopurua	%
Gipuzkoa-hiriburua	663	67,31
Gipuzkoa-beste herriak	311	31,57
Bizkaia	1	0,1
Besterik	10	1,02
Guztira	985	100

(Ikusi 19. diagrama eranskinean)

C) BILBOKO HARRERA ZUZENeko BULEGOA

Bulego honetan 1.543 bisita izan dira 1998an zehar. Horrek esan nahi du hilean 140 bisita izan direla batez beste. Bisita guztietatik 1.174 kexa bilakatu ziren.

Bilboko harrera zuzeneko bulegora egindako bisiten xehetasunak

	Kopurua	%
Gizonak	795	51,52
Emakumeak	603	39,08
Taldeak	81	5,25
Bikoteak	64	4,15
Guztira	1.543	100

- Bilboko harrera zuzeneko bulegora jotzen duten pertsonen adina

Bulego honetara bisita egin duten pertsonen adinari dagokionez, 25 urtetik beherakoak salbu, horiek oso gutxitan joan baitira, bisita kopurua nahikoa berdina izan da adin-tarte ezberdinetan. Besteen gainetik nabarmentzen da 36 eta 45 urte bitarteko pertsonen bisita kopurua, eta horren atzetik 46 eta 55 urte bitarteko adin-tartea dator.

Bilboko harrera zuzeneko bulegora egindako bisiten banaketa adin-taldearen arabera

Adina	Kopurua	%
25 arte	35	2,27
26-35	255	16,53
26-45	434	28,13
46-55	330	21,38
56-65	251	16,27
66 edo gehiago	238	15,42
Guztira	1.543	100

- Bisiten jatorri geografikoa

Bulegora egindako bisita guztietatik %98,18a Bizkaiko udalerrietakoak dira, eta horietatik %57a Bilbokoak.

***Bilboko harrera zuzeneko bulegora egindako bisiten
banaketa jatorriaren arabera***

	Kopurua	%
Bizkaia-hiriburua	883	57,22
Bizkaia-beste herriak	632	40,96
Araba	20	1,30
Gipuzkoa	6	0,39
Besterik	2	0,13
Guztira	1.543	100

(Ikusi 19. diagrama eranskinean)

8. OFIZIOZKO JARDUERAK

Hiritarrek aurkeztu ondoren Arartekoak aztertu dituen kezez aparte, erakunde honek bere kasa ikertu ditu euskal administrazio publikoen ustezko jarduera irregularrak gerta zitezkeen kasu batzuk; beste kasu batzuetan, berriz, lankidetzeta edo zerbitzu berri bat eskaintzeko aukera ikusi denean ekin dio Arartekoak bide horri. Ofiziozko jarduerak dira hauek, Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak 17.1 artikuluan Arartekoari ezarritakoak, eta aukera ematen diotenak bere ikerlana hasteko, Administrazioaren bidegabeko ekintzak edo utzikeriak kaltetutako hiritarren erreklamazioei itxaron gabe.

1998an Arartekoak 52 ofiziozko kebaren izapidaketa hasi du, eta horien artetik, duten kopuruagatik, Osasun eta Gizarte Ongizate alorrean euskal administrazio publikoen jarduerarekin lotutakoak nabarmentzen dira, ofiziozko jarduketara guztien heren bat baino gehiagok alor hori izan baitute xede.

Arartekoaren ofiziozko jarduketaren banaketa alorrez alor

	Ofizioz egindako espedienteak	%
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	20	38,46
Ogasuna	10	19,23
Herrizaingoa	9	17,31
Funtzio Publikoa	4	7,69
Herri Lanak eta Zerbitzuak	4	7,69
Justizia	2	3,85
Hezkuntza	1	1,92
Hirigintza eta Etxebizitza	1	1,92
Gizarte Arazoak	1	1,92
Guztira	52	100

(Ikusi 21. diagrama eranskinean)

Arartekoaren ofiziozko jardueretan ikertu diren administrazio publikoei bagagozkie, ikus dezakegu toki administrazioek eragin dutela Arartekoaren ofiziozko jarduera kopururik handiena, %42,37a hain zuzen ere. %27,12a dagokie Eusko Jaurlaritzaren Administrazioari eta %23,73a foru administrazioari.

**Arartekoaren ofiziozko jardueren banaketa
eragindako administrazioen arabera**

	Kopurua	%
Toki Administrazioak	25	42,37
Eusko Jaurlaritza	16	27,12
Foru Administrazioak	14	23,73
Estatuko Administrazioa	4	6,78
Guztira	59	100

(Ikusi 22. diagrama eranskinean)

9. ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZKO BALORAZIOA (KEXAGILEEI EGINDAKO INKESTA)

1996. urtean Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren hiritarreganako hurbilketa bide bat hartu zuen, erakunde honetara jo eta erreklamazio bat aurkeztu duten hiritarrek Arartekoaren jarduerari buruz zuten iritzia berri eta hartaz egiten zuten balorazioaren berri izateko. Hiritarren ustez erakundearen hutsuneak zeintzuk ziren ezagutu eta hutsune horiei konponbidea eman nahi zien.

Hori dela eta, 1996ko urtarilaren lehen eguna geroztik, Arartekoak kexa baten izapidaketa amaitzen duenero, galdeketa bat bidaltzen dio erreklamatzaileri, bere borondatez eta izenik eman gabe zenbait galderari erantzuteko eskatuz, erakunde honetara jotzen duten hiritarren ezaugarriak ezagutzeko eta erakundeak eskaini dien zerbitzuaz duten iritzia jakiteko. Erantzun ezin hobea jaso zen lehenengo urte horretan, bai erantzuna jaso zuten galdeketei dagokienez eta bai erreklamatzailerek erakunde honek eskainitako zerbitzuari buruz zuten iritzia dagokionez ere.

Beste bi urte igaro direlarik, orduan hasitako esperientziaren balorazioa positiboa dela esan daiteke, erreklamatzailerek galdeketeri emandako erantzuna ikusirik. Erantzun asko jaso dira 1997an ere. Galdeketa guztietatik %38,6a, hau da 259 galdeketa, galderei erantzun ondoren itzuli zaigu, eta horri esker nahi genuen bidetik ondorio fidagarriak atera ditzakegu.

Aurten, joan den urtean baino are positibagoa izan da erantzunen edukia: jasotako inkesten %86,10ak oso edo nahiko positiboki baloratzen du oro har Arartekoaren parte hartzea, %82,34ak joan den urtean bezala baloratzen duen bitartean, eta hori guztia, Arartekoak Administrazioaren aurrean %34,44 kasutan erreklamatzaileri arrazoia eman dion urte batean gertatu da. Datu horiek Ararteko erakundeak eskaintzen duen zerbitzuaren balioa sendotzen dute, eta bertan lan egiten dutenei adorea ematen die erabiltzailerek estimatzen duten lan batean aurrera jarraitzeko, egunez egun hobetzeko ahalegin horretan.

Galde-sortaren emaitzak laburtuz, Arartekoari kexaren bat aurkeztu eta honek izapideak burutu ondoren, hiritarrei berriro ere egokiak iruditu zaizkie erabili dituzten

zerbitzuak, eta uste dute “Arartekotik jasotako informazioa ona edo oso ona izan dela” (%86,87), “kexa aurkeztu eta ebazpena eman arte igarotako denbora laburra edo oso laburra izan dela” (%54,06), eta “Arartekoak beraien kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin oso ados edo nahiko ados daudela” (%67,57). Arartekoaren jarduera globalki nola baloratuko luketen (hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...) galdetu zaienean, erreklamatzailerik balorazio oso positiboa egin dute eta “Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati kasu guztietan Arartekoarengana jotzeko gomendatuko lioketela” (%61,78) adierazi dute. Era berean, “kexa eragin zuen arazoa ez da konpondu edo nahiko gaizki konpondu da” erantzuten duten pertsonen ere, alegia galdeketari erantzun diotenen %48,65ak, “Arartekoaren jarduera oso ongiedo nahiko ongi baloratzen dute” (%74,61) eta “Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati kasu guztietan edo zenbaitetan Arartekoarengana jotzeko gomendatuko lioketela” (%85,72) adierazi dute.

Ondoren jasotzen dira berez oso adierazgarriak eta azalpen handirik behar ez duten galde-sortaren emaitzak, baina aipatzekoak dira, nahiz horietako batzuk bitxikeria baino ez diren, galde-sortako ataletako bati erantzuterakoan hiritar batzuek Arartekoari igorri dizkioten hobekuntzarako iradokizunak eta iritziak. Kritikken artean 7 pertsonen Arartekoaren inplikazio gehiago eskatzen dute eta erakundeak gertuagotik jarrai dezala arazoa; 4 pertsonen erreklamatzailerarekin komunikazio gehiago eskatzen dute, batez ere kexaren izapidaketa aldia luzatzen denean; bik Arartekoaren erakundeko langileen prestakuntza tekniko eta hizkuntz mailakoa kritikatzan dute; pertsona batek dio Arartekoak ez duela ezertarako balio; beste batek alderdi bati bakarrik entzun ziola; beste batek arintasun gehiago eskatzen du, eta azken batek dio, bere iritziz, Arartekoari independentzia falta zaiola. Iradokizunen artean, 4 pertsonen azaltzen dute ez zaiola inongo administrazioari onartu behar Arartekoari ez erantzutea; 3 pertsonen diote Arartekoak eskumen gehiago beharko lituzkeela bere gomendioak lotesle izan daitezen; bi pertsonen uste dute Arartekoak justiziaren jarduera bidegabeen aurrean esku hartzeko aukera eduki beharko lukeela; 7 pertsonen adierazten dute beren erantzunean informazio gehiago egon behar lukeela erakundeari buruz eta publizitate gehiago aztertutako kasuei buruz; eta beste batek uste du administrazioen jarduera bidegabeak zuzentzeko modu bakarra Arartekoak atzemandako hutsuneak hiritarrei jakinaratzea dela; pertsona batek dio komenigarria dela Arartekoak bi alderdiak biltzea beren jarrerak beraren aurrean defenda ditzaten; batek pentsatzen du Arartekoak bere ikerketa-baliabide propioak behar dituela emaitza hobekien lortzeko; beste batek nahiko luke herrialde historikoetako hiriburu ez diren udalerrietan ere Arartekoaren bulegoak egotea; eta azkenik, erreklamatzailerik batek proposatzen du Administrazioaren menpeko diren administrazio eta zerbitzu publiko guztietan Arartekoaren gutunontzi bat edo erakunde horrekin zuzeneko linea bat egon dadila.

- **Galde-sortaren emaitzak** (Ikusi 23etik 28ra bitarteko diagramak eranskinean)

1. Nolako iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?

1. Oso ona	41,70
2. Ona	45,17
3. Txarra	7,72
4. Oso txarra	3,86
5. Erantzunik ez	1,54

2. Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik izapidaketa bukatu arteko denbora?

1. Oso luzea	12,36
2. Luzea	30,89
3. Laburra	42,86
4. Oso laburra	11,20
5. Erantzunik ez	2,70

3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz erabaki edo proposatu duenarekin?

1. Guztiz ados nago	35,52
2. Nahikoa ados nago	32,05
3. Ez nago oso ados	11,97
4. Ez nago batere ados	16,99
5. Erantzunik ez	3,47

4. Zure ustez kexa sorrarazi zuen arazoa:

1. Oso ongi konpondu da	24,71
2. Nahikoa ongi konpondu da	22,78
3. Nahikoa gaizki konpondu da	7,72
4. Ez da konpondu	40,93
5. Erantzunik ez	3,86

5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu zuen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)

1. Oso egokia	55,60
2. Nahikoa egokia	30,50
3. Ez oso egokia	6,95
4. Oso desegokia	3,47
5. Erantzunik ez	3,47

6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?

1. Bai, beti	61,78
2. Bai, kasu batzuetan	30,12
3. Ez, inoiz ez	6,56
4. Erantzunik ez	1,54

Gerta zitekeen galde-sortari erantzuten ziotenek jarrera ezberdina erakustea aurkeztutako kexa eragin zuen arazoa konponduta geratu edo ez. Baina ez da horrela gertatu, hori erakusten baitute arazoa konpondu gabe geratu eta galde-sortari erantzun diotenen.

- **Arazoa “ez da konpondu” edo “nahikoa gaizki konpondu da” dioten kexagileek Arartekoaren jarduerari buruz egin duten balorazioa**

(Ikusi 29 eta30 diagramak eranskinean)

5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu zuen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)

1. Oso egokia	33,33
2. Nahikoa egokia	41,27
3. Ez oso egokia	12,70
4. Oso desegokia	7,14
5. Erantzunik ez	5,56

6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?

1. Bai, beti	47,62
2. Bai, kasu batzuetan	38,10
3. Ez, inoiz ez	13,49
4. Erantzunik ez	0,79

IV. ATALA
**ADMINISTRAZIOAREN SAIL
BATZUEK ARGIBIDEAK EPE
BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA**

1. SARRERA ETA OHARRAK

Erakunde hau sortzen eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 23. artikulua araberan, haren iker-ahalmenen barruko erakunde eta organismo guztiek derrigor eman behar dizkiote Arartekoari haren iritzipean jarritako arazoengatik eskatzen dizkien datu, agiri, txosten edo azalpen guztiak, beti ere premiazko izaeraz eta lehentasun osoz.

Derrigorrezko behar horrek oso esanahi berezia dauka, kexak eragin dituzten administrazioen lankidetzajarrera erabakigarria izan baitaiteke eskuratu zaigun kontrol betekizuna behar bezala burutu ahal izateko; horrexegatik, hain zuzen ere, Estatuko legegileek, garrantzia hori kontuan hartuz, delituztat jo du Zigor Araudiko 502.2 artikuluan erakunde nahiz funtzionarioek oztupoak jartzea Herriaren Defendatzailearen, Kontu Auzitegiaren edo autonomia erkidegoetako organo baliokideen ikerlanari, hauek eskatutako txostenen bidalketa egiteari uko eginez edo bidegabeki atzeratuz, edota ikerlan horretarako beharrezkoak diren espediente edo agiriak eskuratzeko ahaleginak zailduz.

Argi utzi behar da lagundu behar horrek ez dakarrela soilik eskatzen diren datu, agiri eta txosten guztiak emateko obligazioa, baina baita ere jarritako epeak zorrotzasun osoz errespetatu behar izatea ere, denborak gure eskuhartzeetan daukan berebiziko garrantzia kontuan izanik.

Beste urteetan bezalaxe, oraingoan ere kapitulu honen bidez aipatu nahi dugu nola bete duten gure erakundearekiko lankidetzaberria gure informazio eskariak jasotzen dituzten aginteek, informazio eskari hori modurik zabalenean ulerturik.

Aurreko urteetako bide beretik jarraituz, 1998an Ararteko erakundeak egindako lanari buruzko azalpen honetan, esan beharra dago nahiko irudi ona eman dezakegula aginte-maila desberdinek gure erakundearekin izandako lankidetzaz, nahiz eta bestelako kasurik ere ez den falta.

Sarrera honen ondorengo tauletako datuek argi erakusten dute zer-nola egin behar izan duen Arartekoak bere kontrolpeko erakunde eta organismo desberdinetako arduradunei gogorarazteko laguntza hori eman beharra dutela derrigor, ikertzen ari zen gai bati buruzko informazioa bidaltzeko eskariaren erantzunean atzerapena izan den bakoitzean.

Nabarmendu nahi dugu jarduera horren bilakaeran erakunde honen zerbitzuek ez dutela automatikoki funtzionatzen. Hau da, erakundeei egiten diegun gogorarazpen horretan zehaztasun eta erantzukizunaz jokatu nahi izaten dugu beti, ondo baitakigu egin behar hauei heltzeko orduan lan burokratikoetik aparteko hainbat gertakizuni ere egin behar izaten zaiela aurre. Ildo horretatik, ikertzen diren kasuetan bil daitezkeen zertzelada guztiak ondo neurtu behar dira, hala nola: informazio eskaria eragin duen gaiaren ezaugarriak, gure eskaria jaso duen agintaritzaren egitura burokratiko eta administratiboaren konplexutasuna, erantzun zain dauden gaien pilaketa, etab.

Halaber, beharrezkoa da esatea zenbait espedientetan urtebetetik gora kostatzen dela informazio eskarien erantzuna jasotzea. Horregatik, aurreko urteetan bezalaxe, 1998an tramitazioan egondako espediente guztien errekerimendu guztiak sartu nahi izan ditugu txosten honetan, 1998. urtea baino lehen hasitakoak izan arren. Izan ere, gure iritziz, horrela ikuspegi zabalago batez jakin daiteke zenbat kostatzen den zenbait erakunde eta organismoren aldetik gure kontrol lanaren azpiko ekintza edo hutsuneei buruzko argitasunak jasotzea.

Ondoren ematen ditugun datuetan oinarrituta, lankidetzeta-betebehar hori zein mailataraino betetzen den ikusi eta ondorio eta balorazio argiak atera daitezke horri dagokionez. Nolanahi ere, ezin ditzakegu aipatu gabe utzi gure erakundearen lana gehien oztopatu duten kasu batzuk. Gaiak, gainera, larriak dira, eta Arartekoak azken errekerimendu batzuk ere egin behar izan ditu haietan, ohartaraziz zegozkion ekintza penalak eragingo lirатеkeela horiei eman beharreko erantzuna jaso gabe jarraituz gero.

Gai horietako bat -40/98 zenbakiaz jaso- DBHaren ezarpenaren ondorioz beraien bitokitiaz kanpoko herri bateko ikastetxe batean eskolatuak izan ziren ikasle batzuen garraio eta jantoki beharrei buruzkoa zen. Gurasoek berek ikasturtean zehar egindako gestioek porrot egin ondoren, kexa bat iristarazi ziguten 1998ko urtarrilean, eta haren medioz erakunde honek berehala egin zuen gaiari zegokion informazio-eskaria. Hala ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Kabinete Teknikoko Zuzendariak -bera baita Arartekoaren ohiko mintzakidea espedienteen tramitazio arruntean- gure eskariari ez zion erantzun, behin baino gehiagotan eskaria egin arren. Hezkuntza alorreko arduradun horren jarrera eragozle horrek bultzaturik, 1998ko maiatzean, igarotako denbora luzea zenez gero, erakunde honetako titularrak berak jo zuen Saileko arduradun nagusiarengana, hots, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarengana. Horraino iritsita, jasotzeko zegoen informazioa berehala bidal zedila eskatu zen, esanez bestela erakunde honek ikerketa-espediente bat irekitzeari ekin beharko ziola Ministerio Fiskalaren jakinaren gainean jarri beharreko jarrera ba ote zegoen argitzeko, jarrera hori desobedientzia-delitutzat har baitzitekeen Zigor Araudiko 502.2 artikulua dioenari jarraituz. Azkenik, errekerimendu horren ondorengo elkarrizketen bitartez eta ohartarazpenaren ondoren hezkuntza alorreko arduradunek laguntzeko azaldu zuten konpromezu argiaren bitartez, gure erakundeak bertan behera utzi zuen Ministerio Fiskalera jotzeko aukera hori. Dena den, erakutsitako jarrera okerra Eusko Legebiltzarrarentzako txosten honetan nabarmenki aipatuko zela adierazi zitzaien.

Era honetako ekinbideak hartzera behartu gaituen beste gai bat, 37/98 zenbakiaz jasotakoa, Ogasun eta Herri Administrazio Sailari dagokio, Funtzio Publikoko Zuzendaritzari, zehazki. Kasu honetan, Osasun Sailari atxikita laboratoriorako laguntzaile lanetan ari ziren funtzionario batzuek aurkeztu zuten kexa, haien egoera administratiboari buruzko argitasun batzuk nahi zituztelako. Gure erakundeak, bere eskuhartzea norabide egokian jartzearren, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren laguntza, haren Zerbitzu Zuzendaritzarena hain zuzen, eskatu zuen martxoaren 18an. Hasierako eskari horrek inolako erantzunik izan ez zuenez, beste zenbait errekerimendu egin behar izan ziren (guztira hiru), harik eta urriaren 28an, sei hilabete baino gehiago igaro eta gero alegia, Arartekoak ohartarazi zuen arte Zigor Araudiko 502.2 artikuluari jarraituz zegozkion tramitazioei ekingo ziela, jarrera eragozle hori zuzendu ezean. Ohartarazpen horrek Funtzio Publikoko Zuzendariaren erantzun berehalakoa eragin zuen; honek, izandako atzerapena zuzitzeko arrazoi moduan Administrazio orokorrean deitutako lekualdatze-lehiaketaren kudeaketatik Zuzendaritzak zeukan lan-zama handia argudiatuz, sei hilabete lehenago eskatutako informazioa bidali zuen azkenik. Lehiakidetzeta masiboko

deiali batek dakarren kudeaketa-zama garrantzitsuaz ohartuta egonda ere, Arartekoak uste du horrek ez duela ezertan ere gutxitzen erakunde honekiko agertu beharreko lankidetzaz-beharra, eta ez du inondik inora ere justifikatzen erakunde honek informazioa bost aldiz eskatu behar izatea Administrazioaren erantzunik lortzen ez zelako. Horregatik, diligentsia penalak hastera zuzendutako kudeaketak bertan behera uztea erabaki zen arren, beharrezkoa iruditu zaigu gai honetan gertatutakoa txosten honetan espreski sartzea.

Azkenik, Ortuellako Udalari dagokion beste gai bat ere -178/98 zenbakiaz jasoa- aipatzea merezi du. Kexa aurkeztu zuenak salatu zuen Udalak ez zela erantzuten auto-taxien baimena eskualdatzeko eskari bati eta zerbitzu horretara atxikitako ibilgailua ordezkatzeko beste eskari bati. Erakunde honek gaiari buruzko informazioa 1998ko otsailaren 27an eskatu zuen, baina guztira lau errekerimendu egin behar izan ziren, haietako azkena diligentsia penalak hasteko abisuarekin. Oraingo honetan ere, erakundeari lagundu nahi ez izateak ekar ditzakeen ondorio penalei buruzko mehatxua eginez bakarrik lortu zen jaso beharreko informazioa eskuratzea; gainera, atzerapen hori zela bide, hiritarrak eskatutako eskuhartzea 1998ko abendura arte burutzerik ez zen egon, hau da, espedientearen tramitazioari ekin zitzaionetik zortzi hilabete igaro eta gero.

Udalbatzar horren kasuan, bestalde, era honetako gorabeherarik gertatzen den lehen aldia ez da hau. Izan ere, egiten zaizkion informazio eskariei berandu erantzuten ohi die, eta horrek atzerapen handia dakar gure erakunde honen eskuhartzeetan.

* * *

Ararteko erakundeari lagundu beharra bete ez den kasurik aipagarrienak xehetasun batzuekin azaldu eta gero, bidezkoa iruditzen zaigu zenbait argitasun ematea ondoren datozen tauletako datuak hobeto ulertu ahal izateko:

- Aurreko urteetan ez bezala, lehendabiziko tokian eskaintzen dugun taula osatu dugu. Bertan, ikus daitekeenez, gure kontrolpeko erakunde eta organismoen aurrean tramitatu diren espedienteen kopurua ematen dugu, informazio eskari bat behintzat behar izan dutenak eta, bere kasuan, errekerimendu bat edo gehiago behar izan dutenak azalduz. Zutabe bakoitzean zehazten den informazioa hauxe da:
 - (1) zenbat espedientetan egin den informazio eskariren bat 1998. urtean zehar
 - (2) 1998. urtean zehar informazio eskaria egindako espedienteen artetik zenbatetan egin behar izan den errekerimenduren bat
 - (3) errekerimendua behar izan duten espedienteen portzentaia (%), 1998. urtean zehar informazio eskaria egindako espediente guztien barruan
 - (4) 1998an errekerimendua behar izan zuten espedienteen artetik zenbat ziren aurreko urteetan egindako informazio eskariei zegozkienak
 - (5) 1998ko espediente bakoitzeko egin behar izan diren errekerimenduen kopurua desglosatuta
 - (6) 1998an egindako errekerimendu guztiak
- Bigarren tokian ematen dugun taulan, banan-banan islatzen dira gure kontrolpeko erakunde eta organismoen errekerimendua bidaltzera behartu gaituzten espedienteak. Erreferentzian izartxoak duten espedienteak aurreko urteetan hasitakoak izanda

1998an zehar errekerimendua egitera behartu gaituztenak dira (tramitazioak irekita jarraitzen baitzuen, alegia).

Azken zutabean ematen den datua, hau da, informazioa jaso den ala jaso gabe dagoen zehazten duena, muga-egun bezala 1998ko abenduaren 31 hartuz osatuta dago.

Azkenik, behin baino gehiagotan erreferentziatuta agertzen diren espedienteak informazio eskari bat baino gehiago egitera behartu gaituztenak dira. Egindako eskabide bakoitzerako behar izan diren errekerimenduak zehaztu ahal izateko adierazten ditugu horrela.

2. ARARTEKOA 1998AN ZEHAR EGINDAKO INFORMAZIO ESKARIEI ETA ERREKERIMENDUEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA

A) Eusko Jaurlaritza

Saila	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	98an eskatutako espedienteak	Errekerimenduak dituzten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimenduak	Errekerimenduen kopurua desglosatuta				98ko errekerimenduak guztira
					1	2	3	4	
Merkataritza, Kontsumoa eta Turismoa	5	-	-	-	-	-	-	-	-
Kultura	1	-	-	2	1	-	1	-	4
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	61	14	22,95	4	14	3	1	1	27
UPV/EHU	12	6	50	3	6	3	-	-	12
Ogasuna eta Herri Administrazioa	12	6	50	2	3	4	-	1	15
HAEE-Herri Ardularitza Euskal Erakundea	3	1	33,33	-	1	-	-	-	1
Industria, Nekazaritza eta Arrantza	7	-	-	1	1	-	-	-	1
Herrizaingoa	40	9	22,50	7	11	5	-	-	21
Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzak	9	2	22,22	2	4	-	-	-	4
Lurralde Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurugiroa	24	8	33,33	1	6	2	1	-	13
Lehendakaritza	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Osasuna	22	4	18,18	-	3	1	-	-	5
SVS/Osakidetzak	42	13	30,95	2	10	4	2	-	24
Garraioak eta Herri Lanak	1	1	100	-	1	-	-	-	1
Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos	6	3	50	2	3	2	-	-	7

B) Foru aldundiak

Arabako Foru Aldundia	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)		(6)
	98an eskatutako espedienteak	Errekerimenduak dituzten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimenduak	Errekerimenduen kopurua desglosatuta		98ko errekerimenduak guztira
					1	2	
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendiak	2	-	-	-	-	-	-
Gizarte Ongizatea	4	-	-	1	1	-	1
Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak	6	4	66,67	-	3	1	5
Herrilanak, Garraioak eta Ingurugiroa	3	1	33,33	-	1	-	1
Lehendakaritza	1	-	-	-	-	-	-
Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiroa	1	-	-	-	-	-	-

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	98an eskatutako espedienteak	Errekerimenduak dituzten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimenduak	Errekerimenduen kopurua desglosatuta			98ko errekerimenduak guztira
					1	2	3	
Bizkaiko Foru Aldundia								
Gizartekintza.....	15	7	46,67	3	6	3	1	15
Nekazaritza.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Kultura.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ogasuna eta Finantzak.....	39	20	51,28	1	19	2	1	26
Ingurugiroa eta Lurralde Jarduera.....	2	1	50	-	1	-	-	1
Herri Lanak.....	4	-	-	-	-	-	-	-
Lehendakaritza.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Garraioak.....	2	-	-	-	-	-	-	-
Hirigintza eta Ingurugiroa.....	1	-	-	-	-	-	-	-

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)
	98an eskatutako espedienteak	Errekerimenduak dituzten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimenduak	1	98ko errekerimenduak guztira
Nekazaritza eta Ingurugiroa.....	2	-	-	-	-	-
Kultura eta Euskara.....	1	-	-	-	-	-
Ogasuna eta Finantzak.....	20	7	35	1	9	9
Gazteria eta Kirolak.....	2	-	-	-	-	-
Lan Hidraulikoak eta Ingurugiroa.....	2	1	50	-	1	1
Lehendakaritza.....	5	1	20	-	1	1
Gizartekintza Departamentua.....	6	1	16,67	-	1	1
Garraioak eta Errepediak.....	3	-	-	-	-	-

	(1)
Bizkaiko Batzar Nagusiak	
Bizkaiko Batzar Nagusiak.....	1

C) Udalak

- Arabako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)		(6)
	98an eskatutako espedienteak	Errekerimenduak dituzten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimenduak	Errekerimenduen kopurua desglosatuta		98ko errekeri- menduak guztira
					1	2	
Arabako Udalak							
Amurrio	1	-	-	-	-	-	-
Arraia-Maeztu	1	-	-	-	-	-	-
Arrazua-Ubarrundia	2	-	-	-	-	-	-
Artziniega	1	1	100	-	1	-	1
Asparrena	2	2	100	-	2	-	2
Ayala/Aiara	1	-	-	-	-	-	-
Bernedo	1	-	-	-	-	-	-
Laguardia	1	1	100	-	2	-	2
Leza	1	-	-	-	-	-	-
Laudio	6	3	50	1	3	1	5
Peñacerrada-Urizaharra	1	1	100	1	1	1	3
Ribera Alta	1	-	-	-	-	-	-
Valdegovia	1	-	-	-	-	-	-
Vitoria/Gasteiz	45	15	33,33	4	15	4	23
Zigoitia	2	1	50	-	1	-	1

	(1)	(2)	(3)	(5)				(6)
	98an eskatutako espedienteak	Errekerimenduak dituzten espedienteak	%	Errekerimenduen kopurua desglosatuta				98ko errekeri- menduak guztira
				1	2	3	4	
Arabako administrazio batzarrak								
Aretxabaleta	1	1	100	1	-	-	-	1
Argandoña	1	-	-	-	-	-	-	-
Atiega	1	-	-	-	-	-	-	-
Etxaguen	1	1	100	1	-	-	-	1
Espejo	1	-	-	-	-	-	-	-
Fontecha	2	2	100	2	-	-	-	2
Menagaray	2	1	50	1	-	-	-	1
Orbiso	1	-	-	-	-	-	-	-
Osma	3	3	100	1	1	1	-	6
Quintanilla	1	1	100	3	-	-	-	3
Tuesta	1	1	100	-	-	-	1	4
Zuaza	1	1	100	-	1	-	-	2

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Udalak	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	98an eskatutako espedienteak	Errekerimenduak dituzten espedienteak	%	Aurreko urteetako errekerimenduak	Errekerimenduen kopurua desglosatuta				98ko errekeri- mendua guztira
					1	2	3	4	
Andoain.....	4	1	25	-	1	-	-	-	1
Arrasate.....	6	4	66,67	-	3	1	-	-	5
Beasain.....	2	1	50	-	1	-	-	-	1
Deba.....	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Donostia-San Sebastian.....	43	18	41,86	3	15	1	4	2	39
Eibar.....	3	2	66,67	-	1	1	-	-	4
Elgoibar.....	5	2	40	-	1	1	-	-	3
Errenteria.....	3	1	33,33	1	-	1	-	1	6
Eskoriatza.....	1	1	100	-	2	-	-	-	2
Getaria.....	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Hernani.....	8	2	25	-	1	1	-	-	3
Hondarribia.....	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Ibarra.....	1	1	100	-	1	-	-	-	1
Idiazabal.....	-	-	-	1	1	-	-	-	1
Irun.....	8	-	-	1	1	-	-	-	1
Irura.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Lasarte-Oria.....	8	3	37,50	-	2	1	-	-	4
Leintz-Gatzaga.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Mutriku.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Pasaia.....	5	4	80	3	1	3	2	1	17
Soraluze-Placencia de las Armas.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Tolosa.....	4	-	-	-	-	-	-	-	-
Urnieta.....	3	1	33,33	-	-	1	-	-	2
Usurbil.....	2	2	100	-	2	-	-	-	2
Zaldibia.....	1	-	-	1	1	-	-	-	1
Zarautz.....	5	1	20	-	-	1	-	-	2
Zegama.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Zizurkil.....	1	1	100	1	2	-	-	-	2

3. ARARTEKOA 1998AN ZEHAR INFORMAZIOA LORTZEKO EGINDAKO ERREKERIMENDUEN ZERRENDA

A) Eusko Jaurlaritzza

Saila	Erreferentzia (espd. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jaso (J)
Kultura	*1770/97/22	Federazioen arteko istiluak	1	98/02/17	J
	*1940/97/23	Eskari idatzi bati erantzunik ez	3	98/07/01	J
Hezkuntza Unibertsitateak eta Ikerketa	*677/96/20	Ikastetxe baten kontserbazio eta mantenimendua	4	98/07/09	J
	*820/96/20	Haur eskolak	2	98/03/11	J
	*1395/97/20	Heziketa behar bereziak dituen ume batentzako laguntzako personala	1	98/03/11	J
	*1512/97/16	Errenta aitortpena aurkezteko beharrik ezaren ziurtagiria ukatu	1	98/03/11	J
	820/96/20	Haur eskolak	1	98/09/21	J
	1395/97/20	Heziketa behar bereziak dituen ume batentzako laguntzako personala	2	98/07/08	J
	1801/97/20	Ikastetxe batzuen kontserbazio eta mantenimendua	1	98/02/19	J
	40/98/18	Osagarriko eskola zerbizuetarako eskubidea	2	98/03/26	J
	914/98/20	Unibertsitate-beka bat ukatu	1	98/07/08	J
	962/98/20	Irakasleen ordezkapen zerrendak eskuratu ahal izatea	1	98/06/08	J
	1076/98/18	Haur hezkuntzaren lehen zikloko prezio publikoa	1	98/06/25	J
	1103/98/20	Unibertsitate-beka bat ukatu	1	98/07/08	J
	1405/98/20	Ikasle itsuen irakasleen gaitasuna	1	98/07/08	J
	1405/98/20	Ikasle itsuen irakasleen gaitasuna	3	98/12/18	JG
	1713/98/20	Ikasleen onarpena ikastola batean	1	98/07/08	J
	2028/98/20	DBHren ezarpena. Irakastorduen aldaketa	1	98/08/27	J
	2053/98/20	Isiltasun administratiboa. Ordainsari eskaria. Saiburutzaren osagarri berezia	1	98/09/21	J
	2247/98/20	Irakasleen ordezkapenak. Hizkuntza ezaugarriak bete ez	1	98/10/08	J
	2332/98/20	Ikasleen onarpena Bilboko musika eskolan	1	98/11/12	J
	Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea	*228/97/20	Irakasle-lagun postuak betetzeko lehiaketa. Baremazio-desberdintasunak	1	98/01/27
*1600/97/18		Irakasletza esleipena UPV/EHU. Departamendu aldaketa	1	98/01/27	J
*1866/97/20		Zuzenbide Fakultatea: txanda aldatzeko eskaria	2	98/04/22	JG
681/97/18		UPV/EHUko Klaustorako ikasle-hautagaitzako irregularitasunak	1	98/03/09	J
881/98/20		Medikuntza-irakaspen praktikoa bermatzeko, Unibertsitate eta erakunde arteko hitzarmenak	2	98/08/27	J
1011/98/20		Azterketa-eskubideen tasak itzuli	2	98/07/08	J
1131/98/20		Asignaturen konbalidazioa	1	98/06/08	J
1373/98/20		Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarrera azterketak. Sarrera eta azterketa ikusi ahal izatea	1	98/07/08	J
2345/98/20		Irakaspen-kargaren esleipena	1	98/11/12	J
Ogasuna eta Herri Administrazioa	*1700/97/18	Funtzionario bat bere kategoriako lanpostu batera atxikia izateko eskubidea	1	98/07/15	J
	*1738/97/20	Lan-kontratudun langileen kalerapena	1	98/03/11	J
	1279/96/17	Exe bateko hezetasun eta kondentsazioak	2	98/05/11	J
	37/98/20	Laboratorioko laguntzaileak. Administrazio Orokorra	4	98/10/29	J
	273/98/20	Lanpostu baten amortizazioagatik lehentasunezko eskubidea izatearen aitortpena	2	98/09/01	J
	906/98/16	Administrazioko oposizioetan parte hartzeko tasak ordaintzeagatik bonifikazioa egiteko eskaria	1	98/11/18	J

Saila	Erreferentzia (esp. zk.)	Azalpena (kezaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)	
Ogasuna eta Herri Administrazioa	1044/98/20	Administrazio orokorreko lekualdaketa lehiaketa. Egindako lanaren balorazioa	2	98/10/08	J	
	1423/98/20	Administrazio orokorreko lekualdaketa lehiaketa. Kidegoa aldatzeko aurkeraz baliatu	2	98/09/01	J	
HAEE	116/98/20	4. hizkuntza eskakizunaren aitortpena	1	98/03/11	J	
Industria, eta Arrantza	*1669/97/17	Gasolindegia baten ondoko obrak	1	98/03/27	J	
Herrizaingoa	*1134/96/19	Ertzainetxe batera agertzeko zitazioa	1	98/01/20	J	
	*261/97/21	Falta bategatik Ertzaintzak egindako atxiloketa	1	98/03/17	J	
	*477/97/21	Eginiko salaketaren kopia ukatu	1	98/03/17	J	
	*1311/97/20	Ikastaroetara joateko baimena	2	98/02/09	J	
	*1381/97/21	Ertzaintzak etorkin batekin izandako jokabide okerra	1	98/03/18	J	
	*1557/97/19	Ertzaintzaren ekintza	1	98/01/07	J	
	*1585/97/20	Ertzaintzako azpiofizial kategoriarako sarbidea	2	98/04/24	J	
	1381/97/21	Ertzaintzak etorkin batekin izandako jokabide okerra	2	98/09/23	J	
	5/98/17	Ordezkaritza ziurtatzeko arazoa	2	98/11/16	J	
	199/98/17	Ordezkaritza ziurtatzeko arazoa	1	98/10/14	J	
	404/98/19	Ertzaintzako kideen ekintza	1	98/09/25	J	
	924/98/21	Ertzaintzak etorkin batzuei emandako tratu okerra	2	98/09/23	J	
	2121/98/20	Isiltasun administratiboa	1	98/10/08	J	
	2125/98/18	Euskara erabiltzeko eskubidea. Ertzainetxea	1	98/09/30	J	
	2187/98/19	Ertzaintzean egindako salaketa	1	98/09/30	J	
	2217/98/20	Ertzaintzako zerbitzu emankizuna. Biztanletzagatikako diskriminazioa	1	98/10/08	J	
Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantza	*1245/97/21	Amiantoarekiko lanak ikuskatzeko modua aldatzeko eskaria	1	98/02/23	J	
	*1795/97/21	Doaneko justizia ukatu izana	1	98/03/18	JG	
	2123/98/21	Bizkaiko Laguntza Juridikorako Batzordearen erantzunik ez	1	98/10/28	J	
	2396/98/20	Informatikako goardiako zerbitzuak. Txanden osaketa eta ondorio ekonomikoak	1	98/12/21	JG	
Lurralde Antolamendua	*1569/97/16	Hiri Jabegoaren Kamara Ofizialaren ordainagiriaren idazmoldea	1	98/03/11	J	
Etxebizitza eta Ingurugiroa	1804/97/17	Etxebizitza zaharberritzeko finantza-neurriak	2	98/07/08	J	
	29/98/23	Babes ofizialeko etxeetako akatsak	1	98/04/24	J	
	41/98/22	Babes ofizialeko etxeetako akatsak	1	98/04/22	J	
	235/98/17	Benta Berriko BOEen alokerarako esleipen irizpideekin adostasunik ez	1	98/05/07	J	
	294/98/17	Etxebizitza sozialetako eraikuntzako akatsak	2	98/10/14	J	
	963/98/22	Babes ofizialeko etxeetako akatsak	3	98/11/04	JG	
	2089/98/23	Babes ofizialeko etxeetako akatsak	1	98/10/27	J	
	2385/98/23	Bide publikoen konponketa eta kontserbazioa	1	98/12/22	J	
Osasuna	1781/97/18	Administrazioako agiritegiak erabiltzeko baimena	2	98/05/11	J	
	1873/97/18	Osasun prestazioen edukia. Determinazioa	1	98/05/11	J	
	83/98/18	In vitro ernalkuntza osasun zerbitzu publikoetan eta gastuen itzulketa	1	98/05/11	J	
	209/98/18	Osasun prestazioak eskuratzeko baldintzak	1	98/05/11	J	
	SVS/Osakidetza	*1222/97/20	Erakundeen kuotak	3	98/06/08	J
		*1253/97/20	Etxez etxeko laguntza pediatrikoa	2	98/04/24	J
		1903/97/18	Administrazioaren erantzukizuna	3	98/07/11	J
		270/98/20	Lekualdaketa aukerak. Sukaldarien lan kategoria	2	98/06/08	J
		316/98/20	Lekualdaketa aukerak. Telefonarien lan kategoria	1	98/04/24	J
		623/98/18	Osakidetzaaren alde zurretiko zita zerbitzuaren funtzionamendua	2	98/07/14	J
		999/98/20	Ordezkapenen zerrenda eta gertakizunak. Laboratoriko teknikari espezialistak.	2	98/07/14	J
		1329/98/20	97ko LEP. Administrazio laguntzaileak. Lehen proba batzergariaren galdetegiko galdera baten kontrako inpugnazioa	1	98/09/21	J
1397/98/18		Errehabilitaziorako zita egiteko prozedura	1	98/07/14	J	

Saila	Erreferentzia (esp. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
SVS-Osakidetzak	1408/98/18	Sexu erasoa jasadako emakumeentzako protokoloaren aplikazioa	1	98/11/12	J
	1420/98/01	Medikuarekiko zitan premiazko arretarako agiria onartu ez	1	98/07/20	J
	1732/98/20	Ordainkizunak. Epai bat bete ez	1	98/08/27	J
	2115/98/20	Zirugia eta liseriketa aparatuko mediku adituen lekualdaketarako lehiaketa. Emandako zerbitzuen balorazioa	1	98/10/08	J
	2115/98/20	Zirugia eta liseriketa aparatuko mediku adituen lekualdaketarako lehiaketa. Emandako zerbitzuen balorazioa	1	98/12/17	JG
	2440/98/20	Dietetika eta elikadura diplomatuen. Tituluaren onarpena osasun zerbitzuen alorrean	1	98/12/17	JG
	2451/98/20	97ko LEP. Informatikako goimailako teknikariak Lehen proba baztergarriaren galdetegiko galdera batzuen kontrako inpugnazioa	1	98/12/17	JG
Garraioak eta Herrilanak	670/96/19	Errota bati esleitu zuen ur-emanen kentezagatikako kalteordaina	1	98/07/23	JG
Eusko Trenbideak Ferrocarriales Vascos	*1371/96/22	Zamalanek eragindako zarata-gogaipeak	1	98/07/23	JG
	*1575/97/22	Tarifa igoera	2	98/04/22	J
	187/98/22	Tarifen itzulketa	1	98/04/22	J
	1403/98/22	Isiltasun administratiboa	2	98/11/04	J
	2295/98/17	Topoaren zaratak	1	98/11/16	JG

B) Foru aldundiak

- Arabako Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Gizarte Ongizitatea Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak	*569/97/18	Minusbaliatuentzako laguntzak	1	98/01/27	J
	86/98/16	Ohiko etxebizitzagatikako zergarinketa PFEZn	2	98/07/28	J
	417/98/22	IATEko balorazioa	1	98/07/13	JG
	1425/98/22	PFEZko etekinen egozpena	1	98/07/13	J
	1737/98/22	Isiltasun administratiboa	1	98/09/21	J
Herrilanak, Garraioak eta Ingurugiroa	2351/98/22	Isiltasun administratiboa	1	98/12/16	J

- Bizkaiko Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Gizartekintza	*86/97/01	Bidekabeki kobratuaren itzulketa	1	98/02/13	J
	*1240/97/21	Adin txikiko bat harrera zentro batean barruratzea	3	98/07/08	J
	*1731/97/22	Familia ugarietako kideentzako deskontuak	1	98/02/17	J
	56/98/23	Nazioarteko adopzio espediente bateko atzerapena	1	98/05/05	J
	636/98/18	Cutxitu psikiko bat zentro espezializatu batean sartzea	2	98/11/12	J
	893/98/20	Egoitza bateko aiton-amonak ospitalera eramatea	1	98/06/08	J
	1735/98/21	Tutelapeko adin txikiko neska bati bisitak jasotzeko eskariari erantzunik ez	2	98/12/28	JG
	1982/98/21	Etxean indarkeria jasan duten emakume atzeritarrentzako asistentzia	1	98/10/29	J

Saila	Erreferentzia (esp. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Gizartekintza	2091/98/16	Hirugarren adinekoentzako egoitzari egindako ordainketak itzultzea eskatu du	2	98/11/18	JG
	2527/98/20	Osasun laguntzaile lanpostuetarako deialdia. Proba kanporagari bateko galdesortaren inpugnazioa	1	98/12/21	JG
Ogasuna eta Finantzak	*1610/97/22	Katastro-balorazioaren errebisioa	1	98/02/17	J
	1279/96/17	Etxebizitza bateko akatsak	3	98/09/18	JG
	1703/97/22	Tributu-zorriari buruzko jakinarazpena	1	98/04/23	J
	38/98/22	PFEZn gaixotasunagatikako gastuak kentzea	1	98/04/22	J
	91/98/22	Katastro-balorazioaren errebisioa	1	98/04/23	J
	91/98/22	Katastro-balorazioaren errebisioa	1	98/11/09	J
	98/98/22	Katastro-balorazioaren errebisioa	1	98/04/21	J
	104/98/16	Hiri-alokerei buruzko 29/1994 legea ez betetzea PFEZri dagokionez	1	98/11/18	J
	257/98/22	OHZ delakoaren kitapena	2	98/08/27	JG
	276/98/22	atzerapen-interesak	1	98/04/23	J
	348/98/22	Katastro-balorazioaren errebisioa	1	98/06/04	J
	349/98/22	Katastro-balorazioaren errebisioa	1	98/06/04	J
	608/98/16	BEZ itzultzea salbuesitako eragiketa batengatik	1	98/05/07	J
	1365/98/22	Katastro-balorazioaren errebisioa	2	98/08/27	J
	1449/98/16	PFEZ. Tributazio aukeraren aldaketa	1	98/07/28	J
	1572/98/22	Higiezin baten azaleraren errebisioa	1	98/08/27	J
	1848/98/16	Aurreko urteetako errenta kitapenak	1	98/07/28	J
	1998/98/16	Isiltasun administratiboa PFEZko helegite batean	1	98/07/28	J
	2019/98/22	Baliabide kameral iraunkorren ordainketa	1	98/09/09	J
	2043/98/22	Katastro-balorazioaren errebisioa	1	98/09/21	J
2377/98/22	Katastro-balorazioaren errebisioa	1	98/12/02	J	
2456/98/22	Tributu-zor baten jatorria justifikatzeko eskaria	1	98/12/16	J	
Ingurugiroa eta Lurralde Ekintza	69/98/17	Lantegi mekaniko batek eragindako zarata eta dardarizoak	1	98/10/02	J

- Gipuzkoako Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Ogasuna eta Finantzak	*1764/97/16	Ogasunarekin arazoak PFEZn dibortzioaren ondoren	1	98/03/10	J
	670/97/16	Ogasunari interesak itzultzeko egindako eskaria	1	98/03/10	J
	1953/97/16	1996an jasotako likidazioei buruzko idazkia ontzat hartu ez	1	98/03/05	J
	244/98/16	Isiltasun administratiboa PFEZn	1	98/05/07	J
	993/98/16	Enbargo-ohartarazpena hiri-kontribuzioaren ordainagria ustez ez ordaintzeagatik	1	98/07/28	J
	1338/98/15	Galtzada konpontzeko eskaria	1	98/09/29	J
	1979/98/16	Errenta aitortpenarekin arazoak	1	98/07/28	J
	1979/98/16	Errenta aitortpenarekin arazoak	1	98/10/01	J
	2032/98/16	Aurretiazko jubilazio plana eta arazoak errenta adierazpenean	1	98/10/01	J
Obra Hidraulikoaketa Hirigintza	1312/97/15	Landa eremuan etxe solte bat eraikitzeko baimena ukatu	1	98/04/07	J
Lehendak.	2251/98/16	Ogasunaren erabaki baten eta jasotako tratuaren aurka	1	98/11/18	J
Gizartekintza Departamentua	95/98/01	Yurreamendi egoitzako hileroko kuotan deskontua arrazoitutako ausentziagatik postua erreserbatuta edukiz	1	98/12/04	J

C) **Udalak****- Arabako Lurralde Historikoa**

Udala	Erreferentzia (espd. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Artziniega	581/97/22	Hiriguneko jarduera gogaikarriak	1	98/06/04	J
Asparrena	810/98/16	Tasren zenbateko desberdina udalerrian bizi ala ez	1	98/07/28	J
	1380/98/23	Hirigintza alorreko legeak bete beharra	1	98/11/17	J
Biasteri	333/97/17	Taberna batek eragindako zaratak	1	98/03/09	JG
	333/97/17	Taberna batek eragindako zaratak	1	98/11/16	J
Laudio	*1761/97/22	Tributu zorraren kobraketa	2	98/04/22	J
	1362/97/22	Zigor prozedura	1	98/11/05	JG
	15/98/17	Nerbioi ibaiaren ubidetze lanen akatsak	1	98/07/06	J
	921/98/17	Taberna batek eragindako zaratak neurtzeko arazoak	1	98/07/06	J
Peñacerrada/ Urizaharra	*1415/96/15	Bizilagun batekin izenpetutako hitzarmena bete ez	1	98/05/11	J
	1329/97/15	Etxe aurreko lastategia konpondu etxebizitza bihurtzeko	2	98/12/11	JG
Vitoria/ Gasteiz	*421/97/18	Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea	2	98/05/11	J
	*609/97/18	Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea	2	98/05/11	J
	*1633/97/19	Istripuagatikako kalteen ordainketa exijitzeko premiamenduzko bidea	1	98/06/04	J
	*1930/97/17	Klub batek eragindako gogaipenak	1	98/02/11	J
	1617/97/17	Etxe batzuetan izandako kalteak	1	98/05/11	JG
	1633/97/19	Istripuagatikako kalteak ordainarazteko premiamendua erabiltzea	1	98/11/27	J
	1801/97/20	Ikastetxeen kontserbazio eta mantenimendua	1	98/02/19	J
	1930/97/17	Klub batek eragindako gogaipenak	1	98/05/11	J
	11/98/17	Jarduera gogaikarriak. Sabeco. Biltegiatako zamaanak	2	98/05/11	J
	87/98/20	Aldibaterako funtzionario eta langileak. Hirurtekoen ordainketa	1	98/06/08	J
	873/98/23	Erretzaile-guneak prestatzea	1	98/12/22	JG
	1084/98/22	Panteoi baten konponketa	1	98/07/13	J
	1183/98/18	Euskara erabiltzeko eskubidea. Udaltzaingoaaren komisaldegia	2	98/11/12	JG
	1381/98/22	Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga	1	98/09/21	J
	1736/98/23	Zirkulazio arauak hausteagatik zigorra jaso	1	98/10/19	J
	1981/98/15	Udalak obrak eragin etxe-komunitate bateko patioan baimenik gabe	1	98/09/29	J
	2087/98/19	Zirkulazio zigorra	1	98/10/14	J
	2231/98/15	Panteoia konpontzeko lizentzia ukatu baldintza estetikoak ez betetzeagatik	1	98/09/29	J
	2397/98/23	Ondasun-errekamazio bati erantzunik ez	1	98/12/22	JG
	Zigoitia	72/98/17	Zakurrek eragindako gogaipenak	1	98/09/04

Administrazio Batzarrek

Batzarra	Erreferentzia (espd. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Aretxabaleta	2237/98/15	Auzo-bide baten jakokuntza pribatua	1	98/09/29	J
Etxaguen	1795/98/22	Biltontzi baten kokapena	1	98/11/04	J
Fontecha	322/98/15	Administrazio Batzarrek egindako obra	1	98/04/21	J
	378/98/15	Etxe gainetik pasatzen den argindar-kableaketa	1	98/04/21	J
Menagaray	2126/98/22	Herriko saneamendu sarea	1	98/11/02	J

Batzarra	Erreferentzia (esp. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Osma	1078/98/15	Herrian saskia ipintzea eskatu	2	98/12/11	JG
	1125/98/22	Biltontzien kokapena	3	98/12/16	JG
	1667/98/15	Herriko kaleak zikin animalien gorotzengatik	1	98/09/28	J
Quintanilla	686/98/15	Auzolurren erabileraren esleipenean hainbat irregulartasun	1	98/06/02	J
	686/98/15	Auzolurren erabileraren esleipenean hainbat irregulartasun	1	98/09/29	J
	686/98/15	Auzolurren erabileraren esleipenean hainbat irregulartasun	1	98/12/11	JG
Tuesta	1867/97/15	Lursailaren aldamenean argi-habea jarri	4	98/12/14	JG
Zuaza	314/98/15	Bidea konpontzeko eskaria	2	98/12/11	JG

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Abanto y Ciérvana	1763/97/15	Etxebizitza baten teilatu-hegalaren legez kontraktotasuna	1	98/05/18	J
	205/98/22	ICIO delakoaren kitapena	4	98/12/03	JG
Abanto Zierbena	1670/98/22	Udal erabaki bat bete ez	3	98/12/16	JG
Alonsotegi	1221/96/17	Etxe ondoko ukuiulu batek sortarazitako arazoak	2	98/11/16	JG
Amorebieta-Etxano	1555/97/17	Pub batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/05/06	J
Arrankudiaga	474/98/15	Saneamendu-hodien konponketaren atzerapena	2	98/07/14	J
	626/98/15	Arau subsidiarioen onarpenaren atzerapena	1	98/05/18	J
	626/98/15	Arau subsidiarioen onarpenaren atzerapena	3	98/12/11	JG
Arrieta	374/96/15	Etxebizitza bat konpontzeko lizentziaren aurka auzo-bide bat harrapatzeagatik	1	98/11/24	JG
Bakio	1663/96/15	Urbanizazio-kuotak ordainarazpen bidez biltzearen aurka	1	98/05/18	J
	537/98/19	Auto-pasabidea onartzeko eskaria	2	98/07/10	J
Barakaldo	*126/97/15	Bide baten jabegoa	1	98/05/18	JG
	428/98/17	Dastatoki batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/05/11	J
	428/98/17	Dastatoki batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/09/18	J
	1673/98/18	Laneko osasuna. Erretzaile ez direnen osasuna	3	98/12/02	JG
	2044/98/17	Gorotz-uren irteera	2	98/11/16	JG
Bedia	*1388/97/15	Baserrirako bidearen konponketa	7	98/12/14	JG
	2373/98/23	Isiltasun administratiboa	2	98/12/22	JG
Bermeo	707/97/15	Baserri bateko teilatua konpontzeko baimena eman ez egituran egurra ez erabiltzeagatik	1	98/04/20	J
	2292/98/15	Lizentziarik gabeko auto-garaje baten jarduera	1	98/11/12	J
Bilbao	*1082/96/15	Urik ez eta gorotz-hondakinak etxebizitza bateko uretan	1	98/01/21	J
	*1371/96/22	Zamaketa lanek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/02/23	J
	*147/97/17	Gasolindegri batek eragindako zaratak eta arriskugarritasuna	2	98/05/18	J
	*1597/97/22	Betebehar fiskalei ihes egiten dieten ekintzak	5	98/11/03	JG
	*1655/97/19	Zaborrak ordutegitik kanpo jaitea	1	98/06/04	J
	*1779/97/17	Gasolindegri baten ezarpenak kaltetutakoak	1	98/05/11	J
	451/96/22	Bilbon Bizkaibus zerbitzuaren geltokietan seinalerik ez	2	98/07/13	J
	234/97/20	Osasun gastuengatikako dirulaguntza ukatu onuradunaren bizilagunari	2	98/08/27	J
	648/97/15	Deustuko bazterreko parkea urbanizatzeko obra egitasmoaren diseinuaren kontra	1	98/05/18	J
	1567/97/17	Isiltasun administratiboa	1	98/05/11	J
1669/97/17	Gasolindegri baten ondoko obrak	1	98/06/15	J	

Udala	Erreferentzia (esp.d. zk.)	Azalpena (keaxaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Bilbao	1838/97/23	Parke publikoetan animaliek eragindako gogaipenak	1	98/05/18	J
	1955/97/19	Zirkulazio isunak (TAO)	1	98/06/04	J
	1977/97/15	Isiltasun administratiboa	2	98/09/29	J
	66/98/23	Ondasun-erantzukizun erreklamazioa ontzat hartu ez	2	98/06/30	J
	99/98/19	Tributu-zorrak eta zirkulazio-isunak ordainarazteko premiamendua	1	98/06/04	J
	227/98/23	Zirkulazio arauak hausteagatik isuna	1	98/06/04	J
	331/98/15	La Popular kalea publikoarentzat itxeko baimenaren aurka	1	98/05/12	J
	331/98/15	La Popular kalea publikoarentzat itxeko baimenaren aurka	3	98/09/29	J
	337/98/23	Biltontziak jartzeko eskaria	1	98/05/12	J
	1008/98/17	General Concha auzoaren egoera txarra	1	98/07/07	J
	1081/98/23	Ondasun-erreklamazioa ontzat hartu ez	1	98/06/30	J
	1398/98/17	Jarduera gogaikarriak	3	98/11/20	JG
	1972/98/23	Zerbitzu publiko bat ematearen tasa	1	98/07/21	J
	2065/98/17	Taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/12/01	J
	2096/98/23	Ondasun-erreklamazioa ontzat hartu ez	1	98/10/27	JG
	2096/98/23	Ondasun-erreklamazioa ontzat hartu ez	1	98/12/22	J
	2129/98/22	TMIZ delakoan zerga-salbuetspena	1	98/10/01	J
	2167/98/16	TAOko egoiliar txartelaren ordainketa helbideratzea	1	98/10/01	JG
	2337/98/22	Bidegabeko dirusarreraren itzulketa	1	98/12/03	J
	2347/98/16	Elbarritasunagatik IBI delakoaren zerga-salbuetspena eskatu	1	98/11/18	JG
2459/98/22	Isiltasun administratiboa	1	98/12/16	JG	
2484/98/23	Ondasun-erreklamazioa ontzat hartu ez	1	98/12/24	JG	
Busturia	1969/97/15	Lursail baterako sarrera eta bidearen konponketa bukatu	1	98/05/18	J
Carranza	1814/97/23	Eskabide bati erantzun ez	1	98/03/16	J
	69/98/17	Lantegi mekaniko batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/04/03	JG
	69/98/17	Lantegi mekaniko batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/07/13	J
	69/98/17	Lantegi mekaniko batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/12/04	J
	2101/98/17	Ongarritoki baten kokapena	1	98/11/16	J
	2500/98/23	Hirigintza alorreko legeak bete beharra	1	98/12/22	JG
Durango	1978/97/22	Ibilgailua geldiarazteagatik egin beharreko kitapena	1	98/04/23	J
Elorrio	476/98/16	ICIO delakoaren zergagaiaren zehaztapena	1	98/05/07	J
	477/98/16	ICIO delakoaren zergagaiaren zehaztapena	1	98/05/07	J
Erandio	*1059/97/17	Taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	2	98/10/15	J
	1406/96/17	Baimenik gabeko industri jarduerak	1	98/03/09	J
	200/97/22	Auzo-bide baten mantentimendurik ez	1	98/04/23	J
	1028/97/17	Taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	3	98/10/15	J
	1304/97/17	Taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	4	98/10/15	J
	1145/97/17	Taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	2	98/10/14	J
	1147/97/17	Taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	2	98/10/14	J
Errigoiti	600/96/15	Titulartasun publikoko bide baten jabegoaren berreskurapena	1	98/09/22	JG
Galdakao	1602/97/17	Disko-taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	2	98/07/06	J
Getxo	*1117/97/22	Gastuen itzulketa	2	98/04/03	J
	*1591/97/17	Ostalaritza-estabzimendu baten izendapena emandako udal baimenaren arabera	2	98/05/11	J
	179/98/23	Ondasun-erantzukizun eskaria ontzat hartu ez	1	98/05/05	J
	200/98/15	Espediente baten galera	3	98/10/27	J
	291/98/17	Gutxientzako aparkaleku erreserba baten erreklamazioa	1	98/05/11	J
	1978/98/22	Zabor ontzien kokapena	1	98/09/21	J
	2017/98/15	Hondamen-adierazpen espediente baten tramitazioa	1	98/09/29	J
Leioa	1961/97/17	Karrozeria-lantoki batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/11/19	J
Mendexa	189/98/16	Mendexako auzoetako argiketa ordaintzeko exijentziaren aurka	1	98/07/28	J
	189/98/16	Mendexako auzoetako argiketa ordaintzeko exijentziaren aurka	1	98/11/18	J

Udala	Erreferentzia (espd. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Mungia	17/98/15	Udalak abala eskatu itxiera bat egiteko	1	98/07/01	J
	2041/98/22	Isiltasun administratiboa	1	98/09/21	J
Muskiz	1278/97/15	Ikuiilu baterako ur-hartunearekin arazoak	1	98/04/07	J
Orduña	223/98/23	Eskabide idatzi bati erantzunik ez	1	98/05/05	J
Ortuella	178/98/23	Taxi lizentzia baten eskualdaketa	4	98/11/26	J
	1409/98/23	Etxebizitzen esleipena	4	98/12/24	JG
	2131/98/15	Legez kontrako obra bat behera botatzeko eskaria	3	98/12/11	JG
	2303/98/20	Udal liburutegiko langilegoa kontratatzeke baldintzak	2	98/12/21	JG
Plentzia	644/98/22	Bide publiko baten mantenimendurik ez	4	98/11/20	J
	1510/98/23	Ondasun-erreklamazio bat ontzat hartu ez	2	98/12/22	JG
	2042/98/17	Taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	2	98/11/16	JG
	2380/98/22	ICIO delakoaren kitapena	1	98/12/16	JG
Portugalete	640/98/17	Obra-baimenaren etena	2	98/07/20	J
Santurtzi	*1062/97/23	Zor den kopuru bat ordaindu ez	2	98/05/08	J
	*1835/97/17	Alkate-dekretu bat bete ez	1	98/02/16	J
	919/98/17	Garaje batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/07/08	J
	919/98/17	Garaje batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/11/16	J
Sestao	*1565/97/23	Auto-zaindegi batek eragindako zarata eta gogaipenak	4	98/11/26	J
	*447/97/17	Etxebizitza baten etxabeko metal-lantegi batek eragindako gogaipenak	4	98/10/16	J
	231/98/17	Inprimatoki batek eragindako zarata eta gogaipenak	3	98/11/16	J
	1006/98/22	Hiri izaerako lursail baten balioaren gaineko zerga	1	98/07/13	J
	2376/98/23	Ondasun-erreklamazio bat ontzat hartu ez	1	98/11/17	J
Urdúliz	*1754/97/01	Hilerraren irekiera orduak	1	98/01/27	J
Valle de Trápaga/ Trapagarán	*690/97/22	Kalez kaleko ogi salmentaren aurkako salaketa	1	98/01/20	J
	690/97/22	Kalez kaleko ogi salmentaren aurkako salaketa	2	98/12/16	JG
	2124/98/22	Soto batean ura sartu	1	98/11/04	J
	2320/98/17	Isiltasun administratiboa etxe baten zaharberitzea dela eta	1	98/11/16	J

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (espd. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Andoain	2138/98/15	Garajera sartzeko arrantza kentzeko komunitateari egindako errekerimendua	1	98/09/29	J
Arrasate/ Mondragón	610/98/19	Garajeetara sartzeko auto-pasabide baimenduak	1	98/11/26	JG
	904/98/23	Egoiliarren udal erroldan izena ematea	2	98/06/23	J
	1328/98/22	Osasun eta higijene arazo baten salaketa	1	98/07/13	J
	2054/98/23	Bide publikoaren kontserbazio eta mantenimendua	1	98/10/27	J
Beasain	2150/98/17	Harategi batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/10/14	J
Donostia/ San Sebastián	*1050/96/20	Gipuzkoako udaltzainen elkarte profesionala	2	98/04/24	JG
	*272/97/23	Ondasun-erreklamazio bati erantzunik ez	4	98/11/04	p
	*1246/97/23	Ondasun-erantzukizun baten erreklamazioa ontzat hartu ez	3	98/10/27	J
	1568/96/16	Polloeko hilerriko panteoien jabetza-agiriak udal erregistroan eguneratzeagatik ordaindu beharreko tasak	1	98/07/28	J
	481/97/20	Idazkaritza nagusi eta hirigintza kudeaketako zerbitzuberu lanpostua betetzeko bidea	1	98/03/11	J

Udala	Erreferentzia (esp. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Donostia/ San Sebastián	481/97/20	Idazkaritza nagusi eta hirigintza kudeaketako zerbitzuburu lanpostua betetzeko bidea	3	98/10/13	J
	701/97/17	Igogailuaren makina-gelaren kokapena	4	98/10/15	JG
	1972/97/19	TAOren arauketarako ordenantza	1	98/05/19	J
	32/98/15	Amarako kale bat obregatik itxi eta gogaipenak	1	98/04/07	J
	119/98/20	Legelari lanpostuaren balorazioa	1	98/03/11	J
	188/98/17	Supermerkatu batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/07/07	J
	292/98/15	Zubieta kalean saneamendu sarea instalatzeko eskaria	3	98/12/11	JG
	418/98/23	Ondasun-erreklamazioa ontzat hartu ez	1	98/07/02	J
	637/98/16	JEZ eta OHZ delakoetan premiarenduzko errekarua exijitzea	1	98/05/07	J
	1052/98/23	Zirkulazio arauak hausteagatik ibilgailuari isuna ezarri eta kaletik erretiratu	3	98/12/23	JG
	1338/98/15	Galtzada konpontzeko eskaria	1	98/07/06	J
	1725/98/17	Supermerkatu batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/11/16	J
	1774/98/23	Zirkulazio arauak hausteagatik ipinitako isuna	1	98/10/27	JG
	1960/98/19	Gutxientzako aparkalekua	1	98/11/27	JG
	1997/98/23	Babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena	1	98/12/22	JG
	2349/98/17	Udalak auzoa abandonatuta edukitzearen aurka	1	98/11/20	JG
2381/98/15	Industri lurzikatzeko berri baterako proiektu baten urbanizazio kuoten aurka	1	98/12/11	J	
Eibar	1106/97/22	Hiri-jarduera sailkatuak	3	98/08/27	J
	252/98/17	Taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/11/29	J
Elgoibar	1858/97/19	Udalak ipinitako isunagatik bitartekotza eskatu	1	98/10/13	JG
	1668/98/17	Estanpazio-jarduera ezkutuko batek eragindako zaratak eta dardarizoak	2	98/11/16	J
Errenteria	*179/97/22	Ur-presioaren arazoak	2	98/10/14	J
	44/98/20	Udaltzain lanpostuetarako deialdia. Adinari buruzko baldintza	4	98/07/09	J
Eskoriatza	961/98/17	Lantegi batek eragindako gogaipenak	1	98/07/08	J
	961/98/17	Lantegi batek eragindako gogaipenak	1	98/11/16	J
Hernani	251/98/23	Emandako dirulaguntzarik ordaindu ez	2	98/07/01	J
	1994/98/17	Taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/11/16	J
Ibarra	2086/98/19	Oinezkoentzako esparruen erabilera	1	98/11/26	JG
Idiazabal	*1890/97/17	Taberna batean ke-kanporagailu bat ezarri eta atearen zentzua aldatu	1	98/03/30	J
Irun	*1820/97/23	Bide publiko baten zoladura	1	98/03/16	J
Lasarte-Oria	33/98/23	Zirkulazio arauak hausteagatik ipinitako isuna	1	98/06/03	J
	621/98/22	Uraren fakturazioa	2	98/10/29	J
	1376/98/17	Eraikinetako ibilerratasun-baldintzak eraikitzaileak bete ez	1	98/07/06	J
Pasaia	*1141/97/20	Ordezkapenen zerrenda. Udaltzaingoa	1	98/03/11	JG
	*1876/97/17	Lantegi mekaniko batek eragindako zaratak	3	98/11/16	JG
	*1915/97/23	Onartutako auto-pasabide bat legez kontrakoa izan	3	98/07/01	J
	1091/97/17	Jatetxe batek eragindako ke eta usain txarren gogaipena	4	98/10/14	J
	1265/97/22	Zabor tasak	2	98/12/16	JG
	1495/97/22	OHZren kitapena	2	98/12/02	JG
2085/98/15	San Juango Birgaikuntzarako Egitasmo Berezia betetzeko eskaria	2	98/11/12	J	
Urnieta	1671/98/15	Baserrirako bidea konpontzeko laguntzen eskaria	2	98/12/11	JG
Usurbil	886/98/17	Taberna batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/10/14	J
	2368/98/15	Euri-urak biltzeko arketaren funtzionamendu txarrak eragindako kalteak	1	98/12/11	J
Zaldibia	*1007/97/19	Senitarteko hilen gorpuzkinen exhumazioa	1	98/06/03	J
Zarautz	263/98/17	Diskoteka batek eragindako zarata eta gogaipenak	2	98/10/14	J
Zizurkil	*611/97/17	Gas propanorako depositoreen instalazioa	1	98/03/06	J
	2072/98/17	Lantegi batek eragindako zarata eta gogaipenak	1	98/09/15	J

D) Beste erakunde publiko batzuk

Erakunde	Erreferentzia (espd. zk.)	Azalpena (kexaren gaia)	Urteko errekerimendu kopurua	Azken errekerimendu data	Jaso Gabeko informazioa (JG) Jasoa (J)
Bizkaiko Abokatuen Bazkundera	7/98/21	Doaneko laguntza juridikoaren ukapena	5	98/12/01	JG
	240/98/21	Ofiziozko abokatu bat izendatzeko eskariari erantzunik ez	4	98/12/01	JG
	1574/98/21	Abokatu baten jarduerak eragindako kexa baten aurrean Abokatuen Bazkundera izandako isiltasuna	3	98/12/01	JG
	2122/98/21	Ofiziozko abokatu bat izendatzeko eskariari erantzunik ez	2	98/12/01	JG
	2119/98/21	Abokatu baten jarduerak eragindako kexa baten aurrean Abokatuen Bazkundera izandako isiltasuna	2	98/12/01	JG
Gipuzkoako Abokatuen Bazkundera	1919/97/21	Abokatu baten jarduerak eragindako kexa baten aurrean Abokatuen Bazkundera izandako isiltasuna	1	98/07/14	J
Bizkaiko Prokuradore Bazkundera	*1253/96/21	Prokuradore baten aurkako erreklamazio bati erantzunik ez	1	98/02/16	J
	1957/97/21	Prokuradore baten jarduerak eragindako kexa baten aurrean Abokatuen Bazkundera izandako isiltasuna	4	98/09/25	JG
	2182/98/21	Prokuradore baten jarduerak eragindako kexa baten aurrean Abokatuen Bazkundera izandako isiltasuna	1	98/11/11	JG
Bizkaiko Odontologo eta Estomatologo Bazkundera Ofiziala	*1475/96/22	Jasotako zerbitzuarekin ados ez dagoen baten salaketa	1	98/02/25	J
Euskal Abokatutzaren Kontseilua	*1566/97/21	Euskal Abokatutzaren Kontseiluak helegite baten ebazpenean izandako atzerapena	1	98/02/19	J
Bilbao-Bizkaiko Ur Partzuergoa	67/98/22	Uraren fakturazioa	1	98/04/22	J
Mebisa-Metro Bilbao	335/98/22	Isiltasun administratiboa	2	98/11/04	JG
	776/98/22	Familia ugarietako kideentzako deskontuen aplikazioa	2	98/07/28	J
	776/98/22	Familia ugarietako kideentzako deskontuen aplikazioa	1	98/12/02	JG
	806/98/15	Alangoseko trenbide-igarobidearen itxiera	1	98/12/11	JG

V. ATALA
**ARARTEKOAREN GOMENDIOAK
ZENBATERAINO BETE DIREN**

Txosteneko kapitulu honetan, 1998. urtean zehar administrazio publikoek Arartekoaren gomendioei zer erantzun eman dieten ikusiko dugu. Joan den ekitaldian ehun eta hamahiru gomendio eman ziren. Horri gehitu behar zaio 1997ko abenduaren 31n ebatzi gabe zeuden beste berrogeitahiru. Horiek guztiak kontuan hartuz, emaitza hau da: hirurogei onartu dira, hogeita hamabost ez dira onartu, eta beste hogeitamabost gomendioren kasuan zain gaude administrazio eskudunak onartu den edo hartu den erabakiaren berri behin-betiko jakinarazi diezaigun. Horietaz guztiez gainera, beste gomendi bat bertan behera gelditu da auzia egoitza jurisdikzionalaren menpe jarri delako (1714/97/20 espediente; 171/1997 zki.ko gomendia).

Zenbakien aldetik merezi du azpimarratzea 1997. urteko ekitaldiak eduki zuen emaitzarekin alderatzu gero, behin-betiko erantzun diren gomendio guztiak aintzat hartuz, onartu diren gomendioen kopuruaren ehuneko handiagoa dela. Bistan denez, datu hau positiboa da, esan nahi duelako espediente askotan bilatzen ari ginen helburua lortu dela, baina litekeen emaitzaren onenaren ikuspegitik ez dago dudarik hobetzen ahal den datua dela.

Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11.b) artikulua ezartzen du Arartekoak “*Organo eskudunei, funtzionarioei edo hauen nagusiei gomendioak zuzentzen edo beren legezko betebeharrak zeintzuk diren gogorarazten ahalko diela, legez kontrako edo justiziaren kontrako ekintzak zuzentzeko edo Administrazioaren zerbitzuak hobetu ahal izateko*”. Arau honek ezartzen duen agindu zuzentzaile hau funtsezkoa da gure erakundea sortzen duen Legeko 1. artikuluan aurreikusten diren helburuak atzemateko bitartekoak zehazteko orduan. Horregatik, ematen ditugun gomendioak ez onartzeak edota gogorarazten diren legezko betebeharrak aintzat ez hartzeak esan nahi du aurkezten zaizkigun asuntuetan lortu ditugun emaitza positiboak ez direla guztiz egokiak izan. Horrexegatik uste dugu 1998. urtean zehar alde horretatik esku hartu dugunean lorturiko emaitzak hobetzeko modukoak direla, nahiz eta badagoen, lehen ere aipatu den bezala, gehikuntza bat onartu diren gomendioen portzentaietan.

Gomendio hauek emateko edota legezko betebeharrak zeintzuk diren gogorarazteko segitzen den jardunbidea beti berdina da: kexak bultzatzen dituzten pertsonen mahaigaineratzen dituzten auzien azterketa juridikoa egiten da, eta azterketa hau ukitutako administrazioek egiten dituzten kontsiderazioekin alderatzen da. Hasierako alderaketa hauek errepikatzen ahal dira Arartekoak bere erabakia eman eta gero, gomendia zuzentzen zaion organoak gure erabakiaren funtsa ezbaian jartzeko ematen dituen argudioak ikusirik. Honek guztiak agerian uzten du erakunde honek kezka handia duela bere erabakiak behar bezala oinarritzeko eta bere argudioetan sakontzeko. Kezka handi honek funtsezko bi arrazoi ditu. Lehena da administrazioaren jarduketa bat aldarazteko eskatzeak zerbitzu publikoarekin zerikusirik duten erantzukizunak betetzen diren moduan edo eran aldaketa bat galdatzeak edo legezko betebeharrak zeintzuk diren gogorarazteak, dudarik gabe, argudio pisuzkoak eskatzen dituztela. Bigarren arrazoa da, gure erabakiek

ez dutela indar betearazlea. Beste hainbat aldiz adierazi dugun bezala, erantzukizun hau aurrera eramatean ikusi behar da, inolako zalantzarik gabe eta irmo, "pertsuasiozko magistratura", gurea bezalako erakunde berme-emaile baten jokatzeko moduan ezaugarri ezinbestekoa eta definitzailea dena.

Erakunde honek helburutzat dituen zuzenbidea berreskuratzea edota prebenitzea, gomendioen eta legezko betebeharrak gogoraraztearen bidez lortu nahi izaten dituenak, garatzen ahal dugun komentitzeko gaitasunean oinarritzen dira neurri handi batean, dela ulertarazteko administrazio publikoei euren jarduketek antolamendu juridikoaren aurreikuspenak urratu dituztela, dela ikusiarazteko eginkizun administratiboa bete den modua nabarmen hobetu daitekeela. Gure parte hartzearen ezaugarri honek, alegia, informatzailea izatea eta ez betearazlea edo koerzitiboa, eskatzen du argudiatzeko orduan ahalegin berezia egitea; gure ahalegin hori alferrikakotzat jo dezakete ukitutako administrazioek, hauek uste dezaketelako kexa-espeditentzaren hasieratik, aztertzen den auzia egoki bideratu eta erabaki dela. Oinarrietan behin eta berriz jorratzea, adostasunik gabeko kontsiderazioak sakontzea, argudiaketaren ahalmenak agortzea dira, horiexek dira, funtsean, erakunde honek dituen armak herritarrek aurkezten dizkiguten arazoei irtenbide egokia bilatzeko, irregulartasunak edota akatsak eduki ditzaketen arazoak konpontzeko. Horregatik ulertu behar dugu egokia eta arrazoizkoa dela -eta horixe da administrazio publikoek ulertu behar dutena- Arartekoaren ebazpenak errepikatuak eta osatuak izan daitezten, eta horregatik errepikatu behar dugu onartu behar direla, ukitutako organoak kexa bideratzen hasi denetik bere jokabidea edozein ikuspuntutik zuzena izan dela defendatzen badu ere.

Edonola izanik ere, Arartekoak desadostasunak onartu eta ulertzen dituela errepikatu nahi dugu. Zenbaitzuetan, administrazio publikoek ez dituzte gomendioak onartzen edo legezko betebeharrak gogorarazteak ez direla bidezko uste izaten dute hiru arrazoi hauetako batengatik: kexaren oinarria diren ekintzak zeintzuk izan diren adostasunik ez dagoelako, aztertzen ari den auziari aplikatu behar zaion erregimen juridikoko arauak interpretatzeko orduan adostasunik ez dagoelako edo, azkenik, zerbitzu administratiboen funtzionatzeko modua antolatzeko moduari buruzko iritzia bat ez datorrelako. Hau honela izanik, Arartekoak gomendioak ematearen bidez edo legezko betebeharrak zeintzuk diren gogoraraztearen bidez egiten duen esku hartzeak ez baditu legez kanpokoa edo nabarmen hobetzeko modukoa iritzi diogun jarduketa administratiboaren emaitzak aldatzea lortzen, erakundeen arteko eztabaida -orekatsua ahaleginean eta sakona edukian-, izan arren, gure balorazioa beti baikorra izango da, eta geure burua zorionduko dugu arrazoiaren armen bidezko eztabaida bideratzeko gauza izan garelako, nahi genituen helburuak lortu ez baditugu ere.

Besterik gertatzen da gure gomendioak edo gure legezko betebeharrak gogorarazteak bazter batera uzten direnean funtsezko arrazoirik gabe, eta iritzi-trukaketa teorikoa izateari aukerarik eman gabe. Hau ez dela ohiko erantzuna aitorturik ere, ez dugu ukatuko halakorik gertatzen denean deserosotasun-sentimenduak bereganatzen gaituela. Lehenik eta behin erakunde honek garatu duen argudiatzeko ahalegina eta ukitutako administrazioak egin duena ez direlako, agian, neurri berekoak. Bigarrenik, eta hau da garrantzizkoena, Arartekoaren erabaki bat ez onartzea, zergatik ez den onartzen behar bezala justifikatu gabe, herriaren soberaniaren subjektua den Eusko Legebiltzarreko ordezkari bat ez onartzea litekeelako, edo, gutxienez, Zuzenbidezko Estatuak ezarri dituen mekanismoak erabilirik, hau bezalako erakunde berme-emaile batera bere eskubideak defendatzera etorri diren herritarrekiko jokabide begirunik gabea.

Ondoren 1998 urtean eman diren eta 1997ko abenduaren 31n behin-betiko erantzunaren zain zeuden gomendioen lagin bat emango dugu. Lagina osatuko da gomendioen azaleko deskribapena eginez, eta hiru sailetan sailkatuko da: a) administrazioak onartu dituen gomendioak; b) administrazioak onartu ez dituen gomendioak eta c) 1998ko abenduaren 31n administrazioak behin-betiko erantzun ez dituenak, bai azken erabakiari erantzun ez zaionean, baita balizko errepikapenei erantzun ez zaiencean ere.

1. ONARTU DIREN GOMENDIOAK

A) EUSKO JAURLARITZA

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

* **1973/98/18 espedientea (59/1998 Gomendioa)**. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion ezen, apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuak ezartzen dituen defentsa administratiborako bideak agortzen ziren bitartean, interesatuari dagozkion eskubideak bete ahal izatea berma ziezaion, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubideak eta Administrazio Jardunbide Orokorriari buruzko 30/1992 Legeko 138.3. artikulua ezartzen duena aplikatuz. Interesatua BHI bateko ikaslea zen; auzia gehiago ezagutu nahi izanez gero, Hezkuntza arloko kexen laburpena jo bedi.

Euskal Herriko Unibertsitatea

* **1643/96/20 espedientea (87/1997 Gomendioa)**. EHUK 1996ko abenduaren 10eko EHAOn administrazio eta zerbitzuetako langileak kontratatzeke jendaurrera zabaldu ziren oposizio-lehiaketarako deialdiak zirela eta, gomendatu zitzaion Unibertsitateari hautapen-azterketetan parte hartzeagatik kobratzen zituen tasak ken zitzanla eta behar ez zen moduan hartutako diru-kopuruak itzul. Halaber, gomendatu zitzaion unibertsitateari datozen deialdietan EBko 31. artikulua ezartzen duen lege-erreserba printzipioa begiratzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

* **228/97/20 espedientea (26/1998 Gomendioa)**. EHUri gomendatu zitzaion egoki jotzen zituen neurriak har zitzala datozen lehiaketetan irakasle atxikien kontratuak esleitzeko eta behin-behineko irakasleen izendapenak egiteko eratuko diren batzordeen ebaluazio-lanetan presta dadin alde aurretik baremo arautu bat. Auzia hobeki ezagutu nahi izanez gero, jo bedi Funtzio Publiko eremuko kexen laburpena.

- Ogasun eta Administrazio Publiko Saila

* **297/98/19 espedientea (33/1998 Gomendioa)**. Ogasun eta Administrazio Publiko Sailari gomendatu zitzaion behar ziren bideraketa prozesalen bidez indargabetzatutz zezan espediente hau: trafikoko arauak hausteagatik prozedura zigortzaile batean interesatuari ezarri zitzaion diruzko isuna ordainarazteko, derrigorrezko bidetik, premiamendu espedientea, erabaki haren aurkako errekurtoa onetsi baitzen, eta ez baitzegoen, hortaz, betearazteko zigorrak.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

* **1349/96/20 espedientea (18/1997 Gomendioa)**. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari gomendatu zitzaion behar ziren neurri egokiak har zitzala arrantza ikuskatzeko zerbitzuko behin-behineko beharrak hornitzeko interesatuak zeuden hautagaien arteko balizko tratu-ezberdintasunak berbideratzeko, ezberdintasun hauek etorkizuneko lan-poltsak eratzeko aurreikusten diren irizpideen ondorio lirakekeelarik, kontuan hartuz 1994ko uztaila eta abuztuan egin ziren aparteko kontratazioak, "hegaluzearen gerra" izenarekin ezagutu dena gertatu zenean.

- **Industria, Nekazaritza eta Arrantza saila**

* **1083/98/17 espedientea (64/1998 Gomendioa)**. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailari gomendatu zitzaion Zestoan kareharria ustiapen baten kautelazko suspentsioa altxatzea baldintzatzen duen Industria, Energia eta Mehategien Administrazioako Zuzendariaren erabakia alda zezala. Zehatz esateko, aipatu erabakiko B) atala indargabetu behar zen, han aipatzen delako Zestoako Arau Subsidiarioen gorabehera urbanistiko bat, eta gorabehera urbanistiko horrek, hasieran Udalak onartu bazuen ere, ez du ondorio juridikorik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zuelako berretsi 1996ko maiatzaren 28ko Diputatuen Kontseiluan, arau subsidiarioak onartu zituen horretan, hain zuzen.

- **Herrizaingo Saila**

* **364/97/19 espedientea (76/1997 Gomendioa)**. Herrizaingo Sailari gomendatu zitzaion kexa bultzatu zuenari Ertzaintzako zerbitzuek, interesatuak bere burua sarturik ikusi zuen istripu batengatik, egin zuten txostenaren kopia eman ziezaion. Halaber, interesatuak eskatu zituen beste hainbat txosten emateko ukoa arrazoitu zezan gomendatu zitzaion.

* **1311/97/20 espedientea (45/1998 Gomendioa)**. Gomendatu zitzaion Ertzaintzako funtzionarioen lizentzia edo baimen-eskaerak edota funtzionarioen lan-txandetako aldaketak bideratzerakoan, interesatuei dagozkien berme formalak behar bezala zain daitezten, batez ere eskaera hauei uko egiten zaienean uko horiek behar bezala arrazoitu behar izateaz denaz bezainbatean.

- **Osasun Saila**

Osakidetza

* **1967/97/01 espedientea (30/1998 Gomendioa)**. Osakidetzari gomendatu zitzaion kexa bere semea ordezkatzuz aurkeztu zuen erreklamatzailak egin zuen gastuak itzultzeko eskaera azter dezan, balizko ukoaren arrazoia ez zitekeelarik izan lehen gaurkoa ez eta beste osasun arlokoa izatea, eriak jokatu baitzuen Osakidetzako medikuek eman zizkieten argibideen arabera.

* **332/98/20 espedientea (85/1998 Gomendioa)**. Osakidetzari gomendatu zitzaion neurri egokiak har zitzala OLT/Bisitatzaille lanpostu bat zerbitzu-emankizunetan hornitzeko iragarritako deialdiko Epaimahai Kalifikatzailearen jarduketak berraztertzeke, halako moldez non behar bezala egiaztaturik eta arrazoiturik geldu baitzedin esleipenak hautagaien berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak zaindu zituela.

* **1669/98/20 espedientea (72/1998 Gomendioa)**. Osakidetzari gomendatu zitzaion beste deialdi bat egiteko estatutupeko langile izaerarekin sartzeko interesaturik zegoen hautagaiari hautatzeko frogetan parte hartzeke, deialdiko oinarrietan aurreikusten zen bigarren azterketa baztertzailan, zehatz esanda. Auzia hobekiago ezagutu nahi duenak jo beza Funtzio Publikoko arloko kexen laburpenera.

- **Garraio eta Herrilan Saila**

Eusko Trenbideak

* **2/98/160 espedientea (15/1998 Gomendioa)**. Eusko Trenbideak delakoari gomendatu zitzaion neurri egokiak hartzeko datozen aurrekontu-ekitaldietan, proposatzen

diren salneurriak aplikatu baino lehen, baieztatzeko hauek onartu direla eta Euskal Herriko Agintaritzak Aldizkarian argitaratu direla.

* **733/98/22 espedientea (61/1998 Gomendia)**. Eusko Trenbideak delakoari gomendatu zitzaion kexa bultzatu zuen interesatuari 10 bono konbinatuak txarteleko erabili gabeko bidaien dirua itzul ziezaien, bidaiak hauek eskaini eta erosi zirelako berauek erabiltzeko baliagarritasun-epirik gabe. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Herrilan arloko kexen laburpena.

B) FORU ADMINISTRAZIOA

- Arabako Foru Aldundia

* **971/96/16 eta 6/97/160 espedienteak (14/1998 Gomendia)**. Gomen-datutzaion Ogasun eta Finantza Sailari, berdintasun printzipioaren ikuspegitik PFEZen salbuespena egin zedin langilearen zese guztietan jasotzen diren kopuru guztietan, zeseak borondatezkoak edo borondateren aurkakoak izanik ere, bai sektore publikoan nola pribatuan, edo bestela zerga barrukotzat jo zitezten borondatez foru aldundi horretako langileria-planean sartzen diren funtzionarioek jasotzen dituzten kalteordainak, zeren, hala ez izatera, bazterkeria eragingo baitzen hainbat zergapekoengan, adibidez kexa aurkeztu zuenarengan, zeina borondatez sartu baitzen bere enpresaren birmoldaketan eta birmoldaketa horren ondorioz enpresarekin zeukan lan-harremana eten baitzen.

- Gipuzkoako Foru Aldundia

* **1292/97/23 espedientea (136/1997 Gomendia)**. Gizartekintzari gomen-datutzaion Gizartekintzaren Erregistro Bateratua deiturikoan norberaren datuak jasotzeko erabiltzen diren formularioetan berariz aipa zedin, argi irakurtzeko moduan, norberaren datuak biltzen dituen fitxategi automatizatua badagoela, datuak biltzeko helburua, informazio hori norentzat den, egiten diren galderei erantzutea derrigorrezkoa edo aukerakoa den, datuak emateak edo datuak eman nahi ez izateak zer ondorio dakarten, datuak ikusi, aldatu edo bertan behera uzteko eskubidea erabil daitekeela, baita fitxategiaren erantzulea denaren nortasuna eta helbidea. Era berean, berariz eskatu beharko litzatekeela ukituen baimena osasunarekin zerikusirik duten norberaren datuak tratatzeko orduan, indarrean dauden legeek bereziki babesten baitituzte datu hauek.

* **1681/97/16 espedientea (44/1998 Gomendia)**. Auzitegi Ekonomiko Administrazioari (Ogasun eta Finantza Saila) gomendatu zitzaion egin zuen erreklamazioari buruz harturiko erabakia interesatuari pertsonalki jakinaraz zekion, eginiko ediktu bidezko jakinarazpena indar gabe utzirik, era berean gaztigituko zitzaizolarik dagokion bulego kudeatzaileari dirubilketarako prozedura jakinarazpena egin behar izan zen unera atzeratzea, antolamendu juridikoak ezartzen duenarekin bat etorriz. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Ogasun arloko kexen laburpena.

* **877/98/16 espedientea (66/1998 Gomendia)**. Ogasun eta Finantza Sailari gomendatu zitzaion interesatuari bidali zitzaizkion premiamenduzko probidentziak baliogabe zitzala, eta zorraren enborrharen gaineko premiamenduzko gainkarga gisa sartu ziren kopuruak itzul zitezten.

C) TOKI ADMINISTRAZIOA

a) Arabako udalak

- **Laudioko Udala**

* **921/98/17 espedientea (92/1998 Gomendioa)**. Laudioko Udalari gomendatu zitzaion alkatearen dekretuaren bidez eska ziezaion hostalaritza-jardun bateko titularrari musika ekipoa kentzeko, musika ekipodun jardunen funtzionamendua arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko Dekretuak ezartzen dituen baldintzak bete eta jarduna legeztatu eta egokitu arte, horretarako instalazioa birsailkatu beharko zelarik. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Ingurugiro arloko kexen laburpena.

- **Gasteizko Udala**

* **336/97/23 espedientea (127/1997 Gomendioa) eta 1644/97/23 espedientea (169/1997 Gomendioa)**. Gasteizko Udalari gomendatu zitzaion Udal horren aurrean eskatu zen ondare erantzukizuneko atzera botatako erabaki bat onar ezan, erabakia egin zelako kaltea Udal horri ezin zitzaioela egotzi kontsideratuz, kaltea sortu zuen zerbitzu publikoaren funtzionamendua enpresa emakidadun baten bidez ematen delako. Hala, iradoki zitzaion beste erabaki bat har ezan, erabaki horretan kontuan hartuko zelarik nori egotzi behar zitzaion erantzukizuna, zenbatekoa izango zen kalteordaina eta, edozein kasutan, Udalaren beraren erantzukizuna kaltetuak bere ordaina jasoko zuelako berme gisa.

* **1115/97/19 espedientea (48/1998 Gomendioa)**. Gasteizko Udalari gomendatu zitzaion ahalik eta eperik laburren antzeman diren beharrak eta erdi aroko hiriguneko zamatze-lanak egiteko ordutegia egokitzeko beharrezkoak ziren tramiteak egiten has zedin, ukitutako herritarrei zerbitzua ahalik eta hobekien ematen saiatuz; ahalik eta eperik laburren TAOko gaurko zonifikazioa eta erdi aroko hirigunear antzeman diren beharrak egokitzeko beharrezkoak ziren tramiteak egiten has zedin, erabiltzaileen balizko arazoei aurre egin ahal izateko; halaber, bi jarduketara hauek egiteko garaian, ukitutako auzoek tramiteetan parte hartzeko modua eduki zezaten, antolamendu juridikoak horretarako ezartzen dituen mekanismoen bidez; erdi aroko hiriguneko trafikoaren arazoak ezagunak direla kontuan hartuz, udalak berak aitortzen duen legez, Udaltzaingoko funtzionarioek ahalik eta zorrotzen egin zezaten bertan egin litezkeen hausteen salaketa eta kontrol-lana.

* **1235/97/21 espedientea (148/1997 Gomendioa)**. Bikote batek eskatu zuen bere alaba udal haurtzaindegian sartzeko. Bikotekide biak lanean ari dira, baina aurreinskripzioa egin zen unean ama sendia zaintzeko lan-eszendentzian zegoen; hala ere, segurua zen lanera itzuliko zela eta gainera ikasturtea hasteko eguna baino lehen itzuliko zen, hortaz, haurtzaindegia martxan jarri baino lehen lanera itzuliko zen. Datu hau frogatu bazuen ere, Udalak kontsideratu zuen amak ez zuela lanik egiten, eta haien eskaerak puntuazio txikiago eduki zuen, hau da, lanean bakar bat ariko bailitzan puntuatu zen, biak ari zirelarik, eta bi gurasoek lan egiten zutela frogaturik eskaerak puntuazio handiagoa edukiko zukeen. Arartekoak gomendatu zuen puntuazio-baremoak aldatzea, herritarren egiazko egoeretara egokitzeko, eta ez ezaugarri formal edo unean-uneke egoeretara.

* **1434/97/19 espedientea (159/1997 Gomendioa) eta 108/98/19 espedientea (74/1998 Gomendioa)**. Gasteizko Udalari gomendatu zitzaion trafiko arauak hausteagatik ezarri zituen isun bana atzera botatzea, ondoren aipatzen diren arrazoiak direla eta: a) gehiegizko abiaduraz ibiltzeagatik ezarri zen salaketa ez zen unean bertan jakinarazi, eta ondoren ediktu bidez egin zen jakinarazpenean ez ziren

jaso ibilgailua ez geldiarazteko arrazoi zehatzak. Salaketa egin zuen udaltzainak, bere txostenean “*zirkulaziorako arrisku*” orokor bat aipatzen baitu. b) Goian esan denaz gainera, salaketaren jakinarazpena ediktu bidez egin zen kasu batean, eta erabaki-proposamenarena zein erabakiarena bietan ediktu bidez; hortaz, Arartekoaren ustez, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubideak eta Administrazio Jardunbide Orokorrari buruzko 30/1992 Legeko 59.4. artikulua ezartzen dituenak ez ziren bete, uste dugulako, eta jurisprudentzia ugari egiten du gure alde, pertsonalki hiru aldiz jakinarazi ezin izatea helbidean ez dagoelako inor, ez dela nahikoa arrazoi jakinarazpena egiteko aparteko modu hori erabiltzeko.

* **1503/97/19 espedientea (164/1997 Gomendioa) eta 73/98/19 espedientea (71/1998 Gomendioa).** Gasteizko Udalari gomendatu zitzaion trafiko arauak hausteagatik tramitatzen ari zen prozedura batean kexa azaltzen zuten interesatuek isunaren diru kopurua ordaintzeko eskubidea zutela onar zedin, aplikatzekoa litzatekeen bonifikazioarekin, salaketa jakinarazteko garaian irregulartasunak izan zirela atzeman baitzen.

* **12/98/200 espedientea (38/1998 Gomendioa).** Gasteizko Udalari gomendatu zitzaion jipoituriko adin txikikoak hartzeko udal zentroen kudeaketa esleitzeko baldintza teknikoen orrietan pertsonen integritate fisiko, psikiko edota sexualaren aurkako delituengatiko aurrekari penalak ez edukitzeko baldintza ken zezan. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Funtzio Publiko arloko kexen laburpenera.

b) Bizkaiako udalak

- Barakaldoko Udala

* **25/97/17 espedientea (5/1998 Gomendioa).** Barakaldoko Udalari gomendatu zitzaion jardun bateko titularrei musika ekipoa kentzeko premia zitzala, alkatearen dekretuaren bidez, jardun hori RAMINPEk ezartzen duen jardunbidearen arabera legezztatzen ez zen bitartean.

- Bermeoko Udala

* **1105/97/22 espedientea (40/1998 Gomendioa).** Bermeoko Udalari gomendatu zitzaion taberna-jatetxea zuen titularra premiatu zezan ezkaratze haizemoztailledun ate bikoitza ezartzeko bere establezimenduan, hiri-zoru erresidentzialean ezarritako jardun gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskugarri aplikatuko zaizkien izaera orokorreko arau teknikoak onartzen dituen ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuko 1. kapituluko 1. sekzioko 3.2.3. artikulua eskatzen duen bezala, baieztatu delako 8:00ak eta 22:00ak artean kanpora ateratzen den soinuaren ozenak 171/1985 dekretuak ezartzen dituen 60 dB(A) baino gehiago egiten duela. Era berean, Udalak neurri zuzentzaile hau ezartzeko ematen duen epea bukatu, neurria burutuko ez balitz, aipatu toki erakundeak espediente zigortzailea ireki beharko lioke lokaleko jabeari, RAMINPEko 38. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenari jarraiki.

- Bilboko Udala

* **127/96/22 espedientea eta 1172/96/22 espedientea (21/1998 Gomendioa).** Bilboko Udalari gomendatu zitzaion 1992ko abenduaren 11ko Osoko Bilkuran onartu zen *Hostalaritza Establezimenduak eta Antzekoen Ordenantza*

Araumaile Berria (BOB, 1993ko otsailaren 8, 31. zkia) alda zezan, ogitarteko-tabernak jardun sailkatutzat hartuz, beren funtzionamenduak soinu ozenezko efektuak sorrarazten dituelako inguruan. Edonola ere, udal honi esaten zitzaion pentsatzeko establezimendu hauek Ordenantzako Y edo II Taldean sartzea komeni ote zen.

* **648/97/15 espedientea (69/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion Botica Vieja parkea urbanizatzeko obra-proiektuak lur gainean aparkatzeko gordetzen duen lur-zerrendaren erabilera arau zezan, Bilboko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (BHAPo) gune askeen eta berdegune-Botica Vieja parkearen sistema orokorarentzat gordetzen duen eremuan sartzan den tokian. Horretarako bi aukera hauek ditu: 1. Gune askeen eta berdeguneen sistema orkorrean sartzan den aparkatzeko lur-zerrendari parke-erabilera ematea, behar den trataera urbanizatzailea emanaz; 2. Plan Berezi bat prestatzea, BHAPo hirigintza-arautegiko 3.2.2. artikulua ezartzen duenari jarraiki, eta horrela oinarriko planteamenduak gune askeen eta berdeguneen sistema orokorrerako aurreikusten duen zoru-erreserba egokitzen ahalko litzateke. Gomendio honen oinarria BHAPo Hirigintza Arautegiko 7.5.19. artikulua zen. Artikulu honek debekatu egiten du parke eta hiri-pasealekuei atxikiriko gune aske eta berdeguneen sistema orokortzat jotzen diren azaleretan aparraleku publikoa ezartzea.

* **1327/97/19 espedientea (6/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion zaramak lagatzeko ordutegia arautzen duen Hiri Garbiketako Udal Ordenantzak ezartzen duena hausteagatik ezarritako zigorra atzera bota zezan, interesatua arau-hauslea zela frogatzeko elementu bakarra baitzen ikertu zen zarama-poltsa baten barruan bazeudela agiri batzuk, eta agiri horien edukiak harremana bazuela espediente zigortzaile honetan sarturik zegoen interesatuarekin.

* **1955/97/19 espedientea (76/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion keza azaldu zen interesatuari TAO arautzen duen arautegia hausteagatik ireki zitzaizkion zenbait espedienteren ondorioz ezarri zitzaizkion isunak atzera botatzea, ikusten ahal izan zelako agintearen agente-izaera ez zutenek egin zituzten salaketak ez zirela, beharrezkoa den bezala, inondik inora berretsi.

* **1/98/160 espedientea (16/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion neurri egokiak har zitzala etorkizuneko aurrekontu-ekitaldietan, proposatzen diren tarifak aplikatu aitzin, egiazta dadin tarifa hauek onarturik daudela eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu direla. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Ogasun arloko kexen laburpena.

* **11/98/200 espedientea (23/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udalak bertako Udaltzaingoko plantilako lanpostuez jabetzeko jendaurrera zabaldu zuen deialdiaren ondorioz -deialdi horren oinarriak otsailaren 3ko 22 zki.ko BOB delakoan argitaratu ziren-, udal horri gomendatu zitzaion beharrezkoak ziren neurriak har zitzala deialdia tramitatzean ondoren aipatzen diren bi arrazoiertako batengatik inongo hautagairik bazterturik gelditzen ez zela bermatzeko, a) iruzur-delitua dela eta kondenatu izanagatik, ezarri zitzaion zigorra beterik badago, edo b) Euskal Herriko edozein polizia sartzeko hautatze-prozesutik kanporatu izanagatik diziplina-falta egin delako, baldin eta falta horren iraungi-epea pasatu bada.

* **177/98/20 espedientea (28/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion Igualmequisarekin hitzartu den laguntza mediko eta farmazeutikoaren onuradun-izaeraren ezagutza MUNPAL erregimen barruan dauden Udaleko

funtzionario guztien ezkontideei zabal ziezaien, baldin eta ezkontideak ekonomikoki funtzionarioen menekoak badira eta beste osasun laguntza jasotzeko eskubiderik ez badute, horretarako inolako agiririk edo elkarbizitza-egiaztagiririk erakutsi edo ekarri behar ez zelarik.

*** 603/98/19 espedientea (42/1998 Gomendioa).** Bilboko Udalari gomendatu zitzaion kexa aurkeztu zuen interesatuari ibilgailua eramateagatik ordaindu zuen tasaren kopurua itzul ziezaion, paraleloki tramitatu zen espediente zigortzailea artxibatu baitzen, udal zerbitzuek uste izan zutelako ibilgailua eraman zen tokian ez zegoela ibilgailuak geldiaraztea debekatzen zuen seinalerik, eta hortaz, udalak egin zuen ibilgailu eramatea ez zegoela justifikaturik, eta, hori horrela, ibilgailuaren gidariak ez zuela inolako arau hausterik egin.

- Derioko Udala

*** 1922/97/23 espedientea (39/1998 Gomendioa).** Derioko Udalari gomendatu zitzaion ofizios espediente administratiboa irekitzea, herritar bat udal hartan bizi zela egiaztatzeko. Espediente hori tramitatzeko, Udalak egoki jotzen zituen froga-moduak eta txostenak baliatzen ahal zituen, beti ere interesatuari hauek zeintzuk ziren jakinaraziko zitzaiolarik, erabaki-proposamena ere jakinarai behar zitzaion bezala, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubideak eta Administrazio Jardunbide Orokorrari buruzko 30/1992 Legeko 84. artikulua ezartzen duenari jarraikiz, interesatuak egoki zizkion alegazioak aurkeztu ahal izan zitzaion.

- Erandioko Udala

*** 975/97/17 espedientea (147/1997 Gomendioa).** Erandioko Udalari gomendatu zitzaion taberna baten jarduna martxan jartzeko baimenean ezartzen ziren neurri zuzentzaileekin bat ote zetorren zehatz zezan.

- Ermuako Udala

*** 345/96/15 espedientea (56/1997 Gomendioa).** Udalari gomendatu zitzaion lur pribatibo bat behar ez bezala bete zela aitortu zezan, eta kaltetuei lurzoru horrek balio duen besteko kalteordaina ordain ziezaien. Balioa, Udalak berak beste zenbait ondoriotarako eginiko hirigintza-tasazioak ezartzen zuena izango zen.

- Gueñeseko Udala

*** 1659/98/17 espedientea (105/1998 Gomendioa).** Gueñeseko Udalari gomendatu zitzaion alkatearen dekretuaren bidez hainbat hostalaritza-jardun berehala ixteko agindua eman zezan, aipatu jardunek indarreko legeek ezartzen dutena betetzen ez zuten bitartean.

- Lezamako Udala

*** 242/97/15 espedientea (94/1997 Gomendioa).** Lezamako Udalari gomendatu zitzaion pabilioi industrial baterako sarrera berriaren arazoa konpon zezan, pisu handiko trafikoak aldameneko nekazari bideko ohiko egoera aldrebestu gabe.

c) Gipuzkoako udalak**- Andoaingo udala**

* **1550/96/22 espedientea (173/1997 Gomendioa)**. Andoaingo Udalarik gomendatu zitzaion bere ondare erantzukizuna onar zezan, eta kexa aurkezten zuen interesatuaren ondasunei eginiko kaltea balioetsi, pairatu zituen lesioak bide publikoak gaizki zaindu eta mantentzearen ondorio baitziren.

* **1158/97/15 espedientea (35/1998 Gomendioa)**. Andoaingo Udalarik gomendatu zitzaion hainbat eraikinetan gasa hartzeko hartunea jartzeko eskaera debekatzen zuen Alkatetzaren erabakia atzera bota zezan, eta, horren orde, erabaki berri bat har zezan auzokoek eskatzen zuten moduan gasa hartu ahal izateko baimena emanaz.

* **1227/97/15 espedientea (34/1998 Gomendioa)**. Andoaingo Udalarik gomendatu zitzaion hainbat eraikinetan gasa hartzeko hartunea jartzeko eskaera debekatzen zuen Alkatetzaren erabakia atzera bota zezan, eta, horren orde, erabaki berri bat har zezan auzokoek eskatzen zuten moduan gasa hartu ahal izateko baimena emanaz. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Hirigintza eta Etxebizitza arloko kexen laburpena.

* **1519/97/17 espedientea (10/1998 Gomendioa)**. Andoaingo Udalarik gomendatu zitzaion ikerketa-espedienteari hasiera eman ziezaion, Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamentuko 45. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenari jarraiki, hainbat eraikin inguratzen duten lursailen titulartasuna eta egoera zehazteko, horri buruz dauden datuak kontraesankorrak direlako.

- Aretxabaletako Udala

* **1146/97/19 espedientea (13/998 Gomendioa)**. Aretxabaletako Udalarik gomendatu zitzaion udal hartako zenbait auzok erroldan izena ematea; aurretik, izena emateko eskubidea ukatu zitzaion lehen aldiz betetzeko udal baimenik gabeko extebizitzetan bizi zirelako. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Herrizaingo alorreko kexen laburpena.

- Arrasateko Udala

* **51/98/15 espedientea (43/1998 Gomendioa)**. Arrasateko Udalarik gomendatu zitzaion Aldai hilerrian lurperatzeko zenbait eskubideren titularrei truke bat proposa ziezaien, eskubide horien truke San Cristobal hilerri berrian beste zenbait lurperatzeko eskubide emanaz. Truke-proposamen berri honetan gorde beharreko irizpidea Udala Batzorde Iraunkorrek 1957ko otsailaren 8ko erabakiaren bidez ezarri zuena zen, hau da, "antzeko lurrak" izatea, dela lurperatzeko dagoen tokiaren aldetik ikusirik, dela lurraren azaleraren aldetik ikusirik. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Herrilan arloko kexen laburpena.

- Donostiako Udala

* **1568/96/16, 664/97/16, 1303/97/16, 247/98/16, 657/98/16, 1393/98/16 espedienteak (82/1998 Gomendioa)**. Donostiako Udalarik gomendatu zitzaion dagokion udal ordenantza zehaztuko den lurperatzeko eskubideak eguneratzeagatik tasa bakarra izan zedin, alde batera utzirik eskualdatzen den hilobiaren ezaugarriak, hilobia erosten duenak zer ahaidetasun-maila zuen jatorrizko jabearekin

edota eskualdatzea ondorengotzaren bidez den ala bizien artekoa den. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Ogasun arloko kexen laburpenera.

* **1083/97/23 espedientea (166/1997 Gomendioa)**. Donostiako Udalari gogorarazi zitzaion herritarrek aurkezten dituzten idatzi guzti-guztiei banan banan erantzutea legeak ezartzen duen baldintza dela.

* **1729/97/23 espedientea (24/1998 Gomendioa)**. Donostiako Udalari gomendatu zitzaion berarizko erabakia har zezan erreklamatzailleak aurkeztu zuen ondare erantzukizunari buruzko erreklamazioari buruz, azaroaren 30eko 30/1992 Legeko 42. eta 43. artikuluek ezartzen dutenari jarraiki, behin martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak ezartzen dituen aurreikuspenak kontuan hartuz, dagokion ondare erantzukizuneko espedientea osatu eta gero.

* **735/98/15 espedientea (37/1998 Gomendioa)**. Donostiako Udalari gomendatu zitzaion ofizios berrazter zezan Alkateak delegatu zizkion eskumenen arabera Hirigintzari buruzko Zinegotzi-Delegatuak hartutako erabaki bat; aipatu erabakiak eraikineko alakan zegoen dorre-kupula zaharberritzeko obra txikiko baimena ematen zion jabeen komunitate bati. Berraztertzeke zioa zen obra horiek estalkiaren egiturazko elementu bat ukitzen dutela, teknikoki konplejoak zirela eta, hortaz, obra handizat hartu behar zirela; beraz, tramitatzeko goi mailako arkitekto batek eginiko proiektua aurkeztu behar zen. Halaber, ofizios berraztertzeke prozedura hasi bezain laster, aldi berean eta berehala obrak baimentzen zituen ekintza aurrera eramatea bertan behera gelditu behar zen, horrela ez jokatzera konpontzeko ezinezkoak edo oso zailak diren kalteak eragin zitezkeelako (RJAP-PAC 30/1992 Legeko 104. artikulua), non eta Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Hirigintza Arauetako Hirigintza Ondareari buruzko Katalogoak II. gradukotzat jotzen duen eraikin batean, gradu hori ematen zaiolarik estalkian eraikin elementu arkitektonikoak badituelako, hain zuzen ere.

- Irungo Udala

* **590/97/23 espedientea (129/1997 Gomendioa) eta 985/96/23 espedientea (128/1997 Gomendioa)**. Irungo Udalari gomendatu zitzaion Udal horren aurrean aurkeztu zen ondare erantzukizuneko erabaki bat atzera bota zezan, erabaki hau eman zelako uste izatean kaltea ezin zitzaiola administrazio horri egotzi, emakida duen enpresa batek eramaten duelako aurrera kaltea sorrarazi zuen zerbitzu publikoa. Honela, erabaki berri bat har zezan iradoki zen, erabaki berri horrek kontuan hartu beharko zuelarik nori egotzi behar zitzaion erantzukizuna, baita kalteordainak zenbat joko zuen ere, eta, edozein kasutan, ezarri beharko zuelarik Udalaren beraren erantzukizuna kaltetuak bere kalteordaina edukiko zuela berme gisa.

- Soraluzeko Udala

* **1913/97/20 espedientea (11/1998 Gomendioa)**. Soraluzeko Udalari gomendatu zitzaion Bake Epaitegiko idazkaria izateko pertsona egokia izendatzeko prozesua bertan behera utz zezan, proposamena langile publikoen karrera profesionalak eta lanean sartzekak gorde behar dituzten bedintasun, meritu eta gaitasuna printzipioen araberrako prozesu baten ondorio dela baieztatu arte.

- Zarauzko Udala

* **818/96/23 espedientea (83/1997 Gomendioa)**. Zarauzko Udalari gomendatu zitzaion herritar batek aurkeztu zuen ondare erantzukizuneko erreklamazioa

aintzat hartzen ez zuen erabakia atzera bota zezan, Udal horrek kontraturiko enpresa batek sorraraziko kalteak zirela eta, horretarako ezarrita dagoen jardunbidea segitu ez zuelako. Gomendioa onartu eta erabakia bertan behera utzi zen.

* **1393/97/19 espedientea (41/1998 Gomendioa)**. Zarauzko Udalari gomendatu zitzaion ezen, beharrezkoak diren tramiteak bete eta gero, udal honetako Aparkatzeko Eremu Mugatuetako Aparkalekuak arautzen dituen udal Ordenantzak kontuan har zezan neurri murriztaile honek ukitzen zituen eremuetako "egoiliarren" egoerari begira aurreikuspenen bat, eurentzat diskriminazio positiboa ezarri, onartutako erregimen orokorretik salbuetsiz, hala badagokio zuzenbidean onartzen diren baldintzak betez gero.

D) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

a) Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak

- Mebisa/Metro Bilbao

* **3/98/160 espedientea (17/1998 Gomendioa)**. Mebisa/Metro Bilbaori gomendatu zitzaion beharrezkoak ziren neurriak har zitzala, datozen aurrekontu-ekitaldietan, proposatzen diren tarifak aplikatu baino lehen, tarifa hauek onartuak izan direla eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu direla baieztatzeko.

- Ur Partzuergoa

* **206/95/16 eta 1072/96/16 espedienteak (Taldekako espedientea)**. Bilbo Handiko Ur Partzuergoak, bertako kide diren udalen erabakiaren ondoren, saneamendu-kanona kobratzea egokitu beharko die toki erakundeei buruzko legeek ezarri dituzten baldintza berriei, partikularzki norberaren zerga-ordenantzak onartzeari buruzkoan, baita hauen bidez egin behar den tasa honetako funtsezko elementuak zehazteari buruzkoan ere: egintza zergagarria, zergapekoak, salbuespenak, eta abar. Bitartean, kontzeptu honengatik saneamendu sare orokorra erabili ezin dezaketen ur-hornidura zerbitzuko erabiltzaileei igorri zaizkien kitapenak balio gabetu beharko dira.

b) Administrazio Korporatiboak

- Bizkaiko Abokatuen Elkargoa

* **1253/96/21 espedientea (50/1997 Gomendioa)**. Abokatuen elkargoek herritarrek jokabide profesional arduragabearengatik aurkezten dituzten salaketen gainean ebazten dituzten erabakiek aipatu herritarren interesak ukitzen dituzte, eta, hortaz, Abokaturako Euskal Kontseiluaren aurrean errekurritzen ahal dira, edo, hala badagokio, bide juridikzionaletan errekurritzen ahal dira. Hau honela, elkargoak kexa bideratzean hartzen duen bide prozedimentala alde batera utzirik, hartzen den erabakiaren jakinerazpenak bidezkoak diren errekurtsioen berri eman behar du. Kexa aurkeztu den kasu honetan, erreklamatzailerak aurkeztu zuen salaketa abokatu baten gizarte-erantzukizunari buruzko txostena bailitzan tramitatu zen, eta beraz, elkargoak iritzi zion errekurtsioa paratzeko aukerarik ez zegoela. Arartekoak gomendatu zuen Gobernu Batzordearen erabakia berriz jakinaraz zedin, bidezkoak ziren errekurtsioak berariaz aipatuz. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Justizia arloko kexen laburpena.

2. AINTZAT HARTU EZ DIREN GOMENDIOAK

A) EUSKO JAURLARITZA

- Kultura Saila

EITB

* **129/97/21 espedientea (175/1997 Gomendioa)**. EITBk uko egin zion Hirugarren Munduko herriekiko elkartasun-kanpaina iragartzen zuen iragarki bat emateari, iragarkiak ez zuela merkataritza-edukirik argudiatuz. Arartekoak eman zedin gomendatu zuen, ez bakarrik iragarkiak antolamendu juridikoaren goren mailako baloreak bultzatzen laguntzen zuelako, EITBk beste hainbatetan antzeko edukia zuten iragarkiak bota zituelako baizik.

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

* **1713/98/20 espedientea (79/1998 Gomendioa)**. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion beharrezkoak ziren neurriak har zitzala neska batek 98-99 ikasturterako Getxoko ikastetxe jakin batean sartzeko bideratu zedin kontuan hartuz ikastetxean sartzeko egiten zuen bigarren eskaera zela, lehentasun ordenean dagokion txanda errespetatuz, ikasleak onartzeko indarrean dagoen baremoaren irizpideen arabera eta neska Getxon bizi dela ahaztu gabe. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Hezkuntza arloko kexen laburpenara.

Euskal Herriko Unibertsitatea

* **228/97/20 espedientea (27/1998 Gomendioa)**. Tramitatzen ari zen kexaren sorburuan zeuden irakasle atxikien kasu zehatzean, EHUri gomendatu zitzaion balorazio-batzordeek egindako ebaluazio-lana berrazter zezan, halako moldez non, berrazterketaren ondorioz bere garaian onartu ziren esleipen-proposamenak aldatzen baziren, ukitutako interesatuei sorraraziriko kalteak konpentsatzeko beharrezkoak ziren neurriak har baitzitezten. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Funtzio Publiko arloko kexen laburpenara.

- Ogasun eta Administrazio Publiko Saila

* **622/97/20 espedientea (97/1997 Gomendioa)**. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Administrazio Publiko Sailari gomendatu zitzaion 1997ko Aurrekontu Legeko zortzigarren xedapen gehigarria aplikatzea xexa aurkezten zuen funtzionarioari, egun jarduten duen lanpostu betegabea behin-betiko bere eginez.

* **1593/97/20 espedientea (12/1998 Gomendioa)**. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Administrazio Publiko Sailari gomendatu zitzaion 1997ko Aurrekontu Legeko zortzigarren xedapen gehigarria aplikatzea xexa aurkezten zuen funtzionarioari, egun jarduten duen lanpostu betegabea behin-betiko bere eginez.

- Herrizaingo Saila

* **1289/97/19 espedientea (51/1998 Gomendioa)**. Herrizaingo Sailari gomendatu zitzaion trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarri zen zigor bat ofizioz atzera botatzea, salaketa ez baitzen jakinarazi haustea gertatu zen unean, gero,

ibilgailuaren jabeari bidali zitzaion oharrean gabezia hau zuritu zelarik "gainontzeko erabiltzaileen segurtasuna" orokor bat aipatuz.

*** 2014/98/19 espedientea (91/1998 Gomendioa).** Herrizaingo Sailari gomendatu zitzaion Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 72.3. artikulua ezartzen duen laguntzeko betebeharra -zigortu nahi den arau haustea ustez egin duen ibilgailuaren jabearen nortasuna salatzea- ez betetzeagatik ibilgailu baten jabeari ezarri zitzaion isunaren aurkako errekurtoa ontzat eman zezan. Gomendioaren arrazoia zen ibilgailuaren jabeak esan zuela nor zen haustea gertatu zen egunean eta orduan ibilgailua erabiltzen ari zen pertsona, eta pertsona horrek baieztatu zuela hau, nahiz eta balizko haustea gertatu zen egunean bera, lan arrazoiak zirela eta, beste toki batean zegoela esan zuen. Baieztapen hau egiaztatzeko lekukotasun-froga jakin bat egin zedin proposatu zuen. Erantzun hau ikusirik, Trafiko eta Parke Mugikorreko Zuzendaritzako organo eskudunak espedientea ireki zion ibilgailuaren jabeari gidaria nor zen esateko betebeharra kunplitu ez zuelakoan, eta espedientearen ondorioz isuna ezarri zion. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Herrizaingo arloko kexen laburpenera.

- Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

*** 636/96/15 espedientea (153/1997 Gomendioa).** Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari gomendatu zitzaion etxebizitzak esleitzeko datozen deialdietan irizpide zuzentzaileak sar zitezen, etorkizunean herritarrak baztertzen zituzten egoera faktikoak saihesteko, eskaera egiten dutenen gaitasun ekonomiko egiazkoa baieztatzeko froga-moduak daudenean, eta beren errenta-mailek ez dituztela deialdiko oinarriek ezartzen dituzten mugak, batez ere konstituzioak ezartzen duen betebeharrak burutzen ari denean, edo soldadutza edo aldi baterako eszedentzien kasuetan, esaterako.

*** 351/97/23 espedientea (7/1998 Gomendioa).** Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari gomendatu zitzaion Bizkaiko Lurralde Delegazioaren bidez erantzun ziezaion kexa aurkeztu zuenari. Hala, trastelekua neurtu beharko litzateke, 1994ko maiatzaren 18an onartutako Diseinuari buruzko Ordenantzek ezartzen dutenari jarraiki, hori guztia etxebizitzak babes ofizilekotzat behin betiko aldarrikatzeko dituen eskumenak oinarri harturik. Era berean, bidezkoa baldin bazen, trastelekuaren egiazko azalera erabilgarria eta saltzeko prezioa zein sail honek onartu dituen izaera finantzieroko neurriak bat etorrarazi behar ziren.

*** 1784/97/23 eta 473/98/23 espedienteak (52/1998 Gomendioa).** Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari ondoren datorren guztia gomendatu zitzaion: 1- Trastelekua eta garajea zituen babes ofizialeko etxebizitza bat lortzeko eskaera bati zegokionez, errekurtsio arruntak ebatziko zituen erabaki bat eta interesatuen laguntza zuzenak edukitzeko eskubidea aitortuko zuen beste erabaki bat egin zezala. Gomendio honen arrazoia zen horretarako ireki zen espedientearen nahiko baieztatu zela, aurkezturiko kapital higikorren bidez, etxebizitzak eta hari atxikiak balio duten prezioaren %20 baino gehiagoko alde aurretiko aurrezki izan zela. 2. Era berean, beharrezkoak diren neurriak har ditzan bermatu ahal izateko zuzeneko laguntza horiek babes ofizialeko etxebizitza baten esleipendun izateko moduko dirusarrerak dituztela frogatu dituztenei ematen zaizkiela. Hau da, atalase berberak jar daitezela etxebizitza baten esleipenduna izateko eta zuzeneko laguntzak lortzeko, Konstituzioko 47. artikulua

ezartzen duen etxebizitza duin bat izateko eskubidearen arabera, baita 9.2. artikulua ezartzen duen berdintasun printzipioaren arabera ere.

* **1787/97/23 espedientea (80/1998 Gomendia)**. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari gomendatu zitzaion ondoren datorren guztia: 1. Poligono jakin bateko etxebizitzetako trastelekuak neur zitzaion, 1994ko maiatzaren 18an onartutako Diseinuari buruzko Ordenantzek ezartzen dutenari jarraiki, etxebizitzak babes ofizialekotzat behin betiko aldarrikatzeko dituen eskumenak oinarri harturik. Era berean, bidezkoa baldin bazen, trastelekuaren egiazko azalera erabilgarria eta saltzeko prezioa zein sail honek onartu dituen izaera finantzieroko neurriak bat etorrarazi behar ziren. Gorabehera hauek, erosleak saltzailearekiko erabiltzen ahal dituen egintza zibilen kalterik gabe, bultzatu beharko lukete saila administrazioaren erantzukizunari buruzko espedientea ofizioak irekitzera, etxebizitzaren zerbitzu publikoen funtzionatzeko modurengatik, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubideak eta Administrazio Jardunbide Orokorari buruzko 30/1992 Legeko 139. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenari jarraiki, erosleari sorrarazi zaion kaltearengatik.

* **212/98/15 espedientea (78/1998 Gomendia)**. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari gomendatu zitzaion etxebizitza baten eta bere atxiki bereiziezinen gainean lehentasunez erosteko eskubidea betearaztea onartzen zuen Agindu bat atzera bota zezan. Gomendio honen arrazoia zen etxebizitzaren jabeek berariaz aldarrikatu zutela ez zutela etxebizitza ondorengotzaren bidez eskualdatu nahi, eta horrela jakinarazi zioten Arabako Lurraldeko Delegazioari Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak etxebizitzaren gaineko lehentasunezko eskubidea betearazi nahi baino lehen. Beraz, lehentasunezko eskubidea aplikatzeko arrazoirik ez zegoen, eta arrazoirik gabe ezin zen aplikatu.

- Osasun Saila

* **2233/98/18 espedientea (99/1998 Gomendia)**. Osasun Sailari gomendatu zitzaion gastuak itzultzea eskatzen zuen baten erreklamazioari uko egin izana berrazter zezan, eta beste erabaki bat har zezan, erabaki horretan aintzat hartuz interesatuaren eskaera, hau da, bere helbidetik gertuen zegoen osasun zentrorra joateko egindako osasun garraioak jotzen zuen besteko diru-itzulketa eskaera. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Osasun eta Ongizate Saila arloko kexen laburpena.

Osakidetza

* **1793/97/20 espedientea (56/1998 Gomendia)**. Osakidetzari gomendatu zitzaion erakunde horrek kudeatzen dituen aldi baterako kontratazioen zerrendak egiterakoan adina ez den beste hainbat antolamendu-irizpide objektibo sar zitzaion, meritu eta gaitasunarekin zerikusi handiago dutenak, alde aurretik oposizioa edo aintzinasunari buruzko daturik ez dagoen kasuetan bederen. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Funtzio Publiko arloko kexen laburpena.

B) FORU ADMINISTRAZIOA

a) Bizkaiko Foru Aldundia

* **674/94/18 espedientea**. Gizarte Ekintzarako Foru Departamentuari gomendatu zitzaion tramitera onartzea laguntza-programa batean sartzeko eskaera bat. Eskaerari

uko egin zitzaion uste zutelako epez kanpo aurkeztu zela. Gomendioaren arrazoia zen eskaera, interesatua bizi zen Udaleko zerbitzu sozialen deialdiak ezartzen zuen epearen barruan aurkeztu zela frogatu zela.

* **1135/97/22 espedientea (157/1997 Gomendioa)**. Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio Departamentuari gomendatu zitzaion Bizkaibus garraio zerbitzuan sar zedin honako hau: bi udalerrri lotzen dituen zerbitzuan familia ugarietako kideentzako prezioaren gutxiagotzea, 25/71 Legeko 21. artikulua ezartzen duenari jarraiki.

* **608/98/16 espedientea (60/1998 Gomendioa)**. Ogasuna eta Finantzak Departamentuari gomendatu zitzaion 145/90 Foru Dekretuko 9. artikulua ezartzen dituen gainontzeko baldintzak betetzen ote diren egiaztatu aitzin, kexa aurkeztu zuen interesatuak eri bati egin zizkion psikologia-zerbitzuengatik BEZa zela eta jasandako kuotak itzul zitezen.

C) TOKI ADMINISTRAZIOA

a) Arabako udalak

- Gasteizko Udala

* **326/97/19 espedientea (150/1997 Gomendioa), 815/97/19 espedientea (151/1997 Gomendioa), 1339/97/19 espedientea (158/1997 Gomendioa) 92/98/19 espedientea (73/1998 Gomendioa) eta 195/98/19 espedientea (75/1998 Gomendioa)**. Gasteizko Udalarik gomendatu zitzaion trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik irekiriko hainbat prozedura zigortzailetan ezarritako hainbat erabaki zigortzaile bertan behera uztea, espedienteetan diktatu ziren erabakiak jakinarazteko moduetan irregulartasunak atzeman zirelako.

b) Bizkaiko udalak

- Abanto-Zierbenako Udala

* **1486/96/22 espedientea (99/1997 Gomendioa)**. Abanto-Zierbenako Udalarik gomendatu zitzaion txabola baten jabeek eska ziezaien txabola legeztatzea, eta, bidezkotzat jotzen baldin bazen, hirigintza mailako neurriak har zitzala.

* **179/98/23 espedientea (63/1998 Gomendioa)**. Getxoko Udalarik ondoren datorren gutzia gomendatu zitzaion: 1. Ondoren aipatzen den erabakia baliogabetzea: erabaki horrek ez zuen aintzat hartzen administrazioari egiten zitzaion ondare erantzukizuneko erreklamazio bat, eta erreklamazioaren zioa zen udal hartan izan zen jaustea sorraziz zuen kaltea. Erabakia zuri zuen espedienteetan ez zen beharrezkotzat jo frogarik egiterik -ondare erantzukizunen alorrean administrazio publikoen jardunbideen erregelamentua onartzen duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuko 7. eta 9. artikuluek ezartzen dutenaren kontra-, zehatz esanda ez zen beharrezkotzat jo bertan egon ziren lekuko deklarazioa, deklarazio hau zelaririk hiri bideak zaindu eta mantentzeaz arduratzen den udal zerbitzuaren jardunaren eta eragindako kalteen artean zuzeneko eta berehalako kausalitate eksklusiboa ba ote zegoen jakiteko bidea. 2. Era berean, espedientea erabaki-proposamena baino lehenagoko fasera itzultzea, eta aipatu frogak egitea. 3. Beste erabaki bat hartzea, zeinetan, alegatzen ziren gertaeren errealitatea finkatzea oinarritzat hartuz, eta toki publikoen segurtasunaz arduratzen diren udal zerbitzuei objektiboki egotzi ahal izanez gero, aitortuko baitzen Udal horren ondare erantzukizuna, edo ez, eta, baiezkoan, espedienteetan behar bezala egiaztatzen den kopurua

emango zaio erreklamatzaileri, eduki dituen kalteen ordainez. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Administrazioaren Antolamendua arloko kexen laburpenera.

- Bilboko Udala

* **1296/96/19 espedientea (58/1997 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion kexa aurkeztu zuen interesatuaren eskura jar zezan trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako isunak ez ordaintzeagatik bahitu zitzaion bere jabegoko ibilgailua, uste izan delako premiazko bidean ez dela aintzat hartu bahiketagaiak izan ziren gauzen arteko lehentasunezko hurrenkera. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Administrazio Antolamendu arloko kexen laburpenera.

* **1446/96/19 espedientea (134/1997 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion espaloï batetik erori zen herritar batek pairatu zituen lesioetan administrazioak zeukan ondare erantzukizuna onar zezan. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Administrazio Antolamendu arloko kexen laburpenera.

* **1412/98/22 espedientea (81/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko Ordenantzako 8.2.d) artikulua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko 7/89 Foru Arauak zerga honen zergagarritasunaren norainokoari buruz ezartzen duena bat etorraz zitzaion. Era berean, Bilboko Udalari gomendatu zitzaion kexa aurkeztu zuenari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga zela eta egin zitzaizkion kitapenak ofizios bota zitzaion atzera, bera 750 kg baino gutxiago pisatzen duen erremolke baten jabe delako.

* **2129/98/22 espedientea (94/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko Ordenantzako 6.1.d) artikulua ezartzen duen salbuespena aplikatzeari uko egiten zioten hainbat erabaki ofizios baliogabetu zitzaion. Erabaki hauek kexa aurkeztu duen interesatuaren ibilgailuari buruzkoak ziren, eta baliogabetzeko arrazoia zen ibilgailu horren jabeak betetzen zituela aipatu Ordenantzako 6.1.d) artikulua ezartzen dituen baldintzak, baita 1997rako Zerga Neurriei buruzko 7/97 Foru Arauko 26. artikulua elbarritasunarengatik salbuespena aplikatu ahal izateko ezartzen dituen baldintzak ere. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Ogasun arloko kexen laburpenera.

- Lekeitioko Udala

* **1191/97/17 espedientea (174/1997 Gomendioa)**. Lekietioko Udalari gomendatu zitzaion udal hartako taberna-jatetxe batean instalaturiko musika ekipoa prezintatzeko beharrezkoak ziren neurriak lehen bait lehen har zitzaion. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Ingurugiro arloko kexen laburpenera.

- Markina-Xemeingo Udala

* **1590/97/17 espedientea (57/1998 Gomendioa)**. Markina-Xemeingo Udalari gomendatu zitzaion alkatearen dekretuaren bidez erabaki zezan, kautelazko neurri bezala, eraikin bateko lehen pisuan garatzen den elkarte kultural gastronomiko baten jarduna lehen bait lehen ixtea, jurisprudentziak behin eta berriz adierazi duenari jaramon eginik, instalazioaren funtzionamendu zuzena bermatzen duten baimen beharrezkoak erdiesten diren arte. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Ingurugiro arloko kexen laburpenera.

c) Gipuzkoako udalak**- Arrasateko Udala**

* **904/98/23, 905/98/23, 907/98/23 eta 909/98/23 espedienteak (Taldekako espedienteak) (77/1998 Gomendioa)**. Arrasateko Udalarri gomendatu zitzaion udal hartako biztanleen udal erroldan kexaren bultzatzaileak sar zitzaion, eta izena ematea gauzatzeko, erroldatzea udalaren zerbitzu sozialek egoki jotzen zuten helbidean edo tokian emanaz burura zedin. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Herrizaingo arloko kexen laburpena.

- Donostiako Udala

* **687/96/15 espedienteak (95/1997 Gomendioa)**. Donostiako udalari gomendatu zitzaion iker zezan zabarkeriarengatik inolako erantzukizunik egon ote zitekeen, Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria onartzean legeztaturik gelditu ziren lege kanpoko obra batzuk botatzea agintzen zuen alkatearen dekretua betearazi ez zelako.

* **306/97/17 espedienteak (9/1998 Gomendioa)**. Donostiako Udalarri gomendatu zitzaion eraikin bateko fatxadaren eta baimenik gabe paratu zen deflektorea kentzeko edo beronen irtenbidea kentzeko espedienteak ireki zezan.

* **1345/97/19 espedienteak (135/1997 Gomendioa)**. Donostiako Udalarri gomendatu zitzaion kexa aurkeztu zuen interesatuari bere ibilgailua berreskuratzeko ibilgailua eramateagatik eta gordetzeagatik tasak zirela eta ordaindu behar izan zituen diru-kopuruak itzul diezazkion. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Herrizaingo arloko kexen laburpena.

D) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK**a) Bizkaiko mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak****- Mebisa/Metro Bilbao**

* **553/97/23, 728/98/23, 1963/98/23 eta 2140/98/23 espedienteak (47/1998 Gomendioa)**. Mebisa/Metro Bilbao delakoari ondoren datorren gutzia gomendatu zitzaion: 1. Kexak aurkeztu zituzten interesatuen ondare erantzukizuneko espedienteak berriz hasi, tramitatu eta erabakitzeko behar ziren bitartekoak jar zitzaion, interesatuek beren instalazioetan gertatu ziren zenbait istripurengatik jarri zituztelarik erreklamazioak. espedienteak osatu ahala ikusi beharko litzateke erreklamatzailerik alegatzen dituzten kalteak garraio publiko zerbitzuaren funtzionamendu normalak edo ez normalak sortu ote zituen, eta horretarako alegatzen diren datuak zehaztu, ezagutu eta baieztatu beharko lirateke, baita interesatuek esateko dutena entzuteko epea ireki, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. 2. Kontsidera zedin organo erantzulea zein den, Indarrez Besterenganatzeko Legeko 123. artikulua eta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko 13/95 Legeko 98.3. artikulua ezartzen dutenari jarraiki, baita zenbatetan jotzen den kalteordaina ere, eta, halaber, Auzitegi Gorenak horri buruz behin eta berriz egindako jurisprudenziari kasu eginez, Garraio Partzuergoaren erantzukizuna ezar zezan, kaltetuak bere ordaina edukiko duelako berme bezala. 3. Era berean, kontuan har zezan gomendio honen edukia zerbitzu publikoek sorrarazten dituzten kalteengatik irekitzen diren datuak ondare erantzukizunetako espedienteetan. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Antolamendu Administrazio arloko kexen laburpena.

3. ERABAKI GABE GELDITU DIREN GOMENDIOAK

A) EUSKO JAURLARITZA

- Kultura Saila

EITB

* **66/96/210 espedientea (113/1998 Gomendioa).** EITBri gomendatu zitzaion talde sozial eta politiko garrantzizkoenen eta horren garrantzizkoak ez diren komunikabideetan sartzeko eskubidea bermatzeko, "Euskal Irrati Telebista" Ente Publikoa sortu zuen maiatzaren 20ko 5/1982 Legeko 21. artikulua ezartzen duena betez, Administrazio Kontseiluak ondorengo neurri hauek bultzatzeko behar diren erabakiak hartuko dituela: a) 1998 urtean zehar EITBko programazioan, beren aukera eta planteamendu ideologikoak zabaltzeko sarrera eduki duten talde sozialen gaineko sakoneko azterketa egitea, zehazki aztertuz modua, espazioak eta sarrera horretan eduki duten denbora, ikusi ahal izateko euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko legezko agindua bete ote den; b) etorkizunean antenan egoteko eskubidea nola garatuko den aztertzea, plan zehaztua prestatuz, hau nola gauzatu den era zehaztuz (aldizkako emanaldiak ematen dituzten espazio zehatzak, litezkeen iragarkien zabaltzea, iritzi edo ezatabaida programetan talde guztietako ordezkariak parte hartzea, ordezkarien deklarazioak informatiboetan sartzeta...), horretarako irizpide objektiboak ezarri, taldeen ordezkari-maila eta esanahi soziala zehazteko, baita talde hauen artean dauden espazioak behar bezala banatzeko ere; eta c) Informatiboetan talde sozialek garatzen dituzten jardunen berri emateko erabiltzen den denbora hainbestean behin kontrolatzea, baita informatibo, eztabaida edo kultur programetan elkarrizketatzen diren gonbidatuen zerrenda kontrolatzea ere, zer esanik ez -halakorik sortuko balitz- aukera ideologiko guztiak zabaltzeko programetan. Informazio hau Entearen kontrola aurrera eramaten duen Eusko Legebiltzarreko batzordeari helaraziko zaio, erregelamenduz ezarri den moduan, bere ondorioak sor ditzan. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Kultura eta Elebitasuna arloko kexen laburpena.

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

* **2000/98/23 espedientea (95/1998 Gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion ofizios irekitzea administrazioak zuen ondare erantzukizunari buruzko espedientea, hezkuntza zerbitzu publikoaren eskola jardunetan zehar ikastetxe publikoko ikasle batek jasan zituen lesioak ikusirik, eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubideak eta Administrazio Jardunbide Orokorriari buruzko 30/1992 Legeko 142. artikulua ezartzen duenaren arabera, zein berau garatzen duen 429/1993 Errege Dekretuak ezartzen duenaren arabera tramitatzea.

* **2247/98/20 espedientea (100/1998 Gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion unibertsitatekoak ez diren ikastetxe publikoetako ordezkariak egiten ahal dituzten hautagaien zerrenda kudeatzeko egun indarrean dauden argibideen edukia egoki zezan (1995eko irailaren 13ko Langilegoa Kudeatzeko Zuzendariaren Erabakia), halako moldez non, beharrezkoa iritzi gero, baldintza linguistikoak biltzen ez dituzten hautagaiak sartzeta arautuko baita, ordezkariak egiteko interesatuak daudenen kopurua ordezkari eskaerari aurre egiteko aski ez den espezialitateetan.

Euskal Herriko Unibertsitatea

* **2288/98/20 espedientea (97/1998 Gomendioa)**. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion, kexa aurkeztu zuen interesatuak erabili zuen errekurso administratiboaren bidea erabiliz -ekintza administratiboak berraztetzeko zilegi den bidea-, Donostiako Erizaintza Eskolako irakasle atxikia izateko lanpostu bat (ezagutza arloa: erizaintza, osasun komunitarioa II) eskaintzeko deialdirako eratu zen ebaluazio batzordearen lana berraztertzea bermatuko zuten beharrezko neurriak har zitzala, esperientzia profesionalari zegokion baremoari buruz bereziki, eta, hortaz, beste erabaki bat, zio eta guztikoa, har zezan, zeinak, gaiaren mamiari dagokionez, osasun publikoa/osasun komunitarioa kontzeptuaren gainean egin diren doktrinazko kontsiderazioak aintzat hartuko baitzuten.

* **2316/98/20 espedientea (96/1998 Gomendioa)**. Euskal Herriko Unibertsitateari gomendatu zitzaion "Segurtasuna Kudeatzeko Unibertsitate Masterra" osatzen duen bigarren ikastaroan sartzeko aparteko moduak bermatzen dituzten neurri beharrezkoak para zitzaion. Master hau Gasteizko EHUko Injinerutza Tekniko Industrial eta Injinerutza Tekniko Topografiko Unibertsitate Eskolako Injinerutza Kimiko eta Ingururugiro Departamentuak antolatzen du, eta arazoa zen lehen ikastaroak egin zituzten batzuei ukatu zitzaieela bigarrenean sartzea lehen zikloko unibertsitate titulua diplomatua, injinari teknikoa edota arkitekto teknikoa zeukatelako, eta ez goi mailako unibertsitate titulua; eta, hain zuzen, horixe zen lortu nahi zena, horiek ere bigarren ikastaroan matrikulatu ahal izatea. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Hezkuntza arloko kexen laburpena.

- Ogasun eta Administrazio Publiko Saila

* **1605/97/20 espedientea (3/1998 Gomendioa)**. Ogasun eta Administrazio Publiko Sailari gomendatu zitzaion beharrezkoak ziren neurriak har zitzala interesatuak zeuden funtzionarioak edo lan kontratupekoak aldi baterako zerbitzu finakoak ematera sartzan ahal daitezen, gutxienez epe luzeko behar interinoen kasuan. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Funtzio Publiko arloko kexen laburpena.

* **1700/97/18 espedientea (93/1998 Gomendioa)**. Ogasun eta Administrazio Publiko Sailari gomendatu zitzaion, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeko 52.1. artikulua ezartzen duenaren arabera, kexa aurkeztu zuen interesatuak A-1 kidegoan sartu zenez, A-1 Kidegokoaren baliokidea den lanpostua betetzeko eskubidea duela aitor zezan. Halaber, A-1 Kidegoan sartu bazen ere bere Kidegokoa ez zen lanpostu batean aritu zen denbora guztia konta zekion A-1 Kidegoan aritu izan bailitzan ondorio guztietarako. Are, A-1 Kidegoan edukiko zuen lehen lanpostua behin-behineko adskripziozat har zedin, eta ez zerbitzu emankizunean, eta, horren ondorioz, abenduaren 27ko 10/1996 Legeko 8. xedapen gehigarriaren aplikazio eremuan sar zedin. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Funtzio Publiko arloko kexen laburpena.

- Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila

* **14/98/160 espedientea (62/1998 Gomendioa)**. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailari gomendatu zitzaion ezen gas naturalaz hornitzeko zerbitzu publikoa ematean, Auzitegi Konstituzionalaren arabera ondare prestazio publikoaren ezaugarri diren tasunak agertzen diren bitartean, hau da, zerbitzu publiko ezinbestekoa izatea eta

ez egotea sektore pribatuan zerbitzu hau bera eman zezakeen lehiakiderik, Lege lerruneko arau batek ezarri behar duela alta eta ikuskapen eskubideen kobraketa. Era berean, gas enpresa hornitzaileek "alta eta ikuskapena eskubideengatik" egin dituzten kobraketak balio gabetu behar direla, baita legezkoa ez den beste edozein konturengatik kobratu den beste gainerakoa ere, eta, horren ondorioz, erabiltzaileek kontzeptu horiengatik sartu dituzten kopuru guztiak itzuli behar direla. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Ogasun arloko kexen laburpenera.

- Herrizaingo Saila

* **1133/95/19**. espedientea Trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako zigorra deuseztatzea eskatzen zuen interesatuaren idatziari erantzun formala eman zekion gomendatu zen.

* **261/97/21 espedientea (49/1998 Gomendioa)**. Herrizaingo Sailari gomendatu zitzaion EKLko 495. artikulua ezartzen duena aplikatuz, ertzainek ez zezaten inor atxilotu ustez falta bat egiteagatik, arau horretan aipatzen diren salbuespenak gertatzen ez badira behintzat. Beraz, kexa aurkeztu zutenak era desegokian atxilotu zituztela kontuan hartuz, eta eragindako kalteak ahal den modurik hobekien konpontzeko asmoz, gomendatu zitzaion, baita ere, Herrizaingo Saileko artxibo eta erregistroetan atxiloketa horien ondorioz egon zitezkeen ohar guztiak desagerraraz zitezen beharrezkoa ziren neurriak har zitzala.

* **477/97/21 espedientea (50/1998 Gomendioa)**. Herrizaingo Sailari gomendatu zitzaion EKLko 268. artikulua ezartzen duena aplikatuz, ertzainek eman diezaioten hala eskatzen duenari egin zaion salaketaren ordezkagiria. Poliziako funtzionarioak beren egiteen gaineko informazioak ahalik eta zabalenen ematera behartzen dituen printzipioarekin bat etorritik, ordezkagiria salaketa-agiriaren kopia zigituz jota izango litzateke, eta salaketa ahoz egin bada, eskatzen duenari bere deklarazioaren transkripzioaren kopia idatzia eman beharko litzaiok.

* **404/98/19 espedientea (111/1998 Gomendioa)**. Herrizaingo Sailari gomendatu zitzaion alde zurretiko informazioen espedientea irekitzea agindu zezan, ertzain batzuek zenbait emakumezko herritar zergatik arakatu zituzten argitzeko, baita arakatzeko hori aurrera nola eraman zen jakiteko ere.

* **2008/98/18 espedientea (90/1998 Gomendioa)**. Herrizaingo Sailari gomendatu zitzaion sail honetako langilea den behin-behineko funtzionario batek euskarazko ikastaroetara joateko egin zuen eskaerari eman zitzaion ukoa berraztertzea, eta indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuko langileen lan baldintzak arautzen dituen Hitzarmenak ezartzen dituen baimena emateko irizpideak baizik ez zitzaion kontuan har beste erabaki bat egiterakoan, eta beste erabaki hori har zezan, noski. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Funtzio Publiko arloko kexen laburpenera.

* **2120/98/19 espedientea (110/1998 Gomendioa)**. Herrizaingo Sailari gomendatu zitzaion alde zurretiko informazioen espedientea irekitzea agindu zezan, pertsona bat nor zen jakiteko egin zen diligentzia eta ondorengo atxiloketa uztailaren 17ko Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Legeko 34. artikulua aipatzen dituen egokitasun, proportzionaltasun eta beharrezkotasun printzipioen arabera egin ote ziren.

- Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila**Osalan**

* **1245/97/21 espedientea (86/1998 Gomendioa)**. Osalani gomendatu zitzaion galga eta enbrageak ibiltzen dituzten autoak konpontzeko tailerretan aldian behineko azterketak egin zitzaion, otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuak ezartzen dituen lagina hartu eta analizatzeko metodoaren bidez, zehatz-mehatz jakiteko lan klase hau sartu behar ote den amiantoarekin arriskua duten enpresen Erregistroan, eta, hortaz, legeek aurreikusten dituzten kontrolak eta neurriak aplikagarriak ote diren. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Lan eta Gizarte Segurantzza arloko kexen laburpenera.

B) FORU ADMINISTRAZIOA**a) Arabako Foru Aldundia**

* **317/98/23 eta 435/98/23 espedienteak (Taldekako espedienteak) (88/1998 Gomendioa)**. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentuari gomendatu zitzaion urteoro Arabako Arrantza eta Casting Federazioarekin adosten duen hitzarmenaren edukia -hainbat arrantza-barruti kudeatzeari buruzkoa- berrazter zezan, hitzarmenak onartzen baitu kudeaketa hori lankidetzakartean bidez aurrera eraman ahal dadin, horretarako baimena ematen duen inongo arau juridikorik izan gabe. Halaber, gomendatu zitzaion proposa ziezaien Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei abenduaren 19ko Arabako Lurralde Historikoko 1998ko Aurrekontu Orokorrak Betearazteko 33/97 Foru Arauko 7. xedapen gehigarriko 5. puntuari idazketa berria ematen dion otsailaren 23ko 8/1998 Foru Araua alda zedin, erabiltzaile guztientzat kostuaren araberako prezio publiko bakarra ezarriz, barrutien kudeaketa Foru Aldundiak berak edo, zeharka, lankidetzako elkarteek egiten duten alde batera utzirik, bestela Konstituzioak ezartzen duen berdintasun printzipioa urratzen baita elkartzeko eskubideari dagokionez.

b) Bizkaiko Foru Aldundia

* **1465/98/19 espedientea (53/1998 Gomendioa)**. Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Departamentuari gomendatu zitzaion ezen, beharrezkoak ziren tramiteak egin eta gero, lehiaketa bat esleitzen zuen foru agindu bat bertan behera utz zezan, eta egindako jardunak erabaki-proposameneko fasearen lehenera zitzaion, proposamen hau egiteko orduan baldintza teknikoaren orrian kontuan hartzen ziren irizpideak aintzat hartu beharko zirelarik, bakar-bakarrik. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Administrazioaren Antolamenduaren arloko kexen laburpenera.

* **9/98/160 espedientea (109/1998 Gomendioa)**. Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatu zitzaion behar ziren neurriak har zitzala Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala benetan jar dadin herritarren eskura aldizkarian bertan datorren argitaratze-egunean, bertan argitaratzen diren arauak ezagutu ahal izateko beren ondorioek indarra hartu baino lehen, indarreko legeek esaten dutenari jarraiki.

c) Gipuzkoako Foru Aldundia

* **1237/97/23 espedientea (154/1997 Gomendioa)**. Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatu zitzaion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga konzeptupean igorritako kitapen bat baliogabe utz zezan, eta beste kitapen bat igorri;

bigarren honetan ohiko etxebizitza erostearen ondorio diren gastu guztien kenkaria sartuko zen, interesak ezik, hau da, etxebizitza erosteko harturiko kredituen irekitzeko komisioak, tasazio-gastuak, eta behar bezala justifikaturik dauden gainerakoak.

C) TOKI ADMINISTRAZIOA

a) Arabako udalak

- Gasteizko Udala

* **1924/97/22 espedientea (22/1998 Gomendioa).** Gasteizko Udalaren Animaliak Babesteko Etxeari gomendatu zitzaion datozen eginkizunei begira herritarrek animaliaaren jabearen izenean aurkezten dituzten laguntza-animalien gaineko eskubideei uko egiteko agiriak onartzeko garaian ordezkartzaren egiaztapena eska zezan, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubideak eta Administrazio Jardunbi Orokorrari buruzko 30/1992 Legeko 32. artikulua ezartzen baitu beste pertsona baten izenean administrazioaren aurrean eskubideei uko egiteko, beharrezkoa dela ordezkartza zuzenbidea baliagarria den eran, hau argi eta garbi gelditzeko moduan frogatzea, edo bestela, interesatuak berak agertu eta deklaratu behar duela. Era berean, gomendatu zitzaion ofizioz ireki zezan ondare erantzukizuneko espediente bat, kexa aurkeztu zuen interesatuari eragin zitzaizkion kalteak konpontzeko, interesatu honen artzaker alemaniar bat eman baitzuen Animaliak Babesteko Etxeak jabeak horretarako aurretik baimen formala eman gabe.

* **1419/98/19 espedientea (67/1998 Gomendioa).** Gasteizko Udalak ukatu zuen herritar batek Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera, Premia Sozialeko Laguntza eta jateko laguntza jasotzeko eskubidea zuenik, eta interesatuak kexa espedientea tramitatu zuen; kasu honetan gomendatu zen Gizarte Auzien Arloko Zinegotzi delegatuaren Erabakia, laguntzak ukatzen dituena, ofizioz berraztertzea, horrek eragin litzakeen ondorioekin, eta berrazterketa honetan aintzat har zedin interesatuaren helbidea biztanleen udal erroldako idazpenetan idatzita dagoela. Udalak esan du ez duela gomendioa onartzen, ukoa bertan behera uztea ez dela bidezkoa, erroldaren kontua ez delako eskaera atzera botatzeko arrazoi bakarra. Udalak hau esaten duelarik ere, errepikatu nahi dugu gure gomendioa.

b) Bizkaiko udalak

- Abanto-Zierbenako Udala

* **7/97/22 espedientea (4/1998 Gomendioa).** Abanto-Zierbenako Udalari gomendatu zitzaion erabaki bat har zezan erreklamatzailaren alde, honi aitortuz lur komunaletatik zehar pasatzeko eskubidea, bere ibilgailu gurpildunarekin sartu ahal izateko bere jabetzakoa den lursailera eta etxebizitzara, hori ezartzen duelako Kode Zibileko 567. artikulua, 4-1. eta 3. artikuluekin loturik. Erabaki hau hartzean Udalak plano batean seinالاتu behar zuen zein izango zen sartzeko bidea, bere zabalera zehaztuz, eta han bertan zuinketa egin beharko zen, sartzeko trazadura eta bere neurriak seinالاتuz.

- Alonsotegiko Udala

* **1844/97/17 espedientea (167/1997 Gomendioa).** Alonsotegiko udalari gomendatu zitzaion aisialdiko elkarte kultural bat itxi zezan instalazioaren titularrek

beharrezkoa den irekitzeko baimena lortu arte, baimen honek instalazioak egoki funtzionatzeko behar dituen neurriak hartuko zirela bermatuko zuelako, RAMINP-ek ezartzen duen jardunbidearekin bat etorritz.

- **Etxanoko Udala**

* **1555/97/17 espedientea (107/1998 Gomendioa)**. Etxanoko Udalari gomendatu zitzaion herri hartako hostalaritza establezimenduen ondorioz gaueko ordutegian izaten diren zaratak azter eta kontrolatzeko beharrezkoak diren neurriak har zitzala, eta, zehatzago esateko, establezimendu jakin bati jarraipena egin ziezaion.

- **Arrietako Udala**

* **1109/96/15 espedientea (17/1997 Gomendioa)**. Udalari gomendatu zitzaion kalefakzio galdara bat paratzeko eman zuen obra baimena atzera bota zezan, zuzenbidearen aurkakoa zelako.

- **Barakaldoko Udala**

* **2249/98/17 espedientea (108/1998 Gomendioa)**. Barakaldoko Udalari gomendatu zitzaion herri hartako hostalaritza establezimenduen ondorioz gaueko ordutegian izaten diren zaratak azter eta kontrolatzeko beharrezkoak diren neurriak har zitzala, eta, zehatzago esateko, establezimendu jakin bati jarraipena egin ziezaion.

- **Basauriko Udala**

* **1401/97/23 espedientea (20/1998 Gomendioa)**. Herritar batek erreklamazio bat aurkeztu zuen, bere ibilgailuan jasan zituen kalteen ondorioz administrazioaren ondare erantzukizuneko espedientea irekitzea eskatuz, eta Basauriko Udalak, alkatearen dekretuaren bidez, atzera bota zuen eskaera hau; Basauriko Udalari gomendatu zitzaion dekretu hura baliogabe zezan, erabaki horrek ez baitzuen kontuan hartzen hiri bideak zaintzen eta mantetzen dituen udal zerbitzuaren funtzionamenduaren eta sorraraziko kalteen artean zuzeneko eta berehalako kausalitate eskusiboko harremanik zegoela. Ondoren beste erabaki bat hartu behar zen, Udal horren ondare erantzukizuna aitortuz, eta erreklamatzaileri kalteordaina ordainduz jasandako kalteen truke, espedientean behar bezala egiaztatzen den kopurua eman.

- **Bermeoko Udala**

* **707/97/15 espedientea (58/1998 Gomendioa)**. Bermeoko Udalari gomendatu zitzaion Hirigintza Ordenantzako 4.2.3.6. a) artikulua indargabe zezan, Bermeoko Arau Subsidiarioak puntu batean aldatzeko espedientea tramitatuz, xedapen horrek ez duelako zerikusirik Bermeoko zoru ez urbanizagarrian dauden eraikinen errealitatearekin, eta zerikusi horrek izan behar duelako aipatu hirigintza arauaren funtsa. Gainera, aukeratu zen hirigintza tresna, Hirigintza ordenantzako atal orokor eta soil bat, ez zen egokia. Hau bezalako erabakiak eskatu beharko luke, alde aurretik, agiri zehaztua eta sakona prestatu eta tramitatzea, adibidez 1976ko Lurzoruari buruzko legeko Testu Birbilduko 25. artikulua ezartzen dituen katalogoak. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Hirigintza eta Etxebizitza arloko kexen laburpena.

- Bilboko Udala

* **243/97/23 espedientea (126/1997 Gomendioa).** Bilboko Udalari gomendatu zitzaion emakidadun enpresa batek sorraraziko kalteengatik eskatu zen ondare erantzukizuneko eskaera erabaki zezan, ustezko egintzen egiaztagiria galdatu bazen ere, bertan ez zelako aipatzen erantzukizuna izan den edo ez jakiteko derrigorrezko prozedura, nor den organo erantzulea, kalteordainak zenbat egiten duen, eta, halaber, ez zelako ezartzen Udalaren beraren erantzukizuna, kaltetuak bere ordaina jasoko duelako bermea izan behar duena.

* **1655/97/19 espedientea (98/1998 Gomendioa).** Bilboko Udalari gomendatu zitzaion zaramak lagatzeko ordutegia arautzen duen Hiri Garbiketako Udal Ordenantzak ezartzen duena hausteagatik ezarritako zigorra atzera bota zezan, interesatua arau-hauslea zela frogatzeko elementu bakarra baitzen ikertu zen zarama-poltsa baten barruan bazeudela agiri batzuk, eta agiri horien edukiak harremana bazuela espediente zigortzaile honetan sarturik zegoen interesatuarekin.

* **1694/97/21 espedientea (36/1998 Gomendioa).** Poliziaren jardun baten ondoren, honako gomendio hau egin zitzaion Bilboko Udalari: a) Poliziak hiri segurtasuna babesteko asmoz bide publikoan egiten dituen identifikazioak edo bestelako egiaztapenak ezin daitezke berezi gabeak izan, bidezkoak direlako bakarrik gizartearen asaldura sortu duen egintza deliktiboren bat argitu nahi denean. Edonola ere, inoren gauzen arakatzek ez du behar bezalako bermeekin egiten den azalezko kontroletik harantzago joan behar, eta horrek esan nahi du bide publikoan bertan egingo dela -ukitutako pertsonak besterik eskatzen ez duen bitartean-, onargarria ez delarik interesatua bizkarrez egotera derrigortzea bere gauzak arakatzaren diren artean. b) EKLko 495. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik, ezin daiteke inor atxilotu falta hutsarengatik, ez bada gertatzen ustezko hobendunak helbide ezagunik ez duela edo Auzitegira agertuko dela bermatzeko nahikoa fidantzarik ematen ez duela. Atxiloketa bidezkoa den kasuetan, interesatua biluzgorririk jarraraziz gorputz osoa arakatzeko neurria ez da sekula ohiko jarduna izango, eta justifikatua dago bakarrik atxilotutakoaren gorabehera pertsonalek, egozten zaion delituaren ezaugarriek edota atxiloketaren dinamikak berak neurria beharrezko bihurtzen dutenean, beti ere arrazoizkotasun eta proportzionaltasun irizpideen arabera. Edozein kasutan, neurri hauek hartzen dituenak bere erabakiaren berri eman beharko du, idatziz, arrazoiak laburki azalduz, ondoren neurria egokia izan ote den edo ez kontrolatu ahal izateko. c) Edonola ere, kasu guztietan zaindu beharko dira atxilotutako pertsonen eskubideak -EKLko 520. artikuluan biltzen direnak-. Ezbaian dagoen kasuari dagokionez, errepikatu behar da bereziki atxilotuak adin txikikoak direnean polizia kidegoetako kideek derrigorrez jakinarazi behar dizkietela hauen gurasoei edo tutoreei atxiloketa egin delako berria eta atxilotua zein zaintza-lekutan dagoen. Adin txikikoaren erantzuleak aurkitzea ezinezkoa bada, ministerio fiskalari jakinarazi beharko zaio lehen bait lehen. Halaber, atxilotuak atzerritarrak direnean, Udaltzaingoak kasu berezia egin beharko dio atzerritarraren hizkuntza behar bezala ulertzeari, atxilotuak zergatik atxilotu duten ulertzeko arazoak ote dituen edo bere eskubideak zeintzuk diren ulertzeko arazoak ote dituen zalantzarik txikiena sortzen bada, ofizioz interprete bat bertan egotea eskatuko delarik.

* **1786/97/22 espedientea (29/1998 Gomendioa).** Bilboko Udalari gomendatu zitzaion kexa aurkeztu zuenari suhiltzaileen tasa kontzeptupean ordainduriko kapital-enborra, errekaratuak, korrituak eta kostuak itzul ziezaizkion. Interesatuari

ordainarazi zitzaizkion, kopuru horiek aipatu tasa borondatezko epean ez zuelako ordaindu, eta bidezkoa zen dirua itzultzea kitapena egin zenetik bost urte igaro direlako, horixe delarik zor bat preskribitzeko Tributuen Lege Orokorreko 64. b) artikulua ezartzen duen epea.

* **13/98/160 espediente (25/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion BILBOGAS, S.A.k gasez hornitzeko alta eta ikuskapen-eskubideen kontzeptupean egindako kobraketak baliogabe zitzaizkion, eta, hortaz, erabiltzaileek horregatik ordaindu zituzten kopuruak itzul zitzaizkion. Era berean, gomendatu zitzaion ezen baldin eta dagokion udal erabakia hartzen bazen, tasa hau arautuko zuen Ordenantza fiskala onarrezan, etorkizunean egintza zergagarri hauei lege estalkia emateko asmoz. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Ogasun arloko kexen laburpenera.

* **1368/98/21 espediente (70/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udaleko Udaltzaingoko funtzionarioek egindako atxiloketa baten ondorioz, kexa espediente bat ireki zen, eta espediente hori zela kausa gomendio bat egin zitzaion Bilboko Udalari, ondoren datorren guztia zioena: a) Atxilotua poliziaren komisaldegian goitik behera biluzik utzeko neurriari dagokionez, gogorarazi behar da interesatua biluzgorriarik jarraziz gorpuz osoa arakatzeko neurria ez dela sekula ohiko jarduna izango, eta hartzen ahalko da bakarrik arrazoiztasun eta proportzionaltasun irizpideen arabera justifikatuta dagoenean, eta edozein kasutan, neurri hauek hartzen dituenak bere erabakiaren berri eman beharko duela, idatziz, arrazoiak laburki azalduz, ondoren neurria egokia izan ote den edo ez kontrolatu ahal izateko b) Gogorarazi behar da EKLko 520.2 artikulua hitzez hitz esaten duela, hau da, atxilotzen den edozein pertsonari "*informazioa emango zaiola, berak ulertzen ahal duen moduan, eta berehala, egozten zaizkion egintzak zeintzuk diren, zergatik kendu zaion askatasuna, eta zeintzuk diren bere eskubideak*". Beste gauza batzuen artean, aipatu den aginduak beharrezko egiten du eskubideak jakinaraztea atxiloketa gertatzen den une berean, idatzizko akta komisaldegian sartzen den unean bertan prestatu beharko delarik, eta ez deklarazioa egin baino lehenagoko unean. Hori guztia abokatuaren aurrean informazio guztia berriz eman ahal izatearen kalterik gabe, abokatuak baiztatzen ahal dezan atxilotuak ulertu duela. Era berean, aipatu legeko aginduak hainbat eskubide biltzen dituenez, eskubideak jakinarazteko agiriaren idazketa aldatzea beharrezkoa da, eskubide bakoitza jakinarazi eta gero galdetu beharko delarik interesatuak ulertu ote duen, eta galdera bera zein galdera bakoitzari ematen zaion erantzuna jaso beharko direlarik. c) EKLko 520.1. artikulua ezartzen duena aplikatuz, atxiloketak ez du "*gertaerak argitu ahal izateko egin behar diren ikerketak egiteko beharrezkoa den denbora baino gehiago*" iraugo. Askatasuna kentzen den kasu bat denez, interpreazioak murriztailea izan behar du, atxiloketa baten zehar egiten diren diligentsia guztien helburua gertaerak argitzea ez dela onartuz, eta horrek ez duela atxiloketa luzatzea justifikatzen onartuz. Beste alde batetik, atzeritarren kasuan ohikoa denez CNPko Koordinazio Iraunkorreko Zentroari informazioa eskatu behar izatea, beharrezkoa da Herritarren Seguratasunerako Zerbitzuak neurriak hartzea tramiteak azkarragotzeko eta atxiloketa behar baino gehiago ez luzatzeko. d) EKLko 523. artikulua atxilotuak bisita edukitzeko eskubidea duela jasotzen du. Ikerketaz arduratzen den funtzionarioak uste duenean eskubide hau betetzeak ikerketa arriskuan jar dezakeela, bisita eskubidea ukatzen ahalko du, baina hartzen duen erabakia idatziz jaso beharko du, neurria hartzeko zeuden arrazoiak aipatuz, ondoren neurri hartzea egokia zen edo ez kontrolatu ahal izateko moduan. Elkarrizketa egiteko toki aproposa ez izatearen arazoa, Herritarren Seguratasunerako Zerbitzuaren txosten batean ere aipatzen dena,

Arartekoak nabarmendu zuen Garellanoko komisaldegia bisitatzera ofizioz joan zen batean. Komisaldegi hori eraldatzeko obra-proiektua badagoenez, komeni da kontuan hartzea beharrezkoa dela toki egokiren bat prestatzea atxilotuek beren urkoekin komunikatu ahal daitezen.

* **2536/98/20 eta 34/98/200 espedientea (Taldekako espedientea) (106/1998 Gomendioa)**. Bilboko Udalari gomendatu zitzaion 1998ko abuztuaren 24ko 160 zki.ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen deiladiaren oinarrietako edukia berraztertzeko neurri egokiak har zitzala. Deialdi hori administrazio orokorreko laguntzaileak eta menekoak kontratatuzko zen, eta berrazterketa gomendatzen zen alde aurretik 50.000 eta 300.000 biztanleen arteko udaletan zein gainontzeko administrazio publikoetan izandako esperientziaren mailaz mailako balorazioa kentzeko.

- Erandioko Udala

* **1387/97/23 espedientea (19/1998 Gomendioa)**. Herritar batek erreklamazio bat aurkeztu zuen, bere ibilgailuan jasan zituen kalteen ondorioz administrazioaren ondare erantzukizuneko espedientea irekitzea eskatuz, eta Erandioko Udalak, alkatearen dekretuaren bidez, atzera bota zuen eskaera hau; Erandioko Udalari gomendatu zitzaion dekretu hura baliogabe zezan, erabaki horrek ez baitzuen kontuan hartzen hiri bideak zaintzen eta mantetzen dituen udal zerbitzuaren funtzionamenduaren eta sorraraziko kalteen artean zuzeneko eta berehalako kausalitate eskusiboko harremanik zegoela. Ondoren beste erabaki bat hartu behar zen, Udal horren ondare erantzukizuna aitortuz, eta erreklamatzailerari kalteordaina ordainduz jasandako kalteen truke, espedientearen behar bezala egiaztatzen den kopurua emanaz.

- Galdakaoko Udala

* **1394/97/23 espedientea (155/1997 Gomendioa)**. Galdakaoko Udalari gomendatu zitzaion Udal horren aurrean eskatu zen ondare erantzukizuneko atzera botatako erabaki bat onar zezan, erabakia kaltea Udal horri ezin zitzaiola egotzi kontsideratuz egin zelako, kaltea sortu zuen zerbitzu publikoaren funtzionamendua enpresa emakidadun baten bidez ematen baita. Hala, iradoki zitzaion beste erabaki bat har zezan, erabaki horretan kontuan hartuko zelarik nori egotzi behar zitzaion erantzukizuna, zenbatekoa izango zen kalteordaina eta, edozein kasutan, Udalaren beraren erantzukizuna kaltetuak bere ordaina jasoko zuelako berme gisa.

- Getxoko Udala

* **1117/97/22 espedientea (68/1998 Gomendioa)**. Getxoko Udalari gomendatu zitzaion jabeen komunitate bati obra batzuek jotzen zuten adinako kalteordaina eman ziezaion, obra horiek ura banatzeko sareko hodian egin behar izan zirelako sareko ur-ihesak eta presio-galerak konpontzeko, eta hodi horren zaintza eta mantenua Udal horren ardura delako.

- Gorlizeko Udala

* **1536/96/15 espedientea (87/1998 Gomendioa)**. Gorlizeko Udalari gomendatu zitzaion obra-baimena eman zezan Uresaransen egiten ari zen familiabakarreko etxebizitzaren eraikuntza bukatzeko. Etxebizitza hura alde hartako plan partzialaren aurrerapenak ukitzen zuen. Baimena emateko hirigintza mailako baldintza moduan,

Udalak eskatu behar zion interesatuari urbanizazio gastuetako behin-behineko kitapena abalatzeari. Kitapen hau une egokian Uresarantse egoitza-aldearen hirigintza-kudeaketa prozesuarengatik kitatu beharko litzakekeen behin betiko kitapenaren kontura joango zen. Lur-lagapenak legeak ezartzen dituenek, dagokion ekidistribuzio-agiri urbanistikoaren bidez, aski litzateke interesatuak izenpetuko zuen etorkizunerako lagapen-idazkiarekin.

- Ortuellako Udala

* **404/97/19 espedientea (8/1998 Gomendioa)**. Ortuellako Udalarik gomendatu zitzaion udal hartan bizi zen herritar batek bertako udal erroldan izena ematea uzt zezan. Izen ematea ukatu zen bere etxebizitza egiten zuen tokia betetzeko baimena ematen zion titulu juridikorik ez zuelako.

* **715/97/15 espedientea (152/1997 Gomendioa)**. Ortuellako Udalarik gomendatu zitzaion aiurri-egoeran aitorturiko korta botatzeko aginduaren betetze subsidiarioari ekin ziezaiola.

- Portugaleteko Udala

* **640/98/17 espedientea (89/1998 Gomendioa)**. Portugaleteko Udalarik gomendatu zitzaion Gobernu Batzordeak harturiko erabaki bat indargabe zezan. Gobernu Batzordearen erabaki horrek xedatzen zuen organo horren beraren beste erabaki batek ezarritakoa betetzea bertan behera uztea, eta beste erabaki honek jardun bateko titularrari baimena ematen zion lokal batean aireztatzeko hodia paratzeko obrak egiteko. Indargabetzea gomendatzeko arrazoia zen erabakia hartu zela Herri Administrazioen Araubideak eta Administrazio Jardunbide Orokorri buruzko Legeko 104. artikulua ezartzen zituen baldintzak eta inguruabarrak ez zirela gertatzen, Udalak berak aitortzen zuenaren arabera, Lege horretako artikulua horrek oinarritu zuenean aipatu jardun administratiboa.

- Sestaoko Udala

* **1364/98/18 espedientea (101/1998 Gomendioa)**. Sestaoko Udalarik gomendatu zitzaion azaroaren 24ko Euskaren Erabilera Normaltzeko Oinarrizko 10/1982 Legeak ezartzen duenari jarraiki, gizabanako pribatuen idazkien erantzuna diren gaztigueta interesatuak erabili zuen hizkuntza ofizial bera erabil zezan. Auzia hobeki ezagutu nahi duenak jo beza Kultura eta Elebitasuna arloko kexen laburpena.

- Trapagarango Udala

* **1189/97/22 espedientea (2/1998 Gomendioa)**. Trapagarango Udalarik gomendatu zitzaion toki erakundeetako Ondasun Erregelamentuko 45. artikulua eta ondorengoek aitortzen dion bere ondasunei buruzko ikerketa egiten has zedin, Barrionuevotik Bitarratxora doan bidearen titulartasuna norena den zehazteko. Era berean, gomendatu zitzaion, aipatu udalarik eskumen hori erabili eta gero bidearen titularrak udala zela ikusten bazen, titulartasun hau Trapagarango udal ondasunen eta eskubideen zerrendan sar zezan, eta bideak behar zituen konponketak eta zainketak egin. Trapagarango Udalak agertu zuen gomendioa onartzeko borondatea, baina espedientea geroratzen zenez, erakunde honek ikerketa espedientearen tramitazioa zertan zegoen jakiteko informazioa eskatu zuen. Txosten hau bukatzeko orduan erakunde honek ez du oraindik informazio hau jaso.

c) Gipuzkoako udalak

- Donostiako Udala

* **840/96/15 espedientea (102/1997 Gomendioa)**. Donostiako Udalari gomendatu zitzaion titulartasun pribatuko lurzati bat zedarritzen zituen kateak kentzeko erabakia atzera bota zezan, ez baitzegoen egiaztaturik bide publikoa zenik.

* **1083/96/23 espedientea (18/1998 Gomendioa)**. Donostiako Udalari ondoren datorren gutzia gomendatu zitzaion: 1. Bide Publiko eta Herritarren Segurta-suneko Zinegotzi Delegatuak hartu zuen erabaki bat baliogabe utz zezan. Erabaki horrek erreklamatzailer batek eroriko baten ondorioz pairatu zituen kalteengatik egin zuen administrazioaren ondare erantzukizunagatiko erreklamazioa atzera bota zuen, erabaki horretan ez zelako egoki ikusi -administrazio publikoek ondare erantzukizun gaietan erabili behar dituzten jardunbideen erregelamendua onartzen duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuko 7. eta 9. artikuluek ezartzen dutenaren arabera- frogarik praktikatzea, lekukoen deklarazioa, zehatz esateko, froga horiek zirelarik beharrezkoak hiri bideak zaindu eta mantentzeaz arduratzen den udal zerbitzuaren jardunaren eta eragindako kalteen artean zuzeneko eta berehalako kausalitate eskusiboa ba ote zegoen atzemateko. 2. Era berean, espedientea erabaki-proposamena baino lehenagoko fasera itzultzea, eta aipatu frogak egitea. 3. Beste erabaki bat hartzea, zeinean, alegatzen ziren gertaeren errealitatea finkatzen bazen, aitortuko baitzen Udal horren ondare erantzukizuna, eta beraz, espedientearen behar bezala egiaztatzen den kopurua emango zitzaion erreklamatzailerari.

* **1701/97/19, 1972/97/19, 642/98/19 eta 669/98/19 espedienteak (Taldekako espedientea) (112/1998 Gomendioa)**. Donostiako Udalari gomendatu zitzaion, beharrezkoak diren tramiteak bete eta gero, Aparkamendu Mugatuaren Udal Zerbitzuko Ordenantzako zenbait agindu jakin alda edo, hala bazegokion, ezaba zitzan.

- Elgoibarko Udala

* **1668/98/17 espedientea (103/1998 Gomendioa)**. Elgoibarko Udalari gomendatu zitzaion alkatearen dekretuaren bidez erabaki zezan, kautelazko neurri gisa, eraikin bateko bigarren pisuan aurrera eramaten zen jardun bat, jurisprudentziak behin eta berriz errepikatu duenari jarraiki, instalazioak behar bezala funtzionatuko duela bermatuko duten beharrezko baimenak lortu arte.

- Hernaniko Udala

* **999/97/22 espedientea (46/1998 Gomendioa)**. Hernaniko Udalari gomendatu zitzaion kexa aurkeztu zuenari kopuru osagarria eskatzeari utz zizeaion. Eraikin bat bota eta berriz eraikitze baimenari zegozkion kargak eguneratzeko eskatzen zen kopuru osagarri hori. Era berean, Hirigintza Kudeaketarako Erregelamenduko 40. artikulua ezartzen duenaren arabera, 1990. urtean hirigintza gastuetako laguntza kontzeptupean emandako kopuru baten orde besterik beste horrenbeste diru egiten zuen fidantza bat ezartzea onartu behar zuen.

- Idiazabalgo Udala

* **1890/97/17 espedientea (65/1998 Gomendioa)**. Idiazabalgo Udalari gomendatu zitzaion alkatearen dekretuaren bidez establezimendu bateko jabea premia

zezan hilabeteko epean bere jarduna legezatzeko tramiteak hasteko, RAMINPeK ezartzen duen jardunbidearen arabera, ohartaraziz ezen, premiamendu honi jaramon ez egitera, instalazioa itxi egingo zela.

- Lasarte-Oriako Udala

* **2313/98/19 espedientea (104/1998 Gomendioa)**. Lasarte-Oriako Udalari gomendatu zitzaion trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarririko zenbait zigor atzera bota zitzaion, hartutako erabakien jakinarazpenak ediktu bidez egin zirelako horretarako nahikoa justifikaziorik izan gabe, eta, gainera, ediktuaren bidezko jakinarazpenak berak urratu zituelako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubideak eta Administrazio Jardunbide Orokorrari buruzko 30/1992 Legeko 59.4. artikulua ezartzen dituen baldintzak, erabakiak ez baitziren Udaletzeko iragarki oholean paratu.

- Pasaiaiko Udala

* **1268/97/17 espedientea (1/1998 Gomendioa)**. Pasaiaiko Udalari gomendatu zitzaion udaleko zerbitzu teknikoek egin zezaten bidezkoa den ikuskapena, jatetxe bateko jarduna eta eman den baimenak ezartzen dituen baldintzak bat ote datozen egiaztatzeko. Egiaztapen honen ondorioz irregulartasunak aurkituz gero, jardun hori egoki funtzionatzeko neurriak har zitezten eskatzen zen.

- Tolosako Udala

* **302/98/15 espedientea (54/1998 Gomendioa)**. Tolosako Udalari gomendatu zitzaion eraikin bat botatzeak ukitu zituen hainbat kalteturi onartu zitzaion 9 milioiko kalteordaina egunera zezan. Botatzea, Zatikako Plana eta Laskorain Goikoa SI-1 Eremua Birpartzelatzeko Proiektua betearazteko egin zen.

- Urnietako Udala

* **210/98/19 espedientea (32/1998 Gomendioa)**. Urnietako Udalari gomendatu zitzaion trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik irekiriko zenbait espedienteren kausaz sor litezkeen ondorio juridikoak baliogabe utz zitzaion, ikusi zelako zigorra ezartzen zuten erabakiak ez zeudela aginte eskudunak izenpetuta.

* **253/98/20 espedientea (31/1998 Gomendioa)**. Urnietako Udalari gomendatu zitzaion ezen, baldin eta egiaztatzen bazen interesatua maisuentzako etxebizitza kontzeptupean erabiltzen ari zen etxebizitza alde aurretik ez zela desafektatu, etxebizitza hori uzteagatik edozein kanon edo errenta kobratzea bertan behera utz zezan. Era berean, gomendatu zen Udalak kanona edo errenta ez ordaintzeagatik ireki zuen premiamendu espedientea lehen bait lehen baliogatu eta indargabe zezan, eta, ondorioz, kontzeptu horiengatik bahituriko diru-kopuruak itzul zitezten.

- Zarauzko Udala

* **1087/97/23 espedientea (142/1997 Gomendioa)**. Zarauzko Udalari gomendatu zitzaion espediente bat ofizios ireki zezan, ibilgailuek udal hartako kale jakin batean zamatze-lanak baldintza egokietan egin ahal izateko, auzoen ohiko martxa oztopatu gabe eta helbide hartako negozioak bere merkataritza-jardunak zuzen eta egoki egin ahal izateko.

- Zizurkilgo Udala

* **2072/98/17 espedientea (102/1998 Gomendioa)**. Zizurkilgo Udalarari gomendatu zitzaion enpresa baten ordezkariak egindako eskaeraren ondoren ireki zen udal espedienteak RAMINPEk ezartzen duen jardunbidea segi zezan.

D) BESTE HAINBAT TOKI ERAKUNDE

- Atiegako Administrazio Batzarra

* **1848/97/15 espedientea (55/1998 Gomendioa)**. Atiegako Administrazio Batzarrari gomendatu zitzaion kontagailu-kutxa jartzeagatik igorri zituen kitapen batzuk baliogabe zitzaizkion, Atiegako saneamendu eta edateko ura helbideraino eramateagatik tasa arautzen duen Zerga Ordenantzak ez duelako kontzeptu horregatik kobratzea berariaz baimentzen duen tarifarik.

E) ERAGINDAKO BESTE HAINBAT ERAKUNDE

a) Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak

- Ur Partzuergoa

* **262/98/22 espedientea (83/1998 Gomendioa)**. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari gomendatu zitzaion kexa aurkeztu zuenari bere jabetzapeko etxebizitzaren zarama eta estolderia-tasa kontzeptuan azken bost urtetan igorri zitzaizkion kitapenak ofizioz berrazter zitzaizkion, kitapen hauek profesionalentzat ezartzen diren tarifetan oinarriturik prestatu zirelako, nahiz eta interesatuak 1992ko otsailean Getxoko Udalarari jakinarazi jada ez zuela mediku-kontsultarik bertan pasatzen. Era berean, gomendatu zitzaion kitapen berriak egin eta gero, bi kontzeptu hauengatik behar ez zen moduan sartu ziren kopuruak interesatuari itzultzea.

b) Gipuzkoako mankomunitate, partzuergo eta parkeak

- Txingudiko Zerbitzuak

* **121/98/22 espedientea (84/1998 Gomendioa)**. Txingudiko Zerbitzuak, S.A.ri gomendatu zitzaion zarama biltzen duen ibilgailua iristen ez den tokietako eraikineko auzoei zarama-tasa kontzeptupean igortzen zizkien kitapenak baliogabe zitzaizkion, hurbilen dauden edukiontzia hirurehun metrora edo gehiagora daudenean.

4. ARARTEKOAREN AURREAN AURKEZTURIKO AUZIA EGOITZA JUDIZIALERA ERAMAN DELAKO EUREN EDUKIA BALIOGABETURIK IKUSI DUTEN GOMENDIOAK

*** 1714/97/20 espedientea (171/1997 Gomendia).** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion kexa aurkeztu zuen interesatuari APD tailerreko erreprodukzio eta inpresio maisua izateko hautagaia zen aldetik eman zion tratamendua azter zezan, eta hautagai gaituztat jo zezan, eta, hortaz, interesatuak hezkuntza administrazioaren aurrean jarri zuen errekurtsio arrunta (erantzuteko dagoena) onar zezan. Era berean, gomendatu zen hautagai gaituen izaera aitortu zitzaizen hautagai guztien merituak alderaturik, Gasteizko Arte Aplikatuen eta Diseinuaren Eskolan 97-98 ikastarorako iragarri zen APD tailerreko erreprodukzio eta inpresio maisu lanpostuaren esleipena berrazter zezan.

VI. ATALA
GOMENDIO OROKORRAK

1. LIZENTZIARIK GABEKO SALMENTA IBILTARIARI DAGOKIONEZ POLIZIAK IZANDAKO JARDUERA

Azkenaldi honetan erakunde honen aurrean kexak eragin dituen gai bat, salmenta ibiltaria legezko lizentziarik gabe burutzen denean poliziak izandako jarduera izan da.

Nahiz eta ohiturik gauden eta, azoka tradizioaletan eta feria eta jai herrikoietan, eta are gure hirietako inguru jakin batzuetan honelako merkataritza jarduerak burutzea gauza natural bat bezala ikusten dugun, salmeta ibiltaria ez dago horretan aritzen direnen esku, aldiz, jarduera hori arauturik dago. Horrela Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak finkatzen ditu oinarriak, salmenta mota hau zehaztuz. Zentzu honetan, aipatu legeko 15. artikulua honela zehazten du salmenta ibiltariaren kontzeptua: *“salmenta ibiltaritzat joko dira ohiko edo noizbehinkako saltzaileek merkataritza saltegi batetik kanpo, postu edo instalazio desmontagarrietan edo ibilgailuetan egiten dituztenak”*, ondoren adieraziz *“salmenta ibiltarian aritzeko udalaren baimena beharko da, besterendu ezinezkoa eta gehienez ere urtebeterako indarraldiarekin”* eta *“ezingo da salmenta mota hau burutu merkataritza guneetarako irispideetan edo erakusleihoen aurrean”*.

Halaber, Merkataritza Jaurduerari buruzko Legeak Euskal Autonomia Erkidegoan salmenta ibiltariari buruzko arauak izan beharreko oinarriko edukia iragartzen du bi aurre baldintza jarritz: bat, udalei dagokie salmenta ibiltariaren jarduera antolatzea bere lurralde esparruaren barruan, legeak berak ezartzen dituen irizpideei jarraiki; eta bi, udalak jarduera hori galeraztera beharturik daude, udalak berak salmenta ibiltaria arauturik ez duen bitartean.

Merkataritza Jarduerari buruzko Legeak zehaztutako esparruari jarraituz, hemengo udalak beren udal esparru barruan merkataritza jarduera mota hau arautu edo haren antolaketa legearen baldintzetara egokitu izan dute.

Gomendio honen lehenengo lerroetan aurreratu dugunez, bere funtsa agintearen arduradunek salmenta ibiltariaren zaintza eta kontrol eginkizuna nola burutzen duten aztertzean datza. Beraz, ez gara hasiko merkatarien eta saltzaile ibiltarien artean sortzen diren berariazko arazoak edo bat eta besteen legezko interesen defentsa aztertzen. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu arazo horiek hor daudela, eta udalaren nahiz poliziaren jarduera bera baldintzatzen dutela.

Merkataritza establezimendu batetik kanpo burutzen den salmenta jarduera, une honetan, gizarteko sektore behartsuenetako batzuen biziraupenerako modu bat da. Gehienetan, baliabide ekonomiko gutxiko pertsonak edo Autonomia Erkidegoan egoteko eskubidea behar bezala finkaturik gabe duten inmigranteak.

Hala ere, aipatu dugunez, salmenta ibiltaria burutzeko ezinbestekoa da hortan ari den pertsonak udalaren baimena edukitzea, nahiz aldizka egiten den azoka batean aritu

nahiz bide publikoan muntatu daitekeen saltoki batean edo ibilgailu batean aritu, eta, baita ere, merkaturatzen dituen produktuei buruzko berariazko araudiek eskatzen dituzten osasun eta higiene arloko baldintzak betetzea.

Ezinbestekoa da baimena eskatzen duena Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emana egotea eta ordainketan egunean egotea, eta, gainera, Gizarte Segurantzako dagokion sailean alta emana eta ordainketan egunean egon beharko du. Horrek batzuei ezinezko egiten die jardueran legez aritzea, hemen egoteko eta lanean aritzeko behar diren baimenak ez dituztelako, eta baliabide urriak dituzten beste batzuei zaildu egiten die. Baina ezin dugu ahaztu, arauak babestu nahi duen helburu nagusietako bat kontsumitzaileen eskubideak ziurtatzea dela.

Halaber, salmenta ibiltariaren jarduera baimendua burutzeko ezinbestekoa da eskaera egileak, tokiko jabetza publikoa beretzat bakarrik ibiltzeagatik edo haren erabilera berezia egiteagatik, ordaindu beharreko prezio publikoa ordaintzea dagokion udal erakundeari.

Baimena ematearekin ez da amaitzen udalaren zeregina, aldiz, baimena eman ondoren baimena eman duen administrazio organoa beharturik dago jarduera hori baimenean ezarritako mugen barruan eman dadin zaintzera, hala nola jarduera hori Ordenantzan ezarritako baldintza eta betekizun guztien arabera gauzatu dadin zaintzera.

Zaintza eta kontrol hori Merkataritza Jarduerari buruzko Legeak, zentzuzkoa denez, salmenta mota hau onartzen duten udalen gain uzten du. Zehazki, 19. artikulua dio: *“salmenta ibiltariari dagokionez, udalei dagokie higienari, osasunari eta segurtasunari buruzko arauak eta merkataritza jarduera horren antolamenduari buruzko arauak betetzen direla ziurtatzea, hala nola urraketa arin eta larriak kontrolatu eta zigortzea, beste administrazio publiko batzuei atxikitako eskumenen kalterik gabe”*. Orokorrean, Merkataritza Jarduerari buruzko Legeak adierazitakoaren oso antzera, dagozkion udal ordenantzetan biltzen dira udalek zehapen eta kontrol arloan dituzten eskumenak.

Egiteko horiek, nolahi ere, aginte esparru zabal bat barnebiltzen dute. Horrela, udal agintariek, gehienetan udaltzainek, produktuak, jarduerak eta instalazioak ikuskatu ahal izango dituzte, eta egiteko hori betetzeko beharrezko gertatzen den informazioa eta agiriak eskatuko dizkiote salmenta ibiltaria burutzen dutenei. Are gehiago, ordenantzetan, udal jardueraren eraginkortasuna ziurtatzeko xedez, udal agintariei laguntzeko betebeharra ezartzen diete saltzaileei, eta betebeharrak ez betetzea urraketa larritzat jo daiteke.

Hain zuzen ere, eskumen horiek betetzeko eran somatu dira arazoak, zehazkiago esateko, zaintza eskumen horiek betetzerakoan udal agintariek, kautelazko neurri gisa, salmentarako gaiak berak gordetzea erabakitzen dutenean.

Merkataritza Jarduerari buruzko Legeak (44. art.) adierazten duenez, neurri horren helburua zehapenerako espedientean eman daitekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzea da. Kasu horretan, espedienteari ekitea erabakitzen duen aginteak salmenta gaiak kautelaz berak gordetzea erabaki dezake, betiere salgaiak faltsifikatuak, iruzurrezkoak edo identifikatu gabeak badira edo merkaturatzeko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez badituzte. Baina, behin-behineko neurria hartu ahal izateko modu arrazoituaren erabaki beharko da eta alde zuzenetik interesatuari entzunez.

Beraz, Legeak adierazten du kautelazko neurri hau noiz hartu ahal izango den:

- salgai faltsifikatuak direnean
- iruzurrezko salgaiak direnean
- identifikatu gabeko salgaiak direnean

- merkaturatzeko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten salgaiak direnean.

Nolanahi ere, azken kasu honetan, Merkataritza Jarduerari buruzko Legeak salmentarako eskaintzen den produktuaren arautegi teknikoak edo hura etiketatzeko arauak adierazitakora igortzen dute.

Hemen saltzaileen eta udal agintariaren eskuhartzearen arteko ezadostasuna ageri da, zeren gaiak atzemande hori behar adinako arrazoirik gabe edo, gutxienez, neurria oinarritzen duen arrazoi zehatza zein den adierazi gabe egiten dela salatzen baitute. Horrela, batzutan salgaia bereganatzen dute eta beste batzutan ez, nahiz eta gai bereko salmenta izan. Nolanahi ere, gehien egiten den kexak dioenez, gehienetan, saltzaileak udal horretan salmenta ibiltarian aritzeko baimenik ez duela ikusi ondoren ekiten zaio salgaiak kentzeari. Honek esan nahi du gaiak kautelaz hartze hori Merkataritza Jarduerari buruzko Legeak eta ordenantzek adierazitako arrazoi eta prozeduratik kanpo ematen dela.

Gure iritziz, indarreango legeriaren arabera ez dirudi oso egokia denik agintearen irizpidearen esku uztea edo udaltzainen gain jartzea, gizabidezko arrazoiak kontuan izanik, salgai horiek salmenta ibiltaria burutzen duen pertsonaren biziraupenerako beharrezkoak diren ala ez erabaki beharra.

Gainera, ez da batere pozgarria gertatzen salgaiak hartu eta gordetzeko eta salmenta ibiltarian udal baimenik gabe jardutea zigortzeko espedienteari ekiteko erabakiak ere ez ezertarako ohartaraztea salgaiak kautelaz hartzeko arrazoiak, eta salatuak salmenta ibiltaria burutzeko behar zen baimenik ez erakutsi izana besterik ez aipatzea.

Dekomisioa noiz eta nola egin behar den zehazten duten udal ordenantzak izanik, eragindakoez salatzen duten irizpide hutsune hori saihestu beharreko zerbait dela iruditzen zaigu.

Salgaiak kautelaz atzemateko erabakia udaltzainen esku geratzen bada, jarduera mota honen ardura duten udaltzainek prestakuntza berezi bat beharko lukete honi buruz, kontsumitzailearen eskubideak noiz kaltetzen diren erabaki eta dekomisioa berme guztiekin egin dezaten, eta horrek, besteak beste, neurri hori zergatik hartu zen adieraztea eskatzen du.

Zentzuzkoa denez, jarduera horiek agiriren batean jaso beharko lirateke, salaketarekin egin ohi den bezalaxe, eta, beraz, zehazki identifikatu beharko litzateke kautelaz hartutako salgaia, kopurua, marka -izanez gero-, eguna, ordua, lekua, neurriaren zergatia, erabakia hartu duen udaltzain edo ikuskatzailea, salgaia kendu zaion saltzailea, gaiak non gorde diren eta agerliarraren nahiz dekomisioaren arduradunaren sinadura. Halaber, eragindako pertsonari akta honen kopia bat eman beharko litzaioke, salaketarekin egiten den bezalaxe.

Udal erakundeek dekomisio akten eredu normalizatuak dituzte. Baina, horiek ez direla beti betetzen kritikatzin dute saltzaileek, eta horrek izugarri zailtzen du salgaiak itzultzea, behar bezalako baimenik gabe salmenta ibiltarian aritzeagatik osatutako zehapen espedientearen ondoriozko ebazpenean ez denean, zehapen erantsi gisa, hasiera baten kautelaz hartutako salgaien dekomisioa erabakitzen.

Dekomisioa, zehapen gisa, lehen adierazi dugunez, salgaiak faltsifikatuak, iruzurrezkoak edo identifikatu gabeak direnean edo haiek merkaturatzeko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenean bakarrik erabaki daiteke espedientearen ebazpenean.

Guztientzat eredu bihurtzeko inolako asmorik gabe, egoki deritzogu Gasteizen Eguberrietako kanpaina burutu den lankidetzaren esperientzia aipatzea. Hiri honetan,

salmenta ibiltariaren jarduerari buruzko ikuskatze eta exekuzio lanak elkarren artean burutu dituzte Osasun eta Kontsumorako Udal Departamentuak (DEMSAC) eta Hiritarren Segurtasunerako Zerbitzuak. Lankidetzaz horren ondorioz bi departamentuetan atxikitako hainbat udal funtzionariok egiaztatu dute salgaien jatorria eta kalitatea, eta salgaiak kautelaz atzeman dituzte, iruzurra zegoela edo pertsonak edo ondasunak kaltetzeko arriskua zegoela uste izateko arrazoizko zantzuak somatzen zirenean. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago erabaki hori DEMSACeko ikuskatzaileek hartu dutela, eta horiek beraiek bete dituztela dekomisoaren aktak.

Kontuan izan behar dugu salgaiak kautelaz atzemateak jabetza kentzea esan nahi duela, eta jabetza pribatuaren eskubidea Konstituzioaren 33. artikulua eta Kode Zibileko 348. eta 349. artikuluek aldarrikatu eta bermatzen dutela. Beraz, administrazioek egiaztatu egin beharko dute kontsumitzaileen interesen babesak arrazoitzen duela hartutako erabakia. Baina, gomendio honetan behin eta berriz esan dugunez, Merkataritza Jarduerari buruzko Legeak ezartzen du dekomisoa zein kasutan eta nola erabaki behar den.

Ondorioak:

1. Saltzaileei alferrikako kalteak eragitea saihesteko, udal aginteak begirunez jokatu beharko du salgaiak kautelaz atzemateak zein kasutan eta zein prozedura bidez erabakitzen den ezartzen duten arauak.

2. Kautelazko neurriak hartzeko baldintzak betetzen direnean soilik ekingo dio udal aginteak dekomisoari. Betiere, erabaki hori salatuaren aldeko berme guztiekien hartu beharko da eta era arrazoituan, zeren arrazoitze zuzenik ez egiteak, batetik, eragindako pertsonaren defentsa aukerak murrizten baititu eta, bestetik, administrazio jarduerara nahiko arrazoirik gabea izan denaren kutsua eransten baitio.

3. Ezin dugu ahaztu arauzko udal baimenik gabe salmenta ibiltarian aritzea, berez, urraketa larri bezala zehatu daitekeen jokabidea dela. Baina zehapena ezin da besterik gabe ezarri, baizik eta zehapenerako ezarritako prozedura jarraituz salaketa behar bezala izapidatu ondoren eta, betiere, salatuari entzunaz, bere defentsarako arrazoiak eta frogak proposatu eta aurkezteko aukera eman.

4. Faltsifikatuak edo iruzur bidezkoak diren salgaiak edo merkaturatzeko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten salgaiak dekomisatzea, zehapen erantsi gisa, zehapen prozeduran zehar frogatutakoaren ondorioz erabaki beharko da beti.

2. HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOAK AUTONOMIA ERKIDEGOAN DUEN HEDADURA

1996. urteari dagokion Txostenean, Arartekoak gomendio bat zuzendu zien herri administrazioei "Haur hezkuntza eta erantzukizun familiarren eta profesionalen arteko adiskidetzeta" izenburupean, eta bere helburua, haur hezkuntzari dagokion adinean haurrak eskolaratzen direnean sortzen diren zenbait arazo aztertzea zen.

Arartekoaren aurrean oraindik ere behar bezala argudiatutako kekek aurkezten direla ikusirik, beharrezkoa iruditzen zaigu lehengo arazo horretara itzultzea, funtsezkoa deritzogun alderdi bat azpimarratuz: nola ezartzen den matrikularen eskaintza haur hezkuntzako 1. zikloan, aldez aurreko plangintzarik gabe, eta horrek dakartzan ondorioak.

Jaso ditugun kekek aurreste bera dute denek, hots, ez dagoela plangintza egoki bat, eskolaratzeko eskakizunak berdintasunezko egoera batean bete daitezela xedetzat duena eta herri administrazio guztien arteko lankidetzaren emaitza izango dena.

Funtsean bi eratako kekek aurkitzen ditugu: a) bi urteko ikasleen gurasoek egindakoak, zeren ikusten baitute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxeetan ez zaiola erantzuten eskolaratzeko eskakizunari, eta b), ikastetxeek aurkeztutakoak, finantzaketa arazo bat sortu zaiela azaldu baitute, zenbait administrazioiok -Gipuzkoako Foru Aldundiak, esaterako- iragarri duten finantzaketa murrizketaren ondorioz eta Eusko Jaurlaritzak titulartasuna duen ikastetxeetan bi urteko ikasgelak irekitzearen ondorioz. Lehenik azkeneko horiek aztertuko ditugu.

A. Herri administrazioen arteko lankidetzeta. Hezkuntza Administrazioaren eskumen berezia eta bere eskaintzaren koordinazioa.

Gipuzkoako haur hezkuntzako ikastetxeen kolektibo batek bere egungo finantzaketa publikoari batez ere eragiten dioten zenbait kexa aurkeztu ditu.

Proposatutako arazo horrek berekin dauzkan alderdi ezberdinak aztertzean, ikusi dugu ikuspegi ezberdinak daudela azterketa hori egiten duen administrazioa zein den kontuan hartzen badugu, hots, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila den edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Departamentua den.

Kexa horiek azaleratu duten egoera balio handikoa gerta daiteke hemen egingo ditugun zenbait gogoeta beste herri administrazio batzuekiko lankidetzaren antzeko kasuetan ere aplika daitezten.

Bi administrazio horiek, nahiz modu ezberdinean, haur hezkuntzak daukan eskolaratze-arazoaren eragina jasotzen dute: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, batetik, berak duelako Erkidego honetan hezkuntza alorreko eskumena, eta Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak, bestetik, beste aldundi eta udal batzuek bezala, arestian laguntzazko bezala sailkatu den zerbitzu publiko hori zuzenean finantzatzen edo eskaintzen ari den herri administrazio bat delako.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren gaineko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa (LOGSE) onetsi zenean, hezkuntza sistemako etapa bat gehiago bezala egituratu zen haur hezkuntza, eta horren ondorioz, alor honetan hezkuntza administrazioek duten erantzukizuna begibistakoa da.

Bi administrazio horiek beren jarrerak azaltzerakoan erabili dituzten hitzek sumarazten digute ikuspegi ezberdinak daudela haurrek zero urtetik aurrera eskolaratzeko sailkapen berriaren ondoren bakoitzari dagokion erantzukizunaren gainean.

Horren finantzaketari dagokionez, mahaigaineratutako arazoaren muinak lotura handia du Foru Aldundiak haur hezkuntzako ikastetxeetara ekarpenak murrizten joateko agertutako asmoarekin, finantzaketa hori bere gain hartu behar duena Eusko Jaurlaritzak izan behar duela argudiatuz.

Berez, Foru Administrazioetik sustatutako formula hau baliagarria izan daiteke, zeren ez baitu legearen inolako aginduren kontrako aurkaesanik berekin. Nolanahi ere, bertako arduradunek egindako adierazpenen arabera, formula horrek ez dirudi finantzaketa horretan inplikatu dadila lortu nahi den Hezkuntza Administrazioaren onespena izango duenik.

Zehazgabetasunezko egoera horrek, ekidin egin behar den ziurtasunik gabeko egoera batean uzten ditu eragindako ikastetxeak, berauek eskaintzen duten zerbitzuaren jarraipenari eragin baitiezaioke eta, gainera, ez datorrelako bat herri administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan nagusi izan behar duten printzipioekin, horien artean elkarrekiko konfiantzarena.

Jarrerren desadostasun horren aurrean, adierazi beharra dago formula baten edo bestearen aldeko aukera ezin daitekeela izan legeak herri administrazio jakin bati ezar diezazkiokeen finantzaketa obligazioen arabera bakarrik erabaki beharreko gai bat.

Ordenamendu juridikoak hezkuntza sistemaren barruan haur hezkuntza sartu duenean, ez da bere helburua izan ordu arte beste herri administrazio batzuek bere gain hartutako finantza obligazioak eta erantzukizunak Hezkuntza Administrazioaren gain uztea. Arauak finkatu duen bidea, Erkidego honetako herri administrazioen arteko lankidetzarena da, eta hori, beste alde batetik, haur hezkuntza garatzeak eskatzen duen inbertsio ahaleginak berezkoa duen zerbait bezala hartu beharra dago.

LOGSE legeak bere lehen tituluan jasotzen dituen aurreikuspenak egoera horren isla dira, zeren herri administrazio ezberdinei esleitzen baitie haur hezkuntzaren ardura, nahiz, eginkizunen banaketaren arabera, eskaintzaren koordinazioa hezkuntza administrazioen gain geratzen den. Lege Organiko horrek aurreikusten du herri administrazioak izango direla, eta ez bakarrik hezkuntza arlokoak, ardura hori bermatzearen erantzuleak. Horrela dio bere 11. artikuluan:

- “2 ...Herri administrazioek, horrela eskatzen duten biztanleen eskolaratzea ziurtatzeko nahikoa den plaza kopurua egon dadila bermatuko dute.
3. Hezkuntza administrazioek koordinatuko dute herri administrazio ezberdinen haur hezkuntzako eskola-postuen eskaintza...”

Bestetik, gure Erkidegoaren esparruan, Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legeak (EEPL) antzeko zentzuan aztertzen ditu botere publikoek haur hezkuntzarekiko dituzten obligazioak. Bertako bederatzigarren artikuluan, bigarren apartatuan, ondorengo dio:

- “2. Hezkuntza Administrazioak, gizarte eragile eta administrazio ezberdinekin lankidetzan, hala eskatzen duten guztientzat zero urtetik aurrerako eskolaratzea ezarriko du urratsez urrats, hezkuntza sektoreei haurrak eskolaratzeko aukeren berri emanaz. Edozein kasutan, ezarpen prozesu horretan lehentasuna emango zaie maila sozioekonomiko txikiena duten eskualdeei, eta oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten edo hizkuntz mailako premiak dituzten ikasleei”.

Botere publikoen obligazioei buruz, EEPLko adierazpenak aski garbiak dira Hezkuntza Administrazioak betetzen duen zuzendaritza eginkizunari dagokionez eta gainerako herri administrazioekin egon behar duen lankidetzari dagokionez.

Lortu nahi den irtenbide horren diseinuak ez badu erdiesten eragindako administrazio guztien eta gizarte eragile guztien partaidetza, ez dirudi Lege horrek 9.2. artikuluan aldarrikatzen duen lankidetzaren behar den moduan erantzungo zaionik.

Aurkitzen diren ziurgabetasunaren aurrean beren kexa aurkeztu duten haur hezkuntzako ikastetxeei dagokienez, Hezkuntza Administrazioak horien finantzaketa bere gain ez hartzeko asmoa adierazi du, argudiatuz bere gain hartze hori ez dela legezko agindu bat, zeren legeak etapa honen antolamendua bakarrik esleitzen baitio Hezkuntza Administrazioari, baina ez horren finantzaketa osoa, horretarako beste herri administrazio batzuekiko lankidetzaren aurrekustean baita.

Bidezkoa den bezala, arazo honen konponbidea legearen aurreikuspenak betetzetik etorri behar du. Baina ez, ordea, eragindako administrazio bakoitzarentzat arauak aurreikusitako obligazioen zerrenda jakin bat bere gain hartzeari begira, baizik eta haur hezkuntza hori hezkuntza sistemaren barruan sartu den arte zero urtetik aurrerako haurren ardura bere gain hartu izan duten herri administrazioek batetik, eta ordenamenduari jarraiki, adin horretako haurren eskolaratzea urratsez urrats ezartzeko lanaren aitzindaritzan jaso duen Hezkuntza Administrazioak bestetik, gauzatutako benetako lankidetzaren ondorio gisa. Ildo horretatik, Hezkuntza Administrazioaren azalpenak, beste herri administrazio batzuek finantzaketan duten erantzukidetasunari dagokionez, arrazoizkoa dirudi.

Argudio honek balio izango digu administrazio bakoitzaren jarrera zein den argitzeko, edo bestela esanda, ikuspuntu tekniko-juridiko batetik horietako bakoitzaren legezko obligazioak zeintzuk izan daitezkeen aztertzeko.

Nolanahi ere, begibistakoa da arazoaren azterketa ezin gera daitekeela jarrera horien zehaztapenean. Arazoa puntu horietan kokaturik, legezko aurreikuspenek hurrengo urratsa egitera behartzen dute, hots, Hezkuntza Administrazioari galdetzea ea, hezkuntza agintaritzan den aldetik, nola bete duen legeak izendatu dion obligazio hori, alegia, eskaintza hori zero urtetik aurrera urratsez urrats ezartzeko lanaren aitzindaritzan burutzearena, EEPLaren 9.2. artikulua adierazten duen moduan.

Eragindako sektoreen, gizarte eragileen eta herri administrazioen partaidetza izango duen plangintza horrek, zero urtetik aurrerako haurren eskolaratzean sortzen diren arazo gehientsuenei irtenbidea emango dien tresna bilakatu behar du, bai ikastetxeetako titularrei dagokienez eta bai gurasoei dagokienez ere, zeintzuek, beren kexen bidez, legeak aurreikusitako hitzetan eskolaratze eskakizunari erantzuten ez zaiola adierazten baitute. Lankidetzaren honekin loturik, 1996. urteari dagokion Txostenean ondorengoa genioen:

“Erakunde honen iritziz, lankidetzaren premia hau oso alderdi zehatzetan gauzatu daiteke eta gauzatu behar da, hala nola eskolaratze premien plangintzan edo programazioan, zeren bestela horrek esan nahiko baitu bai Eskola Publikoaren Lege honek derrigortzen duen jarduketaren bidez hau ukatzea, eta bai plangintza lan honen bereizgarri izan behar duten oinarrizko puntuetako bati iskin egitea ere: eragindako sektore guztien partaidetza.

Horregatik guztiagatik, funtsezkoa iruditzen zaigu, hezkuntza maila honetako zerbitzuen eskaintza programatzerakoan, eragindako eragileen partaidetza bultzatzeaz gain, egun dauden ikastetxe guztiak kontuan hartuz burutu dadila programazio hori.

Aldi berean, beste administrazio batzuen menpeko diren edo gizarte ekimenez sortu diren haur hezkuntzako ikastetxe horien finantzaketa aukerak aztertu beharko dira, baldin eta horien bidez Hezkuntza Administrazioaren sareko herri ikastetxeetatik betetzen ez diren eskolaratze premiei erantzuten bazaie.”

Beraz, bai Arartekoak jasotzen dituen kexek eta bai horien izapidaketak eskaini dituen datuek ere garbi erakusten dute eskolaratze horren ezarpena ez dela burutzen ari modu antolatatu batez eta legez ezarritako irizpideei jarraiki.

Hezkuntza Administrazioaren jokabidea ez da pasiboa haur hezkuntzako lehen zikloko eskolaratzeari dagokionez. Horri eskaintzen dion laguntza materialari dagokionez, udal titularitateko ikastetxeen finantzaketarako urtero burutzen duen laguntza deialdian datza nagusiki bere jarduera, baina halaber, ikasturte bakoitzaren hasieran bere menpeko ikastetxeetan egiten duen eskolaratze eskaintzan.

Bi jarduera horiek, egun dagoen eskaeraren programazioaren barruan aurreikusi beharko lirateke. Halere, zenbait udalek ikastetxe horien eskura jarritako bitartekoak koordinatu, foru aldundiek finantzaturako ikastetxeak kontuan hartu eta EEPLak bere 9.2. artikuluan ezarritakoarekin bat datozen irizpideekin bere baliabide propioak eskainiko lituzkeen plangintza egokirik ez egotea eragozpen bat gertatu da Hezkuntza Administrazioaren eskaintzarekin lotuta jaso ditugun kexa askori erantzun bat emateko orduan.

Gogoeta hauek, arestian adierazi dugun bezala, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe batzuen finantzaketarekin loturiko arazo bat izan dute abiapuntu, izan ere, horietan burutzen den zerbitzu publikoa orain arte finantzatu duen Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi egin baitu horien finantzaketa murrizteko asmoa duela, finantzaketa hori Eusko Jaurlaritzak bere gain har dezan.

Arazo hau arestian azaldutako gogoeta horien arabera aztertu ondoren, Arartekoak atera duen ondorioa da orain arte finantzaketan parte hartu duten herri administrazioek finantzaketa hori eteten baldin badute, Hezkuntza Administrazioarekin eta eragindakoekin hitzarmen baten barruan jaso gabe, bi urtetik aurrerako haurren eskolaratzearen urratsez urratseko ezarpenari buruz ordenamendu juridikoak ezartzen dituen aurreikuspenen aurkakoa izango litzatekeela.

Ikastetxe hauen tratamendua, haur hezkuntzako lehen zikloarekin zerikusirik duten beste alderdi batzuekin batera, eskolaratze premiei buruzko plangintzaren barruan sartu beharra dago, eta horren ordenamendurako, EEPLak Hezkuntza Administrazioari esleitzen dio erantzukizuna.

Herri administrazioen arteko lankidetzari eragiten dion alderdi honetaz gainera, arestian azaldu dugu ikastetxe hauei eragiten dien arazoaren beste alderdi bat litzatekeela Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko diren herri ikastetxeetan bi urtekoentzako ikasgelak irekitzea.

Ikasgela horien irekierarekin batera horri dagokion eskaera baldin badator gerora, aipatutako departamentu horren jarduera arazoizkoa dela ulertu beharra dago. Nolanahi ere, erabaki hori ez badu plangintza batek babesten, erantzun bat eman behar zaion biztanleria horri begira finkatu beharreko irizpideez gain (EEPLko 9.2. art.) haur hezkuntzako beste ikastetxe batzuk ere badaudela kontuan hartuko dituen, orduan arriskua dago horien jarraipena zalantzan geratzeko.

1996. urteari dagokion txostenean jasotako gomendioan aztertu genuen arazo hori, eta bertan adierazi genuen zein garrantzitsua den hezkuntza maila honetako zerbitzuen eskaintzaren programazioan, eragindakoek parte har dezatela bultzatzea ez ezik, baita programazio hori burutzea ere egun dauden ikastetxe guztiak kontuan izanik.

Horrek bigarren ondorio batera garamatza, hots, hezkuntza zerbitzu honen eskaintza urratsez urrats ezarri behar horrek -Hezkuntza Administrazioaren aldetik bi urtekoentzako ikasgelak ere horren barruan sartuz-, plangintza bati erantzun behar diola, hezkuntza

eta gizarte arloko eginkizun bat betetzeaz gainera herri administrazioak finantzatzen ari diren haur hezkuntzako ikastetxe guztiak kontuan hartuko dituen.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ikastetxeekin batera titularitate ezberdineko beste batzuk ere egoteak -eskolaratzearen eskaera horri erantzuten ari direnak-, beharrezkoa egiten du eskaintza hori antolatua izan dadila, eta legeak ezartzen duen urratsez urratseko ezarpen horren lehentasunekin bat datozen aurreikuspen batzuen emaitza izan dadila.

Jakina, bi urtekoentzako ikasgelak plangintzarik gabe irekitzeak ez die soilik gainerako ikastetxeei eragingo, baizik eta gurasoen eskubideei ere eragin diezaieke, zero urtetik aurrerako eskolaratzea urratsez urrats ezarri eta bertan sartzea berdintasuneko baldintzetan gauzatu dadila eskatzeko eskubide gisa ulerturik, Legeak zehaztutako irizpide objektiboekin bat etorritik. Legeak aurreikusten duen urratsez urratseko ezarpen hori ez bada programazio orokor baten barruan gauzaten, aipatutako EEPL horrek jasotzen dituen printzipioekin bat datorrena, irudipena sor dezake ikasle batzuei eta besteei modu ezberdinez kontu egiten zaiela, eta bereizkuntza horrek ez duela justifikaziorik.

Arartekoaren iritziz, kasu guztietan beharrezkoa den plangintza hau are garrantzitsuagoa bilakatzen da honakoa bezalako esparru batean, non hezkuntza ez baita derrigorrezkoa. Gainera badago beste arrazoi bat gehiago: egun, egoera berean dauden zenbait gurasok oso baldintza ekonomiko ezberdinetan eskolaratzen dituzte beren 2 urteko seme-alabak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxeetan tokia lortzen duten ala ez.

Ziklo honetako haurren zenbait gurasok Arartekoaren aurrean egin dituzten kexa ezberdinek adierazgarri gisa balio izan dezakete benetan tratu ezberdin bat dagoela pentsatzeko, bai sartzeko unean eta bai eskolaratze horrek izango dituen baldintza ekonomikoetan ere.

Oraindik bere gain hartu gabeko irakaskuntza maila bat izatea, edota gurasoentzat 2. ziklorako aitortutakoaren parekoa den eskubide subjektiborik ez egotea, ez dira ezberdintasun hori azaltzeko nahikoa argudio. Jarraian, kexa horiek azaleratu duten arazoa aztertuko dugu.

B. Euskal eskola publikoan eskaintza hori berdintasuneko egoeran urratsez urrats ezartzeko gurasoek duten eskubidea, Legeak finkatutako lehentasunetan oinarriturik.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxeetan bi urtekoentzako ikasgeletan eskolaratzeko beren eskaerari erantzun ez zaiola ikusi duten gurasoengandik jasotako kexei buruz balioespen bat egingo da jarraian. Plaza-eskaintza honek itxaropen handiak sortu ditu guraso askorengan, hain zuzen ere, eskaintza horrek, berau eskuratzen dutenentzat zerbitzu hau dohainik izango dela esan nahiko baitu, besteak beste.

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak aurreikusten du zero urtetik aurrerako eskolaratzearen ezarpena urratsez urrats gauzatuko dela. Hori dela eta, eskaerari ematen zaion erantzuna oraindik partziala izatea ezin daiteke hartu, printzipioz, obligazioen ez-betetze bat bezala.

Nolanahi ere, aipatutako lege horren arabera Hezkuntza Administrazioak zero urtetik aurrera ikasleen eskolaratzea urratsez urrats ezartzeko modua aztertzen badugu, adierazi beharra dago jarduera horrek, alderdi askotan, ez dituela kontuan hartzen legeak

finkatutako irizpideak. Gogora dezagun hemen 1/1993 Legeak zer dioen, bere 9. artikuluan, ezarpen irizpideei dagokienez:

“9. -2. Artikulua.- ...Edozein kasutan, ezarpen prozesu horretan lehentasuna emango zaie maila sozioekonomiko txikiena duten eskualdeei, eta oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten edo hizkuntz mailako premiak dituzten ikasleei”.

Plangintza, Legeak finkatutako lehentasun batzuen arabera eskaintza antolatu behar duen tresna gisa harturik, funtsezko elementu bihurtzen da berriro, eta Hezkuntza Administrazioaren jardura zuzena den ala ez zehazteko balio izango du. Ildo horretatik, lehen zikloko plazen eskaintzak dagoen eskaera guztia estaltzen ez badu ere, hura behar bezala arrazoitua egongo da horren ezarpena legeak ezarritako irizpideetan oinarriturik programatu baldin bada, eta irizpide horiek, edonola ere, maila sozioekonomiko txikiena duten eskualdeei eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten edo hizkuntz mailako premiak dituzten ikasleei lehentasuna ematea izango dute helburu.

Hezkuntza sistema orokorki ezartzeko LOGSE legeak aurreikusitako epe orokorrak pentsaraz dezake epe hori betetzen ez den bitartean ez dela obligatorik izango zero urtetik aurrerako eskaintza ezartzeari dagokionez. Dagokigun gai hau arautzeko EEPLak darabiltzan hitzek ez dute aukerarik ematen halako interpretaziorik egiteko.

Hala eskatzen duen biztanleriaren eskolaratzea ziurtatzeko nahikoa den plaza kopurua bermatzen den unean bakarrik hitz egin ahal izango dugu epe bat ezartzeaz. EEPLak bere 9.2. artikuluan ezartzen dituen aurreikuspenek, halere, berehala betetzekoak izan behar dute, eta hori, bere helburuak berekin daraman zerbait da (hain zuzen ere, urratsez urratseko ezarpen hori nola gauzatu behar den arautzea), horretarako lehentasunak finkatuz, nahiz bestetik ez den beharrezkoa izango LOGSEaren lehen xedapen gehigarrian araudiz ezarritako epearen zain egotea.

Haur hezkuntzaren garapena arautzean, ordenamendu juridikoak ez du aurreikusten eskubide erreal eta benetakorik dagoenik, eta, gurasoek horri heldu ondoren, lehen zikloan eskolaratzeko beren eskaerei Administrazioak berehala erantzun diezaiela exijitzeko aukera ematen dienik. Ildo horretatik, plazak sortzeko eskubide subjektiborik ez dagoenez, eskolaratzeko premiei ematen zaien erantzuna oraindik ere partziala izatea ezin daiteke har gurasoek beren eskaera zuzendu dioten administrazio horren -eta kasu honetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren- obligazioen ez-betetze bat balitz bezala.

Halere, plazen eskaintza partzial hori zein baldintzetan gertatzen ari den aztertzen baldin badugu, gerta liteke Hezkuntza Administrazioaren titularitatepeko ikastetxe batean plaza bat lortu dutenak ez izatea hezkuntza zerbitzu hau gehien behar dutenak, Legeak ezarritako irizpideen arabera. Jakina, zalantza hori arestian aipatutako lehentasun horien konparaketa bat eginez bakarrik argitu ahal izango da, eta dagokion plangintzan behar bezala islatu ondoren, aukera emango dute argitzeko zergatik ireki den matrikulatzeko eskaintza jakin bat bi urteko haurrentzat, ikastetxe jakin batzuetan bai, eta besteetan ez.

Oraingoz ohartu gara, Arartekoak horrelakoetan aurkitu duen arazoetako bat, Administrazioak bi urteko eskola-eskaintza zein termino zehatzetan planifikatu zuen egiaztatzeko zailtasuna izan dela.

Bi urteko haurrak ikasgeletan eskolaratzeari helduz, konturatu gara -horrela iradokitzen baitute Arartekoaren aurrean horrekin loturik aurkeztu diren kexek bederen-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarpen hori egin duenean ikastetxearen

beraren baliabide pertsonal edo espazialen arabera bakarrik egin duela, baina eskola-eskaintzaren irekiera horrek alde zuzenetik EEPLak finkatutako lehentasunei egokitutako plangintza bat eduki gabe, hots, maila sozioekonomiko txikiena duten eskualdeei eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten edo hizkuntz mailako premiak dituzten ikasleei erantzuteko xedea izan gabe.

Eskola-eskaintzaren antolakuntzan, botere publikoei aitortzen zaien ahalmen erabakitzailea gauzatuz dihardu Hezkuntza Administrazioak beraren gain utzi den zerbitzu hori burutzeko bitartekoen antolakuntzarik onena zein den zehazteko orduan.

Antolakuntza hori are funtsezkoagoa bihurtzen da oraindik bere gain hartu gabeko ez-derrigorrezko hezkuntza maila bat denean, alegia, egon daitekeen eskaera potentzial horri erantzuteko bitartekorik ez dagoenean.

Kexa espedienteraren bat dela eta, Hezkuntza Administrazioak argudiatu du bitartekoen muga horrek baldintzatu egiten duela Arartekoaren aurrean egindako kexei eman beharreko erantzuna. Jakina, zenbaitetan, bitartekorik ez edukitzeak erabaki dezake zein izan behar duen eskubide jakin bati ematen zaion erantzunaren maila, eta modu horretan, eskubide baten edukiarri buruzko edozein ondorio juridiko antzua gerta liteke ez badago hori betetzeko bitartekorik.

Hori buruz lehenbailehen adierazi behar dugu, gogoeta hauen xedea ez dela egon litekeen bitartekoen eskasia hori, arestian azaldu dugun moduan, egungo eskaintzari ematen zaion erantzun partzial hori ezin daitekeelako har obligazioen ez-betetze bat bezala Administrazioaren aldetik. Ez-betetzea beste bat da, eta bere alderdi askotan gutxienez, ez du zerikusirik bitartekoen eskasiarekin, baizik eta horien antolamenduari, ez baita egokitzen EEPLak 9.2. artikuluan aurreikusitako eta behin eta berriz errepikatutako irizpide horietara.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Arartekoari bidalitako informazio horrek azaltzen du azkeneko ikasturteetan bi urteko haurren urratsez urratseko eskolaratze bati ekin zaiola ikastetxeetako baliabide aukeren arabera. Hori dela eta, Hezkuntza Administrazioak ulertzen du ez dela libreki jokatzeko ari, baizik eta urratsez urratseko ezarpen bat burutzen ari dela, bitarteko batzuek baldintzaturik.

Aurreko horren ondorioz, ikastetxe bakoitzeko baliabideek erabakitzen dute zeintzuk diren lehentasunak, eta legeak finkatutako lehentasun horiek bazterretsiak geratzen dira.

Baliabideen muga hori, prestazio eskubideek berezkoa duten alderdi bat izanik, burutu dugun azterketa honetan kontuan izan dugun alderdi bat da. Edonola ere, gure desadostasuna azaldu behar dugu Hezkuntza Sailak baliabideen muga hori ematen dion hedaturari dagokionez, eta hezkuntza adin honen ezarpenean aurrera egiteko moduari dagokionez.

Bi urteko ikasgela bat ireki dadila erabakitzen duen arrazoia ikastetxe jakin batean dauden baliabideak bakarrik baldin badira, zerbitzu hori eskaintzen zaien ikasleek ezaugarriek zehaztuko dituzte alde zuzenetik eskaintza beraren ezaugarriak. Egia da ikasle horiek eskolaratze hori eskuratzeko eskubidea izango dutela, baina egia da, halaber, oraindik partziala eta, beraz, mugatua den eskolaratze egoera batean gerta daitekeela beste eskualde batzuetako haurrak bazterretsiak geratzea, beren ikastetxeek adin horretan eskolaratzeko eskaerari erantzun bat emateko baliabiderik ez dutelako, nahiz EEPLaren irizpideak aplikatuz gero eskolaratze hori eskuratzeko aukerak baina eskubide hobeak eduki beharko luketen.

Jokaera horren bidez, urratsez urratseko ezarpen bat lortzen da benetan, kopuru absolutoei dagokienez bederen, baina ez zaie erantzunik ematen zenbait lehentasuni,

eta Administrazioak ezin ditzake lehentasun horiek bere gain hartu, aurrez legeak zehaztuak daudelako. Lehentasun horiek ez aplikatzearen ondorioz, gerta daiteke eskolaratuak diren haurrak baino premia handiagoa duten beste batzuei une honetan erantzunik ez ematea.

Testuinguru horretan, gurasoen eskubidea -hots, urratsez urratseko ezarpen hori berdintasunezko baldintzetan gauzatzeko eskubide gisa ulerturik, betiere legeak zehaztutako helburuen arabera- zantpatua izan den ala ez erabakitzeko aukera eskainiko digun plangintza egokirik ez dugunez, modu orokor eta lauso batez bakarrik aztertu ahal izango dugu arazo hori, kexa bakoitzean eskubideen benetako zapalketa bat gertatu den ala ez erabakitzeko modurik izan gabe.

Zenbait kasutan, ohartu gara nolako ondorio kaltegarriak dituen Hezkuntza Sailaren titularitatepeko ikastetxeetan bi urteko ikasgelen eskaintza gauzaten ari den moduak, zeren baliabide erabilgarriak zeintzuk diren kontuan izan gabe jokaten baita.

Hezkuntza Administrazioiko ikastetxeetako bi urteko ikasgelen eskaintzarekin loturik jaso ditugun kexek argi erakusten dute benetan zapaldu egin direla norbanakoen eskubideak. Legebiltzarrari igorritako 1997. urteko Txostenean, hezkuntzari dagokion atalean, minusbaliotasuna duten haurren arazoa azaldu genuen, eta bi urteko ikasgeletan egun dagoen hezkuntza-eskaintzaren egituraren ondorioz nabarmenki kalteturik geratzen dira zenbait haur, hain zuzen ere, minusbaliotasun fisiko edo psikikoak izateagatik ume garaian eskolaratzea ezinezkoa gertatzen zaielako.

Aipatzen ari garen arazo hori ez da hezkuntza premia bereziak dituzten bi urteko haurrak eskolaratzeko unean horiei arretarik ez eskaintzea, baizik eta beren premia bereziei erantzuteko baliabiderik ez edukitzeagatik ikastetxeak beren matrikula-eskaera ezetsi izana.

Horrekin loturik, ikastetxe batean bi urteko ikasgela bat zabaltzeko eta hezkuntza premia bereziei erantzuteko baliabide propiorik izan ez dutenean, Hezkuntza Administrazioak jakinarazi izan dio Arartekoari ezin daitekeela baliabide osagarriarik jarri, horien matrikulazioa bere gain hartu gabeko eskolaratze urrats batean gertatzen delako.

Benetan jokoan dagoena ez da haur hezkuntzako lehen zikloan haurrak berehala eskolaratzeko eskubide hori, baizik eta dauden zerbitzu horiek berdintasunezko baldintzetan eskuratzeko eskubidea izatea. Egungo egoeran, irizpide objektibo batzuen arabera baliabide erabilgarriak antolatuko dituen plangintzarik ez dagoenez, ez dago bermaturik zerbitzu hori berdintasunezko baldintzetan eskuratu denik.

Gogoeta horien bidez aztertu nahi izan dugu nola jokaten ari den Hezkuntza Saila bi urteko ikasgelak irekitzerakoan, legeak ezartzen dituen lehentasunetara egokitzen al diren ikusirik.

Printzipioz, legeak finkatutako lehentasunei jarraiki arreta eskaini behar zaion biztanleria zehaztu beharra dago, eskaintzaren diseinuari ekin baino lehen, eta modu horretan, arreta eskaini beharreko biztanleria zein den kontuan izanik, bi urteko ikasleen matrikulazio-eskaintza gauzatu behar den ikastetxe hori bat ala bestea izango da.

Halere, ez da Arartekoaren eginkizuna erabakitzea nola geratu behar duten aipatutako legezko lehentasun horiek hezkuntza-eskaintzan zehazturik, ezta zein izan behar duen horien diseinua ere. Ildo horretatik, aurreko parrafoan aipatu dugun formula hori ez da ulertu behar gomendio bat bezala erabakitzeko zein izan behar duen EEPLko lehentasunak egituratzeko formula. Hori dela eta, ezin daitezke baztertu beste formula batzuk, hala nola ikastetxe bakoitzean dauden baliabideak abiapuntutzat harturik eskaintza hori legearen lehentasunaren arabera berbideratu dezaketenak, ikasleak bertan onartzeko arau berezi batzuen bidez, esandako lehentasun horiekin bat etorritz.

Eguno egoerari buruzko balioespena egin ondoren, bi urteko ikasleak Hezkuntza Saileko ikastetxeetan onartzerakoan hiru urtetik aurrerakoan matrikulazioak dituen irizpide bereberri jarraiki burutzen ari delarik -izan ere, adin horretatik aurrera ikasle guztiek bermaturik daukate euskal eskola publikoan dohainik eskolaratzea-, honako ondorioa atera dugu: ikasgela horiek irekitzeak dakarren urratsez urratseko ezarpen hori legeak eskatutako lehenetsunak kontuan hartzen ez dituen modu batez egiten ari da, eta hori, nahikoa arrazoi da euskal eskola publikoan plaza bat lortzeko eskubide gehiago duten beste guraso batzuk bazterretsiak geratzen ari direla baieztatzen.

Puntu honetara iritsirik, haur hezkuntzako lehen zikloaren ezarpena planifikatzeko orduan era berean kontuan hartu beharrekoa den beste egoera bat aipatuko dugu: udal erakundeen esparruko titularitatea duten beste herri ikastetxe batzuetan zerbitzu hau nolako baldintza ekonomikotan eskaintzen ari den.

Arestian adierazi dugu eskaintza honek itxaropen handiak sortu dituela Hezkuntza Administrazioa ikastetxeetan, eta beste gauza batzuen artean, dohaintasuna ekarri diela, oro har, horretaz baliatzen direnei. Gauza jakina denez, zerbitzu hori bera eskuratu ahal izateko, beste herri administrazio batzuen titularitatepeko ikastetxeetan -oro har, udal erakundeetan- dagokion prezio publikoa ordaindu behar da, eta dagokion murrizpena aplikatzen da baldin eta eskatzaileek horretarako baldintzak betetzen badituzte.

EEPLak, bere II. tituluaren, hezkuntza jasotzeko eskubidea euskal eskola publikoan nola gauzatu arautzerakoan, dohaineko eskolaratzea aitortzen du, berau osatzen duten ikastetxeen bidez, hiru urtetik aurrerakoentzat (9.1 art.). Dohaintasunaren onura horrek, ordea, ez du bere baitan biltzen zero urtetik aurrerako eskolaratzea.

Ikuspuntu juridiko batetik, derrigorrez bere gain hartu beharrekoa ez denez eta bere dohaintasuna aurreikusten duten legezko araurik ere ez dagoenez, ezin zaio inolako eragozpenik jarri zerbitzu horren truke prezio publiko bat eskatzeari, hezkuntzakoak ez diren beste prestazio-eskubide batzuekin gertatzen den bezala; izan ere, horrelakoetan herri administrazioek dagozkion prezio publikoak ezartzen dituzte zerbitzu hori eskatzen dutenentzat, eta tarifaren murrizpenak egiten dituzte, egoki izanez gero.

Kontuan hartzen baldin badugu Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioa bi urtekoen eskolaratzeari ekin dion tokietan dohainik egiten ari dela -eta hori ez da gertatzen Erkidego guztietan-, derrigorrezkoa gertatzen da beste herritar batzuekin konparatzea, zeren, antzeko egoeran egonik zerbitzu hori bera eskuratzen ari direnak -horiek ere herri ikastetxeetan-, nahiz titularitate ezberdin baten pean, prezio publiko bat ordaintzen ari direlako sarritan horregatik.

Konparaketa honen emaitzak ez du derrigorrez izan behar -behinik behin ez zen hori azterketa honek lortu nahi zuen helburua- Hezkuntza Saileko ikastetxeetan haur hezkuntzako lehen zikloaren eskolaratzeak duen dohaintasun hori, dagokion ordenantza fiskalaren arabera prezio bat ordaindu dadila eska litekeen beste herri ikastetxetara zabaltzea.

Hemen horren aipamena egitea xehetasun horri zor zaio, egoera berean dauden pertsona batzuk baldintza ezberdinetan eskuratzen baitute zerbitzu bera, eta horrexegatik kontuan hartu beharreko faktore bat da, eta arestian adierazitakoei gehitzen zaien beste argudio bat, hezkuntza adin-tarte honetako eskaintzaren ezarpena plangintza egoki baten emaitza izan dadin.

Beraz, aurrekoak bezain funtsezkoa den beste argudio baten aurrean gaude haur hezkuntzako lehen zikloan egungo eskola-eskaintzaren plangintza bati ekiteko, zeren plangintza hori, beti garrantzitsua izan arren, are garrantzitsuagoa baita honakoa bezalako esparru batean, non hezkuntza ez baita derrigorrezkoa, eta horrenbestez, ez dago

bermaturik eskaintza, eta gainera, dohainekoa ez denez, hori finkatuko luketen irizpide objektiborik ez dagoelako gerta liteke horrela.

Ondorioa:

Arartekoak 1996. urteari dagokion Txostenean izaera orokorrean egin zituen gomendioen artean, haur hezkuntzarekin zerikusirik zuten alderdi ezberdinak -ez soilik hezkuntza alorrekoak- azpimarratu ziren.

Haur hezkuntzaren lehen zikloak baditu zenbait irakasgai oraindik gainditu gabeak bere ezarpenean. Arrazoi horiek eragin dizkigute hemen egin ditugun gogoetak.

Hausnarketa horiek guztiak aurreuste beraren ingurukoak dira, hots: egiten diren kexa horien betiko arrazoi izan ohi diren arazo askori erantzuna eman beharko liekeen plangintza egokirik ez egotea.

Hezkuntzazkoaz gain gizarte eginkizun bat betetzen duten ikastetxe pribatuen finantzaketari erantzun bat ematea, edo haur hezkuntzako lehen zikloaren urratsez urratseko ezarpena -gauzatzen den tokietan- legeak finkatutako irizpide objektiboen arabera burutu dadin gurasoek duten eskubideari erantzun bat ematea, eta azkenik, hezkuntza adin-tarte honen eskolaratzea herri ikastetxeek dituzten baldintza berdinetan gauzatu dadila lortzea, plangintza baten esparruan konponbide bat bilatu behar zaien arazoak dira guztiak.

Horregatik, lerro hauen helburua, Euskal Eskola Publikoaren Legean aurreikusitakoaren arabera, zero urtetik aurrerako eskolaratzea ezartzeko urrats guztiak bertako 9.2 artikuluan ezarritako lehentasunekin bat datorren plangintza baten esparruan egin daitezela gomendatzea da. Halaber, lehen zikloko eskolaratzea berdintasunezko egoeran gauzatzeko egoki diren neurriak hartzea.

3. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO PROZEDURETAN, LEHENDIK ESKAINITAKO ZERBITZUAK MEREZIMENDU GISA BALORATZEA

Funtzio publikoan sartzeko prozeduretan lehendik eskainitako zerbitzuen balorazioa egiteko erari dagokionez kexa ugari jasotzen ditu erakunde honek. Kexa horietan, EKren 23.2 artikulua enplegu publikoak eskuratzeari dagokionez adierazten duen berdintasun printzipioa urratzen ari ez ote den salatzen da, deialdia egiten duen administrazioan egiaztaturiko esperientzia bakarrik baloratzen delako, edo esperientzia hori lehentasunez baloratzen delako, beste herri-administrazio batzuetan egiaztaturikoa bazterturik.

Ararteko erakundeak kexa horietako batzuen inguruan aurrera bultzatu dituen jarduketan berri eman izan du Eusko Legebiltzarraren urtez urteko txostenetan. Nolanahi ere, alde aurreko esperientziari dagokion merezimenduaren balorazioari buruz atera ditugun ondorioak modu orokorrean azaldu nahi genituzke, gure gomendioa zentzuzkoa gerta dadin. Hori kontuan izanik, gure azalpenari hasiera emateko, enplegu publikoak eskuratzeko arautu behar duten printzipioak azalduko ditugu laburzki.

Gauza jakina denez, eginkizun eta kargu publikoak berdintasunez eskuratzeko eskubidearen adierazpenaren arabera -EKren 23.2 art.-, enplegu publikoak eskuratzeko prozeduraren baldintzek eta arauak orokortasun, abstrakzio eta objektibotasun ezaugarriak izan behar dituzte. Alde horretatik, Lan Auzitegi Nagusiak adierazitakoaren arabera, ez dago *ad personam* moduko erreserba bat ahalbidetuko duen erreferentzia indibidual eta berezirik onartzerik.

Nolanahi ere, auzitegi horrek berak adierazi duenez, merezimenduaren printzipio konstituzionala aplikatuz, ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak alde aurretik aukeratzeak ez du berez erreferentzia indibidual eta berezirik adierazten, ez behintzat merezimendu horrek oinarri objektiboa baldin badu, eta EKren 103.3 artikuluari nahitaez loturik badago; horren ondorioz, lanpostuak eskuratzeko irizpideak hautagaien merezimendu eta gaitasunari bakarrik egokitu behar zaizkio, bestela arbitrariotasunez jokatuko bailitzateke.

Beraz, eginkizun edo enplegu publiko batean alde aurreko esperientzia administratiboa merezimendu gisa hartzea ez da berez berdintasun-eskubideari kalte egiten dion erreferentzia indibidualizatu eta berezi gisa ikusi behar, eskainitako zerbitzuei ematen zaien maila merezimendu eta gaitasun kontzeptuari loturik baitago; izan ere, zerbitzuen denbora efektiboak eginkizun edo enplegu publiko batean jarduteko gaitasuna eta prestakuntza adieraz dezake.

Hitz gutxitan esanda, ez dago arazorik onartzeko antzinatasuna edo esperientzia merezimendu bat dela, eta esperientziari garrantzia ematea ez dela berdintasunaren aurkakoa, eta tratu gorabeherak justifika ditzakeen kalitate bat den neurrian, ez dituela EKren 14. eta 23.2 artikulua urratzen.

Hala ere, orokortasun eta abstrakzio ezaugarri horiez gainera, enplegu publikoa eskuratzeko prozeduraren baldintzek arrazoizkotasuna eta neurritasuna ere izan behar dute.

Izan ere, arrazoizkotasun eta neurritzutasunaren aplikazio praktikoak arazo eta desadostasun ugari sortzen ditu. Ildo horretatik, antzinatasuna edo alde aurreko esperientzia merezimendu gisa baloratzeko aukera onarturik, arrazoizko eta neurritzko balorazio batek izan behar dituen mugak ezartzerakoan sortu ohi dira zalantzak.

Zorionez, Lan Auzitegi Nagusiak eta beste organo judizial batzuek behin baino gehiagotan emandako epaiei esker, antzinatasunak edo alde aurreko esperientzia

administratiboak funtzio edo enplegu publikoetan izan behar dituzten mugak zehatz samar ezartzen ari dira.

Horri dagokionez, gomendioaren helburuari buruzko azalpen bat egin behar dugu. Bere helburua, funtzio publikoan sartzeko ohiko deialdiei dagokie, alde aurreko esperientzia adminitratiboa merezimendu gisa hartzea aztergai harturik. Horregatik, izaera iragankorreko legezko aurreikuspenetan babesturiko eta legeak eraberritu edo aldatzeko garaian adierazi diren merezimendu horren salbuespenezko trataerak alde batera utziko ditugu.

Salbuespenezko trataera horiei dagokienez, esan behar da Lan Auzitegi Nagusiak lanpostuak eskuratzeko era berezi bat onartu duela kontratatuentzat eta bien bitarteko langileentzat, denboran deialdi kopuru mugatu bat ezarriz (EKE 67/1989). Alde horretatik, Goi Auzitegiak, deialdia egiten duen administrazioan eskainitako zerbitzuak soilik eta lehentasunez baloratzeko aukera baietsi zuen, neurri horren arrazoizkotasuna eta egokitasuna berretsiz, kontuan harturik betiere bertako pertsonalarentzat sortzen hasi berriak diren egiturak modu egonkor eta normalizatuan finkatu eta antolatzeko helburua lortu nahi dela.

Gure Erkidegoa ez da epai horretan adierazitako neurri berezietatik kanpo geratu. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztaileko 6/1989 Legeko laugarren xedapen iragankorrek, bere garaian, behin-behineko izaera edo aldi baterako lankidetzarako administrazio-kontratua zuen pertsonalak eskainitako zerbitzuak lehentasunez baloratzea xedatu zuen, lege hori indarrean jarri ondoren egingo ziren aurreko hiru enplegu-eskaintzetarako. Izan ere, ohiz kanpoko enplegu-eskaintza batzuk alde aurreko zerbitzuei lehentasuna emanaz baloratu eta burutu ziren.

Azpimarratu behar da, ordea, deialdi horiek guztiak, behin-betiko antolatu beharreko administrazio-egiturak zentzuz eratzeko ahaleginen edo egoeren emaitza izan zirela; beraz, ez ziren sarrera arrunt edo ohikoaren neurrietara egokitzen.

Administrazio batzuek, ohiz kanpoko deialdi horietakoren bat aurrekari gisa harturik, eta EKren 23.2 art.an adierazitako berdintasun printzipioa urratzen ez dutela uste izanik, eskainitako zerbitzuak berariaz eta lehentasunez baloratzeko aukera hori zabaldu nahi izan dute erabat ohikoak diren deialdietara.

Adibide gisa aipa ditzakegu, besteak beste, Eusko Legebiltzarreko administrazio-laguntzaile postuak betetzeko lehiaketa-oposizioaren deialdia, 95.10.09.ko 193 zk.dun EHAAn argitaratua. Horretan, alde aurreko esperientziaren balorazioa Eusko Legebiltzarrean eskainitako zerbitzuetara mugatua zegoen (erref. 890/95. Ikusi kexaren laburpena Eusko Legebiltzarren 1995eko Txostenean, 125-128 or).

Hala ere, zerbitzuak aldi batez edo behin-behinekoz eskaini dituen pertsonal propioaren finkapena bultzatu nahi dutenen sakoneko asmoa, batzuetan argi eta garbi adierazia gainera, ezin da inolaz ere bidezkotu edo oinarritu 6/1989 Legeko laugarren xedapen iragankorrean adierazi diren bezalako aurrekarietan; izan ere, lege horren hedadura ohiz kanpoko da, eta hartan berariaz aurreikusitako kasuetara mugaturik dago.

Beraz, egoera berezietan oinarriturik aukeratutako salbuespenezko irizpideak babesten dituen legeria berezirik ez dagoenez, deialdia egiten duten administrazioek sarrerarako printzipioetara egokitu behar dituzte beren oinarriak, pertsonala aukeratzeko ohiko prozeduraren egiazko izaera gaizki ulertu gabe.

Beraz, balorazioa egiterakoan, alde aurreko esperientzia hori deialdia egiten duen administrazioan eskainitako zerbitzuetara bakarrik mugatu nahi bada, Eusko Legebiltzarrak egindako deialdian bezala, horren justifikazioa lanpostuaren ezaugarrietan

bilatu beharko da, lortu nahi den balorazio berezia kontuan izanik. Bestela, deialdiak itxuragabetu egingo dira, eta ondorioz, baita hautaketa-prozedurak ziurtatu behar dituzten bermeak ere.

Gomendioari buruzko hasierako ohar edo azalpen hori egirik, garbi esan beharra dago ez dela arrazoizkoa ez neurritzkoa deialdia egiten duen administrazioan eskainitako zerbitzuak berariaz eta lehenasunez baloratu nahi izatea, ez behintzat beste administrazio batzuetan eskainitako zerbitzuak bete nahi diren lanpostuen edukiarekin lotura edo egokitze funtzional bat izan ezean.

Sarritan gertatu izan da, sarrerako prozeduretarako deia egin duten herri-administrazioek, haietan eskaini diren zerbitzuak bakarrik baloratzeko ezintasuna ikusirik, bertako pertsonala sartzeko aukerak bultzatu nahi izatea, eta horretarako pertsonal horrek eskainitako zerbitzuen balorazioa bultzatzea, beste administrazio batzuetan beste hautagai batzuek egiaztaturiko zerbitzuen kaltetan.

Adibide gisa aipa ditzakegu, besteak beste, UPV/EHUko maila desberdinetan karrerako funtzionario gisa sartzeko hauta-proben deialdiak, 96.12.10eko 297 zk. EHAAan argitaratuak (1582/96 erref. Ikus kexaren laburpena 1997ko Eusko Legebiltzarren Txostenean, 156-158. or.).

Deialdi horiek balorazio desberdina izan zuten -bai lan egindako hilabete bakoitzeko emandako puntuazioari zegokionez, eta bai gehieneko puntu kopuruari zegokionez-zerbitzu horiek UPV/EHUn edo beste unibertsitate batzuetan eskaini izanaren arabera. Jakina, eskainitako zerbitzuak era horretan neurtzeak zalantzan jarri zuen enplegu publikoak eskuratzeko berdintasunaren printzipioa.

Hain zuzen ere, deialdi horietako bat Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko (EHJA) Administrazioarekiko Auzietarako Salak aztertu zuen, eta 1997ko urriaren 15ean emandako epaian, balorazio desberdinak ikusirik, eta beraz, alde aurreko esperientzia neurtzerakoan diskriminazioa egiten zela oharturik, honela baitzioen:

“... Eta, seguru aski, aurka egin zaion arauan adierazten den tratu bereizketa batzuetan bidezkoa izan daiteke, eta ez doa beraz EKko 14. artikuluan aurreikusitakoaren aurka. Esan behar da ordea, bereizketa hori arrazoizkoa den kasuei buruz ari garela, egoera jakin batean beharrezkoa edo egokia den kasuei buruz hain zuzen. Gure ustez, epaitzen ari garen kasu honetan ez da horrelakorik gertatzen, hautatu nahi diren funtzionarioek bete behar dituzten eginkizunak ez baitira beste unibertsitate batzuetako, edo are beste administrazio bateko funtzionarioek bete behar dituztenetatik hain desberdinak.”

EHJAren epaiak, funtsean, ez du arrazoizko jotzen UPV/EHUko behin-behineko funtzionarioak eta beste unibertsitate-administrazioetakoak edo unibertsitatez kanpoko administrazioetakoak era horretan bereizi izana, eta horretarako erreferentzia gisa 281/1993 LEEa hartzen du, epai horrek honela baitio:

“Hala eta guztiz ere, administrazio lanpostuetan hartutako esperientziari buruz eraturiko merezimendu-lehiaketa batean, Udal batek maila jakin baterako adierazitako esperientzia (deialdiko lanpostuei dagokiena) tamaina horretaraino eta hain neurri gabe hobestea -eta ondorioz, lehiaketaren azken emaitzaren alderdi erabakigarria izatea- berdintasunaren printzipio konstituzionalaren aurka doa erabat (...)
Lan Auzitegi Nagusiaren 42/1981 epaiak zioen bezala: *gaitasun teknikoaren arabera ezarritako bereizketa hori, burutu beharreko eginkizunen berezko helburuetara egokitu behar da (horri esker, lehiaketaren bidez bete beharreko lanpostuen*

berdinak edo antzekoak diren lanpostuetan hartutako esperientzia merezimendu gisa har daiteke), eta izaera orokorrean ezarri behar da; hau da, ezagupen jakin batzuei edo horiek egiaztatzen dituen titulazio jakin bati buruz zuzeneko erreferentzia eginez, baina horrelako ezagupenak nola edo non eskuratu diren adierazi gabe, zeren, formula horietako edozein erabiliz gero, zentzugabeko bereizketa bat ezarri, eta ondorioz, berdintasunaren printzipioa bortxatuko balitzateke.

Eta zentzugabeko bereizketa da, hain zuzen, epaituriko baremoan agertzen dena..., zeren, hautagaiak bereizte hori, esperientzia zein Udaletan lortu duten kontuan izanik, baina esperientzia berari begiratu gabe, ez baita berdintasunaren printzipio konstituzionalarekin batera joan daitekeen arrazoizko irizpide bat."

Ikus daitekeen bezala, epai horietan azpimarratu egiten da ezen, eskainitako zerbitzuak arrazoiz eta zentzuz neurtuko badira, bete beharreko lanpostuekin lotura edo egokipen funtzionala duten zerbitzu guztiak berdintasunez baloratu behar direla, zerbitzu horiek zein administrazioan eskaini diren kontuan hartu gabe.

Alde horretatik, argigarria da oso, 1998ko otsailaren 25eko Autoa, lehenago aipatu dugun 1997ko urriaren 15eko epaia burutzeko izapidea gauzatzeko ale bereizian emana. Auto horrek adierazten duenez, unibertsitatean zerbitzuak eskaintzeagatik lortutako merezimenduak modu ezberdinean baloratzeko aukerak funtzio eginkizunei loturik egon behar du.

Hala ere, epai horien argitasuna gorabehera, praktikan desadostasunak gertatzen dira funtzio publikoan sartzeko prozeduretan alde aurreko esperientzia baloratzeko aukerei dagokienez. Gure ustez, desadostasun horiek kontuan izanik, lanpostuak eskuratzeko prozeduretarako deialdia egiten duten herri-administrazioen jarrera-aldaketa bultzatu eta sustatu behar da.

Ez dugu uste oker gaudenik esatean, gaur egun deialdia egiten duten administrazioek behin-behineko funtzionario edo aldi baterako kontratatu gisa aurkez litezkeen hautagaiak bultzatu nahi izaten dituztela sarritan.

Izan ere, lanpostuak eskuratzeko deialdiak geldiaraztearen ondorioz, behin-behineko edo aldi baterako kontratua duen pertsonalak, denbora joan ahala, behin-behineko zerbitzuekin duen lotura indartu eta finkatu egiten du. Horregatik, ulertzekoa da, deialdia egiten duten administrazioek, funtzio publikoa berrantolatu edo berritzeko garaian lehentasunezko balorazio tratuak bultzatu nahi izatea.

Dena dela, arazoa era horretara uler badaiteke ere, erakunde honen ustez, administrazioek erabat alderantzizko jarrera izan beharko lukete. Hau da, administrazio-esperientzia merezimendu gisa baloratu behar dela onarturik, deialdia egin duen administrazioan eskainitakoan desberdinak diren beste zerbitzu batzuen balorazioa baztertu nahi bada, hori argi eta garbi bidezkotu eta arrazoitu beharko da.

Ideia hori argiago azaltzeko, interesgarri iruditzen zaigu une honetan Bilboko Udalean burutzen ari garen jarduketaren baten berri ematea. Bertan, administrazio orokorreko teknikari, laguntzaile eta menpeko langileen lanpostuak (2449/98, 2536/98 eta 34/98/Of erref.) jabetzaz eskuratzeko hauta-proben deialdia egin da, 50.000-300.000 bitarteko biztanle kopurua duten udalerrietan eta gainerako herri-administrazioetan alde aurretik lortutako esperientzia era mailakatuan baloratu.

Hasteko beharrezkoa zen informazioa eskatu eta espedienteak izapidatzen ari ziren bitartean, Bilboko Udalak Auzitegi Gorenaren 1996ko ekainaren 6ko Epaia aurka eginez erantzun zuen. Epai horren arabera, udal jakin batean zuzenbidean lizentziatuaren

lanpostu bat betetzeko deialdiari zegokionez, burututako funtzioen balorazio ponderatua onartzen zen, biztanle kopuruari begira. Epaiaren edukia aztertu ondoren, erakunde honek interesgarri iruditzen zaizkion ondorengo oharpenak helarazi dizkio Bilboko Udalari:

“... eztabaidagaiari buruzko oharpen hori eginik, eta deialdiaren oinarrietan aurreikusitako moduan alde aurreko esperientziaren balorazioa arrazoizkoa den edo ez aztertzen hasita, J.T.A. horrek ohartarazten du Auzitegi Gorenak gai horri buruzko erabaki bat hartu duela orain berriro, eta hartan emandako arrazoiak aipatzen ditu; epai horretan, burututako funtzioen balorazio ponderatua onartzen da, biztanle kopurua kontuan harturik (1996ko ekainaren 6ko epaia - RJ 1996/5016). Horretan oinarriturik, eta bestelako xehetasunik eman gabe, aztertzen ari garen kexen iturburu den alde aurreko esperientziaren merezimenduaren balorazioa arrazoizkoa eta konstituzionalki egokia dela adierazten du.

Erakunde honen iritziz, ordea, balorazioaren arrazoizkotasunari buruzko iritzi hori behar bezala azterturik, ondorengo oharrak egin behar dira Udalaren jokaeraren alde aipatutako epaiaren edukari dagokionez:

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar dugu Auzitegiak berak, aurreneko arrazoipidean, gai hori bigarren instantzian berari egokitu dakiokela aipatzean, ohartarazten du langilegoari dagokion arazoa dela aztertu beharrekoa, eta zuzenbidean lizentziatuarentzat ateratako lanpostuari buruz bakarrik emango dutela epaia, lanpostu hori jabetzaz eskuratuko den bakarra baita.

Beraz, gai horri dagokionez, izaera teknikoko lanpostu bat betetzea aztertzen ari da, beste maila batzuetan egon litezkeen hutsuneei buruzko oharrak alde batera utzita. Bigarrenik, Auzitegiak biztanle kopurua kontuan hartu eta alde aurreko funtzioen balorazio mailakatua aplikatzearen egokitasuna erabakitzeke erabili duen irizpidea ere kontuan hartu behar dugu, udalek nazio mailako gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzea izan baita haren oinarria.

Gauza jakina denez, nazio mailako gaikuntza duten funtzionario horientzako lanpostuek izaera guztiz teknikoa dute, ondorengo alorretako funtzio publikoei baitagokkie: (1) idazkaritza -horren barruan fede publikoa eta arauzko lege-aholkuaritza, (2) kudeaketa ekonomiko-finantzario eta aurrekontuetakoen barne kontrola eta fiskalizazioa, eta (3) kontabilitatea, altxortegia eta zerga-bilketa.

Hori guztia kontuan izanik, erakunde honen iritziz behar-beharrezkoa da Auzitegi Gorenaren epaia bere testuinguruan behar bezala interpretatzea, epaiak honela baitio: *onargarria da biztanle-kopuru jakin bat duen Udalerrri batek baremoan baloraturiko funtzioak antzeko biztanle kopurua duten herrietan ere burutu diren ala ez kontuan hartzea*, izaera teknikoko lanpostuei dagokiela betiere.

Alde horretatik, burutu diren funtzioen edukia aztertzen badugu, ikusten dugu azpieskala teknikoan sarturiko funtzionarioek administrazio arloan goi mailako kudeaketa, azterketa eta proposamenak egiteko eginkizuna dutela.

Aipaturiko guztia kontuan izanik, eta biztanle kopuru handiagoa duten udalerrietan zerbitzu publikoak kudeatzea zailago gertatzen denez, Arartekoaren ustez, deialdiaren oinarrietan aurreikusitako mailaz mailako balorazioa arrazoizkoa izan daiteke, baina udal esparruari dagozkion eskumenen garapenean eta kudeaketan zuzeneko ardura duten lanpostuak baldin badira.

Besterik gertatzen da, ordea, administrazio orokorreko laguntzaileen eta menpeko langileen lanpostuetan. Funtzio publiko lokalaren antolamenduan xedatutakoaren

arabera, lehendabizikoek, hau da, laguntzaileek, mekanografia eta takigrafia lanak egin, korrespondentziaz arduratu, kalkulu sinpleak egin, makinak erabili, dokumentuak artxibatu eta antzeko eginkizunak dituzte. Menpeko langileei, berriz, bulego barruko zaintza eta jagoletza lanak eta atezain, giltzazain eta antzeko lanak egitea dagokie.

Bi kasu horietan, udal zerbitzuen konplexutasun mailak, eta horrelako zerbitzuak eskaintzen dituen herri-administrazioaren izariak -herriko biztanle kopuruaren arabera objektiboki neurtzeko modukoak- ez dituzte ezertan aldarazten edo koalifikatzen eskainitako zerbitzuak; izan ere, kasu guztietan, teknikoak ez diren funtzioak dira, eta ikuspegi materialetik, eduki berdina dute.

Adibide praktikoetara etorrira, Arartekoaren iritziz, onargarria da udal zerbitzu jakin batean (ogasuna, hirigintza, pertsonala etab.) kudeaketarako lanpostu tekniko baten eduki material desberdina defendatzea, herri-administrazio bakoitzaren arabera (biztanle-kopuru handiagoa edo txikiagoa kontuan izanik) eta hori ez bakarrik jarduera kopuruagatik, baizik eta, funtsean, izapidatutako gaien konplexutasun handiagoagatik. Teknikoak ez diren laguntzaileen lanpostuetan, berriz, horien edukia eguneroko administrazio-laguntzarako eginkizunei dagokie, eta eginkizunak ez dira batere aldatzen biztanle-kopuruaren arabera edo eginkizunak burutzen dituzten herri-administrazioen arabera.

Laburbilduz, azaldutako arrazoiak kontuan izanik, erakunde honek uste du administrazio orokorreko teknikarien lanpostuak betetzerakoan alde aurreko esperientzia administratiboaren balorazio desberdina arrazoizkoa izan daitekeela, eta beraz bidezkoa. Beraz, ez zaio iruditzen enplegu publikoak eskuratzeko prozesuetan berdintasunaren printzipioa urratzen denik, eta ondorioz ez dago bere jarduketa bidezkotzen duen arrazoirik.

Aitzitik, administrazio orokorreko administrazio-laguntzaileen eta menpeko langileen lanpostuei dagokienez, erakundea hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeko 11b) art. an agindutakoaren arabera, honako gomendioa helarazi nahi genioke: 1998ko abuztuaren 24eko 160 zk. dun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, administrazio orokorreko laguntzaile eta menpeko langileen lanpostuak betetzeko deialdiaren oinarrien edukia berraztertze beharrezko neurriak har ditzala, 50.000 eta 300.000 biztanle bitarteko udalerrietan eta gainerako herri-administrazioetan alde aurreko esperientzia administratiboari dagokion merezimendu erlatiboaren mailaz mailako balorazioa kentzeko."

Ondorioa:

Erakunde honen iritziz, une honetan Bilboko Udalean burutzen ari den jarduketak garbi erakusten du, lehenago aurreratu dugun bezala, lanpostuak betetzeko deialdia egiten duten administrazioek beren irizpidea aldatu behar dutela alde aurreko esperientziaren merezimenduari dagokionez.

Horrela, bada, bertako pertsonalak behin-behineko izaeraz edo aldi baterako kontratatu gisa eskainitako zerbitzuen balorazioa neurri handian bultzatzen duen jarrera baztertu behar da (eskaini diren zerbitzuen lehentasunezko balorazio ponderatuaren arrazoiketa alde batera utzirik, funtzio publikoak eskuratzeko prozesuetan berdintasunaren printzipioa urratu dela dioten salaketak egin arte) eta alde aurreko administrazio-esperientzia berdintasunez baloratzearen aldeko jarrerari heldu behar zaio, arrazoi funtzionalek erabat bestelako jarrera hartzea bidezko egiten ez badute behintzat.

Erakunde honen ustez, herri-administrazioetan eskainitako zerbitzuei trataera berdina emanez bakarrik lortu ahal izango dugu EKren 14. eta 23.2 artikuluetan adierazten den berdintasun printzipioarekiko begirunea zabaltzea, gerta litezkeen ezberdintasun funtzionalen ondorioz zerbitzu horiek beste era batera baloratzea arrazoizkoa izan badaiteke ere.

Horixe da, beraz, EAEko herri-administrazioei helarazi nahi diegun gomendioa, lanpostuak betetzeko iragarrita dauzkaten hurrengo deialdietan kontuan har dezaten.

4. BIDE PUBLIKOAN UTZITAKO IBILGAILUAK KENTZEA

Azkeneko ekitaldietan, herritarrek hainbat kexa aurkeztu dituzte beren ibilgailuak bide publikotik erretiratu dizkietelako, eskumena duten agintariek horiek abandonaturik zeudela uste izan dutenean. Horietako batzuetan, aipatutako egintza hori ibilgailuek zirkulaziorako eskatzen diren baimen guztiak zituztela burutu da -matrikulazioa, gidatzeko baimena, derrigorrezko aseguruia indarrean edukitzearen ziurtagiria, eta horrela egokitu denean, ibilgailuen azterketa teknikoa gainditua izatea-, hain zuzen ere, leku jakin batean halako denbora tarte batez aparkatua edukitzeagatik besterik gabe. Beraz, halako denbora tarte batez aparkatua edukitzea izan da eskumena duten agintariek ibilgailu hori abandonatua zegoela uste izateko erabili duten arrazoi bakarra.

Arazo hori aztertzerakoan ezin dugu ahaztu administrazioen artean lehendabizi udalei dagokiela ibilgailu abandonatuak erretiratzeko erantzukizuna. Halaber, trafikoa arautzen duten hainbat udal ordenantzek aukera ematen dute hainbat egunez aparkaturik dauden ibilgailuak bide publikotik erretiratzeko, daramatzaten egunengatik abandonatuak daudela pentsarazten dietelako. Zentzu horretan, eta adibide gisa, Gasteizko Udaleko Hiri Izaerako Bide Publikoetan Erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurutasunaren gaineko Udal Ordenantzaren 24.2. artikulua -1993ko ekainaren 18an onetsia (uztailaren 28ko 84 zk. AHHBO)-, aipatzen du bidezkoa izango dela bide publikotik ibilgailuak erretiratzeko eta ibilgailuen udal depositura eramatea "*aparkatua egoteagatik abandonatua edo lapurtua izan daitekeela uste izateko arrazoirik dagoenean, zazpi eguneko gehienezko epe baimendua igarotzeagatik edo uste hori izatera bultzatzen duen kalte edo hondamen maila edukitzeagatik*".

Gomendio honetan ibilgailu abandonatuak erretiratzearekin loturiko alderdiak bakarrik aztertuko ditugu, eta ez ditugu jasoko organo eskudunek arrazoi ezberdinengatik hala erabaki ondoren horiek ibilgetzearekin eta erretiratzearekin loturiko jarduketak. Ibilgailu baten hutsune tekniko nabarmenak -horietatik zirkulazioarentzat, pertsonentzat eta ondasunentzat arriskuak erator litezkeelarik- abandonatua dagoela pentsarazteko elementu baloratibo izan daitezkeen ala ez kontuan izan gabe, xehetasun horiei, trafikoa erregulatzen duten arauetan tratamendu berezi eta apartekoa dutenez gero, ez zaie arreta berezirik eskainiko guri dagokigun honetan.

Ibilgailuak bide publikoetan abandonatzea -eta horrek administrazio mailan duen ondorioa- ordenamendu juridikoan aurreikusita eta islatuta dagoen xehetasun bat da, ez bakarrik trafikoa erregulatzen duten arauetan, baita hondakinak arautzen dituztenetan ere. Fenomeno hori, funtsean, ondorengo arauak zehazten dute: martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak onetsitako Motordun Ibilgailuen Trafikoari eta Zirkulazioari buruzko Legearen Testu Artikulatua (LSV), Zirkulazio Kodea (CC), Ibilgailu Abandonatuak Erretiratu eta Gordetegira Eramatea (ORVA) erregulatzen duen Gobernazio Ministerioaren 1974ko otsailaren 14ko Agindua, eta Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea (LR). Halaber, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretu bidez onetsitako Ibilgailuen Arautegi Nagusiak (RGV), berriki indarrean sartuko delarik, ibilgailu abandonatuei behin-betiko baja emateko beharrezko aurreikuspenak ezartzen ditu.

Aurreko arau horiek ibilgailu abandonatueterako finkatzen duten jarduera prozeduraren barruan, bi fase ezberdin bereiz ditzakegu. Batetik, ibilgailu abandonatua bide publikotik erretiratzeko administrazioaren erabaki horrekin amaitzen dena. Gero, ibilgailuak izango duen xedearekin eta titularraren eskubideak eta sortutako obligazioak betetzearekin zerikusirik duten ondorengo jarduketei dagokiena. Gomendio honetan

lehen fase bezala ulertzen den horren inguruko xehetasunak aztertuko ditugu nagusiki, alegia, ibilgailua bide publikoa erretiratzearekin amaitzen den fase horri buruzkoak.

Ustez abandonatua dagoen ibilgailu bat erretiratzeko erabaki hori dagokion udal ordenantzako aurreikuspenen bat betetzearen ondorio izan daiteke, esate baterako arestian aipatutako Gasteizko Udalarena. Halaber, funtzionario edo administrazio eskudunak hartutako erabaki baten ondorio ere izan daiteke, delako ibilgailua egoera horretan dagoela uste duelako, administrazio jarduketa hau erregulatzen duten arau orokorretan islatutako irizpideak zorrotz aplikatuz. Uste hori errealitateari egokitzen zaion ala ez kontuan izan gabe, egia da, zenbaitetan, ibilgailua bide publikotik erretiratzea eragotzi daitekeen gauza dela, baldin eta titularrari aukera emango balitzai o manio bra hori egiteko, edo baldintza jakin batzuetan eta toki jakin batean edukitzeko arrazoiak justifikatuko balu. Horretarako, formalki entzun egin behar litzaioko ibilgailuaren jabeari. Ezin dugu ahaztu, ildo horretatik, ibilgailu bat leku berean “ohiz kanpo” luzatutako denboraldi batez aparkatua egotea justifika lezaketen arrazoiak era ezberdinetakoak izan daitezkeela: erabilera partikularreko garajerik ez edukitzea eta eguneroko bizimoduan ibilgailurik behar ez izatea, oporraldi bat igarotzea, gaixotasun bat...

Azterketa honekin jarraitzeko, komenigarri iruditzen zaigu arestian aipatutako arauetan jasotako aurreikuspenen aipamen bat egitea. Horrela, LSVaren 71.1.a) artikulua ezartzen du Administrazioak ibilgailua bidetik erretiratu ahal izango duela “*abandonaturik dagoela arrazoiz uste denean*”. CCeko 292.II.b) artikulua zehazten du ibilgailua bide publikotik erretiratu behar izango dela “*ibilgailu bat abandonaturik dagoela arrazoiz eta funtsaturik uste izateko beharrezko denboraz eta baldintzetan bide publikoan abandonaturik dagoenean, ibilgailu abandonatu en xedea eta horiekin jokatzeko era erregulatzen duten arau berezien arabera*”. ORVaren 1. artikulua aipatzen du “*Agindu honetan (erretiratze koa) aurreikusitako jarduketak bide publikoan eta aldameneko lurretan dauden ibilgailuei dagozkiela, baldin eta horien kanpoko ezaugarrietatik, egoera berean daramaten denboragatik edo beste arrazoi batzue ngatik abandonaturik daudela ondoriozta badaiteke*”.

Aurreko horren ondorio gisa esan dezakegu, esate baterako, ibilgailu batek daraman denbora gutxi-asko luzea ez dela irizpide bakarra eta nahikoa bere jabeak abandonatu duela erabakitzeko. Ibilgailu bat abandonaturik dagoela erabakitzeko, beharrezkoa da bertan atzeman litezkeen gainerako ezaugarri fisikoak balioestea, eta azterketa horren amaierak erabaki arrazoitu eta oinarritu batekin etorri behar du. Jurisprudentziak ezarrita duen moduan “*...ibilgailuak erretiratzea ez da Administrazioak nahierara erabil dezakeen ahalmen baten emaitza, baizik eta ahalmen arautu batena, eta horrek ateak ixten dizkio arbitrariotasun orori, baita diskrezionalitate maila orori ere*” (Balearietako Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Aretoaren 1994ko urtarrilaren 27ko Epaia) (Ar. 1994\373).

Esan denaren arabera, trafikoa erregulatzen duten udal ordenantza batzuek zehaztu dute ibilgailu bat denbora tarte jakin batez aparkaturik edukitzeak berau abandonaturik dagoela uste izatera eraman gaitzakeela, eta ondorioz, berau bide publikotik erretirat zera. Gure iritziz, aurreikuspen hauek ez lukete tokirik aurkituko LSVren 71.1.a) artikulua ren edukian, zeren eta, aurrerat u den bezala, abandonaturik egotearen uste horrek erabaki arrazoitu bat behar baitu, eta ez agindu honek eta ez ORVAn jasotakoek ez dute aparkaturik daraman denbora bakarrik kontuan hartu behar arrazoiak emateko orduan. Gure ustez, LSVren 7.b) eta 38.4 artikuluetan udalei emandako gaitzuntzak ere ez du aukerarik ematen udal ordenantzetan horrelako aurreikuspenik sartzeko. Agindu hauei esker erregulatu daitezke, udal ordenantza baten bidez, hiri-bideetako erabilera, aparkaleku

mugatuko neurrien finkapena, eta horrekin loturik, iraupen mugak ezar ditzakete, baita neurri zuzentzaile zehatzak aplikatu ere, ibilgailuak ibilgetzea eta/edo erretiratzea barne, horiek denbora mugatuko eremu horretan aparkatzea gaitzen duen titulurik ez badute edo emandako baimena gaindetzen badute, gidaria nor den jakin arte.

Ordu mugarik edo murrizpenik ez duen eremu batean denbora jakin batez aparkaturik dagoen ibilgailuari erantzun bat eman ahal zaio trafikoa erregulatzen duten arauetan -zehazkiago, udal ordenantzetan-. Halere, erakunde honen iritziz, arestian aipatu dugun erantzun hori ezin daiteke izan ibilgetzea edo erretiratzea bezalako neurrien aplikazioa, baldin eta horrelako jarduketak burutzea ahalbidetzen duten beste baldintza batzuk egokitzen ez badira. Ibilgailuak ibilgetu eta erretiratzea LSVren 7.c), 70 eta 71 artikuluetan aurreikusitako kasuetan bakarrik erabaki daitezkeen administrazio jarduerak dira. Nolanahi ere, denbora mugarik edo murrizpenik ez duen eremu batean denbora tarte jakin bat igarotze hutsagatik ibilgailu bat abandonaturik dagoela uste izateak ez luke ahalbidetuko horrelako neurri ohiz kanpokorik hartzea, ordenamendu juridikoan ez baita horrelakorik jasotzen.

Komeni da orain aipamen berezi bat egitea, eta azaldu, erakunde honen iritziz, herri administrazio eskudunek eta bertako funtzionarioek nola jokatu behar duten bide publikoan ibilgailu bat abandonaturik dagoela ondorioztatzeko. Arestian esan dugu ibilgailu bat abandonatutzat sailkatzeko erabakiak, horrek ekar ditzakeen ondorioei begira, beharrezkoa duela ibilgailuaren aparkamenduan eta egoeran eragiten duten xehetasun guztiei buruzko azterketa neurtu bat. Azterketa horri amaiera emateko, erabaki arrazoitu eta funtsatu bat beharko da. Gure ustez, erabaki hori hartzeko prozesu logikoan neurtu egin behar da, hala egokituz gero, ibilgailuaren jabearen xehetasunen nondik-norainokoa. Arrazonamendu horren funtsa, aurrerago aipatuko diren argudio formal garrantzitsuetan ez ezik, ibilgailu erretiratuaren jabeari sor diezazkiokegun alferrikako eta zalantzagabeko kalteetan bilatu behar dugu, zeren eta, haren ezagutzarik gabe burututako halako administrazio jarduketa bat berrikusi ondoren, gerta baitaiteke ibilgailu hori abandonaturik ez zegoela erabakitzea, eta beraz, zerbitzuan eta bere titularraren esku jarraitu ahalko zuen behar bezala aparkaturik zegoen toki horretan. Honako ondorio honek, zentzu osoa duenez, ordenamendu juridikoan du sustengua.

Nahiz ORVAK ez duen aipamenik egiten ibilgailu baten jabeak erretiratzeko prozedura baten aurrean hartzen duen alde zuzeneko jokabideaz, bai egiten du ordea gordetegira eraman ondorengo fase bati buruz (4. art.). Nolanahi ere, LSVren 71.1 artikulua (Konstituzioa indarrean sartu ondoren onetsitako arau bat), ibilgailuak bide publikotik erretiratzea arautzerakoan, besteak beste, abandonaturik dagoela uste izateagatik, aipatzen du Administrazioak ibilgailu hori erretiratu ahal izango duela "*baldin eta horretara beharturik dagoenak ez badu egiten*". Hau da, badirudi ezinbestekoa dela administrazio jarduleak, neurria hartu aurretik, ibilgailuari buruzko xehetasunak titularrari jakinaraztea, berak erretiratu dezan, eta alega dezan, hala dagokionean, bidezkoa iruditzen zaiona abandonatu gisa sailkatzearen egokitasunaz edo desegokitasunaz.

LRren edukia biribilagoa da -horien tratamendu eta kudeaketarako, ibilgailu abandonatuak hiri hondakin gisa sailkatzen baititu (3.b art.)-, eta bertako 39. artikulua aukera ematen du ibilgailu abandonatuak zigilatzeke, arauan jasotako aurreikuspenak urratzeagatik prozedura zehatzaile bat abiaraztean hartutako behin-behineko neurri gisa. Halere, 40. artikulua zehazten du "*ezin dela inolako behin-behineko neurririk hartu, interesatuei alde zuzeneko aurretik entzun gabe, neurri horiek berehala hartzea gomendatzen duten premiazko arrazoirik egon ezean*".

Ibilgailu bat bide publikoan abandonatzeak, LSVko, CCko eta ORVAko aurreikuspenen arabera arauz ezarritako tokira erretiratzea ahalbidez gain, administrazio zehapen bat ekar dezake, LRko aurreikuspenen arabera. Hori dela eta, ezinbestekoa gertatzen da arau horietan jasotako aurreikuspenen aplikazioa bateratzea, interferentziarik edota kontraesanik gerta ez dadin. Beraz, ondorio gisa esan dezakegu ustez abandonatua dagoelako ibilgailu bat bide publikotik erretiratzeko erabaki formala ez litzatekeela hartu behar haren jabeari aldeztu aurretik entzun gabe, legetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Ikuspegi formal batetik, interesatuari entzuteak esan nahi behar luke ibilgailuaren titularrari jakinarazpen bat bidali behar zaiola, zuzenbidez onartutako edozein bitartekoren bidez, eta bertan, funtzionario eskudunek atzemandako xehetasun horren berri eman beharko litzaioke, bidezko diren oharra eginez, eta epe bat emango zaio berak bere ibilgailua ken dezan, edo hala egokituz gero, alegazioak aurkez ditzan. Jakinarazpen pertsonalak ez badu fruiturik ematen, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko azaroaren 26ko Legearen 59.4 artikuluko aurreikuspenekin bat etorritik egin beharko da, indarrean dagoen idazkeraren arabera edo urtarilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez egindako aldaketekin indarrean sartzen denean. Interesatuak aurkezten dituen alegazioak aztertu eta balioetsi ondoren, erabaki arrazoitu eta funtsatu bat hartuko da ibilgailua abandonatua dagoen ala ez zehaztuko duena. Baiezkoa izatekotan, berau ibilgetzeko eta/edo erretiratzeko agindu egokiak eman beharko dira, arestian aipatutako arauetan ezarritako prozedurekin bat etorritik.

Aurrez esan dugunez, administrazioaren jardura hau arautzen duten arauak ezarritakoaren arabera, ibilgailuak dauden lekutik erretiratzeko erabakiek arrazoizkoak izatearen eta oinarrituta egotearen irizpideei erantzun behar diete eta, gainera, hainbat gorabehera aztertzearen ondorio izan behar dute: aparkatzearen etenik gabeko iraupena, ibilgailuak kanpotik duen egoera eta itxura, hala nola balioztatu daitezkeen beste hainbat irizpide.

Ikuspegi honetatik, herri administrazioak eta bere funtzionarioek neurtu beharreko salbuespenetan izan ezik, ibilgailu baten jabeak zirkulatu ahal izateko legez eta araudiz behar diren baimen guztiak dituela eta derrigorrezko aseguruia indarrean duela erakustea nahikoa izango da ibilgailua abandonatua ez dagoela frogatutzat emateko, baldin eta ibilgailuaren egoerak dituen akats nabarmenek zirkulazioarentzat, pertsonentzat edo ondasunentzat arriskutsua izan daitekeela erakusten ez badute. Azken kasu honetan, herri administrazio eskudunak ahalmenetik daude ibilgailuak ibilgetzeko, ibilgailua dagoen lekutik erretiratu aurretik, hala egitea dagokionean.

Horren ondorio gisa esan genezake, ibilgailuen zirkulaziorako behar diren baimen guztiak edukitzeak, ibilgailuen ikuskapen teknikoa gainditu izanak eta derrigorrezko aseguruia egunean izateak indarrik gabe utz dezakeela bide publikoan aparkatutako ibilgailu bat abandonatua dagoelako ustea, aurkako frogarik izan ezean.

Aurreko gogoetak ikusarazten digu ibilgailu abandonatuekiko herri administrazio eskudunek dituzten ardurak eta ahalmenak erabiltzerakoan, batez ere ibilgailu horiek bide publikotik erretiratzeko prozedura arautzeari eta erabaki zuzenak hartzeari dagozkionak erabiltzerakoan kontuan izan beharko dituztela ondorengo **gomendioak**:

Lehenengoa. Ibilgailu batek leku egoki batean behar bezala aparkaturik eta trafiko arauak urratu gabe daraman denbora, nahiz oso luzea izan, ez da hura bertan behera utzia dagoela erabakitzeke irizpide balioztagarri bakarra eta nahikoa.

Bigarrena. Aurreko arrazoiarengatik, gaia arautzen duten indarreko udal ordenantzetan desagertarazi egin beharko litzateke denboraren irizpidea ibilgailu bat abandonatua dagoela erabakitzeko irizpide bakar eta nahikoa izatearena.

Hirugarrena. Ibilgailu bat abandonaturik egoteagatik bide publikotik erretiratzeko prozeduraren barruan, haren jabeari entzun beharko zaio ibilgailua aurrez erabakita dagoen gordetegira eramateko erabakia hartu aurretik.

Laugarrena. Orokorrean, aurkako frogarik izan ezean, ibilgailu jakin batek ibilgailuen zirkulaziorako behar diren baimen guztiak edukitzeak, ibilgailuen ikuskapen teknikoa - hala dagokionean- gainditu izanak eta derrigorrezko aseguru egunean izateak ibilgailu hori abandonatua ez dagoela justifikatuko du, baldin eta ibilgailuaren egoerak dituen akats nabarmenek zirkulazioarentzat, pertsonentzat edo ondasunentzat arriskutsua izan daitekeela erakusten ez badute.

5. NAZIOARTE MAILAKO ADOPZIO PROZEDURETAN EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK DUEN JOKAERA

1. Nazioarte mailako adopzioa

Adopzioaren erakundea, antzina-antzinako garaietatik, filiazio juridikoko tresna bat bezala eraturik dago, eta gurasoen aginteak duen maila berean lotesten ditu bi pertsona. Erlazio horren muinean dagoen helburua, abandonaturik edo babesik gabe dauden adin txikiko behartsuenak familia baten egituraren barruan txertatzea da. Horregatik, adopzioa, adin txikikoen zaintzarako edo babeserako erakunde gisa eratu da gure ordenamenduaren barruan, babesik gabe dauden adin txikikoak gizarteratzeko premia larri horri erantzunez.

Bestalde, adopzioaren ikusmolde soziologikoa nabarmen aldatu da azkeneko hamarraldi hauetan. Egon daitezkeen faktoreen artean komeni da aipatzea babesik gabeko egoeran dauden neska-mutikoen kopurua jaitsi egin dela, botere publikoek teknika berriak darabiltzatela gizarte ekintzarako, eta adin txikiko askok beste ingurune geografiko batzuetan bizi duten abandonu egoeraren eta baldintza larrien arazoa ikuspegi orokor batetik aztertzen hasiak direla.

Aldaketa horien ondorioz adopzioaren modalitate berri bat sortu da, nazioarte mailako adopzioa izenez ezaguna; horrelakoetan, gurasordeak Estatu bateko herritarrak dira, eta umeordetzan hartutako pertsona, aldiz, beste Estatu bateko herritarra.

Adibide ezberdinen kopurua ugaritzeak baldintzatu egin ditu horiek gauzatzeko erabili ohi diren nazio eta nazioarte mailako tresna juridikoak. Bereziki azpimarratzekoa da Hagako Hitzarmena, haurren babesari eta nazioarte mailako adopzio alorreko lankidetzari buruzkoa, 1993ko maiatzaren 29an onetsia, zeinak zenbait berme ezarri nahi baititu nazioarte mailako adopzioek adin txikikoen interes eta eskubideen defentsarako balio izan dezaten, eta horrekin batera, Estatuaren arteko lankidetzaren sistema bat ezarri eta horren eraginak onar daitezela ziurtatu.

Delako hitzarmen horretan jada bi prozedura fase zehazturik datoz, adin txikikoaren interesa defendatzeko berme gisa: bat, administrazio izaera duena, erakunde publiko eskudunak eta, hala egokituz gero, laguntzaile gisa eratutako erakundeek aurrez informazioa eskaini, jaso eta eskabideak izapidatzeko eskumenei dagokiena; eta bestea, izaera judiziala duena, eta, beraz, beharrezkoa du epailearen edo, hala egokituz gero, kontsularen erabakia.

Azken batean, gomendio honen xedea alde aurreko administrazio fase hau aipatzea da, zeren alor honetan eskudunak diren Euskal Herriko zenbait administraziok bai baitute zerikusia honekin, nazioarte mailako adopzioaren beren lankidetzaren eskaintzen duten izaera pribatuko beste erakunde batzuek bezalaxe.

Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan nazioarte mailako adopzioa erregulatzen duen egitura juridikoa mugatzea komeni da, administrazio fase hori osatzen duten erakundeetako bakoitzak jarraitutako prozedura zein den eta bien arteko elkar egokitzapen bikain bat aurreikusteko egun burutzen den administrazio jardueraren zein den zehazteari begira.

2. Araudi erregimena

Nazioarteko tresnen barruan arestian aipatu da 1993ko Hagako Hitzarmena, Espainiako Estatuak 1995eko ekainaren 30ean berretsi zuena. Hitzarmen horrek,

nazioarte mailako adopzioan esku hartzen duten alderdien funtsezko interesak babestuko dituen prozedura bat eratzea du helburu, baina aldi berean, gurasordeen Administrazioak eta adopzioan hartutakoarenak eskatu dituzten beharrezko izapideak malgutzeko eta homogeneizatzeko balio izango duena.

Horrela, hitzarmenetik eratortzen diren obligazioak beteko direla zainduko duen agintaritza zentral bat izendatzen da, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan hiru foru aldundietako Gizarte Ongizateko sailei egokituko zaie eginkizun hori, herritarrei aholkuak emateaz eta etorkizuneko gurasordeak egokiak direla eta prestatuak daudela egiaztatzeaz arduratuko direlarik. Administrazioaren eginkizunetan laguntzaile gisa arituko diren zenbait erakunde pribatu sor daitezela bultzatzen du, horiek baimendu ondoren, alderdiei laguntza eskaini eta aholkuak emateko eginkizunak beteko dituztenak.

Barne ordenamenduaren barruan, adin txikikoaren babes juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak berariaz jasotzen du nazioarte mailako adopzioaren erregulazioa. Bertako 25. artikulua mugatzen ditu erakunde publikoei dagozkien eskumenak (eskaerak jaso eta izapidatzea, gurasordeen egokitasuna ziurtatzea, umeordetzan hartutako adin txikikoen jarraipenean konprometitzea eta erakunde laguntzaileak kontrolatzea), baita erakunde kreditatuak burutu ditzaketenak ere (informazioa ematea, adopzioa eskatu dutenei aholkuak ematea). Azken horiek irabazi asmorik gabeko erakunde gisa zehazten dira, dagokion erregistroan inskribatuak egongo dira, eta beren helburua adin txikikoak babestea izango da.

Bestetik, Autonomia Erkidegoak eskumen osoa du adin txikikoen zaintzan (Estatutuaren 10.14 artikulua). Eskumen hau foru aldundiek kudeatzen dute, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunak eta bertako Herrialde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 c) 1 eta 2 artikuluen bidez, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearekin bat etorriz.

Orain arte Eusko Legebiltzarrak ahalmen legegile hori burutu ez badu ere, aipatutako eskumen horietan oinarrituz erakunde horrek aurreko txostenetan gogoratu duen bezala, foru aldundiek burutzen dute nazioarte mailako eskabideen azterketa eta izapidaketa, eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren bidez, erakunde laguntzaileen gaikuntza eta kontrola, Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileen (NAEL) gaikuntza erregulatzen duen abenduaren 24ko 302/1996 Dekretuari jarraiki.

3. Nazioarte mailako adopziorako prozedura administratiboa

- Aldez aurreko fasea.

Foru aldundiek eta, hala dagokionean, NAELeak dauzkaten eginkizunen barruan, izaera orokorrez herritarrei nazioarte mailako adopzioaren erakundeari buruzko informazioa ematearena dago. Eskabidea egin aurreko lehen fase honek balio izan behar du eskabide bat aurkezteko orduan Estatu ezberdinek eskatzen dituzten baldintzak, prozedurak eta eskabideek bete behar dituzten izapideak zeintzuk diren jakiteko, eta halaber, amaordetza edo aitaordetza bere gain hartzeak ekar dezakeen kostua eta denbora zenbatekoa den ere bai.

- Eskabidearen fasea.

Informazio hori lortu ondoren, hasiera emateko eskabidea aurkeztuko dute eskatzaileek, dela aldundien aurrean, dela aukeratu den Estatu horretan eskumena duen

NAELaren aurrean, adopzioa gauzatzeko hasierako izapideekin eta umeordetzan hartutakoaren jaioterrian eskatutako gainerako dokumentazioarekin batera.

Baldintza horien barruan sartzen da eskatzaileen egokitasuna aztertu eta horien jarraipena egingo dela egiaztatzea, hala dagokionean. Eskatzaileak bizi diren herrialde historikoan gizarte zerbitzuez arduratzen den Foru Departamentuari eskatu beharko zaio hori.

Eskabide espedienteari erantsiko zaion egokitasunaren ziurtagiri horrek berekin eraman beharko du txosten psikosozial bat, eta bertan, eskatzaileen nortasuna, adopzioa egiteko gaitasuna, egoera pertsonala, familiarra eta osasun arlokoa, gizarte ingurunea, adopzioa egiteko erabaki hori zergatik hartu duten eta bere gain har ditzaketen neska eta mutikoen kopuruari buruzko datuak adieraziko dira. Agiri horiek egoki den eran legezkotuak egon beharko dute, eta hala egokituz gero, gurasordeen hizkuntza ofizialera itzuliak.

- *Bidalketa fasea.*

Bidezko diren agiri guztiak bete ondoren, adin txikiko horren estatuan eskumena duen administrazioari bidali beharko zaizkio. Izapide hori NAELak egingo du, agiri horiek aukeratutako herrialdean duen ordezkariari bidaliz, edo bestela, foru erakundeak burutuko du, Administrazio zentralaren bitartez bidaliko dituelarik.

- *Aurreizendapenerako fasea.*

Umeordea bizi den Estatuan eskabide hori formalizatu ondoren, adin txikiko bat aurreizendatzeari ekingo zaio. Aurreizendapenerako agiri honek haurraren egoerari buruzko informazioa jasoko du, haurraren jaioterria den Estatu horretako Administrazioak emango du berau, eta NAELko ordezkariak edo Administrazio zentralak bidaliko du foru aldundietara, beren onespena edo ezespena eman dezaten, eta eskatzaileei ere jakinaraziko zaie beren onespena adieraz dezaten.

Eskatzaileen adostasuna eta onespena umeordearen jaioterri den Estatuko Administrazioari jakinaraziko zaio atzera, horretarako bide berak erabiliz.

- *Fase judiziala.*

Une horretan erakunde judizial eskudunei bidaliko zaie adopzio eskaera, beren iritzia eman dezaten. Umeordetzan hartutakoaren herriko legeak izango du indarra beronen gaikuntzari eta beharrezko baimenei dagokienez, eta horiek, adopzioa hasi zen herrialdeko agintaritzaren aurrean edo beste agintaritzak eskudun baten aurrean aurkeztu ahal izango dira.

Edonola ere, Kode Zibileko 9.2 artikulua adierazten duen bezala, gurasorde espainiar batek atzerrian gauzatutakoa ez da Espainian adopziotzat hartuko baldin eta haren eraginak ez badatoz bat Espainiako legeriak aurreikusitakoekin, eta harik eta erakunde publiko eskudunak gurasorde horien egokitasuna aitortu arte.

- *Jarraipen fasea.*

Umeordeen jaioterri diren zenbait Estatutan, umeordetzan hartutako neska eta mutikoen jarraipenari buruzko txostenak bidal ditzatela eskatzen zaie foru erakunde eskudunei, adopzioa gauzatu eta gero.

4. Nazioarte mailako adopzioa Euskal Autonomia Erkidegoan

A) Foru aldundiak jarraitutako prozedura.

Adopzioa arautzen duen indarreko marko juridikoa kontuan izanik, eta hala dagokionean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio ezberdinek jarraitu beharreko prozedura eta zeregina zehaztu ondoren, Arartekoak modu labur batez aztertu du zein den benetan nazioarte mailako adopzioaren izapidaketa-ekimenaz arduratzen diren foru administrazioek eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak daramaten jokabidea egun, NAELen gaituntza eta kontrolari dagokion alorrean.

Hiru aldundietako Gizarte Ongizateko departamentuek jarraitzen duten prozedura ia guztiz berdina da, eta bi eratako jokamoldeetan oinarritzen da, kontuan izanik NAELen partaidetza aukeratzen den edo zuzenean foru erakundeen bitartez jarduten den.

Komeni da azpimarratzea Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara eman dituela, otsailaren 17ko 637/1998 Foru Aginduaren bidez, Gipuzkoan adin txikikoak adopzioan hartzeko funtzionamendu irizpideak, eta adin txikikoa babestuko duen euskal legerik ez dagoen bitartean, aldundi horrek jarraitzen dituen jokabide eta irizpideak arauzko izaeraz argitaratzea erabaki du.

Gainerako Foru Aldundiak, hots Araba eta Bizkaikoek, antzeko jokabide programa bat daramate, eta horren arabera, erakunde laguntzaileen partaidetzarekin batera, foru aldundietako gizarte zerbitzuen partaidetza ere ezartzen da, abenduaren 24ko 302/1996 Dekretuari jarraiki.

Informaziorako alde aurreko fase hori, modu indibidualizatu batez edo taldeentzako informazio-hitzaldien bidez eskaintzen ari dira foru aldundietako zerbitzuak. Informazio horren xehetasunak, nazioarte mailako adopzioan jarraitu beharreko prozedurari buruzkoak dira, edota adin txikiko bat adopzioan hartzeko aukera dagoen herriei buruzkoak, Eusko Jaurlaritzak bideratutako NAELei buruzkoak eta, halaber, adopzioaren alderdi psikosozialei buruzkoak.

Zerbitzu horiek ondokoak izango lirake: Haurtzaro, Gaztaro, Familia eta Emakumearen Zerbitzuko Harrera eta Adopzioen Saileko Taldea, Bizkaian; Gizarte Ongizate Foru Erakundeko Haurtzaroaren Lurralde Zerbitzua, Araban; eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Departamentuko Haurtzaroa eta Gaztaroa Saila, Gipuzkoan.

Informazio fase hori amaitu ondoren, eskatzaileek NAEL horietako batengana jo ahal izango dute, edo bestela, beren herrialde historikoko foru zerbitzuetan jarraitu prozedura hori.

Edonola ere, dagokion foru departamentuan egokitasunaren ziurtagiria lortzeko eskabide bat aurkeztu beharko da. Eskabide hori erregistro orokorrean aurkezten da eta aurkezpen ordenaren arabera izapidatzen da. Egokitasunaren ziurtagiria administrazio agiri bat da, eta horren arabera, dagozkion txosten psikosozialak oinarritzat harturik, administrazio eskudunak ziurtatu egiten du eskatzaileek umeordetza eratu ahal izateko duten gaitasun maila.

Ziurtagiri hori onartzea da erakunde honek jasotako kexa gehienen helburua, izan ere herrialde historikoaren arabera ikaragarri luzea izaten baita hori formalizatzeko beharrezkoa den denbora-tartea. Epe hori, herrialde bakoitzaren errealitate sozial eta demografiko ezberdinak kontuan izanik, aldatu egin da 1998an zehar, eta Bizkaian 9-10 hilabetekoa den bitartean, Araban 4 hilabetekoa da eta Gipuzkoan 3 hilabetekoa.

Nolanahi ere, hiru aldundiak beharrezkotzat jotzen dute administrazio izapide hau arintzea eginkizun horretan diharduen pertsonal publikoa ugarituz (Araba eta Bizkaian,

esate baterako), edo eskatzaileen txosten psikosozialaren erredakzioa zeharka kontratatuz (Gipuzkoako kasuan).

Fase hau burutzeko, zenbait elkarrizketa burutzen dira eskatzailekin eta psikologo eta gizarte laguntzaileek osatutako profesional taldearekin, eta horien bidez, txosten psikosozial hau burutzeko bidezkoak diren datuak jasotzen dira. Gipuzkoan profesional bat izendatzen da, eta berarekin txosten psikologikoa prestatzeko zerbitzua hitzartzen da, eskatzaileen bizileku diren eskualde geografikoen arabera.

Beharrezkoak diren txosten psikosozialak egin ondoren, proposamen bat egiten zaio Adopzioen Batzordeari Bizkaian, eta Adin Txikikoaren Kontseiluari Araban eta Gipuzkoan. Eskabide horri buruzko ebazpena, Gipuzkoako eta Bizkaiko kasuetan, dagokion foru diputatuak ematen du, interesatuei jakinarazten zaie, eta horiek, bidezkoak diren errekursoak aurkezteko aukera izango dute. Nolanahi ere, Araban, Adin Txikikoaren Kontseiluaren proposamena ez zaie eskatzaileei jakinarazten.

Egokitasun hori, hala dagokionean, gainerako agiriekin eta jarraipenaren konpromisoarekin batera ziurtatzen eta onartzen da, eta NAELari edo adin txikikoaren jaioterriko agintaritzaz zentralari bidaltzen zaio.

Adin txikikoa aurreizendatu ondoren, aldundiek txostena jasoko dute hori onesteko ala ez onesteko, gurasordeen adostasuna eskatu baino lehen. Administrazioaren erabakiak ebazpen izaera izango du, berau alderdiei jakinaraziko zaie, eta horren aurka, bidezkoak diren errekursoak jarri ahal izango dira.

Administrazio fasea amaitu ondoren, aldundiei egokituko zaie adopzioan hartutako adin txikikoen jarraipena egitea, eta aldundi horiek, baldin eta adin txikikoaren jaioterria den Estatuak horrela eskatzen badu, txostenak bidali beharko dituzte herrialde berrira eta familia berrira nola moldatzen ari den azalduz.

B) Nazioarteko Adopzioan Erakunde Laguntzaileek duten eginkizuna.

302/1997 Dekretuaren 2.1 artikulua ezartzen duen moduan, Hagako Hitzarmenaren 11. artikulua eta 1/96 Lege Organikoaren 25. artikulua loturik, NAELak *“irabazi asmorik gabeko Elkarte edo Fundazioak dira, legez eratuak; beren estatutuetan agertuko da adin txikikoak babestea dutela helburutzat, eta arau hauetan aurreikusitako baldintzak betez, Eusko Jurlaritzaren Gizarte Ongizate Zuzendaritzaren dagokion gaikuntza lortua izango dute nazioarte mailako adopzioan bitartekaritza lanetan aritzeko, Dekretu honetan ezarritako hitz eta baldintzetan”*.

1/96 Lege Organikoaren 25. artikulua izendatzen dizkien bitartekaritza eginkizunak ondorengoak dira:

- Interesatuei nazioarte mailako adopzioan informazioa eskaini eta aholkuak ematea.
- Estatuako eta atzerriko administrazioen aurrean adopzio espedienteen izapidaketan esku hartzea.
- Adopzioa eskatzen dutenei aholkuak eta laguntza eskaintzea, egin behar dituzten izapide eta kudeaketetan.

Modu horretan, adopzioa gauzatu aurreko jardueretan hartzen dute parte, etorkizuneko eskatzaileei informazioa eskainiz, eta egokitasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren izapideei buruz eta gainerako baldintzei buruz aholkuak emanez, aldundien osagarri gisa. Bide batez, adin txikikoaren jaioterrian dihardute, beren ordezkarien bidez, eta halaber, adin txikikoak moldatzen al diren zaintzeko lanetan.

Beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan beren eginkizunak burutzeko gaikuntza edukitzea. Gaikuntza hori, beren gaitasun profesional, material eta

moralekin, adin txikikoa babesteko helburuarekin eta irabazi asmorik ez edukitzearekin bat etorriko diren alde aurreko baldintza batzuk bete ondoren emango du Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zuzendariak, Nazioarteko Adopzioaren Batzorde Teknikoak hala proposatu ondoren, horixe baita hiru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak parte hartzen duten kontsultarako erakundea.

Egun bost NAEL daude Autonomia Erkidegoan, zortzi Estatutan (Bolibia, Brasil, Kolonbia, Honduras, India, Peru, Errumania eta Errusia) bitartekari gisa aritzeko gaikuntza dutenak.

Erakundearen eta eskatzailearen arteko lotura modua kontratu bidezkoa da, izan ere, NAEL bat aukeratzen den unean kontratu bat sinatzen baita bi alderdien artean, eta bertan azalduko dira erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuak eta hori zein baldintzetan egingo duen.

Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren esku egongo da, hain zuzen ere, NAELen eginkizunari buruzko kontrola eramatea eta, bide batez, herri administrazioen aurrean haren jarduketei buruzko informazioa hilerio eman beharra errespetatzen dela eta urteko memoria bat aurkezten dela ziurtatzea, baita 302/1996 Dekretuak erregulatzen duen errejimen ekonomiko eta finantzarioa betetzen dela zaintzea ere.

Berme horien barruan sartu beharko litzateke NAELetara jotzen duten pertsonak egindako erreklamazioen erregistro bat sortzea, 1/96 LOaren 25.4 artikulua arabera, eta bertan adierazitako gai ei erantzun bat ematen dien aurkaesanezko prozedura abiaraztea.

5. Ondorioak

Gomendio orokor honen helburua, nazioarte mailako adopzio prozeduretan parte hartzen duen euskal administrazio publiko bakoitzaren eskumenak zeintzuk diren mugatzea da, eta, bide batez, alor honetan legeriari zenbateraino egokitzen zaizkion zaintzea.

Oro har, administrazio horiek eta erakunde laguntzaileek burututako lana positiboa dela adierazi behar dugu, nahiz ikusten den hutsegiteren bat edo beste ere badagoela administrazio jarduera horiek berriki ezarri izanaren ondorioz eta eskabideen geroz eta kopuru handiago horretarako beharrezkoa den lantalderik ez egotearen ondorioz.

Horien artetik azpimarratzekoa da eskatzaileen egokitasunari buruzko ebazpenaren epea, zeren zenbaitetan, Bizkaiko Foru Aldundian esate baterako, horrelako prozeduretarako gomendagarria dena gaintzen baitute. Hori hala izanik ere, nazioarte mailako adopzioa bezalako prozesu batean alferrikakoak diren itxaronaldiak eta luzapenak murrizteko ahalegin bat egiten ari dela gauza nabaria da, eta horri begira, beharrezkoa gertatzen da zenbait administraziook esku hartzea, nahiz horrek berarekin daraman denbora-tarte luze bat igarotzea. Horregatik, komeni da kontuan hartzea horretaz arduratzen den foru erakundeko lantaldea ugaritu beharra dagoela edo kanpoko profesionalekin txosten psikosozialen idazketa kontratatu daitekeela.

Atzemandako beste arazo bat, hain zuzen ere, eskatzaileei beren espedientearen izapidaketaren egoerari buruz fase guztietan zehar etengabeko informazioa eskaini beharra da.

Agerikotasun eta gardentasunezko printzipio hau, une oro beren espedienteari dagozkion agiri guztietara jo ahal izateko aukera horretan gauzatu behar da. Modu horretan, eskatzaileek (Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio

Prozedura Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 35.a artikularen arabera) egokitasunaren ziurtagirian agertzen diren agiri eta txosten guztietara jotzeko eskubidea dute, bereziki txosten psikosozialera, neska edo mutiko bat adopzioan hartzeko dituzten benetako aukerak ezagutzearren.

Interesgarria da azpimarratzea NAELeek dituzten kontrol ahalmenak nola gauzatzen dituzten benetan, kontuan izanik nazioarte mailako adopzioan nolako eginkizuna betetzen duten. Horretarako komenigarria da administrazio mailako kontrolaren bide bikoitz horretan sakontzea, aldi behin foru aldundiei haien jardueri buruzko informazioa emanaz, eta urtean behin Eusko Jaurlaritzari, eta NAELen erabiltzaileek egindako erreklamazioen erregistro bat ezarriz, beren eginkizunak zuzenean ebaluatzeko, eta eskatzaileei izapidaketaren eta itxaronaldien egoerari buruzko informazio zuzena emateko.

Horrela, Nazioarteko Adopzioaren Batzorde Teknikoa indartu beharra dago, erakunde laguntzaile gisa jarduteko eskatutako baldintzak betetzen direla zainduko duen organo gisa.

Azkenik, foru aldundien ebazpen prozedura horri buruzko apartatuan zenbait ezberdintasun adierazi dira. Autonomia Erkidegoaren barruan nazioarte mailako adopzioa arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren legerik ez dagoenez gero, jarraitutako jarduketa protokolo ezberdinen ondorio da hori.

Modu horretan, adin txikikoaren lege honen beharra, hainbestetan adierazia, berriro ere nabarmentzen da, zeren ez baitago izaera orokorreko araurik, administrazio jarduleek jarraitu beharreko prozedura eta beren eskumenak edota gurasordeen egokitasuna erabakitzeko aldundiek jarraitu beharreko irizpideak erregulatzen dituenik.

6. EAE-N ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA ZERBITZUEN FINANTZAKETAN ERABILTZAILAK DUEN PARTAIDETZA

Lehen ere adineko pertsonen arretarako egoitza zerbitzuen egoerari buruz erakundeak egindako lan monografikoetan jorratu izan da zerbitzu horien finantzaketa eta eskumena duten administrazio ezberdinek eta erabiltzaileek horretan duten partaidetza maila.

Foru titulartasunekoak ez diren egoitza zentroetan gai hori arautzen duten xedapenen bidez diseinatutako kontribuzio ekonomikoaren eskema eratzeke erabiltzen diren tresnak gehienetan administrazioen arteko hitzarmenak eta foru aldundien eta zentro horien artean sinatutako itunak izaten dira, horiek udal titulartasunekoak izan nahiz pribatuak izan.

Horrela, alderdi teoriko eta legezkotik finantzaketa horretan zerikusia duen eragile bakoitzaren partaidetza maila nahikoa gauzatuta baldin badago ere, eskema horren aplikazio praktikokoak agerian uzten ditu herritarrek gizarte zerbitzueterako duten eskubidea arautuko duten berdintasunezko eta unibertsaltasunezko printzipioetan eragin negatiboa duten hainbat disfuntzio.

Horixe da kexa espediente batzuk izapidatzerakoan somatutako hainbat alderdi problematikoren aurrean berriro gelditzea beharrezko egiten duen funtsezko arrazoia, zerbitzu horretako erabiltzaileen ikuspegitik bereziki adineko pertsonen egoitza zerbitzuetan bakarrik oinarrituz arrazoi materialengatik.

1. Erantzukidetasuna gizarte zerbitzuen alorrean

Arazoa kokatzeko komenigarria izango da gogoraraztea gizarte zerbitzuen alorrean EAeren barruan eskumenen banaketa nagusiki Herrialde Historikoen 27/83 Legeak, Toki Araubidearen Oinarrien 7/85 Legeak eta Gizarte Zerbitzuen 5/96 Legeak zehazten dutela.

Horrela, legegintzako funtzioaren erabilera Eusko Jaurlaritzari dagokio gizarte zerbitzuen alorrean.

Gizarte Zerbitzuen 5/96 Legeak Eusko Jaurlaritzari legegintzako ekimena eta arauzko ahalmenaren erabileraz gain EAeko gizarte zerbitzuen plangintza orokorra esleitzen dio, lehentasunak erabakitzeko eta **herrialde mailako desorekak eragozteko, foru aldundiekin eta udalekin lankidetzan** (10. art.).

Halaber, Eusko Jaurlaritzari dagokio jarduketan koordinazioa, hala alor horretan eskumena duten administrazioetako hainbat erakunderi dagokionez nola itaundutako ekimen pribatuaren sektoreei dagokienez.

Bestalde, foru aldundiei, udalei eta gainerako toki erakundeei dagokie gizarte zerbitzuen arauak betearaztea, aipatu legean eta hori gauzatuko duen lege eta araudian xedatutakoaren arabera.

Horretarako, beren aurrekontuetan kontusail bereziak ezarri beharko dituzte, dagozkien gizarte zerbitzuak sortu, irauarazi eta kudeatzeko (30. eta 31. artikulua).

Administrazio ezberdinen arteko lankidetzak gauzatzeko lankidetzak hitzarmenak, kontratu-programak edo indarrean dagoen legerian araututako beste edozein bide erabiltzen da, erabakitako helburuak betetzera eta finantza kontrol zorrotza izatera bultzatzeko.

Nolanahi ere, bateratasun handia ikusten da esaterakoan orokorrean gizarte zerbitzuen alorrean sortzen diren arazo gehienak, eta bereziki adineko pertsonentzako egoitza laguntzetan sortzen direnak Gizarte Zerbitzuen 5/96 Legearen zehazgabetasunean dutela jatorria, bereizketa egiten duelako oinarritzko gizarte zerbitzuen artean eta zerbitzu espezializatuen artean, argi utzi gabe zerbitzu horien eskaintzan udalerri eta aldundiek duten erantzukizun maila.

Horrela bada, adineko pertsonentzako egoitza zerbitzuen alorrean, Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak emandako arau programatikoekin batera, agertzen zaizkigu, batetik, udalen eta aldundien artean sinatutako hitzarmenak eta horien eta egoitza zentroen artean sinatutakoak, eta bestetik, zerbitzuaren finantzaketan erabiltzaileen sarrera eta partaidetza arautzen duten udal ordenantzak.

Zehazgabetasun horren ondorioz, lehen aipatu dugun bezala, finantza arloko arazoak sortzen dira printzipio horien aplikazio praktikoan, hori dela eta ezberdintasunak sortzen dira eta eragin negatiboa dute egoitza zerbitzuetako erabiltzaileen eskubideetan. Azter ditzagun, labur bada ere, arazo horietako batzuk eta horiek izan dezaketen konponbidea.

2. Zerbitzuko erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren muga

5/1996 Legearen 3. artikulua, gizarte zerbitzuak arautzeko printzipio orokorren artean sartzen du gizarte zerbitzuen sustapena eta funtzionamendu eraginkorra ahalbidetuko duten baliabide finantzario, tekniko eta giza alorrekoak hornitzeko botere publikoek duten obligazioa.

Hala Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak nola 1994an onetsi zen EAeko Plan Gerontologikoak foru aldundien, dagozkien udalerrien eta zerbitzuaren erabiltzaileen kargurako erantzukidetasunean oinarritutako gizarte zerbitzuen finantzaketa sistema aurreikusten dute lehen aipatu dugun bezala.

Horrela, Arabako Herrialde Historikoa salbuetsiz, adineko pertsonentzako egoitzetan dauden egonaldien kostua hiru zatitan banatzen da: alde batetik, foru aldundien ekarpena dago, bestetik, erabiltzailearena, dituen dirusarreraren arabera jarritakoa; eta, azkenik, eskatzailea bizi den udalerrinari dagokiona.

1994ko Plan Gerontologikoak, zerbitzu horien finantzaketan erabiltzaileak duen eginkizunean oinarrituz, aurreikusita zeukan bermatu beharra zegoela egoitza zerbitzuetan sartzeko kuotak kendu ondoren onuradunek nahikoa baliabide izan behar dituztela beren premietarako, orientabide gisa Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %75a ezarri pertsona batentzat eta %100na bi pertsonentzat.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen 5/96 Legeak, gizarte zerbitzuei buruzko 33. artikuluan, hori VI. tituluaren barruan dago, erabiltzaileek beren erabilerarako behar hainbateko diru kopurua behar dutela esateaz gain, honakoa aurreikusten du:

«Eskumena duten Administrazio Publikoek pertsona erabiltzaileen partaidetza ezarri ahal izango dute titulartasun publikokoak edo itundutako titulartasun pribatukoak diren zentro eta zerbitzuen finantzaketan, **Lege honetan ezarri diren eta arauci jarraiki garatuko diren irizpide orokorren arabera**».

Esan beharra dago, ordea, Gizarte Zerbitzuen Legea ez dela garatu alderdi horretan, eta ematen dituen irizpideak hain orokorrak izaki ez dute irtenbide garbirik ematen

zerbitzu horien eskaintzan sarritan sortzen diren finantza kudeaketako arazoetarako. Artikulu horren arabera, erabiltzailearen ekarpena erabakitzeke orduan, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

- a) zerbitzuaren kostua
- b) erabiltzaileak zerbitzua zenbateraino erabiltzen duen
- c) erabiltzailearen dirusarrerak edo ondarea, edo bestela, horri laguntza ematera legez behartuta dauden pertsonena, azken horien familia, gizarte eta ekonomia mailako egoera kontuan izanik.

EAren eremuan adineko pertsonen egoitza zerbitzuetako erabiltzailearen ekarpena berdintasunez arautuko duen arau orokorrik ez dagoenez, aldundiek eta udalek beren eskumenak erabiliz arautzen dituzte zerbitzu horiengatik ordaindu behar diren prezio publikoak.

Arabako Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren egoitzetan, eta Gasteizko Udalarenak diren egoitzetan, leku bakoitzaren kostu teorikoa ezarri ondoren, bere familia unitatearen dirusarreraren %75aren parekoak diren mugak ezartzen dira erabiltzailearen ekarpenerako, eta berak erabili ahal izaiteko, gutxienez, gutxi gorabehera 180.000 pta.ko kopurua utziko da urtean. Aurreko formularen bidez atera den ordaindu beharreko prezio publikoaren eta lekuaren kostuaren arteko aldea zorra onartzearen bidez bermatzen da, baina hori ez da betearaziko harik eta arrazoi jakin batengatik erabiltzaileak zerbitzu erabilera utzi arte. Hori horrela dela kontuan izanik, garrantzizkoa da ordaindu behar den prezio publikoa erabakitzeke kontuan hartzen den familia unitatearen kontzeptua, horren barruan, Arartekoak berak egin dituen ohartarazpenekin bat etorritz, eskatzailea, bere ezkontidea eta adin txikikoak diren seme-alabak sartzen direlarik.

Era berean, Bizkaia eta Gipuzkoako Herrialde Historikoetan, erabiltzaileak ordaindu beharreko kuota erabakitzeke formulek nolabaiteko aldeak baldin badituzte ere, foru titulartasuneko prezio publikoak arautzen dituzten foru dekretuetan eta udaletako egoitza zentroekin eta pribatuekin sinatutako hitzarmenetan erabiltzailearen ekarpen bezala horren dirusarreraren %75a ezarri da pertsona batentzat eta guztira dituzten sarreraren %50a eta %75a senar-emazteentzat.

Nolanahi ere, eta hasieran esan dugun moduan irizpide horiek nahikoa argi geratu badira ere hiru herrialdeetan gai hori arautzen duten aipatu xedapenetan, praktikan ikusten da, udal batzuek, aldundiekin sinatutako hitzarmenen bidez beren gain hartutako konpromisoei aurre egiteko modurik ez izatearen eta zerbitzu horien eskaintzan horien erantzukizunari dagokionez Gizarte Zerbitzuen Legeak duen zehazgabetasunaren babesean erabiltzaileari edo beren familiakoei eskatzen dietela, hori onartu aurretik eta idatzizko agiri baten bidez, aipatu irizpideen arabera legokiokeen baino ekarpen askoz ere handiagoa.

Adibide gisa, herrialde honetako Gizarte Ongizateko Foru Diputatuak berak komunikabideen aurreran emandako Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, 1998an Gipuzkoako udalerrien ia ehuneko berrogeita hamarrak egiten zuen hori.

Horrela, Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren bidez Udalak leku horren finantzaketa kostua neurri batean ordaintzeko konpromisoa bere gain hartu baldin badu ere, azkenean betebeharrak hori erabiltzaileak bere gain har dezala eskatuko du, gehienezko ordainketari eta norberaren erabilerarako gutxienezko zenbatekoari buruzko mugak errespetatu gabe.

Egoera horren ondorioz badira bere gain hartutako betebeharrak zintzo betetzen dituztel udalak, egoitzetako zerbitzuetan dituzten erabiltzaileen mesedetan, baina baita karga horiek aldundien edota erabiltzaileen edo horien familien esku uzten dituzten udalak ere, eta horiek ezarri zaizkien baldintzak bete egin behar izaten dituzte leku hori gorde nahi izanez gero.

Kasurik larrienean, gerta daiteke itxaron zerrendan egon eta gaitasun ekonomiko handiagoa izateagatik lekuaren ordainketa osoa egiteko arazorik izango ez dutenei lehentasuna emateko tentazioa izatea.

Era horretan gerta daiteke, alde batetik egoitzetako zerbitzuetarako sarrera arautuko duten arauak baliabide ekonomikoen urritasuna bultzatzea, eskaintza pribatuko beste zerbitzuetarako sarrera eragozten duen neurrian, eta bestetik, praktikan eta ezkutuan, dirusarrerara handiagoak izateagatik egonaldiaren kostua erabat ordaintzeko gai direla aurreikusten den erabiltzaileei lehentasuna ematea.

Baldin badakigu ere administrazioen arteko hitzarmenetan erabiltzen diren formuletan hori sinatzen duen udalerrriaren ezaugarriak sarritan ez direla azaltzen, onartezina da horien edukietan xedatutakoa halako neurri handian ez betetzea.

3. Erroldan sartuta egon beharra egoitza zerbitzuetan sartzeko

5/96 Legearen 4. artikulua arabera, horretan araututako gizarte zerbitzuetarako eskubidea izango dute Europako Batasuneko hiritartasuna dutenak eta EAEn egoiliar edo bidekari direnak, arauz ezartzen diren baldintzetan.

Horrela, aurreikuspen horrekin bat etorritik, EAEn egoitza zerbitzuetan sartzeko baldintzak arautzen dituzten maila eta lurralde eremu ezberdineko xedapenetan erroldan sartuta egotearen gutxieneko aldia eskatzen da zerbitzua emateko eskaera egin den udalerrian, hori bi urtetik bost urtera bitartekoa da.

Hainbatetan gertatzen da zerbitzua eskatzen duena udalerrri batean bizi izan dela bere bizitza guztian, baina etxebizitzaz aldatzeagatik, leku jakin batera itzuli nahi izateagatik, bere familiarik hurbil edukitzeagatik, etab., beste udalerrri batera lekualdatu behar izan duela EAEn barruan edo herrialde historikoaren barruan.

Adinduak egoitza zerbitzu horietan sartu nahi duenean, eskaera jaso duen Udalak ez du hor sartzearen kostua bere gain hartu nahi, eskatzen den gutxieneko aldiaren udalerrian erroldan sartuta egotea ziurtatzen ez duelako.

Bestalde, jatorrizko udalerriak ez du onartu nahi inolako finantza erantzukizunik, eskatzailea bertan bizi ez delako.

Sektoreko araudiak erantzunik eman gabe uzten dituen arazo horiek, eskumena duten erakundeek konpondu izan dituzte sortu ahala eta era ezberdinean.

Horrela, adibidez Gipuzkoako Foru Aldundiak, erakunde honetan izapidatutako kexa espedientea dela eta, ekarpena eskatzailearen jatorrizko udalerriak egin behar zuen edo zerbitzua eskatzen zuenak egin behar zuen erabaki ahal izateko hainbat irizpide proposatu zituen, interesatua horietako bakoitzean bizi izan den urte kopurua erreferentziatzat hartuz.

Proposamen hori EUDEL euskal udalen elkartera bidali zen, azaldutako irizpideak udalek beren gain hartzeko eta era horretan kasuen arabera gertatzen ziren interpretazio ezberdinak gainditu ahal izateko.

EUDEL-en Herrialde Batzordeak proposamena egokia zela adierazi zuen irizpide orokor gisa, nolana ere, Aldundiak eta udalerriek sinatzen dituzten hitzarmenen eta Gizarte Zerbitzuen azaroaren 18ko 5/1996 Legearen esku utzi du hori.

Baina kexa espedientean eragina duten udalen aurrean erabaki hori gauzatzeko unean, jatorrizko Udalak, kasu honetan eta proposatutako irizpideen arabera ezarritako kopurua ordaindu beharko zuenak, ez zuen kostu hori bere gain hartu nahi izan, zalantzan jarri zuen EUDELek hartutako erabakiaren lotesletasuna, eta ezkor azaldu zen herrialde historikoko udalerrri guztiek hori errespetatzeari dagokionez.

4. Erabiltzailearen ekarpena zerbitzuen erabilera mailari dagokionez

Azkenik, nolabaiteko maiztasunekin ematen diren kasuei buruzko aipamen labur bat egingo dugu, horietan adineko pertsonen egoitzako erabiltzailea bertatik joan egiten da aldi luze batez, gehienetan ospitale batean egon behar izategatik, beharrezkoa duen osasun arreta izateko.

Kasu horietan egoitza horietako batzuk, gehienetan foru aldundietako titulartasunezko zentroek, hileko ekarpenetik kentzen dute horren mantenuari dagokion zenbatekoa, eta gainerakoa lekua gordetzeagatik kobratzen dute.

Aitzitik, udaletako beste hainbat egoitzetan edo itundutako pribatuetan ez dago jasota egoera hori, eta horren ondorioz erabiltzaileak bere ekarpen osoa ordaintzen jarraitu beharko du, nahiz eta, adibidez, ospitale batean hiru hilabete egon behar izan.

Irizpidea ezberdina izango da prezioen politika ezartzeaz arduratzen den administrazioa zein izatearen arabera, eta udalek azken orduan prezio publikoei dagokien ordenantza arautzaileak idazteko orduan bere gain hartzeko prest dauden konpromiso mailaren arabera.

Nolanahi ere, kasu hori lotu daiteke Gizarte Zerbitzuen Legearen 33. artikuluan ezarrita dagoen eta lehen aipatu dugun irizpideetako batekin, horren arabera, zerbitzuen finantzaketan erabiltzailearen partaidetza ezartzeko orduan, erabiltze maila hartuko da kontuan.

5. Ondorioak eta gomendioak

Labur azaldu den arazoan gehien nabarmentzen dena da Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, edo batzuetan herrialde historiko baten barruan, adineko pertsonentzako egoitzetako gizarte zerbitzuen erabiltzaileei arlo ekonomiko-finantzarioan ematen zaien tratamendu ezberdina dela, egoitza zentroen ardura duen administrazioa zein izatearen arabera eta horrek hartzen duen finantza konpromiso mailaren arabera.

Tratu ezberdintasun hori Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak emandako arau programatikoen, eta zehatzago esanda Gizarte Zerbitzuen 5/1996 Legearen zehazgabetasunaren ondorio da, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta gizarte zerbitzu espezializatuen alorrean udalei eta foru diputazioei dagokien erantzukizun maila erabakitzeke orduan.

Era berean, egoera horrek areagotu egiten du foru aldundiekin sinatutako lankidetzak hitzarmenetan eskuratutako finantzazko konpromisoak hainbat udalek ez betetzea, erabiltzaileen eskubideen kaltetan.

Horrela, EAEko Plan Gereontologikoan, Gizarte Zerbitzuetako Legean, eta foru aldundien eta euskal udalerrien artean sinatutako lankidetzako hitzarmenetan egoitzetako

zerbitzuen finantzaketarekin zerikusia duten hainbat alderdi arautzeko ahalegina egin bada ere, eta bereziki kostuan erabiltzaileek duten partehartzea arautzeko, ez dira batere erangikorrak gizarte zerbitzuen alorrean lehentasunezkoak izan behar duten berdintasun eta unibertsaltasun printzipioak bermatzeko orduan.

Aipatu zehazgabetasuna arintzeko asmoz, ezinbestekoa izango da Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuen Legea arauz garatzea, arautzen duen zerbitzu bakoitzaren esparrua eta hori eskaintzeko administrazioetako bakoitzak duen erantzukizun maila garbi mugatuz.

Aldi berean, prezio publikoak ezartzerakoan dauden eskumen esparru ezberdinak kontuan hartuz, beharrezkoa ikusten da adineko pertsonentzako egoitzazko gizarte zerbitzuen eskaintzan parte hartzen duten administrazio ezberdinek premiazko ahalegina egitea, horietako bakoitzak zerbitzuen finantzaketan izan behar duen partaidetza mailari dagokionez, eta baita erabiltzaileei dagokienez ere, adostasuna lortu ahal izateko, eta gerora eskumen esparru ezberdinetan garatuko diren arau ekimenak legeztatzeko.

7. TRATU TXARRAK JASO DITUZTEN EMAKUME ETORKI- NENTZAKO GIZARTE LAGUNTZAK

1. Kexaren azalpena. Arazoaren ikuspegi orokorra

1998 urtearen erdialdean, inmigranteei laguntzeko Bizkaiko elkarte batek erakunde honengana jo zuen, emakume atzeritarrek, batez ere gure herrian bizitzeko baimenik ez dutenek, beren bikote edo inguruko beste gizon batzuen aldetik tratu txarra jasotzen dutenean bizi duten babesik gabeko egoera azalduz.

Emakumeen aurkako bortizkeria gizarte arazo larria da eta oraindik ez da behar bezala ezagutzen ze neurritarainokoa den. Hala ere, egin diren azterketa guztiek -horien artean, Arartekoak 1998an etxeetako bortizkeriari buruz egin zuen txosten garrantzitsuak- garbi erakusten dute eskubideak zapaltzen dituzten jokabide horiek era kezagarrian daudela zabalduz gizarteko esparru eta maila guztietan.

Baina arazoaren orokortasunak ez du oztopo izan behar sektore eta jende multzo jakin batzuk egoera okerragoan daudela jabetzeko. Zentzu honetan, esaterako, Europako Erkidegoen Batzordearen Komunikazioan, COM (1998) 335 amaiera (Brusela, 98.05.20), haur, gaztetxo eta emakumeen aurkako bortizkeriaren barruan gutxiengo etnikoak, inmigranteak eta errefuxiatuak aipatzen ziren bortizkeria hori jasateko arriskurik handieneko talde bezala. Europako Parlamentuko A3-0349/94 Ebazpenak ere, besteak beste, emakume inmigranteek bizi duten egoera babesgabea adierazten du. Erakunde honek duen esperientziaren arabera, tratu txarrak izateko arrisku handiko egoera bizi duen beste arlo bat toxikomaniarena eta gaixotasun edo ezintasun fisiko nahiz psikiko jakin batzuen da.

Edozein modutan ere, aurkeztutako kexa egoera administratibo desegokian zeuden emakume inmigranteei zegokionez, Arartekoaren zeregina horretara mugatu da. Emakume horiek erasotuak direnean, sarritan, babesgabetasun larriagoan gertatzen dira, oso laguntza aukera urriak dituztelako: jatorrizko familiarengandik urrun, harreman pertsonalik gabe, sarritan adin txikiko seme-alabekin bere kargura eta, askotan, hizkuntza ezagutu gabe, beraiekin bizi den gizona izan ohi da beren erreferentzi bakarra. Atzeritarrek, bereziki baliabide ekonomiko eta kultural urriak dituztenek, baliteke ez ezagutu ere egitea eskubide batzuk badituztela, eta, horregatik, erabat beren senarren menpe geratzen dira eta, orokorrean, ez dira tratu txarrak salatzen ausartzen.

Gorabehera hauei beste batzuk gehitu behar zaizkie, esaterako, salaketa bat jartzen baldin badute, polizia haien berri izan dezakeela eta atzerrira bidal ditzaketela. Arrazoi horiengatik guztiengatik, egoitza-baimenik eta baliabide ekonomikorik ez duten emakume atzeritarrak batere babes eta defentsarik gabeko egoeran aurkitzen dira, eta horren aurrean erakunde publikoek ezin dute ezer egin gabe gelditu.

Bortizkeriaren menpe erori diren emakumeei laguntzeko neurri eta jarduerak era askotakoak dira -eta hala izan behar dute-, baina erakunde honek egin duen azterketak arlo jakin bat lantzen du zehazki: administratiboki egoera desegokian dauden emakume inmigranteek babestetze publikoetara joateko duten zailtasuna.

Jakina denez, EAEko aldundi eta udalek etxebizitza batzuk egokitu dituzte tratu txarrak izandako emakumeentzat, eta bertan larraldietako laguntza ematen zaie eta etorkizunean modu autonomoan bizitzeko laguntzak eskaintzen zaizkie. Baina, prestazio horiek eskuratzeko eskatzen diren baldintza administratiboek ezinezko egiten dute legezko agiriak ez dituzten inmigranteek laguntza horiez baliatzea.

Gaia erakunde honi aurkeztu zion elkarteak Bilbon gertatutako egoerak aipatzen zituen soilik, hori delako beren jarduera esparrua. Baina, herri horretan, inmigranteen kopurua handiagoa izateagatik, egoera larriagoa izan arren, Arartekoak atera duen ondorioaren arabera egoera hori EAE osoan ematen dela aitortu beharra dago. Bestalde, eragindako emakumeek bizitzeko eta osotasun fisiko eta morala babestua izateko duten eskubide nagusiarekin zerikusi zuzena duen heinean, egokia zen ofiziozko jarduera bati ekitea, administrazio eskudun ezberdinek kolektibo honi ematen dioten laguntza motaren ikuspegi orokorra bat edukitzeko.

2. Erakundeek eskaintzen duten laguntzari buruzko datuak

Adierazitako arrazoiengatik, Arartekoak hiru foru aldundiei eta hiru euskal hiriburu-tako udaletxei eskatu zien horri buruzko informazioa. Erakunde bakoitzak gaiari buruz egin nahi zituen azalpen orokorrez gainera, zehazki alderdi hauek landu nahi genituen:

- a) babeserako gune horietan onartuak izateko tratu txarra jaso duten emakume inmigrantei jartzen zaizkien baldintzak.
- b) arauzko agiriak ez dituzten emakume inmigrantei ze nolako laguntza ematen zaien eta, bereziki, ea aukerarik duten delako babeserako etxebizitza horietan onartuak izateko.
- c) lehendik oharturik dauden arazo horretaz eta, hala balitz, ze neurri hartu diren aurre egiteko.

Erantzunetan adierazitako azalpenak ez zetozen denak bat beren artean, eta ez ziren Arartekoak egindako galdera zehaztutara mugatzen beti. Beraz, egoki deritzogu erakunde bakoitzak emandako erantzunaren laburpen bat egiteari. Bizkaikoetatik hasiko gara, zeren, adierazi denez, hortik etorri baitzen jatorrizko kexa.

A. Bilboko Udala

Bertan adierazten denez, Emakumearen Udal Zerbitzuak sei etxebizitza ditu tratu txarra jasaten duten eta egoera hori saihesteko beren etxetik alde egin behar duten emakumeentzat. Eta horrezaz gainera, zera diote.

“Aukera hori baliatzeko eskatzen duten baldintza bakarra Bilboko erroldan izena emana edukitzea eta funtzionamendurako arau jakin batzuk beteko dituela eta dagokion “gizarte jarraipena”ri erantzungo diola hitza emanez behin-behineko lagapen kontratu bat sinatzea da.

Baldintza formal horiez gainera, bada beste baldintza bat onartze hori gauzatzeko ezinbestekoa dena, hau da, Emakumearen Udal Zerbitzuko gizarte langileak, kasu bakoitzean ematen diren ezaugarriak aztertu ondoren, irtenbide hori proposatzea komenigarriena bezala. Bestela, eskakizun hori laguntzarako baliabideak dituzten beste erakunde edo elkarte batzuetara bideratzen da”.

Hitz gutxitan esanda, nahiz eta txostenaren amaieran, bertakoen eta atzerritarren artean inolako bereizketarik ez dela egiten azpimarratu arren, kaxa -gero aztertuko denez- erroldan izena emana eduki behar horretan dago, eta are gehiago, zehazki adierazten ez bada ere, arauzko agiriak edukitzeko obligazioan.

B. Bizkaiko Foru Aldundia

Gizarte Ekimenerako Foru Aldunak osatutako txostenean ageri denez, hainbat etxebizitza daude tratu txarra jasaten duten eta *baliabide ekonomiko edo familiarrik ez duten* emakumeentzat eta horiek dituzten adin txikiko seme-alabentzat. Etxebizitza horietan sar daitekeen jende kopurua mugatua dela adierazten da, eta, horregatik, bertan egoteko aukera aldi baterako bakarrik dela, eta bertan onartzea egoki den ala ez Emakumearen Sailari atxikitako ardura arlo anitz biltzen duen talde batek erabakitzen duela, eta zera gehitzen du:

“eskaeraren bideraketa honela egiten da:

1. Interesatuak dagokion Udalean egindako eskaera.
2. Interesatuak Epaitegian edo Polizian ezarritako salaketaren kopia, eskuartean dugun bezalako kasuetako salbuespenekin.
3. Udalak sarrera eskaera hori Gizarte Ekimenerako Departamentu honetara igortzen du, hura oinarritzen duten arrazoiak adierazten dituen Gizarte Txostena bateratuz.
4. Departamentuko Taldeak egiten duen azterketa eta balioztapena, kasu bakoitzean ematen diren alderdi juridikoak, psikologikoak eta sozialak begiraturaz, dagozkion txostenak osatuz.

Azkenik, aipatu beharrekoa da ez dagoela inolako berariazko baldintzarik atzerriko emakumeentzat, tratu txarren kasurako, eta Administrazio Unitate honetako artxiboetan ageri da hainbat emakume atzeritar onartu izana, Zentro propioetan edo besteenetan”.

Nahiz eta azken baieztapen hori egin eta eroldari buruzko inolako aipamenik ez sartu, kexa aurkeztu zuen inmigranteen laguntzarako elkarteak emandako informazioen-gatik, badirudi eguneroko jardunean ez zaiela harrerarik eskaintzen egoiliar baimenik ez duten emakumeei.

C. Donostiako Udala

Gure eskaerari erantzunez, Donostiako Udaleko Emakumearen Negoziatuak txosten bat osatu zuen, eta emakume inmigranteei buruzko txosten guztiak aztertu ondoren, erakunde honek egindako hiru galderei erantzun zien. Emandako datuak honela laburbildu ditzakegu:

- a) Harrerako etxebizitzetan sartzeko baldintzak ondorengoak dira:
 - Tratu txarrak jasatea eta egoera horretatik atera nahi izatea.
 - Donostiako Udalaren eroldan egotea.

Baina gerta daiteke, emakume inmigranteak ez-arauzko egoera batean egotea, hau da, egoiliar baimenik eta beste inolako agiririk ez edukitzea. Kasu horietan, udal zerbitzuaren ustez, Administrazioaren osagai bat den heinean, ezin dutela inolako ez-arauzko egoerarik onartu. Nolanahi ere, uste dute emakume horien egoera berezia kontuan izanik, gizarteko arazo honi ezin zaiola uko egin.

Diotenez, orain arte ez da egoera honetan dagoen inolako emakumeren eskaerarik jaso, baina gertatuko balitz, zerbitzuak honela jokatuko luke: Babeserako etxebizitza horietako batean sartu behar dela irizten baldin bazaio, hala egingo litzateke, baina

Barne Ministerioak haren bizilekuaren egoera administratiboari buruzko erabakia hartzen duen bitartean, horretarako behar den koordinazioarekin eta, noski, emakumearen adostasunarekin beti. Adin txikiko haurrak tartean balira, gorabehera hori Foru Aldundiaren Adin Txikikoen Departamentuari jakinaraziko litzaioke.

b) Arauzko agiririk ez duten emakumeek jaso dezaketen laguntzari dagokionez:

Lehenik, informazio juridikoa ematen zaie eta, gehienetan, arlo horretan aritzen den GKE batera bideratzen dira. Gero, Zerbitzuak kudeatzen dituen beste baliabide batzuk jartzen dira bere eskura: babeserako etxebizitzak, diru laguntza, banantze aurretiko izapideak, tratamendu psikologikoa... Beste nolabaiteko gizarte baliabideren bat behar izanez gero Gizarte Ongizate Departamentuarekin koordinatzen da.

c) Udal bulegoa 1988an ireki zenetik, hainbat emakume atzerritarri lagundu izan zaio. Horietako 17k tratu txarrak jasaten zituzten. Beren ezaugarriak honela laburbildu daitezke:

- Jaioterria: Portugal: 8; Ertamerika eta Hego Amerika: 5; Afrika: 3; Frantzia: 1
- Legezko egoera: batek ezik, beste guztiek egoitza baimena zuten.
- Tratu txarren salaketa: bai, 6 kasutan; ez, 11 kasutan.
- Egoera zibila: ezkonduak: 14 (beren senarrak, gehienetan Euskal Herrikoak); ezkongabeak: 2; legez banandua, baina euskaldun batekin bizitzen: 1.
- Isolamendua, familiaren babesik eza: 4 kasutan nabarmen adierazi zuten arazo hau.

Kasu gutxi batzutan Zerbitzuak SOS-Deiaren bidez jakin zuen eraso batzuen berri, baina eskura zituen zerbitzuen berri eman nahian emakume horiekin harremanetan jartzerakoan ez ziren etorri, seguraski beldurturik zeudelako.

Amaitzeko, igorritako informazioan jakinarazten da, erakunde honek azaldutako arazo zehatz hori egia baldin bada ere, tratu txarren arazoa emakume inmigranteek bizi duten egoera zail eta korapilatsuaren alderdi bat besterik ez dela. Zerbitzuak landutako kasu gehienetan ez zegoen tratu txarrik: seme-alabak zituzten, eta arazorik aipagarriena gizartean bat egiteko zailtasuna zen (ekonomi egoera txiroa, lan baldintza nahiko txarrak, etxebizitza gabe, ez-arauzko egoera...). Kasu horietako batean, emakume batek poliziarengandik jasaten zuen etengabeko jazarpena azpimarratu zuen. Eta ezin dira ahaztu prostituzioarekin loturiko arazoak: hiru emakumeri eskaini zaie arreta; horietako 2k ostatua eta lana eskatu zuten, lanbide hori utzi ahal izateko eta Euskal Herrian bizi ahal izateko, eta hirugarrena, bere "babeslea" salatu ondoren, bere jatorrira itzuli zen, eta horretarako zerbitzuaren laguntza jaso zuen.

C. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak bere erantzuna ematerakoan dioenez, arazo horren inguruko gorabeherak udal bakoitzeko oinarritzko gizarte zerbitzuen bidez antzematen dira, eta, horregatik, foru erakundeak kasu jakin batzuen berri labur batzuk besterik ez ditu. Eta honela adierazten du:

“Egoera hauetarako ditugun baliabideak ondorengoak dira: Laguntza juridiko eta psikologikorako Programa, Larrialdietarako Harrera Programa eta larrialdietarako etxebizitzaren sarea.

Burutzen den eskuhartzea “normalizatu” da, nahiz eta baldintza guztiak ez bete harrera egiteko etxebizitzetan sar daiteke, esaterako, Gipuzkoako herriren baten erroldan, gutxienez, 6 hilabetez egon izana betetzen ez bada.

Harrera hori tratu txarregatik gertatzen bada, Udal batzuk aurrebaldintza bezala jartzen dute dagokion salaketa egitea.

Bere inmigrante egoeran orientabide eta laguntza zehatzago bat emateko GKEtara edo esparru horretan lanean ari diren erakundeetara bideratzen da”.

E. Gasteizko Udala

Arartekoak egindako informazio eskaerari erantzuteko Gizartean Eskuhartzeko Departamentuak txosten zabal bat eskaini zigun, guk eskatutako arazoei buruzko informazioaz gainera, atzeritarren kolektiboarekiko gizarte jardueretarako programei eta gizarte larrialdietarako etxebizitzei buruzko dokumentazioa helarazi zitzaigun. Ezinezkoa da lortutako informazio guztia hemen azaltzea, eta, beraz, datu garrantzitsuenak bakarrik adieraziko ditugu:

a) Gasteizko udalak zortzi etxebizitza ditu “larrialdietarako etxebizitzak” izenarekin, eta bestelako ostatu aukerarik ez dagoenean larrialdi kasuei irtenbidea emateko erabiltzen dira. Emakume inmigranteen aipamen berezia egiten da, errefuxiatuak edo asilatuak, dokumentazioa zuzen eduki ala ez, zeren senarren tratu txarren menpeko baitira, eta bestelako bizilekuren bat behar dutenean, Udalak lehen aipatu dugun baliabidea erabiltzen du: larrialdietarako etxebizitza. Beren ohiko etxebizitza aldi baterako edo betirako utzi beharra gertatzen denean, etxebizitza horiek denak beteta egonez gero, emakume horiei behin-behinekoz udalaren bestelako ostatu baliabideren bat eskaintzen zaie (Gizarte Harrerarako Udal Zentroa, Etxe Irekia...).

Nahiz eta harrera hori eskaintzeko aurrebaldintza bezala Gasteizen errotuta egotea eskatu, harrera hori haien dokumentazio egoera kontuan hartu gabe eskaintzen zaie, pertsona horiek duten bizitza eta osotasun fisikorako eskubideari erantzunez, azken batean duten segurtasun eskubideari lehentasuna emanez.

b) Arauzko dokumentaziorik ez duten inmigranteen egoera orokorrari dagokionez, Udal Gizarte Zerbitzuek gizarte baliabideak eskatzen zituzten atzeritar familiak etorri izana somatu zuten, eta modu iraunkorrean bertan finkaturik egon arren arauzko egoera egokian ez zeudenez ezin zutela baliabide horietara normaltasunez iritsi. Hau da, Udalak premiazko egoerak somatu zituen (oso larriak kasu batzuetan) erakundeen laguntzarik ez zutenak edo halakorik gabe gelditu zirenak, eta eguneroko bizimoduan elkartasunezko elkarte edo taldeen laguntza jasotzen zutenak, hauek ahal dutenaren barruan. Horregatik, Gizartean Eskuhartzeko Departamentuko Gizarte Antena Sistemak 1994an Udal Jarduera Proiektua burutu zuen inmigranteen multzoari zuzendua.

Garatu zen jarduera proposamenetako bat Gasteizen zeuden inmigranteen udal erregistro bat eratzea izan zen. Gasteizen bizi arren, une hartan zuten ez-arauzko egoerarengatik, udal errolda arruntean sartu ezin zuten eta, ondorioz, gizarte laguntzetatik kanpo geratzen ziren inmigranteei zuzenduriko errolda bat zen, Udalak inmigrante horien familiak emandako datuekin osatua. Erregistro horretan izena eman ondoren, inmigranteak eta bere familiak gizarte laguntza jakin batzuk lor zitzakeen, horretarako udalaren baliabideak eta Gasteizko esparruan aritzen diren bestelako erakunde publiko eta pribatu batzuen baliabideak erabiliz.

Ondoren, Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak udal errolden arloan ekarritako aldaketek, urtarrilaren 10eko 4/1996 Legean biltzen zirelarik, eragin zuzena izan zuten atzerritarren erroldari zegokionez, eta, aldi berean, eragina izan zuen Udal Administrazio honek epe laburrean ekinean jartzeko asmoa zuen Atzerritarren Arretarako Zerbitzuan. Aldaketa horiekin, udal errolda arruntean inskribatzeko aukera ematen zuen eta, beraz, ez zen beharrezkoa aldeztatik eratu genuenaren antzeko errolda berezia.

Baina, hala ere, egokitzat jotzen zen erroldan egon arren gizarte prestazioak eskuratzeko baldintzak betetzen ez zituzten familiei zuzendutako udal mailako gizarte jarduera, horretarako premia zutenean edo gizarte arloko arazoak zuzentzerako, beraz, multzo horren laguntzarako Gizartean Eskuhartzeko Proiektuak aurrera jarraitu zuen.

Azkenean, 1997ko abenduan, Errefuxiatuen Laguntzarako Espainiako Bazardearen (CEAR) laguntzarekin sinatutako lankidetzarako hitzarmen baten bidez, Inmigrante, Errefuxiatu eta Asilatuen Multzoarentzako Laguntza Juridikoa eratu eta abian jarri zen.

c) Atzerritarren multzoari zuzendutako gizarte lanaren jardueran ez dago estatistika bereizirik, nahiz eta nabaria izan gehien ematen diren arazoak beren dokumentazioaren desegokitasuna eta, ez kopuru garrantzitsuan, norberaren bikoteak eragindako tratu txarrak direla.

Amaitzeko, ondorengo azalpenak egiten dira:

“Emakumeen aurka burututako bortizkeria gizartearen arazo larri bat da, eta horri aurre egiteko, Udalaren aldetik, ez da kontuan hartzen hirian bizitzeko dokumentazio guztia legez duen ala ez, eta, beraz, atzerriko emakumeek bertakoek jasotzen duten harrera berbera jasotzen dute, eta larrialdietarako laguntza ematen zaie, behar den lankidetzak eskainiz eta eskura dauden gizarte baliabideak erabiliz”.

F. Arabako Foru Aldundia

Gizarte Ongizate Departamentuak informazio zabala eskaini zion erakunde honi Gizarte Ongizateko Foru Institutuak tratu txarreko emakumeen arretarako xedatzen dituen baliabideei buruz, hala nola erabiltzaileen ezaugarriei buruzko hainbat datu.

Foru Institutuak larrialdi egoeran dauden emakumeentzako bi harrera-etxebizitza ditu, eta horiekin, unean uneko arazoei erantzun bat emateaz gainera, 20.000 biztanletik beherako biztanleria zuten Arabako herrietako emakumeen larrialdietarako ostatu premiak estali nahi ziren.

1997az geroztik hobetu egin da harrerarako prozeduraren eraginkortasuna harrera-etxebizitzetan zaindutako emakumei laguntzeko eta orientabidea eskaintzeko garatu den programaren bidez. Etxebizitza horiek Arabako Herrialde Historikoko emakumei eta beren seme-alabei zuzendurik daude, berehalakoan aldi baterako ostatua behar duten kasuetarako, baina tratu txarrak jasotzen dituzten beste herrialde batzuetako emakumeak ere har daitezke. Halaber, beste nolabaiteko gizarte larrialdiren bat jasaten duten familiak ere izan daitezke laguntza horren onuradun, nahiz eta hortik kanpo geratzen diren gai toxikoekiko menpekotasun arazoak dituztenak edo gaitz psikiko larriak dituztenak.

1994an abiatu zenetik 13 emakumeri egin zaio harrera -batzutan seme-alabekin-, eta horietako 2 atzerritarrak ziren.

Erantzuteko bidalitako txostenean, eraso sexualak eta tratu txarrak jasan dituzten emakumei arreta psikologikoa eskaintzeko Zerbitzu bat dagoela ere aipatzen da, eta

bere funtzionamenduaren azalpena egiten da. Gaur egun, Foru Aldundiaren eta Gasteizko udalaren arteko hitzarmen baten bidez arautzen da. Halaber, emakumeentzako orientabide juridikorako Zerbitzu bat eratu eta abian jarri da, baliabide ekonomiko urriak dituzten Arabako emakumeei familia zuzenbidearekin zerikusia duten gaietan auzien aurretik behar duten aholkularitza dohainik eskaintzeko. Kasu batzuetan, orientabidea eskatu dutenek nazionalitate edo egoitza arazoak sortu dituzte.

Baliabide erabilgarrien zerrendan, azkenik, familia ingurunean bortizkeria erabili duten gizonei arreta psikologikoa eskaintzeko Zerbitzua aipatzen da.

Txostena amaitzeko Gizarte Ongizate Departamentuak ondorengo azalpenak egiten ditu:

“Arau orokor gisa, tratu txarrak izan dituzten emakumeen arretarako Zerbitzu berezituak eskaintzea, beti, une bakoitzeko arazoaren arabera erabakiko da, eta ez zerbitzu horiek eskatzen dituen pertsonaren bestelako baldintza edo egoeraren arabera, bertan onartuak izateko prozedurak malgutasunez eta unean uneko egokitasunaren arabera erabiliz”.

Gainera dio, adierazitako berariazko zerbitzuekin batera, inmigranteen premiei, zuzenean, oinarrizko gizarte zerbitzuen bidezko arreta eskaintzen zaiela eta, zeharka, gaiari buruzko gune ezberdinetan eta sasoikako langileei zuzendutako programetan esku hartuz eta inmigrante eta errefuxiatuen multzoaren aldeko lanetan aritzen diren udalei eta GKEei laguntza instituzionala eskaintzeko deialdi bidez.

Bestalde, garbi adierazten dute badela “*egoitza baimenik gabeko emakume inmigrante multzo bat, behar izanda ere, ez dena oinarrizko zerbitzuetara edo zerbitzu berezietara joaten; hain zuzen ere, errepideetako klubetan epe laburrez egon ohi diren prostituzio ibiltariko sareetan sarturik daudenak*”.

G. Bestelako informazio iturriak

Nahiz eta informazioa eskatu zaien erakunde publiko bakarrak, aipatu ditugun horiek izan, Emakundek datu jakin batzuk eskaini dizkigu, administrazio publikoaren esku dauden eta ez-arazuko egoeran dauden emakume inmigranteak onartzen diren harrera-etxebizitzetara buruz.

Emakundek eskainitako informazioak berretsi egiten du erakunde honen ustea, hau da, emakume horiek onartzen dituzten etxebizitza bakarrak Gasteizko Udalak eta Arabako Aldundiak egokitutakoez gainera, Arabako Lodioko udalak eta Bizkaiko Ermua, Galdakao eta Santurtzikoek kudeatzen dituztenak direla.

3. Atzemandako arazoei buruzko azalpenak

Ez dago gehiago azpimarratu beharrik sakoneko arazoaren larritasuna. Europako Erkidegoen Batzordeak, aipatutako 98.05.20 Komunikazioan, dioenez, emakumeen aurkako bortizkeria “*gertakari oso errotua da gure gizartean eta funtsezko giza eskubideen urraketa oso larria da. Zoritxarrez, gizarte guztietan eta gizarteko maila guztietan zabaldua dagoen zerbait da, horien garapen maila, egonkortasun politikoa, kultura edo erlijioa edozein dela ere*”.

Bestalde, ez da ahaztu behar arazuko dokumentaziorik gabe gure artean bizi diren emakume atzerritarrek dituzten arazoaren barruan beren bikoteek eragiten dizkieten tratu

txarrak ez direla horien arazo larriena eta beren kezka nagusia. Halaber, garbi geratu behar du gai hau ez dela bereziki aztertzen pertsona multzo horrek beste emakume multzo batek baino arrisku handiagoa duelako bortizkeriaren menpe erortzeko. Baina, benetan zalantzarik gabekoa dirudi, behin gertatuz gero, horren aurka egiteko gaitasun urriagoa dutela. Nabarmendu denez, horien diru egoera txiroaren ondoriozko baliabide urriei eta gizartean duten errotze maila kaskarrari beraiekin bizi den gizonarekiko duten menpekotasuna gehitu behar zaio, eta batez ere administrazio arloko ez-arauzko egoera desegokia, klandestinitate egoeran murgildurik geratzen baitira eta erasoen aurka babesteko dauden erakundeak -esate baterako, polizia- kontrolerako tresna mehatxugarriak gertatzen dira beraiantzat.

Zentzu honetan ulertu behar dira Emakumearen aurkako Bortizkeria Eragozteari buruzko Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 48/104 Aldarrikapenean bildutako gomendioak, bertako partaide diren Estatuiei ondorengo eskaera egiten dienean:

“Erabilgarri dituzten baliabideek ahalbideratzen duten neurrian, beharrezkoa denean eta nazioarteko lankidetzaren ikuspegitik, bortizkeria jasaten duten emakumeek, eta behar dutenean horien seme-alabek, arreta berezitua izan dezaten ziurtatzen saiatzea, birgaikuntzarako zerbitzuak, haurrak zaindu eta mantentzeko laguntza, tratamendua, aholkularitza, zerbitzuak, instalazioak eta gizarte eta osasun programak eskainiz, hala nola babeserako azpiegiturak eta, halaber, haien segurtasuna eta birgaikuntza fisikoa nahiz psikikoa sustatzeko neurri egokiak hartzea”;

zentzu berean, *“bereziki egoera ahul eta erasogarrian dauden emakumeen aurkako bortizkeria eragozteko neurriak hartzeko”* premia azpimarratzen du.

Dagoeneko aipatua dugun Arartekoaren txostenean biltzen dira Europako Parlamentuaren A3.0349/94 Ebazpenaren pronuntziamentuak, eta horien artetik ondorengoak azpimarratuko genituzke hemen:

“- Partaide diren Estatuiei sexu arrazoiengatik bortizkeria jasaten duten emakume inmigranteen egoerari arreta berezia eskaintzeko eskatzea”.

“-Justizia eta Barne Arazoetarako Kontseiluari eskaera berezia egitea inmigrazio eta asilo eskaeren arloan arautegi xedapenak onar ditzan, tratu txarra eragiten dien bikotearengandik banandu diren hirugarren herrialde bateko emakumeei, bestelako arrazoirik ez dagoenean, ukorik ez egitea bermatuz”.

Garrantzitsua iruditzen zaigu azken iradokizun hori, zeren bortizkeria jasan izana inmigrazioa arautzen duten legeen gainetik jartzen baitu. Giza eskubideen babesaren ikuspegitik, gure ustez, hauxe da administrazioek emakume erasotuentzat dituzten prestazioak eskaintzeko garaian hartu beharko luketen jokabidea.

Administrazioaren ikuspegitik emakume atzeritar jakin batek duen kalifikazioa edozein dela ere, gure herrian emakume horren eskubide oinarrizkoenak, hau da, osotasun fisiko eta morala, eta, sarritan, bere mugimendu askatasuna, urratu dira eta, gainera, batzutan, erasotzaileak hemengoak dira. Botere publikoek jokabide horiek eman ez daitezen saiatzeko eta, hala dagokionean, jazartzeko betebeharra duten bezalaxe, beren laguntza eskaini behar diote horien ondorioz kaltetutako pertsonen, jasandako eskubide urraketa luzatu dezaketen eta are larriagoa bihur dezaketen oztopo formalak gaituz.

Egia esan, hemen gertatzen den interes kontrajarrien arazoa “paperik gabeko” inmigranteen multzoari eskaini beharreko osasun arretarekin gertatzen zenaren oso antzekoa da. Nahiz eta legezko arauak dauden adin txikikoen laguntza unibertsala berariaz ezartzen dutenak, gizarte demokratiko batek giza eskubideekin duen konpromisoak estaldura hori pertsona guztiengana hedatzea eskatzen du, horien adina eta egoera administratiboa kontuan hartu gabe.

Eskubideak bermatzearen aldeko jarrera honen ondoan, inmigranteen aldeko elkarteek bizi duten errealitatea guztiz bestelakoa da: erosoegi ihes egiteko beren etxebizitzetatik alde egin beharrean diren emakume atzerritarrak ez dituzte harrera-etxebizitzetan hartzen, laguntza eskatzen den herriko erroldan gertakari hori gertatu aurretik sarturik egotearen baldintza betetzen ez badute. Arabako erakundeek soilik adierazten dute emakumearen osotasuna babesteari erabateko lehentasuna ematen diotela.

Jarduera hau eragin zuen kexan emandako informazioaren arabera, Bizkaian uko egin izan zaie hainbat harrera eskaerari egoitza-baimena ez izateagatik, eta horrek aurrebaldintzen erabilera zorrotza adierazten du, zeren -jakina denez- indarreango legeriak aukera ematen baitu izatezko egoitza kasuetan erroldan sartzeko, nahiz eta administrazioaren egoitza-baimenik ez eduki. Erakundeen jarrera honen ondorioz larriagotu egin daitezke emakume inmigranteak jasan beharreko arazoak, zeren administrazioa jakinaren gainean baldin badago hark haurrak dituela eta etxebizitzarik ez izateagatik ezin dituela behar bezala zaindu, babesgabetasun egoeratzat har daiteke eta, beraz, adin txikikoen tutela automatikoki beregana dezake, eta orduan emakume hori bere seme-alabengandik banadurik utziko litzateke. Beste era batean esanda, ama harrera-etxebizitza batean hartuz adin txikikoei etxebizitza eta segurtasuna eskaini ordez, gerta daiteke txirotasuna zigortuz haurrak bere amarengandik urrunduaraztea.

Arartekoaren iritziz jarrera hauek ez dira zuzenak elkartasunezko gizarte batean eta, beraz, ahal den neurrian zuzendu beharrekoak dira. Egia da jokabide horien oinarrian ez dagoela baztertzeko borondaterik, baizik eta, batez ere, baliabideen urritasun baten ondorio direla, herrialde batzuetan beste batzuetan baino gehiago, eta, horregatik, lehengo helburua laguntzarako baliabideak gehitzea izan behar du.

Zentzu honetan, etxeak erabili aurretik erroldan izena emanda edukitzearen baldintza laguntzaren erantzukizuna herrialde ezberdinetako administrazioen artean banatzeko modu bat da, eta ez erabilera eskubidea sortzeko aurrebaldintza bat. Horrek guztiz nabarmena dirudi bertakoen artean: emakume batek etxebizitza aldatu baldin badu, erakundeek eztabaida dezakete nori dagokion laguntza eskaintzea, baina ez dirudi zentzuzkoa litzatekeenik betekizun formal huts batengatik laguntza ukatzea. Iruzurrezko eskaera batek soilik oinarritu dezake uko egite hori, eta ezinezkoa izango da iruzurra nabarmentzea tratu txarrak egiaztatzeko modua dagoenean.

Arartekoaren ustez, irizpide berbera erabili behar da emakume inmigranteen kasuan: bortizkeria jasan duenak, gutxienez ere, erasoak amaitarazteko adinako babesa jasotzeko eskubidea du. Eta laguntza hori eskaintzeari buruzko administrazio eskudunaren erabakiak ezin du inolaz ere eskubidea edukiz hustu.

Beste kontu bat dira, arauzko egoeran ez dagoen emakume inmigranteari harrera eskaini ondorengo jarduerak. Zentzu honetan, harrera-etxebizitzan helburua larrialdizko egoeretan laguntzea eta, gero, tratu txarra jaso duen emakumeak autonomoki aurrera egin dezan behar diren baldintzak bultzatzea baldin bada, zentzuzkoa dirudi babesa kudeatzen duen erakundeak bere ahalegina egitea emakume atzerritarraren egoera

legeztatzearen alde. Horrela, esate baterako, ahal bada, dagokion udal erroldan sar dadin errazten saiatuko da.

Batzutan, pertsona horrek inolako dokumentaziorik ez duelako edo poliziak atxilotuko duenaren beldurrez erroldan sartu nahi ez duelako, inskripzioa ezinezkoa izango da. Zailtasun horiek ezin dute larruinean laguntzarik ez ematea eragin, harreraldia amaitutakoan irtenbide alternatiboak aurkitzearen kalterik gabe; gehienetan, GKE baten edo elkartasunerako taldeen lankidetzaz bidez.

Honi dagokionez, ezin da ahaztu Donostiako Emakumearentzako Zerbitzuak Barne Ministerioarekin koordinatzeko beharraren aipamena, organismo horrek emakume atzerritarren egoera administratiboari buruz erabaki bat har dezan. Bestalde, ezin da ahaztu ezta ere, interes kontrajarrien auzia sor daitekeela, batetik, atzerritartasun-legea betetzeko obligazioa dagoelako eta, bestetik, laguntza eskaera egiterakoan eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna gordetzeko. Nolanahi ere, bizitza eta osotasun fisiko nahiz psikikorako eskubidearen lehentasuna kontuan izan beharrekoa da interes kontrajarri horiek neurtzeko garaian.

Horri dagokionez, eta Arartekoak egindako beste adierazpen batzuen arabera, kontuan eduki behar da delitu bat jasan izana *aparteko arrazoiengatik egoitza-baimena emateko* zioa izan daitekeela ageri dela (Atzerritartasun-Legea garatzeko Arautegiaren 53. artikulua). Etxeko bortizkeria penalki tipifikatutako jokabidea denez, egoitza legeztatzeko bide hau malgutasun osoz erabili beharko litzateke emakumeek jasan beharreko tratua txarren gizarte arazo larria zuzentzen saiatzeko.

Eta, hemen aztertzen ez baditugu ere, irtenbide berbera erabili daiteke larritasun uka ezina duten beste hainbat kasutan. Besteak beste, galdetutako erakunde batzuk nabarmentzen zuten arazoa, hau da, prostituzio sareen biktima diren inmigranteena, eta are pertsonen salerosketan aritzen diren antolamendu kriminalena ere. Hauen antzekotasuna duen beste egoera bat enpresa klandestinoek esplotatzen dituzten pertsonena litzateke, bestelako interes batzuek gainera eskubide laboralak urratuz, langileen eskubideen aurkako delituen subjektu pasibo bihurtzen baitituzte.

Azken batean, jende multzo bereziki erasogarriak izan ohi dira, eta horien artean emakumeek are bazterketa handiagoa jasaten dute -hala esan baliteke-, eta, horregatik, arreta bereziago bat jaso beharko lukete botere publikoen aldetik.

4. Ondorioak

Azaldutako irizpideei jarraiki, etxeko bortizkeria jasan duten emakumeentzako harrera-etxebizitzak kudeatzen dituzten erakunde publiko guztiei zuzendutako gomendio orokor bat egitearen komenigarritasuna ikusten da.

Administrazioak bere laguntza eskaini behar die beren ezkontideen erasoetatik babesteko etxebizitza uztera beharturik aurkitzen diren emakume inmigranteei, horretarako prestatutako etxebizitzetan hartuz -beren seme-alabekin batera-. Eta giza eskubideak babestearen ikuspegitik, laguntza hori gainerako hemengo emakume guztien neurri berberetan eskaini behar zaie, emakume atzerritarrek Euskal Herrian bizitzeari dagokionez duten egoera administratiboa kontuan hartu gabe.

Une honetan, komenigarri gertatzen da atzerriko pertsonak udal erroldatan inskribatzeari buruzko Arartekoaren 1997 urteko Txostenean biltzen zen gomendioa gogora ekartzea. Udalek, indarreango arauak betetzen badituzte, udalean bizi diren pertsona guztiak erroldan sartzen saiatu behar dute, nahiz eta egoitza hori ikuspegi

administratibotik arauzkoa ez izan. Erroldan inskribaturik egoteak gizarte prestazioak eskuratzeko aukera ematen du, hain zuzen ere, inmigranteek sarritan jasan beharreko egoera behartsuetan ezinbestekoak gertatzen diren prestazioak.

Nolanahi ere, erroldan ez egoteak ezin du oztopo gertatu etxeko bortizkeria kasuetan behar den laguntza eskaintzeko eta, zehazki, ez du zertan eragotzi behar harrera-etxebizitzetan onartua izatea. Kasu hauetan, oinarrizko gizarte zerbitzuek premiazko egoeraren ezaugarriak izan behar dituzte kontuan, erasotutako emakumearen eta, hala dagokionean, bere kargura dauden adin txikikoen bizitza eta osotasuna babesteari lehentasuna emanez.

Babes jarduera horien burutzapenean gizarte zerbitzuetako langileek, besteak beste, kontuan izan behar dute, erabiltzailearekin duten konfidentzialtasunaren oinarrizko irizpidea. Babeserako etxeetan onartuak izateko baldintzak betetzen diren neurtzeko garaian, ez da ahaztu behar une jakin batean egon daitezkeela hainbat arrazoi emakume inmigrante bati ezinezko egiten diotenak salaketa bat jartzea edo baldintza normaletan exigigarriak liratekeen hainbat jarduera burutzea. Berritri diogu, bortizkeria jasan behar izan duen emakumearen funtsezko eskubideak babestea dela erakundeen jardueraren oinarri izan behar duen irizpide nagusia.

Azkenik, egoki da gogoraraztea atzerritartasun-legeak aurreikusten duen aukera, delitu baten biktima izan diren atzerriko pertsoneri aparteko arrazoiengatik egoitzabaimena emateko. Xedapen honen erabilera eskuzabala eginez gero, erasoak jasan behar izan dituztenek edo hainbat esplotazio egoeren menpe daudenek (sexu arloan, lan arloan etab.) pairatu beharreko hainbat egoera -gutziz jasanezinak sarritan- leuntzea lortuko litzateke.

VII. ATALA
AZKEN ONDORIOAK.
ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 23ko 3/85 Legeak 32.2 artikuluan dio “*urtero Legebiltzarrari aurkeztu behar dion txostenak, eskubideekiko babesa Autonomia-Elkartean zertan dagoenari buruzko orohartzezko neurketa bat izan beharko duela barne.*”

Balorazio hori, bere jarduketan bidez eskuratzen duen egoerari buruzko ezagutza zuzenetik abiatuaz egiten du Arartekoak, eta euskal administrazio publikoek euskal hiritarren eskubideak zenbateraino errespetatzen dituzten islatzen saiatzen da, beti ere bere jarduera eremuari dagokionean, alegia Autonomia Erkidegoko Administrazio amakomunaren, lurralde historikoen Administrazioaren eta Toki Administrazioaren barruan.

Honek esan nahi du, ez direla kontuan hartuko ezbairik gabe 1998. urtean zehar gertatu eta Arartekoak bere eginkizun bitartez ezagutu ez dituen eskubide urraketak, ezta Estatuko Administrazioaren ekintzak direlako Arartekoaren kontrol eremutik kanpo daudenak ere, edota, guztiz nabarmenak izan arren, partikularrek edo talde organizatuek egindako giza eskubideen urraketa larriak ere.

Kapitulu hau, Konstituzioak lehenengo tituluan eskubideez egiten duen azterketan, eta hala dagokionean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean iragarritako eskubidearen azterketan oinarritzen da.

Kapitulu honetan egiten den balorazioaz gain, txosten honetako II. kapituluko alorrei dagozkien sarreretan aztertzen dira zehatz-mehatz administrazioen jarduera eremu desberdinak eta horiek hiritarren eskubideekiko daukaten harremana.

Lehen hurreratze batean, esan dezakegu Arartekoak eta Estatuko beste parlamentuetako ordezkariak aurkeztutako txostenetan behin eta berriz adierazten dela kexa gutxi aurkezten direla Espainiako Konstituzioak bigarren kapituluko lehen atalean jasotzen dituen eskubide urraketa posibleengatik, alegia, oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak deitutako urraketan kontrakoak. Eta 1998an ere horrela izan da.

Aurrekoaren bidetik esan behar dugu eskubide sozialak eta Konstituzioaren 103.2 artikulua usteko urraketak direla aurkeztutako kexa gehien eragin dituztenak. Aipatu artikulua eraginkortasun printzipioaren eta legearen eta zuzenbidearen pean jardun beharra ezartzen die administrazio publikoei, bai eta interes orokorrari objetibotasunarekin zerbitu beharra ere.

Iragan urte hauetan, lehenago esan dugun bezala, Espainiako Konstituzioko I tituluko bigarren kapituluko lehen atalean, 14. artikuluan biltzen diren eskubideak eta askatasunak, oinarritzko eskubide eta askatasun publikoei dagozkienak, ustez urratu izanak behin eta berriz eraginda Arartekoari aurkeztu zaizkion kexak, zorionez, ez dira asko. Eskubide horien funts nagusiari eragiten dieten kexez hitz egiten ari garela ulertu behar da.

Jakina, horrek ez du esan nahi urraketa horiek gertatzen ez direnik, eta kapitulu honetan erakundeak ezagutu dituen hitz egingo dugu.

1. BERDINTASUN PRINTZIOA

- **Espainiako Konstituzioko 14. art.**

“Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik.”

- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 1. eta 2.1. art.**

“Gizon-emakume guztiak libre jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberekin, eta, arrazoimenez eta kontzientziaz jantzirik daudenez gero, elkarrekin senide moduan jokatu behar dute.”

“Pertsona orok ditu Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasun guztiak, eta ez da inolako bereizketarik egingo arraza, larru-kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, polititako edo bestelako iritzi, jaioterri edo gizarte-jatorri, ekonomi maila, jaiotze edo beste ezein gorabeheragatik.”

Eskubide eta askatasunei dagozkien kexa gehienak berdintasun printzipioa ustez hautsi izanari dagozkie.

Erakunde honen kezka nagusietako bat zera izan da, Konstituzioaren testuan jasotzen diren arrazoiengatik diskriminatzailea izan zitekeen jarduera bakar bat ere gerta ez zedin saiatzea.

Sarritan gertatzen da berdintasun printzipioaren urraketa beste eskubideetako edozeinekin lotuta azertu behar izatea; horregatik, horiei buruz egiten diren azterketetan, kasu batzuetan, berdintasun printzipioa aipatu behar izaten da.

Horrela, osasun alorrean berdintasun printzipioarekin zerikusia duten kexak jasotzen dira, hiritar guztiak prestazio sanitarioak bermatuak edukitzeko daukaten eskubidearen zentzuan. Alabaina, zenbait kasutan guztiei ez zaie berdin bermatzen prestazio sanitarioak jasotzeko eskubidea.

Mediku batek beharrezko kontrola egiteko mamografia bat egitera bidali zituen emakume batzuk, ordezkoko hormona bidezko tratamendu bat (THS) hartzen ari zirelako. Baina, emakume horiek ikusi zuten tokatzen zitzaie osasun zentroetako batzuetan mamografia egiten zitelera eta beste batzuetan ukatu egiten zitzaie.

Gizarte zerbitzuen erabilzaile askoren iritziz, udalek zerbitzu horietaz baliatzeko ezartzen dituzten eskakizun batzuek berdintasun printzipioa urratu egiten dute.

Beste zenbait egoeratan, prezio desberdinak daude udal zerbitzu batzuek baliatzeko, esate baterako Arabako herri bateko udal igerilekuan, eta aldea udalerririk horretako biztanlea izatearen edo ez izatearen baitan dago. Garbi dago udalerririk bateko biztanlea izateak ez duela esan nahi ordaintzera behartua dagoenak gaitasun ekonomiko jakin bat daukala, eta horrek ez dauka inolako eraginik zerbitzua emateak duen kostuan.

Bestalde, euskal Administrazioako aldibaterako funtzionarioen kasuan tratua desberdina dagoela ere planteatu da, zeren eta horiei, oro har, euskara ikastaroetara joateko aukera ukatzen baitzitzaie. Gainera, egoera berdinean dauden aldibaterako artetik batzuei baimen hori ematen zaie eta beste batzuei ez, eta hori onartezina da, baldin eta ez baidate hori justifikatzen duten irizpide objektiboak eta arrazoizkoak.

Bestetik, gure autonomia erkidegoan dauden atzerritarrenganako diskriminaziozko tratua ere ikusi da kasu askotan.

Konstituzio Epaitegiak gogorarazten du legegileak atzerritarren oinarrizko eskubideak mugatu eta murriztu ditzakeen arren, murrizketa horrek ezingo duela eraginik izan giza duintasuna bermatzeko nahitaezkoak diren eskubideetan.

Atzeritarren udal erroldapenak ez du maila juridikoan inolako zalantzarik sortzen, baina zenbait udalek uko egiten diote oraindik ere horri, Arrasatekoak esate baterako, arbitrarioki eta legearekiko errespetu gutxiz udalerrri horretan karabana batean bizi diren bi familia erroldatzeari uko egin baitio.

Bilboko San Frantzisko auzoko egoerari buruz egindako azterketan, auzoan bizi diren etorkinen lekukotasunak jasotzen ziren, eta zona horretan diharduten poliziaen jarrera onartezinak salatzen zituzten haietan, eduki arrazista edo xenofoboa daukaten irainak eta mehatxuak, adibidez.

Sexu arrazoiengatiko diskriminazio kasu larrienaren adierazpena emakumeen kontrako bortxakeria da; hori gizarte arazo oso larria da, eta eskubideak urratzen dituzten portaera horiek gizarteko alor eta maila guztietara zabalduta daudela erakusten du.

Herriaren Defendatzaileak 1998an egin zuen txosten garrantzitsua arazo horrentzat soluzioak bilatzen saiatzen da.

Alabaina, bortxakeria jasateko arriskua handiagoa da gutxiengo etnikoen, etorkin eta errefuxiatuen artean. Administrazio egoera irregularrean dagoen emakume batek erasoren bat jasaten duenean, babesik gabeko egoera larriagoan aurkitzen da.

Administrazioak bide egokiak aurkitu behar ditu etxean bortxakeria jasan duten emakumeak horretarako dauden zentroetan jasoak izateko.

Giza eskubideen defentsaren ikuspegitik, laguntza hori beste hiritarrei ematen zaien baldintza berberetan eman beharko litzateke, emakumeak horiek biztanletasunaren ikuspegitik Euskal Herrian edozein administrazio egoeratan egonik ere.

2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

2.1. BIZITZEKO ETA INTEGRITATE FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioko 15. art.**

“Pertsona guztiek bizitza eta osotasun fisikoa eta moralerako eskubidea dute, eta inoiz ezin dira meneratu torturetara ez eta zigor edo tratu ezgizakor edo itsusietara. Heriotza zigorra baztertua geratzen da, salbuespen bezala gerrateetarako. Harmadako zigor legeek zer erabakitzen duten albo batera utziz.”

- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 3. eta 5. art.**

“Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea.”
“Ezin da inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar anker eta lotsarazlerik eman ere.”

Giza eskubideen bermerako erakunde batek aginte publikoek bizitzarako eta integritate fisikorako eskubidea gututz zintzoki errespetatu dezaten saiatu behar du.

Tratu txar eta torturengatik Segurtasun Gorputz eta Indarren kontra aurkeztutako salaketak kasu gehienetan atxiloketaldiari dagozkionez gero, Parlamentuan egin diren agerraldietan nahiz gai hau aztertu denean atxiloketaldietan espazio eta denbora-tarte opakoak desagertarazteko neurri prebentiboen premia azpimarratu da, batez ere prozesu osoaren gainean justiziaren kontrol eraginkorra ezarriaz.

Gai honi dagozkion zenbait kexa jaso ditugu 1998. urtean zehar, eta horiek kezka nabaria sortu digute.

Kasu gehienetan estatuko polizia gorputzek, eta zenbait kasutan Ertzaintzako agenteek atxilotutako pertsonen familiartekoak Arartekoarengana zuzendu dira. Ia kasu guztietan, inkomunikazio erregimena eta legeak banda armatuekin edo terrorismoarekin erlazionatutako delituentzat igartzen duen epe luzapena ezarri zitzairen atxilotuei, eta poliziaren egoitzetan tratu txarrak eta laidoak pairatu izana salatzen zuten.

1998ko lehen hilabeteetan gertatutako 81 salaketa jasotzen zituen txosten bat osatu zuen senitarteko talde batek. Atxiloketa horietatik hamabost Ertzaintzak eginak ziren, eta gainerantzekoak Guardia Zibilak edo Polizia Nazionalak. Jasotako beste kexek azken bi polizia taldeek Hondarribian eginiko atxiloketekin zuten zerikusia.

Eskuduntza arrazoiengatik, gai horiek alde batetik Herriaren Defendatzaileari igorri zitzaizkion, Estatuko Administrazioaren pean dauden erakundeen kontrola berari dagokiolako, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari, Euskal Polizia Autonomoari zegokionean.

Sail horrek emaniko erantzunean esaten zen tortura salaketengatik ez zegoela espedienterik irekita beraiek zekitenez, lekukotasun askok adierazten baitzuten zegokien instrukzio epaitegiaren aurrean salaketa aurkeztu zutela. Beraz, Arartekoak galdetzean ea gertakizunei buruzko barne ikerketarik egin ote zen, ezetz erantzun zitzaion, salaketen berririk ez zutela adieraziz.

Era berean, Ertzaintzak atxiloketak egiteko daukan moduari buruzko txosten zabal bat sartu zuen Sailak bere erantzunean, hartutako bermeak azpimarratzen zituelarik. Alabaina, guk eskatzen genizkien hamabost kasuei buruzko datu zehatzik aipatzen ez zenez gero, erakunde honek ez du bere eskuhartzea amaitutzat jotzen.

Euskal Herriko espetxe bateko funtzionarioek hiru presori ustez eman zizkieten tratu txarregatik kexa bat ere jaso da. Kasuetako batean, presoak salaketa aurkezteari uko egin zion. Beste bi kasuak fiskaltzari ezagutarazi zitzaizkion, eta horrek jakinarazi zuen salaketak aztertu eta ondorio honetara iritsi zela: presoek eragindako gertakariak izan zirela, eta indarra erabili behar izan zela onera bihur zitezela.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden espetxeetan kondena betetzen dauden hiritarrei ustez egindako laido edo tratu txar kasuak Herriaren Defendatzaileari igorri zaizkio, nahiz eta kasu gehienetan alde aurretik salaketa judiziala jarrita egon.

Azkenik, San Frantzisko aldean atzerriko pertsonen kontrako jardueri buruz 1997ko azaroan eta 1998an zehar egindako azterketa aipatu behar dugu.

Elkarrizketatutako atzerritarren lekukotasunetan, besteak beste salatzen diren egoeren artean esaten da aztertutako hamalau jardueretan gertatu zirela poliziaren aldetik –Ertzaintzaren eta kasu batean Bilboko Udaltzaingoaren aldetik– ustezko bortxazko jarduerak poliziaren eskuhartzea hasi zen momentutik: atzetik heldu eta borra lepoan jartzea; lurrera bota eta han edukitzea zapaltzen zituzten bitartean, bultzadak eta borrakadak; lepotik heldu eta ahoa zabaltzera behartzea bezalako praktikak aipatzen dira.

Txostenean erabili zen metodologiaren helburua, salatutako kasuen banakako azterketa egitea baino gehiago (kontuan hartu behar baita kasu horietako batzuk justiziaren aurrean salatuta daudela), poliziaren jardunbide batzuk aztertzea zen, horiek ohikoak edo hedatuak daudela susmatzen delako, eta batez ere pertsonen eskubideak bermatuko dituzten neurriak proposatzea zen txostenaren helburua.

2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA. PRESOEN ETA ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

• **Espainiako Konstituzioko 17. art.**

“1. Edozein pertsonak askatasun eta seguritate eskubidea du. Inori ez zaio askatasunik galeraziko, artikuluko hontan agintzen dena betetzen ez baldin bada eta beste jazoeretan legeak adierazten duen eran.

2. Epai aurreko atxilotzea, egintzak argitzeko hertsiki behar den denboratik gora ez da luzatuko eta, hirurogei eta hamabi ordu barruan, atxilotua askatua izango da edo auzitegi agintarien pentsutan jarria.

3. Edozein pertsona atxilotzeari lehen bait lehen jakinaraziko zaio eta era ulerkor batez, bere eskubide eta atxilotze errazoiak emanez, aitortzen bortxatu ezinik. Legeak agintzen duen eran, polizi eta judizial diligentzietan atxilotuari abokatu laguntza garantizatzen zaio.

4. Legeak ‘habeas corpus’ prozedura arautuko du edozein pertsona ilegalki atxilotua, lehen bait lehen auzitegi eskuetan jartzeko. Era berean legeak mugatuko du behin behineko atxilotzearen gehiengo epea.”

• **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 9. art.**

“Inor ezingo dute arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.”

Arartekoak 1996. urtean aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarraren aurrean Euskal Herriko espetxeen egoerari buruzko txosten bat. Geroztik zenbait aldaketa positibo gertatu dira aipatu txostenean deskribatzen zen errealitateari dagokionez, eta aldaketa horien berri iazko urteko txostenean jaso zen: preso kopuruaren murrizketa, atentzio sanitarioan hobekuntzak eta mantenimendu lanak egin izana.

Era berean, 1997an Basauriko espetxean xiringak trukatzeko martxan jarri eta oraindik dirauen programa esperimenteraren balorazio positiboak Erkidegoko beste espetxe batzuetara, Langraiz eta Martutenera zehazki, hedatzeko adorea ematen du, presoaren artean gaixotasun kutsakorrek hedatzeko neurri prebentibo egokia dela ikusi baita.

Osakidetzak eskainitako osasun prestazio batzuen mugak ere azpimarratu dira, adibidez atentzio psikiatrikoari dagozkionak.

Osasun asistentziaren alor honetan bertan, aipatzekoa da Langraizko espetxeko presoentzat Txagorritxuko Ospitalean Babes Bereziko Ospitale Unitate bat jarri izana.

Presoen eskubideak bermatzeko ikuspegitik, beharrezkoa da hobekuntzak egitea ondorengo gaitan:

- unitatearen ezaugarri estrukturalak (zerbitzuetarako sarbidea, pertsianak eta lehoiak irekitzeko sistema, deiak egiteko sistema –txirrinak– atentitua izateko premia dagoenean...), izan ere gaurko egoeran zaindari dauden agenteen borondatearen baitan egoten direlako maila handi batean;
- polizia agenteen jarduketa irizpideak, medikuaren kontsultan edo medikuek gaixoak bisitatzen dituztenean intimitatea errespetatzeko;
- isolamenduaren ezarpena, batzuetan luzea, espetxeko egoerari ez dagokiona eta unitatearen erabilera eta helburua baldintza dezaketena (ospitaleratzearen kontra azaltzea, borondatezko altak...).

Iazko urtean presoaren eskubideei buruzko kexak berriro ere jaso dira, hala nola beste leku batzuetara aldatzeagatik, familiarengandik urrun egoteagatik edo legean iragarritako onura penitentziarioak aplikatu ez zaizkielako.

Presoek espetxean dauden denboran ikasketak egiteko daukaten eskubideari dagokionez, azterketak egiteko erreklamazioak espetxetik kanpoko irakasleekin hitz egiteko, material didaktikoak jasotzeko –batez ere euskaraz idatzita zeuden kasuan–, edo erredentzio bereziak lortzeko zailtasunetan zentratu dira.

Atxiloketa zentroek, non pertsonak askatasunik gabe pasatu behar baitute denboraldi bat, sarritan ez dauzkate giza duintasunarekin errespetuzkoak lirateken ezaugarriak.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak 1998an konponketa obra garrantzitsuak egin zituen Ertzaintzaren kalabozoen tamaina eta ezaugarriak Europako Kontseiluaren arauetara eta Arartekoaren gomendioetara egokitzeko. Hala ere, oraindik geratzen dira konpondu beharrekoak, Galadakaoko komisaldegia kasuan, adibidez.

Udal kalabozoen egoera asko aldatzen da udalerrri batzuetatik besteetara, baina ikusi da Santurtzi edo Lekeitio bezalako atxiloketa zentroak hain gaizki daudela, non ezin baitira atxilotuak sartzeko erabili dauden arazoak konpondu arte.

2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioko 18. art.**

“Ohore, norberaren eta senitarteko barrukotasuna eta bakoitzaren irudi eskubidea garantizatzen da.”

Hirugarren pertsonen intimitaterako eskubidea, sarritan, dokumentu publikoak ikustea eskatu duten hiritarrei hori ukatzeko arrazoï gisa erabili izan du Administrazioak, eta ukatze horrek eragindako keak aurkeztu dituzte Arartekoan.

Intimitaterako eskubidearen eta Espainiako Konstituzioak 105 b) artikuluan jasotzen duen artxiboak eta erregistroak ikusteko eskubidearen artean auzia sortzen denean, intimitate pertsonal eta familiarerako eskubidea nagusituko den eran eman beharko da ebazpena. Hori agintzen du 30/92 Legeak 37. artikulua bidez, pertsonen intimitateari buruzko datuak dauzkaten dokumentuak ikusteko eskubidea mugatzean.

Administrazioak pertsonen intimitate eskubidea betetzen dela zaindu beharko du, baina eskubide hori ezin da erabili Administrazioak opakotasunarekin eta gardentasun faltarekin erabakiak hartzeko; izan ere, kasu horietan, eskubide bat bermatu ordez, helburua beste eskubide batez baliatzeko ahalmena oztopatzea baita: kasu honetan, administrazioaren espedienteak ikusteko ahalmenerako trabak jartzea.

Bestalde, Txagorritxuko Ospitaleko unitate penitentziarioan ezarritako segurtasun neurriek bertan dauden pertsonen intimitatea hausten dutela salatu da.

Gainera, San Frantzisko auzoan polizia burututako praktika batzuk (esate baterako, pertsonak osorik edo zati batean biluzten dituzte kale gorrian edo gertuko atari batean, edo poltsetan edo poltsikoetan daramatena hustuarazten diete lurrera erortzen utziz), horiek guztiak pertsonaren duintasunari eragiten dioten intimitaterako eskubidearen urraketak dira.

2.4. KOMUNIKABIDEETAN PARTEHARTZEA EDUKITZEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioko 20.3. art.**

“Estatuaren edo beste erakunde publiko baten menpean daude giza komunikabideen eratze eta parlamentu eta kontrola legeak arautuko du,

eta adierazgarri diren talde sozial eta politikoei haietara parte hartzea garantizatuko die, Espainiako gizarte aniztasuna eta hizkuntza ezberdinak errespetatuz.”

Azken urteotan Arartekoak jarduera desberdinak egin ditu gizarte talde desberdinek EITBn partehartzeko eskubidea izan dezaten.

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzen zela eta Bizkaiko Emakumeen Batzarrak egindako iragarki bat ez emateko erabakia, edo 96 eta 97an Hirugarren Munduarekiko elkartasuna adierazteko “Berdintasun gehiagorekin denok irabazten dugu” hiritarren sentsibilizaziorako kanpainarekin bat egin nahi ez izateak Arartekoa eskuhartzera eraman zuen, baina EITBk ez zituen onartu egin zitzaizkion gomendioak.

Beharrezkoa da talde ideologikoen komunikabideetan sarrera izateko bezalako eskubidea komunikabide publikoek errespetatzea, zeren eta horrek, bere baitan, askatasun ideologikoa gauzatzeaz gain, informaziorako eskubide tresna bat ere badagoela esan nahi baitu.

Begibistakoa dirudi, gizarte talde desberdinek beraien iritziak hedatzeko eta gizartearen kezka diren gai desberdinei buruzko iritziak eta ikuspegiak azaltzeko komunikabide publikoek baliatu ahal izateko aukera oinarritzko baldintza dela sistema plural eta demokratiko baten funtzionamendurako.

Gizarte taldeek sustatutako iragarkia onartzea edo ez onartzea batez ere edukiaren eta zabaldu nahi den mezuaeren interes orokorraren arabera erabaki behar da. Uler daiteke interes orokorra badagoela talde jakin baten aukera ideologikotzat jo gabe gizarte demokratiko osoarenak diren eta antolamendu juridikoak jasotzen dituen balore gorenak sustatu nahi direnen. Edonola, talde horiek komunikabideetan partehar dezaten dagoen modurik eraginkorrena informazio eta iritzi saioak dira.

Eskubide hori lortzeko Arartekoak, besteak beste, ondorengoa gomendatu dio EITBri: *“etorkizunean antena eskubidea garatuko den moduari buruzko plan zehatz bat, hori gauzatzeko bide desberdinak adieraziz (aldian behingo espazio bereziak, noizbehinkako iragarkien zabalkundea, iritzi edota eztabaida programetan taldeek izango duten partaidetza, taldeen iritzia informazio saioetan...), eta horretarako irizpide objektiboak ezartzea, hala ordezkaritza maila zehazteko, nola haien artean dauden saioak banatzeko.”*

Talde sozial eta politiko esanguratsuek EITB erakunde publikoan sarbidea izateko daukaten eskubidea betetzeko, beharrezkoa izango da EITBren gainean kontrol lanak egiten dituen Eusko Legebiltzarreko Batzordeak aldiro informazioa izatea gizarte talde horiek aipatutako erakundean eskubide hau gauzatzeko daukaten moduari buruz.

2.5. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BERDINTASUN PRINTZIPIOA

- **Espainiako Konstituzioko 23.2. art.**

“Era berean, berdintasun baldintzetan eskubidea dute, legeek ezartzen dituzten baldintzez, funtzio eta kargu publikoetara heltzeko.”

- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 21.2 art.**

“Pertsona orok du berdintasunez bere herriko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.”

Administrazio publikoek funtzio publikoan berdintasun printzipioarekiko daukaten errespetua etengabeko kezka izan da Arartekoarentzat, enplegu publikoetan sartzeko orduan berdintasun, meritu, gaitasun eta publizitate printzipioak errespetatzen zirela zaindu duelarik.

Osasunaren alorreko funtzio publikoan 1998an Osakidetza/SVSk deituta lan eskaintza publikoa garatu da (aurrerantzean LEP). 1996an bezala, era honetako LEP bat egiten denean zenbait kategoriatara aurkeztutakoek erakunde honen partehartzea eskatu dute, epaimahaien ebaluaketa lana kontrastatzeko eta, horrela, hartutako erabakiak zuzenak izan direla ziurtatzeko, erabaki arbitrarioak ez dela hartu eta emaitzak ez direla aldatu baiesteko.

Alabaina, esan beharra dago LEP honen eragina 1996an egindakoarena baino txikiagoa izan dela, bai bideratu den kexa kopuruaren aldetik, eta baita planteatutako salaketan oihartzunaren aldetik. Guztien artetik azpimarratzekoa da biologoen kategoriarako hautaprobek izan zuten publizitate murriztarenatik aurkeztutako salaketa. Erakunde honen partehartzeari esker, kexa aurkeztu zuen hautagaiari eginiko kaltea konpondu ahal izan da, izan ere, pertsona hori publizitate murriztarenatik proban parte hartzerik izan ez zuenez, hautaketa prozesutik kanpo utzia izan baitzen.

Irakaskuntzaren alorrean, Arartekoaren jarduera UPV/EHUK irakasle laguntzako kontratuak esleitzeko eta irakasle titular aldibaterakoak izendatzeko deituak zituen lehiaketetan oinarritu da. Gure gomendioetako bat onartu izanaren bidetik Unibertsitateko Gobernu Batzarrak 1998ko maiatzaren 18an egin zuen bileran baremazio irizpide berezi sail bat onartu zuen, eta horiei esker lehiaketa horien batzorde ebaluatzaileek dauzkaten tarreak mugatu egiten dira. Horretarako, batzorde horiek osatzen dituzten pertsonak hartzen dituzten erabakiak arrazoitu eta justifikatu egin beharko dituzte baremoaren helburuei erantzunez, eta, beraz, hautagaien merituak eta gaitasunak baino ezingo dira kontuan hartu. Hori horrela izan dadin, prozesu horren ardura daukaten unibertsitateko agintarien inplikazio eta jarraipen berezia beharrezkotzat jotzen dira.

Toki Administrazioaren alorrean eta ofizioz Arartekoak egin dituen jarduerekin, funtzio publikoan sartzeko aurrekari penalengatik diskriminazioak eragiteko zegoen arriskuari aurre egin nahi izan zaio, eta esan behar da jarduera horiek onartu egin dituzte bide horretan zeuden administrazioek.

Funtzio publikoan sartzeko prozeduretan egindako zerbitzuak meritu bezala baloratzeak kasu batzuetan enplegu publikoetan sartzeko berdintasun printzipioaren hausketa ekarri du, lanpostua ateratzen zuen administrazioan frogatzen ziren zerbitzuak bakarrik baloratzen zirelako, edo beste administrazio batzuetan lortutako esperientziaren gainetik lanpostua deitzen zuen administrazioan lortutakoari lehentasuna ematen zitzaiolako, horretarako inolako justifikazio objektiborik egon gabe.

Arrazoizkotasun eta proportzionaltasun oharrek aurretiaz Administrazioan lortutako esperientziak egiten den balorazioaren berri eman beharko dute, hori berdintasun printzipioarekin bat etor dadin.

Edozein administrazio publikotan eginiko zerbitzuei tratamendu berdina eta proportzionala emanaz bakarrik berma daiteke Espainiako Konstituzioak 23.2. artikuluan jasotzen duen printzipioa benetan errespetatzea, beti ere ezberdintasun funtzionalengatik aipatutako zerbitzu horien balorazio desberdin bat egitea komeni denean salbu.

2.6. **BABES JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETZAT JOA IZATEKO ESKUBIDEA**

- **Espainiako Konstituzioko 24.1. eta 2. art.**

“Pertsona guztiek epaile eta auzitegietatik benetako babesa lortzeko eskubidea dute beraiei dagozkien eskubide eta interes legezkoen ihardunetan, inoiz ere babes gabe eman ahal izateko.”

“Era berean, denek dute hontarako eskubidea: legeak lehendik izendaturiko Epaile arruntengana jotzeko, baita abokatuaren defentsa eta laguntza exigitzeko ere, haien aurkako salaketaren azalpenerako, auzibide agirizkora behar ez bezalako luzapenik gabe eta garantia osoz defentsarako dagozkien froga guztiak erabiltzeko, norberaren aurka ez aitortzeko, errudunak ez aitortzeko eta errugabetzat hartzeko.

Legeak kasuok arautuko ditu, hots, senitarteko edo sekretu profesionalagatik ustezko delituzko ekintzez ez dira deklaratzera behartuak izango.”

- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 10. eta 11.1. art.**

“Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikeriarik gabeak zuzentasunez eta jendaurrean entzun diezaion, bere eskubideak eta betebeharrak erabakitze edo bere kontrako salaketa penalak aztertze.”

“Delituz salatutako pertsona orok eskubidea du errugabetzat jo dezaten, harik eta, legeari jarraiki, eta bere burua defendatzeko berme guztiak ziurtatuko dizkion epaiketa batean, errudun dela frogatzen ez den arte.”

Babes judizial eraginkorrerako eskubidea da kexa gehien eragiten dituen eskubidea, batez ere prozesu judizialean gertatzen diren arrazoirik gabeko luzamenduengatik.

Justiziako Epaitegi Gorenak esan duen arren prozesu judizialen iraupena normala izan dela, eta bere aurrean izapidetutako kexetan ez duela irregulartasunik, ezta eginbidegabeziarik sumatu, hiritarren ustez justizia auzitegien funtzionamendua motelegia da, eta ikusten dute prozesuak denbora aldetik gehiegi luzatzen direla.

Gehiegizko luzamendu horrek kalte larriak eragiten dizkie pertsona kaltetuei, batez ere prozesuen izaeragatik denbora laburrean ebatzi beharreko prozedimenduetan: maizterren kaleratze epaiketak, behin-behineko neurriak hartzea, etabar.

Doaneko asistentzia juridikorako batzordeek doaneko justizia eman dezaten aurkeztutako eskariak ebatzeko atzerapenen kontrako salaketak ere azpimarratzekoak dira.

Bestalde, normalean jurisdikzio zibilean eta batez ere familia hausturei buruzko prozedimenduetan epai irmoak ez exekutatzea da kexek erakusten duten beste arazoetako bat. Kasu horietan arintasun eta eraginkortasun falta beti ezin zaie epaileei leporatu, baizik sarritan aldeetakoren baten praktika atzeratzaileak izan ohi dira horren iturburua.

Badira kexa batzuk, epaileen ebazpenen atzerapenagatik, bereziki kontu larriak agertzen dituztenak, hain zuzen ere preso dauden pertsonak aurkeztuak izanda 1995eko Kode Penalaren atzerako ezarpenari dagozkiolako, edota kondenen kitapenaren edo murrizketaren aitortzari buruzkoak direlako.

Ez dago esan beharrik zer nolako garrantzia duen pertsona horientzat epeen luzapenak, batzuetan atzerapena gertatzen baita espetxeak ez diolako erabakia jakinarazten presoari.

Kexetako batzuek jakinarazpen judizialak egiteko modua aipatzen dute.

Bestalde, batez ere trafiko kontuetan, zigor espedienteak bideratzean agintari eskudunek hartutako erabakiak ezagutzera emateko erabiltzen den jakinarazpen prozedura okerra dela ikusi da.

Arazo hori, Vitoria-Gasteizko Udalak bideratutako zigor espedienteetan ikusi da batez ere; izan ere, erabakiaren berri jaso behar duena etxean ez dagoenean, jakinarazpenak dagokien aldizkari ofizialaren eta Udaletxeko iragarki oholaren bidez egiten delako.

Egia da Vitoria-Gasteizko udal zerbitzuak erabakien jakinarazpen pertsonala egiten hirutan saiatzen direla, baina horretarako hiruetan ordutegi tarte berdina erabiltzen dute. Hirugarren ahaleginaren ondoren, hartzailea etxean ez dagoenez, ediktu bidezko prozedura erabiltzen da. Jokabide hori ez dator bat Administrazio Publikoen eta Administrazio Amakomunaren Prozeduraren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.4 artikuluan esaten duenarekin.

Administrazioaren zigor espedienteak jakinarazteko erabiltzen diren formen garrantzia handia ikusirik, behartuta gaude arauetan esaten dena zorrotz betetzeko beharra azpimarratzera, izan ere jakinarazpenen berri ez jakiteak babes judizial eraginkorrerako eskubidea haustea ekar dezakeelako.

Zergei dagokienez, aldiroko zergen kobraketa ediktu bidez jakinarazteak dakartzan arazoak azpimarratu behar dira.

Azkenik, gogoratu behar da Arrasateko udal zerbitzuek eta baita Bizkaiko zenbait udalek ere zigorrak jartzeko duten jokabide batek ustezko errugabetza printzipioa hausten duela. Alegia, zaborrak kalean uzteko ordutegia errespetatzen ez dutenei zabor poltsak miatzea, erantzuleak nortzuk diren jakin eta ondoren zigorra ezartzeko.

Izan ere, ezin da horrelako zigorrik ezarri hausketa horiengatik, frogabide bakar bezala debekatutako ordutegitik kanpo kalean utzi diren zabor poltsetan zigortua poltsaren edukiarekin erlazionatzen duten zenbait dokumentu edo gauza aurkitu izanagatik, horrek ez baitu inola ere frogatzen pertsona hori izan zela zabor poltsa arauz kontra kalean utzi zuena.

Arrasateko Udalak gomendioa onartu eta arrazoi horregatik irekita zeuzkan espedienteak bertan behera utzi ziren, lege hauslea identifikatzeko proba zuzenik ez zegoen kasuetan.

2.7. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioko 27.1., 2. eta 4. art.**

“Guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna aitortzen da.”

“Hezkuntzak, helburu bezala, giza nortasunaren aurreramen osoa, bizikidetasun printzipio demokratikoak errespetatuz eta baita behin behineko eskubide eta askatasunak ere.”

“Oinarrizko irakaskintza behartua eta dohainik da.”

- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 26. art.**

“1. Pertsona orok du hezkuntzarako eskubidea. Hezkuntzak doakoa behar du izan, oinarrizko ikasketak bai behintzat. Oinarrizko ikasketak nahitaezkoak izango dira; heziketa tekniko eta lanbiderakoa, berriz, orokorra; eta denek izango dute goi mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.”

2. *Hezkuntzaren helburua pertsonaren nortasuna erabat garatzea izango da, eta giza eskubideei nahiz funtsezko askatasunei zor zaien errespetua sendotzea; hezkuntzak nazio, arraza eta erlijio guztien arteko ulermena, tolerantzia eta adiskidetasuna erraztuko ditu; eta Nazio Batuen ekintzen garapena bultzatuko du, bakeak iraun dezan.*

3. *Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.*”

Hezkuntzarako eskubidea prestazio mailako eskubidea da, eta, beraz, egokiagoa izango zen eskubide sozialen artean tratatzea. Alabaina, kontuan izanda Konstituzioan non ageri den eta aukeratutako metodoa zein diren, atal honetan aztertuko da.

Derrigorrezko bigarren hezkuntza indarrean jartzeak hainbat arazo sortarazi ditu: ordutegi aldetik, jangela eta garraioa bezalako zerbitzuak emateko orduan; edo eskola-erakinen mantenimendu eta kontserbazioari dagokionez, batez ere bigarren hezkuntza lehen hezkuntzarako eraikinetan ematen den kasuetan.

Ikasleen onarpenari dagokionez, esan beharra dago zentro publiko batzuetan etxebizitzaren agiria hartu izan dela kontuan onarpenerako baldintza bezala, eta jardunbide hori ez da zuzena.

Aurten ere, bestalde, ikasleei zigor erregimena ezarri zaie erabateko berme faltarekin eta ezarritako prozeduretan goitik behera huts eginaz.

Berriro ere, haur hezkuntzako lehen zikloan planifikazio okerra egon da bi urteko haurrentzako gelak irekitzeari dagokionez.

Era honetako gelen eskaintzak Euskal Eskola Publikoaren Legeak dioenera egokitu behar du, honek maila sozioekonomiko txikieneko zonei eta hezkuntza premia bereziak eta hizkuntza mailakoak dauzkaten ikasleei ematen baitie lehentasuna. Administrazioa, aldiz, zentroetan dauden baliabideen arabera ari da jokatzeko, alde aurretik planifikaziorik egin gabe.

Edonola, adin tarte horretako ikasleak berdintasun baldintzetan eskolaratzeko bideak bermatu behar dira.

3. HIRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

3.1. KONTZIENTZIA ERAGOZPENERAKO ASKATASUNA

- **Spainiaiko Konstituzioko 30.2. art.**

“Legeak finkatuko ditu espainolen betebeharrak militarrek eta arautuko du beharrezko diren garantiez; kontzientzia objektiboa, eta baita beste arrazoi batzuek ere beharrezko soldaduzkatik libratzeko, ezarri ahalez, kasu bakoitzean, ordezkako giza prestapena.”

Kontzientzia eragozpenaren eta intsumisioaren fenomenoak izugarritzko oihartzuna eduki du azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoko gizartean, orain arte indarrean zegoen araudian eskubide hau jasota zegoen moduaren kontra azaldu delarik gizartearen zati handi bat.

Azken legegintzaldietan Eusko Legebiltzarra bera eta Bilboko Entzutegi Probintziala, Arartekoa eta udal asko azalduak ziren intsumisioa zigorgabetzearen alde.

Etorkizun hurbilean indar armatuak guztiz profesionalizatzeko aukera onartuta dagoen arren, berdin jarraitzen dute indarrean kontzientzia eragozpena erregulatzen

duen 1984ko abenduaren 26ko arauak eta prestazio militar eta soziala egiteari uko egiten ziotenentzat Kode Penalean iragarritako tratamenduak.

Kongresu-Senatuetakoa Batzorde Mistoaren aurrean 1997ko maiatzaren 8an egin zuen agerraldian Arartekoak berriro eskatu zuen onar zitezela *“indarrean dagoen kontzientzia eragozpenaren erreformarako beharrezko inizatiba legislatiboak, eta baita prestazio militarra edo soziala egiteari uko egiten diotenei ezartzen zaizkien zigorrak indargabetzeko araudi penala ere.”*

Gainera, beste hau ere eskatzen zuen: *“lege aldaketa horiek onartzen ez diren bitartean, intsumituek eta horien alde jokatu duten udal agintariak jasaten dituzten kartzeleratzea edo gaitasungabetzea galerazteko beharrezko neurriak sustatu eta bultza ditzatela.”*

Azkenik, 1998. urtean arau aldaketa batzuk egon dira, eta horiek guztiz asebetegarriak ez badira ere, nolabaiteko erantzuna ematen diote alde desberdinetatik eskatutakoari. Arau mailako erreforma horiek ondorio nabarmenak izango dituzte milaka euskal gazteren artean.

Kontzientzia Eragozpena eta Ordezko Prestazio Soziala arautzen dituen ekainaren 6ko 22/98 Legeak berrikuntza handiak dakartza, baina soldadutza hasiz gero kontzientzia eragozle aitortzea debekatzeko jarraitzen du, eta hori, nazioarteko erakunde desberdinen arabera, besteak beste Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak dioenez, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak 18. artikuluan jasotzen duenaren kontra joan daiteke.

Baina, dudarik gabe ondorio garrantzitsuenak izango dituen urriaren 5eko 7/98 Lege Organikoa izango da, berau baita *“Kode Penaleko 10/95 Lege Organikoaren Aldaketa, derrigorrezko soldadutza eta ordezko prestazio soziala betetzen ez dutenei ezartzen zitzaizkien kartzela zigorrak bertan behera utzi eta kasu horietan gaitasungabetze zigorrak arintzen dituen”*. Ondorioz, aurretik emanda dauden epaiak berehala errebisatu beharko dira araudi berrira egokitzeko, hori kondenatuentzat askoz hobea delarik.

Kode Penalaren aldaketa aurrerapauso handia da, askatasuna kentzen zuten zigorrak bertan behera uzten dituelako, nahiz eta, murriztua bada ere, gaitasungabetze zigorrari etsi, inhabilitazio honek gazteentzat dakartzan ondorio larriekin.

3.2. ZERGAZKO SISTEMA ZUZENA. BERDINTASUN, PROGRESIBITATE ETA LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOAK

- **Espainiako Konstituzioko 31 art.**

“1. Guztiek lagunduko dute gastu publikoen euspena bakoitzak ahal duen ekonomik gaiatasunaz zerga sistema baten bidez; berau berdintasun eta aurrerapen printzipioetan oinarriturik eta inoiz ez da konfiskagarri izango.

2. Gastu publikoak baliakizun publikoen bidezko banantze bat egingo du eta haren programaketa betetzez erantzungo dute eragite eta ekonomiaren erizpideen arauera.

3. Mendu publikoko prestapen pertsonalak edo ondasunezkoak bakar bakarrik ezarri daitezke legearen arabera.”

Zergen alorrean Konstituzioak sustatutako eskubideen errespetuaren ikuspegitik sortzen diren arazoak aztertzerakoan, berriro ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela medio bideratutako espedienteetaz hitzegin beharrean gaude.

Foru ogasunek behin eta berriz uko egin diote errenta aitortpena behin aurkeztu ondoren aukeraz aldatzeko bidea emateari. Uko horren ondorioz, aitortpena egiteko modua aukeratzeko unean zergapekoaren interesentzat kitapen garestiagoa egiten bada, aukera hori ezin da aldatu, eta hori Espainiako Konstituzioak 31. artikuluan jasotzen duen gaitasun ekonomikorako printzipioaren kontrakoa izan daiteke.

Horregatik, hiru foru aldundiak PFEZren foru araugai berriak osatzen ari zirela aprobetxatuz gai honen berri eman zitzairen, eta 1999ko urtarrilaren batean indarrean sartuko den testu berrian arazo hori konponduta egongo da.

Gauza bera esan daiteke aita eta ama banatuen elkarrekin planteatu dituzten zenbait erreibindikaziori buruz, esate baterako elikagaien pentsioagatik ordaindu beharrekoak eragiten dituen gastuen kasuan, berdintasun printzipioaren kontra joan zitezkeelako, eta horiek ere etorkizunean zergako kenketen atalean daukaten islada edukiko dute.

Baina, dudarik gabe tasa eta prezio publikoei buruzko espedienteak izan dira kantitate eta kalitate aldetik erakunde honi arretarik handiena eskatu diotenak, gure zerga sistemak aldarrikatzen dituen printzipio konstituzionalak eta, bereziki, zergaketaren legezkotasuna zaintzeko.

Horrela, hitarren artean izan duen eragin handiagatik gai berezi bezala gas naturalaren horniketarako alta eta ikuskapen tasak deitzen direnen kontra bideratutako keak aipatu behar ditugu. Arartekoak 1998ko otsailean hasi zituen ofiziosko jarduerak, lehenengoa Bilbogas enpresaren aurrean, eta ondoren Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren aurrean, eskubide horien kobraketa indarrean zegoen legediaren arabera zen ala ez ikusteko, kontuan izanda kobraketa hornikuntza hasten den momentuan egiten dela, eta prezioa Arabako 7.000 pezetetatik Bilboko 23.000 pezetetaraino doala.

Auzitegi Konstituzionalaren 185/95 Epaiak dioenez, legezkotasun fiskalaren printzipioak, Espainiako Konstituzioko 31. artikuluan jasoak, zera bermatzen du, partikularrek erakunde publikoei ordaintzen dizkieten prestazioak alde aurretik ordaintzaileak baimendu behar dituela; izan ere, ordaintzeko betebeharra aginte publikoak bere aldetik erabakitzen badu ordainketa egin behar duenaren borondatea alde batera utziaz, hori lege erreserba exijitzeko elementu erabakiorra izango da.

Beraz, hertsamena nagusitzen da izaera publikoa daukaten ondarezko prestazioen kontzeptuan, eta hor sartuko lirake zergak, eta ondorioz tasak, eta kasu horietarako legeak aipatu duen agindu konstituzionala ezartzen du.

Prestazioen kalifikazioa, zentzu honetan, horiek ordaintzera behartua dagoen sujetu pasiboaren ikuspegitik egin behar da, eta, beraz, erabiltzaileak ordaindu beharri ihes egiteko daukan modu bakarra zerbitzua ez erabiltzea bada, hertsamenezko prestazio publiko baten aurrean gaude, eta, ondorioz, indarrean jartzeko lege erreserba printzipioaren menpe.

Azkenik, estatu mailako Hidrokarburoen Legeak berretsi egin ditu Arartekoaren tesiak, bere artikuluen artean eskubide horien definizioa sartu, eta, beraz, behar bezalako babes legala eman dielarik.

Amaitzeko, batez ere zerga izaera duelako, atal honetan Ararteko erakundean ofizios bideratu zen beste espediente bat aipatu behar dugu: Bizkaiko Lurralde Historikoaren 1998rako Aurrekontuen Foru Araua indarrean sartzeko datari zegokion.

Aipatutako araua 1998ko urtarrilaren bata baino beranduago argitaratu zen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, eta, beraz, bi une horien artean arauan oinarrituta eman ziren ekintza administratiboek ukatu egin beharko litzaizkieke ondorio juridikoak.

Puntu honi dagokionez, Foru Aldundiari gogoratu behar izan zitzaion Konstituzioak 9.3. artikuluan arauen publikitate printzipioa bermatzen duela, eta hori segurtasun juridikoarekin erabat loturik dago, izan ere Auztitegi Konstituzionalak berak zera baitio:

“Hiritarren jarrera juridikoak, horiek beraien eskubideez baliatzeko eta eskubideak defenditzeko daukaten aukera eta hiritarrek eta aginte publikoek antolamendu juridikoarekiko daukaten lotura eraginkorra bakarrik bermatu ahalko lirateke arau jasotzaileek arauak arau bezala ezagutzeko egiazko aukera daukaten kasuan, eta hori arauak esistitzen direla eta berauen edukia fedez emango duten tresna orokorrez adierazi behar da; beraz, publikitate printzipioaren kontrakoak izango dira inolaz edo nekez ezagutu daitezkeen arauak” (KEE 179/1989).

Iazko urterako aurrekontuen 14/1997 Foru Arauaren kasuan, besteak beste 1998ko urtarrilaren 1etik ondorioak zituzten zenbait zerga motaren gehikuntza gertatu zen. Hori da, esate baterako, Ondare Eskualdaketa eta Ekintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergaren kasua, 0,10 balio izatetik 0,50 kostatzera pasatu baitzen.

Zerga mota berri hau 1998ko lehen 20 egunetan egindako ekintza zergagarrietzat hartzeak (kontuan izanda ezarpen hori babesten duen arauak artean beharrezko publikitaterik ez zeukala) nabarmen hausten du publikitate printzipioa, eta, beraz, eskubideak mugatzen dituen arau baten atzerako ezarpena dakar, Konstituzioak praktika hori ere debekatzen duelarik.

Aurten Bizkaiko Foru Aldundiak praktika irregular hori zuzendu duela ikusi dugu.

3.3. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioko 33. art.**

“1. Jabego pribatu eta oinorde eskubidea aitortzen da.

2. Eskubide hauen funtzio soziala hauen edukia mugatuko du legeen arauera.

3. Inor ez da izango bere ondasun eta eskubideez gabetua baliagarritasun publikoa edo interes sozial justifikaturen bat ez bada medio dagokion kalteordaina eta legeek erabakitzen duten arabera.”

- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 17. art.**

“1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.

2. Inori ez zaio arrazoirik gabe bere jabetza kenduko.”

Hiritarren jabetzan modurik zorrotzenez eragiten duen aginte publikoen jardura derrigorrezko desjabetza da. Horregatik, desjabetza eskuhartzeek erabat errespetuzkoak izan behar dute izaera guztiz bermatzailea duen eta indarrean dagoen prozedurarekin.

Derrigozrezko desjabetzarako jardura juridikoari dagokionez, sarritasun handienarekin aurkeztu diren gaiak proiektu tekniko onarpen akordioei zegozkien, horrek berarekin daramalako erabilera publikorako aitorpena eta desjabetzapean dauden higiezinak okupatzeko beharra.

Ondasun desjabetuen tasazioari buruzko kexak, eta batez ere kontsultak ere jaso dira; izan ere gai hori guztiz arautua ez dagoenez, eta neurri batean egintzen eta tartean dauden baldintzen gainean salneurri tekniko bat jar daitekeela pentsa daitekeenez, normalean balorazio egitea zaila izaten da.

4. ESKUBIDE SOZIALAK. (POLITIKA SOZIAL ETA EKONOMI-KOAREN PRINTZIO NAGUSIAK)

4.1. FAMILIARENGANAKO BABESA. ADIN TXIKIKOEN ESKUBIDEEN BABESA

- **Espainiako Konstituzioko 39. 1 eta 4 art.**

“1. Botere publikoek familiaren babespen sozial, ekonomiko eta juridikoa zihurtatzen dute.”

“4. Umeek nazio arteko akordioetan beraien eskubideen alde baliatzen den alde zurratik ikusitako babesa gozatuko dute.”

- **Giza Eskubideen Aldarrikapeneko 16.3. art.**

“Familia gizartearen berezko eta funtsezko osagaia da, eta gizartearen eta estatuaren babesa izateko eskubidea du.”

Familiaren babesari dagokionez, aipatu beharra dago Deustuko Unibertsitateak eta beste ikastetxe batzuek familia ugarien mesedetan indarrean dagoen legediak igartzen dituen onurak ezarri nahi ez izateagatik sortutako arazoak konponbiderik gabe jarraitzen duela.

Foru aldundiek adierazi dute ez daukatela eskuduntzarik gai honetan araudia betetzen ez dutenen kontrako zigorrak ezartzeko. Arazoa, beraz, Eusko Jaurlaritzari jakinarazi zaio, eta beharrezkoa da behingoagatik egoera hori argitzea, euskal familia askotan eragin oso kaltegarria edukitzen ari delako.

Adin txikikoen eskubideen babesari dagokionez, esan behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoan babesik gabeko egoeran dauden haur eta nerabeentzako laguntzari buruzko txosten berezian gomendio bat egin zela, alegia araudi orokor bat behar dela babesik gabeko pertsonetikiko atentzioaren aspektu nagusiak arautuko dituen, eta, beraz, elementu bermagarri bat izatea adin txikikoen oinarrizko eskubideentzako. Berriro azpimarratzen dugu hemen beharrezkoa dela Jaurlaritzak lege inizatiba har dezala hain arau garrantzitsua.

Babesik gabeko adin txikikoen egoera oso konplexua da, famili harremanen alorrean kokatzen delako, eta alor horretan, sarritan, errealitate oso traumatikoak bizitzen dira, interes kontrajarriak eraginten dituztenak eta aginte publikoak adin txikikoen eskubideak babestera behartzen dituztenak.

Azpimarratzekoa da, egoera horietan, adin txikikoen familia biologikoak sarritan ez direla ados egoten foru aldundiek hartzen dituzten neurriekin, izan ere adin txikiko horien tutela dagokion aldundiak hartzen baitu.

Kasu horietan, auzitan dauden interesak bakebideratzen saiatu behar dira administrazioak, baina beti ere adin txikikoen babes eraginkorra kontuan izanik.

Beste arazo bat ere ikusi da, kasu honetan haurtzaro zerbitzuen eta adin txikikoen familien artean komunikazio eta informazio akatsei dagokiena, eta hori bereziki Bizkaian gertatzen da; Gizarte Ekintzarako Sailak dagoeneko azaldu du egiten ari den Haurtzaroari buruzko Planeari gai hori tratatzeko borondatea duela.

Lurralde historiko berean, arazo psikologikoak edo jarrera trastornoak dauzkaten nerabeak hartzeko zentro egokirik ez dagoelako kexak ere sortu dira.

Gainera, esan behar da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak Martutenen martxan jarri duela adin txikiko atzeritarrentzako harrera zentroa. Zentro hau, aintzindaria Estatuan eta Gurutze Gorriak gestionatua, beste herrialde batzuetatik,

bereziki Afrikako Iparraldetik datozen eta arrisku egoeran dauden adin txikikoei laguntzeko izango da.

Bestalde, adin txikiko arau-hausleen egoerarekiko kezak bultzatuta, gai horri buruzko txosten berezi bat egin zen, 1998an Eusko Legebiltzarreko Presidenteari aurkeztua eta Giza Eskubideen Batzordean aurkezteke dagoena.

Azterketa zehatzago baterako aipatutako txostenera jo behar den arren, beharrezkoa da justizia bihurtzailearen printzipioak ezartzea.

Bitartekaritza, kontziliazioa eta kalte-ordainketa modu desberdinak adin txikiko arau-hausleen erantzukizunera egokitzea, eta, beraz, eskuhartzeen heziketa-helburua lortzeko eta biktimak eta komunitateak aktiboki parte har dezaten lortzeko, beharrezkoa da indarrean dagoen ordenamenduan igartzen diren justizia bihurtzailearen printzipioak erabil daitezen indartzea, eta horretarako behar diren bitarteko pertsonalak eta materialak artikulatzea.

Araudiari dagokionez, Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan nahitaezkoa da marko juridiko berri bat osatzea. Zentzu honetan, estatu mailan berehala onartu beharko litzateke adin txikiko arau-hausleekiko eskuhartzea erregulatzeko araudia, egun indarrean dagoen Eskuduntza Erreforma eta Adin Txikikoen Epaitegien Prozedurari buruzko ekainaren 5eko 4/92 Lege Organikoaren hutsuneak beteko dituen. Kode Penaleko azkeneko zazpigarren xedapenean esaten denaren bidetik, araudi hori onartzen denean bakarrik sartuko da indarrean bertako 19. artikulua eta ezarri ahalko da 69. artikulua, hurrenez hurren horien bidez igotzen delako erantzukizun penalerako adina 18 urtera, eta horiei esker adin txikiko lege-hausleekiko eskuhartzea erregulatu duen araudia 18 urtetik gora eta 21 urtetik beherakoei ezartzeko aukera dagoelako.

Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan, berriz, nahitaezkoa da Eusko Jaurlaritzak, bere eskuduntzez baliatuz, legegai bat prestatu eta Legebiltzarrak onar dezan, adin txikikoen epaileek erabakitako neurriak betearaziko dituzten zentroek eta zerbitzuek bitarteko material, pertsonal eta funtzional mailan bete beharreko baldintzak arautuko dituen. Bestalde, araudi horrek zehaztu egin beharko ditu zer nolako mekanismoak beharko diren organo judizialen eta neurriak betearazteaz arduratzen diren administrazioen artean, eta bien aldetik zer nolako kontrol mekanismoak jarriko diren exekuzioan parte hartzen duten zentro eta zerbitzuen gainean.

Azkenik, esan behar da nazioarteko adopzio espedienteetan egokitasun ziurtagiriak emateko tramiteak gehiegi luzatzen direla. Euskal Autonomia Erkidegoan nazioarteko adopzio prozedurak arautuko dituen Eusko Legebiltzarraren lege bat beharrezkoa da.

4.2. LANEKO SEGURTASUN ETA HIGIENEAREN BABESA

- **Espainiako Konstituzioko 40.2. art.**

“Era berean, botere publikoek hurrengo politika honen alde egingo dute, hots, hezkuntza eta birregokitze profesionalen garantzapenen alde; laneko seguritate eta garbiduraren alde eta behar beharrezko den atsedena garantizatuko duten lan egunak mugatuz, aldizkako oporrak ordainduz eta egokizko zentruak eragindurik.”

- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 24. art.**

“Pertsona orok du atsedean hartzeko eskubidea, aisialdiaz gozatzekoa, lanaldia zuzen mugatua izatekoa, eta aldizka ordaindutako oporrak izatekoa.”

Arartekoak, 1998an, Euskal Autonomia Erkidegoan lanean amiantoaren eragina izan zezaketen langileak arriskutik babesteko araudia nola betearazten zen aztertzen jarraitu du, iaz hasitako lanaren bidetik.

Osasun eta Lan Seguratasunerako Euskal Institutoak/OSALAN jakinarazi zuen Seguratasun, Higiene eta Lan Ingurugiroari buruzko Programan badagoela amiantoari buruzko programa berezi bat.

Osasuna kaltetu dezakeen amiantoarekiko kontaktoan dauden lantegietako langileen prebentzio eta kontrolerako, nahiz arrisku egoeran egon daitezkeen langile horien ondorengo kontroletarako aurrerapauso handiak egin direla ikusten da oro har.

Alabaina, kezka sortzen du zenbait lan alor programa horretatik kanpo daudela ikusteak, egoera horretan aurkitzen baitira frenu eta enbrage konponketez arduratzen diren auto konponketarako tailerrak. Horregatik, Lan Seguratasunerako Euskal Institutu/OSALANi gomendatu zaio era horretako tailerren aldiroko ikuskapenak egin ditzala, zehatz-mehatz jakiteko lan jarduera horiek Amiantoaren bidezko Arriskua duten Enpresen Zerrendan sartuta eta, zentzu horretan, legediak agintzen dituen kontrol eta neurrien pean egon behar duten ala ez.

4.3. GIZARTE SEGURANTZAREN ERREGIMEN PUBLIKOA

- **Espainiako Konstituzioko 41. art.**

“Botere publikoek hiritargo guztientzat giza asegurantza delakoaren erregimen publiko bat mantenduko dute, beharrian egoeretan laguntza eta giza prestapenak garantizatuz eta batez ere enplegu ezaren garaietan. Laguntza eta gehigarritzko prestamenak libreak izango dira.”

- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 22. art.**

“Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea; baita ere duintasunez bizitzeko eta nortasuna libre garatzeko ezinbestekoak diren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak lortzekoa, bere herriaren ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, betiere kontuan harturik estatu bakoitzaren antolaketa eta balibideak.”

Euskal hiritar batzuk kexu dira haien ustez pentsioak txikiak direlako edota INSSek egiten duen kudeetagatik.

Kexa horiek Herriaren Defendatzaileari bidaltzen dizkiogu, Estatuaren Administrazioa kontrolatzeko eskumena duen erakundea delako.

Dena den, bidezkoa da ekartzea hona aurreko legegintzaldian zehar luzatu den Arartekoaren kudeaketa bat, zeinen bidez bilatzen baitzen onartuak izan zitezela frankismo garaian klandestinitatean lan egin behar izan zuten andereñoek emandako zerbitzuak; izan ere, haien egoera horretan, urte horietan guztietan ez zioten kotizatu Gizarte Segurantzari eta, horren ondorioz, kalterako gertatu zaie dagokien pentsioaren zenbatekoa finkatzeko orduan.

Hauxe nahi da: alegia, behar diren arau-tresnak erabil daitezela andereño horiek Gizarte Segurantzatik jasotzen edo jasoko dituzten pentsioak osa daitezen benetan kotizatutako urteengatik, ondoko fikzio juridiko erabiliz, hau da, frankismoaren garaian euskarazko irakaskuntzan eman zituzten lan-urteetan kotizatu izan balute bezala, horrelako aukerarik ez baitzuten izan.

Neurri horrek izango lituzkeen ondorio ekonomikoak zenbatetsi eta gero, argi ikusi da nahiko txikiak izango direla, bai zenbatekoari dagokionez, bai eragindako pertsonen kopuruari dagokionez ere.

Arartekoak Eusko Jaurlaritzari eta legebiltzarkide taldeei igorri zien proposamen hau Eusko Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, eta gai honi buruzko erabakiaren zain gaude oraindik ere.

4.4. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioko 43. art.**

“1. Osasun babesaren eskubidea aitortzen da.

2. Botere publikoei dagokie osasun publikoa antola eta babestea beharrezkoak diren zerbitzu eta prestamenen neurri, aldez aurretikakoen bitartez. Hontarako, legeak ezarriko ditu guztien eskubide eta bete-beharrak.

3. Botere publikoek bizkortuko dute osasuna eta fisikoen hezkuntza eta kirolak. Era berean, astiguneak emateko era aproposak eskainiko ditu.”

- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 25.1. art.**

“Pertsona orok du bizimodu aproposa izateko eskubidea, bai berak eta bai bere familiak ziurtatuak izan ditzaten osasuna eta...”

Komeni da gogoratzea osasun prestazioaren alorreko eskaintzaren antolaketa modu egokian egin behar dela, hiritar guztien benetako berdintasuna bermatu ahal izateko. Horregatik, eragotzi behar da halako osasun prestazio batzuk eritetxe bakoitzeko irizpidearen arabera ematea edo ez ematea, edota baldintza desberdinetan ematea, horrelako trataera desberdina zuzitzeko arrazirik egon gabe.

Beste alde batetik, informazio egokia egotea ere oso garrantzitsua da, erabiltzaile askok informazio ezagatik aurkezten dituzten kexa ugariak erakusten duten bezala; kontuan izan behar da, horri dagokionez, informaziorik ez izatean, erabiltzaileak halako prestazio batzuk jaso gabe gera daitezkeela, bai eta, bestalde, aurreikusita ez dauden beste batzuk eska daitezkeela ere.

Ararteko erakundeko bekadun batek seropositiboek Euskal Autonomia Erkidegoan jasaten duten bazterketa soziala aztertu du.

Azterlan horrek argi uzten du prebentzio kanpainiak garrantzitsuak direla eta, zehazki, oso lagungarria gertatu dela Eusko Jaurlaritzak bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egin zuen prebentzio kanpainia bat, VIH/IHES gaitzari buruz eta haren transmisibideei buruzko informazioa ematen zuena, gazteen kontzientziazio handiagoa lortzeko; horregatik, komenigarria litzateke kanpainia hori Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza ertainetako ikastetxe publiko eta pribatu guztietara zabaltzea, gazteei aldian behin gogorarazteko VIHren transmisioari aurre hartzeak duen garrantzia.

Ildo beretik, hau da, gaitz kutsagarrien aurkako prebentzio neurriak bultzatzeari dagokionez, goraiatzekoak dira burutu diren zenbait esperientzia: adibidez, kartzeletan xiringak trukatzekoa, Basauriko zentroan arrakastaz burutua, eta Langraitz eta Martutenera ere zabaldu behar litzatekeena.

4.5. INGURUGIRO EGOKIAZ GOZATZEKO ESKUBIDEA

• **Espainiako Konstituzioko 45. art.**

“1. Guztiek dute eskubidea pertsonaren hazkundera egokizko ingurune batez gozatzeko, eta baita hark iraun dezan betebeharra ere.

2. Botere publikoek, berezko baliabide guztien erabiltze errazionala zainduko dute, bizitza kalitatea hobetu eta babesteko eta ingurunea berriztatu eta defendatu, behar beharrezko den elkartasun kolektiboan oinarrituz.

3. Goiko apartatuan erabaki dena, legeak ezartzen dituen mugetan, hausten dutenei zigor penalak ezarriko zaizkie edo, dagokienean, administratiboak, eta era berean sortutako kaltearen berriztatze beharra.”

Ingurugiro egokiaz gozatzeko eskubideari dagokionez, euskal hiritarrek jasaten dituzten eragozpenik ohikoenak jarduera sailkatuek sortarazitako zarata, usain txar eta keak eragindakoak dira, udalaren baimena derrigorrekoa duten jarduerak izanik horiek.

Administrazioak beti du eskumenik jarduera sailkatuek eragindako eragozpenak zuzentzeko neurriak betearazteko, zeren eta jarduera horiek onartzeko behar diren baimenak funtzionamendu-baimenak deritzanak baitira, nahiz eta, tamalez, baimena ematen duen administrazioaren aldetik gehiegitan kontrol iraunkor nahikorik ez egon jarduera horiei dagokienez.

Gehitu behar zaio horri udal batzuek bidegabeki onartzen dutela ezkutuko jarduera deitzen diren funtzionamendua, hau da, baimenik gabe funtzionatzen duten jarduerena. Behar-beharrezkoa da udalek etengabe begipean izan dezatela era guztietako jardueren funtzionamendua, zuzena izan dadin, eta baimenean ezarritako baldintzak zehatz-mehatz bete daitezen.

Arazo gehien sortarazten dituzten jarduera sailkatuak ez dira ostalaritza alorrekoak soilik, baina baita ere supermerkatuenak, autoak konpontzeko tailerrenak, gimnasioenak, autozaindegienak, edota askotan kutsadura atmosferikoa eta akustikoa eragiten duten industri jarduerena.

Ibilgailuen zirkulazioa ere eragozpen iturri handia da, ingurugiroari dagokionez. Beraz, herri-aginteez derrigor esku hartu behar dute arazo honetan, behar diren zuzenketa-neurriak hartu eta plangintzen kontrola egin dadin, arazo horiek denak galerazteko.

Joan den 1998. urtea albiste on batekin hasi zen: alegia, Euskadiko Ingurugiroaren Babeserako otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren onarpenarekin; delako lege horrek aurre-neurri batzuk ezarri ditu ingurugiroak jasaten dituen erasoak ekiditeko, babestutako balioak kaltetzen dituzten jokabideak zigortzeko eta ingurugiroari eragindako kaltea konpontzeko, eta tresna eraginkorra izan beharko du ingurugiroa egoera onean iraunarazteko helburuari begira.

Gizakiak erabiltzeko den uraren kalitatea kezka da ingurugiroaren ikuspuntutik begiratuta. Horregatik, Uribarri-Ganboa, Urrunaga eta Santa Engraziako urtegiatiko ura babesteko azterketa monografiko batean ikertu da gai hori, Urtegi horietatik hornitzen baita Euskadiko Autonomia Erkidegoko biztanleriaren erdia ia.

Txosten horren ondorio nagusia zera da, Administrazioak bere irizpideak batu eta bere ekintzak bateratu behar dituela, benetan zaindu nahi badira urtegien ingurua eta haietako uraren kalitatea, etorkizuneko belaunaldiek oinarritzko ondasun horiez gozaten jarraitzerik izan dezaten. Bide horretan aurrera egin nahi bada, behar-beharrezkoa da,

batetik, koordinaziorako alorrarteko erakunde bat eratzea, eta bestetik egoki den bezala zehaztea Zadorra ibai arroan urtegiataraino doan lurralde guztian bultzatu edo zaindu nahi diren ekintzak.

Badira azterlan horretan beste ondorio batzuk, gomendio moduan jaso direnak. Hona hemen:

1. Bazterretako landaretza berreskuratu beharra; horrek aukera emango luke babesgune biologiko natural batzuk sortzeko urtegien perimetro osoan.
2. Zadorraren ibai-arroako ur-ingurunea babestu behar da nekazaritzan erabiltzen diren nitratoen aurrean; horretarako, ibai-arroa «gune kaltekorra» izendatu beharko litzateke, 91/676/CEE zuzentarauari jarraituz.
3. Hirietako eta industrietako ur erabilien tratamenduan prozedura aurreratuagoak martxan jarri beharra; horretarako, Zadorrako ibai-arroa «gune minbera» izendatzea gomendatu dugu, 91/271/CEE zuzentarauari jarraituz.

Beste alde batetik, ur erabilien tratamenduari buruzko 91/271/CEE zuzentarauaren ondorioz sartu diren lege-berritasunei esker, hirietako eta industrietako ur erabiliak garbitu eta tratatzeko kolektoreen instalazioa egin ahal izan da.

Izan ere, araudi horri jarraituz, 15.000 biztanle-baliokidee (zuzentarauaren esapide berbera erabiliz) daukaten hiriguneek ur erabiliak garraiatzeko kolektore sistema bat eta ura ibaietara edo itsasora isuri aurretik garbitu eta kutsadura kentzeko araztegi bana instalatu beharko dituzte 2001. urtea baino lehen, bakoitzak bere aldetik, edota mankomunitate edo partzuergotan bilduta. Neurri hori 2.000 biztanle baino gehiagoko biziguneek ere bete beharko dute 2006. urtetik aurrera.

Legezko agindu horiek betetzeko, herri-administrazioak inbertsio handiak egiten ari dira era honetako azpiegiturak eraikitzeko, kexak sortarazten ari direlarik, interes partikularretan eragina dutelako.

4.6. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

• **Espainiako Konstituzioko 47. artikulua:**

“Español guztiek bizitza duin eta egokizko bat izateko eskubidea dute. Botere publikoek behar diren baldintzak bultzatuko dituzte eta arau erokoak ezarriko eskubide hau egiaztatzeko, lurraren erabilpena arautuz interes orokorraren arabera espekulazioa baztertzeko. Erkidegoak erakunde publikoetako hiri ekintzek dakartzaten plusbalietan parte hartuko du.”

• **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 25.1. art.**

“Pertsona orok du bizimodu aproposa izateko eskubidea, bai berak eta bai bere familiak ziurtatuak izan ditzaten osasuna eta ongi-izatea eta, batez ere, janaria, jantziak, bizitokia, mediku-laguntza eta beharrezko gizarte-zerbitzuak. Orobat, aseguruak izateko eskubidea du lanik ez, gaixotasun, elbarritasun, alarguntasun, zahartzaro, edo bere nahiaz bestelako gorabehera batengatik, bizimodua ateratzerik ez badauka.”

Etxebizitza duina eduki ahal izatea euskal hiritar askoren nahirik biziena da oraindik ere, nahiz eta euskal administrazio publikoak, oro har, ahalegin handia egiten ari diren bide horretan.

Nolanahi ere, hiritarrek kecatzen segitzen dute babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza eskasagatik eta etxea esleitzeko erabiltzen diren irizpideengatik. Era horretako etxebizitza eskuratu ahal izan dutenek, batzuetan, eraikuntza-akatsak daudela -etxerik zaharretan, normalean, hezetasuna- salatzen dute, edota, elbarrientzat erreserbatutako etxeen kasuan, ez direla haien elbarritasunerako egokiak.

4.7. EZINDU FISIKO, SENTSORIAL ETA PSIKIKOEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioko 49. artikulua:**

“Botere publikoek aintzinamendu politika bat aurrera eramango dute, baita tratamendu, berrabiltze eta helbarri fisiko, zentzu eta sikikoen integrakuntza, hauei behar duten arreta berezia eskainiz eta bereziki babestuko die, Titulu honek hiritargoek eskaintzen dien eskubidearen gozatzeko.”

Joan den 1998. urteko apirilean indarrean sartu zen abenduaren 4ko 20/1997 Legea, ibilerraztasuna bultzatzeari buruzkoa. Arau garrantzitsu horrek batera biltzen ditu eraikuntza eta hirigintza alorreko oztopoei buruzko xedapenak, bai eta garraioan eta komunikazioan daudenak ere.

Lege honek ematen dituen aukera guztiak egia bihurtu daitezkeen, beharrezkoa da botere publiko guztiak konprometuz sendoa hartzea, Administrazioak arauan jasota dauden ekintza positiboak neurriak har ditzan. Bestalde, behar-beharrezkoa da legeak aipatzen dituen tresnak abian jartzea.

Lehendabizi, Gobernuak bigarren xedapen gehigarriak dioena bete, eta dagozkion arau teknikoak prestatzeari ekin behar dio, beraietan adieraziz hiriguneek, espazio publikoek, eraikuntzek, garraiabideek eta informazio zein komunikaziorako bideek ere bete behar dituzten baldintzak; horretarako, ibilerraztasuna bultzatzeko eta eraikuntzarako oztopoak ezabatzeko gaur egun indarrean dauden arau desberdinak bateratu eta elkarren artean adostu beharko dira.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalerrri nahiz gainontzeko herri-erakundeek, esandako legearen 13. artikulua dioenari jarraiki, laurterako egitarau batzuk osatu beharko dituzte 1999ko abendua baino lehen, moldatu beharreko guneen zerrenda batekin eta lanak hasi eta burutzeko epe eta egutegi batekin.

4.8. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioko 50. artikulua:**

“Botere publikoek, dagozkien pentsioez aldika gaurkotuz zahartzaroan garantizatuko dio hiritargoari behar beharrezko ekonomia. Era berean, eta familiako betebeharretatik kanpo, haien ongitasuna bultzatuko dute zerbitzu sozialen bidez beraien arazo bereziei kasu eginez, hots, osasun, bizileku, kultura eta aisiari.”

Aitortu behar da Euskadiko herri-administrazioek ahalegin handia egin dutela orain arte eskaintza egokia edukitzeko adinekoentzako gizarte zerbitzuei dagokienez, bai egoitza barruko atentzioaren alorrean, bai egoitzaz kanpokoan; hala eta guztiz ere, eskaintza hori ez da oraindik ere nahikoa eta alde handiak ditu aztertu ditugun administrazio

batzuetatik bestera. Hartara, Ararteko erakundeak gai honi buruzko hainbat kexa jaso ohi ditu, horrek argi erakusten duelarik zerbitzu horietako eskaintza ez dela behar den bezalakoa, batez ere adinekoentzako egoitzetako postuei dagokienez.

Esan beharra dago halako disfuntzio batzuk gertatzen ari direla Euskal Autonomia Erkidegoan, egoitza barruko zerbitzuen finantzaketan erabiltzaileak parte hartzeari dagokionez; horrek, bere aldetik, kaltea egiten dio gizarte zerbitzuen alorrean hiritarren eskubidearen oinarri izan behar duten berdintasun eta unibertsaltasun printzipioei.

Ildo horretatik, udal batzuek onartezinezko jokamoldeak agertzen dituzte; adibidez, erabiltzaileari edo haren senitartekoei dagokiena baino ordainketa askoz ere handiagoa exijitzea, idatziz, egoitza batean onartu baino lehenago.

Bestalde, udalen egoitza zerbitzu batzuetara sarbidea eduki ahal izateko, zenbait tokitan 5 urteko antzinatasuna eskatzen da eroldari dagokionez, eta horrek arazo larriak sortarazten dizkie hainbat aiton-amonari, hau da, bizitza guztia udalerrri batean pasatu eta gero, hainbat eratako arrazoiengatik Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko edota lurralde historikoaren beraren barruko beste udalerrri batera bizitzera joan behar izan dutenei.

Kasu hauek guztiek bistan jartzen dute trataera guztiz desberdina jasotzen dutela, ikuspuntu ekonomikotik begiratuta, adinekoentzako egoitza-zerbitzuen euskal erabiltzaileek, egoitza horien gaineko ardura duen administrazioaren arabera eta erakunde horrek bere gain hartzen duen konpromezu finantzarioaren arabera.

Hori dela eta, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuen Legea gara dezala behar den arauzko bidetik, administrazio bakoitzak bere prestazioan daukan erantzunkizuna eta eskaintzen dituen zerbitzuen nondik norakoa garbi finkatzeko.

Beste alde batetik, adinekoentzako egoitza-zerbitzu sozialei buruzko martxoaren 10eko 41/98 Dekretuaren onarpena nabarmendu behar dugu. Arau horren arabera, haren barruan jasotako baldintzetara egokitzeko epe iragankor bat ezarri da.

Ikuskatu ditugun egoitzetako askotan, instalazioak eta zerbitzuak hobetzeko aldaketak egin dituzte, baina hala ere bada oraindik etorkizunean konpondu beharrekoa izango den akatsik.

Adinekoentzako egoitzaz kanpoko atentzioari dagokionez, bestalde, haren bi tresna nagusien eskaintza publikoa ugaltzeko joera aipagarria antzeman dugu: hots, eguneko zentroak eta etxerako laguntza zerbitzua. Udalen esparruan, jubilatuen egoitza eta etxeak badirela aprobetxatzen ari da beraietan eguneko zentroak atontzeko.

5. LABURPENA

Atal honetan, esan dugun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesaren egoerari buruzko arauzko azterketa egin dugu; azterketa hori, lehen aldiz, konstituzioan aitortuta dauden eskubideei so eginez osatu dugu. Dena dela, berau ondorioak ateratzeko atala izanik, ezin izan ditugu aipatu Ararteko erakundearen jardunean topatzen diren arazo guzti-guztiak.

Horregatik, azterketa sakonagoa nahi duenak gainontzeko atal guztietara jo beharko du, II. atalera bereziki; izan ere, alor bakoitzeko sarreretan esparru bakoitzari buruzko benetako balorazioak ematen ditugu, hemengo atal honetan erabat jaso ezin direnak.

Kexen laburpenek 1998an zehar izandako kasurik garrantzitsuenak ezagutzeko parada ematen dute.

Nolanahi ere, bukatzeko, esan beharra dago espero dugula atal honetako eta txosten osoan zeharreko diagnostikoa baliagarri gertatuko zaiela botere publikoei hiritarren eskubideen aldeko neurri konkretuetan sakontzeko.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

HERRIAREN DEFENDATZAILEEK HERRI ADMINISTRAZIOEKIN DITUZTEN HARREMANEN INGURUKO ZENBAIT GOGOETA (Herriaren Defendatzaileen XIII. Koordinazio Jardunaldiak)

AURKIBIDEA

- I. SARRERA. TXOSTENAREN XEDEA
- II. KEXA IZAPIDATZEKO PROZEDURA, HERRIAREN DEFENDATZAILEEK ADMINISTRAZIOAREKIN DITUZTEN HARREMANAK BIDERATZEKO TRESNA GISA.
 - 2.1. Kexa izapidatzeko prozedura benetako prozedura bat da?
 - 2.2. Administrazio prozeduraren printzipioak, kexa espediente baten izapidaketa prozedura edo ofiziozko jarduketa zehazten duten printzipioak lortzeko erreferentzia gisa.
 - 2.2.1. Aurkaesan printzipioa.
 - 2.2.2. Prozedurako ekonomiaren printzipioa.
 - 2.2.3. *In dubio pro actione* printzipioa.
 - 2.2.4. Ofizialtasun printzipioa.
 - 2.2.5. Legitimazio eskakizunaren printzipioa.
 - 2.2.6. Inpartzialtasun printzipioa.
 - 2.2.7. Gardentasun printzipioa konfidentzialtasun printzipioaren aurka. Herriaren Defendatzaileen erreserba obligazioa.
 - 2.2.8. Dohaintasun printzipioa.
- III. KEXAK IZAPIDATZEKO PROZEDURAN AGERTU OHI DIREN ZENBAIT ZALANTZA
 - 3.1. Ikerketa fasea. Administrazioak Herriaren Defendatzaileekin lankidetzan aritzeko duen legezko obligazioa.
 - 3.1.1. Ikerketaren sumariotasuna eta informalitatea.
 - 3.1.2. Administrazioak lankidetzan aritzeko duen obligazioa.
 - 3.2. Prozeduraren amaierako fasea. Herriaren Defendatzaileen ebazpenek duten izaera ez-loteslea.
 - 3.2.1. Ebazpenen izendapena eta edukia.
 - 3.2.2. Herriaren Defendatzaileen ebazpenak benetan betetzen direla egiaztatzea.
- IV. ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANEN BESTE ESPARRU BATZUK. HERRIAREN DEFENDATZAILEEK ADMINISTRAZIOAREN ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZAN BEHAR DUTE?
- V. ONDORIO GISA

I. SARRERA. TXOSTENAREN XEDEA

Honako txosten hau, Herriaren Defendatzaileen XIII. Koordinazio Jardunaldien esparruan kokatu behar da. Jardunaldi horiek, legebiltzarraren eskudun hauen eguneroko jardunean azaltzen diren arazoan inkerketarako eta topaketarako bilgune gisa ulertzen dira.

Koordinaziorako beste jardunaldi batzuetan ez bezala, lan-saio honetan barne-behaketazko ariketa bat burutuko dugu, barrura begiratzeko, gure funtzionamendu arazoak ikertzeko, herritarren eskubideak defendatzeko aginduak betearazten eta Administrazioaren jardura gainbegiratzen benetan eraginkorrak al garen egiaztatzeko.

Herriaren Defendatzaileek eta horien kideko erakunde autonomikoek daramatzaten urte apur hauetan, gure koordenada juridiko hauentzat hain arrotzak diren erakundeon nondik-norakoak eta ildo nagusiak finkatzen joan dira.

Une hauetan, Herriaren Defendatzaileak gure egitura juridiko-politikoaren zati bilakatu dira naturaltasun osoz, guztiz txertatu dira gure erakundeek osatutako 'paisaia' horretan.

Nolanahi ere, badira oraindik zenbait zalantza beren jarduketek duten izaerari buruz, beren eginkizunak burutzeko legeak eskaini dizkien tresnen ahalmenari buruz, Administrazioaren kontrolerako organo gisa izendatu zaien eginkizunari buruz.

Arartekoaren erakunde lanean daramatzadan bederatzirte hauetan zehar, gure erakundearen ezaugarri eta nondik-norakoari buruzko zenbait zalantza sortu zaizkit, eta horiei erantzun bat ematen saiatu naiz beti, nahiz ez nauten guztiz ase beti.

Txosten honetan agertzen diren gogoeten helburua ez da, ezta gutxiagorik ere, baieztapen zalantzaezin gisa aurkeztea -horrelako hainbat gaitan nirea baino aho loriatsuagoak mintzatu baitira maiz-, baizik eta, modu apalago batean, iritzi soil bat izan nahi dute, bereziki emankorra izan beharko lukeen eztabaida bat irekitzeko aitzakia gisa baliagarri izan daitekeena, izan ere halakoa baita hemen aurkitzen diren pertsonen giza-maila.

II. KEXA IZAPIDATZEKO PROZEDURA, HERRIAREN DEFENDATZAILEEK ADMINISTRAZIOAREKIN DITUZTEN HARREMANAK BIDERATZEKO TRESNA GISA

Herriaren Defendatzaileen eta Administrazioaren arteko harremanak, kexa izapidatzeko prozeduraren bidez edo ofiziozko jarduketaren bitartez gauzatzen dira batez ere. Prozedura berri honen azterketak, berau administrazio prozedurarekin konparatzera eramaten gaitu ezinbestean.

Hiri berri bat ezagutzen dugunean bertako eraikinak, bertako jendeak, bertako ohiturak gure ingurune hurbilenarekin konparatzera jotzen dugun bezalaxe, erakunde berri baten prozedura lehendik ezaguna dugun prozedurarekin konparatzeko parametroetatik aztertuko dugu nagusiki, eta hori administrazio prozedura da. Administrazio prozedurarekiko hurbilpen hori ez da konparaketarako erreferentzia soil bat bezala hartuko, baizik eta ikuspegi ukigarriago batetik aztertu nahi da.

Herriaren Defendatzailearen eginkizun nagusia Administrazioaren kontrola eta Konstituzioaren I. tituluko eskubideen defentsa da. Administrazioaren jardura, kontrolpean ezarria, administrazio prozedurarako arauen bitartez gauzatzen da.

Herriaren Defendatzaileak kontrol hori burutzeko asmoz daraman jardura administrazio izapidaketarekin bateratu beharko litzateke, interferentziarik eta luzamendurik gerta ez dadin. Modu horretan, administrazio prozedurak, konparaketarako erreferente gisa ez ezik, Administrazioaren jarduketarako bide gisa ere jokatu du, eta egoki izanez gero, Herriaren Defendatzaileen ebazpenak betearaziko ditu.

2.1. Kexa izapidatzeko prozedura benetako prozedura bat da?

Lege erregulatuak Herriaren Defendatzaileen jarduketari aitortzen dioten izaera informal eta sumarioa dela eta, zenbait egilek, zentzu estuan harturik, baieztatu dute jarduketa hori ez dela prozedura bat, edo, edonola ere, ez dela prozedura juridiko-administratibo bat.

Prozedura honen izaera juridikoak, aurrerago ikusiko den bezala, garrantzi berezia du Konstituzioak -partehartzaileek prozeduran dituzten eskubideak bermatzeari begira- aitortutako zenbait printzipio aplikagarri zaizkion zehazteko.

López-Nieto irakasleak, administrazio prozeduraren tradiziozko teoriarrien aurka bere burua doktrina errebisionistaren barruan sartzen duelarik, adierazi du 'prozesu edo prozeduraren ideia hori Zuzenbidearen teoria orokorraren nozio bat dela, prozesu orok hura gauzatzera jotzen baitu zuzenean edo zeharka. Horren ondorioa da Estatutuko organo guztiak, burutzen duten eginkizuna edozein izanik ere, beharturik daudela Zuzenbidezko Estatuaren aginduz beren jarduketa eta jokabidea aurrez ezarritako arau batzuetara egokitzea. Horrek ez du esan nahi prozesu edo prozedura guztiak berdinak izan behar dutenik.'

Gaineratzen du, Spiegel-en aipua eginez, prozedura hori 'agintaritza batek bere jarduera burutzeko darabilen modua dela, eta baliagarria izango baldin bada, beharrezkoa dela modu hori helburuetara egokitu dadila'¹.

Baiezta dezakegu badagoela bide bat, ez araututako iter bat, eta horren bidez izapidatzen dela kexa bat edo ofiziozko jarduketa bat, administrazio jardueraren gaineko kontrol objektibo bat lortzea helburu duena.

Nire iritziz, benetako prozedura baten aurrean gaude, ez, jakina, administrazio prozedura baten aurrean, baizik eta González Navarro irakaslearen sailkapenean formalizatu gabeko prozedura gisa zehazturik etorriko litzatekeen prozedura baten aurrean.

Administrazio prozedurak berme juridiko gisa izan duen esanahia nagusitu baldin bada², Herriaren Defendatzaileen jarduera izapidatzeko prozedurak duen esanahia, aldiz, interes partikularrak erabakitzen ez dituen gero, baizik eta administrazioaren jarduketaren kontrolerako jarduketa objektibo bat burutzea denez bere helburua, kontrolerako helburu horiek lortzeko bide eraginkorra izatea izango da.

Horrenbestez, helburuak betetzerakoan duen eraginkortasunaren ikuspegi honetatik burutu beharko dugu Herriaren Defendatzaileen jarduketaren azterketa.

Bestetik, komeni da gogoratzea formalizatu gabeko prozedurak arautu bihurtzen direla *de facto* azkenean, funtzionamendurako barne-jarraibide batzuk izateagatik bakarrik baldin bada ere, zeren eta, jarraibide horiek, arrazionalizazio asmo batez, eraginkorrenak bezala agertu diren jokoerak 'errepikatzen' saiatuko baitira, lortu nahi ziren helburu horietarako desegokitzen hartu direnak baztertuz.

2.2. **Administratibo prozeduraren printzipioak, kexa espediente baten izapidaketa prozedura edo ofiziozko jarduketa zehazten duten printzipioak lortzeko erreferentzia gisa**

Arestian adierazi dugu prozedura ez-arautu gisa zehaztu dezakegula kexa izapidatzeko prozedura hori. Prozedura den aldetik, printzipio multzo batek egituratuko du, eta printzipio horiek ez dute zertan administrazio prozedura osatzen dutenekin bat etorri beharrik halabeharrez.

Edonola ere, administrazio prozeduraren itzala luzea da, eta horren ondorioz, herritarrek, Administrazioak eta, zergatik ez esan, gure erakundeetako operadore juridikoek berek gure prozedurara egiten duten hurbilpen hori administrazio prozeduraren erreferentzia ukaezinetik egin beharra dago. Administrazio prozedurak, guk nahi izan ala ez, jarduketa honen erreferente gisa jokatzeko du.

Horregatik, aukera metodologiko gisa -gainerakoak bezain eztabaidagarria-, administrazio prozeduraren printzipio propioen taula aztertzea aukeratu dut, kexaren izapidaketa prozeduran horiek zenbateraino aplikatu daitezkeen egiaztatzeko.

López Menudok dioen bezala, nahikoa da tratatu eta eskuliburu erabiliaren konparaketa xume bat egitea, eta are prozedura alorrean lanik espezializatuena ere bai, dagokien egileek prestatutako prozedurari buruzko printzipio-taula ezberdinen artean dauden desadostasunak egiaztatzeko, eta hori, oso arrazoiz ezberdinen ondorio izan daiteke, baina zerikusi handia du, batez ere, botere publikoaren eta herritarren arteko harremanei buruz egile bakoitzak dauzkan ulerkeraren berezietan edo, nahi izanez gero, ideologikoekin³.

Baieztapen hau egia dela ikusi ondoren, nire erakusketaren ardatz gisa, García de Enterría irakasleak Administrazio Zuzenbideko bere ikastaroan aipatutako printzipioen taula erabiltzea aukeratu dut,

¹ LÓPEZ-NIETO Y MAYO F.: *El Procedimiento administrativo de las Administraciones Públicas*, or. 204.

² MORELL OCAÑA.: *Curso de Derecho Administrativo II*, or. 218.

³ LÓPEZ MENUDO, F.: *Los principios generales del procedimiento administrativo*. RAP, zk. 129, or. 21.

herritarren eskubideei buruz duen ikuspegi bermatzaileagatik eta, zergatik ez esan, Administrazio Zuzenbideko eskuliburu hau erabiltzen trebatuago aurkitzen naizelako.

2.2.1. Aurkaesan printzipioa

García de Enterría dio 'prozedura guztiek berezkoa dutela aurkaesanezko izaera bat', eta aurkaesanezko izaera hori dela medio, 'kontuan hartu ahal izango dira jokoan dauden interes ezberdinak, eta interes horiek behar den eran erkatu ahal izango dira dagozkien titularren aurrean, behin-betiko erabakia hartu aurretik'⁴.

Aurkaesanaren posibilitate hori, beraz, funtsezkoa bilakatzen da izaera juridikoko benetako prozedura bat egon dadin.

Geure buruei galdetu behar genieke ea aurkaesan printzipio hori ere aplikagarritzat hartu behar al den Herriaren Defendatzaileen jarduketa prozeduran, zeina berdintasunarenarekin batera ezinbestekoa baita prozedura bat -administrazio alorrean- konstituzioaren ikuspegitik baliozkoa dela ulertzeko.

Luciano Parejok argi eta garbi adierazi du aurkaesan printzipio hori Herriaren Defendatzaileen jarduketan aplikagarri izatearen aurka dagoela⁵.

Aipatutako irakasle horrek gogoratzen du 'guztiz gauza ohikoa dela administrazio jarduketa batean interes pribatuen eta are aurkaesanezkoen ugaritasuna aurkitzea. Horren ondorioz, ezin daiteke ukatu kexa aurkeztu duen herritarrekiko hirugarrenagoak direnak ere horretan nahastu daitezkeenik, Herriaren Defendatzaileek abiarazitako jarduketetan agertzeko asmoa dutela, jarduketa horien ondorioz beren interesak kaltetuak izan daitezkeela oinarritzat harturik, eta gerta daitezkeen hipotesi bat da, halaber, jarduketa horien baliogabetasuna proposatzea, hirugarrenago horiei horien berri garazi eman ez izanagatik'.

Egia esateko, Herriaren Defendatzaileek sarritan abiarazi izan dute jarduketaren bat, interesatu multzo ugari batengan eragina izan zezakeena; gogoratu besterik ez oposizioen deialdiak, hirigintza jarduketak, ingurugiro jarduketak, etab.

Kexa espediente baten izapidaketa aldian, aurkaesan printzipioak interesatu guztien eta horietako bakoitzaren partaidetza eskatzen duela pentsatzen baldin badugu, nire iritziz, printzipio hori, hitz horietan, ezin daiteke jo aplikarritzat. Eta hori guztia, Herriaren Defendatzaileen jarduketaren berezko ezaugarri bati, hots, sumariotasunari eragingo liokeelako ez ezik, baita ere, eta funtsean, ezingo zatekeelako halakorik eskatu Herriaren Defendatzaileen jarduketaren izaera juridikoaren arabera.

Parejok berak zorrotasun handiz adierazten duen bezala, Herriaren Defendatzailearen jarduketak konstituzionalitatea babestuz kontrol objektibo bat burutzea du lan-oinarri, jarduketa horren oinarria kexa bat aurkeztu izana den ala ez kontuan izan gabe, kexarako eskubide hori Herriaren Defendatzaileak bere jarduketa abiarazterakoan eta berak bakarrik daraman ikerketa horretan agortzen dela ulertuz, egoki deritzon emaitza izango duelarik.

Horrek esan nahi du Herriaren Defendatzaileak ez direla inoren interes partikularren ordezkari gisa agertuko, ezta kexa hori azaleratu duenaren ordezkari gisa ere, baizik eta objektiboki jardungo dutela, administrazioaren jarduketa batek Konstituzioarekiko eta legeekiko duen egokitasuna zainduz, eta hala egokituz gero, zapalduak izan diren eskubideak Administrazioak berrosa ditzala eskatuz, horrelakorik gertatu dela uste baldin badu.

Jokoan dauden interes ezberdinen defentsak administrazio prozedura horretan bertan aurkitu behar du bere tokia.

Legebiltzarraren eskudun batek, azkenik, gomendio bat zuzentzen baldin badio Administrazioari eta hark hura onesten baldin badu, legeak dioenaren arabera bete beharko da hori, jakina, eta beraz, prozedurazko berme guztiak ere errespetatuz.

Horrek ez du esan nahi, Herriaren Defendatzaile batek jarduketa abiarazi ondoren, hirugarrenago interesatu batek alegaziorik aurkeztu nahi izanez gero, bere eskubideak kalteturik gerta daitezkeela uste duelako, alegazio horiek erabat baztertu behar direnik, baizik eta, alderantziz, espedienteari gehitu ahal izango zaizkio, Herriaren Defendatzaileak horrela iritziz gero, zeren askotan epai zuzenago bat ematen lagunduko baitute ebazpena gauzatzeko orduan.

⁴ GARCÍA DE ENTERRÍA, E.: *Curso de Derecho Administrativo. Volumen I*, or. 452.

⁵ PAREJO ALFONSO, L.: *Diez años de la Ley Orgánica del Defensor del Pueblo. Problemas y perspectivas: Ponencia II. El Defensor del Pueblo como institución de control de la Administración Pública*, or. 100 eta ond.

Azken ondorio gisa, nire ustez Herriaren Defendatzaileek ez dute inolako obligaziorik izapidatzen ari den kexa espediente horretan interesatu guztiei horren berri emateko, baina bestetik, administrazio prozeduraren eremuko berme guztiak bete beharko dira. Herriaren Defendatzaileak erabakiko du, kasu bakoitzean, bere ikerketari eman nahi dion ikuspegia eta, beraz, kexa aurkeztu zuena ez den beste hirugarrengo batzuen alegazioak ezagutzea beharrezkoa jotzen duen ala ez.

Kontua ez da izango, halere, alderdiek jokoan dituzten interesak bermatzea, arestian esan dugun bezala hori administrazio prozeduran egin beharko baita, baizik eta Herriaren Defendatzailearen erabakia ahalik eta zuzenena izan dadin laguntzea.

Bada, halere, aurkaesan printzipioaren beste ikuspegi ezberdin bat, espediente baten izapidaketa aldian Herriaren Defendatzaileek daramaten jarduketa prozeduran guztiz aplikagarria dena, eta hori, hain zuzen ere, alderdi pasibo interesatuari, hots, Administrazioari, audientzia ematearen printzipio nagusia da.

Fairenek berak aldarrikatzen du (Ombudsmen-en prozeduran) ‘prozesuaren -eta prozeduraren- funtsezko printzipio bat badagoela errespetatzen dena; eta hori aurkaesanarena da (audiatur et altera pars)’⁶.

Begibistakoa da Herriaren Defendatzaileak Administrazioari entzun behar diola beti ebazpena eman aurretik, ez bakarrik egoki irizten diona alegatzeko aukera emateagatik, baizik eta, kasurik gehienetan, Administrazioak eskaintako informazioa beharrezkoa izan ohi delako kexa eragin duen gai horri buruzko iritzi zuzen bat izan dezan Herriaren Defendatzaileak.

2.2.2. Prozedurako ekonomiaren printzipioa

Aurreko Administrazio Prozedurari buruzko Legeak ezartzen zuen Administrazioaren jarduerak men egin behar ziela ekonomia, azkartasun eta eraginkortasun arauai. Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko Lege berriak irizpide horiek berretsi eta eragingarritasunarena gehitzen dio.

López-Nietok gogoratzen du administrazio prozedura, eraginkorra baino gehiago, legezalea dela, nahiz eta Konstituzioak horren eraginkortasunaren aldarrikapena jasotzen duen eta Administrazio Prozedurari buruzko Legeak ere horixe jasotzen zuen, HAAJEAPALak ere aldarrikapen horri heltzen diolarik⁷.

Herriaren Defendatzaileen jarduketak duen izaera antinformatista horrek erraztu egin behar luke berau ekonomia, azkartasun eta eraginkortasun irizpideen arabera burutu dadila, eta jarduketa hori moteltzen duten inertiak eragotzi egin beharko lirateke.

Zoritxarrez, printzipio hauek betetzea ez dago Herriaren Defendatzaileen esku bakar-bakarrik, zeren administrazioen beharrezko lankidetzak horrek ere asko baldintzatzen baititu, izan ere, sarritan, beren administrazio prozeduraren moteltasunaz edo beren lankidetzak ezaz ‘kutsatzen’ dute kexa espedienteen izapidaketa prozedura.

Ondorioz, ekonomia, azkartasun eta eraginkortasun printzipioek zehaztu behar dute Herriaren Defendatzaileen jarduketa, eta ebazpena emateko azkartasunak izan behar du horren ezaugarrietako bat.

Puntu honetara iritsirik, komeni da zehaztea zenbaitetan oso arriskutsua dela presa izatea, prozedura hori azkarregi izapidatzen baldin bada gehiegi pentsatu gabeko erabaki bat hartzeko arriskua dagoelako, eta beraz, bermerik ez dagoelako, baina arriskutsua da halaber berandutzea, izapidaketa motelegi batek administrazio prozeduran hainbeste kritikatu diren begibistako kalte horiek⁸ ekarri ohi dituelako.

Ez da ahaztu behar, azkenik, Enterrriak gogoratzen zuen bezala, Auzitegi Konstituzionalak adierazi duela ‘prozedurako ekonomiaren printzipioa logikoki baxuagoa dela prozedurako printzipioen eskala axiologiko batean’ (81-7-24ko AKE), eta beraz, nahiz eta kontuan hartzeko balio bat izan, ezin

⁶ FAIREN GUILLÉN, V.: *El Defensor del Pueblo-Ombudsman*. I Tomoa. Atal Orokorra, or. 404.

⁷ LÓPEZ-NIETO Y MALLO.: Aip. lana, or. 208.

⁸ ILLUS NIETO, A.: *Ciudadanos y Reforma Administrativa. Ponencia III. Incidencia del tiempo en el Procedimiento Administrativo*, or. 141 eta ond.

dezake estali oinarritzko eskubide baten bortxaketa eta eragindakoaren eskubideei kalte egin izana (83-7-26ko AKE).

Edonola ere, azkartasun printzipio hori erabakiorra izango da presazkotzat sailkatu diren kasuetan. Beraz, printzipio hori kexaren izapidaketa prozedura osatzen duten garrantzi handiagoko beste printzipio batzuekin konparatzen baldin bada, prozedura hori aurrera eramateak duen xedea ongien bermatzen duten printzipioek izan behar dute nagusi.

2.2.3. *In dubio pro actione* printzipioa

Jakina denez, *in dubio pro actione* printzipioak, izenak berak dioen bezala, akzio eskubidea gauzatzeko interpretaziorik aldekoena defendatzen du, eta horrenbestez, ahal den neurrian, izaera formaleko zailtasunez gandi, prozeduraren xede den gaiaren muinari buruzko erabaki bat hartuko dela ziurtatzen ahalegintzen da.

Herriaren Defendatzaileak arautzen dituzten lege desberdinak printzipio hori bultzatzearen alde daude nabarmenki, eta gehiatsuenek, kexa baztertzeko kausak ahalezko izaeraz hartzen dituzte kontuan, izenik gabeko kexak salbu, eta Herriaren Defendatzailearen esku uzten dute horiek onartzearen erabakia, baztertzeko kausaren batean sartuak egon arren.

Horrela, bada, HDLOak aurreikusten du 'Herriaren Defendatzaileak kexa izengabeak baztertu dituela, eta fede txarra, funtsik eza edota asmorik eza igartzen dien gainerakoak ere baztertu ahal izango dituela, baita horien izapidaketak hirugarrengoen eskubide legitimoari kalterik sortzen dieten gainerakoak ere'.

llo beretik, eta ia erredakzio bera duela, autonomietako eskudunen erregimenari buruzko arau erregulatuak gehienek gauza berdinak adierazten dituzte⁹.

Kexak onartezinak izateko kausak biltzen dituzten HDLOaren eta gainerako autonomia arauen malgutasuna, Herriaren Defendatzaileek horiei buruz duten ahalezko izaera babestuz, ez dator bat Arartekoaren Legeak eta Kataluniako eta Valentiako Komunitateko Sindic de Greuges direlakoen legeek agindu izaeraz ematen dituzten baztertzeko kausekin¹⁰.

Baztertzeko kausek duten agindu izaera horrek murriztu egiten ditu onarpen txostenean izapidaketa aurrera eraman ahal izateko aukerak, eta horrenbestez, ez dirudi HDLOaren aurreikuspena bezain egokia denik, eta horrelaxe kritikatu du doktrinak¹¹.

Edonola ere, Herriaren Defendatzaileek ofiziozko jarduketa bat burutzeko duten aukerari esker, kexa baten izapidaketari buruz zalantzak izango balitu arrazoi formalengatik, esku hartu beharra bere gain hartu ahal izango du, egoki jotzen duenean, bere jarduketaren bereizgarri den konstituzionalitate horri begira kontrol objektibo bat burutzeko asmoz.

2.2.4. *Ofizialtasun* printzipioa

Printzipio honek jasotzen du prozedura hori ofizioz abiaraziko dela bere izapide guztietan, eta ez da beharrezkoa izango partikularrek bultzatzea, jurisdikzio zibileko prozesuan gertatzen ez den bezala, xedapen printzipioaren menpe baitago berau.

Horregatik, espediente baten izapidaketa abiarazi ondoren, kexaren sustatzaileak jarrera aktiboa edo pasiboa agertzen duen ala ez kontuan izan gabe burutuko da. Horrela, kexa hori aurkeztu duenak atzera egiten badu horretan, Herriaren Defendatzaileak ez du derrigorrez bere jarduketa eten behar, zeren interes publikoko arrazoi objektiboengatik aurrera jarrai dezala erabaki ahal izango baitu¹². Prozedurarekin aurrera jarraitzeko aukera hauxe da, hain zuzen ere, kexa agertu duen

⁹ Valedor do Poboren Legeko 21.2 art.; Andaluziako Herriaren Defendatzailearen Legeko 17.3 art.; Aragoiko Justiziaren Legeko 15.3 art.; Komuneko Diputatuaren Legeko 19.3 art.; Komuneko Prokuradorearen Legeko 12.3 art.

¹⁰ Arartekoaren Legeko 21.2 art.; Kataluniako Sindic de Greuges-en Legeko 16.4 art.; Valentiako Erkidegoko Sindic de Greuges-en Legeko 17.1 art.

¹¹ LÓPEZ BASAGUREN, A. eta MAESTRO BUELGA, G.: *El Ararteko*, or. 183.

¹² Horrela aurreikusten du, besteak beste, Arartekoaren Legeko 18.3 art.

herritarrak horri uko egiten dion ala ez kontuan izan gabe, Herriaren Defendatzailearen jarduketak duen izaera objektiboaren frogarik nabarmenena.

Baina Herriaren Defendatzailearen jarduketari amaiera emango dion ebazpena emateko ulean izango du printzipio honek indarrik handiena, zeren ofizialtasun printzipioak berdefinitu egiten baitu prozesu zibilak berezkoa duen kongruentzia printzipioa.

Herritarrak bere kexa-idazkian azaldutako gaiak kontuan izan gabe, ikerketan zehar kexaren sustatzaileak kontuan hartu ez dituen gai berri batzuk agertzen baldin badira, Herriaren Defendatzaileak, egoki iritziz gero, horiek aztertzeari ekingo dio, kongruentzia printzipioaren urraketarik gertatu dela argudiatzeko aukerarik gabe. Aukera honek agerian uzten du Herriaren Defendatzailearen jarduketa Administrazioaren jarduketari buruzko kontrol objektibo bat burutzea dela.

2.2.5. Legitimazio eskakizunaren printzipioa

Administrazio prozedura erregulatzen duten arauak, partikular batek bertan parte hartu ahal izateari begira, prozeduraren xedearekin harreman berezi bat eduki dezala eskatzen dute, eta horri, legitimazioa deituko diogu. HAAJEAPAL berriak, xedatzen den ebazpen horren eragina jaso dezakeen interes legitimo bat egon dadila eskatzen du.

HDL0ko 10.1 artikuluan ere interes legitimo horren adierazpen bera egiten da, zeinetan azaltzen baita 'interes legitimo bat adierazten duten pertsona natural edo juridiko guztiek jo dezaketela Herriaren Defendatzailearengana, inolako mugarik gabe. Ezin daitezke horretarako eragozpen izan naziotasuna, bizilekua, sexua, adin txikikoa izatea, subjektuaren lege-ezgaitasuna, espetxe edo presondegi batean egotea, edo, oro har, Administrazio edo Botere Publiko batekiko menpekotasunezko edo atxikipenezko edozein harreman berezi'.

Autonomietako Herriaren Defendatzaileen erregimena arautzen duten legeek ia modu berean aztertzen dute gai hau¹³.

Herriaren Defendatzaileek interes legitimoaren kontzeptuaz egin duten interpretazioa, halere, oso eskuzabala eta ugaria izan da, eta horri dagokionez, López Basagurenak, beste egile batzuen ildo beretik, zera adierazi du: 'Herriaren Defendatzailearen ezaugarriek interpretazio benetan malgu bat eskatzen dutela herritarrek horren aurrean kexak agertzeko duten legitimazioaz, are gehiago kontuan badugu interes legitimo hori legitimazio publiko gisa hezurramitzen dela zenbait eremutan. Hori dela eta, uste dugu interes legitimoa (...) administrazio jarduketarekin desatsegintasun juridiko gisa interpretatu behar dela, eta ez, ordea, zuzeneko interes batekiko edo zuzeneko edo berehalako interes pertsonal batekiko afektazio gisa'¹⁴.

Auzitegi Konstituzionalak nabarmenki zabaldu du interes legitimoaren kontzeptua, eta are interes kolektiboaren kasuraino ere hedatu du¹⁵.

Herriaren Defendatzaileen jardunak kontzeptu hori malgutasun handiz interpretatzera jo du, are Auzitegi Konstituzionalaren interpretazioa ere gaindituz.

Laura Díez Buesorekin ados nago horrek horrela izan behar duela esatean, zeren Herriaren Defendatzailearen erakundea 'gure ordenamenduan sartzen baita, hain zuzen ere, Administrazioaren kontrolerako ohiko bitartekoen bidez ezin besarka daitezkeen eremuak estaltzeko, eta beraz, interes legitimoa Ombudsman-era jotzeko baldintza gisa interpretatzeak argi eta garbi mugatuko luke bere eginkizunen potentzialitatea'¹⁶.

¹³ Arartekoaren Legeko 18. art.; Kataluniako Sindic de Greuges-en Legeko 12. art.; Valedor do Pobo-ren Legeko 14. art.; Andaluziako Herriaren Defendatzailearen Legeko 11. art.; Valenziako Erkidegoko Sindic de Greuges-en Legeko 10. art.; Aragoiko Justiziaren Legeko 12. art.; Komuneko Diputatuaren Legeko 16. art.; Komuneko Prokuradorearen Legeko 10. art.

¹⁴ LÓPEZ BASAGUREN, A. eta MAESTRO BUELGA, G.: Aip. lana, or. 181.

¹⁵ Urriaren 11ko 60/82 AKE; 1983ko uztailaren 11ko AKE; otsailaren 25eko 24/87 AKE; eta otsailaren 3ko 25/89 AKE.

¹⁶ DÍEZ BUESO, L.: "Los Ombudsmen de las Comunidades Autónomas". Doktore-tesi argitara gabea.

2.2.6. Inpartzialtasun printzipioa

Prozesu judizialean berezkoa den inpartzialtasun printzipio horrek -zenbaitetan administrazio prozeduran erlatibizatua-, mugatu egiten ditu, inolako zalantzarik gabe, Administrazioaren jarduketaren kontrol objektibo batean parte hartzen duten Herriaren Defendatzaileen jarduketak, horiek legetara egokitzen diren eta herritarren eskubideak errespetatzen dituzten egiaztatuz.

Zaila gertatzen da, ordenamendu juridikoak inpartzialtasuna bermatzeko xedatutako zenbait figura, abstentzioa eta ezespina esate baterako, Herriaren Defendatzaileei aplikatzea.

Erreklamaziogile batek erakunde horren titularrari buruz ezespren arrazoiren bat balu, oso zaila izango litzateke kexa aurkeztera iristea, berau konfiantzan oinarritutako harreman bat delako.

Baldin eta norbaitek, kexa bat aurkeztean, eskatzen badu, edozein arrazoi alegatuz, bere espedienteaz ez dezala aholkulari jakin batek izapidatu, Herriaren Defendatzaileak aztertu egin beharko du eskaera hori zenbateraino den arrazoizkoa, eta bere irizpidearen arabera jokatu, nahiz gomendagarria litzatekeen eskaera horri baiezkoa ematea, aholkulariari entzun ondoren, baldin eta administrazio prozeduran ezespren arrazoi diren kausa horietako batean sarturik badago.

Beste alde batetik, kexa baten izapidaketa aldiari Herriaren Defendatzailearen taldeko kideren batek abstentzio kausaren bat baldin badu, badirudi egokia dela, inpartzialtasun printzipio hori bermatzeari begira, beronek eskatzea administrazio arloan abstentzioa eragingo lukeen kausa batean sarturik ez dagoen beste aholkulari batek burutu dezala izapidaketa hori.

Egoera horretan aurkitzen dena erakundeko titularra bera izango balitz, komeniko litzateke Ordezkoaren esku uztea espediente horren ebazpena, ez bakarrik inpartzialtasunaren berme gisa, baizik eta gainera, jokabide alderdikoi baten susmoak eragina izan dezakeelako bere *auctoritas* horretan.

2.2.7. Gardentasun printzipioa konfidentzialtasun printzipioaren aurka. Herriaren Defendatzaileen erreserba obligazioa

Administrazioaren jarduketa gardentasunaren eta opakotasunaren artean mugitu da beti, agerikotasunaren eta ezkutukotasunaren artean.

Herritarrek administrazioaren jarduketa nolakoa den, eta zehazkiago, beren espedientearen egoera zein den ezagutzeko desioen aurrean, herri administrazioek errezeloa agertu izan dute betidanik herritarrek ezagutza hori eskura zezaten uzteko, eta hori, iraganeko inertziek iraun egin dutelako da, ezezaguna zitzaielako administratuen herritar izaera, eta nagusiki, gizakion nortasunak berezkoa duen zerbait delako ahal izanez gero edozein eratako aginduri jaramonik ez egitea, eta are gutxiago interesatuenei, zeintzuk, jakina denez, izaki berekoiak eta gogaikarriak baitira, beren gauzetan besterik pentsatzen ez dutenak, funtzionario ondraduak burutu behar duen lan kopuru ikaragarria kontuan izan gabe, munduan beste hainbat arazo ere badaudela ahaztuz, gehienetan berea baino larriagoak direnak, eta bizitzako kasualitateengatik, nekaraztera ausartu diren funtzionario horren mahaian amaitu dutenak, eta hura, bien bitartean, erabateko dedikazioz eta arreta handiz, zeharo nahaspilatua diren arazoak konpontzen ahalegintzen da, eta ez, herritarrak hain modu ausartan azaltzen dizkion txikikeria horiek.

Hain urrunekoak ez diren garaietan ere, Administrazioak bazekien nola geldiarazi administrazioaren langintza txukun horren hain etsai arriskutsu zirenak, hain zuzen ere, agintekeria nabarmeneko jarreneren bidez, eta orain, legeak horiek babesten saiatzen direnean, argudio arretatsuaogotara jo behar dute, hala nola eraginkortasun printzipiora edo konfidentzialtasun printzipiora.

Izan ere, Administrazioaren joera historikoa opakotasun eta ezkutukotasun horretatik jardutea izan da. APL agerikotasun printzipioa axaetik aztertzeraz mugatu zen, interesatuek izapidaketaren egoera ezagutzeko eskubidea bakar-bakarrik zutelako funtsean, baina ez jada burutuak zeuden izapideen eduki zehatza.

Spainiaiko Konstituzioak, bere 105.b) artikuluan, administrazioko artxibo eta erregistroetara jotzeko aukera aitortzen die herritarrei, eta HAAJEAPALaren 37.1 artikulua ezartzen du 'espediente baten zati izanik, administrazioko artxiboetan dauden agiriak eta erregistroak eskuratzeko eskubidea dutela, edozein izanik ere horien adierazpen modua, grafikoa, soinuak edo irudizkoa, edo horiek jasotzen dituen euskarri materiala, betiere espediente horiek amaitutako prozedurei baldin badagozkie'.

Aipatutako agindu horren ondorengo apartatuek arautu egiten dute zein baldintzetan eta nolako mugekin gauzatu den informazio hori eskuratzeko eskubidea, eta 8. apartatuak adierazten du eskubide horrek aukera ematen duela kontsultatutako agirien kopiak edo ziurtagiriak lortzeko.

Enterriak berak azaltzen digu HAAJEAPALEko zioen azalpenera jo dezagula puntu honetan horrek zenbateko garrantzia duen egiaztatzeko. Egia esateko, azalpen horrek gogorazten digu 'Administrazioak herritarren zerbitzura jarritako tresna baten izaera duela', eta dio legearen asmoa dela 'administrazioaren jarduketaren kalitatea eta gardentasuna bermatzea' eta 'Administrazioaren tradiziozko opakotasun horrekin apurtzea', 'Administrazioak herritarrekin duen harremanari buruz kontzeptu berri bat' sartuz.

Herriaren Defendatzaileek, beren eguneroko lanean, derrigorturik daude herri administrazioei sarritan gogoraztera agindu horiek indarrean daudela, eta herritarrek espedientea eskuratzeko duten eskubidea errespetatu beharra daukatela.

Azalpen luze honen ostean, eta gogoratu ondoren Suediako ordenamendu juridikoa dela, jada 1766. urteaz geroztik, administrazioaren jardunean jokaera gardenaren erreferentziarik aspaldikoena, ulertuko duzue kezkaturik naukala esan behar izateak, gure kexen izapidaketa prozedurak duen gardentasun printzipioaren eta agerikotasun printzipioaren aplikazioa aztertzeko une honetan, kexak izapidatzeko prozeduran horien sustatzailea ezin daitekeela espedientea eskuratzeko eskubideaz baliatu bere espedienteari ebazpen bat emateko burutzen ari diren izapideen edukia ezagutzeko.

Jakina, ez dut baieztapen hau egiten inbutu legearen aplikazio ziniko batetik, zeinaren arabera gure erakundeek besteei eskaitzen baitiete gero beraiei ezin aplika dakiekeena, baizik eta horrela xedatzen dutelako gure lege erregulatzaileek. Imajinatuko duzue gure funtzionarioa, bere aulkian sumindurik, dauzkan arazo larri eta ugari horiekin kezkaturik, berari gardentasunaren botika hori ezartzen dioten bitartean, azken muturreraino eraman beharra duelarik, ikusten baitu nola hori hala izan dadila zaintzen dutenak, lotsagabeki, ez dauden behartuta beren espedientei dagokienean.

Berriro ere gogorazi behar dugu Herriaren Defendatzaileen jarduketa zehazten duten printzipioak aztertzeko orduan ziurtasuna eduki behar dugula legebiltzarraren eskudun horrek objektiboki jokatzeko duela. Administrazioaren jarduketa Konstituzioari eta legeei egokitzen zaiela kontrolatuz, eta kontrol hori burutu dadin, konbentzitzeko ahalmenaz eta herritarrekiko eta Administrazioarekiko konfiantzaz jokatu beharko duela eta, beraz, agerikotasun printzipioa azken emaitzaren arabera izango da, eta ez emaitza horretara garamatzaten izapideen arabera, horiek erreserba obligazioaren menpe egongo baitira.

Horrela adierazten du, argi eta garbi, Parejo irakasleak¹⁷, enfasi handiz galdetzen baitio bere buruari ea 'Herriaren Defendatzailearen ekintza abiarazteak dagokion pertsona edo organoa ikerketa horren 'zati' bihurtzen al dituen, halako moduz ezen burututako jarduketak eta ikerketan zehar Herriaren Defendatzaileak lortu edo sortutako agiriak ezagutzeko eskubidea baitu'.

Galdera horri berak erantzuten dio esanez Herriaren Defendatzailearen ikerketak informala eta konfidentziala izan behar duela, zeren bera baita bere eskuhartzea eskatu duen pertsonaren eta kontrolatutako edo gainbegiraturako Administrazioaren arteko lotura-gune bakarra. Uste du, horren ondorioz, ikerketaren edukia zentzu estuan izaera erreserbatua edo sekretukoa duen ala ez kontuan izan gabe, besterik gabe lortutako informazio edo dokumentazio hori ezagutzeko edozein eskubide salbuetsita geratu behar duela, kexa aurkeztu duenaren eta Administrazioaren eskubidea ikerketa horren emaitza ezagutzera mugatuz, Herriaren Defendatzailearen aukeran geratzen delarik emaitza bakarrik ezagutzeko eskubide hori gainditu ahal izatea.

Iritzi horretakoak gara gu ere, printzipioz, zeren ezin baita besterik ondorioztatu Herriaren Defendatzaileak erregulatzen dituzten legeetako aginduen edukitik, beren jarduketetan erreserba obligazioa eta konfidentzialtasun printzipioarekiko begirunea xedatzen baitute.

Horrela jasotzen du berriaz HDLOaren 22.2 artikulua, zeinak ezartzen baitu 'Herriaren Defendatzaileak eta beronen menpeko pertsonalak burutzen dituen ikerketak, baita prozedurako izapideak ere, erreserbarik erabatekoenean egiaztatuko direla bai partikularrei dagokienez eta bai bulego eta erakunde publikoen dagokienez ere'.

HDL0ko 31. artikulua ezartzen du Herriaren Defendatzaileak bere ikerketaren emaitza jakinaraziko diela bai interesatuei eta bai ikerketa horren xede izan den agintari, funtzionario edo administrazio bulegoari ere.

¹⁷ PAREJO ALFONSO, L.: Aip. lana, or. 114.

Autonomietako Herriaren Defendatzaileak erregulatu dituzten lege guztiek jasotzen dute erreserba eta konfidentzialtasun obligazioa, denen gainetik Valedor do Poboarena nabarmentzen delarik, konfidentzialtasun eskubidearen defentsari dagokionez¹⁸.

Halere, uste dut Herriaren Defendatzaileak bidalitako espedientea herritarrak ezagutzeko eskubiderik ez edukitzeak ez duela derrigorrez esan nahi ezagutza hori ukatu behar zaionik, nolana ere.

Zuzenbidez, berau zehazten duten balore eta printzipioak ez dira aurkeztu behar liskarrerako irizpide gisa, aurrez aurreko kontrajartze gisa, baizik eta oreka joko bat bezala, eta bertan, aplikazio printzipio ezberdinak neurtzen dira, lehentasunen hurrenkera jakin bat izendatzen zaielarik. Modu horretan, gardentasun printzipioak konfidentzialtasun printzipioaren eta erreserba obligazioaren aurrean bakarrik egin dezake atzera, dagokion espediente horrek horrela justifikatzen duenean bertan ohar horiek daudelako. Gainerantzean, arazo formal baten atzean ezkutatu besterik ez ginateke egingo azken batean opakotasunezko jokaera bat litzatekeena justifikatzeko, eta horrela ulertuko luke herritarrak, gure jarduketako beste printzipio garrantzitsu bat apurtuz, hots, konfiantza printzipioarena. Arazo ugari eta garrantzitsuak daramatzen gure funtzionario karikatuzatu horren kontraposizio gisa, ezin dezakegu jari arazo konfidentzial eta erreserbatu ugari daramatzen Herriaren Defendatzaileen aholkularia. Eta ezingo genuke esan, txantxa horrekin jarraituz, interesatuak onak baldin badira, imajinatu ditzazula nolakoak izango ote diren kexatiak, eta une hau aprobetxatu nahi nuke esateko, gure erakundeetara etorri ohi diren herritarren izendapen horrek ez duela inolako balio gutxiesgarririk, kexa asko eta arrazoirik gabe egiteko joera aitortzen zaienean, baizik eta, kexa bat aurkeztu dutenak izendatzeko soilik erabiltzen dela, zuzen ala oker.

Arazo hori hitz horietan kokatu ondoren, arauk Herriaren Defendatzaileei ezartzen dieten erreserba obligazio horren hedadura lau kasutarako zehazten da, gutxienez:

a) Kexaren sustatzaileak bere espedientea ezagutzea eskatzen duenean.

Hauxe da gehienetan agertzen den kasua, administrazio prozedurari aplikagarri zaizkion irizpideak aplikatzen dizkiolako herritarrak kexaren izapidaketa prozedurari.

Gehienetan, herritarrak eskatzen duena bere espedientearen izapidaketa zein egoeratan aurkitzen den ezagutzea da. Horrelakoetan, ez dago inolako eragozpenik izapidaketa aldiari buruzko informazioa emateko, eta oso goraipagarria da zenbait Herriaren Defendatzailek burutzen ari diren jarduketa ezberdinak -informazioa eskatzea, administrazioaren erantzuna jasotzea, etab.- ofizios jakinarazteko erabakia hartu izana.

Oso bestelako arazoa da Herriaren Defendatzaileak informazioa eskatzeko egindako idazkien edukia edo Administrazioaren erantzunaren idazkien edukia ezagutzea eskatzen duenean herritarrak, eta are horien kopia eskatzen duenean.

Asmo hori ukatzeko, zenbait egilek, Parejok esate baterako, uste dute kexa hori aurkeztu duen pertsonak Herriaren Defendatzailearen 'espedientea' ezagutzeko aukera balu, ezingo litzatekeela ukatu, era berean, kontrolaren xede den Administrazioak eskubide hori bera edukitzea, eta hori, Herriaren Defendatzailea eta herritarraren arteko komunikazioa izaera erreserbatutzat jotzearen lege-aurrikuspenaren aurkakoa izango litzateke.

Benetan, argudio hori ez zait iruditzen aski sendoa ñabardura asko dauzkan gai bat besterik gabe baztertzeko. Hasiera batean, uste dut konfidentzialtasuna eta erreserba ezin daitezkeela gauzatu, hitz lauz esateko, Herriaren Defendatzaileen jarduketa guztietan; are gehiago, zintzo hitz eginez, halako sailkapen bat merezi duten gaiak gutxienak dira.

Herriaren Defendatzaileak, beraz, ezagutza hori ukatu ahal izango du printzipio horiek agertzen direnean, eta egoki baldin baderitzo, herritarrak idazki horien zenbait zati ezagutu ditzala erabaki ahal izango du.

Puntu honetan beharrezkoa da aipatzea, gainera, Administrazioak idatziz inoiz gutxitan agertarazten duela publikoki ezin eutsi diezaiokeen ezer, eta horrenbestez, ohikoa da herritarrentzako erantzun idatzietan Administrazioaren erantzunaren hitzez hitzeko parrafoak bere horretan agertzea, Herriaren Defendatzaileak egoki jotzen duenean.

¹⁸ Arartekoaren Legeko 15.3 art.; Kataluniako Sindic-en Legeko 23. art.; Valedor do Poboren Legeko 18.1, 24.4 eta 37.2 art.ak; Andaluziako Herriaren Defendatzailearen Legeko 20.4 eta 5. art.ak; Valentziako Erkidegoko Sindic de Greugesen Legeko 20.4 eta 22.2 art.ak; Aragoiko Justiziaren Legeko 15.5 eta 20 art.ak; Komuneko Diputatuaren Legeko 22.4 art.; Komuneko Prokuradorearen Legeko 17 eta 21 art.ak.

- b) Administrazioak erreklamaziogilearen izena edo kexaren edukia ezagutzea eskatzen duenean.

Sarrixotan gertatu izan da Administrazioak kexa jarri duen pertsonaren izena ezagutu edo kexa idazkiaren kopia bat eskuratu nahi izatea.

Azpirarratu behar dugu legeak guztiz babestu nahi izaten duela herritarraren eta Herriaren Defendatzailearen arteko komunikazioa, Herriaren Defendatzaileari erreserba eta konfidentziasun obligazioa ezarriz, eta beraz, Administrazioari ez dio kexa izapidatzeko behar-beharrezkoak diren datuak baino gehiago eskaini behar.

Konfidentziasunaren printzipioak bere zentzu osoa bereganatzen duen kasu hauetan, zeren askotan herritarraren eta Herriaren Defendatzailearen arteko konfiantza printzipioa baino zerbait gehiago baitago jokoan, batez ere administratuak atxikipen bereziko harreman baten menpe daudenean, beldur direlako erreklamaziogilearen aurka errepresaliak hartuko ote dituzten kexa jartzeagatik. Tratu txarrak salatzen dituen preso baten egoeraren adibidea oso adierazgarria da.

- c) Legebiltzarreko batzordeek, legebiltzarreko taldeek edo legebiltzar indibidualek Herriaren Defendatzailearen informazioa edo agiriak eskuratzeko eskatzen dutenean.

Honako hau, Parejok aitortzen duen bezala¹⁹, sor litezkeen arazo korapilatsuenetako bat da, Herriaren Defendatzaileek legebiltzarren eskudun izatera dutelako.

Egile honek dio herritarrak eta Administrazioa kasu zehatzetako informazioa eta dokumentazioa eskuratu ahal izateari buruzko erreserba hori legebiltzarreko batzordeei eta legebiltzarkideei ere aplikagarri zaiela, eta bere iritziz, ikerketen azken emaitzak bakarrik ezagutzeko eskubidea dute. Horrelakoetan, Herriaren Defendatzaileek duten legebiltzarren eskudun izatera hori noraino iristen den zehaztean datza gakoa, eta Ombudsmen guztiek beren jarduketetan berezkoa duten independentzia printzipioa ere noraino iristen den.

Aipatutako egile horrek defendatzen du legebiltzarren eskudun izatera hori ez dela Herriaren Defendatzailea haren menpekotasun funtzional baten pean jartzen duen eta, beraz, legebiltzarren jarraipideen menpe dagoen eskuordetze bat, baizik eta bere eginkizuna burutzeko ezinbestekoa den independentziako egoera bat ziurtatzen duela.

Herriaren Defendatzailea Konstituzioz eraturako erakunde bat da -eta autonomietako Herriaren Defendatzaile gehienak estatutuz eratuak-, eta horrenbestez, ez dago guztiz legegile arruntaren esku.

Herriaren Defendatzaileak erregulatzen dituzten legeak erakunde horien independentzia printzipioa finkatu dute, eta dagozkien legebiltzarretako eskudun edo goi eskudun gisa izendatu dituzte.

Zenbaitetan, Arartekoaren Legean esate baterako, independentzia hori mugaturik dago, eta horrela, bertako 1.3 artikulua dioenez, 'Legebiltzarren jarraibideak bakarrik jasotzen ditu, hark zehazten duen moduan'.

Lege honetako zioen azalpenak dioenez, Arartekoaren jarduera 'Legearen menpe, bere irizpidearen menpe eta, Legebiltzarren Eskudun izaearekin bat etorriz, Legebiltzarrek ematen dizkion jarraibideen menpe dago bakar-bakarrik'.

Gai honetan uste dut Herriaren Defendatzaileen jarduketa motaren arabera ere bereizketaren bat egin beharko litzatekeela.

Legebiltzarren eskudunek, legebiltzar taldeek eta legebiltzarkide indibidualek, hasiera batean, ofizioz edo legebiltzarren eskariz, batzorde batek nahiz legebiltzarkide batek hala eskatu ondoren, hasitako ikerketa eta dokumentazio oro ezagutzeko aukera izango dute.

Nolanahi ere, independentzia printzipioa eta erreserba obligazioaren arteko oreka horren ondorioz, alderdi baten eskariz hasitako ikerketa horiek ezagutzeari dagokionez interesatuei eta Administrazioari ematen zaien tratamendua legebiltzarreko batzordeei eta legebiltzarkideei ere aplikagarri zaie, zeren erreserba hori justifika lezaketen arazoiek kasu horretan ere bai baitiraute. Ildo horretatik, Fernando Sáinz Morenok²⁰ dio Herriaren Defendatzailearen ikerketen erabateko erreserba hori justifikatzen dela, ez bakarrik hirugarrengoei kalteak eragozteko, baizik eta, oso

¹⁹ PAREJO ALFONSO, L.: Aip. lana, or. 115.

²⁰ SÁINZ MORENO, F.: *Diez años de la Ley Orgánica del Defensor del Pueblo. Ponencias. Defensor del Pueblo y Parlamento (Relaciones con las Cámaras)*.

bereziki, Herriaren Defendatzailearen jarduna erraztuko duen konfiantzazko harreman bat sortzeko. Halere adierazten du Herriaren Defendatzaileak ganbararekiko harremanetan daramatzen ikerketen erabateko erreserbaren printzipio hori benetan kontu handiz aztertzeko arazoa dela. Azaltzen du 'hemen agertzen den arazo horren muina Herriaren Defendatzaileak informazio-iturrien (agiriak, adierazpenak) sekretuari eutsi al diezaiokeen izango litzatekeela, baldin eta Ganbarek horiek ezagutzea eskatzen badiote'.

Aipatutako egile horrek erreserba printzipioari kontrajartzen dio Gorteek Gobernuaren eta Administrazioaren jardura ezagutzeko duten eskumen unibertsalaren printzipioa, eta gogorazten du are Sekretu Ofizialen Legeak ere ezarri zuela gai ezkutukotzat sailkatzeak ez diola eragingo Diputatuen Kongresuari.

Kautela hauek burutu ondoren, Sáin Morenok ondoriotzen du Herriaren Defendatzaileak bere ikerketetan lortutako informazio konfidentziala eskaini beharrak eskaini zaion informazio horrekiko konfiantza apurtzea ekarriko duela, eta uste du 'HDLOan argi geratu behar lukeela ez dagoela behartua erreserbapean eskaini zaion informazio hori Ganbarei ematera'.

Nire iritziz Herriaren Defendatzaileak berak erabaki behar luke, duen independentziaz eta duen irizpideari jarraiki, ikerketako zein xehetasun egin daitekeen publiko legebiltzararen egoitzan, baina edonola ere, derrigorturik dago bere ikerketaren azken emaitzaren berri ematera, eta nire ikuspegitik, jasotako informazio hori konfidentzial gisa erreserbatu ahal izango du.

- d) Epaille eta auzitegiek Herriaren Defendatzailearen informazioa edo dokumentazioa ezagutzea eskatzen dutenean.

Hau ere, zalantzarik gabe, kontu handiz aztertzeko beste gai bat da, Herriaren Defendatzailearen eta botere judizialaren arteko harremanei eragiten diena.

Álvaro Gil-Roblesek duen iritziaren arabera, maila teorikoan behinik behin, erreserba obligazio horrek are epaille eta auzitegiekiko harremanak ere lotesten ditu. Horrela, beraz, jurisdikzio penalean izan ezik, non lankidetzarako derrigorrezko obligazio bat baitago, auzibideen jurisdikzioan edo jurisdikzio zibilean espediente bat bidal dadila eskatzen denean uko egin behar zaio bidalketa horri²¹.

Berriro ere mahai gainean jartzen da erakunde honen funtsa bera, besteak beste, konfiantzazko printzipio batean oinarritzen dena, zeren hautsi egingo bailitzateke baldin eta sekretukoa edo konfidentziala izango den baldintzapean emandako informazio hori publiko egin badaiteke, edozein bidetatik.

Edonola ere, praktikan, kexaren sustatzaileak berak hala eskatuta egiten dira eskabide horiek, horrelakoetan uste baitu eremu jurisdikzionalean Herriaren Defendatzailearen jarduerak ezagutzea bere asmoen onerako izango dela.

Ohiko kasua izango litzateke, herritar bat, Herriaren Defendatzailearengana joan ondoren eta bere tesiaren aldeko ebazpen bat lortu ondoren, konturatzen denean ebazpen hori ez duela Administrazioak onartu, eta ondorioz, beharturik dago auzitegiatara jotzea bere asmoek emaitza on bat izan dezaten ahalegintzeko.

Horrelakoetan, herritarrek lortu nahi izaten du, oro har, jaramonik egin ez zaion gomendio hori aurkeztu dadila, froga gisa balio izan dezan, alegia, ikerketaren azken emaitza aurkeztu dadila, izaera publikoa duenez jada ez baitago inolako eragozpenik auzitegiei eskaintzeko.

Bestetik, konfidentzialtasun printzipioak ez luke eraginkortasunik edukiko, baldin eta kexa aurkeztu duen herritar hori bera bada jurisdikzioko egoitzan Herriaren Defendatzaileari bere espedientea eskatzen diona, eta beraz, horrelakoetan auzitegiekiko lankidetzaren printzipioak nagusitu behar luke.

Printzipio honi eskainitako apartatuaren luzeera justifikaturik dago, zeren beharrezkoa izan baita Herriaren Defendatzailearen jarduerak duen izaera eta erreserba obligazioaren hedadura aztertzea, ulertu ahal izateko kontua ez dela gardentasun printzipioari opakotasun printzipioa aurkajartzea, zuzenbidezko Estatu batek berezkoa duen berme sistema baten aurkako litzatekeena, baizik eta kontua konfidentzialtasun printzipioaren aplikazioa dela Herriaren Defendatzaileak Administrazioaren jardura kontrolatzeko eginkizun horretan arrakasta ziurtatzeko, eta horrek justifikatzen

²¹ *Diez años de la Ley Orgánica del Defensor del Pueblo. Coloquio primera ponencia*, or. 93 eta 94.

du, hain zuzen ere, espedientea eskuratzeko eskubide hori murriztea administrazio prozeduraren zentzu berean.

2.2.8. **Prozeduraren dohaintasun printzipioa**

Dohaintasun printzipioa inolako dirurik ordaindu gabe Herriaren Defendatzaileengana jo ahal izatean gauzatzen da.

Zuzenean kexa bat aurkeztu ahal izateak, letratuaren presentzia behar izan gabe eta ordezkariarik gabe, gainera, dohaintasun printzipio hau bermatzen du zeharbidez.

Horrela xedatzen du berariaz HDLOko 15.2 artikulua, zeinak ezartzen baitu 'Herriaren Defendatzailearen jardura guztiak dohainekoak direla interesatuarentzat eta ez dela manuzkoa Letratuaren edota Prokuradorearen presentzia'.

Autonomietako arau guztiak, halaber, autonomietako Herriaren Defendatzaileen jarduketaren dohaintasuna jasotzen dute, eta denek ere jasotzen dute, Arartekoarenak izan ezik, ordezkariaren eta letratuaren presentziaren derrigorrezkotasunik eza²².

Horren guztiaren ondorio gisa esan dezakegu administrazio prozedura mugatzen duten printzipioak findu egin behar direla kexaren izapidaketa prozeduran aplikatu ahal izateko, bi prozedura horiek helburu ezberdinei baitagozkie.

Nolanahi ere, kexa izapidatzeko prozedura horretan besteen gainetik gailentzen diren printzipio batzuk zehaztu ahal izango dira administrazio jardueraren kontrol helburu hori lortzeko begira, hala nola prozeduraren eraginkortasunarena, informaltasunarena eta sumariotasunarena; jarduketaren konfidentzialtasunarena eta erreserbarena; eta konfiantzaren, Herriaren Defendatzailearen jarduketan.

III. **KEXAK IZAPIDATZEKO PROZEDURAN AGERTU OHI DIREN ZENBAIT ZALANTZA**

Ez da nire helburua apartatu honetan kexa izapidatzeko prozedura nolakoa den deskribatzea, zuek guztiok aski ezaguna baituzue, baizik eta horren izapidaketan agertu ohi diren zenbait zalantza mahaigaineratu nahi ditut.

Prozedura honetan bi fase bereiz ditzakegu nabarmenki ezberdinak direnak: lehen fase instrumental bat, kexaren ikerketa fasea, Herriaren Defendatzaileekin lankidetzan aritzeko Administrazioak duen legezko obligazioak mugatua; eta amaierako edo prozeduraren izapidaketa aldiko bigarren fasea, pertsuasio edo *auctoritas* printzipio batean eta, beraz, Herriaren Defendatzaileen ebazpenen izaera loteslerik ezan oinarritzen dena.

3.1. **Ikerketa fasea. Administrazioak Herriaren Defendatzaileekin lankidetzan aritzeko duen legezko obligazioa**

Ikerketa faseak, izaera instrumentala izanik, Herriaren Defendatzaileak administrazio jarduketa zein izan den egiaztatzea du xede, hark egokitzen jotzen dituen neurrien bidez, azkenean xedatuko duen ebazpen horrentzat oinarri gisa balioko duen iritzi edo epai bat izan dezan, bere jarduketari amaiera emango diona.

Adierazten genuen, itxura batean, paradoxa zela legegileak hala ezarri duelako Administrazioak Herriaren Defendatzaileen ikerketa lanarekin lankidetzan aritu beharra izatea (halako puntutaraino ezen lankidetzarik ezaren frogarik nabarmenenean tratamendu penal bat jasan baitezakete), eta halere,

²² Arartekoaren Legeko 43. art.; Kataluniako Sindic de Greugesen Legeko 13.2 art.; Valedor do Poboren legeko 18.4 eta 5 art.; Andaluziako Herriaren Defendatzailearen Legeko 16.2 art.; Valentziako Sindic de Greugesen Legeko 15.2 art.; Aragoiko Justiziaren legeko 14.2 art.; Komuneko Diputatuaren Legeko 18.2 art.; eta Komuneko Prokuradorearen Legeko 11.2 art.

ikerketa horren azken emaitzak izaera hertsatzailerik ez izatea kontrolpean dauden herri administrazioentzat.

Itxura batean dagoen aurkaesan hori ez da horrela kontuan badugu Herriaren Defendatzaileek dituzten ahalmenak beraiei izendatu zaien eginkizuna betetzearekin hertsiki loturik daudela. Horrela, legegileak ez badu Administrazioak lankidetzan aritzeko duen obligazioa finkatzen eta Herriaren Defendatzaileei hori lortzeko benetan tresna eraginkorrak hornitzen badizkie, ikerketa aldia eteteak esan nahiko luke erakunde hauek ez dutela eraginkortasunik kontrol eginkizun nagusi hori betetzeko.

Ikerketa aldia, beraz, legegileak argi eta garbi zehaztutako bi ardatzen inguruan egituratzen da: lehena, Herriaren Defendatzaileek ikerketa sumario eta informal bat burutzea, eta bigarrena, eragindako administrazio horrek lege-aginduz lankidetzan aritzea.

Bi ardatz hauen funtzionamendu zuzenak bakarrik ahalbidetuko du Herriaren Defendatzaileek duten kontrol eginkizun hori eraginkortasunez burutu ahal izatea.

3.1.1. Ikerketaren sumariotasuna eta informalitatea

Ikerketaren fase honetan adierazi dugu horrek duen sumariotasun eta informalitate izaera berau osatzen duten ardatzetako bat dela.

Horri buruzko legeek nahi dute Herriaren Defendatzaileek ez dezatela prozedura mailako inolako mugarik izan beren ikerketa jarduera burutzeko orduan.

Fase honetan nagusi den printzipioa eraginkortasunarena da. Ikerketak bere helburuak bete ditzala errazten duten neurri guztiak hartuko dituzte Herriaren Defendatzaileek.

Herriaren Defendatzaileek aplikatu beharko luketen testa, beraz, neurri horiek eraginkorrak izan al diren egiaztatzea da, egoeraren zentzuzko ezagutza bat lortzeari begira, ebazpena jakinaren gainean ematea ahalbidetuko diona.

Arauk berekin duen aukerakortasun zabal horri esker, 'aukerako' izapidaketa bat presta liteke, eta aztertu nahi den arazoa konpontzeko jarduketarik egokienak aplikatu daitezten ahalegindu beharko du. Horregatik, garrantzi berezia bereganatzen du kexaren alde aurreko analisiak, jarduketa hau zehazteko orduan.

Kexaren analisisan lau faktore zehaztu beharko dira gutxienez:

- a) kexan adierazten den eskubideen edo legeen zapalketa ahalezko horren larritasuna;
- b) zenbateko premiaz izapidatu behar den;
- c) konplexutasun teknikoa (bereziki tekniko-juridikoa, nahiz ez bakarrik);
- d) ikerketarako beharrezkoak diren elementuak erdiesteko zailtasun gehiago edo gutxiago izatea.

Faktore hauek konbinatuz, tratamendurik egokiena aukeratu behar da. Hortxe dago beti prozedura ez-arautuak azken batean errito bilakatzeko edo administrazio prozeduraren erremedio mota bat bihurtzeko duten berezko joeraren arrisku hori, zentzurik formalistenean hartuta, non lehentasuna baitu idatzia egoteak eta, beraz, aztertutako gai horretatik urrundua egoteak.

Erne ibili behar da arauak eskaintzen dituzten ahalmen guztiak behar hainbat garatzen ez dituzten jarduketa ereduaren erosokerian ez erortzeko. Herritarrak berak sumatu du prozedura hau ezberdina dela, ez hain formalista, Herriaren Defendatzaileekiko harremanetan ahozkototasuna geroz eta gehiago sartuz (1997ko ekitaldian, Arartekoaren erakundearen aurkeztutako kexa guztien 2 herenak ahozkoak izan ziren).

Jarduketa ez-arautu honen barruan, Herriaren Defendatzaileek errespetatu egin beharko dute kontrolpean jarritako Administrazio horri entzun egin behar zaiola dioen printzipioa, eta kontuan hartu beharko dute epe bat dagoela Administrazioak erantzun dezan. Lege gehienetan epe hori tasatua dago, eta hamabost egunen gehieneko epean idatzia bidali beharko dela ezartzen dute.

- a) Administrazioaren erantzuna jasotzeko epe bat egotea.

Epe bat ezartzea, tasatua izatez gain, Arartekoaren Legean izan ezik, Herriaren Defendatzaileen ikerketa-jardueran prozedura formalizatu bat izatearen adierazgarriak garrantzitsuena da.

Herriaren Defendatzaileek epe horrekin jokatzeko elementu garrantzitsu bat izan beharko luke izapidetaren sumariotasuna betetzeko, zeren kexan aztertzen diren larritasun, premiazkototasun, konplexutasun tekniko eta informazioa eskuratzeko zailtasunaren faktore horiek berak kontuan hartu beharko bailirateke epea finkatzeko orduan.

Ezin daiteke ahaztu Administrazioak zailtasun gehiago edo gutxiago izan dezakeela erantzuteko garaian. Ez da gauza bera lehendik egina dagoen agiri bat aurkeztu behar izatea, edo Administrazioak erantzun-txosten sakon bat prestatu behar izatea.

Arartekoaren Legeak kontrol handiago baterako aukera ematen du espedientea bidali edo erantzuna emateko epeetan, zeren beronen lege erregulatuak ahalbideratzen duen bezala legebiltzarren eskudun honek finkatu baitezake epea.

Oro har eta espediente gehienetan, Administrazioak hamabost eguneko epe hori beteko balu, ez litzateke gehiegizkoa izango eta ez luke horregatik ikerketa-lana motelduko.

Gaiaren ezaugarriak direla medio, hamabost eguneko epe hori gehiegizkotzat har daitekeen kasu gutxi horietan, Herriaren Defendatzaileek informazio eskabideari zenbait neurri gehitu beharko lizkiokete -administrazio bulegoetara joatea, telefono deiak egitea, elkarrizketak, bestelako baliabide teknikoak erabiltzea: faxa, posta elektronikoa-, Administrazioaren erantzuna bizkortu dezaketena.

Erantzuteko epe bat ezartzearen gai hau ez da hutsala, zeren hertsiki loturik egongo baita Administrazioak lankidetzan aritzeko obligazio hori betetzearen gerora burutuko den kontrolarekin.

b) Administrazioa ikertzeko jarduerak noiz hasi.

Nire eskuhartzearen beste une batean adierazi dut kexa izapidatzeko prozedura hori sarritan denboran bat datorrela kontrolpean jarritako administrazio jarduketara bideratzen duen administrazio prozedurarekin.

Prozedura horiek printzipio eta helburu ezberdinak dituzte: bata, sumariotasun, informaltasun eta eraginkortasun printzipioei jarraiki, administrazio jarduketaren kontrol objektibo bat burutzea du xede; besteak, legezketasun eta eraginkortasun printzipioen arabera ekingizko bat xedatzeko bide izan behar du, eta eragindako alderdien eskubideen bermatzaile.

Garrantzitsua da bi prozedura horien arteko erlazioa elkar egokipenezkoa izan dadila, eta ez elkargaitza edo kontrajarria. Elkar egokipenezkoa izan dadin orekatsua izan beharko du, prozedura horietako bakoitzaren helburuak betetzeko orduan.

Begibistakoa da Herriaren Defendatzaileen jarduketaren 'elkargaitzasun' hori txikiagoa dela behin administrazio bidea amaituz gero; halere, ez daukat batere garbi Herriaren Defendatzaileek une horretan esku hartzeak Administrazioa kontrolatzeko helburu hori errazten duenik, eta esango nuke guztiz alderantziz gertatzen dela.

Herriaren Defendatzaileek esku hartzen noiz hasiko diren erabakitzea, puntu honetan ere, aztertuko den gai motaren arabera egongo da neurri handi batean, eta oro har, esango nuke ez litzatekeela itxoin behar administrazio bidea amaitu arte.

Funtsean, pentsatzen ari naiz azkenik ateratzen den ondorioa Administrazioak bere jarduketara aldatu behar duela baldin bada, errazagoa izango zaiola gomendioa onartzea eta auzitan jarritako administrazio ekingizko hori berrikustea, hala dagokionean administrazio errekurso bat aintzat hartuz, ofiziozko berrikuspen batera joan behar izanda baino, printzipioz konplikatuagoa izango baita.

Bestalde, Herriaren Defendatzaileen eskuhartzea administrazio bidea amaitu arte atzeratzen baldin bada, herritarra egoera jakin batean kokatzen da, eta horren arabera, garrantzitsua erakunde honetara jotzea aukeratzeak eragotzi egingo dio auzitegiarekin jotzea, zeren Herriaren Defendatzaileak inoiz gutxitan amaituko baitu bi hilabetetan bere jarduketara, eta horrenbestez, epe hori iragan ondoren, herritarrak aukeratu egin beharko luke bere kexaren izapidaketarekin jarraitu edo hori eten eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri.

c) Informazio eskabidea izapidatzea. Administrazioarekin solaskidetzara finkatzea.

Ikerketa ongi burutzeko oso garrantzitsua gertatzen den gai bat da Administrazioan norekin eta zein eratan -idatzizkoa, ahozkoa- finkatzen den solaskidetzara. Berritara ere adierazi beharra dago kontuan hartu beharko dela zein den solaskidetzara hori.

Puntu honetan, ez dago formula majikorik, eta aukerarik onena, azken finean eraginkorrena bezala agertzen dena izango da.

Horregatik, erakunde batek eredu ezberdinen aldeko aukera egin duela ikus dezakegu, titularra zein den kontuan izanik, eta are titular beraren agintealdian ere erlazio hori aztertzeko modu ezberdinak tartekatuta dira.

Solaskidetzaren eredu bat ezartzeko orduan, giza-faktorea, Graham Greenen aipua eginez, funtsezkoa bilakatzeko da, solaskidea aukeratzeko unean ez ezik -pertsonek arteko giro on batek goxatu egiten ditu zailtasun asko eta erraztu egiten du arazoei konponbide bat bilatzea-, baita erlazio mota aukeratzeko orduan ere.

Herriaren Defendatzaileek beraien ezaugarri pertsonalen jakitun izan behar dute erlazio mota bati besteen gainetik lehentasuna emateko orduan (idazkiak, elkarrizketak, bilera teknikoak).

Askotan solaskidetzaren bi lagunen arteko gauza bat dela ahazten dugu, eta ez da kontuan hartzen Administrazioak bere barne-egituraren organo bat izendatu ohi duela Herriaren Defendatzaileengandik jasotzen dituzten gaiak izapidatzeaz arduratua, eta zenbaitetan, egitura organikoaren dekretuetan horren berariazko aurreikuspen bat eginez.

Oso garrantzitsua da solaskidetzaren formala errearekin bat etor dadila, zeren horrek, jakina, asko erraztuko baitu erlazioa eraginkorra izan dadila. Erlazio aukerak, funtsean, honakoak dira:

- Kontrolpean jarritako jarduketaren horren erantzule materiala den organo edo funtzionarioari informazioa eskatzea. Modu horretan, Herriaren Defendatzaileek beretzat gordetzen dute hierarkiaz maila bat gorago dagoenarengana joateko aukera, erantzuna ez bada nahi bezalakoa.
- Agintari gorenari edo hierarkiaz maila bat gorago dagoenari informazioa eskatzea, arazoaren ezagutza izan dezan eta 'goitik' aztertu ahal izan dezan, azalpenak eskatuz hori nola izapidatzen ari den jakiteko.

Beste aukera bat erlazioaren plano bikoitz bat finkatzea da:

- Administrazioaren organo batekin aurrez ezarritako erlazio formal bat, Herriaren Defendatzaileek Administrazio horrekin dituzten erlazio guztiak zentralizatuko dituen, eta horrek ziurtatu egingo du lankidetzaren aritzeko Administrazioak duen obligazioa beteko dela, bere barne-mekanismo hertsatzaileen bidez, zeren organo hori arduratuko baita Administrazioak Herriaren Defendatzaileen eskaerak betetzen dituela bermatzeko jarraipena egiteaz.
- Erlazio bat kexa eragin duen gaiaren erantzule materialak diren organo edo funtzionarioekin. Jasotako informazioa argitzeak, auzitan jarri den ekintza horren organo erantzuleekin zuzeneko harremana egotea eskatzen du. Bi erlazio mota horiekin batera jarraipenezko bilerak egin ahal izango dira noizean behin. Herriaren Defendatzaileek sailburu, alkate eta diputatuekin duten zuzeneko erlazioa benetako garrantzia duten gaietarako gorde beharko da, arazoei konponbidea bilatzeko oso bide eraginkorra izaten baita. Administrazioarekiko erlazioa gauzatzeko moduari dagokionez, nahiz ezinbestean idatzizko erlazioa nagusituko den, behar-beharrezkoa gertatzen da eraginkortasunaren ikuspegitik idatzizko jarduketaren horiekin batera laneko bilerak, elkarrizketak edo telefono deiak ere egitea, kexaren xede den gai horrek dituen nabardura guztien ikuskera zehatzagoa emango dutenak.

3.1.2. Administrazioak lankidetzaren aritzeko duen obligazioa

Hauxe dugu beste ardatz nagusia, ezinbestekoa Administrazioa ikertzeko jarduketaren hori eraginkorra izan dadin.

Erakunde hauek erregulatzen dituzten legeak jabetu dira zenbaterainoko garrantzia duen lankidetzaren honek, izan ere funtsezkoa eta ezinbestekoa baita Herriaren Defendatzaileen kontrol eginkizuna betetzeko. Arauek bitarteko guztiak erabili dituzte Herriaren Defendatzaileei eraginkortasun maila geroz eta hertsatzaileagoa duten tresnak hornitzeko.

Herriaren Defendatzaileek zehurrak izan behar dute horien erabileran, baina tinko jokatu beharko dute beharrezkoa denean. Pertsuasio formula guztiak agortu behar dituzte, baina ezinbestekoa gertatzen da administrazioek jakin dezatela Herriaren Defendatzaileak, beharrezkoa izanez gero, ez duela inolako eragozpenik izango azken ondorioetaraino iristeko, penalak ere barne.

Egia esateko, nahikoa izan ohi da funtzionario edo agintari baten jardueraren eragozgarria Ministerio Fiskalari ezagutzera emateko azken mehatxu hori, azken batean lankidetzaren hori lortu ahal izateko. Baina uste dut puntu honetara iritsi ondoren funtzionarioak bere jokoaren jarraitzen baldin badu, ondorio

guztiekin jokatu beharko dela, eta gainera, jokaera eragozgarri bati tratamendu penal bat emango zaiela jakiteak eragin pedagogiko itzela edukiko luke gainerako administrazioetan.

Neurri hau gauzatu ahal izateak, kontuan izanik lege-hauste penal baten aurrean gaudela, garantiak -idazkiak, ziurtagiriak eta pertsonalizatuak- indartzera derrigortzen du, eta izapide prozedurak 'formalizatzen' laguntzen du.

Administrazio ez-betetzailerik urteko txostenean duten islari buruz, uste dut metodo koalitiboago bat, eta beraz, ez hain koantitatiboa bilatu beharko litzatekeela, zeren hartara eraginkorragoa izango bailitzateke Administrazioaren lankidetzaz lortzeko.

Oso kalterakoa izango litzateke, administrazio ez-betetzailerik ohartarazpen bat egin zaiela iritzi publikoari jakitera eman ordez, ez-betetze horren salaketa sentitu behar luketelarik, lortzen den gauza bakarria erakunde 'ahul' baten irudia ematea izatea, zeinari Administrazioak ez dion lankidetzarik eskaintzen sistematikoki.

3.2. **Prozeduraren amaierako fasea. Herriaren Defendatzaileen ebazpenek duten izaera ez-loteslea**

Prozeduraren fase honetan ez dugu aztertuko zein kasutan iruditu zaion Herriaren Defendatzaileari -ikerketa amaitu ondoren- Administrazioaren aldetik ez dela gertatu legearen inolako urrapenik edota inolako eskubideren zapalketarik, zeren horrelakoetan, Administrazioarekin duen erlazioa bere jarduketari amaiera emango diola jakinaraztera bakarrik mugatuko baita, administrazioaren jarduketa zuzena dela uste duelako.

Komeni da aztertzea, halere, Herriaren Defendatzaileak burututako ikerketaren emaitzatik Administrazioaren jarduketa zuzengabea dela ondorioztuz denean sortu ohi diren zenbait arazo.

Azpimarratzekoa da, ikerketa aldiari gertatzen ez den bezala -Herriaren Defendatzaileen eta Administrazioaren arteko harremanak Administrazioak lankidetzan aritzeko duen obligazio horretan oinarritzen baitira-, fase honetan erlazio horien ezaugarria Herriaren Defendatzaileen adierazpenek izaera loteslerik ez edukitzea dela, eta beraz, Herriaren Defendatzailearen *auctoritas* delakoak, hots, bere pertsuasio gaitasunak arautuko ditu erlazio horiek.

Pedro Carballo irakasleak Komuneko Diputatuaren eta, hedaduraz, gainerako legebiltzar eskudunen ebazpenen eraginkortasunari buruz egindako txosten bikainaren ostean, fase honi buruz azalduko dudana derrigorrean laburra izango da, eta gure erakundeen funtzionamendurako garrantzi nabarmena izan dezaketen bi gairi buruz bi ohar labur besterik ez ditut egingo.

Benetan ebazpen mota ezberdinik bal al dagoen gaitzat harturik zenbait ñabardura azalduko ditut, nahiz gai horrek, izendapen bakoitzaren edukiak duen zehazgabetasuna kontuan izanik, nolabaiteko nahasmena sortzen duen jasotzaileengan, eta hori, hasiera batean, ez da ona Herriaren Defendatzaileen eskuhartzea nondik-norainokoa den kanpora ezagutarazteko, zeren ulertu baitaiteke izendapen ezberdinak hertsaketa maila ezberdin batekin lotuak daudela.

Aipatuko dudan bigarren arazoa Herriaren Defendatzaileek emandako ebazpenen jarraipenari buruzkoa da.

3.2.1. **Ebazpenen izendapena eta edukia**

Kexa baten izapidaketa prozeduraren amaierako fasean sortzen zaizkigun lehenengo arazoetako bat izango litzateke zehaztu beharra dagoela, printzipioz, zeintzuk diren ebazpen mota ezberdinak, beren izendapena, edukia eta eraginak.

Prozesu juridikionalaren esparruan, ebazpen judizialak -epaiak, autoak eta probidentziak- zehaztasunez definituak daude arau prozesaletan, eta eragin juridiko ezberdinak sortzen dituzte, eta horrexek justifikatzen du izendapen ezberdinak izatea.

HDL0ak zehazgabetasun tekniko nabarmena du, dagozkien Herriaren Defendatzaileen erregimen juridikoa erregulatzen duten autonomia mailako arau guztietara eragin mimetiko baten ondorioz zabaldua.

HDL0aren 30.1 artikuluko ezartzen du honek 'Herri Administrazioetako agintari eta funtzionarioei ohartarazpenak, gomendioak, oroitzapen legalak eta neurri berriak hartzeko iradokizunak' egin ahal izango dizkiela.

Herriaren Defendatzaileak erregulatzen dituzten autonomietako arauak, Arartekoaren Legeak izan ezik, oso antzeko idazkera duten aginduak jasotzen dituzte²³.

Arartekoaren Legeak jarraitutako teknika legegilea ez da askozaz ere zehatzagoa. Lege honek ez ditu beste arauetan agertzen diren ebazpen motak zerrendatzen, eta bere 11. artikuluan, bere eskumenak erregulatzen dituen horretan, organo eskudunei gomendioak eman edo eginkizun legalak gogorazteko aukera jasotzen du, eta legeriaren hutsegiteak adieraztearena, gomendioak eginez.

Gai honi buruz, Laura Díez Buesok adierazten du 'autonomietako arauak ez dutela ebazpen horietako bakoitzari eman behar zaion eduki edo aukerakortasuna zehazten, baizik eta zenbait ebazpen araudi eginkizunarekin lotzera mugatzen direla, irizpide bateraturik gabe'²⁴.

Horrela, zenbait legek Zuzenbidearen eginkizun sustatzailea gomendioekin²⁵ eta beste batzuk iradokizunekin²⁶ lotzen dute. Síndicen Legeak, 28.2 artikuluan, gomendioak nahiz iradokizunak aipatzen ditu, bien arteko bereizketarik egin gabe, eginkizun sustatzaileaz ari denean.

Egile horrek amaitzeko adierazten du 'xehetasun honek eragin duela ebazpenen sailkapenerako irizpide formalak (baldin badaude) ezberdinak izan daitezela. Gainera, irizpide hauek ezin daitezke behin-betikotzat jo, definizioak elkarri gainjartzen zaizkiolako sarri askotan'²⁷.

Egia esateko, Herriaren Defendatzailearen erregimena erregulatzen duten arauen irakurketatik ezer gutxi atera daiteke garbi, gure legeen hutsune teknikoak egiaztatzea bera izan ezik, zeren benetan Herriaren Defendatzaileen ebazpenen sailkapen bat finkatu nahi baldin bazuten ezin izan baitute okerrago egin.

Edonola ere, lau ebazpen mota hauei buruzko erreferentzia HDLOko 30.1 artikulutik sortua den neurrian, horretatik autonomietako arauetara igarotzen delarik, uste dut interesgarria dela Herriaren Defendatzailearen erakundeak berak ematen duen definizioa berriro aipatzea:

A) Legezko betebeharrak gogoraztea

Ebazpen honen bidez Administrazio Agintaritzari gogorazten zaio Konstituzioa, Espainiak berretsitako Nazioarteko Itun edo Hitzarmenak, Herriaren Defendatzailearen Lege Organikoa edo izaera orokorreko beste edozein Lege edo Administrazio Xedapen bete beharra duela, gauza zehazten bat egin dezan edo hori egiteari uko egin diezaion.

B) Oharrak

Oharra Herriaren Defendatzailearen idazkia da, eta bertan, agintari edo funtzionario baten aldetik Ordenamendu juridikoaren jokabide arauzkanpoko bat edo ez-betetze bat egiaztatu ondoren, beraren aurka har daitezkeen neurri 'zuzentzaileen' berri ematen zaio (bere jokabidea liskartsutzat jotzea, bere izena Urteko Txostenean sartzea, Ministerio Fiskalari bidaltzea, etab.) Bi kasu hauetan, hasiera eman ahal izango zaio Herriaren Defendatzailearen Lege Organikoko 30.2 artikulua aipatzen duen bideari.

C) Iradokizuna

Ebazpen honen bidez, Herriaren Defendatzaileak, alde zuzenetik administrazioaren jardura arauzkanpokoan egon gabe ere, Administrazioari eskatuko dio administrazio ekintza jakin bat alda dezala edo irizpidea alda dezala horiek sor ez daitezela, zentzu jakin batean, edo bestela, ekintza zehazten bat egitea erabaki dezala edo ez dezala ebazpenik eman.

²³ Kataluniako Síndicen Legeko 27. art.; Valedor do Poboren Legeko 32.1 art.; Andaluziako Herriaren Defendatzailearen Legeko 29.1 art.; Valentziako Erkidegoko Síndic de Greugesen Legeko 29.1 art.; Aragoiko Justiziaren Legeko 22.1 art.; Komuneko Diputatuaren Legeko 27.1 art.; Komuneko Prokuradorearen Legeko 19. art.

²⁴ DÍEZ BUESO, L.: Aip. lana, or. 279.

²⁵ Aragoiko Justiziaren Legeko 22.4, 32 eta 34 art.ak, eta Arartekoaren Legeko 11.c) art.

²⁶ Andaluziako Herriaren Defendatzailearen Legeko 28.1 eta 2. art.ak; Komuneko Diputatuaren Legeko 26.1 eta 2. art.ak; eta Valedor do Poboren Legeko 29.1 eta 30 art.ak.

²⁷ DÍEZ BUESO, L.: Aip. lana, or. 279.

D) Gomendioa

Herriaren Defendatzaileak, Konstituzioko printzipioetan oinarri harturik, Administrazioari edo Legegileari jakinarazten dio egoki izan daitekeela lege-arau jakin bat xedatzea edo lehendik daudenak aldatzea, Konstituzioari eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Itun edo Hitzarmenei egokitu beharraren ondorioz, edo bestela, araudi mailako hutsune jakin bat betetzeko asmoz, edo indarreko arau ezberdinen arteko aurkaesan bat eragozteko.

Doktrinak, bestalde, ez du ahobatezko jokabidea eraman ebazpen motei eta bere edukiei buruz, nahiz horiek guztiak bat datozen ezberdintasunak ñabardurak hutsak direla esaterakoan, sarri askotan.

Personalki, esango nuke HDLOaren asmoa ez dela Herriaren Defendatzailearen ebazpenen lau sailkapen ezberdin egitea bere 30. artikuluan, baizik eta horiek izan dezaketen eduki ezberdina islatzen saiatzen da, besterik gabe. Arauak lau ebazpen mota ezberdin finkatzea balu helburu, horrela azalduko luke argi eta garbi, horietako bakoitzaren edukia zehaztuz.

Gainera, legeen epigrafeek balio hermeneutikorik baldin badute, adierazi beharra dago HDLOaren III. tituluaren lehen kapituluak, aipatutako 30. artikuluko hori bere baitan jasoz, 'Ebazpenen edukia' duela izenburutzat.

Baina nire ustez arrazoirik garrantzitsuena, kontuan izan gabe ebazpen horrek zer itxura hartzen duen, zera izango litzateke, hots, ez duela balio loteslerik izango, eta horrenbestez, eraginkortasun berekina duten ebazpen ezberdinak egoteak Administrazioarentzat eta hori jasotzen duten herritarrentzat bere edukia buruzko balio orientatzaile hutsa izango luke, eta balio orientatzaile horrek esan nahiko luke ebazpen bakoitzaren edukia eztabaida ezina izango litzatekeela, baina hori, arestian adierazi dugun moduan, aski urrun dago horrela gertatzetik.

Ido horretatik, Arartekoaren erakundearen ustez, ebazpen maila bakarra dago: gomendioarena, aipatutako ebazpen ezberdin horiek aditzera eman nahi dituzten ñabardura guztiak biltzen dituelarik bere baitan.

Egokiago dela uste dugu maila orokor honetarako gomendio hitza erabiltzea ebazpen hitza baino, zeren hobeto adierazten baitu bere izaera ez-loteslea. Beraz, prozedura bati amaiera ematen dioten eta Administrazioari zuzendu zaizkion ebazpen guztiei gomendio izena ematen zaie, kontuan izan gabe beren edukia zein den, eta hurrenez hurreneko zenbaki bat ematen zaie.

Interpretazio honek erraztu egiten du Arartekoaren Legearen idazketa, zeren, arestian esan dugun bezala, ebazpenei ematen zaizkien lau izen horiek aipatzen ez dituen bakarra baita berau.

3.2.2. **Herriaren Defendatzaileen ebazpenak benetan betetzen direla egiaztatzea**

Herriaren Defendatzaileen ebazpenek izaera hertsatzailerik ez izateak berekin du horiek zuzentzen zaizkien administrazioek ez onartu ahal izatea.

Gutziz formala den ikuspuntu batetik, jarraipen bat egin liteke gomendioak betetzen diren ala ez jakiteko, Administrazioak berak emandako erantzunean oinarrituz. Erantzun hau abiapuntutzat harturik, onartutzat sailkatu ahal izango dira (Administrazioak jasotako gomendio hori onartzen duela berariaz jakinarazten duenean), edo ez-onartutzat (gomendio hori aintzat hartu ez dela jakinarazten denean).

Erabaki gabe bezala sailkatuta egongo dira Administrazioak oraindik erantzun ez dituenak, eta egindako azken kudeaketez geroztik arrazoizko epe bat iragan ondoren, Administrazioak erantzun gabe jarraitzen duenean ulertu behar da ez dituela aintzat hartzen, urteko txostenean horrela agertaraziz.

Horren bidez, sakontasun gehiagoko gai bat mahaigaineratu nahi da, alegia, formalki onartuak izan diren ebazpenak materialki betetzen diren zaintzea.

Administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioan betidanik arazo bat izan baldin bada epiaik betearaztea, Herriaren Defendatzaileen lana ez da errazagoa izango ziurrenik beren ebazpenak bete ditzaten lortzeko orduan.

Egia da, bestetik, ebazpenak betetzen diren jarraitzeak duen zailtasuna, aztertzen den gaiaren araberakoa izango dela. Horrela:

- a) Herritar batek egindako eskaera zehatza bete dezala eskatzea Administrazioari, esate baterako, Ogasunak egin behar ez zuen kobraketa bat itzul dezala eskatzea. Horrelakoetan, jarraipen hori herritarrek berak egiten du, eta Herriaren Defendatzaileari jakinaraziko dio Administrazioak ez badu azkenean ebazpen hori bete; horrela gertatuz gero,

Herriaren Defendatzailearen erakundeak Administrazioarekin harreman berri bat izan dezala eskatuko luke.

- b) Neurri materialak har daitezela gomendatzea, esate baterako oztopo arkitektoniko bat ezabatzea edo hirugarren adinekoentzako egoitza baten ezaugarriak aldatzea.
Horrela izanez gero, ezinbestekoa gertatzen da aholkulariek ikuskaritza-bisitak egitea, neurri horiek zenbateraino bete diren bertatik egiaztatzeko.
- c) Jarduteko irizpideak alda daitezela eskatzea, adibidez, komisaldegietan biluzteari buruzko jarduketajoerak aldatzea.
Aldian behin eta aurrez jakinarazi gabe, ikuskaritza-bisitak burutu beharko dira, irizpideak zenbaiteraino aldatu diren egiaztatzeko.
- d) Araudiaren aldaketak gomendatzea.
Horiek nola betetzen diren zaindu beharko da, eta horrela egin ez bada, beharrezkoa izango da ahal diren bitarteko guztiak erabiliz horretan saiatzea -urteko txostenaren bidez, legebiltzarrean azalpenak emanez, komunikabideei adierazpenak eginez-.
Ezinbestekoa da, horrenbestez, emandako ebazpenak betetzen diren egoki zaintzea, denok neurri kopuru zabal bat horretan enplegatuz, zeren azken batean, erakunde hauen eraginkortasuna bera baitago jokoan.

IV. ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANEN BESTE ESPARRU BATZUK. HERRIAREN DEFENDATZAILEEK ADMINISTRAZIOAREN ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZAN BEHAR DUTE?

Arestian adierazi da Herriaren Defendatzaileen eginkizun nagusia administrazioaren jarduera zaintzea eta Konstituzioaren I. tituluan jasota dauden eskubideak babestea dela.

Herri Administrazioaren jarduerak, oro har, interes publikoa betetzea izen behar duenez helburu, legezketasunaren eta eraginkortasunaren printzipioetan oinarrituz, besteak beste, Herriaren Defendatzaileek, jarduera hori kontrolatzeko eginkizuna burutzen ari direnean, nolabait ere Administrazioarekin 'lankidetzan' dihardute, helburu horiek ahalik eta ongien betetzeari begira. Hori dela eta, autonomietako zenbait Herriaren Defendatzaile, legebiltzarrean izan dituzten eskuhartzeetan, Administrazioaren 'laguntzaile pribilegiatu' eta are 'laguntzaile leial' gisa ere agertu izan dira, nahiz bestetik, doktrinaren batek gehiegizkotat jo dituen horrelako adierazpenak.

Nolanahi ere, hori diodanean ez naiz ari, jakina, Herriaren Defendatzaileek beraiei izendatutako eginkizunak burutzean eskaintzen duten lankidetzaren kontzeptu zabal horretaz, baizik eta Administrazioak Herriaren Defendatzaileen lankidetzaren berezkoak ez dituzten eginkizunetarako berariaz eskatzen duen beste kasu batzuetaz.

Horrelako kasuetan, Administrazioaren eskaera hori -ez daukat inolako zalantzarik- asmorik onenarekin egina dago, eta erakundeek Herriaren Defendatzaileari dioten begirunearen froga nabarmena da, izan ere hain positiboki balioesten dute Herriaren Defendatzailearen iritzia, ezen haren lankidetzaren lortzen saiatzen baitira.

Horrelako egoeretan, erraza da lankidetzaren aldeko bi argudio erabiltzea, hasiera batean ukaezinak diruditenak:

Horiematik lehen izango litzateke lankidetzaren honek gure erakundearen aitormen bat dakarrela, bere eginkizuna 'indartzen' duela, eta erakunde mailako omena areagotzen duten gauza guztiak on direla bere eraginkortasuna bere *autoritas* horretan oinarritzen duen erakunde batentzat, eta hain zuzen ere, autoritate horrentzat mesedegarri da erakundeek eskaintzen dioten aitormena eta omena.

Lankidetzaren hauek justifikatzeko erabili daitekeen beste argudioa izango litzateke kontuan izatea baldin eta Herriaren Defendatzaileen eginkizuna legezketasuna betetzea eta administrazioaren jardueretan herritarren eskubideei begirunea izatea bada, prebentziozko kontrol bat burutuz gero, eta beraz, ekintza burutu aurrekoa, edo hala dagokionean, arau bat onetsi aurrekoa, lankidetzaren garrantzitsua lortua izango dugu, zeren alor juridikoan jardun aurretik konpondua izango baitugu legezketasuna edo herritarren eskubideak zapaltzen dituen arau edo ekintza jakinen bat.

Argi eta garbi azalduko dut nire iritzia, eta horregatik onartzen dut xehetasun gutxikoa ere izan daitekeela agian, baina uste dut eskaera horiek itsas-lamien kantuak bezalakoak izateko arriskua dutela, horiek jasotzen dituen pertsonaren edo erakundearen harrotasuna puztzen dutela baina sarritan kalterako izan ohi direla berezkoak dituzten eginkizunak betetzeko orduan.

Hitz horiekin planteatzea oso oinarritzakoa dirudien arren, uste dut Konstituzioak, estatutuak eta lege erregulatuak ezarri zizkieten helburuak bete behar dituztela Herriaren Defendatzaileek, eta ez dutela egin behar izendatu ez zaien beste ezer edota beren kontrol eginkizun nagusi hori betetzean beren irizpidearen independentzia zalantzan jar dezakeen beste ezer.

Horrela, Herriaren Defendatzaileek, alkate ez baldin badira, ez dute iritzirik eman behar zerbitzu publiko batek izan dezakeen kokalekurik onenaz, baizik eta legez erabaki hori hartu behar duenaren jarduna legeak dioenera egokitu dadila zaindu beharko dute.

Ez Konstituzioan eta ez bakoitzari dagozkion Estatutuetan Herriaren Defendatzaileei ekimen legegilerik izendatzen ez bazaie, ez dute testu artikulaturik aurkeztu behar, baizik eta bakar-bakarrak beraiei dagokien Zuzenbidearen eginkizun sustatzailea gauzatu beharko dute.

Herriaren Defendatzaileak ez baldin badira organo aholkulariak, ez dute txostenik egin behar ekintzak burutu edo arauak onetsi aurretik, baizik eta ekintza hori legeei eta araua konstituzionalitateari egokitzen zaion zaindu beharko dute, egoki baldin baderitzote Epaitegi Konstituzionalaren aurrean bidezkoa den errekurtsioa jarri.

Azaltzen ari naizenaren oso adierazgarria izan litekeela uste dudana adibide bat erabiliko dut, eta barkatuko didazue, bere hedadura dela eta, Arartekoaren erakundeak emandako erantzuna hitzez hitz jasotzea, baina benetan uste dut interesgarria izango zaizuela.

Eusko Jaurilaritzako Barne Sailak Arartekoaren erakundeari jakinarazi dio Eusko Jaurilaritzako Kontseiluak dekretu proiektu bat onetsiko duela, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko poliziak leku publikoetan bideokamarak baimendu eta erabiltzeko erregimena garatzen duena, abuztuaren 4ko 4/97 Lege Organikoan arautua, eta arazuko proiektu horrek Estatuko Kontseiluaren aldeko txosten bat du berekin.

Aipatutako proiektu horren 3. artikulua bidezaintza eta askatasunari buruzko batzorde bat eratua du, eta bere 2. apartatuan, horren osakera ezartzen duenean, bertako kideen artean 'Arartekoa edo berak eskuordetzen duen beste pertsonaren bat' aurkitzen dela dio.

Inori ez zaio oharkabea pasatzen dekretu horren asmoa euskal herriak suntsitzen ari ziren kale-iskanbila horiei erantzun bat ematea zela, eskubideak eta askatasunak errespetatuko lituzkeena.

Arartekoak Barne Sailari erantzun zion bazirela zenbait arrazoi horrelako ezaugarriak dituen batzorde batean bera barneratzea desegokia zela pentsarazten ziotenak.

Azkenik, onartu egin ziren Arartekoaren arrazoiak, eta Bidezaintza eta Askatasunei buruzko Batzordean egotetik salbuetsi egin zuten.

Herriaren Defendatzaileek ez dute parte hartu behar, Konstituzioz, Estatutuz eta legez izendatu zaizkien eginkizunak burutzaren beren independentzia zalantzan jar dezakeen edozein jarduera motatan.

V. ONDORIO GISA

Herriaren Defendatzaileek Administrazioarekin dituzten harremanak, funtsean, kexak izapidatzeko prozeduraren bidez gauzatzen dira, eta hori benetako prozedura bat da, nahiz ez dagoen formalizatua edo arautua.

Prozedura hori ez da administrazio prozedura bezalako, kexa izapidatzeko prozeduraren helburua administrazio jardueraren legezketasunari buruzko kontrol objektiboko eginkizun bat burutzea baita, eta administrazio prozedurak, berriz, administrazio jardura legezketasun eta eraginkortasun printzipioekin bat etorri burutu dadila lortzeko bide gisa balio du, izaera bermatzaile nabarmena duelarik.

Horrekin esan nahi dut bi prozedura horietan jarraitu beharrekoak diren printzipioak ez direla beti berdinak izango. Batzuek eraginkortasuna eta konfiantza islatzea izango dute helburu nagusi, eta besteek, alderdien bermea.

Horregatik, administrazio prozeduraren zutabe bermatzaileak, hala nola gardentasun printzipioa eta interesatuari entzutearena, oso lauso geratzen dira kexa izapidetzeko prozeduran aplikatzen direnean, eta aldiz, toki egokia bilatzen dute administrazio prozeduran.

Kexa izapidatzeko prozedura horrek, horrela deskribatu ondoren, bi fase dauzka:

Bat ikerketarena, bi ardatz nagusitan oinarritua: bata, ikerketa lan eraginkor eta azkar bat, eta bestea, Administrazioak ikerketa horretan lankidetzan aritzeko duen obligazioa.

Bigarren fasea amaierakoa da, Herriaren Defendatzaileen ebazpenek izaera hertsatzailerik ez izatean oinarritua.

Legeek Herriaren Defendatzaileei eman dizkieten tresna eta neurrien erabilera egokiari esker, prozedura honek sortzen zuen helburu hori lortu ahal izango da, hots, kontrol objektibo bat burutzea administrazio jardura legeek diotenari egokitzen den egiaztatzeko.

II. ERANSKINA

ARARTEKOTZA ETA EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK (Herriaren Defendatzaileen, Mandatarien eta Giza Eskubideen Batzorde Publikoetako Lehendakarien Federazio Iberoamerikanarren Hirugarren Kongresua)

AURKIBIDEA

1. Helburuak eta ikuspegia
2. Ekintza ildoak
 - 2.1. Azterketa on bat egitea
 - 2.1.1. Emakumeak erreklamatzailer gisa
 - 2.1.2. Erreklamazio arloak
 - 2.2. Generoaren ikuspegia gogoan izatea eskubideen defentsan
 - 2.2.1. Emakumeen izatasunari buruzko erreklamazio zehatzak
 - 2.2.2. Herriaren Defendatzaileei iristen zaizkien arazoek duten genero ikuspegia
 - 2.3. Emakumeentzako ekintza positiboko gobernu programak gainbegiratzea
3. Ondorioa

1. HELBURUAK ETA IKUSPEGIA

Emakumeek gizartean duten estatusen izandako eraldaketa, azkeneko bolada honetan gure gizartearen baitan izandako aldaketarik erabatekoena dugu. Nolanahi ere, gizon eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna lortzeko moduen inguruko hausnarketa ez dago itxia, eta eztabaida hori gure erakundeen funtzionamendura zabaldu behar da. Horien helburu nagusia eskubideak bermatzea da, eskubide guztiak eta pertsona guztiek. Horrela gogorarazten digu ONUren logotipoak, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrenaren oroigarri denak.

Pertsona guztienak: baita haur eta adinekoenak eta behartsu, elbarri etabarrenak ere. Badira arrisku handiko, ahultasun handiko gizarte taldeak. Gainera, arrisku handiko talde berezi horietako bakoitzaren barruan, emakumeen kolektiboa dugu ahulena.

Espainiako kasuan, 1978ko Konstituzioaren onespenuak inflexio-puntu bat ekarri zuen, eta halaber, berdintasun juridikoranzko berrikuntza legislatibo baten hasiera, egun erdietsitaz jo dezakeguna.

Baina berdintasun formala -erabat ezinbestekoa- ezin daiteke nahastu berdintasun errealekin. Gure gizartean emakumeak diskriminazioa jasaten ari dira oraindik, gizonezkoenak baino bizi-baldintza eskasagoak pairatzen ari baitira, baita familia beraren baitan ere, eta haiek baino zailagoa dute gizarte ondasunetan parte hartzea (lana, aisialdia, kultura, etab.).

Emakume eta gizonen arteko gizarte eginkizunen banaketa desorekatu horrek, gure kulturari hain sakonki errotua, ahuldu egiten du haien gizarte egoera, eta eragotzi egiten die beren funtsezko eskubideez guztiz baliatzea.

Berdintasunaren eskubide hori benetan gauzatu ahal izatea arriskuan dago, nahiz formalki diskriminazioa eragozteko bitartekoak jarri diren eta are ekintza positiboko neurriak dauden. Horren arrazoa, alde aurreko baldintzen erabateko desoreka horretan datza. Oso garrantzitsua da horiek atzematea, ezkutuko diskriminazio hori agerian uzteko.

Helburua emakumeen arazoak aztertzea da, ez bakarrik kolektibo diskriminatu batek dituen berezko arazoen ikuspegitik -hau da, diskriminaturik dauden beste kolektibo batzuen antzekoak direlako (adin txikikoak, hirugarren adinekoak, atzeritarrak, pertsona elbarriak, etab.),- baizik eta gure erakundeetara iristen diren gizarte arloko esparru ezberdinen azterketa orokorrago baten aurrean ikuspegi berri bat hartuz. Asmoa 'genero ikuspegia' barneratzea da, alegia, pertsonen eskubideekin loturiko ia edozein gaik bi alderdi dituela jabetzea, bat gizonezkoena eta bestea emakumeena, arazoei ñabardura bereziak emanez, eta sarritan guztiz ezberdina den sakontasun bat emanez.

Komunikazio honetan proposatutako ikuspegiaren xedea ez da emakumeen arazoetara hurbiltzea berezkoak eta bereziak zaizkien arazo bezala ikusiz, baizik eta horiek guztiak oro har gizartearen gatazkak eta hutsuneak direla nabarmenaraziz, nahiz sarri modu ezberdinez eragiten duten pertsonen generoaren arabera.

2. EKINTZA ILDOAK

2.1. Azterketa on bat egitea

Garrantzitsua da hiritar erreklamatzailen eta gure erakundeen artean gauzatzen den erlazio espontaneo hori kontuan izatea, baita gizarte talde ahulenen alde egiten ditugun 'ofiziozko' hurbilpen horiek ere, errealtateari buruzko diagnostikoak doitasunez egin ahal izateko.

Gizarte arazo bakoitzak emakumeari dagokion alderdi baldin badu, alderdi hori atzeman eta nabarmenarazi egin behar dugu.

Horretarako lagungarria izango zaigu emakumeen egoerari buruzko azterketa, Herriaren Defendatzailen aurrean egiten dituzten erreklamazioak abiapuntutzat harturik.

Giza eskubideen alorreko gainbegiratze, ikerketa eta sustapen eginkizunak direla medio, gizarte arazo horren behatoki ezin hobea bilakatu dira gure erakundeak. Geure gain dugu egoera bereziki ahula edo hauskorra duten eta, beraz, arreta berezia behar duten biztanle taldeak zeintzuk diren antzemateko aukera -eta erantzukizuna-.

Emakumeen kolektiboak talde horietako bat osatzen duenez gero, gomendagarria litzateke gure bulegoetako barne-antolamenduak aukera ematea horiei eragiten dieten egoerak banan-banan aztertzeko, informazio hau guztia jarduera alor ezberdinei (gizarte zerbitzuak, justizia, hezkuntza, etab.) dagokienaren artean sakabanaturik gerra ez dadin.

2.1.1. Emakume erreklamatzailak

Deigarria gertatzen den lehendabiziko datua izango litzateke Espainiako emakumeek gizonek baino gutxiagotan jotzen dutela Herriaren Defendatzaileengana. Alde hori nahikoa esanguratsua izan ohi da, eta gainera, norberaren eskubideak defendatzeko ahalmenean sexuaren araberako diskriminazioaren adierazgarri den ala ez ikertzeko premia pizten du.

Badirudi gertaera horretan eragin handiena duen faktore bat familiaren egitura eta bertan dauden eginkizunen banaketa desorekatua dela. Horrenbestez, emakumeak bikotearen eta familiaren baitan sarritan duen menpekotasunak argituko luke gertakari hori, bere eskubideak zapalduta egoteak baino gehiago. Nahiz eta egoera hori gure herrian oso erroturik dauden eredu soziokulturalen ondorio eta isla izan, eta nahiz horien aldaketak, ondorioz, gizarte prozesu motel bat eskatzen duen, badirudi begibistakoa dela gure erakundeek dagokienez arazo horretaz kontzientzia hartzea lehen urrats ezinbestekoa dela. Emakumeek beren eskubideen defentsan ekimenez aritzea bultzatu eta sustatzea da erdietsi beharreko helburua.

Horrexegatik, biztanleria osoko emakumeen 'alfabetizazio juridikoa' premiazko lana da, eta giza eskubideen kultura sustatzeko Herriaren Defendatzaileek burutzen duten eginkizun horretan guztiz

txertagarria. Agian ongi letorke gogoratzea Beijing-eko Ekintza Plataformak, giza eskubideen alorreko helburu estrategikoen artean, emakumeek 'oinarrizko ezagutza juridiko' batzuk bereganatzea biltzen duela, zenbait ekintza-neurri ezarri, eta hiritarren eskubideak defendatzeko erakundeak ere horretan murgilaraziz.

2.1.2. Erreklamazio arloak

Gure erakundearen arlo ezberdinetan izapidatutako kexak horiek izenpetzen dituenaren generoaren arabera bereiziz gero, garbi geratzen da banaketa ez dela homogenea. Badira zenbait arlo emakumeek egindako erreklamazioak nabarmenki ugariagoak direnak, arlo horietan gizonek egiten dituztenen pareraino iritsiz. Horrelaxe gertatzen da, esate baterako, Hezkuntza arloan, Osasun eta Gizarte Ongizate arloan, Ingurugiro arloan, Funtzio Publiko arloan eta Administrazio Antolakuntza arloan.

Halaber, zenbait arlotan ikus daiteke emakumeen erreklamazio proportzioa batezbesteko orokorraren oso azpitik geratzen dela. Horrela gertatzen da, adibidez, Herrizaingo arloan edo Ogasunekoan.

Badirudi emakumeak gehiago eta zuzenago kezkatzen direla bizi-baldintza oinarrizkoekin (osasuna, etxebizitza, gizarte laguntza, seme-alaben hezkuntza, etab.), eta beren erreklamazioak pertsonak hurbilen bizi dituzten arazoekin lotutako arloei buruzkoak direla, eta beraz, beren eskubide funtsezkoenei buruzkoak. Edozein modutara ere, gauza argia da, gizarte rolen banaketa desorekatu bat dagoen bezala, kexen banaketa ere ezberdina dela arloen arabera.

Azken gogoeta hori beste batekin ere lotu daiteke, hura ere esanguratsua: nahikoa sarri, zuzenean beste pertsona batzuei (seme-alabei, beren ardurapean dituzten adineko pertsona, senarrari, etab.) eragiten dieten gaiak buruzko erreklamazioak aurkezten dituzte emakumeek, eta askotan, aurkezten dituzten kexa horiek familia osoari eragiten dieten arazoei buruzkoak dira. Gizonek baino gutxiagotan azaltzen dituzte beraiei buruzko gaiak. Izan ere, beren familia-taldearen eskubideen 'defendatzaile' edo sustengatzaile gisa jokatzeko dute zenbait arlotan.

Aurreko baieztapen horri kontrajarriz, antzeman liteke emakumearen izatasunari buruzko kexak oso urriak direla. Gure erakundearen ia ez da erreklamaziorik aurkezten, ezta kontsultarik egiten ere, generoak sortutako arazoei buruz.

Zuzenean berdintasun printzipioarekin loturiko kexarik ez egotea gauza esanguratsua da, eta ziurrenik, berriro ere agerian uzten du arestian aipatutako gai bat, alegia, emakumeak ez direla jabetzen beren arazo zehatz horrek beren emetasunarekin duen loturaz. Hau da, ez da eskubideen zapalketarik ikusten ez dagoelako eskubide horren kontzientziarik.

2.2. Generoaren ikuspegia gogoan izatea eskubideen defentsan

Beijing-en egindako Emakumeari buruzko Nazioarteko Konferentzia urrats garrantzitsu bat bilakatu zen arazo hori aztertzeke moduan. Emakumeen eskubideak giza eskubideen zati osagai direla oinarritzat harturik, ondorioztatu da emakumeen izatasunak aurrera egitea eta emakumeen eskubideak sendotzea ezinbesteko baldintza direla pertsonon bilakaerarako eta gure gizartearen garapenerako.

Emakumeen arazoak gizartearen arazoak baldin badira, egia da halaber gizarte arazo guztietan emakumei dagokien alderdi bat badagoela. Beharrezkoa da irakurketa emakumeen ikuspegitik egitea gizarte gatazkek emakumeentzat dituzten ondorio bereziak eta ezaugarri zehatzak antzeman ahal izateko.

Uste dut ikuspegi hori, nolabaiteko aldaketa koalitatiboa dakarrenez gero, etsi-etsian bultzatu behar dugula giza eskubideen defentsarako eta sustapenarako gure erakundeetatik.

Generoaren ikuspegia hartzeak gure jarduketan bermatzailearen eraginkortasuna areagotu dezake zenbait sektoretan, zeren eta sarritan ezkutuan gorderik dauden arazo zehatzak zenbait alderdi eta faktoreri buruzko argitasunak ematen baitizkigu. Ideia hori adibideen bidez emateko, Arartekora iritsi diren zenbait kasu esanguratsu aipatuko ditut.

2.2.1. Emakumeen izatasunari buruzko erreklamazio zehatzak

- **Enplegua**, emakumeen diskriminazioa oraindik ere kezkarria den eremuetako bat dugu. Nolanahi ere, lan harreman gehienak partikularren artean ezartzen direnez gero, Herriaren Defendatzaileek ez dute aukera askorik izaten esku hartzeko. Hala eta guztiz ere, Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteak aurkeztutako kexa bat jaso zuen Arartekoak.

Elkarte horrek Arartekoaren bitartekaritza eskatzen zuen ia erabat emakumeek osatutako lan-sektore honen lan-baldintzak orokorki hobetu zitezten saiatzeko. Bestetik, lan prestazioaren erregimen arruntaren aldean etxeko langileei eskaintzen zaien tratua ezberdina, neurri handi batean, etxeko lanek historikoki izan duten gutxiespenaren ondorio da.

- Zalantzarik gabe, gizon eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna lortu ez den beste eremu bat **politikagintza** da, eta halaber, **erabaki publikoak hartzean eduki beharreko partaidetza**. Emakumeek beren hiriko gobernuan aktiboki parte har dezatela bultzatzeko asmoz, Plazandreok emakumeen taldeak guztiz emakumez osatutako hautagai-zerrenda bat aurkeztu zuen Donostiako udal hauteskundeetarako.

Bere kexa horretan, aipatutako hauteskunde-elkarte horrek Arartekoaren iritzia eskatu zuen, beraien ustez hauteskunde arloan beste alderdi politiko batzuen aldean diskriminaziozko tratua ematen zitzaien zenbait lege xedapenen gainean. Kasu honetan, tratamendu ezberdin horren arrazoia ez zen hautagaia emakumeak izatearen ondorio, baizik eta talde minoritario bat izatearen ondorio.

- Titulartasun publikoko **komunikabideen** eginkizuna funtsezkoa da oro har gizarte jokaeren bilakaeran, eta bereziki emakumeen eskubideen eta beraiei buruzko arazoek zabalkundearen.

Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna egitekoa zela eta, Bizkaiko Emakumeen Biltzarrek EITBrekin -Euskal Herriko telebista publikoarekin- beraiek prestatutako spot baten emankizuna kontratatzeke asmoa zuen, arlo publikoan nahiz pribatuan gizarte eginkizunen berdintasunezko banaketa baten aldekoa. EITBk uko egin zion iragarki horri, bertako Administrazio Batzordearen arau batek eduki ideologikoa duen iragarkirik ematea debekatzen duela oinarritzat harturik.

Arartekoak ulertu zuen xedapen debekatzaille hori ezin zela aplikatu dagokigun gai honetan, ez baitzen aukera ideologiko zehatz baten defentsa egiten, besteak bezain bidezkoa, baizik eta iragarki horrek berdintasunaren printzipioa bultzatu nahi zuen, elkarkidetzarako funtsezkoa eta Konstituzioak ordenamendu juridikoaren balore gorenaren mailara goratua.

- Euskal Herrian uda partean egin ohi diren herriko jaiek Arartekoaren bi esku hartze eragin dituzte gizon eta emakumeen arteko eskubideen berdintasunarekin lotuak. Bidasoaldeko Emakumeak taldeak, zenbait emakume talde biltzen dituelarik, bi kexa aurkeztu ditu Irun eta Hondarribiako udalek izandako jokamoldeari buruzkoak. Bi udalerrri horiek eskualde berean daude. Erreklamazio horiek salatzen zuten bi herri horietako jaietako ekitaldi nagusiaren -Aldardearen- antolatzaileek debekatu egiten zirela, tradizioan babesturik, gainerako herritarrekin batera desfileen atera nahi zuten **emakumei parte hartzea**.

Arartekoak gomendio bana bidali zien bi alkateei, udalek antolatutako jai eta kultur adierazpenetan emakumeen partaidetza bideragarri egiteko baldintzak sustatzeko duten obligazioa gogoraraziz, baita esparru horretan gizon eta emakumeen berdintasun materiala eragozten duten oztopo guztiak mugiarazteko obligazioa ere.

- Azaldutako gai horietako bakoitzaren inguruan atera daitezkeen ondorio partikularrez gain, horiek guztiek batean duten ezaugarri bat azpimarratu beharra dago: lau kasu horietan, eragindakoen emakume izatasun horretatik berariaz sortzen diren erreklamazioak emakumeen taldeak eginak dira eta ez norbanakoek eginak. Horrek esan nahi du -nire iritzi- emakumeek beraiei eragiten dieten gaietan elkartu eta antolatzea mekanismo nahikoa eraginkorra dela, bai beren eskubideen defentsan topatzen dituzten oztopoak gainditzeko eta bai bizitza publikoan beren partaidetza aktiboa sustatzeko, horretarako modu bat herriaren defendatzaileen aurrean kexak aurkeztea delarik.

2.2.2. Herriaren Defendatzaileei iristen zaizkien arazoek duten genero ikuspegia

Herriaren defendatzaileen aurrean -eta ez derrigorrez emakumeek- aurkezten dituzten arazo askotan atzeman liteke eskatutako esku hartze horrek zenbaterainoko garrantzia duen emakumeen kolektiboarentzat.

Jarraian, zorrotzasun asmo handiegirik gabe, Arartekoaren gure erakunde honetan azaldutako gai batzuk aipatzen dira, proposatzen den 'emakumeen ikuspegi' hori erabiltzeko aukera ematen dutenak.

Emakumeek aurkeztutako kexa asko samar Justizia arloari buruzkoak dira. **Bereizkuntza eta dibortzio prozesuak** dira beren kezka nagusiak, eta kasuren batean edo beste, salatzaile gisa aritu eta behar hainbateko babesik ez dutela sentitzen duten prozesu penalei buruzkoak.

Horrela, esate baterako, bereizkuntza, dibortzio eta elikadura gaien inguruko prozedurak izapidatzean, eta bereziki, 'behin-behineko neurriak' edo 'oso behin-behinekoak' deituriko horiek hartzean, egon behar ez luketen atzerapen eta berandutzeek zuzenean emakumeen kolektiboari eragiten diote. Auzi baten luzapen bidegabeak dakartzan ohiko kalteak areagotu egiten dira nabarmenki eragindako pertsona horrek biziraupenerako bitartekorik ez duenean edo horiek askiezek direnean. Horrela gertatzen da oraindik ere gure herri honetako emakume askorekin, zeren familia bat osatzen duten momentutik etxeko lanak egitea izaten baita beren eginkizuna, ekonomikoki senarraren edo bikotelagunaren menpe geratzen direlarik.

Aurreko horrekin hertsiki loturik dagoen beste gai bat bereizkuntza edo dibortzio auzietan emakumearen eta/edo seme-alaben alde ezarritako pentsioak ez ordaintzeari buruzkoa dugu. Erakunde ezberdinetatik emandako zenbakiek hedadura handiko gizarte arazo baten aurrean gaudela pentsarazten digute.

Familia apurtu ondoren pentsioak ez ordaintzearekin loturiko arazo horrek maila sozioekonomikoaren murrizpen nabarmena ekarri die eragindakoei, batez ere emakumeei eta beren ardurapean dituzten adin txikiakoei. Baliabide ekonomikoaren galera edo pobretze hori, 'pobreziaren emakumetzea' izenez ezaguna bihurtu den gertakariaren agerpenetako bat dugu.

Bikotearen haustura hori ez da emakumea pobretzearen arrazoia, arazo hori agerian geratzearena baizik. Sakoneko arazoa gizonetakoarekiko duen menpekotasun ekonomiko horretan datza, dirusarrera propiorik ez izatean.

'Generoaren ikuspegi' honek azterketa eta ondorengo jarduketa aberastu eta eraginkorrago bihurtu dezakeelakoan zenbait gairen inguruan egindako gainbegirada labori honi amaiera emateko, Ararteko erakundeak burututako bi **txosten ohizkanpoko** aipatuko ditut: Egoitzetan ez dauden adineko pertsonentzako arreta eta Espetxeetako egoera E.A.E.n.

Hirugarren adinekoentzako etxex etxeko laguntzari buruzko txostenean, gauzarik aipagarriena izango litzateke zerbitzu hori jasotzen duten pertsonetatik 3/4ak emakumeak direla. Neurri batean, eragindako biztanleriaren artean emakumeen proportzioa handiagoa delako gertatzen da hori, eta adineko emakumeen artean ezgaitasun kopuruak ere handiagoak direlako.

Emakumeek sarriagotan jasotzen dute etxex etxeko laguntza, alde batetik gizonak ez direlako emakumez arduratzen emakumeak gizonen arduratzen diren bezainbeste.

Espetxeetako egoerari buruzko txostenari dagokionez, oro har, emakume espetxeratuek uste dute presondegi bereko gizonak baino egoera okerragoan aurkitzen direla, eta egia esateko, emakumeen moduloetako zerbitzu eta zuzkidurei buruzko ikuskapen objektibo bat eginez gero, ikus daiteke zenbait gauzatan gizonetakoentzat xedatutako moduloak baino eskasagoak direla. Arrazoi historikoa oso garbi dagoela dirudi, izan ere, orain dela urte gutxi batzuk arte emakume espetxeratuen kopurua oso txikia izan baita, eta horren ondorioz, gizonetakoentzako ezaugarrietara egokiturik eraikitzen ziren presondegiak.

Ondoko hauek bezalako zenbait gaitan zeuden hutsuneak salatzen zituzten: medikuntzako laguntza (zerbitzu ginekologiko askieza; erizaintzarik eza, etab.), presondegietakako tratamendua (erregimen irekia lortzeko zailtasunak emakumeentzat sail berezirik ez dagoelako, toxikomenpekotasun kasuetan tratamendu alternatiboak edo jarraipenezkoak erdiesteko gizonen baino aukera gutxiago, etab.), lana eta heziketa jarduerak (sukaldeko lanetarako aukerarik ez izatea, arratsaldetan prestakuntza tailerrik ez izatea, ordaindutako lan bat lortzeko aukera gutxiago eta lan-baldintza okerragoak, etab.), bizi-baldintzak (baldintza eskasak jantokian, beren seme-alaba txikiekin komunikatzeko zailtasunak, etab.).

Laburbilduz, jasotako datu horiek besteetara zabaldu ahal izanez gero, esan liteke presondegietakoa sistemak ez duela gaitasunik izan emakume espetxeratuen kopuruak izandako gehikuntza garrantzitsu horretara egokitzeko, eta ondorioz, kolektibo honek -beste kolektibo minoritario batzuek bezala, hala nola gazteenak edo atzeritarrenak- arreta berezi bat behar du erakunde erantzuleen aldetik.

2.3. **Emakumeentzako ekintza positiboko gobernu programak gainbegiratzea**

Herri ezberdinetan emakumeen arazo honi aurre egiteko erakundeek darabilten errealitatea ere oso ezberdina izango da ziurrenik. Baina, herritarren eskubideak defendatzeko asmoz "administrazio txar" baten moduak ikertzeko dugun eginkizun komun horrek ahalbidetu egiten gaitu ondorengo alderdiak gainbegiratzeko:

- Generoaren arabera diskriminaziorik ez dela egongo bermatuko duen legeria egokia ba al dagoen.
- Emakumeentzako Ekintza Positiboko plan edo programarik ba al dagoen.
- Programa horien eraginkortasuna bultzatzeko erakunde publiko bereziak ba al dauden.

Gainbegiratze horrek emaitzen ebaluazioa ere jaso beharko du bere barne, eta ez bakarrik aukera berdintasunaren ikuspegitik. Horrek eskatzen du Estatuak beharrezko edo gutxieneko ekarpen bat egin beharko duela desorekak -baita sexuen artekoak ere- zuzentzeko. Aurretiazko baldintzatzaile negatiboak zuzenduko dituzten ekintza positiboko politiken emaitzetan sakondu beharko dugu batez ere. Ez da aski emakumeei aukera berdina eskaintzea bakoitzak bere aldetik bere diskriminazio egoera alda dezan. Horretaz gainera, sustraian dagoen eta diskriminazioa eragiten duen gizarte egoera hori aldatuko duten neurriak behar dira. Horregatik, ez da nahikoa izango ordenamendu juridikoa bakarrik aztertzea. Alor jakin batzuetan aukera berdintasunaren neurriak eta ekintza positibokoak nola gauzatzen diren ere neurtzea beharrezkoa izango da, hala nola hezkuntza sisteman, kulturaren sustapenean, enplegu eta gizarte segurantzian, osasunaren zainketan, zerbitzu soziokomunitarioetan, etab.

3. **ONDORIOA**

Orain arte egindako azalpenak hausnarketa eta eztabaida piztu nahi du, ondorio batzuk lortu baino gehiago. Bere edukia, nolana ere, ideia nagusi batean laburbil daiteke: giza eskubideak defendatzeko eginkizun honetan 'generoaren ikuspegia' hartu behar diren egokitasuna.

III. ERANSKINA

GIZA ESKUBIDEEN EZARPEN DESOREKATUA. FUNTSEZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK ESPAINIAN (Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzari buruzko Jardunaldiak)

I. SARRERA

Esan dezakegu giza eskubideen ezarpena eta errespetua modu desorekatu batean gauzatzen dela, bi zentzutan:

- a) Batetik, eskubide guztiak ez dira modu berean errespetatzen eta bermatzen.
- b) Bestetik, eskubideen ezarpena ez da modu berean gauzatzen herri eta toki guztietan.

Baieztapen hori, begibistakoa izan arren, komeni da gogoratzea, eta ez gaitu eraman behar ondorio errazak ateratzera.

Esan izan da giza eskubideak izaera historikoa duen kontzeptu bat bezala egituratzen direla, eta elkarbizitzazko arazoei edo giza premia ezberdinei aurre egiteko erantzun historiko bezala sortzen direla.

Ildo horretatik, Pdgoreckik dio “giza eskubideak gizarte sistema jakin batean gauzatzen diren gizarte prozesuen emaitza zuzena direla, edo gizarte sistema ezberdinen arteko elkarrekintzatik sortzen direla, eta irizpide komun gisa gizakiaren duintasuna defendatzea dutela”.

Eskubideen historikotasun horren froga gisa dugu eskubide horiek garatu egiten direla, eraldatu egiten direla historian zehar. Horrela, une honetan, gizarte egoera berrien aurrean sortzen ari diren eskubide berriak topa ditzakegu.

Hirugarren belaunaldiko eskubide izeneko horien sorrerak, funtsean elkartasunean oinarriturik daudenak eta oraindik itxi gabeko ziklo bat osatzen dutenak, ez du ekarri, ezta gutxiagorik ere, XVIII. mende bukaera eta XIX.aren hasierako konstituzionalismo liberalaren baitan sortutako eskubide eta askatasunen erabateko eta behin-betiko ezarpena, ezta are gutxiago gerra bitarteko konstituzionalismoan sortutako eskubide sozial eta ekonomiko horiena ere. Eskubide batzuekiko eta besteekiko onespenez ezberdintasuna hertsiki loturik egongo da konstituzioek eta legeek kasu bakoitzerako aurreikusten dituzten mekanismo bermatzaileekin.

Gizateriaren Historiak bultzatu duen eskubideak erdiesteko prozesu amaigabe horretan, gauza nabarmena da gure egungo zuzenbidezko estatuak askoz aurrerago joan direla eskubide mota baten bermatzaile izateko eginkizun horretan beste eskubide batzuenetan baino. Oro har, mekanismo bermatzaileak askoz gehiago garatu dira norbanakoen eskubide eta askatasunen alorrean eskubide sozial eta ekonomikoaren alorrean baino, eta jakina, esan beharrik ez dago, hirugarren belaunaldiko eskubideen alorrean eta interes lausoen alorrean, horiek bermatzeko sistema lehen urratsetan dago oraindik. Nolanahi ere, egungo Zuzenbidezko Estatuetan esan daiteke, oro har, giza eskubideak errespetatu egiten direla, hain zuzen ere, errespetu hori Estatu eredu horren bereizgarri nagusienetako bat delako.

Auzitegi Konstituzionalak ere bere iritzia eman zuen funtsezko eskubideen izaera bikoitz horren - subjektiboa eta objektiboa- inguruan, eta haren ustez, eskubide horiek, beren izaera subjektiboa galdu gabe, 'funtsezko elementuak dira nazio komunitatearen ordenamendu objektiboaren barruan, gizakion elkarbizitza zuzen eta baketsu baterako oinarri bilakatzen baita, historikoki Zuzenbidezko Estatuan gauzatua, eta geroago herritarren zuzenbidezko Estatuan, edo herritarren zuzenbidezko Estatu demokratikoan, gure Konstituzioaren formularen arabera. 1.1. art.'. Uztailaren 14ko 25/1981 AKE, FJ 5).

Giza eskubideak, beraz, Estatuaren kontzepzio beraren funtsezko elementu bilakatzen dira.

Horregatik, Europako Estatu demokratikoetan, eta beraz, Espainian, oro har oso gutxi dira funtsezko eskubide eta askatasun publikoetan gertatzen diren urrapenak, eta hori ez da gertatzen beraien gobernatzaileek giza eskubideak errespetatzeko joera berezko bat dutelako (Montesquieu berak adierazten zigun 'boterea duen gizaki orok hartaz neurrigabeki baliatzera jotzen duela'), baizik eta kontrol eta kontrabotere bermatzaileen egitura konplexu batek funtzionatzen duelako, botereak bere aurpegi larderiatsua, agintzaile eta eskubideen murriztaile hori agertzea eragozten duena.

Hori onartu ondoren, egoera ez da zoritxarrez hain itxaropentsua. Espainian pobrezian murgildutako biztanleria sektore bat topatzen dugu, etxebizitza duin bat eskuratzeko arazoak dituena, gizarte zerbitzu eta osasun zerbitzu askiezak dituena. Eta ez hori bakarrik, norbanakoan zenbait eskubideren eta askatasunen zapalkuntzak ere gertatzen dira, zenbaitetan larriak izanik.

Egia da arau orokorra horrelako eskubideak bermatzea izan dela, eta esan dugun bezala, baieztza dezakegu izaera orokorrez izaera politikoko eskubide eta askatasunak zorrotz errespetatu direla, are une zailenetan ere.

Nolanahi ere, badira zenbait puntu beltz, gure kultur inguruneko beste herri batzuetakoekin bat datozenak eta aipatzea merezi dutenak:

II. ATZERRITARREN ESKUBIDEEAK ERRESPETATZEA

- **'Atzerritarrek Titulu honek bermatzen dituen askatasun publikoak izango dituzte Espainian, itunek eta legeek ezartzen dituzten hitzetan.'** (EK 13.1 art.)
- **'Legeak ezarriko ditu mugak beste Herri batzuetako hiritarrek eta herrigabeek Espainian ihesleko eskubidea noraino gozatu ahal duten.'** (EK 13.4. art.)
- **'Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du babesa bilatzeko eta horretaz baliatzeko eskubidea, edozein herritan dagoela ere.'** (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 14.1 art.)

Araudi mailako hurbilpen bat eginez gero, esan daiteke Espainian dauden atzerritarren egoera, Konstituzioaren eta legeria arruntaren arabera nahiz aldeanitzeko edo aldeko itunen arabera -partaidetza politikorako eta funtzio publikoan sartzeko eskubidei buruzkoak salbu, eta are eskubide hauetan ere zenbait xehetasunekin-, ez dela aldentzen espainiarrei gordetako eskubide multzo horretatik.

Pedro Cruz Villalón irakasleak adierazi duen moduan, Espainiako atzerritarrek 'espainiarren oso antzeko status konstituzionala dute zenbait ñabardura txikirekin'.

Auzitegi Konstituzionaleko zenbait magistratuk, 'Atzerritartasun Legeari' buruzko epaian izandako boto partikular batean, baieztatzen zuten 'atzerritarren eskubide eta askatasunen berme konstituzionalean urrunen iritsi diren herrien artean aurkitzen dela Espainia'.

Halere, errealitatearekin konparatuz gero, ez ginatke hain baikor azalduko.

Egoera berri bat sortu da, bestetik, 80ko hamarraldia eta 90ko hamarraldiaren hasiera bitartean, eta hori, etorkin kopuruen areagotzea da, nagusiki hirugarren munduko herrietatik Europarantz. López Garridok dioten bezala, 'Estatuek erreakzionatu egiten dute etorkin kopuruaren ugariagotze horren eta asilo eskaeren gehikuntzaren aurrean, batez ere errepresiozko izaera duten neurrien bidez, etorkinei eta asilo alternatibei buruzko politikarik prestatu gabe'.

Egile honek, hartutako neurriei buruzko deskribapena egiten digu: hirugarren munduko ia herri guztietarako bisatuak behar izatea; beren agiriak legean ez dituzten pertsonak onartzen dituzten hegazkin-

konpainiei eta garraiolarien zehapenak ezartzea; atxilotetak eta kanporaketak geroz eta ugariagoak eta geldiezinagoak izatea; asilo eskubideak aztertzeke berehalako prozedurak, horren ondorioz bermeak murrizten direlarik...

Gure herria, bere Konstituzioan asilo eskubidea onartzen duen Europako lau herrietako bat izan arren, horren aplikazioan atzera goazela eta erabilera murrizgarriak egiten direla ikusten ari gara egun, asilo eskubidean xede ekonomikoa duten etorkinen eskubideak bakarrik aztertzen baitira, eta ez ordea politikoki jazarrienak, nahiz horiek izan errefuxiatuei buruzko 1951ko Genevako Hitzarmenak bereziki babesten dituenak.

Geroz eta zailagoa gertatzen da bi maila horiek bereiztea herri jakin batzuetatik etorritako etorkinekin. Gure ordenamenduak erantzun bat eman behar lieke arrazoi humanitarioengatik asiloa eskatzen dutenei eta lekuz aldatu behar izan dutenei, alegia, hondamendi ekonomiko, politiko edo belikoengatik beren herrietatik ihes egin beharrean aurkitu direnei.

Egia da guztiz bidegabekoa den nazioarteko ordena baten aurrean, gizateriaren hiru laurden miseria gorrian, elikagairik gabe eta baliabiderik gabe dauden bitartean, Europak ez diela elkartzasuneko erantzunik ematen, baizik eta errepresio bidezkoa.

Itsasoa zeharkatzean hildako txalupari horiek guztiek ohartarazpen bat izan beharko lukete gure kontzientziarentzat.

Testuinguru honetan, atzerriartasunari eta asiloari buruzko egungo lege-esparruak zenbait arazo sortzen ditu:

- Legez kanpoko egoeran egoteagatik lan-baimenik ez ematea edo lan-baimenik ez izateagatik legez kanpoko egoeran egotea.
- Gure herrian urteak eman arren oraindik beren egoera legezketzerik ez duten errefuxiatuak.
- Elkarrekikotasun irizpidez baliatzea pertsona atzeritarrek gizarte prestazio arruntak eskuratzeko eskubidea zehazteko.
- Pertsona hauek gizarte prestazioak eta osasun zerbitzuak eskura ditzatela ahalbidetzerakoan argitasunik eza eta are arbitrariotasuna.
- Egoera legezketzeko eta norberaren etorkizuna planifikatzeko ezintasuna, kanporaketa mehatxu etengabeko batek sortzen duen zalantza eta presioaren ondorioz.
- Udalerrri batzuetan erroldan sartzeko arazoak.
- Espetxe baimenak ukatzea sustrai faltagatik.
- Defentsa judizialerako mesederik egiten ez dien egoeran egotea (hizkuntza ez ezagutzea, ofiziozko txanda desegokia...).
- Lan merkatura iristeko baldintza kaskarrak, behin-behinekotasunera eta ezkutuko ekonomiara bultzatzen dutenak, atzerriko emakumeak sarritan prostituzioan aritzera behartuta daudelarik.
- Asilo eskubidearen aplikazioan dauden irizpide murrizgarriak.

Egungo lege-esparruarekin lotutako arazo honez gain, zenbait gizarte sektoretan eta are zenbait funtzionarioen jardunean jokaera xenofoboek eragindako zenbait arazo ere sortzen ari dira, gutxi-asko ezkutatuak. Ordenamenduak jokaera horien aurka borrokatzeke mekanismorik eskaintzen duen ala ez kontuan izan gabe, gertatu ohi da kolektibo bereziki ahul eta kaltetu horiek praktikan ezin dituztela, beren egoeragatik, dagozkien eskubideak erabili.

Geroz eta sarriago topatzen ditugu atzerriko kolektiboak erasotzen, baztertzen edo iraintzen dituzten gizarte erreakzioak, etxebizitza bat alokatzean edo lan kontratazioetan diskriminazio bilakatzen direnak.

Benetan kezagarria da zenbaitzutan pertsona hauei ematen zaien tratu bidegabekoa administrazioaren edo poliziaen egoitzetan (agiriaren erretentzioa, ahozko mehatxuak, datu pertsonalen kontrola), baita toki jakin batzuetatik dabilzan pertsonen nortasun agiriak eskatzeko poliziaen jardura sistematiko hori, beren larruazalaren kolorea edo ezaugarri fisiko bereziak direla eta.

Jokaera horren adierazgarriak nabarmenena, tratu txarregatik izandako salaketek izandako hazkundera edo atxilotutako atzeritarrei sexu-erasoak egiteagatik poliziaen aurka jarritako salaketen hazkundera dugu.

Bilboko Polizia Nazionalaren komisaldegiko zaintza-geletan emakume brasildar bat bortxatzeagatik, edo Madrilgo Atxilotuen Erregistro Zentralean, Barajasko aireportuko bulego judizialean edo Malagako

Presondegian sexu-gehiegikeriengatik izandako salaketa kasuek guztiz asaldatu dute Espainiako iritzi publikoa.

III. TORTURA ETA TRATU TXARREKO JOKAERAK

- **‘Pertsona guztiak bizitza eta osotasun fisikoa eta moralerako eskubidea dute, eta inoiz ezin dira meneratu torturetara ez eta zigor edo tratu ezgizakor edo itsusietara.’** (EK 15. art.)
- **‘Ezin da inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar anjer eta lotsarazlerik eman ere.’** (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 5. art.)

Agindu hauetan torturari buruz eta tratu txarrei buruz benetan debeku biribila jasota egon arren, oraindik ere Espainian poliziak horrelako jardueretara jotzen du, nahiz ez izatera orokor batez, atxilotutako pertsona horrek bere burua salatu dezala lortzeko edo poliziaren ikerketetan aurrera egiteko informazioa erdiesteko.

Jarduera horiek zigorgarriak dira Kode Penal berriko 173.etik 177.ra bitarteko artikuluek diotenaren arabera, debekuen eremua zabalduz eta zigorrak areagotuz, nahiz neurri horiek ez diren aski izango horiek betetzeko borondate garbirik ez baldin badago.

Torturaren jarduera hori irain laidogarri bat da, Europako herrialde demokratiko askoren gainean dagoen harlauza.

Osotasun fisiko nahiz moralaren errespetua bezalako funtsezko eskubide bat zapaltzen duten hain jokabide onartezinak salatzen dituzten erakundeek eta eskubideen defentsarako antolamenduek txosten ugari egin dituzte horren inguruan. Herriaren Defendatzailearen eta Arartekoaren txostenek Segurtasun Indarren aurkako zenbait kexa jasotzen dituzte tratu txarreatatik.

Azkeneko lau urteetan Amnesty Internationalek Espainiari buruzko 40 kanpo-agiri inguru argitaratu ditu torturei edo tratu txarrei buruzko salaketak direla medio. GKE honek salaketak jasotzen jarraitu du, talde armatuei laguntzeagatik susmagarriak diren pertsona batzuek, inkomunikazio erregimenean egon diren bitartean ‘legeria antiterrorista’ izeneko (Auzipetze Kriminalaren Legea eraberritzen duen maiatzaren 25eko 4/88 Lege Organikoa) aplikatuz, torturak edo tratu txarrak jasan dituztelako, kolpeak, asfixia edo deskarga elektrikoak barne. Halere, azken bolada honetan, Amnesty Internationalek tortura eta tratu txarreatatik, legezkontrako atxilotetengatik eta arrazakeriazko gehiegikeriengatik izandako salaketen gorakada bat sumatu du legehauste arruntak egotzi dizkieten pertsonengan.

Espainiako Gobernuak berak, Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordeari 1997ko azaroaren 18an eta 19an igorritako Hirugarren Txosten Aldizkakoan, tortura eta tratu txarrei buruzko jokaeran aldaketa hori berresten zuela zirudien, izan ere, zera zioen: ‘...Bazirudien tradizioz gai honen funtsa [tortura eta tratu txarrena] esparru antiterroristaren barruan kokatzen zela, eta hortxe zegoela tortura edo tratu txar jardueren arriskuak sortzen zuen arazoa. Gaur egun ordea beste eremu batzuei erreparatzen zaie, eta borroka antiterroristak duen arrisku hori ahaztu gabe, segurtasuneko zaindari pribatuen ekintzetan, udaltzaingoarenean, etab.enean dagoen arazoa dugu, biktimak balizko gaizkile arruntak direlarik.’

Espainian tortura guztiz ezabaturik dagoela eta tratu txarren kasuak bakan batzuk besterik ez direla esanez, Espainiako Gobernuak Torturaren aurkako Nazio Batuen Batzordeari bidalitako txostenean azaltzen diren beste argudio batzuk ezeztatu egin zituzten Batzordeko kideek, eta esan zuten ‘aztertutako txosten horri dagokion epealdian gauzatutako tortura eta tratu txarrei buruzko salaketak jaso izan ditu [Batzordeak] maiz. Arrazakeriazko diskriminazioaren agerpide izan daitezkeen tratu txar ugariri buruzko informazioa ere jaso du Batzordeak.’

Europako Kontseiluaren menpe dagoen Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak, Espainiara 1991 eta 1994 bitartean hiru ikuskapen-bisita egin ondoren, ondorioztatu zuen goizegi zela torturaren eta tratu txarren fenomeno hori guztiz ezabaturik zegoela esateko. Halaber, kezkatu agertu zen azkeneko bost urteetan etengabeago erabilera baitzen Polizia Nasionaleko eta Guardia Zibileko kideen artean atxilotutako pertsonen “ukabilkadak, ostikoak, kolpeak eta irainak” bezalako tratu txar ez hain larriak jasanaraztea.

Erakunde bermatzaile guztiek azpimarratu dute atxiloketetan inkomunikazio erregimenak duen erabilera hedatuak -xedapen berezi horien aplikazioan- erraztu egiten dituela tortura eta tratu txar jokaerak.

NBEko Torturari buruzko Errelatore Bereziak eskatu du inkomunikazio erregimen pean egindako atxiloketa legez kanpokotzat jo dadila, torturatik eta tratu txarretatik babesteko bide bezala.

Nazio Batuetako Torturaren aurkako Batzordeak 1997ko azaroaren 18an eta 19an Espainiako Gobernuaren Hirugarren Txosten Aldizkakoa aztertu zuen, torturaren aurkako eta beste tratu txar edo zigor krudel, ez-gizatiar edo gutxiesgarriren aurkako Hitzarmena betetzen zen ala ez zioena. Zeuzkan kezkatzeko arrazoen artean, Batzordeak zera adierazi zuen: 'horrela dekretatzeko lege baliabideak gorabehera, badirudi inkomunikazio erregimenean egindako atxiloketa modu hain zabaldu horrek, epe horretan atxilotuak ezin duela bere konfiantzazko abokatuaren laguntzarik jaso, tortura jarduerak errazten dituela. Jasotako kexa gehienak epealdi horretan egindako torturei buruzkoak dira'. Horren ondorioz, Batzordeak Espainiako Gobernuari gomendatu zion 'atxiloketa inkomunikatua luzatu eta atxilotuei beraiek libreki aukeraturako defendatzaile baten laguntza jasotzeko eskubidea murrizten dieten kasuak ezabatzea kontuan har dezala. Batzordeak Estatuko agintariei eskatzen die, edozein bidetatik jakiten edo ezagutzen duten tortura edo tratu txarren kasu oro nola gertatu den ikertzeko prozedurak ex officio abiaraz ditzatela, nahiz biktimek beren kexa ez gauzatu legeak aurreikusten duen moduan.'

NBEko Giza Eskubideen Batzordeak Espainiako Gobernuaren Laugarren Txosten Aldizkakoa aztertu ondoren kezkatzeko zenbait arrazoi aurkitu zituen, eta horien artean, 'oraindik ere, legeria berezi batek dioenari jarraiki, talde armatuetako kide izateaz edo horiei laguntza emateaz susmagarri direnak inkomunikazio erregimen pean atxilotu ahal izatea bost eguneko epez, eta beren abokatu izendatzeko eskubiderik ez izatea. Batzordeak ohartarazten du xedapen horiek ez zaizkiela Itunaren [Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren] 9 eta 14. artikuluei lotzen'. Batzordeak gomendatu zuen 'halako lege-xedapenak indargabetu zitzatela baldin eta ekintza terroristak leporatzen zaizkien pertsoneri, edo horiei laguntza emateaz susmagarri direnei abokaturik izendatzen uzten ez bazaie'. Gainera Estatuari eskatu zion 'utz ziezaiola inkomunikazio erregimen pean atxiloketak egiteari'.

Eusko Legebiltzarrentzako azkeneko urteko txostenaren aurkezpenean, Arartekoak azpimarratzen zuen zigorgabetasuna babes lezaketan espazio eta denbora ilunak ezabatu egin behar zirela, pertsona guztien eskubideak errespetatzen direla bermatzearen: bai atxilotuak izan diren pertsoneri tratu txarririk eman ez diezaieten, eta bai atxiloketa, ikerketa eta galdeketa parte hartzen duten poliziak salaketa faltuen bidez kalumniatu ez ditzaten...'

Halako jarduerak ezabatzearen lehenengo baldintza horrelakoak badirela onartzea da, edo gutxienik, horrelakoak benetan egon daitezkeela onartzea. Eta, horren ondorioz, nagusiki prebentziozkoa den ikuspegi batetik, horrelako jarduerak eragozteko bitarteko guztiak jartzea. Denok ezagutzen ditugu bitarteko horiek:

- inkomunikazio denborak ezabatzea;
- grabazioetarako bitarteko teknikoak erabiltzea;
- poliziaren ikerketetan abokatuak eta epaileek parte hartzea;
- atxiloketa guneetara erakunde bermatzaileek bisitak egitea, alde aurretik jakinarazi gabe;
- presio bidez lortutako informazioen baliogabetasuna;
- poliziaren aurrean aitortpenik ez egiteko eskubideaz baliatzen diren pertsonak berehala epailearen esku jartzea...

Eta prebentziozko neurri horiek ez badira nahikoak, ikerketak egin eta neurri ereduagarriak erabiltzea:

- ofiziozko ikerketak egitea tratu txarren susmoa izanez gero;
- salaketak argitzean poliziarekin lankidetzan aritzea;
- epaiketetan arintasuna izatea -luzapenik eza-;
- epaiak ereduazko eran beteaztea;
- eta gure sisteman apenas jasota dagoen zerbait: biktimari kaltearen ordaina ematea.

Azkenik, prebentziozko neurri horiek ez badira aski izan, funtzionatu behar duen mekanismo bermatzailea judizio bidezkoak izan behar du.

Esperientziak erakusten digu, halere, torturei buruzko prozedurak asko luzatzen direla denboran, batzuetan hamabost urte arte, eta beraz, eragin disuasorioa galtzen dute, benetako tutoretza judicial

baterako eskubidea murriztuz, hori guztia tratu txarrak jaso omen dituztenei behar ez diren luzapenak eragiten zaien bitartean.

Begibistakoa gertatzen da tortura salaketei buruzko prozesu judizialak arindu egin behar direla.

NBEaren Torturaren aurkako Batzordeak berak 1997ko azaroan adierazi zuen 'torturen ondoriozko kexetan burutzen ziren jarduketa judizialak, bai izapidaketa aldian eta bai epaiketa aldian ere, Hitzarmenaren 13. art.ak aipatzen duen berehalakotasun horrekin inola ere bat ez datorren epe batez luzatzen direla sarritan'.

Beste arazo larrietako bat izango litzateke segurtasun indarretako agente batzuk zigortuta ere, gerora zigorgabetu egin direla. Torturari buruzko Nazio Batuen Errelatore Bereziak bere kezka azaldu du horrelako indultuak emateagatik.

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak, 1996ko apirilaren 3ko bilkuran, kezkaturik agertu zen, izan ere '[segurtasun] indar hauetako kideak horrelako ekintzen errudun jo eta askatasunik gabeko zigorrak ezartzen zaizkienean, sarritan indultuak jasotzen dituztelako; berehala kartzeletatik kanpo ateratzen dituzte edo besterik gabe ez dute zigorra betetzen. Gainera, halako ekintzak egin dituztenak gutxitan gaitasungabetzen dituzte epe luzez.'

Azalpen honetan adierazitako arazoan ondorio gisa, NBEko Torturaren aurkako Batzordeak Espainiako hirugarren txostenaren azterketan egindako gomendioak aipa ditzakegu 1997ko azaroaren 18tik 19ra bitarteko bilera horietan:

- Tortura eta tratu txarrei buruzko kexen ikerketak horrenbeste luzatzean atzeman den hutsune hori zuzentzeko beharrezko neurriak har ditzatela dagokien agintariek.
- Estatuaren eta gizartearen ordezkarietan ekintza penal publikoa burutzearen ardura duten funtzionario edo estatuko agenteak saia daitezela, eskura dauzkaten prozedurazko baliabide guztiez baliatuz, tortura benetan eta modu eredugarri batez zigortua izan dadin, erantzukizun hori zuzenean eta pertsonalki kaltetuak izan direnen jardueraren esku utzi gabe.
- Atxiloteta inkomunikatua luzatu eta atxilotuek beraiek libreki aukeratutako defendatzaile baten laguntza jasotzeko duten eskubidea murrizten duten kasu horiek ezabatu daitezela kontuan izatea.
- Batzordeak Estatuako agintariei eskatzen die, edozein bidetatik jakiten edo ezagutzen duten tortura edo tratu txarren kasu oro nola gertatu den ikertzeko prozedurak ex officio abiaraz ditzatela, nahiz biktimek beren kexa ez gatzatu legeak aurreikusten duen moduan.

Litekeena da batek baino gehiagok pentsatzea hemen konpondu ez den arazo bat izan arren, esperientzia demokratiko handiagoa duten beste leku batzuetan konponduta egongo dela; esate baterako, Europako gure inguruneke beste herri batzuetan... Zoritxarrez, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordea (TPB) bezain erakunde serio eta fidagarri batek aldizka egindako txostenek ez dute hain ondorio itxaropentsurik ateratzeko biderik ematen.

TPB horrek, dakizuen bezala, aldizkako eta ustekabeko bisitak egiten ditu atxiloteta zentroetara Europako Kontseiluko herrialdeetan. Journal aldizkariaren azkeneko zenbakian, modu laburtuan, Europako Batzordeak Europako hogeita hamarren bat herrialdeetara zortzi urtez bisitak egin ondoren ateratako ondorioak jasotzen dira. Askatasunik gabeko pertsona batek poliziaren eskuetan tratu txarrak jasateko duen arriskuei buruzkoa da. TPBk herrialde bakoitzaren egoera islatzeko aukeratutako hitzak oso neurtuak izan dira: 'arrisku larria dago'; 'fisikoki tratu txarrak jasateko arrisku gutxi dago'; 'ezin daiteke baztertu pertsona batentzako arriskua, atzerritarra bada behintzat'; 'atxilotzeko unean eta atxilotetaren lehenengo orduetan poliziarengandik tratu txarrak jasateko arrisku larria dute'; 'tratu txarrak jasateko arrisku nabarmena dute'; 'tratu txarrak nahikoa gertakari ohikoa dira'... Kontuan izan ondorio hauek ez direla, esate baterako, Turkiari buruzkoak, non 'torturaren jarduerak eta poliziak atxilotutako pertsonen eragindako gainerako tratu txarrak oso zabaldua dagoen jarduera bat baitira', baizik eta Alemania, Belgika, Frantzia, Italia edo Portugal bezalako herriei buruzkoak, nahikoa hurbil dauzkagun batzuk aipatzearren.

Ondorio isolatu bat irakurtzeak ñabardura guztiak harrapatzeko aukerarik ematen ez badu ere, horri esker Europako poliziak eragindako tortura eta tratu txarren arazo eta arriskuei buruz konparazio bidezko ikuspegi orokor bat lor dezakegu.

Eta Espainiari dagokionez, 1991an eta 1994an egindako aldizkako bisiten ondoren, TPBk, tortura jotzea jada jarduera arrunt bat ez delako bere poza agertu ondoren, adierazten du 'goiz litzatekeela torturaren edo tratu txarren fenomenen hori ezabatutik dagoela esateko'.

Amnesty Internationalen 1998ko urteko txostenak, TPBk adierazitakoa azpimarratuz, salatu egiten du Europan segurtasun indarren, poliziaren eta estatu mailako beste agintarien esku jasandako torturak eta tratu txarrak izan zirela, berriro ere, txosten gehien eragin zituzten giza eskubideen bortxaketak. Era honetako kasuak Europako 28 herritan atzeman ziren. 1997an zehar, dirudienez, zenbait pertsona hil ziren Europako bost herritan jarduera horien ondorioz.

Salatu egiten du Macedonian poliziak ehundaka pertsonari torturak edo tratu txarrak eragin zizkiela, gehienak albaniar jatorrikoak, baina halaber, Frantzian ere izan direla heriotza ekarri duten tiroak, tratu txarrak eta poliziak burututako bortxaketak. Alemanian poliziak atzerritarrei, bereziki asiloa eskatu zutenei eta gutxiengo etnikoetako kideei eragindako tratu txarren froga berriak agertu ziren. Erresuma Batuan zaintzapean gertatutako heriotzei buruzko ikerketek frogatu zuten legea betetzeaz arduratzen diren agenteek erabilitako mugigabetez metodoetako batzuek zenbait presoren heriotza eragin zutela.

Hori da, beraz, Europa zibilizatu honetan dugun egoera. Horri konponbide bat bilatzeko, gaitz honi amaiera emango dioten neurriak hartu behar dira etsi-etsian.

Ernesto Sábato, “Nunca más” izena daraman Argentinako desagertuei buruzko txostenaren hitzaurrean, adierazten du Aldo Mororen bahiketan segurtasun zerbitzuetako batek Della Chiesa jeneralari proposatu ziola horri buruzko informazioa omen zuen preso bat torturatzea. Jeneralak hitz gogoangarri hauexekin erantzun omen zion: ‘Italiak Aldo Mororen galera eraman dezake. Ezin dezake, ordea, tortura ezarri.’

Espero dezagun jeneralaren hitzok denontzako baliagarri izan daitezela, hain onartezinak diren jarduerak ezaba daitezela erraztuz.

IV. ASKATASUNIK GABEKO PERTSONEN ESKUBIDEAK

- **‘Edozein pertsonak askatasun eta seguritate eskubidea du. Inori ez zaio askatasunik galeraziko, artikulu hontan agintzen dena betetzen ez baldin bada eta beste jazoeretan legeak adierazten duen eran.’** (EK 17.1 art.)
- **‘Inor ezingo dute arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu’.** (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 9. art.)

Gauza jakina da espetxeetako ingurunea ingurune bereziki konplexua dela, eta pertsonak eta beren eskubideek ahultasun bereziko egoerak topatzen dituztela. Badakigu halaber kartzela ez dela irtenbiderik onena presoak gizarteratzeko, eta beharrezkoa dela, ahal den neurrian, presondegia ez diren beste alternatiba aukerak zabaltzea: komunitate terapeutikoak, zentro bereziak, kartzelaratzeko ez baizik komunitateari laguntzea dakarten zigorrek,...

Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago, presoak dauden bitartean, beren eskubideak guztiz bermaturik egon daitezela zaindu behar dugula, ondorengo bi printzipio hauetan oinarrituz:

- Askatasunik gabeko pertsonak bermaturik eduki behar dituzte beste edozein pertsonaren eskubide berberak, eta egindako legehausteagatik ezarri zaien zigoretik zehatz-mehatz eratorzen denaz aparte ez dute beste alderik edukiko.
- Presondegietak Administrazioari dagokio eskubideak osoki gauza daitezela, eta horretarako, beharrezkoak diren bitarteko eta baliabide guztiak jarri behar dituzte.

Preso dauden pertsonen bermatu behar zaizkien eskubideen artetik, komeni da azpimarratzea lau oinarriko eskubide:

- bizitza eta etxebizitza baldintza duin batzuetarako eskubidea (horrek eskatzen du, esaterako, pilaketa eragozteko edo eraikin eta instalazio egoki batzuk edukitzea);
- osasunerako eskubidea (horrek eskatzen du osasun baldintza egokiak edukitzea eta askatasuna duten pertsonen programa berdina eskuratu ahal izatea; esate baterako, metadona bidezko tratamendurako edo xiringa esterilak trukatzeko aukera);
- lanerako, heziketarako, jarduera baterako eskubidea (alegia, jardueretan parte hartzeko eskubidea)
- gizarite edo familia ingurunearekin erlazio bat edukitzeko eskubidea (horrek eskatzen du, besteak beste, ingurune horrekin hurbiltasun fisikoa edukitzea).

Hemen batez ere azpimarratu nahi dut askatasunik gabeko pertsonak duten bizi- eta osasun eskubidea.

Zorionez, gure herrietan ezabatua dago heriotza-zigorra, eta hori gizabidearen adierazgarri bat bezala ulertu behar dugu. Halere, oraindik asko dira espetxeetan bizi- gaitzen duten pertsonak.

Agian ez gara gehiegi jabetu azkeneko urteotan gure espetxeak benetako ospital bihurtzen joan direla. Gure espetxeetan giltzapeturi- k dauden asko legez kanpoko drogen trafikoagatik edo horien kontsumoarekin loturiko legehausteengatik daude. Sarritan gaixorik dauden pertsonak izan ohi dira: drogamenpekotasun arazoak dituzten pertsonak, buruko gaixotasunak dituzten pertsonak, gaitz kutsakor- rakk eta are sendaezinak dituzten pertsonak,...

Egia da, pertsona horietako batzuentzat, espetxe ingurune horretan egotea osasunaren zainketa- rarako zerbitzuekin izandako lehen harreman serioa dela. Baina egia da halaber, espetxe zentroak, oro har, ez direla eraiki eta ez diseinatu pertsona gaixoei kontu egin eta zaintzeko. Maiz, ez bertako instalazioak, ez bertako baliabide teknikoak eta ez bertako programak ere, ez dira egokienak pertsona gaixoak sendatzeko. Are gehiago, askotan, baliabiderik edo irizpiderik ez izatearen ondorioz, pertsona hauek osasun programa jakin batzuk erdiesteko dituzten aukerak urriagoak izan ohi dira, arazo berak izanik aske dauden beste pertsona batzuek dituztenekin erkatuz gero.

Gure espetxeetan atzemandakoaren bi adibide esanguratsu jarriko ditut:

- Gaixo terminal edo sendaezinek (horietako asko hiesa duten gaixoe- k) espetxez kanpoko harrerarako edo, besterik ez bada, baldintza duin batzuetan hiltzeko zerbitzuak erdiesteko zailtasunak dituzte.
- Drogamenpekotasuna duten pertsonak desintoxikatzeko, beren ohiturak kentzeko eta arriskuak murrizteko programetan parte hartzeko mugak dituzte.

Errepara diezagun, adibide gisa, azken alderdi horri: askatasunik gabeko pertsonak arriskuak murrizteko programen barruan sartzeko dituzten aukerak.

Gaur egun inork ez du ukatzen gure espetxeetan errealtatearen ezaugarrietako bat, besteak beste, droga kopuru ugaria dela, jendetza handia baita preso egonda ere droga sistematikoki hartzen ari dena, horietako askok zainetatik barrena; arrisku handia dago xiringak trukatzeko bezalako jardueren ondorioz gaitz kutsakor- rakk bata besteari pasatzeko, GIB/hiesak eta halaber, hepatitiak, tuberkulosiak... kutsatutako pertsona gaixoen proportzioa handia da,...

Droga kontsumitzaileekin loturiko osasun politikak eta hiesaren prebentzioak ugaritu egin dituzte beren helburuak, eta azkeneko urteotan nabarmenki aldatu dira ingurune irekietan. Gaur egun, gure Erkidegoan, aske dauden pertsonak zailtasun handiegirik gabe jo dezakete komunitate terapeutikoetara, metadonarena bezalako programa alternatiboetara, edo xiringen trukaketarena bezalako arriskua murrizteko programetara. Zenbaitetan, nahiko programa berriak dira, eta, nahiz zenbait kontraesan dituzten, zientifikoki ebalatuak eta sozialki ontzat hartuak izan dira.

Programa horiek Komunitatean aplikatzen badira, eta, egia esan behar badugu, pertsonen osasunerako arriskua gutxitzen ari baldin badira, zergatik ez ditugu aplikatuko espetxeetan ingurunean? Baliteke ingurune horren berezko ezaugarrietara egokitze bat eskatzea, baina, osasun eskubidearen zehaztapen eta gauzatze hobe bat diren aldetik, behar- rean dauden pertsona guztiengana iritsi behar dute, baita askatasunik gabe dauden pertsonengana ere.

Argudio horri esker, Arartekoak, E.A.E.ko espetxe zentroetara bisitak egin eta hainbat profesio- nal eta kolektiborekin bilerak egin ondoren, erakunde erantzuleei gomendatu zien gure Erkidegoko espetxeetan metadonarena bezalako programak aplika zitezela (egun ia erabat orokortua), edo xiringen trukaketarena (Basauriko Presondegian urtebete baino gehixeago daramana). Programa horiek, hain zuzen ere, pertsona guzti- e dagokien osasun eskubidearen aplikazio zehatza baino ez dira.

Basauriko espetxean (Bilbotik hurbil dagoen espetxe honetan 300 gizon daude bildurik) xiringen programa horrek izan duen urtebeteko esperientziak zera frogatzen du:

- horren aplikazioa erabat litekeena dela presondegi batean;
- ez duela inolako arazorik sortzen zentroko dinamikan;
- osasunerako arriskugarriak diren zenbait jarduera eragotzi edo murriztu egiten dituela;
- zainetatik barrena droga hartzen duen pertsona talde jakin batek onartu dituen beste programa batzuen programa osagarria dela;

- osasun zerbitzuen eta pertsona horien arteko harreman handiagoa ahalbidetzen duela, eta horietako asko helburu garrantzitsuagoak dituzten beste programa batzuetara hurbiltzen dituela...

V. KONTZIENTZI ERAGOZPENERAKO ESKUBIDEA

- **‘Legeak finkatuko ditu espainolen betebeharrak eta arautuko du beharrezko diren garrantziak; kontzientzia objektiboa, eta baita beste arraoi batzuek ere beharrezko soldaduzkatik libratzeko, ezarri ahalez, kasu bakoitzean, ordezkako giza prestatena.’** (EK 30.2 art.)
- **‘Pertsona orok du pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea...’** (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 18 art.)

Kontzientzi eragozpenaren eta intsumisioaren fenomenoek gizarte eragin handia dute.

Jakina denez, egoera honek berebiziko garrantzia du Euskal Autonomia Erkidegoan, kontzientzi eragozpeneko eskubidearen erregulazioari buruzko gizartearen gaitzespena geroz eta zabalagoa baita, eta are gehiagoaren nahia da Autonomia Erkidegoan egindako azterketa ezberdinen arabera.

Egia da Espainiako gainerako herrialdeetan eragin hori ez dela hain nabarmena, baina halere, ezin baztertuzkoak diren kasu individual asko gertatzen dira.

Arartekoa, urte hauetan, intsumisioa zigorgabetzearen alde agertu da, eta Herriaren Defendatzailearekin dituen harremanak arautzen dituzten koordinazio eta lankidetzak printzipioekin bat etorritik, Euskadiko gizarte mugimendu ezberdinen kezkek bideratu ditu, eta zehazkiago, espetxeratuta dauden intsumisioen senitartekoenak eta E.A.E.ko kontzientzi eragozpenaren aldeko mugimenduarenak, eta horrela, 1995eko ekainaren 9an, Herriaren Defendatzailearengana jo zuen esku hartu zezan eskatzera.

Aipatutako komunikazio horrek agerian jarri zuen nolako zen une hartan zegoen egoera, 3.000 intsumisio baino gehiago baitzeuden, horietako asko presondegian, eta halaber, egoera horren aurrean erakunde ezberdinek hartutako jarrera, esate baterako Eusko Legebiltzarrak, Europako Parlamentuak eta Bilboko Entzutegi Probintzialak, behin eta berriz ezagutzera emandako adierazpenen bitartez.

Azkeneko legegintzaldietan, Eusko Legebiltzarrean ez-legezko proposamen ugari aurkeztu ziren, legeria mailako aldaketak eskatuz, eta halaber, zenbait neurri iragankor har zitezela eskatuz, desiragarriak ez diren egoerak eragozteko, intsumisioak espetxeratzea esate baterako, eta eskakizun horietatik gehienek Eusko Legebiltzarraren gehiengoaren aldeko botoak lortu zituzten.

Arartekoak, gainera, idazki horretan azpimarratu egin zituen Europako Parlamentuak onetsitako zenbait ebazpen. Hain zuzen ere, Europako Batasuneko Estatuetakoko kontzientzi eragozpenari buruzko parlamentu horrek 1994ko urtarrilaren 19an eman zuen ebazpena; ebazpen honek, gainera, aurreko ebazpen batzuetan izandako irizpideak berresten zituen (Europako Parlamentuaren 1983ko otsailaren 7ko Ebazpena [Doce C69 1989.3.1.] eta 1989ko urriaren 13ko Ebazpena [Doce C291 1989.11.20]), kontzientzi eragozpeneko arrazoiengatik zerbitzu militarri uko egiteari buruz).

Komeni da hemen horien zenbait alderdi funtsezko gogoratzea:

- Kontzientzi eragozpena norbanakoaren eskubide benetako eta berezko bat bezala jotzen da, norbanakoen askatasunak gauzatzearekin hertsiki lotua dagoena.
- Horren ordezkako gizarte zerbitzuak ez du zigor izaerarik eduki behar.
- Europako Batasuneko Estatuak eskatzen zaie azter dezatela, denontzako interesgarria den gai bat delako, derrigorrezko zerbitzu militarra guztiz profesionala den armada baten mesedetan ordezkatu dutenen esperientzia, edo bestela, derrigorrezko zerbitzu militarrentzat eta gizarte zerbitzuarentzat iraupen berbera finkatu dezatela...

Egia esateko, kontzientzi eragozpena mugatzen den ebazpen bat da, baina bai jasotzen duen eragozlearen definizioagatik eta bai dauzkan irizpideengatik ere, gure artean dauzkagun eta antzeko ezaugarriak betetzen dituzten beste kasu batzuetan aplikatu daitezke.

Arartekoak, hirugarrenik, Bilboko Entzutegi Probintzialak horri buruz behin baino gehiagotan egindako adierazpenak aipatu zituen.

Herriaren Defendatzaileari bidalitako idazki hori egin zen arte, Bilboko Entzutegi Probintzialak intsumisio kasu ugari epaitu behar izan zituen. Duela urte eta erdi, aho batez erabaki zuen, Kode Penaleko 2. artikuluan babesean, intsumisioa zigorgabetzea eskatuz azalpen arrazoitu bat bidaltzea Gobernuari. Epealdi horretan, erakunde judizial horrek 68 testu bidali zizkion Gobernuari antzeko idazkera zutela, zerbitzu militarri edo gizarte zerbitzuari uko egitea zigorgabetuko zuen lege-esparruaren erreforma bat eskatuz.

Bestetik, Euskal Herriko udal askok uko egin diote erreklutatze eginkizunetan laguntza emateari, eta horrek, halako ezezko bati dagozkion ondorio juridikoak ekarri dizkie.

Kode Penal berriaren proiektua oraindik izapidatzen ari zen garai haietan, Arartekoak berak, Herriaren Defendatzaileari hainbestetan adierazitako idazki-proposamen horretan, arauen erreforma bat proposatu zuen ondoko hitzen arabera:

‘Erakunde honentzat kezkarria da -zioen orduan- egiaztatzea, Kode Penalaren Proiektuko 595 art.aren aurreikuspenaren arabera, legeria mailako ekimen horrek egoera hori behar bezala ez konpontzeaz gain, are okerragotu egingo duela espetxe zigorrari gaitasungabetzearena gehitzean.

Ez dirudi aztergai dugun arazo horren irtenbidea alderdi errepresiboak sakontzetik etorriko denik; aitzitik, elkartasun printzipioa errespetatzeko irizpideetatik ikusi beharra dago, kontzientzi eragozpenarako eskubidea berezko izaera duen giza eskubide bat bezala hartu beharra dagoela abiapuntutzat izanik, eta ez defentsa obligazio horren ustezko salbuespen bat bezala.

Araudiaren erreforma horrek, funtsean, Kontzientzi Eragozpenaren Legeari eragin beharko dio batetik, gizarte zerbitzua alternatiba gisa eta ez haren ordezko bezala jasoz, kontzientzi eragozpen bat-batekoaren eskubidea bere baitan hartuz, eta kontzientzi eragozpena Kontzientzi Eragozpenaren Nazio Kontseiluak horrela aitortzearen menpe eta ez herritarrek eskubide hori libreki erabiltzearen menpe egon dadila baztertuz, eta bestetik, Kode Penalari, zerbitzu militarri edo gizarte zerbitzuari egindako ukoa erabat zigorgabetuz.’

Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako 1995eko X. Jardunaldietan ere aztertu zen arazo hori, eta aho batez onetsi ziren horri buruzko proposamen batzuk.

Kode Penalak bere 527, 528 eta 604. artikuluetan egin zuen erregulazioa neurriz kanpokotzat jo zuten erakunde ezberdin askok, batez ere kontuan hartzen bada zein den zigortutako jokaera, eta intsumisioek gaitasungabetzearen zigor hori kritikatu zuten bereziki, ‘gizarte arloko heriotza’ bat bezala ikusten zutelako.

Gaspe hauetako askok uste zuten gaitasungabetzearen zigor horrek askatasunik gabe uztearen zigorrak baino ondorio kaltegarriak zekartzala. Alegia, beren ustez, Kode Penal berriak, beren egoera ez hobetzeaz gain, are gehiago okertu zuen.

Azkeneko hilabeteetan, ez aurrez baizik eta koarteletera iritsi ondoren beren burua intsumisio gisa agertzen duten pertsonen kopurua areagotzen ari da. Horren bidez -eta Kode Militarra aplikatuz gero- espetxeratuak izan daitezela bilatzen ari dira, eta horrela etorkizunean gaitasungabetzerik ez izatea, sistemaren kontraesanak agerian jarritz.

Etorkizun hurbilean Armada erabat profesional bihurtzeko aukera hori nabarmentzen ari den une hauetan, zenbait eragozle eta intsumisoren egoera kezkarria da oraindik.

Armada erabat profesional bihurtu arte zenbait urtetako epealdi iragankorra igaro behar zuenez gero, abenduaren 20ko 13/91 Lege Organikoan ezarritako erreklutamendu unibertsalaren eredu berari jarraiki deitu zitzaizen gazteei soldadutza egitera, eta abenduaren 26ko 48/84 Legean ordezko gizarte zerbitzua egiteko ezartzen zen aukera berarekin, orain hilabete batzuk arte indarrean zegoena.

Etorkizuneko aldaketa horren eta orain berriki arteko egoeraren aldaezintasunaren artean piztutako tentsioaren ondorioz, Espainia guztian beren buruak eragozle edo intsumisio gisa agertzen dituzten gazteen kopurua geroz eta handiagoa bilakatu da, batez ere Euskadi bezalako zenbait eskualdetan.

Xabier Markiegi Arartekoak, Armada erabat profesional bihurtzeko Kongresu-Senatu Bitariko Batzordearen aurrean 1997ko maiatzaren 8an egindako agerpenean, gogoratu zuen zein zen orduko egoera eta zeintzuk ziren horren aurrean erakundeetatik egindako adierazpenak, eta ondoko eskakizuna azpimarratu zuen:

- “1.- Indarrean dagoen kontzientzi eragozlearen lege-esparrua, baita zerbitzu militarri edo gizarte zerbitzuari egindako ukoa zigorgabetzeko zigor-araudia ere, berritzeko beharrezkoak diren lege-ekimenak hartzea -hori egiteko eskumena duzuenok-. Alegia, Kode Penalaren Lege Organikoaren 527, 528 eta 604. artikulua alda ditzazuela.
- 2.- Lege-diaren aldaketa horiek onesten ez diren bitartean, insumisoez eta horiei laguntzea erabaki duten udal agintariek jasaten dituzten espetxeratze edo gaitasungabetze egoerak eragozteko beharrezkoak diren neurri guztiak bultzatu eta sustatu ditzazuela.’

Azkenik ikusi dugu araudiaren zenbait aldaketa egin direla orain berriki, eta nahiz erabat gure gustokoak ez diren, erakunde ezberdinetatik eskatutakoari nolabaiteko erantzuna eman diote.

Kontzientzi Eragozpena eta Ordezko Gizarte Zerbitzua arautzen duen uztailaren 6ko 22/98 Legea xedatu da, eta bere zioen azalpenak dio ‘Kontzientzi Eragozpena eta Ordezko Gizarte Zerbitzua arautzen duen abenduaren 26ko 48/84 Legearen aplikazioak zenbait hutsune eta muga agertu dituela, eta horiek, gazteriarren zenbait sektoretatik egindako kritikekin batera, lege testu berri bat prestatzea eragin dute, kontzientzi eragozpenerako eskubide konstituzionala bermatzeko, eta, aldi berean, ordezko gizarte zerbitzuaren baldintzak hobetzeko.’

Zioen azalpen horretan bertan, lege honen berrikuntzak aurreratzen dizkigu:

- Ordezko gizarte zerbitzuaren eta zerbitzu militarren iraupenak berdindu egiten ditu.
- Eragozle izaera onartu eta jarduera-epealdia hasi arteko itxarote muga gehienez ere hiru urtekoa izango dela ezartzen du.
- Kontzientzi Eragozpenaren Nazio Kontseiluaren osakera zabaldu egiten du, zentral sindikal garrantzitsuenean proposatutako bokal bat eta bolondretza erakundeen ordezkar den beste bokal bat gehituz.
- Eragozle izaera onartzeko eskaerei erantzun bat emateko Kontzientzi Eragozpenaren Nazio Kontseiluak duen denbora hiru hilabetetara murrizten du.
- Aukera ematen du, hitzarmenak eginez, ordezko gizarte zerbitzuaren kudeaketan eta ikuskapenean autonomia erkidegoen lankidetzak sakontzeko.

Lege berri horrek, beraz, aurreko arau-testuari egindako kritiketako batzuei erantzuna ematen die. Halere, 22/98 Legearen 1.3 artikulua adierazten du ‘Defentsa Ministerioak zerbitzu militarrean hasteko ezarritako egunera arte aurkez daitekeela kontzientzi eragozlea onartzeko eskabidea, edota zerbitzu militarra amaitu ondoren, erreserba egoeran dagoen bitartean’.

Lege berriak, soldadutzan hasi ondoren kontzientzi eragozpenerako eskubidea gauzatzea eragozten jarraitzen du.

Kontzientzi eragozpena arautzen duen abenduaren 26ko 48/84 Legearen 1.3. artikulua eskubide horren gauzapena ‘soldadutza egiten hasteko unera arte’ mugatzeak eragin zuen Amnesty International bezalako erakunde batek ‘kontzientzi presotzat’ hartzea soldadutza egiten hasi ondoren eragozpen eskubidea gauzatu nahi izateagatik espetxeratuak, eragozpen bat-batekoa deitua izan dena. Eskubide honen alde agertu diren nazioarteko erakundeak asko izan dira.

Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak, 1993ko martxoan, baieztatu zuen ‘derrigorrezko zerbitzu militarra egiten ari diren pertsonak ez lirakekeela salbuetsi behar eragozle izaera erdiesteko eskubide horretatik’.

NBEko Giza Eskubideen Batzordeak, 1996ko apirillean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna betetzeari buruz Espainiak aurkeztutako txostena aztertu ondoren, oso kezkatu zegoela adierazi zuen, hain zuzen ere, herritarrek Armadan sartu ondoren kontzientzi eragozle izatea eskatzeko eskubiderik ez zutelako, zeren hori ez baita bateragarria Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 18. artikulua eskakizunekin, eta Espainiari eskatu zion ‘kontzientzi eragozpenari buruzko bere legeria aldatzeko, kontzientzi eragozlea izatea eskatu nahi duten pertsona guztiek edozein unetan egin ahal izan dezaten, Armadan sartu aurretik eta ondoren’.

Ilido beretik, Europako Kontseiluaren 1987ko apirilaren 9ko Ministroen Batzordeak adierazten zuen ‘legeak era berean aurreikusi dezakeela interesatuak eskabide bat aurkeztu ahal izatea eta kontzientzi eragozle gisa onartzea, baita kontzientzi eragozpenerako eskatzen diren baldintzak zerbitzu militarrean edo hasierako zerbitzuaren ondoren datorren heziketa militarrean zehar agertzen direnean ere’.

Arestian aipatu dugun moduan, uztailearen 6ko 22/98 Legeak 1.3 artikuluan egiten duen erregulazio berriak, alde horretatik, aldatu duen legearen irizpide berberari heltzen dio, aipatutako nazioarteko erakundeen iritziei entzungor eginez.

Berrikiago, 'Kode Penalaren azaroaren 23ko 10/95 Lege Organikoa aldatzen duen urriaren 5eko 7/98 Lege Organikoa onetsi da, derrigorrezko zerbitzu militarra eta ordezkoko gizarte zerbitzua betetzen ez denerako espetxe eta isun zigorrak ezabatzen dituen eta kasu horietarako gaitasungabetze zigorrak murrizten dituen'.

Zioen azalpenak dio 'Armada guztiz profesional bihurtzeko hasitako prozesu horrek, derrigorrezko zerbitzu militarra ezabatzea ekarri beharko duelarik, ordezkapen traumatikoak eragotziko dituen epealdi iragankor bat eskatzen duela'.

Zehazten du, gainera, 'Kode Penalean aurreikusitako legehausteen eta zehapenen arteko oreka berri bat bilatu behar dela, batetik lege orok berekin duen eragin disuasorioa bere horretan mantentzeko, eta bestetik, legehaustearen larritasunaren eta bere ondorioaren arteko proportzio egoki bat izateko'.

Aipatutako zioen azalpen horretan adierazten da 'horren ondorioz, honako Lege Organikoak ezabatu egiten dituela indarreango Kode Penalak ez-betetze horietarako ezarritako askatasuna kentzeko zigorrak eta isun zigorrak, baina eskubideez gabetzeko zigor horiek bere horretan mantentzen dituela, nahiz sei urtetik lau urtera murriztuz leunagoak egiten diren'.

Horren ondorioz berehalakoena -kontuan hartuz aurreko legeriaren arabera epai irmo bidez zigortutakoentzat atzera-eraginezko ondorioz aldekoenak-, aurreko epai pilo baten berrikuspina izango da, Donostiako Entzutegi Probintzian bakarrik 2.000 epai baino gehiago izango direlarik.

Une hauetan, hirurehun epai baino gehiago berrikusi dira, eta gaitasungabetze zigorrak erdira murriztu dira.

Kode Penalaren aldakuntzak aurrerapen garrantzitsua dakar, askatasunaz gabetzeko zigorrak ezabatzen baititu, nahiz bestetik, murriztuaren, gaitasungabetze zigorra bere horretan mantentzen duen, gaitasungabetze horrek gazteentzat dituen ondorio larri guztiekin.


VI. ONDORIO GISA

Eskuhartzearen hasieran adierazten nuen giza eskubideak ezarri eta bermatzea modu desorekatu batez gertatzen zela, eskubide motaren nahiz aztergai dugun herrialdearen arabera.

Transnazionalismoaren gertakariak, eskubideen urraketak talde handi edo botere pribatuetara igarotzeak (izan ere, une hauetan eskubideen zapalkuntzarik handienak erakunde terroristek, erakunde kriminal antolatuek eta batez ere narkotrafikoaren mafia handiek eta talde integristek egiten dituzte), beharrezko egingo du kontzeptu asko berdefinitzea. Nolanahi ere, Zuzenbidezko Estatu soziala Estatu eredu gisa mundu guztian orokor bihurtzea eta nazioarteko ordena zuzenago bat osatzea alde aurreko ezinbesteko baldintzak dira eskubideak modu orekatuago batez errespetatuak izan daitezen.

IV. ERANSKINA
GRAFIKOAK


ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-1998)



* 1.143era bertsuko bi kexa multzoaren barruan sartzen dira.


1. DIAGRAMA

1998an JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN-PROZESUAREN ONDOREN



2. DIAGRAMA


ZUZENEAN IZAPIDATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUKETA ALORREN ARABERA*



* Era bertsuko bi gai aipatzen dituzten 1.143 kexa 2 balira bezala hartuz, eta beste defendatzaile batzuei igorri edo hainbat gestio eragin dituzten kexak alde batera utziz.


3. DIAGRAMA

ZUZENEAN IZAPIDATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




4. DIAGRAMA

**EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO
KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA**




5. DIAGRAMA

**EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO
KEXEN BANAKETA SAILEN ARABERA**




6. DIAGRAMA

**FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO
KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA**




7. DIAGRAMA

**UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO
KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA**



8. DIAGRAMA

**LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO
KEXEN BILAKAERA (1989-1998)**




* Gai bakar bati buruzko 708 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.

** Gai bakar bati buruzko 435 kexa kexa bakartzat hartuz lortzen den emaitza.


9. DIAGRAMA

**LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO
KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (1989-1998)**




10. DIAGRAMA

**KEXEN BANAKETA HIRIBURUTIK DATOZEN EDO LURRALDEKO
BESTE UDALERRI BATZUETATIK DATOZEN KONTUAN IZANIK**




11. DIAGRAMA

**ARARTEKOAK ZENBATETAN EMAN DIEN ARRAZOIA
KEXAGILEEI 1998an BUKATUTAKO KEXETAN**




12. DIAGRAMA

JASOTAKO KEXEN BANAKETA KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA




13. DIAGRAMA

JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA




14. DIAGRAMA

JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA




15. DIAGRAMA

1998an HARRERA ZUZENeko BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK (KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)




16. DIAGRAMA




17. DIAGRAMA

BANAKETA ADIN-TALDEEN ARABERA




18. DIAGRAMA

**HARRERA ZUZENEKO HIRU BULEGOETARA
JOANDAKOEN JATORRI GEOGRAFIKOA**



19. DIAGRAMA


KEXA BILAKATUTAKO BISITAK



20. DIAGRAMA


ARARTEKOAREN OFIZIOZKO JARDUKETAK (1998)

BANAKETA ALORREZ ALOR



21. DIAGRAMA



ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA



22. DIAGRAMA



**KEXAGILEEK ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZ
EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)**

1. Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?



23. DIAGRAMA



2. Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik izapidaketa bukatu arteko denbora?



24. DIAGRAMA



KEXAGILEEK ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz erabaki edo proposatu duenarekin?



25. DIAGRAMA


4. Zure ustez kexa sorrarazi zuen arazoa:



26. DIAGRAMA


**KEXAGILEEK ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZ
EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)**

**5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana?
(Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)**



27. DIAGRAMA


6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?



28. DIAGRAMA


ARAZOA “ez da konpondu” edo “nahikoa gaizki konpondu da” DIOTEN KEXAGILEEK ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA

**5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana?
(Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)**



29. DIAGRAMA

6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?



30. DIAGRAMA

GAIEN AURKIBIDEA

A**Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak**

- Erabakiak argudiatzea
- Errekurtso judizialei buruzko informazioa, 232, 381
- Erantzukizun zibila, 225

Adierazpen askatasunerako eskubidea

- Kultur kudeaketa
- Sustapen jarduerak
- Oinarrizko eskubideak, 146

Adin txikiko lege hausleak

- Adin txikikoak, 67, 225

Adin txikikoak

- Adin txikiko lege hausleak, 67, 225
- Adin txikikoen babesa, 45, 56
- Funtzio publiko orokorra
- Aurrekari penalak, 177
- Sarrera
- Aurrekari penalak, 376
- Nazioarte mailako adopzioa, 431

Adin txikikoen babesa, 471

- Adin txikikoak, 56

Adinekoak

- Egoitzak
- Prezio publikoak
- Berdintasun printzipioa
- Oinarrizko eskubideak, 438
- Egoitzak eta zentro babestuak, 49, 283
- Bidegabeko kobraketa, 282
- Egoitzaz kanpoko laguntza, 53

Adinekoen eskubideak, 477**Administrazio espedienteak**

- Eskuratze eskubidea
- Prozedura administratiboa, 253, 255

Aldizkari ofizialak

- Zuzenbide Estatuaren informatzeko printzipioak
- Arauei publizitatea emateko printzipioa, 391

Arauei publizitatea emateko printzipioa

- Aldizkari ofizialak
- Zuzenbide Estatuaren informatzeko printzipioak, 391

Araztegiak

- Obra publiko hidraulikoak, 246

Arrantza

- Prezio publikoak
- Oinarrizko eskubideak
- Berdintasun printzipioa, 391

Arrazakeria eta xenofobia

- Atzerritarrak, 128

Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea

- Giza eskubideak, 461
- Oinarrizko eskubideak, 461

Atxiloketa zentroak

Atxilotuen eskubideak, 59

Atxiloketak

Atzerritarrak

Polizia, 394

Identifikazioak

Polizia, 390

Norberaren datuak ezabatzea

Polizia, 218, 390

Polizia, 215

Atxilotuen eskubideak

Atxiloketa zentroak, 59

Atzerriko espetxeak

Espetxeak, 225

Atzerritarrak, 225

Arrazakeria eta xenofobia, 128

Atxiloketak

Polizia, 394

Espetxeratuak, 39

Gizarte taldeak, 122, 123, 124

Harrera zentroak

Emakumeak, 444

Polizia, 75

Aurrekari penalak

Funtzio publiko orokorra

Sarrera

Adin txikikoak, 177, 376

Berdintasun printzipioa

Oinarrizko eskubideak, 377

Aurriak

Botatzeko agindua

Betearazte subsidiarioa, 397

B**Babes ofizialeko etxebizitzak, 383**

Lehentasunez erosteko eskubidea, 384

Oinarrizko eskubideak

Berdintasun printzipioa, 383

Prozedura administratiboa

Ondare erantzukizuna, 384

Badaezpadako neurriak

Ibilgailuak erretiratzea

Prozedura administratiboa, 426

Trafikoa

Prozedura administratiboa, 208, 378, 387

Salmenta ibiltaria

Prozedura administratiboa, 405

Baimenak, 387

Bideak, 378

Gas naturala, 297, 379

Gizarte aretoak

Hiri jarduera sailkatuak, 392

Hiri jarduera sailkatuak, 398, 399, 400

Hirigintza, 293, 385, 396

Jatorrizko elementuak aldatzea, 380

Baimendutako prezioak

Bidaiarien garraioa, 192, 373, 377, 381

Baldintzapeko askatasuna

Espetxeak, 225

Banatze eta dibortzio prozedura

Bitartekotza

Emakumeak, 129

Beharrik gabeko atzerapenak

Oinarrizko eskubideak, 225

Berdintasun eskubidea

Giza eskubideak, 458

Trafikoa

TAO

Oinarrizko eskubideak, 211, 381

Berdintasun printzipioa

Arrantza

Prezio publikoak

Oinarrizko eskubideak, 391

Babes ofizialeko etxebizitzak

Oinarrizko eskubideak, 383

Egoitzak

Prezio publikoak

Adinekoak

Oinarrizko eskubideak, 438

Esleitzeko prozedura

Etxebizitza sozialak

Oinarrizko eskubideak, 383

Funtzio publiko orokorra

Sarrera

Aurrekari penalak

Oinarrizko eskubideak, 377

Oinarrizko eskubideak, 372

Irakaskuntzaren programazio orokorra

Haur hezkuntza

Oinarrizko eskubideak, 409

Oinarrizko eskubideak, 458

Prezio publikoak

Igeritokiak

Oinarrizko eskubideak, 190

Berdintasunerako eta zergazko progresibitateko eskubidea, 468

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea

Funtzio publiko orokorra

Aurrez emandako zerbitzuak

Oinarrizko eskubideak, 419

Giza eskubideak, 463

Lanpostuak betetzea

Oinarrizko eskubideak, 380

Oinarrizko eskubideak, 463

Ordezkapenak

Oinarrizko eskubideak, 372

Sarrera

Oinarrizko eskubideak, 396

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

Sarrera

Oinarrizko eskubideak, 372, 382, 401

Osasun alorreko funtzio publikoa

Diskrezionalitate teknikoa

Oinarrizko eskubideak, 373

Betearazte subsidiarioa

Botatzeko agindua

Aurriak, 397

BEZ

Itzulketak, 374

Sartu behar ez ziren dirusarrerak itzultzea, 385

Bidaiarien garraioa

Baimendutako prezioak, 192, 373, 377 381

Tarifak

Familia ugarien babesa, 385

Itzulketak

Kontsumitzaileen eskubideak, 251, 374

Bidegabeko atzerapenak

Oinarrizko eskubideak, 231

Bidegabeko okupazioa

Kalteordaina, 378

Bitartekotza

Emakumeak

Banatzte eta dibortzio prozedura, 129

Familia, 129

Bizitzeko eskubidea

Giza eskubideak, 459

Oinarrizko eskubideak, 459

Borondatezko laguntzaileak

Gizarte taldeak, 123

Botatzeko agindua, 387

Aurriak

Betearazte subsidiarioa, 397

Botikagaiak

Osasun prestazioak, 276

Buruko osasuna

Burutik gaixo daudenak, 71

Burutik gaixo daudenak

Buruko osasuna, 71

Gizarte taldeak, 122

D

Datu automatizatuen babesa

Oinarrizko eskubideak

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea

Gizarte laguntza, 374

Delituen biktimen eskubideak

Prozedura judizialari buruzko argibideak, 225

Desjabetzeak

Herri lanak, 251

Hilerriak, 250

Dirulaguntzak

Eraikin babestua, 298

Doako laguntza juridikoa, 225

E

Ediktu bidezko jakinarazpena

Trafikoa

Prozedura administratiboa, 399

Egoitzak

Prezio publikoak

Adinekoak

Oinarrizko eskubideak

Berdintasun printzipioa, 438

Egoitzak eta zentro babestua

Adinekoak, 49, 53, 283

Bidegabeko kibraketa

Adinekoak, 282

Egoitzaz kanpoko laguntza

Adinekoak, 32

Ekintza administratiboa

Trafikoa

Prozedura administratiboa, 399

Elbarriak

Laguntza prestazioak, 284, 285

Elbarrien eskubideak, 477**Elkarte publikoak**

- Ondare erantzukizuna, 269
- Prozedura administratiboa, 387
- Prozedura administratiboa, 269

Emakumeak

- Atzerritarrak
 - Harrera zentroak, 444
- Banatze eta dibortzio prozedura
 - Bitartekotza, 129
- Epaiak betearaztea, 225
- Funtzio publiko orokorra
 - Eskubideak eta betebeharrak, 181
- Hurtzaindegia
 - Familia, 375
- Integritate fisiko eta moralerako eskubidea
 - Oinarrizko eskubideak
 - Tratu txarrak, 444
 - Oskidetzako emakume erabiltzaileen eskubideak, 278
 - Tratu txarrak, 225

Epaiak betearaztea

- Emakumeak, 225

Erantzukizun administratiboa

- Prozedura administratiboa, 385, 386

Errefuxiatuak

- Giza eskubideak, 134

Erregimen irekia

- Espetxeak, 231

Errolda, 387, 397

- Izena ematea, 220, 222, 379
- Txirotasuna, 392

Errugabe joa izateko eskubidea

- Giza eskubideak, 465
- Oinarrizko eskubideak, 465
- Prozedura administratiboa
 - Prozedura zigortzailea
 - Zarama
 - Oinarrizko eskubideak, 303, 377, 394

Eskola garraioa eta jantokia, 159**Eskolako kirola**

- Ikasleen partaidetza, 147

Eskuraturiko eskubideak

- Hilerriak, 248, 379

Espedientea eskuratzeko eskubidea

- Prozedura administratiboa, 257

Espedientea ikusi ahal izatea

- Prozedura administratiboa, 373

Espetxeak

- Atzerriko espetxeak, 225
- Baldintzapeko askatasuna, 225
- Erregimen irekia, 231
- Gaixotasun larriagatik espetxetik ateratzea, 225
- Lekuz aldatzea eta eramatea, 225
- Ospitaletako zaintza, 225
- Tratu txarrak, 225
- Zigorra arintzea, 225
- Zigorra non bete, 225

Espetxeratuak, 30

- Atzerritarrak, 39
- Giza eskubideak, 135, 461
- Gizarte taldeak, 123

Oinarrizko eskubideak, 461
 Osasun laguntza, 31, 32, 34, 35, 36, 37
 Zigorra non bete, 39

Estolderia

Udal tasak, 400

Etxebizitza izateko eskubidea, 476

Giza eskubideak, 476

Etxebizitza sozialak

Esleitzeko prozedura
 Oinarrizko eskubideak
 Berdintasun printzipioa, 383

Euskara eta administrazio publikoa, 148, 152, 153, 397

Ezintasun fisikoak dituzten pertsonak

Hirigintza-oztopoak eta oztopo arkitektonikoak, 295
 Ikuskizun publikoak eta jarduera errekreatioak, 301
 TMZ
 Salbuespenak, 203, 386

F

Familia

Bitartekotza, 129
 Emakumeak
 Haurtzaindegiak, 375

Familia babestea, 471

Giza eskubideak, 471

Familia ugarien babesa

Tarifak
 Bidaiarien garraioa, 385

Funtzio publiko orokorra

Aurrekari penalak
 Adin txikikoak, 177
 Aurrez emandako zerbitzuak
 Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
 Oinarrizko eskubideak, 419
 Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
 Giza eskubideak, 463
 Oinarrizko eskubideak, 463
 Eskubideak eta betebeharrak
 Emakumeak, 181
 Karrera administratiboa, 179, 389
 Lanpostuak betetzea, 382
 Oinarrizko eskubideak
 Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 380
 Ordezkapenak, 182, 389
 Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
 Oinarrizko eskubideak, 372
 Prestakuntza ikastaroak
 Hizkuntza normalizazioa, 180, 390
 Sarrera
 Aurrekari penalak
 Adin txikikoak, 376
 Oinarrizko eskubideak
 Berdintasun printzipioa, 372, 377
 Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
 Oinarrizko eskubideak, 396
 Oinarrizko eskubideak
 Berdintasun printzipioa, 372

G

Gaixotasun larriagatik espetxetik ateratzea

Espetxeak, 225

Gas naturala

Baimenak, 297, 379
Tasak, 193, 389, 395

Gasolindegia

Hiri jarduera sailkatuak, 243

Giza eskubideak, 127, 128

Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 461
Berdintasun eskubidea, 458
Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
Funtzio publiko orokorra, 463
Bizitzeko eskubidea, 459
Errefuxiatuak, 134
Errugabe joa izateko eskubidea, 465
Espetxeratuak, 135, 461
Etxebizitza izateko eskubidea, 476
Familia babestea, 471
Gizarte segurantzaz izateko eskubidea, 473
Gizarte-, ekonomia- eta kultura-eskubideak, 131
Hezkuntza eskubidea, 466
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 459
Jabetza pribaturako eskubidea, 470
Laneko segurtasun eta higienezko babesa, 472
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 462
Osasunerako eskubidea, 474
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 465

Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 126, 137

Gizarte taldeak, 122

Gizarte komunikabideetan agertzeko eskubidea

Oinarrizko eskubideak, 382, 388, 462

Gizarte segurantzaz izateko eskubidea, 473

Giza eskubideak, 473

Gizarte taldeak, 118

Atzerritarrak, 122, 123, 124
Borondatezko laguntzaileak, 123
Burutik gaixo daudenak, 122
Espetxeratuak, 123
Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 122
Sasoikako langileak, 123
Tratu txarrak, 123

Gizarte-, ekonomia- eta kultura-eskubideak

Giza eskubideak, 131

Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera

Prozedura administratiboa

Agiriak, 384

Gutxienezko ekipamendua

Hiri antolamendurako plan orokorra, 290

H**Harrera zentroak**

Atzerritarrak
Emakumeak, 444

Harrobiak

Hirigintza legehausteak, 373

Haur hezkuntza

Irakaskuntzaren programazio orokorra, 162
Berdintasun printzipioa
Oinarrizko eskubideak, 409

Hartzaindegia

Familia
Emakumeak, 375

Herriaren Defendatzailea

Prozedura administratiboa, 130

Herri lanak

Desjabetzeak, 251

Hilerriak

Desjabetzeak, 250

Saneamendua

Udal zerbitzu publikoak, 249

Hezkuntza eskubidea

Giza eskubideak, 466

Oinarrizko eskubideak, 466

Sasoikako langileak, 43

Hezkuntza unibertsitarioa

Ikasleen onarpena, 389

Irakasgaien baliozkotzea, 169

HIESa duten gaixoak, 124, 128**Hilerriak**

Desjabetzeak

Herri lanak, 250

Eskuraturiko eskubideak, 248, 379

Udal tasak, 379

Hileta-zerbitzuak

Udal tasak

Zergabidezko kuota, 188

Hiri antolamendurako plan orokorra

Aparkalekuak

Berdeguneak, 377

Gutxienezko ekipamendua, 290

Hiri jarduera sailkatuak

Baimenak, 398, 399, 400

Gasolindegia, 243

Gizarte aretoak

Baimenak, 392

Keak, 387

Zarata, 378

Elkartekak, 386

Gimnasioa, 240

Gizarte aretoak, 238

Musika ekipoak, 237, 241, 375, 376, 386

Neurri zuzentzaileak, 376, 378

Ogibitarteko-tabernak, 376

Ostalaritza establezimenduak, 393

Hirigintza

Baimenak, 293, 385, 396

Jatorrizko elementuak aldatzea, 380

Obrak egiteko baimenak, 397, 398

Hirigintza balorazioak

Birpartzelatzea, 399

Hirigintza-oztopoak eta oztopo arkitektonikoak

Ezintasun fisikoak dituzten pertsonak, 295

Ikuskizun publikoak eta jarduera errekreatiboak

Ezintasun fisikoak dituzten pertsonak, 301

I**Ibilgailuak erretiratzea**

Badaezpadako neurriak

Prozedura administratiboa

Trafikoa, 208, 378, 387

Prozedura administratiboa

Badaezpadako neurriak, 426

Identifikazioak

Atxiloketak
 Polizia, 390
 Polizia, 390

Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

Zigor errejimena, 159, 372

Ikasleen onarpena, 156, 158, 170, 382

Hezkuntza unibertsitarioa, 389

Ikastetxeen mantenimendua, 164**Ingurugiro egokia izateko eskubidea, 475****Integritate fisiko eta moralerako eskubidea**

Emakumeak
 Tratu txarrak
 Oinarrizko eskubideak, 444
 Giza eskubideak, 459
 Oinarrizko eskubideak, 459

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

Etxebizitzak, 399
 Ordezkapenak, 388, 389
 Sarrera, 174
 Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
 Oinarrizko eskubideak, 372, 382, 401

Irakaskuntza artistikoak, 166**Irakaskuntzaren programazio orokorra**

Haur hezkuntza, 162
 Oinarrizko eskubideak
 Berdintasun printzipioa, 409

Irakasleak

Jubilazio pentsioak
 Kotizazioa, 300

Isiltasun administratiboa

Prozedura administratiboa, 380

J**Jabetza pribaturako eskubidea, 470**

Giza eskubideak, 470

Jakinarazpena

OHZ, 202
 Oinarrizko eskubideak
 Tutoretza juduziala edukitzeko eskubidea
 Prozedura zigortzailea
 Trafikoa
 Prozedura administratiboa, 375, 376, 382, 385
 PFEZ, 197
 Prozedura administratiboa, 374

Jarraitasuna osasun laguntzan

Medikuaren eta gaixoaren arteko konfiantza, 281

Jubilazio pentsioa

Identifikazioak, 305
 Kotizazioa
 Irakasleak, 300

K**Kalteordaina**

Ur hornidura
 Udal zerbitzu publikoak, 396

Keak

Hiri jarduera sailkatuak, 387

Kontratuen esleipena

Zerbitzu eta lan atipikoen kontratua
 Baldintza administratiboen orria, 391

Zerbitzu eta ohi kanpoko lanen kontratua
Administrazio klausulen plegua, 267

Kontsumitzaileen eskubideak

Bidaiariaren garraioa
Tarifak
Itzulketak, 251, 374

Ikuskizun publikoak eta jarduera errekreatiboak
Merkataritzaren printzipio komunak, 144

Kontzientzia eragozpenerako eskubidea, 467

Kultur kudeaketa

Sustapen jarduerak
Adierazpen askatasunerako eskubidea
Oinarrizko eskubideak, 146

L

Laguntza prestazioak

Elbarriak, 284, 285

Lan istripuak

Osasun gastuen itzulketa, 275

Lan osasuna, 274, 287

Lana, segurtasuna eta higiena

Amiantoa, 391

Lan-baldintzak

Baimenak
Polizia alorreko funtzio publikoa, 373

Laneko segurtasun eta higienaren babesa, 472

Lanpostua uztea

PFEZ
Salbuespenak, 374

Lekuz aldatzea eta eramatea

Espetxeak, 225

M

Medikuaren eta gaixoaren arteko konfiantza

Jarraitasuna osasun laguntzan, 281

Mutuak

Osasun laguntza
Agiriak, 377

N

Nazioarte mailako adopzioa

Adin txikikoak, 431

Norberaren datuak ezabatzea

Polizia
Atxiloketak, 218, 390

Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea

Datu automatizatuen babesa
Gizarte laguntza
Oinarrizko eskubideak, 374
Giza eskubideak, 462
Oinarrizko eskubideak, 253, 257, 462

O

Obra publiko hidraulikoak

Araztegiak, 246

Obrak egiteko baimenak, 393

Hirigintza, 397, 398

OHZ

Jakinarazpena, 202

Oinarrizko eskubideak

- Adierazpen askatasunerako eskubidea
 - Kultur kudeaketa
 - Sustapen jarduerak, 146
- Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 461
- Beharrik gabeko atzerapenak, 225
- Berdintasun eskubidea
 - Trafikoa
 - TAO, 211, 381
- Berdintasun printzipioa, 458
 - Arrantza
 - Prezio publikoak, 391
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 383
 - Esleitzeko prozedura
 - Etxebizitza sozialak, 383
 - Funtzio publiko orokorra
 - Sarrera, 372
 - Aurrekari penalak, 377
 - Irakaskuntzaren programazio orokorra
 - Haur hezkuntza, 409
 - Prezio publikoak
 - Igeritokiak, 190
- Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
 - Funtzio publiko orokorra, 463
 - Aurrez emandako zerbitzuak, 419
 - Lanpostuak betetzea, 380
 - Ordezkapenak, 372
 - Sarrera, 396
 - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
 - Sarrera, 372, 382
 - Osasun alorreko funtzio publikoa
 - Diskrezionalitate teknikoa, 373
- Bidegabeko atzerapena, 231
- Bizitzeko eskubidea, 459
- Errugabe joa izateko eskubidea, 465
 - Prozedura administratiboa
 - Prozedura zigortzailea
 - Zarama, 303, 377, 394
- Espetxeratuak, 461
- Gizarte komunikabideetan agertzeko eskubidea, 382, 388, 462
- Hezkuntza eskubidea, 466
 - Sasoikako langileak, 43
- Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 459
 - Emakumeak
 - Tratu txarrak, 444
- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
 - Sarrera
 - Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 401
- Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 253, 257, 462
 - Datu automatizatuen babesa
 - Gizarte laguntza, 374
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 465
 - Jakinarazpena
 - Trafikoa
 - Prozedura zigortzailea
 - Prozedura administratiboa, 375, 376, 382, 385

Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 70**Ondare erantzukizuna, 262**

- Babes ofizialeko etxebizitzak
 - Prozedura administratiboa, 384

- Elkarte publikoak, 269
 - Prozedura administratiboa, 387
- Erabakitzeke betebeharra
 - Prozedura administratiboa, 380
- Prozedura administratiboa, 379, 380, 398
- Udal zerbitzu publikoak
 - Animalientzako biltegiak
 - Prozedura administratiboa, 392
 - Prozedura administratiboa, 265, 375, 380, 393, 394, 396
- Zerbitzu publikoak
 - Prozedura administratiboa, 388
- Ondasun publikoak**
 - Lur komunalak
 - Bertatik pasatzeko eskubidea, 392
 - Titulartasuna, 397
- Ondasunen bahitura**
 - Premiamendu bidea
 - Prozedura administratiboa, 259, 386
- Osakidetzako emakume erabiltzaileen eskubideak**
 - Emakumeak, 278
- Osasun alorreko funtzio publikoa**
 - Diskrezionalitate teknikoa
 - Oinarrizko eskubideak
 - Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 373
 - Ordezkapenak, 184, 384
 - Sarrera, 176, 373
- Osasun garraioa**
 - Osasun gastuen itzulketa, 279, 384
- Osasun gastuen itzulketa, 373**
 - Lan istripuak, 275
 - Osasun garraioa, 279, 384
- Osasun laguntza**
 - Agiriak
 - Mutuak, 377
 - Espetxeratuak, 31, 32, 34, 35, 36, 37
- Osasun prestazioak**
 - Botikagaiak, 276
 - Prestazio ortoprotesikoak, 277, 278
- Osasunerako eskubidea, 474**
 - Giza eskubideak, 474
- Ospitaletako zaintza**
 - Espetxeak, 225

P**PFEZ**

- Jakinarazpena, 197
- Kenketa
 - Ohiko etxean egindako inbertsioak, 391
- Prozedura administratiboa
 - Jakinarazpena, 374
- Salbuespenak
 - Lanpostua uztea, 374
- Zerga ordainketarako aukera, 200
- Plan berezia, 295**
- Plangintza**
 - Arau subsidiarioak
 - Lurzoru ez urbanizagarria, 292, 393
- Polizia**
 - Atxiloketak, 215, 395
 - Atzerritarrak, 394

- Identifikazioak, 390
 - Norberaren datuak ezabatzea, 218, 390
- Atzerritarrak, 75
- Identifikazioak, 390
- Salaketak, 390
- Polizia alorreko funtzio publikoa**
 - Lan-baldintzak
 - Baimenak, 373
- Prestazio ortoprotesikoak**
 - Osasun prestazioak, 277, 278
- Prezio publikoak**
 - Arrantza
 - Berdintasun printzipioa
 - Oinarrizko eskubideak, 391
 - Egoitzak
 - Adinekoak
 - Berdintasun printzipioa
 - Oinarrizko eskubideak, 438
 - Oinarrizko eskubideak
 - Berdintasun printzipioa
 - Igeritokiak, 190
 - Prozedura administratiboa**
 - Administrazio espedienteak
 - Eskuratzeko eskubidea, 253, 255
 - Agiriak
 - Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera, 384
 - Badaezpadako neurriak
 - Ibilgailuak erretiratzea, 426
 - Salmenta ibiltaria, 405
 - Trafikoa
 - Ibilgailuak erretiratzea, 208, 378, 387
 - Ediktu bidezko jakinarazpena
 - Trafikoa, 399
 - Egiaztagiriak, 378
 - Ekintza administratiboa
 - Trafikoa, 399
 - Elkarte publikoak, 269
 - Erantzukizun administratiboa, 385, 386
 - Espedientea eskuratzeko eskubidea, 257
 - Espedientea ikusi ahal izatea, 373
 - Herriaren Defendatzailea, 130
 - Isiltasun administratiboa, 380
 - Jakinarazpena
 - PFEZ, 374
 - Ondare erantzukizuna, 265, 379, 380, 398
 - Animalientzako biltegiak
 - Udal zerbitzu publikoak, 392
 - Babes ofizialeko etxebizitzak, 384
 - Elkarte publikoak, 387
 - Erabakitzeke betebeharra, 380
 - Udal zerbitzu publikoak, 375, 380, 393, 394, 396
 - Zerbitzu publikoak, 388
 - Premiamendu bidea
 - Ondasunen bahitura, 259, 386
 - Prozedura zigortzailea
 - Errugabe joa izateko eskubidea
 - Oinarrizko eskubideak
 - Zarama, 303, 377, 394
 - Froga
 - TAO, 377

Jakinarazpena
 Trafikoa
 Oinarrizko eskubideak
 Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 375, 376, 382, 385

Premiamendu bidea
 Trafikoa, 372
 Trafikoa, 214, 383, 390, 399

Prozedura zigortzailea

Froga
 TAO
 Prozedura administratiboa, 377
 Premiamendu bidea
 Trafikoa
 Prozedura administratiboa, 372
 Prozedura administratiboa
 Jakinarazpena
 Trafikoa
 Oinarrizko eskubideak
 Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 375, 376, 382, 385
 Trafikoa, 390, 399
 Trafikoa
 Prozedura administratiboa, 214, 383

S

Salaketak

Polizia, 390

Salmenta ibiltaria

Badaezpadako neurriak
 Prozedura administratiboa, 405

Saneamendua

Udal tasak, 381, 400
 Udal zerbitzu publikoak
 Herri lanak, 249

Sasoikako langileak, 41

Gizarte taldeak, 123
 Hezkuntza eskubidea
 Oinarrizko eskubideak, 43

Suhiltzaileak

Udal tasak, 394

T

TAO, 375, 398

Prozedura administratiboa
 Prozedura zigortzailea
 Froga, 377
 Trafikoa
 Berdintasun eskubidea
 Oinarrizko eskubideak, 211, 381
 Zigorra, 206

Tarifak

Bidaiarien garraioa
 Familia ugarien babesa, 385

Tasak

Gas naturala, 193, 389, 395

Titulartasuna, 398

Lursailak, 379

TMIZ

Salbuespenak
 Ezintasun fisikoak dituzten pertsonak, 203, 386
 Tarifak, 386

Trafikoa

- Oinarrizko eskubideak
 - Berdintasun eskubidea
 - TAO, 211, 381
 - Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea
 - Prozedura administratiboa
 - Prozedura zigortzailea
 - Jakinarazpena, 375, 376, 382, 385
 - Prozedura administratiboa
 - Ediktu bidezko jakinarazpena, 399
 - Ekintza administratiboa, 399
 - Ibilgailuak erretiratzea
 - Badaezpadako neurriak, 208, 378, 387
 - Prozedura zigortzailea, 214, 383, 399
 - Prozedura zigortzailea
 - Prozedura administratiboa, 390
 - Premiamendu bidea, 372
 - Zigorra
 - TAO, 206

Tratu txarrak

- Emakumeak, 225
 - Oinarrizko eskubideak
 - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 444
- Espetxeak, 225
- Gizarte taldeak, 123

Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea

- Giza eskubideak, 465
- Oinarrizko eskubideak, 465
- Prozedura zigortzailea
 - Jakinarazpena
 - Prozedura administratiboa
 - Trafikoa
 - Oinarrizko eskubideak, 375, 376, 382, 385

Txirotasuna, 126

- Errola, 392

U**Udal tasak**

- Estolderia, 400
- Hilerriak, 379
- Hileta-zerbitzuak
 - Zergabidezko kuota, 188
- Saneamendua, 381, 400
- Suhiltzaileak, 394
- Zarama, 400

Udal zerbitzu publikoak

- Animalientzako biltegiak
 - Prozedura administratiboa
 - Ondare erantzukizuna, 392
- Kalteordaina
 - Ur hornidura, 396
- Ondare erantzukizuna
 - Prozedura administratiboa, 375
- Prozedura administratiboa
 - Ondare erantzukizuna, 380, 393, 394, 396
- Saneamendua
 - Herri lanak, 249

Uraren kalitatea

- Urtegiak, 72

Ur hornidura

Udal zerbitzu publikoak,
Kalteordaina, 396

Urtegiak

Uraren kalitatea, 72

Z**Zarama**

Prozedura administratiboa
Prozedura zigortzailea
Oinarrizko eskubideak
Errugabe joa izateko eskubidea, 303, 377, 394
Udal tasak, 400

Zarata

Elkarteak
Hiri jarduera sailkatuak, 386
Gizarte aretoak
Hiri jarduera sailkatuak, 238
Hiri jarduera sailkatuak, 240, 378
Musika ekipoak
Hiri jarduera sailkatuak, 237, 241, 375, 376, 386
Neurri zuzentzaileak
Hiri jarduera sailkatuak, 376, 378
Ogibitarteko-tabernak
Hiri jarduera sailkatuak, 376
Ostalaritza establezimenduak
Hiri jarduera sailkatuak, 393

Zerbitzu publikoak

Prozedura administratiboa
Ondare erantzukizuna, 388

Zerga ordainketarako aukera

PFEZ, 200

Zergagaia

Ordaintzera behartutakoak, 191

Zergak

Suzesioak eta donazioak
Zergagaia, 199

Zigorra

Trafikoa
TAO, 206

Zigorra arintzea

Espetxeak, 225

Zigorra non bete

Espetxeak, 225
Espetxeratuak, 39

Zuzenbide Estatuaren informatzeko printzipioak

Arauei publizitatea emateko printzipioa
Aldizkari ofizialak, 391